

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bergara



Aurkibidea

Udalerria: Bergara

Sarrera



Hedadura handiko udalerria da eta hainbat auzo ditu. Horien artean Ubera, Angiozar eta Elosu nabarmendu behar dira, historiaz eta hizkeraz bereziak direlako. Bergarako Udalak indar eta ahalegin berezia egin du herriko hizkera jaso eta zabaltzeko. Besteak beste, toponimia, lanbide zaharrak, euskalkia eta hiztegia jaso ditu. Azken urteotan, 30 urteotan egindako grabazio guztiak jaso eta landu dira Ahotsak proiektuan.

- **Biztanleak:** 14.576
- **Euskaldunak:** %66,4

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **197**
- Zintak: **321**
- Pasarteak: **3.846**
- Transkribatutakoak: **672**
- Audioak: **583**
- Bideoak: **2.721**

Proiektuak

- 101L - Herriz herri
- 60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980
- Alex Artzelus Mujika
- Antzin eta Urdirozko udalekuen historia
- Artzantza Bergaran
- Bergara aldeko hiztegia
- Bergara inguruko kanta zaharrak
- Bergarako emakumea eta lana
- Bergarako euskara
- Bergarako hitzaldien grabazioak
- Bergarako toponimia
- Berriz 1936 gogoratzen
- Bittor Kapanaga, Otxandioko aztia
- Burdina: errementariak eta perratzaileak
- Deba Eskualdeko Ahotsak - Bergara.
- Deba Eskualdeko Ahotsak - Elgeta.
- Dialektologia-EHU
- Eibarko ondare industrialala
- Elgetako memoria

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskal Herriko txori eta animaliak
- Euskararen historia soziala Bergaran
- Fondo partikularrak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma
- Karobiak, txondorak eta elurzuloak
- Linua, ehuna eta artilea
- Mondragon Unibertsitatea
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- SOKA: Euskal Dantzaren Urratsetan
- Zura: arotzak eta etxegileak

Hizlariak

Margarita - (1907)

Anizeta Agirre Elkoroiturbe (1888-1992)



1888an Osintxuko Laudatz baserrian jaioa. Handik, Ola baserrira joan zen bizi izatera eta hamar urterekin auzo berean dagoen Galartza baserrira joan zen neskame. Han urte batzuk pasatu ondoren, Bilbora joan zen orduan ere neskame, Jose Felix Lekerika, gerora NBEko enbaxadore izango zenaren etxera. Osintxura bueltatu zenean, ezkondu egin zen eta handik bi urtera alargun gelditu zen. Berriz ere ezkondu eta kalean, Tejerokuan, bizi izan zen denboralditxo batez. Gero Bolu baserria erosi eta bertan bizi izan zen hil arte.

Mercedes Agirre Elkoroiturbe (1899-1994)

1899an Osintxuko Laudatz baserrian jaioa. Bergarako Ahozko Bilduman entzungai dagoen Anizeta Agirrerren ahizpa zen. Gaztetan Madrilera joan zen lanera. Olan bizi izan zen, eta gerora Osintxuko kalera joan zen bizi izatera.

Ramon Agirre Irasuegi (1935)



Elorregi (San Prudentzio) auzoko Kotzabal (Gorosabel) baserrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Aramaiokoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Juan Antonio Agirre Oteiza (1927)

Begarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Sebas Agirre Unamuno (1956)



Narbaiza Bolu baserrian jaioa, San Juan auzoan, lau senidetan bigarrena. Aita bertakoa zuten eta ama, berriz, Aldai-Egikoa. Auzoko eskolan ibili zen 8 urtera bitarte, eta ondoren herriko eskolara joan zen, San Pedrora. Elementalean jarraitu zituen ikasketak, eta gero baita Arrasateko Eskola Politeknikoan ere. Hori bai, euskalgintzan egin du lana betidanik: 1982tik, HABEn. Gaztetxotan hasi zen euskara irakasten, gau-eskoletan, institutuan... kulturgintzan ere aritu zen. Laboratorium museoan egindako elkarrizketa.

Gloria Agirrebeña Lizarazu (1912-2012)



San Antonio kaleko 7. zenbakian jaio zen. Aita Bergarako San Antonio auzoko Gaberixa baserrikoa eta ama Beasaingo Astigarreta auzokoa zituen. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Lau urtetik hamalau urtera arte Enseñanzako mojen eskolan ibili zen. Tejeduria lantegian egin zuen lan urtebetez ehungintzan. Gero etxera itzuli eta josten aritu zen aldi batean, harik eta Orueta medikuaren etxean Tabakalerak zuen biltegian lanean hasi zen arte. Tabakalera jubilatu zen, bertan 44 urte lanean eman eta gero. Gloria ez da inoiz ezkondu. Bere kasa konpondu izan zen 95 urte zituen arte. Elkarrizketa egin zitzaionean, Mizpirualde egoitzan bizi zen.

Elisabet Agirrezabal Arrese (1919-2018)



San Antonio auzoan jaio zen, sei anai-arrebatatik gazteena. Gurasoak ere bergararrak zituen. Mojetan ikasi zuen sei urtetik hamabostera bitartean. Gerra denboran, Bergaran bonbardaketak zirenean, Antzuolan gordetzen ziren. Elisabeten ahizpa bi gogor zigortu zituzten EAJko emakumeen batzordeko kideak izateagatik. 19 urterekin, Elisabet Aretxabaletako "Industrias Beroa" lantegiko bulegoan hasi zen lanean, Espainiako armadarentzako sukaldeko mahairako tresneria egiten, besteak beste. Bere mobylette motorrean zihoala, istripu larria izan zuen. Geroago autoa erosi ahal izan zuen. Enpresako idazkaria zela, Donostiara eraman zuten lanera, eta han bost urte pasatu ondoren Bergarara itzuli zen, "Bergara Textil" lantegiko enpresa-kudeatzaile bezala. San Antonio auzoa garai batean nolakoa zen azaltzen du. Elisabeteren iloba Luis ere egon zen lehenengo elkarrizketan.

Maria Luisa Alberdi Arroitauregi (1925-1999)



Iurretako Oromiño auzoan jaio zen, nahiz eta oso txikitatik Mañarian bizi. 25 urte zituela ezkondu zen eta Ubera auzoko Egurbideaundi baserrira joan zen bizitzera. 5 seme-alaba izan zituen. Baserriko lanak egin eta plazan barazkiak saltzen zituen. 1983an kanta zaharrak batzeko bi grabazio egin zitzaizkion eta honako kantak abestu zituen, besteak beste: "Begire nago begire", "Antontxu zera zu", "Abadiño San Blasetan"... Bi grabazio horietako batean Mertxe Olabe eta Bittori Aranburu ere azaltzen dira eta bestean Carmen Gaztelu.

Jesus Alberdi Garbizu *Egileor* (1931-2008)



Elosuko Egileor baserrian jaioa 1931ko urtarrilaren 6an, baina gazterik Osintxura joan zen bizi izatera. Lehenagoko kontuak eta ohitura zaharrak ongi gogoratzen ditu eta oso hiztun ona da. Osintxutik Bergarara joan zen bizi izatera. Bertsolari ezaguna izandakoa, gai horren gainean ere azalpen interesgarriak eman zizkigun.

Koldo Alberdi Larrañaga *Egileor II* (1960)



Osintxu auzoan jaioa, 5 urte zituenean Bergarako herrigunera joan ziren bizitzera. Guraso biak Elosukoak zituen, ama Narbaiza baserrikoa eta aita Egileor baserrikoa: [Jesus Alberdi "Egileor"](#) bertsolaria. Herri eskolan ikasi zuen 15 urtera arte eta gero Bergarako Elementalean. Aitaren pausoei jarraituz, Koldo ere bertsolaria da: 1980ean kantatu zuen lehen aldiz jendaurrean eta 1988rarte ibili zen plazetan. Bergarako bertso eskolaren sorreran ere hartu zuen parte, Pello Txintxurreta eta Aitor Aginagalderekin batera. Elkarrizketan [Jose Luis Gorrotxategi](#) bertsolaria zegoen.

Evaristo Alberdi Oruesagasti (1926)



Osintxuko Orontzola "Ontzola" baserrian jaioa 1926ko urrian, oraindik ere bertan bizi da. Aita Osintxukoa bertakoa zuen eta ama, berriz, Soraluzeakoa. Bizi guztian baserrian lan egin du eta, hortaz, baserriko bizimoduarekin zerikusia duten kontu asko ezagutzen ditu. Oso hiztun ona.

Martin Albisua Larrea (1918-1996)



1918ko azaroaren 18an jaio zen Elorregiko Elkorobarrutia baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama Urrexolakoa. Josepa Gorosabelekin ezkondu zen, eta honen jaiotetxera, Elkorora, joan ziren bizi izatera. Handik urte batzuetara, Bergarako San Antonio kalera joan ziren bizitzera eta bertan eman zituen bere azken urteak. Ikazkintza lanean hainbat urtetan jardun zuen; Josepa Gorosabel bere emaztea ere aritu zen langintza horretan.

Juana Aldazabal (1929)

1929an jaio zen Basalgo auzoan, baina Osintxuko Eguzkitza baserrian hazitakoa da. Bertan bizi izan zen Iturbegieta ("Iturbitta") baserrira ezkondu arte. 1995ean Felipe Gisasola senarrarekin batera egin zitzaion grabazioa "Linua, ehuna, artilea" libururako.

Jesus Mari Altube Allbisua (1939)

Basalgo auzoko Lezarri aurtengoa baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Juan Aristimuño eta Benigno Urrutiarekin batera egin zitzaion grabazioa.

Mertxe Altube Belar (1950)



Begarako Angiozar auzokoa. San Juan sortaren inguruko azalpen zehatzak eman zituen grabazio honetan.

Felipe Altuna Egidazu (1929)



Elorregi auzoko Bekoetxe baserrian jaio zen 1929an. Aita bertakoa zen, eta ama Arrasateko Arrue baserrikoa. Oñatiko maristetan ikasitakoa. Aitonari eta gurasoei entzundako kontuak oso ongi gogoratzen ditu. Barrenaberri baserrian bizi izan zen. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Dolores Altuna Garitano (1929)



Barrenkalean jaiotakoa. Aita, Jose Altuna, errementaria zen. Bilbon ikasi zuen ofizioa eta gerora Bergaran jarri zuen tailerra. Ama ere (Katalin Garitano) gaztetan sukaldari egon zen Bilbon etxe batean. Compañía de Marían egin zituen Doloresek ikasketak. Geroago, Oregiren ehun-lantegian hasi zen lanean.

Maria Paz Alustiza Larrañaga (1945)



Guraso biak Zubietakoak zituen. Aitari *Giputxi* deitzen zioten, eta elektrizista zen. Ama, berriz, jostuna. Sei senidetik bi umetan hil ziren. Bera eta bere bizkia, Maria Rosa, txikienak dira. Umetan Enseñanza ikasi zuen, eta zazpi urterekin Bilboko moja ikastetxe batera bidali zituzten interna. Hamabi bat urterekin istripu larria izan zuen, eta ohetik mugitu ezinik egon zen denbora askoan. Marrazten hasi zen, orduan. Bilboko akademia batean pintura ikasten egon zen bi urtean, eta 18 urterekin Arrasateko eskola profesionalean hasi zen. Delineante ikasi zuen, eta General Mecanican hasi zen lanean. Denbora librean umeei pintura klaseak ematen aritzen zen. GMn 13 urte egin ostean, Algodoneran ibili zen, bulegoan, produkzio lanetan. Bergarako artisten taldea osatu zutenean, bera zen emakume bakarra. Hainbat pintura lehiaketatan parte hartu du, baita sariak irabazi ere. Erakusketa batzuk ere egin ditu. Oraintsu arte ibili da pintura klaseak ematen. Gaztelaniaz hobeto moldatzen da euskaraz baino.

Maria Alzelai Irazola (1908-2000)

San Migel auzoko Saizabalen jaioa, gerora Bergarako Mizpirualde egoitzan bizi izan zen.

Agustin Amasorrain Linazisoro (1950)



Labe Garaietako etxe berrietan jaioa. Aita zerrajeran zebilen lanean, aitajauna bertako buruetako bat baitzen (Arrasatetik Bergarara joana). Amaren aldetik, berriz, aitona Zumaiatik joan zen Bergarara, eta Batzokiko presidentea izan zen gerra aurrean; aitona-amonek antzerkia egiten zuten. Agustinek bere familiari eta osaba Txomin Amasorraini buruzko hainbat kontu kontatzen ditu elkarrizketa honetan. 13 urterekin, osabarekin eta Josu Oregirekin hasi zen alfabetatzen Agustin. 18 urterekin, Simon Arrietaren pintura akademian hasi zen, eta artista mugimenduaren parte bihurtu zen (Beart elkarteko kidea da). Horri buruz ere hitz egiten du. Ingenieritza ikasi zuen Donostian, eta hainbat kooperatibatan egin du lan (besteak beste, Oronako jerentea izan zen).

Bittor Aperribai Abasolo (1923)



Basalgo auzoko Lonbide baserrian jaio zen. Aita Eskoriatzako Mazmela auzokoa zen eta ama, berriz, Otxandiokoa. Bittor Basalgoko auzo-eskolan ibili zen 10 urtera arte. Gerra denboran kalean egon ziren zazpi hilabetez. Gerra ondorenean, baserria utzi eta Zubieta kaleko kale-baserri batera joan ziren, behi bat eta astoarekin. Ortu sail handiak landu zituzten bertan. Soraluzeko Gallastegi lantegian ekin zion lanean, labanak egiten lehenengo eta bizikletak geroago. Loroño eta Langarika txirrindulariak Gallastegi markarekin lehiatutakoak izan ziren. Bergarako "Textil Mugarza" arropa tindatze lantegian eman zituen 24 lan-urte Bittorrek. Tindatze prozesua zehazki azaltzen du. Ondoren, Asa lantegian hasi eta jubilatuta arte jardun zuen bertan, pieza txikiei bainu metalikoak ematen. Oñatiko Patrua kaleko Isabel Maiztegirekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten. Bittorren seme Jose Iñazio ere egon zen elkarrizketan.

Maria Luisa Arabiourrutia Gorroño (1927-2018)



1927an jaio zen Berrizen, Zapateruena baserrian. Ama Murgoitio auzoko Gorroñonekoa zuen eta aita Gaztelukoa. Aitaren aldeko amama Betzuen baserrikoa zen. Errepublikara garaietan, 1931. urtean, Bergarara joan ziren bizitzera. Gerra sasoiaren ihesean ibili ziren. Lehenengo Berrizen egon ziren, Gorroñonean; Durangoko bonbardaketa ostean, Oromiñora, Trazola baserriara. Berriz 1936 gogoratzen elkartekoekin egin zioten elkarrizketa, gerrako kontuak jasotzeko.

Bitori Aranburu Altube (1934)



Ubera auzoko Posada baserrian jaiotakoa. Baserri honek argiari sartzen uzten dion zulo txiki bat zuen egurrezko baoguneen artean, eta etxaurrean labea babesten duen estalpea. Ezkondu ondoren Markieginagusi baserrira joan zen bizi izatera. 1983an Bergara aldeko kanta zaharren bilketa-lanerako egin zitzaion grabazioa, eta kanta hauek abestu zituen: Errege don Felipe; Andra Josepa tronpetan; Atxia mutxia peroripan; Dingilin dingili mailla; Gaztia nintzarian; Gabon Gabon; Gure mutiko txikixen honi. Grabazio berean Mertxe Olabe eta Maria Luisa Alberdi ere agertzen dira. 2017an berriro elkarrizketatu genuen, baina bakarka eta bideoan.

Genaro Aranburu Victoria (1946)

Goimendi auzoko (berez Basalgo) Gaztandola baserrian jaioa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Elkarrizketan bere koinatu Ramon Osoro ere azaltzen da.

Jose Mari Arando Zangitu (1934)

Bergarako Mekolaldeko Galartzaberri baserrian jaiotakoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Galartzazahar baserriko Jose Mari Zenitagoiarekin batera egin zitzaion grabazioa.

Carolina Aranzabal

Luis Aranzabal Gabilondo (1922-2009)



Bergarako Ubera auzoko Agirregoikoa baserrian jaio eta bertan bizi izana. Ume-umetatik artzain ibilitakoa, artzaintzarekin zerikusia duten kontuak oso ondo ezagutzen ditu. Gerra garaian, soldaduak etxe inguruan izan zituzten eta oso ondo gogoratzen du sasoi hura. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean ere berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Paulo Aranzabal Ojanguren (1942-1998)

Bergarako Angiozar auzokoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Eustakio Arbulu Gallastegi (1928)

Ubera auzoko Urrupain gainekoa baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Julio Arbulu Gallastegi Aita Julio (1936)

Julio Arbulu Gallastegi, Ubera auzoko Urrupain Gainekoa baserrian jaio zen 1936ko azaroan, gerrako bi fronteen artean: Intxortan errepublikarrak eta beste aldean nazionalak. Hamaika urterekin fraide izateko ikasketak hasi zituen 1962tik gerotik Eibarko Karmeldar egoitzako abade eta fraidea izan zen eta lan handia egin zuen orduan Eibarrera masan joandako etorkinekin: helduen alfabetizaziorako gau-eskolak, zinema haurrentzat, diru-laguntzak presoentzat...



Ego Ibarra Batzordearen (Eibarko Udala) "60ak eta Trantsizioa Eibarren: 1968-1980" proiektuaren baitan egin da elkarrizketa

Maria Argialde Azalza (1917)

Bergaran jaio zen 1917an. Gurasoak biak Altos Hornosekoak zituen. Bera Bolu baserrira ezkondu zen. Baserriko lanez gainera, errotarekin zerikusia zuten hainbat eginkizun oso gertutik ezagutu zituen, baita egin ere. Gerra garaian urte latzak bizi izan zituzten: errotak itxi zituzten, eta zailtasun ugari pasa zituzten.



Felix Aristegi Agiriano (1920-2018)

Goiauzoko Aizpe baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Juan Aristimuño Kortabarria (1938-2000)

Basalgo auzoko Belastegi bolu baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Jesus Mari Altube eta Benigno Urrutiarekin batera egin zitzaion grabazioa.

Maria Victoria Arizmendi Azpiazu (1924)



Barrenkalen jaioa. Aita Elgoibarkoa zuen, Untzon baserrikoa, ogibidez bihurtua, eta ama Bergarakoa. Zortzi senide ziren. Ume-umetan ospitalean ibili zen, eta gero Enseyntzan. Hantxe bertan kontabilitatea, takigrafia eta mekanografia ikasi zituen, partikular. Batxilerra egiteko beka eman zioten mojek, ikasteko balio zuelako; Donostian bukatu zuen batxilerra, eta Valladoliden egin zuen azterketa. Donostian atera zuen Magisteritza titulua, bere aldetik prestatuta. Etxean hasi zen klaseak ematen, eta gero akademia jarri zuen Lide Mujikarekin batera. Ikastola sortu zenean, bertako andereño bihurtu ziren biak. Ezkondu, eta seme bat eta alaba bat izan zituzten. Familia abertzalekoa.

Migel Arregi Iburguren (1942)

Goiauzoko Idurio (Idurixo) berri baserrian bizi da. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Klementa Arregi Lamariano (1924-2007)



1924an Goi-auzoko Idurio baserrian jaioa, ezkondu ondoren Ubera auzoko Artiz baserrira joan zen bizi izatera. Bergarako euskara jasotzeko bere seme Juan Martin Elexpuruk egindako ikerketa lanean laguntzaile garrantzitsua izan zen.

Moises Arriaran Iñarra (1930)

Goiauzoko Egiño baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Iñaki Arriaran Muruamendiaraz (1946)

Zubieta auzoan jaioa, zubi ondoko etxean. Ama Mitxegi baserrikoa zen eta aita sastrea. Bi senide ziren. Seminarioan egin zituen lehen ikasketak, fraide batekin, eta ondoren eskola publikoan ibili zen. Marrazketa klasetara ere joaten zen, iluntzetan. 13 urterekin hasi zen lanean, banku batean. 18 urterekin Ernai antzerki-taldean hasi zen. Musikagintzan ere ibilbide polita egin zuen. Umetatik gustatzen zitzaizkion musika eta kantua. Lagun Artea abesbatzan ibili zen, eta gero Ameslariak boskotea sortu zuten. Herriz herri ibili ziren bi urtean, jaialdietan kantatzen, besteak beste Ez Dok Amairukoekin. Bakarlari moduan aritu zen gero, eta Los Mansos taldeko kide batzuekin ere ibili zen (Iñaki Arriaran y Los Mansos). Akelarre erromeria taldearen sorreran ere hartu zuen parte, eta Ariznoa diskotekako orkestran jo zuen hainbat urtean. Donostian bizi da aspalditik.



Garbiñe Arrieta Astiazaran (1927)



Nati Arrieta Larrañaga (1940)

Angiozar auzoan jaio zen 1940an. Euren etxeari "Errementarikua" deitzen zioten, aita errementaria zelako. 6 anai-arrebatatik azken aurrekoa da bera. Angiozarren bertan ibili zen eskolan eta 13 urterekin Arrasatera joan zen neskame. Bertan egon zen ezkondu artean. Ezkondu zenean senarraren baserrira joan zen bizitzera Elgetara.



Puri Arrondo Odriozola (1952)

Zubieta kalean jaioa, familia abertzale batean. Hiru senidetan txikiena. Kontxita Maiztegiren eskolan ibili zen, eta ondoren urtebete egin zuen Frantzian, au-pair moduan, frantsesa ikasten. 17 urterekin Textil Vicente Aranzabal lantegian hasi zen lanean. 1967 urte inguruan losu Oregirekin euskara ikasten ibili zen, eta 1969 urtetik 1974 urte alderarte Juventudes Parroquiales taldean aritu zen, kultur ekintzak antolatzen. Elkarrizketaren zati bat Karmentxu Zelaia lagunarekin batera egin genion.



Matias Atorrasagasti Gantxegi (1920-1999)

Harane auzoko Harane Igeltsola baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Jazinta Atxotegi Askasibar (1923-2006)

Angiozar auzokoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Lucio Atxotegi Askasibar (1922-2002)

Angiozar auzokoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.



Gregori Azkarate Alberdi (1911)

1911an jaioa, Tomas Azkarate, Zubiaurreko ferratzailea izandakoaren alaba.



Angel Azkarate Elkoro (1922)

Begarako Masterreka kalean jaio zen. Aita antzuolarra zuen. Gazte-gaztetatik aitaren ofizioa ikasitakoa eta arotzerian lanean ibilitakoa.

Miren Azkarate Urkiola (1929)

Bidekruzetan bizi izan zen umetan, gero Masterrekan eta ondoren Txomin Irala kalean. Ama baserritarra zen, jostuna izandakoa zen gaztetan; aitak Alcorta y Compañía (gero Narbaiza) ehun-lantegian ziharduen lanean. Lau anai-arrebatan zaharrena zen. Enseyntzan ikasi zuen lau urtetatik 14 bitartera. Kontabilitatea eta mekanografia ere ikasi zituen. Orduan aita hil zitzaion, eta familia aurrera ateratzeko lan egin beharra egokitu zitzaion. Tela-denda jarri zuten amarekin. Gero, josten ikasi zuen; baita arropa mozten ere. 45 urtean jardun du jostun moduan lanean. Josten ere irakasten zuen. Ezkondu, eta hiru seme-alaba izan zituzten.



Anjel Azkarate-Askasua Lamariano (1928)

Bidekurutzeta kalean jaio zen. Aita "Beittibar" (Beretzibar) baserrikoa zen, eta ama, berriz, antzuolarra. Hiru urtetik hamarrera Antzuolan bizi izan zen Anjel. Antzuolako maristetan eta Bergarako bai marianista eta bai dominikoeekin (seminarioan) ikasi zuen. Hamasei urterekin "Banco de Vizcaya"n ekin zion lanean. Bankuaren Soraluzeko bulegora bidali zuten, eta Soraluzeko lantegi txiki batzuetako diru-kontuen ardura ere izan zuen. Garai hartan bankuek nola egiten zuten lan azaltzen du. Gero, Bergarako Comesa lantegiko bulegoan egin zuen lan. Bergarako Irala zine aretoa Anjelek ireki zuen, eta harrezkero bertako Novedades zinea eta inguruko herrietako beste zine areto batzuk ere kudeatu zituen. Bergarako kontu asko aipatzen ditu: Bergarako zapatagintza lantegiak, Bergarako pilotalekua ospetsua zenean erakartzen zuen jendea, etab. Marce Albeniz nafarrarekin ezkondu zen eta seme-alaba bi izan zituzten.



Joxe Badiola Gabilondo Itsumendi (1926-1998)

1926ko martxoaren 2an jaio zen Elosuko Bentoste baserrian eta bertan bizi izan zen. Azken urteetan Azkoitian, kalean, bizi izan zen. Urte askoan ikazkin lanean ibili zen Elosu inguruko basoetan. Beronek egin zuen azken txondorra 1974an Bergarako plazan; zeregin haietan bere lehengusu Felix Badiolak lagundu zion.



Maite Barrena Aranburu (1948)

Infernukua etxean jaioa, aita Arrasatekoa zuen eta ama Bergarakoa. Frontoiko eskolan ibili zen, Kontxita Maiztegiarekin, 9 urtera arte eta ondoren Mariaren Lagundian egin zuen Batxiler Laborala. Gometza enpresan egin zuen lana 1977 arte eta azken urteetan Mankomunitatean. Maite oso gaztetan hasi zen dantza irakasle moduan, gero bere senarra izango zen [Jabier Mendizabal](#)ekin batera. Elkarrekin elkarrizketatu ditugu, Bergarako dantza kontuak jasotzeko.



Erritxe Barrenetxea-Arando Azkargorta (1924-2009)

Begarako Zubieta kalean jaio zen. Aita Periko "Arandonekoa" zuen eta hargina zen; ama Damiana Azkargorta zen, Ipintza baserrikoa. 5 anai-arreba ziren. Eskolako urte gehienak mojekin egin zituen. Gazte-gaztetatik "Arando" tabernan lan egindakoa da.



Gotzon Barrenetxea-Arando Azkargorta (1923-2012)



Zubieta kalean jaio zen 1923ko urriaren 6an. Aita Periko "Arandonekoa" zuen, eta ama Damiana Azkargorta, Ipintza baserrikoa. Ohitura zaharrari eutsiz, oraindik ere gurutzak egiten ditu erramu eta ereinotzarekin, eta bedeinkatu ondoren banatu egiten ditu senide eta ezagunen artean.

Mariñe Barrenetxea-Arando Azkargorta (1917-2013)



Bergarako Zubieta kalean jaio zen. Aita Periko "Arandonekoa" zuen, eta ama Damiana Azkargorta, Ipintza baserrikoa. Aita hargiña zen, baina gazterik hil zen. 5 anai-arrebatatik nagusiena zen Mariñe eta aita hiltzean behean bizi ziren osaba-izebekin joan zen bizitzera, haiek ez baitzuten seme-alabarik. Hau dela eta, gazte-gaztetatik osabarena zen "Arando" tabernan lan egindakoa da.

Dominga Beitia Urkia *Domi* (1936)



Ama Aretxabaletako Larriño auzoko Kakotegi baserrikoa zen, eta aita Oñatiko Araotz auzoko Saratxo baserrikoa. Araozko Agerre Azpikoa baserrira ezkondu ziren, eta bertan jaio zen Domi. Zortzi anai-arrebaren artean seigarrena izan zen. Hamabi urte arte ibili zen Araozko eskolan. Gero, amaren jaiotetxera bidali zuten neskame hamabost urte izan zituen arte. Barrikako abade-etxean ere egon zen urte eta erdiz, ahuntzak zaintzen, bere izeko abadearen "amakasa" zen eta. Handik etxera itzuli eta Bergarako Oregiren etxean jardun zuen sukalde lanetan hiru urtez, ezkondu zen arte. Angiozarko Hirukotxo baserriko Leon Aranzabalekin ezkondu zen eta Angiozarko Munabe Argietxera joan ziren bizitzera. Bi seme-alaba dituzte.

Ixabel Belar Olabarria (1914-2016)



Begarako Angiozar auzoko Goimendi auzuneko Gontzarrikoa baserrian jaio zen. Aita etxekoa zen eta ama Bergarako Agerre baserrikoa. Gazte hil ziren senar-emazteak eta bi seme-alaba utzi zituzten. Zazpi urtetik hamalau urtera arte Angiozarreko eskolan ikasi zuen, Katalina maistra uberarrarekin. 18 urte arte baserrian egon zen. Lehenengo Lasa jatetxean, gero Donostian eta Madrilen ("Conde de Llobregat"en etxean) jardun zuen neskame bezala. Gerra hasi zenean etxera itzuli eta gerraostean Bergarako Artetxetarren etxean jardun zuen neskame ezkondu zen arte. Angiozarko Zulueta Gaineko Gregorio Altuberekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

Gotzon Bikuña Agirre (1948)



Bidegurutzetan jaioa, ama bertakoa zuen eta denda zeukaten: Graciano Agirre drogeria. Aita Zubizar baserrikoa zen, arotza. Gotzoni umetatik egokitu zitzaion dendan eta arotzerian laguntzea. Herri eskolan ikasi zuen eta gero maestria Elementalean. Ondoren General Mecánica enpresan hasi zen lanean. Urretxindorrek musika-taldeko kidea izan zen, 60ko hamarkadan ospea izan zuen Bergarako taldea. [Rosa Narbaiza](#) emaztea ere elkarriketatu dugu.

Juantxo Billar (1910)




Begarako San Juan auzoko Irazabal baserrian jaio zen. Elgetako Egotxeaga baserrian bizi izan da umetatik. Ofizio asko izan dituen arren, esperientzia zabaleko ebanista eta arotza. Azken 40 urteetan mintegi eredugarri baten jabe izan da.

Roman Ceciaga Inza (1964)

Aritzetako San Migel auzoko Uribetxeberri baserrian jaioa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Iñaki Erañarekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Inazio Eguren Bilbao (1916-1997)

Juan Martin Elexpuru Arregi (1950)



Idazlea eta itzultzailea. "Bergara aldeko lexikoa" izan zen bere doktoradutza tesia (EHU-1996). Bergarako UNEDeko kide gisa, departamentuak lan ugari bideratu zuen herri-euskara jasotzera eta ikertzera. *Begarako euskera* (1988) liburua eta *Begara aldeko berbak eta langintza zaharrak* (1997-2002) proiektua, lau liburukitan argitaratu zena, zuzendu zituen, eta *Begara aldeko hiztegia* (2004) liburuaren egilea da. Badiharduguko kidea sorreratik. Hainbat proiektutarako elkarriketatu dugu, besteak beste literaturaren historia eta Bergarako euskalgintzaren historia jasotzeko.

Martin Elgarresta Gabilondo (1937)



Basalgo auzoko Arangurentxo baserrian jaio zen. Aita bertakoa eta ama Buruñao auzoko Ziarreta baserrikoak ziren. Hiru anai-arreba izan ziren, bera erdikoa. Bost urterekin Basalgoko eskolan hasi zen, Migel Elorza maisu oñatiarrarekin. Hamabi urterekin Gasteizko Jesus Obrero jesuiten eskolara joan zen bi urterako. Etxera itzuli eta baserrian lan egin zuen. Esnea, gazta, barazkiak eta su-egurra saltzen zuten kalean. Berrogei urterekin Oñatiko Lana kooperatiban hasi zen eta bertan jardun zuen erretiratu arte. Elorrioko Gazeta auzoko Markiñakua baserriko Pilar Ibarrondorekin ezkondu zen. Alaba bat izan zuten.

Eulalia Elkoro Ugarte (1921-2012)



Bergaran jaiotakoa Masterreka kalean, Jauregi etxean. Bizitza osoa janari-dendan lanean pasa zuen, Masterreka kaleko 30. zenbakian. Hizlari ona; Bergarako lehenagoko kontuak oso ongi gogoratzen zituen.

Jose Luis Elkoro Unamuno (1935)



Elgetan jaioa, bertako eskolan egin zituen oinarrizko ikasketak. 11 urterekin interno bidali zuten Gasteizera, Batxilergoa egitera. Gogorra egin zitzaion hango giroa, erabat erdalduna. Bueltan, aitarekin hasi zen lanean tailerrean. 18 urtetatik Bergaran egin du bizimodua. 27 urterekin Elay enpresa sortu zuen, Antzuolan, euskara-plan aitzindari bati esker gaur egun euskaraz funtzionatzen duena. Enpresari bezala ez ezik, herrigintzan eta politikagintzan ere nabarmendu da Jose Luis. Birritan izan zen Bergarako alkate. Alkartunahi elkartearen ordezkari gisa hasi zen zinegotzi lanetan eta, alkate izendatu zutenean, hainbat proiektu ipini zituen martxan herrian. Alkate Mugimendua ere sortu zuten, Euskal Herri mailako aldarrikapenekin. Amnistiaren aldeko batzordean parte hartu zuen, ikurriñaren legeztapena negoziatu, Xiberta negoziazio-mahaia antolatu... 1977n Herri Batasuneko sorreran egon zen eta geroztik ibilbide luzea izan du ezker abertzalean: Madrilen diputatu, Gasteizen legebiltzarkide, Gipuzkoan batzarkide... Hainbat saiakera egin zituen ETaren eta Espainiako gobernuaren arteko konponbidea lortu nahian. HBko Mahai Nazionaleko kide izateagatik kartzelaratu zuten, eta 18/98 auziarekin lotuta ere zigortu zuten. 'Egin' egunkariko administrazio kontseiluko presidentea izan zen. Bereziki 80ko hamarkada bitarteko kontuak jaso ditugu egin dizkiogun bi elkarrizketetan.

Miguel Angel Elkoroberezibar Larrañaga (1966)



Idazlea eta ikerlaria. Aita Zubikoa baserrian jaioa zen eta ama Harruriaga kalean; Frontoiko etxeetan bizi ziren. Miguel Angelek Koldo Eleizalde ikastolan eta Aranzadi ikastolan egin zituen ikasketak, eta Serafin Esnaola apaiz euskaltzalearekin harreman handia izan zuen. Hari buruzko liburua idatzi zuen, eta elkarrizketa honetan hainbat kontu kontatzen ditu. [Maripaz Alustiza](#)rekin ere ibili zen, pintura ikasten, eta Bergarako arte mugimendua ere ondo ezagutzen du. Ingeles Filologia ikasi zuen, Bilbon, eta literatur aldizkari bat ere sortu zuen (Enseiucarrean); literatur aldizkariak ere aztertu ditu. 'Berrigara' herri aldizkariaren sortzaileetako bat ere izan zen. Domingo Mtz de Irala konkistatzaile bergararraren bizitza ere ikertu du.

Emeterio Elkoroberezibar Odrizola (1931)



San Lorentzo auzoko Zubikoa baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama berriz, Oñatiko Aixkirri baserritik etorritakoa. Hamazortzi urte arte eskolatu zen, Bergarako marianista, San Viator eta dominikoen ikastetxeetan. Harrezkero baserrian geratu zen, familiaren baratzezaintza jarduerari jarraipena ematen. Orturako landareak eta ortuko gauzak landu eta saltzen zituzten Zubikoakoek. Inguruko herrietako azoketan ezaguna zen Zubikoako produktuen kalitate ona. Urbanizazioa zela eta, baserri zaharra bota egin behar izan zuten, eta erreken beste aldean eraiki zuten berria. Baratzezaintzan eta azoketan salmentan jardun du Emeteriok ia bizi guztia, eta jarduera hauetaz hainbat kontu interesgarri kontatzen ditu.

Juana Elkoroiribe Lizarralde (1899-1995)



1900ean jaio zen Aldai auzoko Beitzibar-erdikoan (Berezibar). Aita bertakoa zuen eta ama Antzuolako Iturriotzekoa. Aldai auzoko Eudi (Eduegi) baserrira ezkondu zen eta bertan bizi izan zen 1995ean hil zen arte.

Joxe Mari Elortza Gabilondo (1950)



Bidegurutzetan jaioa. Aita bertakoa zuen, eta Lasagabaster ehun-lantegian egiten zuen lana. Ama Bergaran jaioa zen, baina Antzuolako Gorla baserrian bizi izandakoa. Bost senidetan gazteena zen Joxe Mari. Bergarako eskola publikoan ibili zen lehenenego, gero Eibarko La Sallen, eta Valladolidera joan zen Kimika ikastera. Euskaltzaletasunak bultzatuta, bueltan Bergarako ikastolan egon zen irakasle moduan. 1976an, berriz, Donostiako EHUra joan zen, eta Kimikako fakultatean jardun du erretiroa hartu arte. Aitzindarietako bat izan zen klaseak euskaraz ematen. Kimikako hainbat liburu itzuli eta idatzi ditu euskaraz, eta 2012an CAF-Elhuyar saria eman zioten euskarazko testugintzan egindako lanarengatik. Rosa Mari Areizagarekin ezkondu zen eta bi seme-alaba dituzte.

Benita Epelde Bergaretxe (1932)

Osintxu auzoko Olabarri baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Iñaki Eraña Lizarralde (1962)

Aita eibartarra eta ama Bergarakoa ditu. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Roman Ceciagarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Euskal Udalekuak: Bergarako topaketa

Euskal Udalekuetan lanean ibilitako gizon-emakumeen oroitzapenak jaso genituen Bergaran eginitako topaketa honetan.



Elkarrizketatutako partaideak: Eider Garmendia, Luzma Rojas, David Urrutia, Amaia Madinabeitia, Unai Bergaretxe, Garikoitz Lopez de Munain, Uxue Zabaleta, Gorantzi Irastortza, Eli Payros, Jone Ariznabarreta, Kontxi Laskurain, Mikel Uribarren, Eneko Bergaretxe, Agurne Arizmendi eta Ana Carpintero.

Lucia Farras Laskurain (1926)



San Antonio auzoan jaioa. Hiru ahizpata zaharrena; bigarrena oso gazterik hil zen. Ama bertakoa zuten, eta aita, berriz, gasteiztarra. Amak Algodoneran egin zuen lana ezkondu arte. Aita, Ramon Farras, ofizina batean zebilen; Izquierda Republicanako kidea zen, eta gerra hastean komisario izendatu zuten. Hainbat kartzelatan eduki zuten preso. Ama-alabak, berriz, ihesi ibili ziren batetik bestera, hiru urtean: Cantabria, Asturias, Katalunia, Frantzia... Bueltan, Gasteizera joan zen ikastera, amonaren etxera. Baina idazkari ikasketak bertan behera utzita bueltatu behar izan zuen Bergarara, 1943an aita kolpera hil zitzaielako. Osabaren torloju-lantegian hasi zen lanean, administrari moduan. Eta 38 urtean ibili zen lan horretan. Bergarar batekin ezkondu zen, eta alaba bat izan zuten.

Mateo Gabilondo Alberdi (1927)



1927ko maiatzaren 16an jaio zen Elosuko Agarre baserrian. Elosu inguruko basoetan aritu zen ikazkintzan. Beronen aitak eta aitajaunak ere langintza horretan jardun zuten.

Asentzio Gabilondo Albisua (1909-2006)

Muriñondo auzoko Ziarreta baserrian jaio zen. Sanantonabat auzoko Arimendi baserriko Paulina Garairekin ezkondu zen Muriñondoko Malatu baserrira. Hiru seme-alaba izan zituzten. Bergarako Labe Garaietan eta "Textil Muguerzan" egin zuen lan. 90 urterekin oraindik bola-jokoan aritzen zen, beti bezala bere txapela jantzita.

Emeterio Gabilondo Gabilondo (1924)

Begarako Elosu auzoko Benta baserrian jaiotakoa (jesuitek zalditegi bezala sortutakoa). Elosuko historia jaso du, eta grabazio honetan kontatzen du hori guztia, idatzita daukan dokumentu bat irakurrita. Elosu eta Aizpurutxo auzoetako gorabeherak aipatzen ditu.

Juan Jose Gabilondo Garitano (1942)

Buruñondo auzoko Ziarreta baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Nati Gabilondo Garitano (1934)



San Blas (Buruñao) auzoko Ziarreta baserrian jaio zen, bost anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, San Martzial (Goiauzoa) auzoko Lapatza baserriatik etorritakoa. Pilotaleku ondoko eskolan eta San Juan ermitakoan ikasi zuen zazpi urtetik hamabira arte. Bizi guztia eman du baserrian. Aldaiegia auzoko Gaztelugoikoa baserrira ezkondu zen, bertako Pedro Inzarekin. Hiru seme-alaba izan zituzten. Baserrietan egiten ziren lan asko zehazki azaltzen ditu, eta baita etxeko lanetako batzuk ere, hala nola lixiba egitearena.

Markos Gabilondo Irala (1942)



18 urtetatik Usondo baserrian bizitakoa eta aurretik aldameneko etxean, Etxetxikin. Ama bertakoa zen eta aita, berriz, Elosukoa. Zortzi anai-arrebatan zazpigarrena, San Pedroko eskoletan ibili zen. Doktrina Santa Marinan egin zuen, euskaraz. 14 urterekin, Torunza lantegian hasi zen lanean. 17-18 urterekin klandestinitatean lanak egiten hasi zen: langile mugimenduan eta MK alderdian. Juventudes Parroquiales taldean ere ibili zen, gazteentzat jarduerak antolatzen, besteak beste euskalgintzari lotuta. ERNAI antzerki taldekoa izan zen eta Kultur Ekintza (Promoción Cultural) taldekoa, eta baita Aranzadi ikastolaren sortzaileetako bat ere. Laboratorio museoan egindako elkarrizketa, Bergarako euskararen historia soziala jasotzeko.

Matilde Galdos Aiastui (1923-2002)

Elorregi auzoko Elkoro baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.



Sotera Gallastegi (1888-1985)

Bergarako kalean 1888. urtean jaio zen eta 1985ean hil zen 97 urte zituela. Hil zen urtean egin zitzaion Bergarako Ahozko Bilduman dagoen grabazioa.

Asuntxi Gallastegi Gabilondo (1933)



Barrenkalen jaioa. Sei senide ziren, lau neska eta bi mutil. Ama bertakoa zuen, eta aita Zapatarikotik bertara ezkondua. Don Juan apaiza, osaba, beraiekin bizi zen. Amak denda batean egiten zuen lana, eta aitak Zapatarikoako biltegian. Sei urte zituela istripua izan zuen, eta aitonak sendatu zuen; ezaguna zen herrian, apurtutako hezurak konpontzen zituelako. Zapatarikoan egon zen sendatu arte, eta bertan geratu zen bizitzen. Enseñanza ibili zen eskolan, 18 urtera arte. Eta gero Labe Garaietan hasi zen lanean, bulegoan. Musika karrera ere egin zuen, Jesusa Enekotegik prestatuta. Ondoren bera ibili zen bere kontu piano eskolak ematen. Bergarako Orfeoikoa izan da urte askoan.

Elisa Gantxegi



Aita Osintxuko Eguzkitza baserrikoa eta ama Plazentziako Agarrebeistegi baserrikoa zituen. Umetan Plazentziako ospitaleko eskolara eraman zuten. Aita bizargina izateaz gain, ganadu-tratantea ere bazen. Gerra garaian Elisak Aretxabaletara egin zuen ihes. Aita gazterik hil zitzaion eta 12 urterekin fabrikari hasi zen lanean. Handik 2 urtera, Gasteizera joan zen neskame. 20 urterekin ezkondu zen.

Jose Ramon Gantxegi Gallastegi (1947)



Osintxun jaioa, guraso biak bertakoak zituen. 10-11 urte arte auzo eskolan ibili zen eta gero Elementalean. Ondoren General Mekanican hasi zen lanean. Euskaltzalea izan da betidanik. 1974ko Urrats Berriak kultur hamabostaldia antolatzen jardun zuen, beste hainbat herritarrekin elkarlanean. Bittor Gorrotxategi lagunarekin batera elkarrizketatu dugu.

Hilari Gantxegi Iturbe (1910-1995)



1910ean Osintxuko Eguzkitza baserrian jaioa. Bertan bizi izan zen 1995ean hil zen arte. Aurreko belaunaldiengandik jaso zuen lihoa lantzeari buruz zekiena.

Pedro Garitano Astigarraga (1899-1992)

Santa Marinako abadea izan zen. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Maritxu Garitano Elkoroiribe (1932)

Aldaiegia auzoko Gaittao (Garitao) baserrian jaio zen eta Osintxuko Olani baserrian bizi izan da gerora. Umetako baserriko bizimoduaren gaineko azalpen interesgarriak ematen ditu eta, gainera, azalpen guztiak hika (emakumezkoen hikan) ematen ditu.

Juan Garitano Irazabal (1932)

Aranerreka auzoko Itsasmendi baserrian jaio zen, hamar anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen, eta ama, berriz, Elgetako Oleikua baseritik etorritakoa. Ospitaleko mojekin hasi zen eskolan, eta dominikoen seminarioan bukatu zuen hamabost urterekin. Hemeretzi urtera arte eskola partikularrak jaso zituen. Bizi guztia eman izan du baserrian. Ardirik ez zuten etxean, baina Donato Arrizabalagak, Aizkorri bideko Sancti Espiritus ermitako artzainak, urtero ematen zuen negua Itsasmendi baserrian bere artaldearekin. 35 urte zituela, Hiramendi esne-ganadu kooperatibako sortzaileetako bat izan zen Juan, Bergarako beste zortzi baserriarekin batera. Kooperatibaren gorabeheren eta baserriko lanen inguruko hainbat azalpen ematen ditu. Bergarako Mari Karmen Gamindezekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten.



Flora Gauba Lete (1922)

Flora Bergarako Osintxu auzoko Etxeberri etxean jaio zen. Gurasoak ere osintxuarrak zituen eta lau anai-arreba ziren etxean. Umetan auzoko eskolan ibili zen, baina gerra garaian eskola itxi zuten eta ez zuen ikasteko aukera handirik izan. Aita nazionalen aurka borrokan ibili zen denbora hartan. 14 urte bete zituenean, Osintxuko Artetxe Hermanos lantegian hasi zen lanean, eta bertan ibili zen 23 urterekin Kantera etxera ezkondu zen arte. Zazpi seme-alaba izan zituen.



Carmen Gaztelu Eguren (1928)

Ubera auzoko Egurbide baserrian jaio eta bizi da. Bergara aldeko kanta zaharren bilketa-lanean bere ekarpena oso garrantzitsua izan zen. 1983an egin zitzaion grabazioa eta honako kantak abestu zituen: "Dozenatxo bat bertso", "Unas canciones nuevas", "Kontxesiri", "Ikusten duzu goizean", "Ez dizut irekiko", "Maritxu nora zuaz", "Begira nago begira", "Maria Jesus", "Illobatxo bat besuan", "Txikitxo polit hori", "Gabon Gaboneta", "Hogetalagarrena" eta "Hator, hator". Grabazio berean Maria Luisa Alberdik beste hainbat abesti kantatzen ditu.

Felipe Gisasola Aranberri (1925)

Osintxuko Iturbegieta "itturbieta" baserrian jaio zen 1925ean. Artzaintza, abeltzaintza, ikazkintza eta sokagintzari buruzko ezagutza zuzena eta sakona du.

Valentin Gorosabel Aldana (1957)

Elorregi auzoko Arotzena baserriko Valentin Gorosabelen semea. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean aitarekin batera berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Francisco Javier Gorosabel Galdos (1954)

Elorregi auzoko Elkoro baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Valentin Gorosabel Larrañaga (1917-2001)

Elorregi auzoko Arotzena baserrikoa jatorriz. Bergarako toponimia jasotzeko egindako elkarrizketa.

Julian Gorosabel Romaratezabala (1912-2006)

Elorregi auzoko Elkoro baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Bittor Gorrotxategi Zangitu (1948)

Osintxuko Izarberri baserrian jaioa, giro erabat euskaldunean. Auzoko eskolan ibili zen 11 urtera bitarte eta gero Elementalean egin zituen ikasketak. Euskaltzalea izanik, kultur mugimendua gertutik segitzen zuen gaztetatik, eta 1974an kultur hamabostaldi bat antolatzen ibili zen, beste hainbat herritarrekin batera: Urrats Berriak izeneko hamabostaldia. Jose Ramon Gantxegi lagunarekin elkarrizketatu genuen, orduko kontuak jakiteko. Bere anaia [Jose Luis Gorrotxategi](#) ere elkarrizketatuta dago, bertsolaria.



Jose Luis Gorrotxategi Zangitu (1945)



Osintxun jaioa, ama bertako Izarre baserrikoa zuen eta aita, berriz, Elgetakoa. Auzoko eskolan ibili zen, eta gero Bergarako Elementalean egin zituen ikasketak. Jesus Alberdi "Egileor" bertsolariarekin hasi zen bertsoan, 18 urterekin. 1963an hasi zen plazan kantatzen, eta 55 urtean han eta hemen aritu da kantuan. Birritan izan zen finalista Bertsolari Txapelketa Nagusian (1967an eta 1980an), eta Gipuzkoako txapeldunorde ere atera zen 1967an. Loiola herri irratiko saria irabazi zuen pare bat aldiz. 27 urterekin Azpeitira ezkondu zen, eta geroztik hantxe bizi da; altzari lantegi batean egin du lana. Elkarrizketan [Koldo Alberdi "Egileor II"](#) bertsolaria ere bazegoen.

Martin Guridi Arrieta (1911-1999)

Oñatiko Zubillaga auzoan jaio zen, Narbaizena baserrian. 11 urterekin Bergarara joan zen bizitzera. Gaztetan artazi fabrikari ibilitakoa, ondoren ofizioa ikasi eta bere bizi guztian arotzerian lan egin du. 1999ko irailaren 17an zendu zen Bergaran.

Carmen Iburguren Unanue



Begarako Goi-auzoko Zaldumendi baserrian jaiotakoa. Ama Elosuko Iburguren baserrikoa zen eta aita Zaldumendikoa bertakoa. Eibarrera joan zen bizi izatera ezkondu ondoren.

Donato Iburguren Unanue (1920)



1920an Goiauzoko Zaldumendi baserrian jaio eta bertan bizi izan da beti. Aita Zaldumendikoa bertakoa zuen eta ama Elosuko Iburguren baserrikoa. Berau izan da Euskaltzaindiak prestatutako Euskal Herriko Atlas Linguistikokoan Bergarako lekukoa. Zurgintza lanetan Lutxurdiorekin ibilitakoa. Baserriko bizimoduaren eta lanen inguruko ezagutza zuzena eta sakona du. Horrez gain, oso hiltun ona da eta euskara ederra darabil.

Pedro Iburguren Unanue (1928)



Begarako Goi-auzoko Zaldumendi baserrian jaiotakoa. Aita Zaldumendikoa bertakoa zuen eta ama Elosuko Iburguren baserrikoa. Baserriko lanetan ibili zen hasieran, baina gerora elektrizitate lanetan ere jardun zuen.

Arantxa Ibarzabal Azkargorta (1949)



San Antonio auzoan jaioa, Karloskua kale-baserrian. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Ipintzakoa. Bost neska eta mutil bat ziren (beste mutil bat umetan hil zen). Mariaren Lagundian ikasi zuen, herri ikastetxe moduan funtzionatzen zuen alderdian. 13 urterekin Confecciones Vascas tailerlean hasi zen lanean, eta hura itxi zutenean Vergara Textil-en egin zituen hilabete batzuk. 1971ean ezkondu zen arte. Bi seme-alaba izan zituzten. Gerora, Aspacen egin zuen lana, urtetan. Ernai antzerki-taldean ibili zen Arantxa, eta baita Juan Luis Bikuña senarra ere. Elkarrizketa batez ere antzerki-taldeari buruz egin genion.

Esteban Igartua Gabilondo (1929-2015)



Elosu auzoko Kantera baserrian jaio zen 1929an. 3 urte zituela umezurtz geratu zen gurasoak eta anai-arrebak hil egin zitzaizkiolako, eta izebak hazi zuen Arangurentxo baserrian. Umetatik baserriko lanak egitea egokitu zitzaion. Basalgon ibili zen eskolan. Abere-hiltzaile lanetan ibili zen Bergaran zenbait urtez, baina gero Fagor lantegian egin zuen lan jubilatu arte. Aristizabal baserriko Maria Angeles Larrañagarekin ezkondu zen eta ordutik bertan bizi da. Elkarrizketa egin zitzaionean bertan zegoen Maria Angeles emaztea ere.

Bizenta Inza Askasibar (1903-2001)

Carmen ahizparekin batera egin zitzaion grabazioa Bergarako toponimia jasotzeko. Berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren, batez ere Angiozar auzoari dagokionez.

Carmen Inza Askasibar (1909-2003)

Bizenta ahizparekin batera egin zitzaion grabazioa Bergarako toponimia jasotzeko. Berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren, batez ere Angiozar auzoari dagokionez.

Pedro Inza Duñabeitia (1931)



Aldaiegia auzoko Gaztelugoikoa baserrian jaio zen, bost anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama, berriz, Elorriotik etorritakoa. Aitajauna Oñatiko Bixain baserritik Gaztelugoikora etorritakoa zen. Auzoko eskolan hasi zen, eta gero Angiozarko gau-eskolan ibili zen. Bergaran ere jaso zituen klase batzuk. Baserritik bizi izan da bizi guztian. Ganadu eta artzaintzan zaildua, langintza horiei buruz hainbat azalpen ematen ditu. Ziarreta baserriko Nati Gabilondorekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba izan zituzten. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanerako berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Mari Jose Inza Gabilondo (1961)

Aldai auzoko Gaztelugoikoa baserrikoa. Aita bertakoa du eta ama Murinondo auzoko Ziarreta baserrikoa. Bere aita Pedro Inzarekin batera, Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Antonio Irazola Altuna (1924)



Aritzetako San Migel auzoko Sagastizabal baserrian jaio zen 1924. urtean. Gurasoak biak bergararrak zituen: aita, zehazkiago, Arrasate aldera dagoen San Prudentzio auzokoa. Lehenengo ikasketak herriko eskolan egin zituen eta geroago Seminarioan jarraitu zuen ikasten. Gerra garaia bete-betean ezagutu zuen eta ongi gogoratzen ditu orduko gertaerak. Gazte-gaztetatik langile mugimenduan aritu izan da lanean; kooperatibismoaren sorrera eta bilakaera ere zuzenean bizi izan ditu. 1966 inguruan Bergarako udalean sartu zen zinegotzi moduan, eta bera izan zen lehenengoz ikurrina jarri zuena udaleko balkoian.

Segundo Iriarte (1917)



Eskoriatzan jaio arren, Bilbon bizi izandakoa urte askoan. Bera da beharbada Gipuzkoako azken ehulea. Gerra ostean bere aita zenaren ofizioari ekin zion, eta ehuna egiteko kutxatan gordeta zeuden inguruetakoa azken hariak erabili zituen. Lana amaitu zitzaionean, ehundegia bota eta hura zegoen tokian etxebizitza bat eta fundizio lantegitxo bat eraiki zituen.

Begoña Iturbe Linzoain (1958)



Iturbe kale-baserrian jaioa, guraso biak Bergarakoak zituen: ama kaletarra, ez zen euskaraz oso ondo moldatzen; aita, berriz, baserrikoa zen. Mariaren Lagundian egin zituen ikasketak, Batxilergoko azken bi urteak izan ezik: institutua zabaldu zuten, eta bertara bidali zituzten. Ondoren administrari ikasketak egin zituen Mariaren Lagundian. Ikastetxean haur hezkuntzan lan egitea eskaini zioten, eta halaxe hasi zen irakasle lanetan. Gero Magisteritza ikasi zuen. Erretiroa hartu arte egin zuen bertan lana. Begoña Kapanagarekin batera egin genion elkarrizketa.

Pedro Iturrino Intxausti (1915-2009)

Ubera auzoko Artiz baserrikoa, 1983an kanta zaharrak jasotzeko egindako grabazioan honako abestiak abestu zituen: Baratzeko pikua; Maiatzaren hiruan; San Juan egunian; En el barrio de Amara. Txori-izenak jasotzeko ere egin zitzaion elkarrizketa 2000. urtean.

Florita Izuskiza Zubizarreta (1927-2019)



Ama Aretxabaletakoa eta aita Ormaiztegikoa zituen. Florita Bergarako Barrenkalean jaio zen Centro Obreroa egon zen eraikin berean, Centro Republicanoaren aldamenean. Gaztetatik familiako tabernan ("Oilagorra") lan egindakoa. Taberna hasiera batean ehiztarien elkarte ere bazen. Gerra garaian tropak etxe ondoan izan zituzten.

Bixente Jauregi Jauregi (1929-2019)



Zubieta kalean jaio zen Bixente. Aita antzuolarra zuen, eta ama, berriz, urretxuarra. Bergarako Seminarioan hasi zen eskolan, eta Elementalean bukatu zituen ikasketak. Gero Labe Garaietan egin zuen lan, delineatzaile postuan. Pilotari profesional gisa jokatuakoa. Pilotari buruzko hainbat azalpen ematen ditu; enpresek pilotaren historian eta garapenean izan duten eragina aipatzen du, besteak beste. Bera gaztea zenean, Zubieta (Zubitta) kalea oso bizirik omen zegoen. Bertako denda, zerbitzu, tailer, kale-baserri, ortu, eta abar ekartzen ditu gogora. Bixenteren aita harakina ("Altzeta") izan eta gero, argazkigintzara pasa zen eta horretan eman zuen bizi guztia. Aitaren 20.000 argazkiko fondoa, Bergarako 40 urteko historia argazkitan azaltzen duena, Bixenteren familiak Udalarari eman zion. Ascensión Saez de Jauregirekin ezkondu zen Bixente, eta seme bi izan zituzten.

Jose Mari Jauregi Mardaraz (1935)

Osintxu auzoko Olabarri baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Izaskun Jimeno Agirrebeitia (1949)



San Antonio auzoan jaioa. Aita bizargina zen (donostiarra, Herrera auzokoa) eta ama Bergarakoa. Alaba bakarra da. Izaskunek Mariaren Lagundian ikasi zuen. Batxilergoa egin ondoren, Magisteritza egin zuen Gasteizen, bere kontura. Barriako udalekutan egon zen, begirale moduan, eta ondoren andereño moduan hasi zen Bergarako Koldo Eleizalde ikastolan, Komenio kalean. 1971n Aranzadi ikastola sortu zuten eta bertan ibili zen lanean erretiroa hartu artean.

Natalio Juaristi Aranburu (1912-2010)



Zubieta kalean jaio zen 1912ko azaroaren 30ean. Aita, Abdon Juaristi. Ama inude joan zen Madrilera eta bitarte horretan Bonbulun hazi zuten Natalio. Oraindik umea zela, abarketak egiten egin zuen lan. Gerora, Narbaizanean hasi zen lanean.

Petra Juaristi Garitano (1918-2013)



Barrenkalen jaioa. Aita zarauztarra zuen, arotza; ama Antzuolako Iribar baserrikoa. Petrak eta Maria bere ahizpak Enseñanza ikasi zuten. Ikasteko balio zuela esan zuten mojek, baina dirurik ez zuten horretarako. Errepublikara garaian aita lanik gabe geratu zen, elizetarako aldareak egiten baitzituen. Josten hasi zen Petra orduan, Machorentzat. Gainera, 14 urte bete zituen egunean Algodoneran hasi zen lanean (ahizpa ere han zebilen); baina bertako hautsarekin gaixotu, eta utzi egin zuen. Zarautzera bidali zuten, eta denboraldi luzea egin zuen han. Bueltan, josten jarraitu zuen. Etxe azpiko dendan ere laguntzen zuen. Berraondorekin ezkondu zen, eta haren osabari laguntzen hasi zen Erratzuneko ferreterian. 90 urte bete arte ibili zen dendari. Bi seme eta alaba eduki zituzten.

Kanta zaharrak

1983an Bergarako kanta-zaharrak biltzeko proiektuaren barruan egin zen grabazio hau. Bertan, kanta zaharrak (lo-kantak, koplak...) abesten dituzte honako lagun hauek: Paula Alberdi, Celestina Oteiza, Garbiñe Irizar, Juana Elkoroiribe, Mertxe Zubiaurre, Nicasio Bilbao, Nicolasa Lazpiur, Pastora Otadui, Rufina Beistegi eta Soledad Jauregi.

Begoña Kapanaga Atorrasagasti (1959)

Ama Bergarakoa zuen eta aita Bilbokoa. "Beheko estaziñuan" bizi ziren. Auzoan umeek euskaraz hitz egiten zuten, baina eskolan dena zen erdaraz. Lau urterekin Mariaren Lagundian hasi zen eskolan, eta Batxilergoko 3. mailararte ibili zen han. Batxilergoko laugarren urtea ireki berria zen institutuan egin zuen, eta ondoren Lagundira bueltatu zen administratibo ikasketak egitera. 1975en, 16 urterekin, ikastetxean bertan lan egitea eskaini zioten, irakasle euskaldunen beharra zutelako. Haur txikiekin hasi zen. Magisteritza ikasi zuen gero. Lagundiko lehenengo irakasle euskalduna izan zen. Erretiroa hartu berritan egin genion elkarrizketa, lankide izandako Bego Iturberekin batera.



Arantzazu Kortabarria Barrenetxea-Arando (1952)

Zubieta auzoan jaioa, guraso biak Bergarakoak zituen. Ama, Mariñe (Ahotsak-erako [elkarrizketatua](#)), gazte-gaztetatik Arando tabernan lanean ibilia. Arantzazuk (lantokikoek Arantxa deitzen diote) Mariaren Lagundian egin zituen ikasketak, umetan hasita Batxilergo laborala egin arte. Gero Donostiara joan zen Magisteritza ikastera; han zegoela euskaraz alfabetatzeko ikastaroak ere egin zituen. Bueltan, Bergarako Aranzadi ikastolan egin zuen lan, bi urtez. Ondoren Iralan ibili zen, ikastetxe publikoan, oposizioak aterata. 6-7 urteko umeekin egin du lana beti, erretiroa hartu zuen arte. Herri eskolaren euskalduntze-prozesua kontatu zigun elkarrizketan.



Markos Kortabarría Lete (1917-2012)

Bidekurutzeta kalean jaio zen. Aita Basalgo auzoko Gallaztegi baserrikoa zen, eta ama auzo bereko Ziardegikoa. San Pedro plazako eskolan hasi zen, eta gero Udalak ehungintza lantegien laguntzarekin ireki berri zuen Elementala lanbide-eskolan jarraitu zuen, mekaniko ikasketak egiten. Eibarko Star lantegian goizez eta eskola Elementalean bertan arratsaldean egin zuen lanaldi batez. Gero "Textiles Pedro Otazua"n ekin zion eta erretiroa hartu zuen arte jardun zuen bertan lanean. Ehungintzan luzez jarduna bera, Markosek ehuna nola egiten zen azaltzen du. Zeanurin konpondu omen zuen berak ikusi duen ehungintza makinari zaharrena. Lanetik kanpoko orduetan zura tailatzen ikasi zuen, eta armairu eta kutxa ugari egin ditu. Arando tabernako (Batzoki Txikia ere deitua) Mariñe Barrenetxearekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten. Mariñe emazteak ere hartu zuen parte elkarrizketan.



Eduarne Laborda Astiazaran (1923)

Bidekurutzeta kalean jaio zen, aitaren bigarren ezkontzako bi anai-arrebatatik gazteena. Ama Usurbildik etorritakoa zen, emagin baten alaba eta emagina bera ere. Aita, berriz, okin familia batean sortutakoa izan arren, arotza izan zen lanbidez. Irakaskuntzako serora Andre Mariaren lagunarteko mojekin hasi zen eskolan, eta 1934. urtean Goiko Plazan jarri zuten ikastolara joan zen gerra hasi zen arte. Edurneren osaba Ramon abeslari eta abade ezaguna izan zen, eta anaia Joseba, berriz, Udaleko txistularia. Bai aitak eta bai amak Telesforo Monzonen etxean egin zuten lan. Edurnek hamasei urterekin josten ikasi zuen, eta urte askoan jardun zuen jostintzan. Arabako Araia herritik bere familiarekin etorritako Anjel Agirrerekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.



Juliana Larrañaga (1906)

Angiozarren jaioa, bertako ehulearen iloba zen. Ozta-ozta ezagutu omen zuen osaba, oso gazterik joan baitzen komentura. Hirurogeita hiru urte zeraman moja Eibarko kontzepzionisten komentuan grabazioa egin zitzaionean 1994an.

Maria Angeles Larrañaga Basauri (1935)



Elgetan jaio zen arren, urtebete zuela Bergarako Aristizabal baserrira joan ziren gurasoak bizitzera eta bertan bizi izan da beti. Baserriko lanak ume-umetatik ezagutu ditu. Aita gazterik hil zitzaion eta ama berriro ezkondu zen. Anaia gazteagoek nahiago izan zuten Aristizabalen arrebarekin geratu, eta berak hazi zituen etxean anaiak seme-alabekin batera. Hasieran astoarekin eta gerora kotxearekin urte askoan joan izan zen Bergarara baserriko generoa saltzera, baita Zumarragako eta Soraluzeko azoketara ere.

Javier Larrañaga Gallastegi (1931)

San Juan Auzoko Irazabal Etxeberri (Izaletxeberry) baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Bitori Larrañaga Igartua (1932)



Elosuko Narbaiza baserrian jaio zen 1932ko martxoaren 6an. Jesus Alberdi Garbizu "Egileor" bertsolariaren emaztea. Lehenagoko kontuak eta ohitura zaharrak oso ongi gogoratzen ditu eta oso hiltun ona da.

Patxi Larrañaga Igartua (1942)



Elosuko Narbaiza baserrian jaioa. Gaztetan 5-6 txondor egiten zituzten baserrian, ikatza saltzeko. Txondorgintzari buruzko elkarrizketa egin genion. [Manuel Oruesagasti](#) auzokidea ere elkarrizketatu genuen gai beraren bueltan.

Juan Larrañaga Santamaria (1960)

Elorregi (San Prudentzio) auzoko Zigarrerokoa baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Asun Larrañaga Susperregi (1931)



Asun Larrañaga Susperregi Bergaran jaio zen 1931n. Aita bergararra zuen, Goenkaleko Ormazabaltarren etxekoa, eta ama, berriz, Igantzikoa, nahiz eta Lesakan hezi zen. Gurasoak Irunen ezagutu, ezkondu eta bi alaba izan ostean, Bergarara joan ziren bizitzera eta beste 10 seme-alaba izan zituzten. Gerra zibileko oroitzapenak kontatzen ditu Asunek: bonba bat erori zitzaienekoa, Bergara militarrez beteta zegoenekoa, Gernikako bonbardaketako istorio bat, Francoren bisita Bergarara, Abelino Larrañaga bere anaia nagusiak gerra garaian bizitako istorioa...

Eusebio Larrañaga Unamuno (1912-2010)

Amillagako ferratzaile ohia. 1912an jaio zen Basalgoko Oianguren baserrian. 14 urterekin hasi zen ofizioa ikasten Osintxun Damaso Gallastegirekin; eta horren ondoren, Amillaga auzunean jarri zuen sutegia. Errementari eta ferratzaile lanak egiten zituen. Ofizioaren gainbeherarekin galdaragintzan hasi zen lanean Luzio Gallastegirekin, aipatutako Damasoren semea zenarekin.

Maria Pilar Larrañaga Urrutia (1926)



San Antonio auzoan jaiotakoa, oso ongi ezagutzen du inguru guztia. Umetan, Altos Hornoseko eskolan ikasi zuen. Gaztetan, Algodoneran hasi zen lanean. Bere aitak Altos Hornosen lan egiten zuen eta, besteak beste, lantegiaren inguruko azalpen interesgarriak ematen ditu Maria Pilarrek. Antzinako bizimodua, ohiturak eta abar oso ongi gogoratzen ditu.

Bixenta Larrañaga Zarraoa (1931)

Elorrioko Gazeta auzoko Etxebarri baserrian jaiotakoa. Ezkondu ondoren Bergarako Arane auzoko Aranegoenengo baserrira joan zen bizi izatera. Fede handiko emakumea, antzinako kontuak oso ondo gogoratzen ditu. 1983an kanta zaharrak jasotzeko egin zitzaion grabazioa.

Lorenzo Laskurain Gabilondo (1931)



1931ko San Lorentzo egunean eta San Lorentzo auzoan jaio zen Lorentzo. Aita Bergarakoa bertakoa zuen eta ama, berriz, antzuolarra. Josu Oregiren ehun-lantegian lan egindakoa da. Padroian ere lan egin izan du eta asko ezagutzen ditu Bergara inguruko leku-izenak. Artxiboko argazki bilduma dokumentatzen ere ibili izan da. Txanpon eta zigilu bildumagile da Lorentzo bera, eta hainbat bilduma egiteko zaletasunaz hitz egiten du. Bergarako bi parrokiez, eta San Martin Parroki-batzordeko lanez azalpenak ematen ditu. Bergarako beheko kondea eta goiko kondea, Basalgo auzoko Goimendi auzuneko pertsonaiak, herriko txikiteoa eta Bergarako hainbat kontu ditu mintzagai.

Jabier Lazpiur Ibarra (1934)



Barrenkalean jaio zen Jabier, baina familia laster joan zen Komenio kalera bizitzera. Ama Zubiaurre auzoko Ximonenekoa zen eta aita Bergarako kalekoa. Sei seme-alaba izan zituzten. Herri eskolan ibili zen Jabier sei urtetik hamalaura arte, baina ganadu hiltegiaren denbora gehiago ematen zuen eskolan baino. Zazpi urterekin osaba harakinarekin lanbidea ikasten hasi zen, eta bizi guztia harakin lanetan eman du. Lanbidearekin zer ikusi duten gai guztiak jorratzen ditu: ganadua lortzeko tratuak, ganadu eta hegazti ezberdinak, hotz eta izozkailu gabeko denborak, bezeroen jateko ohitura aldaketak eta abarren inguruan mintzatzen da Jabier, lehenbizi osabarena eta gero berea izan zen "Altzeta" harategiaren emandako urte mordoxka gogoratzen. Gaztetako jolasak ere azaltzen ditu, eta erreka inguruan ematen zituen ordu luze bezain goxoak gogoratzen ditu. Angiozarko Maritxu Penarekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten.

Mikel Lazpiur Lamariano (1942)



Ostetan jaioa. Jose Lazpiur aitajaunak zapata-tailerra zeukan bertan, eta aitak jarraitu zuen negozioarekin. Ama Uberakoa zen. Mikelek maestria-ikasketak egin zituen Bergarako Elementalean. Beste lan batzuetan ibili ostean, etxeko negozioan hasi zen lanean. Hori bai, zapata-lantegia tailer mekaniko bihurtu zuten, berriro hutsetik hasita. Mikel negozio-gizona da. Confebask-eko burua ere izan zen. Elkarrizketa hau, baina, Bergarako euskalgintzari eta kulturgintzari buruzkoa da: gerraosteko lehenengo dantzataldeko kidea izan zen Mikel, eta baita Ernai antzerki-taldekoa ere. Elkarrizketan [Arantxa Ibarzabal](#) ere egon zen, hura ere Ernain ibilitakoa.



Mertxe Lazpiur Olañeta (1928)

Angiozar auzoko Altuna baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Pedro Lazpiur Urrutia (1908-1996)



Angiozar auzoko Altuna baserrian jaio zen. Idiekin garraio lanetan urte askotan jardun zuen. Auzoko Zabaleta baserrira ezkondu zen. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.



Juana Joxepa Lete Iribecampos (1903-1992)

Elosuko Norde-auzoko Egizabal baserrian jaioa 1903an eta auzo bereko Narbaiza Azpikoan bizi izandakoa.

Javier Linazisoro Lazpiur (1927)



Barrenkalean jaioa. Gerra aurreko urteetan Bergaran egon zen lehenengo Ikastola, Batza, eta hango ikasle izan zen. Euskaltzale amorratua, euskalkien defendatzaile sutsua da. Ehizarako zaletasuna ere izugarria du, eta azalpen interesgarriak ematen ditu gai horren inguruan.

Pakita Lizarralde Mendizabal (1938)



Pakita Lizarralde Mendizabal Bergarako Elorregi auzoko Olan jaio zen. Aitak Ola-Lizarralde etxea eraikiz geroztik, bertan pasatu zituen bere haurtzaroko eta gaztaroko momenturik gehienak. Etxean bertan zegoen tabernaz eta jatetxeaz arduratu zen familia osoa, bereziki, Pakita, senar Felix Igartuarekin batera; "Tio Pitt" izenez ezagutzen zuten ostatua inguruan. Bazkariak eta afariak ematen zituzten, eta oilaskoa zen hango plater erregea. Gainera, gauerako parrandarako lekua ere bazen, bai auzotarrentzat, eta baita Bergara edota Arrasate aldetik etortzen zirenentzat ere. Maitasun eta goxotasun handiarekin oroitzen ditu urte haiek Pakitak, eta ilusio bereziarekin kontatzen ditu tabernan bizi izandako istorio eta pasarteak.

Juane Lonbide Elorza (1929)



Angiozar auzoko Altzuarangañekoa baserrian jaio eta bertan bizi izan da beti. Baserriko lanak eta ingurua oso ongi ezagutzen ditu. Hitzun ona. Lehenagoko bizimoduaz gain, etnografia gaiez ere azalpen zehatzak ematen ditu. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean ere oso lagungarriak izan ziren berak emandako azalpenak.

Inazio Madinabeitia Irizar (1922)



Inazio Barrenkalean jaio zen, lau anai-arrebatatik bigarrena. Aita Basalgo auzoko Aristizabal baserrikoa zen, eta ama, berriz, Oñatiko Olabarrieta auzoko Ugarte baserrietik etorritakoa. Herriko eskolan ibili zen gerra hasi zen arte. Sei urte zituela, zirkuko lehoi batek larriki atzaparkatu zuen. Gerra aurretxoan Larrañaga zapatagintza tailerrean hasi zen lanean. Gerra denboran "Conde del Valle y marqués de Valzola"ren Bergarako Santa Ana jauregian jardun zuen "paje" (morroi) lanetan. Gero udaletxean hasi zen lanean. Alondegian, zergak kobratzen, hiltegiko pisaketa lanetan eta abarretan jardun zuen hogeitaz urtez, eta gero "Hijos de Arturo Narbaiza" ehungintza lantegira joan zen lanera. Zapatarikua auzoko Karmen Arriaranekin ezkondu zen eta bost seme-alaba izan zituzten.

Mahai-ingurua Bergaran 1



Begarako Angiozar auzoko Errementarikoa kale-baserrian jaio ziren Arrieta Larrañagatar Abelina (1924-2012), Itziar (1936), Nati (1940) eta Arantxa (1945) ahizpak. Euretatik zaharrena Abelina, hamahiru urterekin Elgetako Martintxorena tabernara joan zen neskame, eta bertan jardun zuen ezkondu zen arte. Ahizpa Itziarrek hartu zuen bere lekua Martintxorenarenean. Abelina Elgetako Panaderokua tabernara ezkondu zen, eta Nati eta Arantxa ahizpak Angiozartik ekarri zituen tabernan laguntzera. Hiru ahizpok ere Elgetan ezkondu eta bertan geratu ziren bizitzen. Berriketaldi luzea izan zuten mahai inguruan, umetako eskola kontuak, gerra denborakoak, aita errementari-ferratzaileari alabak lanean nola laguntzen zioten, errementaria eta baserritarren arteko harremana, elizak ezarritako diziplina zorrotza, kongregazioak, dantza lotua bekatua zenekoa, eta beste mila konturen gainean armonian jardun ziren lau ahizpak. Ezkerretik eskumara: [Nati](#), Arantxa, Itziar eta Abelina.

Mahai-ingurua Bergaran 2

Bergarako Goiauzo auzoko [Donato Iburguren](#) (1920), Basalgo auzoko [Bittor Aperribai](#) (1923), San Lorentzoko Markos Labaien (1934) eta Oñatiko Zubillaga auzotik aspaldi Bergarara joandako Julian Aiastui (1923) elkartu ziren mahai inguru honetan, Julianek 88 urte betetzen zituen egunean bertan. Gaztetako erromerietan kaletar eta baserritarren arteko 'kategoria' ezberdintasunak; Toki Alaiko erromeriak (gerra aurrekoak eta ostekoak); Oñatin Araotz auzoko jaietan bertako mutilak nola agurtzen zituzten harrika beste auzoetakoek, eta nola ikusten ziren Intxortako bonbardaketak Zubillagatik; gaixotasun eta erredurentzako erremedioak; konjuru, su eta ur bedeinkatuak; norbait hiltzen zenean, hildakoen senideekiko elizaren gehiegikeriak; Ameriketako egondako bergarar askoren istorioak, eta beste mila gaiez jardun ziren giro alaietan gure tertulianoak. Ezkerretik eskuinera: [Donato](#), Markos, Julian eta [Bittor](#).



Juana Maiztegi Elkoroberezibar (1913-2008)

1913an jaio zen "Gasparreneko" etxean. Gurasoak Bergarakoak zituen, baina ama gazterik joan zen Bilbora josten ikastera. Juana jostintzako irakaslea izan zen, eta eskolak eman zituen hainbat urtetan. Bergaran oso emakume ezaguna zen. Lehenagoko kontu ugari aipatu zizkigun.



Mariano Martínez Estévez (1923-2012)

Aita ferrokarrila egiteko lanetan aritu zen, eta gerora Altos Hornoson hasi zen lanean. 7 anai-arrebatatik hirugarrena zen Mariano. Anai-arreba zaharragoak neskame eta morroi joan ziren eta berak egin behar izaten zituen etxeko lanak. Gaztea zela hasi zen Soralezeko SACIAn lanean, baina gerora Bergarako Torunsa lantegira aldatu zen.



Jabier Mendizabal Lizarralde Surra (1942)

Surraga baserrian jaioa. Aita San Antoniokoa zuen eta ama Artekalekoa, baserrira ezkonduak. Zazpi anai-arrebatan bigarrena zen Jabier. Dantza irakaslea izan da 40 urtean. Gurasoek ere dantza-lehiaketatan hartzen zuten parte, eta esan daiteke zaletasuna etxetik datorkiola. [Maite Barrera](#) emaztearekin batera elkarrizketatu dugu Bergarako dantza kontuak jasotzeko, biek lan handia egin dutelako herrian.



Bizenta Mendizabal Sagastigutxia (1933)

San Juan auzoko Kanpos baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Juan Carlos Mendizabal Sagastigutxia (1942)

San Juan auzoko Kanpos baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.



Maria Mugerza Arregi (1930-2018)

Azkoitiko "Utxerri" baserrian jaiotakoa, gazterik Osintxuko Orontzola baserrira ezkondu zen. Baserriak eman duenetik bizi izan da eta, hortaz, baserri mundua zoragarri ezagutu du. Oso hiztun ona.



Inazio Mujika (1916)

Uberako errementari ohia, 1916an Uberan jaiotakoa. Hamabost urterekin hasi zen errementari ofizioan bere aitajaunak eraikitako sutegian. Gurdietarako gurpilak egiten zituzten gehienbat, prozesuaren hasieratik amaieraraino.

Anjel Mujika Garmendia (1933)

Ama Amiliaetxebarri baserrikoa zuen eta aita Burlatakoa, lanera Bergarako hirin lantegira joandakoa. Zazpi senide izan ziren, baina arreba bat ez zuen ezagutu, umetan hil zelako. Anjelek bost urte zituenean ama hil zitzaien, erditzean; orduan, arreba zaharrenak egin zituen ama-lanak. Kanposenekoa etxean bizi ziren, herrigunetik aparte, eta harreman handia zuten inguruko baserritarrekin. 14 urtera bitarte herri eskolan ibili zen Anjel, eta gero hainbat tailer eta lantegitan ibili zen lanean, burdinarekin lotuta betiere: tornulari ofizioa ikasi zuen. Gaztetxotan Bildur Gutxi futbol taldean ibili zen. Mendia, ehiza eta baratza izan ditu zaletasun moduan. 40 urterekin ezkondu zen, San Prudentzioko emakume batekin, eta bi seme-alaba izan zituzten.



Joxe Mari Mujika Jauregi (1930)

Arizeta (Aritzetako San Migel) auzoko San Migel baserrian jaio zen, hamabi anai-arrebatatik seigarrena. Gerra denboran ez zen eskolarik izan, eta zortzi urtetik hamahirura arte ikasi zuen, herriko eskolan hasi eta Dominikoenean bukatuta. Hamalau urterekin Aretxabaletako marianisten eskolara joan zen lanera, sukaldari laguntzaile. Hamabost hilabete bertan egin ondoren, Bergarako Zubiaurren Juanito Irizarrek zuen tailerrean iltzeak egitera joan zen. Soldaduskatik itzuli zenean Murillo garajeen ekin zion lanean. Citroen kotxeak eta Pegaso, GMC eta Dodge kamioiak konpontzen zituzten bertan. Handik Marcelino Agirreren teileriarra joan zen lanera, eta bertako hondeatzaile makinarekin Zerrajera lantegia eta Zabalotegiko etxe orratza eraikitzeko lanetan parte hartu zuen, besteak beste. Bere GMC kamioiarekin izan zuen istripu larri baten ondoren utzi zion txofer lanari eta Zabala Hnos. eskopeta lantegian eman zituen azken lan urteak. Bergarako hiri eta industriaren garapenari buruzko lekukotasunak ematen ditu. Elgetako Kantoikoa baserrira ezkondu zen, bertako Juana Sarasketarekin. Seme-alaba bi izan zituzten.



Juan Murgiondo Etxabe (1911-1999)

1911ko otsailaren 10ean jaio zen Elorregiko Aierdi Gainekoa baserrian. Hainbat urtetan egin zuen karea etxe ondoan zuten karobian.



Pilar Murgoitio Gabilondo (1905-2006)

1905eko urtarrilaren 1ean jaio zen Unzueta jauregiaren inguruko etxe batean. Bere gurasoak Unzuetarenean egiten zuten lan, amak neskame eta aitak gurdi-gidari, eta bertan ezagutu zuten elkar. Aita Elorrikoa zen jatorriz eta ama bergararra, Ugarte baserrikoa. Pilarrek 99 urte zituen elkarrizketa egin zitzaionean.



Edu Muruamendiaraz Gallastegi (1964)

Dantzaria eta koreografoa. *Aukeran* taldeko zuzendaria da. Dantzaren inguruan egin zion elkarrizketa Euskal Kultur Erakundeak 2015ean, *Soka* proiekturako.



Gregorio Muruamendiaraz Oruesagasti

Elosuko Amentzelaga baserrikoa. Altos Hornosen lanean ibilia da eta Bergarako mendi eta auzoetako zinegotzi izan zen. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Anaje Narbaiza Aldai (1960)

Larrarte baserrian jaioa, Kokote auzoan (orain Arane auzoa). Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Angiozarko Arregitorre baserrikoa, Partaitti auzokoa. Hiru anai-arrebetan erdikoa da. Kontxita Maiztegiarekin ibili zen eskolan, Aranzadi ikastola sortu zen arte: hara eraman zituzten, baina ikasketak erdaraz egiten jarraitu zuten hala ere (modu librean 2. Batxilergoko azterketak egiteko). Bergarako institutura joan zen gero, eta handik Elementalera. Elay lantegian hasi zen lanean, eta lanean ari zen bitartean ingeniari tekniko ikasi zuen Arrasateko Eskola Politeknikoan. 1987tik aurrera, Elay enpresaren euskara planaren gidarietako bat izan da 2013ra bitarte; Eusko Jaurlaritzaren EUSLAN proiektu pilotua ere koordinatu zuen (2015-2018). EHEko kide izan zen 1979 urtetik aurrera. 1983tik 1993ra HB alderdiko zinegotzi kargua izan zuen Bergarako Udalean. "*Begarako euskara*" liburuan parte hartu zuen, eta baita "*Zura. Arotzak eta etxegileak*" liburuan ere. Sendabelarrei buruzko "*Erremeixuak. Osasuna munduko ondasuna*" ikus-entzunezkoa ere prestatu zuten, elkarlanean. Jose Luis Elkororekin egin diogu elkarrizketaren zati bat, Elay enpresako euskara planari buruzkoa.



Leandro Narbaiza Azkarate (1923-1994)

Arane auzoko Larrarte baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Maritxu Narbaiza Azkarate (1933)

Ama Iraburu baserrikoa zen. 6 urterekin hasi zen eskolan. Frontoiko eskolan lekurik ez eta Ospitaleko sor Eugeniarekin egin zuen urtebete. Gero bi urte egin zituen Enseñanza, eskola publikoan. Horren ondoren, Frontoiko eskolara joan zen eta 14 urtera arte ibili zen han. 16 urterekin josten ikasten jardun zuen eta denda baterako arropak egin izan ditu urte askoan. Antzinako bizimoduaren eta umetako jolasen gaineko kontu ugari kontatzen ditu. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean ere berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Arantzazu Narbaiza Erdabide (1950)



Zubieta kalean jaioa. Ama Usurbilgoa zuten, erizaina ikasketaz, eta aita Bergarakoa, Lasagabaster ehun lantegiko langilea. Arantzazuk Magisteritza ikasi zuen Donostian. Intxaurrendoko ikastolan hasi zen lanean, eta ondoren Bergarako Aranzadi ikastolan 1974tik erretiroa hartu artean. Ikastolako kontuak jasotzeko elkarrizketatu dugu, [Blanca](#) ahizparekin batera, biak izan baitziren irakasle bertan. Baita [Rosa](#) ahizpa ere.

Blanca Narbaiza Erdabide (1956)



Zubieta kalean jaioa. Ama Usurbilgoa zuen, gaztetan Bergarara joandakoa bizitzera familiarekin; erizaina zen ikasketaz, baina ezkontzean utzi egin zuen. Aita Bergarakoa zen, eta Lasagabaster ehun lantegian egiten zuen lana. Lau neska eta mutil bat ziren; Blanca laugarrena. Mariaren Lagundian ikasi zuen eta, Arantzazu ahizparen pausoak jarraituz, gazterik hasi zen Aranzadi ikastolan lanean. Ondoren Magisteritza egingo zuen. Ikastolako kontuak jasotzeko elkarrizketatu dugu, [Arantzazu](#) ahizparekin batera. [Rosa](#) ahizpa ere ikastolan ibili zen lanean.

Rosa Narbaiza Erdabide (1954)



Zubietan jaioa. Ama Usurbilgoa zuen, gaztetan Bergarara joandakoa bizitzera familiarekin; erizaina zen ikasketaz, baina ezkontzean utzi egin zuen. Aita Bergarakoa zen, eta Lasagabaster ehun lantegian egiten zuen lana. Lau neska eta mutil bat ziren. Mariaren Lagundian ikasi zuen, eta ondoren Magisteritza egin zuen Donostian. 1974an bukatu zuen eta Aranzadi ikastolan hasi zen lanean, musika irakasle moduan. Musika-ikasketak ere egin zituen. Bere beste bi ahizpa ere ikastolako irakasleak izan ziren: [Arantzazu](#) eta [Blanca](#). [Gotzon Bikuña](#) senarra ere elkarrizketatu dugu.

Franzisko Oianguren (1859)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Udal-idazkaria zen eta 54 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.222

Migel Okina Salsamendi (1924-2021)



Bergarako Barrenkalean jaio zen Migel. Ama bergararra zuen, eta aita, berriz, aretxabaletarra. Ospitaleko mojekin hasi zen eskolan, eta zazpi urterekin, Errepublikarekin, Herriko Eskolara pasatu zen. Euskal liburuak zituzten bertan, eta klaseak euskaraz jasotzen zituzten. Gerra denboran San Blas (Buruñao) eta Elosu auzoetan babestu ziren familiakoak. Gerrako kontu gogorrak azaltzen ditu. Zura lantzen zuen artisau familiakoa zen, baina Simon Arrieta pintoreak irakatsita, bera ere pintore bihurtu zen. Bartzelonan, Madrilen eta Parisen landu zuen pinturarako zaletasuna, bohemioen erara biziz. Zaletasuna lanbide bilakatu zitzaion, eta bere artista-bizimoduko hainbat pasarte azaltzen ditu. Migelen loba Josu ere egon zen elkarrizketan.

Mertxe Olabe Zabala (1930)



Zaldibarren jaio zen, baina umea zela Elgetara joan ziren bizi izatera. Ezkondu ondoren Etxeberriaundia baserrira (Santikua) joan zen bizitzera. Grabazio honetan batez ere antzinako sehaska-kantak abesten ditu. Bergara aldeko kanta zaharren bilketa-lanean bere ekarpena oso garrantzitsua izan zen. Honako kanta hauek abestu zituen: Lotxo engañadore; Haurra logale dalako. Grabazio berean Maria Luisa Alberdi eta Bittori Aranburu ere agertzen dira.

Bibiana Olañeta Aranzabal (1914-2008)

Angiozar auzoko Zabaletagainekoa baserrian jaio zen. Gurasoak ere Angiozarkoak bertakoak zituen. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.



Frantziska Olañeta Aranzabal (1906-1989)

1906an Angiozarko Zabaletagainekoa baserrian jaioa. Gurasoak biak Angiozarkoak bertakoak zituen. Altuna baserrian bizi izan zen eta, gerora, Angiozarko kalera joan zen bizi izatera.

Lorenzo Olañeta Olañeta (1926-2014)

Uberako Olañeta baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Auzo bereko Agirregoikoa baserriko Luis Aranzabalekin batera egin zitzaion grabazioa.

Idoia Olano

Josu Oregi Aranburu (1919-1995)



Bergaran jaio zen 1919an. Ingeniaritza ikasketak bukatu ondoren, bere familiaren lantegian hasi zen lanean, Oregi Textilean. Antzinako ehundegiak ozta-ozta ezagutu zituen. Dena den, haien funtzionamendua ehundegi mekanikoen antzerakoa zenez, azalpen baliotsuak ematen ditu gaiaren gainean. Euskaltzain urgazlea, beste hainbat esparrutan ere lan handia egin zuen.

Lide Oregi Arregi (1935)



1935. urtean jaiotakoa Zubieta kalean. Aitajauna eta aita errementariak ziren. Bergarako lehenagoko bizimodua eta ohitura zaharrak oso ongi gogoratzen ditu. Bergarako udalak lanbide zaharren gainean argitaratutako "Burdina: errementariak eta perratzaileak" libururako hainbat elkarrizketa egin zituen Iñaki Aranarekin batera.

Mercedes Oregi Arregi (1921)

Mojetan ibili zen eskolan 14 urtera arte, gerra etorri arte. 15 urterekin fabrikari hasi zen lanean eta 12 urte egin zituen bertan. Gero etxeko tailerrean ere ibili zen, baina azkenean ahizparekin batera denda jarri zuen eta hantxe egin zuen lan jubilatu arte. Kanturako zaletasun handia zuten anai-arreba guztiek.

Arantzazu Oregi Goñi (1963)



Begarako Zubiarte etxean igaro zuen haurtzaroa. Ama Tolosakoa zuen: Miren Goñi (Perito Mercantil ikasitakoa, eta Etniker taldekoa). Aita Josu Oregi bergararra (negozio-gizona, euskaltzain urgazlea eta itzultzailea). Guraso biak euskaltzaleak eta euskararen alde asko egindakoak Bergaran. Baita aurreko belaunaldia ere: aitaren aldeko aitaita zinegotzi jeltzalea izan zen eta amama Emakume Abertzale Batzako, gerra aurreko ikastolaren bultzatzaileetako bat. Arantzazu Bergarako udal artxiboko langilea da. Familiako kontuak jasotzeko elkarrizketatu dugu, eta baita haren anaia ere, [Eneko Oregi](#).

Eneko Oregi Goñi (1953)



Zubiartea etxean jaioa. Ama Tolosakoa zuen: Miren Goñi. Aita Josu Oregi bergararra. Guraso biak euskaltzaleak eta euskararen alde asko egindakoak. Aitaita zinegotzi jeltzalea izan zen eta amama Emakume Abertzale Batzako, gerra aurreko ikastolaren bultzatzaileetako bat. Aita euskaltzain urgazlea izan zen eta itzultzailea. Baita Eneko bera ere. Ekonomia eta Enpresa Zientziak ikasi zuen EHUn eta IVAPeko euskararako zuzendariordea da. [Arantzazu Oregi](#) arreba ere elkarrizketatu dugu, familiako kontuak jasotzeko.

Miren Osa Alberdi (1934)



Soraluzeko Irure auzoko Eitza baserrian jaiotakoa. 15 urte ingururekin Sacia torloju fabrika hasi zen lanean eta ezkondu arte egin zuen bertan lan. Bergarako Lucio Urzelairekin ezkondu zenean Osintxura joan zen bizi izatera. Bertan urte batzuk egin ondoren, Bergarara joan ziren bizitzera. Gazte denbora mediku eta sasimediku artean pasa behar izan zuen izan zuen gaixotasun baten ondorioz. [Luzio Urzelai](#) senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Rafael Osoro Alberdi (1932)



Osintxuko *Ontzola* (Oronsola) baserrian jaio zen 1932. urteko urriaren 24an. Ama ere baserrian bertan jaioa zen; aita, berriz, Elgoibarkoa zen. Hamaika senidetan bosgarrena zen Rafael. Bederatzi urterekin hasi eta hamabi urte bete bitartean Osintxuko eskolan egin zituen oinarrizko ikasketak. Pare bat urtez morroi egon ostean, Soraluzeko "Eugenio Argarate" torlojugintzako fabrika hasi zen lanean. Hamalau urte zituen orduan. Soldadutza amaitu zuenean sartu zen Eibarko AYRA DUREX lantegian. Autoentzako ordezeko piezak eta "Destroyer" karabinak ekoizten zituzten garai hartan. Erretiroa hartzeko garaia iritsi bitartean jardun zuen Rafaelek Ayra Durex-en.

Tomas Osoro Elkoroiribe *Intxuzabal* (1928-2015)



Begarako Goimendi auzoko (berez Basalgo auzoa) Intxuzabal baserrian jaiotakoa. Baserriko lanak eta inguru oso ongi ezagutzen ditu. Hitzun ona da eta etnografi gaiez azalpen zehatzak ematen ditu.

Pastora Otadui Ezpeleta (1925-2016)

Arrasaten jaio zen 1925ean. Zortzi anai-arreba bizi ziren Musakola auzoko baserrian. Baserria kale-baserri modukoa zen eta taberna eta estankoa zituzten etxean bertan. Ahizpa nagusiena beste ama batena zen eta 25 urteko diferentzia zegoen beren artean. Ume-umetan Musakolan bertan ibili zen eskolan, baina bost urte zituela aita hil egin zen eta osaba-izeba batzuek Bergarara eraman zuten eurekin bizitzeko.



Celestina Oteiza Jaia (1916-2001)

Begarako San Lorentzoko Mouazpikoan jaio zen 1916an eta bertan bizi izan zen.

Luis Payros Agirrezabal (1930)

Begarako San Pedro kalean jaio zen, bi anaiatetik gazteena. Aita, aitona frantziarren biloba, Iruñean jaioa zen. Ama berriz, bergararra zuen. Aita gazterik gaixotu eta hil zen. Amak denda jarri zuen, "Merceria Moderna" izenekoa. Gero "Tintorería Margola"ren denda kudeatu zuen, 87 urte izan zituen arte; 105 urterekin hil zen. Luis Ospitaleko eskolan hasi zen ikasten, sor Eufermiarekin. Gero herriko eskoletara joan zen eta batxilergoa dominikoen seminarioan egin zuen. Kontabilitatea ikasi eta "Banco de San Sebastián"en jardun zuen lanean erretiroa hartu zuen arte. Ordenagailua asmatu aurretik, bankuko lanak nola egiten ziren azaltzen du. Tailer txiki batzuetako kontabilitatea ere eramaten zuen. Mendizale amorratua izan da, eta Pol Pol elkarteko presidentea izan zen urteetan. Zabalotegi auzoan edota berdura plazan izandako aldaketak azaltzen ditu. Irune Agirre beasaindarrarekin ezkondu eta bost seme-alaba izan zituzten.



Mariasun Plazaola Gallastegi (1933)



Zumarragan jaio zen arren, hamabost hilabete zituela aitona-amonengana eraman zuten Bergarara, eta harrezkero bertan bizi izan da. Aita zumarragarra eta ama bergararra zituen. Pilotaleku ondoko etxe batean bizi zen, geroago errepidea egiteko bota zutena. Etxearen beheko solairuan eskola pribatu bat zegoen, Kontxita Maiztegi maistrarena, eta bertan ikasi zuen Mariasunek hamabost urtera arte. Gero kontabilitatea ikasi zuen beste hiru urtez. Ikasketak bukatu eta Idarretaren ehun-biltegiko bulegoan hasi zen lanean, Bergarako ehunak saltzen hasieran. Geroago Aramaion egindakoak saltzen zituzten. Mariasunek Bergarako ehungintza lantegiak gogoratzen ditu. Bergarako pilotalekuan partida garrantzitsu asko jokatzen ziren garaia ere gogoan du.

Jose Joakin Raymond (1862)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Latorrigilea zen eta 51 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: bizkaiera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.223 eta 2.224

Luz Telleriarte Egidazu (1930)



Victoriano Telleriarteren alaba. Aitaren ibilbide pertsonalari buruzko hainbat datu emateaz gain, gerra osteko Bergaran zegoen gizarte- eta kultura-giroaz hitz egiten du elkarrizketa honetan.

Txiste kontalariak

1989an, Antzuolan egin zen txiste-kontalarien lehiaketa. Partaideak: Bergarako Asier Agirrebeña, Xabier Garitano, Maite Aristegi eta Joxe Ramon Aiasatui; Antzuolako Joxe Ramon Peña, Xabier Altzelai, Ritxar Cuevas eta Sergio Colominas; eta Arrasateko Jon Iñaki Izarzelai eta Eugenio Otxoa. Lehiaketa hasi aurretik Joxe Ramon Galarraga eta Gillermo Segurola txiste kontalari profesionalek eta herriko Beñat Etxeberria gazteak hainbat txiste kontatzen dituzte. Ekitaldiaren amaieran, Patxi eta Itziar abeslariak abesten dute.

Eugeni Ubera Zabala (1948)



Bergarako Goimendi auzoko (berez, Basalgo auzoa) Bergaretxe "Bergetxe" baserrian jaioa. Zazpi anai-arrebatan laugarrena. Ume-umetatik baserriko lanetan lagundu beharra izan zuen. Eskolara Elgetara joan zen. Ezkondu ostean, Eibarren bizi izan da. Baserri giroaren, baserriko lanen eta garai bateko erromerien inguruan jardun zuen bere ahizpa [Maria Angeles](#) eta [Maria Asun](#)ekin batera.

Mari Asun Ubera Zabala (1947)



Bergarako Goimendi auzoko (berez, Basalgo auzoa) Bergaretxe "Bergetxe" baserrian jaioa. Zazpi anai-arrebatan hirugarrena. Ume-umetatik baserriko lanetan lagundu beharra izan zuen. Ezkondu ostean, Eibarren bizi izan da. Baserri giroaren, baserriko lanen eta garai bateko erromerien inguruan jardun zuen bere ahizpa [Maria Angeles](#) eta [Eugeni](#)ekin batera.

Maria Angeles Ubera Zabala (1944)



Bergarako Goimendi auzoko (berez, Basalgo auzoa) Bergaretxe "Bergetxe" baserrian jaioa. Zazpi anai-arrebatan zaharrena. Ume-umetatik baserriko lanetan lagundu beharra izan zuen. Besteak beste, Eibarrera jaisten zen esnea saltzera oso umetatik. Ezkondu ostean, Eibarren bizi izan da. Baserri giroaren, baserriko lanen eta garai bateko erromerien inguruan jardun zuen bere ahizpa [Maria Asun](#) eta [Eugeni](#)ekin batera.

Blas Ugalde Alberdi (1923)



Mugertza kalean jaio zen, lau anai-arrebatatik bigarrena. Aita Bergarakoa zen, zapataria, eta ama berriz, Urretxutik lanera etorritakoa. Herriko Eskolan eta Seminarioan ikasi eta gero, 1934. urtean Goiko Plazan jarri zuten ikastolara joan zen gerra hasi zen arte. Hamahiru urterekin Oregi Unzurrunzaga lantegian ekin zion lanari, nazionalen armadarentzako ehuna ekoizten. Soraluzeko "Industrias Osuna" eta Bergarako Aranes eta Mil lantegietan ere egin zuen lan. 1944. urtean ama egunkariak saltzen hasi zen plazako kioskoan. Seme-alabek laguntzen zioten egunkariak banatzen. Bergarako ehungintza, lehengo egunkariak eta bere salmenta, eta Madura kale inguruan zeuden baserrirei buruz hainbat azalpen ematen ditu.



Benita Unamuno Mujika (1905-1992)

Kokote auzoko Azpiletan jaio zen 1905ean. Aita Azpileta bertakoa zuen; ama, berriz, Andoaingoa. San Kristobal auzoko Aldai baserrian bizi izan zen.

UNED

Asuntxi Uribesalgo Bengoa (1928-2020)



San Pedro kalean jaioa. Ama Angiozarkoa zuen eta aita bergararra; seminarioko inprentan egiten zuen lana. Bi senide ziren, mutila eta neska. Ume-umetan ospitalean ikasi zuen, eta gero Enseñanza. Marrazketa ematen zuen han, partikular, eta aritmetika ere bai, handik kanpo. Bi izeba bizi ziren beraiekin etxean, bordatzaileak biak ere. Halaxe ikasi zuen ofizioa. 15 urterekin hasi zen haiekin batera lanean. Etxera ezkondu eta hiru alaba izan zituen. "Acción Católica"koa zen. Orfeoian ere ibili zen hainbat urtean.

Benigno Urrutia Makazaga (1933)

Osintxu auzoko Bitxurtu baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Jesus Maria Altube eta Juan Aristimuñorekin batera egin zitzaion grabazioa.

Lucio Urzelai Gantxegi (1922-2009)



Aranerreka auzoko Abrain baserrian jaiotakoa; gazte-gaztetatik arotzeria kontuak interesatu izan zaizkio. Ezkondu ondoren Osintxun bizi izan zen denboraldi batez, baina gerora berriz ere Bergarara joan ziren bizi izatera. Industria gizona. [Miren Osa](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Karmentxu Zelaia Etxeberria (1952)



Zubieta kalean jaioa. Aita Oñatikoa zuen eta ama Bergarakoa. Bi senide ziren, eta aitona-amonak ere beraiekin bizi ziren. Mariaren Lagundia ikastetxean egin zituen ikasketak, Bartzilergoa barne. Ondoren, Ariznoa hotelean hasi zen lanean. 1967 urte inguruan losu Oregirekin euskara ikasten ibili zen, eta 1969 urtetik 1974 urte alderarte Juventudes Parroquiales taldean aritu zen, kultur ekintzak antolatzen. Elkarrizketaren zati bat Puri Arrondo lagunarekin batera egin genion.

Jose Mari Zenitagoia Berriozabal (1935)

Osintxuko Galartzazaharra baserrian jaiotakoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren. Galartzaberri baserriko Jose Mari Arandorekin batera egin zitzaion grabazioa.

Begoña Zubizarreta Mujika (1922-2011)



Aritzeta auzoko Usasti (Oruesagasti) baserrian jaio zen, lau anai-arrebatatik hirugarrena.. Ama bertakoa zen, eta aita berriz, Aramaioko Azkoaga auzoko Zabaldia baserriatik etorritakoa. Ahizpa eta anaia zaharragoak Amerikara joan ziren, eta bera geratu zen aitaren laguntzaile, baserriko eta basoko lanak egiten. Hortik aparte, etxeko lanak ere egiten zituen. Bergarako pilotaleku aurreko eskolan ibili zen hamalau urte arte. Harrezkero Usasti baserrian bizi izan da. Bergarako Ignacio Bilbao edari eta izotz banatzailearekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten. Autobia egin zutenean lur zati handia kendu zioten, eta laster etxetik alde behar dute, errepide berri bat Usasti baserriaren gainetik pasatuko baita.

Zuraren aurkezpena

"Zura, arotzak eta etxegileak" liburuaren aurkezpena. Bertan parte hartu zuten hizlariak: Estepan Plazaola Bergarako euskara teknikaria, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Juan Martin Elexpuru filologoa eta Anaje Narbaiza liburuaren egilea.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Baserria

1.1. Perratzaileak Bergara inguruan

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/002
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:03:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Perratzaile eta errementari lana. Orain dela 40-50 urte Bergaran 300 bat pare idi zeuden. Inguruan zeuden perratzaileak zeintzuk ziren.

Transkripzioa

- Zuek perratzen eitten ziñuen bakarrik edo...?
- Guk eitten giñuan perratzen ta basarriko erreminttia, ba, atxurra edo... basarrixan usatzen zan erreminttia arreglau, ta ein be bai barrixa batzuk eta hola. Errementari, basarriko errementari; horixe zan gure izetia. Ta hori oin zela gastau ein dan... Bueno, basarrixia ez da gastau dana, baiña ganauak perratzia ta hori ya desaparegiduta dao. Lehen Bergaran ganau asko zeuan. Egongo zian... oin berrogeta zortzi, bederlatzi, hamar urte igual egongo zian Bergaran hirurehun bat pare idi. Ta perratzailliak be zeren Osintxun, gero ni, Angiozarren, Barrenkalekua... ta horrek. Ta horren aurretik gehixao be bai.
- Zubixaurren ez zeuan?
- Haura nik ez naben ezautu. Zubixaurkua, antxinakua. Bai, Zubixaurren bazan lehenao, baiña nik ez naben ezautu Zubixaurkorik.
- Han lehenao, e?.
- Bai, lehenao.
- Zubixaurko jatorrixa da Azkarate. E...
- Alaba bat bizi da hortxe [Camacho]-neko goixan, ez? Ez zan Bittor Gallastegin...?
- Egon, egon... Murgoitio, izena zela da?
- Bai, Vicente.
- Ez, andria...
- Pilar.
- Murgoitio... Pilarren gizona...
- Bai, Damian, Damian.
- Damien.
- Nik Damian ezautu neban zerrajero.
- Damienek ez zeban perratzen asko ingo, baiña Damienen aitta ta zien perratzailliak, perratzailliak eta herreruak, errementariak zien.
- Horrek zien Zubaixaurkuak.
- Zubaixaurkuak. Baiña hori antxiñako denporia da, antxiñako kontua. Nik ez nittuan ezautu horrek lanian, Zubixaurren. Nik ezautu nittuanak hori, Bixente Uriarte, baiña horrek perratzen eitten zeban bakarrik, basarriko zerik ez zeban eitten, basarriko lanik ez zeban eitten, perratzen. Eta gero Angiozarren Joxe Martin Arrieta, Angiozarkua. Harek be eitten zeban perratzen eta basarriko asuntua, baiña haura desaparegiduta dao. Osintxukua be desaparegiduta dao, gu be bai...
- Arrieta hori bizi da edo...?

- Ez, ez, hil zan. Haren semen bat biziko da, Donostian edo zan. Haura dedikatzen zan balkoiak-eta eittera ta hola, ta haura biziko da oinndiok.

1.2. Zenbat urterekin ikasi zuen ogibidea eta noiz hasi zen bere kontura lanean

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/003
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:03:32. **Bukatu:** 00:04:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Eusebio 14 urterekin hasi zen Osintxun beharrean. Perratokia 1934 inguruan ipini zuen Zapatarikonean.

Transkripzioa

Noiz sortu ziñuen Zapatarikuan perratokia? Ori ba el año treintai... Ori sortuko zan treintaikaturuan, ogetamalauan. Eta hor bazeuan beste bat be, Mujika Mugertzakua. Arek errero itten zeban, gurpillak eta burdixendako erroberak... Eta llantak burdixendako, ezta? Baitta, ori eitten zeban. Zu ez za gogoratzen gure aittak eta aittajunak, Unzuetanekuak, eitten zebenian errementari? Zuen aittaitta ezautu naban nik, bai; aitta be bai, aitta asko. Baiña orrek errementari itten zeben bakarrik, perratzen ez zeben itten.

1.3. Errementaria eta perratzailea

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/004
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserría vs. Kalea
- **Laburpena:** Baserriko tresnak konpondu eta berriak egin. Gerra sasoian, perratokia itxita egon zen. Aspaldi Bergaran 400 baserri baino gehiago egongo zirela uste du. Perratokiak eta perratzaileak gaur egun.

Transkripzioa

Eta zuek bai perratzen eta bai errementari? Bai, basarriko asuntuak.

1.4. Abereak perratzea

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: BER-003/005
- **Iraupena**: 0:01:41. **Hasi**: 00:06:38. **Bukatu**: 00:08:19
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Lanerako erabiltzen ziren animalia guztiak perratzen ziren: idiak, behiak... Zaldiak eta astoak baita ere.

Transkripzioa

- Eta idixak bakarrik...?
- Behixak be bai.
- Behixak be perrau eitten ziñuzten?
- Behixak be bai. Segun... danak ez, baiña lanian zebizen ganauak dana perratzen zan. Batzuk perratzen zian... Ganauak kaskua dauka, baiña bi bihetz dauka hanka bakoitzian; hemen bihetz bakoitzian perra bana bakarrik; beste batzuri ipintzen jakuen sei, zortzi be bai, lana fuerte eitten zeben idixeri eta. Zortzi be ipintzen jakuen, zortzi perra.
- Bihetz bakutxian?
- Bai, bihetz bakoitzian perra bat. Kaskua esaten jako, eta kasko bakoitzak bi bihetz eukitzen dittu.
- Eta perratze horrek ze efeko eitten zotsan lanerako? Zeaittik eitten zan hori?
- Hori, ba, norberak zapatak jartzia moduan.
- Oseake lokatza artian horrek efektua eitten zeban?
- Gastau ez dein, kaskua gastau ez dein. Txapia izeten da perria, txapa... lau bat milimetrokoa edo, bostekua edo...ipintzen da ta josi giltziakin .
- Orduan zaldixeri eta astueri be ingo jatzuen, orduan...
- Baita. Danei. Bueno, danei... astuak batzuk, lan gitxi eitten dabenak ez dabe biher izaten, baiña beste batzuk, ba, bai ta... Zaldixak, berriz, lehen burdiñazkuak izeten zien, ta gero gomazkuak eitten zien. Oin zaldirik be ez dao, hemen behintzat.
- Karrerretarako-eta perrauko dittue, ezta?
- Bai, horrek perrautare.
- Bai, ta idi-probetarako ta...
- Bai, idi-probetarako ta.

1.5. Perratze erabiltzen ziren tresnak; perratokia

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref**: BER-003/006
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:08:19. **Bukatu**: 00:09:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Perratze prozesua nolakoa zen; erabiltzen ziren tresnak. Perratokia zelakoa zen.

Transkripzioa

- Kontauko dozu pixkat zela zan? Zelan eitten ziñuen dana?
- Zela eitten ziñuen, zela zan. Hori. Honek ez dabe ikusi sekula; nik ikusi dot. Zela lotu ganaua eta aber...
- Ganaua jasotzen da... Aurrian eruaten dau korrea bat ta atzian tabla bat, atze partian, ta jasotzen da gora.
- Poleiakin...
- Eskuakin be bai ta poleakin. Guk poleakin [daukau] ipinitta.
- Nik poleakin zuenian ikusitta.
- Ta gero hartzen dia hankak, gora, sokiakin lotu ta han nahi dana eitten jako ganauai.
- Eske behetik datoz lau hanka...
- Bai, lau zutiko die.
- Ta haretara lotzen jakue.
- Ze izen dauka horrek?
- Perratokixa.
- Bai, perratokixa, baiña izen, hola... ixotzeko tabla horrek-eta izenen bat zeukan berezixa?
- Ez, armazoi bat izaten da ta... Perratokixa, nik beste izenik eztakit, perratokixa. Gero pujamante esaten jako, halako katxarro batekin...
- Zela?
- Pujamantia. Azpixa leundu eitten da puskat, kaskua, batzuri hazi eitten jakue eta moztu, leundu puskat, ta gero perria asentau, asentau biher izeten da harek be iñun miñik ez deixen emon edo, ta gero josi eitten da, bost giltze, sei be bai, laukuak be izeten die, lau zulokuak be.

1.6. Abereak perratzeko erabiltzen zuen teknika

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:09:51. **Bukatu:** 00:10:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Perratzailea ona denean animaliak ez du sufritzen. Perratzeko erabiltzen zuen teknika.

Transkripzioa

- Eta ganauak sufridu eitten zeban?
- Ez. Bueno sufritzen dau... kaskuak eukitzen dau holako barra bat, atzazkala edo esaten jakona, ta barruan okelia dauka, ta han giltzia sartu bihar da, okelia ikutu barik. Horixe da perratzailliak daukan meritua.
- Teknikia, ez?
- Bai, teknikia; zuk eusten badozu [barru samarretik], ikutzen [jatzu] odolian eta gero eitten da errandu, hankia eitten da mindd. Ta hori gaizki dao, josi biher da gogorretik.
- Ganaua dominatzeko, surretik edo [...] ... oratzeko?
- Ez, ez, ez. Uztarrixa ipintzen jakon buruan eta gero lotu eitten da gora. Burua be bai ta hankak be bai, lotu eitten dia.
- Eta uztarrixa ipintzen jatzuen jasotzeko?

- Batzuk uztarrixa ta beste batzuk... Guk uztarrixakin eitten giñuan, beste batzuk badare uztarri barik, beste katxarro bat adarretan lotu ta eitten dabenak, baiña uztarrixa da hobia, hobeto lotzen da ganaua.
- Uztarrixa... bi uztartzeko uztarri bi edo espeziala?
- Ez, ez, ez, bakarra. Uztarri bat.

1.7. Eskuz egindako perrak; gerora fabriketan egiten hasi ziren

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/009
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:12:17. **Bukatu:** 00:14:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Antzina zaldi eta astoei eskuz egindako perrak ipintzen zitzaizkien. Gero abereendako perrak fabriketan egiten hasi ziren (Mutrikun, Zegaman, Ormaiztegin...). Baserritarrek joaten ziren animaliarekin perratzailearengana.

Transkripzioa

Zuek eitten ziñuzten perrak? Ez, ez. Bo, kaballerixiana bai jenerala; len eskuz eitten zan ori, baiña gero fabrikak zeren; eitten zan baiña ori asko kostatzen zan eta einddakuak egoten die. Nai bozu plantillia bakarrik eta nai bozu akabautakuak. Gu Motrikotik ibiltze giñan, Zegaman be bazeuan eta Ormaiztegin be bai; baiña guk Motrikon, Uribesalgo. Zestuan biltzen zan da eun bat kilo inguruko zesto bat apropos eindda eukitzen zebeñ erak. Zeuk eskatzen ziñuan pedidua: ero zesto bat, ero bi, ero zeuk biar ziñuzenak. Baiña aurretik eskuz eitten zan: ebai txapia o zeozer olakua gogorra baldin bazan por ejemplo, jo mailluakin da zabaldu, ta zela-alakua ein. Baiña gero ez, gero fabrikatik. Ori gastauta dao ta. Oin be eingo dia nunbaitten, ezta, baiña Motrikokua zarra zan; ez dakitt Ormaiztegiak eitten daben ero. Da astuan da perria, berriz, etxian eitten zan guk bia giñuana. Zelan konpontzen ziñaten basarritarrekin geratzeko? Basarritarrak erak etortzen zien; ero ganaua errendu ein ddala ero perria bota. Batzutan igual kolia ta urrengo bapez.

1.8. Abereak perratzearen inguruko hainbat kontu

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/010
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:14:58. **Bukatu:** 00:16:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

- **Laburpena:** Perra berria ipintzea, pta.1 kobratzen zuten; perra zahar bat ezartzea, bi errial. Perra berria noiz ipini behar izaten zitzaien.

Transkripzioa

- Ta faktura estilua edo zeoze egoten zan?
- Ez, hori eskuan pagatzen zan.
- Zenbat kobratzen zan orduan perra paria ipintzia edo?
- Bueno, orduan, perria barrixa ipintzia, pezetia. Perra bakoitza pezetia, barrixa; ta zaharra bi erriel.
- Zaharra be bai jartzen zan, e?
- Bai, uso onekua baldin bazan ba...
- Eta zela etortzen zien ganauak? Perria zenbat denborarako izeten zebeñ?
- Hori segun kaskua, ganaua bera zelakua dan. Bai, diferentzia haundixa egoten da. Porejenplo, atzeko hankak asko bigunauak izeten dia aurrekuak baiño. Igual izengo da materiala, baiña atzekuak bustixak zela egoten dian, enjeneral, aurrekuak sikuan eukitzen dittue ganauak, ta bigunian, ba, bigundu eitten da. Kasko batzuk oso bigunak. Harek, ba, perria lehenao botatzen dau.
- Soltau eitten jakue?
- Bai, bai, ibilixan soltau eitten da. Gero lanian esfuerzua zela ein bihar daben, ba...
- Nola konturatzen zien perria soltau dabela edo?
- Bistan... ikusi eitten da ta! Ikusi eitten da.
- Ibilleran edo...
- Klaro. Ta gero batzuk, ba, min hartzen zebeñian, ba, kojo; ta perratokira juan bihar perria ipintzera.

1.9. Perratzeko erremintak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/013
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:19:47. **Bukatu:** 00:23:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Perratzeko erabiltzen ziren tresnak. Eginaz ikasten zen lanbidea. Tresnak nondik ekartzen zituzten.

Transkripzioa

- Kontaukozu pixkat ze erremintta erabiltzen ziñuen hor perratzeko?
- Oseake, lau hitz edo lau gauza zeuzkazuenak...
- Bueno, hor erreminttia... ez da erremintta asko bihar hortarako. Lehen esan dot pujamantia. Guk pujamantia, igual eukiko dau beste izen bat, guk hori esaten gontsan.
- Bueno, baiña hemen Bergarakua bihar dou, hemen esaten zana.
- Kaskua garbitzeko, ezta? Zeindda zepilluakin garbitzen dan bezela egurra, horrekin garbitzen zan.
- Ez ziñuen hola, kallua moduan kentzen?
- Hori... bai.
- Azala, hola, kentzen zotsen.
- Kendu. Eta gero, ba, perria, segun ze tamaiñotakua dan kaskua. Badakizu

bistara zuk, lehen esan douna, eñaz ikesi eitten da hori, erreza da ikesten hori. Gero, ba, haura ein bihar dozu asentau puskat, erdixan ez jao jo bihar behian, bigunian, eskiñako bueltan gogorrian asentau bihar da. Ta gero, ba, josi; bost iltze, bost edo sei, segun.

- Orduan, maillukia erabiliko ziñuen...

- Mailluka txiki bat ta porrikak.

- Zela? Porri...

- Porrikak esaten gontsen guk. Porrikak. Iltzia sartzen danian kanpora atarutzen da, ezta? Ta gero, haura eitten da puntia bueltau gora, ta gero ebai sobria, ta gero eitten da errematxau porrikian kontrara maillukiakin.

- Maillukia, oingo mailluka normala edo...?

- Et, et, et. Ez, mailluka espeziala izeten da, txiki bat.

- Txikixa alde bixetatik?

- Ez, alde batetik, alde batetik. Bai, alde batetik. Ta biher izeten dia hiru, bi-hiru tenaza; tenazak edo porrikak, oin ez dakit izena zela izengo dan be...

Ta bat izeten da aldian dakarren perria kentzeko; haura erremintta zahartxuaua, ta giltzia ebaitzeko ta horrek bihar dira fintxuauak, eta gero beste tenaza bat edo porrika batzuk dare sobre-atzazkala mozteko.

Horretxek hirurok, osea, lau erremintta die; bost, bost erremintta die.

- Ta tokixa haundixa be ez ziñuen bihar, ez?

- Ez, toki haundixa ez... Ta gero perria asentatzeko, ba, mailluka bat fuertiaua, eta junguria. Perratzeko horretxek.

- Zela esan dozu? Maillukia eta bestia?

- Junguria. "Yunque" edo...

- A! Klaro, junguria, bai. Eske hori guk sekula ez dou entzun euskeraz, ta horreaittik. "Junguria" esaten da?

- Ta beste batzuk "ingudia" edo esaten dotse baitta, baiña "junguria" [da hemen].

- Junguria.

- Bai, "yunque".

- "Yunque". Eske nik hori euskeraz entzuteke neukan ze zan, izena horrena.

- Euskeraz ez da izengo igual hola, baiña...

- Bai, bai, bai, hola izango da!

- Bai, Eibarren behintzat hola esaten dotse. Ni [egun baten] begira egon nitzan Juan San Martiñena, ta Eibarren behintzat "junguria" esaten [dotse], asike... Ta antzera hemen ta Eibarren.

- Bai. Ba, horixe. Oin, ostian errementarixa asuntuan erreminttia zenbat eta gehixao euki ta lan eitteko hobeto.

- Zuek erreminttia gero nundik ekartzen ziñuen?

- Perratzekua? Perratzekua nik lehenengo ekarri nittuanekin akabau neban. Ez da gastatzen hori holan itxuria, kaso ein ezkeru puskat. Bilbotik edo... ferreterixetan hori.

1.10. Errementariaren lana

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/015
- **Iraupena:** 0:03:44. **Hasi:** 00:25:12. **Bukatu:** 00:28:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

- **Laburpena:** Baserriko tresnak egiten zituen. Lanabes hauek fabriketan egiten hasi zirenean galdu zen beraien ogibidea. Errementariaren lan-tresnak. Harri-ikatz erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Baiña lehelengo, errementari moduan ze eitten ziñuen?
- Lehelengo errementari moduan, ba, aria ta burdiñaria ta horrek dia, basarriko erreminttak; zorroztu, horrek zorroztu ta atxurak zorroztu ta... Basarriko...
- Zuek ein, horrek... atxurak eta, zeuek ein ez ziñuzten eitten, ez?
- Horrek Osintxun eitten zian. Bai. Gero hemen nik [ekin netsanian] ez. Osintxun eitten zian atxur hola... txiki batzuk eta. Baiña hori be galdu zan. Bai, ba... fabriketatik eta gero atxurra ba...
- Eta aizkoria eitten zan?
- Aizkoria eitten zan... Tiburziok eitten zaban aizkoria.
- Horixe ba, nik baten bati ikusitta...
- Eitten zaban, baiña harek be lehenao e, nere akorduan ez, ni baiño lehenaoetik, ni horra etorri baiño lehenaoetik. Gero galtzairutu ta bai eitten zittuan aizkorak, galtzairua ipini. Hori ta bai, baiña aizkorarik ez. Gero aizotza ta horrek, sasixa ebaitzeko ta horrek eta...
- Zela da sasixa ebaitzekua?
- Aizotza esaten gontsan guk, igitixan moduko bat, hola egur partikia sartu ta ebaitzeko, sasixak eta ebaitzeko.
- Ez naiz akordatzen hori zelakua zan. [...] Horrek eitten zittuan...?
- Horrek eitten giñuzen geuk be, baiña gero horrerri laga in gontsan ya.
- Gehixen bat zorroztu-eta, orduan?
- Bai.
- Konpondu edo...
- Bai. Basarriko artikuluan gauza gitxi dao kontatzeko; aria ta burdiñaria ta goldia ta dia basarriko asuntuak; hortik fuera...
- Baiña goldak eta eitten ziñuen zuek?
- ...Oin bai, oin tratoriak eta, osea, diferentia da. Ez, baiña arregluak!
- Arregluak. [Goldiana-ta] ekarriko zebein eindda...
- Bai, eindda ekarri ta gero arreglua.
- Eta hortarako ya gero zeoze berezixa zeukazuen edo...? Junguria lehendik zeukazuen. Ez?
- Bai, bai, junguria bai, lehelengotik. Junguria ta maillukak ta porria ta... Gero suteixa ta... Lehen suteixa izeten zan hauspua, hauspo haundi bat. Gero azaldu zian bentiladorak, eskuakin erainddakuak. Gero elektrikuak...
- Zuek zela hasi ziñaten? Hauspuakin?
- Ez, ez. Osintxun bai, Osintxun hauspua zeuan, baiña ez. Bentiladora, lehelengo eskuakin ereittekua.
- Zelako bentiladora zan? Zelan funzionatzen zeban horrek?
- Eskuakin ereindda, manilliakin. Bentiladora. Haizia. Gero elektrikuak [...], motorrakin.
- Egur-ikatz-ta biharko ziñuezen, ez?
- Egur-ikatz. Eee... Egur-ikatz gitxi, harri-ikatz gehixao e, harri-ikatz bai.
- Nundik eruaten ziñuen hori?
- Hori, ba... karboneruai, guk bihar izeten giñuana. Gitxi gastatzen giñuan [hori]. Karboneruari.
- Gero zaukazuen suteixan onduan aska bat hola urakin, hozteko.
- Bai, urakin aska bat.

- [...]
- Tenazak beruari heltzeko ta, erreminttak bihar die errementeritzarako.
- Eta ze erremintta zien horrek?
- Tenazak.
- Tenazak... lehen esan dozu porri... zela esaten jatzuen?
- Porrikak edo... Porrikak, baiña harek ebaitzeko, diferentiak [die]. Barreri heltzeko-ta tenaza luziak, ta horrek, ba, izeten dia bariauak, segun zeri heldu bihar [dozun] .
- Tamaiño desberdiñak...
- Tamaiñokua bihar.

1.11. Gurdiendako burdinazko gurpilak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:32:36. **Bukatu:** 00:34:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Gomazko gurpilak; gurdiendako burdinazko gurpilak zelan egiten zituzten.

Transkripzioa

Burdixen erruberak eta eitten ziñuzten? Bai, orrek gomazkuak eitte giñuzen, bai. Lenengotako gomazkuak guk eitte giñuzen, bai. Baiña aurretik burdiñazkuak zien llantak. Bai, llantak burdiñazkuak. Horrek Tiburziok eitten zittuan, ta zure aittajunak-eta gehixau.

1.12. Abadeei begirunea

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isabelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/012
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:17:05. **Bukatu:** 00:18:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Abadeei baserrietan ematen zitzaizkien janak zeintzuk izaten ziren. Konjurua. Domu Santuan "olatak" (3 puntako ogia). Orduan dena ematea izaten zen, nahiz eta etxean jatekorik egon ez.

Transkripzioa

- Eta hemen abadieri eta ekartzen jakuen ba basarritik garixa eta...
 - M: Jesus...! Garixa ta artua ta...klase dana. Oilasko parie be bai [...] junda ta...

- E: Egurra be bai.
 - M: Egurra be bai ta...
 - E: Ta gero Domu Santutan olatak be bai.
 - M: Olatak be bai.
 - E: [Ermura] juten giñan behintzat abadiaana [...] neska koskorrak giñala ta olatak emoten zoskuen...
 - Olatak ze die?
 - M: Hiru puntako ogixa eitten zan ta harek erregalo emoten zien.
 - E: Mezetara eruaten zien ta gero...
 - M: Zuk zeure... Zeuk besotan hartutako bati, ba, Domu Santutan emoten jakon, haura olatia esaten da.
 - A! Karapaixua.
 - M: Ez dakit nik...
 - Karapaixua. Karapaixua hemen ez dozue esaten, olatia esaten dozue. Hola arrautzia ipintzen jakona ta...
 - M: Bai, nahi bada bai.
 - Ta txorixua barruan ta...
 - M: Bai, hortaikoxia da.
 - Guk karapaixua esaten dotsau.
 - M: Bai, guk horixe, olatia. Orduan dana zan emotia. Etxian nahiz ta ezebez jan ez, dana emon. Ta zestokada arrautzak ta gaztaiek eta... danak batzen zittuan abadiak! Ta gero, hona etorri zian abadiak laga otsen. Horrek... galdu zien, zihero galdu zien! Ta ondo dao hori geiñera.

1.13. Baserri giroko sineskerak

- **Hizlaria(k)**: Agirre Elkoroturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-058/013
- **Iraupena**: 0:00:15. **Hasi**: 00:18:12. **Bukatu**: 00:18:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Maiatzaren 3an konjurua egiten zen. Hirukurutzetako (Santukurutzetako) eguna. Monagiloa eta abadea zestoarekin pasatzen ziren baserriz baserri.

Transkripzioa

- E: Eske lehen konjurua be eitten zan. Maietzan hiruan hasten zan Hirukurutzetan, Santukurutz egunian hasten zan.
 - M: Bueno, baiña han konjurua ein ta hemendik [konjurua eittia] ez ta iguel.
 - E: Baiña esaten dot hori be ezautu doula.
 - M: Bai, ezautu gendun.
 - E: Basarririk basarri juten zien: monagillua, abadia... Zestuakin [hartuta]. Hi ez hitzan ibiliko...

1.14. Euskara. Berorika

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/023
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:27:56. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Euskara » Tratamenduak » Berorika
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Abadeei berorika egiten zitzaien; errespetu handia.

Transkripzioa

<p>- Orduan abadiari berori esaten jakon? - M: Bai. Bai, bai. - Beti...? - M: Horixe berori! Enee...! Abadiari errespeto asko jakon orduen ta abadia asko erreztatzen ta egoten zan. Beti pasiuán ta beti liburuákin ta beti erreztatzen egoten zien orduko abadiék! Ta han pasatzen [zanián] txapelari hola erein barik ez [...]... - Reberenzia... - E: eskuan atxurra hartuta abaderik iñok ikusiko... - M: Ke ba! - E: ta gaur abadiak ikusten dittuu geure modoko baten lanian.</p>

1.15. Emakumearen bizimodua baserrian (II)

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/034
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:36:18. **Bukatu:** 00:38:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Emakumearen bizimodua: ume ugari mundura ekarri; lan asko egin eta jateko ezer gutxi izan. Antzinako txanponak zeintzuk ziren. Diru pixka bat lortzeko emakume batzuk egin behar izaten zituztenak kontatzen ditu.

Transkripzioa

- Orduan, emakumia umiak eukitzeko ta...
- Umiek ugeri eukitzeko eta lan ugeri eitteko. Ta ezebez jateko gauza dezenterik! Ez zeuen dirurik eta! [...] emakumia gorrixak pasautakua da.
- Jana euki ezkerro...
- Ez mediku bat, etxien famelixia izen... gorrixak ikusittako emakumiek.
Danok.
- Eta porejemplo, jana egon ezkerro lehenengo izango zian... lehenengo gizona, gero umiak eta azkenengo emakumia?
- Gizona aurretik, bai. Azkenengo sobratzen zanakin haura. Egongo zien besterakuak be, beren burua maittiao zebenak, baiña jenerala holaxe. Holaxe. Geiñera kafe puskat pagatzeko ez zeben eukitzen ta... Ezebez. Dirurik ez. Ezek ez zeban balio ta. Dozena arrautziak zazpi txakur haundi.

Zortzi-zazpi... Patatiakin, kiluakin txakur haundixa ta hiru xemeiko bi kilok. Ostiengo gauza guztiek halaxe eren. Ezekin be dirurik hartu ez ta nun eukiko ziñuan ba jazteko ta zetarako... alperrik euen gauzia merke! Zuk ez badaukazu... Gure ama zanak esaten ebana, lauzikua zan lehenao, nik ez naban ezautu. Gure amak eta ezautu zebeñ lauzikua.

- Ze zan lauzikua?

- Lauzikua zan dirua. Gero xemeikua ta txakur haundixa zien bezela, lauzikua. Ta harek esaten eban: "Zetarako da idixa lauzikuan egotia lauzikua ez badaukazu?" Harek horixe esaten eban ta errezoia eukan. Ezekin dirurik hartu ez, miserixa baten bizi zien orduko emakumiek. Eta hemen goixan, hemen goiko andrak domeka [goizien], zapatuan gorde bai, garixa edo artua edo... garixa jeneralian, hor garixa dezentia izeten zan ta, eta zangen bat... Zangia badakizu zer dan? Hola, ura juteko zangak... halako zangen baten gorde eta bi edo hiru kilo hartu ta, nere aiztiak errotia eukan ta panaderixia, haraxe diru puskat hartzera. Gizonen isilik e! Gizonen isilik. [...] puskaten zeoze-zeoze eruteko. Haura isilik, aurreko egunien etarata, meza nagusittara datozenien hartu albuen ta ekarteko. Holaxe bizi izendakuak [dira hemen] Olabarri ta [Geintxoitti] ta Euzkitza ta honek danetan e! Holaxe bizi izendakuak dia horrek. Guk ez giñuan hori ikusi e, gure etxian ez zan hori ikusi, baiña hemen holaxe. Neuk ikusittakua.

1.16. Emakumearen bizimodua baserrian (III)

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/035
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:38:40. **Bukatu:** 00:41:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Emakumearen bizimodua. Gazterik hiltzen ziren. Bizimodu latzak izaten zituzten gehienak. Erabiltzen zituzten arropak. Jateko, artoa eta esnea. Lehengo kontuak zelakoak ziren; gaurkoak.

Transkripzioa

- Emakumiak, orduan, gazterik hilgo ziran... hainbeste ume euki, hainbeste lan...

- Bueno...! Emoten eben nik oin daukaten beste urte berrogeta hamar urtekin bai, gitxiaokin. [Gaztiak...] erak baiño. Holaxe. Gero, hagiñik be ez, buruko [emendixa] jantzitta, erropa luze-luze gona haundi batzuk, beste... txabria edo esaten jako, beste amantal haundi bat. Bueno... zaharra emon ez ba? Horixe! Zaharra? Hauraxe zaharra! Gero alimentua bapez...! Esnia ta artua ta zerak baiña, batzutan beste gauza bat jateko gogua [be ona eitten da] ta falta haura dana.

- Umia euki ta...

- Bai, umiak

- ...haren saldia...

- Bai, haren saldia [geiñera] kendu ta gizonak hegatzixa. Bai, "ume bat ein leikek eta ez dakit zer ein leikek eta... [hartik bera]! Lan edarra dok haura!"

Umia eukitzia zer dan ez daki.

- Orduan ez zan baloratzen hori.

- Ezta figurarik be e! Bueno...! Gizonak ezta pentsau haura padeziduta eitten zanik be! Bueno... Bai. Emakumiek gorrixak ikusittakuek zien ta hil be eitten zien asko geiñera. Hil. Hil asko.

- Normala, ez zien ba hilko? Haren gorputzak hartuko zebeu egurtua!

- Bueno...! Horixe egurtua! Bai horixe! Ta halaxe bizi izen zan ba orduen jentia.

- Umia eittetik umia eittera segittuan.

- Bai ba! Urte bigarrego barrixa. Haura hazten danian beste bat barrixa, hurrengo beste bat barrixa. [Oregin] be hamabost edo izen zien. Hamabost ume.

- Hamabost, esan errez eitten da baiña...

- Sei edo hil zien. Ta artian be juntau-jantau jutia komeni gizonorri ta atsua aspertuta, leporaiño berakin!

- Ez zan ba egongo?

- Aber ba! Holaxe mundua. Lehengo... zibilizaziñorik be ez bihar danik ta...

- Orduan, oingo ipuiñak, gizonak andriari lagundu ta... ipuin horrek ezta...

- Bueno...! Ezta pentsau be holako gauzarik! Gizonak ez zebeu eitten orduen han ezebe etxeko jiran. Ta geiñera bestiak eitten dabena apreziau ez! Haura berez eitten zalakuen! [...holaxe bizi izen zien...] Gaur basarrixan don dare danak, don! Bai. Andrak be manejatzen dabe beste estilo batera ta gauziakin dirua hartzen dabe geiñera. Esniakin, arrautziakin, klase danakin diru asko hartzen dabe ta manejaue egitten dira hobeto. Ta orduen gizonak hemen [Iturgaitteko] ta honek esaten zebeu: bildotsak saldu, [bildotsen] dirua gizonak, ganauak saltzen bazian gizonak harek diruak ta andrak esne puskiakin ta arrautziakin hartzen ebenakin ibili deittiela. Etxeko nezesidadiak harek handik ein [deittela]. Holaxe.

1.17. Dolarea ekarri eta sagardoa egiteari ekin zioten

- **Hizlaria(k)**: Agirre Elkoroiturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-058/044
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:49:18. **Bukatu**: 00:50:49
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Sagastiak eta pinudiak. Dolarea ekarri eta sagardoa egiteari ekin zioten.

Transkripzioa

- Ze klase zeuan sagarrena? Urtebete sagarra...

- Bai. Gezia, urtebete sagarra eta...

- San Juan sagarra?

- San Juan sagarrrik ez zeuen. Ostien ez dakit... [zuma]-sagarra, madari-sagarra... Horretzek eren. Bai.

1.18. Abereen inguruko lexikoa

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/050
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:01:22. **Bukatu:** 01:01:48
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Abereen inguruko lexiko ugari galtzear dago. Uztarriaren inguruko berbak.

Transkripzioa

- Eta lehengo baserriko tresnak, hagiak eta izaten zian ba...
- Izeten zien, ba, tresnak, aria, goldia, atxurra, eskuberia, segia, polaiña, igiteixa, sega-igiteixa...
- Sega-igiteixa zelakua zan?
- Sega-igiteixa... bat izeten da hagiñak dauzkana. Ta bestia izeten da, sega-igiteixa, zabalaua ta hagiñik ez daukana.
- Hagiñik baekua.
- Bai, bai.

1.19. Abarkagintza

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/052
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 01:02:22. **Bukatu:** 01:03:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Abarkak josteko prozesua eta tresna batzuen izenak. "Soskixa".

Transkripzioa

- Guri [Karlosek] jardun zeskun esaten kubiartekin be eitten ziala sasoi baten...
- Abarkak bai. Kubiartak ebaitten zittuen ta atzia zatarra eukitzen eban, ezta? Atzien ebaittako zera, ta aurrie be bastante... zakarrak zien baiña ondo ibiltten zan. Lehelengo haretzek urten eben. Gero beste abarka honek zerok, polittauak, gomazkuak, urten eben. Gero harek kaskau ein zien, harek zatarrak zien ta.
- Ta umetan ze, oinutsik etxian?
- Ez! Abarkekin ibiltten giñan.
- Danak gomazkuak?
- Ez, ez, ez. Guk dana narruzkua.
- Narrua...
- Bai.
- Ta narrua nundik jiratzen ziñuen?

- Ganauana. Ganauana edo txahalana, ganauana ekarten eben. Ta beratzen ipintzen zittun gure aittak ta berak josten zittuen abarkak. Ta erosi be bai. Abarkak saltzen egoten zien. Oin umienak egoten dien moduen, baiña beste klase baten. Ta horrek gorrixak dien moduen, ba, harek zurixak, narru... narruzkuak. Haretxekin ibiltten giñan.

1.20. Umetan neskame joan zen

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/008
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:01:51. **Bukatu:** 00:03:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Umetan neskame joan zen, arratsaldetan eskolara joateko baldintzarekin. Baserrietan lan asko egoten zen. Jatorduak: lehen platera gaztaina izaten zen; orduan ez zen ia patatarik sartzen. Ehunezko arropa.

Transkripzioa

Esan kriada nun egon ziñan aurretik... Kriara bai oixe, kriara eon nintzan ni Azkortan, Azkortan giñuan aittan arrebía, giñuan Azkorta-Erdikuan, Rikardon da ama, antxe zortzi urterako, atsaldetan eskolara bialtzeko kondiziñuakiñ... Atsaldetan eskolara, eta eskolaik ikasi ziñuañ? Bai, leiru ta eskribiru eitten giñuan, ta kuentak etaratzen be bai; ori lenengo etaratzen dan ori zela da ba? Sumarra. Sumarra bai. Orduan zortzi urtekin kriada jun ziñan Azkortara? Bai-bai. Gero amar urtekin komuniua eiñ, da Galartzara, umezaiñ. Basarrixan eoten zan orduan lana, ura danian urriñ, da ganau zaintzia, ittulia, gaztaiña zuritzen berriz e, ukatzeko laiñ; orduko primer platua gaztaiña zan; oiñ e, patataik ezan sartu be eitten orduan da, ortuan bi iru zulo idar barrixekin jateko, ta se akabó, dana gaztaiña. An urtian bost duro irabazten nittuan... Orduan tripa-truk bakarrik etzan... Bai, ta zeoze jaztekua be bai, kamixia ero; orduan eunezko erropia ibiltte zan...

1.21. Ehungintza. Lihoari buruzko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:03:42. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- **Laburpena:** Ehuna. Etxean egiten zen haria. Prozesua: kirrua irun; goruetan egin; haria, matazak egin. Osintxun egiten zen ehuna. Lixiba. Lihoa (linua) etxean ereiten zen. Liho-soroaren kolorea, urdin-urdina.

Transkripzioa

- Eta ehuna etxian eitten zan?
- Hilari: aber, ehunan kontua esan, ama.
- Bai, ehuna... etxian eitten zan harixa. Kerrua irun esaten jakon, goruan ipini ta sartu gerrixan ta ardatzakin harixa ein; ta gero arilddu esaten jakon ta matazak ein. Ta gero tejerua hor zeuen. Osintxun eitten zan ehuna, Tejerokuen. Ta ehun piezie ein ta gero lixibia eitten zan ta zurittu. Jesus! Ta liñua be etxien hartzen zan... Bai, liñua erein ta liñuak loria ederra eukitzen dau e, anillan kolorekua, dana berdin-berdin, ustez itsasua dala...

1.22. Lihoa ereitetik haria egitera

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/011
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:05:09. **Bukatu:** 00:07:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Lihoa (linua) zelakoa zen. Liho-hazia (linazia), beste edozein hazi bezalaxe ereiten zen. Ez zen ebakitzen, atera baizik. Sorta txikiak egin, lotu eta ihartu egin behar izaten ziren zelaian zabaldua. Batu, labean berotu eta trangatik pasatu. Ardatzean egiten zen haria. Negu guztia lihoa iruten egoten ziren eta erronda galantak egiten ziren.

Transkripzioa

- [...]
- H: Honek diñue, ama, ze izeten zan liñua, liñua, tela hori eitteko.
- Bai, liñua erein eitten zan, beste edozein hazi bezelaxe. Liñazixa oin be botikan egongo da. Liñazixa, enplastuak-eta eitteko-ta hartzen zan lehen. Ta liñazixa erein, ta liñua lastua bezelaxe batzen zan, etara eitten zan gaiñera, ebai ez. Etara eitten zan; oso sustar...
- Sustarretik...?
- Sustar txiki-txikixa eukitzen dau liñuak, [utxa], ta berdin berdin-berdiña... [...]. Anillan koloreko loriakin, oso politta izaten da.
- Eta gero zela eitten zan liñua?
- Gero, ba, sorta txiki batzuk eitten zien, ta harek sortak, zertu, lotu, berakin, beran zerakin, bedarrakin berakin, ta igertzen eukitzen zien kanpuen, zelaixen zabaldua. Gero handik batu ta labien berotu, ta trangia esaten jakon, hola mihiña barrura sartzen jakon zer bat, astuak esaten jate, ba, zerak... Ta han, labian berotu ta kaskaria kentzen jakon, ta liñua ikusiko ziñuen iñoiz, zerera, itturrixa ipinttera datozenak-eta ebalten dabe ba liñua...
- Hori hari gogor hori...
- A! Hori da?
- Bai.

- Hori da liñua?
- Liñua, liñua, bai.
- Espartzu tipoko...
- Ta harekin eitten da harixa.
- Baiña oin espartzua modukua ibiltzen dabe, ama. Oin espartzuan moduko gauza bat ibiltzen dabe. Lehen ibiliko zan liñuoi.
- Lehenao. Bai. Ondio urte asko ez dala be bai liñua ebalten eben. Gero harekin harixa eitten da, ardatzien. Orduen erronda galantak eitten zien. Negu guztia liñua iruten, irun esaten jakon. Ta juntau andra mordua ta... gero gabien errondia.

1.23. Ogia zelan egin

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/028
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:38:37. **Bukatu:** 00:39:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Garia
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Errezetak
- **Laburpena:** Ogia zelan egiten zen. Hazgarria. Ore-mahaia.

Transkripzioa

- Zela eitten zan orduan ogixa? Guk hori ez dou ezautu ta... zela eitten zan ogixa orduan?
- Ba, ogixa eitten zan, ba, hazkarrixa izeten zan. Bueno, hazkarrixa kalia be egoten zan saltzen be...
- Hilari: Bai, gero, ama, aurretik ez!
- Nik ez dakit lehelengo zela zertuko zan... Ogi, hola... Ogi zati bat, masa zati bat isten zan ore-mahai baztarrien iriñakin tapauta, ta haura, handik zortzi egunera harek ogixa harrotzen eban. Haura... harro-harro ein, iriñak eta danak zertuta eukitzen zittuen, harrotuta. Zertu eitten zan, fermentau.
- Hilari: Hazgarrixa.
- Ta haura urtu ta porejenplo, bixar goixian ogixa ein bihar dozu? Gaur gabien haura hazkarrixa ein, masia ein, beste iriñakin ta. Gero goixien haura masa haura sartu ogixakin ta harek harrotzen eban. Lehelengo ez dakiu zela [sortuko] zan... Zortzi egunian harek balixo izeten eban; zortzi egunian han egoten zan ore-mahai baztarrian iriñakin tapauta. Ta handik zortzi egunera harek fermentau, zertu eitten eban, ogixa harrotu.

1.24. Ogiak eta gariak duten lana

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/029
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:39:50. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Garia
Euskara » Lexikoa

- **Laburpena:** Baserritarrek gari-aleak eramaten zituzten errotara. Irina eralgi. Galbahea, garia pasatzekoa. Baheak, irina pasatzekoak; setazkoak izaten ziren. Klase bi zeuden: finarekin egin ezker, ogi zurizuria irteten zen; bestela "basilloria" esaten zitzaion ogia egiten zen. Arto-irina. Gariak zenbat lan duen esaterik ez dago.

Transkripzioa

- Baserritarrak erak ekartzen zeuben alia, ezta? Garixa, alia...
- Bai, bai.
- Ta gero errotan xehetu [...]
- Bai, bai.
- Ta gero geunkan ganbaran eralgitzeko makiña bat.
- Ze eitteko?
- Iriña eralgitzeko.
- Eralgi?
- Bai. Bahiak izeten zien, ba? Ez dakik? Bahia, holan ri-ri ein ta zela pasatzen...
- Galbahiak...
- Galbahiak. Galbahia bai...
- Galbahia da bat ta bahia beste bat.
- Bahia beste bat...
- Bahia da iriña pasatzekua. Sedazkuak izeten zien lehen. Galbahia da garixa pasatzekua.
- Baiña, ama, [horrez] aurretik zela? Zeatik horrek, bahia, kasik neure akorduan ipini zan gurien... Aurretik galbahiakin pasatzen ziñuen dana?
- Aurretik...? Galbahiakin pasau biharko zan... Ore-mahaixan egoten zan zer bat...
- Ore-mahaixan egoten zan holako...
- Ohol luze bat. Eta hantxe bahiakin...
- Holako makila bat ipini ta [bahia] han, ore-[mahaira].
- Bahiak egoten zien bata bastuaua, bestie fiñaua. Fiñakin ein ezker, bi ogi klase eitten zien, [basilloria] esaten jakon bati...
- Zela? Zela?
- Basilloria. Eukitzen eban, ba, zera harek asko... birriña edo...
- Zahixa...
- Bastuaua. Bahe bastuauan pasauta egoten zan ta. Ta bahe fiñian pasau ezker, zuri-zurixa ogixa.
- Artua be, arta-iriña be halan pasatzen zan...
- Artiriñana beste bahe bat, diferentia.
- Bai, orduan ogixak emoten eban makiña bat lan! Enee...
- Ogixak ze lan daukan ta garixak esaterik ez da...!
- Ondiokuan zeri ez ta dana eskuz! Dana eskuko lana!
- Errotara bota orduko dana galbahetu bihar garixa!

1.25. Gari-irin desberdinak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/031
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:42:54. **Bukatu:** 00:44:30

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Bahea motorrean ipinita zuten. Lehenengo zahi-zabala botatzen zuen, gero birrina. Hurrengo, gari-pikorra. Irinaren kalitatearen arabera, izen desberdinak: gari-pikorra; gari-fina. Birrina eta zahi-zabala. Irin-fina.

Transkripzioa

- Gero bahia geunkan zerakin ipinita, motorrakin ipinita, bahia. Ta bahiak [geunzkan], lehenengo zahi-zabala botatzen eban...

- Oso kuriosua zan haura...

- Hurrengo birriña ta hurrengo semolia, semolia esaten jakona, pikorra, gero iriña, fiña.

- Zahi-zabala ze izeten zan...?

- Hilari: Zahi-zabala, ba, garixari iriña egindakuan kentzen jakon holako... zahixa. Semola hori... Semolia da, gari-pikorra, ezta? Ta hori dendatan saltzen zan zopia egitteko. Sopa de sémola. Makiña bat bider egin giñuan.

- Oin be bai...

- Oin atzera berriz hasiko da hori seguruasko...Sémola de trigo.

- Oin be apartauko da haura irin fabriketan...

- Semolia ta birriña ta zahi-zabala. Hiru klase, hiru zera klase. Gero irin fiña. Lan ugari badago hor.

- Garixak bai, garixak lan asko.

- Orduan, zahi-zabala eta irin fiña be bai?

- Bai ba.

- Birriña ta gero semolia...

- Lehelengo izaten don zahixa...

- Zahi-zabala... Ta geiñera zahi-zabala...

- [...]... bape pisu bageko... azala. Garixan azala haura. Ta gero...

- Zahi-zabalak txikittu ez deixen [haura]...

- Hori, xehetuta gero urtetzen daben lehelengo gauzia da, ez?

- Hori dok! Errotan pasau ta gero urtetzen dabe. Pasau galbahien ta... Ta gero birriña fiñagua. Ta gero ya iriña.

1.26. Gariari zahi-zabala zelan kendu

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/032
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:44:30. **Bukatu:** 00:45:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Zahi-zabala ateratzeko garia ihar-iharra egon behar zen. Lanbroa bota eta umeldu egiten zen, azala (zahi-zabala) osorik irten zedin. Lan asko, gau eta egun.

Transkripzioa

- Eta zahi-zabala [birrintzeko] nun sartzen zan?
- Zahi-zabala etaratzeko, garixa igerra, ezta? Garixa iger-igerra. Ta hola lanbro bat bota ta umeldu egitten zan, zera, azala iriña egin ez dein. Bestela beltza ogixa. Zahi, zera... azala osorik urten deixen, zahi-zabalori. Ta zenbat lan...! Jesus...! Gau ta egun.

1.27. Errotak eta errota-harriak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/033
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:45:03. **Bukatu:** 00:46:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Errotak bi harri zituen. Piketeak. Ebaki txikia egin behar izaten zitzaion piketeari, bestela garia apurtzen zuen. Zortzi egunean behin harria jaso eta pikatu behar izaten zen, irin fina irteteko.

Transkripzioa

- Errotan lana egitteko ze pieza zeren? Piezen izenak esan.
- Errotia, ba, bi harri: bata azpittik, bestia geiñetik. Ta harek pikau egin bihar [kontuen-kontuen]. Piketiak aproposak egoten dira ta [kuidado] haundixakin [arraia] haundixa egitten bajako, golpe haundixa emoten bajako, apurtu egitten dau garixa. Ta ebagi txiki-txiki bat egin bihar izeten jako. Pikete harek egitten dabe ebagi oso txikixa, garixa... iriñak fiña urtengo badau. Haura gogor joten bada, ba, iriña bastua.
- Lana eukitzen juan harek tamaiñakua harri harek!
- Lana? Ene...! Zortzixan behin jaso ta zertu egin bihar, pikau egin bihar dana.
- Harrixa?
- Harrixa.
- Ene...! Oin akordatzen jatak, haura zuan lana haura! Beti harri pikatzen!
- Bai ba, bestela ez zeban egitten gauza onik eta...

1.28. Gari-ebakitze eta gari-jotzeak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/053
- **Iraupena:** 0:00:23. **Hasi:** 01:09:20. **Bukatu:** 01:09:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena:** Gari-ebakitzea noiz. Garia jotzeko eguzki beroa behar izaten zen.

Transkripzioa

- Gari-ebaitzia noiz izeten zan?
- Ba, abuztu...
- Abuztuan ez, ama, gari-ebaitzia San Martzial inguruan ez da izaten?
- San Pedrotan edo ez...?
- San Pedro-San Martzial inguruan ebaitzia.
- Bai. Ta jotia abuztuan komeni, euzki berue komeni izeten da ta.
- Enee, akordauta be... Basarriko [...ibiltzen] tratua...

1.29. Bilbora neskame

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/058
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 01:14:10. **Bukatu:** 01:16:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Neskame egon zeneko kontuak. Bilboko kontuak. Sukaldari lana. Ipintzen zuten jatekoa.

Transkripzioa

- Orduan zuk diferentzia dexentia ez? Esan dozu len Galatzen urtian bost duro esan dozu lehen? Ez, neskame eon ziñanian urtian bost duro?
- Pilar (alaba): Baiña hamar urte jeuzkan, urtien konformidadian...
- Ordu gaztia nintzan.
- P.: Baiña gero hillian lau duro, hori asko!
- Hiru be irabazten ebenak asko zeren ta... Neskak serbizio domestikuan mordua zain lekua sortzeko zain, ni ez nintzan eon be ein baiña, asko antxe eoten zien, han eitten zittuen haundiketxetako jaboradurak edo lixibak, ta erakusten otsen garbitzen ta erreparatzen ta. Orduan erropia konpontzen zan Jaungoikuak lagun zer, haundixek izen arren errepasso galantak. Oingo hau? Etetzen ez dan hari hau ez euan orduan ta...
- P.: Koziñera be bai denpora guztian.
- Ene! Koziñera eon ziñan?
- A, bai. Koziñeria. Señoriak esan zela eiñ da nik eiñ, makiña modutako gauzak, bi prinzipixo, diarixo usatzen zien, da asmau ein bier ze ipini diferentia.....
- Ta ze gauza jaten ziñuen? Ze...
- Guk oingo aldien asko.
- A. (gizona): Arrai freskue onak ezta, ama?
- Arraiña ta, okeliakin be beste milla gauza, relleñuak eta... Bueno, pipar relleñuak eta. Fritotan be nok daki, fritotan, arrautza egosixa mesamelakin batuta, mingaiña albardauta, sesos, mollejas, y... mollejak be fiñak dia, kroketak... zemat gauza....
- P.: Koziñera ona. Behin esaten dau horrek egixa e? Jeneralen prinzipixo bat edo: ipintzen badittuzu entremes batzuk edo, ezta? Ba, baiña ordun bi prinzipixo bihar izaten zien.
- Bi gutxienaz e? Hiru leku askotan.
- Ta hori nausixentzako bakarrik gertatzen ziñun, ala zeuek be hortitik jaten ziñuen?

-Bai. Guri beti ixten oskuen. Guk danetik probatzen giñuan.
[...]

1.30. Morroiari "txandapasa"

- **Hizlaria(k)**: Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-060/059
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 01:16:50. **Bukatu**: 01:17:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Isazelaia Igartua, Jaione
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Anizetaren alabak euren aita morroi egon zeneko kontuak kontatzen ditu. Ardoa egun berezietan bakarrik.

Transkripzioa

-Pilar (alaba): Gure aittak ezaban ba esaten, bera kriau egon zan lekuan, ardaa, bueltan bueltan pasau, paso bat.
- Nun eon zan ba?
- P.: Etxakixat, or San Juan errekan nun ero nun, esate jua nun be, pasau, ta mutikuei aurrera, txandapasa arei, enee, zela estendidu zeikien be, mutiko gizajuei, ardaa, oiñ eztala ona, baiña orduen e, umiei...
- Bai baiña, oiñ karu baiña, orduan ordurako be karu....
-P.: Ori akorduan eukitze jua arek, orduan eitte jozten ba aura, pasau danei, bueltan bueltan ardaa ta...
- Ardaorik ez, etxien ezkiñuan eraten e, Gabonetan, Gabonetan, konpotia be ardauakin eiñddakua, eta Kofraixetan da kitto....

1.31. Lixiba nola egiten zen

- **Hizlaria(k)**: Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-061/021
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:38:50. **Bukatu**: 00:40:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Lixiba nola egiten zen azaltzen du. Egurrezko tinak erabiltzen ziren. Harizko arropa erabiltzen zen.

Transkripzioa

- Ta errofia, berriz, lixibia. Tiñia. Tiñia haundixa. Egurrezko tiñak. Eren... zela esango dotsut ba, zela esplikauko dotsut ba? Ikusiko dittuzue ba ardantokittan-ta barrika haundixak?
- Bai.
- Ba, behia estua ta gora zabalik izetia. Tiñia. Ta, ba, dana errofa zurixa ohekua eta andrakumian-- oin ez da eruatzen baiña ni ibilitta be banao ni

gaztia nintzarian-- ta kamixia mangeluzia, eskote txiki-txikixakin kamixia. Ta dana harizkua. Batzuk fiñauak beste batzuk bastotxuauak, dana harizkua. Ta gero, ba, haura lixibia jabondu ta han dana tolosturan ipiñi eta hautsakin, sutako hautsakin egosi eta erramua ta elauntz zatixa-ta sartuta baldan. Hiru edo lau baldakada hortaikuak goittik behera bota hari, erropa hari. Ta gero harek behian, txorruakin, askia eukan parajia izeten zan. Ta han askako urakin behin hiru bat edo lau bat botatakuan, haura askako ura jaso ta harekin. Ba, botatzen zien bederatzi bat baldakada ur edo hola botatzen jakon erropiari. Usain bat edarraua ta kolore bat edarraua...! Ikustekiak ezin siñistu!

- Gaurko jaboia baiño hobia seguruasko, e?
- Haura, haura, haura... Haura zan [...] ta usain bat...! Edarra! Ta gero zaiñek baiño zaiñek, erropa zuri edarraua esegi!

1.32. Antzinako bizimodua baserrietan

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/036
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:59:51. **Bukatu:** 01:00:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Antzinako bizimodua, lasaia zen. Herrira noiz jaisten ziren. Zedula beharrezkoa zen garaia ezagutu zuen Hilarik.

Transkripzioa

- Trankil bizi. Bai ba! Trankil, ez euan ezeren kezkarik eta zerik ez euan ta. Nun-nundik [kartaren] bat. Gero herrira be urtian biaje bat kontribuziñua, urtian behin pagamentua. Ta neu be, ezkondu aurreko urtien, artien gurien kontribuziñua hamasei duro ta bost erriel edo zan. Ta gero zelulia etxian, ba, personako zelulia. Ta pezetia edo erriel bi edo izeten ei zan bestiena ta etxeko buruana hiru pezeta edo pezeta bi edo, ta haura aguazillak urtian, ointxe setienbrian edo, ta etxez etxe zelulioi partidu ta hauraxe kobrau. Hor, jun biharrik be ez herrira. Zetara?

1.33. Baserritarrek baserriaren jabeekin izaten zuten harremana

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/049
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 01:19:12. **Bukatu:** 01:20:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

- **Laburpena:** Hilariren baserriko ugazaba, Etxeaundikoa zen. Gabon aurretik burdi-egurra, burdi-ikatz, garia, etab. eramaten zitzaien jabeei.

Transkripzioa

- Gure ugezaba zan, etxian ugezaba zan Etxeaundikua, Don [Eladio]. Familixia. Hori hor dago palaziua oin be, Santa Mariñako zubixan onduan dagon palazio haundi hori. Haretxen [...] giñan gu. Eta gurien esaten eben, ba, juten zanian edo oilluakin edo bisittiakin... edo... oilluakin edo errentiakin edo juten zienian, ba, eskillara-buruan emoten ei eben arrautza bi ta baso txiki bat bete arda eta ogixa. Ogi biguna. [Txitxiak labe-sua egin] ta etxeko ogixa. Ta haura haundixa! Ta esaten ebela mirebiok arda, hau, honek mahastixak dauzke Naparruan, eronak. Ta hango mahatsakin egindakuak, eron etxeko arda da. Arda gorri-gorrixa, esaten eben. Basotxo bat ardaikin arrautza bi prijiduta. Bai.

- Orduko aberatsak...

- Bai. Gero eruten zian, ba, burdin-egurra, burdin-iketza eta gabon aurrien garixa, ez dakit zenbat anega. Ez dakit nik horixe; hogeta zortzi anega edo hogeta sei edo esaten eben.

1.34. Aisialdia baserrian: erromeriak

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/051
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 01:21:51. **Bukatu:** 01:22:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Erromeriak. Jantziak.

Transkripzioa

- Ta holaxe. Gero, ba, erromerixia. Erromerixia, oin daon moduan erromerixia. Dana dantzia ta erromerixia ta bueno...! Juergie gastau bai, e! Lehengo gaztiek, ba, ez dakit, ba, nik, zu, umore haundikua zan! Ta gero jantzixa be, ba, izeten zan, ba, abarketak eta galtzak. Negu ta uda! Ez gero, ez kanbixatzeko zerik. Ta udan eindhako soiñekua Gabon zaharreko perixakuen be jertsiakin! Pazkuetarako Bergararako eindhakua. Gero, ba, horrek gauzak kanbixatzen hasi zienerako, ba, neu ezkondu ta gero. Oin dala... ba, ezkondu ta nik hogeta hamar bat urte... Handixi hasi zan, handixi hasi zan. Zapatillak ta... Pelukerixarik-eta, berriz, ez. Horrek aberatsok iñudie dana.

1.35. Herri-basoak; mendia

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/057
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:29:56. **Bukatu:** 01:30:43

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- **Laburpena:** Ardiak, mendian libre egoten ziren. Bera gaztea zenean, behorrak ere izaten ziren. Herri-basoak zeudenean, pago tantaiaik ugariak ziren.

Transkripzioa

- Ta orduan ardixak bakutxa bere sailletan eukitzen zian ala...?
- Ez, ez. Mendixan libre.
- Mendixan libre...
- Bai, bai, bai. Mendixan libre. Hori ez dau hemen iñok ezautu. Ez. Oin, piñua sartzen zanian ta kinki-minkixa hemen ez. Hori ez. Hori ez da sekula ezautu. Gañera, ni gaztia nintzanien, bihorra ta oin be bai. Hemen ahuntzik ez. Ahuntzak kendu ein ei zittuen ni gaztia nintzanian. Aurretik ba ei zien, herri-basuak zienian-ta, baiña gero ahuntzak, ya herri-basuak galdu zienien, ahuntza erretirau ein ei eben.
- Herri-basuak zianien, lehen esan dozu, dana pagodixak ziela, pago-tantaiaxak?
- Bai. Paga-tantaiaxak. Paga-tantaixa dana. Oin be badare, ezta, paga-txarak edo oindio pusketak, ezta? Ba dana! Dana!
- Pago-tantaixa, hor, [...] egongo da ondio...
- Bai, bai. Pagadi edarra be hori... herrixak hartu ei eban bota ta ez piñu sartziaaittik.
- Kanterana.
- Kanterana. Hori da! Kanterana.

1.36. Antzinako bizimodua baserrietan: abereak; jatekoak

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/066
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:43:44. **Bukatu:** 01:44:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Antzinako bizimodua. Baserrietan zeuden abereak: behiak, txerriak, ardiak. Gabonetako jatordua zein izaten zen: garbantzuak txorizoarekin; azalapikoa odolostearekin; arroz-esnea, intxaur-saltsa; okela gisatua.

Transkripzioa

- Ta ze...? Ganaua ta [zertzen] zebeñ ta... etxietan-ta ze...? Ganaua ta ardi ta...
- Bai, bai, ganaua. Ganaua, ba, behixa, ardixa, txarrixa hazi. Urtien etxian danien txarrixa. Gabonetan txarrixa hil.
- Gabonetan?
- Bai, gabon aurrian. Gabonetan. Txarrixa hil. Ta gero gabonetako jatordua

be izeten zan, ba, garbanzua txorixuakin-ta, ta odolostiekin aza-lapikua. Ta gaiñian konpotia, arrozkoletxe ta intxaur-saltsia. Eta okelia be, berriz, estofaua. Dana gixaua. Erre gitxi, dana gixaua izeten zan.

1.37. Artaldearen inguruko kontuak; ardi-batzailea

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/069
- **Iraupena:** -1 day, 23:59:34. **Hasi:** 01:46:26. **Bukatu:** 01:46:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Ardiak maiatzaren hasieran, mendira eramaten ziren. Ordurako bildotsak saldu egiten zituzten. Bildots-batzailea baserri baserri joaten zen.

Transkripzioa

- Eta ze... ardixan tresneri zela esaten jakue?
- Ardixa, ardixa, ba, maietzian, hortxe, maietzian sei-zazpitan, ba, mendira.
- Mendira ya...
- Mendira jaso.
- Bildotsak kendu ta...
- Bai, bai. Ala!
- Bildotsak okelatarako edo zetarako...? Nora saltzen zan?
- Bai, bai. Holaxe, bildots-batzailliak errebenderei ta bai, orduan be bai errebenderia. Ta ni txikixa nintzala gaiñera kotxeduna etorten ei zan, karroduna, Osintxura. Oseake, martizten atsaldia edo eguen atsaldia edo eta bildotsak daukanak daukana haritxi [eruen]. Eta haretzek pagatzen ebana hartu ta etxera. Hori gero ez. Gero, ya nik ezautu neban, nere aitta pastoria zela zan ta beti Arrate baillian zela egoten zan, harek Eibarren saltzen zittuan ta Eibarrera martxia. Kanbixau ein zan, baiña ni jaixo nintzan inguruan, artian bildots-batzaillia Osintxura. Hemen. Ta beste lekutan be bai halaxe fango zien. Ta karruekin etorten ei zien ta, ba, haretzek pagatzen ebana hartu, ta emoten ebana, ta etxera. Astuak bildotsak ibiltzeko ta bestela bizkarra.

1.38. Baserritarrek abade, sakristau eta errementariariek zuten harremana

- **Hizlaria(k):** Unamuno Mujika, Benita
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-062/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:02:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko lanak » Garia

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak

Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak

- **Laburpena:** Baserrietan garia batu eta errementariari bere lanaren ordainean ematen zitzaion. Abadeei ere garia ematen zitzaien konjurua egitearen truke (imilaun bat gari). Sakristauari ere beste horrenbeste.

Transkripzioa

- Segurua-ta zela izaten zan?

- Ba, garixa izeten zan, garixa. Eta errementarixei erueten jakon bi imillan. Imillana hiru kilo edo izeten da, aproximadamente; sei kilo izengo [zian].

- Noizero? Noizero?

- Urtien behin, urtero. Hori urtero aseguruua zan.

- Etxe bakoitzak...?

- Bai, etxe bakoitzak. Gero atxurak, basarrikuak, atxurak zorroztu harek debalde. Seguruua. Atxur haunditxua baldin bazan, kobrau; txikixa bazan debalde zorroztu. Holakotxe zerak, [...] ezaututakuak baiña...

- Eta zera, abadietara zenbat emoten jakon?

- Abadietara [...] imillan bat. Denbora txarra zanian harek konjurua ein bihar eban obligaziñua. Urtero-urtero imillana. Bietia elizan, ba, bai, ba, sepulturak zian ta...

- Sakristania [...].

- Sakristania. Hari be imillan bat gari.

- Sakristana...

- Bai, hari be imillan bat gari. Berriz [botiken datu hori], ba, [botikia seguruan].

1.39. Elosu auzoaren banaketa

- **Hizlaria(k):** Lete Iribecampos, Juana Joxepa

- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione

- **Erref:** BER-063/001

- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:50

- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Toponimia. Elosuko auzoaren banaketa. Mugarriak. Nordea (norde-bazterra). Baserri izenak. Elizaldea. Errekaldea. Mendiak.

Transkripzioa

- Behin Kortan pasau ezker azkoittiarra, Aizpurutxo diferentia... Hemen danien, ixa barrixo bakoitzien diferente eitten da.

- Zela... zela dao zatittuta edo zela... zuek zela zatitzen dozue Elosu?

Bentatik honutz...

- Bentatik honutz.

- ... Nordia esaten jako, ezta, horri?

- Bai, honi Nordia.

- Gero, Elizaldetik...

- Horrek hortxe dauka mugarrixa [...].

- Mugarrixak be badazka honek?
- Mugarrixa be badauka horrek, Elizaldien dao mugarrixa.
- A, bai?
- Bai, hortxe dao [mugarri...].
- Ene! Eta Elizaldetik zereaiño izango da, ezta...
- Elizaldetik hartzen da: Bega, Azkoittikua da, eta handik haruzkuek. Aostondo be Azkoittikua da.
- Azkoitti partekua?
- Bai.
- Ta zera-ta... Elizaldetik Amentzela, Elormendi, Lutxurdio ta horrek?
- Amenzela, Elormendi... Horrek danak Bergarakuek.
- Bergarakuak?
- Eta Etxeberri be Bergarakua da.
- Eta Ujaldia zeri, ze zatiri esaten jako?
- Horritxi. Elormendi hiru... hiru [Elormendi...] esaten jate horrei sarrittan: Amenzela, Elormendi Azpikua ta Elormendi Gaiñekua. Horrek egongo dia. Ta, ostian, zera, Elizaldia.
- Elizaldia...
- Bai.
- Elizaldia, bueno, Elizaldia...
- Elizaldian [be, ba]...
- Ixaun eta...
- Sankristaua...
- Sakristaukua, ezta.?
- Abaderik ez dao oin ta...
- Eta Lutxurdio eta Kortabarri nun sartzen dia? Ujaldian horrek´e?
- Ez, horrek Errekaldia esaten jakue horrei.
- Errekaldia. Joe, oseake, makiña bat zati dao, ezta?
- Bai, bai, bai. Hau Nordia.
- Nordia... Ta Nordian be bi zati dare, ezta? Norde Baztarra...
- Bai, hori bai. [Honek] be errekiak erabagitzen dau.
- Errekiak erabagitzen dau...
- [...] baillaratuak darenak...
- Bai. Hau... Elusuko bezelako auzo bat... Bost zati edo, behintzet. Eta gero Azkoitti aldia zer da, dana da Azkoitti aldia?
- Etxosta-mendixa hemendikaldia.
- Etxosta-mendixa noraiño?
- Hemen Kortatik harutz sartzen die hurrengo etxiek.
- Añei hurrengo etxia...
- Añei. Bueno, Añei hemengue da.
- Añei Elusukua?
- Añei Elusukue da. Baiña gero zeretik, goiko kamiñotik sartzen dia harutz, ba, lehenengo egongo da Androndei.
- Androndei...
- Ta Otolak, Etxosta goixen, [...] Eizal ta Eizaltxo, Korteta, Goenatxo...
- Horrek danak Etxosta-mendikuak?
- Zeler. Horrek danok sartuko dia Etxosta-mendira. Zelertxo, Goenaga...
- Eta Añei da azkenengo basarrixa Elusuko partekua zerera...?
- Hemengua bai. Bai.
- Eta Azkoitti partia... Zela esaten jako, Azkoitti partia esaten dotsazue horri? Añei, Korta, Bega ta...
- Azkoiti auzua.
- Azkoitti auzua?
- Azkoitti hauzua hori.
- Ta hor sartzen dia: Aitzerra, Bolintxo be sartuko da hor...?
- Baita. Itxasakorta...

- Itxasakorta.
- Añei.
- Añei.
- Korta.
- Korta ta zera?
- Aitzerra.
- Aitzerra ta Bega izango da, ezta?
- Ta Bega, bai.
- Aostondo be bai hor?
- Ta Aostondo´re hor [...].
- Azkoitti auzuan...
- Bai.

1.40. Antzinako bizimodua baserrian. Umetan baserria zelakoa zen

- **Hizlaria(k):** Lete Iribecampos, Juana Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-063/006
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:11:27. **Bukatu:** 00:12:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Umetako kontuak. Aldaketa handiak urte guzti hauetan. Bizimodua lasaiagoa zen. Jatekoa.

Transkripzioa

- Ze... ze akordu daukazu zure ume...?
- Gu... larogei urten badakizu zenbat diferentzia ein dan?
- Orduan zela zan orduan bizimodua? Ze...?
- Orduan bizimodua gaur baiño trankillaua zan. Gaur beste bildur ta gaur beste zer ez giñuan pasatzen orduan ez. Oin baiño trankillao [ibiltzen] zan orduan jentia. Artua ta esnia ta babak behintzat ez zien falta izeten ta. Sagarra zanien ta... Ostienguek, barriz, tokatzen zian moduan. Baiña orduan ondo ibiltzen zan [hala be].

1.41. Umetako kontuak: eskola, jaunartzea, baserriko lanak

- **Hizlaria(k):** Lete Iribecampos, Juana Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-063/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Euskara » Euskararen egoera
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Ume kontuak. Eskola. Jaunartze txikia eta handia. Umetatik ganaduzain. 12 urterekin Arabara joan zen.

Transkripzioa

- Bueno eta lehen esan douna: ume-denborak edo ze... zela izeten zan zuen ume-denboria? Eskolarik-eta hartu ziñuen?
- Eskolia bai, zazpi urte ingurukin. Nik goguen daukat oindio zazpi urtekin komuniua itten zan, komunio txikixa; hamarrekin komunio haundixa. Ta Segunda [nuan] nik aizta zaharraua —Elgetan hil zan— ta harekin, artian nik elizara [mezaik]... biderik ez nekixan, e! Bueno, behintzat konpezionarixue nun zeuen ta zela erakutsi [osten] goguen dauket nik oindio harek. Zazpi urtekin komuniua eitteko jun eliza´ ta, ba, eliz barrenien konfesionarixuek han zien ta “Hortxe, hortxe konfesatzen dittun”. Neri zela erakutsi [osten] harek ondio goguan daukat nik haura. Ta [hartaikuan], bueno, elizara jun be ez giñan ingo gu. Elizara juteko erroparik ba al giñun, ba, guk artian? Tapau ingo giñan justu-justuan ta ostian ibili. Ze, ba, gaur bezela?
- Ta ya txiki-txikittatik hasiko ziñazien lanian, ez?
- Bai, biheko! Hoixe!
- Ganau zain ta...
- Ganau zaiñan? Hoixe! Biheko! Ni hamahiru urtekin Araban egon nitzen. Hamahiru... Hamar urtekin jun ta hamahirukin Araban basarrixan egon nitzan, e! Ta...
- Ze partetan egon ziñan?
- [Puerta de Ali], ez dakit dakizun, han zeretik, Vittorixatik harutz zer aldera, Miranda aldera.
- Entzunda daukat, baiña ez dakit nun daon.
- Ta gaur esan dau San Prudentzio eguna gaur, e! Gaur ala atzo?
- Atzo.
- Atzo. Atzo. [Honei] Loiolari entzun [jauat] zerien, Arabako Armentia [semia] zala haura, ta ni egon nitzan tokitik holaxe aurrian zeuan Armentia. Horixe akordauta egon naiz neu.
- Ta zela jun ziñanik-eta orduan akordatzen zara?
- Bai, akordauko ez naiz, ba?

1.42. Erromeriak Elosu eta Osintxu inguruan

- **Hizlaria(k)**: Lete Iribecampos, Juana Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-063/019
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:44:03. **Bukatu**: 00:46:01
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena**: Osintxuko eta Elosuko erromeriak ederrak izaten ziren. Arropak. Osintxuko kontu zaharrak: kofradia eguna.

Transkripzioa

- Osintxun Elusun aldiari erromerixa edarra eitten zan. Ez geunkanez artien...
- Eta zapatua [einda] etxera, Eizalera, etortzen ziñan ala behian geratzen ziñan?

- Giro ona zanian edo eguna zelakua zeuan. Sei t´erdietan illunduta bazeuan, bertan geratu.

- Ta udan baldin bazan, uda partian, Eizalera?

- Hoixe.

- Ta erromerixan-ta bertan [gelditzen ziñen]?

- Bai, hoixe. San Isidro eguna lehen lana eitten zan ta Osintxu... edo... Plazentziatik etortzen zien, ba, lana einndakuek. San Isidrotan eguna luzia. Ta gogun dauket oinddio, harek garbittu ta ezerre itteke ta guk [erabiltzen] giñuzen, ba, txanbra zurixek edo, gonie ta txanbrie zan ordukua. Ta erazten giñunien hurrengo egunien atzia dana beztuta. Dantza lotua ez zan izeten artian Elusun, baiña gu...

- Han bai, Osintxun bai...

- Guk juerga edarra erabiltzen giñuan... Bai.

- Ta erropa danak zikinduta, orduan?

- Bai. Plaentzitarrek etortzen zien lanetik [heldu] ta segidan Osintxura erromerixara.

- Harek asko garbittu barik erromerixara.

- Hoixe bai. Pena galantakin etorri nitzan ni atzera etxera. Osintxun zeon juergia! Oin´e bai. Osintxun beti da, beti da puskat zera...

- [...]

- Bai. Oin erromerixarik-eta ez dao ez... Hori... Gero [be] Osintxun bolalekuan kofradixa egunian-ta zan erromerixia. Baita ezaututa nao ni... Nik ez dakit artien ibiliko nitzan han... Neska gaztiak gu Urzelaira juten giñan —[ondio] hau Urzelain aittan anaia zan, ba, Felipen-ta aitta— ta hara juten giñan gu artian goiz, artian umiak giñala. Ta ez dakit, ba, orduan zan edo baiña han [haruzkuan] bazan, ba, gora bidia?

- Bai.

- Han bidien goixen jo soiñua ta kamiñuen dantzia. Kofradixa egunian ezaututa nao ni. Artian ez [nitzan] izango zaharra igul, baiña...

- [...]

- Bai, e?

1.43. Jaiotetxean lihoa ereiten zuten

- **Hizlaria(k):** Elkoroiribe Lizarralde, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-070/001
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:00
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Garia ereiten ebakitzen gogoan ditu, baina lihoa ez. Lihosoroak bai ditu gogoan, eta trangatzen ere ibilia da, Berezibarren.

Transkripzioa

-Haura liñua ebagi eta gero liñapotzuan (egosi) eitten zan?

-Egosi edo beratzen eukitzen zan. Beratzen. (...) Hemen trangak izaten zien, hoxe bittartia...

-Hemen ikusitta akordauko za. Zu ezaututa zare, ezautu ziñuan, soluan be bai?

-Soluan, bai, ebaitzen be bai tta.

-Zer eitten zan, ebagi?

-Igeteixakin ebagi. Bueno, bestela trillatzeko izeten zan ba, segiakin

ebaitta edo ieteixakin eskutakara bi, eskua betian ebaitzen zan eta eta bi osatzen zanian ba bi harek, bueno laga eitten zan ebaitta, e, baiña gero lotzaillia atzetik...

-Baiña liñua?

-Liñua trangetan-da, trangatzen-da zertuta nao baiña eraitten ez, eraitteko kontuik eztaukat.

-Eta ikusitta zare souan eraindda?

-Bai. Ikusitta bai.

-Eta akordatzen za zelakua zan?

-Lila kolore antzeko lora batekin izaten zan.

-Eta nun ezagutu ziñuan ereindda. Hemen be bai?

-Hemengua eztakit. Hemen be eingo zan. Ni Beitzibarkua naiz izetetz da.

1.44. Trangatzen eta kardatzen

- **Hizlaria(k):** Elkoroiribe Lizarralde, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-070/003
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:01
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Trangatzen gaineko azala kentzen zitzaion lihoari. Gero kardatu eta jotzeko gertu egoten zen.

Transkripzioa

-Zu Beitzibarren jaixua za. Hor ezautu ziñuan liñua ereinda?

-Ereindda bai, baiña nik umetako edo gaztetako, eztaukat nik haren aparteko zerik, baiña ereitten zana eta gero jo be bai. Trangak izeten zien.

-Eta zu zenbat urtekin akordatzen za hori zala?

-Eztakit ba nik. (...). Lehentxua. Zenbat eukiko giñuzen ba artian,e.

Horretan-da liñua erein-da eitten bai baiña harek jotzen eta trangatzen be ibilitta nao ni.

-Trangatzia zuek eitten ziñuen? Emakumiak ala gizakumiak?

-Trangatzia ba haura bittartian sartzen zan eta dra-dra-dra. Kentzen jakon azala gaiñekua eta gero ba barruan harixa edo zera geratzen zan haura trangauta.

-Ze akordu daukazu, lan asko zeukan harek?

-Hoixe lana. Harek zertuta gero be zerian pasatzen zank geratzen jakon zarraparrak kentzeko. Gero beste holako karda zer batzuk izeten zien.

-Kardia.

-Iltzeduna. Eta harek zela zeukan izena?

-Kardia, bai. Kardau eta gero lotuta ipiñi eta gero joteko edo makinan edo.

Guk gure denporan, gero makinak izen zien baiña ez. (...) Trillua, haura bata eta bestia igualak die. Lasto iguala, antzekua eta, antzekuak.

1.45. Ehuna Garraztegitxon egiten zuten

- **Hizlaria(k):** Elkoroiribe Lizarralde, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-070/005

- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:09:11
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ehuna Angiozarren egiten zuten. Gero izarak etxean egiteko. Ehuna kana erdiko edo kanako neurrian egiten zuten. Angiozarko Garraztegitxon egiten zuten ehuna. Juana gaztea zela utzi zioten lihoa ereiteari. Liho putzuak gogoan dituzte familiakoek.

Transkripzioa

-Orduan erropia dana harizkua?
 -Ez, bueno. Izarak eta be ba etxian einddako zerak eta. Gero ba ehuna. Garraztein be, Garrazteitxon ehuna, harixa eitten eben, eitten zan, eta handik norberak ein izarak eta holakuak. Angiozarren be eitten zan ehunezko izaria, ehuna harek izeten zien.
 -Zuek zer eitten ziñuen, harixa eruan hara Angiozarrera? Hara eruan...
 -Ez. Eitten zan trangau-edo eta han eitte eben harixa eiñ.
 -Ehuna.
 -Ehuna eitteko, gero etxian ein bihar bestelakuok. Ahaztu ein jat neri.
 -Ehuna eingo eben eta gero izarak eta etxian. Han eingo eben makinan ehuna.
 -Bai, Garraztein, Garrazteitxon. Ehungillia. Kanaerdikuak eta. Algaiñian izarok eta.
 -Eta ze eitten zan, kanaerdikua ala kanakua?
 -Kanaerdikuak eta kanakuak, danak.
 -Bixak eitten zien. Izena akordatzen za euliana?
 -Ez. Ezautu bai eitten giñuzen; enaiz akordatzen oiñ.
 -Zein lekutan?
 -Garrazteitxo.
 -Partaittin?
 -Ez, ez. (Garrazteitxo Partaittiko kamiñuan azpikaldetik.).
 -Angiozarren, len mezetara be hara joaten giñan-da, obligaziñua izeten zan, mendittik danok lasto-argixekin eta goizeko seiretako mezetara.
 -Liñapozua bazan ba. Liñua beratzen egongo zan ba.
 (...)
 -Potzuko goraberarik eztakit.
 -Hori galdu zan orduan neskattillia ziñala.
 (...)
 -Liñapozua Beitzibarren be egongo zan. Akordatzen za nun zeuan? Han gora junda?
 -Gora junda. Liñapozua ta esaten zien-da. Neri be ahaztuta, Jesus!
 -Uztarrixak eitteko egurrak be liñapozuan sartuta egoten ziena.

1.46. Azaok, ziriak eta liho ura

- **Hizlaria(k):** Elkoroiribe Lizarralde, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-070/010
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 00:17:51. **Bukatu:** 00:21:39
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

- **Laburpena:** Ziri batekin lagunduta lotzen ziren azaoak. Lihoa liho-harrarian jotzen zen mazoaz. Liho haziaren ura katarroa sendatzeko erabiltzen zuten.

Transkripzioa

-Sorta honi zela esaten jatzuen?
 (...)
 -Sortia, azaua.
 (...)
 -Ze eitten zan, lotu?
 -Holaxe hartu eskutadatxo bat edo, dozena bat zer edo, buelta emun eta (...)
 Zirixak be izeten zien alde baten kakutxua eukenak, hartu alde batetik eta buelta.
 -Zirixak izeten zien?
 -Zirixak, egurrezkuak. Harek buelta emonda emon haura sartzeko eskuakin baiño zerago ta harekin alderdi hartu ta ra!, tiratu ta...
 -Zirixorregaz?
 -(...)
 -Akordatzen za honekin, harri honekin?
 -Liñarrixa.
 -Hemen ataixan egoten zan.
 -Iñor etorrenian be haren gaiñian, beti baten bat haren gaiñian jarritta egoten zan.
 Liñarrixa.
 (...)
 -Eta hor liñarrixan zer eiten jakon ba liñuoi?
 -Liñua joteko.
 -Lan horrekin akordatzen za?
 -Asko ez. Liñua ta jartzen zan eta trangak izeten zien, hola kanala daukan egurra, harek trangak eta harekin hartu ta trauska-trauska-trauska kentzen jakuen azala ta.
 -Zerekin jotzen zan, holako mazon batekin edo?
 -Mazo batekin (...)
 -Liñuak hazixa be bazeukan. Hazixa apartatzen jakon?
 -Garixan moduan antzerakua izaten zan liñuana be ta.
 -Liñazixa?
 -Liñazixa katarruandako eta haren ura ona izeten zan.
 -Katarruandako erabiltzen zifñuen?
 -Ahaztu ein jat neri.

1.47. Liho hazia

- **Hizlaria(k):** Elkoroiribe Lizarralde, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-070/012
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:25:58. **Bukatu:** 00:29:22
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Baserriko lan guztiak ziren neketsuak. Goruetan nola egiten zuen azaltzen du. "Hariketia eta neketia". Liho hazia etxekoa ereiten zuten. Hazi horrek egosita katarroa sendatzeko hartzen zuten.

Transkripzioa

-Trangak, horrek kanala holaxe eukiko dau, soltau eitten jakon liñuorri azaloi eta harixa geratu.

-Hori soltauta gero hari, harixa eitteko hari zela deitzen jakon?

-Liñua egoten zan han da, kerrua. Hari soltatzen jakona izaten zan kerruoi edo zeroi.

-Eta azalai zela?

-Hoixe ba, kerrua. Ahaztuta.

(...)

-Trangak esaten jakuen, trangetia. Liñarrixa ta, tranga-harrixa ta. Trangetia, olgetia, neketia. Neketia eta bestia olgetia. Goruetan be eitten giñuan da. Goruan lotuta, ardatzian sartuta.

- (...)

-Goruetia olgetia eta arilketia neketia. -Goruetia olgetia, arilketia neketia Holakuak, eseerak holakotxiak.

-Zer zan, lan astuna?

-Izengo zan, nik eztakit nik. Erosoik baeuan ba ezer? Dana zan neketia. Lan guztia. Laixa, laixia, lurretia. Jesus!, makiña bat bizkarka, muga barrenetik guenera lurra jasotzen, lur-banastia hartu bixkarrian eta.

-Goruetia zer zan, ama? Hola txabillan lana eittia bezelakua?

-Goruan batzen zan, gorua izeten zan egur bat bat.

-Makiltxo bat.

-Bai. Soltau zerakin eta han holako puxika moduko bat behian eindda, han batzen zan kerrua, eta gero gorua eta ardatza, ardatza esaten jakon bihurtutzeko harixoi eitten. (...) Goruetia olgetia ta arilketia neketia ta.

-Goruetan zela eitten zan, bakoitza bere etxian ala bildu eitten ziñaten?

-Bakoitza bere etxian be bai tta gero alkarrengana juntauta be eitten zien, bakoitza bereko goruekin, gerrixan sartu kertena-ta. Goruoi, goru-txapela sartzen jakon.

-Horrek danak Beitzibarren dare.

-Gorutia zanian juntatzen ziñaten baserrin baten?

-Noiz edo noiz alkarrekin juntatzeko zer bat bai, baiña bestela bakoitza bere aldetik goruetia ta. Angiozarren Garrazteixon ehunoi ihoten zan. Harekin kanaerdikua edo kanakua edo zela deitzen jakuen, ehunoi eitten zan.

(...)

-Zu gorutan eindda zare?

-Bai.

-Artilliakin ala liñuan harixakin?

-Liñuakin. Artilliakin ba galtzagiberako txabillan edo.

-Liñazixa ze eitten ziñuen, apartau eta gorde?

-Katarruandako be liñazixa egosi tta haren ura...

-Etxekua izaten hazixa, etxian hartutako liñuana?

-Jeneralian bai. Ahaztuta be nago ni, urtiak be badia...

1.48. Antzinako arropak zelakoak izaten ziren

- **Hizlaria(k)**: Alzelai Irazola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-077/012
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:46:04. **Bukatu**: 00:49:48
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Lanbideak » Sastreak, jostunak

- **Laburpena:** Barruko arropa. Antzina "kamisia" eta gorontza bakarrik erabiltzen zen. Lana, ordurik gabe. Zenbat irabazten zuten.

Transkripzioa

- Eske lehen barruko erropia...
- Dotore ibiltzen zan, ezta? Barruko erropa dotorea ibiltzen zan, ezta?
- Bai, ez zeuan... nik ez dot erropa zatarrik neuk ezautu.
- Eta kuleruan orde z jaxten zan?
- Pantaloiak.
- Pantaloiak...
- Bai. Eregixak.
- Ereixak? Eta zelakuak... zelakua zan?
- Ba, hamen estutxuaue eta bordautxua ipini hamen eta josten jakon, ba, hamendik honaiñokua. Josi alde bixek eta, gero, hamendik gorakua alkarri josi eta dobladillua hartzen zan ta pantaloiak.
- Zurixak baitta?
- Zurixak, zurixak.
- Algadoizkuak...
- Barruko erropia zurixak.
- Baiña lehen-lehen ez zebe erabiliko sujertadoreik be, lehen kamisia bakarrik erabiliko zan...
- Ta gorontza.
- Ta gorontza.
- Gorontzak igual eukiko zeban forman bat. Ez dakit. Gerritik... gerrixa [...] ez naiz akordatzen.
- Zuk kapaik ezautu dozu? Kapaik? Badia, ba, kapainguak eta izaten zian, ba? Kapainguak eta harek kapak ingo zttuen edo? Ez dozu ezautu...
- Horrek [San Antonion] Kapaiñanekuak. Ezautu giñuzen kapañanekuak. [...]
- Baiña ez dakizu kapaik eitten zan...
- Ez, ez, ez.
- Zuk abrigua?
- Guk ointxe jazten dan erropia, iguala, beste modu batekua, ezta? Baiña bardiña.
- Abrigua eta...?
- Abrigua, trajia, igual-igual, ointxe eitten dan bezela.
- Kapaindi edo hori... enteratu behar naiz, zeozer entzunda nago ni horretaz. Ez det uste prezeski —nik entzun... zeozer gogoratzen naizenez— kpatik ote datorren. Nik entzun deten bersion, e!
- Ez dozu uste?
- Ez det uste kpatio datorrenik. Beste zeozer entzunda ote nago. Oain esan dezunez...
- Ya, ya, ya akordau erain dotsut.
- Bai, bai, ta ya ke hortan gea...
- Kapaiñanekua bizi da Gallastegi, San Pedro kalia, dendia...?
- Bai, onbre, ni juten naiz horrengana!
- Hori...
- Gallastegi, "Confecciones Gallastegi"?
- "Confecciones Gallastegi".
- Bai.
- Hurrengo atian bigarren pisuan bizi da Kapaiñanekua, "que ya tiene

noventa y tantos años".

- [Igual]...
- "Tiene [igual]".
- "Tiene que ver...", osea, Gallastegikin zerikusirik badauke horrek?
- Ez.
- Eta, zera, lana asko eitten ziñuen? Lan asko eukiko ziñuen...
- Lana? Edozein ordura arte! Hamarrak arte igual! Ordurik... Guk ez dogu ordurik ezautu!
- Ze diferente, ezta?
- Ke, ba! Oingo moduan zortzi ordu ta? Ke, ba! Hamar ordu, hamabi ordu be igual ta [...] hurrengo gutxiao ta...
- Zera, eta gero kobrau zela eitten ziñuen?
- Ba, ni hasi nitzanian [...] josten "dos cincuenta".
- "Dos cincuenta" zer?
- Egunian.
- Eguneko...
- Bai.
- Jana?
- Bazkaldu bertan.
- Bertan. Ta afaldu be bai?
- Bai, ondo zetorrenian, berandu zanian; goiz zetorrenian ezebez.

1.49. Ikazkintzaren nondik-norakoak, lehenengo urratsak labur-labur

- **Hizlaria(k)**: Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-088/002
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:00:37. **Bukatu**: 00:03:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Ikazkintza nolakoa den. Lehenik, txabola egiten da eta ondoren txondor-zuloak egiten dira (komeni direnak). Ondoren, egurra bota behar da (pago-txara); "langintzia" esaten zioten horri. Egurraren prestaketa. "Triskia", egurra apaintzeari esaten zaio. Lexikoa.

Transkripzioa

- Ta nola eitten dan ikezgintzia? Lehenengo izeten da basua. Basuan erdi inguruan eitten da txabolia. Txabolia eitten da. Ta gero eitten da txondor-zuluek; lau, bost... zenbat komeni dien. Bueno, ba, hori eindikuen hasten da egurra botatzen, hasten zan. Oin motozerriakian eingo dabe baiña orduan, ba, gu aizkorekin ibiltten giñan, aizkorekin. Lehenengo eitten da egurra bota. Lanteixa esaten jako hari. Lau-bost txondor...

- Zeuek holan esaten dotsazue?
- Bai.
- Lanteixa?
- Lanteixa. Lau-bost txondor, hola izeten zien Elusun, hemen jenerala txarakua, pago-txaria izeten zan, pago-txaria.
- Zer da txaria?
- Paguan... Bueno, hori berez etorritakua izeten da. Pago-txaria, berez

etorritakua, ez da... aldatutakua ez da izeten. Aldatutakua izeten da, ba, pagua, baiña hori berez etorritakua. Ta [hortara ...], ba, orduen hasten zan, lehenengo bota dana. Hori izeten zien, ba, berrogeta hamar-hirurogei tonelada. Hori aizkoriakin botatzen zan [behintzat]. Harek botatakuen, triskia esaten jako, hurrengo apainketia. Harek apaindu, triskia esaten jako hari. Ta haura eindakuen, bueno, triska hori eitten zan, hola, hiru bat metro inguruan ebaitzen zan egurra. Hiru metrotik hiru metrora, hiru metrora, bi ta erdi... hola.

- Luzeran hori?

- Luzeran.

- Hori da triskia eittia?

- Triskia. Ta gero, haura eindakuen, txendor-zulotara batzia izeten zan. Ta hemen, jeneralien, eitten giñuan, ba, auzotarrak, egun baten [haren] batzia, hori lepoka ibiltzen zan. Kargatzaillia izeten zan bat; bueno, sei lagun edo zazpi bazien, bi kargatzaillie bizkarrien.

- Zelan esaten jakon horri?

- Egur-batzia. Egur-batzia esaten jakon horri.

- Eta lepuan eruatia?

- Lepuan. Lepuan egur-batzia. E? Ta bi izeten zien lepuan ipintteko, bizkarrian, ya... zahar samarrenak harek ta gazte samarrak bizkarrian eruten. Ta gero jakin bihar izeten zan, bi bizkarrian, alde bateti ta besteti eruten, bi aldetati. Ondo hezitta egon bihar hortarako. Ta gero txendor-zulua alde batetik, ezkerretik baldin baeuan, buruz-geiñetik bota bihar izeten zan, hara, zuzen. Ta orduan batzen zien egurrak, osea, ba, lehen esan dotena, ba, honenbeste tonelada. Bost txendor bazien bost, bestela sei, iguel da. Bueno, haura eindakuen egur txikitzia egoten zan. Harek metroti metrora ingurura ebai danak, ta gero eitten zan alde bateti bestera, txendor-zulo, lehen esan doun buelta hortan, danak illeran ipiñi ta hiru bat metro ingurura arte.

1.50. Txondorra nola betetzen da

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:52. **Bukatu:** 00:05:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Hurrengo urratsa txondorra kargatzea izaten zen. Erabiltzen ziren egur-tamaina desberdinak.

Transkripzioa

- Gero hasten zan, orduen, haura eindakuen, txondorra kargatzia, txondorra kargatzia. Horrek etxien eitten zien. Ta hori txendorroi izeten zan hola; zela esango dotzut? Hiru punta. Lehen esan doun bezela, metrotik ingurura bigarren illeria, lehenengotik lodienak ipintzen zien barrenian. Gero [beherutz] mehetxuauak ta gorao, puntara mehiauak. Ta gorao...

- Izen diferentia zeuken horrek? Behian ipintzen zienak edo bestiak eta bestiak...?

- Bai. Ya... haundiñak, lodiñak behian ipintzen zien. Gero, erdikuek pixkat mehetxuauak ta guenien... Ta gero etaratzen zan... hori, txondorra

kargatzen gabitz, e? Txendor kargatzia esaten jakon, txendor kargatzia. Gero, hori einddakuen, bueno, hortarako, barreneti hasi ta gueneraiño lau kuadroko ezpalekin eitten zan, gero zulua goitti behera egon dain.

- Zulo horrek ze izen zeukan?
- Zulo horrek, ba... zela esaten jakuan txendorran erdiko zerari?
- Sutokixa edo esaten jakon?
- Bai. Su-lekua.
- Su-lekua.
- Su-lekua.
- Bai, horixe.
- Bueno, haura eindda dao. Oin, zera, kargatzia eindda dao txendorra.

1.51. Txondorra nola tapatzen da

- **Hizlaria(k)**: Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-088/004
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:05:17. **Bukatu**: 00:05:59
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Txondorra kargatu ondoren, hurrengo urratsa tapatzea izaten zen. Orbela; "idurixa".

Transkripzioa

- Gero hasten zan tapatzia. Gero orbela batu bihar izeten eban.
- Zer da orbela?
- Ostrua.
- Ostro iharra.
- Ostro iharra, orrixa. Haura pilla haundixa. Oseake, lodixan ipiñiko zan, ba, hogei bat zentimetro, buelta danien txendorrari. Haura. Ta gero, haura einddakuen, idurixa. Idurixa, hori [izeten] da lur beltza, lehenaoko einddakua onena, lehen txondorra einddako lekuan onena. [...]
- Han egoten zan...
- Haura egon ezian, ba, barrixakin eitten zan, baiña hori txarraua zan.

1.52. Txondorra estali eta su ematen zaio

- **Hizlaria(k)**: Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-088/005
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:05:59. **Bukatu**: 00:08:18
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Lur-beltza. Txondorra nola tapatzen zuten. "Zoixa". Hostoekin ondo tapatu. Hurrengo egunean sua ematen zitzaion. Egosten hasi eta horren inguruko kontuak. Lexikoa. "Illintxia".

Transkripzioa

- Ta zelan eitten zan barrixa?
- Lurra handik batu inguru danian.
- Ta zohixa hartu.
- Ta poliki-poliki-poliki-poliki goeneraiño ipintzen zan ya dana tapauta. Gero puntan zohixakin eitten zan bueltia. Lehenengo muturra.
- Zohixa zer da?
- Zohixa, zerakin, atxurrakin etara ta geiñeko, lurren geiñeko zera.
- Hori bedarrakin etaratzen da zohixa.
- Bedarrakin etaratzen dana. Haura bueltan. Bueno, hori ya ein dou ta hurrengo egunien sutu eitten zan txendorra. Egun baten bi, bestien bat... ta bueno, ya akabau arte. Ta gero, poliki-poliki, e, poliki-poliki egosten biher izeten eben, ba, hamalau bat egun edo hola, egosten. Egosten zela da? Hari igerten jakon, ba, txendorra lehenengo iketza eitten hasten da puntati. Ez da beheti hasten iketza eitten. Barreneraiño zera, sua egon arren, iketza egosten hasten da, txendorra, goiko puntati. Puntati behera. Poliki-poliki juten da egositez-egositez-egositez-egositez. Gero barrenera allegatzen danian, gero buelta dana hartuta daukenian, hori [txendorzalie] laster [igerten jao] ta "hemendikaldeko puntan gutxitxua falta jok", azpittik zulo bat eitten jako, zulo txiki bat, inddar hara hartu deizen.
- Zerekin eitten zan zulu?
- Atzamarrakin. Holakotxe zulo txiki bat. Gero hartzen eban indarra hara. Oin, txarrena da haizia. Haizia zein aldetati jotzen daben igarri ein bihar jao txendorgilliek, bestela geratuko da alde bateti zihero erreta zera, txendorra, ta bestekaldeti illinttia.
- Bestekaldetik ze?
- Bestekaldeti illinttia, ondo egosteke.
- Lentxia esan dozu?
- Illinttia, haura iketza eittekia, erdi beztutako egurra. Bai.

1.53. Txendorra garbitu eta ikatza atera

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/006
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:08:18. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** "Txendor-garbitzia". Orbelak eta lurra zatika guztiz kendu. Orbelak bertan erre behar izaten dira. Poliki-poliki txondorrek berotasuna galtzen du. Ikatza epelduta dagoenean, zakuetan sartzen zen.

Transkripzioa

- Ta gero hori eitten danien, hurrengo izeten da txendor garbitzia. Txendorra garbittu ein bihar izeten da, osea, lehen esan doun bezela, zera, orbelak ipini dittuu ba lehen? Hari lehenengo goitti behera hasi, ezta? Ta lehenengo kentzen jako alderdi bateti lurra, dana behera. Berua egoten da orduan, e! Berua, baiña gorixa. Ta han bertan erre ein bihar izeten dabe

zerak, orbelak, han bertan. Bertan, alderdi bat. Lehenengo, hori ofiziorik txarrena, berotzen... berua egoten da ziharo ta gero harek erretzen dianien atzera beheti gora lurra botatzen jako emendau dain. Lurrak atzera emendau eitten dau; orbela kendutakuan emendau eitten dau. Gero beste alderdixa. Hari beste hainbeste, bestiari ere bai. Dana. Ta orduan, poliki-poliki hartu ta txendorra aplakau eitten da. Nola lurra sartzen jakon barrura, ya aplakauta dao. Gero laga beste egun bet aplakau dain ta hurrengo egunien txendorra etaratzia izeten da. Etara burdiñezko zerakin ta gero eskuariakin poliki-poliki buelta danién, haura txendorra poliki-poliki [...]. Baiña han deskuidatzen bazara, punta baten hartu ta bestekalderaiño erre eitten da etaratako haura. Atenziño haundixa, baitta gabaz be! Ni askotan ibilitta nao gabaz be. Ta gero [orduan eitten da], ba, zakutan sartzia; ya tenplauta daonien iketza, ba, zakutan sartu.

1.54. Ikatza saltzera eramaten zen

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/007
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:10:09. **Bukatu:** 00:10:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Azkenengo urratsa, ikatza saltzea. Gurdiarekin eramaten zuten herrira.

Transkripzioa

- Ta gero, guk eitten giñuan, ba, batian Plazentziara saltzen giñuan, burdikadatan, hemendi, Pol-poleti, hemen Irukurutzeta alderdi hontati batian Plaentzira, bestian Bergarara... burdika. Ta hori izeten zan iketzan erremate dana.
- Errematia...

1.55. Ikatz-tokia zelakoa izan behar da

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/009
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:12:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Txondorra egiteko tokia zelakoa izan behar den.

Transkripzioa

- Ta txendorra eittteko orduan leku espeziala edo topatzen zan?
- Bai, bai. Lau-laua bihar!
- Ein ein bihar...

- Lau-lau. Ein ein bihar.
- Ein ein bihar txendor-zulua.
- Osea, txendor-zulua izeten zan... Zenbat? Hamar metro batera ta hamar bestera, biribila, biribila.
- Oseake, lauadarik ez bazeuan ein ein bihar zan.
- Oin, jeneralian, aurreti, [...], aurreti einddako txendor-zuluak egoten zien [dana]. Jeneralien, ba, aurreti einddako txendor-zulua, ezta? Baiña han ez baeuan txendor-zulua eindda, atxurrakin...
- Ta txendor-zulua zer egoten zan, zeuen lurretan ala...?
- Bai, bai.
- Noberan lurra zan?
- Bai. Oseake... basuan... basuan lurrak.
- Aiuntamentuanak eta holan ez...?
- Ez, ez, ez. Hemen Elusun aiuntamentuko lurrik ez dao.
- Noberan terrenuak, ezta?
- Noberan terrenuak.

1.56. Txondorra erretzeko garairik egokiena

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/012
- **Iraupena:** 0:00:38. **Hasi:** 00:15:02. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Neguan txondorra prestatu eta apiril inguruan erretzen zen.

Transkripzioa

- Zein zan sasoirik onena txondorra eitteko? Ala bardin zan?
- Txondorra eitteko izeten zan, ba, hemen neguen preparau, neguen preparau ta apirila inguruan, maio... hortxe.
- [Artua sartzeko] aurretik.
- Bai, hortara.
- Zeaittik zan sasoi hori ona?
- Zeaittik lana, bittartia harrapau bihar izeten zan, ba, basarrixan, ezta? Ta hor arbi bittarte hortan, bittarte hortan, orduen preparauta egon ezkeru, ba, haura ein.

1.57. Txondorra gabaz zaintzearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/014
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:16:05. **Bukatu:** 00:17:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Gauetz txondorrak ondo zaindu behar izaten ziren. Betegarria bota behar izaten zaio.

Transkripzioa

- Gero, bost txendor ez dia alkarren onduan egoten; bat han, bat han, beste bat han, hola. Gero gabaz [eitten] zan hori txarra. Han e... txendorrari ez da ipinttia bakarrik e! Gero betegarrixa sartu biher izeten jako ba. Lehen ez dot hori esan...

- Zer da betegarrixa?

- Bai ba, harek eskatu ingo dau, goittik behera zulua nola eukitzen daberen. Ta bestela aldamenekua erretzen hasten da ta hara deskantsau dein erdiko zulora. Ta gero gabien, pare bat aldiz iguel, lehenengo lau bat egunien, ta gabien, e! Bueno...!

- Sua...

- Haura txarra, jun ta betegarrixa sartzia! Zaparradia igual galanta ta han parola, parola ipiñi hola, ertzien, ta eskillaria beheti gora ixotzeko. Parola ipiñi han ta haize pixka batek jotzen baeban goitti behera bueltaka igual parola. Bueno...! Horixe [txarra...]!

- Gogorra, ezta?

- Ni aprobauta nao ondo! Urte askuen gaiñera. Nik azkenengo Bergaran ein neban hori, Bergarako aiuntamentuan, ya tope orduantxe jo neban.

1.58. Egur-botatzearen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/016
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:18:12. **Bukatu:** 00:20:07
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Egur-botatzea. Triska, enborra garbitzea izaten zen. Egur-botatzearen inguruko kontuak. Lexikoa. Enborra zatitzea.

Transkripzioa

- Arbolak moztuari zelan esaten jako? Arbolak moztu, arbolak jo, bota, ebai...? Zelan esaten jako?

- Iñausi...?

- Iñausi? Arbola geiñeko zera...?

- Ez, ez. Honek esaten jok... ba, hi txarara hoianian, aizkoriakin bota "di-da!" "rrraaaa"... aber ze esaten [jakon]...

- Ipurditik botatze horri zelan.

- Ba! Guk egurra botatzia esaten [gontsan].

- Egur botatzia, ezta?

- Egur botatzia.

- Eta gaiñeko arramak eta? Horri?

- [txitxunketia].

- Zelan?
 - Triskia.
 - Zer da triskia?
 - Egurra garbitzia, trongua garbitzia.
 - Lehenengo botatzen dozu, ezta, illeria. Oseake, lehenengo bota eitten da ta laga eitten jako. Ta gero harek apainddu ein bihar. Apainketia, triskia. Apainddu. Ta gero haura ebai ta...
 - Hori entzuteka najeuan berba hori ta. Guk soilddu esaten juau.
 - Soilddu zuek.
 - Zelan?
 - Soilddu.
 - Beste batzuk apainddu.
 - Hamen triskia.
 - Hamen triskia.
 - Eta arbolak mozten zienian edo arbolak jotzen zienian edo, holan, beste baten kontra jausi barik geratzen zienian, horrek zutik geratzen zienian, tente... Horrek bazeuken...?
 - Hori bota ein bihar orduan.
 - Baiña horrek, izenik edo esaten zotsazuen zuek? Ez... Izen espezialik ez, ezta?
 - "Bata bestian kontra geratu dok" eta gero... Haura txarra, e!
 - Txarra hori! Edozeiñekin, piñuekin be bai e!
 - Piñuekin be bai.
 - Danian hori.
 - Ta gero zelan botatzen zien horrek?
 - Gero, bultza eindda ta gero [aldeti], aldameneti beste egurren batekin tira ein batera ta gero [...] eitten zan ba bestekaldera. Arte pixkatekin.
 - Bestela zati bat ebaitta...
 - Bai, bai. Hortara, hortara. Arte pixkatekin.

1.59. Txondor klase desberdinak

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/019
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:24:01. **Bukatu:** 00:26:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Zubi-txondorra. Pago-buruarekin egiten da; beste txondor klase bat da. Lan gogorragoa. Orain arte azaldutakoa txarako egurrekin egindakoa da. Bien arteko desberdintasunak. Burdin-ziria.

Transkripzioa

- Gero, egurrezko kuñarik edo burdiñazkorik edo erabiltzen zenduen?
 - Bueno, horrek dira subil-txendorrando.
 - Zetako?
 - Horrek dia beste... oin jardun doun hau da txarako egurrana. Ta oin, kuña ta horrek, zuk esan dozun horrek dia subil-txendorra. Beste bat da hori, beste klase bat. Badakit, ni be eindda nao, subil-txendorra. Hori izeten da,

bueno, paga-buruek, paguek kendu edo gaztaiñak kendu igual, ta buruakin eitten dana, hori da subil-txendorra.

- Pago-burua zeri esaten dotsazue?

- Pagan gaiñeko zera, buru haura.

- Pagua, [zerrakua] kendu, ta gero geiñien burua eukitzen dau harek, sutarako bakarrik balixo dau edo txendorra, iketza eitteko. Harena diferentia da. Bueno, antzera, baiña lan gogogrraua. Bai, denpora gehixao biher izeten da, zeaitti egur haundixek [ipintten] dia.

- Zulo gehixao ingo jako gaiñera.

- Bai, egur haundixaua nola [ipintten] dan, ba... Bestela antzerakua. Oin, denboria gehixao bihar harek! Denboria gehixao bihar, zeaittik pago-buru zaharrak han [ipintterakuan] alkarren pillan, bai, denporia asko biher izeten da. Bestela iguala.

- Eta orduan, zeuek erabili ein zenduezan iñoiz horrek kuñok edo, izenik edo bazeuken egurrezkue izen edo burdiñezkue izen edo? Zelakuak zien?

- Hori guk e, txarakotan ez zan biher izeten, baiña subil-txendorrantzat bai, zeaitti hari formia emoteko ta kuñakin preparau biher izeten zan. Kuñakin preparau bihar gero txendorrn formia emoteko, ez dakit ba...

- Horrek burdin-zirixa...

- Burdin-zirixa guk. Kuñia be [esaten gontsan], baiña burdin-zirixa.

- Euskeraz burdin-zirixa.

- A! Burdin-zirixa?

- Bai, burdin-zirixa.

- Eta danak zien burdiñezkuak ala egurrezkuak be bazaozen? Ala lehen ez?

- Bueno, burdiñezkua jeneralian ibiltzen zan, baiña gero beste batzuk, ezta? ba, haundixauak igual bihar izeten zien burdiñezkua baiño, ta gero, orduan, egurrezko haundixauak eitten zien ta harekin. [Ale!..., porriakin].

- Eta horrek zer zien egur-zirixak edo zer zien horrek? Kuñak?

- Bai, kuñak.

- Bai, burdiñazkua ein biharrian, ba, horrek esan dabena, zabaltzeko-ta haundixaua bihar zan, ba, noberak ein bertan ta gero kitto. Gero bota [haura] ta libre.

- Bueno, apurtu eitten zian...

- Bai, apurtu ta barrixa.

1.60. Ikatza garbitzearen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/031
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:38:19. **Bukatu:** 00:38:47
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikatza garbitzeko galbahea erabiltzen zuten.

Transkripzioa

- Eta lurra garbitzeko edo erabiltzen ziñuen, holan, zeozer, erraminttan bat edo?

- Bueno, erraminttia, gero izeten zan iketza garbitzeko galbahia. Galbahe haundi bat, holakua. Ta gero "rrra-rraa-rraa!" , harekin iketza ta gero,

idurixa ta behera juten zan, ba, galbahetik, ta gero iketza geiñien geratzen zan. Ta gero handik hartu ta "rrak!" zakura.

1.61. Txondorrak emandako ikatza zertarako erabiltzen zen

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/034
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:40:51. **Bukatu:** 00:41:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Ikatza ere ez zen dena berdina izaten; erabilera desberdina ematen zitzaion. Lexikoa.

Transkripzioa

- Ta iketz dana galbahetzen ziñuen?
- Dana. Galbahetu? Dan-dana.
- Horixe ez nekixan...
- Ta gero, batzuk eitteke geratzen zittuan, ez dok? Ta hari illinttia esaten jakok.
- Bai. Hori bajakixat.
- Erdi... erdi-iketza haura. Harek ya aparte. Harek etxien...
- Harek sukalderako edarra.
- Harek etxien sukalderako geratzen zien harek. Gero batzuten eitten zuan, asko samar erten ezkerro, ba, illintta-txendorra. Haura derrepente egosten zuan, e! Haura egun ta erdixen ya ixa eiñian egoten zan ba iketza. Haura ipiñi illintta-txendorra, ba, igual [batzuk] egoten zittuan [...] ta "rraat!" eta [...] Ona eitten eban iketza harek, e? [...] ixa eiñian egoten zan ta.

1.62. Txondorra garbitzea

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/035
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:41:32. **Bukatu:** 00:41:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Txondorra garbitzeko "itsuskia" erabiltzen zen.

Transkripzioa

- Gero, baldarra edo holakon bat...? Hor e... zera, lurreko zikin horrek kentzeko, holan, hiru makila dekozan zeozer edo... Ez?
- Txendorra lehen esan doun bezela garbitzeko jeneralien ibiltzen zan zera, itsuskixa bezalakua ostruakin.[Harek...] ta leun-leun einda lagatzen zan.

1.63. Txondorrek zenbat egur behar izaten zuten; zelan eramaten zen ikatz-tokirainok

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/037
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:42:53. **Bukatu:** 00:44:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Txondorrera egurra lepoka eramaten zen gehienetan. 1.000 kg ikatz ateratzeko, 13 TN egur behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Ikaztokira egurra eruteko, bueno, bertara hurreratzeko, astorik edo erabiltzen zenduen? Astua ez, ezta? Ala? Behin edo behin erabili zenduen astorik?

- Bueno, leku on-ona egon ezkerro, ezta? Bidiakin edo, ezta? Ba, ganauekin be batzen zan pixkat, baiña jeneralian, aldapa beheria nola izeten dan, ba, lepoka ibiltzen zan.

- Lepoka... Normalian lepoka.

- Ta biher izeten dau iketza milla kilo etaratzeko hamabi-hamahiru tonelaje. Ondo ertenda hori, e? Mila kilo iketz etaratze ezkerro, hamahiru bat tonelada, hamahiru mila kilo egurra bihar. Hori ondo junda, e? Oin, pixkat erre, zulo haura haiziak zertzen badizu, ba, igual [hamabost bihar be]. Ba, horixe, tamaiño horixe izeten da. Hamabi tonelada, hamahiru. Mila kilo, mila ta ehun batekua [...] txendor txiki batek ta mila ta ehunekua etaratzeko hamahiru bat tonelada. Horretxek. Hori ondo junda, e? Oin, erre [ein jakola] ta, oin, baldin bada alper samarra baldin bada ta gabien lo eitten baldin badau ikezgilliek, erdixa igual erre! Bera lotan dauela.

- Gomezkortai erre jakuan oso-osorik txendorra!

1.64. Txondorrean sartzen zen egurra zelakoa izaten zen

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/038
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:44:13. **Bukatu:** 00:48:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Egurra txikitzea zelan izaten zen. Txondorrean ipintzen ziren egur batzuen izenak. Lexikoa.

Transkripzioa

- Hori, eta aizkoriakin egurra ebateko ze ipintzen zenduen... nun jotzen zenduen? Egur, e...

- Egurra txikitzeko, holan...

- Egurra txikitzeko trangabela.

- Tranga...?

- Trangabela. Baiña hori txendor-zulora erun ta gero. Aurreti, aurreti bertan, dauen lekuan.

- Lurrian.

- Osea, bi metro ta erdiko hori ya lurrian eitten zan. Gero hara batu ta gero metroko hori ebaitzeko ta [... besteko]. Bateti besteko, ba, egur bat [...].

- Eta enborren bat erdittik jotzen zenduenian edo, hori zer zan? Erdittik...

- Pitzetzen? Pitzetu?

- Hori da...

- Bai, pitzetu. Egurrak pitzetzia.

- Zelan?

- Pitzetu.

- Bai, baiña...

- Ta zelan eitten zan?

- [...n] ifiñi ta "glaaassk!" Ta bestela, ba, zerakin, haundixa baldin bazan, ba, burdin-zirixa.

- Zelan?

- Burdin-zirixakin haundixa baldin bazan. Txiki samarra izen ezkeroko, ba, goitti behera aizkora haundixauak [ipintzen] zien ta... Aizkora haundixakin.

- Pitzatu ta gero zer zien horrek, bringak edo? Ez... Edo zelan...?

- Bueno, hori bringetu, ba, gutxittan eitten zan zerien.

- Zer da hori, bringatu?

- Pitzetu.

- Apurtu.

- Berdin da, ezta?

- Bai, pitzatu ta bringatu ta...

- Zuk pitzatu esaten dozu...

- Bai. Bringatu ta pitzatu berdin da.

- Berdin da...

- Ta bringia da zera, han geratzen dan zatixa bringia da gero.

- Bai, bringia. Hori konparaziño baterako, hau, ezta? Ba, hamen burdin-zirixa sartzen dozu, ezta? "Dast!" bi aldetara. Hori [izeten] da, ba, bringia. Bringatzia.

- Gero hor, egur txikitxuak ze izen zeuken? Azkenian jartzen ziran arakixak edo...

- A, bueno, arakixa izeten zan azkenian, formia etartzeko, ezta? Ba, txikin-txikiñek hola ipintzen [mehe-mehenak]. Gero orbela gutxiao hartzen eben, ba, harek haura bueltia ondo hartu ezkeroko. Ta gero ahal dan zerena, ipiñi ta gero orbela. Bestela zulo haundixak han laga ezkeroko hamendik hona, orbela barrura sartzen zan ba, ta ahal dan gutxien barrura [sartuta ipiñi].

- Eta ezpalak? Ezpalak zer zien?

- Erabiltzen zien zeozetarako?

- Ezpalak? Ezpala, hola, mehia izeten da. Osea, aizkoriakin... hau da aizkoria, zera, ezta? Gero ertzetatik kentzen dozu ba pusketa mehiek?

- Bai...

- Ezpalak harek.

- Ta horrekin, zeoze eitten zenduen ezpalekin?

- Keba!

- Bazkarixa gertau ta...

- Bai, hortaraxe.

- Bazkarixa gertatzeko sua eitteko balio eben?

- Txabolan sua piztu!

- Bai?

- [Hartarakotxekon] bakarrik.

- Eta egur xehia edo zuk zeozeri esaten dotsazu? Egur xehia edo holako...
Zer da?
- Egur xehia, ba...
- Betegarrixa esango giñuan hori, betegarrixa.
- Ekonomikara sartzen dira, ba, zerak? Ba, egur xehia hori izeten zan, betegarrittarako goitti behera sartzeko.
- Eta bihurrixa?
- Egur bihurrixa, horixe txarra! [Haura zuzendu ein bihar izeten dau!] Hola, okerra baldin bada egurra erdixan ebaitta zuzentzen da, e! Konparaziño, hau baldin bada egurra okerra, han zuzena biher izeten dau, zerien, txendorrien ipintze ezkerro, bestela ezin zeiken formarik etara! Egurra holakua baldin bada, hemen ebaitzen dozu, ta zuzendu eitten da.

1.65. Ikazkintzaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/041
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:51:36. **Bukatu:** 00:52:06
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Nola jakiten zen ikatza eginda zegoela.

Transkripzioa

- Eta zelan zekitzuen iketza einda zauala?
- Barreneraiño allegatzen danian...
- Zer allegau?
- Biguntzen, bajatzen, bajatzen [jungo da haura], bajatzen, bajatzen, bajatzen... Ta gero barreneraiño allegatzen danian, hemendik keia hasten jako. Gero barrena... orduan, ba, barreneraiño allegauta dao. Ta gero geratzen da, ba, gorri-gorri ya dana egosittakuen.

1.66. Ikazkintzan erabiltzen ziren tresna batzuk

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/043
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:52:36. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikatza ateratzeko erabiltzen ziren tresnak. Bi hortzekoa.

Transkripzioa

- Eta iketza ateratzeko hortz-bakarra edo erabiltzen zenden?
- Bi hortzekua jeneralian. Lodixek, e! Hola, lodi-lodixek. Bi hortzekua.
- Eta gantxun bat erabiltzen ziñuen...?

- Ez, bi hortzequakin bakarrik. "Ra-ra-ra" barrenetik hasten da. Etaratzen barrenetik hasten da, e! Oseake, hemen goixen dana eindda [egon...] hemen barrenetik bueltan hasten [da txendorra etaratzen]. Iketza etaratzen barrenetik.

- Ez jaok gurien, e. Txikixa dok ikezgintzarako hori. [...]

- Ba, [badakixe hori] gutxi gorabehera. Egurrezkua izetia, zumintzekua izetia.

- Bai, haundixaua haura.

- Egurrezkua hau hobia, e...

- Bai, bai.

- Baiña hau txikixaua e, egurra, dana egurra dana.

- Nunbaitten baeuan, baiña erre ein genduan baiña. Erre edo desaparezidu [gurien ein zan].

- Bai, horixe.

1.67. Ikatza egiteko erabiltzen zen arropa

- **Hizlaria(k)**: Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-088/044
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:53:23. **Bukatu**: 00:53:57
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Ikatza garbitzeko orduan janzten ziren zapatak (azpitik iltzeak zituzten).

Transkripzioa

- Eta egurrezko zapatarik edo erabiltzen zenduen abarken gaiñetik?

- [Botsein] zaharrak.

- Zertzuk?

- [Botseiñak], zererako, osea, iketza garbitzerako, bestela abarkak su hartzen eben ba! Ta gero, orduan, [botsein] zahar haundi batzuk ibiltzen zien.

- Ta zer zien horrek?

- Borcegués...

- [Borsein] zaharrak, [bost zerekuak].

- Bota zaharrak...

- Zapatak, azpittik ultziak daukazenak. Lehenao horrek ibiltzen zien.

- Honen tipokuak zaharrauak izetia, zaharrenak. Haura gero barrura sartu ezkerro... beruek egoten zien harek. Deskuidau ezkerro erre [ere ein] hankia. Iñoiz tokau jata neri [...zulo edarrak] etaratzia.

1.68. Ikatzaren salmenta

- **Hizlaria(k)**: Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-088/045
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:53:57. **Bukatu**: 00:54:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikatza zakuka saltzen zen.

Transkripzioa

- Lehen esan dozu zakuetan sartzen zenduela gero iketza, ezta? Zaku normalak zien?
- Bueno, orduen zakuek hogeita bana kilo ingurukuek, ezta? Ta gero hasi zan, ba, orduen zakuka saltzen zan.
- Zakuko?
- Bai. Lehen esan dot ba hamar errielian ta gero hamaikara ixo ebala? Orduen zakuka. Ta gero hasi zan kiloka.
- Kiloka.
- Gero kiloka hasi zan. Pezetia kilua eitten hasi zanian, bueno, aberastuta genden. Berrogeta hamar, berrogei kilo inguruko zaku haundixa, ezta? ta berrogei pezeta. Bueno...!
- Eta zakukak beti honen modukak. Narruzkorik eta holakorik ezautu dozu?
- Ez, ez, ez.
- Ez, ezta? Holakorik ez.
- Iketz-zakuek esaten jakon [...] horrerri txiki horrerri, iketz-zakuek.

1.69. Ikatza saltzeko egin behar ziren prestaketa lanak

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/047
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:55:57. **Bukatu:** 00:58:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikatz-txapa zakuetan ipintzen zen. Ikatz-zakukak zelán prestatzen ziren. Gurdian eramaten zituzten ikatz-zakukak. Zenbatera saltzen zuten ikatza.

Transkripzioa

- ... izena txapiak, zakuan gaiñekua, txapia esaten [...]
- Bai, iketz-txapia.
- Zer da hori?
- Lehen esan dotzut ba, zakua egurrezko saria gaiñian zeukela... iketz-txapia esaten jako horri.
- Hori, puntia estutu, lotu barik, ha ipiñi ta bueltan josi hari.
- Gero zakuek [egoten] zien, zakuek preparauta egoten zien.
- Ta zerekin josi?
- Abar [batzukin], harin batekin, hilobaliakin edo...
- Ez, ez, ez. Zakukak eukitzen zittuen geñien, bueno, hau da zera, ezta? Gero, hemen bueltan zer txiki batzuk holan ipiñitta. E? Ta hemen, hemen txapia. Ta gero, hemendik hona hilobaliakin "ra-ra-ra-ra", "da!" derrepente preparatzen da. Harek, hau eindda egon ezkerro, ba, zakua [kargauta dao].

- A! Hilobalia erabiltzen zenduen...
- Ta bestela erabili bihar izeten giñuan, ba, garua edo, ez dakit nik. Hori egon ezien, ba, garua erabili biher geiñera tapatzeko. Bestela garua. Ta hau egon ezkerro, ba, hau ipiñi txapia, geiñian, ezta, zakuari, "dast!" ta zakuan geiñian ipiñi ta "ra-ra-ra!" bueltan ta "da!" estutzen zan ta lotu ta kitto. Momentuen eitten [da].
- Zeuek eruaten zenduen iketza ala billa etortzen zien?
- Ez, ez, ez. Guk ganauekin kalera.
- Ganauekin?
- Burdixan edo?
- Burdixan.
- Zelakuak zien orduan burdixak?
- Bueno, burdi... zerak, burdi-zorrotzak esaten jaten.
- Txirringadunak.
- Txirringa...
- Ez dozue ezautu hori?
- Zein da txirringa zeukana?
- Burdiñazko erruberak [...]
- Baiña honek ez zaben ezautuko [...]
- Bai, honek etxetara [bai], honek etxetara, honek ez dia faten mandixora ta ez dia faten honek. Bildurtu eitten dia.
- Lehen esan dozu, ze preziotan saltzen ziñuen?
- Ba, orduen, zaku lehen esan doten hori hamar erriel. Ta gero, esan dot ba Bergarako kondiek hamaika erriera bajau ein eban. Bajau ez! Berantzat karuei ei zan.
- Ta hori ze urtetan zan gutxi gorabehera?
- Hori gerratia pasata, gerratia pasa ezkerro.
- Cuarenta-tik cinco bittarte, hortxe.

1.70. Ardien izenen inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/005
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:06:18. **Bukatu**: 00:07:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Artaldeko ardi guztiek izena izaten dute. Etxean, "eibartarrak" esaten zieten Eibarren erositako ardiei.

Transkripzioa

- Enrikek berdiña esaten eban, ardi guztiak bere izena zeukela.
- Bai, bai, bere izena eukitzen dabe ardi guztiak. Pastoriak [...] Bi badare, haren umian zera ta ama ta bestia ta hanka-motza ta... Edo erositakuak badia, eibartarra dok edo bestia dok edo... Guk ardixak, ba, eibartarrak euki giñuzen, ni txikixa nitzanian lehelengo. Eibartarrak ardi ederrak e! Hamar ardi erosi zittuen Eibarren, Mertxeten, Mertxete basarrixan. Onak zien e! Ta karuak! Orduko denporarako karuak zien. Hamarna duro. Ta gero handik [...] Orduan hamarna duro. Ardi onak zien e! Zien "de categoría", raza ona ta... Bai, gaur be ardi onak [badare] ta hobeto gobernatzan dia ta

[...], baiña orduan be ardi onak eren e! Ez pentsau e... Orduan ardixak onak eren batzuk.

1.71. Ardi ugari Goimendi inguruan

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/007
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:08:04. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Sasoi batean Goimendiko baserri guztietan ardiak zeuden. Baserri izenak.

Transkripzioa

- Lehen ardixak etxe danetan eren! Bueno...!
- Holan, baiña banakak...
- Euazen Atxotegi, Atxotegi, hor bi etxetan, Artizen batek, Aranguntxon ardixak... Basalgon etxe danetan! Gurian ardixak, bestekuan ardixak, Azulan bi etxetan ardixak. Bi etxe eren Azulan be. Beizun be ardixak. Goimendixan etxe danetan. Hori mendi danori, jo-ta apestauta euan ardiz!
- Orduan zelai gehixao...
- Dana libre euan e! Ez euan ez zelairik, ez... baso dana! Ez euan piñurik! Ta, ba, ardixak probetxu gutxitxua, baiña nik ez dakit, orduan hainbeste bildots jaiotzen zan ta danak saltzen zien ta danak jaten zittuen ta dirurik ez euala... Guk Eibarren saltzen giñuzen bildotsak. Ni askotan Eibarren [egonda nao bildotsekin].

1.72. Ardiak eta bildotsak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/008
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:11:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ardi eta bildotsen inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Gero ardixak, holan, egun normal baten, ze lan emoten dabe? Jaiki ta...
- Ba, goizian guk esnia kentzen dan lekuan, jaiki ta jaztera juan bihar dozu. Jatxi. Ta bildotsak daren lekuan lana... [hola... egun edarra eitteko ta...] "de categoría". Han jaiotzen badia egun baten hamar bildots, hurrengo egunian beste hamar ta hurrengo egunian beste hoge ta egoten badia

dozena erdi ardi maitte ez dabenak, ta beste dozena erdi bikixak ein dittuenak... Akabo! Lana [...] Juaten zara kortara ta [...] pentsau be ez!]

- Gutxi...

- Bai, [idearik be ez!] Ardi batzuk, ba, ondo kaso eitten dotse bildotseri ta jaio ta "ri, ra, ra" mantentzen... baiña beste batzuk...

- Kaso ez dotsenak eitten?

- Bai. Harek noberak [...] dittu. Harek amiak kasorik eitten ez badotse... Ha bildotsa zuk gorde ein bihar dotsazu ta beti zeure [ondorian etorriko...]

- Ta horri zelan esaten jako, maitte-eza?

- Maitte ez dakona, maitte ez jakona, maitte ez dabena... Maitte ez dabena. Ez dabe maitte, klaro.

- Ta gero beste ardi bati emun bihar...

- Ez, berana emon bihar dotsazu. Ta akaso egun bi, hiru, lau, ba, maitte izeten dau, batzuk. Beste batzuk sekula be ez. Ta ha bildotsa etorten da beti zureana e! Ha zu kortara sartzen zaran momentuan, "da!" Zuk... zure eskua hartu ta zuk emon bihar dotsazu hari, bestela harek... Ha ez doa amiaana, ez dauka amarik eta.

- Baiña gero azkenian ardi batekin...

- Azkenian? Bai, zuk e... batzuk, ba, beti egunero-egunero, harik eta saldu artien guztian emon ein bihar dotsazu esnia. Lehelengo ardi batena, gero beste batzuk, bildotsak salduta badare, beste batena, ta biñak eraten badittu, biñak igual! Azkenerako suertia eukitzen dau. Baiña lehelengotik eskasa geratzen da e! Ya horrek ya maitte ez dabenok beti dia eskasauak.

- Ta holakuak asko suertatzen dia?

- Ba, banaka-banaka bastante jaiotzen dia. Horrek lan asko emoten dabe pastoriari. Hori kortan [sartu...] ehun ardikin edo berrehunekin... Honbre, han, ordubeteko lana ta ordu ta erdikua...

- Ta gero? Zelaira edo mendira bota ardixak hazittakuan?

- Ez! Neguan barruan euki bihar dabe! Goizian be atzera berriro bildotsak eskortan sartu, kortan, eren tegixan. Kortan bildotsendako tegi bat eitten da, ardixak [larreetan...], illuntzixan ekarri ta jarein eitten jakue esnia erateko. Gabaz erekin laga, amiekin.

- Bildots-tokixan sartu...

- Bildots-tokixan, bai. Bildots-tokira... lana emoten dau e, sartzia, han be. Han sartu bihar dozu ehun bildots bildots-tegira. Urten aguro eitten dabe atia zabalduakuan, "rraa!" Gosiak egoten dialako, baiña bestela, sartzeko, "ra! ra! ra!", harek lana eukitzen dabe.

1.73. Bildotsak egiteko sasoi onena

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/009
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:11:38. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Ahariak. Lehen, bildotsak jaiotzeko sasoi atzeratzea nahi izaten zen, neguko txarrena pasa ondoren udaberrian jaio zitezen eta horretarako aharia irailera arte barruan eduki behar izaten zen.

Transkripzioa

- Eta adari-tokixa?

- Adari-tokixa?

- Bai.

- Guk ez giñuan adari-tokirik sekula euki! Guk adarixak, ba, bat edo bi eukitzen giñuzen ta udazkenian nahi bazan erretirau, udazkenian...

- Baiña zer egoten zian, aparte?

- Adarixak? Udazkenian bai. Udazkenian askok eukitzen dittue aparte, zeaittik ya ardixak arkeatzen hasten dia, ba, igual agostuan lehenengotan igual hasten dia. Ta nahi badozu bildotsak geruao euki, ba, euki adarixa aparte setienbrerarte ta... etxian adarixa; gero jarein. Hori da, ba, bildots-denporia atzeratzeko. Oin bildotsak [badauke...] Lehen nahi izeten zan bildotsak martixan jaiotzia, neguak txarrenak pasautakuan. Oin ez jako ardura, oin dao pentsua ta dao [alfafia] ta... Lehen ez, lehen beranduao nahi izeten zan bildotsa, pixkat udabarrixa etorritakuan. Orduan, ba, adarixa agostuan erretirau eitten zan. Eske [...etxian daukazu] hillebete atzerao bildotsak, beste adariren bat etortzen ez bada nunbaitetik. Adarixak [holakuak]izaten dia, adarixak alde batetik bestera ibiltten dira, errebañuan danak pasautakuan bestera.

1.74. Bildotsak haztearen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/010
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:13:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Beraien sasoian bildotsak nola hazten zituzten. Bildotsaren prezioa.

Transkripzioa

- Hori larriaaittik be izango zan, ezta? Larra ona zeuen denporan bildotsak eukitzeko...

- Bai, horreaaittik izango da. Udabarrixan, ba... lehengo denporetan-ta ez euan oingo zerik, ta alfalfarik be ez zan ekarten ta bedarrondorik be ez euan ta... Arto pixkat etxian ta haixe emon ta eutsi ta... Bueno, gure... gure denporara orduko bai, baiña guk be bastante berandu eukitzen genduzen. San Josetarako saldu ezkerro, asko. Ya, bien. Goizien goitzuao. Gero azken aldera ez, ya laga eitten jakon adarixari ta eneruan [igual] bildotsak, gero Gabonetan be jaiotzen zian ta...

- Gero, saltzeko, bildotsak saltzeko-ta, zer moduz?

- Ba, oingotxe moduan orduan be bildotsak saltzeko.

- Danak batera, danak saldu bihar... Preziua bajau [be bai]...

- Ta bildotsan preziua, bildotsan preziua beti izen da holakua e! Ta oin be bildotsa juan dan bost urtian edo, bost... baitta zazpi urtian be ez dau igo bildotsak, ez dau igo! Aurten, ba, ointxe eitten dau, zeoze gehitxuao allegau da hor Villafrankan, zerian, Ordizian, zazpirehun pezetara allegau da, baiña allegauko dia Gabonak eta ez dau eingo bape gehixao e, ya bildotsa geldittuta dao. [Gaztaia...].

1.75. Ardiak izaten dituen gaitzak

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/015
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:21:08. **Bukatu**: 00:22:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Izotza txarra izaten da ardientzat. Izotz beltza oso arriskutsua. Udaberrian, belar txarrak ere jaten dituzte eta ez da arraroa izaten ardia hil edo gaixotzea.

Transkripzioa

- Gero, iruntza-ta be txarra izango da, ezta?

- Iruntza? Iruntza, bai... txarra... izotza. Izotza, e! Askotan, pentsau: "ba!" Ardixak, neguan, bedar danak, izotza baltz-baltza, edo izotza ez dauala pentsau baiña bedarrak gogortuta hotzak in ta... Bedar klase batzuk dare jo-ta "ra!" egun bira igual ardixa tripetatik enredatzen da ta "grak" garbitzen da. Ihintza, ihintza ez da ona, izotza da txarra. Izotza... baiña izotz diferente bat e! Hau eguneroko izotza... ardixak mendixan igual [lo eitten dabe] izotzetan tapauta. Hurrengo goixian jaten hasten dia, baiña mendikua [ez da hau]. Zelaixan, berdera, zelaira etorritakuan dao hor peligrua.

- Ta gero bedar txarrak be egongo dia, ezta?

- Hori udabarrixan egoten da, udabarrixan, larre barrixa etorten danian, ez dakit nik ze eitten daben, gehixei jan ta bedar txarrak, zuk esan dozuna, bedarren batzuk efektua [ein]... Perretxikuak be onak izen arren, baten bat egoten da ona izen arren benenua eukitzen dabena. Edo zeozek pikauta edo... Beizuri akabau jakon hemen iez [Bidarrañen] edo akabau jakon baten bat ta Arraotzi be bai gurian, egun baten bi akabau jakozen zelaixan,

hementxe. Haizau ta "grak". Ta geuri be akabau jakun, zelai edarrera eruan ta "rapa!" Haizau ta linpio. Infeziñua txarra [...].

1.76. Ardiei ilea noiz moztu

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/017
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:25:08. **Bukatu**: 00:27:57
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Ardi-moztea. Artazi bereziak behar izaten dira. Aita ona zen ardi-mozten. Ardia nola ipini behar izaten zen ilea mozteko. San Inazio egunetik San Pedrorra bitarte horretan moztzen zaie ilea. Ahariak, eguraldi ona hasten denean, mendira joan nahi izaten dute.

Transkripzioa

- Gero, ardi-mozten ein dozu sekula?
- Bai, ein dot. Ni ez naiz artistia ardi moztzen e!
- Ta zela? Artatzixekin edo...
- Artatzixekin. Artatzixak moilledunak, ez honek lehenaoko... Gure aittajunak [...] zeban moduan, holako artatzixa ta... Artatzi korrientia ez dia horrek, horrek dauke moille bat, zabaldu berez eitten da! "Rak! Rak!" Zabaldu berez eitten da artatzixa. Ba, [...] gure aittak edarto moztzen zittuan ardixak. Jaiki goizeko hirurak aldian edo ta...
- Aittittak diñozu?
- Bai, gure aittak.
- A! Aittak...
- Ta aittaittak be beste lehenaoko artazi zaharrauekin. Badare artazixak [...] ondio ta harekin moztu ein bihar zan ardixa e! Beti zabaldu ta itxi ein bihar. Bestiak ez, bestiak muellia zela [daukan], muellia... Zuk jakingo dozu zelakuak dian. [Hortxe ekarriko dotzueraz]... Harekin hartu ta "ra!, ra!, ra!, ra!", erak zabaltzen die. Oin izengo da makiñia, elektrikuakin... bua! Fenomenua izengo da.
- Ta ardixa ze eukitzen dozu, lotuta?
- Ardixa lotu eitten da, lau hanka... Bueno, lehelengo hartzen da zerian, hankabittartian, hankaz gora, ta garbitzen jako tripa dana. "Traka, traka, traka", tripia garbittu goittik beheraiño ta gero lotu eitten da gero, alde bixak. Hartzen dozu "rak, rak, rak, rak" ta [halan] faten da mantia moduan e! Ez da apurtzen ha e! Ha geratzen da kapa bat; ez da kapia apurtu bihar. "Raka, raka, raka"... Berriro be, "raka, raka, raka", bueltan. Gero bestekaldera buelta [emoten dotsazu] ta oso-osuan [...] da.
- Ta hori lagun batek bakarrik ein leike?
- Batek, batek. Batek bakarrik eitten dau hori. Ez dozu ikusi ardi-mozten?
- Behin edo behin...
- Jo, ardi-mozten... hemen [gerrixa] ona bihar da!
- Hurrengo egunetan txarto, ezta?
- Ez, ez, baiña bertan, hogeita hamar ardi edo berrogei mozteko ekiñaldi edarra egoten da.
- Egun baten danak?

- Ez, egun baten ezin leike moztu ta beste egun baten. Beste batzuk beste egun baten ta hontara. Prisarik ez dabe eukitzen! [Nik ikusten dot], ba, batzuk ardixak lehenao mozten dittue, beste batzuk hamabost egun geruao, segun zelako parajetan daren ta zelako denporak daren ta... Ardixak paraje hotzetan-ta, moztutakuan, asko defenditzen dia e! Baiña hoztu eitten dia!

- Noiz mozten jakue?

- Ba, mozten jakue San Inaziotatik San Pedrora bittarte, hor. Aurretik gutxi. Bai, moztu leikez batzuk. Adarixak-eta kejau eitten dia, kapa haundixa daukenak-eta berotu eitten dia ta. Gure adarixak [...] antzuak lehen mendira bialtzen zian. Antzuak, bildotsik eitten ez ebenak antzuak izeten dia. [Edo urtekuak]. Ta gero adarixak ta beste, bildotsik eitten ez daben besten batzuk. Antzuak, ba, lau urte eukiko dittue igual, baiña antzuak darenak [...] Guri adarixak martixan baten hanka ein oskuen mendira. Berotu zan denporia ta ya fuera! Harek ya kejau zian hamen behian e! Harek mendiko haizia hartzera!

1.77. Artilearen inguruko kontuak; goruetan egiten zuten

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/018
- **Iraupena**: 0:01:48. **Hasi**: 00:27:57. **Bukatu**: 00:29:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Garai batean artileak garrantzia handia zuen. Orain beherakada handia izan du. Negu guztia haria egiten pasatzen zuten. Goruetan egin behar izaten zen; txabila. Lehenengo, artilea ondo kardatu behar da. Abarka-sokak.

Transkripzioa

- Ta gero laniakin ze eitten zan?

- Ba, laniak lehen asko balio eban! Oin ez. Oin, ba, bai, balio bai, baiña... Lehen ez euan jersirik! Lehenao ezkondu bihar baeban pareja batek, ba, arriua preparatzeko [danetik euken] lania, benga, bestia... dana. Lanak prezian... bueno! Kategorixako prezian. Gero ez, gero prensak etorri zan ta laniak jo eban behia! Igual laniak gaur eingo dau... nik ez dakit zenbat eitten daben, baiña oin hogeta hamar urteko preziaua igual [...].

- Ta harixa eitteko ta, etxerako ez ziñuen gordetzen?

- Bai, bai. Onbre! Hori, harixa... Gure amak negu guztia harixa eitten eitten eban ta!

- Ta zelan? Harixa eitteko...

- Makinia. Gorua, makina bat. Ondio ganbaran dao. Makinatxo bat holako aro batekin. Lehenengo eitten da, ba, kardau. Kardau, ba, beste batek kardatzen badau hobe, ondo kardau ezkerro harro-harro eitten da lania ta. Ta gero hartu harixa ta "dzzzzz", makiniari emon [ahal dan guztia].

- Gorua edo ze izen dauka horrek?

- Bai, makinak bai, gorua. Gorua izengo da haura. Ta beste bat dao txabillia, baiña ha... Txabillan neuk be ikasi neban harixa eitten!

- Zer da txabillia?

- Ba, holaxe egurtxo bat, beletia moduko bat. Ipintten dozu, hori hartzen dozu eskuan, lania eskuan hamen, "dzast!" ta poliki-poliki [bestera] emon buelta ta "raka, raka", emonaz-emonaz-emonaz lania eitten dau harek! Ondo ikasi ezkeru igual-igual da! Ondo ikasi ezkeru. Bestia, makinia, errezaia, jarritta eitten dozu ta, ba... Harek, ba, "rrrrraaaa", hankiakin erein ta...

- Gero horrekin galtzak eta abarka sokak...?

- Baitta abarka sokak be eitten dia. Eitten zian! Neuk be ikasi neban eitten!

1.78. Zintzarrien erabilera

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/020
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:32:45. **Bukatu**: 00:34:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Zintzarriak. Udazkenean kendu egiten zaizkie. Klase asko. Dunba, pixka bat handiagoa. Ardiak harrotu egiten dira ikusten dituztenean, badakite mendira irten behar dutela. Ardi guztiei ez zaie ipintzen. Zintzarrien soinuarengatik ere ezagutzen da artaldea.

Transkripzioa

- Gero, zure ardixak intxarriak edo euki izan dabe?

- Bo, beti! Intxarriak... Intxarriak udazkenian, ba, kendu eitten jakuen. Batzuk; batzuk laga, beste batzuk kendu. Udaberrixan mendira jua bihar danian ipiñi, dunbak eta.

- Klase ezberdiñak daoz. Dunbia zelakua da, haundixa, ezta?

- Dunbia haundixa! Dunbia, ba, hau, pixkat tripia ta muturra estua eukitzen dabena dunbia. Ardixak [ba, harek] ipinittakuan, ba, harrotu eitten dia, igartzen dotse mendira jua bihar dabena.

- Ta zenbati ipintzen jakue?

- Guk hamaika edo eukitzen giñuzen intxarriakin. Hori, ba, zenbat gustatzen jakon bakotxari.

- Ta intxarriak, egongo die haundixauak ta txikixauak eta...

- Bai, bai, klase asko dao. Klasetan ez dozue ikusten intxarriak? Klasetara ez zate faten [ferixak pasatzera] ta?

- Bai.

- Han egoten dia ba klasiak. Elgetan bat intxarri saltzaillia! Ta dauka intxarrixa, eruaten dau... Bueno! Hau [eskatzeko...] Berrehun intxarri igual ipiñiko dittu plazan! Zumarragara faten bazate han ikusiko dozuez.

- Ta zeintzuk dia onauak intxarriak ala dunbak?

- Ba, dunbak pisu haundixa dauke, haundixak dia. Ba, pastorieri gustau eitten jakue, ardixak, ba, dunbian zera entzuteko. Intxarriak fiñauak dia, ba, intxarrixa txikixaua, ariñaua da. Dunbia, ba, gutxittu ein da; oin intxarrixa gehixao.

- Orduan, errebaño baten, esan dozu, hamaika batek edo?

- Bai, guk hamaika [...], baiña noberan intxarrixa ardixak ezautu eitten dabe, noberan kuadrillakua bada, ardixak... Ta noberak be bai. Zuretako igualak izengo dia danak, baiña pastore dabillenandako ez. [Esango dau]:

"Han! Gure ardixak han! Bestia. Han dabil bestia. Han dabil bestia".
Musikuan sonidua moduan da hori. Gaur, ba, [... urtian] zertuta, galduta,
baiña igarten jako urrin. Gabaz be bai. [Gabian ardixa ez da...]
Intxarrixakin, "han dao".
- Baiña gero etxera ekarritakuan kendu eitten jakue, ezta?
- Bai, udazkenian alperrik izaten da, hamen etxealdian zelaittan da
ibiltzeko, ba, ez dau faltarik eitten harek.

1.79. Ardiek zer jaten zuten

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/022
- **Iraupena**: 0:00:13. **Hasi**: 00:35:45. **Bukatu**: 00:35:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Ardiek soroan bertan jaten zuten pagatxa.

Transkripzioa

- Ardixeri emotekua be bai pagatxia...
- Pagatxia, bertan jaten eben e! Soluan jateko, udabarrizan ona egoten zan
pagatxia. Buf! Pagatxia zan... Gero ardixak-eta gastau zian danak eta ya
pagatxia eittiari jentia laga ein otsan.

1.80. Uberako azkenengo artzainak. Artzain-txakurren garrantzia

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/023
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:35:58. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriri lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Uberako azkenengo artzainak beraiek izan ziren. Ardiak
basoa behar du. Txakurrak behar-beharrezkoak ardiak zaintzeko.
Artzain-txakurrak.

Transkripzioa

- Zeu izan ziñen Uberako azkenengo pastoria?
- Bai, [Uberan geu] giñan bakarrik ardidunak orduan e! Geu bakar-bakarrik!
Oin, gero guk laga gontsanian beste batzuk hasi zien. Agarrabeñan be
ardixak egon zian, Ibergaiñen be bai, Olañetan be bai, Ergizarren be
baeren... Azkenengo ardixak basuan, basuan ardixak [erabixenak] geu
bakarrik. Horrek ez [da iguala], horrek etxe inguruan [dania] ardixak. Hori
ez da... Ardixak basuan bihar dau. [Udan] danian ibilli deittiala mendixan,

bestela lan asko etxe inguruan. Gu hamabost egunian ikusteke igual egoten giñan ardixak e!

- Hamabost egunian?

- Ikusteka! Zeoze pasatzen bajakuen, ya agertzen zian etxe aldera edo, larrittasuna, txakurrak edo... Txakurrak zian orduan be [persegidorerik] onenak. Txakurrak. Igual bi edo hiru txakur mendixan hanka einda, gosiak, edo zera ta ardixak deseitten dittue. Oin be eitten dittue [...] txakurrak. Hor be ein eben, ardi bat [juan ta] akabau mendixan. Eibarko txakurrak ziala edo... Txakurrik ezian ardixak ondo ibiltten dia bakutxa bere lekuan.

- Zenbat txakur ibiltzen ziñuezen orduan? Bi edo?

- Ardi-txakurrak [...] Bat. Ta gu txikixak giñanian bat be ez gaiñera. Aittak geu [...] txakurra, akostunbrauta egotiarren ardixak txakurra ikusten. Txakurra, bat ikusten ez daben ardixa ba bildurtu eitten da beti. Ta horretxeaittik, ardi-txakurra [euki gendun].

- Zeuk erakutsittakua igual, ez?

- Bai, bai. Berak, erak ikasten dabe ardittan. Noberakin batera ikasten dabe e, ardixak... Guk txakurra [hartu] giñuan hor beheko solo barrenian, [Agarrengo] solora pasau ez deittien. Geu bazkaltzen. Geu etorri etxera, bazkaltzen. Ta txakurra "raka, raka, raka", alde batera ta bestera pasuan. Ardixak zaindu "de conciencia" e! Besteko solora pasau ez deittien.

- Holakua bihar e!

- Bai, bai. Holako txakurrak [etxerako]. Ta ikasten dabe e! Ikasi eitten dabe formala danak! Beste batzuk, ba, ez; beste nagixak, ba, lo.

1.81. Ingurua zelakoa zen; basoa

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/024
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:37:55. **Bukatu**: 00:40:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Sasoi batean inguruan haritza eta pagoa nagusi. Garoa. Otea.

Transkripzioa

- Gero, holan, arbolak... ze arbola klase ta ze bedar klase dao hemen inguruan?

- Orduan euan hamen haritzak eta paguak.

- Oin baiño gehixao, ezta?

- Bai. Ta gero hor, ba, [eitten eben] garua. Orduan hamen basuko probetxua zan garua, garo-sailla. Garua. Garo[-barrixa jaten] eben igual udabarrixan ta urtetzeruzkuan ta buo...! Keja haundixa egoten zan. Orduan zan garua. Oin ez dau iñok be eruaten. Oin jentiak nahixao dau egarrixak egotia basuan. Piñuak jan ezian, ba, basua garbittu eitten da ta ez zan ikusten mendi honetan... bedarra gutxi ta arantzarik eta bapez e! Killarria. Killarria jaten dabe ardixak. Killarria badakizu zer dan? Killarria?

- Bai, bueno, entzunda badaukat, baiña ez dakit...

- Killarria jaten eben. Killarria da, ba, basuan egoten dana "brezno" edo... "Brezno" otia da, ezta?

- Otia da... "argoma" edo...

- "Argoma"... Bueno, "brezno" izango da. Killarria. Hori lora gorriza etaratzen daben txiki hori. Hori jaten eben ardixak gehixena. Hori, ba, udabarrixan urtetzen otsan pujia ta sobratzen zana neguan be hantxe egoten zan. Ta ha beti jaten eben.

- Ta gero, holan, beste arbolak eta?

- Otia eruaten eben. Otia udabarrixan... puo! Gustora [eruaten eben]. Otiak etaratzen dau pujia udabarrixan ta gero eitten dau gaiñera, loria etaratzen dabenian, otiak loria hori-horixa etaratzen dau. Ta gero harek loriak etaratzen dittu bi leka edo hiru. Lekia eitten dau otiak. Ez dakizu? Babiak moduan lekia eitten dau. Harek eitten dau hazixa ta ona da. Ya da ["leguminosa"] esateko moduan, babian-ta moduan. Ha be dana batzen dabe. Harekin be ondo manejatzen zien, "traka, taka, taka" batu dana ta. Otia bera da... behin udazkena ezker ezin leike [jan], gogortu eitten da, baiña udabarrixan pujia [ekarten] dau, puja txiki barri-barrixa. Ta gero, loria eitten dabenian, ba, hori. Harek lagatzen dabena, loria jaten dabe, baiña gero loria jaten ez dabena, ba, harek lekia ein eitten dau. Ta ha lekia jaten da. Ta ha hobia da.

1.82. Ardien jana; belarrak

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/025
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:40:00. **Bukatu**: 00:41:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Sekula-belarra. Soroan ereiten zen. Pagatxa toki batzuetan berez irteten da. Sasoi batean pagatxa-hazia saldu egiten zen.

Transkripzioa

- Gero, bedar klasiak, sekula-bedarra ta?

- Sekula-bedarra ta, etxian bakarrik, basuan gutxi hori! Hori basuan ikusi be ez! [Esateko be ez da].

- Lehen gehixao egongo zan gaiñera oin baiño, ezta?

- Solotan?

- Bai.

- Bai, solotan danak! Etxe danetan. Gaur ez dakit Uberan egongo dan...

Geuk daukau bakarrik ta Agarrabeñan dao. Ta beste etxetan, ez dakit [Markiegittan] egongo dan. Zuek badaukazue? Beste iñok ez dauka [Markiegin] be. Agarrabeñan badao ta gurian be bai, ta ostian Uberan Markiegin hortxe ezkutuan ez badao... Sekula-bedarrik ez dao. Sekula-bedarra ardixendako ez da ona.

- Erein eitten da hori?

- Bai, erein eitten da. Erein eitten da, bai. Hori be pagatxian moduan [ereitten] da. Pagatxia, pagatxia Bergaran urtetzen dau --ondio urtengo dau-- leku baten erein barik. Beti urtetzen dau han. Dao zerian, hemen [Moru-k badauka] Zubittatik gorako etxe hortan, hori mendiori da pagatxia urtetzen dabena. Berez urtetzen dau e! Jausten da hazixa ta ez da galtzen. Hurrengo urtian be igual. Igual erneko da setienbrian, hurrengo gabonetan igual erneko da, baiña ondio ez da galdu. Beti dabil ganaua ta... Lehenao

faten zian hara kaleko andrak pagatxa-hazixa batzera, ta saldu eitten zan pagatxa-hazixa, danian ereitten zan ta. Ondio be galtzeke egongo da. Hori berez lurrak emoten dau. Lur fiñak dia horrek.

1.83. Artzain txabolaren egitura

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/026
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:41:31. **Bukatu:** 00:42:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Txabolaren egitura. Harrizkoa; bazterretan askak, eta, gainean, belar-ondoa ipintzen zen.

Transkripzioa

- Gero, lehen esan dozu txabolia eitten dozuela...
- Bai, bi txabola daoz.
- Txaboliak ze zati dauka edo zelan egoten die?
- Ba, txabolia, txabola holan... hirurogeta hamar ardi --erakutsiko dotzut ointxe, bueltan, ondo-onduan dao-- hirurogeta hamar ardi ondo kabitzen zien. Askak ipiñi [gontsan] bueltan, baztarretan, gaiñian eukitzen giñun bedarrondua ta hamabost egun, edurtia haundixa ein arren, hamabost eguneko reserbia egoten zan.
- Dana harrizkua izango da, ezta?
- Txabolia bai, harrizkua da. Harrizkua ta...

1.84. Artzain txabolak nolakoak izaten ziren

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/027
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:42:03. **Bukatu:** 00:43:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Txabolak zelakoak izaten ziren. Batzuek lo egiteko tokia ere izaten zuten.

Transkripzioa

- Gero, holan, paretian ziri... holan, egurren batzuk edo ez zien sartzen pastoriak gauzak txintxilik lagatzeko eta?
- Bai. Bueno, guk zela etxera ekarten giñuzen traste danak, ba, ez zan hori zera. Oin, txabolan lo ein bihar dabenak-eta, ba, eukitzen eben txabola altutxuaua ta bertan lo eitteko lekua ta... Ta guk, ba, hamendik hara

txabolara lau miñutu ta...

- Sekula ikusi dozu holako txabolarik? Bertan lo eitteko tokixakin eta...

- Bai, ikusi dittut nik. Baitta hamentxe mendixan be bai, gure... hemendik gora, Anduriko txabolía zan holakua. Oin jausitta dao e, ormak dare bakarrik, orma puntatxo batzuk. [Ikusitta nao ni], goixan, gabian jua ta lo eitteko lekua. Baiña eske handik etxera etorri ta bueltia ein barik, goixian jatxi ardixak eta goizekuak eta illuntzikuak ekarri ta ardixak bialdu mendira ta... Ba! Ez [da hori] ezebe, zer bat geiñian, lo eitteko lekua. Hori erreza da. Etxera bueltia eittia baiña hobe askotan.

1.85. Ardiei ematen zitzaien izena

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/035
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:53:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** "Arkaztia", ardi gazteari esaten zaio, urtebete duenari. Jaioberriei, bildotsa. Ahari zikiratua, buzkantzak egiteko hobe. Bildotsa egiteko dagoen ardia, aharituta dagoela esaten da. Bildotsik ez duen ardiari, antzua. Artaldearen aurrean doan ardiaren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Bai, baiña arkazte edo...

- Arkaztia? Bai.

- Baitta?

- Arkaztia, ardixena da hori. Arkaztia da urtekua.

- A! Urte batekua?

- Urte batekua. Arkaztia.

- Gero, jaioberrikeri arkumia esaten jakue?

- Bai. Arkumia edo bildotsa. Hamen bildotsa.

- Arkumia hemen ez da esaten, ez?

- Ez, hemen ez. Hamen bertan ez, hemen bildotsa esaten da. Arkumia esango da, ba, Bergaratik harutz, Zumarragatik harutz arkumia esango da. Baiña hemen ez. Zuenian be bildotsa.

- Bai... Gero, bi urtekuari? Bi urtekuari [primala] esaten jako? Ez, ezta?

- Bi urtekuari... hori ez dot zertzen hori.

- Gero, hiru urtekuari? Ardixa?

- Ardixa.

- Ardixa, ez? Gero, bi urteko adarixari? Adarixua esaten jako?

- Adarixua?

- Adarixua edo...

- Bai, adarixua. Batzuk esaten dotse adarixua. Adarixua ba... Aurretik esaten jako bildots-adarixa. Bildotsa [da] urtebete arte ta gero adarixua.

Gero adarixa. Ta urte bikin, artian, ba, bai, balio izeten dau hamar ardingako edo gutxindako, baiña errebañuan ez dau balio. Haren kontura ezin leike laga errebañua urte bateko bildotsetarako.

- Gero, adarixak kapau eitten zien, ezta?

- Bai, kapatzen zien.

- Ta horri zela esaten jakue adari [kapaua]?

- Adari kapaua. Sekula ez dou guk kapau, baiña ha ona izen bihar da adari kapaua. Adari kapaua. Adari kapaua lehen asko.

- Ta hori zeaittik eitten zan, ba?

- Hobia dalako, buzkantzak eitteko hobia dalako eitten zan hori. Ta gero basuan, ba, zuk badaukazu igual, bihar dabe hiru ta bat ez badozu nahi eukitzia edo haren razarik ez dozu nahi, ba, kapau. Ta han ibiliko da ha, harek ez dauka zerik.

- Gero, bildotsa eitteko dauanian zela esaten jako? Ardi betia edo? Ez, hemen ez da esango hori, ezta? Adarittuta?

- Adarittuta. Adaittuta dare. Ardi betia be ondo dao.

- Baiña hemen ardi betia ez da esaten, ezta?

- Ez, ez, sekula ez dot entzun. Adarittuta dare.

- Gero, ume bako ardixari?

- Antzua.

- Gero, errebañuan beti aurrian juaten dan ardixari zeozelan esaten jako? "Gioia" edo "irazko" edo holakorik...?

- Sekula ez dotsau ezer esan, baiña badare e! Beti aurrenengo faten dana beti bat egoten da. Beti-beti baten bat! Ha egunero. Ha egun batian aurrian ta atzian sekula ez da fango e! Beti aurrian fango da. Ta atzenengo faten dana atzenengo!

1.86. Ardi adardunak

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/038
- **Iraupena**: 0:00:24. **Hasi**: 00:54:11. **Bukatu**: 00:54:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena**: Adarduna; adargabekoa. Ahari motza.

Transkripzioa

- Ardixak adarrak euki ala ez, izen diferentia eukitzen dabe? Adardunak edo...

- Bai, adarduna, adarbakua ta adarixeri esaten jakue, ba, adardunari esaten jako adarixari. Adari motza. Adari motza esan ezker adar baekua dala badakizu. Adari motza adar bakua.

1.87. Ardi klase desberdinak

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/039
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:54:35. **Bukatu**: 00:55:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ardi klase desberdinak. Latxak. Mutur pinttoa, gorria, beltza...

Transkripzioa

- Adari motza adarbakua.
- Gero, ardixen artian be badaoz klasiak, burubaltza ta... burugorrixa ta...
- Milla klase.
- Baiña danak, horrek danak die latxa barruan, ezta?
- Bai, bai, latxa barruan dia danak! Baiña mutur pinttua ta... bueno! Oin ya razia hobeto ipinitta dao, baiña... Ta zein hobia dan be ez jako igarten e! Igual izengo da mutur... Bai, oin, ba, razia ipinitta razia, razia, razia, baiña bat mutur gorrixa, beste bat baltza, beste bat pinttua, beste bat zurixa, beste bat nabarra... ta danen artian egongo dia, ba... Igual egongo da nabarra ardirik onena kuadrillan ta razan ipintzen dittue, ba, zuk ferixa batera ta premixo batera fan bihar badozu, ba han eruan bihar dozu razia, ez dakizu? Mutur gorrixa edo baltza edo "lo que sea", danak latxak.
- Baiña danak latxak...
- Bai.

1.88. Ardi klase desberdinak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/041
- **Iraupena:** 0:00:12. **Hasi:** 00:55:28. **Bukatu:** 00:55:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Bekokian ile-multzoa duen ardiari, "mototxa".

Transkripzioa

- Gero, bekokixan hemen ule moltzua daukenari...?
- Mototxa!
- Mototxa...
- Mototx haundixa ta mototx txikixa ta izenak hor eukitzen dittue.

1.89. Ardiei egiten zizkieten belarri-markak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/043
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:56:11. **Bukatu:** 00:56:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Belarri-markak. Beraien ardiei, urkila ezartzen zieten belarri bietan. Urkilak; akatsak.

Transkripzioa

- Gero, "akatsa"?
 - Horrek [...]?
 - Ez, belarri-markak.
 - A! Bai, "akatsa" ta "bitzatua" ta horrek belarriko zerak dia!
 - Ta hemen hola esaten jakue?
 - Ez. Ba, belarriko markak esaten jakue hemen. Edo [gurian...] esan dotsut, "urkillia" belarri puntan "trast" kendu ta bixetan urkillia geratzen [zan] gure ardixeri. Beste batzuk azpikaldetik [kentzen] dotse "trast" zati bat; bestiak gaiñetik ta bestiak alde bittatik ta... mila... Horretxek dia, horrek, urkillak edo akatsak, horrek jakitten... Ta pastoriak jakitten dau, "honek hangotxe ardixak dittuk. Hango..." Seillua moduan dia horrek.

1.90. Ardiaren gorputz-atalak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-093/044
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:56:41. **Bukatu:** 00:57:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Ardiaren gorputz-zatiak: burua, kokotsa, kokotspea, haginak, belarriak, errapea, apatxak.

Transkripzioa

- Gero, gorputzeko zatixak ardixanak... Bueno, burua... gero, ez dakit... Ze zati dauzka? Burua...
 - Burua. Ta... beren zatixak?
 - Bai. Danak. Burua, begixak...
 - Okotza, okozpia, hagiñak, belarrixak, [...]
 - Errapia?
 - Errapia.
 - Gero, apatxak esaten da hamen?
 - Bai. Apatxak dia atzazkalak.
 - Ta kaskuak zer die?
 - Horretxek, horrek be, kaskuak be horretxek dia, apatxen zerak dia. Kaskua ta atzazkala, bueno, kaskua azpixa izengo dau, baiña atzazkalak aurrera doiaz. Horrek batera [joten] dabe. Apatxak motzak edo luziak edo...

1.91. Zintzarriak erabiltzen zituzten

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/045
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:57:36. **Bukatu**: 00:58:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Zintzarriek barruan adar zati bat izaten dute.

Transkripzioa

- Intxarriak barruan, zaratia etartzeko, zer eukitzen dabe?
- Miña, min... zer bat eukitzen dabe. Guk miña esaten dotsau. Holako, honetxen moduko zer bat, uhelakin barruan lotuta egoten dana. "Taka, taka, taka" [harek] jotzen dau.
- Uhela zer da?
- Uhela, ba, narru zati bat! Holako narru zati bat. E? Korapillua eitten dotsazu hor "tiki-taka" ta hamen geratzen da txingiliska miña, intxarriari. Harek eitten dau behia jotzen dau harek [ikaria eindako guztitan].
- Miña zer da, adar zati bat...?
- Miña izaten da batzutan hazurrezkoa. Oiñ arte beti izen da adarra, ganauan adarra. Ipiñi ondo, honetxen moduan. Oiñ eitten dittue plastikozkuak. Elgetan dao, intxarriak eitten dittuana Elgetan dao. Millaka intxarriak daukaz Elgetan ta harek eitten dittu, miñak eitten dittu. Ta ez dia merkiak e! Nik iaz behixendako intxarri bat ipiñi notsan ta hirurogei euro kobrau ostan.

1.92. Artzainek erabiltzen zuten arropa

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/046
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:58:46. **Bukatu**: 01:00:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Artzainen arropa. Abarka beltzak, artilezko jertsea, ardi narrua. "Sopittia", abarkak azpialdean izaten zuen narrua.

Transkripzioa

- Pastorien erropak... zuk sekula ezautu dozu "kapusai" edo... izena sekula entzun dozu?
- Kapusai...
- Kapusaixa, antziñako...
- Bai, baiña nik ez dot hori [...]
- Ez, ezta? Hori hemen...
- Hemen, ba, hamen bertako pastoriak, iñora fan baekuak e...
- Pastore normal batek ardizaiñan zebillenian ze erropa eruatzen zeban?
- Ba, hamen, erropia pastoriana: abarka-galtzak, beste etxian eindako jertse haundi bat ardi-uliakin ta ardi-narrua igual geiñetik!

- Ardi-narrua bai?

- Ardi-narrua, ardi-narrua asko ibiltzen zan. Gerrixan be bai! Ardi-narrua ona da. Bueno, ona zan... Oin ez da ibiltten, baiña ardi-narrua [uliakin] barrua hartu ta berotu eitten dau harek. Ardi-narrua, asko usau. Onbre!

- Gero, ardi-narruakin eindako txalekuak... horrek... izenen bat edo?

- Eukiko eban, baiña nik etxian ez dot ezautu txalekorik...

- "Delanteruak" edo holan...

- Ez dot ezautu.

- Gero, lurretan ibiltzeko, abarka azpixetan jartzeko "bularreta" edo holako izenen bat?

- Abarkak... lehen basarritan eitten zien moduko abarkenak [zerian]?

- "Zatak" edo... Ez?

- Abarkak eitten zien, ba, ganau-narruakin eitten zien abarkak. Ta azpitan ipintten jakuen sopittia. Sopittia, apurtzen zanian. Abarka zahar sopitta...

1.93. Txondorra egiteko prestaketak

- **Hizlaria(k)**: Albisua Larrea, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-095/003
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:06:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Euskara » Lexikoa
- **Laburpena**: Txondorrek egiteko tokiak. Aurretik erabilitako tokirik ez badago, prestatu egin behar da. Iduririk ez badago, zama eraman behar da; zoia.

Transkripzioa

- Lehen ez badao lekua, batzutan lehenaoko tokiak izeten dia, ezta, txondorra eitteko, ta han egoten da idurixa ta lehengunian esan giñuan horrek. Idurixa-ta han egoten dia, baiña ez baldin badao, zohixekin ein bihar, zohixak ekarri bihar. Bideik be ez zan egoten lehen [ta igual ekarri biher izeten zan] zaman. Zamia jakingo dozue ze dan...

- Zer da zamia?

- Zamia da abarren geñian ipini zohixak, abar mordo bat ipini lehelengo azpizen ta gero haren geñien zohixak ta gero narrasian eruan behera hori txondorroi daon lekura. Ez badao lurrik, hori zeroi, idurixa ez badao hori ein bihar da. Zohixekin. Lehenengoko zera. Ta orbela da oso peligrosua.

- Zeaittik?

- Laban [eitten dau haretxen] gaiñian. Berotzen danian, ezta? Lurruna edo izardixak berotzen danian, "dsssssuu!" Danak hanka. Hari eitten jako, ba, eitten gontsan [hesixa] sartu takien-takien buelta guztien edo [...] be bai, ez deixen han behera... laban ein [ez deixen], jausi ...

1.94. Txondor-zuloak Keixeta mendian

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Alberdi, Mateo

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-098/002
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:00:15. **Bukatu**: 00:01:04
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Urtean bost txondor egiten zituzten Keixeta mendian. Etxean aita eta aitajauna ere ikazkinak.

Transkripzioa

- Hemen inguruan ein izan dia txendorrak?
- Etxian geiñekaldian´e ein izan dou guk, baiña guk gehixenbat eitten giñuen urtero, ba, bost bat txendor. Txendorra esaten gontsen guk iketza eitteko horri pillaorri eta hori eitten giñuen hemen [atzerako] basotan dauzkau guk eta urtien bost bat txendor, hola, bost bat milla kilo inguru iketza eitten giñutzen hor zerien, mendixen.
- Eta mendi horrek izena, ze izen zeukan?
- Keixeta mendixa.
- Osea, danak eitten zien hor, mendi horretan?
- Bai. Bueno, iketza eitten da gaztaiñiakin, haritzakin, danakin, egur danakin eitten da. Baiña guk eitten giñuan txarako pa... pago-txaria. Hori Keixeta mendixan eitten zan hori. Nik´e bai, aittak´e bai eta aittajunak eta [danak], danak hortxe mendixan eitten [giñuan].

1.95. Baserriaren egitura mende hasieran

- **Hizlaria(k)**: Ibarguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-152/002
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:00:30. **Bukatu**: 00:02:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Gauzak zeharo aldatu direla dio Donatok. Berak ez zuen ezagutu sua sukaldearen erdian, baina aitari entzunda gelatza egon zen sasoi batean... Sukaldea askoz handiagoa zen. Teilatuan ere zuloren bat; tximiniarik ez zegoen hasieran.

Transkripzioa

- Zelan aldatu dian gauzak, ez?
- Bai, aldatu ein dia, ba, zihero.
- Zihero?
- Zihero aldatu. Basarrixan garai hontan... Oin, ba, sua edo kalefaziñua edo, beste modu baten egoten da. Baiña orduan sua... Nik ez naban ezautu, ni jaiotzerako sukaldia eindra zeuan, baiña hau sukalde [hori] zan haundixaua, hara, oin baiñua-ta daren alderaiñok. Beste hainbeste oso ez; ba, holako bat. Ta hamen erdi-erdixan biga bat. Bueno, oin tetxua bajauta

dao. Honek elizian alturia dauka honek tetxuonek. Eta biga bat hor, [...] bat, frontala esaten gontsana, eta handik esegitta egoten ei zan sua, gelatza. Oindio han dao kanpua. Gelatza izeten da basarrixan, ba, gaintxu batekin katei bat, ta behian gantxu bat, hola, galdaria, esne-galdaria edo, egosi edo zera eitteko. Ta sua erdixan; sukaldian erdixan sua. Ta gure aittak esaten zeban, bera ondo akordatzen dala, mutikuak eta beste auzoko bat be bai hemen, [ardi-zaiñian] mutikuak. Ta atsaldian sua emendau edo, ez zan egongo, bazkaixa eindakuan lagako zan., ta gelatzian gantxu bat. Ondio gelatz haretan ipini hor egur bat ta ziburuan ibiltzen ziala. Kolunpiua bertan. Eta bueno, ba, holaxe. Sua be, ba, modu hartantxe. Hola begira jarri taillatura, ta taillatuan be igual zulon bat ta [izarren] bat be bistan goixan. Orduko bizimodua. Tximinixarik ez zan kanpora.

- Eta keia nundik urtetzen zan?

- Keia, ba, bertan juten zan. Gure goi honek dare, bueno, [beltzian etorritta], hola sendatuta kedarraik. Kedarraik, ba, petrifikauta dao haura, gogortuta.

- Eta hori basarri guztietan?

- Bai, bai. Gurian bezela basarri [gehixaotan]. Gurian, ba, goixan...

1.96. Arropak zelakoak; lixiba

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-152/007
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:13:50. **Bukatu**: 00:16:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena**: Arropa garbitzeko harria. Alberga; aska. Etxean lixiba-aska eta lixiba-harria. Noiz eta zelan egiten zuten lixiba. Orduko arropak zelakoak ziren. Hauts-trapua (esaera ere badu); sutako-hautsa.

Transkripzioa

- Ur gutxikuak. Iturrixa urrin! Hamendik, ba, seirehun metro inguru tubo ipini giñuzen ekartzeko. Eta haraiño jun bihar. Ta han zan, pietarrixan esaten jako, erropia joteko harrixa. Eta albergia, askia. Askatzuko... Askatzura bidian dao hori. Ta han zan.

- Lixibia-ta bertan eitten zenduen?

- Lixibia-ta ein bihar zanian, ba, haraxe. Etxian, ura ekarri hamendik, ahal dan moduan, egosi. Hor. Lixibia lehen barrika haundi bat eitten zan, barrika bat ipintzen zan. Harri bat hartarako aproposa, esaten [zako], lixibarrixa esaten jakon. Hola, harri borobil bat, bere txorrotxua, harrixak formia etarata. Eta, gero, lixiba-askia. Hortxe zan. Lixiba-askia, [bueno], askatxo bat, ta hara jausten zan goittik botatzen jakon ura, ur berua, erropiai. Klaro, eitten zan hamabostian edo, ez dakit hillian eitten zan erropia garbitzia ta. Orduko izerak-eta, ehunezko izerak-eta gogorrak! Buu! Harek... Eta zikiña biguntzeko, eitten jakon barrikan ipini, tolostau, eta ur berua. Baiña, hartarako, goixan ipintzen jakon haustropua esaten jakon. Haustropua. Da izera zahartutakua edo maiztutakua, e? Ba, gutxien balio dabena ipintzen jakon goenian, eta botatzen zan ura hara. Eta han egoten

zan sutako hautsa. Sutako hautsa egoten zan, ta botatzen jakon ura goittik, ur berua, eta sutako hautsan zerak erropiai, ba, zikiña harrotu ingo zotsan. Klaro! Bai, sutako hautsa. Holaxe ibiltzen zan. Hagaittik esaten da batenbat betik izeten dala etxian haustropua; danen lan zaharrak ein biher dittuena! Haustropua. Guk hala esaten gontsan.

1.97. Baserrira ura eramateko lanak nolakoak izan ziren

- **Hizlaria(k):** Iburguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-152/008
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:16:10. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Ura ekartzeko arazoak. Lanaren inguruko pertzeptzioa. Putzura, hasieran teilatuko ura jausten zen. Iturria, guztien adostasunarekin lau baserrien artean banatu zuten.

Transkripzioa

- Lixibia eitteko ura urrindik ekarri bihar izaten zan?
- Bai, bai. Lixibia eitteko ura, ba, gero ein zan deposittua. Bueno, gure aittak eta aittajunak ein zeбен, etxia erosi zeбенian, ba, lehelengo lana deposittua ein ura eukitzeko. Gero, horra taillatuak hartu danei. Hodixak ipiñi. Gero hodixak. Aurretik gaztaiña-adarrakin einddakuak, baiña gero fontaneruak. Ba, hori eingo zeбен ni jaio nintzan inguruan, mil novecientos veinte. Bai, etxia erosi, mil novecientos docian erosittakua da hau, eta handik urte gutxira ein zeбен, lehelengo lana deposittua eittia. Eskuz haura zuluaura ein...! Orduan eitten zan lana, e! Nik [esan be...]: "Zenbat denporan ein ziñuen haura?" ta "Denporiai ez jakok beitzen! Ein! Gaur ta bihar ta etzi. Ta aurtan akabatzen ez badou, hurrengo urtian". Ta ein! Halaxe da. Jo...!
- Eskuz ala zeoze-zeoze erabiliko zeбен?
- Eskuz eskuz! Pikatxoia, barreñua, palankia... Harrixa zeuan, gaiñera, hor asko, ta... Tiron batzuk eingo zittuen ta... Baiña zelako zulu! Oin, klaro, oin ekarri eskabadoria ta eingo leuke, ba, "en un santiamén" esateko, baiña "ochenta metros cúbicos"-eko deposittua [dauke hor]. Bai, larogei milla litro. Ta gero ez zan betetzen!
- Eta nundik etortzen da bertara ura?
- Taillatua. Lehelengo hartara ein zan. Taillatuak. Itturrik ez geunkan ta.
- Hori da. Baiña horra depositto hortara be...
- Taillatuetako ura. Bai. Nibelian justu-justuan bajutxua ein, ta gero handik sukalderañok, honaxe allegatzen zan ura. Presiñorik barik, gutxikin, baiña horrañok. Ta gero, ba, gerria pasau ta gero, neu etorri etxera ta gero, hartu giñuan haura itturrixa. Ein giñuan --auzoko laurena zan itturrixa--, ein giñuan partidu. Itturri hori danon akorduan partidu giñuan: hiru parte laga han, ta parte bat guk tuberixan ekarri. Zela geunkan deposittua haundixa, ba, gero bete eitten zan. Ura [gero] ondo. Oin herrixak ein dau han goiko gure zelaixan guenian. Dauka... Eta bonba automatiko jasotzen [...] eta gauza danak urakin. Oin ura ba... Bueno, [kontadoriakin], ezta? Baiña

nahikua. Kalia bezela ura.
- Eta itturrixak izenik bazekan?
- Bai, Askatzuko itturrixa.

1.98. Bergarako jauregiak

- **Hizlaria(k):** Iburguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-152/014
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:29:30. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Supide baserria; beste jauregi, dorretxe batzuk (Gabiria, Ozaeta). Nagusien arteko tirabirak; ezinikusiak. Etxe handikoa; Ondartzako nagusiak. Ondartzako zubi zaharra oraindik bertan dago.

Transkripzioa

- Horrek Monzonen etxia zeukan jabe horrek ez zeukan terreno bat... Oin San Martiñen kurutzia, zuk ikusi dozu Bergaran? Kurutza bat hor dao "en honor de San Martin" ein zeuben, ta han dao kurutza bat. Oin argi barik egoten dok, eztok?

- Bai.

- Argixa gastau eingo zuan. Eta han tontortxo bat dao. Eta handik eitten da bistia, hartzen dau Leniz baille... Mondragoi aldera, Antzuela aldera eta Bergara aldera. Tontortxo bat da, hola. Eta [han ei] zeukan horko kaballeruak [behera] sillatxo bat --udan etorriko zan, ez zan neguan etorriko-- jun ta han jarritta egoteko. Zazpi area, "que son setecientos metros cuadrados" lurra Supidena hor [...]. Gauza kuriosua, e?

- Bai, behera begira egoteko.

- Bai, behera begira egoteko.

- Gero, behian, parian be zera zan, dana...

- Bai, "torre de Gabiria".

- Gabiria.

- Gabiria. Hori torre haundixa da.

- Beste aldera "torre de Ozaeta" ta... Dana...

- Bai, ba, horrek zerak dia.

- Bai, ta berak be, ba, horrek...

- Eta berak dana...?

- Bera [...].

- Handik begira egoteko. Zela ete zaken, etxia erosi zeubenian, Zurrako Reginok hori erosi zeubanian agertu ei zuan: zazpi area Supidekuak. Zela, baiña? Hamen zazpi area, mendixan, ez da ezebe. Zazpi area da, ba, zazpirehun metro kuadrau ezebe ez da. Eta gero etara ei zeuben zela horko jauntxuak han berak handik jarritta begira egoteko beran lurretik.

- Begira egoteko [harek...].

- Bai, bere lurretik. Pixkat bazeuan... Haundixak danak, baiña haundixak bata bestia? Oingo aldian gaizki egongo zien.

- Bai, nik uste dot alkarrekin zer haundixak...

- Bai, zerak be, honek, Etxe haundikua --lehen esan dou--, horrek dauka jardiñera harrizko, bueno, zenbat lan einddako eskillaria, hola, goiko

plantatik ta arkupia. Ta han arkupetik bidia doia. Ta hori bideori zan enpedraua dana. Hortik Ondartzara eta Errotetaraiño. Eta Ondartzan beste nausi bat, beste kaballero bat. Han be [hortara ei zeuan]. Eta "Ondartzak bai hau, baiña nere arkupetik pasau bihar", ta hoixe ez entzutiarren zubixa ein zebala. Han dao oin Ondartzako zubixa. Autopistiak urtetzen dau Bergaran...?

- Bai, bai.

- [...] zubi haura, zaharra, han dao oindio.

1.99. Ogia egiten ikasi zuen; ogi klaseak

- **Hizlaria(k)**: Argialde Azalza, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-156/010
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:12:45. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Ogia egiten ikasi zuen. Hasiera batean ogiaren masa eskuz egiten zen; gerora makina ekarri zuten. Ogia egiteko behar zirenak: ura, hazgarria, irina. Ogi klaseak.

Transkripzioa

- Eta ogixa ze... eurak erakutsi zetsuen ogixa eitten?

- Eitten? Harek egunero ein bihar izeten zebeñ gau ta egun ogixa!

Panaderixan hola ein bihar da, e!

- Eta zuk ze eitten zenduan?

- Ba, nik, han, horixe: pisau eta horrek borobildu, ta bestiei emon. Harek [ipintzen zaben], ba, ze tamaiño ta ze klase.

- Eta pisau ze eitten ziñuan, iriña?

- Pisuekin. Masia indda, e! Hauraxe ekarri zebeñ gero. Dana eskuan eitten zan, e! Baiña gero ekarri zebeñ masia eitteko trastioi. Gero makiñiorrekin eitten zan ta orduan hartu ta pisau ta...

- Eta lehlengotik ze eitten zenduen makiña barik masia?

- Aurretik bai, aurretik eskuakin!

- Eta ze... bihar gogorra zan?

- Gogorra? Horixe gogorra!

- Zenbat denpora bihar izaten zan makiñan eitteko?

- Uuu! Denporak be ez dakit, porke asko ein bihar izaten zan ta.

Denporak...

- Eta zelan, zelan da? Ogixa eitteko ze bihar izaten da?

- Ura eta zera, altzatzekua, lebaduria. Iriña bota lebaduria dana han urtuta, uretan dana masia ein ta gero beinga! Horixe don ogixa eittia, besterik ez dauka.

- Eta hazgarrixa zelan lortzen... zelan [...] zan?

- Hazkarrixak etortzen zien paketetxuan. Oin zela esango dotsut, ba, horrek saldiandakuok etortzen dia, ba?

- Mantekillia moduan...

- Mantekillian-ta moduko kuadrautxuak etortzen zien. Kaja osuek hartzen zien, egunero bihar zan ta.

- Eta erabiltzen zan aurretik eindako ogiren baten masia...?

- Gordeta? Horrek basarrixan eitten zien, e? Han ez, han beti horrekin

eitten zan.

- Harek ya, orduan, modernuauak zian, ez?

- Modernuauak ez, hori danak panaderuak ingo zeбен.

- [...]

- Geuk be horixe itten giñuan ta. Basarrixan hamen eitten giñuanian be geuk be hara jua ta ekarri. Horixe itten giñuan geuk be. Baiña etxian be lagatzen zan...

- Ta ze... ogi desberdiñak zeren, ogi-klase diferentiak ala...?

- Han ez, han dana... antzerakuak eitten zittuen beti: zopakua ta holako... ta bolluak be eitten zittuen, baiña beste, beste klaserik ez.

- Ta zopakua ze ogi zan?

- Zopakua... ez dozu ikusi sekula?

- [Pipia] modukua, baiña [horrek], ez dakizu...

- [...]. Haura be ogixan masiak. Baiña hola ein ta gero ebaitzen zeбен ta gero, ba, "ra!" eskuakin zabaldu ta...

1.100. Gaztaina-batzea nola egiten zen

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-174/003
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Mendiko bilketak
- **Laburpena:** Gaztainak nola batzen zituzten: lurretik jasota; haga batekin zuhaitzetik botatzen zituzten. Zakuetan etxera eramaten zituzten. Gaztainak batzeko erabiltzen zen tresna. Kanpoan lagatzen ziren gaztainak, multzoan. Ganadu-jana.

Transkripzioa

- Orduan, esaten dozu, gaztaiña batu zelan batzen zenduen? Hagiakin bota...?

- Bai. Bueno, bai, hagiakin jo ta bota. Ta lurrera. Nik ez neban asko ikusi hori, baiña... Guk lurrian gehixena. Ta, ba, ni akordatzen naiz bastante gaztaiña batzen zana be bai. Batu ta zakuetan etxera ekarten dia, zaku haundittan.

- Eta batu gero zelan?

- A! Eitten da zer bat, gantxu bat eitten da, egur bat, gaztaiñako... berakin gaztaiñako egur bat, ba, zabaldu ta itxi berez eitten dana. Ta eskuan hartzen da ta "ri-ra!", muelle bat daukala emoten dau, baiña ez dauka ezebe.

- Eta izenik-edo bazekan horrek?

- E?

- Izenik bazekan?

- Ez dakit, ba, horrek izenik... Ez dakit, e!

- Bai, [ha] zer bat, buelta emoten jakon egur zuzen bati. E? Mehetu, ta hola, hola eitten eban beti, hartu ta "trak, trak, trak, trak".

- Eta esaten dozu gero gorde koskol ta guzti gordetzen zebela, ez?

- Bai, [koskola ta guzti], pillia ein hantxe, kanpua, e! Barruan ez zan lekuri egoten ta. Kanpotan egoten zien. Batzuk hobe zala esaten eben, ez

dakit.

- Orduan, negu guztian edo...

- Bai, negu guztian.

- ... kanpuan? Ba, zeozekin tapau...

- Bai, bai. Ta astixa euanian, ba, pilla bat apartau ta barrura ekarri ta hortaraxe. Gero txikixak apartau [gauza] ez dianak ta harek emoten jakuen ardixei edo behixei edo, hondarrak, gauza ez dianak. Eukitzen dabe. Ba, gaztaiñak eukitzen dittu bi edo hiru ale, ta gero aldamenian txiki-txikixak, azalak, eukitten dittu beste batzuk. Ta harek apartau ta ganauak jaten zittuen. Ta pillan sobratzen bazan be harek be ganauendako.

- Eta ganauei ze... behixei...?

- Behixei ta ardixei. Bueno, behixendako ez zan asko geratzen, baiña ardixak gustora jaten eben. Ta gero ardixak kanpuan be jaten eben geratutako hondarrak, basuan billatzen zittuen danak, ta batzuk errebentau be [eitten] eben, e! Lehelengotan. Lehelengo [jausten] hasten zianian ardixak... ta harek beti egoten dia kanpuan, ta orduan pixkat jaten edo zera ta batak baiño bestiak gehixao jatearren edo beinga!, "ra-ra-ra". Ta gero, gaztaiña asko jan ezkerro, ba, ase eitten jakuen itxuria, ta harek errebentau eitten eben "prat". Harek ardixak aprobetxatzen zian, e! Ez zian akabatzen hola golpe-golpera, baiña... Bai.

- Eta esaten dozu gero zakutan sartu...

- Zakutan sartu eta etxera ekarri.

- Eta etxera. Eta saltzeko be izaten zian, ez?

- Bai saltzeko izeten zian. Gurian, bueno, salduko zan hamen be baiña hor, hor [beheko etxian] ta asko saltzen eben gaztaiña. Asko, e!

- Eta ze... hemen Brgaran edo...?

- Bai, Bergaran. Erostailliak egongo zian orduan be, almalenistak egongo zian. Ta harek alia garbixa ta ona erosten eben, e! Bai. Gure amamak esaten eban Elgetatik be etorten ei zien andrak, ba, basarritarrak laga gaztaiña nahikua batutakuan, ba, laga. Beste lan batzuk ein bihar, garixak edo ta... Elgetatik andrak etorten zian azkenengo hondarrak batzera. Bai, hartu ta zakukada bat bizkarrian eruan ezkerro, ba, edarto!

- Eta, esaten dozu, oin sasoi honetan, gaztaiñiaz aparte, gero garua be...?

- Garua bai, garua. Ta artian igitaixakin ebaten zan garua, e! Igetaixa. Jakingo dozu zer dan, ezta?

- Bai, bai, bai.

. Ta "raka-raka-raka" danian. Ta gero, etxera ekarri bihar garua. Garua gauza inportantia zan!

- Bai, sasoi baten bai, ez? Eta hemen garo-sail haundixak zekazuezen edo... hemen inguruan?

- Bai, bai, bai. Garo-saillak eren mendi-gaiñetan onak, e! Ta terrenuak asko balio eben orduan.

1.101. Gaztainak etxerako eta kalean saltzeko

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-174/004
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:06:30. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

- **Laburpena:** Gaztainak zakuetan eramaten ziren etxera. Kalera ere eramaten ziren saltzera.

Transkripzioa

- Eta esaten dozu gero zakutan sartu...
 - Zakutan sartu eta etxera ekarri.
 - Eta etxera. Eta saltzeko be izaten zian, ez?
 - Bai saltzeko izeten zian. Gurian, bueno, salduko zan hamen be baiña hor, hor [beheko etxian] ta asko saltzen eben gaztaiña. Asko, e!
 - Eta ze... hemen Bergaran edo...?
 - Bai, Bergaran. Erostaillak egongo zian orduan be, almalenistak egongo zian. Ta harek alia garbixa ta ona erosten eben, e! Bai. Gure amamak esaten eban Elgetatik be etorten ei zien andrak, ba, basarritarrak laga gaztaiña nahikua batutakuan, ba, laga. Beste lan batzuk ein bihar, garixak edo ta... Elgetatik andrak etorten zian azkenengo hondarrak batzera. Bai, hartu ta zakukada bat bizkarrian eruan ezkeru, ba, edarto!

1.102. Garo-batzearen garrantzia

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-174/005
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:09:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 - Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Garo-batzea; igitaiairekin mozten zen ira. Garo-sail handiak zituzten inguruan. Pinudiak. Garoa zertarako erabiltzen zen: abereei azpiak egiteko; satsa egiteko... Satsa, lurrarentzat ongarri onena.

Transkripzioa

- Sasoi honetan, gaztaiñiaz aparte, gero garua be...?
 - Garua bai, garua. Ta artian igitaixakin ebaten zan garua, e! Igetaixa. Jakingo dozu zer dan, ezta?
 - Bai, bai, bai.
 . Ta "raka-raka-raka" danian. Ta gero etxera ekarri bihar garua. Garua gauza inportantia zan!
 - Bai, sasoi baten bai, ez? Eta hemen garo-sail haundixak zekazuezen edo... hemen inguruan?
 - Bai, bai, bai. Garo-saillak eren mendi-gaiñetan onak, e! Ta terrenuak asko balio eben orduan. Asko balio eben. Gaur, gaur gehixao, ezta, pezetetan, diru gehixao, baiña orduan euken balore bat basuak. Oin ez dauka. Gaur-gaur, piñudixa bota ezkeru, batek piñudi haundi bat, ba, erdixa inguru han geratzen da ha, ez dau [sartzerik] be nahi. Oingo gaztiak-eta ez dabe nahi hori.
 - Lan asko eta...
 - Ha etorten da... Bai, lan asko dauka, ta gero hogeta hamar urtera artian... Lehen, ba, diru pixkat hartzen zan apeiakin, papelerarako ta, baiña oin ez da hartzen dirurik be. Ta derrior kendu ein bihar dozu.
 - Hogeta hamar urte urte asko dia...

- Bai, hogeta hamar urte lehelengotik, ta berrogei hobe.
 - Eta garua batzera zelan juaten ziñazien edo?
 - Garua ebatera astixa euan denpora danian, beti.
 - Ze izaten zan, inportantia gero ganauari azpixon eitteko edo?
 - Bai, ta azpixon eitteko bakarrik ez zan inportantia, zan satsa biher izeten zan solotarako. E? Soluai bota ein bihar jakon! Orduan ez euan abonui. Ta ha botatzen zan soluai gaiñian, "ra-ra-ra-ra", zabaldu eitten zan gero. Gero satsa [ganauai] etara kanpora. Ha, fermentau eitten eban harek gero pillan; xehe-xehe eitten zan, gaiñera, txiki... apurtu. Gero soluan zabaldu gaiñian, abonua moduan, bardin.
 - Orduan, abono moduan satsa erabiltzen zan?
 - Bai, bai. Inportantzia haundiña abonutarako eukan harek, soluai botatzeko gaiñian. Oin, oin [gaiñera] ez jako soluai [botatzen]. Orduan danak, solo danak, bal-baltz geratzen zian botata. Dana, e! "rrrrrrr", ta, klaro, hori da negurako ta udarako ta, ba, noberak erropia jaztia moduan soluandako. Bai, abonua da; garua abonua zan.

1.103. Lurrarentzat gehien erabiltzen zuten ongarria satsa zen

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-174/006
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:09:30. **Bukatu**: 00:11:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Lurrarentzat ongarri onena, satsa. Karea ere erabiltzen zen. Karobiak inguruan. Gaztandola baserrian karea egin zuteneko kontuak.

Transkripzioa

- Abono moduan ze erabiltzen zenduen satsa ta karia be erabiltzen zan?
 - Bai, karia be erabiltzen zan, baiña gutxi karia, e! Karobixak hamen badare egondako lekuak. Baiña nere denpora ezker gutxi. Aurretik eitten eban karia. Ta karia botako zotsen, botatzen zotsenian, seguramente, gehixegi, batera gehixegi. [Gutxi hobe] eskatzen dau kariak. Orduan karabixa eitten eban batek, ba, bua! Botatzen eban solotan sendo ta lurra harrotzen eban gehixegi. Nik karia eitten ezautu dot hortxe, Gaztandolan. Basarri bat dao hor Goimendixan; Bergarakua da haura. Han bai. Harek be bota otsen karetan...! Karabixa ein eban, baiña buo! Gehixegi. Ya lau urtian, lau urtetik lau urtera-edo bota ezker aldiko... Oin be bai, falta [dauke], honek lurrok kare faltia dauke.
 - Hori zelan igartzen da?
 - Analisetik. [...] hortik lau urtetik lau urtera eskatzen dau, ba... Zuk... Nik analisa bialtzen badot zerera, eittera, zenbat kare bota bihar jakon, ba, esango dotsue. Ba, hainbeste tonelada hainbeste hektareai. Ta handik lau urtera beste hainbeste; aldiko gutxi. Honek danok falta dabe karia, lur honek danok.
 - Eta lehen, ez dakit, zeu gaztia ziñanian, analisisak-eta eitten zian?
 - Ez, artian ez zian eitten.

- Artian ez, ez?
 - Ez. Orduan, klaro, ez zan jakitzen...
 - Guk analisak lehelengo aldiz, ba, ointxe hogeta hamar bat urte edo ein giñuan. "Falta de cal y...", bai, berak esaten dittu danak, "Hay que echarle esto", baiña "falta de cal" badauke. Ta urak, berriro, sobre dauka karia honek uronek.
 - A, bai, e?
 - Bai. [Horri] eitten jako kostria, ta hori da pixkat karia, behintzat, pixkat. Dana ez da izengo, baiña...

1.104. Garoa igitaiarekin mozten zuten

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-174/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:13:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Garoaren garrantzia. Garo-sailak erosi egiten ziren. Garo-sail ona, paraje lauan egoten zen, mendi-gainetan. Zergatik mozten zen iria igitaiarekin. Noiz hasi ziren segarekin mozten.

Transkripzioa

- Eta, orduan, esaten dozu, garua inportantia. Hori, ez?...
 - Bai, bai, garua zan inportantia!
 - Ongarrixa ta...
 - Garua ez eukanak eta dirua eukanak garo-sail ona nun dauen jakitzen bazeben, erosi eitten eban, e! Urrin bada be bai, e! Ez jako ardura hemendik ixa [Ibarrondora] juanda be.
 - Orduan garo-sillak ez zian izaten hemen noberanak normalian, edo bai?
 - Bai, hamen...
 - Baiña erosi be eitten zian...?
 - Bai, baiña batek saltzeko ipini leike garo-sail bat, ezta?, dirua falta edo. Ta harek terrenuak dirua [eukitten eban]. Bai.
 - Eta ze ordaintzen zan? Asko?
 - E?
 - Asko ordaintzen zan ala...?
 - Bai, bai, orduko denporarako asko ordaintzen zan. Nik [ezin neike esan zenbat zer], baiña orduko denporarako garo-sailla zan gauza estimau bat. Segiakin ebai, ta gero burdixa kargatzeko lekuak be onak euki deixela. Lau samarra bazan ta... Garo-sailla ona, jeneralmente, paraje lauan egoten zan, mendi-gaiñetan, hor. Ekin Gallastegi Torretik hortik Elgetara bittarteko hori gaiñori be oso ona zan garua eitten.
 - Eta esan dozu lehen igitaxakin ...
 - E?
 - Igitaxakin mozten zebela...
 - Bai, igitaxakin.
 - Zegaittik igitaxakin ta ez segiakin?
 - E? Segiakin hasi zian, ba, segia etorri zanian, ta segan jentia ikasi

ebanian. Gure aittajaunak-eta segaik ez eban hartuko sekula be! Ta aittak bai. Ta guk igetaixa gutxi, garixa ebateko bakarrik. Garua, nik ezdot ebai garoik igetaixakin. Txarra parajia egonda be, ta batzeko nekeza egonda be beti segiakin. Eske igetaixakin ebaten dana... Zuk eitten dozu holan "rak" hartu ta "ra-ra", aspel bat eitten da, ta ha lagatzen dozu "danba!" zuzen-zuzen: kertenak alde batera, bestia bestera. Ta zuzen-zuzen, e! Gero beste [bat be botatzeko], hiru igual alkarren gaiñian. Ta harek, paraje txarra bazan, ba, burdixa kargatzeko lekura eruan ein bihar izeten zian. Karga bat ein ta... Segiakin ebaitakua, berriro, paraje ona, "raka-raka" batzen ta goittik behera bueltaka-bueltaka-bueltaka bide ondoraiño. Bai.

- Bai, hor egongo dia, ezta...

- Ikasi ein bihar dia horrek. Ta oin, ba, iñok be ez daki horrek. Ta igetaixa zer dan be ez daki. Etxe askotan igetairik be ez da egongo. Igetaixa badakizu ze dan, ezta?

- Bai, baiña ondiokan egongo da, ez?

- Bai, neuk be bi daukat hola formalak; bat erosi ein neban, [gaiñera], ointxe puntuan eukitzearren.

- Erabili, biharbada, asko ez...

- Bai, erabili be zeoze...

1.105. Gari-ebakitzeko igitaiak nolakoak ziren

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-174/008
- **Iraupena**: 0:02:50. **Hasi**: 00:13:30. **Bukatu**: 00:16:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak
- **Laburpena**: Gari-ebakitzeko igitaiak nolakoak ziren; hagindun igitaiak. Uberako errementaria. Pertsona bakoitzak garia mozteko teknika desberdina. Auzoan erabiltzen zuten esaera.

Transkripzioa

- Ta oin, ba, iñok be ez daki horrek. Ta igetaixa zer dan be ez daki. Etxe askotan igetairik be ez da egongo. Igetaixa badakizu ze dan, ezta?

- Bai, baiña ondiokan egongo da, ez?

- Bai, neuk be bi daukat hola formalak; bat erosi ein neban, [gaiñera], ointxe puntuan eukitzearren.

- Erabili, biharbada, asko ez...

- Bai, erabili be zeoze [ein bihar ta], sasi bat ebai edo, ez dakizu? Baso askotara fan be ezin leike ein ta. Oin, bazoiaz mendira ta igetaixa badaukazu, "rast! rast!" ebai ta pasau eitten zara. Igetaixak gastau ein dia. Gari-ebateko igetaixak, horrek hagindunak izeten zian, gaiñera.

- Ze izaten zian?

- Garixa ebateko igetaixak eukitzen eben hagiñak danian, "ra-ra-ra".

- A! Diferentiak zian?

- Bai, diferentiak zian. Harek Uberan be eitten zittun, Uberako errementarixak be eitten zittuan.

- Bai, e?

- Bai.

- Eta zelakuak zian, orduan? Hagiñak zekazen?

- Hagintxuak, txiki-txikixak, zerian, barruan, hojan. [Hau]... kutxilluak eukitzen dittu, ba?

- Bai, bai, bai.

- Iguala, bardaña. Holakotxe hagintxuekin, igetaixa. Hau guk esaten [dotsaun] oin daren igetaixak horrek dia, ba, kutxillo fijuak zeran moduan, sega-igetaixa [esaten...] horrek. Horrek ez dauka hagiñik, baiña bestiak ez dia sega-igetaixak, bestiak dia garixa ebateko igetaixak.

- Eta espezialmente, osea, garixa ebatekuak?

- Bai, bai garixa ebateko eindra espezialmente.

- Eta zegaittik edo? Hobeto ebaten zan halan garixa?

- Bai, heldu eitten dotse ta. Bestiak laban eitten dau pixkat motza badau edo, ta [harek] garixa ebateko. Harek holan izaten dia, arku eukitzen dabe. Ta kertenakin. Guk Uberako zeran ez giñuzen erabiltten, Uberako errementarixanak, baiña horrek fama haundixa euen. Horrek ferixetara fan ta, ba, berakin ohittutakuak. Pixkat, hola, igetaixa igesixa ipintten eban, gaiñera, zabaltxuaua muturra ta. Ta, klaro, askok garixa, ba, eskutakada haundixa edo hartzeakuak edo ikasittakuak harekin gehixao ebaten eban. Gorautik be bai, e! Garixa batzuk nahi izeten eben behetik ebatia etxe batzutan; beste batzuk goratxuaotik.

- Hor etxe bakoitzak, orduan, beran...

- Bai, ez, persona bakotxak jeneralmente. Bai. [...] garixa, gerrikomiñakin dauenak, ba, ezin leike behetik makurtuta ibili ta harek, halakuak, pixkat goratxuaotik. Hamen Elgetan, ba, etxe baten hamen bestekuak faten zian gari ebatera ta horko gizonak, ba, goratxuaotik ebaten eban pixkat. Goratxuaotik ebaten dabenak harek bere ohitturia eruaten dau beti. Bai, hasiko da behetik ebaten, baiña hamar miñutu barru jarriko da bere martxan. Elgetan [hori] esan otsan horri mutillorri: "Zuen zaharra pasatzen dan lekuan gari-ebaten hurrengo egunian, behintzat, behixak ondo jatxitta bialdu bihar". Badakizu ze esan nahi daben horrek? Behixei errapiak behera fan ezkerro garixa ebaittako lekuan urratu eingo dabela.

1.106. Garoarekin zugatzak egiten zituzten

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-174/009
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:16:20. **Bukatu**: 00:18:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Aranzabal Etxaniz, Aitor
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Garoa ere hagindun igitaiarekin mozten zen. Igitai bakoitza zertarako erabiltzen zen. Garoa gurdian kargatu eta etxera ekartzen zen. Ondoren pilatu eta kanpoan zugatzak egiten ziren, metak. Garo-metak nola egiten ziren.

Transkripzioa

- Orduan, garua ebateko igitai e...

- Hagindunakin ebaten zan jeneralmente garua be, harek heldu eitten dau, gogor heltzen dau ta, tirakada hobia, bestiak ba, labandu leike pixkat [moztxuau] euki ezkerro hagiñik bakua, ta arku txikitxuaua eta igitai

kuriosoagua, txikitxuauak izaten dira. Harek izaten dira arbixa txikitzeko, erremolatxia txikitzeko, etxian, barruan, ganauandako, hartu ta, tras-tras-tras... hortarakoxe dia horrek.

- Ta gero garua zelan jeisten ziñuen? Burdixakin, burdixa kargau...

- Bai, ekarri etxera ta pillau, eitten zian, ba barruan lekuri ez zan egoten asko be, kanpuan eitten zian zugatzak... zugatza badakizu ze dan? Bedar metak, ikusiko ziñuan, ba horretxek zugatzak, garuakin be eitten zian e, ondo eiñ ezker, han ez zan... urte bixan be ez da [mozten], ondo eiñ bihar, puntia rraa! Hartu behetik hola, puntia zorrotza eukitten bazan...

- Eta zelan eitten zian ba garo metak?

- Ba, jarri bat gaiñian ta beste batek bota gaiñera, bat gaiñian egoten zan, sartzen zan egur bat erdixan, honen moduan, bat bakarra, bueltan-bueltan, lehenengo zabal hartzen zan ondua, ta gero gora orduko, ba estu-estu-estu-estu, puntan ipini ezker, zeozer, e, punta-punta-puntan ta ipinten ez bajakon be, oiñ badare plastikuak eta zerak baiña orduan ez zeuan ezebe, oiñ, e, danak gastau dia horrek!

- Eta puntan zeoze ipintzen jakon, e?

- Bai, zeoze ipintzen jakon batzutan, puntan-puntan, zeozer, ez dakit, edozer gauza, zaku zahar bat ez bada be, baina ez baeuan be, batzuk eitten eben, ba, ifiñi garua hola, kertenakin gora begira, ta lotu han pixkat, ta gero ba, harek botatzen eban dana kanpora.

- Eta hor esan dozun makilla horri zelan esaten jakon, ardatza edo zelan?

- Ba, ardatza... bai, ardatza. Hori, zulo bat eitten zan lurrian ta gogor sartzen zan, ta han egoten zan ha, baiña, bedarrandako be bai, oiñ bedar-ardatzik ez da eitten, oiñ eitten dia pelotak eta fuera. Nik ez dot ikusi fan dan urtietan, bape.

- Gero eta gehitxuau ikusten dia...

- je...

- Orduan garuakin be eitten zan...

- Bai, bai, garuakin eitten zian, asko gaiñera, basuan be, bertan be bai igual. Gero ekarri, geruau ekarri.

- A, gero bihar ala, [kubiertia] kendu eta...

- Bai, bai.

1.107. Oiloak lokatzen direneko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-174/012
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:23:40. **Bukatu:** 00:25:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Aranzabal Etxaniz, Aitor
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Oiloak lokatzen direneko kontuak. Oilo-txabolak basoan.

Transkripzioa

- Eta oillolokiana eta guzti hori e...

- Bai, lokatzen zanian oillua, lokatuta egoten da, oillolokia esaten jako. Ba harek arrautzak eitten dittuanian lokatu eitten da noizbaitten, ta badaukaz 12 arrautza edo hogeigai! Ta harek etaraten dittu txitak. Han edo beste oillolokan bat billau ta hara fan. Txitak etaratzen dittu... Txitia be gogorra

izaten da e, txikittan.

- Bai, e?

- Bai, ez da egun bategaittik ta bigaittik akabatzen, harek amiak handik pixkat haundi eindakuan ekarri eitten ditu, ekarri, jana dauan lekuan, txabolara edo...

- Delikaua emoten dau ba...

- Bai, baiña ez, basuan jaiotako txitak gogorruak dia, gaiñera.

- Bai, seguro.

- Bai.

- Orduan aldaketa handixa emon da, ez, oilluak hazteko moduan?

- Bai, bai, oilluak e, basotan... txabolak eindra basuan apropos eukitzeko. Danok, batzuk oholezkua, beste batzuk bestia... ez asko balio dabenak, e! Gero danak be halaxe kendu zian! Oillo txabolak. Ta ez zan galtzen oilloik! Oilloik e... Gurian egon zan hamen gerria egon zanian, ba, hamen etxian zerak egon zian, milizianuak egon zian. Txabolan geratu zan oillo bat, hantxe, hortxe dau, bueltia baiño harutzatxuau, zuk bueltia hartzen dozu ba... harutzatxuauan. Ha oilluak denbora dana, hantxe bakar-bakarrik pasau eban. Hantxe txabolan, ta hegan eitten eban, bo! Salbaje bihurtu zan! Fiuuu! Bestekalderaiño. Ta hari, nik ez baiña gurian ipini otsen izena txikixak, nere anaiak eta, "miliziana" ipini otsen izena, je. Bakar-bakarrik txabolan egon zan oillua, han mantendu zan negu dana, kanpua billau eban harek beretako. Ta ez hola makala e! Hegatzara haundixa eitten eban, pruuuu!, txorixen moduan ixa. Iñor ez eban ikusten, lagunik be ez eukan...

1.108. Udazkena, urte-sasoi gogorra

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Oruesagasti, Evaristo; Mugerza Arregi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-176/003
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:03:35. **Bukatu**: 00:04:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena**: Baserriko bizimodua asko aldatu da. Udazkena urte-sasoi gogorra izaten zen: garoa, gaztainak batu; garia erein... Mugarte estuak eta lurreta egin behar. Baserriko tresnak. Lurrearekin lotutako esaldi indartsua.

Transkripzioa

- Urte saso´ honetan gaztaiñak batu, garue ekarri...

- Garixek eraittia... Udazkena lan askokua.

- Sagarra...

- Sagarra [be] bai, baiña garotan, ta gari eraittia. Ta honek nola dien aldapak eta muga-arte estuak, guk atxurrakin sopizartu eitten geiñuzen bedarrak batzuk. Harek batu pilletara ta gero burdiñariakin erein. Goldiak botu ta lurra bajatzen zan ta...

- Zikiña otarriakin kendu...

- Zikiña otarriakin ein, ta lan asko udazkenian´e. Gero artorako, ba, pagatxia egoten zan, eta haura burdiñariakin ezin urratu ta goldatu. Lurra behera bajatzen zan, ta ez giñuan nahi izaten, baiña... Ta orduan lurretan.

Artua eraitteko, ya lurretan negurik gehixena eitten giñuan. Lurrin ez da egongo lur asko nik bizkarrian ibili baekoik.

1.109. Urria, hilabete sakratua

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Oruesagasti, Evaristo; Mugerza Arregi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-176/004
- **Iraupena**: 0:04:17. **Hasi**: 00:04:43. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Domu Santu edo Santu Guztien Eguna
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: Urria eta azaroa hilabete sakratuak. Domu Santua. Mezak. Argizaiola. Iluntzean, arto-zuriketa eta arrosarioa. Arimen eguneko meza. Arimen afaria. Meza nagusia.

Transkripzioa

- Urrixa, hille hau, hille sagraua edo zan, ez?
- Bai.
- Beti edo Domu Santuko domekia ta errosarixuak eta...
- Bai, errosarixuek eta... Buf!
- Elizara ´re jun biher izeten zan orduan.
- Ta hau barrixo [...]
- Animen mezak eta orduan ez dia izaten?
- Domu Santu egunian tia batek laguntzen zoskun hamen amaik ez zaolako. Nik dana ezin ein. Eta Osintxun elizan egoten zan manto beltz bat. Urte haretan hildakuentzako behintzat [mantuan] egon bihar izaten zan. Bere sillan, tapa-tapa einda jantzitta, mantilla ta danekin. Goizian hamarretako mezie izeten zan, meza nausixe, kandelak-eta ipinitte. Argizaixe ´re, [argizola] --hor tablie ikusitta egongo zera zu oin, beste gaztiek ez dakixe, baiña-- ta han lotute ipinitte. Eta haura. Gero haura hamaikak aldien gastako zan zea, goizeko meza haure eta etxea gero. Ta, ba, atsaldien hiru t ´erditan edo eliz-funziñua. Ta atzea hara, eliza ´, Argizai harek, argizola harek eta kandelak, beste bi kandela, zeretan ipinitte...
- Kanderotan.
- Kanderotan. Eta han atsaldian apaizak eitten zun funtziñua eittia. Eta gero handik etorri illuntzixen eta arto-zuritzie, errosarixue, ta etxien. Ta, gaiñera, errosarixue, ba, zaharrenak edo askotan erreza ber, baiñe zaharrak ez bazeon, ba, etxe honetan...
- Hau ibiltzen zan.
- ... bestiek erreza ber, baiñe famelixa danandako. Altu-altutik.
- Gu gaztiok, berriz, errosarixua ganau...
- Arta-zuritziek eta ganauen gobernuak eta ein, hurrengo goizien esniekin Osintxura.
- Kalera fan bihar. Emakumian lana ez zan edarra orduan!
- Eta, gero, esniek eramanez, beatzitan animen mezia. Aurretiken ez dakit Osintxun egoten zan, Osintxu ez da halako eliz-leku haundixe izen ta...
- Lehen bai, oin gitxitxu...

- Lehen-lehen bai, baiñe... Eta beatzitan meza nausire esniekin ta gauzekin. Eta orduentxe akabatzen zan Domu Santutako zera. Gero, handiken hamabost egunera edo hogeta bire edo noiz izeten zan? Berriz animen onrak edo ziela, ta beste holako zeoze, baiñe orduen gizonezkuek azak eta ze jaten ziñuzten? Guretik ez da asko izen han, baiñe tabernan...

- Hori animen apaixa...

- Apaixe edo...

- Bai, azie izeten zan...

- Azie ta ez dakit zertzuk jaten zien.

- Bijilixie...

- Baiña animen hor. Baiñe errosarixue-ta erreza ber... Onbre! Eta oktubre-nobienbre hauek...

- Egunero-egunero...

- Gure amandria errezatzen. Gu haura... [umiekin geldittu giñen], ta hamabost bat misterixo errezatzen [ixkun]. Luzie! Ez zan bela akabatzen! Ta beste erremedioik ez zeuen... segi ein bihar orduan.

- Eta umetan aspertu eingo ziñazien, ez?

- Halaxe zala ta kitto!

- Errezatzen [...], baiña...

- Aspertu, baiña...

- Baten baten ihes eitterik edo eukitzen zenduen?

- Bai. Mezetara ´re bialtzen giñuzen... Goizian seiretan egoten zan bat Osintxun. Ta bidia, badakizu, txarra: ganauek, burdixa, bide estue zan. Esnetan ´e hala ibiltzen zian. Ta lastua hartu ta goizian mezetara. Gero hamarretan egoten zan bestia meza nausixa, ta gero batzuk hara juteko, goizien izeten zienak etorri bihar izeten eben etxera. Orduan etxia zainttu edo ez daki nik ze... Oin bakarrik lagata ibiltzen gara, baiña orduan behintzet ez zan... Gero umen bat edo beti. Zaharren bat edo umen bat beti egongo zan.

- Eta meza nausira...

- Aitte edo helduauek. Gu, gaztiok, gero etorri ta ganajatekuak eitten jai goizia izan arren. Gero illuntzien eitten bagiñuan...

- [...] aste egunien be [halatsu] eitten zan ta... [...] eitten zaniene, ba, jai haure, baiñe ein barik ez, e!

1.110. Emakumearen bizimodua baserrian

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Oruesagasti, Evaristo; Mugerza Arregi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-180/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:01:05. **Bukatu**: 00:02:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
 Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena**: Baserri askotan ur korronterik ez zegoen eta iturritik ekarri behar izaten zen ura. Emakumeen lana baserrian zein izaten zen. Gizonezkoek ez zuten askorik laguntzen umeekin.

Transkripzioa

-Ura leku askotan ez zaukazun etxian, ekarri in bihar ziñuan. Guk hor

kanpotik hona ekartia bezela nere jaixotetxian zati baten egon zan; gero ez. Nik hala ezautu nun. Ta haura haraiño ur haura ekarri zeбен, bestela beste erreka batetik hartu bihako zeбен, baiña noizbaitten. Haura hara ekarri emen zeбен, ta harek agure zahar harek esaten emen zuen andrak alpertu eitten ziela ta barrura edo hara ezetz.

-Haren andren zera, e!

-Dana holakotxia zan eta. Geu be terkotu eitten gara edade batea ezkerro. Geuk ataatako haura hauxe da ona.

-Lehengo basarrixa andrentzat txarra izen be zan, e. Bueno, oingua be bai, baiña oin diperentia da, baiña lehenguan aldian oin ona, e.

-Gizonezkuak laguntzen zetsen andreri?

-Andrak etxeko lanak danak in bihar izeten zittuen, ta erak kanpuan lagundu biher.

-Umiekin eta egoten zien gizonezkuak?

-Ez! Aittitte ta amama gauza ez zienak. Umezaintzia harei.

-Harei umiak hola pixkat zaintzia izaten zan, baiña...

-Umien aitta?

-Ez-ez-ez! Umiak ekarri bakarrik!

-Bai , ta lana zeñek?

1.111. Baserriaren historia eta bilakerari buruzko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Lonbide Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-191/002
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:00:35. **Bukatu**: 00:02:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: 1929an jaiotakoa. Bi bizitzako etxea da. Garai batean errentero izandakoak dira, baina Juane ezkondu orduko, aitik baserria erosi zuen. Baserria noiz berriztu zen. Etxe-jabearen inguruko ipuinak.

Transkripzioa

- Orduan, zu noiz jaixotakua zara?

- Neu? "El veintinueve".

- "Veintinueve". Eta basarrixa beti ezautu dozu holan?

- Nik bai.

- Beti holan?

- Bai.

- Aittana zan, berez, basarrixa, edo...?

- Bai, ni jaio orduko bai. Basarrixa aittana zan. Aurretik errenteruak izandakuak, baiña ni jaiotzerako ya erositta euken basarrixa.

- Eta bi etxebizitzakua da, ez?

- Bai, baiña bixak batera erosi [ei eben]. Ta hori hortikaldekuoi, uezaba batenak hirurak, eta hirurak batera saldu ei zittuen.

- Lehen asko estilatzten zan, ez? Basarrixak --edo askotan entzuten da-- errenteruak zian edo...?

- Bai, errenteruak lehen hamen gehixen danak errenteruak.

- Zer zan? Ba, halako Bergarako jauntxoren batek edo hemen inguruko basarri pillla bat eukiko zittuan eta...

- Gure auzokua ez zuan horren jabia?

- E?

- Horren jabia gure auzokua...?

- Garitano Elorrixokua, [Antoliñekua].

- A! Harek dirua ipini.

- Bai, [...], baiña uezaba hamentxe Angiozarkua.

- Angiozarkua?

- [Han ipintzen dau]...

- Han leidu zenduan, ba?

- Bai, bai...

- Hori izatez Angiozarkua.

- Hori da. Gero, jua zan mendian, oin dala ehun bat urte edo barriztu ein zebe, ez?

- Bai.

- Bueno! "En el dieciocho. Ochocientos..."...

- "El ochocientos dieciséis" dao barriztauta hori.

- [Ta arkuak ein zian, baiña...]

- Bai. [Baiña hori zan] Angiozarko batena. Ta gero, bi anai ei zian ta bata Amerikara fan ei zan. Ta Amerikatik etorri ta hor abogaun bat hartu ta beste anaiai tranpia ein ta etxe danak berak saldu ta beria, [bizi izateko] anaiena be, ez dakit, zeoze pagau erain edo zela be. Baiña diruak hartu ta Amerikara atzera. Anai batak bestiei tranpia ein ta...

1.112. Etxejabeari errentaren ordainketa noiz egiten zitzaion

- **Hizlaria(k):** Lonbide Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-191/004
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Etxejabeari errenta garitan ordaintzen zitzaion. Artoa; oilaskoak; kapoiak... Gabon inguruan egiten zen ordainketa.

Transkripzioa

- Eta zuk entzunda, errenteruak-eta --aintziña, e! gurasuen edo aittajunan sasoian-- jabiari, etxe-jabiari errentia garittan-eta pagatzen jakola?

- Bai. Honenbeste gari ta artua ta... Bai. Ta gero kapoiak be bai batzuk, edo oillasko edo... Hola izaten ei zan.

- Hori ze izaten zan, gabon inguruan edo?

- Bai, gabonetan izaten ei zan...

- [...] geure akorduan ondio [Oreikuak]...

- Bai! Baitta zera be bai [...], Aretxabaletako zera. Izena zela eukan be... "Koipe" esaten jotsenen.

- [...]

- Bai, horrek batzuk --danak ez eben eukiko, baiña batzuk-- askok, garixa, honenbeste gari, ta artua, ta gero gabonetan kapoiak eta hola. Gero igual, ba, horrek, gari-ereittiak eta asko gastau ein zian, ta gero, ba, dirutan izango zan.

- Ta garixa-ta ze izaten zan, hainbeste anega eta...?

- Bai. Etxe batzuk gehixao, zelako basarrixa dan. Beste batzuk gutxiao.

1.113. Bizimodua asko aldatu da

- **Hizlaria(k):** Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-193/004
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:01:28. **Bukatu:** 00:02:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Bizimodua asko aldatu da. Berrikuntzak: telefonoa.

Transkripzioa

- Ta zelan gogoratzen dozu basarriko bizimodua umetan-eta?
- Umetan-eta hementxe, jaixa ta astia ta zapatua ta domekia danak hementxe umetan.
- Lehengunian komentatzen genduan, asko aldatu da dana bizimodua?
- Bai, bai, bai. Oin, atzo jardun eban zeren geiñian, hau, eskuko telefonuen geiñian. Eskoletan prohibidu ein bihar dittuela lekun batzuetan edo, zazpi-zortzi urtekuak eta seikuak be telefonuekin faten diala-ta jardun eben esaten.
- Eta zeuek zazpi-zortzi urtekin etxian telefonorik be ez, ez?
- Ez, zazpi-zortzi urtekin? Hirurogeikin be ez! Ez. Ondio hamasei urte ez dakaz telefonuak hemen.
- Asko aldatu dia gauzak, ez?
- Bai, bai.

1.114. Baserriaren historia

- **Hizlaria(k):** Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-193/009
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:13:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Baserriaren historia. Aitita bertakoa baina gazterik hil zen eta Tomasek ez zuen ezagutu.

Transkripzioa

- Hemen, basarrixan historixia-edo badakizu? Hemen zeure aurrekuak egon izan dia beti?
- Bai.
- Aittan partetik?
- Aittan partetik, bai. Nik aittitta hemengua ez neban ezautu. Haura, itxuria, gure aitta-ta gaztiak zian arte hil zan. Bai. Ta gero, hemengo amandria... Egon. Hemengo amandria? Bai, hemengo amandria gero ezkondu zan bestekuakin. Ta ha bestekua be denpora askora barik hil zan, itxuria. Igual, ez dakit nik, sei urtian edo zortzixan biziko zan, baiña...

1.115. Baserriaren historia

- **Hizlaria(k):** Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-193/010
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:13:33. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Baserriaren historia. Errenteroak eta etxejabeak. Inguruko baserriak; toponimia. Baserriaren errenta garitan ordaintzen zen; batzuetan kapoiak ere eman behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta hemen inguruan entzunda dakazu, ba, hemengo basarrixak errenteruak edo basarri, halan, jaberik bazeken?
- Danak ez. Errenteruak zian Olakortakua be bai, Kosteikua be bai. Kosteia. Hau, Agirrebeñan etxia Kosteia zan.
- Ze egoten zian gehixao etxe-jabiak ala...?
- Ez, ez, ez. Eurak, eurak beti.
- ...ala errenteruak?
- Errenterua, errenterua; etxe-jaberik sekula be ez! Errenteruak. Errentia pagau ta berana eban errenteruak etxia.
- Eta zein zan jabia? Bergarakoren bat edo?
- Ez, ez dakit nungua zan, Etxezarretan esaten otsen. Etxezarretan basuak ta etxiak esaten eban hor. Etxe bi zian ta... Ez dakit nungua izango zan ha uezaba.
- Ta uazaba ze izaten zan, berak zekazen terrenua ta basarri asko ta...
- Hor basarri bi ekazen ta terrenuak haundixak ekazen. Oin Oñatiko batek dakaz horrek erositta.
- Eta zuk entzunda dakazu jabiari edo uazabari, ba, lehen, antziña, errentia garittan-ea pagatzen jakola?
- Bai, garixak eta kapoiak.
- Hemen inguruan be halan zan orduan?
- Horrek ez dakit zerekin pagatzen eben. Horrek ez dakit. Horrek dirutan pagauko eben segurua, baiña hemen Azurtzakuak bertan beste bizitzakua ekan uezaba, ta harek, ba, garixa. Ta lehen, gero, garixa entregau ein bihar izaten zan gose-urtietan, ta gero, eitten eben, itxuria, erdixa garixa ta beste erdixa dirua.
- Eta hori ze izaten zan, pagua gabonetan eitten zan?
- Gabonetan, bai.
- Eta kapoiak be bai?
- Kapoiak be bai. Oin ez da kapoirik-eta usatzen. Bueno, egoten dia saltzen-ta ferixalekuan, baiña lehen, esaten eben errenteruak kapoiak erosi bihar izaten zittuala uezabari pagatzeko.
- Erosi edo berak...?
- Berak hazi etxian, batzuk hazten zittuen itxuria, baiña beste batzuk erosi. Bai. Ba, ostian, errenteruak horretxek: Olakortakua ta Kosteikua, ta hantxe goixan Azurtzakua. Bestiak hemen, nire akorduan, bakotzak beriak ekezen hemen etxiak.
- Badare auzo batzuk hemen Bergaran, ez? Auzo batzuetan basarri asko...
- Bai, errenteruak gehixao. Bai, hala esaten dabe, behintzat.
- Orduan aldia egongo zan etxe-jabia izan edo errenterua...

- Bai, aldia egongo zan.
- Beti eukiko zeban inportanzia, ba, garixa-ta gordetzia, baiña pagau bihar danian, gaiñera...
- Horixe ba. Bai. Ta etxerako nahikua hartu ez. Urtia pasatzeko, ta artian pagau ein bihar harekin, ba...

1.116. Gariaren garrantzia

- **Hizlaria(k):** Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-193/011
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:16:20. **Bukatu:** 00:17:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Gariaren garrantzia; urte guztirako ogia... Baserrian zer jaten zuten.

Transkripzioa

- Garixa inportantia zan orduan, ez?
- Bai. Lehen dana, garixa ta artua ta... Besterik ez zeuan ta!
- Eta ogixa, ez? Ze urte guztirako ogixa...
- Urte guztirako ogixa, bai. Babia ta dana.
- Anaia: Gaztaiña be bai, ez dok?
- Bai, gaztaiña bai.
- Baitta. Orduan basarrizan ze jaten zenduen?
- Babia urtian gehixen. Bazkaittan babia. Ta afaittan, ba, patatia edo porrua edo... Hurrengo berakatz-saldia ta... Euana.
- Gaztaiña-sasoian be gaztaiña...
- Bai, gaztaiña-sasoian gaztaiña. Bai.
- Gaztaiña-batzia, gaiñera, oin sasoi honetan izaten zan edo...?
- Bai. Domu Santuetatik eta atzera gaztaiña-batzia jeneralian izaten zan.

1.117. Baserriko abereak

- **Hizlaria(k):** Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-193/013
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:21:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Baserrian abereak izan dituzte beti. Behiak, idiak, txerriak.

Transkripzioa

- Zeuek hemen ardixak euki dozuez?
- Oin bai, lehenao ez.

- Lehenao ez?
 - Lehenao ez. Ez. Hemen bestekuan-ta bai, ta Lezetan-ta bai, baiña gurian lehen ez zan ardirik egoten.
 - Baiña ganaua bai?
 - Ganauak bai.
 - Zer ziran, behixak eta...?
 - Bai, behixak eta idixak. Ta [bestela] txahalak.
 - Txarririk-eta?
 - Txarrixa bai. Urtian bat etxian jateko. Ha izaten zan urterako gorabeheriori.
 - Bai, inportantia txarrixa be...
 - Bai, bai. Jaixan edo, garbanzua ta okeliakin egosi ta... Ostian...
 - Esan dozu, behixak eta... Oillorik?
 - Oilluak bai. Beste asto bat be bai kalera fateko.

1.118. Elosun jaiotakoak

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Garbizu, Jesus; Larrañaga Igartua, Bitori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-200/001
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Egileor baserrian jaiotakoa 1931-01-06an. Bitori, 1932-03-06an, auzo bereko Narbaiza baserrian.

Transkripzioa

- J: Ta erregen egunien.
 - Erregen egunian, e?
 - J: Bai, bai., erregen egunekua.
 - Oseake, egun espeziala, ez?
 - J: Bai, bai, bai, bai, egun... Hori esaten zebe lehen, esaten ze... erregiek ekarri nindduela esaten zebe zerak eta...
 - Bai, e?
 - J: Bai, gurasuak hala esaten zebe behintzet, harek ekarrittakua nitzala ni. Baiño gero, gero hasi nitzen konturatzen pixkat, baiña ez segittuen, e! Ene! Trankil bizi giñen ta... Tontuek ez giñen baiña ezjakiñek bai, ta gero konturatu nitzen beste zerbait ete zeuan hor. Baiña behin burura etorri jatan hori... asunto hori etorri jatanian handi aurrera nahiko buru-kantsaziño euki nuen, e! Harik eta erabaki artien zela izen zeikien hori. Baiña bai, behintzat erabaki nuen noizpaitten, baiña ez nintzen atrebitzen ez gurasoei ta ez anai-arrebei esaten . “Hori ez dok, ba, hola izengo”, baiña... Behintzat, azkenean, neuk erabaki nuen bazala erregieandik fuerakua zeozer bazeola erregieandik kanporakua, bai. Bazan, bai.
 - Eta zu, Bitori, noiz eta nun jaixotakua zara?
 - B: Ni be Elusun. Elusun, martxuan seixen, hogeta hamabixen.
 - Oseake, urtebeteko aldia dakazue...
 - B: Urtebete gaztiao.
 - Eta basarrixak be gertuan dare zeuenak?
 - B: Bai, ni Narbaiza basarrixen.
 - J: Bai, bai, basarrixek gertuan dare. Alkarren gertuen, bastante gertuen

alkartu giñen.

- Orduan, ume-umetatik ezautuko ziñazien...

- B: Onbre! Hoixe!

- J: Bai, bai, bai... Eskolan alkarrekin ibili giñen ta nik uste dot handitxik hasi giñela gu alkarrekin ta gaur arte.

- A, bai, e? Eta bizimodua, umetako bizimodua zelakua zan orduan? Eskolara ta juaten ziñazien beti ala...?

- B: Ke, ba!

- Basarrixan lanik ez zeuanian ala noiz izaten zan hori?

- J: Nik sei bat hillebete ein nittuan eskolan. Eskolan formal antzien ein nittunak sei bat hillebete. Aurretik ez giñuan guk eskolaik ikesi. Dotriñiakin nahikua lan euki giñuan ta... kitto! Haura... handik aurrera eskolarik [...].

1.119. Eskola zaharra

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Garbizu, Jesus; Larrañaga Igartua, Bitori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-200/002
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:02:30. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Umetako bizimodua. Eskola zaharra. Maistra.

Transkripzioa

- J: Alkarren gertuen, bastante gertuen alkartu giñen.

- Orduan, ume-umetatik ezautuko ziñazien...

- B: Onbre! Hoixe!

- J: Bai, bai, bai... Eskolan alkarrekin ibili giñen ta nik uste dot handitxi hasi giñela gu alkarrekin ta gaur arte.

- A, bai, e? Eta bizimodua, umetako bizimodua zelakua zan orduan? Eskolara ta juaten ziñazien beti ala...?

- B: Ke, ba!

- Basarrixan lanik ez zeuanian ala noiz izaten zan hori?

- J: Bai, nik... nik sei bat hillebete ein nittuen eskolan. Eskolan formal antzien ein nittunak sei bat hillebete. Aurretik ez giñuan guk eskolaik ikesi. Dotriñiakin nahikua lan euki giñuan ta... kitto! Haura... handik aurrera eskolaik [ez...]. Lehenguan esan [nizun] han Bergaratik jun ziela bi... bi maestra ta haretzek erakustittako apurrakin oinddio hola bizi gaittun. Oinddio hola bizi gaittun.

- Orduan eskola zaharra ta zeuek ezautu zenduen...

- J: Bai, ondo! Han dao oinddio Elusun eskola zaharra.

- B: Sakape zulo bat.

- J: [Kobraixotako] ganbara zahar baten egoten giñen, baiña...

- Bai?

- J: Bai. Ez zan leku haundiik, baiña bueno... Hala ere zeozer ikisi bagiñu, baiña ez, ez zeuen, gaiñera... maestro zeona ´re adiñien aurrera zoian ta... Larogetaka urte ta allegauta geratu zan bera be ta ez, handik ez zeuen ezer ikesterik. Gero honek erun zittuenien haretzek mobidu zeбен eskolia hamen ta gero, ba, kanpora. Horrek alde ein zeбенien batera-bestera hasi

zan hor bertako jende gaztia ´re, batzuk Bergarara, beste batzuk Zumarragara, beste batzuk Azkoittira ta... norabait mobidu. Ez zeuen hor.

- Orduan zeuen edadeko ume asko zeren Elosun?

- B: Bai! Ordun jende asko juntatzen giñen! Ordun asko juntatzen giñen!

- J: Gero egon zan beste maestra bat. Zela zan haura? Gu ez giñen ibili, gu alde eindra ordurako, baiña...

- B: Bai, Madalena edo...

- J: Madalena edo, bai. Ha oso emakume ona izan bihar zuen; ona izan bihar zuen harek.

- B: Bai, baiña haura bastante gero, e!

- Bai?

- J: Bai, oindio ´re, behintzet, harekin batera ibilittakuek eta eitten dittue bazkaixak alaçkarrekin ta bai. Ondoezak... ondoezak eitten jakon uste dot.

- B: Bai, nahiezak uste dot eitten jakola.

- J: Mareon batzuk eta eitten jakon ta... Oso... Baiña beste basarri baten egoten zan ta... Alde ein zuen, alde ein zuen, baiña haren eskola lagunek asko akordatzen die oindio harekin. Haura emakume kuriosia izen bihar zuan.

- B: [...] gure eskolako denboran lana baldin bazeon, bateko ittulua ta hurrengo ganau zaitzia ta... eskoliai errez lagatzen jakon, e! Oso-oso errez laga.

- Bai, ezta? Orduan, gaiñera, gurasuak biharbada be ez zeuben problema larrei ipiniko, ez?

- Ez, ez, ez, ez. Harek nahixao zeuben eskolara bialtzia baiño etxeko... edo ganauek zainttu edo nunbaitten ardi-zaintzie edo etxien han, etxe inguruen bertan. Ez zan orduen, eskoliai ez jakon orduen inportantziik emoten. Han ez behintzet!

- Ez, han eta inguru guztian be ez, ez?

- B: Bueno, han ez behintzet.

- Orduan basarriko bizimodua, ba...

- B: Bai, basarrikua halaxe zan ta...

- J: Bai, bai.

1.120. Arrasate asko aldatu da; desagertutako baserriak

- **Hizlaria(k)**: Altuna Egidazu, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-207/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:03:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Ama Arrue baserrikoa; bi bizitzako baserria zen. Ingurua nolakoa zen (gaur Eroski dagoen tokian). Arrasate asko aldatu da; asko hazi da. Garai batean 3 lantegi nagusi egon ziren: Zerrajera, Elma eta Arrue-San Martin.

Transkripzioa

- Ama esan zenduan, gaiñera, ze basarrikua zan edo nungua zan?

- Arrue, Arrue basarrikue. Oin Eroski dauen lekuen zauen bi bizitzako basarri bat.

- Oin Arrasateko sarreran, superfizie haundi horretan...

- Bai, bai, Eroski zera supermerkadue dauen lekuen zeuen.

- Eta etxebizitza bi zian...

- Bi etxebizitzakue, bai.

- Eta zelakua zan inguru haura? Zuk ezautu zenduan...

- Ingurue dana soruek. Ta leu-leue zan. Leuteda hori, Eroski dauen leuteda hori.

- Bai, ikusten da, gaiñera, lautadia.

- Bai, bai, Ta bueltan errekie. Bai.

- Eta dana soluak, ez?

- Han soluek.

- Arrasate asko aldatu da?

- Guztiz. Bueno! Gure ume-denporan Arrasaten ze lau... bost milla lagun edo zien. Ta zeuen, ba, lehengo... oin parte zaharra esaten jakona. Bai.

- Gero fabrika aldetik be asko hazi da ta etxiak be...

- Lehen enpresak hiru izango zien: Zerrajera, Elma eta Arrue-San Martin. Hiru izango zien.

- Ta gerora...

- Gerora, ba, horreik ezkutau dia ya esateko.

1.121. Errementari eta ferratzaile lanen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-216/004
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:07:30. **Bukatu:** 00:10:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Errementariaren inguruko kontuak: lana kalean egiten zuen; erabiltzen zituen arropak... Baserritarrek abereak ferratzera bertara eramaten zituzten, ferratokira. Idiak, zaldiak... ferratzen zituzten. Lanerako erabiltzen ziren behiak ere ferratzen ziren.

Transkripzioa

-Sutegixa eta iunkia ta, zarata haundixa egongo zan, ezta?

- Bai, din, daun, dun! maillu haundixekin. Nere lagun batek, zereko... Luis Larrañagak dauzka aittajunan erremintta danak gordeta; taillar bat, almazentxo baten dauzka, hango tenazak eta. Akordatzen naiz ni, "horrek ikusitta najak ni lanian" esaten jat. Berak be bai puxkat, baiña (gu baiño) gaztetxuaua da-ta.

-Zela juaten zan errementarixa jantzitta? Akordatzen za?

-Urdin, beti.

-Amantal haundiren bat edo?

-Prakak eta alkondaria harek beti. Neguan jertsen bat edo, txaketa, txaketa azulak eta be bai. Orduan lanian maonezkuak jazten zien.

-Eta perratzaillia inguruko basarrixetan...

-Ekarri eitten zeuben, ganaua ekarri eitten zotsen horrek perratzeko, bai. Hor perratzen zittuan, bertara ekarritta. Gero laguntzen zotsan

ermentarixai. Ondo, ondo.

Emaztea: Gero hau Uriarte Elusura-eta bera joaten zan.

-Bai, haura be mobiduko zan. Haura be jungo zan.

Emaztea: Beheratxua zeuan beste bat, e.

-Hementxe, kalian bertan.

Emaztea: gu juten giñan ikustera zela..., hementxe, berta-bertan, herri erdi-erdixan.

-Umiendako politta izango zan, ez?

-Bai ba, hoixe. Ganaua, hemendik sartzen zotsen korse bat, faja bat, eta hemendik beste bat, eta jaso eitten zebeu gora. Eta hankak gero lotu eta hola aurrian aurrekuak eta atzian atzekuak, eta gero hola ipintzen zeban hankia, eta gero hamen perrak ipini; eta gero azkazkalak edo horrek, "las uñas", horrek gastau zer batekin eta berri-berri eindra bialtzen zittuen. Klabau hortxe zeretan, ta-ta-ta-ta! Josi danak eitten zittuen.

Gehixenetan zer izaeten zien, idixak edo?

-Bai, irixak asko orduan eta behixak gutxi. Behixak lan eitten zebeu behixak bakarrik, bestiak ez zittuen perratzen. Eta zaldixa asko, zaldixak.

-Astuak?

-Astuakin enaiz akordatzen. Baleike, baiña enaiz akordatzen. Baiña zaldixa-ta asko.

Karruakin zebizten zaldixak-eta, kamiñuan zebiztenak-eta, horrek asko gastatzen zittuen, eta horrek bai. Eta irixak-eta, behixak be bazeuzken batzuk; irira aillegatzen ez zienak ba lanerako behixak. Behixak esnia-ta emun eta gero gaiñera lana eraifñ etxian. Horrek be bai.

1.122. Uztargilea San Lorentzo auzoan

- **Hizlaria(k)**: Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-216/005
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:10:09. **Bukatu**: 00:11:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Auzoan uztargile bat ere bazegoen; Juan Cruz Arruti. Haren lanaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

Eta gero puxkat goratxua auzuan bertan zeuan uztargiña be bai.

Uztarririk eitten zittuan eta zan Arruti. Izena...

-Juan Kruz?

-Juan Kruz. Bazekizun, e?

-Besteren batek kontauta. Arruti esan dozunian.

-Semia Felix.

-Eta honek artistak zien.

-Bai. Ta-ta-ta! Harekin be bai, hari be makiña bat denpora egoten giñan begira. Bueno!

-Eurak joaten zian normalian baserrietara, ez?

-Bai, hori bai. Hartzen zeban bixkarrian zera, aparatua, erremintak eta, bara bat-eta, neurtzekua eta basarrik-basarri.

-Egun beteko lana. Goizian joan askotan eta...

-Bai. Eztakit zenbat tardatzen zeban, baiña harek handik akabau arte ez zeban urtengo, eztot uste. Lo ein bihar bazeban, lo be bertan eingo zeban igual. Pentsau, e, eztakitt.

1.123. Udazkeneko istorioak

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite
- **Erref:** BER-230/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:01:20
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** San Migelak izaten ziren. Astoarekin esne-partitzera joaten zen beste neska batzuekin.

Transkripzioa

-Basora. Bidebaso bat eta bazittunan, etxakiñat gehixao aillegau naizen be. Bai, egonda najaon, bai, hona etorri ezkeru egonda najan beste baten han. Baiña orduantxe izaten zonan Angiozarko San Migel inguruak eta zerak eta gu hara erremeixara. Erremeixaik ez giñunan lagatzen, ingurukoik be ez. Eta harako. Eta ni jutun nintzonan hartu astua eta goizian Bergara. Bergaraiño ez, Altos Hornosera. Altos Hornos, Ozeta..., hortxe izaten najittunan esne-partitziok. Amak esaten jostanan: "bueno, azkar etorri, gero Bidebasora jun bihon bazkaixakin eta." Urtetzen giñustanan Maritxu Uskarkua, Juli Aldai-Etxeberrikua eta bueno, hiru-lau bat hola nere antzekuak esniekin. Nik esaten notsan, "bueno, nik gaur prixia jonat, e, basora jun biha jonat bazkaixakin-da. Eta ahal dabenak ahal daben moduan etxeratu. Jutun nintzonan eta amak bazkaixa gertauta.

1.124. Belastegi erreken inguruko baserri-izenak.

- **Hizlaria(k):** Altube Allbisua, Jesus Mari; Aristimuño Kortabarria, Juan; Urrutia Makazaga, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-232/001
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:35
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Basalگو auzoko toponimia: Belastegi erreken inguruko baserri-izenak.

Transkripzioa

- Gutxi gorabehera zuek esaten badozue nun daon eta zera, nik topauko dot. Baiña baserrixak eta markauta dare, e? Esate baterako, oin hemen gare, [etxepe] honetan, Mekolalde hau da, hemen dao Lesarri behekoa edo ipinitta, hemen errekatxo bat doia hor Basalگو aldea...
- Belastei errekia...

- Belastei errekia.
 - Horrek izena Belastei errekia.
 - Belastei errekia? Bueno, hasiko gara Belastei erreka inguruan daren baserri danekin?
 - Bai, bai.
 - Ba, nahi dozuen tokitik hasi. Barrenetik hasi ala...?
 - Ba, hortik behetik gora [...] Belasteiko errekia...
 - Lehelengua Belastei bolua.
 - Belastei bolua?
 - Errekian kontratan dauena.
 - Bai. Segi. Han inguruan beste...?
 - Telleixa.
 - Goratxuauan Tellerixia.
 - Tellerixia?
 - [...]errekatik pixkat [...ao].
 - Gero goratxuao Belastei. Olazabal hurrengo goratxuao.
 - Ta goratxuao Oxangurenak. Bi bizitzakua basarri bakarra. Ta gero harutz Gallastei.
 - Errekia pasauta.
 - Gallastei. Beste bat be badao gorao...
 - Torria, Gallastei torria.
 - Gallastei torre.
 - Ezkerretarao beste bat...
 - Amutxastegi.
 - Amutxastegi. Bi jarek, bi Amutxastegi zaharra ta Amutxastegi berrixa. Bat erreta [...]...
 - Goi-goixan daona zein da?
 - Goi-goixan Gallastei torria.
 - Bai, baiña...
 - [...] daukana. Ta gero [handikaldeti...].
 - Barrixa goixan daona.
 - Ezkerrera bi etxe.
 - Gallastei torretik ezkerrera, Basalgo aldera.
 - Barrixa, karreterian, Basalgoko karreterien kontra.
 - Hori Barrixa?
 - Bai.
 - [...]
 - Bestia, Zaharra...
 - Bestia, Zaharra, behearao?
 - Bai.
 - Gero Eguren.
 - Eguren.

1.125. Angiozar auzoko toponimia Arrasateko mugan

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/002
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:05:02. **Bukatu**: 00:10:04
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- **Laburpena:** Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) baserri eta eraikinen izenak Arrasateko muga inguruan. Inguru horretako erreken izenak.

Transkripzioa

- Hor beste etxe bat agertzen da hamen, Salaberri parian edo.
- Hori izango da lehen esan doun Zelaitxuoi, pare inguruan. Salaberri erreka eskiñan, ezta? Hola, zuluena. Ta bestioi dao apur bat espaldarao. Hori izengo da igual?
- Kanpazarrera begira eskumatara?
- Bai, bai, gorutz goiezela eskumatara.
- Igual hau izango da.
- Zulo-una barik espaldaratxua dao hori. Zan, vamos. Ta oin, oin ei dabizte hor atzera etxia eitten. Nik ez dot ikusi, baiña etxia eitten dabiz.
- Ta gero hor beste bat, hemen "ruinas" edo jartzen dau, oingo kamiñuan ertzian, justo ertzian.
- Mikelete etxe hori "en ruinas".
- A! Baiña hau dao Salaberritik Kanpazarrera begira jarritta, ezkerretara?
- Ezkerretara, kamiño baztarrien.
- A! Hori da...?
- Mikeletiena.
- A...
- Bai. Kamin-baztarrien, beti egon da kamin-baztarrien [...] hori.
- Bai, bai, bai, hau da, orduan. Ta Salaberritik eskumatara badao han txabolan bat edo ezer? Kanpazarrera begira jarri ta eskumatara? Etxen bat edo...
- Hori Zelaitxo besterik ez dakit nik hor. [...] Beste zeoze agertzen da?
- Bai, beste etxen bat edo dao hamen dibujauta.
- [...].
- Baiña Zelaitxo oin hormaik-eta ezer ez da gelditzen, ez?
- Ba, oin berriztatzen dabizela, ba. Horman batzuk geratzen zian lehen.
- A, Zelaitxon?
- Bai, bai. Oin berriztatzen, jasotzen edo jasota edo hola egon bihar da.
- Bale. Gongeta esan dou, beste basarrin bat edo ahaztu jaku hor?
- Ez. [Ala bai]?
- A! [Horrek bestian...] Bueno... Bueno, orduan errekei helduko dotseu oin. Hemen Kanpazartik Salaberitik zihar hor beherutz doiena? Mugia eitten dabena?
- Ez dakit horren errekiarren izena nik. Ni idea. Sagar-erreka edo auskalo ze erreka [izen] izengo dan hori.
- [... Epele...]
- Zuk esan nahi dozu Kanpazartik goittik behera Salabarri ingurutik zihar...
- Bai, Kanpazartik Salaberri pasatzen da...
- Bai.
- Gongeta barrenetik...
- Bai. Gero Epele gero bai sartzen da, baiña hor goixen horrek ze izen dauken ez dakit. Gero bai hori Epele sartu.
- Hori igual izengo da Epeleko errekiaren hasieria!
- A! "Ni se sabe"! Ba, igual.
- Aber, begiratuizu zuk mapan eta pentsau.
- Hamendik baleike hasi Epeleko errekiak.
- Hori da...
- Hori bai.
- Hortik hasi leike.
- Ze numerotan?

- Hamazortzi. Hortxe hasieria, beste adarrik ez dauka hor.
- Ez, ez, dana bat da hor.
- Aber, zu...
- Lasartetik behera doian errekatxuak izenik bai?
- Neuk ez, erak jakingo dabe igual.
- Zuluetatik behera beste errekatxo bat doia hor, ez? Horrek bai?
- Zuluetatik behera?
- Bai.
- Zuluetan Lasarte aldetik ala hemendikaldetik? Gure aldetik?
- Zulueta-Gongeta bittartian hor errekatxon bat... Edo igual udan bakarrik eruango dau ura...
- Ni idea. Sekula ikusi dotenik [...] erreka moduan ta ez [ezer moduan].
- Paiorri ta Altuna bittartetik doianen bat?
- Errekia? Sorgiñerrekia.
- Zela?
- Sorgin erreka.
- Beste izenik badauka horrek?
- Ba, beste batzuk Altuna errekia esaten dotse.
- Eta beste izen bat be badauka, ba?
- Beste izen bat?
- Bai. Aber, ze basarritatik pasatzen da hori errekaori? Gero...?
- Paiorri ta Altuna bittartian.
- Ba, horrek Sorgiñerrekia edo...

1.126. Murinondo auzoko baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Garitano, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Jauregi , Jose Ramon "Epelde"
- Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-243/003
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:15:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Murinondo auzoko toponimia; baserrien izenak.

Transkripzioa

- Zentrala esan dozu? Hori da...
- Turbinia esaten dotsau guk betik.
- Turbinia?
- Bai, [...] daona. Guk Turbinia esaten dotsau beti.
- Hortik... Bueno, erreka kontran bertan pare bat... Hau [...]?
- Horrek Laspiurrenak izango dittuk.
- Taillarra...
- Ta ondoko hau?
- A! Hori oin zera ipini juek... Lehenau marmolerixia izandakua dok hori.
- A... Etxiak berak badauka izenik?
- Ez.
- Ez? Orduan ezebez.
- Bueno, egon, egon, egon. Hau etxiau Barrenekua. Hau dok etxia, orduan. [Barreneko zerak] ein jua etxia, [baiña] ez daka izenik.
- Orduan laga eingo dou...

- Ez jakak horrek, ez jakak izenik, nik dakidala, behintzat, eta [...]. Horrek lehenau taillarra [ein juan lgartuak]. Izenik ez daka horrek. Porejemplo [gurian etxiak] izena ipinita jaukak, baiña horren etxian izenik sekula ez juat nik entzun. [...] Tailleres lgartua edo [...].

- Bueno, gero gorutz abixauta errekoa pasau ta segiduan ezkerretara aldapia hasten dan onduan etxe batzuk...

- Muiñondo.

- E?

- Behetik gora ezkerretara, e? Muiñondo.

- Muiñondo...

- Muiñondo gaiñekua ta Muiñondo azpikua. Beste bat Malatu be badao gero, e!

- [...]

- Ta atzeko hau?

- Hau Agarre. Baiña kamiñutik bestaldera, e! Eskumatara, e! Behetik gora. Agarre eskumatara dao bidetik, e?

- Agarre hemen dao... erreka kontrán berta-bertan...

- Erreka kontrán dauana, horixe, ba, lehen esan doun lgartuana!

- A!

- Izenik baekua izengo dok, orduan. Hau izengo dok, orduan, aber... Hau Laspiur dok?

- Bai.

- Hau bestiau dok hor beste zerian, zubixan beste tailler txiki bat [...] ipini douna...

- Bai, bai.

- ... [...] Hori izango dok, orduan? [Etxia esan dozue], baiña etxia, orduan, harutz.

- Orduan... Muiñondo bi esan dittuzu.

- Gaiñekua ta Muiñondo azpikua.

- Gero Malatu.

- Malatu.

- Malatu zein da?

- Hori...

- [...] parian daona?

- [...] parian Malatu.

- Bai. Hau bide hau Malatuko bide hau hartuta?

- Bai, Etxeberrittak.

- Zenbat dia?

- Gaiñekua ta Azpikua.

- Hortik aurrera badao beste basarririk?

- Kostola.

- Kostola.

- Gero harutz Mekolalde torria.

- Mekolalde torria...

- Gero Mekolalde azpikua, estaziñuan onduan dauana.

- Estaziñuan justo onduan dao?

- Onduan daona, bai. Ta gaiñekaldekua haura izengo dok Agarremekolalde.

- Bueno, gero...

- [Hemen] atzera behetik gora.

- [...] gorutz hasitta, eskumetara hemen...

- Eskumatara Agarre Muñao, Agarre.

- Jarraittuta, hamen bertan... ze izen dauka honek?

- Bai, [soziedade Muiñondonak] hori. Oin soziedadia, lehen eskolak. Oin, ba...

- Eta ondoko etxia?

- Hori eskola etxia dok, hori [Etxeberriana] dok.
 - Eskola etxia?
 - Lehen eskola-etxia, oin ba... oin badakik ze dan. Hau zuan lehen eskolia eta hori eskola-etxia. Oin daok, ba, oin sozidadia ta hori [...] erosi juan ta...
 - Eskola ta eskola-etxia?
 - Bai.
 - Lehenao hola.
 - Hau bertan azpikaldian daon txaleta edo...?
 - Etxalai dok hori.
 - Zelan esan dozu hori?
 - Etxe Alai.
 - Bueno, gero dauzkau hiru edo segiduan.
 - Zabaleta.
 - Bai...
 - Ezkerretara hori, e?
 - Bai.
 - Zabale goikua ta Zabale behekoa. Bi bizitzako etxia dok, e?
 - A! Bi bizitzako etxia?
 - Bai, bi bizitzakua dok. Etxe bakarra, baiña bi bizitzakua.

1.127. Murinondo auzoko baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Garitano, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Jauregi , Jose Ramon "Epelde"
 - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-243/004
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:20:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Murinondo auzoko toponimia; baserrien izenak. Aranerreka auzoko baserriak.

Transkripzioa

- Gero hamen txaletan...
 - [...], ipinitta [dao].
 - Handikaldian...?
 - San Blas.
 - Ermittia da?
 - Bai.
 - Jarraituta...
 - Jauregi.
 - Hori zein da?
 - Jauregi.
 - Gero daukau...
 - Larraña txiki ta Larraña haundi.
 - Ta hor bittartian daon [... haundi batzuk]?
 - Hori granjia hori, [berana, txikixana].
 - Granjia apuntau dozu?
 - Bai. Bidia jarraituta, allegatzen gara hiru basarri izen berdiña daukenak edo...
 - Bai, Beistei haundi.

- Lehelengua?

- Bai.

- Hurrengua?

- Beistei etxebarri.

- Ta azkena?

- Beistei guenengua edo goikua.

- Ez, ez, zeuk esaten dozuen moduan, e!

- Guk holan esaten juau. Gero segi gora Mieka.

- Bale. Gora ya ez daukau...

- Lehen esan dittuu ya, Pagolak eta horrek esan dittuu...

- Bueno, lehen esan dou erreka honen izena Hiruerreka dala, Mekolaldera doiana, eta beste honena?

- Abraiñerreka.

- Hau... honek danak badauka izenik, erreka bittarte guztiak? Auzua edo...

- Bueno, Azpilleta ta Santa Lutzia horrek. Bueno, horrek auzuok ya... Horrek dao han aurrian bistan... Kokote auzua esaten jotsek horri.

- Bai.

- Hango aldiai ta.

- Bi basarri esan dittuzu hor... Santa Luzia?

- Santa Lutzia, Azpilleta ta Larrarte.

- ... eta...?

- Larrarte.

- Larrarte. Bai. Hau, honek be auzo hau...

- Ez, ez, ez...

- ... beste auzo bat da, ez?

- Hori da beste auzo bat.

- Errekiak erabagitzen dau?

- Bai, bai. Baiña Zabaleta ta horrek ez dittuk... Zabaleta [...] topauko [dok], eztok?

- Zabaleta [...].

- Hau izango da Zabaleta.

- A! Hau zan Zabaleta?

- Horrek ez dittuk hona...

- Apuntau eingo dou, e?

- Ez dittuk hona [...]... Bai, erreka honek [...].

- Eta honen izena? Auzo-izena edo badauka izenik?

- Kokote auzua ez dauka honek?

- Ez, ez, honek. Hau.

- Guria? Hau? Muñao auzua.

- Muñao auzua?

- Bai.

- Hartuko dou inguru hori? Pixkat [...] hemen barrenian...

- [...]

- Hau Zubizarra esan dozu dala...

- Bai.

- Beheko ibai haundixai?

- [...] errekia ibai haundixa, ibaixa. Honi esaten dotsau, ba, Kanteria edo Zubibarri edo Zubizarra edo...

- Kanteria zeñi?

- Kanteria, bai. [...] Kanteria hori, Kanteria [...].

- Oin zerak...

- [...] daon hori Kanteria da.

- Kontainerrak darena?

- Hori dao... egon, itxoin.

- [...]

- Gero Kanteratik izenik baeko etxia esan juau.

- Hau zubixa, hau Kanteria...
- Muñaoko kamiñua...
- Hau... Hau gorutz...
- Aiskointxorreta esaten jakok honi
- Aizkoin zer?
- Aiskoi intxorreta.
- Aizkoi intxaurreta?
- Bai, Aiskointxorreta horri beheko barrenorri.
- Eta basarrixa bera?
- Aiskoi hor dao, Aiskoi, hor Kantera gaiñian daon hori.
- Hor inguruan badao beste basarrin bat?
- Ez. Bi bizitzakua da hori, Aiskoi.

1.128. Sanantonabat auzoko baserri-izenak

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Garitano, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Elisabet - Jauregi , Jose Ramon "Epelde"
- Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-243/007
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:30:00
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Sanantonabat auzoko toponimia; erakin eta baserrien izenak. Sanantonabat eta Murinondo auzoen mugako toponimia.

Transkripzioa

- Bueno, gero hamen Turbinia-ta pasau ta hamen beste auzo-una txiki bat badao...
- San Anton.
- San Anton auzua da...
- Bai.
- ... izena, auzuan izena?
- San Anton, bai.
- Ta horko basarriak zeintzuk dia?
- Hasi... [...]
- Zubi... A! Zubi...?
- Bai.
- Zubi...?
- Zentrala [...].
- Zentrala hamen, hemen.
- Zentrala hamen. [...] harutz, orduan? Bestaldera?
- Bueno, bat dao bariantia [eindakuan] desmonte haundixa ein dana ta... Kurba-kurban daon bat.
- Basarte. [...]
- Gaiñian, gaiñian.
- Markatzen jok, baiña, [...]?
- Bai, bai.
- Azpikaldian darenak Beosin ta San Fausto.
- [...]?
- Bai, [...].
- Bueno... Laspiur ta Iberduero [...].

- Laspiur ta Iberduero... Laspiur gaiñian...
 - O... Laspiur ez, Linazisoro.
 - Linazisoro gaiñian [...]?
 - Hoixe San Anton ermittia.
 - Gero gaiñekaldian?
 - Arimendi. Gero honutzao honek Albitxuak izengo dittuk.
 - Bai...
 - Albitxu.
 - Albitxu. Bakarra?
 - Ez, Albitxu bi bizitza: bat Otxoak daukana ta bestia alarguna edo... Ta Albitxubaso. Ta gaiñekaldian bestaldera...
 - Albitxubaso San Anton da?
 - Bai.
 - Albitxubaso bai?
 - Egon! Joe... ointxe ipini dostak dudan.
 - Batzuk San Juanen-ta sartzen dabe ta...
 - Bai, ba. Ba, ba... neuk be... Ez, Albitxubaso... Albitxu bai, Albitxubaso ez, San Antonen ez dok sartuko ez. [...] Beosin, San Fausto...
 - Zein da azkena apuntau dozuna?
 - Albitxaso edo hori.
 - Ez, baiña Albitxaso hori lagaizu bestaldera, lagaizu bestaldera hori. San Fauston be ez da iñor bizi, Beosin be bi bizitzakua da. Ba, bi bizitzakua... oin bizitza bat. Lehenau bi izandakua, baiña oin bat.
 - Basarte ta San Fausto bittartian hor ur-zirrindaran bat edo errekatxon bat badator?
 - Bai, txiki-txiki bat.
 - Badauka izenik horrek?
 - Bai, Albitxuko itturrixa [izango dok]?
 - Albitxuko itturrixa jaiotzen dok hori.
 - Albitxuko itturrixa?
 - Albitxuko itturrixa [...] hori.
 - Itturrixan jaiotzen da?
 - Bai.
 - [...] Arimendiko bide azpi inguruan edo...?
 - Bai.

1.129. Aranerreka ta Murinondo auzoetako toponimia

- **Hizlaria(k)**: Gabilondo Garitano, Juan Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Jauregi , Jose Ramon "Epelde"
 - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-243/010
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:36:38. **Bukatu**: 00:41:38
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Aranerreka edo "Kokote auzoko" toponimia; baserri-izenak.
 Murinondo auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Oin jungo gara pixkat...
 - Hori Kokote auzua pixkat hartu eingo juau ala?

- Kokote auzuan barri [...] larrei...

- Ez?

- Basarrixen izenak bai, baiña hortik aurrera...

- Bueno, bastante apuntau dou, e?

- Hori nahiko ondo [...].

- Hor Azpilleta ta Santa Luzia esan dou... Hortik eta Ziarreta edo Abrain-errika aldera badao ezer?

- Hortxe lehen esan douna.

- A! Akordau ezinda geratu garana?

- Bai. Ta bestia [...] [Galluburu].

- Itsasmendi gaiñian daona?

- Bai, Itsasmendittik... [klaro], Zabaleta aldera.

- Bai, Itsasmendittik Zabaleta aldera.

- Bai, hori bai.

- [...] zeoze ahaztuta laga dozue [buruan...] ta galdetu dounik? Errekak pasau dittuu, tontorrak, etxiak...? Beste ermittan bat badao hemen nun edo nun? Ta hor Mekolalde aldian ez dao beste aparteko gauzarik?

- Mekolalden [...] ez dao gauzarik... auzokuak bertakuak [esan dotsue] ta besterik...

- Honek Beistegi hirurak, entzunda geunden gu, zeozek Beistei aldian badauka izenik?

- [...]

- Ez, ez?

- Hor Beisteittik behera [...] terrenuak beren izenak: Abeletxe ta...

- Bai, Abeletxe jaukak terrenuak, bai. Bai, terrenuak horrek badauka izena bai: Abeletxe.

- [...] terrenuak izenak badakez. [...] terrenuak beren izenak.

- Bai...

- Horrek Beistegi beti [...] Beistei behekoa, Beistei halakua, Beisteietxebarri...

- Beistei haundixa baiño puskat beheratxuau Abeletxe, hori esaten jakok, bai. Ta gero Zabaleta aldera juaten [badok], Aanburu ta...

- Bai, horrek, horrek, holakuak.

- Bueno, aber, dakiuna [esango dou], orduan. Aber, segi, orduan! Beistei haundixa baiño puska-puskat beheratxuau.

- Haundixa da Azpikua, ez?

- Azpikua, bai.

- Handik eta?

- Behera.

- Larraiña haundi...

- [Larrañatik] bestaldera, Txiki aldera.

- Txiki...?

- [...] beheko kurbia. Hau?

- Etxeberri Beistegi...

- Hau Beistei etxeberri... Hamendik behera, hamentxe, Abeletxe, hementxe bertan. Bai. Hemen [...] Zabaleta aldera guazen orduan. Hemendik behera bajatu, hau kurbiau...

- Bai. Abeletxe?

- Ez, ez, [...] hau kurbiau hartu ta hemendik Zabaleta aldera. [...] hemendik kurbatik... [...] pasau dou... honek zera... Aalizpe.

- E?

- [...] Aalizpe, bai, [...], Aalizpe. Gero bide horretatik [...], bueno, ez dau pasau biharrik hemendik aurrera. Aalizpe. Hurrengo daok [...] sailla dok, [baiña] zuenan inguruan... Bueno, hortik puskat harutzao...

- Gaiñar ta horrek...

- Ez, Gaiñar honutz dok, bestaldera!

- [...]
 - Nun? Nun?
 - Aanburu, Gaiñar esan dou lehen.
 - A, bai?
 - Bai. Beste [...] gaiñekaldian esan dou Gaiñar. Baiña hemendik aurrera horretxen kontratan daok... Aalizpe apuntau dok?
 - Bai.
 - Aurrerao Aranburu.
 - Aranburu?
 - Bai.
 - Honek danok ze dia basuak ala...?
 - Bai. Ez... basuak... mendixan...
 - [...]?
 - Bai, Aranburu. E... Alejandro, zela esaten jako hari... [...] Zabalotei. San Martin jaixo zan etxia, Zabalotei.

1.130. Basalgo auzoko baserri-izenak

- **Hizlaria(k)**: Elgarresta Gabilondo, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Jauregi, Jose Ramon "Epelde"
 - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-244/001
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:40
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Basalgo auzoko baserri-izenak.

Transkripzioa

- Bueno, Mosteittik hasiko gara ala?
 - Bale.
 - Bueno, basarrixak eingo dittuu lehelengo ta gero errekatxuak eta... Ba, hau bera?
 - Bai, Monasteriobide.
 - Bueno, baiña zuek hola ez jatzue esaten...
 - Guk Mostei.
 - Ez, komeni da zeuek esaten dozuen moduan.
 - Bai.
 - Guk Mostei.
 - Mosteittik gora esan dozu...?
 - Hurrengua, ba, zera... lehenaoko etxe zaharrak be bai danak hartzen dozue?
 - Bai, bai. Bai, bueno, oin dakiuna [edo daona...].
 - Beste bat horren gaiñian dao egondakua Kaminburu.
 - Bai, hantxe justo gaiñekaldian, ez?
 - Bai. Han kurbia bertan badaok, ba, [etxe gaiñekaldian]? Gaiñekaldian daok, horma zaharrak eta ondiok be han jarek. Ta hurrengua gora fanda, [Santiora baiño] Santiotxikixa.
 - Egondakua?
 - Egondakua. Frontoia daon... hantxe kamiñu kontratan zuan. Guk, e... eskolan-ta ibili giñanian artian hormak eta suelua ta baeuzkan artian. Bai, Santiagotxikixa. Gero Santiago bera.

- Santiago bera?
- Maistruan etxia ta sozidadia ta horrek, horrek izena Santiago [...].
- Gero etxe multzo bat dao hor...
- Santiago apuntau dozu?
- Bai.
- Gero hurrengua handik segiduta Iribe. Iribe hurrengua.
- Ezkerretara daona?
- E? Bai.
- Gero eskumetara pixkat [...]?
- Bertan behera segiduta, ba, ehun bat metrora edo, zera, Gibondo. Horrek be izena Gibelondo edo jaukak. Eztok? Aber zela ipintzen daben...
- Zibondo ipintzen dau.
- Zibondo?
- Ez ein kasu haundirik, zeaittik batzutan geizki dator, e? Ta oso geizki batzutan.
- Bai, bai...
- Basarri batzuk ez dator eta... bastante...
- Hori Gibondo guk.
- Gero hemen geratzen jaku bi, bata bide ezkerretara ta beste bat...
- Beste hiru ondiokan.
- Beste hiru ondiokan?
- Bai.
- Aber, ba.
- Gero gora goiezela, gurera, handik atzera ixo Iribera ta gora gatozela, ezkertera, Lonbide.
- Eta eskumetara?
- Eskumetara beran parian, beran parera baiño lehen Gibondo aldera, aurreratxua lñarre etxeberri.
- Luzeka bat?
- Bai. Bueno, ez da luzia be. Txikitxuaua, lñarre-ta baiño txikixaua. Hau dok, eztok, lñarre? Egon. Hau Lonbide ta hori lñarre, eztok?
- Bai, balitxeke.
- Bai, bai, horrek dittuk. Eta horruz hortxe beran etxian kontratik fanda, ba, etxiak, lñarrek [distantziatzen jotsak] zera lñarre etxeberriri paretaz paretara, ba, hamar metro be ez, zazpi-zortzi metro. Bide bat bittarte dabela.
- Gero begiratu ein biharko dou hemen dibujo...
- Bai, hortxe, hortxe. Hori [zein da...] tipo hortara izengo dok, holakua ez dok, baiña.
- Ez... Hau gero guk zertu biharko dou, kuadru biharko dou...
- Bai, lñarre etxeberri. Horrek jaukak hortxe bertan zeretik, por ejemplo, hau, kamiñua hau dok, eztok, hemen bittartetik pasatzen dana? Ba, hau Lonbide ta hau lñarre dittuk. Eta hamentxe bertan kontran, etxe kontran joiak kamiñua horraxa eta hortxe eitten jok etxe kuadrotxua hortxe. Hortxe. Hori [...], holaxe. Ta hemendik beste bide bat joiak, hortik lehenau Egurenera zan bidia.
- Ya, ya, ya...
- Eguren be hor egongo dok. Ta hortik doia bide bat. E? Horren bixen bittartetik pasatzen dok.
- Bale.

1.131. Basalگو auzoko baserri-izenak

- **Hizlaria(k)**: Elgarresta Gabilondo, Martin

- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Elisabet - Jauregi , Jose Ramon "Epelde"
- Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-244/002
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:08:42
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Basalگو auzoko baserri-izenak.

Transkripzioa

- Eta honek, lñarre, berriz, bi bizitzako moduan pegante jaukak lñarre goikua.
- lñarre goikua ze aldetara? Bidian aldera?
- E... frentia, frentia kamiñora baten dok dana. Hauxe berau etxiau.
- Hortara? Edo zela ebagitta?
- Hau etxiau holaxe dok dana, lñarre ta lñarre goikua dana kuadro baten jak batera. Eta fatxadia lñarrek hamentxe portala horra eta honek be hortitxik atzetik horrax zuan lehenao portala. Oin be hor jak ate haundi bat.
- Orduan, bestekaldera ebagitta, ez?
- E?
- Orduan, bestekaldera?
- Etxia zela erdibitzen da? Zati bat lñarre ta...?
- Osea, kamiño aldetik dauke bixak sarrera?
- Bai. Kamiño aldetik, oin horrek lñarre goikuak ez jaukak sarreraik be formal, portalik ez jaukak, baiña lehenaokua labe-txikixa ta haintxe... beheruzkuan fijau nitzan nahi badozue, guenetik hemendik goiazela entradatik lñarre lñarre goiko partia dok. Teillatua baten jarek danak, e?
- Bai, bai...
- Bajaukak, goixan teillatua hola [...] bat bajaukak, e? [...].
- Eta... goikua eta bestia, lñarre?
- lñarre, bai.
- Besteik barik... Bale. Gero esan dozu bide bat zeuala hemen Gibondotik beherutz basarri bateraiño.
- Bai, bai, Egureneraiño, bai.
- Bai, hemen lehen... Amutxastegi ipintzen eban mapan, baiña konturatu naiz...
- Amutxastegi gorao.
- ...gaizki daola, zeatik...
- Amutxastegi han be ikusten juat nik. Amutxastei zaharra ta Amutxastei barrixa egongo dittuk hor. E?
- Bai, bai...
- Amustei zaharra...
- Amutxastegi goikua... zela... zaharra esan dozu?
- Bai, Amutxastegi zaharra hor daok ta Amutxastegi barrixa hemen egon bihar dok. Hona, e!
- Epa! Orduan, hau ete da zaharra?
- Bai, hori baleikek.
- Egon...
- Hori bai.
- Hemen daukau beste...
- Hori Gallastei torria. Kamiñua zein dok Basalgotik doiena, por ejemplo? Hau dok, eztok?
- Hauxe ez dakit, ba... Etxoin, e?

- Hamen entrada [...] Basalgotik, gurera hartzen dan lekua ta kruzia...

- Bai, hauxe.

- Hori dok? Gurera ta Gallastei torrerakua ez dok hori bestiori?

- Bueno, honetxek dia bidiak. Hauxe izan...

- Hauxe izan biharko dok, eztok?

- Bai, hauxe...

- Bai, bai.

- Hauxe izan leike. Hemen bi txabolatxo edo dare?

- Bai, Egurengiak dittuk horrek, Egurengo txabolak dittuk horrek. Bat oin jausitta jak eta bestia arreglau barri. laz arreglau ein juen.

- Eta horren azpikaldian?

- Eguren.

- Eguren, esan douna, bai.

- Amutxastegi ipintzen jok gaizki ipinitta.

- Bai, gaizki ipinitta.

- Eguren bi bizitzakua. Bi bizitzakua zuan.

- Gero bidia jarraituta, allegatzen gara...

- Bai, kamiñuan azpittik jak Amutxastei barrixa.

- A! Joe, hau be gaizki zeuan orduan.

- Eta gero han goittik behera hori ikusten juat nik Amutxastei zaharra.

- Osea, Amutxastegi zaharra beherao dao barrixa baiño?

- Bai. Horrek eitten jok Amutxastegi barrixa kamiñuan azpikaldetxuan bertan daok. Torrerako kamiñua doian lekuan azpikaldetxuan. Eta Torrerako kamiñua segitzen dok eta handik berrogeta hamar metro hirurogeira hasten dok goittik behera. Alturia kasi berdin honek, ixa-ixa. Hola, ez dok, [linealian], baiña horraño fan ta atzera hemendik bajatzen dok kamiñua.

- Bueno, zihero gaizki zeuan mapa hau, e?

- Ba horrek holaxe dittuk. Gero etxakiat hau, honek bidiok, bidetxuonek be...

- Estratak be izan leizke, e?

- Bai, holakon batzuk izengo dittuk.

- Estratak be izan leizke...

- Errekia?

- Errekak urdiñez doiaz.

- Bai, eztok?

- Arraixa urdiñak errekak dia.

- Bai. Bai, honen zelaixak eta eitten juek hona errekatxora, goittik behera, hola, orduan ba... Gero Gallastegi. Gallastegi Torria, Gallastegi bestia hemen egongo dok... Bai, bai, hauxe dok. Zaharra hauxe dok.

- Bata ze da Gallastei torria ta bestia Gallastei?

- Bai, Gallastegi bestia, bai.

- Hemen Amutxastegi zaharra ta berrixan artian hola txabola bat edo badao? Agertzen da kuadro txiki bat...

- Bai, honena dok hori, kamiño ondo-onduan.

- Bai. Badauka izenik edo?

- Ez, harek hola...

- Apartekorik ez dauka?

- Ez, txabilia dok eta [hantxe]. Amutxastei zaharrekua dok hori. Honena dok hori.

- Bueno, Gallastegi torre esan dou, Gallastegi be bai... ta bidiau Basalgotik ez dao beste iñorako biderik?

- Ez, Gallastei torrian akabatzen dok kamiñua.

1.132. Basalgo auzoko baserri eta mendi-tontorrak

- **Hizlaria(k):** Elgarresta Gabilondo, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Elisabet - Jauregi , Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-244/003
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:08:42. **Bukatu:** 00:13:44
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Basalgo auzoko toponimia; baserri-izenak eta mendi-tontorrak.

Transkripzioa

- Bueno, oin ze ein leikeu? Bueno, gero bestekaldera botata...
- Guria.
- Bai. Nun zeuen? Hauxe. Zela esaten jatzue zuek?
- Arangurentxo.
- Eta ez dao besteik Basalgon...?
- Ez.
- Hau zer zuan?
- Hau da txabola bat edo...
- Bai, bai, hori dok... Hori izango dok.
- Gutxi gorabehera ipinittakua.
- ... Elizalde hamen, eztok?
- Bai.
- Hori dok Beittiko txabolia. Hementxe [...], hortxe tontorrian ezkutau justu-justuan eitten dok. Hori Beittiko txabolia, Kasimirona dok hori. Beste bat markatzen jok hor? Gorauan bajeuan, ba, beste bat, baiña haura ya jausitta jak eta ez jok markauko. Keruta markauko jok, ba, [...] beste bat, gure txabolia goixan hori.
- Hemen?
- Hau izango dok, eztok? Hemen gein-geiñian jak hori, bai. Ta beste bat hementxe zuan, hola, [ez dakik], hona... Hemen nun markau dok txabolia? Hau, eztok? Ba, hementxe zuan hola Elizaldeko txabolia. [...] ondio paretak [...].
- Oin, pixkat zentratzeko tontorrak esango dittuu, mendi-tontorrak, hemen inguruan darenak?
- Bai.
- Bata dao, ba, vamos a ver, Mosteittik eta Lesarri aldera...?
- Larrei.
- [...]
- Lehen be apuntauta daukazue hamen...
- Bai, baiña badaezpada... Auskalo lehen zela esan doskuen, oin ez daukau hemen hori ta... Bueno, hau apuntauta daukau. Munabe gaiñian daon...?
- Larramendi haura.
- Badaezpada apuntau ein bihar dot, hori uste dot danok berdin [...].
- Bai.
- Gero hemen inguruan daon beste tontor bakarra da... Aber, hau Arangurentxo bada, hementxe daona.
- Garbe, Garbe, bostehun ta... [treinta metros].
- Zortzi.
- E?
- Bostehun ta zortzi.

- [Quinientas treinta], han buzoi bat zuan ta...

- A, bai, e?

- Bai. Buzoia han dao oindio baina...

- Bai, ikusitta daukat buzoi haura. Eta beste bat Garbetik han Sagarrerreka aldera edo dao. Beste... hola, lau-laua, baiña gain bat da.

- Albizuri. Zera izango dok, Gallastei torrera baiño lehen, eztok?

- Bai.

- Postia lineia ta pasatzen dana?

- Hori da.

- Bai, Albizuri.

- Bale. Gaiñik hola besteik bai? Bai, hemen daukau beste bat Elgetako mugia dana. Azulatik...

- Bertan gaiñekaldian, eztok?

- Bai.

- Larrosin izengo dok hori. [Azpikaldera...] jak mugako harrixa be hantxe beheratxuauan daok Elgetara pasatzen dana.

- Larrosindik gero dator Azula gaiñian, hola...?

- Beizuko zabala esaten jakona gaiñian beste bat. Geiña ez dok haura, lautada bat. Gero Azkonabittara ixotzen jok gora haura gaiña esan nahi dozue?

- ?

- Ez dakit, ba. Bai, Azkonabitta hemen dao... Beizu, Azula.

- Beizu ta esan douna Larrosin zein dok?

- Hau mugia, mugia. Azula, Beizu, Azkonabitta. Bittartian dauzkau bi tontortxo nahiko lauak.

- Bat dok Gaztandolako etxaburua han Goiko gaiña esaten jakona eta Beizuko laua esaten jakok honi.

- Hau lautada hau.

- Bai, hau lautada hau.

- Igual dana izengo da Beizuko zabala?

- Izena hori... honi beste bat esaten jakok, hor , hemen ingurutan esaten da, Larrosiñetik bajatu eitten gaittuk hola lautadara pixkat, Boketia. Kruze bat, gaiñera.

- Bai, hori da.

- Ez dakit nundiko izena dakarren, baiña...

- Baina hori, egon ginan Agarrein egon ginan.

- Agarre Goikuan ta?

- Han be ezautzen dabe.

- Bueno, orduan. Ta gero esan dou monolitua eta daukana. Ta gero ia azkenengo baztarreraino junda daukuu Azurtza, Azurtzatic eskumetan Bergaretxe gaiñian beste lautadatxo bat.

- Kamiñua ta laua daon haura?

- Bai.

- Hari e, [...]

1.133. Basalgo auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Elgarresta Gabilondo, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Jauregi , Jose Ramon "Epelde"
- Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-244/004
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:13:44. **Bukatu**: 00:15:18
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Basalگو auzoko toponimia; baserri-izenak eta mendi-tontorrak.

Transkripzioa

- Hori Goimendira allegatzen garanian...
- Goimendixan hori...
- [...]
- Hau dok Tuukarrixa, [...] zelaixa beran [...]. Hau Tukarrixa. Tukarri. Ez jakixat, ba, mapan daon. Besteik... Beste hamen ya txabolaik eta... txabola zaharren bat egongo dok hamen, baiña topatzia piñu artian... Baiña besten bat egon bihar dok.
- [...].
- Nun?
- Etxaube gaiñekotik behera.
- Pista azpitan?
- Hemendik zihar [...].
- Puf! Hori... Hori txabola zahar bat, baiña ez jakixat ze izen dakan be. Gorao daona bai, hori dok Lamaiñoetxerriko txabolia. Hemen Lamaiñoetxerri hemen goixan daona [...] haren txabola bat. Baiña haura jak... aber... Etxaube nun jak? Hamendik behera... Hau dok Etxaube?

Azpikotik datorrena... [...] zaharraua dok.

- "Lamañoetxeberri aquí tiene que estar. Esta es la pista que baja primero de Aistiko laua y de Aistiko laua... por aquí tiene que estar".

- Hemen egon bihar dok, hemen egon bihar dok txabola hori.

- Aistiko laua zein da, hau?

- Hau Aistiko laua. Horrek apuntau eitten dozue?

- Bai, bai.

- Hamen, e, zelai gaiñian, e!

- Hau dok?

- Hauxen, hauxen. Zona hori dok Aistiko laua.

- Hola?

- Bai.

- Hor hobe apuntatzia...

- Basarrixak gutxi gorabehera ein jittuu edo...?

- Bai, danak einda jarek hamen.

1.151. Aldaiegia auzoko toponimia; baserriak

- **Hizlaria(k)**: Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-257/001
- **Iraupena**: 0:03:35. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:35
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Aldaiegia auzoko toponimia. Aldaiegia auzoko baserrien izenak.

Transkripzioa

- [...] ikusten dana?

- Bai.

- Hor bizkarretik [... errekatoraiño ez dok sartzen]. Alde bateko mugarrixa beherañok ikusten dok ta gero harutzao jaukak beste sail bat. Guazen [lehelengotik]. Ezkerrera zuzen gero...

- Aber eutsixon honi, Aran.

- Lastimia zuan denporia hain mozolua egon biharra!

- Bai.

- Ta Gaittaokuak hori hemenditxik haruzko hori barrankuori hori dana ikusten dok ondo.

- Irutontorreta...

- Zein da?

- Hau doia hola, gutxi gorabehera.

- Bueno, hemen azulez darenak die errekak. Eta berdez daren honek tontorrak die. Orduan, [...], hau jungo litzake hola. Orduan, aber... Zuen basarrixan, Gaztelu, da hau.

- Bai.

- Orduan, hau da Angiozarko errekia eta hemen dao Irutontorreta.

- Bestekaldera.

- Hola izango litzake.

- Orduan Errosaixo basua, hor, numeroik bajauka?

- Nun jaok gure etxia?

- Zuen etxia da hau.
 - Hori? Hau Beltxorrena, Aldaietxebarri, Aldaietxia, honek txaletak, hau Aldaiazpikua, hau Askasibarbolua, [txalet] berrixa ez jak? Honek zeintzuk dittuk?
 - Horrek Beitzibarrak.
 - A, Bergara aldera Amuxkibarrak, Beitzibarrak... Beitzibarrak horrek?
 - Bai. Bueno hau ermittian behian...
 - [Ekoona], bai, hori dok, [Ekoona], bai. Ermittia, bestia Beitzibar, Amuxkibar...
 - [...]
 - Aber hau? Lehen esan dozuna, Errosaixo basua, hori? Numeroik jaukan horrek?
 - Hogeta sei?
 - Hogeta seixa don?
 - Ez, ez, ez. Hogeta hamaika.
 - Orduan don Irutontorretatik... hauxe ingurua don. Hogeta hamaika? [...]. Aber, hau Askasibarrera doian errekatxuau, izanik bai horrek? Hemen Irutontorretatik behera dator.
 - Otsalierrekia. Bueno baiña, kamiñotik... Kamiñua nun jak hemen [Angiozarko bidia]?
 -Hau da. Hau da Askasibar basarrixa...
 -Askasibar basarrixa... Askasibar boluko bidia [zabiz], ezautzen dot nik hau kamiñua. Itxoin, itxoin, itxoin. Honek errekak dittuk.
 -Bai.

1.152. Elorregi auzoko toponimia Antzuolako mugan

- **Hizlaria(k)**: Galdos Aiausti, Matilde; Gorosabel Galdos, Francisco Javier; Gorosabel Romaratezabala, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkarate, Miren Pantxeske - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-258/012
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:45:00. **Bukatu**: 00:47:07
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Elorregi auzoko toponimia Antzuolako mugan. Elorregi auzoko zenbait baserriren izenak.

Transkripzioa

- Ta gero beherao dao...
 - [...] iturrixa...
 - Ipiñarriko iturrixa. Hori nun dao... aber... [...] hamen nunbait... zerrajería ta... hemen iturri bat dao, zerrajeriak ura hartzen daben...
 - Bai, lehen...
 - Ipiñarriko iturrixa.
 - Ez dakit hor izengo dan edo beheratxuao izango dan, baiña hor nunbait. [Iguál] beheratxuao izango da, e? Kruzia behetik gora... bai, hementxe da, e? Gutxi gorabehera hortxe.
 - [...]
 - Bueno, orduan, hemen gehixao Etxaube aldera... Hor Egikoerromaia esaten jako, ezta, bati?
 - Egikoerromaia.

- Egikorremaia honitxi esaten jako, punto honitxi.
- Justo kruze hor... hortxe tontor...
- Haraxe, bai, hantxe... paretia dauena bertako...
- Egikoerromaia.
- Gero hor beheratxuauan be badao txabola zahar bat jausitta.
- Bai, jausitta.
- Etxaubeko txabolia esaten jakon?
- Bai, Etxaubeko txabolia.
- [... ikusi be...] txabolarik.
- Harri batzuk dare. Bueno oin, gaiñera, ez dakit igarri be eitten dan, e?
- Zeatik hor eskabadoria ibili zan...

1.153. Uberako baserrien izenak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Gallastegi, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-260/001
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:00
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Ubera auzoko baserrien izenak.

Transkripzioa

- Bueno, lehelengo hasiko gara, ba, Uberatik honuzko basarrixekin?
- Papelari beiratu barik, e? Zeatik izena ipintzen dabe, baiña batzutan igual gaizki egongo da.
- A, bai?
- Bai, baiña nik danak ezautzen dittut, e?
- Bueno, hau goikua.
- Ubera da hori?
- Bai, Ubera. Posaa ta Anduri edo...?
- Bai, ondo.
- Posaa ta Anduri. Gero beherutz?
- E? Arregikua. Arregikua, bai, bai.
- Behera?
- Edo Arreiña.
- Gero Ubera aldera?
- Gero Idarra? Idarra, bai.
- Bat dao bakarrik?
- Idarra bat. Bi, bi, bi, Idarra bi. Bat honek Agarretxokuak daukena bat. Agarretxokuak dauke bat. Hor bi dare. Horrek bi dia.
- Bale. Gero Agarrebeñatik honutz Olañeta ta hor aldian ze daukau? Hamen dago bat...
- Olañeta...
- Olañeta. Beherao?
- Barrenetxe.
- Hemen besteik? Bueno, Artiz eta honek...?
- Artizak honek.
- Ta honek beheko bixak zela dia?
- Hau zera, honi Ankabarren. Hori barrixa da bat. Hori da Elexpuruna.

Ankabarren.

- Ta bestia? Ta onduan daona?
- Eta onduan daona, zerana, horrek ez dakit ze izen daukan, igeltseruana, naparrana. Hori be barrixa. Horren izena ez dakit nik zela dan.
- Bueno, bale, bestekaldera jungo gara oin. Bueno, ta gero hemen aldian, hemen Santikurutz aldian darenak goittik hasitta... Gain-gaiñekua?
- Elizalde.
- Elizalde. Hemen ermittia dao, baiña...
- Ba, Santikurutz hor. Hori Santikurutz.
- Gero, hau...
- Hori Atxotegi.
- A! Behekua ez dou ipini...
- Hori Esperantza.
- Ta gero ya Eugeniona?
- [...].
- Kasimirona?
- Irazabalbeitia, Irazabal...
- Baña Irazabalbeitia ez da esaten, ez?
- [...] Beitti esan lehenau, Beitti. Irazabal hori [...] Irazabal haundi horri.
- Eta hau izenik ez daukana?
- Hori jausitta dao, bai, bai, bai. Hori ya...
- Ez, baiña, bueno, kuadrua dao ta ipini eingo dou.
- A, bai, e?
- Bai, bai.
- Hori Sakona da, lehen esaten jakon Sakona, Irazabal sakona.
- Bale. Ta, bueno, gero etxe [berdiak]. Eta besteik? A! Hau goikua, Martiñena?
- [...].
- [...]. Bale. Oin bestekaldeko basarrixekin. Aber. Hasiko gara... nundik hasiko gara? Bolu...
- Narbaiza-bolun.
- Hortik gorutz hasitta, ezkerretara lehelengo daukauna?
- Paaldai.
- Pagaldai. Bi dare, ez?
- E... Ba... Paaldai, baiña... bueno, bai, bi bizitza, bi bizitza dare.
- Ez, ez, baiña...
- Etxia bat, e?
- A, bale.
- Etxe bat dao hor. Paldaiñekua... Paldaitxo. Paldaitxo. Paldaiñekua ipintzen dau, baiña Paldaitxo.
- Ta gero ya hortik gorutz bakarrik...
- Amatiño.
- Amatiño. Gero Bolutik gorutz baiña eskumako aldera lehelengo daukauna?
- Narbaiza. Bueno, Narbaiza bolu, Narbaiza haundi ta Narbaiza goikua. Narbaiza haundi Narbaiza. Narbaiza haundi ipintzen dau hemen? Narbaiza ipintzen dau...?
- Ez, Narbaiza ipintzen dau.
- Horrek bixak Narbaiza dia, e? Hau barrixa da.
- Eta zela bereizten dia?
- Ba, barrixa [...], Narbaiza guk esaten dou ta. Hau da... hau da lehengua...
- Bueno, igual da. Gorutz jarraituta, ezkerretara daukau...?
- Narbaiza goikua.
- Narbaiza goikua. Bale.
- Gero [...], gero ezkerretara hau gora, hau Urrupain gaiñekua. Hori Ubera.
- Azpikaldian? Hau Urrupain...

- Azpikua.
 - Urrupain azpikua.
 - Barrenetxen onduan daona Bolu?
 - Bolu, Bolu.
 - Hori ze da Urrupain bolu ala Bolu ala...?
 - Bolu.
 - Bale.
 - [Osobolukua izan da], baiña... Osobolu ez dakit nik nundik datorren. Osobolun...
 - Osobolu. Ezkerretara hor ermittia ta onduan bi etxe edo dare...
 - A, bai, bai.
 - Horrek zela dia?
 - Santikua, Etxebarri, Etxebarri...
 - Etxebarri...
 - Etxebarri da. Hori hutsik dao, e?
 - Hutsik dao?
 - Bueno... Bai, bai, hutsik dao hori.
 - Goikua?
 - Santikua, Santikua.
 - Eta ermittia?
 - Ermittia zela da hori? San...? San Mateo y San Celedonio? San Mateo y San Celedonio.
 - San Matei.

1.154. Uberako baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Gallastegi, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-260/002
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:07:20
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Ubera auzoko baserrien izenak.

Transkripzioa

- Hau ze da? Ze izen dauka honek?
 - Santikua ipintzen dau hemen.
 - A, Santikua...
 - Gero bidia behera jarraituta, hor oin [...]ta eitten dabena ta hori, ze izen dauka horrek? Hemen Errotagaiña ipintzen dau, baiña...
 - Errotagain ez da... A! Errotagain? Bai, Errotagain be badao.
 - Bai?
 - Baiña Santiko parian daona? Santiko parian goixan daona?
 - Ez, ez, ez, Uberara sartu baiño lehentxuao ezkerretara geratzen jatzuna, gorutz, kamioiak-eta deskargatzen daben zera.
 - A! Errotain, Errotain. Errotagain, bai. Errotagain, ondo dao hori, Errotagain.
 - Bale. Pista hori gorutz jarraituta, daukau ezkerretara baserri bat.
 - Ezkerretara... A, bai.
 - Zein da hori?

- Hor... Hori... Honek zerak dia, ba, honek Markiegi dia.
 - [...].
 - [...].
 - Bueno, segi. Egurbidiak zenbat dia?
 - Egurbide bi, bi.
 - Bi. Zeintzuk?
 - Egurbide da... bata Gaztelu dia, apellidua Gaztelu dauke, ta bestekaldian itziartarra edo. Bi dia, bi basarri dia Egurbide.
 - Besteik badao inguru horretan beste basarririk?
 - Beste bat bai. Beste bat izena txiki zeoze.
 - Egurbidetxiki?
 - Ez.
 - Abeletxe?
 - Hori [Pello Urzelai...] etxia... Haura zela da? [...].
 - Ubera bertakuak izenik-eta bai Uberan bertan darenak?
 - Ubera bertan barrukuak? Bai, zera! Ubera bertan barrukuak izenik... Errementarikua ta ez dakit zein ta badakit zein ta bai, baiña...
 - Horrek bertakueri galdetu bihar jakue hori.
 - Hoixe, hoixe.
 - [...].
 - Ergutxiki dao hor, Ergutxiki.
 - Ergutxiki?
 - Ergutxiki da hori lehen esaten jardun douna, Ergutxiki.

1.155. Goimendi auzoko toponimia; baserri-izenak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Gallastegi, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-260/005
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:11:17. **Bukatu**: 00:15:04
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Goimendi auzoko (berez, Basalgo) toponimia; baserrien izenak.

Transkripzioa

- Bueno, ya gare hor Goimendi aldian.
 - Bai, [...].
 - Bai? Ba, beinga, bota basarrixak.
 - Bai, bai, bai, bai.
 - Hasiko gara... Hasi Ibarrolan.
 - Ibarrolan hasiko gara. Bale, bueno, ez, ipinitta dao. Bueno, bai, apuntau. Bat.
 - Goratxuao ezkerretara Gaztandola. Ibarrolatik gora.
 - Bai, bi.
 - Gero goiko [hueko] gaiñian Azurtza.
 - Zelan?
 - Azurtza.
 - A! Azurtza.
 - Bai, guen-guenian.

- Bai, baiña Elgeta...

- [...].

- Ez, baiña balio dau, e? Elgetarako balio dau. Segi. Segi. Azurtza.

- Bueno, Azurtza. Beheratxua...

- Itxoin, Azurtzak badauka hola ermittaik-edo onduan?

- Bai, bai, Santiago, Santiago dauka. Gero beheratxua Bergaretxe. Ta gero horren pare inguruan pixkat eskumaratxua-edo Lezeta. Ta gero Intxuzabal. Ta gero oin ez dao, oin ez dao zerik, etxerik, baiña... bazian lehenao hemendik aurrera be.

- Esan, esan.

- Olakorta.

- Olakorta. Besteik badao...?

- Eta Koste, eta Koste. Olakortan inguru-inguruan dao, e?

- Gertu-gertuan?

- Bai, gertu-gertuan. Gertu-gertuan edo bueno...

- Hemen dao Intxozabal, hemen Olakorta. Nun ipiniko ziñuke zuk?

- Haura? Hola, hola, hola.

- A, bai?

- Holaxe, holaxe. Holakotxe baten.

- Hau erreka da? Hau erreka da? Hau erreka?

- Bai.

- Beheko erreka da hau, e?

- Bai, bai.

- Sagar-erreka da hau, e?

- Bai.

- Hau Sagar-erreka...?

- Ba, holaxe, holaxe. Sagar-errekatik haura holaxe beheratxua, Olakorta baiña beheratxua, hortaraxe. Horrutza, horrutza. Edo hamendik urten ta honao, honutza.

- Hor... hemengo errekia buruz?

- Sagar-erreka dala, besteik ezebez.

- Besteik ezebez?

- Kitto. Ta sagarrik ez dauka! Asike...

- Bueno, oin hasiko gara tontorrekin? Mendi-tontorrekin. Hemen inguruan ezautzen ditteunak...

- Tontorrek ze...? Bueno!

- Hor bat laga dou lehen...

- Asula.

- Asula?

- Asula, hori Elgetakua da.

- Elgetakua da? Bale. Hamar.

- Asula, Asula ta Beizu.

- Ta Beizu? Beizu, hamaika. Bale. Ba, Beizu gaiñian ze daukau? Bueno, Azkonabittatik hasiko gara.

- Bai, Azkonabitta. Gero Larrosin. Gero hor dao Larrosin be.

- Larrosin...?

- Honutza, honutza.

- Asulatik Bergara alderao?

- Bergara alderao. Larrosin.

- Azkonabitta ta Larrosin bittartian beste bi edo hiru puntatxo badare, horren izenik bai?

- A, bai, bai, bai. Horren izenik ya...

- Horren izenik ez?

- Horren izenik...

- Larrosindik Basalgora bittartian ze daukau?

- Bueno, beste bi puntatxo. Galdaramiño dao beste bat, Galdaramiño.

- Ze da tontor haundiña beste [bixekin...]?
 - Bai, zera-ta darena, hor antenak eta badare, ba?
 - Hauxe izango da, orduan. Hor lautadaxua edo dao?
 - Bai, bai.
 - Bale.

1.156. Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

- **Hizlaria(k):** Inza Askasibar, Bizenta; Inza Askasibar, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-262/001
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:30
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

Transkripzioa

- Bueno, honek kalekuenak akordatzen zarietak eingo douz? Hemen goittik hasitta...
- Izenak? Bai, bota.
- Jazinta-ta bizi dienak?
- Horrek Gariketxe. Bi... hiru Gariketxe.
- Hiru Gariketxe dia?
- Hiru, bai, hiru dia horrek. Zera, Jazinta batien ta Jazinta bestien ta erdixan Eugenio. Etxe bat.
- Bai.
- Otxoa...
- Ta etxe guztiak Gariketxe?
- Graiketxe, bai. Otxoa bi zerekin, errentero [...].
- Bai, bai, bai.
- Ta gero, hau...
- Jose [...] bizi ziena ta honek ze izen dauka?
- Dolaria.
- Dolaria, baiña...
- Hori etxe bezela ez zan lehen.
- Ez.
- Hori zuan txabola bat bezelaxe zuan.
- Bai.
- Beste izenik edo emoten jakon lehen horri?
- Ez, dolaria...
- Dolaria esaten gontsan guk.
- ... sardaua-ta itten zittuen ta dolara moduan zeuken ipinitta.
- Usoetxe-edo ez daukazue entzunda?
- E?
- Usoetxia edo?
- Usuak eta danak eukitzen zittuen, bai.
- Hor uso ta... bizimodua hor eingo juen. Oin, [...] porejenplo, zera ta...
- A, bueno, baiña...
- ... [...] geroko zerak dia, geruau eindako obrak eta gauzak.

- Hori? Geuriai zela deitzen dotsazue?
- Jakobena honek beti.
- Jakobena, amandria zuan Jakoba ta...
- Bai, bai.
- Bueno, Jakobena... beronen izena Mitxelena.
- Hori aurretik izen hori?
- Aurretik. Eskriturretan-ta Mitxelena azaltzen dok. Baiña gero, ba, Jakobena, amandria Jakoba zan ta... Jakobena. Ta hamen be nik neuk beti holan ezautu dot, baiña gure ama difuntiak esaten zeban ez dakit zenbat bizitza ziala etxe hontan; lau edo...
- Bai?
- Bai, sukaldia kuarto batekin edo birekin ta... behian ta hamen goixan be...
- Zenbat bizitza, baiña zenbat familixa bai hamen etxe hontan... auskalo nundik norakuak!
- [Mitxelesia] ta ez dakit zertzuk ta badakit zertzuk ta...
- Hau, e... Angel "Potolo" bizi ziena eta hori? Hori dana bat da, ez, Garaiketxe dana?
- Bai, bai, dana bat. Angel "Potolo"-ta bizi ziena-ta bizitza bat, ezta? Erdixan Eugenio eta gero... [gero beste batzuk].
- Ta zera ta be... zera be... oin Angeles ta bizi dian etxia be bat zonan.
- Bai, bai.
- Don Rafael Uskanga. Uskanga [...].
- Ta ze izen dauka etxe horrek?
- Guk Sakristaukua esaten gontsan.
- Bai.
- Lehenao sakristaua ei zan horko zera, bai? Ta Sakristaukua.
- Angeles-ta bizi dienai?
- Bai, bai. Baiña bat zuan, e! Ez jeuan horrenbeste zerik.
- Behian, zera, kortia...
- Bai, bai, bai.
- Oin sozidadia dauen lekuan.
- Sozidadia dauen lekuan ta gero goixan, ba, balkoi haundi horrekin sala haundi bat ta gero aldemenera beste kuartotxo bat, sukaldia, despensia ta gero atze partera, ba, fregadera ta holan. Ta gero goixan, ba, zerak...
- Ta gero goixan habitaziñuak.
- ... habitaziñuak.
- Orduan, Sakristaukua hori?
- E?
- Sakristaukua hori?
- Bai.
- Ta beste izenik ezautzen dozu horrenik?
- Nik neuk ez.
- Ta hau bizi dana, Juanita, ...
- Azulena.
- ..., Bittor-ta?
- Azulena.
- Azulena, bai.
- Gero, hor besteik? Dendia-ta dauena?
- Ba, hari, ba... añadido bat, "un añadido a la casa"... horrek be... horixe.
- Horrek izenik...
- Izenik horrenik ez dou guk sekula...
- Mikeo ta bizi...
- Baiña bizi izan zittunan hor be, e!
- Bai, bai, bizi izan dia, baiña ez dakit nik zer. Mikeo-ta bizi dianak, ba, horrek be, ba... guk hor lehelengo ezautu giñuan, ba, Juana Joxepa ta Domingo.

- Ta izena horrek? Zela deitzen [dotsazuen, ez]?

- Juanajoxepanekua.

- Juana Joxepa esaten gontsan ta. Juana Joxepanera ta Juana Joxepa gora ta Juana...

- Bai, ba.

- Ta horrek be... hori be zan bizitza bat, ta gero goikua, beste bizitzia, gerora aña didu zotsen. Bai. Horra etorri zian Iruaindik [...] abadia -bueno, zuek ez ziñuen ezautu-, don Paulo, Berraondos. Berraonduak bizi izan zian zerian, bigarren bizitzan. Ta gero, beheraokua, Errementarikua.

- Jose Martiñena...

- Jose Martiñena.

- Gero, berriro erdirutz etorritta, Maribelek tabernia daukana ta hori?

- Hori, ba, Taberna zaharra beti.

- Taberna zaharra.

- Beti? Etxe guztia?

- Bai. Hori etxe txiki bat zan. Gero... Horrek alde bittara daukaz aña diduak. Bai.

1.157. Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

- **Hizlaria(k)**: Inza Askasibar, Bizenta; Inza Askasibar, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-262/002
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:09:32
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

Transkripzioa

- Hori erdixa zuan bakarrik Taberna zaharra ta hori beste aña diduoi aiuntamentuana ei zuan. Aiuntamentuana edo herrixana.

- Alhondigia herrixana.

- Ta gero... alde bittara dao hori aña diduta, e?

- Alde bittara, bai, bai...

- Guk alhondigia ezautu giñuan alde batera...

- Alde batera.

-... [zeran] aldera, Bentaneko aldera. Ta bestaldera, ba, zan... erak holan txabolatxo moduan zeuken aña dido bat eindra karrua-ta eukitzeko. Ta gero, ba, jua zittuan aña diduaz, aña diduaz... gero eskillaria be etara zerera, plaza aldera, ta goiko pisua ein. Baiña bestela hori beroi, izatez, etxe txiki bat.

- Taberna zaharra.

- Hau, Doroteanai ta horri?

- Horri, Dorotea [...] bizi dan tokixai, Kapaingua esaten zotsen. Ta bestia Pepi-ta bizi diana... gero bestia... Pepi-ta [daren] etxia, ezta? Ta hori aldemenekua Polonia bizi izan zana...

- Polonia bizi zana...

- ... ba, haren errentero bezela. Errenteruan etxia.

- Bai, bai, bai, bai.

- Horrek be ez dakit, izenik guk horrenik ez dou...

- Pepi-ta bizi dianak, horrek izenik bai?

- Horren izenik be...

- Don Ferrandonekua edo...

- Don... Berraondonekua.

- Don Fernando izena ta don Frando, don Frando esaten zotsen.

- Bai.

- Don Fernandonekua.

- Antxiñako[...].

- Gu txikixak giñanian [horitxe] izenori zeukan horrek etxiorrek. Ta gero tian ta... tianekua. Ta horren izena ez dakit zela izango dan. Hori be...

- Garitanotarrak dittuk horrek. Harek [... etxian eskudua eukiko...], ezta?

- Bai, [...].

- Etxiai horrei izenik emoten zotsazuen lehen?

- Guk geuk beti tianekua.

- Hor... Altzuarantarrak Altzuaranguak be horren tartekuak zian.

- Altzuaranguak ez dauke horrekin ze ikusirik.

- Ba, errenteruak zian Altzuaranguak eta [...] edo zera... erre zan etxia... zela dok?

- Altzerreka.

- Eskudian jaukezen danak, etxe guztiak, eta eren izenekin ta danekin; "un cuadro"...

- Bai... Altzuaranen bizi [ei] zian... hori gero hemen kalia ein ei zeben etxia, hori, tianekuen etxia, ezta?

- Bai, bai.

- Altzuarandik horra etorritta. Erak, ba... bueno, hamen [eingo] zien ta gero errenteruek [Altzuaran...] errenteruek ta Altzarreka. Baiña gero beste...

- Ta zeuek esan horrei Tia Antoniña edo, ez?

- Bai, Tia Antoniña.

- Horixe, Tia Antoniña beti esan.

- Bestela horren apellidua, ba, Garitano Zabala dia.

- Zera... Juan bizi dana?

- Ba, hori be txabola bat ei zan.

- Ta izena? Izenen bat ez dotsazue esaten horri?

- Ez. [...] Franzisko arotza.

- Franzisko arotza [...].

- [...].

- Ta etxiai, Arotzana edo holakon bat ez ziñuen erabiltzen?

- Franziskonekuek, Franziskonekuek. Gero, berriz, Beketxe.

- Hori, hori, hori.

- Sakristaua bizi zien etxe horrek izenik?

- Beketxe kuena.

- Beketxe kuena.

- Beketxe kuena?

- Ta oin be bai.

- Beketxe kuena. Beno, Beketxe kuek edo...

- Ta deittu zelan eitten otsazuen horri?

- E?

- Izenik esaten otsazuen horri?

- Hor be, ba, bizi izan zian [aguretxo] bat Pantxi izena zeukana ta gero bestia zein zan... bi bizitza zittuan lehen be, kanpotik... bueno ez, barrutik eskillaria etxian erdi-erdittik gora eskillaria goiko pisura.

- Ta etxiai izenik ez zotsazuen emoten?

- Ez, Pantxiñekua. Ta gero beste etxe bat, oin... bueno, zela da? Elizburun etxia...

- Bai.

- Hari zela esaten jakon?
 - Ahaztuta be banao ni. Lehen banajekiñan, baiña oin ahaztu!
 - Hori erak jakixek.
 - E?
 - Erak jakingo dabe...
 - Erak jakixek [...].
 - [Hamen] etxien izenak, generalmente, danak etxekuen izenak. Elizburuna ipini ta kitto! Ze ingo dozue, ba?
 - Ez, baiña lehenao besten bat deitzen bazotsazuen, ba, horixe.
 - Erak jakixek, erak jakixek.
 - Hori...
 - Erak jakingo dabe, [...] jakingo dabe.
 - Bai.
 - Hori errentero eukitzen jonen zerak, ta gero beste etxetxo bat be bazuan hor harutzao. Oin ha be desapareziduta dao. Zera, Dorotea-ta bizi izan zien han. Kamiñerokua esaten...
 - Kamiñerokua.
 - Bai. Etxe txiki bat.
 - Ta Kamiñerokua zeñi deitzen dotsazue? Oin ez dao etxe hori?
 - Dorotean aitta zuan kamiñerua.
 - Bai, bai, bai. Ta etxe hori hor zeuan? Elizburunan ta parian?
 - Harutzao.
 - Harutzao. Oin ortuai emonda dao ha terrenua. Bota zeben “de cuajo aquella casa”.
 - Handik gure ortura bittartian zeuan?
 - Ez.
 - Ez.
 - Hutsa, etxe txastar-txastar bat zuan.
 - Hemen.
 - Hari pegauta?
 - Bai.

1.158. Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

- **Hizlaria(k)**: Inza Askasibar, Bizenta; Inza Askasibar, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-262/003
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:09:32. **Bukatu**: 00:14:34
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak. Taberna berria eduki zuen familia nondik etorria zen, non bizi ziren eta abar aipatzen dute.

Transkripzioa

- Elizburunai pegauta gutxi gorabehera?
 - Pegauta gutxi gorabehera.
 - Ta hori zan Kamiñerokua?
 - Kamiñerokua bai, baiña ya... “desparecido también”.

- Eta gero haren onduan beste etxe bat.

- Zein?

- Ez jaon beste etxe bat han?

- Ez dao besterik han!

- A! Besteik ez...

- Ez dao. Gero...

- Gero gorutz... Petra-ta bizi diena?

- Bai, [Anizetona] esaten gontsan guk hari. Eta gero zera-ta bizi diana, sargentua ta bizi diana...

- Julian-ta bizi diena?

- Bai, hari, ba, Saturniña bizi izen zan han ta Saturniñanekua. Hori Gaztañikuen etxia da. Ta gero bestia...

- [...].

- ... gero Agustina ta bizi diena "es un añadido de la otra casa".

- Bai.

- Horrek izenik be ez dauka ta bestiak be ez. Izena, ba...

- Hau... Jareikuak eta horrek ez dauka?

- Ez. Hori etxioi ein zeban... bueno, [ein]... abade bat. Hor lehelengo bizi izan zan abadia bere aittakin ta kriadiakin ta. Don Claudio zeukan izena abadiak, don Claudio Aranguren. La casa esa tiene [escudo y] todo, yo no sé qué...

- Hor tabernia edo ez zeuan lehen?

- Bai.

- Taberna harek izenik edo ez zeukan? Tiari entzunda edo daukat...

- Taberna barrixa edo... Ta horre... hor tabernia euki zebenen familixia dia, hau... Paco... Paco Serrasen andria hementxe jaiotakuak izango dia.

- Tabrnia zeuan hor? Ze izen zeukan? Taberna barrixa?

- Baleike.

- Bestia honek...

- Bai?

- Bai, bai, bai, bai, Taberna barrixa.

- Bai...

- Taberna barrixa, hi.

- Bai, Taberna barrixa. Bestiak... horrek aizta bi, ta anaia hil zan ta beste aitzia ez dakit bizi dan Paco Serrasen andrian aitzia. Ha uste dot hilko zala. Horrek zera jaukek...

- [...].

- ... Etxaube... Etxauben tabernian entzueria eukiko dozu Bergaran?

- Etxaube? Ez dakit...

- E? Etxaube... Horren aittajunari esaten otsen Etxaube. Pelotarixekin ta ibiltzen zan asko. Hantxe... Oin dendia bajaukek, ba, horrek, librerixia, Ana Rosan...?

- Bai, bai.

- Ana Rosan suegria... suegrian ama hementxe Angiozarren jaiotakuak, Taberna barrikuak.

- Hurrenguai? Dendia dauanai-ta?

- Maritxunekua?

- Bai.

- Hor bera, ba, hori be zuan etxe bakarra.

- Ta izenik edo bazeukan horrek?

- Nik ez jakixat ze izen eukiko daben. Horren eskriturak be gurian [bajaukat].

- Maritxun dendiak bazeukan izenik?

- E?

- Maritxuk dendia daukan [...] etxiak?

- Tabernia dauenak eta honek?

- [...] izena.

- Ba, hori, ba. Hori tabernia...

- Hori dana da bat?

- Ez, Maritxunekua ta tabernia daukenak bi etxe zian; batian bizi zan maistria eta bestian abadia, don Manuel. Eta gero hori etxioi, tabernia daukana, gure aittak erosi juen. Erosi hori beheko soluoi erdixa zuan bakarrik eta gero beste erdixa eta goiko basua piñudixakin etxe horrenak zian. Eta aittak hartu zittuen. Izenik horrek... [...].

- Tiai... Juan, tiai preguntixok aber akordatzen dan.

- [...].

- Ezta...?

- Zeaittik daki, ba, gutxiao?

- Ez dabelako sekula kaso eitten.

- Ta hor oin Beheko tabernan azpitan daon etxe txiki bat? Han bakar bat, etxia, txabolía...

- Beheko taberna azpitan?

- Juan Luis [Lugaristi ta honek] bizi dianan aurrian...

- Bai...

- Txabolía.

- A! Haura txabolía? Txabolía beti haura. Ta hori Juan Luis [...] ta horrek lehen kortak zian. Ta gero...

- Ta izenik emoten jakuen horrei?

- E?

- Izenik emoten jakuen horrei?

- Ez.

- Ezebez?

- Ez. Guk beti Don Manuelenekua.

- Bai, don Manuel bizi izan zuan, abade bat bizi izan zuen.

- Hori, zeuek deitzen baotsazuen Don Manuelekua, horixe.

- Bai. Oin aurretik ez jakixat ze, baiña horixe.

- Abadia bizi dana?

- Parrokuanekua beti.

- [...], eliziana da hori.

- Eliziai izenik emoten dotsazue?

- Elizia? San Migel.

- San Migel?

- Bai.

- Abadetxia [horrek], Abadetxiak. Ta horri zerorri, barrixo horri esaten otsen Abade kalia. Abadiak bizi zittuan han ta Abade kalia.

1.159. Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

- **Hizlaria(k)**: Inza Askasibar, Bizenta; Inza Askasibar, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-262/004
- **Iraupena**: 0:03:25. **Hasi**: 00:14:34. **Bukatu**: 00:17:59
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

- **Laburpena:** Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak. Gariketxeko albergearen inguruko kontuak; bertara joatearren arropak garbitzera ordaindu egin behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Errebueltai ta horrek?
- Bai. Lehenao, zeatik alde batian -hori, esan dotsutena- don Klaudio, Legorburutarren etxian bizi zuan, beste aldian don Manuel ta beste aldian parrokoa.
- Parrokua. Hiru abade ta don Rafael hamen, lau abade, ta oin bat eta sarrittan ez juau eukitzen [bertan].
- Bat eta bera be ez sarrittan.
- Hor palan ta pelotan ibiltzen dianai ta horrei zela esaten dotsazue?
- E? Zeiñi?
- Elizako sarrera horri.
- [...].
- Aterpiai, hori da.
- Elizpia.
- Ikusi dittuk zela [...]....?
- Hemen [...] hemen be beste etxe bat jauan, e?
- Hamen eskolia jeuan.
- Ta horrek ze izen zeukan?
- Eskolia.
- Eskolia.
- Eskolia?
- Eskola zaharra esaten gontsan beti, Eskola zaharra.
- Ta horrek bestiok?
- Horrek barrixak dia.
- Horrek barrixak dia.
- Ta izenik emoten otsazuen?
- Horri ez. Eskolak, eskolak.
- [...] izenik. Etxia edarra ein juen, baiña atzera juan zuan pikulittara.
- [...] zenbat urte dia, ba, horrek ein ziala, hogeta hamar urte?
- [...].
- Eskoletan gaiñian daon albergiak izenik bai?
- Ez.
- Albergia beti, Gariketxeko albergia. Han erropak garbitzera fateko pagau ein bihar zan dirua, txakur txikixa edo txakur haundixa, ze erropa eukan hainbeste pagau bihar.
- Zeiñi?
- Ochoan zeraí ... suegria, edo zera... amai.
- Joe... Majo...
- Ta erakutsi ein bihar zenbat erropa zaroiazun?
- E?
- Erakutsi ein bihar zenbat erropa doiazun?
- Bai, ikusi ein bihar ta etxeko andriai erakutsi bihar baldia, zenbat erropa. Ta lixibia zeuanian bi txakur haundi edo erriala. Ta esegitzia Esparrua zuan, hortik zihar faten giñuazen...
- Oin piñua egon dan zera...
- Piñudi... Bai...
- Hori zer zan? Izena zeukan horrek?
- E?
- Inguru horrek izena... deitzen otsazuen?
- Esparrua...
- Esparrua. Erropak esegitzera juaten edo... zertzen... ipintzen giñuazen.

- Ota gaiñetan erropak esegi.
 - Ez jeuan ezer ta...
 - Ota gaiñian?
 - Orduan be bizi ta oin be bizi...
 - Ota gaiñian?
 - E?
 - Bai.
 - Oten gaiñian?
 - [...] bai ta [...] zerak, erropak ipini.
 - Errekatxuai hor goittik behera datorrenai, izenik?
 - Errekatxua guk beti esaten gontsan ta...
 - Gero han behian [Axxunetara] goiazela, kamiñuan, kotxiak eta [garbitzen] dien inguru horri zela?
 - Garrazteiko ura esaten gontsan guk hari, ta oin be bai, Garrazteiko...
 - Horri, e...
 - Garrazteittik goittik behera datorren ura.
 - ... Munajausi.
 - Hori, hori, hori, inguru hori.
 - Munajausi. Bai, Munajausi dauka leku horrek... Bueno, gero... gero ipinitta dao... zera, klaro...
 - Bai, bai, bai, bai.
 - ... hor sarrittan etorri dok hori goittik behera. Sarrittan, e!
 - Ta hortik gorutz soluei edo ortuei edo hola izenik? Akordatzen zarie?
 - Bakutxak berak emongo otsen bere izenak, ez jakixat, ba...
 - Ta gure ortuak ze izen jaukek, ba?
 - Ez, horixe, ez dakit. Ez badauke bapez, baiña bestela, ba...
 - Falcon Crest.
 - Horixe.

1.160. Angiozarko baserri edo eraikinen izenak

- **Hizlaria(k)**: Inza Askasibar, Bizenta; Inza Askasibar, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-262/006
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:19:36. **Bukatu**: 00:22:36
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Angiozarko baserri edo eraikinen izenak. Angiozarko toponimia.

Transkripzioa

- Bai, Jausua dok Bolu, badakik, lehen...
 - Bai.
 - Handik kanposantura bittartian zeuan zer bat.
 - Bolu be desaparezidu zuan konpleto.
 - Bai, bai, bai. Jausua.
 - Boluko etxia be...
 - Hor inguruan beste izenen bat hola akordatzen zarie?
 - E?

- Olaitturri ta halakuak...
- A! Olaitturri, hori goixan dao.
- Bai. Gehixao?
- Lehenao be Munaben be etxia ei zan. Bueno, oin be bai Argietxia edo, ezta?
- Argietxian aurretik beste etxe bat zeuan?
- Bai, halan, baiña urak erun ei zeban. Nik entzunda, e? Neuk ez dot ezautu.
- Neuk be ez. Ez non akordatzen neu be harekin.
- [...] han bizi zala zapatero bat, zapatak-eta arreglatzen zittuana.
- Hor beste etxe bat be bazeuan hemen Andiketxe ta Zuaizketa bittartian edo...
- Beste... ez...
- Ez? Hor ez zeuan?
- Hor ez zeuan beste etxeik; hiru Aiñeixak, Zuazketa, Andiketxe...
- Zerian, Manddaan, Txaingua ta Pablona bi bai behiñipeiñian. Jarei gaiñekua...
- Jarei gaiñekua oin arreglatzen jabiñaz [...].
- Ez, Menitorre da arreglatzen [...].
- A! Menditorre...
- Jarei gaiñekua eta Arrate.
- Ta Txaingua...
- Arrate be desaparecido está.
- Bai, bai, han errebueltan bertan zeuana.
- Bai, haren gaiñetik oin kamiñua doia.
- Eta Txaingua zein zan?
- Ba, horixe, ba, Txaingua edo Pablona hortxe Menditti...
- Bai.
- Mendittin onduan. Ta bestia gaiñekaldian.
- Menditti ta Menditorre bittartian zeuan Txaingua?
- Bai, bai.
- Ta Txaingua ta Pablona berdiña da?
- Baietz uste dot.
- Eta hor ze familixa bizi zan?

- ... ezta? Baiña bestaldian Bietiana, oin zera dauen tokixan, elizpia daon tokixan...
- Elizpia dauen lekuan...
- ... haren gaiñian etxebizitzia zeuan.
- Ta zelan zan hori?
- Ba, Elixamendiko eliziana hori.
- Eliziana.
- Bietian etxia.
- Bietiana. Ameriketara fan zuan bera.
- Han kurutzia eta daren inguruan?
- Ez, ez, bertan...
- Bertantxe, bertan.
- ... elixian pegante.
- Elizpia dauen lekuan, bertan goixan.
- Sukalde bat eta kuarto bat.
- E?
- Sukalde bat eta kuarto bat edo holakon bat eukiko eben etxorrek. Hutsa.
- Eta gero zerian... goixan, Pantxika ta bizi diana...
- Jareikotxo.
- Jareikotxo. Han bat ezautu izan jonau guk beti.
- Bai.

- Jareikotxo.
- Horko inguruak eta izenik badauke? Soluak eta...?
- Erak... Bai, eukiko dittue, erak... hori eran etxian jakingo juek...
- Bueno, zeuek ezautu dozuena edo entzunda edo...
- Ez, guk ez, guk ez jakixau horren...
- Honek kalekuak dittuk!
- Guk... Hori erak...
- Tontor honek Euzkitzatik gora hemen dauen honek izenik badauka?
- Ez, eukiko dau, baiña ez dakit nik... Garrazteigain. Garraztei...
- Bai, gero gaiñak, goixan dauenak?
- Garraztei [...] saillak.

1.161. Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

- **Hizlaria(k):** Atxotegi Askasibar, Jazinta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-263/001
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

Transkripzioa

- Kaletik hasi igual. Kale-etxien izenak edo holan akordatzen zaranak? Honi, zuenai?
- Hau Garaikoetxea.
- Bai. Ta zeuek esan Garaiketxe, ez?
- Gariketxe, Otxoana ta hola.
- Bai.
- Baiña izan Garaikoetxea da.
- Zeuek esaten dotsazuena, e?
- Bai. Ha Otxoana.
- Bai. Aurrekua?
- Dolara. Baña Dolara... guk Dolaria.
- Bai?
- [...] Dolaria. Usoetxe ez da, ba? Hori ointxe enterau naiz ni...
- Bai, hor [...].
- Guk Dolaria.
- Bai. Zeuek esaten dozuena, e?
- Bai, guk esaten douna.
- Bueno, gu bizi garana da...?
- Jakobana guk, Jakobana.
- Gero, hor... hau... Luis Marinak eta horrek be izena bazeukan, ez?
- Horrek Sankristaukua.
- Gero, Juanita bizi dienak eta?
- Azulana.
- Hau Jose Martiñena-ta?
- Errementarikua.
- Mikeonak eta izenik badauka harek edo...?

- Hori zerana, Juanajoxepa.
 - Bai, bai, tiak be esan dosku hori.
 - Maribelena ta?
 - Pakon tabernia... Taberna zaharra. Pakon taberniari Taberna zaharra.
 - Doroti-ta bizi dienak?
 - [...] itxoin, harena... haren [...]. Ez dakit [...].
 - Zela zuan...?
 - Kapain...
 - Ez...
 - Ez jata [...].

- Kamiñerokua. Hori da hauxe, bai, Kamiñerokua. Hori da.
 - Polonia bizi zanak harek izenik bazeukan edo...?
 - Horrek zera, [Ingurio] ta Teresa.
 - Ta etxiak izenik bai? Ez dau hartzen? Pepitanak eta?
 - Benita? Ba...
 - Pepita, Pepita.
 - Pepiñak, ba... Pepitanak zerana Juanita [...] esaten giñuan. Baiña horrek Fernando, Fernando [...].
 - [...].
 - Kaietanona eta hola horren...
 - Tia Antoni bizi diena ta hori dana?
 - Guk Antoniñekua horri.
 - Juane ta bizi diena?
 - Juane... Patxi arotzana, Arotzanekua, Arotza.
 - Bestia? Hau...?
 - Beketxe?
 - Julitana-ta, bai.
 - Bekoetxe.
 - Gero, San Kristobal bizi danak horrek izenik?
 - [...] izena... [...] Garrazteikuena da hori, Garrazteikua [...]. Horrek bajittuen izenak, guk... umiak giñan ta...

1.162. Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

- **Hizlaria(k)**: Atxotegi Askasibar, Jazinta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-263/002
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:03:30. **Bukatu**: 00:05:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Angiozar erdiguneko etxe eta eraikinen izenak.

Transkripzioa

- Bestiak Joxe Elizburunak bazeukan horrek?
 - Joxe Elizburuna da hori, hori, ba.
 - A! Dana?
 - Bai, dana, dana bat da hori.
 - Petranak-eta?

- [Panaderixakua] edo... Marijoxepana.
 - Hau be Marijoxepana hori?
 - Marijoxepa zerana...
 - Bestia Juanajoxepana. Bai. Julian serenua ta bizi dienak? Hori dana da?
 - Hori Saturninana, Saturninan etxia.
 - Agustinana be dana bat edo...?
 - Ez, horrek bi.
 - Ta Agustinanak beste izenen bat dauka?
 - Jobitana edo [...], Jobita...
 - Agustinanak?
 - Bai, Jobitana horrek.
 - Ta gero Jareikuen ta etxe hori?
 - Horixe bai Juan Elizamendi... Legorburutarra hori, Legorburutarra.
 - Ta etxiai izena hori emoten jakon?
 - Bai, bai, hori esaten gontsan guk, Legorburutarra.
 - Maritxuneko etxe horri? Dendia dauan etxiai?
 - [...] Don Inazio. Don Inazio bizi zan. Horko zerik...
 - Bale, bale.
 - Beheko tabernia, hori be... Han parian behian dauen etxe... etxia edo txabola moduko... han... zahar bat... hutsik dauena, haura?
 - Baita, baita.
 - Harek izenik bazeukan?
 - Hori [...] zan. Bai, oin ez jata [...]. Hori taillarra zan. Pakon taillarra [...] aittajunana zan hori. Taillarra zeukan hor.
 - Ba, trankil. Besten baten akordatzen bazara esango dostazu. Gero abadia bizi danai?
 - Abadia bizi dana, ba... parrokoa? Parroko etxia. Parrokoetxe, hori Parroko etxia.
 - Bale. Hor besteik kaleko etxen bat edo ez dao, ez? Uste dot ezetz.

1.163. Aita perratzailea

- **Hizlaria(k):** Arrieta Larrañaga, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** BER-312/002
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:01:35. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Gazte-denboran Errementarikua etxean bizi izan zen. Aita perratzailea zen. Hankak bigunak izaten dituzte zenbait aberek eta haiei hanka azpia sendatu eta perra jartzen zitzairen. Probarako ganaduantzat perra bereziak egiten zituen aitak.

Transkripzioa

-Denbora asko bizi izan zifien han edo...?
 -Bai, bueno bai. Hona etorri nitzan hamazortzi urtekin edo hola. Hamazortzi urte.
 -Orduan txikitan eta gazte izan arte baserrixan bizi izan zara.
 - Bai bai,
 -Eta animalixak-eta bazekazuen?
 -Animalixak beti, etxeko animalixak. Ta gero aitta perratzaillera zanetik beti

animalixak gurian. Perratzaillia, ez dakit badakizun, badakizu zer dan?

- Ez.

- Ba ganauaei ipintzen jakue hanketak perrak. Batzuk izaten dia hanketan zera eittekuak, jartzekuak (...). Eta hori perratzaillia, nere aitta zan perratzaillia. Eta hanketan ipintzen jakuez perrak: astuai, kaballuai, behixai, idixak...

-Zetarako ipintzen da?

-Ba proban eitten dabenak be perrak bihar izaten dittue. Harei eitten zotsan gure aittak pixkat espezialtxuak berak eitten zotsan, zer batzuk, segun zela bihar daben. Porke hanka batzuk eukitten dittue bigunak, hurrengo ebaixa be eitten jakue, eta kurau ta perria ipintzen zotsen, eta kaballuak eukitten dabe ba perria, ezagutuko dozu zuk "la herradura tal" eta ganauak diferentie eukitten dabe.

2. Lanbideak

2.1. Errementariak lanerako erabiltzen zituen arropak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/017
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:29:28. **Bukatu:** 00:30:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Lanerako erabiltzen zituzten arropak.

Transkripzioa

- Eta zuen trajia ta? Ze buzo klase edo ze erabiltzen ziñuen?

- Bonbatxon batzuk edo... Ta gero suteixan ibiltzeko, ba, narruzko amantal bat edo izaten da. Baiña hori be... oin ez da usatzen hori.

- Eta gero alpargatak edo... ze?

- Ahal dana! Ahal dana...

- Txokoluak be bai, ez?

- Baita. Ez, txokolorik ez nik, baiña...

- Nik leittuta daukat hor, lehengo oletan-ta erabiltzen zittuela alpargatak, hola oso errezak etaratzekuak. Oseake... zeozer, sua edo jausi ezkeru zeozer laster etaratzeko, hankia etaratzeko.

- Oin esijidu [... itxuria], baiña lehen ez zeuan. Zu akordauko zara herrero [bizarrek] eitten zittuan abarketak?

- Bai...

- Halakotxe puntapaixak hankan [azpiban].

- Bai, eta goma puskat azpiban...

- Kubiartako gomiakin eindda.

- Eta abarkak, Aperribaiñian eitten zittuenak...

- Baita.

- Kubiartekin, sandaliak moduan, baiña dana gomiakin. Abarkak eitten zittuen. Aperribaiñekua, taillarra zeukan horrena.

2.2. Lanerako beharrezkoak zituzten tresnak

- **Hizlaria(k):** Urkiola Lazpiur, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-006/007
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:20:32. **Bukatu:** 00:23:55
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- **Laburpena:** Erabiltzen zituzten tresnak: mailuka, tenazak, zuloak egiteko matxoak, giltzak egiteko klaberia, porrikak.

Transkripzioa

- Beste tresnan batzuk?

- Ba maillukia eta tenazak; tenazak bia zien. Tenaza klase asko zaren, olako barra batian tenaza mordua eukitze zaben, segun ze pieza bia zan atzea be, ta modifikau tenazak itten zien kontinuantemente, guri aillegatzen baldin baakun pieza raron bat, oni obatu biar por ejemplo, ba oni erozein tenazakin ezin leike obatu, ondo-ondo obatzeko tenazak karteau eitte zien. [...] Por ejemplo zuluak eitteko-ta burdiñiai, matxuak ibiltze giñuan, baiña kuadruak, rektangularrak, borobilla, baiña mordua eote zan, e. Ta gero ba giltzak eitten giñuan, ta aura ittekua, giltzak eitteko ari esate jakon klaberia; aura erderazkua zan, klaberia esate akon. Baiña giltzak eitte giñuan ba klase askotakuak. Klaberia da burdiña bat treinta por cientocincuenta, ta an zuluak zaren, segun ze giltza bia ziñuan alako zuluak zaren, ta kuadru aura, giltzian kuadru aura sartzen ziñuan tokatze akon zuluak, ta beti kanpora urtetzen dau zati bat, kanpora urtetze jatzu, eta geo auraxe forjau bia zan, bai, eta gero ba formia emon, da errementarixan abilidadia zan aura ondo etaratzia, doblau itte jatzu bestela ta.

2.3. Giltzak egiteko prozesuaren nondik-norakoak

- **Hizlaria(k):** Urkiola Lazpiur, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-006/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:23:55. **Bukatu:** 00:25:55
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa
- **Laburpena:** Giltzak zelan egiten zituzten. Prozesu guztia azaltzen du.

Transkripzioa

- Giltzak zelan eitten ziñuzten?

- Giltzak, artu barilla bat eta lelengo kuadruatu ta zorroztu, ta geo gaiñ aura sartu klaberan, ondo-ondo berotu eta aura forjau, eta gero etaratzte akon ba prisma, prismia ero medialuna etaratzte akon. Orrek izate zien atiei tta, egurrezko atiei tta ipintzeko.

2.4. Lihoa eta artilea

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:07:43. **Bukatu:** 00:10:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Lihoa (linua) eta ehuleak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Errondak zelakoak izaten ziren. Andrazkoak lihoa (linua) iruten egoten ziren eta inguruko mutilak joaten zitzaizkien. Gorua, ardatza. Batez ere ohe-arropa eta alkandorak egiten ziren lihoarekin. Artilea. Goruetan egiten zen hau ere, baina askoz sendoagoa zen. Gizonezkoak txabilan egiten zuten. Prozesua: ardi-ilea garbitu, sikatu, kardarekin fin-fin ipini, irun goruetan. Artilezko galtzak, trapuak. Denbora batean, Elosukoak bertakoak baino argiagoak zirela dio; artilezko jertseekin ikusten zituzten. Beraiek jertserik ez. Hotzak hiltzen neguan.

Transkripzioa

- Errondia zeri esaten jakon?
- Errondia, ba, etorten zien mutillak edo, inguruetako zerak, eta han andrakumiak egoten zien gorutan egonda, liñuori iruten, harixa eitten egonda. Ta, ba, abarketa-zaharka ta esaten jakon...
- Zela esan dozu, goruetan?
- Gorua, bai. Gorua izeten zan, buruakin hola zer bat. Makilla bat, burua... ta han buru hartan [batzen] zan liñua. Ta gero handik ardatzak, ba, harixa ein.
- Orduan, dana, erropia ta dana etxian eingo zan orduan...
- E?
- Erropak eta danak etxian eingo zian orduan...?
- Erropia... [ohi]-erropia ta, alkondarak eta kamixa ta hortakua, gehixena...
- Artilla eta liñua berdin eitten zian?
- Ez, ez, ez. Artillia da ardixen illia...
- Baiña ein berdin eitten zien?
- A bai, gorutan eitten zien, baiña artillia senduaua askoz e! Gizonak be bai txabillan; txabillia esaten jakon.
- Txabilla, eta...
- Txabillia da, ez dakizu, hola, umiek-eta...
- Bueltan ibiltzen dana...
- ...gora-gora jaurtitzeko eukitzen dabe, hola, zer bat... hauraxe da txabillia.
- Hemen beste toki batzutan esaten dotse txorakillia, buelta asko emoten dittuelako.
- Bai, bai. Haura, erain eitten jaue ta, erain ta harixa ein beste eskuakin. Lehenengo, ardixan illie garbittu, siketu, kardak esaten jakona, kardiakin zertu, dana fin-fin eindda ipini. Gero, irun esaten jakon, goruetan, ta nahiz txabillan gizonak. Sokak be etxian eitten zittuen, abarken sokak...
- Galtza biharrik apenas egoten zan...
- Galtzak horixe bihera.
- Bai?
- Artilezko galtzak...

- Artilezko galtzak bai, baiña gero trapuak erabiltzen zien...
 - A! Trapuak be bai, gizonak bai. Ta denpora hartan, hemenguek baiño abillauak zien Elusuarrak; gizonak artilliekin einddako jertsiekin ikusten zien! Hemen ez zeban esistitzen jertsiek orduen, iñok ez zeukan jertseik, ez andrakumiak ta ez gizakumiak.
 Jertseik esistidu be ez, hori dok markia e!
 - Orduko neguak...
 - Nik ez jakixat zela pasatzen eben...
 - Hotzak hiltten! Ze, ba? Ta mokuak kentzeko inddar bae eskuak, gogortuta ta. Gero hasi zien tokilla batzuk, doblekuak, ta haura abrigo haundixa izeten zan, tokillia, gerriraiño zera. Baiña jertseik iñok be ez, ez zan eitten ta. Ez zan eitten; hemen ez behintzet.

2.5. Neska asko etxetik kanpo inude joaten ziren lanera

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/052
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:22:39. **Bukatu:** 01:23:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Lanbideak » Neskameak
 Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Inudeek 2 urtetan zehar aberatsen semeak hazten zituzten, bularra ematen zieten. Herrira, etxera bueltatutakoan jantzi desberdinak erabiltzen zituzten, burukilak, belarritakoak, tertziopelozko arropak, etab.

Transkripzioa

- Iñudie juten zan orduan, irabazi haundixa ei zan, ba. Ta iñude juten zienak eta iñude etorten zienak eta esaten eben "Bai, horrek, horrek ekarri jon moñua!"
 - Iñude zeri esaten jakon?
 - Iñudia? Ze esango dotsut, ba? Aberatsak edo... --bai, aberatsa bihar-- aberatsak familixia izeten ebanian, ba, berak ez otsen umiari bularrik emoten. Ta ume jaixoberrixa eukan andria biher zan hari bularra emon ta hazteko. Haura zan iñudia. Erak elejitzen eben, konpontzen zien ta bi urtien enjeneral, umiari bi urtien emoten otsen horrek bularra ta bi urtian iñude. Ta gero harek bi urte aberatsen etxian eindda, ba... Ta horrek etorten zienian, distingida etorten zien: bai jantzixan, bai buruko-illiak... Ta esaten eben: "Ba, horrek pelukerixetan buruko-illiak orraztuta egonda dare eta". Belarrittakuak be diferentziak, tertziopelozko jantzixak... Bai, ba. Han ein be bai, gero emon be bai...

2.6. Ikatzaren erabilera desberdinak

- **Hizlaria(k):** Badiola Gabilondo , Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia
- **Erref:** BER-088/048

- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:58:08. **Bukatu:** 00:59:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Ikatza zertarako erabiltzen zen. Errementariek nahiago izaten zuten gaztaina-ikatza.

Transkripzioa

- Zetako erabiltzen zan ikatza orduan sasoi hartan? Zetako eruaten zan ikatza? Nora?
- Ikatza kalien?
- Bai.
- Kalien andrak egunero zertzen eben. Ekonomikarako edo bestela estufarako edo...
- Ta bestela fabriketarako eta?
- Bestela taillarretara be bai.
- Taillarretan...
- Taillarretan? Hamen Plazentzian ta iketza asko [pasatzen] zan. Taillarretan gero jenerala.
- Eta errementarixentzako edo?
- Baitta. Errementarixek nahixao izeten eben gaztaiñiana.
- Zeaittik?
- Tenplerako, ba, zeraua, bestela pasatzen zan...
- Motelaua dalako.
- Ta pasatzen dana zan hau, paguana, han zerien ebaitzen ebenien, haura segi ta segi eitten eban ta gero haura erre eitten [jat han]. Konparaziño bota bost killo edo, zera, ezta? Ta haura erre eitten zan. Ta gaztaiñiana emendau eitten zuan. Emendau ta gero orduan, ba...
- Han geratzen zan ha geroko.
- Baiña Uberako errementarixak gero [ezautuko eban] hamen iketza, e!
- Gaztaiñiakin ta geuk ezin [gebelako]. Ezin billau. Gastau ein zittuan ta!
- Eta zeinek eitten eban orduan gaztaiñiakin iketza?
- Bai, eitten zan, bai. Gaztaiñadixak eren orduan ta.
- Baiña asko ez...
- Asko ez.
- Baiña zeuk ein zendun iñoiz gaztaiñiakin?
- Baten nao eindda [Urbason]. Aguro eitten da. Gaztaiña derrepente eitten da! Txendorra haundixa izen arren, lau egunerako ya ja-ta "bluuuu" [bajatzan] da. Oin, ariña izeten da haura, e! Honek killoka saltzeko, ba, [ezebez]...
- Piñuak eingo leukek iketzik? Horrek be ariña eingo leukek ba.
- Zihero eskasa.
- Horrekin? Piñua [...] su emon ezkerro erre.

2.7. Errementariak eta perratzaileak

- **Hizlaria(k):** Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-193/015
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:25:38. **Bukatu:** 00:29:03

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Baserriko tresnak: Igitaiak, aizkorak, aitzurrak...
Errementaria Amillagan. Perratzaileak Eibarren: Abontza inguruan eta Sallabenten (Berdengillo baserrian).

Transkripzioa

- Hau da igetaixa. Forma hontara hartu ta...
- Kurioso-kurioso, esan dozu, alerik galdu barik, ez?
- Bai, bai, alerik galdu barik. Horixe bai.
- Hau, oindio igetai ona dao hau garixa ebateko!
- Baiña honek ez daka hagiñik, ez?
- Hagiñak? Bai. Pasaixozu hemen atzamarra holan...
- A! Bai, bai, bai.
- Ta honek be, mozten zianian, eruan ta maillukiakin ta zintzalakin pikatzen zittuen berrero. Ha be bihar ugarixa ez zan izango, ze honi emon bihar jako maillukadatan... Honek be igual eukiko dittu berrehun hagin edo hemendik hara orduko. Ta harek danak zintzala ipini gaiñian ta maillukiakin jo.
- Banan-banan?
- Bai, kalera eruan ta errementarixak.
- Hemen errementarixa zein izaten zan?
- Bergaran euan errementarixa.
- Kalian?
- Bai.
- Hemen inguruko basarriren baten ez zan egon errementaririk edo perratzaillerik edo...?
- Ez, ez, ez. Horrek kalian. Kalian [zian] horrek.
- Haura [izaten zan], hor, Amillagan, Bergaran, Amillagan gizon bat pikatzen zebana igetaixa.
- Eta berak ze eitten zittuan, erraminttak be bai?
- Bai.
- Edo konpondu bakarrik?
- Konpondu.
- Zorroztu...
- Bai. Ta [burdixendako] burpillak eta kataiak eta hola ibiltzen zan. Burdiñaria be izaten da, ha be zorroztu ein bihar izaten zan; goldiari punta barrixa ipini ta holako biharrak eitten zittuan errementarixak.
- Orduan, hemen inguruan, basarrixetan-eta ez zeuan...
- Ez, ez. Basarrixetan ez zeuan errementaririk. Segia-ta bai, etxian pikatzen zan, baiña igetaixa ez.
- Normalian, halan, basarriko tresnak-eta erosi eitten zenduezen ala zeuek ein?
- Erosi, erosi. Tresna unikua eskubaria edo --kamioia fango da hor ointxe--, eskubaria-edo izaten zan basarrixan eitten zana. Edo atxurrari kertena edo aizkol-kertena edo holakua bai, baiña atxurra ta aizkoria ta horrek erosi.
- Eta perratzaillerik?
- Eibarrera fan bihar perratzilliana. Zerian euan, hor, Abontzan edo. Oin tabernia badakizu nun daon Abontzan? Haintxe bestaldian.
- Eta ganaua eruan bihar izaten zan bertara?
- Ganaua eruan bihar bertara, bai.
- Ez zan, ba, erreza izango, ez?

- Ba...!

- Bidia, e!

- Bai, fan-aldixa ein bihar, fan-aldixa ein bihar. Ta, gero, horkua kendu eban, ta zerian gero euki eban, hemen, Sallabenten. Egon zan, Berdengillo basarrixan egon zan perratzaillia. Bai. Ta hara fan bihar izaten zan. Elgetako kamiñotik fan, ta Otaolako kanteratik behera. Kamiñua kurutzau bihar, ta aurretik, ba, soltian, baiña, gero, azkenalderako laguna bihar izaten zan kamiñua pasatzeko be.

- Klaro, hor be, zeuek igarriko zenduen, ez? Gero ta trafikoko gehixao ta bidia...

- Bai, ba. Trafikua gehittu zan, ta behian kamiñua kurutzatzeko... Hemen, Elgetako kamiñuan-ta, ba, ondo etortzen zian. Bota soltauta aurrian, ta hor etortzen zian. Automobillen bat edo bi bidian tokatzen zian danak izaten zian, ta, ba, hor etortzen zian aurrian. Baiña behian diferentia izaten zan.

2.8. Amama inude joan zen Palenziara

- **Hizlaria(k)**: Oregi Arregi, Lide
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-197/016
- **Iraupena**: 0:04:20. **Hasi**: 00:37:10. **Bukatu**: 00:41:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Neskameak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Amama inude joan zen Palentziara. Garai batean ohikoa izaten zen emakumeak inude joatea.

Transkripzioa

-Esan zenduan amama inude joan zala.

-A bai. Orduan ohitura haundixa zeuan itxuria daonez. Eta gure amama be Palenziara joan zan inude. Nere aittan ama.

-Lekutan dago palenzia!

-Ba hori. Denpora haretan nik ez dakit nola, ze transporte edo nola joango zan.

-Baten baten bittartez?

-Hoixe ez dakitt, baiña han egon zan.

-Badakizu gutxi gorabehera zenbat urte?

-Zenbat urte ez dakitt, umia bularra emoten dan bittartian egongo zan. Gure aitta hazi zebe Uberako basarri baten.

-Orduan familixa askotan egongo zien.

-Bai, bai; asko, asko, asko, asko. Ze nere aman aitzia ta koiñetia ta be egon zien. Geruao harek.

-Hemen inguruan ala?

-Bilbon, harek Bilbon. Entzunda daukat nik. Nahiko normala izan bihar zeban ba hori, basarritik eta hori. Diru bat irabazten zala. Errialetan kontaktzen zan orduan, nik ez dakit zenbat errial eta esaten zebe. Eta gero eukitzen zebe kontaktu bat eta bialtzen zotsen handik erropak eta gauzak eta.

-Eta inude, besterik ezautu dozu, entzunda ba haura be inude ibili zan eta.

-Bai, nik asko. Hemen bai-bai, neure tiak bi behintzet badakitt. Aman aitzia eta aman koiñetia be zela egon zien. Eta gure aman aiztiakin batera egon

zan beste bat horko basarri batekoa, bikixak itxuria zeuzken itxuria Bilbon etxe horretan, eta bi iñude Bergatik eruanda. Zeiñen bidez ez dakitt.

-Eta gero entzunda edo, bueltatzen zianian, zuk esan dozuna, erropa diferentia, pixka familixa onetara joaten zian eta han be pixkat bizimodu hobia zeken. Rta bueltatze hori pixkat zaila ingo jakuen...

-Hoixe ez dakitt. Nik askotan pentsau izen dot, eta horren gizonak bittartian zer eitten zebeñ hemen, ez. Baiña!, hori ez dot entzun sekula. Holako gauzak lehen ez zien kontatzen, beste zer horrek, eta klaro, ez dakitt. Ez dakitt nola izango zan. Baiña asuntua zan diru batzuk irabazia; urtebete edo ingo zebeñ edo urte eta erdi. Ez dakit zenbat ingo zebeñ, eta diruakin etortzen ziela; eta sekulako uniformiakin ibiltzen ziela, bai. Oin ikusten dittuun moruan iñudiak eta artzaiak Donostian. Holako belarritako ta holako moñotxuak. Hori dana, hola jantzitta ta dana.

-Herrixan imajinatzen dot puxkat destakautxuak geratuko ziala.

-Ez dakitt.

-Eta "ama de cría" joandakorik edo?

-"Ama de cría" horretxek zien, iñudiak.

-Bardiña zan, ez?

-Bai, klaro. Joaten zien bularra emotera hango ume bati.

-Eta zaintze lanak, iñudez aparte, umia zaintzera ta.

-Nik uste dot umia egoten zala, nik entzun doten gauzegaittik eta. Neuk, ez dakitt, esplikau ez doste ein sekula; uste dot umian kargua eukitzen zebala iñudiak. Beste lanik ez dot uste itten zebeñik.

-Behin bularra emutiai lagatakuan...

-...takuan etxera. Kobratzen zebeñ eta etxera.

-Ez zebeñ jarraitzen ume zaintzaile moduan...

-Ez, ez ez. Izeten zan epoka hori, itxuria bakarrik. Oso kuriosua. Denpora baten diru bat irabaztera.

-Gaiñera orduan erderarik be ez eban jakingo...

-Bueno... Ez, erdera asko ez zebeñ jakingo. Beharbada bapez. Hantxe igual ikasi zerbait.

2.9. Ferratzaile eta errementariak

- **Hizlaria(k)**: Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-216/002
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:02:08. **Bukatu**: 00:03:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena**: Ferratzaile eta errementariak, elkarren ondoan. Tiburcio Mujika eta Eusebio Larrañaga.

Transkripzioa

-Esan dozu perratokixa bazeuala. Eta ermentarixa?

-Ermentarixa han onduan, eta perratokixa ba holaxe, alkarren onduan. Bai. Tiburcio Mujika ermentarixa eta Eusebio Larrañaga perratzaillia. Horrek bixak. Tiburcio Mujika, harek eitten zittuan karruendako, burdixendako erruberak-eta, burdiñak sartu. Arotzak eitten zittuan eta gero burdiñak ipintzen zotsen han, llantak. Eta laguntzen zotsan perratzailliak lanik ez zeukanian, harek bigarren laguna bihar izeten zaban Tiburzio

errementarixak, eta laguntzen zotsan horrek, perratzailliak. Ondo arreglatzen zien alkarrekin. Baiña anekdota bat Tiburziona: seirak puntuan jantzitta egoten zan urtetzeko, seiretan. Pentsaizu, bera nausixa zan, baiña seirak joteko zaiñ, txaketia-ta jantzitta, da! atian holaxe. Dan!, “han seirak” eta atia itxi eta Zapatarikora, tabernara. Tiburziona zan... Haura ikusi tta seirak die, esaten giñuan. (eztago) erlojo biharrik. Harek zaintzen zeban ordua.

2.10. Errementaria eta ferratzailea San Lorentzo auzoan

- **Hizlaria(k):** Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-216/003
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:07:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Arotzak
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Auzoko baserri gehienak, kale-baserriak ziren eta abere gutxi izaten zituzten. Errementaria eta ferratzailea auzoan bertan zituzten. Errementariaren lanaren azalpena. Arotzeria bat ere bazegoen ondoan.

Transkripzioa

Honek kale-basarririk zien gehixenak, basarri gutxi, fabrikari lana, eta ganau pare bat edo bi edo. Hola.

-Orduan basarritik bizimodua ez eben ataritzen?

-Ez, ez. Amilla-barrenguan be ba hantxe; ezta harek be. Lengo gizona karreterua zan. Bi zaldikin karreterixan eitten zeban. Gero Gillinguan-eta ba bazeuken sailla-ta, baiña seme danak fabriketan handik kanpora eitten zeben lana. Eta Zapatarikuan tabernia, eta dendia be bazeuken.

-Hemen perratokixa-ta errementarixak eta, bertan eitten zeben lan?

-Bai. Hantxe bizi zien, harekin bizi zien, bai. Hori zan bere “medio de vida”.

-Zeuek ikusi eitten zenduen eurak lana zela eitten zeben?

-Bai, makiña bat ordu eitten giñuan guk han begira. Bueno!

-Errementarixak zer eukitzen zeban, sutegixa edo?

-Bai, suteixa, ta iunkia-eta; dana forjau eitten zaban harek, harek soldaduraik eta ez zeukan harek. Horrek llantak-eta, zeretik, burdiñian zera ahartu eta ra!, doblau, eta gero pegau, berotu eta maillukiakin jota... Ez zeuan soldaduraik orduan. Horrek ez zeukan soldaduraik. Eukiko zeben fabriketan-eta baiña, horrek ez zeukan.

-Lan asko izaten zan orduan burdixan erruberen uhalak ipintzen?

-Bai. Erruberia eitten zan, ezta, eta hau egurrezkua eiñ, eta gero llanta bat bueltau eta haura ipintzen zan honen bueltan. Baiña sartzen zotsen, berotu burdiña eta egurran zerian sartu. Presiñuan sartu egurrian, eta keiak etarata, ura bota-ta eitten zotsen ezteixen erre egurra, eta gero sartzen zotsen holako sujetatzeko batzuk, eta harekin gero. Hori gogor eitten zeben. Ez pentsau harek urtetzen zebanik segiduan! Zelako burdixak, harri artian ibiltzen zien burdi horrek eta. Aguantatzen zeben, bueno!

-Eta gero tresnak eta eitten zittuen, baserriko tresnak edo?

-Tresnak... zorroztu gauza asko basarriko-ta, baiña ostientzian tresnaik...

Bueno lerei, leria badakizu ze dan, eta lerak azpizan eruaten dittu trineuan moduan zer batzuk, burdiñazko txapa sendo bat, hamen eta bestian be bai, bi zeretan; eta horrek apurtzen zienian berrixak ipiñi, eta horrek gauza horrek bai.

-Orduan zaratia be...

-Burdixei be ba... Burdixak arreglatzen asko egoten zien, burdixak apurtzen zien eta. Gero arotzerixa bat be bazeuan onduan, Jose Iñarra, Albitxubaso. Horrek zien hiru anai-arreba, hirukixak, eta izenik pentsatzeke jun zien sankristixara. Ez zeukela izenik, hiru batera zela ba, eta... Sakristania ikusi zittuanian, e: "Jesus, Jose ta Maria!" Eta horretxek ipiñi zotsen izenak. Bai, eta halaxe zan. Hori Joxe zan arotz hori, eta gero beste bi anai-arrebak Jesus eta Maria.

-Errez topau zittuan orduan sakristaniak.

-Horrek burdixak eitten zittuan, albuari ermentarixak ipintzen zotsan zerak, burdiñan kontuak eitten zittuan batek eta bestiak egurrezkua.

-Orduan ondo konplementatzen zien?

-Hirurak gertuan zeren, bai.

2.11. Zer jantzi eramaten zituzten

- **Hizlaria(k):** Oregi Arregi, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oregi, Irune
- **Erref:** BER-228/030
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:36:42. **Bukatu:** 00:39:13
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Dotore ibiltzen ziren. Amak josten zien arropa. Izeba eta beste ezagun bat inude ibiltzen ziren Bilbon, eta oso dotoreak ziren biak. Inudeen janzkera deskribatzen du. Inudeek bidalitako arropa nola aprobetxatzen zuten azaltzen du. Arropak luzitu egiten zituzten gainera.

Transkripzioa

- Bueno, zuek dotore ibiltzen ziñaten ez?

- Dotore?

- Hola entzun dot.

- Bai, gure amak ahalegiña eitten zeban gu dotore ibiltzen. Berak josten zoskun erropa guztiak. Oin be esaten doskue e? dotore ibiltzen giñala. Gu dotoriak giñala esaten doskue. Bai, erropak, gure aman aizta bat egon zan iñude. Eta harek bialtzen zotsen...

- Nun egon zan?

- Bilbon. Zeuzken bikixak. Horrek Bilboko horrek, e? Eta juañ zien iñude bi: bat gure tia, eta beste basarriko andra bat. Eta zien oso altak eta oso emakume dotoriak zien bixak, e? Eta ibiltzen zian iñude jantzitta. Lehen iñudiak ibiltzen zien holako paiñolutxo bat hola zerian, belarrittako haundixekin, amantala zurixa, eta jantzixak edo zeuzkan dotore. Eta zelan zien bikixak, bi ibiltzen zien. Eta esaten zaben, gure amak esaten zeban, esaten zebala asko, atenziño haundixa emoten zebela Bilbon bi iñude horrek, bi emakume horrek. Oso dotoriak zien. Eta gero gure tiana,ba haundi endda edo... ez dakit, gaztetan edo hil ein zan. Ta gero bestia ez.

Baiña hari be bialtzen zotsen erropak, eta gure tiei be bai, bixei. Eta gure tiak, ba amak zeuzkan ... Gero be bai, e? Iñudetzatikan etorri ta gero be, bialtzen, segitzen zebeu erropa bialtzen. Haren erropak. Eta gure lengusiña horrek, ba, erropak asko eukitzen zittuen; eta gure amak ekartzen zittuan gure tiak gure amai erropak arreglatzeko. Ta gure amak arreglatzen zotsan berandako. Beran alabiandako, ezta? Gure lengusiñiendako, gaztenandako, e? Gaztenandako. Eta gero harek, txikiegi eitten jakonian, neretako. Eta nei txiki eitten jatenien, beste horren, Maria Pilarren, horrendako. Beste Maria Pilarrendako. Beste nere aiztiandako. Eta bueno, baiña erropak onak, oso erropa onak. Gero beste teladunak, oso onak. Gure amak ba beti arreglau eitten zittuan, ta ondo. Ta beste horrek basarriko horrek, etortzen zien bezela janzen zittuen, eta bueno, harek, harek ez zebeu bape hola... baiña guk, itxuria, ba luzidu eitten... ez dakit, ni ez naiz akordatzen asko, baiña esaten dabe, esaten zaben, oso dotore jositta ta ondo erabiltzen giñuzela guk erropak.

2.12. Lehenengo lana, oihal lantegian

- **Hizlaria(k):** Agirrebeña Lizarazu, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** BER-270/020
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:20:24. **Bukatu:** 00:22:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Lanbideak » Negozioak, dendak
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
 - Lanbideak » Sastreak, jostunak
 - Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Movillas oihal lantegian urtebete egin zuen. Aita pontekoa maisua zen han, eta hark eraman zuen hara. Ehulea. Anaiek ez zuten nahi lanik egin zezan. Etxera bueltatzean, josten hasi zen. Eskolan ikasi zuen, mojetan. Tabako biltegian hasi zen lanean gero.

Transkripzioa

-Ta gero kriada edo ibili ziñan? kriada edo?

-Ba ez. Ni egon nitzan... Movillasenian ein neban urtebete bat edo, lanian, fabrikan, fabrikan, "en la tejeduría". Zeaittik han neukan nik, han lana itten zebana, nere aittapuntakua. Aittapuntakua badakizu ze dan?

-Bai.

-Bueno. Aittapunkakuak... han maistrua zauan fabrika horretan, eta harek eruan ninduan harutz lanera. Ta urtebete in neban telarretan, tejedora, ein neban. Neure lehengusiña bat be bazeuan eta haren lagun itteko egon nitzan. Urtebete in neban. Ta gero handik, mutillak, anaiak-eta, esan zebela: "Hori zeaittik euki bihar dou hor lanian? Ekarrri hori etxera". Eta etara ta atzera etxera ekarrri ni, berriz etxera. Eta gero, klaro, ni etxian be, ba, ezer ein barik ezin egon, ta hasi nitzan josten. Josten, zeaittik eskolan be jostekua itten giñuan, bordatzen be bai, bainikak, eta lan asko itten giñuan eskolan, mojetan. Han ikasi giñuan josten. Eta gero handik, ba, egon nitzan etxian, josten. Beste puxkaten egon nitzan. Eta gero, hurrengo euki giñuan hemen okasiña tabakuen almazenera juateko, nere lagunak zeren han lanian, ta tabakuen almazenerian sartzeko.

2.13. Tabakoa, inguruko herrietarako

- **Hizlaria(k):** Agirrebeña Lizarazu, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** BER-270/025
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:27:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** Gerra ondoren hasi zen tabakaleran. Lokala aldatu egin zuten tokiz. Lehen, herriaren erdi-erdian zegoen. Tabakoa inguruan partitzen zen: Arrasate, Oñati, Soraluze, Eibar, Zumarraga... estankoetakoak "sakea" egitera etortzen ziren. Garraiolariak kamioiarekin eramaten zituzten kaxak. Kaxak ematen zizkien.

Transkripzioa

-Tabakalerako almazenian, gerra aurretik hasi ziñan edo gerraostian?
-Ondoren izango zan. Guk han... zeaittik e... gero lokala be beste lokal batera aldatu zebeñ, beste edifizio bat, ederra, tabakuendako bakarrik ipiñi zebeñ. Puxkat apartetxuau, puxkat. Bergaran bertan e! baiña puxkat e... puxkat e... apartatxuau, herrixan barruan barik. Lehengua zan herrixan barruan, [Oruetan] hori, herrixan, herrixan erdi-erdixan zeuan behian. Ta gero, handik etara ta in zebeñ beste lokal bat, aparte erosi zebeñ gaziok, eta ipini zebeñ haura tabakuendako bakarrik. Ta gero, tabakua izaten zan, ba, inguru danei partitzeko. Ez zan herrirako bakarrik e! Izango zan ba.. partitzen zien... Bergarak eukitzen zittuan: Mondrao, Oñati, Plazentzia, Eibar, Zumarraga... inguru horrek danen estankuak.
-Almazen haundixa orduan?
-Bai, haundixa. Ta horrek danen tabakua saltzen zebeñ estankero danak etortzen zien "sakia ittera" esaten zana, sakia ittera. Osea, etortzen zien, pedidua itten zebeñ: "hau bihar dot eta hori bihar dot eta bestia bihar dot / biot/". Han eitten zan fakturia; Tabakaleran eitten zan fakturia, han. Eta gero harekin juaten zien bankuan haura ingresatzera. Estankeruak juan bihar zebeñ. Eta gero, etortzen zan transportistia kamioakin o autobusakin edo etortzen zien transportistak eta harek eruaten zebeñ jenerua, kajak. Kajak hartu eta oso-oso-osuan kajak. Nik emoten notsen kajak harei. Nik emoten notsen: hamendik bi kaja, hamendik lau kaja... eta emoten notsen hola. Eta hola in giñuan, urte horrek danak, haretxekin batera in neban nik lana.

2.14. Fariasak eta zigarroak

- **Hizlaria(k):** Agirrebeña Lizarazu, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** BER-270/026
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:27:05. **Bukatu:** 00:28:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**
Lanbideak » Negozioak, dendak
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-
mugimenduak
- **Laburpena:** Fariasa asko saltzen zen. Zigarro markekin ez da
gogoratzen. Paketetan zetorren dena, Donostiatik, eta ez zituzten
zabaltzen. Erre egin zuen berak, probatzeko, baina ez zitzaion gustatu.

Transkripzioa

- Goguen dakotzu ze tabako klase euen zu han lanian hasi ziñanian?
-Ba fariasa bazeuan.
-Bai...
-Fariasa eta... fariasa asko saltzen zan. Merkiaua be bazeuan kajia,
kajatxua...
-Ta zigarruak?
-Eta zigarrua, zigarruak... harek... han, gaiñera, zabaldutakoik ez zan
ikusten, danak paketiak, paketiak, paketiak danak. Etortzen zien, horrek
Donostiatik-edo etortzen zien paketiak, eta gero Bergaran deskargau, ta
gero Bergarak estankeruai eitten zotsen, eitten zotsen repartua.
-Ta zigarruak ez dakotzu goguen markak?
-Zigarrua... fumau be in neban!
-A bai?
-Bai, aprobau in neban zelakua zan, zelakua zan. Ta esan neban: "Ene...
honek tripia ez dau betetzen honek! jatekua ez da hau!". Ta kendu neban.
Kendu neban. Ze gusto daukan ikusi ta kendu neban haura. Nik ez dot
fumau.

2.15. Arrasaten neskame

- **Hizlaria(k):** Arrieta Larrañaga, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** BER-312/022
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:40:05. **Bukatu:** 00:41:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Hamahiru urterekin Arrasatera joan zen neskame.
Ordurako bazekien etxeko lanak egiten, ahizpak nagusitu ahala etxetik
joaten zirelako. Arrasateko etxeko nagusiek tela-denda zuten eta
batzuetan dendara ere joaten zen laguntzera.

Transkripzioa

- Etxeko lanak ittera, bai.
- Ta ya bazekizun zelan ein? Etxian ikasi zenduan?
- Honbre, ba etxian beti itten ziñuan. Etxian beti itten ziñuan, porke
zaharrrauak, ba, edadia zakenian, ba, urten in bihar zian etxetik. Etxian ezin
zeikien e... han zertu ta. Eta, ba, zaharrrauak zelan fan zian etxetik, ba,
gero geratzen ziñan zeu eta geratzen zanak in bihar izaten zeban, ba,
etxeko lanak. Eta modu hortan. Porke erropak garbitzeko be, ba, eskuakin
eta jaboi takuakin ta [en fin, hola]. Arrasaten, ba, harek erak hobeto
zaozen, klaro! Ni oso ondo eon nitzan e, Arrasaten. Oso-osu-osu ondo. Oso

ondo, bai.

- Dendan bebai in bihar zenduan zeoze?

- Dendara iñoiz bajatzen nitzan eta... Beran pixuan behian zaken dendia, ta bueno, erekin egoten nitzan han, ba, kajan batzuk zabaldu eta kajak edo kartoiak doblau ta zertu ta ba holaxe. Bai, tela dendia zaken; telak eta erropak eta, holan, kamisetak eta holan. Eta, bai, oso ondo eon nitzan e! Ni han oso ondo konsiderauta. Klaro, ume bat nitzan ta, ume bat. Ta harek, ba, erak... bai. Ta gero neu hantxe nenguala, erak be nausitxuak zian eta saltzeko bidia euki zeben. Bai. Ta hoixe, gure unibersidadia hoixe, kriada.

3. Ekonomia eta industria

3.1. Aurreko errementarien lanak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Unamuno, Eusebio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-003/018
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:30:31. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Lan-baldintzak. Eusebio mutil gaztea zenean oraindik ere eskopeta kanoiak eskuz egiten ziren. Bergaran Nazario errementaria ezaguna zen.

Transkripzioa

Beste mailluka klaseren bat? Bai, izaten die tajadera esate jakonak, burdiña ebaitzeko: holako katxarro bat manguakin, zorrotzuta, jo goittik eta ebaitzeko, burdiña ebaitzeko. Ta geo izaten die asentadorak, eta gauza asko izaten dia erreruak bihar izeteittuanak. Ta geo, lehen lehenau, nik asko ez, baiña Osintxun be eitten zan eskopeta-kañoiak, barria luzia izaten zan, da hori, atzeko zeroi, suteixan berotu, jo, da haura koskorra etara ta horrek eskuz eitten zien lehenau. Eta zuek errementarixak herriko taillerretarako lanik eitten ziñuen, gauzak konpondu, piezak-eta? Bai, bai, oiñ azkenaldera bai, baiña Bergan lehen ez zeuan, e. Nazario zan lehen Bergan hortara dedikatzen zana, Nazario errementarixa; dedikatzen zan kaldererixa asuntora gehixau. Geo gu ekin giñan, bixok juntau giñanian; da geo ez zeuan Bergan artian, da oin mordua dae Bergan.

3.2. Aita oso errementari ona

- **Hizlaria(k):** Urkiola Lazpiur, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-006/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:04. **Bukatu:** 00:17:04
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

- **Laburpena:** Aita non hasi zen lanean. Aita oso errementari ona. Lan izugarriak egin zituen marrazketan jakin gabe: Arantzazutik Olatera doan tuberia; Banco de Españako segurtasun sistema...

Transkripzioa

Eta zuen aittak nun ikasi zeban?

Arek ikasi zaben bertan, nere aitta lelengo asi zan labe altuan. Zerrajera fundau zanian asierakua zan, osea fundadoria zan, eta asi zan labe altuan, ta gero ba, karo, bia zien ba operarixua, errementarixak-eta bia zien, da bueno ba, nere aitta asi zan ba orduantxe, errementari. Arek ein zittuan por ejemplo Madridedo sistema de seguridad Banco de Españakuak, eta obra bastante aundixa ein zaben orrek Arantzazutik eta Olatera, tuberixa ori dana.

3.3. Lanerako beharrezkoak zituzten tresnak

- **Hizlaria(k):** Urkiola Lazpiur, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-006/006
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:18:49. **Bukatu:** 00:20:32
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Lantegia nolakoa zen. Lan-ingurua: sutegiak, jungurak... Aitaren sasoiari, eskuz egin behar izaten zen guztia.

Transkripzioa

Sutaixan bertan guk zaukoun hiru sutai; gero zaukoun martillo piloi bat ez dakit zenbat toneladakua. Bi martillo, bat haundixa ta bestia txikixa zaukoun, ta martillo piloiari eitten zan ba forja. Harek motorrak-eta haiziakin-ta emoten jatzun, ta hankiakin zapaldu ta bon! bon! golpiak emon-ta. Porriakin ein biharrian, eskuakin, harekin eitten zan. "Por ejemplo" hartzen giñuan pieza haundi bat, da bero-bero ein, eta sartu han ta bueltaka-bueltaka ipintzen giñuan, nehi dan forma emoten jakuen, luzetu ta; klaro, len ez zaon martilloik, martilloik ez zaonian eskuz. Jungurak zaukoun asko, errementarixak berak eruandako jungurak, bakuizak berana, eta gero kaldererixan be beste bat zaon, kaldererixan be betik eoten zien ba eskuz lana ittekuak eta, ta "generalmente" forjadoriak zela zauken eran lana, tenazak eitten ibiltzen zien, gehixena-gehixena tenazak eitten.

3.4. Altzairua nondik ekartzen zuten eta zertarako

- **Hizlaria(k):** Urkiola Lazpiur, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-006/012
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:30:55. **Bukatu:** 00:31:47
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki

- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** Burdinarekin eta altzairuarekin egiten ziren lanak.
Altzairua Legazpitik ekartzen zuten, Patrizio Etxeberriatik.

Transkripzioa

- Eta galtzairuakin ze lan eitten ziñuen?
- Galtzairuakin eitte giñuan por ejemplo erreminttak, tornerixako erreminttak; kutxillak eta orrek danak, danak forjau itte zien.
- Aizkorak eta eitten ziñuen?
- Aixkorak eta baitta itte giñuan, or atxurrak eta eitte zien, bertarako bia zien gauzak eitte zien, ni akordatzen naiz aizkorekin, pikatxoiak eta eitte zien, baiña zien bertarako e, kanporako ez. Galtzaidua jeneralmente ekartze giñuan Legazpittik, Patrizio Etxeberriatik ekartze zan.
- Eta hemengua?
- Amen galtzaiduik ezan eitten...

3.5. Unión Cerrajerak hasierako urteetan izan zituen baliabideak

- **Hizlaria(k):** Urkiola Lazpiur, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-006/017
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:41:30. **Bukatu:** 00:44:30
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
- **Laburpena:** Lehenengo langileak zeintzuk izan ziren. Izenak ematen dituzte. Hasiera-hasieran, labe garaia sortu zen. Bata labe garaia eta bestea altzairu-labea zen.

Transkripzioa

- Eta hasieran ze eitten zebe hor?
- Asieran ba labe altua zaon, orko asiera-asiera zan labe altua, or ekartze zan minerala ta iketza ta bueno; ni akordatzen naiz labe altuak zela funzionatzen zaben: soplantiak eta zauken su eitteko eta gero tolba batian gora ixotze zan minerala, ta bueno an funditze zan, eta andik urtetze zan ba koladak izate zien funditze zanian, ba aura etaratze zan olako kanal batian, ta juate zien da eitte zien formak, formak emote jakuen, pastillak bezelakuak aundixak izate zien, bai, totxo txiki batzuk izate zien arek, ta arek izate zien galtzairu laberako. Bat zan labe altua ta bestia zan galtzairu-labia, ta galtzairu-labia zan ori Martin Siemmens zan horko labia, eta ori izate zan ba, klaro, lingote ori zan karbono puro zan ori, labe altukua, eta gero botatze jakon txatarra ta geo sartze jakon areia eta bia zittuan danak, mineralak eta bia zittuan danak. Emakumiak lapikua gertatzen daben bezela, babai-tta olixua-ta kipulia-ta, ba galtzairuai be igual-igual botatze jakon.
- Amengo lanak zien perfillak, bentanak eitteko ta, bentanak, angulua, erredondua, eta T-iak-eta, doble T-iak-eta, eta artze zien asi txiki-txikitxik eta aundi aundiraiñok itte zien.

3.6. Argentinara lanera

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Lazpiur, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-160/004
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:06:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aita 16 urterekin Argentinara joan zen lan egitera. Enpresa bateko kontabilitatea eraman zuen bertan. 7-8 urte inguru egin zituen kanpoan.

Transkripzioa

- Horrek zien gure lehengo jatorrizkuak. Ta gero gu ba oin geu jatorrizkuak honek danondako.

- Argentinatik bueltan esaten dozunian?

- Aitta etorri zan. Aitta Argentinan egon zan. Baiña joan zan, berak esaten zebanez, hamasei urtekin hartu maletatxo bat eta jun zan Argentinara. Argentinan ein zittuan ba sei bat, zazpi bat urte, zortzi edo ingo zittuan. Ordurako haura zan ba hola kontabilidadia-ta eruaten hasi zan hango Argentinako enpresa, almazen haundin batian, almazen bat. Eta gero ba berak harrapatzen zittuan txanpon guztiak han terrenuak erosten zittuan, eta hona etorri zanian ba gure ama ezautu eta ezkondu zien eta segiduan ba umiak eta umiak eta umiak. Orduan ez zeon beste zerik. Eta beti, seguru e, horrek "títulos de propiedad", eta honekin zera, berriz hara joan ta saldu edo zeoze eitteko-ta. Gerra ostian akordau zienerako haura dana konstruiduta zeon. Buenos Airesko han salidan ei zeren horrek terreno horrek, haura dana konstruiduta. Klaro, hari espropiazifua ingo zotsen-ta. "Aquí no aparece dueño? Mío", zerak, aiuntamentuak. Se acabó. Han geratu zien harek.

- Eta hamasei-hamazazpi urtekin joan zan?

- Bera bakarrik. Hogeta hiru egun barkuan.

- Ze urte ingurutan?

- Ba haura juango zan ba, klaro, kontua etaraizu, haura jaio zan mil ochocientos noventa y nueve, uste dot jaio zala. Gure aitta ta ama. Harek joan dan siglokuak zien. Bai. Mil ochocientos noventa y nueve eta bestia dos mil. Ba hortxe. (...).

- Gerra Europeia amaitu eta hor.

- Gerra ba akabau barik ondio; hemezortzixan akabau zan haura, gerria.

- Hamazazpi urtekin joan bazan bai.

- Hamazazpi... Bai, akabau barik joango zan haura. Hogeta hiru egun, seguru, barkuan be. Orduan, klaro, eskiaztera gu oiñez joaten giñan moduan, orduan barkuan be inddarrik edo ezpazeon "a remo"-edo juango zien-ta.

3.7. La Peñako meategietan errekadista

- **Hizlaria(k):** Otadui Ezpeleta, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laborda Otadui, Miren

- **Erref:** BER-225/005
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:05:21. **Bukatu:** 00:06:34
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** Osaba 14 urterekin Bilbora joan zen mandatarari lanetara. Meategiak zeuden La Peñan eta handik astoarekin edo mandoarekin Bilboko zazpi kaleetako denda batera joaten zen jenero bila. Meategietako lehenengo greba izan zenean, Guardia Zibilek bertatik irteten ziren beharginak zelan hiltzen zituzten ikusi zuen bere osabak.

Transkripzioa

- Gero, berriz, hamalau urtekin edo bialdu zeben Bilbora rekadista bezela mineruekin. Minak zeren La Peñan. Eta bera, beran lana zan astua, ba astua edo mandua, ez dakit ze zan, eta han Peñatik Bilboko Zazpi Kaletako denda batera juaten zan jeneruan billa. Han bialtzen zotsen, bueno, “zuk ekarrizu hau ta hau”, listia pentsatzen dot emongo zotsela. Eta han emakume bat beti esaten ei otsan “etorri hona, etorri”, eta emoten zotsala ardau goxo kopatxo bat. Horrekin asko akordatzen zan. Eta bueno, han egon zan. Eta gero harek kontatzen zeban, lenengo huelgiak irten zebanian, han minetan, ba La Peñan, bera han zeuala, ta ikusi zebala “guardia de asalto” edo guarda zibillak, ez dakit ze zien, mineruak huelgan zerelako irten ahalan, danak hiltzen zittuela. Eta hori esaten zeban.

3.8. 44 urtean tabako biltegian

- **Hizlaria(k):** Agirrebeña Lizarazu, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** BER-270/023
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:24:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Orueta medikua bizi zen etxearen azpian zegoen tabako biltegia. Gero, Azkarate familia geratu zen jabe. Laguna zelako hartu zuten han lanean. Egun guztia egiten zuen han. Amari ematen zion soldata. 44 urte egin zituen han.

Transkripzioa

- Orueta medikua bizi zan hauraxe zan, hauraxe zan. Eta han behian zeuan tabakaleria. Baiña gero, honek gaztiok, anai-arrebak, nerekin egon zien horrek... Azkarate zien, Azkaratiak zien jarri zienak horrek zerian, tabakuen jabe geldittu zienak, Azkarate: Rosa Azkarate, Pascual Azkarate, Jose Mari

Azkarate... horrek izen zien tabakuen almagazenukuak. Eta ni laguna zela nitzan Rositana, sartu nindduen tabakuen almagazenan. Da ni etxetik joaten nitzan tabakuen almagazenera. Da egun, egun guztia itten neban almagazenan, eitten neban harekin lanian, jorjala irabazten. Jorjala eruaten notsan amai, eta ama be pozik eta bueno, jan eitten giñuan da bizi giñan hola. Eta han ein dittut berrogeta... berrogetalau urte edo ein dittut tabakuan, almagazenan. Ta oin han daukaten diarixuakin bizi naiz! Han lana ein nebalako.

3.9. Neskak 14 urterekin lanean; ehun lantegiak

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/008
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:10:56. **Bukatu:** 00:12:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- **Laburpena:** Neskak 14 urterekin hasten ziren lanean. Gezurra esaten zuten, berez 15 eduki behar zirelako. Algodoneran mordoa hasten ziren. Zazpi ehun lantegi zeuden, eta denak desagertu ziren pixkanaka. Bergara Textil eta Bizente Aranzabalena (Aranzabal, Mendiola y Compañía) izan ziren azkenak jausten. Ezin zuten Txinarekin lehiatu. Siderurgian bezala irabazteko greba egin zuten langileek, baina ezin zieten berdina eman.

Transkripzioa

- Emakumiak zenbat urtekin hasten zian lanian?
- Gazterik, neu be hemeretzi urtekin hasi nitzan. Orduan hamalau urtekin, gizurra esanda, gaiñera, fabrikara jua ta hamabost urte zeuzkela, zeaittik hamabost urtera arte ez zebeu lagatzen hasten. Esaten zebeu hamabost zeuzkela, baiña gero dokumentua erakutsittakuan, tranpia! Baiña tranpiakin asko hasi zien; hamalau urtekin-eta, bai, asko, asko. Hemen Algodoneran-ta mordua emakumiak, bai.
- Gaiñera, sasoi horretan textillak asko, ezta?
- Textillak danak. Hemen zazpi genden e! Eta jua giñan... kartak ipintzen die ba? ta putz ein ta jausten dien moduan, holaxe, banan-banan-banan. Gu azkenak izan giñen jausten. Guria Bergara Textil zan eta bestia Aranzabal, Vicente Aranzabal Mendiola. Bai, bai, Aranzabal Mendiola y compañía. Gu azkenak izan giñan jausten, baiña gu be jausi. Ezin zeikien konpetidu, zeatik Txinatik-ta hasi zien ekartzen telia oso merke. Karo, han jorjalik ez zebeu pagatzen eta hemen jorjala pagau bihar zan. Honbre, gurian zenbat... huelgia in zan bakarrik, nahi zebeu jorjala siderometalurgiakuen moduan. Eta ezin zeikian. Harek irabazi eitten zebeu, harek lan asko zeuken. Honek, Altos Hornos ta honek. Ta guk ez, textillak, ba, ezebez.

3.10. Bergara Textil; Bergarako ehun lantegiak

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/009
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:12:13. **Bukatu:** 00:13:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- **Laburpena:** Bergara Textileko lanak: kotoia matazetan ekartzen zuten, eta prozesu osoa egin, baita tindatu ere. Ehun lantegiak: Otazua, Movilla, Felipe Setien... Beraiek Azkoititik ekartzen zuten kotoia (Epelde y Larrañaga). Confecciones Vascas jarri zuten, eta tela Santa Agedara eramaten zuten, bertan josteko. Berak eramaten zuen tela, autoan.

Transkripzioa

- Bueno, guk ekartzen giñuan algodoia matazetan eta itten giñuan harixa eta gero harixakin telia, Eta gero tintau be bai. Dana fabrikan itten giñuan, e, Bergarako textillian itten zan dana, prozesu dana.

- Esan dozu zazpi ziñatela.

- Bai.

- Bergara textil, Aranzabal, Algodoneria, Mobillas...

- Otazua, Otazua, Felipe Setien ta mordua, zazpi bai gutxienetik. Guk algodoia ekartzen giñuan Azkoititik, Epelde y Larrañaga. Harek matazak ekartzen zien. Gero harixa ein tejedurixan eta gero telia in, ta gero tintau. Dana, guk prozesu dana itten giñuan e. Bai. Ta gero ba onduan ipini giñuan Confecciones Vascas, geure fabrikiak onduan. Geuria zan. Bueno, bertakua zan. Eta [hor] lan itten zoskuen Santa Agedan. Eruaten giñuan telia ebagitta ya patriekin eta gero han josi itten zebe Santa Agedan. Nik baje asko in dittut Santa Agedara kotxia beteta. Bai.

4. Ohiturak eta bizimodua

4.1. Ikasketak amaitu eta Unión Cerrajeran hasi zen lanean

- **Hizlaria(k):** Urkiola Lazpiur, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Erref:** BER-006/001
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:20
- **Transkribatzailea:** Arana, Iñaki
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
Ekonomia eta industria » Industria motak » Altzairugintza
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak
- **Laburpena:** 1937an hasi zen Unión Cerrajeran lanean. Ikasketak amaitu eta lehenengo lana. Aita, errementaria.

Transkripzioa

- Ze urtetan hasi ziñan Altos Hornos-en?

- Ni asi nitzan treinta y sietian, baiña ez nitzan asi errementari, ni asi nitzan tonero; da gero ba irurogetabost urte ero zaukan aittak, eta orduan esaostan neri direktoriak ba, "oye, tendrás que ir a ayudarle al padre!", da ba nik ez nakixen forjako berririk ezebez, errementari gutxiau. Ta eskolan, elementalian ikasten zan kalderero; ta bueno, or asi nitzan.

An eitte zien lanak, basia zan bertarako erreminttak eittia, eitte zien tenazak, bai "tren de banda", laminaziñorako, txaparako, tenaza klase asko itte zan, da inkluso itte giñuan kanporako be bai tenazak. Eta gero ba, karo, zorroztu danak, atxurrak, pikatxoiak eta orrek danak, orrek obrarako bia dien dan-danak bertan; ein be bai, bertan eitte zian. Eta gero ba, kao, forjautako piezak; forja lan asko itte zan, au Palacio Irizar, orrako barrotiak-eta, berjak.

4.2. Bandera zuriak leihoetan nazionalak sar zitezen

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/006
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:09:59
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Bandera zuriak jartzen zituzten leihoetan, nazionalak sar zitezen. Euren etxean behatokia jarri zuten etxe ostean. Idiek kablea apurtu zutenekoa.

Transkripzioa

- Hemen banderak-eta ipini zittuela esan dozu. Zela zan hori?

- Ba honek sartu bihar zebenian, klaro, jentiak alde zeban Bergatik, baiña ez zien sartzen artian, eta jentiak izara zurixak etara jittuan balkoittara-ta, teillatura-ta.

- Eta noiz agertu zien zuenera soldauak bizitzera?

- Ba Zurran kaiñoiak ipiñi zittuenian, gurian obserbatorixua ipiñi zeben, han etxostian eta Kalbarixoko tontorrian [...] Pago bat zuean erdixan huekua zeukana, eta hari zuluua ein eta han tripodiak edo katalejuak ipiñi eta handik Intxorta aldia-eta ikusten juen, eta gure etxostetik Agarregoiko aldera jeuken zera, "la casa de muchas ventanas" Agarregoikua zuan, eta itxuria han mobimentu haundixa ikusten zuan milizianuak-edo zerak-eta. Eta obserbatorixua ipiñi zebenian etorri zittuan gurera alfereza-eta, kabo-eta; lau-bosten bat edo.

- Altuena zer zan, alfereza?

- Alfereza. Gero etotzen zuan kapitana be. Kapitana jeuan Usastin, itxuria, eta etorri zuan baten baiño gehixaotan, andriakin be bai. Andriakin haura Usastin zeuala esaten juen.

- Eta beste soldauak be espezialistak izango zien?

- Bai, komunikaziñotako zera. Behin, zera, kablia botata jeuan Zurratik Idurixora, eta apurtu zotsenian han ibili zittuan banderolekin seiñak eitten. Eta hasarre gabian. Zeiñek apurtu zotsen, sospetxosuak danak zittuan euskeraz eitten zebenak, eta gure aitta-zanak ez jakixan erderaz, eta Amatiñoko tiak be ez. Eta sutonduan euskeraz harek eta: "Estos vascos

que ni ellos se entienden, hablen en cristiano!" esan, eta ixilik; eta hiru egunian ixilik egon zittuan sutonduan, alkarri seiñak eiñaz.

4.3. Gaez fronte batetik bestera berbetan eta bertsotan

- **Hizlaria(k)**: Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: BER-032/017
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:26:01. **Bukatu**: 00:28:26
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Gaez fronte batetik bestera mezuak bidaltzen zizkioten elkarri bozgorailutik. Bertsotan ere egiten zuten.

Transkripzioa

- Gabaz-eta esaten dabe frente batetik bestera...
- Altabozakin. Makiña bat bider egon giñuztan bentanatik entzuten, alkarri arengak altabozetik zertzen.
- Zelakuak?
- "Pasáos a nuestra filas, no os haremos nada", ez dakit zer, "Os vais a...". Behintzet bakoitzak beria ona. Eta gorantziak emuten bata bestiai parientienak-eta, gorantziak emuten eta be bai. Akordatzen naiz, Raizabalenian jeuan kriada bat Zoila izena dabena, eta: "Conoces a Zoila?", y "Sí!", "Pues es mi novia y dale recuerdos!", "Pues ahora ez mi novia!". Holakuak eta.
- Ze aldetan hori?
- Garbe aldetik Munabe aldera edo, San Juan aldera edo, horra.
- Garben gorrixak eta Munabe aldian nazionalak zeren?
- Bai, Munabe aldian nazionalak eta Garbe aldian zera... Munaben, San Juango Plazan. Gero, Atxabaletako etxostian, han Elgeta aldera. Gero, Amatiñoako etxazpitan. Gero, Narbaizagoikua baiño gorao.
- Eta bertsotan be eitten zebela entzunda nago.
- Bai, bai. Eundoko zerak eukitzen jittuen gabian. Eske hainbeste denporan...
- Zuk entzun ziñuan sekula bertsotan?
- Ba, ez nok ni akordatzen, baiña gauza asko esaten zebela gabian altabozetatik, bai.
- Eta alkarri ondo entzuten jako?
- Bai, primeran gabian. Makiña bat bidar etxosteko bentanara joan, eta han jarri, eta hotzak hartzen egon giñuztan entzuten.
- Gabaz?
- Bai, gabaz.
- Eta bestela billurrik-eta gabaz zeuek hara eta hona ibiltzeko?
- Ez, ibilli biharrik be ez giñuan eukitzen ezta gabaz.
- Etxe inguruan?
- Etxe inguruan.

4.4. 'Baratzako pikuak' koplak

- **Hizlaria(k):** Iturrino Intxausti, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-033/002
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:00:13. **Bukatu:** 00:01:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Baratzako pikuak koplak abesten ditu Pedro Iturrinok.

Transkripzioa

Baratzako pikuak hiru txorten ditu,
baratzako pikuak hiru txorten ditu,
neska mutil zaliak hankak haran ditu.
Ai, oi, ene hankak arin ditu.

Hankak ariñak eta burua ariñago,
hankak ariñak eta burua ariñago,
dantzan hobeto dakin artajorran baiño.
Ai, oi, ene artajorran baiño.

Artajorrara nua lur berri-berrira,
artajorrara nua lur barri-berrira,
belarra jorratu ta artua sasira.
Ai, oi, ene artua sasira.

Aittak artajorrara deitzen nauenian,
aittak artajorrara deitzen nauenian,
ama [ohera] nijua, min det sabelian.
Ai, oi, ene min det sabelian.

4.5. "Maiatzaren hiruan..." hasten den bertsoa

- **Hizlaria(k):** Iturrino Intxausti, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-033/006
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:04:24. **Bukatu:** 00:04:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Maiatzaren hiruan..." hasten den bertsoa abesten du Pedro Iturrinok.

Transkripzioa

Maiatzaren hiruan festa zan Urnitan
zure amaren ama zuri erritan
Buruntza mendiaren gaiñeko ermittan
oraziua egin zenduan egittan
etxe [bi argittan]
gabeko hamabittan

ama zuri errittan
txinpartak zituala bere begitan.

4.6. "En el barrio de Amara" kanta

- **Hizlaria(k):** Iturrino Intxausti, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-033/010
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:06:42. **Bukatu:** 00:09:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "En el barrio de Amara" kanta (euskaraz eta erdaraz) abesten du Pedro Iturrinok.

Transkripzioa

En el barrio de Amara
Lolitan etxian (biz)
dan tripa-callos con un cuartillo
errial batian (biz).

Además con derecho
meriendatzian (biz)
de hacerle un sirri a la criada
sukalde atzian (biz).

Si son recién casados
andre ta gizonak (biz)
deben de rezar al acostarse
[kiri] eleiz onak (biz).
A las pulgas y chinches
pakian uzteagaittik (biz)
de vez en cuando
[simpar un bazo]
atzeko leihotik. (biz)

4.7. "Begire nago begire", Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arroitauregi, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-034/002
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:00:25. **Bukatu:** 00:01:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Maria Luisa Alberdik "Begire nago begire" kanta abesten du.

Transkripzioa

Begire nago, begire
Kamino bide gorrire.
Noiz etorriko ete da
nere maitia herrire?
Nere maitia herrire.

Nere nobiaren ama,
asto baten jabe dana,
astoak ekarriko [dotso] (biz)
etxian bihar dan dana.

Umia dago pozuan
[amoretxo] bat besuan
Etxian zer jan ez deuko
manteniduten auzuan
Etxian zer jan ez dueko
manteniduten auzuan.

4.8. "Antontxu, Antontxu..." kanta, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Arroitajauregi, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-034/003
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:01:16. **Bukatu**: 00:01:51
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Antontxu, Antontxu zera zu" kanta abesten du Maria Luisa Alberdik.

Transkripzioa

Antontxu, Antontxu zera zu
kuartillo t´erdigaittik ohia saldu dozu
Ama datorrenian, nian
Aitta datorrenian, nian
etxetik kanpora juan biharko dozu.

Antontxu, Antontxu zera zu,
neska txiki honekin ibiltzen zera zu
Aita datorrenian, nian
Ama datorrenian, nian
etxetik kanpora juan biharko dozu.

4.9. "Abadiño San Blasetan" kopia Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Arroitajauregi, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-034/005
- **Iraupena**: 0:00:23. **Hasi**: 00:02:08. **Bukatu**: 00:02:31

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Abadiño San Blasetan" kopia abesten du Maria Luisa Alberdik.

Transkripzioa

Abadiño San Blasetan,
neska zaharrak bentanetan
mutil zaharrak engaiñetan
Abadiño San Blasetan.

Begire nago, begire
Kamino bide barrire.
Noiz etorriko ete dan
nere maitia herrire.

4.10. "Santa Ageda Ageda" kanta, Maria Luisa Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Alberdi Arroitauregi, Maria Luisa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-034/007
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:03:30. **Bukatu:** 00:05:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena:** "Santa Ageda Ageda" Santa Ageda eguneko kanta ezaguna abesten du Maria Luisa Alberdik.

Transkripzioa

Santai Agedai, Ageda,
bixer da Santai Ageda
bihar da Santai Ageda baiña
gaur haren bezpera eguna.

Santa martiri maitia
dago errukiz betia,
berak alkanzatu daiuskula
osasuna ta bakia.

Libertadia eskatzen diou
etxeko printzipalari,
santai Agedaren alabantzak
kantatutzera nua ni.

Grazia diot ipiñi
santa honekin batian,
urte ontxo bat pasau dezala
osasuna ta bakian.

Santa martiri maitia
dago errukiz betia,
santa [honeri] eskatzen diogu
osasuna ta bakia.

Ateburuan aizkora
[bixer] kantarik asko da
emoixu limosnatxo bat eta
[adios] hurrengo atera.

Erantzuten jakonak e badia
kantarixe da motela,
igezko urdaixa badauket baiña
aiba aurtenguan atala.

Hortxe bidian agiri gendun
ez zala hiru arroa
etxian franko ibilli barik
oingoak [ados zirala].

4.11. `Salamancara´ kanta, Bittori Aranburuk abestuta

- **Hizlaria(k)**: Aranburu Altube, Bitori
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-034/012
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:08:00. **Bukatu**: 00:09:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: `Salamancara´; kanta ezaguna Bittori Aranburuk abestuta.

Transkripzioa

Gazte-gaztetan aitak eta amak
fraile ninduen nonbratu
estudixuak estudiantzen
Salamancara bialdu
Salamancara nijoalarik
bidian nuen pentsatu
estudiante tunante baiño
hobe nuela ezkondu.

Ezkondu bai ni, ni bai ezkondu
bai eta ere damutu
fraka beltzian hari zuria
sekula ez zaidan faltatu.

Fraka beltzian hari zuria
txamarra besorik gabia
horregatikan deitzen didate
arrote mixerablia.

4.12. "Andra Joxepa tronpetan" kanta, Bittori Aranburuk abestuta

- **Hizlaria(k):** Aranburu Altube, Bitori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-034/015
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:10:28. **Bukatu:** 00:11:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** "Andra Joxepa tronpetan" kanta abesten du Bittori Aranburuk. "Andra Josepa tronpetan; Kristoren zoragarri, jarri belaunbiko, adora Jesucristo; zein da baserriko onena, asa burua loratzen, aitatxo eta amatxo, urra, urra pipitxo, ala kinkiñera, ala samurrera, Josepa Etxeberriko, jira beste aldera"

Transkripzioa

Andra Josepa tronpetan
Kristoren zoragarri,
jarri belaunbiko,
adora Jesukristo
ein da baserriko onena?
aza burua loratzen,
aitatxo eta amatxo,
urra, urra pipitxo,
ala kinkiñera,
ala samurrera,
Josepa Etxeberriko,
jira beste aldera!

4.13. "Dozenatxo bat bertso", Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:00:30. **Bukatu:** 00:02:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena:** Aitari ikasitako bertsoak, "Dozenatxo bat bertso" hasiera dutenak, abesten ditu Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Dozenatxo bat bertso nahi nituzke jarri
jaietan kontatzeko entretenigarri
nere publikatzea izaten da sarri
alabantzak emanaz zenbait neskazarri.

Neskazarri bat tentatzen hasi naiz lehenguan
izan ere halako polita zeguan
umil eta serio hitz egin genduan,

baiñan gusto guztiak ez dira munduan.

Hizketan hasi giñan biok goxo-goxo
ezkontzeko mandatu egin zidan atzo
leihotikan ujuka ama ta bi atso
ez dek harrapatuko uste bezin mantso.

Ama preparatu zan hasarrez betia
lehenbizko ujua “Zenbat dek dotia?
Hainbeste kostatako alaba maitia
lastima izango dek hiri ematia”.

“Zure alabarentzat horrenbeste fama
Nik ez det sinistutzen [haizikan] darama
Zure baserrian nik egitia lana
izan liteke baiña ez det uste, ama”.

“[Ez ahal dala uste det] horren errespuestik
atarramentu onik mutilzaharrak ez dik
nere alabak ez dauka ezkontzeko kezkiak
hi ez bezelakuak [nahi ezta damazkiak]”.

4.14. `Kontxesiri´ kanta, Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/007
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:06:47. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Kontxesiri´, kanta ezaguna abesten du Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Maite bat maitatzen det, maitagarria,
begi ederrak ditu, guztiz argia,
daukat urruti.

Baiñan ezin kendu det burutik
haren itxura.

Saldu ahal balitzake pisura
urrearen truke,
nork erosi faltako ez luke
Ja-jai..
nork erosi faltako ez luke.

Hogeita hamar leguz nago aparte
bitartean badaukat milloi bat ate
guziak itxirik.
Nahi arren ezin egon isilik,
beti negarrez

nere maite-maitiaren galdez
ote dan bizi
Nere bihotz-bihotzeko Kontxesi
Ja-jai..
Nere bihotz-bihotzeko Kontxesi.

Egunaz argi gutxi, gauian illun,
neretzat konsuelorik ez dago iñun.

4.15. `Ikusten duzu goizean´, Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/009
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:08:19. **Bukatu:** 00:08:49
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** `Ikusten duzu goizean´ kanta abesten du Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Ikusten dezu goizean
eguna argitzen danean
menditxo baten gaiñean
etxetxo txiki aurre-txuri bat
lau haitz haundiren erdian
iturritxo bat aldian
txakur txiki bat atean
hantxen bizi naiz pakean.

4.16. "Ez dizut irekiko" kanta, Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/010
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:08:49. **Bukatu:** 00:09:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Ez dizut irekiko" kanta abesten du Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Ez dizut irikiko gau illunian aterik
barrunguak ez daki, kanpokuaren berririk.
Zatoz eguna argitzen danian
egongo gera alkarrekin.

4.17. `Maritxu nora zoaz´, Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/012
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:09:37. **Bukatu:** 00:09:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Maritxu nora zoaz´ kanta abesten du Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Maritxu, nora zuaz, eder galantori?
Iturrira, Bartolo, nahi badezu etorri.
Iturrian zer dago? Ardotxo txuria.
Biok edango degu nahi degun guzia.

Nik ez det nahi ardorik, ez beste gauzarik
zuk emandako laztan goxo bat besterik.

4.18. `Begira nago begira´ koplak, Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/014
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:10:14. **Bukatu:** 00:11:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** `Begira nago begira´ trikiti-koplak abesten ditu Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Begira nago, begira
kamiño bide berrira
noiz etorriko ote dan
maitia nere herrira. (bis)

Tristerik nago tristerik
ez daukat adiskiderik
tristerik eta bakarrik
adiskide txarra baiño
hobe da bizi bakarrik.

Alegeriak giñan baiña (bis)
tristura haundixak jo gaittu
zazpi librako oillo zurixa
basakatuak jan dosku. (bis)

4.19. `Maria Jesus´ kanta, Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/016
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:11:28. **Bukatu:** 00:12:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** `Maria Jesus´ kanta abesten du Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Goizian goiz tabernara eta
ateratzen naiz azkena
egun guzian txurrutian ta
ez zait betetzen barrena.

Hau da edari zoragarria
neri gustatzen zaidana
Maria Jesus, bihotzekua,
bete hamaseigarrena.

Hamasei bete ditu
hamaseirak hustu
beste hainbeste husteko
inor biharrik ez du.

Edan korriente eta
pagatzia ahaztu,
holan tabernaria
ezin aberastu.

4.20. "Ilobatxo bat besuan" lo-kanta, Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/018
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:12:32. **Bukatu:** 00:13:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Ilobatxo bat besuan" umeei lo eragiteko kanta abesten du Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Ilobatxo bat besuan,
ez lorik egin basuan
aizeritxuak jan ez zaidazun
oillua zeralakuan.

- Hori lehen [esan dot].

- Ez.
- Ez?
- Ke, ba.

Illobatxo bat lo ta lo
zuk orain eta nik gero
zuk gura dozun ordutxon baten
biok egingo degu lo.

4.21. Santa Agedetako kanta, Rufina Beiztegi abestuta

- **Hizlaria(k)**: Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-036/002
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:02:10. **Bukatu**: 00:04:11
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda
- **Laburpena**: Santa Ageda egunean eskean egiteko kanta.

Transkripzioa

Hor goian dago iturri,
ura txorrotik erori.
Etxe honetako nagusiko jaunak
hamalau urre txintzarri.

Hamalau urre txintzarrirekin
zazpi damaren eduzki.
Orain hemendik bihar genduke
dama gaztia koplatu.

Damatxo gazte konponitua,
hori kolore gorria.
Zure matrailak iduritzen zait
krabeliñaren orria.

Krabeliñaren orriarekin,
larrosa maiatzekua.
Zeuri begira hementxe nago,
damatxo bihotzekua.

Zakua ere luzia degu,
Matxin Kañasek egiña,
hau guzia betetzeko
etxe on baten allegauko bagiña.

Limosna ere hartu degu ta
orain abia gaitian.
Adiosikan ez degu eta,
agur, ikusi artian.

4.22. "Lotxo engaiñadoria" lo-kanta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/005
- **Iraupena:** 0:00:13. **Hasi:** 00:04:43. **Bukatu:** 00:04:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Lotxo engaiñadoria" lo-kanta.

Transkripzioa

Lotxua lo ta lo
lotxo engaiñadoria
lotxuak engaiñatzen dau
Martintxo guria.

4.23. "Txalo pin txalo", Soledad Jauregik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/006
- **Iraupena:** 0:00:13. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:05:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Txalo pin txalo" haur-kanta, Soledad Jauregik abestuta.

Transkripzioa

Txalo pin txalo,
txalo ta txalo
txori txikia
kaiolan dago.

4.24. "Bonbolontena" lo-kanta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/007
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:05:09. **Bukatu:** 00:05:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Bonbolontena" lo-kanta, Garbiñe Irizar eta Nicasio Bilbaok abestuta.

Transkripzioa

Bonbolontena, ene laztana
ez egin lorik basuan,
aixeritsuak eamango zaitu
erbia zeralakuan.

4.25. "Binbili-bonbolo", Garbiñe Irizar eta Nicasio Bilbaok abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/008
- **Iraupena:** 0:00:17. **Hasi:** 00:05:29. **Bukatu:** 00:05:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Binbili-bonbolo" kanta, Garbiñe Irizar eta Nicasio Bilbaok abestuta.

Transkripzioa

Binbili, bonbolo, sendalo,
akerra Frantzian balego,
akerrak kanta,
idiak dantza,
ahuntzak danboliña jo.

4.26. "Agur Jesus, Maria eta Jose" gabon-kanta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/009
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:05:46. **Bukatu:** 00:06:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** "Agur Jesus, Maria eta Jose" gabon-kanta, Nicasio Bilbaok abestuta.

Transkripzioa

Agur Jesus, Maria eta Jose,
Joakin eta Ana,
badakigu Jesus maitia
jaio zan gaba dana.

Egiazko berria da ta
behar degu siñistu,
Belenen jaio emen dala
gure salbatzaillea.

4.27. Antzinako kanta, Soledad Jauregik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/010
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:06:13. **Bukatu:** 00:07:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** Antzinako koplak gisako kanta, Soledad Jauregik abestuta.

Transkripzioa

Hor goian dago etxe bat,
jo zagun atia,
erantzungo baluke
gure etxeke andriak.

Birritan ta hiru bider
Joxepek jotzen du,
gizonak bentanara
nekez urtetzen du.

Gizonak bentanatik
dio galdetutzen:
gauaren ordu honetan
zer zabitsete hemen?

Donzella eder bat dakat
nerekin batean,
semea dakarrela
bere sabelean.

Semea ta donzella,
nola ya liteke?
Gizon enbustera
hortikan jun zaite.

4.28. "San Martinetan" jolasteko kanta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/011
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:07:04. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "San Martinetan" jolasteko kanta, Garbi Irizar eta Soledad Jauregik abestuta.

Transkripzioa

San Martiñetan, San Martiñetan,
zartain jokua, [gu mobiketan],
kulunkan danok, illara baten
ipurdi-lekuak ondo zaintzen.
txirriki, mirriki, txirriki txera
txirriki, mirriki, txirriki, txon/txau.

4.29. "Lehenengotxu hori" jolasteko kanta

- **Hizlaria(k)**: Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-036/013
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:07:37. **Bukatu**: 00:09:02
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Lehenengotxu hori" atzamarrekin jolasteko kanta, Nicasio Bilbao eta Garbiñe Irizarrek abestuta.

Transkripzioa

Lenengotxu hori, punta bihetz hori,
beste guztien artian txikia dek hori.
Lara larala...

Bigarrentxu hori, punta bihetz hori,
beste guztien artian nagia dek hori.
Lara larala...

Hirugarrentxu hori, punta bihetz hori,
beste guztien artian luzia dek hori.
Lara larala...

Laugarrentxu hori, punta bihetz hori,
Beste guztien artian bixkorra dek hori.
Lara larala...

Bosgarrentxu hori, punta bihetz hori,
beste guztien artian lodia dek hori.

4.30. "Unetan, dosetan" jolaserako kanta

- **Hizlaria(k)**: Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-036/015
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:09:10. **Bukatu**: 00:09:31
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Unetan, dosetan", tortolosekin jolasean abesten den kanta, Garbiñe Irizar eta Soledad Jauregi.

Transkripzioa

(Unetan, dosetan, tresetan)

Kriskitin, krauskitin,
larrosa, krabelin,
basua kristalezkoa,
kopia urrezkoa.
Kriskitin, krauskitin,
larrosa, krabelin,
Mariandresen okotza,
lau libra ta bost ontza.

4.31. "Gabon gabon seta" gabon-kanta, Garbiñe Irizarrek abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/016
- **Iraupena:** 0:00:10. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:09:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Gabon kantak
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** "Gabon gabon seta", gabon-eskean joaten zirenean abesten zen kanta, Garbiñe Irizarrek abestuta.

Transkripzioa

Gabon gabon seta,
erro zabal seta.
Jauna jaio dala
jo deigun krisketa!

4.32. San Nikolasen kanta, Soledad Jauregik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/017
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:09:41. **Bukatu:** 00:10:14
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- **Laburpena:** Gabonetan eskean joaten zirenean abesten zen San Nikolasen kanta, Soledad Jauregik abestuta.

Transkripzioa

Ale, ale alegría
todo el mundo [ez al da egia].
Aquí estamos cuatro,
cantaremos dos
por una limosnita
del amor de dios.
Angelitos solomos
suspi-suspiramos
para merendarnos
si nos dan,
no nos dan,
un par de txorixo pikante
neskaren zakurako
mutillaren triparako!

4.33. Ume-kantak, Celestina Oteizak abestuta

- **Hizlaria(k)**: Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-036/023
- **Iraupena**: 0:00:22. **Hasi**: 00:11:38. **Bukatu**: 00:12:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: Ume-kantak, Celestina Oteizak abestuta: "Antxon bat eta Antxon bi", "Txalo txalopin" eta "Bela bela kandela" .

Transkripzioa

Antxon bat eta Antxon bi,
Antxon potzura erori.
Erori bazan erori,
ez da behinguan ageri.

Txalo, txalo, pin
mañana melotxin
aitta tabernara,
ama elizara.

Bela, bela, kandela,
ordu bixak jo dabela,
hor datorrela maistrua
azotak emotera.

4.34. "Kukurruku" jolasteko kanta, Celestina Oteizak abestuta

- **Hizlaria(k)**: Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-036/024
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:12:21

- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Kukurruku" jolasteko kanta, Celestina Oteizak abestuta.

Transkripzioa

Kukurruku,
zer diñozu?
Ze dozu?
Buruan min,
Zeiñek ein?
Oillarrak.
Nun da bera?
Basuan.
Zetan?
Zotzak batzen.
Zotzak zetako?
Sua eitteko.
Sua zetako?
Opilla erretzeko.
Opilla zetako?
Zerura juateko.
Zerua zetako?
Pastelak jateko.

4.35. "Norena, norena" lo-kanta, Celestina Oteizak abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/025
- **Iraupena:** 0:00:12. **Hasi:** 00:12:21. **Bukatu:** 00:12:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Norena, norena" lo-kanta, Celestina Oteizak abestuta.

Transkripzioa

Txikitxu politori,
norena, norena?
Norena izango naiz, ba,
aitena ta amena.

4.36. "Txikitxo polit hori", Paula Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/037
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:19:23. **Bukatu:** 00:22:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak
- **Laburpena:** "Txikitxo polit hori" lo-kanta, Paula Albedik abestuta.

Transkripzioa

Txikitxo polit hori
zeu nere laztana,
katigatu ninduzun
[libria] nintzana.

Libriak libre dira,
zu ta ni katibu,
librerik hobe dana
guztiok dakigu.

Nere maiterik ederrenen honi
usakumiak ekarri
beste guztiri bana edo biña,
Arkaiztxori hamabi.

Tringulo-trangulo mariña,
beti honelan bagiña.
Beti honelan izateko
poltsia dago ariña.

Txikitxo polit hori,
norena zera zu?
Norena izango naiz,
jangoikuarena.
Norena? Norena?
Norena izango naiz,
jangoikuarena.

Arrateko zelaiko
lirio loria,
handitxe gora dago
zerura bidia,
handitxe gora dago
zerura bidia.

Txiki-txikitxua ta
polit-politxua,
nori eman diozu
neuri agindua?

Ez nizun agindu ta
ezta bihar ere,
zure agindu bihar
ez nago neu ere.

Lotxua lo ta lo,
zuk orain era nik gero,
zeuk gura dozun orduren baten
biok egingo degu lo.

Lua enda lua,
luaren goxua,
luak engaiñatzen dau
gure umetxua.
Luak engaiñatzen dau
gure umetxua.

Lotxo engaiñadore
traidore faltsua,
luak engaiñatzen dau
geure umetxua.

4.37. Antzinako kanta, Paula Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/038
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:23:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** Antzinako kanta, Paula Alberdik abestuta.

Transkripzioa

Zeru goira igo nintzan
santuagaz aitortzera
penitentzi jarri zidan
gehiegi ez maitatzea.

4.38. "Abarketak urratuta" zortzikoa, Paula Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/039
- **Iraupena:** 0:00:16. **Hasi:** 00:23:04. **Bukatu:** 00:23:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Abarketak urratuta" zortzikoa, Paula Alberdik abestuta.

Transkripzioa

Abarketak urratuta
zapatarik ez,
Bermeon gelditu nintzan
oiñeko miñez.
Hauxen dok egia,
zortziko berria,
hiru txikin ardorekin
librako ogia.

4.39. "Kukurruku jauna" jolasteko kanta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/042
- **Iraupena:** 0:00:20. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:28:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Kukurruku jauna" jolasteko kanta.

Transkripzioa

Kukurruku jauna
Nun da aitta-jauna?
Artalia batzen.
Artalia zetako?
Oilluarendako.
Oillua zetako?
Arrautzia eitteko.
Arrautzia zetako?
Prijiduta jateko!

4.40. "Plaentxiatarrak" antzinako kanta, Paula Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/043
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:28:04. **Bukatu:** 00:28:19
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Plaentxiatarrak" antzinako kanta, Paula Alberdik abestuta.

Transkripzioa

Plaentxiatarrak esaten dotse
errekiari ibaixa
hartuko leuke boltsillorako
bost pezetako zurixa.

4.41. "Larrosatxuak" kanta, Paula Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/044
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:28:19. **Bukatu:** 00:28:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Larrosatxuak" antzinako kanta, Paula Alberdik abestuta.

Transkripzioa

Larrosatxuak bost orri ditu
krabeliñiak hamabi,
etxe hontako dama maitiak
aingerutxua dirudi.

4.42. "Nere txikitxo politen honi", Paula Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/045
- **Iraupena:** 0:00:18. **Hasi:** 00:28:34. **Bukatu:** 00:28:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Nere txikitxo politen honi" lo-kanta, Paula Alberdik abestuta.

Transkripzioa

Nere txikitxo politen honi
zeiñek ein dion baneki
neronek ere egingo nioke
beste hainbeste berari.

4.43. "Aittitta ta amama" ume-kanta, Paula alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/047
- **Iraupena:** 0:00:19. **Hasi:** 00:29:03. **Bukatu:** 00:29:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Aittitta ta amama" ume-kanta, Paula Alberdik abestuta.

Transkripzioa

Aittaitta ta amama
 juan ziran mendira,
 aixkoria galduta hasarretu ziran.
 Aittaittak amamari kopetatik tira,
 amamak aittaittari belarritik tira.

4.44. "Astelehenian" kanta, Paula Alberdik abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/049
- **Iraupena:** 0:00:15. **Hasi:** 00:30:06. **Bukatu:** 00:30:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Astelehenian ezkondu nitzan..." antzinako kanta, Paula Alberdik abestuta.

Transkripzioa

Astelehenian ezkondu nitzan,
 martitzenian basora,
 eguaztenian orbela batu
 eguenian etxera.

4.45. Antzinako kanta, Paula Alberdi abestuta

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/050
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:30:21. **Bukatu:** 00:30:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** "Nere maite polita" antzinako kanta, Paula Alberdik abestuta.

Transkripzioa

Nere maite polita
 Donostian dago
 Iparra gura leuke,
 Mendebala dago.

Hau da zorioneko

mendebal urtia
iparrikan behin ere
atera gabia.

4.46. "Errekonduan errota" trikiti-koplak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-037/004
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:01:48. **Bukatu**: 00:04:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Errekonduan errota" esanez hasten diren trikiti-kopla ederrak abesten ditu Bixenta Larrañaga.

Transkripzioa

Errekonduan errota...

- Kantau ala esan bakarrik?
- Ez, kantau, kantau... Bai.

haren gaiñian harria
harri gaiñian txoria
neskatxa mutil zale mutil...
neskatxa mutil zale engainagarria
matrailatxo gorria
krabeliñatxua bezelakua.

Larrosatxuak bost orri
krabeliñiak hamabi
andre ederra nahi dabenak
errondan ibili sarri.
Andre ederra nahi dabenak
errondan ibili sarri.

Ederregia zera zu
soluan biharrerako,
hartizu kaballerua
kalian pasiorako.

Ama neuriak ezkontzeko
nere moduko batekin
nere moduko batekin
dotia emango didala
oillo-lokia bost txitekin.
Ama neuriak ezkontzeko
nere moduko batekin
dotia emango didala
oillo-lokia bost txitekin.

Begira nago, begira,
goiko kamino berrira.

Noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?
Begira nago, begira,
goiko kamino berrira
noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?

Ene maitia zer dezu?
Kolore txarra daukazu.
Kolore txarra daukazu.
Koloria mudatzeko
metal-ura edan bihar dezu.

Begira nago, begira,
goiko kamino berrira.
Noiz etorriko ete da noiz
nere maitia herrira?

Tristerik nago tristerik,
tristerik eta bakarrik,
nobiua daukat gaixorik.
Oillo bat hil detsat baiña
ez duela mejoriarik.
Tristerik eta bakarrik.
Adiskide txarrakin baiño
hobe da bizi bakarrik.

4.47. "Gaztia nintzanian" trikiti-koplak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-037/005
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:04:30. **Bukatu**: 00:05:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Gaztia nintzanian" esanez hasten diren trikiti-koplak abesten ditu Bixenta Larrañaga.

Transkripzioa

Gaztia nintzanian, denbora batian,
ez nitzan sosegatzen ezkondu artian.
Ezkondu eta lehelengo gabian
Azak eta porruak [Orio] kalian.
Hamaika txorakeri egin degu
gaztiak giñan artian.

Hankak ariñak eta burua ariñago,
hankak ariñak eta burua ariñago,
dantzari hobeto daki artajorran baiño.
Ai, ai, ai artajorran baiño.

Artajorrara [nua] lur barri-barrira,
artajorrara [nua] lur barri-barrira,
bedarra jorratu ta artua sasira.
Ole morena, artua sasira.
Bedarra jorratu ta artua sasira.

Hankak ariñak eta burua ariñago,
hankak ariñak eta burua ariñago,
dantzan hobeto daki artajorran baiño.
Ai, ai, ai artajorran baiño.

Arrateko pikuak hiru adar ditu,
Arrateko pikuak hiru adar ditu,
neska mutilzaliak hankak ariñak ditu.
Ai, ai, ai hankak ariñak ditu.

4.48. "Mendiri mendi lainua" trikiti-koplak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-037/006
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:06:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: "Mendiri mendi lainua" hasiera duten trikiti-koplak abesten ditu Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa

Mendiri mendi lainua
pagori pagori usua
ez dezu errez harrapatuko
maiorazkuaren pausua.
Ez dezu errez harrapatuko
maiorazkuaren pausua.

Nere nobiuaren ama,
asto baten jabe dana,
haretzek ekarrikost neri
etxian bihar dan dana.
Nere nobiuaren ama,
asto baten jabe dana,
haretzek ekarrikost neri
etxian bihar dan dana.

Goiko mendian edurra dago,
errekaldian izotza,
ni handik aparte bizi naiz eta
alegre dot nik bihotza.
Ni handik aparte bizi naiz eta
alegre dot nik bihotza.

4.49. "Altuan Arantzazu" kopla

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-037/007
- **Iraupena:** 0:00:10. **Hasi:** 00:06:44. **Bukatu:** 00:06:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "Altuan Arantzazu" porrusaldako kopla abesten du Bixenta Larrañaga.

Transkripzioa

Altuan Arantzazu, bajuan Oñeti.
Altuan Arantzazu, bajuan Oñeti.
Zubilla(ga) barrenian tabernia beti.

4.50. "Maritxu nora zuaz" kanta

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-037/008
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 00:06:54. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "Maritxu nora zuaz" kanta abesten du Bixenta Larrañaga.

Transkripzioa

Maritxu, nora zuaz,
eder galantori?
Iturrira, Bartolo,
nahi badezu etorri.
Iturrian zer dago?
Ardautxo txuria.
Biok erango degu
nahi dezun guztia.

Eran korriente ta
pagetia ahaztu
Holan tabernarikan
ezin aberastu.

4.51. "Lotxua lo eta lo" kanta

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Zarraoa, Bixenta

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-037/010
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:09:19. **Bukatu**: 00:10:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena**: "Lotxua lo eta lo" kanta abesten du Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa

Lotxua lo ta lo.
 Lotxuak engaiñatzen dau gure umetxua,
 Txiki-txikitxua ta polit-politxua.
 Hauxen izan bihar dau gure umetxua.
 Lotxua lo ta lo.
 Oin zuk eta nik gero.
 Lotxua lo ta lo.
 Lotxuak engaiñatzen dau haurtxo txikitxua
 polit-politxua ta maite-maitetxua.
 Lo egizu lo,
 orain zuk eta nik gero.

4.52. `Baserritarrak gera gu´kanta

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-037/013
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:11:24. **Bukatu**: 00:13:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: `Baserritarrak gera gu´kanta abesten du Bixenta Larrañagak.

Transkripzioa

Baserritarrak gera gu,
 baserritarrak gera gu,
 kaletarra bezin ongi
 soiñua jotzen degu.
 Baserritarrak gera gu,
 Soiñua jo eta dantzatutzen degu.

Zer gera gu? Nor gera gu?
 Baserritarrak gera gu.

Baserritarrak izen arren,
 Soiñua jo eta dantzatutzen degu.

Baserri hontan bizi gera gu,
 etxe zuria eta txakurra,
 iturri fresko malentia
 eta betiko bizona.

Goizian goiz esnatzen gera,
behi marrosa, asto arrantza,
txakur zaunka eta, gaiñera,
egunakin batera
guztiok laneratzen gera.

Tarea egindakuan
itzalera erretiratzen gera.
Guztiok armonixa on baten,
pobre izen arren,
hamentxe bizi gera.

Baserritarrak gera gu,
baserritarrak gera gu,
kaletarra bezin ongi
soiñua jo eta dantzatutzen degu.

Zer gera gu? Nor gera gu?
Baserritarrak gera gu.

Baserritarrak izen arren,
kaletarra bezin ongi
soiñua jo eta dantzatutzen degu.

4.53. `Ogi zerutik´ kanta

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-037/015
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 00:14:05. **Bukatu**: 00:15:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena**: `Ogi zerutik´ kanta abesten du Bixenta Larrañaga.

Transkripzioa

Ogi zerutik etorria,
zu zera gure poz guztia.
Ogi zerutik etorria,
zu zera gure poz guztia. (bis)
Bildots santua hara hemen,
munduko gaitza kentzearren.
Sagrariua nun dagoen,
lurra zeruaz bat egiten.
Lurra zeruaz bat egiten.

- Gero hori luziao be bada, [liburuan] jarraitzeko.
- Bai, kanta hori...
- Hasieran, ba, domekero-domekero hori kantatzen da.
- Bai, baiña dana ez da kantatzen normalian. Horixe, zeuk kantau dozuna...
- Bueno, holan, Arantzazun edo jente asko dagonian komuniua hartzen

orduan bai, baiña jeneralian elizatan, ba, luzia.
- Luziaua [...], luzia...
- Bai.

4.54. Sineskerak; Sorginen kontuak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/018
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:21:04. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak,
mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Umetan, ipuinak sutondoan. Sorginen kontuak. Kalabazari begi-zuloak egin, kandela bat barruan sartu eta horren inguruko ipuinak. Armak gehitzearekin batera desagertu ziren kontu horrek guztiok.

Transkripzioa

- Zuek txikixak ziñatenian, neguan ta ipuiñak kontatzen ta pasatzen ziñuen denporia? Kontu zaharrak eta... jakingo dittuzu zuk batzuk.

- M: Aittajunak eta, aittajunak [eitten eban].

- E: Sutonduan jarritta.

- M: Bai, bai... [...]

- Doktriñia ta esaten giñuan guk baitta.

- E: Bai... doktriñia ez, hola... ipoiñak.

- Ta ze ipuin edo ze? Sorgiñen kontuak eta bazian?

- M: Sorgiñen kontuak bai. Sorgiñak halako lekutan baziela ta... Sorgiña ordun asko zan. Baiña tirua jarri zanian derrepente danak ezkutau zien.

- E: Ta, Mercedes, azkenengo, zu akordauko zara, hemen txaran urtetzen zebela...

- M: Bai, bai, bai.

- E: Hau izan zan ona. Gero horra jentia etorri eitten zan kanpotik be e!

- M: Pentsaik!

- E: Sekulako argixak-eta ikusten ziela ta geu be juaten giñan ta hamen armia sartu zanian danak desaparezidu zian.

- M: Bai ba! Pertsonak zien! Kalabaziari eitten otsan, ipiñi kalabazia [puntan baten] bai, ta ein begi-zuluak ta ahua be bai eta kandelia barruan biztuta ta bildurgarrixa haura. Ni akordatzen naiz [Azkortako] Eladion entzueria, zuk ezautu be bai...

- E: Eladio? Bai, ezautzen [neban].

- M: Eladio, gizon haundi bat zan...

- [...]

- M: Haura Bergaratik badator ta [... geruao ta haundixao] eitten ei jakon zeozer, [...], ta geruao ta haundixao eitten ei jakon... zihero bildurtuta [...n] lo einda etxera juandakua hauraxe be! Bai, dana sorgiña zan orduen! Gure aittari entzunda nao ni, katu marrusarak baiña ikeragarriak! Hor [...torre] aldien. Haura [...] etxera. Ta bildurtuta haura be! Baiña baten batzuk eindako marrusarak! Ordun danak sorgin ta personak zien, tontolapiko pilla bat.

- Orduan zuk ez ziñuan siñisten holako ipuiñetan...
- M: Bee...! Nik e... ez dakit nik siñisten neban baiña... Ez siñistia hobe neban orduan be ta oin... Orduen holakotxe tontakerixak eitten zittuen. Ta gero, ba, pistola jarri zanian, dana zihero emendau.

4.55. Baserri giroa; Kofradiak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/021
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:26:03. **Bukatu:** 00:27:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Osintxuko kofradiak. Behia hiltzen zen eta "puestia" egoten zen. Okela hura baserrien artean banatzen zuten. Abadeari okela-zati onenak ematen zitzaizkion.

Transkripzioa

- Osintxun orduan kofradixak-eta zela eitten ziran?
- M: Kofradixak, e... Ba, orduan be behixa hiltzen zan hemen...
- Behixa ala txahala?
- M: Oin txahala, baiña orduen behixa hiltzen zan. Behixa hiltzen zan eta puestia esaten jakon, egosteko, iztarrak, iztarra edo kentzen otsen. Ta beste geindikua, sobratzen zana, etxe bakoitzak [rekogitzen] eban. Porejemplo, apuntauta egoten da, ezta? Bueno, ba, sobratzen zan okela haura, oin karnazeruak hartzen jaue, ta behixa nola izaten zan haundixaua...
- E: Elizpian partitzen zan orduan.
- M: Bai, elizpian partitzen zan. Eta, ba, eruten zan bakoitzari tokatzen jakona. Kilo bat edo kilo ta erdi edo... tokatzen zana, basarrixak atzera jasotzen eban hori, haura okela haura.
- E: Neu be akordatzen naiz...
- M: Ta gero egosten zan haura eta odolostiek be eitten zien orduen.
- E: Baitta. Geure behien be eitten zien odolostiek.
- M: Bai, odolostiek eitten zittuen. Eta... haretzek jan ta...
- Ta behixa zela izaten zan, txandaka izaten zan ala...?
- M: Bai, ointxe bezelaxe.
- E: Baiña kalekuak sekula ez zaban ein e!
- M: Ez, ez, basarrikuek.
- E: Basarrikuek bakarrik.
- M: Basarrikuek bakarrik, bai.
- Ta abadiari emoten jakon eze?
- M: Abadiari emoten jakon onen danak.
- E: Bai, solomillua, mingaiña...
- M: Solomillo, mingaiña... eta... ostien emongo otsen iztarreko okela... ez dakit nik, iztarrak egosi eitten zien ala ze eitten zan...
- E: Onena behintzat esaten zaben.
- M: ... Baiña bastante gauza emoten jakon abadiari orduen.

4.56. Erronda kontuak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/013
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:10:23. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Erronda kontuak. Dantzan, kantuan egin. Gabonetan ere auzoko gazteak etxe batean elkartzen ziren.

Transkripzioa

Eta errondan eittia zer zan? Ba fiesta moduan, batzuk kantau ta, beste batzuk dantzan ein dda... Langintza horretan zebitzenian, gero gabian parrandia izango zan... Bai, ta Gabonetan be bai, juntau auzoko danak, auzoko gaztiak, gaztiak, etxe baten, antxe auts galantakiñ...

4.57. Elizakoak baserri-auzoetan

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/019
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:25:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Entierruak. Auzo, baserrietatik eskela pasatzen zen. Entierrua, ondrak, bederatziurrenak.

Transkripzioa

- Hilari: Oin entierru ipuiñak eta abisuan kontuak-eta esaixezu, ba, ama... zela izeten zien zuek gaztiak ziñanian...
- Bai, entierrue... Gu gaztiak giñanian, zera, oin ze esaten jako? Hilddakuan zera, diarra eitten zan etxeetara. Porejenplo, Olara diar eitten eben Izarretik edo Olatik Izarrera. Auzuak. Nola daon hilddakua, difuntua, ez dakit nun etxetan. Haura zan eskelie. Ta guriek, Olakuak, uste dot Azkorta Azpikora edo joten ebela diarra. Handik [Olaldera], Olaldeti Muskirixura eskelioi pasatzen zan.
- Ta ze diar eitten zan?
- Ba, urlixa etxetan... Bueno, porejenplo, ba, Izarrekuak, Bitxurtun baeuen hilddekua, Bitxurtun difuntua daola edo difuntia daola. Ta horixe, besterik ezebez. Hurrengo egunien gozien entierrua. Orduen ez zan atsaldeko entierrorik izeten. Gero onrak berriz...
- Ondrak...
- Handik egun batzutara edo...
- Hilari: bederatziurrena.

- Bederatziurrena aparte. Bederatziurrenera juaten zien auzuak, senidiak, andrakumiak bakarrik.

4.58. Dantza kontuak; erromeria

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/040
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:54:22. **Bukatu:** 00:55:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Dantza kontuak. Kanpaia entzun eta etxera joan behar, erromeria amaitzen zenean. "Aramaitako" kanpaia. Kanpaien izenak. Neska-laguntzen joaten ziren mutilak.

Transkripzioa

-Ta len ze dibersiño eoten zan gaztien artien ze...

-Esaixozu ama, sakristauak soiñua jo...

- Bai, ta dantzan ein, da angelusa illuntzien joten ebanian, laga daon lekuan ta etxea danok, daona daon lekuan itxi ta etxea. Aramaitakua, Aramaitakua izaten zuan illuntzien, goizien eguna argitze zan denporan, gero eguardixen ta gero illuntzien illunkaran. Beratzi kanpanada hirunan illuntzien harek goizao joten baeban gure erromeixia "se acabó". Sakristauan goraberan erromeixia. Sakristaua hasarre bazeuan... Harek sasoez jo ta honek aide... Jai egunetan ta... Ta esaten jua mutillen batekin juaten bazien hango... ze esaten ziñuen ama, mutillen batek laguntzen bazotsuen etxien hango argixa ta txakur zaunkia ta... A bai baiña, gu ez giñen geratu be eitten trenbideraiño ta trenbirian bueno, ondoloín ta akabo, yasta, ezta momentu baten be, urrian, Ola baakizu urrian ta, sarri izaten giñuan bateon bat laguna, baiña ez giñun denpora asko eitten kanpuen.

4.59. Angiolilloren urkamendia Bergaran (1897)

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/015
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:30:01. **Bukatu:** 00:33:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Amandrearen inguruko kontuak. Esne-saltzen ibiltzen zen. Urkamendiaren inguruko azalpenak. Hilarik ama Mendiolakoa zuen (Eskoriatza).

Transkripzioa

Nere amandria bisabuela zan Larraña Handiko alabia, Bergako Larraña Handiko alabia, eta Larraña Handitik orduan be..., hamen guretan ez ei zan saltzen esneik, pentsau bez, baiña Larraña Handitik eta bai. Marmitta eskuan eruten ei eban. Ez aban erungo esne asko, baiña egunian-egunian esniakin kalera bera. Ta berak ez dakitt hamazazpi edo hemezortzi urte. Ta esan ei eben esne-bezeruak eta, hola jun zienian esan ei eben: "Gaur, badakizu gaur edo bihar ze funziño edo ze ikusmira daon Begaan?". "Ta zer dao ba?". "Urkamendixa". "Ene, urkamendixa dao?", ta "Bai". "Ze ordutan?". "Atsaldian". "Etxian lagatzen ba doste neuk be etorri bihar dot". Ta esan ei otxen etxian, ta esan ei otxen: "Kontuz ibilli hari, gero batzui ez ei jakone ondo jausten eta". "Ez, juan bihar dot ba!".

Ez dakit bera bakarrik izan zan, bera bai behintzet. Goiko Plazan, juzgauan aurrian, altura haundi baten kolokauta ei euan sillioi bat, silloe edar bat, eta haraxe ekarri ei eben kotxia landuak, horrek lehen kotxe brillodun horrek, kotxe landuan, eta jesuitten jantzixa jantzitta, eta danen publikuan abadia plantau ei jakon konfesau edo, beran asoluziñua emon edo, eitteko edo ta. Euzkan sekretuak, bueno, euzkan gauzak ta damutasuna ein eta oingo moduan esplikau ei otxan, ta berak zela jangoikuai kontu emon bihar ei otxan, abariak esan ei otxan. Eta ezetz, ezetz, ezetz. Haura baiño lehen bera joiala bai, eta berak emongo otxala jangoikuai kontua.

Ez bereinkatu, ez konbertidu, ezetara be. Ta halaxe jaso eta plantau ei eben. Esplikaziñuak eta bere orduak danak aillegau zienian, bat ez ei euan iñun, dana begi-bista guztia teillaturaiño ixota jentia!! Baiña ze jente ei euan...! Ta ordenia emun otxanian, borraruak tornuan uhela ipini lepotik, tornuai emun buelta, zela itto eben. Hauraxe ei zan urkamendixa. Zela mihiña paparrian behera atara aban. Esplikau? Ta hori nere aldiñan graziosa. Hori nere amandria bisabuelak, Larraña alabiak. Ta sekula etxakola damutu. Ba ei zan, esaten eban harek, sei hilddakua; esaten eban, ta gaiñera gizon haundixa.

4.60. Lapurren inguruko antzinako ipuinak

- **Hizlaria(k)**: Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-061/065
- **Iraupena**: 0:03:20. **Hasi**: 01:40:24. **Bukatu**: 01:43:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Kontu zaharrak. Bandido talde batek Pol-poletik Azkoitia aldera txabola bat zuen; lapur-txabola esaten zitzaion. Elosuko bentaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Ba, horrek ei zien zortzi mutil. Horretzek lehelengo, hemen, bandiduak bertakuak hasi ei zien. Zortzi mutillek hartu alkar eta txabolan bizimodua ein eta pentsau ei eben lapurretatik bizi izetia. Eta... Zortzi, hortxe bertan, Ormola baillekuak ei zien.

- Ta Pol-poletik Azkoitti aldera...

- Pol-poletik Azkoitti aldera, Azkoittirako bidien dare horrek txabolok. Oin teilletua ta [...], bi txabola zien. Horrek izena lapur-txabolak, gero haretxeaittik. Hantxe hasi ei eben horrek bizimodua, lapurretatik. Gero, ba, etxetan sartu ta txabolara azaltzen zanian-ta bidera erten ta... Marka txarrien.

- Zuen aurretikuak izengo zien...

- Bai, nere... Horrek hartu zittuenien, nere bisabuela ta nere amandria ta eren sasoi hori. Ni ez artian, ni jaixotzeke. Ta Elusuko Bentan, orduan be Elusuko bentan, Reginan partien tabernia. Ta ogixa erosi edo palta zanian, e, Elusuko Bentara jutun ei zien. Handik galdu ei zien. Ba, harek, itxuria, herrixan baten bati parte emon. Ta parte emon eutsenian, horti edo hemendi, aguentau ezinak be emonda, Gomezkorta aldien ta lapurretia ta hor ta hemen ta hemen ta lapurretia ta. Fetxorixa haundixak, ardixan ta danian, ta etxetara-ta be bai ta... Mutillak edarrak ei zien. Ta etorten ei zien, etorri ei zien, edo, gurien pasau ei zien jai eguardi arte baten. Tela zurixak piezak, fraka zuri edarrak... bata baiño bestia mutil edarraua esaten eben gurien. Ta etorri ei zien irlandia, irlandak ziela, teliori, irlandia izena. Ta iñok nahi baeban, telak saltzen-ta. Ta ezezetz ba erak, etxian eitten ebela orduan gorutia ta liñua hartu etxien eta, ba, ereri ez otsela faltarik eitten ta. Ta gero, itxuria, etxetako atiek eta gauzak ikusi [...] ta gero gabien atiek jo-ta... Orduan arma formalik be ez ta... Horretxek hasi lehelengo fetxorixak eitten. Hasieria [haretxena ei zan]. Gero harek partia emon. Partia emon ebenian, mikeletiak. Ta etorri ei zien zortzi mikelete edo hamar edo. Inddar haundixa. Preparatzen ei eren nora-nora ertetzeko. Ta bertan hartu. Bertan hartu sei; zortzi ei zien ta bi kanpuen. Bi kanpora ertenda. Bi geratu kanpuen. Gero herrira hartu ei zittuen ta gero herrittik Santoñara edo destinua. Hemen [...] ei euan gero lapurrak. Lapurrak bai lehelengo Bergaran edo, urtebete bat edo, baiña ondo gauzak entenditzen zienien, Santoñara edo fuera e! Lapurreta [...] Errespetua bai e! Oin, oin gitxitxo horixe dao ta oin bildurrez bizi gara. Baiña hortara. Ta gero harek seirak, hortik destinau zittuenian ta, handik abisatzen eutsela benteruari handik libratzen zienian, alkarrekin [ideauta] erela ta hamarretako bat ingo ebela. Haura desapixua! Baiña libratzeke. Ta gero bi kanpuen geratu! Ta harek bixak ate ondota ta pixkat hasi ei zien, baiña nora-nora, bik bakarrik ezin, ta harek erak desaparezidu ei zien norabaittera. Haren arrastorik ez eben emoten. Ibili pixkat bai, baiña harek desaparezidu. Ta gero orduaintxe ipiñittako izena txabola hari lapur-txabolak.

4.61. Emakumezkoen arropak

- **Hizlaria(k)**: Alzelai Irazola, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-077/007
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 00:23:38. **Bukatu**: 00:26:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Emakumezkoen arropak. "Txanbria" eta gona; amantala. Buruko zapia. Zapatak kalera jaisteko; abarkak. "Bortzeiak", botak giltzekin azpian.

Transkripzioa

- Ba, oin tela... amantalak izeten... Orduan mantal barik iñor ez zan ibiltzen. Txanbria. Nik neure ama be ikusi dot txanbria eta goniakin.
- Txanbria?
- Txanbria eta gonia.
- Zelakua zan txanbria?
- Ba, loratxodun batzuk azula, estanpauta.
- Oingo baserritar jantzixen tipokua?
- "¿Cómo?"
- Oingo baserritar jantzixen tipokua...?
- Bai, horixe.
- Oin tipikua jazten dana...
- Bai, ointxe jazten dana.
- Ya, holakua. Eta gonia berdiña zan?
- Berdiña. Amantal beltza... Oin, amantala ez dakit ze zan, ze klase zan edo ze zan. Amantala, amantal beltza.
- Oseake...
- Gonia eta txanbria eta amantala.
- Bai. Tokillaik ez. Osea, pañeloik ez...
- Ez.
- Hori oin jazten danori ez...
- Ez.
- Ta buruan-ta pañelua be ez...
- Gure amak ez, baiña gure auzuen amandria zeuanak bai.
- Jazten zeban?
- Jazten zeban. Bueno, baiña nere amandriak be bai.
- Bai. Moñua batzen...
- Bai.
- Moñua.
- Moñua.
- Eta zelakuak izeten... zurixak ala beltzak?
- [Harek] beti beltza. Nik beltzakin ezautu dot bixak, e, amandre bixak.
- Eta gero galtzak?
- Galtza beltzak erutaen giñuzen, punto inglesa.
- Ya, zuek... Eta amak-eta be bai?
- Baitta.
- Baitta. Eta artilezko galtzaik ez?
- Nik ez dot ezautu. Aittak bai artillezkuak eruatzen zittuan lanerako be bai eta bestela ibiltzeko be bai, basarrixan ibiltzeko be bai.
- Eta zapatak?
- Zapatak kalera etorteko.
- Eta basarrixako albarkak?
- Albarkak.
- Eta zuek be bai zapatak?
- Zapatak eta alpargatak. Nik ez dot albarkaik eruan.
- Zera ezautu dittuzu, bortzeiñak?
- Bortzeix... E?
- Bortzeiñak.
- Bortzeixak esaten...
- Bortzeixak.
- Bortzeixak dia? A, bai, e?
- Horrek izeten zien botak zerekin giltzekin azpizan.
- Ya... Eta zelakua... suelia zelakua zeuken egurrezkua ala, giltzekin izateko?
- Ez, narrua edo izengo zan. Narrua zan.

- Eta giltzak zeuzken?
- Giltzak zeuzken.
- Eta botak noraiño? Honaiñokuak ala...?
- Botak korrientiak zian, ointxe egoten dian moduko botak.
- Zuk zela... Bortzegixak ezautu dittuzu ala?
- Bortzegik. Bai. Eta seguro... Bueno, seguro... pentsatzen det oraino goma-klase... gomia izango zan baiño oain bezela ez. Baiño segurasko zeakin baldin bazijozten, tatxuelakin edo zerakin izango zan kubiartzakoa izango zuen suelea. Lehenao kubierte erabiltzen zan. Kubierta ezautzen [dezu materiala], ezta?
- Bai, bai, bai.
- Nik pentsatzen det kubierta izango zutela [haik]...
- Azpixon?
- Hola, zerakin eramateko, beste iltze hoiekin eramateko.

4.62. Sinesmenak

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia
- **Erref**: BER-093/028
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:43:03. **Bukatu**: 00:43:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena**: Sinesmenak. Gurutzeak.

Transkripzioa

- Gero sekula euki dozu, holan, siñismen bat edo holan, ba, ez dakit, ba, ardixak protejitzeko edo...
- Nobera [...]... Ez, holako zerik ez daukat.
- Holan, kurutzia eta...
- Kurutzia?
- Bedeinkatzera ta eruaten dia ba?
- Bai, eruaten dia. Zerian, erramu zapatutan. Ba, nik ez dot eruan aurten be gure txabolara. Ez dakit, igual egongo dia, igual bat be ez da egongo ta igual egongo dia hamar kurutze jositta han gaiñeko haga baten egongo dia. Ez dakit dauan be bat be, e! Ataixan ipintzen zan bat, goiko txabolan beste bat ta [arara] be beti eruaten zan ta solo danetan ipintzen zian. Oin aspaldian nik ez dot eruan hara, baiña igual egongo dia kurutze zaharrak [eta be]. Hamen ardixak be...

4.63. Antzinako pasadizoa

- **Hizlaria(k)**: Juaristi Aranburu, Natalio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-138/004
- **Iraupena**: 0:04:10. **Hasi**: 00:04:00. **Bukatu**: 00:08:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Anekdotak bat kontatzen du (don Eladio).

Transkripzioa

- Palaziuari bizi zana zara don Eladio Urdangarin. Eta zerian, etxe txikikuan bizi zara beste bat Eladio izena, apeliadua [Pildain] zeukan, baiña don Eladio Urdangarin. Baiña oso lagunak zian. Bata basarrikua zara. Harek artua ta soruan-ta lana eitten zeban, ta bestiak haintxe [...]. [Bearek] seme bat bazeukan Leon izena zeukana eta nahi zeban libratzia haura soldaduskatik. Afrikan ta hor [...] eta moruak eta [...] libratzia nahi zeban. Ta han, beheko fabrika baten egitten zeban Eladiok, --Eladio pobria zara; ba, pobria, basarrikua-- ta fabrika bere anaixa zeguan ta eske zertu zeban, nahi izan zeban Don Eladiogana fatia. Baten bati prentatu zotsan nundik nora, nundik jua leiken. Ta, nundik? Ba, Zumarragara jua ta sartu, hartu trena ta Madridera. Madridera. Fan ta fan ta fan ta fan. Ta Madridera heldu zanian be, han be batenbat ezauna ikusi zebanian: "Hamen nun egongo dok Eladio?" "Eladio? Joño, ba..." Hamendik jua zara [esango zotsan] nola eguan "fiscal supremo" Madrident eta hara jua zanian, jua zara bihar zara lekura, bata eta bestiak bialduta, eta esan zotsan atian zeguan...: "¿Qué quiere usted?" ta "Yo quiero a Eladio", berak esan zotsan. "Bueno, hau zoron bat dok" , ta [...] bialdu ta ez zara faten ta hantxe berriz. "Ahí está un señor que dice que quiere a Eladio. Y no dice otra cosa. Eladio. Parece un perturbado". Bestia, hola, pentsatzen jarri [...]. [...] ta jua zara atara ta [ikusi zeban] Eladio ezkerre. Ta heldu ta hango zera. Jantzitta be basarritar moduan jantzitta be ta... Pasau zara orduan, "Ze pasatzen dok? Batenbat hil dok ala, hi neregana etortzeko?" , esan zotsan, ta "Ez. [Leon...] jua bihar juk Afrikara ta hauraxe nahi jua..." Beran semia. Seme bakarra zeukan, ta hauraxe nahi zebala libratzia. Eta libratzera allegau zara, gaiñera! Bai, libratzera allegau zara. Baiña gero, ikusi zebanian haura Madridera fanda, sekulako juergia egin zeben bata bestiakin. Jo-ta batera ta bestera. "Honek be ikusi bihar jittuagu" ta bailarinak be ikustera ta bestiak ikustera ta, "horrek be ikusi bihar jittuagu" ta...

- Ondo pasau zeban Madrilen, ez?

- Ondo pasu zeban.

4.64. Monagilo Santa Marinako elizan

- **Hizlaria(k):** Barrenetxea-Arando Azkargorta, Gotzon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-143/026
- **Iraupena:** 0:05:41. **Hasi:** 00:55:15. **Bukatu:** 01:00:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Abadeari meza gertatzen laguntzen zion. Abadeak Santa Marinar.

Transkripzioa

- Zelan hasi ziñan? Lehengunian komentatzen zezazun monagillo

jardundakua ziñala zu. Zelan izan zan hasieria edo zelan okurridu jatzun sartzia?

- Ez... Abadiak laguna bihar izeten zebe mezia emoteko ta mezia laguntzeko ta abadiak. Ta monagilluak, mutiko batzuk, ba, [elia] zeoze eman ta jarri... Mezia emoten, lehen mezia emoten zan, baiña monagillua be jantzitta ta abadien [...] jantzi ta liburua alde batetik bestera pasau ta binakerara ardaua bota ta... Ez zan oin bezela hola jarritta. Ez, lehen, e... lehen mezia emotia zan... Introitua ikasi, latiñez introito danak ikasi "introductio, mea culpa..." ikasi ta...

- Eta, orduan, [...] Santa Marinako abadian laguntzaillia, ez? Osea, Santa Mariñan guzti hori? Monagillo...

- Gu Santa Mariñan; hamen, San Pedron.

- Eta orduan zein zan abadia Santa Mariñan?

- Abadia?

- Bai.

- Don Inazio. Maisua, maisua don Inazio zan, don Inazio Aldanondo. Gero don Pedro, don Nemesio... Ta bestia zein zan? Don [...], don Nemesio... A! Don Tomas [Ziarreta] [laugarrena]. Lau abade, Santa Mariñan lau abade [erezen]. A! Don Iñigo! Don Iñigo bestia! Don Iñigo. Maisua...

- Ta zu zeifekin hasi ziñan? Zeifekin? Laurekin ala...?

- Laurekin.

- Laurekin...

- Lau abade zeren, lau abade.

- Eta laureri lagundu bihar...

- E? Bi monagillo genden eta lau abade. Bakutzak biri lagundu bihar [jakon] egunian. Ta mezak egoten zian goizian seiretakua ta zazpiretan; ta zortziretan ta bederatzittan. Abade batek emoten zebe seiretan ta zazpiretan ta bestiak zortziretan ta bederatzittan. Ta mutiko batek be aste baten seiretan ta zazpiretan ta hurrenguan zortziretan ta bederatzittan.

Hurrengo astian bestekaldera. Ta, gero, eskolara, ba, hoixe, lehenengo errekreuan jua bihar, lehenengo berandukuan [...]. Baiña seiretako mezia [laguntzen]. Domeketan egoten zan hamarretan meza nausixa; beste mezaik ez zan egoten. Atsaldetan ez zan egoten mezaik, meza atsaldetua gero ipinittakua da. Baiña seiretan mezia laguntzera, e! Badakizu ze [...] seiretan? Zuek erretiraten zaren orduan mezia laguntzera. Ta hiru lagun, hiru lagun, sakristaua ta beste hiru, sakristauan anaiak, hiru anai, mezia entzuten. Ta beste [mutilzahar bat], hiru, hiru edo lau. Baiña pekaturik ez daukanak bihar dabela mezia laguntzia. Harek mezetan hiru-lau lagun haundixak, ni baiño hamabost-hogei urte zaharrrauak ta harek... harek ez monagilluak. Bederatzi-hamar urteko monagilluak mezia lagundu bihar.

- Eta, orduan, zelan... Bergaran jente asko ibiltzen zan hor... elizara juaten zan? Erlijiñua zelan bizi zan?

- Ba! Oin baiño gehixao askoatik, baiña —proporzituñuan, ezta?— baiña...

Hilian, hilian duro bat edo emoten zebe ta haretzekin. Ezebez.. Gero, bataion bat bazeon edo, bataion bat bazeon edo ezkontzan bat bazeon edo propiña bat edo beste egoten zan, baiña...

- Eta zenbat urtekin hasi ziñan monagillo?

- Beatzi urtekin.

- Bederatzi urtekin. Osea, justo komunixua eitteko...

- Bai. Ta gero hamalau urtera arte, lanera sartzeko ordura arte. Bost urte [ixa], bost urte.

- Eta, esan dozu, erroparen bat eruaten zenduen espeziala zuek?

- Ez, ez. Bueno, bai...

- Mezia emoteko bai...?

- Ze esaten jako horri...? Oin be jazten dabe, ba, zeoze eitteko, holako zer bat goittik behera sartuta...? Jantzitta mezia beti; jantzitta abadia [be] ta

[mutikuak] jantzitta beti. Baiña mezia... Altaran mahaixan alde batetik bestera liburua pasau, beste bat, binajerara bota, bajatu... belaunikotzen [zaran] guztian kapia jaso, txiliña jo...

- Eta biharra ze izaten zan elizan bakarrik? Zeuen biharra elizan bakarrik ala gero elizatik kanpora be zeoze ein bihar izaten zenduen?

- Bai, ba! [Esto], bihar bazan elizakua [...] txiliña jo ta elizakuakin edo... beste nunbaitten edo...

- Elizakuak emotera juaten ziñan abadiakin batera?

- Abadiakin batera.

- Eta hori...

- Etxetara be bai ta... Oin ez da juaten, disparatia [brutala].

- Eta zelan izaten zan hori? Abadia juaten zan zeure aurretik ala zu abadian aurretik?

- Abadian aurretik norbera.

- Zu?

- Txiliña [juaz] "trin" ta. [...] bidian belaunikotzen zan. Harrixakin, harrixan zerian, hankia belaunikatu], e! Zuk, badakizu? Ondio urte asko ez dala [...]. Gero jendia [...].

- Ta txiliña jotzen bakarrik, errezuren bat eitten edo...?

- Ez, [elian] jo "trin-trin-trin", handik gerotxuaora "trin-trin-trin", ba, bagoiezela esaten.

- Eta hori hildakuangana? Eizakuak emotera...

- Gaizki daonan etxera juatia.

- Gaizki daonan etxera.

- Zabalenera akordatzen jata, Karmenen aitzianera ta... Andria arnasarik hartu ezinda ohian ta elizakuakin hola, jo-ta kuarto guztia jo-ta beteta jentez, [zeoze] ikustera juanda. Lehen arnasarik hartu ezinik ta gero jauna emotera hari, azkenengo zera ta... Disparatiak.

4.65. Hileta-elizkizunekin zerikusia zuten ohitura zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Barrenetxea-Arando Azkargorta, Erritxe; Barrenetxea-Arando Azkargorta, Gotzon; Barrenetxea-Arando Azkargorta, Mariñe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-146/001
- **Iraupena**: 0:02:55. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- **Laburpena**: Ohitura zaharrak. Manta jasotzea, urtebetera egiten zen. Hamarretako berezia egiten zuten emakumeek egun horretan. Mezak. Arando tabernan egiten ziren meriendak.

Transkripzioa

- Hamalau hillabete pasautakuan, ba, ya haura jasotzia izeten zan. Ta orduan izeten zan andrena, andren kontua haura, e? Hamarretakua. Hamarretakua emoten zan.

- Hamarretakua, hamaiketakua...

- Edo hamaiketakua edo dana dala. Meza ostian, ze emoten zan nahi dozu esatia?

- Esan! Goguan dakazu?

- Ba, ipintzen zan arda zurixa eta ranziua. Ranziua esaten jakon, arda goxua, goxuai ranziua. Harek bixak. Gero ipintzen zien intxaurrak, gaztaia eta opillak. Opillak, holako opil zabal batzuk, ya espezialak eitten zittuen hortarako.

- Eta bizkotxo-zapatillak.

- Eta gero bizkotxo-zapatillak. Bizkotxo-zapatillak, badakizu? Hor egoten dia pegauta, hola —Eibarren ez dao ohitturaik?—, hola, tira batzuk papelak ta, hola, pegauta bizkotxuak; sei bizkotxo-edo bakoitzian. Hemen ohittura haundixa. Ta gero, horrek be bai ipintzen zien. Ta pentseizu zelako hamarretako ederra dan. Haura andrena izeten zan bakarrik.

- Andren ohitturia bakarrik.

- Eta gero, urtia betetzen zanian, ba, aurretik —hamalau hillabete da hori, baiña aurretik—, urtia izeten darian, anibersarixua izeten zan goizeko zazpiretan mezia. Ta gero, emoten zan txokolatia. Baiña txokolatian aurretik, koñak eta anisa ipiñi mahaixan, kopatxo bana, eta gero, panpota esaten jakon hemen. Ez dakit han ohitturaik daon.

- Zer zan hori?

- Ez, oin ez da hemen be ikusten, e? Baiña izeten zien armozutarako panezillo batzuk, baiña espezialak.

- Fotak bai, baiña...

- Bai, fotak.

- Hemen panpotak esaten jako.

- Hemen panpotak esaten jako. Ba, horrek. Ta holako bana ipiñi, eta gero, txokolatia ta [bolauaz urakin].

- Bolaua badakizu zer dan?

- Bai.

- A! Bai? [Bolauaz urakin] txokolatia zerbitzen zan. Ta hori. Horrek, ba, gauza asko. Oseake, taberniak gauza askokin lana eitten zeban. Hor...

- Bai. Oseake, inguruko basarrixetatik be...

- Hamen alderdikuek, e? Beste alderdikuek ez.

4.66. Gaztainondoek zuten garrantzia garai batean

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-174/002
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:01:35. **Bukatu**: 00:04:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Garai batean, gaztainak garrantzi handia izan zuen. Baserrian lan asko egoten zen urte sasoi batzuetan: gaztaina-batzea, ira-batzea... Lan handia izaten zen gaztaina-batzea. Auzoko gizon nagusi batek behin esandakoa: "Hobe danak igartuko balira!". Gaztaina, janari nagusia. Gaztaina nola jaten zen: erreta eta egosita.

Transkripzioa

- Hemen sasoi baten gaztaiña inportantia izango zan...?

- Ta sasoi baten lehen gaztaiña... Sasoi honetan egoten zan lan asko: gaztaiña, garua ta gero garixak be erain bihar. Gero gaztaiñak ihartu

izanian, ba...

- Orduan, gaztaiña ze erabiltzen zenduen asko jateko, ez?

- Bai, ba! Dana jateko. Ta saltzeko! Ta ganauendako be bai batu ezkerodanak.

- Azkenian danerako aprobetxatzen zan...

- Bihako, ze gaztaiña asko egoten zan ta. Hor beheko gizon batek esaten zeban beti... Ba, gero, askotan ixo arbolara, hagiakin bota ein bihar izaten dia; danak ez dia jausten... igual bi hillebetera-edo jausten da. "Danak ihartuko balia hobe" esaten ei eban berak gaztetan, ta gero danak ihartu.

- Klaro, orduan lan haundixa izango zan, ez?

- Buf! Lana terriblia! Etxe-ondotan pillak eitten zian. Eitten zian ez gaztaiña aliakin, e! Bere koskolakin. Han konserbau eitten zan gaztaiña. Bere... badakizu zelan eukitzen daben, ezta?

- Bai, bai, bai.

- Han konserbau eitten zan pilla haundixak. Gero negu guztian, ba, benga handitxi! Zera, jateko, jana prinzipala!

- Hori da. Eta...

- Hamen beste gizon batek esaten ostan [neri], zahar batek, ba, gaztaiñak ihartzen hasi zianian, bilddurtuta danak "Ze jango ete dou hamendik aurrera?". Ta gero patatak ta porruiek handik aurrera. Artian patatarik be ez.

- Hori esan deste, bai, patata gitxi, ez?

- Sartu be ez zeban iñok eitten gaiñera! Ez zeban hain [...] ta.

- Oin ixa edoze gauzatarako erabiltzen da, ta orduan...

- Oin danerako.

- Eta orduan gaztaiña zan...

- E? Orduan gaztaiña.

- Orduan patatak biharrian...

- Gaztaiña. Lehelengotan egositta jaten zian ta gero tanboliñian erreta.

- Ze izaten zan, hasieran egositta ta gero...?

- Bai, berdia egoten da, ta berdia dauenian ez da erretzen ondo; sikatutakuan erretzen da.

- Eta umetan, ez dakit, gogoratzen dozu zuri zelan gustatzen jatzuzen gehixao gaztaiñak, erreta ala egositta?

- Erreta nahixao.

- Bai, umetan, biharbada, eta jente nausixak...

- Umetan?

- Eta jente nausixak egositta nahixao edo...?

- Ba, umiak badakizu zeaittik ez daben nahi? Lana eukitzen eben zuritzen, ta umiei emoten otsen dana zuritzeko. Ta ha erreten hasten zienien zurittu biharrik ez. Ondo erre ezkerod, ba, nausixak be jaten eben; oin, gehixei erre ezkerod, azala gogortzen bajakuen, ba, orduan hagiñik be ez zeban eukitzen formalik.

4.67. Eskola kontuak

- **Hizlaria(k)**: Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-193/005
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:02:02. **Bukatu**: 00:06:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Euskara » Euskararen egoera

- **Laburpena:** Eskola kontuak. Ume-umetan Lezeta baserrian maistra bat egon zen (gerra aurretik) eta harekin ikasi zuten zertxobait. Gerora, Eibarrera joan ziren. Lezetan, euskaraz eginez gero zigorra izaten zuten (eraztuna eraman behar). Eibarren, frontoi zaharreko eskolara joan ziren.

Transkripzioa

- Hemendik eskolara-ta nora juan ziñazien?
- Eibarrera.
- Eibarrera.
- Ume-umetan hemen Lezetan egoten zan eskola modoko bat gerra aurrian. Maistra bat. Eta gero, gerra ezkerreko Eibarrera beti hemendik.
- Eta ze zan maistria Lezetako alabia edo?
- Bai, Lezetako alabia zan.
- Eta hemen auzokuak, ingurukuak, bertara juaten ziñazien?
- Bai, umiak bertara auzokuak, orduan bai. Eta ondio, ha maistria gero Durangon egon zan ezkontuta. Bai, taberniakin ta. Ondio haren aizta bat bizi da Durangon.
- Ondiokan, e?
- Bai, Lola edo, gaztena. Bizi da, bai.
- Eta asko ikasi zenduen eskolan?
- Ikasi... Ze ikasiko genduan, ba? Oin euskeraz eittiarren jardutzen dabe barriketan, ta orduan, erderaz ein bihar zan orduan. Euskeraz eitten bagenduan, anillua.
- Hori Eibarko eskolan, baiña hemen...
- Hemen, hemen, hemen, Lezetan.
- Lezetan be bai?
- Bai. Hori Lezetan ikusten genduan. Euskeraz eitten ebanak anillo bat egoten zan ta haura atzamarran erabili bihar! Ta gero, zapatuan eitten ebanak domekan be ha erabili ein bihar izaten eban. Erderaz ein bihar izaten zan. Ta erderaz maistriak be asko ez zeban asko jakingo ta bestiak bapez.
- Eta bera ze zan? Titulua zekan edo bertako pixkat...
- Ez dakit, ba, nik zeoze titulua eukiko eban edo ez dakit. Beran anai-arrebak firmatzen be ez zekixen.
- Firmatzen be ez?
- Firmatzen be ez, beran anai-arrebak ez. Ta ez dakit, ba, nik. Haura kojia zan, ta edo nunbaiten kanpuan egondakua izango zan edo zer zan ez dakit.
- Eta zenbat urtekin juan ziñan Lezetako eskolara?
- Eibarko eskolara, ba, gerria pasau ta gero.
- Gerria pasau ta gero. Eta lezetakuan gerra aurretik...
- Gerra aurretik Lezetakuan, bai. Orduantxe [umetxuak], nik ez dakit, ba, urtebete ez neban eingo Lezetan. Gero gerriak urten eban ta kitto.
- Eta ze emoten zeban eskolia bertan, basarrixan?
- Basarrixan, basarrixan, bai, sukaldian. Ta denpora ona euanian, han kanpuan euan holako karraju moduko bat edo, aterpe bat, ta denpora ona euanian hantxe.
- Eta ume asko juntatzen ziñazien?
- Ez dakit, ba, neuk. Juntauko giñan geu hiru ta bestekuak, Olakortakuak... zortzi... hamabi-hamalau bat edo.
- Bueno...

- Bai. Orduan, bai.

- Eta neskak eta mutillak edo mutillak bakarrik?

- Bai, neskak eta mutillak. Danak. Bai.

- Eta, gaiñera, edade diferentietakuak be juntauko ziñazien, ez?

- Bai.

- Eta zelan zekan izena maistriak?

- Dominga.

- Dominga...

- Bai, Dominga Elkoro.

- Orduan, Lezetako eskolan hasi, urtebete... Denpora gitxi euki zenduan ezer ikasteko, ez?

- Bai, gutxi. Ta artian gaztiak be bagiñan gu ta... Zaharrrauak be ibili zian, baiña...

- Eta, gaiñera, beti basarrixan zeozetan lagundu bihar eta...

- Bai. Basarrixan beti egoten zan zeoze etxera etorritakuan eitteko. Lehen be bai, ta oin be bai.

- Eta lehen ze izaten zan, goixetan juaten ziñazien eskolara...?

- Goiz ta atsalde. Bai, Lezetara goiz ta atsalde. Ta gero, ba, Eibarrera hasi giñanian, batzuetan goizetik eta hurrengo egun guztian, hola izaten zan.

- Eta Eibarko eskolia nun zeuan?

- Frontoi Zaharrian.

- Frontoi Zaharrekora jua ziñan?

- Bai.

- Eta hango maistrua-edo zein zan? Goguan dakazu?

- Kojo bat guk euki genduana. Ez dakit izenik eta ezebe "maisuko" esaten gotsan ta.

- Eta ze, euskalduna zan? Eibartarra edo...?

- Ez, ez, kastillanua zan ha. Euskaldunak be baeguazen besten batzuk, baiña ha kastillanua. Ta orduan euskeraz eitten ez eben lagatzen. Gerra ondorian ez eben lagatzen euskeraz eitten.

4.68. Ospitaleko eskolan ikasitakoa

- **Hizlaria(k)**: Oregi Arregi, Lide
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-197/023
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 01:01:25. **Bukatu**: 01:02:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Hasiera batean eskolara ospitalera joan zen.

Transkripzioa

- Eskolara nora jua ziñan zu?

- Ni eskolara jua nitzan lelengo ospitalera, eta han ibili nitzan ospitalian. Eta gero gure kurso horretan tokau zan profesora bat ekartzia. Etorri zan, eta hasi zan ya... zeaittik lehen bakarrik parbulaixua izeten zan ospitalian ta parbulaixua in ta urten itten zebe. Baiña gure sasoian, etorri zan profesora hori eta orduan horrek jarraipen bat eman zoskun. Ta han jarraitu neban, ba, nik ez dakit, hamahiru, hamalau urtera arte edo, hamahiru edo hamalau ez dakit, hamabi-hamahiru urte.

- Eta zenbat urtekin sartu ziñan?

- Sei urtekin.

- Sei urtekin. Orduan ze izaten zan sei urtekin...?
- Ez, sei urtekin ez. Sei urtekin komuniua in neban, lau urtekin, bost urtekin sartuko nitzan ni, bost urtekin.
-Ta orduan ume gehixenak ya bost urterako eskolara juanda zeren edo bost urte izaten zan...?
-Baa, hortxe, hortxe juaten zan eskolara, bai.

4.69. Debako hondartza (I): arropak

- **Hizlaria(k):** Maiztegi Elkoroberezibar, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-212/008
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:09:46. **Bukatu:** 00:10:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Bainujantzia bazeukaten Debara joateko. Bainujantziak nolakoak ziren deskribatzen du. Debara noizean behin joaten ziren. Bainatu eta nola lehortzen ziren azaltzen du.

Transkripzioa

- Orduan eta, baiñadorrik eta ez zan egongo ezta?
- Ke ba. Baiñadorea Debara juaten giñanian ta eukitzen giñuan e? Guk bazauzkagun. Holaxe, honaiñokotxe zerekin, prakekin.
- Belaunetaraiñoko prakak?
- Bai, bai.
- Eta Debara orduan juaten ziñazien?
- Ba, asko ez, baiña, juaten giñan.
- Gurasuekin ero eskolakin?
- Bai, gurasuekin. Eta gero han egoten zien baiñadoriak, gizakumiak izaten zien, eta gu uretan sartzan giñan, ta handik erteten genduanian, alborozak ematen zoskun, ta jantzi haura.
- Alkilerrian edo?
- E?
- Alkilerrian edo?
- Bai, alkilerrian.
- Eta baiñadorrak be han eukitzen zittuen...
- E?
- Baiñadorrak behe han eukitzen zittuen alkilatzekeo?
- Ez, ez, baiño, esto...
- Baiñadora norberak eruan bihar?
- Bai.
- Albornoza?
- Ta albornoza ez naiz akordatzen. Eurak emongo zoskuen.

4.70. Amaren hagin ustelen istorioa

- **Hizlaria(k):** Maiztegi Elkoroberezibar, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref:** BER-212/013
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:15:39. **Bukatu:** 00:17:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikiak eta sasimedikak
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena:** Amak hagin ustelak zituen, eta medikak behetik zuzenean hartu zuen txertoa amari emateko. Hagin ustelak ezer eman gabe kendu zizkioten; Bergaran, ordea, dentistak indizioarekin atera zion hagina.

Transkripzioa

- Gero jua zan, esto, hagin ustelekin, eta bakunatzeko. Eta eukitzen zaban jakekia. Eta gero, "era una casa que iba el médico todos los días".
- Hori umetan ez?
- E?
- Umetan esaten dozu. Ya Bilbora jua zanian, halan jua zan.
- A bai, zerera hamabost urtekin jua zan, e?
- Bueno, bai, oseake gaztetan.
- Ta gero, ba medikua bialtzen zotsen kuartora, ta medikak esaten zaban "es que a usted no le debían de haber recibido en esta casa". Eta gero esaten zaban, han beste batekin eruaten ei zeбен, dana lanparuz beteta ganaua, lotuta ezta? Eta zerian besuan etara ganauai hartu bakun zera, "la vacuna", ta zuzen-zuzen besuan sartu.
- Zure amari hori?
- Geure amai in zotsen hori. Eta gero hagin ustelak be "a lo vivo, e? No había esto". Ta gero Bergara etorri zanian ezkondata Bergara etorri zanian, zeuan dentista bat Peña izena zeukana, ta harek atera zotsan, dana, "pero con inyección". Ta "aiii, hau txokolatia hartzia baiño hobia da" esaten zaban harek.

4.71. Eskola garaiko zenbait azalpen

- **Hizlaria(k):** Elgoro Ugarte, Eulalia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-214/021
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:47:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Mojen inguruko hainbat azalpen; irakasle desberdinak ikasleentzat (internak; etab). Musika ere ikasteko aukera zegoen.

Transkripzioa

- Ta zeuen sasoian e ba ez dakit irakasliak edo monjak bardiñak izaten zian?
- Betik. Betik euki nittuan monja berdinak.
- Esatia nahi dot, internendako monjak eta zeuendakuak?
- A, harek be diferentiak.
- Harek be diferentiak.
- Zeaittikan monjak zeren, zenbat egongo zien orduan? Fuf! Berrogei bat

bai, hogeta hamar bat inguru edo bai. Ta zenbat ezautzen giñuzen ba guk? Gutxi. Bueno, geurera etortzen zienak. Ta gero ba pensioñokon batzuk be bai, igual ezautuko giñuzen edo igual emongo zoskuen e harei be emongo zotsen zeozer. Gero aparte emoten zebeñ e musikia nahi zebeñak ikasi, hori be bai. Pianuak eta zeren, nahi zebeñak ikasi, horrek ia pagau biha ziñuan aparte. Ta esternak bazeren afiziñua zeukenak eta ba ikasi zebeñak. Haura aparte pagau biha ziñuan baiña bazeukazun e haura ikasteko opziñua bazeukazun.

4.72. Mojak Errepublika garaian

- **Hizlaria(k):** Elgoro Ugarte, Eulalia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-214/022
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:47:15. **Bukatu:** 00:48:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Unamuno, Arianne
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Mojek erabiltzen zituzten jantziak nolakoak ziren; Errepublika garaian abitua kendu behar izan zuten.

Transkripzioa

- Eta monjak e jantzitta eta zela juaten zien?
- Ba, euki zebeñ e ni sartu nitzanian gerra aurretzuan kendu in zotsen e hori, guregana etortzeko abittua kendu in zotsen.
- Republika sasoian edo?
- Bai.
- Ta orduan ze juaten zian normal jantzitta edo...
- Bai bai. Gero ba inpresioñ haundixa ein zoskun geuri be bai, bakizu, ikusi dana hola hori, ta gero harekin ta erak be bai. Baiña gero ohittu zien. Baiña gureana etortzeko bakarrik jazten zien, e? Hola, bestela...
- Gero barruan eta?
- Barruan normal jantzitta. Han kuarton bat edo bazeuken ta han jazten zien ta honei e bestela media pensionistei ta honei, honei e monja jantzitta emoten zotsen. Baina gu publika giñen ta. Eskuela publikua zan guria.
- Eta orduan...
- Ta haura zan ba, ez zela da?
- Bai, de pago edo.
- Si. Ba oiñ esaten dabena "escuela esto, privada". Ta guri ba. Baiña bestela guk ez zaukogun ezen zerik e? Kalefaziñua be primerakua zeukoun.

4.73. Ikastetxeak Bergaran

- **Hizlaria(k):** Elgoro Ugarte, Eulalia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-214/026
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:55:10. **Bukatu:** 00:58:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

- **Laburpena:** Bergaran egon ziren beste eskola batzuk: Conchita Maiztegiren eskola. Irakaslearen ahizpa jostuna zen eta josten irakasten zuen. Ikastolaren hastapenak Bergaran.

Transkripzioa

- Eta eskolia esan dozu, bueno, zeuek Enseñanza, baiña gero bazeuan beste bat hor frontoi inguruan edo? Eta haura...
- Oso ona zan haura.
- Ze zan Bergarako...?
- Bergarakua zan.
- Kontxita Maiztegi edo?
- Kontxita Maiztegi. Beste aizta batekin zeuan, bizi zan hor Barrenkalian eta aiztiak emoten zeban —han be ibili nitzan— “Corte y Confección”. Aiztiak emoten zeban, eta oso gutxi kobratzen zeban harek be, e. Ta bestia zan maistria, oso ona.
- Eskola hori nun zeuan orduan?
- Ba oin egongo da haura eskola haura daon lekuan, oin `Banco Central´-a daon lekuan, edo hola. Elementaletik etarutzen dot kontua, e? Elementala nun daon badakizu? Han frontoia, oin etxiak dare inda, baiña lehengo frontoia han gaiñian dao, asike... Antxoni edo... Antxonin tabernia edo, han inguruan egongo zan. Etxe bat bakarra zan e.
- Inguruan dana ortuak edo...?
- Ortuak [zan], inguruan ortuak.
- Eta etxe bakar horretan ze zeuan? eskolia...
- Eskolia. Eta gero goixan bizi zien... goixan egongo zien...
- Osea, jentia bizi zan.
- Bai, bai. Ez dakit hiru edo lau piso... hiru piso.
- Eta esan dozu eskola horretan neska asko, ez?
- Neskak... uii.. nik ez dakit zenbat jente pasau dan handik e. Ta ondo ikasitta e! Esaten dotsut, nere lehengusiñak be... dauzka lehengusiñak... bat sesenta y cinco años eta bestiak sesenta y dos edo... bueno, hor nunbaittekuak, eta danak han ibili dia, hirurak. Ta nere lagunak be bai. Ta ondo e, ondo, oso ondo ikasi zeben.
- Eta hau, Kontxita Maiztegi, ze zan... titulua zekan berak ala?
- Bai, titulua zeukan, bai
- Osea Magisterixo ikasittakua ta...?
- Bai, bai, bai. Handik jente asko pasau da eta oso ondo gertauta. Ta gero, hamen zela ipini zan hori, ikastolia ipini zan. Seminarixua, dominikuak zeren lekuan edo han ikastolia ipini zan. Ta horrek ipini zebenak ikastolia komeni jakuen ba... titulodunak. Zegaitxik orduan zela ez zeuan... Ta, klaro, subenziñuak eta gauzak hartzeko, ba, titulodunak komeni jakuen, ta [ze in zeben?] Hola, bastante maestra haren modukuak... zegaittik beste batzuk be bazeren, akademixak-eta poliki-poliki ipini zien, ta akademixak-eta be eon die hamen. Ta ze in zeben gero? Ba haura zabaldu zebenian, ikastolia zabaldu zebenian, ba, horrek batu in zittuen. Neure loiba baten... neure loiba baten andria be maistra in zeban —gaiñera maistra bost urtekua indda zeukan— eta oso ondo kolokauta zeuan, baiña horra sartu zan, zegaittik komeni jakuen titulodunak. Zeuken jentia euskerara emoteko gertauta bastante jente, baiña titulo barik, tituluak hartzen zeren, baiña ez dakit zenbat urte izango dien ya, urte asko, hogetamar baiño gehixao. Ta, klaro, horrek danak sartu zian ta oso lan ona in zeben e. Baiña horrek orduaintxe desaparezidu zien horrek beste maistra horrek.
- Akademixa...
- Akademixa horrek eta danak. Eta gero han sartu zien.

4.74. Zubieta kaleko jantzetxea; Santa Engrazia ermita

- **Hizlaria(k):** Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-216/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:13:53. **Bukatu:** 00:15:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Baserrietatik mezara joateko, Zubieta kalean zegoen jantzetxean aldatzen zituzten arropak baserritarrek. Basalgon eta inguruko baserrietan hildakoren bat zegoenean, oinez ekartzen zuten gorpua kalera eta Santa Engrazia ermitaren kanpoaldean aitagure bat errezatzen zen. Barrutiko errota eta okindegia. Ondra-jana.

Transkripzioa

-Horra joaten zien entiarrietan-eta.

-Zubittan zeuan hori, jantzetxia esaten jako. Eta han gure auzuan dago ermitta bat, Santa Engrazia. Pare-parian Barrutin, Baarrutiko errota eta panaderixia zan eta handik Santa Engrazia parian petril gaiñian lagatzen zebeñ kajia deskansua eitteko. Beti hantxe. Eta errezaue be aittaguren bat eitten zan. Goittik, Basalgotik eta etortzen zien, hiru tanda, hiru relebo-ta eindda, e. Lokatzetan belaunetaraiño neguan-eta. Haura zan haura.

-Eta Zubittan jantzetxia?

-Zubittan jantzetxia. Hor erropak aldatu, botak-eta kendu, eta zapatakin-eta ia elizarako itxuratu. Eta gero han bueltan han eitten zebeñ beti zeoze. Goizetik izeten zan entierria eta bazkaldu edo, ahal dan moduan ipiñiko zebeñ eztakit zer, konejua edo bildotxa edo dana dala, zeozer, betekada bat behintzet, ardao mordo bat edan eta atzera basarrira.

-Ondra-jana edo zer izeten zan hori?

-Ondra-jana, bai.

4.75. Santa Engraziako ermita

- **Hizlaria(k):** Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-216/009
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:15:09. **Bukatu:** 00:16:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Santa Engraziako ermitan ez zen mezarik ematen eta bertako egunean ere ez zen ezer berezirik egiten. Sineskera zaharra, garatxoak kentzen zituela. Jende asko joaten zen bertara garatxoa sendatuko zitzaien ustearekin.

Transkripzioa

Ermittia esan dozu, Santa Engracia. Mezarik-eta eitten zan?

-Ez, ez, holako zer bat zan, santutxua zan.
 -Bertako jai egunian edo?
 -Ez, ez. Ez zeukan, hori ez zan zelebratzen. Zaukan..., jentiak botatzen zeban dirua eta kredua errezau ta, garitxuendako, garitxuak kentzen ziela. Han erriela bota, eta eztaikit zenbat errezau, hiru aittaguria errezau eta garitxuak zera eitteko, garitxuak desagareztzeko.
 -Zeri esaten dotsazu garitxuak?
 Emaztea: "Verruga".
 -Orduan ohitturia edo siniskeria hori zan?
 -Bai, holaxe zan...
 Emaztea: "Supersticiones".
 -Erriala bota, errezau eta trote. Zaukan halako zer bat, zepillua barruan, eta han eskua sartzeko lekua zeuan eta zepilluandako zera ta. Eta santia, Santa Engrazia, oiñ hori Santamaiñan dao, nubaitten, eztaikit nun baiña Santamaiñan dao, ganbaran ala nun. Santa Engracia.

4.76. Auzoko eskola

- **Hizlaria(k)**: Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-216/011
- **Iraupena**: 0:02:01. **Hasi**: 00:19:39. **Bukatu**: 00:21:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Auzoko eskola, ume txikiendako bakarrik. Maistrak euskaraz hitz egiten zien umeei.

Transkripzioa

-Eta bertan auzuan eskolarik bazeukazuen?
 -Bai. Manuela maistria, baiña txikixak eskolan, oso txikixak. Parbularixo moduan, baiña hor hasi bi urtetik eta zortzi arte edo. Holakon bat. Zazpi arte edo.
 -Maistria zer zan, Bertakua, Bergakua?
 -Bera? Nik hor ezautu neban beti, baiña ez dakit Bergakua izengo zan haura, e. Bai, euskeria hamengua eitten zeban, e.
 -Orduan klasiak euskeraz eitten zenduan?
 -Bai, bai. Aittaguria-ta errezu danak euskeraz. Guk erderaz ikutu bez. Halako makilla haundi bat eukitzen zeban, hemendik ixa ateraiñokua ta, bera ez zan mobitzen, ia edadian aurrera-ta, dunba! Joten zittuan buruan. Berriketan zegonai-tta, tanga!
 -Gogorra zan orduan.
 -Baiña haura zan, hoixe, guarderia zan haura. Etxian ez eukitzeko umiak ba hantxe. Ta kantuan, aittaguria errezau: "Aittaguria zeruetan..." Holaxe, eta han barruan euki ezker ba zeoze. Eta gero haundixauak-eta ba kuadernuakin letrak ein puxkat ... Beran ondora jun kuadernuakin eta ikasi, eta bittartian juerga danak.
 -Orduan ze izeten zan, gela bakar bat eta ume guztiak han.
 -Danak hantxe...
 -Edade diferentetakuak eta...
 -Parte haretan haundixak, eta hemen txikixak eta harutzauan neskek eta

dana hola, bai.

-Neskak eta mutillak puxkat aparte egoten ziñazien edo?

-Bai. Barruan baiña grupo diferentia eindda. Makilla haundi bat, basarritarrak ekartzen zotsan, apurtzen jakonian basarritarrak batek batek ekartzen zotsan.

-Apurtu eitten jakon?

-Bai. Luzia, e, hamendik haraiñokua. Plan!, buruan, puxkat rebelde samarrei-tta. Manuela..., badaukat, horren izenak eta apeliiduk badauzkat.

4.77. Maristak Bergaran

- **Hizlaria(k)**: Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-216/013
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:24:24. **Bukatu**: 00:27:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
 - Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
- **Laburpena**: Jaunartzearen inguruko kontuak. Lehenengo jaunartzea Espoloian egin zuen; maristekin. Ondoren Santa Marinako parrokiari egin zuten berriz. Maristen inguruko azalpenak. Ospitale Militarra.

Transkripzioa

- Ni Espoloian akordatu naiz, ez dakit zenbat urtekin jun nintzan Espoloira, han zerak zeren erlijioso batzuk, baiña zazpi urtekin komuniua ein neban hantxe.

- Orduan ze izaten zian, bi komunixo, txikixa eta haundixa?

- Bai, bi. Txikixa ta haundixa. Han ein neban nik komuniua zazpi urtekin. Orduan gerria urtenda zeuan?

- Bai, nik bost urte neuzkan gerria urten zanian; hogeta hamaikan jaio, bost urtekin etorri zan gerria eta hogeta hemezortzixan uste dot ein nebala komuniua, bai, zazpi urtekin, Espoloian. Eta gero parrokixan. Lelengo han profesoriekin edo harek zien Maristak. Maristak ez, Marianistas. Oin hor dago palazio bat Ertzaiña egon zana, hantxe. Han zaren harek; eta traje beltzakin ibiltzen zien, eren abitua, sotanaik-eta ez zeuken. Erlijiosuak bai baiña mezia-ta ez zeuben emoten. Bakarrik zien eskolako zerak, ez dakit nundik etorri zien, kanpotik gerra denporan.

- Eta hor egin zenduan komuniua.

- Emaztea: Eta noiz egon zien ba horrek? Hor egon zan ospital militarra be.

- Bai, gerra denporan, frentia hemen egon zanian. Gero eskolia.

- Emaztea: Gero ospital militarra.

- Bai, bai, oinndiok be beheko sotanuan ambulantiak eta danak zeren.

- Emaztea: Marianistak be rekisauta euki zeuben ala? Rekisau egin zeuben marianistak etxe hori, ala?

- Ez, hori emun ein zotsen, aiuntamentuak emon hori, rekisauta, klaro, eskolak emoteko.

- Emaztea: Ospitala egon zan rekisauta.

- Lelengo egon zan ospitala, ospital militarra, eta gu han eskolan gebizela han bodegan bazeuan bi ambulanzia, aberixautako ambulantiak hantxe baztartuta, eta han ibiltzen giñan gu. Lelengo komuniua han eta gero

Santamairian tokatzen zana.

- Zeuei tokatzen jatzuen Santamairako parroikia?

- Bai.

- Han komunixo haundixa?

- Ez, txikixa han be, berriz repetidu ein giñuan Santamairian. Guk lelengua hartuta zeukun han, baiña Santamairian parroikixakuak, e, zu!, hari ezin jatzun esan "guk eindda dauku, e", eta holaxe; han zerian, Espaloian danekuak, parroikixa bixetakuak. Baitta kanpokuak be; kanpoko jentia be bazeuan. Internaua be bazeuan-eta.

4.78. Maristak Bergaran

- **Hizlaria(k)**: Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-216/015
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 00:29:37. **Bukatu**: 00:30:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Maristak Bergaran.

Transkripzioa

-Marianistak esan dozu internaua be bazekela?

-Bai. Uste dot eguna bakarrik pasatzen zebela, lo ez zeuben eitten han, e. Emaztea: Orduan internaua ezta hori.

-Ez, "media pensión". Kanpotarrak be bezeren. Badaukat nik orduko erretrato bat, egundoko kuadrillia.

-Internaua eta. Famia zeken eskola onak emoten zittuela edo?

-Ez, famaik-eta ezto holakoik entzun. Baiña neure ustez onak zien.

4.79. Oporrak Donostian (I): Intxaurrondon

- **Hizlaria(k)**: Oregi Arregi, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Oregi, Irune
- **Erref**: BER-228/025
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:28:11. **Bukatu**: 00:30:11
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Oporrak
- **Laburpena**: Donostiara oporretan joan zireneko pasadizoak kontatzen ditu: Intxaurrondon etxera itzultzeko autobusik gabe gelditu zireneko gaua.

Transkripzioa

- Guk be gatzetan ondo pasatzen giñuan e? Ba, ondo... Donostiara be batzutan juaten giñan, noizian behin, ta bueno. Zortzi, dirua botata zeukogun, ta zortzi egun pasatzera jua giñan Donostiara, ta bueno, ondo ibi[Itzen], ondo pasatzen giñuan, pasau giñuan bonba. Erromeixa, han be

erromeixak eta. Ta juan giñan Intxaurrendora batian, egun baten, lehenguan esan notsun hori. Eta han dantzari egin, autobusian juan giñan, baiña gero honunzko autobusik ez zekogun bueltarako. Eta Intxaurrendoko urrin eitten da zentrotik Donostiatik. Eta gu genden "calle San Martín".

- (Ahizpa) Kendizu hori, eskua.

- Gu genden "calle San Martín". Eta bueno, ein giñuan dantzaldi bat eta, bueno bastante denbora, ta geo gabian etxeako, gero ez zeukogun ezer etortzeko, eta gu danok oiñez. Ta hasi giñan etortzen. Lau lagun edo, bost edo giñan. Eta bagatoz goititik behera, ta auto bat gelditu jakun bidian eta esan zoskuen "baiña ze, zuek ze zabizte hamen? Ordu honetan, ze, nora zoiaste?" ta, "ba, oin etxea. Eta ze, ba ez dao konbinaziñoik, ez zeuan, ta ba bueno, oiñez". Ta "bueno, bueno, sartu zaittezte". Eurak jeitsi kotxetik, eta gu sartu kotxian, eta eurak oiñez, eta gu etorri giñan Donostiara. Bajau giñan Donos(tian), behian, kalle San Martiñea allau, eta bestiak ez dakit ze kaletan zeren, eta juan giñan etxera eta ate guztiak itxitta. Eta gero, ba dihar ein biher, eta lelengo zerai, serenuai. Serenuak eukitzen zeban atian giltzia. Serenuai dihar ein bihar, ta serenuan billa, bueno, ibili giñan... pasau giñuan puska bat, larrittasun puska bat be bai e? Ta gero, etxera juan giñanian, ba tia hasarre... bueno...

4.80. Ezer gertatu ez balitz bezala jokatzeko

- **Hizlaria(k)**: Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aginagalde, Maite
- **Erref**: BER-230/009
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:09:43. **Bukatu**: 00:12:28
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Gertatutakoaz ama kontura ez zedin, zer egin zuen azaltzen du.

Transkripzioa

- Gero, pentsain, angorina edo puxkat zera jaukanen, ama siestan zan bittartian garbittu hurrengo egunian. Baiña kanpua esegitzia be amak ikusi eztaixen ganbaran. Han sikatzen jersioi, noizko sikatuko ete zonan han. Eta han siketzen baiña mantxia, geratu jakonan grasa, klaro, bizikletian grasa. Badakin ze ein gontsan, etara illiak hola beste danian eta han ipiñi ama konturau ezteiñ. Baiña gure ama be ez zonan tontia, eta: "Zer jaukan horrek jerse horrek?" "Honek ezebez". Bai, ze, horrek ze jaukan? Ze jaukan? Auskalo zeekin gaiñea guk garbittu be, Chimbo eta ostientzeko jaboe danekin izengo zonan garbitzioi tta. Zihero tupiduta dana, inguruko illiok etara ta han ipini tta. Ta bizikletan etorteko gauza ez Juliña, eta haren beste basarriko gizon bat etorri, desmontau bizikletia, trena pasatzen zan orduantxe, eta trenian haura bialdu Altos Hornosera, artien trenerako denpora asko euen, Altos Hornosen beste batek urten bihar hari. Han ez, San Pruenzion, San Pruenzion ein bihar trasbordua, pentsaiñ. Eta han ganbixatzeko, San Pruenzion ganbixatzeko han baten bat egon dailla, harek errubedok eta manibelok eta danok desmontautu dittuela trenian, eta bi edo hiru gu aurrera, jota emonala guztian, beste horrenbeste pasatzeko denporaz San Pruenziora, trena etorri baiño lehen, artian trenerako han denporaz geratu zien Zubillan. Han geratu zienak

harek trenera sartu eraiñ bizikleta zarroi, eta gero gu San Prudentzion zaiñ berriz etaratzeko, eta beste trenian, Bergararako trenian sartu eta berriz Altos Hornosera emonala guztian hari bizikletok etaratzeko. Enee!, haura jerse haura! Baiña pena bat eta! Eta Luixita ta bixok, e. Guk bixok pasatzen giñustanan baiña, baiña..., batak bestiai ama ez enteratzeko, baiña ez zonan tontia, mekatxis la porra. Eske hari koittauai kostauko jakonan haura jertse haura. Baiña neuk hoixe, dotore ibilttia nahi tta, Pazkuetarako eukitzen jittunan jerse dotoriok eta. Han ibiltzeko ez, baiña, honbre. Manibelien han txintxiliz graziosua izengo zonan eta, nere jertsioi dana grastuta baiña gero harek batu, montonau, disimulatzen. Ene! Ni harekin bizikleta harekin ibili nintzonan, bueno, ezta erregeik be ez.

4.81. Eskolako andereñoa eta haren alaba

- **Hizlaria(k)**: Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aginagalde, Maite
- **Erref**: BER-230/010
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:12:28. **Bukatu**: 00:13:39
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- **Laburpena**: San Kristobalگو eskolan ibili zen. Andereñoa nola moldatzen zen bere alabarekin enkarguak egiteko.

Transkripzioa

-Gu San Kristobalen ibili giñustanan eskolan, eta maistría zonan Tomasa, gaiñera, edadetua zonan, ama-alabak bizi zittunan, alabia, badakin, Pilar, nere madrinia; alabia ibiltzen zonan etxeik etxe, josten. Da bera bakarrik egoten zonan ama, klaro, alabia jutén zonan basarrira eta han eitten jonan jatorduok eta zerak eta ama bakarrik. Gero Angiozartik bajatzen zonan korreua, Iruingua, oin be bizikon haura andra haura, kaballuakin eta karro batekin-da. Eta Angiozarko kartok eta ostientzeko errekauiok harek ekarten jittunan Angiozarrerako. Eta gure maistriak be errekaun bat eukanian urtetzen jotsanan, bajakiñan gutxi gorabehera ze ordutan bajatzen zan, urtetzen jotsanan, emuten jotsanan errekaui, eta gero atzera behetik goruzkuen diar eitten jonan: "Tomasaaa!", "Han, korreua", ta banoia. Juten zan, eta, klaro, hartzen jonan errekaui, baiña gero barriketan egoten zonan puxkan baten, segiduan ez zonan etorten. Zeoze senittarteko etxakiñat ez zien harek.

4.82. Komunerako bidaiak

- **Hizlaria(k)**: Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aginagalde, Maite
- **Erref**: BER-230/012
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:14:49. **Bukatu**: 00:16:09
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

- **Laburpena:** Komuna egon bai, baina ez ziren joaten. Hara joateko, baimena erdaraz eskatu behar zuten. Mutilek, komunera joateko aitzakiarekin, bihurrikeriak egiten zituzten.

Transkripzioa

Gero beste bat zonan, komuna bertan jaon, oin be han jan eta. Baiña gu sekula ez giñustanan komunera juten, han etxoskunan lagatzen. Gu eta gure aurrekuak be ez zittunan jungo, eta kitto. Dana euskeraz eitten giñunan baiña hauraxe permisua eskatzia geunkanan, erderaz izengo zonan edo. Etxakiñat ze izengo zan. “Por ustel” esaten giñunan, “Me permite usted” izengo zonan igual, baiña ba hoixe. Gero maistriak esaten joskunan, “vete!”. Bueno, urtetzen giñunan geure eginkizunak eittera eta han sasin baten, sasi kontran baten, edo errekatxuan zihher eta. Ba, neskak bastante zer etorten giñustanan, baiña mutikuak, mutikuak juten zittunan, eukitzen jonen apixan bat ikusi biharrekua, edo beste zeozer. Geratu bez. Harek noizko eskolaratu. Eta hala besten batek, “tardatzen jok ba harek”, eta berak be eskatu. “Porrustel”, eta “Véte. Haura be ezta etorri oinddio, haura nun ete da” ta. Adios, orduantxe akordau han falta dala baten bat. Da jun da bixak igual juntau eta apixak bila igual, Elizburu esaten jakon han Elko(ro)neko zerak eta, handik buelta jakitten eben apixan bat, harek ikusi tta, lumatuta daren txorikumak edo zerak eta, eskolako jiria. Gure eskolia holakotxe zerak.

4.83. Fruta gutizi moduan erosten

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite
- **Erref:** BER-230/018
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:20:38. **Bukatu:** 00:21:38
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- **Laburpena:** Diru pixka bat zutenean, eroatera joaten ziren fruta-saltzailearengana.

Transkripzioa

- Ta iñoiz hola e? Errial bikua ta geunkanian ta eostea. Errial biren azeitunak eta, ta holako eskutakadatxo bat emoten joskunan ta. Ta geo beste bat ibiltzen zonan gizon bat, karro bat, ta erabilten hittunan hola, kanpasotxo batzuk: batien mandarinak, bestien piku-pasak, bestien zeak, naanjak, ta saltzen ibiltzen zonan. “Fruteeeero!” diar eindda, Altos Hornosen, han pasatzen zonan ta. Gu eskolatik urtetzen giñuanian edo, txakur haundin bat edo bi edo baldin bagauzkanan, “una naranja de dos perras” ta ze ba txikixenen bat edo emoten oskunan, ba klaro, kilua izengo zonan igual pezetia edo, pezeta bi edo. Zea, han ezin hasi kalkulatzan harek zenbat balio daben. Eta han tartien hartuko jonan txikitxo bat, eta horixe emongo, emoten oskunan, ta bueno... haura gozua izeten zonan. Jo! Dirua falta baiña, behintzat naanjia janda! Jo! Piku-pasak eta.

4.84. Hildakoen inguruko ohitura

- **Hizlaria(k):** Inza Askasibar, Bizenta; Inza Askasibar, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-262/014
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:35:12
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Hiletak
- **Laburpena:** Norbait hiltzen zen lekuan gurutzea jartzen zen eta handik hiletaren bat pasatzen zenean pater nosterra errezatzen zuten

Transkripzioa

- Bolutik kanposantu bittartian?
- Bai. Lamaraingua edo zala haura. Etxera doiala edo [...] hor hilda geratu. Ta holan, gero ipintzen zebeu zera, kurutzia. Ta entieron bat edo pasatzen bazan, ba, geratu ta pater nosterra edo esaten zebeu. Hamen [...] ni hor akordatzen naiz zeretik Aixkunetakuak edo Mainddaoko... horko... Mainddaokuak ez...
- Partaittikuak.
- Partaittikuak, eta hamen behetik gora igo bihar izeten zebeu danak eta...
- Bai, hemendixek behetik gora. Oin iñor ez don pasatzen, baiña...
- Oin ez .

4.85. Eskolan jolasik ez

- **Hizlaria(k):** Agirrebeña Lizarazu, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** BER-270/004
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:04:56. **Bukatu:** 00:08:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Jolasik ez zegoen eskolan. Iltaran joaten ziren, eta txalo jotakoan salto egiten zuten, hankak berotzeko, neguan. Mojak ziren maistrak. Internoak ere bazeuden ikastetxean. Herriko umeek ez zuten ordaintzen. Asko ikasi zuen. Gaur egungo umeek edukaziorik eta errespeturik ez dutela dio.

Transkripzioa

- Eta eskolan ibili zifnenian ze jolas klase-ta eitten zittuein?
- Jolasak? Ez zeuan jolasik eskolan.
- A ez?
- [Harutz] lkestera joaten giñan.
- Baiña rekreua ez zan egoten?
- Neguan bakizu ze itten giñuan? Ipintzen giñuzen holako sala libre batera, danok, geure filetan filetan, e? Filetan neska danak, filetan. Eta txaluak josten zebeu eta saltoka itten giñuan genden lekuan, saltoka, hankak berotzeko!
- Hotz itten eben?

- Hankak berotzeko, bertan, saltoka, saltoka itten giñuan. Mojak zeren, maistrak, mojak. Eta harek diar itten zoskuen ta hainbeste miñuturako... saltoka, berotzen. Saltoka, saltoka itten giñuan danok, genden lekuan, ibili barik, geldi-geldi . Bertan salto ein ta “Bueno, ya basta”. Atzera filetan geure lekura. Han ez zan egoten beste jolasik.

- Eta rekreorik-eta ez zeuen?

- Ez zeuen! Guk, normalian, guk ez zeukaun. Akaso rekreua eukiko zeбен dirua pagatzen zeбенak. Pagatzen zeбенak egongo zien han; “media pensión” ta “internas” ta zeren han pagatzen zeбенak. Baiña gu herriko umiak... normalak giñan gu bape pagatzen ez giñuanak. Ez zan pagatzen, herrixan kontura. Eta haura itten zan, ba, debalde dana, debalde.

- Ta gauza asko ikasi zeuein?

- E?

- Gauza asko ikasi?

- Ikasi bai. Mojak zekixen dana. Harek zekixen dana: bide onian ipini eta betik elizarako bidiak emon eta... ondo, ondo erakusten zeбен. Eskerrak han ikasi giñuana! Nik esaten dot gaurko umiak asko dare mojetan pasau bihar laukienak.

- Bai? Zeatik?

- Mojetan pasau bihar laukienak, edukaziño puxkat hartzeko. Ez dauke edukaziñoik errespetatzeko haundixaua, eta beste modu baten zaintzeko ostienguei. Hori ikasi bihar dau umetatik, umetatik. Etxian erakutsi bihar jauue, eta etxian ez bada, eskolan ikasi deixela, eskolan ikasi deixela, dana. Hori komeni da umietatik sartu deilla, edukaziño puxkat, errespetau bata bestiai eta hori. E... nik uste dot hori ez dala eskatzia asko.

- Ez, ez, ez da.

- Hori danondako normala ta onena izengo litzakela. Alkarrekin, bata parian pasau da ta: “Ola atsaldeon”, eta “bai, ondo?” ta “bai, ondo” , “aguur”, ta yasta. Baiña kaso indda alkarrei, ez txakurren moduan onduan pasau, kasoik ein barik, eta... Ez, ez, ez. Personak hori baiño jakinnddurixa gehitxuo bihar da alkar errespetatzeko. Ezta?

- Bai, bai, bai.

4.86. Gerra ondorenean askatasunik ez

- **Hizlaria(k)**: Arrieta Larrañaga, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Mendicute, Josu
- **Erref**: BER-312/030
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:58:25. **Bukatu**: 01:00:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Gerra ondorenean ez zegoen askatasunik ezertarako. Bere anaia eta kuadrillakoak atxilotu egin zituzten behin gauzez bertsoaren batzuk abestu zituztelako. Berak guardia zibilak ezagutzen zituen, Zabalana etortzen zirelako eskopetak probatzera eta kuartelera joan zen batean erakutsi zioten bere anaiaren fitxa.

Transkripzioa

- Koko jantzitta ta, hori hainbeste be ez, porke orduan hori debekauta egon zan. Han, ni akordatzen naiz, gabe baten afarixa in nere anaiak eta, eta, zera, filarmonikia... han bertako... bertan hazittako bat, eta etorri zan filarmonikiakin. eta ez dakit zelako bersuak kantau zittuela eta kuartelera

eruan zittuen, kantau zebelako gabian! Bai! Ta hantxe geratu zan fitxia e! porke ni juan nitzanian... etara neban zera, pasaportia. Eta etara bihar zan "buena conducta" edo "no sé qué" handik, kuarteletik. Eta nik Guardia Zibilak ezautu itten nittuan hangiak, porke ni tabernan nenguala etortzen zian harek Elgetara, Zabalenera, eskopetak probau bihar zittuenian, Guardia Zibilak etortzen zian. Eta etortzen da sargentua eta... Eta nik ezautu itten nittuan harek, oseake ni kuartelera juan nintzan, ezta? baiña trankil, porke harek ezautzen nittuan nik eta. Juan nitzan ta esan ostan: "Tu ya le conoces a este?", erakusten dosta nere anaia, "Sí, ¿qué le ha pasau?". Bah antxe geratu jakon fitxia. Kuartelera eruan zittuen eta fitxia hantxe zakan, eta simplemente gabian kantuan in zebelako, bersuak edo ez dakit ze. Oseake, hain zeuan dana bajo... ez zauan ezetarako...ez zotsuen lagatzen ezebez. Ta euskeraz-ta kantatzen baziñuan, gaiñera, ni te cuento!

-Txibatuak bazeuazen herrixan?

-Bai, bai.

-Ezagunak edo...?

-Bai, ezaunak izango zian, porke herri txiki baten danak ezautzen dia eta nundik kojeatzen daben be bai, euskeraz itten bozu erderaz itten bozu, etxian ze ambiente daken, zelan datorren atzetik datorrena be... ba bai. Angiozarren ta holako herri txikittan danak ezautzen dozuz. Eta, ba, baten batek sartu zotsen txibatazua, bai. Nere anaia ta kuadrillia! Harek han egon zian. Kuartelera eruan zittuen, euskeraz kantau zebela bersuak edo ez dakit zer, ta auskalo! erak pentsautako berson batzuk igual izango zian, baiña haren fitxia hantxe geratu zan.

4.87. Karrera egitea neska gutxiren esku

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/007
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:08:28. **Bukatu:** 00:10:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Bere inguruko inork ez zuen karrera ikasi; denek irakasgai solteak. Aretxabaletan lanean hasi zenean takigrafia primeran etorri zitzaion; lantegiko nagusiak Mexikon zuen negozio bat, eta berak hartzen zituen deiak. Interna zeudenek bai, batzuek Magisteritza ikasi zuten. Burgosera edo Salamancara joaten ziren azterketa egitera. Maria Pilar Lonarbide. Titulu gabekoa maistrak ere baziren. Maria Victoria Oiarzabal izan zen karrera egiten lehena. Horretarako diru asko behar zen. Gainera, ez zieten garrantzirik ematen emakumeen ikasketei. Josten ikastea zen inportanteena.

Transkripzioa

- Ta zurekin ikasittakuak edo zure edadekuak batenbat karrera in zebana edo..?

- Ez [zauan] iñobez. Iñok be ez. Danak asignatura sueltuak ein giñuzen: batzuk francesa, beste batzuk mekanografixa bakarrik, bestiak takigrafia ta mekanografa. Nik... takigrafia gehixen gustau jatan e. Bueno, haretxek balio izan zotan, zeatik esamiñak euki giñuzenian, [oneis] nere nausixak,

Aretxabaletakuak, zeuken beste anai bat industriakin Mejikon, eta, klaro, handik [itten] zebenian, nik aurikularrak ipiñi ta takigrafixan. Ta gero tradukziñua emun. Eta horretzek balio izan zostan. Ta gero aittak galdetu zostanian “Zela esamiña Elisabet?”, “Bihar lanera noia, aitta”, “Ez dozu esango?!” ta “Bai, bai, bihartik lanera noia”.

- Eta esan dozu asignatura sueltuak eta hola.

- Bai.

- Baiña bazeren batzuk magisterio ikasten zebenak.

- Bertan ez.

- Kanpora junda.

- Barruan, barruan zerenak. Hori ya... kolegixo barruan zerenak bai, harek in zeben e.

- Internak.

- Magisterio, bai. Interna zerenak bai.

- Baiña magisterio hemen Bergaran ez zan posible izango ittia.

- Baiña gero esaminatzera juten zien o Burgosera edo Salamancara edo... baiña hemen estudixauta e, bai.

- Eta zeintzuk e... batenbat badaukazu hola akorduan?

- Nik daukat bat hor mojetan eon zana, gerra denboran gaiñera barruan eon zan, este... Maria Pilar Oiarbide.

- Lonarbide.

- Lonarbide, bai. Hori... horrek dauka ya magisterixua indda. Ta bere alabak danak dare magisterixua itten; bueno, eindda, lanian dare ya.

- Bestela, garai hartan asko egongo zien maistrak titulo barekuak, ezta?

- Titulo baekuak, klaro. Puxkat espabiladak zienak... grupua hartu ta erak erakutsi.

- Ta esaten dabe karrera in zeban lenengua... Farmazia ikasi zebala ta zala e... Don Roman... alabia.

- A! Honbre, Maria Vitoria, Maria Vitoria Oiarzabal. Honbreee! Haura oso majia zan e! Ta, gaiñera listia, oso listia.

- Baiña, klaro, karrera ittera hola kanpora jutia...

- Kanpora, karo, baiña egon in bihar zan, oin daon moduan. Oingo moduko krisisik ez zeuan e!

- Eta aparte be bai, ez zotsen holako inportantziaik emuten ezta emakumiak ikastia...?

- Keba, keba, emakumiak etxerako, josten eta holaxe bakarrik. Ba “costureras”, “costureras”.

4.88. Kuban soldadu

- **Hizlaria(k):** Oianguren, Franzisko
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BER-330/002
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:01:21. **Bukatu:** 00:01:58
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Kuban soldadu dagoen baten gutuna heldu da etxera eta bertan zer kontatzen duen.

Transkripzioa

Basarritar batzuk pastelerixako onduan zauden mezian, beatzitakuan zain, eta batek esan dio bestiari:

- Semian berririk ba ai dezu, Kosme?

- Zein?
 - Kuban soldadu dagona.
 - Bai. Ba, lengo egunian euki juau beran karta.
 - Enda, zer abisatzen dau?
 - Ba, eztakit zer, baña gradu aunditan sartu izan bear dau.
 - Zer ba, opiziale edo teniente, edo...?
 - Ez, geiao, geiao [izan biar dau]. Kapitan edo enkomendante?
 - Ez, ez, ez... ; a! Ointxen etorri jat burura... asistente dagola edo abixatzen dosku].

4.89. Etxeko sutea

- **Hizlaria(k)**: Raymond, Jose Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: BER-331/001
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:00
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Gau batean etxea erre zitzaionekoa kontaktzen du. Sua emendatzeko (itzaltzeko) ahaleginak egin arren, suak bere bidea hartu zuen.

Transkripzioa

Juan dan domeka gau baten artu kafia bi kopakin eta sigarro purua erre eta juan nitzan etxera lo eittera eta gabian, gabian sua isan san eta, eta serenua ate joka, eta gero pasau san atia jo, ta jaiki nitzen segittuan, joan ginan bonbia artuta su emendatzera eta gu joan orduko dana erria zeuan, ta batuk bonbia or ipini, bestiak or ipini, an ipini, denboria jun, eta suak bere lanak eiñ, eta ortan, ordu bata terdiak ordu bixek aldian akabatu sian ango lanak.

4.90. Ura kobratzerakoan

- **Hizlaria(k)**: Raymond, Jose Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: BER-331/002
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:01:00. **Bukatu**: 00:01:45
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
 Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Jose Joakin Bergarako uren arduraduna zen. Etxe batera uraren zergak kobratzera joandakoan bitzakoak.

Transkripzioa

Eta au politta. Lengo egun baten jua nait uran dirua kobratzera etxe batera eta lau txakur aundi geixaun esesua, eta ser da ori eta ser da ori, eta nik esaten notzan orrek lau txakur aundi orrek diala kuartillu bat neuk erateko. Asi jatan berris kopletan eta gero nik askenian estaola koplak:
 - Aquí a pagar tocan, señores y compañía.

4.91. Nemesio Etxaniz idazlea, familiako laguna

- **Hizlaria(k):** Narbaiza Erdabide, Blanca
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-351/018
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:29:11. **Bukatu:** 00:32:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Katak
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Umeak zirenean, etxera askotan Nemesio Etxaniz joaten zitzaien bisitan eta kantuan eta olerkitan aritzen ziren. Nemesio Etxaniz nor zen eta familiako laguna nola bihurtu zen kontatzen du Blankak. Kanta batzuk ekartzen dituzte gogora.

Transkripzioa

- Umetako kantuzaletasuna eta antzerki eta...

- Blanca: Bai eta, gaiñera, gauza bat ahaztu jatzu, Aran, esatia, bueno, ba, bai tia Maritxu. Eta gero guk euki giñuan sekulako suertia: gure etxian askotan bisittan etortzen zan Don Nemesio Etxaniz, Pentsau, haura, jo! Orduan, haura zetorrenian, hango kantua, hango olerkixa berakin, bueno. Noizian behin zetorren, itxuria, ba, gure tien eta, bueno, ba, oso laguna, gerra denboretakua, enfin, kontu harek. Orduan, haura ere euki giñuan errefortzu bezela eta erreferente.

- Esplikaizu zein zan Nemesio Etxaniz.

- B.: Bueno, ba, guretako... aber, orduan, karo, gu umiak giñan, ta "Don Nemesio dator. Ba, ze ondo!". Haura etortzen zan, kontuak esan, ji-ji, ja-ja...

- Arantzazu: Gero pianua geunkan etxian.

- B.: Pianua jotzen zoskun. Eta bueno. Eta gerora, gerora, juan giñan gero ya poliki-poliki ikasten zein zan Don Nemesio. Ostras! Guretako izan zan sekulako zera, ez? "Aiba! Zelako suertia euki dogun guk gizon hau, gizon jakintsu hau, ezautziakin eta etxian eukitziakin".

- Nungua zan?

- B.: Azkoittikua?

- A.: Azkoitti...

- B.: Azkoittikua. Eta gero, klaro, hasten za bere obria ikusten eta gero zenbat kantu... ba, guk kantatzen giñutzenak eta "aiba! hau Don Nemesiona" ta, ba kontxo! Ba, gure zatitxo bat balitz bezela, ezta?

- Klaro, don Nemesio, bera abadia, oso euskaltzalia eta oso musika zalia eta kantu zalia, ez?

- B.: Kantu zalia, bai.

- Itzuli eitten zittuan, ez, kantu asko euskerara be bai eta...

- A.: Eta asmau!

- B.: Eta asmau! Eta, karo, haura egon zan itxuria Bergaran, Bergaran desterrauta edo, kastigauta, zigortuta egon zan Bergaran, orduan, ba, ez dakit gerra ostian-edo izango zan. Eta gure tio batzuk zeuken Zubittan, ba, dendia eta, orduan, denda haretan, gure tia Maritxuk itten zeban lan eta Don Nemesio eta beste batzuk joaten zian tertulixara hara. Eta, ba, harrezkero, bueno, gero ya haura dana, dendia, tio eta tia harek hil zien, no se qué, baiña segidu zeban Don Nemesiok kontaktuan ba gure familixiakin. Eta pues... hoixe.

- Orduan, haren kantuak-eta, familixatik jasotakuak be bai eta...

- B.: Bai, bai, sekulako...
- A.: "Astigarragako Tomasak, harek eman dizkigu azak, ai gure Tomasak...", ya ez naiz akordatzen.
- B.: Eta ez dakit zer ta Txilibistro kontuak eta esto, eta... Eta "gora euskara...", zela da?
"... gora, gora, gora gure euskara...". Eta, bueno, ba, harekin ibiltzen giñan kantuan, gauza normalena izango balitz bezela.

4.92. Ikastolako hasierako urteetako kontuak

- **Hizlaria(k)**: Amasorrain Linazisoro, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: BER-355/012
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:17:22. **Bukatu**: 00:20:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Konbenio kaleko ikastolari eta akademiari buruzkoak aipatzen dituzte, azalduz bertako irakasleak zein ziren eta zein hizkuntza erabiltzen zen. 70eko hamarkadan ikastolan irakasle hasi ziren batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa

- Beste ikastola bat be sortu zan Konbenixo kalian, Serafin Esnaola abariak-eta bultzatuta, eta Linazasorotarrak be hor tartian zerela-edo, hori daukat irakurritta nik.

- Ya, ya...

- Konbenixo kaleko ikastolia. Hori ya pixkat beranduau, e? Hirurogeta pikuan.

- Bai, nik pensatzen dot biharbada nik esan dotsutena ez zan oso zehatza izango. Bai, Konbenixokua eta Akademixia izan ziran elkartu ziranak. Eta, orduan, Akademixan zeren Maria Victoria, Lide eta Don Jose eta Konbenixuan egongo zan Don Serafin. Akademixia erderaz emoten zan eta Konbenixuan euskeraz emoten zan. Orduan, elkartu ziran, ikastolia egin zeben, baiña lehenengo taldiak mistoak ziran, bi aldetakuak. Nik ezagutu neban ikastolan, ezagutu nittuan lehenengo taldiak, eta euskeraz erakustia ere zaila izaten zan, porke bazeren batzuk Akademixatik etorritakuak erdeldunak zirenak, ezta? Baiña... Karo, oso... Bai, ba, Don Serafin hirurogeixan hasi bazan, ba, hala izango da. E? Nik esango neuke hirurogeita zazpi hirurogeita hamar inguru hortan nik uste dot ya forma hartu zebala, porke nere lehengusua, Mari Karmen Amasorrain, andereño hasi zan 71n edo, Arantzazu Narbaiza, Lupe... Osea... Bai, garai hortan.

- Bueno, Serafinena-ta hirurogeixan ez; hirurogeixan sortu zan Akademixiak, Jose Amilibiak eta Josu Oregik, ekarri zeben andereño bat Eskoriatzatik umiei euskeraz erakusteko.

- A, bale, bale.

- Orduan, babes legala zan Akademixan bittartez umiei klasiak, txikixei, euskeraz. Gero pasatzen ziran Akademixara.

- Bale, bai, bai. Haurtzaindegi bat bezela, gero Akademixara pasatzeko.

- Bai, haurreskola bai sortu zebela euskeraz.

- Bai, bai, bai. Bale, bale .

- Hori zan sortu zebena. Eta lehenengo andereñua gerra ostian hasi zana euskerazko klasiak emoten Bergan, hori, izan zan hor.

- Bai, Konbenixuan, Konbenixo kalian.
- Bai, Dominika Madinabeitia. Oin elkarrizketatu...
- A, Dominika, bai, Dominika asko ezagutzen dot. Bai, bai, bai, Arrasatekoa. Bai, bai. CIMeko... CIMeko... bai.
- Ba bera...
- Ba ez nekixen Dominka izan zanik e...
- Ba bera izan zan lehenengo... gerra osteko lehenengo andereñua edo. Eta astelehenian geratu naiz berakin.
- Aiba! Ba gorantziak emoiozu.

5. Politika

5.1. Zeintzuk bizi ziren baserrian gerra denboran

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/001
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:30
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Gerra denboran, etxean zenbat bizi ziren. Beste senide batzuk ere etorri zitzaizkien etxera, euren etxeetatik atera zituztelako.

Transkripzioa

- Zeintzuk bizi ziñaten sasoi hartan Idurixon?
 - Lau aizta eta bi anai aitta-amekin bizi giñan.
 - Eta gero kanpotik etorri zan jentia be bai, ezta?
 - Bueno, gerratian ba etorri zien Erguizarkuak (Egurbidezar, Ubera). Etera zittuen etxetik, eta ganauekin eta hemezertzi eguneko ume batekin etara zittuen etxetik, eta Udaixako Maritxu, neska bat be han zeuan, lehengusiñia zan, eta Udaixa erre ein zebeñ, eta Erguizarren zeuan, eta haura be harekin etorri zan. Eta gero Amatiñoko tia be etorri zan bost umekin, ia azken aldera haura, etxian kaiñonazua sartu zotsen eta, billurtu eta gurera etorri zien bost umekin tia, amandrian, amandria difuntian aiztia zan, eta gurian egon zien.

5.2. Lehenengo tiro-hotsak Deskargan; Nazionalak Bergaran; iheslariak

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/002
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:03:20
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gerra zibileko bizipenak: lehenengo tiro-hotsak Deskargan; Nazionalak Bergaran; iheslariak.

Transkripzioa

- Eta gero?
- Gero soldauak.
- Soldauena gero zertuko dogu, soldauak etorri zienian frentetik eta. Baiña aurretik lelengo aldiz soldauak etxe inguan noiz ikusi ziñuzten?
- Lelengo Deskargan tiruak entzun giñuzen eguna zapatua zan. Zapatua? Domekia. Zapatuan kalera (?) joan nintzan eta orduan sakristixara joaten giñan konfesatzera, eta hara etorri zien gurasuak aurrera juateko igesi, bazetozela nazionalak eta. Hurrengo egunian Deskargako tiruak entzuten zien, pakun!, pakun! Tiruak. Gero gu martitzenera arte kalera bajau be ez eta ezebe ez giñan eiñ, billurra eta, kalian hasi zien teillatutan-eta, balkoittan-eta izara zurixak etaratzen eta holakuak eitten, eta sartu zien ia nazionalok. Jente guztiak ihes ein zeban, guretik gora Elgeta aldera makiña bat jente joan zan.
- Karreteratik, kamiñotik baiño gehixago?
- Ba ezta kitt, orduan oiñez jente asko ibiltzen zan eta igual mendittik gehixao joango zan. Askok joan zan behintzet guretik gora, sasoiko jentia behintzet asko.
- Oiñez. Eta astuekin eta?
- Ez. Oiñezko jentia. Oiñezko jentia.
- Eta zer eruaten zeben aldian?
- Ahal zeben erropia eruango zeben, baiña gauza haundirik ezin eruan.

5.3. Lehenengo gerra-istiluak Bergaran

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/003
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:03:20. **Bukatu:** 00:04:50
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Nazionalak sartu zireneko kontuak. Lehenengo istiluak Bergaran.

Transkripzioa

- Eta ia sartu zienian nazionalok?
- Lelengo bi egunian geldi egon zittuan Bergan. Eta hirugarren egunian hasi zien mobitzen, eta lelengo enfretamentua Txarako zelaixan, hor goiko gaiñeko zelaixan, han Arrikotxo onduan, kolumna elektrikua dauan onduan, han zulo bat eindda gorrixak lau-bosten bat lagun, asko ez zien izengo baiña. Askatzutik gora ixo zeban konpañiak eta han estata batetik Kiruta onduan, Amilletxebarriko zelaixan onduan ba hasi zittuan tiroka, eta han zerian, goiko zelaixan zerenok be bai. Tiraka alkarri. Eta, nik ez neban ikusi, baiña anai difuntuak esaten zeban, bandera txiki batekin, han Lapatzako... Urkizuritta-edo esaten jakon, eta herrixan piñuixan azpittik, atzekaldetik bat joan jakuen eta bonba de manua bota tiroka zihardueno, eta bi edo hiru hil ei zittuen. Eta gero Asentzioraiño-edo segidu juen, baiña han geratu zittuan; gero ia zazpi hillabetian handik aurrera ez zittuan joan.

5.4. Lehenengo eraso serioa; piperrak harrapatzen soldaduak

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/004
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:04:50. **Bukatu:** 00:06:55
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Lehenengo eraso serioa; piperrak harrapatzen soldaduak.

Transkripzioa

- Eta lehenengo atake serixuak?
- Errosaixoko Domeka egunian izen zuan atakerik gogorrena; hildako mordua-ta. Amatrailladorekin-eta, trintxerekin-eta jarri zittuan harek, eta orduan ez jauan ixotzeik jente asko joan arren.
- Eta zuen etxe ingurutik pasua zela akordatzen jatzu?
- Ba kolumnia edo, kolumnia pasau zala esaten zebeñ, ez dakit lau konpaiña-edo zenbat izengo zien. Pasau ta pasau ta pasau jentia, akordatzen naiz ni.
- Danak oiñezkuak?
- Oiñezkuak eta kabaillo edo mulo banakan batzuk be eruango zittuen, ez dakit, ez naiz ondo akordatzen, baiña oiñezko asko behintzet bai. Eta gure soro bixen erdittik pasatzen da bidia, eta han bide baztarrian geunkan piparrak, edarrak zeren, eta landarak etara ta eruaten hasi zien. Eta anai difuntuak: bueno, piparrak hartzeko nahi bazebeñ, baiña landarak lagatzeko-edo esan zotsen, eta : "Tú también serás rojo, te daremos un tiro!" esan zotsen, eta trote barrura.
- Eta gero hola jatekua eskatzera-edo soldaduak, gora eta beheza zebitzen lehenengo egunetan?
- Ez. Jatekoik ez zebeñ eskatzen, goseik ez zebillen soldauak orduan. Ez dot uste. Bai, gero hamen frentian erdixan geratu zien etxetatik-eta, konejuak-eta, oilluak-eta horrek harrapau zittuen. Baiña guri ba ez zoskun hola lapurreta haundirik ein.

5.5. Uberako baserri batekoak etxean hartu; etorrera errukarria

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/005
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:06:55. **Bukatu:** 00:08:20
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Uberako baserri batekoak etxean hartu zituzten gerra denboran. Horren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Frentian erdikuak esan duzu Erguizarko zera ta...
- Bai, bai. Artiz berau be bai erdixan...
- Ez, baiña zuenian hartuta etxian?
- Bai. Erguizarkuak etorri zittuan; Partaittira jaso jittuen lelengo, eta ba handik norabait joan bihar, eta ganauak be bazeuzken, eta gabian ekarri

zittuen egundoko eurixekin. Ekarrri jittuen, eta klaro, irixak lotu eta ahal zittuenak burdixan hartu eta txalok-eta umioi-ta lepuan hartuta, busti-busti eindra uste dot aillegau ziela zerera, errukarri, Partaittira. Eta gero Alzarrikan tiuak jeuzken, eta harek etorri zittuan gurera aber hartuko giñuzen eta, ba halaxe hartu giñuzen.

- Eta danera zenbat ziñaten etxian?

- Bueno ba: anaiok eruan zittuen soldau, eta aitzok geratu giñan, lau aizta. Amatiñon egon zuan Bittori. Amatiñon ume txiki mordua, eta umezaiñ Bittori eruan juen. Eta Maria; egunero esniekin joaten zuan haura kalera. Eta neu eta Juli difuntia.

5.6. "Artilería de Montaña"ko soldaduak etxean

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/007
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:09:59. **Bukatu:** 00:13:39
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena:** "Artilería de Montaña"ko soldaduak etxean. Euskaldunen eta erdaldunen arteko ezinikusiak.

Transkripzioa

- Eta zela akordatzen jatzu horrek hiru egunok?

- Hiru egunok? Ba, zera, azkenengo kontraatakia emun zebeñian; bai, bai, azkenengo egunetan. Zeretik intentau zebeñ, Asentziotik, baiña ezin izan juen eta, klaro, orduan, gau haretan behintzet, hainbeste bonbardeo-ta hainbeste zer ein zebeñ, baiña ezin, eta gero ostetik sartu zittuan.

- Eta zer soldautsu zeren? Batzun batzuk euskaldunak zirela-edo?

- Ez, ez, ez. Beste zer bat jeuan, "Artilería de Montaña", Txikasoko txabolian onduan han jauzken lau kaiñoi "Artilería de Montañakuak", harek etortzen zittuan gurera lo eittera; harek egon zittuan denpora askuan, harek bestiak baiño denpora gehixuan, ze harek lehenao etorri zittuan Txikasora kaiñoiekin. Euri asko eitten zeban urte haretan, eta etortzen zittuan gurian sapaixan lo eittera, esnia eratera eta sapaixan lo eittera.

- Zenbat?

- Bueno! Hemezazpi-hemezortzi ta, eta gehixao-ta etorritako egunak be bai.

- Sapaixan egitten zebeñ lo?

- Bai. Sapaixan eitten zebeñ lo.

- Naparrak zien batzun batzuk?

- Bai, Leizakuak eta, Hernanikua eta Atxabaletakua be bai. Eta euskaldunak be bastante; eta kastillanuk be banakia etortzen zan, baiña gurian zela gure aitta-zanak euskeraz eitten zeban, ba euskaldunokin eukitzen zittuan konbersaziñuak-eta, ño! Hasarretu eitten zittuan kastillanuok. Akordatzen nok baten, hola pasillo bat jeuan gure zerian sukaldian ate parian ba, zaltaira arte, askaurria edo zera, pasillo bat. Jaiki ta han pasiatzen; atetik begiratu eta: "Ya se ha cocido la leche?"

- Hori zein zan, alfereza?

- Ez, ez, ez. Hori zuan "Artilería de Montañakua", apartekua.

- Zer zan, kapitanen bat?

- Ez, ez. Rasua. Eta napar batek: "Ez dek ikusten pertza?". Galdaria egosten zerian, gelatzian txintxilizka, eta "Ez dek ikusten pertza?", eta lehen baiño hasarriao; gehixao ez zittuan etorri be ein gurera, Amatiñora joaten zittuan erdaldunok.

5.7. Logroñoko alferez ipurterrea

- **Hizlaria(k)**: Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: BER-032/008
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:13:39. **Bukatu**: 00:15:01
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena**: Inguruetan ibili zirenen artean, ipurterreena Logroñoko alfereza izan omen zen. Haren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Eta zein zan ezpain errebittauena?
- Hori alfereza, alfereza, Logroñokua zuan. Eta Amatiñoko tiak, hori esan zebanian, "Estos vascos que ni ellos se entienden", neri hola ekulonduakin jo ta: "Kuriosua don ba beroi errebittautako ezpanokin".
- Hori alferezak esan zeban?
- Alferezak, bai, alfereza zuan, Logroñoko txiki bat.
- "Artillería de Montañakua"?
- Ez, harek esan jua "ya se ha cocido la leche". Baiña bistan jaukan, eta bestiak esan jotsan: "Ez dek ikusten hor pertza?".
- A, hori zan beste bat.
- Bai.
- Eta lo nun eitten zeben alferezak eta?
- Kuartuan ipiñi bihar izan gontsan ohia. Bai. Nik ez jakixat zela arreglatzen giñan.
- Eta zeuek nun eitten ziñuen lo?
- Ba, beste bi kuarto be bajezia eta, bi ero hiru, eta zelabaitt arreglatzen giñuztan.
- Koltxoia lurrera botata-edo?
- Ba ahal zan moduan.

5.8. Umeen jolas arriskutsuak

- **Hizlaria(k)**: Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: BER-032/009
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:15:01. **Bukatu**: 00:16:06
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: 12-13 urte zituen gerra denboran. Sarritan arrisku handiak pasatzen zituzten.

Transkripzioa

- Zuek zer jolas egitten ziñuen? Artian gaztiak izango ziñaten.
- Bai, hamabi-hamahiru urte. Bueno ba, jaixan-eta alkarrekin zertzen giñan, juntatzen giñan auzoko gaztiok. Sarrittan gurera be etortzen zien. Eta behin akordatzen naiz, alemanak etorri zittuan Bergara, eta frentia ikusten etziñ lurrian-eta, katalejuekin han Intxortxua-ero esaten jakon lekuan, eta gu gazte-kuadrilliak arrautza-lokak billau giñuzen han apixa bat, eta mutiko batzuk plisti-plasta! erak zeren inguruan-eta, eta klaro, arrautza-lokiak tiro haundixa etaratzen jok; jaiki eta atzera begiratu be egin barik aintxintxiketan ekin zotsen eta. Gero akordau zien umiak giñana baiña...

5.9. Atake egunetako hildakoak

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/010
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:16:06. **Bukatu:** 00:16:56
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Frontera bisitara etorritako jendea. Atake egunetako hildakoak.

Transkripzioa

- Bisittara frontera etorritako jenteik, nobixak-edo, amak-edo?
- Bai. Gu kalera ez giñustan asko joaten.
- Hori kalian izango zan, gora ez zebeñ igoko.
- Bai. Akordatzen naiz behin trenian etorritta emakume enbarazada bat-eta, zela nobixuan billa-ta, holako kontuak.
- Eta atakiak egon zienian, hildakuak eta heriduak?
- Anguzar aldetik-edo bajau zittuen, guretik ez zittuen bajau.
- Hor Aldai aldetik edo?
- Bai. Ixo bai, baiña bajau ez. Ez naiz akordatzen.

5.10. Fronte batetik bestera pasatutakoen istorioak

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/011
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:16:56. **Bukatu:** 00:18:26
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Fronte batetik bestera pasatutakoen istorioak.

Transkripzioa

- Gora pasautako historixaik? Edo goikuak behera, edo gabaz?
- Bai. Hondartzan kriauegondako Elgetako Urbedeinkatuko, Urbedeinkatu basarrixa zuan, Paulo-edo Hondartzan kriauegon zuan, eta Madrilgo frentetik Elgeta hartuta zeualakuan etorri zuan. Eta Hondartzan jente asko jeuan orduan be, eta sapaixan lo eitteko-edo zertu juen, eta gabaz pasau

ein zuan.

- Ez zekixen berak?

- Bai, hona etorri zanian enterau zuan Elgeta hartzeke zeuana, baiña Hondartzara joan zuan eta gabaz pasau ein zuan.

- Bera zer zeuan, gorrittan ala?

- Ez, nazionaletan; soldau tokau zuan, itxuria, gerria hasi zanian-eta. Madrilgo frentian ba Elgeta eta danak hartuta zerelakuan. Hondartzan lo eitteko geratu eta gabian pasau ein zuan; baiña gero nazionalak hartu eta afusilau ein zebela esaten juen.

- A bai?

- Bai. Gurian be egon zittuan "Artillería de Montañan" bi mutill, bata Getxokua eta bestia Mungiakua, bixkaitarrak, gogo galantakin Bixkaira joateko. Eta egun baten harrapau ein zittuela pasatzen hasitta-edo, esaten juen. Baiña ez juen ezen zerik izen.

- Gogo galantakin. Zuek igarri eitten zontsen?

- Honbree!

- Esan be bai?

- Bai. Esan be... Erdi esan bai behintzet. Klaro, Burgosen-edo soldau tokau zittuan eta gero hementxe egon bihar zazpi hillabetian-eta. Luze.

- Eta gaiñera beste ideia batekuak izango zien seguramente.

- Baitta.

- Eta laguntasunik eskatu pasatzeko, edo bidiak erakusteko?

- Ez, geuri ez naiz akordatzen. Holakuak be izengo zian, baiña ez.

- Esan dozu harrapau ein ete zittuen pasau nahixan?

- Bai. Intentau zebela behin eta gaixki urten zotsela esaten zeben.

5.11. Baserritarrak behartuta soldaduak laguntzera

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/012
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:18:26. **Bukatu:** 00:19:51
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- **Laburpena:** Gaezko patruilak. Baserritarrak behartuta soldaduak laguntzera.

Transkripzioa

- Eta gabazko patrullak-eta? Aittajaunari entzunda daukat.

- Bai. Amatiñon jeuan "Fortaleza Volante" eta esaten zotsen holako kapitan..., Sarjento Baldú zan hemengo terroria, hemengo inguruetakoa oilluok eta konejuok harrapatzen jittuan baiña. Eta gabian Narbaiz-boluan, gure aitta-zana be Narbaiz-boluan jeuan, eta Aixkarko Manuel be bai, eta gabian joan eta hartu erekin eta frentia ikustera; osea, Agarregoiko ondoraiño aillegau ei zittuan. Amatrailladorea erei eruan eraiñ, je, je, je, eta hartu aurrian eta haraiñotxe. Eta han, itxuria, milizianuok potiak-eta behera botata eukitzen ei jittuen, eta zaratak etaratzen hasi zienian, buelta. Eta gure aitta-zana akordau zanian datozela, teillatura, Narbaiz-boluan teillatura ixo ei juan eta salbau ei zuan.

5.12. Artizera milizianoak etxeko nagusiaren bila

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:19:51. **Bukatu:** 00:22:11
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Behin milizianoak etorri zitzaizkien etxera aitaren bila, dirua "estampilatzen" zuela eta.

Transkripzioa

- Hemen bertako (Artizko) historixak be kontatzen zittuen. Milizianoak etorri billa eta atzeko zeretik ihes eñ...
- Bai. Miliziano kuadrilla bat etorri eta gertatzeko. Zera, dirua estampilau ein bihar izeten zan orduan, nazionalen aldiaren zertzia nahi bazan, dirua estampilau. Eta hortan izen ei zan gure aitta Bergan. Eta jenerua be ba Bergatik ekarri bihar-eta. Eta etorri ei zien ezta kitta dozena bat, ero hemezortzi ero. Eta gertatzeko. A, dirua, estampilautako dirua aber nun daben. Eta erakutsi ei zotsen, baiña zati bat baldo bittartera bota ei jua zerian, ataixan. Eta gertatzeko. Eta halaxe gertatzera jua zanian ba amakin soldauok sukaldian, eta goittik behera bajau zanian, hor eskillara barrenian bentania bajean gurian, eta amai esan ei zotsan: "Nik ihes ein bihot". "Baiña zer, gero gu zela geratzen ga ba?". "Ba ni eruaten banabe, ez nazu gehixao ikusiko" "Ba joan zaitte orduan!". Eta salto ein bentanatik eta ezkutau ei zuan zerian, eta soldauak etxoin eta etxoin. "Nun da ba haura?, nun da ba haura?" Eta akordau zienerako ia joanda. Eta gero ba soldauak be joan ein bihar. Baiña...
- Orduan eruan zebe Tio Manuel?
- Bai, bai. Tio Manuel Orduantxe eruan juen, bai. Eta Arantzetan, Arantzetan. Eta deklaraziñuak hartzen, eta anaiak nun dien, eta ordurako anaiak behera pasauta.

5.13. Idurio baserriko afariak

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:22:11. **Bukatu:** 00:23:11
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Idurio baserriko afariak; soldaduekin batera jatzen zuten. Alferezaren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Idurixoko afari-denporak eta zela akordatzen dittuzu? Zela eitten ziñuen, soldauak eta zuek danak batera han?
- Nik ez jakixat. Soldau hori, alferez hori behintzet, beti piparrak, riojanua zuan, betik piparra eta arrautzia gustatzen jakuan. Mariak, akordatzen nok, hola krak!, eta esku batekin apurtzen jittuan arrautzak, eta, jesus!, zela apurtu leikien hola arrautzia!

- Eta zer zan, jenixo txarrekoa?
- Azken aldera bai behintzet, azken aldera ia zertuta jeuan, pipartuta jeuan zihero.
- Hainbeste pipar janda. Ezpanak zer zeuzkan?
- Ezpan haundixak, holaxe, moruen antzera jeukan.

5.14. Errefuxiatuak Enseñanzako eskolan

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/015
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:23:11. **Bukatu:** 00:25:06
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Milizianoen eta karlisten instrukzioak gerra aurretik. Errefuxiatuak Enseñanzako eskolan.

Transkripzioa

- Bestela akordatzen za pasautako istorixaik? Soldauen artian, soldauak eta basarritarrak, soldauak eta neskak...
- Bueno ba. Gerria urten zebanian akordatzen nok ni zera, boluntariuak izango zittuan, instruziñuak ikesten Idurixo aldian, "Un, dos, tres, cuatro! Cuerpo a tierra!", holaxe, illaria jarri lurrian etzindda-ta. Instruziñuak ikesten, akordatzen nok.
- Milizianuak?
- Bai. Eta refugiauak Bergara etorri zittuan mordua. Enseñanzan egon zittuan, Trintxerpekuak-eta ziela-eta. Akordatzen nok, gure lagunak han jebitzian eskolan-eta, monjak-eta billurrez, paisana jantzitta eta holakuak. Oso relijiosuak ez zittuan izengo, itxuria.
- Hori nazionalak etorri baiño lehentxuago?
- Aurretik. Donostia aldetik honutz refugiauak etortzen hasi zienian.
- Gerra aurretik be akordatzen nok karlista mordo bat, mutil sasoikuak, guretik gora zela juaten zien han Aibarko txabolako sakonera, pistolak probatzera. Tip eta tap ibiltzen zittuan.
- Asko lehenago gerria baiño?
- Ba. Asko lehenao ez, baiña bai.
- Harek be zeoze...
- Bai. Gero detenidu ein jittuen danak. Itxuria [...] sasoiko kuadrillia zuan eta.

5.15. Eraso-egunetan ezkutatuta; kanoikadak sororaino

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/016
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:25:06. **Bukatu:** 00:26:01
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

- **Laburpena:** Eraso-egunetan ezkutatuta; kanoikadak soroan sartzen ziren.

Transkripzioa

- Eta atake egunetan eta, zela ikusten ziñuen, ezkutauta egoten ziñaten etxian?
- Bueno, ba sarritan billurrez ezkutauta be bai.
- Dinbirri-danbarra haundixa entzuten zan?
- Bai, abioiak eta.
- Kaiñonazuak eta?
- Bai, gure souan-eta sartu jittuen kaiñonazuak be. Etxe ingurura bertara ez jakuan tokau.
- Bistan zeuan frentetik? Garbe aldetik-eta bistan egongo zan.
- Bai, Garbe aldetik-eta bistan, hoixe.
- Eta Elgetatik?
- Ez. Elgeta aldia ikusteko harutzao joan bihar izeten zuan, zerera, Kalbaixo aldera-edo hara.
- Orduan obserbatorixua be han?
- Bai. Elgeta alderakua bai.

5.16. Alemanak Bergaran

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/019
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:30:31. **Bukatu:** 00:31:56
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Alemanak Bergarara etorri zireneko kontuak.

Transkripzioa

- Alemanak zer dala eta agertu zien?
- Ba nik uste dot gerrarako preparatzeko entrenatzera etorri ziela harek. Telekomunikaziño eta hontaiko zerekin uste dot jokatu zebela harek gehixao; frentian-eta hamen ez zien ibilli.
- Zuen etxian ez zien erretirauko?
- Ez, ez. Ez zien. Gero alemanak Frantzian gerria egon zanian etorri zittuan mordua handik ihesi.
- Gerra ostian?
- Bai, Frantziako gerrian zerian, aleman mordua Altos Hornosen be ibilli zuan. Bai.
- Eta urte askuan?
- Ez dakit zenbat denporan, baiña.
- Harek Frantzian gerria galdu zebeñian...
- Bai, honutz pasau eta hor lanian-eta ibili zittuan.
- Hortaiko jente asko ez zan geldittu, ezta?
- Ez, gero gehixenak joan zien. Nik uste dot baten bat ezkondu be ein zala alemanen batekin, baiña. Kalekua; ez jakixat.

5.17. Ihes egin nahi zuten bizkaitarren kontakizuna

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/021
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:32:31. **Bukatu:** 00:33:31
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Ihes egin nahi zuten bizkaitarren inguruko kontakizuna.

Transkripzioa

- Beste ihes egin nahi zeuben bizkaitarrok zela akordatzen ditzuzu?
- Bat zuan hola haundi..., hola puxkat kaxkajo samarra ero zera, baiña bestia oso..., Mungiakua zuan; abade-estudiante egondakua eta oso mutil zera. Gero ama bisittatzen egon zuan gero be, gerria akabauta gero be.
- Orduan bizirik urten zeban?
- Bai. Eta, klaro, harek Gabonetan be ba permisua emuten jotsen, batzuei Gabonetan eta bestiei Gabon Berrittan etxera joateko. Harek Gabonak gurekin pasau jittuen, "Hauxe da gure ama" esanda. "Guriak be izango dittuk nunbaitten" gure amak eta.
- Dominika zan, ezta?
- Dominika, bai.

5.18. Gerran desagertutako Migel anaiaren istorioa

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/022
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:33:31. **Bukatu:** 00:36:36
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Gerran desagertu zen Migel anaiaren istorioa.

Transkripzioa

- Eta zer moduz konpontzen zan bera soldauekin? Zer moduz eruan zeban?
- Bueno, hainbestian, hainbestian. Gero etorri zuan anaian desaparezitza; hauraxe gogorra izan zuan.
- Asturiasen edo?
- Ez, Asturiastik buelta dana ein eta. Hiru bidar-edo heriduta egonda jeuan. Baten kartutxeran sartu jakuan balia, beste baten hankak erre jittuan hor Teruelen, hotz haundi harekin, bota-ta guzti. Hankak erre. Etxian be egon zuan eta. Hiru bidar egon zala eta frentera jua biharrik ez zebala izengo, esan jotsen. Bitorixan jeuan, Santiago egunian Maria izan zuan bisittatzen, eta satisfetxo mutilla, koronelan asistente-edo, eta gehixao ez zeukala frentera joan biharrik esan zotsela eta. Eta Ebruan emon juen hor kontraatake haundixa gorrixak, eta hartu eta Ebrora eruan zeuben. Eta lagunak alkarrri seiñak emunda zeuken, ba zeoze pasatzen bajakon bestiak abixatzeko, eta holaxe kartia etorri jakun ba Migel Arregiren lagunak ziela eta haura joan zan lekuan iñor bizirik ezin zeikiela geratu. Muluakin sakon

batetik zoiala eta haura joan zan lekuan ba, eta gero gorrixak abanzau ein zebela eta ezin izen zebela recuperau gorputzik, baiña haura han hilgo zala. Eta haren zerakin, kartekin ba... A, gero ba zera, zertifikaua eskatu giñuan Aiuntamentuan aber ba zera; edo ez dakit aurretik eskatu bagiñuan be: "que Miguel Arregui está luchando en el frente del Ebro, en el Batallón C de las Navas" Afrikakua, eta zertifikau hoi etorri jakun. Eta, klaro, hil ta geroko zertifikaua zan haura, eta gero ez zebe nahi izen rekonozitzeik, eta ez zan sekula ofizial hil haura. Osea, sei pezeta ero etxakixat zenbat izeten zan, hiru ero, hilddakuen gurasuak kobratzen zebena, eta gure ama ez zuan sekula aillegau. Makiña bat zertifikau bialdu jua aiuntamentutik zerera, Afrikara, baiña kobratzen jotsen zera, seillua-ta ez dakit zer eta badakit zer, sekula kontestaziñoik ez zuan etorri.

5.19. Jatorduak; baserriko lanak gerra denboran

- **Hizlaria(k):** Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Erref:** BER-032/023
- **Iraupena:** 0:03:24. **Hasi:** 00:36:36. **Bukatu:** 00:40:00
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Jatorduak. Baserriko lanak gerra denboran.

Transkripzioa

- Eta danok jatordu bat eitten ziñuen?
- Ez. Aparte eitten juen.
- Mariak preparauta? Mariak preparatzen zeban?
- Bai, sarrittan bai.
- Eta amak be ingo zeban, ezta?
- Bai, bai. Amak eta tiak eta danon artian. Joxepa Erguizarkua eta. Andra mordua genden.
- Eta aittak, Martiñek zer eitten zeban hago zarramarra hare artian?
- Ba harek erderaz berbaik ez behintzet, ez jakixan eta. Ganauak gobernau eta badakik, baserriko lana, asko egoten zuan orduan. Eta idixak jezian galantak Erguizarkuak, eta luarri sailla goldatu, nik ittulan eindda-ta.
- Sailla izango zan, frente aldera zeuana ez behintzat.
- Ez, ez. Han zelaiko hegittan.
- Zelaixa?
- Bai. Oin zelai dienak, baiña orduan baso zienak.
- Galantak.
- Sail haundixak. Orduan eta gero-ta. Baso zienak ba zelai ipiñi zien.
- Orduan nahikua trauma eukiko zeban linguajakin, ezta?
- Bai, bai. Sei urtekin aitta hil eta etxia erre ein jakuan. Komuniua ein zebanian, amai esan ei jotsen: noranahirako daukazu semia-ta.
- Idurixo erre zan?
- Bai.

5.20. Politika arloko bertso zaharrak

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/040
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:23:20. **Bukatu:** 00:26:42
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** Politika arloko bertso zaharrak: abertzaletasuna; alderdi politikoak.

Transkripzioa

Azaroaren hogeta hamarra
Gasteiztik izentatua,
borondatia erakusteko
txik egun aukeratua.
Euskaldunok pin lahiatutzeko
hain gauza beharrezkua
zein alderdiri edo nolatan
eskeiñi geure botua.
Itsu-mitsuan jokatu gabe
atera zaigun kontua. (bis)

Eusko Alderdi Jeltzale hori
gogor ahalegindu zaigu
premiñan giñan nekazarieri
lagun asko egin digu.
Arrantzale ta gaiñontzekoari
berberak entzuten [digu]
diputado sendo batzuen
beharrak ere badaukaguz.
Arrazoizkoak baldin bagera
atera behar ditugu. (bis)

Ama bat izenagatik
asko dira bera ukatzen dutenak
behin ta betiko lurperatzea
poza hartuko lutekenak.
Etxia galdu ta erbesteakin
ondo konpontzen diranak.
Boto garaian esanagatik
hoiek dirala onenak,
horrelakoei ezin lagundu
euskaldun jatorra danak.

Arana Goiri bide garbia
ez dago arantz lakarrik
ta politiko askoren gisan
lohitan ibili beharrik.
Hainbat denboran buru izan da
egin dau lan ederrik,
ez zaiguzute aitatu orain

eskubi eta ezkerrik.
Lagun txarrakin batuta baiño
hobe da bakar-bakarrik.

Gu txikittu ta hondatu nahirik
ziran lehen bat eta beste
hor hurrunean hitz egindako
haietzat oroi zaitez.
Euskaldunogatik asmatuak
hala esanak dituzte,
boto garaian atea juaz
datoz laguntzaren eske,
hain maite duten Ebro
harunzko partera jua litazke.

Aberzale edo nazionalistak
dute behar dan jokera,
baserritarrak izenagatik
ondo konturatu gera.
Guk egin behar deguna orain
diputaduak atera
guazen, anaiak, danok, botuak
gizon hoiei ematera.

Nagusi, morroi, aberas, pobre,
danok familian ditu,
zintzo jokatu ohi dana beti
laguntzailleak baditu,
etsai guztiak zapaldu arte
ez gaitzela gelditu.

5.21. Gudariak hizpide dituzten bertso zaharrak

- **Hizlaria(k)**: Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-036/041
- **Iraupena**: 0:01:02. **Hasi**: 00:26:42. **Bukatu**: 00:27:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bertsoak
- **Laburpena**: Gudariak hizpide dituzten bertso zaharrak.

Transkripzioa

Hiru anaiok gudari giñan,
bat hil digu reketiak
modu honetan agintzen zuan
jaunaren borondatiak.
Pena ematen dit etxera juanda
hau amari esatiak.
Arrazoiakin negar galantak
egingo ditu maitiak.

Gudari hasi [gen] ta gudari
segituko dio honezkero
horrelakorik ikusterikan
ez genduen asko espero.
Irabazita daukula diote
hizketan hasi ezkerro.
Irabazia zertarako da
anaia galdu ta gero?

5.22. Gerra etorri zenean

- **Hizlaria(k):** Urzelai Gantxegi, Lucio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-187/008
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:20:10. **Bukatu:** 00:23:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena:** Soldadutza Nafarroako Piriniotan egin zuen. Gerra denboran Osintxun zegoen. Aita auzo-alkate zegoen, nazionalistekin. Aita espetxeratu eta ama bakarrik geratu zen etxeko dendan.

Transkripzioa

- Soldautza nun egin zenduan?
- Nik Nafarruan, frontieran. Pirineos. Hantxe ein neban ta...
- Ta zenbat denporan ein zenduan?
- Hiru bat urte edo.
- Hiru bat urte?
- Bai hiru urte, ixa hiru urte.
- Luze, ez?
- Bai, bueno... ba! ondo egon giñan soldau.
- Bai?
- Bee. Hau kendu leike ala?
- Ez, ez bajatzu inporta, holan hobeto entzungo da. Eta gerra sasoa zuri nun tokau jatzun?
- Gerria?
- Gerria etorri zanian, zu nun zeren?
- Osintxun. [...] hortxe lehen esan doten [...] basarrixan. Ta ni [basarrixan] neuala ta "Aiba dios!" reketiak ostutzera etortzen zian haraxe basarrira. Oilluak harrapau ta eruan eitten zittuen. Bai. Bueno! [...]. Ta gero tiruak eta... ez dakit ze pasau zan. Ta gero ya zerian ta [afusillau ein zittuela]. Gure tio bat... gure tio bat, Kostolakua, Tomas, ta haren anaia be bai, Ixaak. Ta gero beste bi... beste hiru gizon, hiru edo lau, ta holako... [...] jeonan beste aldian, ta afusilatzeru eruan, salto in kanalea ta kanalian paretan kontra ezkutau... hamendik salto [ittia holan zera] dana ezkutau, hor ezkutatzia bezela, ta hamendik bota otsezen tiruak, baiña ez eben harrapau. Zelan ezkutau zan horren kontran, ba, [...] ta handik bestekaldian bere [etxia ta etxera allegau...]. Ta holaxe salbau zan. Ta gero handik Elgetara; lagundu zittuzten ta Elgetara pasau zan [hare].
- Orduan, gerria etorri aurretik eta, zeeze entzuten zenuen, ba, gerria zetorrela edo gerriak urten zebala edo?

- Bai, gerrian zaratia edo... ointxe dabizen moduan.
 - Entzuten zenduen orduan, imaginatzen zenduen?
 - Karo
 - Eta, ez dakit, etxian zer entzuten zenduen?
 - E?
 - Etxian ze esaten zebeu? Gerria...
 - Etxian [...]. Gurian nazionalistak zian, nazionalista... alkate [...] aitta. Alkate egon zan. Bai, zuk nazionalistia zer dan jakingo dozu ba. "De política, ¿ya sabes?"
 - Bai, bai, bai.
 - "Era nacionalista" ta [...] amorrua zeuan. Ointxe daon moduan. Ta gero kartzelara eruan zebeu aitta ta gure ama etxian dendiakin ta gu mutiko bixok etxian ta ni eskolan ta nere anaia be bai. Baiña [hori eskolan zerian, Osintxun] edo. Holaxe.
 - Eta, orduan, aitta alkate egon zan...
 - Alkate egon zan.
 - ... Osintxun. Eta...
 - Kartzelara eruan zaben ta gero handik librau zaben eta... tira. Gero librau... bai, librau zaben ta zera.
 - Kartzelara eruan zebeu ya gerria urtenda zeuanian?
 - E?
 - Gerria urtenda zeuanian kartzelara eruan?
 - Gerra denporan, orduantxe kartzelara eruan zebeu. Gero Eibarrera lanera jun zan aitta. Han Lekeittion-ta taillarra ipini jonan; han hasi zonan sozio. Ta gero ni hara. Plazentziatik ni [berriz be] lanera hasi nitzan ta handik hara jun nitzan, Eibarrera, Eibarko taillarrera, aittaana. Eta gero handik soldau.

5.23. Gerra garaian milizianoak baserrietan

- **Hizlaria(k)**: Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-193/008
- **Iraupena**: 0:01:46. **Hasi**: 00:11:06. **Bukatu**: 00:12:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerra garaian milizianoak inguruko baserrietan egon ziren.

Transkripzioa

- Hemen, gerra sasoiari, frentia inguruan egon zan.
 - Bai.
 - Inguruan ikusi zenduen zeuek...
 - Bai, milizianoak. Hortxe, atzerao dao Olakorta, basarri bat, ta han be bai. Ta hor goixan, basarri biren erdittik behera etorriko ziñan? Azurtza. Han be bai milizianoak egon zian. Ta hor Gaztandolan be bai.
 - Bertan basarrixan?
 - Bai.
 - Ta Olakortako basarrikuak be kenduta egon zian, hementxe egon zian Olakortako basarrikuak.
 - Oseake, basarrixa hustu...
 - Basarrixa hustu ta kuartel moduan milizianoak euki eben haura. Ta gero han handiko mendixan egon zian beste aldia, reketietakuak. Sasi-baltzen,

bai.

- Eta, orduan, entzuten zenduezen, ba, ez dakit, [amenazuak] eta tiruak eta...

- Bai, bai, entzungo ez genduzen, ba! Bergaran jaurtittako kañonazuan zaratia hemendik Eibar aldera pasatzen zan. Zaratia klaru entzuten zan kañonazuana.

- Umetan horrek inpresiñua ein bihar dau, ez?

- Ez, umetan ez da bildurrik eukitzen. Inpresiñorik ez, ez.

- Edo ya ohittu ein ziñazien edo...

- Hoixe, ba! Milizianuak euazela, horra gora be fan giñan gu, aitta ta bixok, garo ebatera. Ta goiz guztia jardun genduan garo-ebaten. Ta eguardixan aitta zanak esan eban: "Bueno, etxerako sasoa juau ta hau garuau pillau ein bihar juau". Hasi giñan garua batzen ta tiroka ekin otsen handikaldetik, ta piñadixa euan albuana, sartu han piñadira ta fuera, etxera.

- Ba, peligrasua izango zan orduan mendittik ibiltzia, ez?

- Bai, ba. Aittari akordau jakon etxera fan bihar genduala garua [garua...] hasi ta tiroka ekin otsenian. Baiña guk zer zanik be ez. Ez genduan guk bildurrik eukitzen. Ez giñuezen jo behin be ta...

5.24. Erljioa errepublika garaian

- **Hizlaria(k):** Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-216/014
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:27:08. **Bukatu:** 00:29:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Erljioa errepublika garaian.

Transkripzioa

-Anekdot bat: ni mutikua ta elizara kapillara, eta neu jarri han eta, nik enekixen erderaz errezatzen eta, "honek hemengo jangoiko honek ba ete daki euskeraz, entenditzen ete dau euskeraz?" Nik euskeraz bakarrik errezatzen. Hori akordatzen jata.

-Zure kezkoa...

-Bai, kezkoa neretako. Nik erderaz ezin errezau, enekixen eta. Profesoriak be ez zekixen iñok erderaz (euskeraz esan nahi du) Eta pentsatzen neban hango jangoikuak aber ba ete zekixen euskeraz (...) Neure dudedekin, kezkatuta zihero.

-Eta esaten dozu sotana moduko bat eruaten zebela, baltza edo.

-Trajia, korbata eta traje beltza, alkondara zurixa eta. Marianistas.

5.25. Ardoa sendagai. Balaz zauritua

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Albisua, Asentzio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gabilondo Millet, Joxe Mari
- **Erref:** BER-226/004
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:12:04. **Bukatu:** 00:13:22
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider

- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Elurretan gaizki pasa eta gero, berba ezin egin egon ziren, eta ardoa edaten zuten sendatzeko. Behin, bala bat sartu zitzaion hankan Jacan; gaur egun, oraindik marka dauka, zaina ebaki zuen, eta hanka ezin mugituta egon zen bederatzi bat hilabetez.

Transkripzioa

- Ardoa, ardo ona, ta hauraxe, eztarrixa gogortuta hillebetian ez da barriketia e?
- Ta ardua eraten ziñuan hori sendatzeko?
- Berba eitten e ahua ebalten najuan, baiña ez zan entzuten ezebe. Ba, gero halakon baten, pasau oskun, beratzi hillebetian etxera etorteke egon nitzuan. Beste baten balia sartu jatan hamen. Oinddio markia hamen jaukat ezagun.
- Hankan? Nola ba?
- Hamentxe. Holaxe. Errebotian jo paretia, ta hamen sartu. Ta zana ebagi, ta hankia holaxe, beratzi hillebete inguruan egon niñuan hau hola ein ezin, e? "No podía. No." A! holaxe!
- Zuzen? Ezin ziñuan okertu ala?
- Zana ebagitta. Horrek ez dia gizurrak e? Horrek pasautakuak dare.
- Hori nun Jakan edo gerran, edo nun zan hori?
- Jakan zuan hori.

5.26. Gerrako kontuak

- **Hizlaria(k):** Belar Olabarria, Ixabel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** BER-265/009
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:11:18. **Bukatu:** 00:16:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena:** Zazpi hilabete egin zituzten etxetik kanpo, beldurrez. Borrokan asko hil ziren. Baserriko ikuiluan zaurituak jarri zituzten, eta hildakoak kanpoan. Etxetik gertu zegoen milizianoen postua. Han inguruan lurperatuta daude asko. Etxean koltxoiak jartzen zituzten leihoetan, balak ez sartzeko. Iritsi zirenean, fusilekin sartu ziren. Senitarteko batzuen etxera joan ziren. Ardi eta behor gabe utzi zituzten.

Transkripzioa

- Ta ze, ze giro topau zeбен, etxera bueltau ziñanian?
- Etxien? Ba, artietan honaiño alleatzeke zeren. Artietan ez zeuen hemen, honaiño ez zeuen artietan ezer. Baiña gero, etorri zienien, billurgarrixe izen zan. Eon giñen, ba zazpi hillebete tardauan gu. Zazpi hillebetien eon giñen, hemendiko tontorrien -hemendik be ikusten dia horrek-, tontorrien, erezen Franconak. Ta handik oso hurrien, etzien, milizianuek. Enda... billurgarrixe. Ta gero, setienbrien oin ez dakit ze egun zan, atake haundi bat eon zan. Setienbrie, ez dakit zenbata zan. Enda, hillddakuek, baiña zer zan ha!
- Bertakuak be bai? Angiozarguak be bai?
- Ez, Angiozarkoik ez, baiña...
- Euren artekuak?
- Eren artekuek, alde bittakuek, ezta? Ta esaten eben, ze esaten da hori,

baionetiakin-ta behintzet. Eta... Ba, etxera... etxiek harek, oingo basarrixek dauka, barruen, ez dakit, pasillo haundi bat, ganauek eta... jaten emoteko zerak, askak-edo esaten jate. Enda ha eon zan heriduz beteta dana.

-Zeuen etxia?

-Bai. Ta ate aurrian hillddakuak.

-Joño!

-Muluen kargatzen zittuen, egurra kargatzen dan moduen, aparajuekin. Ganauen jatekua ekartzeko-ta eukitzen dabe aparajuek astuek be, ta halakotan kargatzen zittuen hillddakuek, anporrak balitzen moduan.

-Ta gero eruan?

-E? Hillddakuek, bai.

-Ta gero nora eruan?

-Ez dakit. Mulotan kargatzen zittuen, e. Gero ez dakit nora erun biheko / biko/ zittuen.

-Eta, horrek, orden, mendixen alde hontatik baeozen, horrek Franconak izango zien, ezta?

-Franconak. Eta bestien... bixenak izengo zien. Handikaldekuekin... Gure etxien, bertan, oso hurrien euen milizianuena. Ta hara aillegau zienien, harak... Ze esaten jaten? Ze esaten jaten horrei zuluoi orduen?

-Trintxerak?

-E?

-Txintxerak?

-Bai. Hara aillegau zienien, esaten eben baionetekin "Cuerpo..." ze esaten da?

-"Cuerpo a cuerpo", "cuerpo a cuerpo"?

-Baionetekin. Ta han inguruen, gero ta gero be -neuk ez nittuen ikusi, baiña-

hillddakuen hazurrek agertzen ziela. Hori, jaso ez zittuenak. Ta oin be esaten dabe han inguruan enterrauta darezela asko. Han, inguru... puntuko Intxortan be bai.

-Bai, bai, bai. Alde, baztar guztietan.

-Bai, bai, eta... ba, heriduek...

-Eta hori zer zan? Goguen daukotzu ze urte zan? Hamaseixe zan, edo...?

-Ez, ez, hamaseixen oinddio urrin erezen. Hori ezin neike oin esan ze urte zan. Setienbrien ez dakit zenbata zan horko atakie eon zana. Ta... ezin neike, oin ez naiz akordatzen ze egun zan, ze...

-Ze urte. Eguna ez, urtia. Ze urte?

-Edo, ze urte zan be ez naiz akordatzen oin, ez naiz...

-Eta gero, hori pasau ta gero, gerria akabau in zan laister edo...?

-Ez, oinddion gero, ba, handik fan giñnen, bialdu gindduzen... hara, harutzau oinddio, ezta? Ta ba... han eon giñnen beste denporale baten. Ta hor etxien eon giñnenien, eukitzen giñuzen koltxoiek bentanan ifinitta, balak katiatzeko, baiña, hala ta guzti be, pasau itten zien. Ta egoten giñen lurrien etzindda, tirua zani. Ta gero, hara alleau zienien, genden familixa dana, etxien baztarreko kuarto baten, erresaixua erresatzen. Enda, etorri jakuzen holaxe, zerokin... fusillokin-edo etorri jakuzen. Enda danok jaso... zertu giñuzen. Ta, hortarako, ezkatzien, orden, ba, baserrixen esnia-ta egoten zan, ta han erezen esne danak eran zittuen, hara kuartora alleau orduko. Enda, bueno, gero... ba gu han. Baiña oinddio be hantxe segitzen eban, aurrera ez zien oinddio... aurrera ez zebein ein. Ta, gero, handik be kendu giñuezen. Geure etxetik kendu giñuzen, ta fan giñnen beste tio batzun etxera, Kanpazar ondora. Eta gero, ganauok eta ardixok eta... ardixek be danak jan zittuen milizianuok. Han ermitta bat dau, nire jaiotetxien onduen. Ta hango santua be erre eben, ta hango abade erropekin ta danak ardixon zeokin, ardixon okelok edo odolok garbitzen. Enda, ba, ardi barik, ardirik be barik geatu giñen.

-Ta ganauak errespetau zittuen?

-Ta ganauok be gehixenak desaparezidu zien. Enda bihorrak danak, bihorrak be danak galdu zien. Enda, gero ganauekin fan zien... bi tio juan zien Amorebieta ondora edo. Fuan zien ganauekin. Ta gu be, hurrengo fan giñen etxetik, hurrengo tion baserrira fan giñen lekutik, be kendu giñuzen. Gero, Elorrixora. Enda... ganauekin, esan dotena, Amorebietatik han ingurura joan zien. Ta bi ganau, bi behi-edo, geratu zien gero. Ta gero, azkena Elorrixon in giñuan. Gerria akabau zanian, Elorrixon [genden], baiña zazpi hillebetien...

-Kanpazarren eonda?

-Ez, etxetik Kanpazar ondora, ta Elorrixora. Zazpi hillebetien ibili... Horrek hiru lekutan eon giñan.

-Gerria akabau zan arte?

-Bai.

5.27. Hildakoen alde otoitzean

- **Hizlaria(k):** Agirrebeña Lizarazu, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** BER-270/012
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:13:17. **Bukatu:** 00:15:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- **Laburpena:** Sototik irten egiten ziren arriskua pasatutakoan, eta etxe barrura joaten ziren. Ez zekiten zer zen gerra ere. Ezagunak hil egin zirela entzuten zutenean, otoitz egiten zuten. Gorpurik ere ezin ekarri.

Transkripzioa

- Gu danok han egon puxkaten, eta gero, ba, diar eitten zeben "bueno, pasau dala, abioiak pasau diela eta ya bakia daola" eta orduan jendiak urten eitten zeban gordetako lekutatik urten, sotanotatik-eta urtetzen zeben, eta bakoitza bere etxera juaten orduan, [eskutatzaile antzat] geure lekura, ez zeuan kanpora ibili biharrik e, kanpora, danak etxera, barrura atzera.

- Eta gerria hasi zanian, lana-eta jarraitu euen edo fabrikak geratu ein zien edo...?

- Ba, gerria hasi zanian, guk... hasieria, ba, batian, enredua daola ta bestian ez dakit ze daola ta hola bai, baiña, karo, ez zekigun gerria zer zan. Zer zan bez! Izena bai, baiña zer dan ez, ze izaten dan. Ta gero, ba, gerria, bat hil zala ta bestia... mutillak, soldaua edo, mendixan zerela ta haura be hil zala, ta haura bestia be tiroka hil dabela ta... entzuten giñuzen geuk ezautzen giñuzen mutillak hil ziela, horrek danak hil ziela. Eta, klaro, horrek danak... jakin eitten giñuzen eta, bueno, ze itten giñuan? Hil dien horrek daneatik errezau deixoun, errezau deixoun horrei, ta horrei errezau, zerura joan [deixezen]. Eta hori eitten giñuan, baiña besterik ezin ein! Gorputzik be ezin ekarri. Ez ba! Mendixan igual [hil zien] ta mendixan hil baldin badie, han geldittuko die, kitto.

5.28. Industrias Beroan lanean

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/011
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:13:19. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza
- **Laburpena:** 19 urterekin hasi zen Industrias Beroan lanean, Aretxabaletan. Gerra orduantxe bukatu zen. Suitzatik aluminioa ekarri eta urtu egiten zuten; armadarentzat platerak eta edalontziak egiten zituzten; gero ere bai, textilean armadarentzat egiten zuten tela asko.

Transkripzioa

- Bueltauko ga zu lanian hasi ziñan garaira.
- Bai.
- Ez? Hemeretzi urtekin...
- Hemeretzi urtekin. Hogei urte neuzkan, hemeretzi kunplidu ta, hogei kunplitzeke. `Industrias Beroa´, Aretxabaletan, `Industrias Beroa´. Haura zan aluminozkua dana eta ekartzen zebeñ lingotia Suitzatik eta han itten zien fundidu eta gero itten zien ejerzitorako platerak, kantiplorak eta basuak, eta horrexek lanak. Eta hemen `Bergara Textil´en geldittu giñanian be, hemen be itten zan ejerzitorako telia asko, mahoia. Bai.
- Artian gerria bizirik egongo zan, ezta?
- Orduan bukatuta, orduantxe hiru urte bukatuta.
- Baiña Debara juañ ziñanian, artian...
- Orduantxe. Treinta... bai, treinta y nuebian hasi nintzan eta treinta y seisian hasi zan gerria, hiru urte, [...], orduantxe bukatuta.
- Bai, bai.
- Bai.

5.29. Ahizpetako bat zigortua, batzokian ibiltzeagatik

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/013
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:14:23. **Bukatu:** 00:17:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena:** Bere ahizpak batzokian ibiltzen ziren gerra aurretik. Han aurkitutako zerrenda bat zela eta, zigortu egin zituzten. Afiliatuak ziren, eta bietako bat, Rosario, zuzendaritzakoa. Horregatik zigortu zuten, soldaduen arropa zikina garbitzera. Errepublikara garaian bera ere joaten zen batzokira, festaren bat zegoen aldiro. Idazmakina eta irratia kendu zieten. Monzongo etxean errekitatutako gauzak zeuden, eta aitari handik nahi zuena hartzeko esan zioten gero. Ez zuen ezer hartu. Ez zituzten beraien gauzak berreskuratu. Isuna ere jarri zieten. Bi ahizpak

Emakume Abertzale Batzan zeuden, eta zaharrena juntan. Salatariak familiakoak izan zirela esan zieten.

Transkripzioa

- Ez dakit zu batzokixan edo...

- Batzokixan? Nere aitzak kastigauta izan zian, batzokixan topau zebelako listia. "Algo... Afiliadas y una de ellas una de las principales", Rosario. Haura egon zan gero kastigauta gerra denporan uniformiak-eta garbitzen, soldauenak. Kastigauta. Han, Angiozar bidian ipini... zeuan deposito bat eta [...]. Haura gaixotu hantxe in zan, e! Neretako nere aitzia hantxe gaixotu zan. Etortzen zan zorriz jositta, zikinkerixia... bueno, jateko gogorik be ez zeban eukitzen. Hori uff...! Haura izan zan tristia e! gerra aurretik, hori gerria hasi zanerako.

- Gerria e... gerria hasi aurretik, za akordatzen za Republikia etorri zanekea?

- Haura ez naiz ondo gogoratzen, harekin ez naiz gogoratzen.

- Umia izango ziñan.

- Umia izango nintzan, klaro.

- Baiña batzokira jungo ziñan zu be?

- Hombre, klaro, jaixak zeren guztian. Baiña nere aitzak zeren listan, "como directiva o lo que sea", bai. Eta zaharrena horretxeatik izan zan kastigadia, oso kastigadia. Etorri zian etxera reketiak Franzia... Naparruatik etorritta zeren. Gero oso lagun ein zan bat etxekua, oso etxeko, ta gero gaiñera etxian egon zan, aitzianian, habitaziñua hartu eta hantxe egon zan. Reyes Roco, bai. Harek etortzen zien eta kendu zoskuen orduan zeren elementu danak: "máquina de escribir, televisión"... telebisiñoik ez zeukoun, radixua, eta dauzkagun danak. Eta aitta urten zan eskillaretara eta esan zotsen: "les advierto a ustedes que esos elementos que llevan ustedes no son de mis hijas eh, son míos eh. Se llevan ustedes...". Eta gero hemen egon zan comandante Liso, comandante Liso, puff... gaiztuaua! Baiña akordau zanian aitta juzgauan zeuala, jun zan juzgaura eta esan zotsan: "Antonio, baje usted allí". Monzongo etxian laga zittuen traste danak harrapautakuak, eta "Pase usted allí y elija el que quiera". "No. Si me devuelve usted lo mío sí, pero los otros tienen su amo, así que yo no quiero nada". Eta ezebe barik geldittu giñan. Baiña aittak adbertiduta e, eruatzen zebena ez zala alabena, berana zala. Baiña hala ta guzti be eruan in zeben.

- Eta gero berriz bueltan ekarri zeban ala ez?

- Bapez! Bapez gero. Ezebe barik. Eta, gaiñera, ipiñi zoskun kuotia. Zela ipintzen zeben? "Donativo". Donatibo moduan, eta multia zan e!

- Klaro...

- Baiña "un donativo".

- "Para el patrimonio nacional" edo, ez?

- "Para el patrimonio nacional", klaro, "donativo". Aittak esan zeban: "Donativo? kastigauta gare pagatzen eta donativo?". Bai, bai.

- Zure aitzak ze zian Emakumetakuak?

- Bi zaharrenak bai.

- Emakume Abertzale Batzakuak?

- Bai, hori da. Ta bat zeuan juntan, gaiñera, haura, kastigauta izan dana. Bueno, baiña oso kastigauta egon zan e! Etxetik be ez zeban urtetzen koittauak bildurrakin. Gaiñera, esan zoskuen denunziau zoskuela etxekua, e. Familixakuak denunziau [zebela], zeaittik eze... bueno, harrapau in zittuen papelak aiuntamentu... zerian, batzokixan, sartu zienian hartu in zittuen papelak, bai, baiña gehixenak be etxeko familixakuak denunziau zebela.

5.30. EAB eta pospolinak

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/014
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:17:34. **Bukatu:** 00:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
 - Aisia » Kultura » Dantza
 - Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- **Laburpena:** Emakume Abertzale Batzan ahizpek egiten zutena: umeendako arropatxoak, "kanastillak". Felisa ahizpak egiten zuen antzerkia, Bilbora ezkondu zenak. Emakumetan asko ziren. Bera joaten zen antzezlanak ikustera, baita meriendatzera ere. Pospolinetakoa zen. Beasainen harrika egin zieten, dantzara joan ziren batean. Moisesek erakusten zien dantzan. Mutilei Luis Oñatek.

Transkripzioa

- Ta ze itten zebe hor Emakumetan? Teatrua ta...
- Teatrua be bai, eta lanak, umiendako lanak, jersetxuak eta lanak itten zittuen. Klaro. Gurian aiztiak in zittuan mordua umiendako ekipuak: jersetxua... kanastillak eta horrek, bai. Haura izan zan [kastigadiena] bera.
- Eta teatrua itten zebe hor?
- Baitta, baitta. Hori Bilbora ezkondu zanak itten zeban gehixau, Felisak. Bai, bai...
- Eta ze emakume ibiltten zien orduan han Emakumetan?
- Bueno... Mordua zien. Hamen gehixenak zien emakumiak Batzokikuak e? Emakumiak.
- Akordatzen zara zein zan, ba, presidentia edo?
- Ez, horrekin ez naiz gogoratzen, ni txikixa nitzan artian ta. Bueno, gaztia, gaztia.
- Izenak bai? Izenak bai, zeintzuk zien e...?
- Hilda dare gehixenak.
- Amenabartarrak eta, ezta?
- Juli, Juli ta horrek izan zien, Juli eta Maria Luisa ta... Baiña ez naiz gogoratzen apelliduekin ya. Mordua zien e, mordua.
- Zu juten ziñan teatruak ikustera?
- Hoixe! Eta meriendatzera be bai.
- Ta pospoliñetakua.
- Dantzara jun giñen Donostira, ta Beasaiñen harrika in zoskuen pasaizuan. Bai...
- Zeba?
- Ba, abertzaliak giñalako. Han Beasainñen, reketiak ziazten. Reketiak edo... oso nazionalak zeren asko. Harrika baiña zela...! Bai. Ondioko puntuan kendu doste neri erretrato harek. Dantzarixak izan giñan, dantzarixak. Bai...
- Orduan, zu be pospoliñetakua?
- Pospoliña.
- Ta zeinek erakusten zeban dantza itten ta?
- Hori hil zan. Hamen Algodoneran bizi zan. Zela zaukan harek izena...? Gero Angiozarren bizi izan zien. Ez naiz gogoratzen e. Oinddiokan puntu arte nekixen [gaiñera] izena ta... Gizakume bat zan. Ta neure lehengusu bat be bai gero e... Erreterixara juan zan bizitzera. Oñate, Luis Oñate.

Harek be, harek erakusten zeban, mutillei, ta guri bestiak, Moisesek erakusten zoskun guri, neskei, pospoliñetan. Guk eskursiño asko in dittugu Donostiara ta. Baiña esaten dotsut, Beasaiñen harrika.

- Beste batek esan zoskun Tolosan in zotsela...
- Guri Beasaiñen.
- Zuei Beasaiñen.
- Guri Beasaiñen, pasaizuan.
- Pasaizuan.
- Bai, ta orduantxe zeuan...
- [...] San Martin, San Martin de Agirre ta e... Loinaz ta kontuagatik edo...?
- Ez, ez, ez... dantzarixak giñalako, euskaldunak giñalako, dantzarixak giñalako. Bazekixen bi autobus pasau bihar giñala ta gertu zeren harrixekin. Orduan, gaiñera, nere aitzia ya ezkondata zeuan zaharrena, Pairosekin ezkondu zana, eta haura zan Donostian egun batzuk pasatzen gizonakin ta berak ikusi giñuzen dantzarixekin. Bai. Txikixak giñan artian, klaro. Pospoliñak.

5.31. Pospolinetako dantzak

- **Hizlaria(k)**: Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref**: BER-326/016
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:21:06. **Bukatu**: 00:22:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Pospolinetan dantza egiten zuten, kantatu ez. Soltean eta zinta dantza. Mordoa ziren. Neskak eta mutilek aparte egiten zuten dantza.

Transkripzioa

- Orduan e...
- Txalo asko batu giñuzen. Dantzan in... dantzarixak ondo inda.
- Gaiñera, pospoliñetan dantza bakarrik ez, kantau be itten ziñuten, ez?
- Guk ez, guk dantzan bakarrik e.
- Zuek dantzan?
- Bai. Zintako hori, [koruia] itten dana, hori, ta gero sueltokuak. Gu dantzarixak giñan. Gehixenak nere lagunak orduan egon giñanak pospoliñetan hildda dare, gehixenak.
- Asko ziñaten?
- Mordua, buf...
- Ze izango zan Aberri Egunen bat-edo?
- Ez, beste egun bat zan. Bai, bestela euki zeben euskerazko... euskerazko jai bat, bai...
- Orduan neska ta mutil?
- Neska ta mutil. Aparte itten giñuan dantzak e! Mutillak mutillekin ta neskak neskekin. Danak apartauta genden.
- Orduan apartauta mutillak eta neskak alde danetan, ez? Eskolan ta..
- Bai... Bai... Bai... Hori danian, danian. Dana apartauta.
- Eskolatik kanpora be bai...
- Orduan ez zeuan holako [...].

5.32. Ahizpa frontera bidaltzearekin mehatxatuta

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/018
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:25:54. **Bukatu:** 00:27:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 - Politika » Jarrera politikoak » Emakumeak politikan
- **Laburpena:** Ahizpa zaharrena mehatxatu egin zuten, frontera bidaltzearekin. Anaia italiarrek harrapatu zuten Santurtzin; bisitan joan ziren. Bergaran ez zieten emakumeei ilerik moztu, Oñatin bai. Ahizpa gaixotu egin zen, eta ez zen berdina izan.

Transkripzioa

- Esan dozu, gerra etorri zanian, aitzak, aizta zarrena batez be, kastigau in zebela.

- Haura kastigauta izan zan, oso kastigauta. Erok zela esaten zotsen hari? Ba izango balitz komisiño bat, eropa zikiñak garbitzera ta kastigauta joan zan, eta gaiñera amenazau in zeben... Hemen frentia itxi zan Angiozarren, Angiozar-Elgeta bittartian. Gurian anaia erekin jua zan aurrera. Juan zan, baiña gero zerian harrapau zeben, Santurzen, ta Santurzen eskerrak Italianuak harrapu zebena, ze Espaiñolak harrapau balebe garbitzen dabe, baiña Italianuak harrapau zeben ta gu jun giñan bisitatzera. Orduan ez zauen ez autobusik, ez [ezebe] ibiltzeko moduan, kamiño danak eta apurtuta. Ta Aureakin, beste aiztiakin, jua nitzan ni bisitatzera ta esaten zoskuen: "Gracias que está con los Italianos, le dejarán estar con él" eta bazkaltzera gurekin eruan giñuan. Haura kastigauta egon zan, preso, bai... Aurrera jo zeben dt 'los rojos', gu giñan 'los rojos'. Oin 'los rojos' die... jugadoriak.

- `La roja`, bai. Ta hemen emakume batzui ilia moztu be in zotsen.

- Hori Oñatin, hemen Bergaran ez.

- Hemen Bergaran ez?

- Guria amenazauta egon zan, ilia mozteko, ta plazara etaraten zittuen, gaiñera. Hori Oñatin in zeben, Bergaran ez, Bergaran iñoi ez zotsen kendu ileik, ez.

-Ta plazara etara zittuen?

- Hori Oñatin, Oñatin, Bergaran ez. Bergaran kastigauta horruz... zentro... frento... frentera, 'carne de cañón'.

- Ta esan dozu hori ezta, amenazau zittuela frentera eruangoz zittuela.

- Bai gurian holaxe esan zotsen 'que le iban a llevar al frente'. Guria gaixotu in zan, orduaintxe gaixotu zan, harrezkero behin be ez zan ibili ondo. Han etortzen zan ez jateko gogo barik, eta eze barik, han zikinkerixa artian eropa zikin danekin dana zorrixekin ta danakin ta etortzen zan, bueno nazkauta kotxaua. Ta harrapau zittun hori, listak, zeintzuk zien direktibakuak eta zeintzuk zian ba... ta guriak egongo zian aurrian, klaro.

5.33. Alderdien egoitzak, gerra aurretik

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia

- **Erref:** BER-326/020
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:32:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
- **Laburpena:** Batzokia itxi egin zuten, eta hustu. "Carlista" parean zegoen, baina ez zen sekula han egon; han ez ei zuten antzerkirik eta dantzarik egiten. Barrenkalean zegoen zentro errepublikarra. Karlistekin ez zuten harreman handirik.

Transkripzioa

- Lehen esan dou, batzokixa gerria hasittakuan itxi...
- Itxi in zan, itxi in zan.
- ... itxi in zeбен.
- A! Itxi in zeбен, dana apurtu zeбен ta! Barruan zeren trasto danak kendu in zittuen eta haura itxi in zan, zihero. Bai.
- Eta gerra aurretik Zirkulo karlistia ta...
- Bazeuan! Onduan, gaiñera! Batzokixa eta Zirkulo karlistia bixak pegante zeren.
- Juten ziñaten zuek hara?
- Ni behin bez. Nere lehengusua bai, bertakua zalako, karlistia zan ta.
- Ta han teatorrik-eta eitten zeбен?
- Harek ez, harek ezebez, bakarrik juntau itten zien, eren gauzak kontatzeko, baiña [beste]...
- Ta dantza ta be ez?
- Ezebez.
- Ez?
- Ezebez. Batzokixan bai, batzokixan danerakua.
- Eta gero, Zentro republikanua ta...
- Hori, republikanua, nik gutxi ezautu neban e. Haura behian egon zan, plazatik... Barrenkalen. Baiña harutz ez nitzan ailleгатzen.
- Eta "Casa del pueblo"...
- "Casa del pueblo" ez, ez. Bakarrik republikanuen, bai.
- Zuk bazeukozun relaziñorik republikanuekin ta...?
- Bapez. Ez zeukoun, ez zeukoun, ez.
- Ta karlistekin?
- Gutxi, gutxiao ondiokan! Gutxiau oindiokan. Onduan genden baiña ez giñan alkartzen.

5.34. Soldaduak etxeetan

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/022
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:34:42. **Bukatu:** 00:36:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Enseñanza zabaldu zutenean hara bueltatu zen. Soldaduak hartu behar izan zituzten etxean. Luisa ahizparen etxean bi egon ziren, eta bat lagun egin zuten. Asko gogoz kontra eramaten zituzten soldadu.

Transkripzioa

- Eta gerra garaixan zuk ze itten ziñuan hemen?
- Nik ezebez, eskolan ibili, eskolan.
- Eskolia gero martxan ipini zebe berriz?
- Bai, bai. Mojetakua ya zabaldu zan gero gerria akabau zan momentuan atzera hasi zan mojetakua dana, bai.
- Hona nazionalak sartutakuan ya zabaldu ingo zebe.
- Zabaldu zan dana, bai. Orduan ya normalian ipiñi zebe.
- Orduan jarraitu ziñuan zuk...
- Bai, dana igual estudixatzen.
- [Ikasten] mekanografia ta...
- Hori da. Dana, dana.
- Eta bittartian soldauak Bergaran, ezta? Esan nahi dot...
- [...] zeren! Gurian aitziei, esaten dotsut, Luisa, ezkondu zana [...kin], haura euki [zittuan] zertuta, zela esaten zebe? rekisauta, bi habitaziño soldauendako. Bai.
- Derrior hartu bihar etxian.
- Derrigor, derrigor. Ta batekin oso amistade haundixa in giñuan. Naparra zan bera, oso jatorra e. Haura igual izango zan ekarri zebena harrapauta. Honbre, ni ibili nintzan gero beste bat, izan zana falangistia, Mendabiakua, eta harek esaten zeban: "No somos eh, nos han traído. No somos pero nos han traído". Orduan hartu itten zittuen eta eruan. Honbre, nere lehengusu bat be eruan zebe frentera, soldau moduan, baiña jonandeez zien partidokuak. Baiña jua ein bihar, derrigorrian!

5.35. 1934ko iraultza Arrasaten eta Bergaran

- **Hizlaria(k):** Amasorrain Linazisoro, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberría, Idoia
- **Erref:** BER-355/016
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:28:47. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublikak
- **Laburpena:** 1934ko urriko iraultzan gertatutakoak kontatzen ditu. Marcelino Oreja eta beste bi gizonen bila joan ziren. Marcelino Oreja "Cerrajera"ko zuzendaria zen eta hil egin zuten; beste bat ere bai. Egun berean Camilo Basterretxea atxilotzera etorri ziren Bergarara; abisua jaso zuen eta sozialistak iritsi zirenerako, ez zegoen han.

Transkripzioa

- Aurretik, 1934ko iraultzan, hor be "Cerrajera"n-eta pasau ziran Mondrauen kontu batzuk gero zerikusixa euki dabenak Txomin Amasorrainen bizitzan, adibidez, ez?
- Bai, hor 34ko urrian, "revolución de octubre" deitzen da, eta sozialistak pentsau zebe, ba, iraulketa ingo zebela eta, ba, gobernuak aldatuko zebela, ezta? Orduan diktaduria zegoen. Orduan, ba, egun hortan -esan dogu zein egun zan ezta?- urriaren 4a, Arrasaten goizian goiz jua ziran Toribio Agirre... ez, Toribio Agirrez ez, Marcelino Oreja -Marcelino Oreja zan garai hartan "Cerrajera"ko zuzendari- eta beste bi gizonen bila jua ziran. Honek eruan zittuzten han zerka osterak eta, klaro, konturatu ziran goizian zihar, ba, reboluziñua zaila zala egiten. Osea, gizon batzuk hartzia bai, baiña gauza bat iraultzia oso zaila dala, ezta? Eta nik uste dot suertatu

zirala gero Vittorixatik, ba, ez dakit Flandeseko terzioak-edo etorri ziran, ba, insurrekziño haura moztera, ezta? Eta, ba, zer hortan tirokatu in zittuzten; hiruretaiko batek ihes in zeban, Azkoaga batek, eta bi gizon hil in zittuzten, beren artian Marcelino. Ezta? Karo, Marcelino zan "Cerrajera"ko burua. Bera ezkondata zeuan Pureza Agirrekin. Pureza zan Toribio Agirrerren alabia. Toribio zan lehenengo zuzendarixa "Cerrajera"koa eta gero, ba, zera, testigua pasau zotsan Toribiori. Eta, bueno, ba, hori hil zeuben, orduan, izandu zan oso era gogorra. Egun berian sozialista batzuk Arrasatetik etorri ziran Bergarako Camilo Basterretxea detenitzera. Eta Altos Hornoseko Pedro Urbinak abisau zotsan zerari, Camilori, ba, bere bila zetozela. Nik ez dakit o personaz juan zan o telefonoz edo nola ingo zeuben. Camilok, ba, etxetik alde ein zeban eta sozialistak iritsi ziranerako ba ya ezin izan zeban harrapau. Pentsatzen dot harrapau izan bazeuben, ba, seguruasko, ba, Marcelinon bide berbera jarraituko zebala. Ezta? Orduan, nik uste dot tema horrek min haundixa sortu zebala ba, bueno, ba, herrixan eta gure familixan ere bai, ezta?

5.36. 1963an euskarazko klaseak jasotzen

- **Hizlaria(k):** Amasorrain Linazisoro, Agustin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-355/021
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:40:17. **Bukatu:** 00:43:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena:** 1963an, bere lehengusuarekin batera, euskarazko klaseetara joaten hasi zen. Talde bakarrean hamabi bat lagun ziren. Ikaskide batzuk aipatzen ditu. 1965ean Jon Oñatek atibikiak euskara radiofonikoa metodoa atera zuen, eta urtebete beranduago Patxi Altunak "Euskara, hire laguna" egin zuen. Txominek liburu asko zituen etxean, gehienak erlijiosoak.

Transkripzioa

- Klasiak erderaz?

- Erderaz ziran, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Bai eta gero Elemental... nik ba hamairu urte nekan hirurogeta hiruan. Txominen semia zan Sasio, Sasio, nere lehengusua. Oso harreman estua euki giñuan Sasiok eta nik. Eta komentau zotan nola klase batzuk zeren eta ba juango giñan ta gu ba hirurogeita hamahiruan nik uste dot hasi giñala juaten. Suposatzen dot astian pare bat egunetan-edo juango giñala hara eta hiru bat urtez-edo jardun giñuan klaseetara juaten. Txominek emoten zoskun gramatika: ba, gramatika, osea, ba, aditza, deklinabidia, analisi sintaktikua, morfologikua... Eta Joxuk emoten zeban Euskal Herriko historixia eta kultura gaiak. Hala osatzen zian. Uste dot talde gehixao ez zala eongo, gu talde bakarra izango giñala. Hamabi bat lagun. Pertsonetaz ez naiz asko gogoratzen, baiña gogoratzen dot Iñaki Mujikan emaztia haurdun zeuala garai hartan eta, ba, gure taldekua zala. Ta, biharbada, biharbada, Arana, Martin Arana be gure taldian egongo zan euskera ikasten. Martin Arana irakaslia izango zan orduan Elementalian. "Cerrajera"n lan eitten zeban laborategixan. Eta nik uste dot beste ikasliak zirela batzuk Elementaleko ikasliak eta beste batzuk "Cerrajera"ko enplegatu batzuk gehi kaleko personaren bat be ibiliko zan segurasko, ezta?

- Hori 1963an?

- 1963an hasi giñan gu. Nik uste dot guk hiru bat urte egin giñuala. Nik esango neuke hasieran apuntiekin ibiliko giñan, nik uste dot libururik be ez zeguala. Osea, ba... ba gerratia hasi zanetik haura izandu zan basamortu bat izan zan. Ezta? Eta gero 1965ian Jon Oñatibiak etara zeban `Euskera irrati bidez´, `Método de euskera radiofónico´ famatua. Jon gudari ibilixa zan eta gero Estatu Batuetara eruan zeban Jose Antonio Agirrek. Eta handik bueltatu zanian, ba, bueno, liburu hau etara zeban. Eta liburu hori oso erabilia izan zan. Eta urtebete beranduau Patxi Altunak etara zeban `Euskera hire laguna". Patxi be, ba, bueno, Salamancan ikasittakua; Innsbrucken egon zan be bai ikasten, Austrian. Eta gero denpora batian izan zan Koldo Mitxelenan ikasle eta kolaboratzaile. Eta Patxik makiña bat lan eingo zeban ondoren. Eta nik uste dot bi liburu... Patxirena nik ondoren ezagutu neban, Elementala utzita, baiña nik uste dot Oñatibiaren liburua gu iritsi giñala erabiltzera. Ezta? Eta, orduan, ba, Txominek bastante liburu zeukan etxian, baiña danak ziran erlijioñokuak. Ni bastante liburu irakurrittakua naiz, baiña gai aldetik ez ziran oso... oso... ez dakit nola esan. Ezta?

6. Familia eta harremanak

6.1. Bertako neskekin ezkonduetako militarrek

- **Hizlaria(k)**: Arregi Lamariano, Klementa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin
- **Erref**: BER-032/018
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:28:26. **Bukatu**: 00:30:31
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Soldaduak suminstroa lapurtzen; soldadua laztanak ematen; bertako neskekin ezkonduetako militarrek.

Transkripzioa

- Soldauak pasatzen zittuan zerakin, suminstrua. Egun birik bat jasotzen zebe hor "Artillería de Montaña" horrek, muluendako lastua eta jana personendakua, eta brigadia eruatzen zebe erekin zaintzeko, baiña beti... etxe aurretik eta etxostetik, bixetatik bidia gurian leku batera joateko, eta brigadia etxostetik baldin bazoian, etxe aurrian lapurretan eitten jotsen, olixua edo okelia edo zera, eta etxostetik eruatzen bazan, zera... Bai. Bat bajeuan Riestra-edo, asturiano bat; harek parian harrapatzen zittuenei laztana emuten jotsen, itxuria.

- Neskei?

- Neskei, bai. Baten, hor kuartel aldian baten bati emun jotsan, eta Hondartzan be kriadia atera urten, eta hari be laztana emun eta aurrera!

- Eta bestela hola sustoik soldauak neskei-eta?

- Ez, ez jakuan tokau, bastante errespetoko jentia, errespeto haundiko jentia tokau jakuan.

- Geldittu zan iñor hemen ezkontuta-edo?

- Bai, bai. Munabeko Ixabel. Taberna Berrixan Pedro Joxen arrebia, Ixabel. Orduan eiddako amistadiakin ezkontu zuan. Gaixorik be egon zuan, itxuria gizonen zerakin, baiña berana izengo zuan. Gero behintzet Naparruara berakin ezkontu zuan.

6.2. "Errege don Felipe" kantu-jolasa, Bittori Aranburuk abestuta

- **Hizlaria(k):** Aranburu Altube, Bitori
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-034/010
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:06:09. **Bukatu:** 00:07:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak
- **Laburpena:** Umetan jolasean egiteko kanta abesten du Bittori Aranburuk. Korroan, bi umek eskuak altxatu eta besteak arku horien azpitik pasatzean kantatzen zen abestia. "Errege don Felipe zaldunak gerade, honetxek gaztetxuok zer gura ete dabe; bidia zabal-zabal gura ete dabe, aurreko abisuak atzekoak betoze, ze, ze..."

Transkripzioa

- Bueno, ba, gu, umiak giñanian, ibiltzen giñan kantuan, korruan jarri, eta, ba, korruan, `Errege don Felipe´ kantatzen. Ta gero pasatzen, pasatzen. Ta bi... arku moduan eitten giñuan, bi jarritta, ta gero danak handik azpitttik pasatzen zian. Bueltaka-bueltaka ibiltzen giñan.

- Ibili bittartian kanta hori kantau, ezta?

- Hori kantatzen. Ta bi, ba, hoixe, arku formau ta eskuak jasota. Ta han azpitttik pasatzen zian, bueltaka. Ta kantatzen giñuan:

Errege don Felipe, zaldunak gerade,
honetxek gaztetxuok zer gura ete dabe;
bidia zabal-zabal gura ete dabe,
aurreko abisuak atzekoak betoze, ze, ze.

- A! Ze politta! Ze politta, bai. Eta zenbat urtekin kantatzen zenduten hori?

- Hori, ba, guk... zazpi, zortzi, bederatzi inguru urtekin, ba, eskolan

gebizenian, umiak giñanian. Errekreuan. Eskolatik urtetzen giñuanian ta errekreuan. Ba, umiok kantuan.

- Eta nola ikasi zenduten hori, maistriak erakutsitta ala bestela? Akordatzen zara?

- Hori ez naiz akordatzen, maistriak o etxian edo haundixauei, aizta haundixauei edo zaharrauei,... haundixauei ikessitta.

6.3. "Honek arrautzia ekarri", atzamarrekin egiteko jolasa

- **Hizlaria(k):** Kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-036/012
- **Iraupena:** 0:00:12. **Hasi:** 00:07:25. **Bukatu:** 00:07:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** "Honek arrautzia ekarri" atzamarrekin egiteko jolasa, Soledad Jauregik esanda.

Transkripzioa

Honek arrautzia ekarri,
honek zartaiñian jarri,
honek gatza bota,
honek puskat jan
eta beste potolo txiki honek
dana jan!

6.4. Mutil eta nesken arteko kontuak baserri giroan

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/024
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:32:38. **Bukatu:** 00:34:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena:** Gabonetan etxera Bilbotik. Gabon-mina. Mutiletan. Goizean ardiak ateratzera joan eta mutilak sagar paketetxo bat erregalatu zion.

Transkripzioa

- Hor kriaue euenak eruten zittuan etxera, gabon miñera, [bakillau] txiki bat ta etxien einddeko ogi bat. Ta Azkorta Erdikuen, ba, nere aittan arrebria, baiña haren ama be han bizi zan, gizonan ama...

- Hilari: Laudatzen?

- Ez, Azkortan. Etxekoandria, badakizu, zaharra, bi andra zeren ta... Ba, nere izeko horrek, lehen basarrixan ez zebeñ sagarrik be sartzen...

Azkortan sagarrak ta harek zeoze [bieltzia] nahi nerekin etxera amai ta nik goizien ardixak etaratzera jun biher txabolara ta goizien emon ostan sagar paketetxo bat. Eta ardixek etara ta haura zanga baten orbelakin tapauta itxi naban iluntzien etxerakuan hartzeko. Erregalua.

- Erregalua, gabon miñekua e?
- Bai, ondo kaso eindda gauzak.
- Azkortan nun, erdikuan...?
- Bai, erdikuen. Orduen...
- Hilari: Erdikue zer zeukan, ama, tiuak, ezta? Osabak...
- Erdikue bai, aittan arrebiak. Aittan arrebia, Maria zeban izena. Gazterik hil zan baiña...

6.5. Antzinako bizimodua baserritarren ikuspuntutik

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/042
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:56:08. **Bukatu:** 00:56:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Antzinako bizimodua. Konfiantza handia zegoen elkarren artean. Hutsarekin barre handiak egiten zituzten, kantuan egun osoan...

Transkripzioa

- Oingo aldi konfiantza haundixakin bizi zan orduan jentia, kantu ederrik eta hor miradorian jarri tta ze hutsakin barre haundixak eiñ tta kantau ta, enee trankill...

6.6. Ezin beti eskolara joan

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/049
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:03:57. **Bukatu:** 01:06:35
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Eskola kontuak. 3 urtean baino ez zen joan eskolara. Baserrian lan asko zegoen eta ezin beti eskolara joan.

Transkripzioa

- Eskolan zenbat urte ein ziñuzen Anizetak?
- Ez dakit ba, zazpi urtekin edo hasi giñan ta...
- Aitta ei jauken oso eskola zalia. Eskola bialtzen...
- Bai eskolaa bialtzen ona, zenbat eingo nittuan nik, hiru bat urte, ta len

esan douna kriara?????

- Atsaldetan bakarrik, asko ezin ba ein.

- Ba orduan pasatzen zan basarrixan, gaur ittulia dao ta gaur ezin leike ta, bihar beste zeoze da ta...

- Ba zenbat lan eoten zan orduan, ardi-zaintzia ta ganau-zaintzia, ittulia, ta umia... bueno...

- Umia eten barek lepuen...

- Ardixa orduen hemen baserri danetan zan ardixa...

- Bai, Irabanen bai behintzat, gurien Olan ardixak, Mekoletan bixetan ardixak, Azkortetan ardixak, gero gurien kendu zittuen, mendi danak ardiz beteta, ta ezebe jateko, orduan ardixa, oin be asko dao baiña, orduan ardi bareko etxeik ez, baserririk...

- Noa ataratzen ei jittuen hainbeste ardi?

- Bai, labratzia, labrau eingo zien terreno danak ta, udan mendira botatzen zien ala?

- Mendira bai...

- Nora botatzen zien Irabanen, Paola aldera edo?

- Iraban, Laudatzkuak eta Paola aldera, ta behekuak hortxe Azkortetatik Galatzaa bittarte Agarre aldea hortxe.

- Gaur baiño paori ta txara gehixao izango zan da keizpe izango zan hor udan ezta?

- Orduan ´e, soro ta ganauak be kanpuen ibilltten zien, ta dana erremaria, dana erremaria zan orduan, bide danetan, ataira etorriko bazan, bestela ganau mordua nunbaittekuak, ganau?????? Seguru etorten zien ta gaiña erropak jan...

- Erropak be jan, aukera ederra eongo zan da erak jan ta kitto...

- Bueno baiña, pastua baeuan, pasto klasia, bedar klasiak eitte ei dau hori, erropak jateko gogua eitten ei jaue...

- Bai liña bazeuen pentsa eizu ba, erropetan be liña dana...

- Galatza aldeko mendi ori askoz be pobria izan be, beste aldia askoz be bedartsuaua da, Laudatz aldia, preskuaua askoz ´e...

6.7. Gariaren amaigabeko lana eta auzolanaren garrantzia

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/052
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 01:07:34. **Bukatu:** 01:09:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
Baserria » Baserriko lanak » Garia
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Gariaren lana amaierarik gabekoa izaten zen: erein, simaurtu, jorratu, ebaki, metatu, zabaldu, jo. Galbahe handiak. "Txanketian jo". Auzolana.

Transkripzioa

- Garixa ta, orduan lan asko jeuan basarrixan e! Garixak berak badakizu zenbat lan emoten eban...?

- Garixak, akaberarik ez dauke garixan lanak! Akaberarik ez. Erein, simaurtu, jorratu, ebai, metatu, gero atzera zabaldu ta jo... Gero dornua

nere akorduan etorri zan Laudatzera, lehenago galbahia zan. Galbahe haundixak izeten zien. "Artza" esaten otsen alanbrezko zer haundi batzuk. Ta hartaraxe garbittu biher gari dana. Ya nere akorduen ekarri eben gero...

- Zela esaten otsen, "artza"?

- Bai, "artza" esaten jakon galbahe haundi hari. Ta nere akorduan Laudatzen dornua ekarri eben, garixa garbitzekua.

- Zu, ama, ta zera be bazan ba, txanketian-ta joten zan ba garixa?

- Txanketia bai, harrixen, harri-losak ipinitta. Harri-losak ipintten zien banku luze baten geiñien, egur baten zerien, illaran Ta garixa ipintten zan euzkittan, igertzen, ta [han] hauts galantakin jo biher! Jo-ta [...] kendu!

- Gero gabien afari edarra.

- Bai.

- Auzokuek ez zien, ba, orduan be etortzen?

- E?

- Auzoko jentia ez zan ba orduan be etortzen?

- Ba, gari jotera gutxi; gari ebaitzera bai.

- Auzolana, ezta?

- Igittia esaten jakon gari-ebaitzeko sasoiai.

- Zelan?

- Igittia.

- Igittan...

- Bai.

6.8. Lixiba egiten

- **Hizlaria(k)**: Elkoroiribe Lizarralde, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-070/007
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:10:38. **Bukatu**: 00:15:18
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Lixiba nola egiten zuten azaltzen digu. Pagoaren omen zen lixibarako sutautsik onena.

Transkripzioa

(...)

-Alkatona ezkiñetan eitten jakuen ohazalei.

-Zer zan hori?

-Oin bordaua esaten dan moduan, eskuan eindda, kruzetan edo, zerian da. Alkatona esaten jakon.

-Eta zerakin akordatzen za, lixibiakin?

Tiñakuak izeten zien eta lixiaskia ura handik tiñakotik zertzen zan, jaboia emunda, jabondu. Lehen mahixak ero, lixibia jabontzeko mahixak izeten zien-da. Jabondu eta gero egosi edo, ur beruakin, askia behian eta tiñakuoi edo barrikioi epeldu ura ta bota jabon-ura edo zera ta egosi.

-Hautsakin eitten zan?

-Hautsa bai, hastrapua gaiñian ipintten jakon, sutako hautsan trapua. Elauntza ero usaiña botatzeko zerak, harek be egosten zien harekin da.

-Usaiña ederra.

-Egosi-usaiña ta. Usaiñ edarra etaratzen eben. Elauntza izeten zan botatzen jakona. Egosi eitten zan, egosi lixibia.

-Sutako hautsa akordatzen za?

-Haustropuak izaten zien gaiñian.
 -(...)
 -Ze hauts izeten zan, edozeiñ egur klase?
 - Okena pagua. Gure denporan piñu tratuik etzeuan.
 -Gaztaiñiana?
 -Gaztaiñiana zera geratzen zan, ordinarixuaauaa, tintia edo.
 -Horrekin akordatzen za?
 -Bai, bai.
 -Gaztaiñiana eta etzala ona.
 -Tintia edo. Kolore...
 -Kolore eskaxaua.
 -Pagua onena, zeraua..
 (...)
 -Lixiba-mahixa esaten jakon, jabontzeko be aparteko zera dabela ta, urandako ipiñi behian jabon-ura hartzeko zera ta, eta han jabontzen dabillenan eta, eta gero atzera bera egosi, berotu edo epeldu eiñ eta.

6.9. Arropak lehortzen

- **Hizlaria(k)**: Elkoroiribe Lizarralde, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-070/008
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:15:18. **Bukatu**: 00:17:16
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena**: Arropak belarraren gainean zabaltzen ziren lehortzeko. Orbanak nola kentzen zituzten. Zorriak ba omen zeuden Juanaren gaztaroan.

Transkripzioa

(...)
 -Erropia nun zabaltzen zan. Oingo moduan esegi eitten zan?
 -Esegi eitten zan. Oingo moduko zerik etzan egongo baiña antzera.
 (...)
 -Kolore zurixa eingo jakon?
 -Behintzat ez zan egongo arkakuxuik eta. Zorrixak eta izeten zien, e.
 -Lehenao be bai, zuek gaztetxuak ziñatela be izeten zien zorrixak?
 -Zorrixak? Hoixe.
 -Orduan zaharrak die zorrixak, ezta, antziñakuak.
 -Zorrixak eta arkakusuak galdu zien, oiñ eztao.
 -Keba, oindiokan bai. Sarri-sarri bialtzen dabe ikastolatik be begiratzeko. Oindio be badia zorrixak baztarretan.
 -Lehenao bartzak ille ezkiñetan be danak. Buruko illetan da be. (Umeari) Jesus, jangoikuak bedeinkatu zaittela, potolatxo-potolatxua zare.
 -Bizkorra izango da hori, ondo bada.
 -Hala izan daixela. Gure begixak eztaixela kalteik egin da.

6.10. Arreoa gurdi dotorean

- **Hizlaria(k)**: Elkoroiribe Lizarralde, Juana

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-070/014
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:40:48. **Bukatu**: 00:44:12
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- **Laburpena**: Gurdia ondo apaintzen zuten arrea eramateko. Izara, alkandora, goru makina eta abar eramaten zituzten emaztegaiak ezkontzera zihoan etxera.

Transkripzioa

-Arriua ze izeten zan?

(...)

-Arriui makiña bat bider ikusitta gare. Honenbeste izarak eta. (...) Arriua botatzen. Honenbeste, hasaura bat eta bi tta; izarak honenbeste ta. Kamixak hainbeste ta, bestia ta. Beste bat soiñian eukiko dau. Ikusi ein bihako jako daukan edo ez. Hurrengo beste batek. Ikusi ein bihako da daukan ala ez. Broman pasau holaxe.

-Beste bat aldian ibilliko dau ta. Horrek izengo zien txistiak.

-Zuk zeuk ekarri ziñuan arriua?

-Arriua edo.

-Lehen antziñan eitten zan moduan burdixakin da.

-Burdixakin makilan goruan ipinita, kerrua batuta goruan, goenkaldian partikako zerian, goruetako bere ardatza ta zerakin, (...) bestian sartuta ta arriui egoten zan. Burdixa berriz irrintzariakin soiñua juaz ipiñi jaboia edo, intxaurren eztakit zer, zeozer irrintzia etaratzekua, riiin!, soiñua arriuakin. Irixen aurrian beste bat eta atzian goruakin eta andria edo zera, goruetako makilliakin gertu. Gorua izeten zan.

-Han bistan joaten bazan, dotoria nahi izango zan?

-Jantzitta ohia edo, jantzittako moduan, eta partikan puntan gorua ta. Aurrekaldian goru-txapelakin eta danakin ipinita gorui tta. Burdixoi irrintzia juaz da. Karreterua halaxe jantzitta, dotore jantzitta, bere brusa edo zerakin da, basarritar edo baiña dotore; orduan tokatzen zan moduan dotore. Oin traje bestelakuakin jentia ibiltten dan moduan, jaiko amantala eta asteko amantala, astegunerako maunezko edo bestelakua eta pallekazko festoiekin eta amantalak erabiltzen giñuzen, jaiko amantalak.

-Harizkuak?

-Telia igual baiña festoiak ipinita ta.

-Zeuk eindda.

-Etxian eindda be bai tta makiñan be bai tta. Amantalak pallekazkuak, jaiko amantalak eta bestela maunezkuak. Maunezkuak berriz amaatala haundixa izeten zan, holako formarik eta barekua. Amantala.

6.11. Biografia

- **Hizlaria(k)**: Juaristi Aranburu, Natalio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-138/001
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

- **Laburpena:** 1912an Zubieta kalean jaiotakoa.

Transkripzioa

- Noiz jaiotakua naizen? San Andres egunian. San Andres eguna, haintxe dator eibartarren eguna, ta orduaintxe, egun haretantxe. Kunplitzen dittut larogeta hamaika.
- Milla bederatzirehun ta hamabikua?
- E?
- Milla bederatzirehun ta hamabikua.
- Bai.
- Eta ze kaletan edo nun jaixotakua zara?
- Kalia? Zubieta. Han zubixa badao, ba, zerian, Plazentzia aldera, zerian? Haintxe jaiotakua naiz. Haintxe jaiotakua. Eta [Bonbulun] hazittakua.
- Eta Zubitta kalia, zelan gogoratzen dozu kalia?
- E?
- Zu jaixotako kalia zelan gogoratzen dozu?
- Gogoratu? Ba, nik asko maitte dot, zeatik ni ezkondu zahartuta ein nitzan. Zahartuta ezkondu nitzan, bastante zahartuta, bai. [...] gerria etara [...] hor zihar prisionero ta... berandu. Hogeta hamalau urtekin ezkondu nitzan. Bai.
- Eta zelakua zan kalia? Bizixa?
- Bizixa? Bai. Kalia inportantia. Zubitta oso interesantia izan da.
- Bai? Bergarako kalerik ederrena?
- Ederrena be ez dot esaten, dotoriena, baiña sanuena. Orduan jente sano-sanua bizi zan, bai, hemen.

6.12. Errekan jolasean

- **Hizlaria(k):** Barrenetxea-Arando Azkargorta, Erritxe; Barrenetxea-Arando Azkargorta, Gotzon; Barrenetxea-Arando Azkargorta, Mariñe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-146/035
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:52:47. **Bukatu:** 00:53:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Umetan errekan jolasean.

Transkripzioa

- Ta, orduan, errekan-eta baiñatzen ziñazien?
- Bai, gutxi, baiña baiñatzen giñan. Mutillak gehixao. E? Zuek bai baiñatzen ziñaten asko, ezta?
- Bai, gu bai.
- Geu be ibiltzen giñan peskan ta...
- Lehenengo hor, kanalian, eta gero hor be [...] ikasi igarixan. Hor sartu ta...
- Ta gero Agorrosiñera, ezta?
- Gero Agorrosiñera.
- Gu ez Agorrosiñera. Baiña han bai, ta hor be kanala zeuan, ta kanalian uretan.

- Hor [zeon] presatxo bat, presa txiki bat, ta gero hor kanal bat. Ta, ba...
- Eta baiñatzeko zer erabiltzen zenduen?
- Soiñeko luze bat. Kitto. Edo kuleruekin noizian behin...
- Ez zeuan traje de bañorik orduan!
- Keba!
- Traje de bañua ta gerora.
- Gero. Alkilau eitten zien!
- Dakin noiz erosi giñuzen?
- Zarautzen.
- Zarautzera juateko.

6.13. Udan hondartzara

- **Hizlaria(k)**: Barrenetxea-Arando Azkargorta, Erritxe; Barrenetxea-Arando Azkargorta, Gotzon; Barrenetxea-Arando Azkargorta, Mariñe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-146/036
- **Iraupena**: 0:04:40. **Hasi**: 00:53:35. **Bukatu**: 00:58:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Bainatzeko erabiltzen zituzten arropak. Zarautzera udan senideen etxera.

Transkripzioa

- Zarautzera juateko. Zarautzen gure aman aizta bat zeon han, ta uda baten esan zoskun: "Etorri zaittezte". Ta gero, ba...
- Trajiak erosi bihar.
- Erositta jua giñan.
- Ta sonbrero batzuk be bai. Bi sonbrero. Ez dakit zuria ta... Ez jakiñat zeñena zan, bi sonbrero gris —aittan lutua egongo zan—, grisak zintta beltz batekin. [Zimitzekua] gris argitxuaua eta illuntxuauakin. Sonbrero harek luzero egon zian gurian.
- Sonbrero oso polittak zien, baiña gure amak zeukan lazo bat ez dakit zelakua ta haura kendu ein [zeban], haura dotoreeixa zala ta.
- Dotoreeixa zalako. "Guri ez jakun tokatzen", esaten zeban harek. Pobriak, ba, zorionez. "Guri ez jakun tokatzen".
- Eta komentau dozu baiñadorak alkilau eitten ziala?
- Alkilau eitten zien, bai.
- Bai. Bueno, Bergaran-ta ez, e?
- Bertan.
- Bergaran-ta ez, baiña plaian alkilau.
- Zarautzera juaten bazara, plaira juaten bazara, kasetan edo nunbaitten.
- Pentseizu. Pentseizu.
- Kasetan edo...
- Ta gurian aman aiztiak esan oskun: "Bueno, alkilau eitten dittue, baiña erosi ein bihar da". Zegaittik eze... Eske, egixa. Eta orduaintxe erosi giñuzen, honek be bai, nik be bai.
- Ta Garbiñe be izango zan orduan. Bi sonbrero zien ta, birendako zien.

- Juan giñan, aste baten jua giñan... Zu nerekin jua ziñan? Bai, zu nerekin uste dot.

- Zarautzera?

- Zarautzera. Eta zu Garbiñekin, edo zelan? Bi ta bi jua giñan, bahintzat. Bi jua giñan lehenengo, ta gero beste egun batzuk bestiak.

- Nik, behintzat, kristonak ikusi nittuan hantxe. Bai.

- A! Ni zurekin juango nitzan ta hori Garbiñekin. Honek iges ein plaiatik...

- Kalez kale...

- Kalez kale. Eta gure lehengusuak edo... Bai, gure lehengusuak atzetik honen bille. Honek nahi ez uretara juaterik.

- Eske, sartzen niñuan, heldu ta olatuan sartu. Ha ze gauzia e... Sekula holako estuasunik! Nik Zarautzera juateko eukitzen neban bilddurra!

- Eta zelan gogoratzen dozue lehelengo eguna? Zarautzera jua eta han hondartzia ikusi eta itsasua ta...

- Nik ez dakit. Ni ez naiz akordatzen nobedade haundirik ein zostanik. Ni txikittan jua nitzan, e! Txiki-txikixa nitzan. Aittan lutua zeuan gurian, ta nik aitta ez neban ezautu, oseake... Hiru bat urte edo, [holakoren bat neuzkan]...

- Zuk gehitxuao gogoratuko dozu...

- Nik bai. Nik honek baiño zazpi gehixao, nik hamar bat urte eukiko nittuan.

- Eta goguan dakazu, orduan, itsasua eta olatuak eta...?

- Bai. Ez dakit, ba, nik tamaiño hortako inpresioñorik ein zostan be!

- Neri ez, behintzat.

- Ibili giñan uretan, e! Biharko, gure lehengusuekin-ta uretara jua! Baiña halako bilddurrik pasau nebanik ez.

- Ez, baiña [...]

- Harek zu derrigorrian.

- Bai, ba!

- Gero etortzen jakun gure izekua, zeozer hamarretakua ekartzen zoskun. Bestela bazkarixa berandu egongo dala, eta ekartzen zoskun umioi. Bai. Ni horrekin akordatzen naiz.

- Ni ez.

- Eta orduan baiñeruak-eta egoten zian?

- Bai, egoten zien, baiña gu baiñeruekin ez giñan ibiltzen.

- Zuek ya bazekizuen, ez?

- Guk... lehengusuak-eta han tropia ibiltzen giñan.

- Ni ez naiz akordatzen baiñeruekin.

- Baiñeruak bai, baiñeruak egoten zien.

- Eta andrak-eta, zelan juaten zian? Soiñeko luziekin edo ze...?

- Ez, traje de bañua, baiña dana gonia, e?

- Dana gonia, bai. Traje de bañua goniakin.

- Gaiñetik... Oin be ikusten dia banaka batzuk, e?

6.14. Jatorria

- **Hizlaria(k)**: Linazisoro Lazpiur, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-160/003
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:01:38. **Bukatu**: 00:04:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Ekonomia eta industria » Kanpora lanera

- **Laburpena:** Biografia zehatza. Amaren gurasoak, Joxe Laspiur eta Zezili Elkorro; aitaren gurasoak, Juan Linazisoro eta Juana Areta (Zumaia-koak). Aita izatez Zumaia-koa zen. Argentinatik itzuli eta emaztea ezagutu zuen Bergaran; bertan geratu zen bizi izaten. Bergarako abertzale zaharrenetakoa. Abertzaleak; sozialistak.

Transkripzioa

- Familixao kontuak zure biografia zentratzeko. Aitta ta aman izenak.

- Gure aitta ta ama bakarrik ez, aitta-amagandik hasiko naiz, errezaua, hola arbolia puskatxo bat luzetxuo joateko.

- Oso ondo, bota.

- Bergarako aman aldeko aiton-amonak zien Joxe Lazpiur eta Xixili Elkorro.

Eta aittan aldeko aiton-amonak zien Juan Linazisoro eta bere emaztia Juana

Areta. Osea, JoanYJoana esaten zotsen Zumaixan, zumaixarrak. Eta gure

aitta zan zumaixarra. Eta haura etorri zan hona, ezautu zeban gure ama

itxuria Argentinatik bueltan da harrezkero Bergaran. Ta hasi zan hemen-ta

bere zerekin, bere gauzakin, lehengo abertzale zarretakuak. Bai, hemen

Bergaran behintzet abertzale zaharrenetakuak. Lehenengo ein zien

abertzale zarrenetakuak. Abertzaliak nik esaten jat "nacionalistas", zegatik

abertzalia izan leike aberrixa gustatzen jakon dana; bai sozialistak eta bai

beste danak. Zegatik Eibarren be sozialistak asko izan arren abertzaliak die

horrek. Horrek die... Bestela esaiezu harei, kenduiezu harei Arrate. Oin,

joango balie zerera, Villamayor de los Montesera bai, baiña Eibarren ez, e.

Eibarreko sozialismua diferentia da. Nik lagun asko dauzkat sozialistak,

nahiz eta geu izan danok jatorriz eta bizi guztian abertzaliak. Oin,

lehenguak e; oinguekin, bo!, ez daukat gehixegi fixatzeik. Iñokin be,

politikamente. Iñokin bez, iñokin bez. Hemen bat zeon, geurian lanian

ibilittako bat, Iraburuko Joxe. Iraburu da Iruburu, eta beste batzuk Iriburu.

Neretako izango zan orduan Iriburu. Zegatik herrixan gaiñian zeona,

zegatik hortxe elizian gaiñian daon basarri bat da hori, eta haura izengo

zan hiriburua. Zegatik orduan herrixa txikixa zan ba. Eta haura izango zan

hiriburua. Eta horko basarriko batek esaten zeban, erderaz gutxi eitten

zeban-eta: "Yo haser lo mío, estar conforme", "Yo haser lo mío, estar

conforme". Mientras no te metas con nadie, iñokin sartu barik eta, "Yo

haser lo mío, estar conforme".

6.15. Umetako jolasak; hidronimia

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis

- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref:** BER-174/020

- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:45:20

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

- **Laburpena:** Umetako jolasak. Inguruan zeuden iturri eta errekek. "Urkitz-erreak".

Transkripzioa

- Eta lan ta lan artian, umetan, jolastu be ingo zenduen, ez?
- Bai, bai, jolastu be beti basarri inguruan umiak, ba, beti ibiltten dia jolasian zeozetan.
- Bai? beti aprobeztatzen da?
- Bai, batian txabolia in ta bestian apurtu ta bestian bestia ta... Askotan, iturririx urrin euan orduan, ta beti ur freskua nahi ta ala! iturririra, batenbat iturririra. Ta iñok faterik be nahi ez. Oin e, oin ez gara iturririra faten! Oin errekatik ekarrittakua. Ura igual-igual etorren hona orduan be, baiña etorren tubo barik, errekatxuan etorren. Garbixa bai; epela etorten zan ta ez zan estimatzen. Lehenau ura ona eraten eben e jentiak! danak iturririx. Iturririra bialtzen eben jente dana, etxe danetan, ta oin baten bez.
- Hemen inguruan zein...?
- Bai, hortxe dau errekatxo bat harutzatxuau. Hor bueltia hartu, ta handik... zenbat eongo dia ba? bostehun metro errekatxora, goittik behera.
- Ta izenik badaka erreka horrek?
- E? Bai, badauka.
- Zelan esaten dotsazue?
- Urkitzerreka dauka horrek izena.
- Eta iturririxak?
- Ba iturririx guk beti. Bi iturri eren, bat goikua ta beste bat behekoa. Ta goikua ez zala ur ona edo ez dakit ze, filtrau itten zala beste errekatxo batetik ta beti behedora. Behekoa, ba, ur ona. Ta oin egongo da... ez dakixanak ezta bilau be ez dau ingo. Nik billauko neuke.

6.16. Emakumearen lana baserrian; gerraosteko zailtasunak

- **Hizlaria(k):** Alberdi Oruesagasti, Evaristo; Mugerza Arregi, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-176/005
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:12:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Emakumearen lana. Etxeko lanak; lixiba. Maria jatorriz Azkoitikoa. Ehunezko arropak. Gerraostean xaboirik ez zegoen eta Mariak gogoan du beraiek etxean egiten zutela. 1951-52 inguruan amaitu zen errazionamendu garaia.

Transkripzioa

- Ta andrakumiek aste guztixen, ba, ahal dan moduen ein, ahal dan moduen ein aste guztixen ohiek eta lanak eta paso. Nola ein ber zan ordun fregaketan ta eskillara edo garbitasuna edo sukaldia edo kuartuak edo, ba, jaixen emakumiek haure, preparatzeko aste guztirako. Ta gero astien lixibia ´re bai. Erropak ohekuek-eta, lixibia hari esaten zitzakon, oheko erropa haundi ta harek. Ta harek sutako hauts batekin ta barrika baten ipiñi...
- Zuk hori einda dakazu edo amari-eta be ikusitta?
- Hamen ez; han bai.
- Zu, basarrixa... nun jaixotakua zara?
- Azkoitti parte, Hutserri. Mendi honez, [esan notsun]...

- Bai, bestekaldera.
- Azkoitti aldera. Elusu gaiñetik Azkoitti aldera.
- Mendi baten, baiñe alde hontatik hamen beheratxuauen ta alde haretatikan goratxuauen.
- Eta bertan ezautu zenduan lixibia-eta eitten...?
- Bai. Eitten ezautu? Amari ta. Gero, gaiñera, erropa harek, han ataratzen zien ehunezko-edo, bueno, izera gogorrauek eta... Oin, badakizu...
- Ehunezkuek-eta orduen.
- Ehunezkuek eta ehunezkue ez zana ere berrittan-ta gogorraue egoten zan. Ta gero harek jo ber zian...
- Harrixa. Harrixa ipiñi hola aldapan, ur-albergia ta "plasta-plasta"!
- Alberkan, aldamenian ikusiko ziñuan, ba, iñoiz... Han, poliki-poliki juaz, poliki-poliki bustixez, poliki-poliki bustixez jo ber izeten zien. Ta haure eitten zan hamabostien behin edo... Ba, hola, ohiek aldatzen zienien. Eta bestie zortzixan behin erropak aldauez. Bixen bittartien siketu ta jantzi. Lokatzau ta edozer gauza eitten ziñuan! Baiñe danak eskun garbiu ber ziiñuzan. Jaboie ez zan sasoién, jaboie etxian eitten giñuan. Jaboie ez zan sasoié zan gerra-ondue.
- Gerra-onduan [... itxi]. Orduen dana gastauta egon zan jenero dana ta!
- Ez zeon edo ez zan... Guk etxian eitten giñuan. Resinakin... Erretzeko-ta ´re [baporía], irakin eitten zaban. Zela zan be... Sebue, hau, ganaue hiltzen zaneko...
- Sebuakin.
- ... sebua botatzen zako; kautika, kautika edo ez dakit ze... Ta [erretzen] eta galdara haundi baten beheko sutan eitten zan.
- Danori nahastau ta...
- Bai, ta ein jaboia.
- Morokilla eitten zan moduan izengo zan, erain ein biheko [otsen].
- Bai. Han ez dakit zenbat denboran edo ze egoten giñen edo... Ama-ta izeten zien, gu gaztiauek giñen ta. Gero moldeik be ez zeon. Gaur [...] moldie, badauzkotzu edozer gauza... Bueno, bero-beruek eta harek igual hondatu eingo littuzke plastikuak, baiña bueno. Gaur badare, baiña orduen ez zakazun. Orduen galdara erredonduen etaratzen ziñuan haure.
- Gero zatixek ein.
- Gero zatixek ein jabo´ haixekin ta gero holako tako...
- Uste dot zu hona etorri ezkeror´re [...] ekarri amak-eta uste dot eindda [daola]. Holako zatixek zien.
- Ni hona etorri [orduko]...
- Ta ordurako, ordurako iguel egongo zan ugelduta, e! Baiñe...
- ... cincuenta, cincuenta y unuen laga zitzekon olixuen-ta rasionamentuei. Ni dosien ezkondu ta unuen edo cincuantan edo horretxetantxe akabau zan rasionamentue. Ta aurretikan gauza batzuk gehittu edo librau edo ein arren, aurretiken rasionamentuen dana. Ta gero, kuadrilla txikixa daon lekuan ematen ez zebelako; kuadrilla haundixa daon lekuan gehixao ber zalako... Beti iguel, beti [pasa].
- Orduan jaboia zeuek eitten zenduen etxian...
- Bai, bai, bai, bai, geuk eitten giñuan.

6.17. Baserriaren egitura

- **Hizlaria(k)**: Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-193/012
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:17:11. **Bukatu**: 00:20:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Baserriaren egitura. Logelak; sukaldia... Lo egiteko koltxoak, arta-malutazkoak. Artileak sasoi batean estimazio handia izan zuen.

Transkripzioa

- Ta zuk basarrixa beti ezautu dozu holan?
- Nik bai.
- Nahi dot esatia, ba, sukaldia, habitaziñuak..
- Bai.
- Beti oin dauan moduan...
- Bai. Lehenao, ni jaixo-ta baiño lehenao, baiña hau barrixa dau. Han harutzao euan beste sukalde bat. Hau obriau ein ebela izango dia, ba, larogeta hiru-lau bat urte edo.
- Eta bi sukalde zekazen orduan?
- Bai. Handikaldia, ointxe be "sukalde zaharra" esaten dotsau. Ezebe ez dao traste zahar batzuk besterik, baiña "sukalde zaharra".
- Eta, orduan, zuk beti ezautu dozu beheko sua...
- Bai, bai, bai. Beheko sua beti.
- ... dauan tokixan ta...
- Bai. Ekonomikarik ez lehen. Beheko suan. Goizian ohetik jaikittakuan armozua eitteko be hantxe sua ein ta esnia egosi bihar izaten zan.
- Hemen habitaziñuak, entzunda aittari edo amari edo, halan, alkoba haundi bat egoten zala ume guztiak bertan lo eitteko...
- Ez, hemen ez.
- Oseake ya bazekazuezen habitaziñuak separauta edo...
- Bai, bai. Lau habitaziño haundixak euazen hemen; ohe biko kuartuak euazen lau habitaziño. Ta gero hor behian be baeuan beste habitaziño bat, baiña goixan geunkazen hemen ohe bikuak lau kuarto.
- Orduan koltxoak-eta zelakuak izaten zian?
- Koltxoak? Arta-malutiakin eindakuak batzuk, zerik, mollerik-eta barik. Mollian zerbiziñua ta koltxoiana bixak arta-malutazkua ein ta hantxe.
- Zuk hori ezautu dozu...
- Bai, ezaututa nao ni hori.
- Eta gero, horren ondoren, ardi-lanazkuak?
- Ardi-lanazkuak. Ardi-lanazkuak ha kendu zanian. Gero harek be txarrak diala ta oin kenduta dare ardi-lanazkuok be.
- Arta-malutazkuak ze zian, komoduak?
- Arta-malutazkuak, ba, zaku bat beteta izatia moduan. Koltxoi-azala edo betetzen zan arta-malutiakin, baiña haura harrua izaten da, ta zuluia eitten jakon hari. Koltxoia-ta jositta egoten da, baiña ha ez zan jositta egoten. Alde haundixa.
- Bai, gero ardi-lanazkua ipini zanian, aldia, ez?
- Bai, bai. Ardi-lanazkua? Jesus! Famosua zan! Ta gero, harek be danak gastau dia oin.
- Ardi-lania lehen gauza askotarako erabiltzen zan, ez?
- Bai. Ta oin bape ez dau balio.
- Galtzak eta...
- Galtzia eitteko-ta asko. Jersia be bai batzuk eta...
- Ta oin ya ez daka apenas estimaziñorik...
- Ez, estimaziñorik ez daka bape.

6.18. Lan-banaketa baserrietan

- **Hizlaria(k):** Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-193/014
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:21:06. **Bukatu:** 00:25:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserría » Baserriko lanak » Garia
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Herrira saltzera andrak joaten ziren. Gizon eta emakumeen arteko lan-banaketa. Gari-soroak. Ortuko lanaren inguruko azalpenak. Garia, artoa.

Transkripzioa

- Zein juaten zan herrira, ba, esne-saltzen eta? Zein urtetzen zan? Ama edo...?
- Ama batzuetan, ta beste batzuetan geu. Geu gehixao ama baiño. Bata eskolara fan bihar dalako, bestia bestia fan bihar dalako, ba... Ama astian behin edo juango zan ta akabo.
- Denporarik be ez, ez?
- Ez, ba.
- Hainbeste ume etxian eta...
- Bai.
- Orduan, ze izaten zan? Gizonezkuak ze bihar eitten zeben?
- Soluan edo mendixan.
- ... gizonezkuak ganaua ta...
- Bai.
- Ganaua, basua...
- Bai.
- Hori ze izaten zan, gizonen biharra, ez?
- Bai. Ta andrazkuak etxian ta kanpuan.
- Ortua...?
- Ortua ta gari-ebaten ta danian andrazkuak. Gari-ebateko sasoian? Bai. Geu umiak zaintzen, txikixauak zaintzen.
- Ume-zain?
- Bai. Ta ama solora.
- Orduan soluak ze izaten zian, haundixak?
- Haundixak edo... nahikua. Orduan euan adelantuakin erabiltzeko nahikua, igetaixakin ebari bihar izaten zian garixak danak eta.
- Orduan segarik ez zenduen ezautzen ondiokan?
- Segia bai, bedarra ebateko, ta garixa ebateko ez. Bedarra ta garua-ta ebateko bai segia, baiña garixa ebateko ez zan hemen. Gero makiñak urten eben, baiña makiñak urten ebenerako laga ereittiari.
- Hemen noiz laga jakon garixa ereittiari gitxi gorabehera?
- Ez dakit nik, baiña igual hogeta bost urte edo izango dia. Eztok? Holako bat izango dittuk.
- J: Baita gehixao be!
- P: Berrogei be bai.
- Berrogei ez dittuk izango.
- J: Berrogei ez, baiña hogeta bost [baiño...]

- Bai. Bai, Ibarrolan neuk joko neban azkenengo.

- Nun?

- Ibarrolan, hor beheko basarri baten. Eurak jo jittuen, behintzat, iñor barik. Fango giñala gari jotera ta eurak jo jittuen, ta haretzek azkenengo. Bai. Hogeta hamar urte pasauta hemen azkenengo garixa egon zala.

- Ta esaten dozu garixa, gaiñera, igitaixakin.

- Igetaixakin dana. Bai.

- Ta igitaixa ze izaten zan, espeziala? Haginduna edo...?

- Bai. Nahi dozu ikustia? Ekarrixok, hortxe daok laba gaiñian.

- [...]

- Bai, laba gaiñian badao zahar bat.

- Pekatua izaten zan segiakin moztia garixa? Pekatua ez, baiña ez zan...

- Ez zan...

- Kurioso ein bihar zan, ez?

- Bai, ba. Kurioso ein bihar zan, alerik-eta galdu barik. Kurioso ein bihar izaten zan, ta ez zan... Ta batzuek [berari] segiari beste katxarron bat ipinitta ebaten eben harekin, baiña, gero, lotzeko-ta ez zala ondo geratzen ta... Bai. Hola izaten zan.

- Orduan, soruak ze izaten zian, garixa, artua...?

- Ta arbixa.

- Arbixa, ganauendako. Arbixa segiakin mozten zan?

- Ez, igetaixakin etaratzen zan arbixa. Etara ta ekarri. Bai. Garixa egondako lekuan; ba, garixa julio inguruan ebaten zan, ta agostuan arbixa sartu han. Ta haura etortzen zan, arbixa, ba, negurako. Ta, gero, berriro abrillian edo maietzian, atzera artua ereitten zan. Arbixa egondako lekuan, artua. Ta, gero, ha artua kendutakuan, garixa atzera. Urte birik bat trukau eitten zan solua.

- Ze izaten zan hori, solua pixkat...

- Hobeto egoteko edo esaten eben, ta, ba, txandan faten zalako. Solua geldi bape euki barik, artua egondako lekuan garixa ereitten zan; gero, garixa kentzen zanian, arbixa; ta arbixa kendutakuan, artua.

- Eta, gero, ortuan ze eukitzen zan?

- Orduan porru batzuk edo, ba, leka edo... holako zer batzuk.

- Letxugarik eta...?

- Letxugak bai. Zana horixarik-eta ez, e! Lehen zana horixarik-eta ez zan egoten. Ez. Oin eukitzen dou, baiña lehen zana horixarik-eta ez zan egoten.

- Eta tomatiak?

- Tomatia, lehen, edozein baztarretan sartu ta eitten zan. Gorriñak ez zeban hartzen, ta oin gorriñak hartzen dau. Tomatia be gutxi! Artua ereindakuan edo, arto artian sartu [beti ta]. Haintxe tomatia.

- Eta jaten zenduen tomatia?

- Jan, gordiñik ez, e! Gerora bai, baiña...

- Baiña lehen, umetan-eta...

- Ez, ez, ez. Ta letxugia be azukriakin ta binagriakin. Gure tio bat, hor, Bidebarrixetan bizi izan zan. Haren alabian alabia-edo zuk akaso ezautuko dozu. Ba, harek hil zanian be, olixuakin tomaterik jan barik geratuko zan ha.

6.19. San Lorentzo auzoa eta bertako bizimodua

- **Hizlaria(k)**: Oregi Arregi, Lide
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-197/001

- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Aisia » Kirola » Futbola
- **Laburpena:** 1935ean jaiotakoa da Zubieta kalean (Mugertzako aldaparen hasieran). Hurrengo etxea San Lorentzokoa zen. Beraiek bizimodua San Lorentzon egiten zuten. Umetan, bi kaleetako mutilen arteko harra-marrak gogoratzen ditu. Futbol talde bi: Madura eta Izarra. San Lorenzo eliza etxe berriak egiteko bota zen. Bertako jaiak oso ezagunak izaten ziren.

Transkripzioa

-Ze urtetan jaixo ziñan?

-Bueno, ni milla bederatzirehun ta hogeta hamabostian jaio nitzan, eta... Zubitta kalia, Zubitta. Bueno, kalia zan Zubieta, baiña guk hemen Bergaran esaten jau Muertza, Muertza. Muertzako aldapian hasieran, e. Bai, kalia izatez Zubitta, baiña... han jaio giñan.

-Eta gero, esan zestazun, baiña, San Lorenzo auzuan edo...

-Klaro, baiña gero Zubitta hori gure etxekin bukatzen zan ta hurrengo etxia zan San Lorenzo. Muertza gaiñeko beste etxe danak zien San Lorenzo. Eta, klaro, gure bizimodua itten giñuan guk San Lorentzon, auzo horretan, bai.

-Eta zelan gogoratzen dozu, ez dakit, Zubitta kalia?

-Bueno, adibidez, denpora haretan, batez be mutikuak Zubittakuak San Lorentzokuen kontra eukitzen zittuen bere zerak, e!

- A bai, e?

- Bai, bai, rifi-rafiak, bai, bai. Eta...

-Nesken artian...?

-Nesken artian ez, ez, ez dot gogoratzen. Baiña mutillak bai. Eta... futbol taldiak be San Lorentzokuak batzuk, Madura eukitzen zebezen izena, eta bestiak, Zubittakuak, Izarra, beste ekipo bat. Eta hori bai, oso nabarmen izeten zan kale batekin bestera.

-Eta ze zian bi kale horrek bakarrik ala beste kale...?

-A bueno, beste kale batzutan be bai, baiña nere ume denporan ni gogoratzen naiz horrekin. Klaro, gero beste auzo batzuk San Antonio ta Altos Hornos ta horrek be bai.

-Euren artian [be egongo zian pikiak]?

-Eren artian, bai, bai egongo zien, baiña guk geuk hori bizi izaten giñuan.

-Eta kalia gero zelakua zan? Gogoratzen dozu pixkat ba eztakit, dendarik bazeuan?

-Bueno, ba, Zubitta edo Zubieta kalea zan e... hasi hemen Infernuko tabernian kontratik, hori sarrera hori daonetik, eta ba irteerara. Eta bukatzen zan, ba, gure etxian. Ta gure etxia zan ya aldapia hasitta Muertzarako lehenengo etxia. Eta, klaro, ez dakit zergatik zeuan bestia San Lorenzo eta guria Zubitta. Beharbada beste bi etxe horrek, bixen bittartian, edo hiru, ingo zittuen gero, eta klaro... Ez dakitt. Hor hori nik hola ezautu dot, hola ezautu dot.

-Eta zeoze zekan espeziala kale horrek?

-Kale horrek ? Ba, nik ez dakitt... Bai, auzo moduan zeukan elizatxo bat, San Lorenzo elizia. E? Bota zan oin urte ba... bastante urte dala, ta hor in zittuen etxe berrixak eta orduan e... eliza hori e... etxe batek... bueno, etxiak itteko bota zan eta etxe horreitako baten azpitan dao ermittia oin. E? Etxe berrixen baju batzutan ipiñi zan ermitita. Baiña lehen elizatxo bat

zeuan. Eta, bueno, ba, horko jaixak-eta nahiko... ezaunak izeten zien.
-Eta zuk, orduan, ezautu zenduan eliza hori.
-Baaaai, bai, bai. Ezautu? bai, bai. Nik ez dakitt zenbat urte izengo dan eliza hori bota zala. Aber, hogeta... berrogei bat urte, holakon bat izengo da.
-Ez da hainbeste denpora.
-Ez da. Bai, berrogei bat urte gutxi gorabehera esango nuke nik.
-Bai, bai, bai.
-Bai.

6.20. Baserriko lanak; basoa

- **Hizlaria(k):** Altuna Egidazu, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-207/004
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:03:10. **Bukatu:** 00:05:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Amaren baserria nolakoa zen. Lautada handia inguruan. Garia, artoa, arbia ereiten ziren. Abereak baserri guztietan; basoko lanak.

Transkripzioa

- Ama, esan dozu, Arrue basarrikua. Basarrixa zelakua zan? Gogoratzen dozu?
- Bueno... Etxe bezela ala basarri bezela?
- Bueno, etxia. Sukaldia ta zelakuak zekazen? Ze zan, halako basarri zaharra?
- Bai, bai, zaharra, basarri zaharra, lehenauko erara puskat.
- Beheko sua ta...
- Bueno, beheko sua gero... nik ezautu nauenian ya ekonomika o zera eukiko zauen, bai.
- Eta ze zan...? Esan dozu dana inguruan soluk zekazela...
- Buelta daniel soluek. Bai. Ta hola sail haundixek ez, baiñe behintzat leutadak zien ta leku ona.
- Orduan ze ereitten zan han inguru hartan?
- E?
- Ze ereitten zan? Garixa edo artua edo...?
- Orduen, garixe, artue ta gero negurako ganauendako jana arbixe.
- Alde horretatik ez zan asko aldatuko, ez? Inguru guzti honetan basarrietan...
- Danak antzera, danak antzera. Gero, patata puskat etxerako ta gero beste baratza sail bat ta kitto.
- Ganaurik eta bazeken?
- Bai, bai. Bueno, ganauak... hemen behixek eta idixek normalien basarri danetan zeren.
- Idixak be bai?
- Bai, bai, bai. Basarririk ez dot uste egongo zanik idirik ez zeuenik. Ta gero,

ba, basoko lanak eta garotan ta asko eitten zan lehen.
- Eta derrior idixen indarra bihar..
- Bai, bai, bai. Hola, lan arin samarrak zienien, baserriko lanak-eta arin samarrak zienien, behixekin be ibiltzen zan, baiña normalien idixek.
- Orduan, aman basarrixa haura. Familixia bertan bizi izandakua...?
- Bai, ba, Eroski in arte bertan bizi izan zien.
- Eta aurretik familixa guztia bertan...?
- Bai, bai, bai, bertan, bertakuek.

6.21. Txikitako jolasak (III): "puntilikabo"

- **Hizlaria(k)**: Maiztegi Elkoroberezibar, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-212/004
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:04:11. **Bukatu**: 00:05:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Puntilikabora nola jolasten zuten azaltzen du.

Transkripzioa

- Eta gero, tortolosak edo?
- Baita, ta puntilikabo, zerakin be bai, orratzakin.
- Eta zer da, zelan da puntilikabo?
- Puntilikabo izeten zien, orratza bakizu ezta?
- Josteko orratzak?
- Dauka puntia alde batetik, ta bestetik burua.
- Bai.
- Ta puntilikabo izaten zan kabo burua, ta punti, ba, pikatzen dabena. Esate bateako, puntili, puntilikabo, ta jartzen giñan eskillara batzutan edo, eta harexekin jokatu eitten giñuan.
- Eta zelan izaten zan ba jokua? Ze, zelan zan jolas hori?
- E?
- Ze eitten zenduen orratzekin baiña?
- Orratzekin, ba, zeukan papelakin eiddako halako zer batzuk, eta hantxe sartuta eukitzen giñuzen, eta gero etara bat, ifini hola, ta puntilikabo, ta azertatzen bazeban, ba emon ein bihar, zera, orratza azertatzen ebanai emon bihar jakon.
- Osea ke berak asmatu bihar zeban ea burua edo puntia zekazun zuk.

6.22. Txibisto "bandidoa"

- **Hizlaria(k)**: Otadui Ezpeleta, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Laborda Otadui, Miren
- **Erref**: BER-225/015
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:24:22. **Bukatu**: 00:25:42
- **Transkribatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Bergaran pertsonaia xelebri asko egon dira. Bere osabaren jaiotetxean jaiotako "Txibisto", Silvestre Ariznabarreta, alproja ospetsua izan zen Espainia osoan. Kristorenak eta bi egindakoa zen Pastorak kontatzen dituen istorioen arabera.

Transkripzioa

- Gero tipo zelebriak be egon die Berga(ra)n. Bueno, nik batzuk ezautu dittut. Bat, haura ez neban, bueno ezautu neban hemen hil zalako ospitalian, oin ez dakit zenbat urte, baiña gure tion etxian jaiotetxian jaiotakua. Hiru bizitza ei zeren han, eta zan Txibisto don Silbestre Ariznabarreta, baiña Txibisto esaten zotsen danak. Ta haura izan bihar izan zan bandidu famosua Espaiña guztian. Kriau egon zan hantxe gure tiak esan dot Errotako Mondrauen, kriau egon zan han. Eta gero Espaiñan gizonak eta hil zittuan. Eta egon zan Okañan edo preso urte askuan. Handik iges ein, eta etorri zan, ta zela ezautzen zeban Mondrauen Legarre errota, Legarre zan gure tian ta errota, han lapurretan itteko asmuhan edo sartu zan, eta tiruak eta bota zittuan. Gero ez dakit, ni akordatzen naiz gero ya xahartuta, hemen gizon haundi bat zan. Ospitalian hil zan.

6.23. Luis "barberua"

- **Hizlaria(k):** Otadui Ezpeleta, Pastora
- **Elkarrizketatzailea(k):** Laborda Otadui, Miren
- **Erref:** BER-225/018
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:28:55. **Bukatu:** 00:29:51
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Lanbideak » Negozioak, dendak
- **Laburpena:** Luis "barberua" Arrudiagan bizi zen baina artekalean, Marianonekoaren ondoan zuen bizartegia. Txikito asko hartzen zituela kontatzen du Pastorak, behin bati bizar erdia moztu, tabernara joan eta ez zen gehiago bueltatu.

Transkripzioa

- Gero beste bat zauan, Luis, Luis Barberua. Haura be haura be Arrudiagan bizi zan, baiña Artekalian zeukan Marianoneko onduan barberixia. Haura be beti egoten zan txikituekin ondo. Egun baten, Anita Bilbaok esaten zeban, beran aitta jua zan bizarra kentzera, eta erdixa in zotsan, ta esan zotsan "bueno, itxoin pixkatian e?". Juan zan tabernara, ta gehixau ez zan agertu. Erdixa bizarra kenduta, ta bestia kendu barik. Ni harekin akordatzen naiz, gero igual joaten zan antxintxiketan kalia "iupaaa! lupaaa!" eta puzkarra bota "iupa!" ta "iupa!" ta puzkarra bota "iupa!". Bueno, haren andrak, orduan haren andrak zelako miserixak pasatzen zittuen e? Zeaittik ez zauan, ez zauan dirurik eta gero gaiñera holako bat tokatzen bajatzun, ba ederki.

6.24. Irratia entzuteko tirabirak

- **Hizlaria(k):** Oregi Arregi, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oregi, Irune

- **Erref:** BER-228/010
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:11:51. **Bukatu:** 00:13:19
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia
- **Laburpena:** Irratia gustura entzuten zuten. Etxeko bakoitzak zer programa zuen gustukoaren azaltzen du. Zer tirabira izaten zituzten programak aukeratzeko garaian. Kantuak asko gustatzen zitzaizkien. Kantupaperak denak erosten zituzten. Anai-arreba guztiek abesten zuten gustura, baita dantzatu ere.

Transkripzioa

- Ta telebisiñua? Berandua ekarriko ziñuen?
- Telebisiñua? Berandu. Oso oso berandu, ekarri. Gero radiua ekarri giñuan e? Geuk be e? Eta radiua entzuten, ba bai, gustatzen jakun. Ta guri gustatzen jakun ba kantuak eta hola. Gure aittai gustatzen jakun telediaixuak eta hola, notiziak. Eta beti hasarre ibiltzen giñan, hasarre ibiltzen giñan, notizien orduen ixilik ixiltzeko, bueno [...], "ixilik egon zaittezte, puskatian sikiera!". Ta beti hola jarduten zan gure aittek jarduten zeban. Guri, berriz, haura ez jakun interesatzen, notiziak eta hola, horrek kontu horrek ba ez. Bai ba, bakizu, gerrako kontua edo bata edo beste, guri ez zoskun inporta izaten holako kontu horrek. Gu, ba, bestela. Kantuak eta bai. Kantu asko ikasten giñuan. Kantu asko. Etorten zien kitarra jotzen ta hola, itsuek eta hola kitarra jotzen eta, guk kantupapelak (saldu eitten zittuen) danak erosi. Kantu-papel danak erosi, eta beti etxian kantuan, beti kantuan. Beti etxian, beti, asko kantatzen gustatzen jakun asko kantatzia. Anai-arreba danoi e? Danoi. Gu lanian etxian taillarrian igual lanian eta bueno, kantatzen giñuan asko. Eta gaiñea duo ta dana eitten giñuan e? Bai, oso kantarixak giñan, ta dantzarixak be bai. Gu hortan, hortan e... bastante, gustatzen jakun asko.

6.25. Gaur egungo eta orduko umeen arteko aldeak

- **Hizlaria(k):** Oregi Arregi, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oregi, Irune
- **Erref:** BER-228/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:17:57. **Bukatu:** 00:19:17
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Lehengo mutikoen jolasak eta gaurkoenak ez dira berdinak. Gaur egun umeak beti ikasten, baina garai haietan ez. Etxeko zereginak lehen neskek egiten zituzten. Baina gaur egun ez dago alderik mutilen eta nesken artean.

Transkripzioa

- Orduko mutikuak oinguen beste modu bateko jolasak eta zeuzken, diferente. Oso diferencia zan. Oinguan aldian diferente. Oin estudixua ta, bueno, ez dauke kasi jolasteko gogo, astirik be ez. Porke batian juaten die

dibujura; hurrengo musikara; hurrengo, berriz, dantzara; eta horrek danak. Oin, eskolatik erten eta hori. Baiña orduan ez. Orduan eskolatik erten ezkerio elizara, funziñua baldin bazeuan, elizara. Ta bestela, ba, libre. Etxian lana baldin bazeuan, edo galtzak erreparatzia, edo holako, edo afaixa gertatzia edo... familixa haundixa izan ezkerio, gure moduan, ba bueno, ba lagundu ein bihar, ta orduan izeten zan, ba, patatak zurittu, edo gaberako, porru-patatak edo ipini biher bazien, ba horrek lan horrek. Zaharrenak izan ezkerio etxian, txarrena hoixe. Harrapatzen giñuzten beti. Ta geo atzetik mutillak, ba mutillei ezebez. Haek beti libre. Baiña neskak izan exkerio, beti zeoze ein ein bihar. Neskak ez zeuken hainbeste libertade; mutillak gehixao. Oin, oin berdin da. Ba, ez da[kit]... bueno, berdin oin be ez dakit, baiña bastante, baiña lehen, lehen etxekolanak neskendako. Etxekolanak neskendako. Hori seguru.

6.26. Ekonomika

- **Hizlaria(k):** Oregi Arregi, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Oregi, Irune
- **Erref:** BER-228/033
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:41:39. **Bukatu:** 00:42:42
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Ekonomika nola erabiltzen zen azaltzen du. Horregatik ezin izaten zuten kalera horrenbeste irten.

Transkripzioa

- Ta gero ba, lanak eitteko, ostian bazkaixa, edo patatak zurittu, edo sua ein, orduan sua be ein bihar izeten zan, txiribirixak ekarri, harrikatzakin, eta astillekin, eta hola. Ekonomikia. Eta klaro, orduan, oingo moduan "ra!" entxufia ipinitta ez zauan. Ein ein biher izeten zan sua, ta klaro, gu eskolatik juaten giñanian etxera be, ba, lagundu ein bihar izeten jakon. Guri ez jakun gustatzen, hasarretu eitten giñan. Lagunak etortzen jakun atera diarka, eta karo, guk batian ganbarara juan, handik zea ekarri, astillak ekarri, sua ein, eta horrek danak ein arte, ezin erten. Eta gure lagunak, berriz, bi aizta zien bakarrik, eta etxian lanik be ez zeuben eukitzen. Josteik be ez zeuben eitten ta ezebez. Eta beti guri diarka. Ta guk ezin izaten giñuan erten hainbeste. Bo, oin ez daukat damuik, e? Ez jat bape damutzen, baiña orduan hasarretu eitten giñan. Beti hasarretuta. Beti lanian, eta beti ez dakit zer, eta beti hasarre ibiltzen giñan.

6.27. Aurkezpena

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite
- **Erref:** BER-230/001
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:30
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

- **Laburpena:** Non jaio zen eta non bizi den azaltzen du. Zer kontatuko duen aurkezten du.

Transkripzioa

-Ba, ni zerian jaiotakua, Gaittaon, Bergaan, gero etorri nintzan ba Osintxura, Olandira, eta hemezortzi urte doiat hementxe, pentsain, atzo zalakuan-da, hementxe. Oñ kontau bihaitut lehenauko gure gazte-denporako zerak. Bueno, ez pentsau zaharra naizenik, e, baiña bajoianaz urtiok. Eta udaazkenekuak eta, ene, udaazkenekuak eta, ene!

6.28. Etxeko bazkaria

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite
- **Erref:** BER-230/003
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:02:13
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- **Laburpena:** Amak prestatzen zuen bazkaria eta merienda azaltzen du. Bazkalorduko kontuak.

Transkripzioa

Baba-lapikua hola saldatsu samar eukitzen jonan, eta gero gaiñian zopak eindda, urdaixa, urdai-zati bat; eta gero meriendatzeko intxaurrek edo txorixua be eukitzen giñunan, etxeko txorixua, earra gaiñera. Eta harek eta ifintzen jostanan, ez oingo moduan kanpazoik eta holakoik be, keba! Lur-banastatxo bat, ifiñi han babalapikuoi eta zerien, eta bueno. Juten nintzonan eta gero Luisitak esango jostanan, “hi, ahazteke ekarritzen gero bururako gantxuak eta”. Bai, bai. Harek beste papelen baten batu eta eruaten najittunan; bazkaltzen giñunan, aittak esango jonan, “bueno oiñ lokamustxo bat edo”. Han garo pillan baten edo. Geuk ebaitzen giñuan garo-moltzon baten gaiñian bota zakua aittak eta eitten jonan lokamusoi.

6.29. Ilea apaintzen

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite
- **Erref:** BER-230/004
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:02:13. **Bukatu:** 00:02:53
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aitak siesta bota bitartean, etxeko neskek ilea nola apaintzen zuten azaltzen du.

Transkripzioa

Baiña guk keba!, juten giñustanan, han bide baztarren baten egongo zonan ganau hanka-markan baten ura, eta telia eindda eukitzen jonan harek, eta putz eiñ, kendu haura, eta orratzixoi eta gantxuok eta eruen eta batak

bestiai illiak atondu. Orduan ez zonan egoten oingo moduko pelukerixara ta. Bai, ezta jun biha danik be. Ipiñi eta gu prest. Gero buruko paiñolua erabiltten giñunan beti basuan. Bueno!, buruko paiñeluoi jantzi gaiñien eta gu prest lanerako, aittak siestia eitten ebanerako gu pelukerixako bueltia eindda. Gero ekiñaldi bat eiñ han eta erromeixarako, Anguzarrera erremeixara juteko prest.

6.30. Lana bukatutakoan, dantzara

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite
- **Erref:** BER-230/005
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:02:53. **Bukatu:** 00:04:47
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- **Laburpena:** Iluntzean kanpaiak jotzen zuenean bukatzen zuten lana. Aitarekin batera errezatzen zuten. Etxera joan, gauzak hartu, eta beste leku batera afaltzera. Apaindu, eta festa zegoen lekura oinez. Dantza ezin zuten egin edonola. Eta hurrengo goizean, jaikitze komeriak. Horrela egunero.

Transkripzioa

-Gero illuntzien jotzen jonen, Aramaittakua esaten jakonan, San Kristobalen jotzen jonen kanpaia, San Migelen be bai. Da jotzen jonen da bueno, haura izeten zonan lanai lagatzeko ordua; Aramaittakuo noiz joko. Ha hasten zonan eta "han aitta!, aramaittakua", "Bai, baiña hau pusketiau aber zertzen doun". Baiña haura jotzen hasi orduko aittak kenduko jonan txapela eta eitten giñustanan errezuak. Errezuak, Aittaguria ta, Paternosterren bat bota ta bueno. Gero laster izeten zonan etxerako martxia. Gu, bueno, hartu geure trastiok, lurbanastatxu horretan bazkaiitako traste eta zerak eta, trote! Eta Bidebasotik, pentsain, Lamiategira etorraldixa. Gero ixoiñin Gaittaoko puntara. Hara jun, afalduko giñunan, edo behintzet porru-patatia ta izeten zonan lehenaoko afaittako zeroi, ta afaldu ta gertau ta kendu geure gantxuok eta zerok eta prest, erremeixara. Jun hari gero beste hiru-lau kilometruan Angiozarrera oiñez. Jun hara, bueno, piezaik baztarrian-da pentsau be ez eitteik, e! Pieza danak eiñ. Baiña gero goizao, hori bai, hori etorten giñustanan ba beranduenen be hamaiketerdiak, eta berandu gatozela eta. Etorri hadi han ukatu dantzan eta Gaittaoko puntara takarra-takarra-takarra ta. Hurrengo egunian aittak goizian diar eitten ebanian berriz basorako, argi, e!, han eztaixela esan aittak "atzo etxaonan loguraik!, Enee!, haura entzutia baiño nahixao giñunan guk, bueno! Eta hurrengo egunian beste norabait basora; beste hainbeste. Eta hurrengo egunian erremeixia pasauta zonan baiña orduko kontuak esaten lanian garosailak ebaitzen giñustanan, guk, e. Bueno, bueno, bueno.

6.31. Elgetako jaiak eta etxerako buelta

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite

- **Erref:** BER-230/006
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:04:47. **Bukatu:** 00:06:13
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Dantzan gustura, eta ilundu. Etxerako bidean, beldurtuta egon arren, pozik kantari joaten ziren. Hurrengo goizean, jaikitzeke lanak.

Transkripzioa

-Eta hurrengo aurreko eguneko kontuak esanaz, puff. Eta hurrengo egunian be beste hainbeste, aramaitakua jotzen ebanian erreza eta etxera. Erremeixaik ez giñunan lagatzen, ene! Elgetara ta. Elgeta lekutan jaon Gaittaotik. Juten giñustanan, gaiñera agostuan izaten zittunan Andramaixak, beroik haundiñeko zerak eta. Juten giñustanan Aldaiko eta Aldai-etxebarriko eta danok, ixotzen giñunan Asentziora, Asentziotik handik Elgetara. Elgetara jun eta piezaik be ez, han be ez. Geratu? Pentsau bez. Ukatuta. Ene!, hauxe pieziau behintzet, ai, hau bai dala politta!, hauxe einddakuen, e, hau einddakuen etxera. Hau einddakuen etxera, illuna eitten jakunan eta, etorri hari gero mendiz mendi; baiña kantu baten etorten giñustanan, billurra be eukiko giñunan, e. Baiña bat eta bi ez giñustanan etorten, kuadrillia, danak neskak, e; eta kuadrillia etorten giñustanan kantu baten, hor Anguzarko basarriko txakur danak zaunkaz giñuzela. Ene!, noizko aillegau etxera... Eta etxera aillegauta deskantsatzen giñustanan baiña, hurrengo egunian jun hari berriz zerera, berriz basora, berriz zerera. Enee!

6.32. Bizikletan ibiltzeagatik, jertsea hondatu

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aginagalde, Maite
- **Erref:** BER-230/008
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:08:11. **Bukatu:** 00:09:43
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena:** Oraindik bizikletarik ez zuenean, bizikleta alokatu eta Oñatira joan zen beste neska batzuekin, bere jertserik onena eskulekuan jarrita zuela. Aurretik zihoan lagunak oreka galdu, eta harekin trabatu zen bizikletarekin. Jertsea hondatu egin zen.

Transkripzioa

-Beste baten, artien nik enaukanan bizikletaik, eta pentsau dou neska-gaztiok bizikletak alkilau eta Oñetira. Altos Hornosen egoten zonan alkilerra, hoixe, Barrena. Oin be Barrenak neri sekulako saldua eitten jostan; eske, enee!, gu giñustanan, bueno. Eta bizikletok eta. Etxakiñat ba, atsalde guztia pezeta bi edo. Hartu bizikletioi eta jun gaittun. Eta orduantxe guk Luisitak eta bixok jersiak ein barrixak, San Antonioko zerian gaiñera, Mikeletianian edo einddakuak, polittak jertsiak. Eta nik, ama siestan eta hartu jerseik onenoi da lotu manibelian eta jun gaittun. Da claro, beste bat nere intimia zonan, Aldai-etxeberrikoa, zerian bizi don,

Bitorixan, eta harek be etxakiñan ondo bizikletan. Klaro, noizian behin kotxe bat pasatzen zonan karreteran, ez oingo moduan, bagoianaz Zubillagatik gora, eta Zubillagatik gora bagoianaz eta jarri don haura aurrian. Eta kotxe bat, bli tta, jarri da aurrian eta ostientzekuak haren ondoren karabanen, eta haura hasi don esiak eitten, dizt, dizt, noiz jausiko, ez jausiko, neri haren erruberan tratatzen jatan nere erruberia, nahasten gaittun eta bixok lurrera. Eta zer eta nere jersioi etxatan ba dana grastu han. Haura penia!, haura penia! Gero Lusitai: “zela baiña!” ta.

6.33. Ikaskide bihurri baten abenturak

- **Hizlaria(k)**: Garitano Elkoroiribe, Maritxu
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aginagalde, Maite
- **Erref**: BER-230/011
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:13:39. **Bukatu**: 00:14:49
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- **Laburpena**: Ikaskide bihurri batek (Silbestre) gereziak biltzen zituen andereñoa konturatzen ez zen bitartean.

Transkripzioa

Eta Silbestre bat bazonan, ene! Silbestre, laster urtengo jonan. Harek atian urten orduko Silbestre bajoianan, aire! Edo keixia edo melokotoia edo sagarra edo zeoze baldin bajaonan, hartara, keixa arbolara ixotzen zonan, bueno! Besteik ez haren modukoik. Segittuan zonan keixa puntan. “Silbestre, neretako be ekarri, e!, neri be bai, e!” Ekarriko jittunan, eskuok, poltsikuok, kolkuok, dana beteta. Eta gero maistria zaittu bihar izeten giñunan eta, “Silbestre, badator, badator!” , diar baten. Eta maistriak jaukanan gorra, bueno, haundixa. Bestela Sustraitzatik be entzungo jittunen gure diarrak. Etorten zonan. Batzutan maistria igual bittartian sartu bera baiño lehenao. Eta gero maistria jutun zonan gora, goixan jeukanen habitaziñuak, eskilleretan gora trastiak lagatzera edo errekaok, eta bestiak jaukanen giltza-zulo bat, atian jeukanen giltza-zulo bat gure bentania baiño haundixaua, eta handik begira jartzen zonan hola, eta maistria gora jutun zanian, ra!, sartu ta ekarten joskunan ba eskola danandako, keixia baldin bazan, okana baldin bazan. Gure Beitzibarko tio Asentzionak eta keixak eta. Baiña zelako keixak! Puf! Adarrak eta! Haura? Bueno!

6.34. Santa Cruz apaizaren pasadizoa Elorregi auzoan

- **Hizlaria(k)**: Altuna Egidazu, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-247/004
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:17:30
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

- **Laburpena:** Elorregi auzoko toponimia. Santa Cruz apaizaren inguruko pasadizoa.

Transkripzioa

- Bueno. Esan dau Kortatxo arrua edo berak esaten dabela.
- Errekiai?
- Honi. Kortatxo arrua hau.
- Hemen gehixao badao basoik edo?
- Bueno, errekatxuak... [hemen dao errekatxua]... Mokorroste. Mokorroste. Hemen dauen tontorra da, hau tontorra. Hemen guk esan izen dotsau Mokorrosteko errekatxua. Gero...
- Alde honek [...].
- Beste bat —egon, e— hemen dauena, hau, hauxe, [hau zuluau], Urasketa. Zeatik eze hemen lehen egon zan... [...] oin hemendik dao bidia, baiña lehen izen zan [hemenditxik ingurutik] lehengo “camino real” edo esaten jakona, lehen hemen goittik egon zan. Eta hemen egon zien ur-aska batzuk. Justu-justuen ezautu nauen lehenau, ba, zaldixek, zera, kotxiek, zaldixek... zaldixendako, ura erateko leku bat. [Hemen egon zan gauza] zer bat: hori, Santa Cruzek zerak... liberalak hor harrapautako zera... hamen... [segundan edo hartutako moskete] pilla bat Donostia aldera [zekartzela] hemen harrapau zittuen Santa Cruzek eta danak hartu ta Kanpazarrera ihes ein. Hori izen zan hementxe, hemen [kamiñuen] tontortxuen, hemendik pasadan.

6.35. San Antoniokoa

- **Hizlaria(k):** Agirrebeña Lizarazu, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Erref:** BER-270/002
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:01:19. **Bukatu:** 00:04:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** San Antonion bizi izan da beti, gurasoekin. Espaloi aldetik lehenengo etxea. San Antonio kalea zen lehen, orain Urteaga. Enseñanza izan ibili zen eskolan, 14 urte arte. Lehen Jaunartzea eta nagusia, biak San Pedron. Mokorra hautsi arte bizi izan da toki berean.

Transkripzioa

- Eta nun jaixo ziñan, nun? jaixo nun?
- Aittakin ta amakin beti bizi izan dou San Antonion.
- San Antonion?
- San Antonion. Eta parria badakizu nun eon zan?
- Bai, bai.
- Bueno, parratik illara haretan, kale... Espaloi aldera. Espaloi aldetik lehelengo etxia, “número siete” zan lehen.
- Ta kaliak zela eukan izena? Kaliak izena zela eukan?
- San Antonio.
- San Antonio?
- Bai ba “calle San Antonio”. Oin dago Urteaga.

-Baiña lehen San Antonio zan?
 -Lehen San Antonio. Oin Urteaga dago, kanbixauta, "calle Urteaga".
 -Eta eskolara nora jua ziñan?
 -Eskolan ibili nitzan ni mojetan Enseñantzan, urte danetan, hamalau urterarte.
 -Zenbat urtekin hasitta?
 -Bueno, ba, ez dakit, bostekin o seikin edo zenbat eruaten zittuen umiak eskolara... Gauza zienian eruan ta, akaso... behintzat lehelengo komuniua itteko San Pedro... haruz jua. Lehelengo komuniua. Gero komunio jenerala be bai. San Pedron danak. Eta... gero, han bizi izan naiz. Han bizi. Urte danak han ein dittut. Joan zan... hasta mil novecientos noventa y... mil novecientos... bueno, [osease], nik ein dittut larogeta... hamasei, larogeta hamasei urte ondo. Ondo, etxian. Neu bakarrik bizi naiz, bizi nitzan. Eta nere etxia erabili, ortua be erabili...
 - Joño!
 - Ortuan be lana eitten neban, eta ondo, ondo. Normal bizi izan naiz ni urte horrek danekin. Eta tokau zan egun bat, sukaldian zutik-zutik naola, plas! jausi nitzala. Eta jausitta geldittu nitzan. Mokorra apurtu nunbaitt, geldik egoten. Gastau eingo zan...! Hazurrak gastau eingo zien.
 - Igual, igual.
 - Ta plas! jausi nitzan. Golpe barik, e! Jausi. Gero, hartu eta auzokuei diar ein notsen, goikuei ta albokuei ta, diar baten ni. Eta etorri zien, hiru andra etorri zien, eta harek segittuan diar ein zotsen loibe, eta segittuan anbulantzia etorri zan. Hartu ta Mondragora. Kitto. Mondragotik hasi giñan bueltak eitten, azkenian honaxe allegau.

6.36. Aita, Altos Hornosen lanean

- **Hizlaria(k)**: Agirrebeña Lizarazu, Gloria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Erref**: BER-270/040
- **Iraupena**: 0:00:56. **Hasi**: 00:40:40. **Bukatu**: 00:41:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
 Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Aita baserritarra zen, baina Altos Hornosen egiten zuen lana. 79 urterekin gaixotu eta hil zen, jubilatua gabe. Ama 94 urterekin hil zen.

Transkripzioa

-Zure aitta zan Gaberixakua?
 -Toribio.
 -Toribio.
 -Agirrebeña.
 -Bai. Eta ha baserritarra zan, edo kalia eitten eben lan?
 -Hori zan...
 -Baserritarra zan?
 -Bai.
 -Eta baserrixan bizi zan...?
 -Altos Hornosen lan itten zeban.
 - A! Altos Hornosen?

- Altos Hornosen, lana itten zeban Altos Hornosen, itxen zeban.
-Eta noiz arte in eben lan, harik eta jubilau arte?
-Ordu asko sartzen zittuan, baiña gaixotu zan hirurogeta... hirurogeta hemeretzi urte-edo dittuala, gaixotu zan ta hil zan, jubilau barik!
-Oindio lanian?
-Jubilau barik hil zan. Ta ama, ostera, "noventa y... noventa y cuatro" edo bazeuzkan.

6.37. Emakumeak tabernan sartzea gaizki ikusita

- **Hizlaria(k):** Arrieta Larrañaga, Nati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Mendicute, Josu
- **Erref:** BER-312/032
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:01:10. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Angiozarren Elizamendiko jaietan anaiak taberna jarri zuen behin eta hari laguntzen ibili zen eta gero ahizpari ere laguntzen zion tabernan. Ez zegoen ondo ikusita emakumeak tabernan sartzea.

Transkripzioa

-Tabernan lan in baiño lehenau sekula egon ziñan lehenau tabernaren baten-edo, egoten ziñen?
-Tabernan egon ez. Bueno, herrixan, hor herrixan, hor zera Angiozarren zeuan Elizamendi, dao, ermitta bat, han eitten zian jaixak, Pazkua izaten zan ta hango han ipintzen zan tabernia, baten batzuk, ta nere anaiak behin ipiñi zeban ta behin berai laguntzen eta holan bai baiña bestelan hola ez, tabernan ez. Ya hemen urte mordua ein nitzuan ta gero ezkondu ta gero ere faten nitzan laguntzera-eta, asko.
-Baiña jentia juten zan gizona gehixau igual.
-Tabernetara? Hoixe! Gu geu tabernan akostunbrauta ta igual faten giñan norabait eta sartzen giñan tabernara ezta? Baina, ez zeuan ondo ikusitta orduan, tabernara fatia-eta ez zeuan ondo ikusitta. Igual zu juaten baziñan Bergarara-edo, tabernara ez ziñan faten igual, igual faten ziñan pastelerixara. Ta ba pastelerixan igual pastelak edo txokolatie-edo igual jaten ziñuan eta hola, hola izaten zan. Tabernetan ba oingo moduen emakume bat bakarrik igual ba ez orduan gutxi.

6.38. Enseñanzako ikasketak "mediapensionista" moduan eta lehenengo lana

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/005
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

- **Laburpena:** Enseñanza ibili zen, mojetan. Oso bizkorra zela esan zioten bere aitari. Takigrafia eta mekanografia ikasi zituen. Azterketa egin zuen, eta baita lana lortu ere. 19 urterekin. Motoan joaten zen lanera. "Mediapensionista" zen mojetan; aparteko eskolak ordainduta jasotzen zituzten. Interna asko kanpotarrak ziren (madrildarrak...); haiek bazuten batxilerra ikasteko aukera, baina beraiek ez. Ikasgai solteak hartu behar zituzten, ikasketak osatzeko. Frantsesa ere ikasi zuen, baina gutxi. Horretarako Frantziara joan behar zen. Oso gutxi joaten ziren. Mutilek aukera gehiago zuten. Aretxabaletan Bergarako zazpi neskak egin zuten azterketa. Denak kolokatu ziren inguruko herrietako lantegietan (Oñateko Forjas de Zubillagan, Arrasateko Industrias Asan eta Eskoriatzan), baina postu hori berak lortu zuen.

Transkripzioa

- Eta gero ya Enseñanza, mojetan.

- Gero mojetan, bai.

- Ta hor...

- Hortik abixau zotsen aittai zeozen eskolia emuteko, zeaittik denporia galtzen egoten nitzala bestiekin, enredau bestiekin. Ta gero... Aurretik hartzen nittuan, leziñuak bixkor hartzen nittuan, ta gero denporia pasau bihar neban zelabait han bestiak enredauta. Gero "taquigrafía y mecanografía", gehixen neri balio izan dostena da takigrafia e. Zeaittik [gero] han egon zientan examiñak, zazpi lagun jua giñan, ta handik etorri nintzian examiña inda, aittak esan zotan "ta zela, Elisabet", ta "Bihartik lanera noia, aitta". Hurrengo egunerako ya diar in zosten juateko lanera, bai. Gaztetan, han hasi nintzan, hemeretzi urtekin e, lanian. Ta orduan diruik es neukan, ta motorra.

- Ta, Enseñanza egoten zan e... mediapensionista...

- Mediapensionista, mediapensionista, bai. Zeuan [...], gero mediopensionistak eta bestiak kolejalak, barruan zerenak. Baiña gu mediapensionista egon giñan, bai. Gu juaten giñen eguerdiarte ta gero bazkaltzera etxera. Ta gero atsaldian atzera lanera, eskolara, bai. Ta bestiak zerenak, ya, kolejalak, barruan gelditzen zien. Handik, kanpotik etorritakua zien asko e, Madril aldetik eta... asko zeren, bai. Eske bo, mojetakua izan da... seminaixua izan zan moduan, seminaixuan gizakumiak eta mojetan emakumiak, bai.

- Ta, diferentzia haundixa zeuan interna egon ala mediapensionista egon?

- Bai, bai, bai, bai. Eske mediopensionista egonda, aparteko eskolak emun bihar ziñuzen ordainduta. Ta barruan zerenian ya pensiño bat pagauta ya barruan zeren, bai. Diferentzia haundixa ya erakusten be bai e, bai.

- Esaten dabe batxilerra ikasteko interna zerenei bakarrik erakusten zotsela, bestiei ez.

- Karo, bestiei ez. Ez zoskuen emuten, ez. Guk horretxeatik hartzen giñuen "asignaturas sueltas" esaten zebena, zeoze.

- Aparte.

- Aparte, aparte pagauta, bai. Frantsesa be ikasi neban, baiña aztu jat.

- Hantxe bertan, aparte, orduan, klase partikularrak hartzen zenduzen?

- Bai, klase partikularrak, bai. Denporia galtzen neban ta, aittai abixau zotsen, honi beste zeoze emuixozu, e, zeatik denporia galtzen dau ta bestiei galdu eraitten.

- Orduan ikasi ziñuan "Taquigrafía y..."?

- "Taquigrafía y mecanografía", bai.

- Eta frantsesa be bai.

- Eta frantsesa, frantsesa gutxi. Hortarako, frantsesa ikasteko ondo, Franziera jua bihar zan, ta gurian aittak hori ez zeban nahi. Kanpora ez, txikixena etxian. Haundixak eztakit zela egongo zien, baiña ni, txikixa, etxian, bai.

- Garai horretan ez zan...

- Ez, ez, kanpora juatia keba, kanpora gutxi juaten zien.

- Ta neskak gutxiau?

- Honbre! Gizakumiak beti euki dabe eskubide gehixau guk baiñok.

- Esan dozu Aretxabaletara jun ziñanian prueba hori ittera zazpi jun ziñatela...

- Zazpi lagun.

- Ta danak neskak?

- Neskak. Danok neskak, bai.

- Bergarakuak danak?

- Danak Bergarakuak. Ta gero batzuk kolokau zien Zubillan, "Forjas de Zubillaga", beste batzuk Mondraon, "Industrias Asan", eta ni Aretxabaletan. Ta beste batzuk Eskoriatzara be jua zien e. Ni Aretxabaletan, erdizpurdiz.

6.39. Frantziara joatea, frantsesa ikastera

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/006
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:08:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- **Laburpena:** Legorburutarrak Frantziara joan ziren, baina berari aitak ez zion utzi; Kontxita Saizar era joan zen. Familia aberats samarrak ziren. Urte guztirako joaten ziren, ikastetxe batera.

Transkripzioa

- Batenbat ezagutu ziñuan Bergarako...?

- Kontxi, Kontxi...

- Ez barkatu, neskan bat frantsesa ikastera Frantziara jundakoik edo?

- Nerekin zerenak, batzuk , jua zien.

- Bai, e?

- Bai.

- Zein, e, baten bat izen...?

- Legorburutarrak jua zien.

- Legorburu?

- Bai ,e, Legorburutarrak jua zien Franziera. Neri aittak ez zotan laga ta hamen geldittu nitzen. Ama barik zelan nenguan, ba aittak esandakua itten zan.

- Eta Legorburutarrak eta besteik badaukazu goguan?

- Ez.

- Ez.

- Kontxita Saizar ta horrek be bai, Kontxita Saizar ta horrek be jua zien, bai. Horrek ya danak hilda dare.

- Eta ze izaten zan, hola, Frantziara bialtzeko ikastera familixak dirudunak ala...?
- Dirudunak, puxkat zeukenak, bai, puxkaat zeukenak. Gitxikin ezin zan jua. Ta gu, gu gutxikuak izango giñan ta hemen geldittu giñan.
- Joaten zien... udan joaten zien udia pasatzera edo...?
- Ez, ez, urte guztia, urte guztia, bai, bai, bai, ez ez gin...,
- Kolejixora ?
- Kolejixora, kolejixora.
- Bai, hori ez zan merkia izango!
- Ez, ez, honbre, asko bihar zan. Bai...

6.40. Lanera motoan; gidabaimena

- **Hizlaria(k)**: Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref**: BER-326/024
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:37:37. **Bukatu**: 00:42:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Herria, azpiegitura » Garraioak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: 1939an hasi zen lanean, Aretxabaletan. Hango nagusiek ehun lantegia zuten Bergaran, eta enpresa-kudeatzaile bezala eraman zuten hara. Donostian ere egin zuen lana. Motoan ibiltzen hasi zen, eta gero gidabaimena atera zuen Donostian. Hogeita gutxirekin. Ausarta zela esaten zioten. Neska bakarra zen Bergaran. Coches Villarren egon zen lanean Donostian. Aitari ematen zion soldata, eta hark paga ematen zion, libretan jartzeko. Aitari eskatu zion dirua motoa erosteko. Migel anaiak paga ematen zion, paga txikia zuelako.

Transkripzioa

- Ta, orduan, gero, justo esan dozu hogeta hemeretzixan gerria bukatu zanian...
- Bukatu zanian, orduantxe kolokau nitzan. Lanian hasi nitzan orduantxe Industrias Beroa-n, Aretxabaletan. Eta gero, hango nausixak zeuken gero textillen fabrika, erak. Zihera, este... Julio Azkargorta, Juan Mendiola, Esteban Aiastui, Pedro Garciandia, horrek zien nausixak, eta horrek hemen euki zeuben telen fabrika. Eta orduan ekarri niñuen honutz. Hemen "como gerente, como yo mando". Bueno, arteraiñok erekin lan eindda nenguan, e! Aretxabaletan ta Donostian.
- Aretxabaletan hasi ziñanian, motorreko karneta zuk nun etara ziñuan edo zer?
- Nik ez dakit nun etara neban, baneukan behintzat eta...
- Karneta bihar zan motorrian ibiltzeko ala?
- Ez, ez, motorrian ez.
- Gero, kotxerako, ez?
- Kotxian bai, kotxerako bai. Eta esamiñak in nittuan Donostian, gaiñera! Ta aldapetan ipini ostan, eta esan notsan: "Eee.. hemen goruzko jua biharrian beheruzko noia". Baiña lehenenguan etara neban haura be. Bai, karneta Donostian etara neban. Klaro, eske Aretxabaletatik Donostiara

eruan giñuzen, zeaittik erak zeuken han be Forjas de Zubillaga eta Industrias Beroa eta Industrias [...], hirurak zien batzunak, nausi batzunak. Ta harek zeuken han, itten zittuen Coches Villar, ez dakizu? Kotxetxuak umiendako ta. Haura be erena zan eta harutz eruaan giñuzen.

- Eta motorra, zure diruakin erosi ziñuan motorra?

- Motorra nik erosi neban, mobilet(e) bat. Eta gero saldu in neban, gaiñera, mutil bati San Antonion. Kendu nebanian! Haren atzetik zebillen beti motorra ta motorra, "pues ya te vendo yo". Ez dakit kobrau be in notsan, ez dakit.

- Eta zuk irabazten ziñuan dirua...

- Aittai. Bai, baiña gero emuten zostan pagia eruateko... Caja Laboralera ez, beste Mutualidad zeuan San Pedroko eskiñan, Mutualidad. Hanguak esaten zotsan "Zelako zintxua daukazun alabia, beti ekartzen dau".

"Honbre ez! Ez daukat beste erremedixoik eta...eruan in bihar!" Aittak beitzen zeban, "Libretan ipini dozu?", "Bai, aitta, eruan dot".

- Eta libretia ze zeuan zure izenian ala...?

- Bai, neure izenian. Ni nausixa.

- Eta motorra erosteko aitai eskatuta?

- Aittai eskatuta, honbre, klaro. Eta anaia neukan, Migel, zuk ezautuko ziñuan Migel, juzgauan lan inddakua, akordauko za. Ba harek beti domeketan, urtetzen zanian, bazekixen aittak paga txikixa emoten zostala eta beti jotzen zeban aldabia: "Elixabet etorri, erreka bat daukat zuretako". Banekixen, pagia emuteko, ze bestela es jatan aillegatzen ta! Zinera juaten banitzan, ya ez neukan beste ezetarako, eta zine barik gelditzen banitzan beste zeoze in bihar neban...

- Zuk motorra nahi ziñuan ta baliente... motorra erosi!

- Uuuu... Eta esaten zosten...

- Jendiak ze esaten zeban?

- E? Balientia nitzala. "mugulori" diar itten zosten. Aiba "mudolari"! Hori motorista oso ezaguna zan, itxuria daonez, ta beti esaten: aiba "modolori". Gero kotxerako allegau nitzanian, kotxian.

- Baiña motorrian zu izango ziñan igual Bergaran neska bakarra...

- Bai, bakarra, bakarra, bakarra. Honbre daukat omenajia in zebanian, ipini zebena: "La primera mujer en Bergara que ha sido gerente de industria".

- Eta motorrian ibili zan lehenengua bebai?

- Honbree! beste iñor ez zebillen, neu bakarrik.

- Karneta zenbat urtekin etara ziñuan, kotxeko karneta?

- Honbre, aurki, belaxe in [naban] e. Motorrian, ez dakit, bi edo hiru urte ingo nittuan. Aretxabaletara juaten nitzan motorrian eta gero ya kotxia erosi neban.

- Orduan, hogeta gutxikin ya karneta?

- Bai, bai, hogeta gutxikin. Donostiara eruan giñuzen Mondragokuak, Zubillagakuak eta

Aretxabaletakuak eren fabrikara harutz. Euki giñuan... este...

aiuntamentuan aurrian, zela daon heladerixa bat oso famosua?

- Bai. [...]

- Gero plaza Sarriegira edo sartzeko, ba, hantxe euki giñuan ofizinak. Bai, bai. Eta harutz juan giñanian ya orduan ya kotxia neukan, e.

- Eta kotxia, kotxeko karneta etara ziñuanian...?

- Donostian esamiñak eindda.

- ... neska gehixau bazeuan karneta etaratzeko?

- Ez, iñobez, neu bakarra.

- Ta Bergaran igual zu izango ziñan bakarra...

- Bai, egongo zien igual emakumen bat e, baiña ez naiz gogoratzen.

- Lehenengotakua behintzat.

- Bakarra, bai. Espabilada, demasiau espabilada. [...] moztu ta gero... zartadia!

6.41. Paseatu eta dantza, baina tabernetara ez

- **Hizlaria(k):** Agirrezabal Arrese, Elisabet
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-326/031
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:55:53. **Bukatu:** 00:56:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Igandetan dantzara joaten ziren, baina azkenengo pieza hasten zenean etxera. Helduta dantza egiten berandu ikasi zuten. Ez ziren tabernetara joaten. Paseatu eta dantza.

Transkripzioa

- Orduan, hemen, irtetzen ziñan zu domeketan eta...?
- Domeketan, domeketan. Baiña, esaten dot, azkenengo piezia jo baiño lehenau etxera e! Hamabixak izaten zien azkenengo piezia joteko ta ordurako, azkenengo piezia hasten zanian, etxera.
- Hemen dantzara eta, bai?
- Honbre! Eta plazan! Ta, ba, ba, hombre, agarraua.
- Bai, klar. Baiña batzuk esaten zeben ez zala komeni arrimatzia, ez zala asko komeni eta...
- Ez, honbre, oso berandu arte ez giñuan ikasi hori, oso beranduan.
- Baiña orduan tabernetara-ta emakumia ez...
- Ez giñan juaten.
- Ez ziñan juaten.
- Keba! oingo moduan? pentsau bez! oin pintxo-pote ta oin horrek dare. Horrek oinguak die, lehen ez zauan holakoik, ezta pentsau bez!
- Orduan, emakumia tabernara ez?
- Keba!
- Paseau eta gero dantza?
- Paseo ta dantzan, plazan edo Espoloian ta kitto, se akabo!

6.42. Askasuko albergarako jausi zenekoa

- **Hizlaria(k):** Oianguren, Franzisko
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BER-330/001
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:21
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- **Laburpena:** Bi lagunen arteko elkarrizketa. Aurreko urteko ibilaldi batean bizitakoak kontatuz.

Transkripzioa

Mutillak! Guazan oaintxen danok igari eitera osiñera, eta gero... San

Marsalera, bidian keixak jango jittuau; gastanapian meriandau bapo eta... gero mortalak eiño jittuau ... ik, Patxiko, ik atarako dok aureskua eta nik atzeskua. Badakik zein ekarriko diogun Bartolori aureskura?

- Zein?

- Biktorianatxo...

- Ja, ja, ja...

- Akordatzeaiz, Andres, juan dan urtian zer lekia arrapau genduan?

- O...!

- Bagatozak etxera eta illun jauan eta gutxien uste [...] blust! Askasuko Albergara jautsi nitzuan, nik urte najuan andik figura! Bi edo iru trago egin najituan jaboï ura.... bruuu...! Ondiokan ere etxatak juan agotik leguntasun aura.

Ala, guazan aguro, danboliria oaintxen ailegatzen goiaz Santa Mariñara, eta antxen egiñ biajittuau fandango bat edo bi eta [Mendaroko] tortak erosi eta etxera ... Biba gu ta gutarrak.

7. Aisia

7.1. "San Juan egunian..." hasten den bertsoa

- **Hizlaria(k):** Iturrino Intxausti, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-033/008
- **Iraupena:** 0:00:42. **Hasi:** 00:05:48. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Juan
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena:** "San Juan egunian..." hasten den bertsoa abesten du Pedro Iturrinok.

Transkripzioa

San Juan egunian pesta zan Hernanin
zure amaren ama zuri [ermonin]
arrazoia zun baiña kasorik ez egin
baizik zure gorputza apaintzen ahalegin
oiñak arin-arin
zankuak agirin
ipurdiei eragin
pinturak arpegin
gaiñera postizuak [bi]
[hor dirua egin].

7.2. "San Juan berde", Carmen Gazteluk esanda

- **Hizlaria(k):** Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-035/025
- **Iraupena:** 0:00:12. **Hasi:** 00:17:12. **Bukatu:** 00:17:24
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Juan
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** San Juanetako "Biba San Juan berde" kanta laburra esaten du Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Artuak eta garixak gorde,
subiak eta zapuak erre,
biba San Juan berde!

7.3. "San Juen, San Juen" kanta

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-037/017
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:16:11. **Bukatu:** 00:16:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Juan
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena:** "San Juen, San Juen" kanta abesten du Bixenta Larrañaga.

Transkripzioa

San Juen, San Juen!
Arrautza bi kolkuen,
beste bi altzuen.
Subiak eta zapuak eta txar guztiak
Erre! Erre!
Artuak eta garixak eta gauza on guztiak
Gorde! Gorde!
Biba San Juen!

7.4. San Juan inguruko kontuak; fede kontuak

- **Hizlaria(k):** Larrañaga Zarraoa, Bixenta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-037/018
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:16:41. **Bukatu:** 00:18:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » San Juan
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** San Juan bezperan ohitura zen suaren gainetik salto egitea "San Juen, San Juen" abesti laburra kantatuaz. Ohiturak. Lore-sorta bedeinkatu; etxeburuan larrosekin eta garoarekin egindako gurutze bedeinkatua ipini; ur bedeinkatua bota; San Juan eguneko ihintza oinutsik hartu; sei aitagure errezatu. Fede kontuak.

Transkripzioa

- Lehen bai sasoia!
- Suan inguruan... Oin eitten da? Oin be eingo dozue zuek...
- Bai, bai. Sua eitten dou ta kantu txiki hori kantau be bai. Ta lora-sortia bedeinkatu be bai eta etxe-buruen kurutzia ipini be bai larrosakin ta garuakin. Ur bedeinkatua bota, San Juanen ihintza hartu oinutsik ortuen zihar bueltan ta sei Aitta-gure errezau.
- Zer esan dozu, San Juanen ihintza?
- Bai, San Juanen ihintza esaten dabe, neuk konfiantza haundixa dakat,...
- Zer da hori?
- Bueno, ba, ihintza da zera, zela esaten da erderaz? "Rocío" esaten dabe erderaz.
- A! San Juan eguneko ihintza.
- San Juan egun goizeko ihintza. Hori da!
- Eta beti egoten da?
- Bueno...
- Ta suertatzen ez danien?
- Ba, jeneralien. Jeneralien. Klaro, eurixa baldin bada, ez da ihintza, eurixan bustixa da, eta hego-haixia baldin badabil, ba, ihintza ez da egoten. Baiña ostiantzian, ba, ihintza jeneralian gabian, ba.... Izotz denporia be ez da ta ihintza.
- Eta ihintza, ze esan dozu...? Zelan hartu?
- Oinutsik! Oiñetakuak kendu, kanka-gorririk! Ba, ortutik edo, hola, zelaittik edo [...] edo...
- Ibili?
- Buelta bat ein. Ba! Ibili ta ibili ez, baiña... Hartu igitaixa ta garo pixkat ekartzera edo, zerak, horrek elor-arantza zurixak ekartzera edo, larrosak ekartzera ta... Gero, ba, etxe kantoien josi.
- A! Orduan, hartzeko orduen oinutsik jun...
- Bai, oinutsik jun.
- Eta horrek ze ekartzen dau, suerte ona ekartzen dau?
- Enee... Suerte ona ikaragarrixa! Jentia ezin dau siñistu hori! Suerte ona da bat beti gustora bizi izetia. Eta askotan persona batek, fede haundiko persona bat, danok eukitzen dittuu bizitzaren kurutzia eta ezbeharrak eta nahigabiak, ezta? Baiña zuk baldin [badaukuzu] fede haundi bat, ba, zuk esaten dozu: "Ba, bueno, jangoikuan izenian. Jangoikuak horixe nahiko dau. Horixe komeniko da. Nere onerako izengo da." Ta halaxe izaten da.

7.5. San Pedro eguneko erromeria

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-055/004
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:05:36. **Bukatu**: 00:06:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: San Pedro eguneko erromeria. Dultzaina; musika banda eta trikitia.

Transkripzioa

-Errormeixia San Pedro kale alderutz orduan?

-Bai.

-Eta ze joten zeben, trikitixia ala agarraua be bai edo zer?

-Hiru soiñu-jenero egoten zien.

-Dultzaiñia be egongo zan, ezta?

-Dultzaiñia be bai, dultz(a)iñia zereko aurrian, juzgauko aurrian egoten zan, eta panderua ta horrek oin batzokixa dauan aurrian. Eta juzgauan, goixan, gaur eztakitt zela dauan, eskillarak igo ta terreplen haretan bandia

-Goixan?

-Goixan bandia. Eta gu danok behian dantzan.

-Ze ederki.

-Edarki jiratzen giñan.

7.6. San Martzialgo erromeria

- **Hizlaria(k):** Gallastegi, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-055/006
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:06:36. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** San Martzial. Goizean letaniarekin batera igo, meza entzun eta txokolate jana egoten zen. Erromeria; aureskua.

Transkripzioa

-Horraittio ezta galdu oinddio hoixe kostunbrioi, oin be aureskua eitten dabe ta.

-Eingo dabe. (San Martzialdik) handik bajadia, han iluntzira arte ero ibili tta. Bajadia ta. Mutillakin baldin bazan "de brazete" Satamaiñaraiño. Da Santamaiñan atso pilla haundi bat begira, eta, ja!, mutillakin jatxi giñala etxekuei kontauko ete dotsen billurrakin, laga mutillai besotik eta...

-Suelto?

-Suelto.

-Bakarrik bajatzen zienak be ez zan ba holako zera izaten ez, han ez zan ba kostunbria mutillekin bajatzia?

-Orduan bai. Sekula bada ta San Martzialdik bai.

-Mutillak be zaiñ egoten zien egun hori aillegatzeko neskei oratzeko ta.

Roskillak eta ugari salduko zien han, e. Eta haura, "agua de limón" saltzera juten zana?

-Uuu!, Agua de limón! Halakotxe hojaletazko pote bat tapiakin, tapa haundi batekin, limoi azal batekin uda guztia. Bi bolau sartu erekin batera, bai, eraiñ-eraiñ-eraiñ-eraiñ eiñ, haura gastatzen zanian, benga agua! Bete.

Haura gastatzen zan? Berriz bete. Beti irabazixan zeuan.

-Haretzek negoziua segurua.

-Bai.

-Danak baso batetik eraten.

-Danok. Ta zain gaiñera.

-Txandan.

-Txandan. Bost xentimo pagau haura ta, tira, agua bolaua eran giñuala ta.
-Ze euko ete zeban harek azkenerako. Uda guztia bi limoi bueltaka. Jentia pozik hauraxe eranda.
-Pozik, San Marzialen ura bolauakin eran giñuala ta hola. Eta bolaua zerian, Larrañaganeko dendan ero ta; limoia be bai nunbaitten.
-Haura zela izeten zan, mutillak konbidatzen zeben haura?
-Jeneralian. Toketa bat dantzan eñ dda; haura emoten zebana grandia zan.
-Esplendidua.

7.7. San Martzialgo erromeria

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-055/007
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:09:54. **Bukatu**: 00:12:24
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
 - Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
 - Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: San Martzial. Iluntzean mutilarekin besotik helduta jaisten ziren.

Transkripzioa

-Gero plazan erromeixia, ezta, bajatutakuan?
-Bajautakuan plazan. Eta gero ba mutillak baldin bazeukan pastelerixara. Orduan heladuak etzeban hainbeste zer. Kafia, kafia hartzera. Merkiaua zalako ero.
-Kostunbria ero, kostunbria izengo zan.
-Eta haura zana mutxo!
-Kafia hartzera, e? Orduan San Marzialen "agua de limón" pagau eta gero kafia pagatzen zebana, jo, ez zan edozer gauza izango.
-Mutxo, haundixa haura.
-Esplendidua haura.
-Bai.
-Da gero ze ordutarako etxera?
-Segiduan. Hamarretarako bai behintzat, nola ta nahi be.
-Danok erretirauta ia.
-Bai.
-Orduan akabau eitten zan dana hamarrak ingururako?
-Dana akabatzen zan, dana.
-Jo, ze ederki.

7.8. Osintxuko soinujolea

- **Hizlaria(k)**: Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-060/014
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:10:57. **Bukatu**: 00:12:03
- **Multimedia**: audioa online entzungai

- **Transkribatzailea:** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Osintxuko soinu-jolea: "Bihurri". Panderoa.

Transkripzioa

Eta dantzan eitteko ta, ze izaten zan, soiñua ero? Soiñua, bai. Osintxun soiñujolia zan Irurri esateotsen bat; azi zan zerien, au Martxiel baakizu, Elizaondo, aren andriak, aren amak aziban, Irurri esateotsen bat; filarmonikia jote eban; ta gero nik eztakitt nora zan aura, sekula geixao nora danik... Ezan etxekua e, errikua ero... Herri-semia? Bai; eta gero zea, Piston esate jakona, zea, Anjel, sakristaua, aura soiñujolia, da bestela panderuakiñ bakarrik, be iguel... Eta ahoko soiñuik? Eta ahoko kittarria? Ez ez ez, filarmonikia bez; eskukua, akordeon.

7.9. Kofradiaren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/022
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:28:03. **Bukatu:** 00:31:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Kofradiak txandaka egiten ziren. Kalekorik ez zen sartzen. Dantzak non; jaiak noiz. San Martzial. Uholdeen inguruko kontuak entzunda ditu.

Transkripzioa

-Kofraixen arrastoik eta, zela eitten zien orduko Kofraixak eta badaukozu?
 -Bai, Kofraixak eitten zien orduan txandan, kalekuak ez eben paatzen bape, ta kalekoik ez zan sartzen, baserrikuak ba txandan, tokatzen jakonak, bi biren artien, ta gero, okelia partiru eitten zan, Artola izaten zan partitzaillia, Plazentziako Artola, harek´e, txuleta zintta bat osua erue te eban bere jornaltzat, ta ez dakiu nun ezkututzen zien txuletok, ba saldia ta, han okela danak, zenbat kofradeko eren, hainbestetxe pusketa ipintzen zittuen, harek ipintzen zittuen, partiuta, ta gero paau danen artien ta kitto.
 -Ta ze fiesta eitten zan, erromeixia ta izango zien?
 -Dantzia, dana dantzia.
 -Etxe azpitan ezta?
 -Etxe azpitan be bai ta, Etxebarriko plazan ta.
 -Orduan ez zan eongo Artetxan fabrikaik eta...
 -Bai, Artetxek fabrikia ei eban plazan, dantzan eitten zan lekuan, da guri ez oskuen lagatzen juten plazara haundixak, gu gaztetxuauak, goiko petriletik beira eon biher, ta gero plazia ei eban e, plazan ei eban fabrikia Artetxek, ta han Etxebarriko etxe aurrian ipini eban plazia, lenao, hor etxe azpitan zan plazia, zerien, hortxe fabrikia zan lekuen, zelai desentia.
 -Zera, beti Aguztuan ezautu izan dittuzu zuk Kofraixak?
 -Bai, Agoztuan azkenengo jaixan.
 -Eta zuk entzunda daukazu lenao Abrilian eitten ziela edo Martixan eitten ziela edo?

-Ez, ez dot entzun sekula be ez.

-Eta Osintxuko elizan Santuak urak eruan zittuanik eta entzunik badaukazu?

-Ama, Elizia, San Martzial edo, ze egun zan Osintxuko elizia ta eruen zittuenak, Osintxuko elizia azpikaldien ez zan ba? A bai, San Martzialgoko ur haundixak eruen ebalá esaten dabe, hor "por ejemplo" bolatokixak dauzkan horma horrek, behera dauzkanak elizianak, erun ein ei zeban da, Santo Martirixak Debatik ekarri ei zittuen, Debako plaiatik. San Martzial egun baten zan hori? San Martzialko ufala, guk ez giñuan ezautu. Ez milla zortzirehun ta ez dakit zenbatian, Bergako Santamañan dao markia... Ez zan izango edozein modutako... Ai "qué horror" ta orduantxe elizia erun ei eban ta, gure akorduak eta baiño lenao zien horrek...

7.10. Osintxuko erromeria

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/041
- **Iraupena:** 0:00:22. **Hasi:** 00:55:46. **Bukatu:** 00:56:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Osintxuko erromeriak izen handia izan zuen sasoi batean.

Transkripzioa

- Osintxuko erromeixia famaia zan ezta?
- Bai gero baiña....
- Bai sasoe baten....
- Gero baiña, gu gaztiak giñanian....
- Altos Hornos aldetik etorte zien mordo bat, erromeixia haundixa....
- Gerra ondorian eon zan hemen...
- Erromeixa haundixa eitte zan Osintxun haundixa....
- Erromeixia baiña zelakua baiña haura izate zuan poza!

7.11. Errekan arrantzan

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/043
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:56:29. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Isazelaia Igartua, Jaione
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Errekan arrantzan umeak zirenean. "Harratzia" (harresia). "Espanbela". Barbo asko, aingirak, loinak, ezkailuak ere egoten ziren ura hazten zenean.

Transkripzioa

- Errekan harratzixa ta harrapau loiñia ta...
- Errekan peskan danak!
- [Loiñadia eten baekua]!
- Zelan esan dozu?
- Harratzixa [egoten] zuan.
- Harratzixa zeri esaten jakon?
- Harratzixa, ba, ibaixa, alde bittatik harrixak-eta ipini alkarren gaiñien ta zertu, ezta? Erdira ura jun deilla! Ta erdi hartan esparbela edo erreminttak egoten zien peskarakuak; haura ipini ta han harrapatzeko arraiñak. Barbua asko egoten zan ta aingirak be bai ta...
- Loiñak be bai...
- Loiñak be asko, ta eskailluak ura hazten ebanian ta. De todo.

7.12. Arando taberna

- **Hizlaria(k)**: Barrenetxea-Arando Azkargorta, Erritxe; Barrenetxea-Arando Azkargorta, Gotzon; Barrenetxea-Arando Azkargorta, Mariñe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-146/002
- **Iraupena**: 0:00:55. **Hasi**: 00:02:55. **Bukatu**: 00:03:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Arando taberna, oso ezaguna Bergaran. "Batzoki txikia" ere esaten zioten.

Transkripzioa

- Tabernia, zeuen tabernia, famosua izango zan, ez, Bergara guztian?
- Bai, epoka baten bai, zegaittik eze zer haundixa zeon, hartu-emona jentiakin ta...
- "Batzoki txikixa" be esaten zotsen.
- "Batzoki txikixa", lehenengo... Bai, abertzaliak danak juntatzen zian zera.
- Eta zelan da kontu hori?
- [...] haretzek izengo zien.
- Pixkat tabernian historixia badakizue? Zeiñek zabaldu zeban edo...?
- Ez. Oseake, gure osabiak hartu zebanian, beste batzuei hartu zotsen, baiña ez dakit harek lehelenguak zien ala... Ez. Baiña Arando gu gara, oseake, bestiek ez zeuken izen hori, e? Arandonekuak.
- Oseake, tabernia...
- Barrenetxea-Arando nola apelidua zan, ba, gero, ba, Arando ta Arando ta...

7.13. Bittor Sarasketa eskopetagina

- **Hizlaria(k)**: Linazisoro Lazpiur, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-160/005
- **Iraupena**: 0:04:27. **Hasi**: 00:06:38. **Bukatu**: 00:11:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debarreneneko lantegiak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Emaztearen aitajauna, Román Ibarra, ehiztari amorratua. Bittor Sarasketa zaharrarekin eta Alfonso XIII rekin joaten zen ehizara. Eibarko eskopetagin onenak Sarasketatarrak. Eskopetagintzaren beherakada. Ehizaren izatea.

Transkripzioa

-Gero ba halaxe, halaxe hasi zan gure zeroi, gure jatorrixoi. Honek, berriz, honen aittajuna, nere andrian aittajuna, bat zan egurrezko tornerua, egurretan tornero eitten zebana. Guk txikilleroiak eta orduan-ta, kalderoiak eitten-ta aittajuna, harek aittajunak eitten egurrezko zerak eta. Bai, egurrezko zerak eitten zittuen, honek porrejenplo sillendako-ta, sillak honek daukan hau torneuau, honek danak eitten jittuen.

-Balustrak ez die honek?

-Balaustradas. (...) Honek danak egurrezkuak eitten zittuen honek. Eta zan ehiztari amorratua gaiñera. Harek ehizagaittik baitta lana be laga, ehiza bazegon haura aide. Eta horrek juten zien ehizara Bittor Sarasketa zarra, fundadoria, e, ez beste tiradoria, ez. Tiradoria, Bitor, zan nere laguna. Haren aitta. Bittor, Eibarko Bittor Sarasketa zarra. Honen, nere andrian aittajuna Roman Ibarra, eta Alfonso Trece, hirurak kasan eitten zebe. Eta honek joaten zien hara eta han landuan-ta joaten zien honek erregiak. Honek tiradoriak onak izan eta haura ba harek hemengo eskopetakin-ta; horrek hirurak joaten zien. Behin eta bi aldiz baiño gehixotan, e.

-Alfonso Trece zelan ba?

-Ba eskopetia gustatzen jakolako. Eta orduan eskopetak eta klaro ba, fabrikantia be Sarasketa fabrikantia ta. Lelengo eskopetak Eibarren-ta. Onenentxuenak orduan gaiñera Sarasketarrak zien. Gero harrezkero Eibarren be gauza asko ein dia, bueno. AIAk lelengoko superpuestua ein zebanian, "Aia Coral", bata normala eta bestia de lujo. Hor dauzkat nik, horrek be badauzkat nik.

-Erakutsi bihar dostazuz.

-Horrek ein zienian bai, baiña ordura arte jeneralmente superpuestak zien, Aia-i edo Agirre y Aranzabali fama gehixen emon zotsena. Baiña orduan zenbat..., paralelia zan hemen, paralelak, eta hori, berriz, Sarasketan moduko famaik iñok be ez dau euki. Hobiak izango zien batzuk, edo eskastxuauak, baiña famia Sarasketan modukoik mundialmente iñok be ez dau euki.

-Izen ona beti.

-Izena, izena, Vitor Sarasqueta izena eskopetia ipini ezker haura zan garantia de buena escopeta. Oin dare beste batzuk, gauzak beste modu batera ein be eitten die, mekanizau be gehixao eitten da. Lehen eskuz eiten zana oin mekanizauta ta. Oin dare, porejenplo beste Arrieta Elgoibarren, nere laguna da, neure soldau-laguna gaiñera. Bai, alkarrekin itten dou urtero bazkai ba. Da horrek be eskopetak eitten, oso eskopeta fiña, ta oso karua, oso karua. Baiña ez dakigu ba ze izan leiken, ya eskopetak be puxkat bajau dia, zegatik honek batian italiar automatika, hurrengo semiautomatika ta. Ehiztarixak be puxkat bere izatia zaindu ein biharrian errebentau ein dau, zegatik lehen bi tiroko eskopetia zan el no va más. Lehenengo tiro bakarra. Tiro bakarrak be badauzkat nik, e. Eta ni tiro

bakarrakin be ehizara juten naiz. Baiña bi tirokuak zien, joño!, haura zan "paralela", bueno! Gero superpuesta. Gero hasi zien honek automaticas, bost tirokuok, eta mundu guztia bost tirokua. Eskupeta puxkat arintxuaua be bada ibiltzeko orduak berakin mendixan, baiña horretaz aparte tiro gehixao. Hiru tirokin autorizauta dare-ta. Pan-pan-pan! Eta bestiak bi tiro die, pun-pun! Eta ez dakit nik zegatik, baiña ehiztarixak hamarretik, gaur, zazpi bat bai behintzat, danak automatikuakin juten dia. Eta neri hori etxat ikusteik be gustatzen. Badaukat nik bat, baiña hor dao behian kastigauta, azpi-azpixon, azpi-azpixon. Horrekin astakeri bat ein nebalako, behin eper bandada bat erten, bost tiro autorizauta zerenian, eta pan-pin-pan-pan-pan, bost tiro eta bost eper bota nittuan. Eta hau ez dok kazan eittia, hau dok "matar". Hori ez dok kazan eittia. Ta eskopeta hori ez da..., beste eskopeta eskuz eiddako eskopetia, hori da eskopetia.

7.14. Ehiza kontuak

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Lazpiur, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-160/006
- **Iraupena:** 0:05:15. **Hasi:** 00:11:05. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
- **Laburpena:** Ehizaren / ehiztariaren izatea.

Transkripzioa

- Hori da eskopetia, eskopetia hori da.
- Orduan zuretako ze da kazan eittia?
- Kazan eittia da behin hiru bat eper edo, nahi bozu ipini lau, lau bat eper botatakuan, zortzirak badie edo bederatzia badie hartu eta automobilera, hamarretakua ein eta etxera. Zegatik berrogei bota arte hantxe ibili eta hurrengo astian fan da "ez, etxak eperrik" "A, ez?" Klaro, danak akabau ezker zela eongo dittuk ba? Ez, eperretia ta ehiza dana puxkat zaindu ein biha da, zaindu ein biha da. Ni neu be lehenau nitzan gaztetan matador, e. Bueno!, hoixe matador. Orduan gaztia ta ta dinbi tta danba. Baitta eulixei be tiratu; gu, gaiñera, tirua edozer gauzai. Eta oin, berriz, ia urte asko da, daroiat nik. Es más, usotan eittia be etxat gustazen neuri. Etxat gustatzen usotan eittia zegatik hori ez dot konsideratzen kazia.
- Ze ba?
- Ta ointxe ni nagon moduan jarritta egon, hamarretakua ein ta tragua ein ta, jan ta eran ta "paloma!", hori esandakuan hartu eskopetia ta pin-pon!, tirua ein. Hori da "fusilamiento", hori da "fusilar". Francok eitten zebana ixa akabau arte, fusilau harrapautako danak. Hori be hoixe da. Ehiza da, txakurrakin nahi bada edo txakur barik nahi bada, mendira joan, mendixan ibilladixa ein, bi ordukua, laukua, seikua edo hamarrekua, zeuk ahal dozuna. Ibili mendixan-ta, txakurrakin-ta asko polittaua, gaiñera. Haura arrastua dala ta, ze eitten daben-ta, ze ez daben eitten-ta. Ene, han bajoiak eta, han jak, arrastua jaukak eta, haren ondorian. Txakurra ondorian joan eta haura geratzen danian da, joño, orduantxe harro, "ba, hemen jak ba". Piezia, oillagorra bazan oillagorra zan, eperra bazan eperra zan, ta. Pau!, tirua ta. Bueno. Hori da kazia. Baiña ibilixaz mendixan. Ez jarri tta egon ta, halako tripazar haundi batekin, beste bi litroko botia

albuan-ta, tiki-taka. Hori ez da kazia. Hori da "tiro al blanco". Ta hortarako haizezko karabinek be fabrikatzeittue Eibarren, eta hola papelak be badare blankokuak, eta haretxei pi-pi-pi tiro batzuk ein eta "ya vale, ya está". Aprobazia nahi bozu ze tiradore klase zan. Tiratu harekin. Baiña han datorren hegatzixai ez. Hari, haura, e... Oin, usua porrejenplo ba diferentia izango litzake; hor Extremaduran-ta geratu eitten dau usua. Usua da migratoria, eitten dau pasa ta kontrapasa gero. Eta, porejenplo, ingo balitz kasan hara joan, hor be badare bat "El Alamín", koto bat, haura zaintzen dabe eren zinbelakin-ta. Nere anaiak, bi anai hara jutun zien. Pagau pagau biha zana eta joan hara ta "ze bota dozue?" ta "Gaur ehun ta berrogeta hamar bota juau" "Abai, e? Zela ba" ta. Jarri hementxe holaxe, nik esan dotena ta, han beste hiru (...) zinbelakin ta harek ekartzen; harek ekarri tta, arbolan geratutakua igual. Pu! hari. Tiratik blankora, gizona, haizezko karabiniakin. Baiña diferentia izango litzake porrejenplo hori beroi "El Alamín" izengo balitz "cazar en mano" esaten dana. Usotia. Usua be tiro gaitza da izan, oso rapidua da haura. Baiña hortako biha da taka-taka joan da arbolatik, han urten dok, eta hari tiratu edo diferentia da ez e, plo! plo, hemen datorrenai tiratzia. Oso diferentia. Ehiza da ehiza eta bestia da ezebez. Bestia da txanpon batzuk gastau eta nahi dana ein.

- Esan dozu bata dauala erakartzen edo.

- Bai, zinbelakin.

- Ze da hori?

- Usuak, usuak. Hori eitteko gaiñera lehen astakerixia eitten zeben, orratzakin itxutu eitten zeben usuak, eta usuak ipintzen zittuen hola zinbel bat plataforma baten lotuta, eta plataformiai eitten zotsen soka batekin, han porejenplo usuak hegaran zetoze, pla!, hola eitten zotsen eta honek eitten zeban jausteko moduan, ez zeban ba ikusten-ta, pa-papa!, papapa!, eta hori eitten zebanian, beste usuak, ene!, hor jak eta. Puuu!, hara joaten zien-ta, hari orduan, po!, tirua. Hori da kaza subterranea.

- Orduan zuretako badare kategorixak-edo.

- Bai, bai. Nik mutikotan esan dotena lehen, nik neuk be eulixei be tiratzen notsan lehen. Eta usotara be jutun nitzan, usotara be jutun nitzan. Jarri hola puestuan-ta, usozain hantxe ta tiro ta. Baiña hori ez da kazia. Nik ixa ehun urte dauzkat baiña izango die berrogeta hamar bat urte edo hamaika bat urte edo usotara jutun ez naizela. Ehizara bai, eperretara ta bai. Eperretara ta galeperretara be bai, eta oillagorretara. Gogua galanta baiña hemen, e, honek hankak (...) makalduta die oillagorretara juteko.

7.15. Azeriak noiz eta zergatik ugaritu ziren bailaran; basoko animaliak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-174/013
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:25:35. **Bukatu:** 00:28:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Aranzabal Etxaniz, Aitor
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
 - Natura » Fauna
- **Laburpena:** Azeriak garai batean asko ugaritu ziren. Gerraostean Eibarko zakartokia itxi zenean azeriak zabaldu egin ziren bailaran. Basurdeak urriak ziren gerra aurretik, beleak baita ere. Ehiztariak.

Egoera zeharo aldatu da; egun basurdeak asko ugaritu dira inguruko basoetan.

Transkripzioa

- Eta esan dozu azerixak, sasoi baten hor lbur aldian edo ugarittu ein ziala.
- Bai, hori esaten eben e, gerraostian. Hor egon zan eskonbreria geruau arte ta, hor e... ba hala esaten eben. Klaro, jana euan, ta aizerixa jana euan lekuan ugarittu e... Ta gero eskonbreria kendu edo, bai, kendu zanian, ba, zabaldu ein zian honutz, danera. Ta, bueno, zaintzen, norbera zaintzen egonda oilluak harrapau eitten zittuen. Hamen badakizu zer pasau zan etxe baten hortxe behian, lehen esan doten etxian, Olañetan? Horrek txabolia eiñ eben ta ipiñi eben oillotegixa ipiñi eben etxian gero. Hor Riojan edo baeukan pariente bat eta handik zertu, ta ba etxetik argixa emoten otsen, trast, gabian jateko. E? Jateko, argixa emoten otsen. Ohetik trapa ta argixa oilluak gabian jan deixen. Emon otsan zerai, llabiai ta oillo danak karazaka baten! Hango zaratia! Jaiki ta fan zan ta aizerixa barruan! Ta aizerixak argixa ez ezautzen! Harek, fan bazan zerik barik, argi barik, harek hanka eingo otsan sartu zan zulotik, baiña zulorik ezin billau sustauta... ta hantxe barruan akabau eban. Pentsaizu zelan bijilatzen. Harek argixai emon ta klaro aizerixak bonbillian barri jakin ez ta... urten ezin.
- Eta ordurarte gerra aurretik e...
- Ez, gerra aurretik hemen aixeririk nik ez neban bape ezautu.
- Bape e?
- Bapez, ta basurdaik bez. Hau kazariz beteta ibiltzen zan, Eibarko kazari danak hamen ibiltzen zian bueltaka.
- Baiña horregaittik ala berez?
- Aumentatzen laga bez, batenbat baeuan hil eitten eben. Belaik bez. Oiñ belak, baltz-baltz dabiz belak, baztarra guztittan. Artua jaten hasi dia soluan.
- Eta orduan belarik be ez zeuan?
- Ez, hamen ez zan solotan ta bapez. Oiñ bai, oiñ be zazpi bela dabitz hamen, bueltan-bueltan-bueltan fan bestiekin ta.
- Ta zeaittik pentsatzen dozu ez zeuala belarik?
- Kazarixegaittik. Beti tiroka ta horrek hanka, beste mendittan egoten zian, baiña hamen ez.
- Eta oin basurdak be asko ugarittu dia, ez?
- Bai, hala esaten dabe, hamen oiñ ez dau bertan, hamen ez dau, baiña urte baten guri sartutako artuak eta babak eta danak apurtu oskun. Ta hamentxe etxian, hamar metrora, gaiñera, hortxe ortuan be ibiltzen zan. Bai, baten regauta euan ortua ondo, ta holakotxe pozua ein eban berak baiñatzeko han zerian. Nik abisau naben diputaziñora, etorri zian, ikusi eben ze daño euan baiña gero ez eben pagau ez euala dirurik eta.

7.16. "Muxuangule"

- **Hizlaria(k)**: Raymond, Jose Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Trebitsch, Rudolf
- **Erref**: BER-331/003
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:02:29
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena:** Gau batean etxeko atarian zegoela gizon batekin izandako elkarrizketa. Ez zekien zein zen beste gizon hura, "muxuangule" noiz egingo zuten galdetu zion arte.

Transkripzioa

- Juan dan gau baten atien freskure artzen nagola etorri jatan iru mutil, bat ni saludatzera, eta ni bat orrekin esin nitzan akordau sein san, eta berak:
 - Que hay, Jose Joaquin? Enasu esautzen?
 - Ba, enais akordatzen.
 - Ta noiz eingo dou muxuangule? Urrengo karnabaletan ni etorriko nais eta ein biardeu, einbiou muxuangule.
 - Bien, eta orduan akordau nitzen sein san eta, sein sala uste dosue?
 Señorito José M. Lardizabal.

7.17. San Marzial eguna

- **Hizlaria(k):** Raymond, Jose Joakin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BER-331/004
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:02:29. **Bukatu:** 00:03:30
- **Gaia(k):**
 Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** San Marzial eguna ospatzeko planen berri ematen du: askaria jan, Blasenean kafea hartu, abestu...

Transkripzioa

Aittuik Joxe Trapala: gaur San Marzial eguna dok eta meriendau ederki eta gero Blasenian kafia artu eta kantau ein biauau Usutxuria eta olako kanta batzuek eta kostia kosta gaur umoria pasau eta bigar ur freskua eran eta lana eiñ.
 Jakin nai bosue ni sein naisen, soy Jose Joakin Raimond, Bergarako uren enkargaua.

7.18. Garai bateko jaietan jende gehiagoren partaidetza

- **Hizlaria(k):** Alberdi Larrañaga, Koldo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Erref:** BER-345/011
- **Iraupena:** 0:03:19. **Hasi:** 00:18:38. **Bukatu:** 00:21:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 Aisia » Kultura » Musika
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- **Laburpena:** Garai bateko jaietan jendearen partaidetza askoz handiagoa izaten zen. Adibiderako, 1975-1980 inguruan Osintxuko jaietan izugarritzko jende pila batzen zela dio. Jaien antolakuntzan ere lan handia egiten zen eta jende gehiago erakartzen zuten jaiak. Dantzarako ere joera handiagoa zegoen. Egan taldea zegoen orduan modan.

Transkripzioa

- Jaixak eta... jaiak kristonak izaten ziela esan zostazun aurrekuan.

- Bai.

- Ez? Jai haundixak, ilusiño haundixakin eta parte-hartze haundixakin.

- Bai, ez dakit... Bai, hori da. Ez dakit geu zahartzen goiazelako edo zegaittik, baiña, baiña, bai, bai, orduan jaixetako... orduan jaixak, egixa esan partaidetza, jendian partaidetza askoz´e handixaua izaten zan jai... jaixetan, orokorrian -nik uste dot-, bai bezperako zeretan eta... bai, jai guztietan. Jendian partaidetza askoz´e handixaua izaten zan. Bai. Ez dakit, igual, igual neure... neure perzepziñua da, e? igual neu urtietan aurrera noielako, baiña... Baiña, ez dakit, nik orduan behintzat ikusten nittuena da nola... bai, bai... igual referentzia bezela hoixe, ba, Osintxuko jai batzuk. Osintxuko jai batzuk, 1975-80 tarte horretan, biltzen zan jende pila bat Osintxun, baiña baiña baiña billurgarrittekua! Nik eeee... orduen asko, jende ikaragarri eruaten zittuen jaixek. Bai. Bai Osintxu, bai Ubera, bai... Altos Hornos batek eta. Orduen asko, jende pilia mobitzen zan, bai, bai. Ez ez dakit, ba..

- Igual auzuak berak be personalidade gehixau orduan? bueno, zea gehixau, igual lana...?

- Bai antolakuntza... bai, antolakuntza aldetik lan haundixa egitten zan, dudarik ez. Bai, jendia... Bai, ba, nik ez dakit, ba, adibidez, berbena bat antolatzerakuan. Berbena bat antolatzen zan... nik ez dakit, orduan Eganak zan, Egan zian, ba, zerak... modako taldea. Ta Eganak jartzen zienian, bueno...! betetzen zian auzuak, ba, jo-ta, puntaik punta. Eta, karo, horrek antolaketa lanetan ere, ba, lan haundixa, aurretiko lan haundixa suposatzen zuen. Eta bai. Eta... hori da, implizidade aldetik´e bai. Jendea, auzoko jende aldetik ere, implizidade aldetik, ba, normala dan bezela, bai.

- Orduan igual dantza zaltasuna be haundixaua, ez? Erromerixa giro hori gustatzen jakon jendia edo... Hori poliki-poliki igual jua da kanbixatzen, ez?

- Bai, bai, ez dakit. Dantzia... bai, hori da, bai, seguruenik baitta. Danetik. Hori da, dantzarako joera gehixau be bai ta... Eta... bai. Karo, ez dakit. Gaur egunian be badao, ez, dantzarako zaletasuna, baiña ez dakit. Nik uste dot orduan behintzat jaixetarako-eta zer... bai, jende gahixao erakurtzen zuen jaixak, bai. Inguruetako jendia.

7.19. Xamatz dantza-taldean ibili zen pare bat urtez

- **Hizlaria(k)**: Alberdi Larrañaga, Koldo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Erref**: BER-345/045
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 01:14:36. **Bukatu**: 01:19:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Dantza
- **Laburpena**: Xamatz dantza-taldean ibili zen pare bat urtez, mutilak falta zirela eta. Tarteka Edu Muruamendiaraz joaten zitzairen zer urrats hobetu behar zuten esatera, baina bestela euren kasa jarduten zuten. Seminarioan elkartzten ziren entseatzeko. Era guztietako euskal dantzak egiten zituzten. Herri mailan dantza egiten zuten. Amaia Madinabeitia izaten zen taldearen gidaria.

Transkripzioa

- Bestela zuk euki dozu harremanik beste taldeen batekin? Edo, ez dakit, ba, dantza taldeekin, antzerki taldeekin, edo hemen Bergarako...?

- Bai!

- Ibiliz zara beste saltsa batzutan?

- Bai, bai, dantza taldean egin nittuen pare bat urte-edo, Xamatx dantza taldean. Bai, orduan... bueno, oin dala hogeita hamar urteko kontuak dia, e? gehixau, gehixau, hogeita hamabost bat urte-edo bai. Bai. Bai, ba, zer... bueno, jendia falta eitten zebala dantzan itteko ta mutilak, neskek bazerela baiña mutilak falta itten zebela ta ala! benga ba! Ta, bueno, orduan, orduan, erraz apuntau´re eitten giñan edozein tokittara ta. Bai, egin giñutzen holako salto batzuk tartian behin. Bueno, [...]. Ondo etortzen jakun, gaiñera, pixka bat, bai.

- Eta hor, talde hortan, zein zan irakaslia-edo? Hau, `Surra´?

- Ez, ez, talde bezela funtzionatzen giñuen. Tartian behin ekartzen giñuen, eeee... bueno, pixka bat zerak hobetzeko-eta, Edu, Edu Murua tartian behin etortzen jakun, zerak-eta pixkat pausuak-eta berak zuzentzen zizkigun, eta "ez, holan, hau holan in bihar dozue /biozue/ eta...". Baiña etortzen zan, ba, ez dakit, igual pare bat hillian behin-edo etortzen zan ta esaten zoskun: "Ez, hau meioratzen jun bihar dozue, hau ein bihar dozue / biozue/, ta hola" ta, bueno, gero ya gu juten giñan ba.. Ez, baiña, talde bezela. Elkartzen giñen taldea eta -astian behin-edo elkartuko giñan seguruenik- eta, bueno, hor, hor ibiltzen giñan zerian, Seminarixoko oholei hautsak kentzen, jo-ta saltoka. Bai, hor.

- Ze dantza edo...? zer...? pixkat danetik ala...?

- Euskal, euskal dantzak. Bai, danetik, bai. Euskal dantza orokorrian, bai.

- Neska-mutilak ziñaten ala...?

- Bai, bai, bai, talde mistua. Eta mutilak falta izeten zian orduan be eta, bueno, ba, mutilak falta izeten zian eta gu ez abillak giñalako, e? baiña, bueno, ba... ba bultua, bultua eitten giñuen eta hor jarduten giñan, bai, bai.

- Eta nora juten ziñaten gero dantza egittera? Hemen, herrixan bertan?

- Ez, herrixan, gehixenbat, bai, herrixan. Ez dot uste... kanpora arteera bakarren bat igual ingo giñuen norabait, baiña ez, gehixen auzo... auzoko... auzuan eta. Eta gero, ba, herrixan gehixenbat. Ez giñan gehixegi zabaldu. Bai.

- Zenbat ziñaten taldean gutxi gorabehera?

- Jo, jo, oin dala hogeita hamabost urteko kontuak dia, e! Baiña nik uste dot izango giñela hamabost-hamasei bat lagun-edo izango giñan. Bai. Gehixau. Gehixau igual, e! Bai, bai, hamabost-hamasei bat orduan, bai, bai, neska ta mutil danea holako talde... talde politta zan.

- Hitztuna2: Eta hogei´re bai igual, ni Xamatx taldea ikusitta natxiok eta.

- Baleikek, baleikek, bai.

- Hitztuna2: [...].

- Baleikek, bai.

- Eta organizatzen-edo batenbat egongo zan pixkat taldeai... nahiz eta talde lana izen, batenbat beti egoten da gidatzen dabena edo...?

- Bai, ba, bueno, Madina, Madinabeitia, Madinabeitia Ramonen alaba ibiltzen zuan, Estepanen andria. Eta, bueno, Madina eta, bai, holako... nik uste dot, ez dakit bestela hola... ba taldean. Beti... Iñoiz ba abisua pasatzen zoskuen "Hi! Ba zerian parte hartu bihar dozue /biozue/, ba... San Martzialen", bueno, ba San Martzialgo sokia egin ta, bueno, ba San Martzialera. Ala ba! Bueno, baiña, ez, gehixen... ez zan... bueno beti egongo zan bakarren bat... Igual Amaia, Amaia Madinabeitia izango zan gehixenbat, ba, berez betidanik dantza... dantziakin, dantza inguruan-eta

mobidu dalako eta, ba, eurengana joko zuen jendiak. Baiña, ez, bestela, talde bezela funtzionatzen giñuen.

8. Euskara

8.1. "Unas canciones nuevas" bertsoak, Carmen Gazteluk abestuta

- **Hizlaria(k)**: Gaztelu Eguren, Carmen
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-035/004
- **Iraupena**: 0:02:02. **Hasi**: 00:03:20. **Bukatu**: 00:05:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: Euskara eta erdara nahasten dituen bertsoak abesten ditu Carmen Gazteluk.

Transkripzioa

Unas canciones nuevas nahi nuke kantatu
con la esposa mía zer zaidan pasatu
con un cortejo nuevo zidan eskapatu
aquella habrá creído ez dala pekatu.

Y yo dije por ella hospital batean
que no me visitara sendatu artian
que ya tenía otro bien bitartian
me dicen que anda fuera montaña partean.

Ama elgoibartarra ella de Orozko
neri eskapaturik con otro morrosko
zazpi urte pasa da que yo la conozco
por dónde anda ella nik ez dakit asko.

Los dos dicen que beben goizetik gauera
tres azumbres de vino edanda ohera
sin dormir en ayunas askoz baiño hobe da
la mujer que yo tenía bizi da honetan.

La mujer bebedora ez da emetatzen
tiene todos los vicios danak dauzka saltzen.

Con una cestilita besuan harturik
para [imitar] en casa erdi txoraturik
me dicen que anda fuera burutik altarik
pero aquella no tiene buruko faltarik.

Dejándole a su hija desanparaturik
con el [placiejo] ha ido [plagia] harturik
ay que mala tan falsa eduki nuan nik
en las tres provincias ez dau halangorik.

Teníamos una hija, nor ote zan aita?

como si fuera mía nik izan nun maíta.

8.2. Euskara. Hitanoaren erabilera

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/008
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:12:07. **Bukatu:** 00:13:23
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Euskara. Hitanoaren erabilera. Osintxun azkenaldian zuka asko entzuten da.

Transkripzioa

<p>- Eta lehen hemen hika eingo ziñuen, ez? - MERTZEDES: Hi guk beti. - Hi beti, ez? - M: Bai. Guk bai. - ELISA: Ointxe arte Osintxun zu oso gutxi... - M: zu ointxe asko esaten da, nik daneri hi. Nik daneri. Nik, aitzia, pentseizu... nik hi esaten jat horri ta berak be bai neri ta... - Hori ondio oin be bai e! - E: Bueno, baiña Osintxuarrak famauta egon gaittuk horrekin Bergara inguru guztian e! - M: Hi esatiakin... - E: Hi esatiakin. - M: Bai, [...] - E: Oin hemendik kanpora be esaten da oingo euskara batua edo euskara zer honekin, baiña lehen honetantxe bakarrik e! - M: Zu asko. Oin be hemen zu asko esaten da. - E: Oin bai, baiña lehen lehen ez. - M: Lehen ez. Danak hi. - E: Pentsau be ez! Danak hi; aitzak-eta alkarri, aittari ta amari zu, amandriari [...] tiuri ta... - M: Aittari ta amari zu. - Ta ume txikixari be zu. - E: Bai... - M: Ta pertsona zaharreri be zu. Baiña gaztien artien... bueno! Pentsau be ez besterik! Zu esaterik...! Hi [...], hi dana. - Ta andra-gizonen artian? - M: Andra-gizonen artian zu. - E: Zu. Zu andra-gizonen artian. - M: Guk zu [kostunbrau dou] beti. - Ta ume txikixeri be zu. - E: Zu ume txikixeri be. - Segun, edade batera arte bai... - M: Bai, txiki-txikixak dienien bai. Mutil koskorak eta dienien hi. - E: Bai, txiki-txikixak eta dien artian... Gero bai. - M: Bai, jenerala hi. Bai. Horixe kostunbriori zan hemen.</p>

8.3. Baserriko tresna zaharrak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroiturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-058/051
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 01:01:48. **Bukatu:** 01:02:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Baserriko tresna zaharrarekin zerikusia duen lexikoa.

Transkripzioa

- Gero abarkak josteko be izeten zan. Abarkak nik neuk be josiko nittuke geiñera! Gure aittak josten zittuen. E? Ebaitzen dia abarkak ta muturra josten jakuen. Pusketia kendu eta irabaliakin josi. Ta gero egoten zan erremintta txiki bat [ahua] dana. Ta lehen goguan neban ta oin ahaztuta daukat zela esaten otsan hari. Holako mangu txiki bat eukitzen eban ta ahua, ta porejenplo, abarkiari sartu bihar jakon zozkixa, zozkixa esaten jakon, han eitten eban harek jo maillukiakin ta zulu. Ta hemen be beste zulo bat, hemen be beste bat, hemen be beste bat, abarkian buelta guztia. Ta gero sartzen zan handik haura.

- Ilobalia...

- Ilobalia ez! Zozkixa! Izeten zan narruzkua; narruzko estu-estua. Bai. Harekin formatzen zan ha, zera, abarkie.

8.4. Belar klaseak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/051
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 01:07:06. **Bukatu:** 01:07:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Belar-klaseen izenak: belar pobreak "almitza" esaten zioten. Belarra ondu egiten zen urtero.

Transkripzioa

- Ze bedar klase zeren?

- Bedarrak... ba! Bedar pobria, almitza esaten jakon. Almitza. Ta bedarrok, ba... lurretik urtetzen daben mardo-mardue izen ezker, hori lur klasiak asko eitten dau ta, ze lur klase dan...

- Bedarra ondu-ta eitten zan orduan?

- Bai. Horixe! Horixe bai. Urtero.

8.5. Gaztaina klase desberdinak

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/054
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 01:09:43. **Bukatu:** 01:10:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena:** Gaztaina asko. Gaztaina klaseak.

Transkripzioa

- Lehen gaztaiñia esan dozu... Orduan, gaztaiñia asko izengo zan, ezta, hamen?

- Asko, asko! Enee... dana gaztaiña! Dana gaztaiña-arbolia. Ta klasiak. Bizkei gaztaiña esaten jakon egosi ta jatekua; oso ederra. Ta gero txapardua esaten jakon erreta jatekuari. Domu Santuetatik aurrera erreta. Baiña erreta, ez kiskartuta, e? [Malus-malusak itxi] ta oso ederrak. Ta beste klase batzuk baeren: abadiñokua esaten jakona beste bat eta... Gaztaiña klasiek.

- Gaur baiño gehixago izengo zan orduan gaztaiña be hemen, e?

- Asko, asko. Burdikadak gaztaiña sartzen zan. Burdikadak. Gaztaiñadixak haundixak.

- [Patatiakin] be egitten dan beste jatordukin, e, patatarik ez. Hori [beltza zan] gero e!

8.6. Baserriko bizimodua; sukaldearen egitura

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/028
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:46:58. **Bukatu:** 00:47:33
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Sukaldeari, ezkaratza ("ezkatza") esaten zioten umetan.

Transkripzioa

- Ta oin, ba, sukaldia guk esaten dou. Ta sukaldia danien. Baiña gu umiak giñanien "eskaatza".

- Bai, bai...

- Eskaatza.

- Ondio Bizkaixan-ta eskaratza esaten dabe [batzuk...]

- Bai, eskaatza. Eskaatza. Sukaldeik ez. Eskaatza. Ta guk hemen beti bentania ta zerak esaten eban etorritta, hemengo senittartekua ta sarri [ixotxen eban] ta [...] "Bentania ez da esan bihar, leihua! Zuek ze euskaldun zeate?" Ta, ba, guk entzun douna, edo ikesi douna. Baiña harek "leixua". Ta sukaldeik be ez, eskaratza. Eskaratza.

8.7. Esnea alperrik galtzen zenean, zurbildu egiten zen

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/068
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 01:45:52. **Bukatu:** 01:46:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Lexikoa
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena:** Esnea ez bada egosten, galdu egiten da; esnea zurbildu egiten zen.

Transkripzioa

- Konparaziño baterako, esnia zuk badaukazu egosten, ezta, ta galdu eitten jatzu. Edo berua izen dalako edo... bueno. Eta "Ene!", oin: "Esnia galdu da!" Baiña gu gaztiak giñanian zurbilddu. "Ene! Esnia zurbilddu da!" Aita Garmendiak [apuntauta... eitten gendun ta]. Oin be Txurrukara etorri da.
- Aitta...?
- Aitta Garmendia.
- Nungua da hori?
- Praillia, Arantzazukua, [Mondraukua]. Urtietan dator, eta oin etorritta dao. Datorren astelehenera arte hor dao. Esplikaziñuak emon, nahi dabenak konfesau ta komurgau...
- Zurbilddu?
- Zurbilddu.

8.8. Auzoa: baserriak; toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lete Iribecampos, Juana Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-063/002
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:02:50. **Bukatu**: 00:06:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Euskara desberdina auzoan bertan. Baserri izenak. Elosu auzoaren banaketa. Mugarriak. Toponimia.

Transkripzioa

- Ta diferentzia hamendik Azkoitti auzora hizkeran badao, ezta, diferentzia?
- Badao. Ene! Horrek Azkoitti aldera eitten dabe.
- Azkoitti aldera erabat. Bueno, erabat edo ixa dana, behintzat.
- Hau... hau eskastzat jotzen dabe hemengo hizkuntzia.
- Eskastzat?
- Bai. Hau ez dakit, ba, nik ijitto modukue dan edo ze... Hau eskasa. [Hortara], hor, behintzet, Azkoitti... zer gehixao eukitzen dabe alde hortakuek. Hamen Begako Maria, Elgoibartik etorritakue da baiña dana [azkoittiartu] hizkeria eitten dau harek.
- A bai, e?
- Bai. Oseake, jarri zan orduan horra.
- Bai. Bai, bai. Horixe. Horrek be [erok] hona etorri aurretik kriada Bentan bost urte-edo ez dakit ze ein zittuen...
- Benta ta zera, Bega, por ejemplo, nahiz ta oso gertu egon, Bentatik zerera ya asko aldatzen da, ezta, Begara, hizkeria?
- Diferentia, hoixe, bai.
- Ta metruen aldia dao, ez?
- Bai, bai, ez dao alde haundirik. [...]
- Eta Bega ya Azkoittiko zera da ala Bergarako...?
- Ez, ez, mugarrixa... Hor zerian dao, Santutxun dao mugarrixa bat.
- Santutxuan dao?
- Ta bestia Elizaldien.
- Elizaldian... Ixaun Bergarakua izango da...

- Bai, Bergarakua da.

- Ta Sakristaua?

- Baitta.

- Baitta?

- Bai.

- Zu ez akordatzia... Bueno, oin akaso haura nik ez dakit egongo dan... han badao, ba, kamiñuz azpikaldera soruak-eta Ixaunen?

- Kamiñuz azpikaldera?

- Kamiñuz azpikaldera.

- Ba, soruak lehen izengo zien, oin ez dao sororik.

- Bai, bai, baiña behintzat itxitturia.

- Bai.

- Ta itxitta [...] bueltatzen dan kontran bertantxe dao mugarrixa. Ta han lehen zan Bolintxo aldera bidia. Jendia [...] ez danakin ibiltteko modukua ez, baiña jendia elizan atzera-aurrera ta ibiltteko ta bidia zan. [Lizar-gaiña] esaten jako, ba, han zerien, aillegatzen garanien, ezkerrera...

- Elizaldian?

- Elizaldian.

- Bai.

- Ba, hantxe kontran dao.

- A! Han dao mugarrixa?

- Hantxe dao mugarrixa.

- Eta... Baiña Begako han... Edo... Begakua, nik ostera... Ixaungo handikalderako zelaixa-ta harek danak Bergara partia izango dia, baiña, ezta? Terreno... Begako terrenuak... Edo...Ixaungo terrenuak danak dare Bergara partian?

- Dan-danak ez dia egongo segurua edo... Nik ez dakit. Horrek... hemen kamiñuz azpikaldera daren soro lau horrek nik ez dakit izango dien...

- Baiña hala egongo dia, bestela kontribuziñua batzuna baten ta beste batzuna beste baten pagatzen ez dia ibiliko...

- Hala egongo dia, hala egongo dia, bai.

- Eta...

- Santutxutik Elizaldera bastante... Harek zuzenian jun ezkerro behetik geratzen diela emoten dabe soro harek. Santutxu han azpikaldien bertantxe dao mugarrixa: Bergara ta Azkoitti.

- Labia ta honek danok Bergara izango dia...

- Bu, horrek danok.

- Eta zera... Amentzelatik [...] nora esan dozu? Aizpurutxora?

- Amentzelatik Aizpurutxora.

- Amentzela ta horrek nora pertenezitzen dia?

- Amentzelakuek Bergarara.

- Bergarara?

- Bai.

- Elormendixak be bai?

- Baitta.

- Bixak?

- Baitta. Bergarara.

- Lutxurdio?

- Bergara. Etxeberri badakizu nun dauen han [...] behera?

- Bai, bai.

- Harek Bergarakuek dia.

- Eta Kortabarririk eta danak dia Bergara partia?

- Danak dia Bergarakuek. Eta...

- Oseake, hor Bergarako partia ixa Aizpurutxoraiño bertaraiño sartzen da orduan...

- Aizpurutxon —esaten dabe— kamiñuz gaiñekaldetik dao etxe bat ta

bestia azpikaldetik. Dare... Goiko Bentia esaten jako. Ta han esaten dabe mugarrixa bertan dauela, ta goiko partia dauela Bergara partien. Ta hor saso´ baten nik ez dakit zela ibiltten zien batien multia zaukela ta gero ein zebeñ, ba...

- Plazan be ez dabe, ba, esaten, plazan mugarrixa edo... plazan daola mugarrixa entzunda nao ni...

- Hemen?

- Ez, Aizpurutxon.

- Ez dakit.

8.9. Txondorra egiteko prestaketak

- **Hizlaria(k)**: Albisua Larrea, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref**: BER-095/004
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 00:06:14. **Bukatu**: 00:08:43
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Euskara » Lexikoa
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- **Laburpena**: Ikazkintza. Garoa orbela baino hobea da txondorra tapatzeko; orbelak sua ateratzen du; garoak ez, motelagoa da.

Transkripzioa

- Eta...

- Orbela baiño garua da hobe. Garua beti latzaua da ta garua hobe. Tapatzeko be, zerakin, idurixakin tapatzeko be da hobia garua. [Orbelian], ipintteko era... paliakin be ez jako bota bihar izaten, zestuakin bota bihar izaten jako. Holako zesto txiki bat hartu bete-bete ta [...] zapaldu-zapaldu-zapaldu, hartu ta gora. Garua [...] ta gero zapaldu, eskuakin ondo zapaldu danian. Guk hortara eitten giñuan ta orbela da txarra. Gero be bai, freskatzeko denporan be oso txarra. Egosittakuan orbela han dao, haura be egositta eitten da bestien moduan, egurra bezela, baiña sua etaratzen dau asko. Garuak ez, garua motela da. Garuak... hillaua geratzen da. Ta gero freskatzeko denporan be egosten danien, dana egosten danien, hautsa bajatzerakuen be oso txarra da haura. Garua oso libre etorten da behera zerakin, idurixakin batera —idurixa egoten da, ba [birin-biriña] dana suen egoten da haura, gori-gorixa.

- Zelan egoten da, [birin-birin]?

- Ez zan egoten ha dana su zera... gorixa., gori-gori-gori eindda, [zeindda gorriña gorixa] bezela. Haura orbelakin batera oso txarra da, dana sua sartzen da... ekartzen dau goittik behera eta ez da libratzen, gaiñera, orbela garuan moduan. Garua bai, garua ondo. Ta puntatik [balidin badao] holako zati bat, “da!” kendu zera, hori idurixori, erreta daon hori goriori beheko barrenera ta puskat harrotu zera, bera, iketza, aldiko tramo bat. Ta haura einddakuan, harrotu ta zertutakuan, hartu behetik eta idurixa botatzen jakon berai gora atzera. Hoztuta egoten da puskat. Bota ta gero [...] bat ein, “ra-ra-ra”, leundu. Freskau, handik freskatzen da haura. Buelta guztian horixe ein bihar jako poliki-poliki-poliki. Gu hiru laun ibiltzen giñan: batak bajatzen otsan idurixa behera, harrotu be bai ta bestiak gero gora bota. Atzian oienak, hirugarrenak, hustu [...] “ra!” igurtzi, leun-leun-leun

[ipini dana] ta freskau. Handik freskatzen da haura.

8.10. Ikatza txondorretik nola atera

- **Hizlaria(k):** Albisua Larrea, Martin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-095/005
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:08:43. **Bukatu:** 00:10:38
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 - Euskara » Lexikoa
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** "Iketz-plazia", ikatza atera eta garbitzeko tokiari esaten zioten. Eskuarearekin batzen zen. Ikatz zati txikiagoak, beste zaku batzuetan sartzen zituzten. Galbahean eralgi egin behar izaten zen.

Transkripzioa

- Eta txendorrán onduen gero ikatza atara edo, ba, zakutan sartu edo holan leku... Egoten zan leku aproposa...

- Egoten da iketz-plazia esaten jako.

- Iketz-plazia?

- Iketzan plazia esaten jako, iketza etara ta eukitzeko lekua. Garbittu, bedarrak eta kendu eta garbi-garbi-garbi ipiñi, ez lurrik eta ez adarrrik eta ez dein egon, garbi, gero jasotzeko be. Ta harek lagatzen jako bi lekutan edo hiru lekutan edo, ba, txendorrari buelta guztian lagatzen jako. Ta hara eruaten da eskubarakin arrastaka eruaten da. Eskubaria [egoten] da, hola, luzia, hortzak luziak eukitzen dittu. [Hortzdun] zer harekin iketza bape maltratau barik eruaten da. Ta gero ondoko xehe haura beste eskubara bat xehiauakin, holako tamaiño inguruko hortzakin, "rraa", harekin batzen da dana. Ta [harendako bihar dabe] bi galdare: haundixandako bihar dau mietza daukana zuluak; ta txikixana bihar dau, ba, txikixauak. Han eralgi ta ya han geratzen dana harrixak edo zera baldin badauka apartau ta haura zakura.

- Larraiña edo esan dotsazu iños horri?

- E?

- Ikatz-plaziai, ikatz-larraiña edo...?

- Ez, ez, beti plazia esaten gontsan. [... etaratzen giñuana]. Han eukitzen giñuan goizian etara... Jeneralmente, iketza goizian etaratzen da ondo; gaba peligosua. Eske iketzak sua etaratzen dau, ba, nunbaiten eskiñan baten, han edo bestian. Ta gabian [...] geu akordatzeke iketz dana erre ein leike. Ta, ba, goizian etara ta nahi baldin bada atsaldian sartu ta hurrengo goizerako bestela laga. Lehenao esan notsuen, ezta? Pisua hartzeko ihintza [da ona]. E? Ura bota ta moteldu eitten da. Iketza, gaiñera, zaratia [be kendu] eitten jako; dana geratzen da egur-koskorak izetia moduko zaratia, baiña bestela egoten da urriñerako zaratia eukitzen dau, e?

8.11. Erdara ikastera Arabara

- **Hizlaria(k):** Osoro Elkoroiribe, Tomas

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-193/006
- **Iraupena**: 0:03:19. **Hasi**: 00:06:21. **Bukatu**: 00:09:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Jende asko erdara ikastera Arabara joaten zen. Soldautzako kontuak.

Transkripzioa

- Eta rarua hemen, Lezetako eskolan, euskeraz eitterik laga ez...
- Ez, ba! Erderaz ikesi bihar zan orduan ta. Lehen hemendik Vitorixara-ta faten zian erderaz ikastera. Bai. Lezetako gure tio bat be Vitorixan egon zan. Ta Bergetxekua zera be bai... Hori zurekin etortzen danori zela da?
- Aintzane...
- Aintzane. Haren aittitta Bergetxekua be bai Vitorixan. Ta Gaztandolakua ta hemen etxe mordokuak esaten eben.
- Orduan ze zan, inportantia ez, erderia...?
- Bai, bai, erderia. Iñok [turik] be ez zekixan gero erderaz. Gure aittak hemen gerra denporan, milizianuak-eta etortzen zian, ogixa-edo, eske, gosiak egoten zian ta. Ta "¿cuánto vale?" preguntatzen baotsen harek, ez zeban jakitzen gure aittak zanak ze esaten otsen. Erderaz [turik] be ez.
- Bapez, ez?
- Bapez.
- Orduan, erderia ikastera Arabara juaten zian?
- Bai. Ta Lezetako horren maistrorren anaia San Francisco Javierren egon zan erderaz ikesten. Ez dakit zenbat denpora edo ze ingo eban, baiña... Txarrixak gobernatzen esaten eban berak, baiña hantxe behintzat.
- Eta hori ze izaten zan? Arabara juaten zian lanera edo...?
- Bai, Lan ein ta tripia bete... [...]. Ta bertan kastillanuak eta, ba, erderaz ikasi.
- Mutillak. Eta neskarik juaten zan?
- Neskari ez naiz ni akordatzen hola erderaz ikasten egondakorik.
- Neskak-eta bai urtetzen zian iñude edo, ez?
- Ba, iñude be... Hemen basarrikorik ez iñude be. Ez.
- Orduan, Arabara mutillak bakarrik.
- Bai, Arabara mutillak [banakak] faten zian erderaz ikastera.
- Eta hori ze izaten zan... Gero, gaiñera, soldautzan be, ba, pixkat...
- Soldautzan hor egon giñan Araban gu be, baiña... ze ikasi, ba, guk?
- Hobeto manejatzeke soldautzan, ez? Bestela gogorra izan bihar zan erderaz jakin ez eta...
- Bai. Baiña bertan euazen kapitanak-eta euren asistentia edo matxakantia euskalduna nahi izaten eben, e!
- A, bai?
- Bai.
- Ta zelan, ba?
- Ez dakit, ba, nik. Horixe zegaittik zan ez dakit nik, baiña ikusi eitten zian euskaldunak eukitzen zittuela. Ta nere aurretik be [esku] egon zana asistente, harek be esan ei otsan [eskuari] beste euskaldun formal samar bat billatzeko beran lekurako lizenziatzen zanerako. Ta harek ni laga ninduan. Ta gero nik laga neban Pedron kuñatua, Petran anai bat: Ramon. Hil zan haura aintxiña. Bai. Harek, Ramonek, ekazen oin hirurogeta hamabost urte, bizi izan balitza.
- Eta zegaittik, ba? Euskaldunak jente fiña zalako edo...?

- Ez dakit, ba, nik! Hola, zeoze hola izango zan, behintzat euskalduna nahi izaten eben. Bai. Han koronelan txoferra-ta be euskaldunak zian. Ixa gehixen euan holakua euskalduna; asistentiak eta matxakantiak gehixenak euskaldunak.

- Matxakantia zeri esaten detsazu?

- Matxakantia, ha izaten zan sargentuena. Bai. Sargentuena ta brigadena. Ta gero, ofizialenari asistentia esaten jakon.

8.12. Zigorra euskaraz egitearren

- **Hizlaria(k)**: Osoro Elkoroiribe, Tomas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-193/007
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:09:40. **Bukatu**: 00:11:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena**: Lezetako eskolan zigorra euskaraz egiten zuenari. Zigorren inguruko kontuak.

Transkripzioa

- Eta esan dozu hemen, Lezetako eskolan, erderia ikastia nahi edo...
- Bai.
- ... maistriak, behintzat, halan eitten zetsuen. Anillua ta, oseake, kastiguak be ezautu zenduezen...
- Bai, ba, kastigua izaten zan anillua. Bestiak burla eitten eben gero "Anillua hik dakak" eta.
- Orduan, euskeraz eitten zebanari anillua [emoten] zetsen...
- Aillua, bai.
- Eta ze izaten zan hori, aste barruan anillua eruan bihar edo...?
- Beste batek euskeraz ein arte. Besten batek euskeraz eitten baeban, hari anillua. Ta hola izaten zan, trukutzen anilluori.
- Eta gero, esan dozu, zapatuan edo...
- Zapatuan geratzen jakonak astelehenerarte erabili bihar izaten eban. Astelehenian beste batek euskeraz eitten ebanian, hari.
- Eta anillua zelakua zan? Haundixa edo ze...?
- Hauxe, andrak eruaten daben tiporakua, haunditxuaua. Baiña auskalo ha izango zan [kataren] baten [...] bat edo izango zan haura. Baiña haxe. Atzamarran edo poltsikuan haxe eruan bihar.
- Eta iñok nahi ez, klaro.
- Iñok nahi ez haura eruatia. Ta erderaz iñok jakin ez! Hortxe euan jokuori.
- Eta ze izaten zan, gaiñera, burlak...
- Burla? Bai. Eskasuari burla beti.

8.13. Jatorria; tokian tokiko euskara

- **Hizlaria(k)**: Altuna Egidazu, Felipe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-207/002

- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:00:15. **Bukatu:** 00:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** 1929an jaiotakoa Bekoetxe baserrian. Aita bertakoa; ama Arrasatearra. Emaztea, Goierritarra. Euskara desberdinak; toki bakoitzaren berezitasunak.

Transkripzioa

- Hasteko, nun jaixotakua zaran eta ze urtetan kontauko destazu?
- Bueno, milla beratzirehun ta hogeta beratzixen jaio nintzen hor albuen ikusten dan beheko etxien. Ta gure aitte hor jaiua zan, ama arrasatearra. Ta horreatik nere euskerie da puskat nahastua. Puskat bergaratar be bai, baiño asko arrasatear. Ta gero ikessittekue puskat, zeatik eze nere emaztie Goierrikua da ta haren hizkeria diferentie da.
- Bai, gaiñera, ziharo oso diferentia, ezta?
- Bai. Bai, bai, bai. Gurien aldien egokixa da.
- Bai?
- Bai.
- Hemengo euskeria ez da oso...? Edo?
- Ez, erderatik asko hartuta. Hemen Arrasaten, hala ´re, erderatik asko hartuta.
- Arrasate ta Bergarako euskeria diferentiak dia?
- Diferentiek die, bai, puskat diferentiek die. Ta Oñatikue be bai, e!
- Bai, ez?
- Bai, bai, Oñatikue dezente diferentie.
- Toki bakoitzak badakaz beran... esaerak eta esateko moduak...
- Ta gero... Goierri aldera-ta beste hizkera diferente bat eitten da, baiño guk asko eitten dou bizkaieraz. Hemen, itxuraz, fronteran...
- Jokera gehixao...
- Bueno, ez dakit, baiña gure jokerie izan da asko Arrasatera. Oñatira zazpi kilometro, Bergarara sei eta Arrasatera hiru.
- Hori da. Ta gero ya bizimodua eitteko...
- Bizimodua eitteko gehixena Arrasatera.

8.14. Euskara eskolan

- **Hizlaria(k):** Maiztegi Elkoroberezibar, Juana
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-212/024
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:30:10. **Bukatu:** 00:32:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskararen egoera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena:** Dena erdaraz ikasten zuten. Eta beraien artean ere erdaraz egiteko ohitura sartu zien. Zigorrik ez zegoen euskaraz hitz egiteagatik. Bai, ordea, bere amaren garaian.

Transkripzioa

- Eta zelan izaten zan, euskeraz edo erderaz?
- Erderaz ein bihar zan han. Han euskera askok nik uste dot ahaztu ein zebala.
- Bai e?
- Han dana erderaz.
- Eta zeuen artian gero...
- Aurrenetik uste dot euskerazko dotriña emoten zebela, e?
- Ta zeuen sasoirako ya?
- Guk... nik, nere gogun erderaz.
- Dotriña be erderaz. Ta gero zeuen artian, ba, jolasorduan edo, euskeraz eitten zenduen edo...?
- Bai, eingo giñuan. Baiña gehixao erderaz, e? Ya sartu zoskun hauraxe belarrittik eta...
- Ta zigorrik edo eukitzen zenduen, kastigorik edo euskeraz eittiarren edo...
- Ez, ez, ez.
- Ez? Halakorik ez?
- Gure aman denboran ta bai.
- A bai?
- Gure amak esaten zeban, esto, gaztia, zeaittikan bederatzi urtekin bialdu zeban amandriak Bilbora, eta aurretik ibiliko zan. Eta zeukan, esto, erdaldun maistrua. Eta euskeraz eitten bazeben, ei zeukan anillo bat. Eta anillo haura, zeñek, zein geratzen zan anilluakin, eskuak ipini hola, eta...
- Zigorra atzaparretan...
- Bai.
- Eta hori amak ezautu zeban?
- Bai, bai, amak. Ta harek ez zekixen ezebe. Amandriak eta zela eingo zeben ba erderaz, harek ezebe ez zekixen. Ta disparatiek esango zittuen, baiña... Pentsaizu noiztik datorren gorrotua e? Gure amak eukiko zittuan oin "ciento y pico de años". Neuk dauzkat "noventaitrés", konke...
- Bai, bai, aspaldiko kontuak. Jesus.

8.15. Osintxuko toponimia

- **Hizlaria(k):** Arando Zangitu, Jose Mari; Zenitagoia Berriozabal, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-231/002
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:00:40. **Bukatu:** 00:04:12
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Osintxuko toponimia.

Transkripzioa

- Gutxi gorabehera hemen azulez markauta darenak die errekek eta beste honek berdiakin darenak die mendi-tontorrek. Hori da jeneralian.
- Kanposanto [barrenian Asenen] taillarran parian atzekaldien daguan horrek izenik badauka?
- Kanposantuan horrek, ba, hor Orei jak ta Oreiko sorua ta gaiñekaldien, ba, Oreiko etxaburua esaten dotsau horri. Betik hola esaten dotsau. Orei jak hor kontran ta Oreiko sorua.

- Hau da basarrixa... Olei esan dozu?
- Orei.
- Orei...
- Oregi.
- Eskolia dauan...?
- [...] Oreiko sorua beti horri. Guk... Oreiko sorua. Sorua izen dok hori beti.
- Ta eskolia eskolia, ez? Horrek ez jok beste...?
- Ez, hori eskolia [...] ta kitto. Guk Oreiko sorua [esan...] beti.
- Ta bestekaldera dauana, hori [aldapaori]? [...] taillarran parian gaiñian...?
- Zelai.
- Zelaixa bai, baiña horrek aparteko izenik ez dauka?
- Guk Oreiko zelaixa.
- Oreiko etxaburua.
- Oreiko etxaburua. Bata etxaburua ta bestia etxazpixa izango dia horrek.
- Hori Atxuriondo aldera arte hor Kurutza parian badao besterik?
- Horrek dittuk zerak...
- Munitxo aldia.
- Horri Munitxu esan izan dotse, bai, Atxuriko aldera lehelengo hartzen dabenari. Ta gero harek... Olaldeko gaztaiñixa bestiak, Olaldeko gaztaiñaixa bestia.
- Zela esan dozu? Munitxua?
- Munitxu. Guk Munitxua esan [...] dotsau. Oin... beti gure izena hori izen dok totntortxo haura.
- Hor Olalde inguruan?
- Ta gero [Orei] pasatzen darian, gaztaiña... [Olako] gaztaiña...
- Mieka aldian, Mieka barren aldian. Mieka basarrixa da, Mieka barrenian.
- Hau, [Atxuriondok oin in jok hor granja bat]... hor gaztaiñeixa, Olako gaztaiñixa horri esaten dotse.
- Bai, bai.
- [...].
- Hori nola esan dozue, Mieka?
- Granjia indda dauenori dok Gaztaiñaundixa... o... gaztaiñixa, Olako gaztaiñixa!
- [...].
- Gaztaineria edo ez dakit zela... gaztaiñeixa. Gero hortik aurreratxuau, ba, Aitzaunditta hara Billoteira bittartian. [Atxuriondo burua].
- [...].
- Bai.
- Hori zela esan dozu?
- Hortik Aitzaunditta.
- Baiña hori ze izengo zan Atxuriondotik Billoteira bittartian daon dana?
- Bai, [...]. Atzenengo piñua bota juen, ba hemen? Hauraxe.
- Olaldek-eta piñua bota [zeben...]?
- Bai, Olaldek bota [zeben] hauxe, aldapa hauxe.
- [...].
- Gero, oin, han aldapatik hor [hor nundik sartzen haizen] berriz? [...]
- Parian gora segidu. Horren parian gaiñekaldian badao ezer?
- Bai, [...] basarrixak.

8.16. Osintxuko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Arando Zangitu, Jose Mari; Zenitagoia Berriozabal, Jose Mari

- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-231/003
- **Iraupena:** 0:05:01. **Hasi:** 00:04:12. **Bukatu:** 00:09:13
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Osintxuko toponimia. Osintxuko zenbait baserriren izenak.

Transkripzioa

- Bai, gaiñeko tontorra Miekán ta txabolía baiño beheratxuauan.
- A! Horixe izengo da txabolía, honen azpíxan.
- Ta horrek azpíxorrek Míeka.
- Tontor-une hori?
- Bai. Horrek azpíkaldía Míeka esaten jako. Oin hortik Muskitxura juatía onena, e!
- Muskitxun...
- Gaztaiña... einda dakazue, Anbeltza ta?
- Ez. Hor errekatxo horri zela deitzen dotsazue? Atxuriondotik pasatzen dan hori...
- Hori Elusu errekiá dok hori.
- Muskitxu(ko) errekiá...
- Muskitxu erekiá.
- Bixak ipini... [...]
- Ta hor Billoteittik Arando aldera daon hori aldapaori?
- Ba, hori [...] Gaztaiñaundi hari lehelenguai.
- Gaztaiñaundi ta gero han behien [... terrenuak be bajarek] eta...
- Gaztaiñaundíxa ta gero Aanbeltz hurrengo segidía, Anbeltz.
- Billotei...
- Billoteiko etxaburuan.
- [...].
- [Egon hari], erreka aldera, eskubiko aldera jarri, Iraban aldera [...].
- Zera, bestekaldía indda daukou.
- Bai, Muskitxu inda [...] ta...
- Iraban aldera basuak [Billoteixak].
- Bestaldía indda dauke...
- Hau nola esan dozu, orduan?
- Gaztaiñaundi... e...
- Gaztaiñaundíxa.
- [...] Gaztaiñaundíxa.
- Hori nun... zera dao, Billotei aldera ala Arando aldera?
- Puskat Arando alderatxuao goixen. Han bidie badao ziherrera, [... txabolatik], haren azpíkaldien.
- Ta horren kontrán Arando aldera ze esan dozu daola?
- Aranbeltz esaten jako horri mendialde danorri.
- Handik gora, Galartzako zelaixen azpíkaldien...
- Bai, hau Aranbeltz.
- Baiña zeuek nola esaten dotsazue?
- Aranbeltz, guk Anbeltz, Anbeltz esaten dotsau, Anbeltz.
- Ta horrekin noraiño zertu bihar dok oin?
- Ba...
- ...plano horrekin?
- Hori [...]... Hori nehikua. Baiña hori ya...
- Hortik aurrera hasi ta noraiño juan bihar dok, ba, [...raiño], ala?

- Ez, hortik aurrera ezingo gaittuk fan. Hori ixa zerera...

- Kostei-ta hemen geratuko dittuk?

- Bueno, hori segun zeuek zenbateraiño dakizuen, gero puntu bat allegatzen da, ba, guk hortik aurrerako konturik ez dakiu. Ordurarte, ba...

- Guk be Anbelztik aurrera behetik nik neuk ez jakixat Anbelztik aurrera izenik eta ezer. Han [...] eta bajarek han aurreko han azpizen, baiña... Izen horrek Billoteiko Juanitok eta horrek jakingo juek hori. Hortik aurrerakua [...] ez dakit. Guk lagatzen dounetik Kostei beheko zulo hori. Basozarra ta hor badittuk. Ta hor, [Gantxeik] piñua sartzen dabitzena ta horrek, horrek, ba, hortaiko batzuk hartuta ein bihar, hortaiko bateana fanda. [...].

- Bai, horraiño... Aranbeltzeaiño...

- [...].

- E?

- Aranbeltzeaiño [...] lagatzia onena.

- [...] bagaittuk, nahikua juau bigarren [...].

- Oin onena izengo dok berriro kanposantuan ekin ta hori [...] zulo hori jasotzia puskat gora.

- Lehen alderantziz [...].

- Hori dok, hori jaso Miekara arte.

- Bueno, lehelengo basarrixekin hasiko gara, ez? Situatzeko puskat.

- Bueno, Oreittik ekin bihar dok berriz be...

- Bai, baiña basarrixak [danak ipiniko dou] izena —hemen izenekin datoz— ta basarri danak...

- Orein parian gaiñekaldian Olalde.

- Olalde.

- Puskat ezkerrera dala ipini hori.

- [...].

- [...] Beran pare inguruan ixa.

- Bai. Gero Azkorta egongo da, ez?

- Azkorta puskat eskumarao.

- Ta horrek [...] Azkorta gaiñekua, azpikua ta erdikua?

- Bai.

- Zein...?

- Azpikua, erdikua ta gaiñekua.

- Ta Erdikua ze da txikixaua edo...? Eske...

- Ez.

- Bi bizitzakua. Bi bizitza pegauta [...], Erdikua ta Gaiñekua pegauta jarek ta Behekua dok aparte. Hogeit-hogeta hamar bat metro edo...

8.17. Osintxuko toponimia; baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Arando Zangitu, Jose Mari; Zenitagoia Berriozabal, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-231/004
- **Iraupena**: 0:05:03. **Hasi**: 00:09:13. **Bukatu**: 00:14:16
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Osintxuko toponimia; Iraban inguruko baserrien izenak.

Transkripzioa

- Eta gero hor txaleta eindra badao, txaleta edo etxe berrixa, [...].
- Bai, geiñekua, geiñekuak [ein...].
- Pegante dao?
- Pegante. Anpliau ein jua pixkat. Pegante dao.
- Ta gero zein dao gorao? Galartza?
- Galartza.
- Zela deitzen dotsazue?
- Galarza. Galarrolaza ekarten jok eskitturan gurien, ba, izena. Oin, guk geuk Galartza, baiña Galarrolaza... Guk geuk Galartza esaten dotseu. Galartza Zaharra ta Galartza Berrikua. Baiña eskitturan [hartik] eta Galarrolaza. Dana hoixe dok, ba.
- [...].
- Azkorta be Azkargorta. Guk Azkorta esaten dotsau geuk eta... Esan Galartza, Galartza.
- Aiuntamentuko zerian etorriko dok hori Galartza Berri guriana ta zuena Zaharra.
- Bai, Galartza Zaharra, aiuntamentuko txapiak hola ekarri jok. En kanbio, [...] ikusi ta Galarrolaza.
- Gero hamen beste bat Txikirri?
- [...].
- Zer da hori?
- Hau beste batenbateg [...].
- Hau Landatz?
- Laudatz.
- Laudatz?
- Bai.
- Hori goixan, ez?
- [...] Galarzan... [goixan].
- [...oin] Mekoletak [hartu...].
- Ez.
- A, bai, bai.
- [...] Mekoletak eta Txikirri eta honek danok...
- Txikirri, Mekoleta, Olaa.
- Zela joian hori?
- Honen eskumakua.
- [...].
- Hori bestaldekua dok.
- Horren segidan dia Txikirri ta.
- Laudatz hau, orduan?
- Bai.
- Hemen egon biharko dok...
- Hor egon biharko da nunbaitten, ez?
- Bai.
- [...].
- Galartzak?
- Hori gero.
- [...].
- Txikirri ez da azaltzen? Mekoleta be ez?
- Hola izengo dok horren segidia.
- [...].
- [... zabala] ta kontria dok eta...
- Osintxu nun azaltzen [...]?
- Osintxu ze, ezin dok topau?
- Bestia Soraluze [...].

- Hortik eskuma aldera...
 - Aber, Osintxu; hemen Galartzak, hemen Olabarririk...
 - Harutz orduan.
 - [...].
 - Gero Mekoletak egongo dia, ez?
 - Mekoletak. Oin Txikirri hartu dok, eztok? Ta Mekoletak.
 - Ze dia bi edo...?
 - Bi, Mekoletak bi. Oin, etxe [...] izena berak jakingo juek, oin hiru etxe bajarek eta.
 - Bai, osea, ez dauke horrek Zaharra ta Berrixa ta holako...?
 - Guk Mekoleta Haundi ta Mekoleta Txikixa edo ze zittuan, ba, lehen?
 - Ez, horrek Mekoletak.
 - Mekoletak guk esan izan dotsau beti. Mekoletak. Bata [Benitona], bestia bestekua... Mekoletak.
 - Ta gero...
 - Gero Olaa.
 - Olaa be Irabanen sartuko da, ez?
 - Bai.
 - Zein?
 - Olaa.
 - Bai, ba, lehen [egon dana Ola be].
 - [...].
 - Hori ze da, zela esan dozue?
 - Olakua.
 - Olakua?
 - Guk Olaa, Olaa esaten [...].
 - Zuek esaten dozue Olaa?
 - Olaa.
 - Ta besteik badao Irabanen sartzen dan basarriik?
 - Olalde apuntau dozu? Bai...
 - Bai.
 - Olalde...
 - Laudatz ta kitto.
 - Laudatz Iraban da?
 - Honbre.

8.18. Osintxuko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Arando Zangitu, Jose Mari; Zenitagoia Berriozabal, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-231/005
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:14:16. **Bukatu**: 00:19:18
- Hauxe da.

- Kukubaso, zona hauxe.

- Zubixa esan dozu, zubi horrek badauka izenik?

- Ez.

- Beheko erreka zubixa esaten xau.

- Hori barrixa da, lehenao...

- Baiña lehenao ez zeuan hori, e?

- Hori berrixa da.

- Gero beherao, hor beherao, beste bat Konpaiñia laua edo esaten jako, baiña hori dao, hoixe, Konpaiñian zan Zerrajerian sail batzuk zaren hor [...], horreatik esaten [jako] Konpaiñian laua.

- Konpaiñian laua.

- Konpiañia laua...

- Ipini eingo dou hau be...

- Gutxi gorabehera zona hauxe da.

- Ba, ipini eingo dou.

- Hori beheratxuao dao, ezta? Kukubaso baiño beheratxuao.

8.51. Elorregi auzoko toponimia Antzuolako mugan

- **Hizlaria(k)**: Galdos Aiausti, Matilde; Gorosabel Galdos, Francisco Javier; Gorosabel Romaratezabala, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkarate, Miren Pantxeske - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-258/014
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:50:27. **Bukatu**: 00:52:07
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Elorregi auzoko toponimia Antzuolako mugan.

Transkripzioa

- Gero, hemen, hemen beheratxuao... beheratxuauan be badare Olondo ta... Olondo ta holako zer batzuk...
- Hori bastante inportantia zala, baiña...
- Horrek izen bat [uste dot badaukala]...
- [...].
- Artapetxu? Artapetxu ez da, Artapetxu hori da.
- Artapetxu zein da?
- Artapetxu hauxe, geure ormatik horixe zeroi.
- Iturrizartik hona, Elkona aldera...
- Elkomiño aldera dauena. Artapetxu esaten xako horri.
- Hori lehen ez dozue, ba, esan.
- Artapetxu.
- [Beittu], nik esan dot, hemen entzun izan dot, behintzat, Artapetxu.
- Hori nun dao? Aber... [...] hori esaten dozue... Elkomiñoko kruzia hamen dao.
- Bai, Elkomiñoko kruzetik harutz, bertantxe.
- Iturrixa... iturrixa Elkomiñoko iturrixa, iturri onduai, haritxi esaten jako.
- Bai, Artapetxu.
- Elkomiñoko iturrixa daon zona horri?
- Bai.
- Koño, orduan iturrixa ta Artapetxu izen biher jok horrek.
- Bai, Elkomiñoko iturrixa ta Artapetxu.
- Bai, bai. 128 [...].
- Klaro ke lehen esan douna... 116 ze esan dou?
- 116?
- Bai.
- Itturizar.
- Itturizar. Ba, hoixe, Itturizar ta gero, horixe, Artapetxu. Itturizar ta Artapetxu.
- Ta gero hortik zona horri... Bueno, hamen beste izenik ez dao.
- Olondo-ta, ez?
- Olondo hemen dao. Zelaixek... Gutxi gorabehera hemen.

8.52. Elorregi auzoko toponimia Antzuolako mugan

- **Hizlaria(k)**: Galdos Aiausti, Matilde; Gorosabel Galdos, Francisco Javier; Gorosabel Romaratezabala, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkarate, Miren Pantxeske - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-258/016
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:54:47. **Bukatu**: 00:57:07
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Elorregi auzoko toponimia Antzuolako mugan.

Transkripzioa

- Elkorobarti ondoko ermittiak badauka izenik?
- Bai. Horrek ermittiak zela dauka izen horrek?
- San Esteban.
- San Esteban.
- Honi Malkorra, orduan, esaten jako ta gero hemen beste izenik... Gero, hemendik aurrera, Narbaiza aldera ya... hauxe berau, puntu hau

konkretuki, txabolan kontra-kontriai esaten jako Intxaurgoitti.

- Zela dauka?
- Intxaurgoitti hau, bai.
- Intxaurgoitti. Hauxe. Itxuria garai batian intxaurrak egongo zian ta...
- 133.
- Justo txabola kontran.
- Bai, bai, hortxe, hortxe.
- Gero Trangueta hurrengo.
- Narbaiza esan dozu. Nun dao hori?
- Hori aurrerao dao.
- Ointxe juango gara alde hortara. Este...
- Gero Trangueta.
- Gero Trangueta. Ta Trangueta dao... kruzia... hauxe, zona hauxe.
- 34.
- Hauxe, zona hauxe. Txaboliak ez dauka izena, hori, e? Intxaurgoitti da zona bat. Gero, hor aurrian jarraituko dou...
- Esparrua, baiña... Esparrua, baiña... [...].
- Esparrua be, ba... Esparrua beti estaen jau, baiña...
- Guk Esparrua [...].
- Gero zera, Askatzuko txabolía dao han aurrerao.
- Hori bai.
- Haura jausitta dao.
- Ya ez da egongo txabolía.
- Oin ez dao.
- Ruina batzuk dare. Askatzuko txabolía.
- Askatzuko txabolía.
- Ta hori dao... aber... kruze bat...
- Gure Esparrutik gora daon bidien, Narbaiza aldera barik...
- Ezkerrera, [harutz goiezela].

8.53. Elorregi auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Galdos Aiañtui, Matilde; Gorosabel Galdos, Francisco Javier; Gorosabel Romarateabala, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkarate, Miren Pantxeske - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-258/018
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 01:02:08. **Bukatu**: 01:07:08
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Elorregi auzoko toponimia. Elkorobarruti baserriaren inguruko toponimia.

Transkripzioa

- Hor zela daukazue idatzitta?
- "Minak".
- Bueno, minak jarek, aber... minak jarek hementxe. Erreka kontran jarek bi zulo. Hementxe pista hau baldin bada honekin juntatzen dana ta hori dala esan dozue, hementxe jak zulo bat, hemendik jak beste zulo bat ta beste zulo bat jak hementxe azpikaldian.
- Ta inguru horri ze esaten jako?
- Txindurraitz.
- Bueno, Txindurraitz... Miñeta.

- Miñeta, baiña...

- Miñeta.

- Zelairik badauka Miñeta horrek?

- Ez. Zelaixa, bueno... [zelaixa dauka...].

- Txindorraitz.

- Txindorraitz.

- Baiña hori pistia [...].

- Hemen be bajak beste zulo bat hemen inguruan.

- Hau behera basarritik pistia behera doiena jarraituta bertara doia, ezta, Miñetara, ezta? Ta bertan kamiñuan pista onduan dare horreik, ezta, zulo horreik...?

- [...] pista kontrán [...].

- Garbi ikusten die?

- Bat garbi-garbi eta bestia ez hain garbi, baiña, bueno, bai, nahiko garbi. Ta beste bat jak hantxe azpikaldian.

- Ze etaratzen zan hortik?

- Plomua.

- Hor galena edo etaratzen juen. Baiña esplotau ez jittuen ein itxuria horrek, pruebatarako bakarrik [...], baiña bastante [...].

- [...]

- Ta, orduan, hortik aurrera jarraitu, hemen, hola, kurba moduko bat jak eta honi gaiñekalde... bueno, zona honi ya Narbaiza esaten jakon. Zelai bat jak hemen gaiñekalde honetan, bide gaiñekaldian, hau lau-antza hau hori zelai bat dok, eta gero pagadixak eta... Bueno, ta hortik aurrera...

- Gaiñekaldian Astuaga.

- Astuara hemen, lehen esan douna.

- Bai.

- Eta hor beste izenik? Hor tartian edo?

- [...] Otaitz.

- A, Otaitz. Hortik aurrera... Narbaiz errekoa dao...

- Gero horrengo Astuaako errekoa. Astuako errekoa esaten jakona, [Astuaako] errekoa, [...] hiru erreka juntatzen dabena.

- A, ta Narbaizko errekoa zeñi esaten jako, Narbaiz baiño aurrerao dauenai?

- Ez, honi, honi Narbaizko errekoa. Gero, handikuai Astuako errekoa esaten jako. Astuaerrekoa.

- A! Honi Astuagako errekoa, orduan?

- Handikaldekuai.

- Horri bestioi, horri bestioi...

- Oin arrua hontan doian errekiari Astuaako errekoa. Ta honi bestioni?

- Horri...

- Horrek ez dakit izenik daukan...

- [...] Goiko basotik behera [...].

- Ta hiru indda...

- Hiru erreka...

- Bai, hiru...

- [...].

- Bai, bat eitten dabe. Eta hortik beherutz?

- Hortik behera zera...

- [...] ze esaten jako?

- Hortik behera...

- Otaizko errekoa.

- Otaizko errekoa.

- Otaizko errekoa?

- Otaizko errekoa...

- Hori Isasin bukatzen da, ezta?

- Hori da.

- Errotia be badao [...].
- Errotia?
- Errotia, bai, Otaizko errotia.
- Nun?
- Hortxe errekan. Erreka...
- Bai, hor errota bat jak. Bueno, horrek be ya "ruinas" [...], baiña...

8.54. Elorregi auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Galdos Aiausti, Matilde; Gorosabel Galdos, Francisco Javier; Gorosabel Romaratezabala, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkarate, Miren Pantxeske - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-258/023
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 01:22:08. **Bukatu**: 01:27:08
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Elorregi auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Gero hor Zabaldo ta Kozabal aldian badao... ezautzen dozue alde hori... zeoze hor?
- Asko ez, baiña... Irutontorreta ta Sospetxu ta...
- Irutontorreta... Sospetxu hemen...
- [...]
- Ta hemen beste erreka bat dao...
- [...].
- Erreka txiki bat hor Biltoki aldera bajatzen dana. Horrek izenik badauka?
- Hori handikaldetik bajaitten da, hor Konpañian lautik...
- [...] hurrengua.
- Konpañian lautik handiko... han handikaldetik bajaitten da bat... Nik ez dot entzun haren...
- Ez dauka... Tellerixia ta gero...
- Tellerixatik...
- Horek badauka izenik?
- Ez, ez.
- Tellerixan onduan han poste baten onduan izena bazan [...] haren izena. Zerbait entzunda nao, ez dakit zela...
- Etxaubegaiñekua, Etxaubezpikua...
- Hemen beste...
- Basozabal, hori da...
- Hemen inguruan ez dao basarri gehixao, ez?
- Basozabal apuntau dozue Basozabal?
- "Tejería [...]," ta gero hor?
- "Ibargoiti" ipintzen dau.
- "Ibargoiti".
- Baiña ez dakit...
- Hori uste dot dala Tellerixia basarrixa.
- Basarrixa izango da, bai.
- Ibargoiti hori?
- Bai, bai, entzun ete doten nao neu.
- [...].
- Bai, neu entzunda ete naon haren zera...

- [...]
- Ha behekua ipini dozue? Arandoko ha...
- Arandoko zelaixa.
- Laxao ta Laxaotik han beste bat be badao... Lehenau ez jakun akordau horixe, gaiñera, ta oin be ez jaku akordaitten. Ez zate akordaitten.
- Zein?
- Han Ipiñarrixako... tik gora datorren... pistatik goraora... gora datorrena beste bat izena ta lehenao etorri zan haretxekin be ez jakun akordau haxe izena. Ez jat akordaitten zela dan. Han beste izen bat bada. Itxoin...
Gaztaiña... Gaztaiña...
- A! Txorigaztaiñeta.
- Txorigaztaiñeta, hori da! Txorigaztaiñeta! Ha ez jakun akordau orduantxe be.
- Txorigaztaiñeta nun dao?
- Txorigaztaiñeta hantxe...
- Elkoartittik Ipiñarrixara doian pistan dao...
- Gaiñekaldian.
- Pistan.
- Elkoartittik Ipiñarrira... lehengo atajua ala?
- [...].
- Lasao inguru hontan?
- Lasatik... Lasatik... pistan, pista onduan dao hori.
- Bai, Txorigaztaiñeta. Jolin, haxe! Ta lehenao be ez jakun akordau.
- Oseake, kruzia haxe da, este...
- Kruzia... Kruzian ez dao hori.
- A! Gure etxe aldera doian...
- [...] ta gurera gora...
- Gora, bai.
- Olondora.
- Olondo aldera dator.
- Zona horri, ezta?
- Bai, hantxe, hantxe.
- Haxe kruzia.
- Bai, Txorigaztaiñeta. Lehenao be ez jakun akordau ta, Gaztaiñeta ointxe akordau [...] zerbait ta... Txorigaztaiñeta.
- Zona hau.
- Beste ermittan bat edo badao hor?
- Ez, hemen ez ermittaik. Hemen Elkoartikua besterik ez dao.
- Elkoartikua...
- Errotan bat edo turbinan bat edo?
- Errotia bai egon zan. Errotia bai.
- Bai, apantau [dozu], ezta?
- Otaitzekua?
- Ta hamen, Javier...
- Errotia San Prudentzion be bai.
- Bai, San Prudentzion errotia...
- ... Ipiñarritik Elkomiño aldera bazuan, ba, bueno... atajua? Ez dakizu [...]?
- Bai, [...].
- Hortik ez zuan, ezta, hemen holako izen rarorikan bidian?
- Ez, Bide...
- Bidetxurra.
- Bidetxurra. Baiña besterik ez.

8.55. Lehengo eta oraingo auzo-izenak

- **Hizlaria(k):** Galdos Aiausti, Matilde; Gorosabel Galdos, Francisco Javier; Gorosabel Romaratezabala, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkarate, Miren Pantxeske - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-258/025
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 01:28:12. **Bukatu:** 01:28:58
- **Gaia(k):**
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Lehengo eta oraingo auzo-izenen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- San Migel.
- San Migel.
- Oin Aritz...
- Aritzeta auzoa. Aritzeta auzoa.
- Aritzeta auzua ipinita jakak.
- Zuek ezautu dozue lehen...?
- Baiña [...] San Migel beti?
- San Migel, bai, bai.
- Oin Aritzeta ipintzen dau etxiak.
- Bai, Aritzeta. Hori bai, baiña...
- Zuek ezautu dozue hori izenoi?
- Nik ez, San Migel auzua. San Migel auzua. Oin hori barrixa.
- Hori barrixa ez, lehenaokua...
- Bueno, lehenaokua, hori da, lehenaoko izena.
- Bai, baiña galduta egon dan izenen bat.
- Hau be Elorri auzua...
- Elorregi be, Elorregi be lehenaokua.
- Elorregi be lehenaokua.
- Oin San Prudentzioa esaten [...], baiña Elorregi, ba, lehenaokua.
- Zuen denporan beti San Prudentzio izan da?
- Guk beti San Prudentzio

8.56. Elorregi auzoko toponimia

- **Hizlaria(k):** Galdos Aiausti, Matilde; Gorosabel Galdos, Francisco Javier; Gorosabel Romaratezabala, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkarate, Miren Pantxeske - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-258/026
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:28:58. **Bukatu:** 01:31:22
- **Gaia(k):**
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Elorregi auzoko toponimia. Epele artoa eta honen inguruko toponimia.

Transkripzioa

- ... Artxubiraiño.. Artxubi hementxe dao. Inguruan eze daonik ezautzen dozue?
- E?
- San Prudentziotik Artxubi alderaiñok ze daon hor edo...? Artxubitik gora etxe [...] dao.

- [...].
- Errekatik, e?
- Erreka bertan.
- Artzubitik behera?
- Ez, Artxubitik gorutz, Frakazar aldera junda.
- Errekatxua jarraituta gora.
- Epele, Epele...
- Etxia?
- Epele arrua esaten jako...
- Epele arrua, arrua, Epele arrua [...].
- Baiña Epele da hau, e? [...].
- Artxubitik zenbat distantziara egongo litzake hori?
- [...] Bizkai aldera, Kanpazar [...].
- Bai, baiña errekatik Bergara aldera ala Mondrau aldera?
- A, Mondrau aldera. [...]?
- Ez, ez, [...].
- Ez, ez, Epelerutz, baiña erreka hortatik...
- [...]
- Epele arrua entzun dot neuk hori.
- [...] pistia eindra jak.
- A, bai?
- Bai, bai, hemen... gaiñera eskonbreria [...] hor... pistia eindra jak hemenditxik aurerra, [nik ez jakixat noraiño doian] pistia.
- Epele arrua ipiniko dou.
- Epele arrua.
- [...] lehendik 10 dauka, ba, ipini 10a bera.
- Ze izen dauka 10ak?
- 10? Ez dakit, hemen ez daukau... Itxoin, igual bai...
- [...].
- Epele ta Epele errekoa, baiña Epele arrua ez daukau ipinitta.
- Guk arrua, Epele arrua...
- Epelaerreka.
- Epelaerreka uste dot [dala].
- Epelaerreka, Epelaerrekoa.
- Baiña errekoa da ala...?
- Bai, bai...
- Arrua da, ba... errekoa doian lekutik.
- Bai, errekoa doian lekutik arrua, horixe.

8.57. Uberako erreken izenak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Gallastegi, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-260/003
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:07:20. **Bukatu**: 00:10:02
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Ubera auzoko erreken izenak.

Transkripzioa

- Bueno, errekekin hasiko gara. Uberako errekatxuei buruz bai?
- Errekatxuen izenik...

- Izenik badakizu?

- Markierreka bat, Uberara datorrena, eskumatik datorrena.

- Galeperren aldera doiana?

- Ez, karreteran aldera doiana Zezierreka.

- Zezierreka?

- Zezierreka. Eta beheraokua Markierreka. Beherao beste bat, hori Anduri edo Posatik datorrena, Posaa aldetik datorrena.

- Bai, justo. Gero, bestekaldetik datorrena?

- Bestekaldetik datorrena... Beste erreka bat dator, ezta...

- Hori Urrujolei edo ez da?

- Bai, Urrujolei, Urrujolei basarrixa.

- A, basarrixa?

- Basarrixa Urrujolei dia, baiña errekiai ze esaten dotsen [...].

- Bale. Hor Errotagaiñera datorrena hor Egurbide aldetik?

- Hor be beste erreka txiki-txiki bat...

- Esperantzara datorrena?

- Atxotegierreka. Atxotegi erreka.

- Baiña hor goratxua bi zatitan eitten da.

- Zati bi horren izenik bai?

- Hor... zela esaten da? Iruerreka.

- Bixak?

- Bi juntatzen dia ala hiru? Hor bi dare, e?

- Bai.

- Bi dare hor.

- Hemen [...] bi dare.

- Iruerreka, guk esan izen dotsau Iruerreka.

- [...]?

- Iruerreka [...] Iruerrekaik. Honek hirurak honek dia, ezta?

- Bai. Baiña Elizalde parera doia hemen bat, bestia doia Agarrengoiko parera...

- Bai, bai, bai, bai.

- Bueno, hemen bittartian badao... estu-una bat badao, baiña...

- Iruerreka guk esan izen dotsau.

- Baiña bixei? Danai ala...?

- Danai Iruerreka.

- Danai Iruerreka?

- Iruerreka.

- Parajia izango da, ez?

- Parajian izena da Iruerreka, Iruerreka. Hiru erreka ez darena badakit, bi darena garbi dao. Bi...

- Bueno, hemen bai, baiña igual hara junda hiru topauko dozu. Hemen mapan...

- Bai, bai, bai. Ez, ez, ez... hara junda be ez, e? Hara junda oin bat igual.

- Oin bestia [ipiniko...] Iruerreka ala...?

- [...] ingurua, ez? Errekatxo bixak daren ingurua?

- Bai, bai, bai, bai, ingurua Iruerreka.

- Baiña basua ala ze da Iruerreka? Ez, errekatxuak dia, ez?

- Bai, errekatxuak dia, baiña hoixe, ba, honek esan dabena, ingurua-edo Iruerreka. Ez jakixat, ba, nik zela hori zertu, zela esan.

8.58. Basalgo auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Gallastegi, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni

- **Erref:** BER-260/006
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:15:04. **Bukatu:** 00:20:06
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Basalگو auzoko toponimia Arangurentxo baserriaren inguruan.

Transkripzioa

- Hemen txabolatxo bat agertzen da...
- Ba, hoixe, Kirueta. Kiruta esaten dotsau horri. Kirueta.
- Horren gaiñian?
- Garbe.
- Bueno, Basalگو alderao ondiokan...
- Bai, bai, bai, Garbe.
- Kirutatik hor badao, ba, zer bat oin botata daona?
- Bai, piñudixa botata...
- Hori ze [...] dauka, ba, izena?
- Goiko laua. Goiko-laua.
- [...].
- Egon, egon, egon. Hau nora doia? Nora doia hau?
- Hau Kiruta.
- Hau Kiruta, baiña hau mendi-tontorra da hau?
- Bai.
- Eske beste bat dao hor danak esaten dotsauna... hamen Kirutatik eta zerera, Gaztandolara bittartian dao Petri esaten dotsau danok.
- Itxoin, e... [...].
- Gaztandola nun dao?
- Hemen dao. Kirueta hemen dao...
- Hau... ze esan nahi dau honek? Laua da hau?
- Tontortxua bai.
- Hola, gaintxua?
- Bai.
- Hau da, hau Petri.
- Baiña dana? Inguru dana?
- Bai, inguru dana Petri. Hori... danak esaten dotsau Petri. Inguru dana.
- Petri ta Gaztandola bittartian sakon-una bat dao erreka batekin...
- Bai, bai, bai.
- Horren izenik bai?
- Jo, ez, ez, ez. Hori ez...
- Ta hor inguruan beste bason bat edo...?
- Ezta.
- Petri barruan badao beste izenik?
- Ez, hor beste izenik nik...
- Bale. Garbetik eta hor Olakorta pare-parian hartuta beste tontor-unatxo bat badao...
- A! Hori Malkorra. Ixa errekonduan... hori ixa errekonduan dao, e? Izen leike hori, ixa errekonduan? Errekatxua... hau be errekatxua dok?
- Bai.
- Hau bai bat, baiña haundixa hau da, e?
- Bai, bai, bai, bai.
- Malkorra ze da tontorra?
- E?
- Punta-puntia?
- Ez da... osea, da lautadatxo bat. Ez da hola Garben-ta moduan goixan

daona. Oso behian dao, e! Lautadatxo bat da, behian dao haura, e! Ez da... tontorra ez da.

- Lautadatxua...

- Ba, bai, ba, bai, hori izen leike... Horixe errekatxua...

- Hau Olakortatik gertu dao hau, e? Olakorta hemen dao, Olakorta hemen ta Ibarrola hemen.

- Bai, bai, bai, oso gertu dao. Bai, bai, bai.

- Hemen behian dao Malkorra?

- Bai, bai, bai, bai, hauxe, hauxe, hauxe. Malkorra. Ipini hori trankil.

- Hemen... Hemen [ipintzen... postia] daukala.

- Bai, bai, [postia] dauka bai. Hori da... Joe... akordauko jata oin... Albizuri.

- Hemen inguruan beste izenik bai? Akordatzen jatzu?

- Malkorra... gero... basuen izenak bai, baiña basuen izenak...

- Esan, esan.

- Sostra bati, Sostra.

- Nun dao?

- Sostra daok Malkarratik pixkat honutzao.

- Honutzao norutz, Petri aldera?

- Bai, Petri aldera.

- Malkorretik Petri aldera. Albizurittik...?

- Albizurittik gora, hontakotxe zer baten.

- Sostra?

- Bai.

- Bale. Segi.

- Basarririk basri jua ezker, berriz, [...] ta beste batek esango dotsa beste izen bat eta...

- Baiña ezin gara danetara allegau eta...

- Petri barruan ez dao izenik?

- Ez...

- Goiko tontorrek ez dauka izena?

- Petriko barruan [...], bai, Petriko laua. Petriko laua. Bueno, tontorra... tontorra ez da, e? Lau-una bat da ta [...]. Petriko laua.

- Bale. Besteik badao errekatxon bat edo Petri...?

- [... errekatxua hori], baiña izenik ez [...].

- Izenik ez?

- Errekatxua politta da, baiña... Gero Garbe barrenian hasten da ta [...].

- Bai, hemen doia...

- A! Hori da?

- Bai. Markau barik dao, baiña hemen dao.

- Ba, hoixe, hoixe, hoixe. Hoixe da, bai. A! [Lurran zera], e?

- Bai, pixkat sartuta dao.

8.59. Basalgo eta San Juan auzoen muga-inguruko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Gallastegi, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-260/007
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:20:06. **Bukatu**: 00:25:08
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Basalgo eta San Juan auzoetako toponimia muga egiten duten inguruan.

Transkripzioa

- Bueno, Arangurentxo aldetik Elizalde aldera zer daukau hor?
- Hor izena... izena esatekoik... basua, dana basua. Baiña izena, izenik... Txabolía-ta badao? Beittiko txabolía dao hor. Txabola bat eta agertzen día?

- Ez, baiña badao, ipini eingo dou, e?
- Aangurentxo pare-parian ezkerrian agertu biher dau. Elizalde zein da? Hau, ezta, Elizalde?
- Arangurentxo hau, lapitza daona.
- Hori... hori txabolíori dao... holaxe dao hori txabolíori.
- Hori dana... tontor-unia dao, tontor-unia.
- Ba, hortxe, hortxe. Hortxe dao.
- Hortxe dao txabolía?
- Hortxe dao txabolía.
- Ze izen dauka?
- Hori izena, txaboliana, Beittiko txabolía beti. Beittikua da ta Beittiko txabolía. Ta kitto. Baiña beti ezautu doun txabolía, beti egon dana.
- Beste txabolarik badao?
- Ez, hor ez dao ezer.
- Elizaldeko etxaburua ta inguru horrek?
- Izena... izenik ez dakit...
- Horrek Santikurutz azpíxak bazeukan, ba, izena zelai horrek?
- Bai, Goikoetxe, Goikoetxe.
- Zelaixa ala...?
- Goikoetxe. Ba, etxia ta etxia egondako lekua ta... Goikoetxe beti, Goikoetxe.
- Hor Atxotegi aldera jausten dan bason bat, piñudin bat, zelain bat edo...?
- Hor depositto bat lehenaukua dao Atxoteiko... ez dakit horrek zertzen daben. Ez da egongo...
- Ez...
- Ba! Aspaldikua da...
- Atxotegi aldian bai izenik zerbaittena?
- Ubillondo ta badia hor. Ubillondo... Ubillondo esaten dotsena.
- A! Ubillondo...
- Ubillondo.
- Bai. Hori nungua da Beittikua da?
- Beittikua bai.
- Beitti eta Goikoetxe bittartian?
- Goikoetxea eta Elizaldera... Atxoteira bittartian.
- Goikotxea ta...?
- Santikuztik Atxoteira bittarte hor, Elizalde, Atxotei, Santikutz, hor. Ubillondo hori.
- Bale. Bueno, hor sakon aldian?
- Hor izenik... basuan izenik ez dao hor, sakona.
- Hor itturrixa badao...
- Itturrixa...? [...]. Itturrixan izenik ez.
- Eske da etxeko itturrixa da ta bestiak esango dotse, ba, [...] itturrixa edo...
- Bai, bai.
- Bueno...
- Itturrixa [...]...
- Hor, hamen dao, hemen Aizkar eta... Etxeberri eta Aizkar bittartian Kilometroak aparkau bihar daben zerori.
- Bai, bai...
- Hori, izena dauka horrek...

- [Tramo]. Hori [Tramo].
 - Beste zatixak badauka izenik?
 - [Orbi] ipintzen dotsa...
 - E? Berak?
 - Berak izena [Orbi zertzen dotsala].
 - Zati horri?
 - Zati honi.
 - Baiña, bueno, beste izen batzuk be euki dittu aurretik...
 - A! Bueno, horrek... guk beti Kondian zerak, Kondian mahastixak. Kondian mahastixa beti.
 - Eta mahastirik ez danian egon?
 - Sagarra. Ta sagarra ez danian egon piñua. Ta piñua ez daonian... oin...
 - Ta beti Kondian mahastixa?
 - Bai, bai, bai, bai, Kondian mahastixa, Kondian mahastixa.
 - Kondian zeretik eta Etxeberri bittartian badao hor sagar batzuk eta badare, ba?
 - Bai, bai.
 - Izena badauka...?
 - A, bai, Txaria. Enee!! Hola hasten bazate basarririk basarri...! La de dios armauko dozue!
 - Klaro, ba, baiña... oin badakiulako inguruan, baiña ez dakiunian ezebez...
 - Bai, bai. Bale, bale, bale.
 - Etxebarritik eta hemendik eta errekatxora bittarteko zerai?
 - Etxazpixa. Etxazpixa. Baiña, ba, horrek...
 - Etxe danetan egongo da, baiña...
 - Bai, etxazpixa etxe danetan. Etxaurria be bai...
 - Ta etxeostia be bai.
 - Baitta!
 - Hemen gaiñian garbitzen dabizten tontortxo honek bai izenik?
 - Hori? Esparrua, Olaixe-esparrua, Olaixe-esparrua.

8.60. Basalgo eta San Juan auzoen muga-inguruko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Gallastegi, Javier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-260/008
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:25:08. **Bukatu**: 00:27:13
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Basalgo eta San Juan auzoetako toponimia muga egiten duten inguruan.

Transkripzioa

- Hemen gaiñian garbitzen dabizten tontortxo honek bai izenik?
 - Hori? Esparrua, Olaixe-esparrua, Olaixe-esparrua.
 - Hau gaiñeko tontortxo hau?
 - Bai, Olaixe-esparrua, Olaixekua da ta Olaixe-esparrua. Ta beste bat balitza, barriz...
 - Gero hemen errekatxutik bestekaldera hor barrenian daren zelaixen izenik edo?
 - Ezta...
 - Hor Aizkartik Esperantza bittartian daonak-eta badauka izenik?

- San Pelaixo horri; horri beti hoixe: San Pelaixo. San Pelaio. Ermittan bat zala edo zera, San Pelaio.

- Bueno, oin bestekaldian hasiko gara. Hor Amatiño azpizan badao izenik edo... Amatiño inguruan badao izenik?

- Horko berririk ezta, ezta... Etxe-izenak bai, baiña zein etxetakua zan...

- Idearik ez?

- Ez, gehixao ezebez. Ezebez, ezebez.

- Hor... Otsaiña ta Aranguren erreka bittartian daon...?

- Otsaiña, hori bai, Otsaiña. Hori ipini dozue Otsaiña? E? Ipini dozue hori?

- Erreka bixen bittartian daon zirrindara hori? Hor basua-ta badao, ba?

- Bai, bai, bai... Egon... Bakatei, Bakatei esaten dotsau, Bakatei. Hori da... Basalgoko batena da.

- Dana, ez?

- Dana... bueno, hamen pusketatxo bat guria dao. Erreka ondotik hona pusketatxo bat geuria da, baiña hau gehixena berana da. Hau, beste honi Bakatei esaten dotsa harek. Guk esaten dotsau Aranguerreka, hau da, Aranguerreka izango da, ezta? E? Guk Aranguerreka. Ta gure mugarri dauka beste horrek sail haundixa daka horrek. Lonbidekua da, baiña Bakatei esaten dotse. Bakatei. Edo Bakatei izengo da igual, Bakatei edo... Bakatei... ez dakit nik zela izengo dan.

- Hola gehixao ez dakizu hor Narbaiza... Narbaiza, Urrupain aldia edo...?

- Horko basuen izenik ezta... horko... bertara jua bihar batenbateana.

- Hor... hemendik beiratuta, Amatiño aldera beiratuta hor goiko tontorren izenik eta bai? Mendi puntenak?

- Bueno...! Ezta, ezta, ezta...

- Ezta?

- Ez.

- Ta ya Angiozar aldia ezebez, ez?

- Angiozar aldera, berriz, gutxiao. Hor izenik etxienik be ez horkoik, etxiak zein zein dian be ez.

9. Iritziak

9.1. San Pedro bezperako ohiturak

- **Hizlaria(k)**: Gallastegi, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriola, Agurtzane
- **Erref**: BER-055/001
- **Iraupena**: 0:03:36. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena**: San Pedro bezperako ohiturak zeintzuk ziren. Poz handia jendearen artean. Iluntzean Salbea egoten zen eta ondoren pasakalea. Neskame eta morroi zeudenak etxera itzultzen ziren egun horretan. San Pedro eguna: danbolina, meza nagusia, kontzertua, etab. Arratsaldean erromeria.

Transkripzioa

-(San Pedro bezperan) ohitturia izeten zan, aparteko gauza bat jentian artian: poza. Eta gero illuntzian Salbia. Eta Salberako etorten zien kriau eta

kriada zeren danak eta eren etxetara. Eta han eren ongietorrixak eñ
 alkarri ta gero Salbera. Ta Salbetik ertendakuan, ba egoten zan pasakallia
 kale danetati, hasi San Pedro kalia. Ez, Beko Plazan uste dot, eta gero
 Bidekutzera. Eta Bidekutzian bi, "toketak" esaten gontsan, e, bi pieza,
 "toketak" zien orduan, bi toketa. Eta gero Goiko Plazara, ta Goiko Plazatik
 kuartera; Azkonaneko aurrian beste bi pieza.

-Jentia dantzan eitten zeban?
 -Hoixe, hoixe eitten zebala dantzan!
 -Jente asko egoten zan?
 -Asko.
 -Harek bai jaixak!
 -Harek bai. Haretzek zien jaixak, eta alegriak gaiñera, e, alegriak. Eta gero
 akabatzen zan haura plazan, da han be eñ beste ipursalto batzuk eta tira,
 konforme danok, eta danok saludau, eta urtebetian ikusi barik gendenok
 be bai danok eta, danok pozik.

-Ambiente ona, ezta?
 -Ona, ona ambientia. Etzeuan han burrukaik eta. Eta gero San Pedro
 egunian, ba lelengo izeten zan danboliña, kaleik kale; goizian, e, diania,
 eta gero bandiak eitten zeban rekorridua. Gero meza nausittara. Meza
 nausittara joaten zan aiuntamentua "en corporación", esaten zan bezelaxe.
 "En corporación", danok, e, aiuntamentua. Eta gero, meza nausixa
 akabatzen zanerako bandia egoten zan elizpian, eta aiuntamentu danakin,
 aiuntamentukuekin danak aiuntamentura. Eta handik eitten zeben luntxa.
 Eta gero konziertua, baiña konzertu haundixa, e, bandiana.

-Goiko Plazan?
 -Behekuan, Beheko Plazan.
 -Egon zan ba urte batzuk Goiko Plazan be joten zebena. Etza akordatzen
 bandiak zela jotzen zeban?
 -Atsaldian-da bai.
 -Konziertua Beheko Plazan?
 -Konziertua beti Beheko Plazan jo izen da. Eta halaxe, ederki pasatzen zan
 orduan. Hurrengo eguna.
 -Atsaldian erromeixia?
 -Atsaldian erromeixia, haura San Pedro kalia, e.
 -Goiko Plazan, ez?
 -Goiko Plazan, baiña gure kalia be ein bihar izeten zan pasiarria. Pasiadak,
 handik pasau eta Goiko Plazara. Eta Goiko Plazan bi pieza ero eñ eta berriz
 gure kaletik atzera Goiko Plazara. Ta holaxe. Gabian be igual.

9.2. Gizonezkoaren jarrera emakumearekiko

- **Hizlaria(k)**: Agirre Elkoroturbe, Mercedes
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-058/036
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:41:42. **Bukatu**: 00:43:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gizonezkoen jarrera emakumearekiko. Umeekin izaten zuten erlazioa.

Transkripzioa

- Ta egurra emotailliak bazian gizonak?
- Ez dakit nik egurra... ni ez naiz hainbeste akordatzen, baiña borondate haundirik ez. Ez zebeu pentsatzen, andriak eitten baeban lanik ez zebeu apreziatzen. Haura, balorerik ez zotsen emoten hari. Ta umia eittia ta umia haztia, ba, ezebe ez zalakuen. Bai. Ta ez die horrek hola e!
- Umiekin ze tratu eukitzen zebeu? Zaintzen zebeu umia edo...?
- Bai, bai. Zeoze zaintzen zan orduen umia. Garbittu ta bere gauzak eitten jakon ta...
- Bai, baiña gizonak ezebez...
- Gizonak ezta ikuturik be! Gizonak ez zotsan umiari...
- Pixkat koskortu arte kasorik be ez...
- Ez, kasorik ez. Gero zeoze, altzuan euki edo, kontu batzuk esan umiari. Eitten jakuena, beste batzuk beittu be ez igual, baiña bueno, jenerala... beria dau ta. Ezta? Baiña, holaxe. Eulixak jaten basarrixan umiek. Eulixak jaten. Eulixa zan, baiña... baztarra guztiek, hola, txoko guztiek euli beltzez bete-bete [einda]. Umiek dana musutik ziber eulixak janaz. Ta andrak lana besterik ez zebeu eukitzen ta banastan baten ipini umia ta lanera! Edo garbiketia ein edo etxeko zeoze ein edo... sorora erunda hantxe ipinitta be bai ta, danera eitten eben.
- Lehengo bizimodua negargarrixa...
- Negargarrixa, negargarrixa.

9.3. Antzinako bizimodua baserrietan

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/037
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 01:00:41. **Bukatu:** 01:01:52
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena:** Argiaren inguruko kontuak. Argi elektrikoa izan aurretik zelan konpontzen ziren.

Transkripzioa

- Neu be... ezkondu ta gero argixa ipiñi giñuan. Hemen auzuan lehentxuao. Baiña argirik be ez. Petrolia! Kandelía urrixa. Argi hobia, baiña haura erretzen. Ta hontaiko argi-mutilla, holako lau kuadroko ipurdiakin, ziri bat, hola, gantxuakin. Ta han gantxuan sartu, hola, ahua zabalik, mordazian moduan. Holako alanbre batzuk kanpotik dittuela, kristelik apurtzeke ta konserbatzeko. Batek argixari eutsi, esetta [...] etxia erreko ete zan edo... Ta txikittako bat edo gero, kriaus koskor edo neska koskor edo... aittajunak-eta behixak jeitzen, hari argi ein sukaldien. Ta erresarixua egunero errezaus, e! Hori bai! Ta erresarixua errezatzen zanian, gure amandriak "pff" argimutillari. "Zeaittik hori amandria?" ta "Ez dao errezatzeko argi biharrik!" Ala! Gero argixa ipiñi zanian be bai, e! Lau kilobatio, e, lehelengo ipiñi giñuzenian argixak. Kinzia edo dieciseisko bobillo txikixak ta bikin pasau, bi kilobatioekin. Geuk hori, e! Hori, hori neuk!

9.4. Baserrian jatekoa ez zen falta izaten

- **Hizlaria(k):** Gantxegi Iturbe, Hilari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-061/045
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 01:14:40. **Bukatu:** 01:16:56
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Goserik ez zuten pasatu. Goizean, berakatz-salda eta gero esnea arto edo ogiarekin. Eguerdian, baba-lapikoa. Lurrezko katiluan salda eta plater handi batean babak. Zurezko koilarak. Sagar-erreak; gazura. Garbanzu lapikoa jaietan izaten zen. Nagusitan jaten zen postrea, arroz-esnea. Merienda orduan, gaztaia jaten zuten. Txokolatea kikaretan hartzen zuten.

Transkripzioa

- Guk goserik ez, baiña esango dotsut nik ze jatordu. Kafia, hola, bazkaixan gaiñian hartzen, korriente jaixan be, nik hamar bat urtekin hasi. Aurretik ez, e! Oin, amandriak-eta hartzen baeben ez baeben, guretako ez, gu gaztiak giñian. Goizian saldia. Goizian, [hola], ohetik jaikitta, ba, iñok hartzen baeban, nik ez dakit amandre zaharrak-eta ze eitten eben, jaiki be berandutxuao eitten zien harek eta, baiña kriaue edo hortaiquak ogixa. Ogi zatitxo bana edo armozotara aurrien. Ta, ba, saldia, berakatz saldia lehelengo. Ta gero esnia; edo artuakin edo ogixakin, esnia. Eguardixan baba lapikua. Gaiñera lehelengo gurien usatzen zan, kuadrilla haundixa be bai, ni gaztia nitzanien gurian pare bat mirabe be bai ta bederatzi bat lagun, zortzi-bederatzi bat lagun beti. Ta katillu lurrezkuak, haundixak izeten zien, lehelengo danak saldia. Ta gero plater haundi batian etarata babia.

- Danok bertatik.

- Erdittik, e! Ta zurezko koillarak! Erdittik! Ta gero urdai zatitxo bana edo, berriz platerian ta bakutxak bana edo, haura be bakutxak tiretu ta erdittik. Ta sagar denporan sagar erriek. Sagar denporia ez zanien, ba... Oin, ba, beti gurian zela egoten zan, ardixak egoten zien, ba, gazuria egosten zan goizien gaztaia eindda ta hauraxe mamiña nahi ebanak katillutan. Nahi baeben [gorrixa], nahi baeben [harek] nahastuta... hauraxe gaiñian. Baiña kaferik ezta jaixan be ez! Nik hamar bat urte, jaixan hasi giñian lehelengo. Ta garbanzu lapikua, jaixan bai, e! Baiña jaixan hori, e! Garbanzu lapikua. Gero gaiñian kafia orduaintxe. Ta postria, berriz, izeten zan, haundixa zanien hori, arrozkoletxe. Beste gauzarik ez e! Ta merienda gaztaia ta ogixa. Ta gero [hurrengo...] ni gatzetxua nitzenien, gurien amandria zalia zan bera be ta txokolatia eitten ebanien, guri, neri, tazan txokolatia. Baiña kikaretan, e! Ez tazetan, e! Gurien oinddio badare muestrarako lain. Kikaretan e! Holakotxe kikatratxuak. Hiru zopa.

- Gustua hartzeko lain be ez!

- Bai. Kitto!

9.5. Gaixotasun batzuen sendabideak

- **Hizlaria(k):** Unamuno Mujika, Benita

- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-062/005
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:39. **Bukatu:** 00:06:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Kukurruko eztula sendatzeko, barraskiloak onak zirela esaten omen zen.

Transkripzioa

- Karakolen zera bai entzun... Kukurruko eztulakin ta karakolen mokua zana ona ta... Bueno, geuk ez...
- Bai, jarabia, jarabia etara karakolen zerakin.
- Haura geuk ez giñuan [zertu].
- Gu egon giñan sei anai-arreba batera kukurruko eztulakin. Ta anai gaztena Antzuolan bizi danak hiru hillebete [zeuzken], ezta? Ta bueno! Haura ez dakit zela salbau be in zan, e? Gu be... bueno, [haundixak] ez, baiña haura eztulka hasten zanién, e, ohian baldin baeuan, bueno! Jo-ta jaso eitten giñuen, e! [Ze] sarrittan, bueno! Bueltau eziña, e! Ta orduan, artian bakunau barik egongo giñen gu. Orduen bakunaik be ez zan horren kontra... Oin, ba, bai, baiña... Sei batera, e!
- Gu egon giñan lau batera [...kin], lau: bi lehengusu eta gu beste bi.
- Hori, zera... elgorrixa?
- Bai.
- Baiña kukurruko eztula txarraua da. Zuek, ba, elgorrixa hori bero-berotan konserbau eta hori. Baiña kukurruko eztula, ba, eztula da, ta bueltau ezindako eztula. Ta estu gure [...].
- Hola hil be itten zian kukurruko eztulakin...
- Bai, bai.

9.6. Baserriaren egitura mende hasieran

- **Hizlaria(k):** Ibarguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-152/003
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:02:40. **Bukatu:** 00:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Baserria hasieran oso txikia zen. Lau zati ditu gehituta. Oheak zelakoak izaten ziren aspaldi. Bikotearen ohea. "Jergoia", antzina egoten zen koltxoi modukoa; arto-malutarekin egindakoa. Aitajaunaren esaera horren inguruan.

Transkripzioa

- Hau basarrixau oso txikixa zan lehelengo eiñaldixan.
- Bai?
- Bai.
- Entzunda dakazu zelakua zan?

- Bai, bai, bai. Lau alde dauzka zatixak barrixak eindra. Hiru aldetara. Frentera, hor arkuakin daon hori, hor, [hurrengo] atian sartzen gara, horrek pareta sendo bat dauka. Honek paretak dauzka, bueno! Hara beittu, zelako sendoerako paretak. Eta horra hortikaldera neure denporan --bueno, ni ezkondata gero-- ein giñuan hori. [...]. Hori oin itxitta, geldik egoten da neguan, hotza da alde hori ta horra. Ta gaiñekaldera be beste añadimentu bat, beste lau edo bost metro edo holan eindra. Ta lehelengua lau kuadrokoa zan berau; lau kuadro-kudruan. Behian... Ohiak be, lehenako ohiak. Nik paretia ezautu dot, gure aittak esaten zeban ohia ezautu zebala fijua eindra. Hola, egurrak ipini ta zera. Beste oherik ez zabala berak ezautzen. Lehenakoak be ez. Matrimoniak ohe bat, baiña ohia, ba, haundixa, egurrekin eindakua paretara egoten zala. Ta ya haren paria paretian planiauta, beti kuriosuao. Beste paretak, ba, harrixak bistan ta hola, baiña haura ez. Haura...

- Frentia beti...

- Frentia holaxe egoten zala. Eta hola dao ondiok be. Ohia kendu zan, ganbaria be ein zan, baiña haura paretia han dao lehenao zan moduan. Gure aittak [...]: "Hori [...]. Hori planiatzen hasi zianian masia gastau edo ze ein jeben?", ta "Bai, hori [...]". Hori [zuan] matrimoniak bere etxian zan ohe fijua. Ez hola desmontatzekua-ta; fijo ein ta geldi. Ta gero, ba, muellia arta-malutia izeten zan. Arta-malutia badakizue zer dan?

- Bai.

- Artuai kentzen jakon ostro haura. Harekin eitten zan jargoia, zaku moduan, haundi bat, jargoia, ta haura zan muellia eitten zebana.

- Eta hori ze eitten zan basarrixan bertan ala baten batek eitten zeban?

- Ez, ez. Haura basarrixan. Bueno, telia harendako, haura zakuaura, haura erosi ein biharko zeben. Lehenao-lehenao, ba, [eukiko] zeben ehuna eitten zanian.

- Eta izena esan dozu jerg...?

- E?

- Izena zelan esan dozu zekala?

- Jargoia. Jargoia. Guk holan esaten gontsan. Arta-malutiakin eindra, jargoia.

- Koltxoia edo muellia edo...

- Bai, bai, muellian lekuan, ta koltxoiana. Gero, ba, etorri zan lania ta bigunao muelliak eta gauzak. Baiña aurretik jargoia. Ezautu neban etxian jargoia. Gure aittajunak, berari gustau eitten jakon, eta akordatzen naiz, goixan kuartuak, ta "sala haundixa" esaten gontsan, mutikuak egoten giñan alde baten. Neskena beste kuarto bat zan. Eta aittajuna ta mutikuak beste sala haundixan. Eta aittajunak beran ohia jargoiakin zeukan. Eta amak, [iñoiz], badakitzu, andrakumiai beti gustatzen [...] komodotxuau ta "Hori, aitta, kenduko dou hori? Zera, jargoia". Ta "Ez, hor apixatxuan katuak bezelaxe lo eitten dot, ederki", ta ez zeban nahi izaten hori kentzeik berak. [...] zeban.

- Bai, ya ohitturia ta...

- Bai, bai. Beran ohitturia ta... Gero, ba, [...] ez zan denporan kendu zan azkenengo jargoi...

9.7. Baserriaren egitura mende hasieran

- **Hizlaria(k)**: Ibarguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-152/004
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:11:00

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Beheko pisuan zaltegia. Sukaldea, askoz handiagoa. Sukaldean egiten zen bizimodu guztia. Arotzerian; goruetan (oraindik makinak dituzte). Ataia. Goiko pisuan, ganbara, laboreak gordetzeko; kutxak (kutxetan egoten zen gordeta arropa). Hirugarren pisuan, artoa sikatzeko ganbara. Zelan egiten zen lo: guztiak gela bakar batean.

Transkripzioa

- Ta behealdian ze egoten zan?

- Zaltaixa. Ganauak honaxe zeren. Trezebia guk esaten gontsan, hola, aurrera zabaltzekua ta ganuen askia. Alde horretatik han dao ondio askia; alde hontatik tabikia ein ta itxitta dao. Ganauak sukaldera begira zeren. Hiru aska edo zien hor.

- Zuk hori ezautu dozu, baiña?

- Bai, haura neuk ezautu neban. Sukaldia, hau, tabike hori ein zanian, horko ganauei ein jakuen kendu, bestekaldera begira ipini eta han bentanatxo bat ipini trezebia zan lekura. Gero kendu zan haura be eta berriz reformia zeoze, beti zeoze eitten. Ta holaxe.

- Eta sukaldia?

- Etxian, behian, hamen, sukaldia ya bizimodu dana eittekoa. Hamen eitten zan arotzerixan; andrak eskutako lana, ba, goruetan laniakin galtzak [...] edo. Ondio hor dare makinia ta gauzak. Ta horrek eitten zien. Eitten ei zien. Nik be gehixao ezautu neban [...] baiño, baiña aitta ta ama be ikusten nittuan. Ta neguan, ba, arotzerixan ein ta hurrenguan egurrak be haundi samarrak ekarri hona, beheko sua. Gero, hor erdittik kendu zan, ba, horra; hortik tximinixia ein jakon. Bai. Gure aittak, beran denboran, [...], ba, oin dala larogeta hamar bat urte edo hola --[gehixua be igual izango dia], ta-- berak igeltseron bati edo erain zotsan tximinixia. Eta sukaldiak erdittik tabike hori ein txikixao eitteko. Bueno! Bestela saloi haundi haura ta zela berotu ta...? Neguan, ba, hotzak edozein modutan be.

- Orduan, sukaldia, zaltaixa ta...

- Behian zien sukaldia ta zaltaixa. Ta hori aurrekaldera arkuakin daonori ataixa esaten jako. Horretxek zien etxiak zittuanak. Gero ein jakon handikalderakua. Ba, hori ein jakon "en el año cincuenta y tres" edo. Hori gero einddakua da. Baiña bestela haxe zan.

- Ta habitaziñuak eta...?

- Goixan zien hamen parian zan ganbaria. Ganbara bat zera eukitzeko: garixa, gauza zerak, laboria. Ta gero, ba, beste kutxan bat edo bi. Kutxan egoten zien erropak be! Ba, kutxa... txikixauak batzuk, bestiak haundixauak, erropa-kutxia. Erropa-armaixuak gero zian, baiña aurretik kutxak zian. Ta gero, hirugarren plantan, artua-ta sikatzeko ganbaria. Ta gero tetxua. Alturia bazeukan. Hiru planta zeuzkan, baiña txikixa, metro kuadraua txikixa.

- Eta logelak edo...

- Logelak, ba, gero, hori lehen esan doten hori aurrekoori, anpliaziño hori ein zebeñian, logelak ein zittuen. Behian ataixa, hori arkope hori, eta goixan logelak. Eta gorauan ganbaria artua-ta sikatzeko. Aurretik haura, han, pareta zuritutako hauraxe ei zan logelia. Haura, ba, haura kendu zala izango dia, ba... Gure aittak esaten zeban ezautu ein zebala, baiña usau sekula be ez aurretik. Ordurako hori eindda zeuan, ba, aurrerako anpliaziño

hori, ta kuartuak, habitaziñuak.

- Ta, orduan, ze eitten zeben danak batera lo?

- Bai, gero haura... Bai, aurretik batera. Bai. Batera. Bueno, batzuk hara ta bestiak horra ta... Ta agero, hori anpliazíñua ein zanian, ba, hiru kuarto uste dot ezautu nittuala: gurasuen kuartua, neskena eta gero "sala haundixa" esaten gontsan, erdixan. Ba, han mutikuak eta aittaitta. Hantxe egoten giñan. Holaxe zien orduko kontuak. Zenbat aldakuntza egon dan!

- Hori, ba! Hortik hasitta, ezta?

- Bai.

10. Herria, azpiegitura

10.1. Autorik ez kaleetan

- **Hizlaria(k):** Gallastegi, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-055/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:36. **Bukatu:** 00:05:01
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena:** Autorik ez kaleetan. "Kotxe landuak" eta "kotxe-zestak".

Transkripzioa

-Hori, kotxeik ez zebillen denporakuak die?

-Bai, bai.

-Kotxeik ez, trankil kaletan.

-Trankil. Astian ba uda-atzenian garo karruak eta holako batzuk, besteik etzeuan. Garoz kargauta karruak eta. Karruak, burdixak, burdixak.

-Bestela kotxe landuak eta horrek ez zien pasatzen?

-Bai. Horrek, e, horrek aberatsenak zien. "Kotxe landúa", eta beste batzuk "kotxe sestak" esaten jakuenak.

-Zelakuak zien ba harek?

-Harek zien hola kurtiñekin-da.

-Diligenzien modukuak ala zela ba? Gaiña tapauta eukitzen zeben, ala?

-Bai, bai.

-Eta kurtiñak aldamenetan?

-Kurtiñak ez, bere zera.

-Kuadrua edo zeozer, ez?

-Bai.

-Estalpia?

-Handik errez jaistekua. "Landua", berriz, bueno! Landua dana tapautakua. Atiakin, eskillaran behera jatxi bihar, eskillara bat pasau ein bihar behintzat behera jeixteko. Eta haura dotoria zan. Sestia menustxuaua.

10.2. Lehenagoko autoak zelakoak

- **Hizlaria(k):** Gallastegi, Sotera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriola, Agurtzane
- **Erref:** BER-055/003

- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:05:01. **Bukatu:** 00:05:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena:** Autoak zelakoak.

Transkripzioa

-Eta zegatik esaten ete zotsen sestia? Zestozkua edo zan karruoi, ala?
 -Ez, ez.
 -Gizona: Brillante-brillantia.
 -Brillantia?
 -Brillantia ez.
 -Gizona: Han zeren Movillasenian bi kotxe lando.
 -Ez, baiña sestak, beste batzuk kotxe sestak esaten dau.
 -Sestak etzien halako...
 -Dotoriak be?
 -Gixajo xamarrauak landotik.
 -Bai, bai, beste kategorixa bat beherao.
 -Da halaxe, orduan ederki jiratzen giñan.

10.3. Garraioak: tren, autoa

- **Hizlaria(k):** Agirre Elkoroturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref:** BER-060/021
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:26:35. **Bukatu:** 00:28:03
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Trenbidea, umetatik ezagutu zuen. Lehenengo autoa, Bergarako Untzuetakoek izan zuten. Anekdotak. Suzko-kotxea, beldurgarria zen; oilo-larrua eginda.

Transkripzioa

- Trenbidia izengo zan zu...
 - Bai ba, trenbidie, nere akordua baiño lehen.
 - Zure akordua baiño lehen izan zan, ezta?
 - Ni gaztia nitzanian plantxa barrixak bota zittuen; lehenao estu-estuak zien lehenengo, plantxa estu-estuak, ta gero barrixak ipini zittuen.
 - Hilari: Ta autuan ipuiña be esaixezu ba...
 - Autua lehelengo hasi zan Untzeta, Bergarako Untzeta... palaziua edo daukana, ez dakizu?
 - Unzueta, oin Unzeta...
 - Unzeta edo dia horrek, Marques de Unceta. Bueno, harek [ipini] eban autua. Ta auto altua, [orduan] azpittik [ondo] edozein pasatzeko moduko altua. Ta joten eban sirenia fabrika haundixak baiño haundixaua! Ta gu bazkaittan bagenden, jaiki danok eta etxe osteko atera haura ikustera, suzko kotxie, juten giñan. Gero ugeldu zien, baiña orduen hauraxe bakarrik hemen. Bilddurtuta, zera, oillo-narrua eindda. Haura zala... bilddurgarria.

- Hilari: Ordurako Olan zenden?
- Bai.

10.4. Errekan bainatzen

- **Hizlaria(k)**: Agirre Elkoroiturbe, Anizeta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-060/045
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:57:48. **Bukatu**: 00:58:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak
- **Laburpena**: Erreka garbiak. Bainuak. Toponimia: Haitz-luzea; haitz-zabala, goiko-kantera.

Transkripzioa

- Gaur baiño erreka garbixaua bieko zan.....
- Bai ez ez ez- orduan ezan orduan ezan errekan zikiñik....
- P.: Oiñ aiña ezuan eongo oiñ aiña zikinkeiza....
- Orduan bañau ta dana eingo ziñaten errekan...
- Errekan bai, erre kara, ibaira bai ibaira gu be bai...
- P.: Or beian bajaok ba, Otzalai parian, Aitzluzia esate jakoa n, Aitzluzia ta Aitz-zabala zuan ta bestela, Kanterara orduan Ponportia, ezta pentsau be amen e beti erreka aundixan gure denporia or jun zuan, igarixok eta ortxe ikasi, igarixan da dana, ementxe zubi parian be bazuan zulo unatxo bat, or be ume mordua ibiltze giñuztan ta an Aitz-zabalian da Aitz-luzian bueno....

10.5. Euskararen aldaera desberdinak Elosun

- **Hizlaria(k)**: Lete Iribecampos, Juana Joxepa
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Erref**: BER-063/004
- **Iraupena**: 0:00:45. **Hasi**: 00:08:51. **Bukatu**: 00:09:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Euskara Elosuko norde aldean. Auzoen arteko desberdintasunak. Desberdintasun gehien Elosuko bentaren alde batera eta bestera.

Transkripzioa

- Hamen Nordian danian eingo da, ezta, hizketan antzera?
- Bai, hamen igual samar danian Norde parte honetan. Baiña gu... Ta ixa gehixen ezautzen da hizkeran nungua edo... zein nungua dan, hemen inguru hontan bai, behintzat, euskeraz eitten [dabena].
- Eta Elizaldetik Azkoitti auzora ´re aldatzen da?

- Horrek antzera, Azkoitti auzua ta Elizaldia antzera horrek. Ta baitta Ujaldia ´re. Ujaldian oin ez dao jente asko, baiña... Ujaldia ´re tarte hortakue da. Hamen zerak eitten dau hau: Elusuko Bentia horrutz ta honutz eitten dau diferentzia gehixen.
- Diferentzia gehixen, ezta?
- Bai.

10.6. Egur-batzea Elosun, auzolanean

- **Hizlaria(k):** Gabilondo Alberdi, Mateo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-098/008
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:09:43. **Bukatu:** 00:12:04
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Egurra aizkorarekin bota eta apaintzea, familiako kideek egiten zuten. Egurra batzea berriz, lan astuna zen eta auzolanean egiten zen. Elosu inguruko ikazkin gehienek beraientzat egiten zuten ikatza. Gerra osteko urteetan basomutilak ibiltzen ziren ikazkin lana egiten.

Transkripzioa

- Eta lana zenbaten artian eitten zan?
- Lana... bota egurra bota eitten zan jeneralien edo gehixenetan zerakin, aizkorakin botatzen zan —ez zan beste sistimarik izeten—, bota eta apainddu ya familixan eitten zan. Ta gero batzia nola lan haundixa zan, bizkarrien batu biher zan, zeaitti egurra botatzen zan entresakien edo tarti... haundiña botatzen zan eta ezin zeiken ganauekin-ta ezin zeiken ibili zerian eta batu bihar izeten zan bizkarrakin. Eta hori alkarri lagunduta eitten zan. Gaur egun baten eitten zan gurian, hurrengo Gomezkortan ingo zan ta hurrengo beste baten eta egurrak batu eitten zien zerien, kuadrillan.
- Eta iños ein zenduen, ez dakit, holan, kuadrillan baten-edo bihera beste bateronbatentzako edo? Ala beti etxerako?
- Etxerako. Bai, guk... Nik neuk etxerako ein neban. Eta hemengo iketz-lana gehixena bakoitza beretako izen zan. Lehen esan dotena, gerra-ondoko epoka horretan egon zien basomutillek esaten jaten kuadrilla bat. Hementxe be ibili zien. Geure tio batek erabili zittuen eta harek jardun [eben] nere tio batentzako. Harek hartu zittuen baso batzuk eta eitten. Lehen esan dotena, ba, estimaziño haundi bat euken iketzak eta...
- Eta horrek ze zien, euskaldunak, bertokuak ala...?
- Bai, euskaldunak zien eta, geiñera, euskaldun-euskaldunak zien: Osintxukuak, napar bat euki eben... Erak kalekuak zien, baiña urte txarrak zien, gosie euen kalia, dirua ´re, ba, oso gutxi euen eta, ba, hona mendira etorri ta pezeta batzuk irabaztera [...] ezkondata bizi zienak Osintxun, Plazentzin ta horretan.
- Esan dozu basomutilak ziela horrek?
- Basomutillek esaten jaten, baiña zien hemengotxe gizon batzuk, hemengotxe gizon batzuk. Eta erak ikezgiñan ez ekixen eta napar bat

erabili eben iketza egosten edo zerien. [...].

- Eta holan esaten jakuen, basomutillak?

- Basomutillek. Basomutillei askotan esaten jako horrei be bai eta baita piñu botatzen dabitzenei eta beste askotan, ba, basuan dabitzen mutillei.

10.7. Karegintzaren inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Murgiondo Etxabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Olañeta, Amaia - Urkiola, Argiñe
- **Erref:** BER-101/028
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:26:05. **Bukatu:** 00:28:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
Euskara » Lexikoa
- **Laburpena:** Karobiari sua nola ematen zitzaion. Hasiera batean lasto-azao batekin ematen zitzaion sua egurrari. Gauetan 2-3 lagun egoten ziren karobia zaintzen. Su indartsua behar izaten zen etengabe. Harriaren kolorearen arabera, karea erreta zegoen edo ez jakiten zuten.

Transkripzioa

- E... ze erabiltzen zan sua itteko? Sua zelan emoten jakon? Brasia itten ziñuen edo...?

-Brasia, brasia ya sartzen [zan]. Lasto [azao] bat edo lasto... lasto moltzo bat edo erun, [lasta azao] bat edo zeoze, sutu ta abarrak sartzen hasi, eta samur itten zan sua! Sua samur itten zan gero.

-Bai?

-Ta gero, segidu, segidu, segidu ein, gau ta egun; kontinuo, ez zeuen lorik eitteik. Han euenak argi egon bihar eban. [...] erretzen zan ondo.

-Oseake, labara egurra bota ta gero lastuakin emuten jatzuen?

-Ez, hasieria lastuakin bizten dan momentua, e. Lasto azao bat eruen eta bizten dan momentua.

- Zer eruan esan dozu?

-Lasto azao bat. Zuek baserrixan garirik ez dozue ezautu zuek!

-Ez, nik ez.

-Ez, zuek be ez, ezta? Lasto... lasto fardo bat, lasto pakete bat eruatzen zan. Ta gero harekin sua in ta biztu ta hari abarrak emun ta... samur itten zan, e. Aiena!

-Eta gero, eta gero, zenbat pertsona esan dozu egoten ziñiela?

-Ba, bi-hiru lagun kontinuantemente e; egunez bebai, baiña egunez gutxiau bebai. Baiña gabatan bi-hiru lagun tertulixia eñaz han egoten giñan, e. Sakonekua be bai, Abeletxekua be etorten[zan], ta guria be bai eta beheko etxekua be etorten jakun; asike, bueno...

-Ta zenbat egunetan?

- Hiru egun, hiru egun ta hiru gau zien, e. Konparaziñorako, gaur goizian ixotzen bazan, ba hirugarren egun gaberako ya akabatzen zan; asike, holaxe... baiña ondo. Ta kare mordua ein ta kare ona eitten da han, bueno! Kare bat eitten zan... izugarrixa, e!

-Sua ze izaten zan ahalik eta haundixena beti, ala...?

-Bai, inddartsu-inddartsu kontinuo egon bihar da han, e. Kontinuo eon bihar eban sua e, bape emendau barik, kontinuo egon bihar zan, e.

-Ta indartsua, ezta?

- Inddartsu, bai, [...], inddartsu egon bihar zan sua bera.
 -Ta hori, harri pillua, orduan, gorri-gorri egongo zan, ezta?
 -Bai, bai gorri-gorri; goixen, gaiñien, gorri-gorri ikusten zan, e, sua han pasatzen zanian gorri-gorri ikusten zan. Ta gero azkenian, esan dotena, muskerran kolore horixa geratzen zan. "Ointxe erre da ba, ein da ba!", ezaun izeten eban, lagartuan koloria eukitzen eban.
 -Karia erre, esaten dozu, ezta?
 -Bai, karia erre, bai.
 -Egosi ez?
 -Ez, ez, karia erre, karia erre; iketzak egosi. Iketzak egosi ta karia erre eitten da.

10.8. Zubieta kalea

- **Hizlaria(k)**: Juaristi Aranburu, Natalio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-138/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:01:50. **Bukatu**: 00:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Zubieta kalea zelakoa zen. Palazioa.

Transkripzioa

- Eta zelan gogoratzen dozu kalia? Dendak zekazen...?
 - E?
 - Dendarik bazeuan?
 - Bai, dendak bai. Dendak bazeren. Ointxe be badare, baiña...
 - Asko aldatu da gerra aurretik eta gerra ostian kale hori?
 - Ez da asko aldatu, zeatik illaran etxiak zeren, zerian. [Euazen] bata bestiari alkarri pegante-pegante danak eta.
 - Eta hor inguruan palaziorik edo bazekazuen?
 - Palaziua? Hantxe, bestekaldian Unzetanekua esaten zotsena, zerian, zubixa pasau, badakizu? Zubixa pasau ta etxe haundi haura? Haura da Palacio de Unceta.
 - Eta umetan zelan ikusten zenduen palaziua?
 - Palaziua, ba, Elorrixoko kriadakin. Elorrixoko neskak. Hamen geratu zian, hamentxe ezkondu zian bixak.
 - Bizi zan jenderik, orduan?
 - E?
 - Bizi zan jenderik palaziuan?
 - Bai, bai, bai. Don Eladio zeuan, kargu haundixa zeukana; "fiscal supremo" edo zan zerian. Ta egon zan Bilbon ta gero Madrilen be bai ta... "Fiscal supremo" zan.

10.9. Hirigunea

- **Hizlaria(k)**: Juaristi Aranburu, Natalio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar

- **Erref:** BER-138/003
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:03:05. **Bukatu:** 00:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak,
kontakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Palazioa. Santa Marinako eliza. Etxe txikikoa.

Transkripzioa

- Eta zelakuak zian jabiak edo, palazioko...?
- Jabiak? Kanpetxanuak zian. Kanpetxanuak zian. Ez zian, hola, harroskuak-eta ez zian.
- Eta bazeuan umerik bertan palaziuan?
- Umerik?
- Gure denboran ez. Aurretik bai, semiak euki zittuen ta. Harek hazi zian, baiña...
- Zeuen sasoian ez.
- Ume gazterik ez.
- Eta hor inguruan beste... zeuen kalia, palaziuaz aparte...?
- Handik aurrera jua ta beste... Santa Marinako elizia dao. Ta han etxe haundixan onduan dauana da etxe txikikua.

10.10. Zubieta kalea

- **Hizlaria(k):** Barrenetxea-Arando Azkargorta, Gotzon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-143/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:18:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Zestoak egiteko prozesua. Abarketagileak. Idiak ere egoten ziren beraien kalean. Anekdotak bat idi pareta auto batekin.

Transkripzioa

- [...]. Hola, behian ipini zestuoi ta "ra-ra-ra" batu ta kruzauaz, hola. Behian ipini zest... hola ipini, holako zeran ipini hola ta gero hola pasauaz "da-da-da-da" jo ta [...].
- Hori zestuak...
- Zestuak eitteko.
- ... eitteko prozesua. Eta, orduan, zesteruak abarketak be eitten zittuan?
- Astixa zeukanien abarketak, beste lanik ez [zeon] ta. Abarketak eta zestuak eta... Patxi zesteruan aitta ta horrek danok. Ta beste batzuk [horrekin].
- Eta jente askok erosten zittuan zestuak orduan?
- Hoixe, hoixe, biharko! Etxerako ta...
- Eta, gero, esan dozu hemen kale honetan bertan zalditegixa be bazeuala?

- E?

- Idixak-eta egoten ziala hor... zaltei bat edo...?

- Hamentxe, geure aldamenian. Guk etxe zahar bat daukau hortxe —ez dou ezebe eitten, garaje daukau— ta hortxe eukitzen zittuen. Idixak, ekartzen zittuen idixak eta burdixa sartu ta idixak lotu ta...

- Eta ekartzen zittuen idixak... noiz? Plazara zeto? Ez. Zetara?

- Idixak erenak etxeak, lanerako idixak.

- Eta bertan gordetzen zittuen?

- Bai, zaltaixa [zeon] hor ta. Burdixandako tokixa ta gero zaltaixa. Ba! [Goizian] goizian jantzi ta lotu ta... [Gero] bedarra jatera gero etara ta... Bedarra jatera etara ta... Hor aurrekaldian orduan erre kara bajatzia erre zua zan. Hor aurrekaldeko [zelaixan] etxiak dare ta horra juan ta hor zelaixan bedarra jan ta handik "dinbi-danba" atzera illuntzian etxera. Ta hortako baten, nik ez neban entzun, baiña [beste batek ekarritta]. Idixekin zetorren hona, kamiñuan idixak, "dinbi-danba, dinbi-danba", ta kamiñua pasatzerakuan "Eeee" bat geratu ein eban automobillakin, batenbat, noizbait tokauta automobilla: "¡Eh! ¡Usted no sabe dónde anda!", "¡Tú no sabes nada, tonto, tú! Estas ya saben, éstas viven aquí". idixak kamiñuan "ra!" etorri ta kamiñuan "da!" kruzau ta zaltaira. Ta bestia automobillakin atzetik, zarataka: "¿Dónde va usted?"; "¡Calla tú, no sabes nada! Estas viven aquí, saben dónde viven" harek. Idixak "dinbi-danba, dinbi-danba", baiña...

- Bazekixen...

- Ez zauen semafororik-eta orduan. Hori, hori... [...] da hori, e! Idi paria, idi paria zaltaira zuzen. Ta bestia automobillakin kabreauta, jo-ta zarataka.

10.11. Baserriaren egitura mende hasieran

- **Hizlaria(k)**: Iburguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-152/005
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:11:00. **Bukatu**: 00:12:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- **Laburpena**: Komuna. Aurretik zalditegira joango zirela uste du. Aitak, komuna egin zuen. Hasieran satsetara jausten zen zikina. Gero ura ekarri zuten.

Transkripzioa

- Gero, ba, komunik be ez zan. Komuna be neuk --ez da zera, baiña-- neure denporan, lau aldiz aldatu dala uste dot, ta lehelengua gure aittak ein zabala kumuna. Aurretik, ba, zaltaira edo jungo zien nezesidadia zanian. Ta ondio Castillan hori, ondio be...

- Bai, toki askotan ondiokan...

- Ondio be, e! Eta zaltaira. Ta gero, ba, kumuna goixan. Zela habitaziñuak goixan zeren, ein zeban komuna, ba, oholakin, hola, tabliakin. Ba! Zer txiki bat. Beste tabla bat, erdixan zulo bat ein, eta [...gero behetik] zera, satsa, behian. Ta behian zeuan zaltaixa. Ganauen satsa-ta [hara atzera] eraitten jakuen, ta hantxe. Ta gero, ba, noizbaitten pentsau genduan, ba, urakin

ipintzia zerori. Joe... Haura zan ona! Urakin kumuna. Ta ez zan beste gauzarik, usautakuan, txorrua albuana, ta baldiakin ura bota. Bai. Ez zeukan urak nibelik bonbara jasotzeko, ta gero ein giñuan ura ekarri ta gorauen ipini ura, desnibela euki deixen. Ta gero, orduan, atzera aldatu giñuan, ta berrixaua ein, eta bonbiakin tiratu garbittu dein. Hiru.

- Oseake, zeure akorduan ya hiru bat, lau bat...

- Bai, nere akorduan einddakuak horrek.

10.12. Baserriaren egitura mende hasieran

- **Hizlaria(k):** Iburguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-152/006
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:12:55. **Bukatu:** 00:13:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Teilatuko ura; geroago ur-korrontea. Egin behar izan ziren lanak ura lortzeko. Askatzuko iturria.

Transkripzioa

- Ura, ur-korrientia...

- Ur-korrientia... Itturrixa ekarri giñuan lehenao taillatuko ura. Taillatuak -- pentsaizu zela eitten zan lana--, taillatuan, ura hartzeko, hodixak. Badakitzu ze dien? Kanalo horrek? Hodixak esaten jakue. Egurrezkuak eindda zeuzken. Gaztaiña zuzenak billau, alde bittatik, hola, zangia etara, ta taillatuan ura hartu. Ta haura askara. Han handikaldien zan askie ta hara. Ura han. Ta, gero, etxian ura falta zanian, ba, juten zien hara, potzu [bat] han egoten zan. Ura zela-halakua sarrittan. Zela itturirik ez geunkan bertan, ba... Urakin oso paraje eskasa zan hau. Bai. Ur gutxikuak. Itturrixa urrin! Hamendik, ba, seirehun metro inguru tubo ipini giñuzen ekartzeko. Eta haraiño jun bihar.

10.13. Baserritarren eta etxejabeen arteko erlazioa

- **Hizlaria(k):** Iburguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-152/010
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Maiordomoak, erreteroen eta nagusien artean bitarteko lanak egiten zituen. Baserri asko jabe bakarraren esku; jauntxo handiak. Izen batzuk ematen ditu (Urdangarin; Javier de Unceta; Monzon...). Denerakoa zegoen. Baserrien izenak, jabetza norena zen.

Transkripzioa

- Orduan, esaten dozu, errentan egoten zirala basarritar batzuk, beste batzuk jabiak ziran. Eta errentan zerenak jabe bat zekan.
- Jabe bat harek.
- Eta jabiakin relaziñua zeñen bittartez eitten zan?
- Haren bittartez.
- Maiordomua edo esan dozu?
- Maiordomua, [maiordomuania], haretxen bittartez eitten zan. Zeoze eskatu bihar bazan be nausixaana ez zan juten. Ta nausixak oso --hamen auzokuak-- oso jatorrak zien, baiña betik zereri eitten jakuen, horregatik, [maiordomuania] edo horren bittartez.
- Eta ze izaten zan hori herrikoren bat?
- Herriko bat, nausixari pelotia eitten zebillen herriko bat. Besterik ezerrez.
- Eta hemen inguruan ze nausi edo...?
- Guk hamen... Bueno, gure auzuan, hamen behian hiru etxe; hor beste hiru... Ez, behian lau, ta hor hiru. Zazpi basarri zeuzkan nausi batek: Urdangarin. Donostian... Bueno, anai bat daka gaztia. Gero haren semiak ezkondu ta ez dia oin... Horrek etxe huandikuak. Zuek ez dozue jakingo...
 - Bai, bai, bai. Hor erreka-onduan dauana?
 - Bai. Etxe huandikuak, hangotxiak. Horrek zien... Horrek zeuzkan hamen bertan, auzo honetan, zazpi basarri. Gero, ostian... [nik dakit]... igual eukiko zittuan berrogeta hamar basarri! Hor, basalgon be bai, Azkoittin, ez dakit nun, kalia be etxiak... Bueno. Horrek zien, ba, lehengo jauntxo huandixak. Ta ez zian gizon... Nik azkenengua, don Javier de Unceta, ezautu neban hor eta oso gizon [tratatzekua] ta zera zan. Ta gero semiak be bai. Bai, bai, oso gizon jatorrak zien.
 - Eta hemen beste auzo batzuetan be...
 - Bueno, ba, danerakuak zeren. Auzotan... Hamen goixan beste bat, bi... bi etxe: Lamaño Torria esaten jako bat eta Lamaño Etxebarri --oin agroturismua--edo dago eindda. Aristegik dauka hor; zer edarra dauka--. Eta horrek zien Palacio Amuategi, Amuategikuak zien horrek. Gero beste bi etxe. Bueno, bat hamen Zurra --hamen goixan etxe bat dao-- palaziua da hori, elegantia, gaiñera! Hori be oin hutsik dao, baiña... Ta gero horrek zeukan beste etxe bat han behian: Egiño. Hori. Gero, beste bat, baztarrengua, Supide, haura zan Monzonena. Monzonek zeuzkan, Bergaran bazeuzkan etxiak: zeria be bai, Uberan, San Prudentzion... Hori, Palacio --zela da?-- Olaso, Palacio Olaso.
 - Bai, ederra, gaiñera, ez?
 - [Oso ederra]. Ta Monzon...

10.14. Lehenengo autoa nork ekarritakoa

- **Hizlaria(k)**: Ibarguren Unanue, Donato
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-152/019
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:36:30. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 - Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- **Laburpena**: Lehenengo autoa noiz ikusi zuten. Zelan funtzionatzen zuen.

Transkripzioa

- Lehelengo automobilla haretzek ekarri ei zeban.
- Bai, e?
- Bai, hantxe zuan [atian] garajia.
- Zuek eskolan zebiztenian bai, e?
- Bai, garajia...
- Baiña egurrakin ibiltzekua ei zuan lehelengua.
- Ez dakit. Guk... illunetan zuan garajian ta ez giñuan ikusten zerian, baiña hantxe euan.
- Ze urte ingurutan?
- Ba, horrek sigluan lehelengotan, edozein modutan be. Lehenguan azkenetan edo hurrengo novecientosan lehelengotan izengo zan, asike... Ekarri ei zeban baporía. Baporía... Zeran moduan, sua ein. Gero gasogenuakin ibili zien antzera. Ba, hoixe.
- Ta baporiakin bai, e?
- Bai, bai. Autua sua eindda ibiltzen zebala lehelengo [...].
- Gero be hola egon zien gasolarik egon ez zanién. Nik ezautu [...] kamioiak eta...
- Bai, bai, gasogenua. Gasogenua. Baiña...
- Bai, hori ya gerra-ostian, ez?
- Gero arrankatzeko akordatzen naiz zela gaizki ibiltzen giñan [gasoliñakin] arrankau eta gero gasakin, sartu gasa ta ibiltzen zienak. Baiña gasa pobriaua zan.
- Eta, orduan, automobillak be gitxi, berak eta...
- Ba, Bergaran lehelengua berak eta gero hurrengo ez dakit, ba, zein izengo zan. Monzon be...
- Ez.
- Konde zaharrak?
- Conde de Vallek.
- Conde de Vallek?

10.15. Umetan neskame egondakoa; orduko lanak

- **Hizlaria(k):** Argialde Azalza, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-156/009
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:09:40. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
Lanbideak » Neskameak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- **Laburpena:** Umea zela neskame joan zen; orduan egiten zituen lanak zeintzuk ziren azaltzen du. Arropak nola garbitzen zituen. Erreka etxe ondoan zuten; errota. Ezagutu zituen plantxak nolakoak ziren.

Transkripzioa

- Orduan, pixkat danetik ikasi zenduan, ez? Ikasi ein bihar...
- Bai, horixe! Ikasi ein bihar! Ta han ez [zaon] orduan hola brillua etartzeko gauzaik, e? Ta badakizu zelan danian brillua? Hartu bai zepillua eskuakin ta belauniko jarri, haintxe, haintxe, hankiakin kantsauta,

eskuakin.

- Hori ze izaten zan, brillua etaratzeko egurrari?
- Brillua. Ta argizarixa emoten jakon.
- Eta belauniko?
- Belauniko. Orduan ez [jekanaun] holako katxarrorik... Harek dirudunak zittunan, baiña ez jaukanan holako gauzarik.
- Eta etxia garbitzeko ta erropak garbitzeko ta zer eitten zenduen?
- Zer?
- Baiña beste kriada bat be bazaon, ezta?
- Bai! Ni fan nitzanian haura fuera bialdu ta nik danak eitteko lanak. Erropak garbitzeko badakizu zer?
- Labaduria, labadora, baiña ez labadora katxarro hori ta, e? Zela zan?
- Labaderua.
- Labaderua holakotxe harrixakin. Beste erropa mordo bat zera... izenak be ahaztu bihar jatanaz! Zerak, barreñoiak modukuak baiña beste izen bat zeuken harek. Han ipini beratzen jaboiaquin-ta eta jarri han erremangauta ta “venga con la mano, venga allí”, hari “así, así, así y así”, [...], e?.
- Bai, bai, bai. Gogorra, orduan, ez?
- Ta gero albergan, aldemenian haura, ta han astindu. Bihurtu ta esei.
- Eta hori ze izaten zan, etxian kanpokaldian itten zenduen?
- Kanpuan, kanpuan, [...].
- Eta ura, ur hotza?
- Ur hotza.
- Errekaren bat zeuan bertan ala...?
- Errekia be bertan. Bai.
- Errekako ura aprobetxatzen zan?
- Holaxe moduan. Ez, bestela zeuken harek hartuta ura, errota zan ta ura asko bihar [zeben]. Presia [zaon] ta presatik.
- Eta, orduan, erropak halan garbitzen zenduezen?
- Halaxe garbitzen zian.
- Eta ze jaboí edo ze edo...?
- Ba, [takua]. Ta holako gauzak eitteko lanera, e! Eta plantxia ein bihar zanian, almohada-azalak lehen zinttekin egoten zien. Ez dakit ezautu dozun...
- Bai, ikusitta bai...
- Ba, harek be [rizau-rizau] einda plantxatzen... bihar nittuan nik. Eta erropa [...] eta zer ez.
- Eta plantxia?
- Plantxia plantxiakin.
- Baiña elektrikua [...txapakua]?
- Txapan, txapan berotutakuakin.
- Ze eitten zan, txapan berotu ta...?
- Plantxau.
- Ta gero barruan eukitzen zeban, batzuk izeten zien iketza edo zera sartzen jakuela...
- Tximinixa ta guzti.
- Eukitzen zeben plantxak?
- Bai. Baiña haura be, ba, fff!
- Orduan, etxeko jiria hori, ez? Erropak garbittu ta...?
- Erropak garbittu ta koziña be zeoze bai ta benga lana ta...

10.16. Angiozarko auzoak eta ermitak

- **Hizlaria(k)**: Lonbide Elorza, Juane

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-191/005
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:05:40. **Bukatu**: 00:07:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena**: Angiozarko auzo desberdinak; ermitak. Partaitti (San Bizente ermita); Marindano (Elizamendi); Zabaletamendi (San Bartolome); Goimendi (Altunemendi; S. Migel de Monte); Azkoneta (San Martin). Angiozarren, San Migel eliza. Errekaldeko etxeak.

Transkripzioa

- Hemen, Angiozarren, esan zenduan auzo desberdiñak darela, ez?
- Bai, bai. Hamen dare, ba, Partaittixa -hau da Partaittixa.
- Partegoitia.
- Partegoitia.
- Baiña zuek Partaitti, ezta?
- Bai, bai. Barrio... San Vicente ei da ermittako izena. San Vicente. Ta gero hor Maingdao dao hurrengo.
- Marindano.
- Bai. Ta hor Elizamendi Ama Birjiña. Oin elixioi zertuta dao.
- Ya hasi [bihar dabena] eitten...
- Ta gero, harutzao Zabaletamendi. Han dao San Bartolome.
- Auzo bakoitzak beran elizia daka?
- Bai, bai. Ta gero bestia Altunemendi, Goimendi. Han San Migel de Monte ermittia. Ta gero, hor behian, Azkoneta. Ta han San Martin. Gaur da San Martin.
- Gaur da hango jaixa...
- Bai. Ta gero, beste etxe batzuk badare Errekaldekuak. Auzua da, ba, zati bat Bergarakua ta beste bat Angiozarrera pertenezitzen dana. Harek, ba...
- [...]
- E?
- Parrokixaz.
- Parrokixaz. Ta harek dauke, ba, San Kristobal. Ta gero, ba, bertakua, Angiozarkua, San Migel.
- Ta eliza dotoria, gaiñera, ez?
- E?
- Eliza dotoria...
- Bai, bai. Elixia? Hoixe! Elgetan-ta aldian dotoria dao Angiozarren elixia!

10.17. Angiozarko bidea egin zeneko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Lonbide Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref**: BER-191/006
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:07:25. **Bukatu**: 00:09:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

- **Laburpena:** Garai batean Angiozar Elgetakoa izan zen udal kontuetarako. 1928tik aurrera Bergarakoa da. Bidea egin zenean haserreak sortu ziren eta herria beste udal baten mendean egotera pasa zen. San Asentzio.

Transkripzioa

- Sasoi batian, gaiñera, Angiozar Bergaratik-eta aparte zeuan, ezta?
- Elgetakua zan, aiuntamentuz Elgetakua.
- "Hasta el veintisiete".
- Bai, veintisietian [tratau] ein, ta veintiohotik honutz ya Bergarakua.
- Eta zelan izan zan hori? Badakizu? Entzunda historixia zelan erabaki zeben Elgetatik apartau ta...?
- Hori, ba, Elgetatik Eibarrera kamiñua ein zanian, Angiozarrek, ba, lagundu ein bihar otsan hari eitten. Ta hamenguak, itxuria, zertu otsen Angiozartik Elgetara, ta hori... oiñez ibili bihar. Ta hortxe tematu Angiozarko auzo-alkatia ta Elgetakua, ta orduaintxe apartau. Gero Bergarara pasau.
- Eta orduetik harrezkero pixkat pikeren bat dakazue Elgeta, Bergarakuekin edo ez?
- Ez, ez da egon holako aparteko pikerik ez da egon. Guk geuk ezebez. Ointxe ibili da hor pikia. Hor, Asentzio. Egonda zare? Pozua ta ha terrenua hor Angiozarko batena zan, ta harek donau ei otsan Angiozarko elixiai ha..
- Bai, ermittia ta...
- Bai, ermitta ta dana. Ta, ba, Angiozarko abadiak-eta [...] eben, ta oin Elgetako aiuntamentuek Elgeta partien dauela, ta parkia ta... Elgeta ein da jabe. Aiuntamentuz, Elgeta partian dao.
- Bai, bai, bai. Baiña terrenua, berez, Angiozarko batena zan, ez?
- Bai, Angiozarko batena. Ta Angiozarko elixiai donauta. Ta gero hamen azkenengo --azkenengo ez, harrezkero be egon da, baiña-- abade bat naparra egon zan, ta harek Angiozarko gazterixiai zerian, izenian laga [bihar izan eban]. Ta mugarririk sartu ta danak ein zittuen, baiña oin ya Elgeta dao jabe eindda.
- Oin [kanbixauta dao dana]...
- Bai.
- Oin hemendik ez da... mezia emotera be Elgetatik juaten dia. Ya parrokiak be oin Elgetakua izango da.
- Bai, bai, oin dana Elgetakua, Elgeta partian dao egon be ta dana Elgetakua.

10.18. Angiozartik Bergarara joateko joera

- **Hizlaria(k):** Lonbide Elorza, Juane
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-191/007
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:12:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- **Laburpena:** Bergarara joateko joera izan dute beti. Zabaletamendikoek, berriz, Arrasatera joateko joera izaten zuten; bidea erosoagoa zen. Beraiek Arrasatera feriara joaten ziren bakarrik. Baserri izenak. Medikura Elgetara joaten ziren.

Transkripzioa

- Zeuek jokeria norako euki dozue? Bergarara? Elgetara?
- Gu geu Bergarara.
- Bergarara.
- Bergarara. Lehen, ba, Elgetara fan bihar, hori pasau aurretik, ba, aiuntamentura. Baiña gu geu aiuntamentura ta ostientzeko zer danera be Bergarara.
- Esnetia edo [... saltzera] Bergarara.
- Bai, bai. Gu danok Bergarara. Horrek Zabaletamenditarrok batzuk Elgetara bebai, etxe batzuk, baiña beste batzuk Bergarara harek be. Ta handiko mendikuak, berriro, Mondrauera.
- Lekukoa2: Harek Arrasatera.
- Bai, harek Bergarara tratura-ta faten zian Bergarara, sapatuetan, antxiñan, astuekin ta.
- LEK2: Bai, urte asko dala, e!
- Bai, baiña aspaldian harek, ba, normalian Mondrauera. Bai.
- Zeuek Mondraokuekin aparteko relaziñorik-edo dakazue edo ez?
- Ez ,ez, gu Mondrauera lehen, ba, ferixara, baiña ostian ezebez. Mondrauekin ez daukuu guk ezer.
- Karo, han bai geratzen dia auzo batzuk edo baserri batzuk ya pixkat Mondragorutz...?
- Bai, harek, ba, kamiñua, bidia, erosuau daukelako Mondrauera.
- LEK2: Oin ya danak Mondrauera hemendikuak.
- E? bai.
- LEK2: Oin. Lehen be basarri batzutakuak bakarrik juaten zian Bergarara tratura, e! Lopekuak.
- Bai ba! Haretzek, Lopekua ta Altunekua, besteik e...
- LEK2: Bestiak beti Mondragorutz.
- Bai, harutz.
- LEK2: Bai. Gontzarrikuak eta horrek...
- Lope bi bizitzakua da. Ta harek astuekin ibiltzen zienian, Bergarara; hamen menditti behera Bergarara faten zien. Tratuau, zerau, Bergaran eitten eben.
- LEK2: Bestiak, Lasarte ta...
- Bestiak, horrek, Mondrauera, bai. Honek Zabaletarrak be, horrek be asko Bergarara. Hau Galarrerdiko ta Galarresakona ta horrek Elgetara, horrek Bergarara gutxi. Baiña honek Zabaleta, Lamain ta Larraña ta, horrek danok Etxabarriko ta horrek danok Bergarara.
- Bergara izango zan orduan toki fuertiaua, ez?
- E? bai bai. Elgetan oin badare denda batzuk-eta, baiña orduan Elgetan ez zeuan hola aparteko gauzaik.
- Txikixa izango zan, ez?
- Bai, bai.
- Oin Elgeta be asko hazi da, baiña sasoi baten ez...
- Bai. Guk Elgetakin euki dou medikua, ta oin bebai. Elgetan, guk kabezerako medikua Elgetan. Hori, tratuau in zanian, Angiozar Bergarara pasau zanian, orduan zertu ein eben /iben/ medikua ta praktikantia. Ta Angiozarren praktikantia bizi izan zan —oin ezta bizi—, baiña gerraostian bebai praktikantia obligaziñua uste dot Elgetak eukala hor praktikantia eukitzeko.
- Nahastia euki dozue orduan, ez? Elixara toki batera, aiuntamentua bestian, medikua...
- Bai, medikua kanbixau zaneti beti Elgetakua.

10.19. San Lorentzo auzoan azkenengo hamarkadetan izandako aldaketak

- **Hizlaria(k):** Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-216/001
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:08
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** 1931n jaiotakoa, San Lorentzo auzoan eta San Lorentzo egunean. Auzoa asko aldatu da. Baserri asko desagertu egin dira, industria gunea egiteko lur-sailak behar ziren eta asko bota egin ziren. Baserri izenak. "Maduria" zen ingurua, lur-sail lauak. Bertan ezarri diren industria batzuen izenak.

Transkripzioa

Zeuan ermenteritza bat, perratokixa... Ba horretxek.

Emaztea: Eta Bolubarri.

-Basarri asko, ez?

-Bolubarri oinddio han dao. Bueno, han dao... Oiñ berriztuta, baiña haura aparte geratzen zan, errekan bestaldetik zeuan eta. Zubikua botata, horrek danak botata dare. Gero Zapatarikua, tabernia, botata dago; Gillingua basarrixa botata, gero bizitzan etxe bat zeuan "almacén de piensos" eta gero Joseinazionekua esaten jakona, Jose Inazio Gallastegiña, bost, lau pisu zeren, jente asko bizi zan, "derecha-izquierda" ta. Horrek danak fuera.

-Basarri asko, ez, inguru hartan?

-Gero Santalaitz-txikikua be bai, haura be bota; gero beste etxe berri bat zeuan, etxia "de viviendas". Gero Santalaitz-aundi be bai; Santalaitz-txiki, Santalaitz-aundi, horrek botata. Gero Bar Toki Alai, hori be botata. Horrek danak industriak arrasa-ittu. Gero besteik eztao hor, ez zeuan.

-Basarri asko eta imajinatzen dot inguruan danak soruak eta.

-Baiña oso sakabanauta, e! Sakabanauta. Auzo danian, bai. Maduria zan, terreno onak zien, lisuak, eta hor ein zan ba industria asko. Cometsa, General Mecánica, Sussen Vasca. Irin-fabrikia be bazeuan, oinddio be paretak badare. Oinddio edifizua hor dago, baiña haura be borrau zan hortik. Gero...

Emaztea: Tintorerixia, zu jaiotakua, tintorerixia.

-Baiña haura... Edifiziuak han dare oin be. Ni jaio nintzan etxian han dare zerak.

10.20. Bergaran ehungintzak izan duen garrantzia

- **Hizlaria(k):** Laskurain Gabilondo, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Erref:** BER-216/010
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:16:18. **Bukatu:** 00:19:39
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

- **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Ekonomia eta industria » Industria motak » Ehungintza, oihalgintza

- **Laburpena:** Auzoaren inguruko azalpenak. "Oregineko tintorerixia" (tindategia) bertan zegoen. Bergaran ehungintzak tradizio handia izan du eta auzoan egon diren lantegien izenak aipatzen ditu. Igeltsu-zulo batzuk ere bazeuden; hauen inguruko azalpenak. Igeltsola etxea.

Transkripzioa

-Auzua asko aldatu da, ez?

-Bueno! Fabrika mordua dare eta, almagazak eta.

-Esan dozu tintorerixia edo...

-Bai, ni jaio nintzan lekuan, ni jaio nintzala tintorerixia han zeuan. "Oregi y compañía".

-Hemen Bergaran gaiñera textil asko egon dia.

-Bueno!, hamabi edo ... Han bertan be auzuan Oregi y compañía, Bergara textil, Vicente Aranzabal, Textil Muguerza. Horrek zien han auzuan zerenak. Danak auzokuak. Gero auzo haretan zeren beste bi igeltsu be bai. "Minas de yeso", igeltsu-zuluak. Han behian eztakit zenbat metruan junda igeltsua etaratzzen zebeu, kanteria behian.

-Eta nun hori?

-Eta gero erre eitten zebeu hori, eta igeltsua ba zera eitteko, "yeso".

-Baiña hori auzuan bertan, baiña nun?

-Bai bai apartetxua.

Emaztea: Kanpo-fubola dagon tokixan.

-Kanpo-fubola eta Hondartzara bidian. Kanpo-fubola azpittik zulatuta zeuan.

-Eta ze zien, bi zulo esaten dozu?

-Bai, juten zien horrek eskillara moduko batzuekin bajatzen zien behera eta gero galerixak zeuzken eta han pikatxoiakin eta dinamitia eta etaratzzen zebeu, harrixa, "yeso", eta haura erre eta gero harekin eitten zebeu igeltsua.

-Eta erre ze eitten zan barruan ala kanpua?

-Kanpua. Kanpora etara, sua eitten zebeu eta han gaiñian eukitzen zebeu sua eindda denpora bat eta haura erre ezkerre zera eitten zan, haustu, eta zihero ezpazan hausten be, makinetan pasatzen zebeu eta gero zakutan bete eta saldu igeltseruei tta. Bergaan zeren hiru igeltsu. Beste bat hamentxe Elusura bidian. Oin be izena horrek Igeltsola edo dauka; ba etxiak izena, bai.

-Orduan prozesua ze zan karobixan moduan karia etaratzeko...

-Sistema bardiña. Bata zan Elgarresta, Emeterio Elgarresta, eta bestia Inazio Goenaga. Igeltsuak. Eta beste hau zan Atorrasagasti, baiña izena... Matias zan azkenengua, Matias. Baiña basarrikua zela zan... Matias. Atorrasagasti. Hiru egon zien. Eta horrek bi Emeterio Elgarresta eta Ignacio Goenaga, horrek jabiak.

-Orduan gaiñera lan asko eukiko zebeu, ez?

-Bai, eren kamioia-ta zeuken repartuak eta eitteko, kamioian joaten zien horrek Eibarrera-ta, Mondrauera-ta, bai. Lan asko eitten zebeu, eta eukiko zebeu, bost edo sei langille be eukiko zittuen.

10.21. Bizikleta oparitu ziotenean egindako bueltak

- **Hizlaria(k):** Garitano Elkoroiribe, Maritxu

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aginagalde, Maite
- **Erref**: BER-230/007
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:06:13. **Bukatu**: 00:08:11
- **Transkribatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- **Laburpena**: Bizikleta oparitu zioten. Urrutitik legamia ekartzea ahaztu, eta bueltan joan behar bizikletarekin. Enkargu asko egin zituen bizikletarekin. Bizikleta nola zaintzen zuen azaltzen du.

Transkripzioa

-Gero beste bat zonan, bueno, horrek danok baiño lehenao bizikletan. Bizikletia neri erregalau jostenen. Nere modukoik ezta ezta Euskal Herrixan ezeze Espaiña guztian be nire modukoik! Ni be banintzontan ba, lebaduria bihar izeten jonan amak labesua eitteko ta. "Ekarri lebaduria" ta. Lebaduratara ba San Antoniora jun bihar, honutzauan ez zonan egoten eta. Zer eta ahaztu. Ahaztu ez, laga. Jun etxera eta "lebaduria ahaztu jata, ama". "Baiña lebaduria, azkarrixa ein biha neban-da, biha neban labesua eitteko". "Segiduan ekarrikot". Neu nintzontan, liberdi enintzontan, e; flakiao ta, hartu bizikletia ta goittik behera. Pixu gehixao bizikletiak neuk baiño. Eta haura hartu Gaittaon eta ni bajatzen nintzontan ba goittik behera jota aide! (...) behera, batian bixkarrien eta bestian zerien. Eta bajau eta San Antonion lebaduria eta Barrutiraiño.

-Nun dao Barruti?

-Barruti? Han San Juanerako galeperren zera badao ba, ba haura baiño lehentxua. Lehenaoko irin-fabrikia edo eztakin nun daon? Dimasen-da zera, haretxen segidan. Da pentsain, zeretik San Antoniotik bizikletan haraiñotxe. Eta ni etorritta najan Mekolalde ondoraiño. Eta iturrixan ura eran da etxera eguardixan, eta ama azkarrixai begira. Da baiña aidian eiñ, e! Nik bizikletan zenbat erreka! Ene! Denporia neban, aittak "oin siesta puxkat eiñ, bazkalostien puxkat etzantxo bat, etzantxo bat!! Haura ezkututzen zanian bizikleta garbitzen, trapu danak bizikletan. Eneee!

10.22. Osintxuko eraikinen izenak

- **Hizlaria(k)**: Arando Zangitu, Jose Mari; Zenitagoia Berriozabal, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-231/013
- **Iraupena**: 0:05:03. **Hasi**: 00:51:40. **Bukatu**: 00:56:43
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Osintxuko erdiguneko (kaleko) eraikinen izenak.

Transkripzioa

- Honek, honek...

- Urzelaiko etxiak...

- Urzelaiko etxiak [ipini...], Urzelai kalea [ipini...], notia hola ipintzen jok, behintzat, Urzelaiko etxiak.

- Casas Urzelai.

- [...] Ipintzen ez dabenian [...] izenik horixe [...], Urzelaiko etxiak.

- Ta honek, hurrengo taillar hori ze da?

- Hori Abraiñen taillarra. Abraiñena hori. Hori Abraiñen taillarra. [Horrek zerera] jun ta oin be ez hori [...]. Horrek... Abraiñen taillarra beti. Hori ipini juan Abraiñen zeria lehen ta gero taillarra ipini juan ta... Abraiñena, behintzat, hori.

- Elizia elizia?

- Bai.

- Parrokixia...

- Horrek ez dauka...

- [...] Parrokixia.

- Parrokixia?

- Ez, ez, elizia.

- Gero haruzko etxerarte illara hortan ez dao beste... hola izen partikularrik ala?

- Hor... danak etxe barrixak dittuk. Hor bestiek alkilerrien bizi dienak, baiña horrek etxiek iñok izenik...

- [...] ez juat sekula entzun [...]

- Ez.

- Hamen...

- Hamen Tejerokua egongo da hor.

- Hau da Tejerokua ta horrek be lehen [... eukitzen zanian] ta notia izen dok beti, ba, [...notia...], [????n etxia], bestia bestiena ta hori. Ostian... etxe berrixa han goikua. Ta Arotzanekea zuan lehen.

- Oin be bai, Arotzaenea oin be.

- Arotzanea. Haura da azkena, eskumatik azkena.

- Etxeberriko etxiak be Etxeberriko etxia, ez?

- Guk beti Etxeberri [...].

- Ta horrek hor daren taillar horrek eta, horrek hola... eren izeneandik aparte, beste...?

- Horrek zera... lehenao zera jauan, taillarra, hori... Artetxena, Artetxen taillarra, behintzat, euan hori. Artetxen taillarra, [...] danak Artetxenak zittuan.

- Frontoia [...] horrek barruan sartu bihar dittuu?

- Frontoia, dana. Hortxe einda jarek. Artetxen taillarra. Hortxe sarrerara bittarteko danak oin eitten dabizen etxera bittarteko danak Artetxen terrenuak zittuan.

- Etxezaharra nun?

- Bota juen, oin barrixa eitten jabizik eta...

- Hau?

- [...] barrixa eitten daren lekuan.

- Hor Etxezaharra zuan, Etxezaharrekea.

- Zubixak badauka izenik?

- Ez. [...] Osintxuko zubixa euki leike.

- Osintxuko zubixa?

- Ez juau beste zeri esan, ta... Osintxuko zubixa beti. [...]. Gero aurreko terrenua estaziñua... Haura be kendu zuan ta kitto.

- [...]

- Baiña hor [San Blasen?] txaletak izenik badauka?

- Txaletak Estaziñua. Ta gero haura zaharra dok Kasetia, Kasetia, oin estaziñuan kontran dauan etxiek...

- [...].

- Ferrokarrillan kasetak. Kasetia. Basarrixorri Kasetia. Estaziñuan kasetia lehen egon zana izengo dok. Lehen esatziñuan egon zuan kasetia hari Kasetatxua esaten dotsau, beti egondakua, Kasetatxua. [...] Ta beste

aurrerao kontrako etxia, ba, Kasetia. Hari beti Kasetako... Kasetako fulana, ba, beti Kasetakua.

- [...] bizi izaten.

- Bai, bai, hari Kasetia esaten jakuan. [San Blasen] etxia hori zuan lehelengua, Kasetia [...]. Oin [San Blasen] etxe barritik, ba...

- [...]

- [...] jausitta daok. Osea, botata daok hori.

- Estaziñuan egon zuan kasetatxua orduan; [...] itten] zuan. Oin, gero... oin ez jaok, botata dao ta.

- Oin ez dao, oin kasetia dao bakarrik...

10.23. Osintxuko baserrien izenak; Kaparra auzunea

- **Hizlaria(k):** Arando Zangitu, Jose Mari; Zenitagoia Berriozabal, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-231/015
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:57:46. **Bukatu:** 00:59:00
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena:** Osintxuko Kaparra eta Iraban auzuneak eta hauek hartzen duten eremua. Inguruko baserrien izenak.

Transkripzioa

- Zu, ta Kaparra nun da?

- Kaparra hau dok, Urzelai, Izarre, Galarra... hori Kaparra baillia dok hori. Ze...?

- Untzeta...

- Hori Kaparra baillia.

- Kaparra baillia?

- Ba, Kaparra baillaria. Ba, Kaparra. Bestia Iraban [...ko dok], Iraban baillia, ba, hori Kaparra baillia.

- Azkenengo basarrixa zein da, Bitxurtu? Ala ez?

- Bai, zea, [...] kontran dauana... Ziardi. Ziardei Bitxurtu baiño aurreratxua. Hor markauko dau basarrixa, oin be han daok eta. Haura punta bat eta beste [...].

- Ta Kaparra zer da Ziardeittik...?

- Ziardei ta Untzeta [...] dok hori. Hau baillara dana.

- [Muguneraiñok??]?

- Bai.

- Bale, bale.

- Hori, Galarra, Izarre, Gerondo... Kamiñoz bestaldia, hori dok Kaparra.

- Oxanguren ez?

- Oxanguren Basalgo [...], Oxangurenerarte. Ziardeittik Mugarrira, kamiñuaz bestaldia dana Kaparra dok, Kaparra baillia.

10.24. Basalgo auzoko baserrien izenak

- **Hizlaria(k):** Altube Allbisua, Jesus Mari; Aristimuño Kortabarria, Juan; Urrutia Makazaga, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-232/002
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:02:35. **Bukatu:** 00:07:37
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Basalgo auzoko baserrien izenak eta kokapena.

Transkripzioa

- Basalgo bertakuak bai?
- Guk Basalgo bertakuak be bajakixau danak.
- Aber, ermittiak ze izen dauka?
- Santiago. A, bai, hau ya dok...
- [...]
- Gero [honek] Lesarri behekoa [baldin bajauan], Lesarri aurtengua ta Lesarri goikua hor egongo dittuk nunbaitten.
- A, bai horrek be ez juau hartu. Aber, Lesarri...
- [...] Lesarri bolua [kamiño...]
- Ermittiak ze izen esan dozue?
- Santiago.
- Lesarri behekoa, hurrengo Lesarri aurtengua...
- Aurtengua...
- Ta Lesarri goikua.
- Hor beste bat, etxe zahar bat [...] bota...
- Baiña kamiñuaz azpittik jaok Lesarri bolua. Hemen kamiñuan azpittik.
- A! Erreka onduan daona?
- Bai.
- Lau, Bolua.
- Hor beste bat behia jota jaok aspaldixan, Iribeetxeberri edo, oin desaparexiduta dao haura.
- Gutxi gorabehera nun zeuan?
- Hori Lesarritik Egurenera bittartian.
- Bai, hortxe Belastei boluan parian gaiñien. Baiña hori ez daola zenbat urte?
- Belastei bolun parian?
- Parian. Basalgo aldera, Basalgo aldera. [...] ezkerrera.
- [...]
- Basarrixa zuan hori.
- Bai, bai, nik ezautu najuan haura...
- Ondiokan pistarik geratzen da?
- Ez, pistarik ez jak. Pistia lurrezkua.
- Basua [...].
- Egurra etaratzeko pistia bakarrik, e?
- Bestela pistarik [...].
- Nun hartzen zan? Zeatik hamen Belastegi bolutik...?
- Bai, goratxuaotik.
- Pixkat goratxuaotik.
- Egixa pare inguruan.
- Egixa pare inguruan, ezkerretara?

- [...]

- [...] Basalgo aldera.

- Santiago aldera.

- Pistia bukatzen dan tokixan egongo zan ala...?

- Bai.

- Bukatzen dok pistia? Handik aurrera ez joiak iñora pistarik.

- Motza da pistia, ez?

- Bai.

- [...]

- Berrehun metro?

- Berrehun, hirurehun... ba! Hirurehun be bai. Buelta ta abar ta...

- [...]

- Ze izen zeukan honek?

- Iretxeberri.

- Iribe etxeberri. Iribe gero agertuko dok Basalgon..

- Bueno, basarrixak danak esan dittuu?

- Bai.

- E? Ez, ez, ez, hemen, e?

- Lesarri goikua hartu dok, eztok?

- Bai. Bueno, gero han auzoko bertakuekin...

- Nahi dozue segidu hemen edo...?

- Bai, bai, bai, bai. Bueno, ermittia esan dou...

- Bai, Santiago.

- Gehixao ze daukau han?

- Han aurrekaldien bertan, ba, Iribe.

- Iribe [...].

- [...] etxia.

- [...].

- Horreatik zan bestia Iribe etxeberri?

- Bai, bai.

- Eskumetaa, bueno, Iribe jaraittuta...?

- Lonbide ezkerrera [antzera].

- Ezkerrera, Lonbide. Ta eskumatara?

- Parien Iñarre ta Iñarre etxeberri.

- Iñarre, Iñarre goikua ta Iñarre etxeberri. Hiru [...].

- Hiru dia?

- Bai.

- Teillatu berdiñan azpitan dare?

- Ez. Teillatu berien Behekua ta Goikua.

- Behekua ta Goikua. Ta Iñarra Etxeberri aparte zuan.

- Kontran, e? Baiña aparte.

- Pistia bittarte dala.

- Bai. Ta beste bat beheratxua...?

- Bai, Gibelondo edo Gilondo...

- Gibondo edo...

- Gilondo, Gibelondo...

- [...]

- Gibelondo edo...?

- Gibelondo uste dot dala.

- Gibelondo? Zeuek esan...

- Esan, guk esan Gilondo beti.

- [Gibelondo] beti...

- [...]

- Gero handik gora segi pistia ezkerretara ta Aangurentxo goiko.

- A! Bai, hori ez jaku agertzen hemen, baiña bai, badakiu nun daon.

- Ta gero elizatik hona, Bergara aldera, azpikaldetik Mostei. Monasterio

bide edo [...].

- Ta han be etxe zaharra daok lehen izendakua jausitta Ka(m)inburu.

- Elizatik hara bidien dao...

- Bi be bai. Santio txikixa be haintxe jak. Nik ezautu naban...

- [...]

- Ka(m)inburu bai.

- A, bai, e?

- Kaminburu oindiok be hantxe egongo dok etxia.

- Pareta zaharrak egongo dittuk ondio.

- Mostei eta ermittia bittartian?

- Bai.

- Ta beste bat zan Santiago txikixa lehen, haura frontoia dauen tokixen.

- [...]

- Frontoia daon tokixan esan dozue Santiago txikixa?

- Frontoia... Hik esan dok? Bai, [ondo ezautu hik] haura.

- Frontoian parien, behian [...]. Kamiñuan kontra-kontran. Frontoia, bai, frontoien zatixa hartzen zeban harek.

- A bai? Bale, bale, bale, fenomeno. Bueno, basarririk badao alde honetan?

- Ez.

- Honek beste... San Anton auzokuak dittuk hortik behera, Munabe, [...], honek.

-A, bai? Horrek...

- Horrek [Arimendittik]...

- Iñarre zela esan dozue? Iñarri teillatupe baten daola esan dozue?

- Iñarre goikua ta behekua.

- Goikua ta Behekua teillatupe baten?

- Bai.

-Iñarre etxeberri aparte, pistia bittartian dabela.

- Iñarre etxeberri luzeka bat da, ez? Luzeka bat, ez?

- Ez hain luzia...

- Ez.

10.25. Basalgo auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Altube Allbisua, Jesus Mari; Aristimuño Kortabarría, Juan; Urrutia Makazaga, Benigno
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Jauregi, Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-232/003
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:07:37. **Bukatu**: 00:12:39
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Basalgo auzoko baserrien izenak eta toponimia.

Transkripzioa

- Oin errekatxuekin hasiko gara ala?

- Ta gero aparteko izenik badao hor zihar...

- Bueno, esan dou hau Belastegi errekoa...

- Belastei errekoa, bai.

- Honen adarrak-eta badauke izenik?

- [...]

- Horrek Egurengo errekia, Olazabalgo errekia, Gallasteiko errekia...
- Olazabalgo errekia... Moskazulo da hori.
- Moskazulo? Moskazulo?
- Aber, aber... Zein da? Zein da hori?
- Hori Olazabal aldera doiana, Olazabal ta Gallastei bittartera [...].
- Bai, bai, bai.
- Moskazulo?
- [...] beti Moskazulo [...].
- Moskazulo, baiña zuk beste izen bat esan dozu...
- Egurengo errekia.
- Haura beste bat dok.
- Ezkerrerao.
- A! A! Ezkerrerao?
- Bai.
- Ta horren... hor, kruzia, horrek [arranok?] hasten diana, hori da Kaparratei.
- Kaparratei, bai.
- Kaparrategi edo...
- Baiña hori da tokixa...?
- Bai, beheko barrena.
- Pistian [...] inguru haura, ba, horrek [arranok??] hasten dian lekua.
- Oin esan dou Mokokzulo edo...
- Moskazulo.
- Moskazulo.
- Olazabal ta Gallastein bittartian.
- Gallastegi eta Amutxastegi bittartian beste bi adartxo dare. Haren izenik bai?
- Ez, hola, izen partikularrik horrenik sekula ez dot entzun, Amusteiko errekia o Egurengo errekia o hola.
- Eta Amutxastei ta Basalgo bittartian doian errekatxua?
- Amustei ta Basalgo bittartian? Egurendik Basalgora bittartian izengo da...

- Ez, [Egietxebarriko]...
- E?
- Amutxastei ta Basalgo bittartian...
- [...] Egurendik Basalgora [...]. Haren guena, hasieria, Lapikobaso itturrixan izena.
- [Egurenen]?
- Itturrixana Lapikobaso [...] itturrixa. Ta Eguren... horrek istorixia [demasa dauka]. Basalgorako kanala-ta dana nik ezautu [nittun...] ya lehenao be bai ta gero... ta gero desaparezidu ein jaten ta ur bae geratu [...].
- Ta nun [...] ba?
- Lapikobason.
- [...]
- Oin bota daben leku hartan?
- Haura ez dok Lapikobaso.
- Lapikobaso honutzao [...] Eguren alderao.
- Eguren aldea.
- Bastante.
- Lapikobaso dok...
- Haura dok Ondarraztei.
- Ondarraztei gaiñian Lapikobaso.
- E?
- Baiña han hartu juen ura [ebaitz]... Lapikobason hartu ta gero...
- Bai, baiña Ondarrazteittik pasau [ingo...].
- [...]

- Bueno, Eguren ez da agertzen mapetan. Aber, orduan, zuek esan bihar dostazue nun ipini.

- Rarua ez agertzia bi bizitzako etxia...

- Oin bastante aspaldi iñor bizi ez dana edo...

- [...]

- Hori... Nun dao hori?

- Amutxasteittik Basalgora bittartian.

- Bai, bastante behien, karreteratik beittu ta behera. Gallasteitorreko karreteratik beheratxuao.

- Amutxastei zaharran alturia baiño be bajuao.

- Bai, zeoze beheratxuao, alturaz beherao.

- Amutxastei zaharra agertzen da, ezta?

- Amutxastei... Daukuu Gallastegi torre.

- Bai.

- Gutxigorabehera altura berdiñian beste... Amutxastegi bat.

- Bai, bai, Berrixa.

- Bai, bai. Zeoze bajutxuao...

- Hau da Berrixa?

- Bai.

- Gero Zaharra...

- Zaharra beherao.

- A!...

- Horren pare inguruan [...]

- Erreka horren bestekaldian.

- ... zeoze beheratxuao.

- A! Gontzarri goikua.
- Ta bestia?
- Gontzarri behekoa.
- Hor lehen besten bat edo ez zeuan? Beste etxen bat edo?
- Ez. "Entre dos Gontzarris" ez. Hor bixen bittartien dao ermittia, San Migel. Bueno, bixen bittartien ez, Gontzarri goikua baiño... entre Zulueta y lehelengoko Gontzarri dao ermittia.
- Bai. Zela deitzen dotsazu ermitta horri?
- San Migel, San Migelko ermittia.
- Benitan basarrixa?
- Lasarte.
- Gero tabernia dauanari zelan deitzen dotsazue?
- Kanpazar.
- Beste gauza bat: hor, Kanpazar eta Lasarte bittartian bazeuen etxe bat oin jausitta dauena...
- Nun, behien? [Beheko zuluari?]
- Behekaldian, bai. [Ez dakit], igual [Mondraue] izengo da... Zela dauka izena horrek?
- Zelaitxo. Mondraue da hori [dana...].
- Zelaitxo? Ta aber gutxi gorabehera situatzen doun hori...
- Ba, hori, "entre Gongeta" eta Kanpazar bittartian dao, zulo zulo-zuluari. Salabarri [Salatik atzeratxua] ta hori goratxua pittin bat, mas hacia Lasarte aldera.
- Salaberri baiño goratxua?
- Bai.
- Lasarte aldera? Hor Salaberri baiño pixkat behearotik errekatxo bat doia Lasartera.
- Bai, bai.
- Hor errekatxua daon parian egongo da?
- Errekatxua baiño eskubi alderao egongo da.
- Lasartera begira jarritta eskumatara?
- Bai.
- Ta Salaberri baiño gorao?
- Bai. Gongeta alderutzao.
- [Gongeta]?
- Orduan, Gongeta ta Lasarte bittartian gutxi gorabehera...
- Gongetatik aurrera, e! Gongetatik Lasartera [bidien].
- Beste etxe bat be esan dostazu, ba, hor zeuela...
- Zera, Mikelete etxia. Zelaitxo pare inguruen-edo, poco mas o menos hor zan, ezkerretara aldetik, kamin-kontran dao.
- Oin badao?
- Bai. Oin be bai, paretak-eta han dare. Kanpazarretik mugia, Bizkaixa ta Gipuzkua partitzen dien mugatik ehun bat metro... Ba! Hortxe dao kamiño eskiñan. Mikelete etxia.
- Salaberri parian dao?
- Goratxua.
- Goratxua?
- Gorao, Kanpazarrerutzao, a mano izquierda.
- Ta gutxi gorabehera Kanpazar altueran edo...?
- Ez, badakizu nun daon mugia Kanpazar baiño behearatzua?
- Bai.

- Handik, ba, beste berrogei... [ehun] bat metro edo behera ondiokan, Mondrau alderau. Ezkerreko aldetik goitik behera goiezela, ta gorutz gatzela eskumatik.

10.42. Angiozar auzoko toponimia Kanpazar inguruan

- **Hizlaria(k):** Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-233/003
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:10:04. **Bukatu:** 00:15:06
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Kanpazar inguruko toponimia. Paiorriko zelaian dagoen iturri bat non dagoen zehazten dute. Inguruko erreka, tontorrak eta zelaien izenak.

Transkripzioa

- Sorgiñerreka edo Altunerreka.
- [...]
- A! Paiorriko erreka... Paiorriko itturrixa be bai [...].
- Ta itturrixa...?
- Itturrixa be bai, badao, Paiorriko zelaixen dao itturrixa.
- Aber, aber, aber...
- Aber, hemeretzi da Sorgiñerreka, Altunerreka edo Paiorriko erreka.
- Bai. Itturri hori nun dao?
- Iturri hori dao Paiorritik pixkat bat Altuna aldera, baiña gertuan Paiorritik, e?
- Errekatxua jaiotzen dan inguruan edo hor?
- Bueno...
- Hau da Paiorri ta hau Altuna, ta errekatxua hemendik doia gutxi gorabehera.
-Klaro, berak itturrixak [emun] haundixa dauka eta, orduan, goitik behera doia errekatxua "al Sorgiñerreka", berak botatzen daben ura.
- Bai, bai.
- Ta bestia ze zelaixen esan dozu dauela hori?
- Hori... Itturrixa? Paiorriko zelaixen.
- Ta zelaixen hori zein da?
- Izena ez dakit. Parien baiñe frentian ez dao, e? Hola, pittin bat Gontzarri aldera dao zelaixen hori.
- Orduan, Paiorritik, hola, gorutz pixka bat?
- Bai, eskumarutz, [...] parian...
- Ta gorutz?
- Bai.
- Hau da Gontzarri eta hau Paiorri.
- Paiorri hori?
- Hau Paiorri eta hau Gontzarri, ta hau Altuna.
- Ba... "por aqui" edo, [...] Gontzarri aldera, baiña etxetik gertuen, e!
Etxetik gertuen.
- Hor Sorgiñerrekian... bueno, hori ya Mondraue da. Bestekaldetik... Bestekaldetik datozen errekatxuak, horrei izenik emoten dotsazue edo...?
- Mondrau aldetik?

- Ez, mendixan bestekaldetik.
 - Ze mendi?
 - Epela errekiari bestekaldetik.
 - Mondratxara aldetik?
 - [Ez dakit]. Udalaitez aldetik, Udalaitez baiño ezkerrearaotik. Altunatik begira jarritta...
 - Mondratxararik zuk esaten dozu.
 - Ez dakit hori izango dan...
 - Mondratxararik goitik behera, ba, bai, bat edo bi-edo errekatxo badare, baiña... Ni idea. Ez, erreka haundirik ez dao, e! Pare bat errekatxo txiki...
 - Bueno. Aber tontorrei oin izena jartzen dotseun. Hemen dao bat markauterian, Gontzarri goikuan parian. Hau da Gontzarri goikua...
 - Bai.
 - Hor gottik behera bat, nahiko... laua be ez, baiña...
 - Ba, horrek pareko horrek... Ez dakit hori ez da ondiokan Azalketa, porke Azalketa izengo litzake holako bat hortik gorao. Ba, horrek ez dakit ze izen eukiko daben Gontzarri pareko horrek.
 - Lasarte baiño gorao dauanak?
 - [Badakit] zein dan, baiña izenik [ez dakit horrenik].
 - Hango parajiei-edo izenik bai? Emoten? Hor Lasarte gaiñien edo? Han, hola, lautadaxo bat be badao gaiñian.
 - Bai, badakit dotoria daona, baiña ez... Hori Lasartekuak [erak akaso...].
 - Lasartegaiña edo holakon bat ez?
 - Baleike... baiña nik ez dakit horren izenik.
 - San Migeldik gora dauan gaiñak harek be ez, ez? Bueno... Altuna inguruko zelaixak-eta izenik-eta bai edo?
 - Bai! [...] mordo bat. Zelaixak lehelengo?
 - Bai, zelaixak edo... bueno, akordatzen zarana zeu.
 - Bueno, hor mendixetan Azalketa jarri leike...
 - Mendixetan ez! Zelaixak!
 - Bai, entzun dot, baiña hor lehen altuak batzen...
 - Itxoin. Altunatik... Eske hori beste mapa baten hartu bihar dittuu ta gero hartuko dou.
 - A! Ya, ya, ya.
 - Altunatik Zuloeta aldera...
 - Zuloeta alderuzko zelaixak.
 - Zelaixak edo soluak edo inguruak edo basuak edo...
 - Bale. Altunatik Zuloeta aldera darenak, zelai bat Esparrulaua.

10.43. Angiozar auzoko Goimendi auzuneko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/004
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:15:06. **Bukatu**: 00:20:08
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia Kanpazar inguruan eta Arrasateko mugan. Iturrien izenak.

Transkripzioa

- Bale. Altunatik Zuloeta aldera darenak, zelai bat Esparrulaua.
- Hori zein izango litzake?
- Hori? [...] situau...
- Altunan parian dao edo?
- Ez, holan, Altunatik...
- Hau Altuna da.
- Holan... "ra!" bidetxo bat eta holaxe.
- Paiorrirutz?
- Bai. Baiña lehenao askoz be, lehenao!
- Etxeostian dauen...
- Etxeostien dauen lautada bat da!
- A! Lauen da?
- Bai.
- Horri jarraituz?
- Horri jarraituz, aurrerao, holan zulo-unatxo bat esaten dotsauna Okaansaastixa.
- Errekatxuan inguruan?
- Ez, errekatxua dao iturrixa [...] be hortxe dao...
- Errekatxora allegau baiño lehenao?
- Ez, pasauta. Baiña hor lehenao daukazu iturrixa be hor zulo-unatxuen eta hori be, hortik iturri ondolik harutzatxua arro hori...
- Paiorrirutz?
- Bai.
- Horrek ze izen?
- Okaansaastixa.
- Haundixa da edo...?
- Bai, baso zati dexentia.
- Iturrixa Paiorri bittarte hortan gutxi gorabehera?
- Bai, bai, Paiorri baiño lehenao iturrixa.
- Iturri horri ze izen emoten jatzue?
- Iturrixa, beste izenik ez [...], Metaliturrixa.
- Lehen ez jonau jarri hori?
- Berdiña da? Aber, berdiña da Paiorriko iturrixa ta Metaliturrixa?
- Ez, ez, ez, ez! Paiorriko iturrixa ez da Metaliturrixa, "es otro tipo de agua". Paiorriko iturrixa da ur abundantia eta, zera, metala ez daukana.
- Eta Okaansaastixa ze dau Metaliturritik?
- Metaliturritik pixka bat gorutzao, baiña Paiorri bidian.
- Bale, bale.
- Gero hor, badao hor beste bason bat hor... iturri inguruan.
- Bai.
- Ta horri zela esaten dotsazue?
- Iturrondua.
- Errekatxotik Altunarutz, ez?
- Bai.
- Iturrixa baiño beherao, edo...?
- Ez, gorao.
- Ingurua?
- Gorao ta [...] ingurua, dana. Iturrondua. Gero, alde hortara sartzen jako baita be Askarrondua, pixkat "hacia el iturri".
- Metaliturri?
- Bai. Eta "ahí también entra en el río ese el"... zera...
- Aber, polikixao, polikixao.
- ... Askarrondoko zubixa.
- Askarrondua, aber, ipintzen doun hori mapan.

- [...]. Itturrondua?
 - Itturrondua.
 - Itturrondotik gorutz edo zela deitzen dia horrek?
 - Okaansastixa [hor]. Ta Askarrondua Itturrondotik beherutz.
 - Beherutz?
 - Bai.
 - Epela errekarutz?
 - Bai, Epelerutz. Itturrondotik ezkerretara goittik beherutz.
 - Eta Epele zeri deitzen dotsazue?
 - Epele... buu... askoz beherao, e!
 - Errekia doian...?
 - Errekia goittik behera eta beheko lautadia da Epele. Hori, errota ta horrek danak pasau gottik behera...
 - Baiña sail haundixa da, ez?
 - Bai, bai, Epele haundixa da.
 - Gongeta parian hasitta edo hola, edo beherao?
 - Ez, beheratxuaotik hasitta, baiña Epele oso haundixa da, zona haundixa.
 - Bueno, aber. Gero, hor, Askarrondoko basuan, bertan, esan dozu zubi bat edo zeuela.
 - Bai.
 - Horrek ze izen dauka?
 - [Beti egon da], Askarrondoko zubixa.
 - Sorgiñerrekatzuan dao zubi hori?
 - Sorgiñerreka hortan, bai.

10.44. Angiozar auzoko Goimendi auzuneko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/005
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:20:08. **Bukatu**: 00:25:10
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia Arrasateko mugan. Altuna baserriaren inguruko toponimia.

Transkripzioa

- Okaansaastittik beherutz edo, beste zelairik edo basoik edo?
 - Ez, ez, beherutz ezebez.
 - Bueno, Paiorri inguruan edo?
 - Ez, gureik ez dao han. Gero hortik gorutz, ba, Etxaburu, Txabolapeiak. Gorutz, e! Okaansastittik gorutz.
 - Gontzarri behekorutz?
 - Bai.
 - Zela esan dozu?
 - Ba, Etxaburua edo Txabolapeia.
 - Hori nun egongo litzake?
 - Ba, Altunen pare-parian. Pare-parian ta pittin bat Gontzarrirutz.
 - Ta ze da sail haundixa edo...?
 - Bai, bai, sail haundixa.
 - Ta basua?

- Bai, dana basua.
 - Ta Txabolapetik Gontzarrirutz edo?
 - Ez...
 - Zelaixak-eta izenik bai?
 - Ez, ez, zelairik... Oin [... zelaixak...], lehen ez zauen zelairik.
 - Txaboliak izenik bai?
 - Etxaburuko txabolia, "lo único".
 - Hor Gontzarri inguruko horko gaiñeko hari lautadatxo hari izenik bai edo?
 - Ez... Guria, ba, Txabolia ta Txabolondua, lehenau pagadi bat zana.
 - Txabolondua [...]?
 - [Bai, uste dot baietz].
 - Txabolondua ze da, basua be bai?
 - Basua, basua.
 - Ta Txabolapia ta Txabolondua baso berdiña da edo...?
 - Ez. Txabolondua zan lautada bat ta Txabolapia, ba, goittik behera handik Altunerakua dana.
 - Han txabola inguruko lautadia da Txabolondua?
 - Bai, lehenau pagadixa zana.
 - Bale. Piorrittik Gontzarrira bittartian edo, hor ezer?
 - Ez...
 - Bale. Altunan azpizan?
 - Altunan azpizan...
 - Saillak edo izenik?
 - ... soluak Etxeazpixa...
 - Ortuei [ta horrei] deitzen dotsazue?
 - Ez, ortua aparte.
 - Ortua aparte?
 - Bai. Ortua ortua bakarrik. Bestiak Etxazpixa...
 - Ortutik behera?
 - Bai. Etxazpixa, Etxeostia...
 - Baiña horrek zer dia?
 - Soluak.
 - Bestia zein esan dozu?
 - Etxeostia.
 - Etxeostia zein da? Esparruko...
 - Bai, oin itxitta [dao ...].
 - Esparrukolaua baiño baserri alborao.
 - Etxazpittik beherutz edo? Han erreka aldera edo?
 - Etxazpittik beherutz daukau zelaixak, por ejemplo, lehen esan dou bakarrik Esparrulaua zelaixa. Etxazpittik behera soluan azpixen dao zelai bat esaten jakona Lugarrixa. Gero beste bat, hori pittin bat ezkerraldera ta beste bat eskubirauara, Bekozerraduria.
 - Bere parian ala beherao ondio?
 - Pixkat beherao, bide bat erdi eta beherao, eskubi aldera.
 - Ondio erreka joten ez...
 - Ez! Hortik erreka dao sail haundixa "como solobarrena..." [...]

10.45. Angiozar auzoko Altuna baserriaren inguruko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/006
- **Iraupena**: 0:05:58. **Hasi**: 00:25:10. **Bukatu**: 00:31:08

- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) Altuna baserriaren inguruko toponimia.

Transkripzioa

- Ez! Hortik erre kara dao sail haundixa “como solobarrena...” [...] sin nombre. Unikamente horko izena da, hori, Luanburua, porke guk hor mendixen barren hortan daukau hormia, [barren] bezela. Baiña sail haundixen! Hormia ya apurtuta dao, baiña... Handik goruzkua Luanburua ta handik beheruzkua, ba Epele.
- Ta Luanburua hori zer da, basua?
- Bai, bai. Luanburua esaten jako, ba, hortik, hormatik, goruzko saillai.
- Luarrixa baiño beherao?
- Beherao dao, bai.
- Bai. Luarrixa ta Epele bittartia edo hola gutxi gorabehera?
- Errekara bittarte hori dana...
- Eta hor etxe ondoko solo horrek kenduta, beherao dauena zela da?
- Ba, [mendixa] dao. Hori, Bekozerraduria be dao etxian paria baiño pittin bat ezkerrera alderao. Eta soluan barrenetatik hasta beheko errekararte... basua. [...]. Solobarrena.
- Solobarrena ze izango litzake?
- Ba, Luarri ta Bekozerraduriatik behera, Epele aldera. Solobarrena, “pues, hasta Luanburu o algo así”.
- Basua?
- Basua, basua.
- Beste bat be badao, ba, hor, hor inguruan. Bueno, aber, esan berriz etxe ondokuak.
- Etxe ondokuak?
- Bai. Ostian ta azpixon ta...
- Bueno, azpixon horrek, [nere ustez]. Gero, etxe onduen ekitten da barriro Lezetako zelaixa.
- Zein da hori?
- Etxetik eskumatara aldera, Lope aldera.
- Itxoin, e, hor beste mapan hartuko dou. Etxe aurreko zelaixa baiño beherao?
- Etxetik Lope alderako zelaixa.
- Bueno, etxe parian daona, ez?
- Etxetik [...].
- [...]. Horri Lezetako zelai horri beste izen bat ez dotsazu ematen? Sakona edo?
- Gaztañisakona gero basua.
- [...]
- Beste gauza bat: [...] lehen, esan berriz etxe ondoko souak.
- Solotxikixa.
- Hori zein da?
- Solotxikixa da etxetik Zulotarutz solo txikitxo bat horma altu harekin ta... Zulotara.
- Pixkat beheratxuao etxia baiño?
- Ez, ez, “al par, al par”, “pla”. Piku haren goikaldetxotik... Oin sagarrak-eta badare, ba? Sagarrak, harek, haundixak?
- Bai, bai, bai.

- Haxe solotxua, Solotxikixa. Gero Etxeazpiko solua.
 - Eta?
 - Gero...
 - Ostian dauena?
 - Etxeostekua, solua. Ta gero da ya Lezeta zelaixa.
 - Beste bati, ez dakit, ez dotsazu esaten... lehen esan dozu, ba, Etxaburuko txabolía?
 - Bai.
 - Etxaburuko zelaixa edo...?
 - Etxaburuko zelaixa. Bai. Etxeostian zati bat zan labrautakua, barrenengo zatixa, eta handik gorutz Etxaburuko zelaixa. Antes... mendixa baiño, basua baiño lehen.
 - Bai.
 - Lau-lau...
 - [... barruan dauena?
 - Bai. Oin piñu dago lehengo horko zelaixan zatixa, baiña bueno. Lautadia labrauta eta beste zati bat zelaixa, Etxaburuko zelaixa.
 - Baiña oin ya piñudixa...

10.46. Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/007
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:31:08. **Bukatu**: 00:36:10
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia. Altuna baserriaren inguruko toponimia.

Transkripzioa

- Ze esaten gebizen? Lezeta zelaixa, Lezeta sakona.
 - Berdiñak die, ez?
 - Bai, bai. Gero, oin, mendira?
 - Ya helduko dotsau hor... [...] txabolatik, Lezeta zelaixa, hortik ya beste aldera.
 - Haruzko...
 - Bai.
 - Bai, Lope aldera.
 - Bai, beste mapia da, hogeta sei.
 - Hor dao hori goiko Lubarriko zelaixori.
 - [...].
 - Hor errekatxua behian dauena?
 - Errekatxua?
 - Bai. Altunatik...
 - Lope aldera?
 - Bai.
 - Andikoittturriko errekatxua. Ta hor errekatxua baiño ondiokan Altune alderao dao basua Gaztañisakona, holako harro... harro-unatxo bat. Errekatxua baiño lehenao.
 - Altunan parian edo gorutz edo...?

- Ez, ez, aurrera.

- Bai, bai, bai.

- Sakonera.

- Eta hori esan dozu dala basua? Gaztañisakona basua da, ezta?

- Bai, basua. Ta gero Gaztañisakonan parian goixan dago, goixan, goiko Lubarrixa zelai hori.

- Errekatxuan... Errekatxotik Altunarutz?

- Bai, Altuna alderao... Oin juaten gara, ba, pistia Altunara fateko? Kosteittik...

- Bai, bai.

- Pista haren pegante goittik behera, holako tontor-una bat bezela. Hori zan zelaixa: Goiko Lubarrixa. Ta hori dao Lezetasakonen pare inguruen, pittin bat aurreratxua. "Al par al par tampoco, un poquito hacia Lope". Gero hortik... hortik beste errekatxua...

- Errekatxuan bestekaldera?

- Bai, errekatxuan alde bixetara gutxi gorabehera [esaten jakon], baiña... Lezarrua.

- Hori ze da pixkat lauaua edo hola?

- Ez, ez, ez, zulora, zulora. Zulora [...] da. Ta errekatxuan zein alde bata, zein bestia Lezarrua danai esaten dotsau.

- Eta hori ze da, basua?

- Basua.

- Pistan batzuk be badoiaz erdittik, ez?

- Bai, bai, pistia doia hor erdi ingurutik edo goratxuaotik edo... Gero, hor beste zatixo bat egongo da Koostei deitzen dotsauna Loperako pistian gaiñekaldetxuan, holako zatitxo bat.

- Basua dana edo beste Koosteixa?

- Basua.

- Beste horren pegante?

- Kamiño... kamiñotik gaiñetik geratzen da pixkat.

- Zein kamiño?

- Oin kamiñua Loperako-ta eindda daonan gaiñekaldetxotik. Gaiñetik? Ez, ez, azpikaldetik.

- Azpittik, ez?

- Gure... Altunetik faten garan bidien [gaiñetxua] eta goiko kamiñuen azpitti, Kosteiko basua. Gero, hortik gorutzau segidu ta hor dao Karabittako gaiña edo Goiko gaiña.

- Karabittako gaiña?

- Bai, edo Mendi-gaiña.

- Beste izen bat be esan dozu...

- Goiko gaiña esaten gontsan. Gero, honutzatxua eukiko dozu...

- Tontor bat?

- Itturri txikixa.

- Hortik txabolara bittartian edo?

- Bai, txabolara baiño lehenao...

- Pista zahar batzuk edo dare hor...

- Bai, baiña hamen beherao eukiko dozu nunbaiten Itturri txikixa. Han...

- Koste basotik parian gorao?

- Ez, beherao ta Altunarau. Han, ez dakizu, guk etxeko zera badaukau, ba, hartuta... arketako urak? Arketa harek urtetzen dabe itturri hortatik. Bueno, parte itturritik da ta beste parte lurretik hartuta.

- Ta hau ze da itturrixa bakarrik?

- Bai, itturrixa ta inguruan daon basotxo bat. Itturritxikixa edo Itturritxiki ondua hari esaten [...].

10.47. Angiozar eta Elorregi auzoen muga inguruko toponimia

- **Hizlaria(k):** Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-233/008
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:36:10. **Bukatu:** 00:41:12
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia, batez ere Elorregi auzoaren muga inguruan. Lope baserriaren inguruko toponimia.

Transkripzioa

- Karabittako gaiñian, Angiozarrera begira jarritta, ezkerretara tontor bat dao.
- Bai, Azalketa mendixa, Azalketa guk esaten dotsau.
- Hor dana, ez? Tontor...
- Bai, tontor haura dana Azalketa.
- [Hola, bi] moduko tontortxo...
- [Bi moduko], bai; bata beheratxua, bestia goratxua.
- Bai, hori dana da?
- Dana. Horren ostetik Angiozar aldera daukau beste zatitxo bat...
- Itxoin, hor... beste mapia hartu biharra daukau. Gero eingo dou hori. Apuntau hor.
- [Illarramendi] esaten dozu?
- Illarradi esaten dana. Hori dao Azalketan ostekaldetik.
- Azpitan, bai.
- Bai, gero beste aldera pasatzen garanian...
- Bai, beste mapia hartu biharra daukau ta gero... Hor basarri... kotxia lagatzen dou pare hori, basarrixa?
- Basarrixa, ba, Peion etxiak ze izen eukiko daben.
- A, bueno, txaleta hori.
- Ba, horri Koosteiko laua esaten dotsau, Kosteiko laua.
- [...] .
- A! [Bera], ez? Txaleta dauen inguru hori?
- Bai, Kosteilaua hari esaten dotsau.
- Hango tontortxuak eta dana [hartuta...]?
- Bai, bai.
- Basarrixa behian dauena?
- Ba, Lope.
- Beste izenik edo?
- Lopegaiña...
- Lope baserrixandako.
- A! Lopaldoste.
- Lopetik behera doian errekatxuak izenik bai?
- Ez dakit. Badoia errekatxo bat, baiña ez dakit izenik.
- Bueno, han Karabittara jungo gara berriro.
- Bai. Gero Karabittatik harutz...
- Karabittatik oin gaseoduktua sartu daben paretik jarraituz...
- Harutz, ba, Lopegaiña. Gero harutzao...
- Lopegaiña zer da tontorra ya?
- Harutzao Irutontorreta. Lopegaiña guk horri danai esaten dotsau.

- Dana? Han pare bat tontor dare han.
 - Ez dakit. Nik...
 - Karabittan Angiozar aldera begira jarri, eskumatara, hola. Haura dana Lopegaiña?
 - Nik neuk dakittela...
 - Karabitta pegante?
 - Karabittatik segi!
 - Baiña pegante?
 - Bai, bai, bai. Guk Lope pareko hori altura-una horri guk Lopegaiña esaten dotsau [ta listo]. Ta gero aurrera, aurrera, aurrera, Irutontorreta.
 - Irutontorreta be danai, ez?
 - Bai, hari zona danai.
 - Tontor bakoitzai izenik-edo bai, emoten dotsazue?
 - Ez, ez. Nik ez, akaso [Lopek] jakingo dau [beste zeoze].
 - Irutontorreta azpixon han basarri bat dao ya San Prudentzio aldera.
 - A! Zigarrero.
 - Hola esaten dozu zuk?
 - Zigarrero esaten dotsau guk, Zigarrerokua.

10.48. Angiozar eta Elorregi auzoen muga inguruko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/009
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:41:12. **Bukatu**: 00:46:14
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia, batez ere Elorregi auzoaren muga inguruan. Altuna eta Lope baserrien inguruko toponimia.

Transkripzioa

- Hori esan dou han dauen errekatxuan gora begira...
 - Errekatxotik Altunara aldera dago Gaztañisakona.
 - [...] bestian daona, hogeta bostian.
 - Askarrondo.
 - Askarrondo han...
 - Hori total bestekaldia da, e! Askarrondua da Sorgiñerrekatik Altune aldera...
 - Bai, bai, bai, bai.
 - Ha behia.
 - Hori zeuan errekatxotik Altuna aldera?
 - Gaztañisakona bai. Ta gero handik Itturrikoerreka. Ta gero "a continuación" dator hori Pagoerre basua.
 - Hogeta lau.
 - [...] Gaztañisakonon parian?
 - Ez, ez, aurrera, bastante aurrerao...
 - Lope aldera?
 - Lope... Lope baiño beherau, Lope baiño beherau dare horrek. Peion etxia-ta baiño be bastante beherao.
 - Han gutxi gorabehera zuzen beherutz?

- Goittik behera jua eta gero, holan, malda bat...
- Holan... bizkar inguru...?
- Bizkarra, bizkarra.
- Hori bizkarroi da?
- Bizkarra, bai.
- Pagorre da hori?
- Pagorre. Ta Pagorren... Pagorren parian, holan behian, hori...
- Beherau?
- ... hori Txiñabasuori.
- Hor Pagorren pistan batzuk-eta dare hor, ez?
- Bai, Pagorren pistia dao erdi-erdittik eta goruzko, Loperuzko, ta beherakua be hortittik dago...
- Bastante haundixa izango da Pagorre.
- Bai, zati ederra.
- Txiñabasua, hogeta bost.
- Hori beherao.
- Txiñabasua beherao, Pagorren parian behera.
- Errekarutz. Errekaraiñok [alleatzeke, baiña]...?
- Ez, ez, ez da errekaraiñok alleatzen.
- Han behian txabolan bat edo zeoze badao erreka onduan.
- Errekonduan Lopekua. Baiña, ez. Hara baiño lehen, horri esaten jardun jat, hor Txiñabaso inguruen, baiña "no estoy muy segura", hor bazan beste txabola zahar bat, baiña ya honezkero ez dau eukiko harririk be ta... Hor, hor Txiñabaso inguruen bazauen baitta metalitturri bat. [...], hor, hor, zingira hortan bazeuen metalitturrixa. Ta gero goittik behera juanda han dago hori Lopeko txaboliari, Epelen behian, Epelen behian, beheko lauen.
- Ta zela esaten dotsazu horri?
- Lopeko txabolia.
- Beste izenik?
- Epeleko txabolia... Epeleko txabolia, klaro.
- Eta beste txabola hori desagertutakua edo?
- Hori, uste dot, Paiorriko txabolia esaten jakola.
- Ta hori nun dao?
- Ba, hori, hor esan dozue, ba?
- Pagorre ta Txina...
- Pagorre ta Txiñabaso... hor... [arro kara] hortan.
- [...].
- Gero hor Lope aldi be beste...
- Bai, beste baso bat daukau, baiña oso [...]. Kortatxo. Kortatxo basua. Lopetik aurrera juanda, hola baso luze bat, holan...
- Lopetik norutz, baiña?
- Lopetik Ziarrero alderutz. Holan... "Un monte así que termina en una [y griega] o algo así debe ser".
- Txabolan bat edo badao han.
- Bai, txabolia dao han, Lopeko txabolia beste bat be. Txabola bat edo ez dakit bi, elkarren segidan.
- Ta hori da, orduan, zela esan dozu izena?
- Lopetik aurrera, Ziarrero aldera.
- Ez, baiña basuan izena.
- Kortatxoko basua.
- Haundixa da hori?
- Ez, haundixa ez, luzia goittik behera, kasik errekaraiño uste dot, hestu xamarra ta luzia.
- A! Goittik behera da luzia?
- Bai, goittik behera.

10.49. Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia

- **Hizlaria(k):** Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-233/010
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:46:14. **Bukatu:** 00:51:16
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia, batez ere Elorregi auzoaren muga inguruan.

Transkripzioa

- Gero hor, Altunen bertan, etxe onduan, aurrekaldian daukan, hola, lautadatxo horri zela esaten dotsazu?
- [Lautara].
- Eta han, zera, Epelera bidia hartzen danielan, han justo Montorra azpitan, hari?
- Karabizar, Karabixa. Karabixa.
- Eta han basuria botatzen dan tokixa? Montor...?
- Montorbarrena.
- Bueno. Hor Gontzarririk badauka, ba, pago batzuk han inguruan?
- A! Gontzarririko pagadixa. Goiko Gontzarrixan, e!
- Bai, bai, bai,
- Gontzarri goikuan.
- Gontzarririko pagadixa esan dozu, ezta? Bale. Errotian hori ze mapatan agertzen da? Hogeta bost edo hogeta sei?
- Zein da errota?
- Errota bat badao, ezta, hor erreka inguruan?
- Bai, bai, baiña...
- Aber, esplikaziozu honi nun daon errota hori.
- Hori dao Sorgiñerrekan goitik behera, Epele onduen.
- Aber, Sorgiñerreka... Sorgiñerreka zan Paiorrittik behera doiana, ez?
- Bai, goitik behera, goitik behera erreka onduen, Epelen, hantxe behian.
- Behian...
- Zulo-zuluen.
- Ta oin ya ez dao ala, errota hori?
- Bai, bai, badao.
- Ta hor mapan ez da agertzen markauta?
- Badao, bai.
- [Bale], markau. Errotia?
- Bai, bai.
- Han, lautxuan, han?
- Bai, bai.
- Errekatxuak errekiakin bat eitten daben inguruan?
- Bai, beheko lauan. Beran presiakin ta errota ondiokan han tente egongo da.
- [...]?
- Ta gero hor zuek badaukazue hor bason bat, hor errota inguruan edo...?
- Bai, Errotaondua esaten douna.
- [...] lautada inguru hori?
- Lautadatik honutz Errotaondua.
- Errotaondua? Eta Errotaondua ta —beste... entzunda daukat nik be—

Errotaburua, berdiñak die?

- Ez, ez, Errotaondua da errotia nola dauen lauen, ha ingurua; eta bestia, zela esan dostazu izena? Errota... Errotaondua eta Errotaburua handik gorutz. Eske horrek danak lehen sartu dittuu Solobarrenien, behintzet, [...] Solobarrena izenak: Errotaburua...

- Bai, eske hori, behekaldien euen pareje guztiori da Solobarrena...

- Bai, bai, baiña Solobarrenan barruen dare honek izenok. Barruen.

- [...].

- Hori dana da Solobarrena?

- Bai, ba. Bai, ba. Eta, orduan, ba, errotia...

- Aber, Solobarrena [...] Askarrondo eta... Gaztañari...

- Gaztañisakona bittarte hori dana.

- Dana da Solobarrena.

- Dana da Solobarrena.

- Aber. Ta, orduan, Askarrondo ipini dou hogeta sei eta Gaztañari hori ipini dou... Gaztañisakona dau beste mapan hemeretxizan. Bai? Ba, orduan, hori barren hori dana da Solobarrena.

- Bale, hau ipiniko jonau garbixan.

- Ta Solobarren barruan, ba, beste... punto batzuk.

- Beste horrek.

- Bai, bai, Errotaburua ta Askarrondua ta...

10.50. Angiozar eta Elorregi auzoen muga inguruko toponimia

- **Hizlaria(k):** Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-233/011
- **Iraupena:** 0:05:02. **Hasi:** 00:51:16. **Bukatu:** 00:56:18
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia, batez ere Elorregi auzoaren muga inguruan. Mendi-tontorren izenak; Munurtu tontorraren kokalekua.

Transkripzioa

- Lope aldian, Lope aldian, badao beste... beste... baso bat...

- Ipini dozue, zera, Irutontorreta?

- Bai.

- Munurtu beste bat.

- E?

- Munurtu.

- Nun dao Munurtu hori?

- Munurtu hori da entre Lope ta Irutontorreta, gaintxo hori edo. Eske Irutontorreta konponitzen da hiru menditxo edo... hortaiko bat ha izango da Munurtu. Entre Lope ta Irutontorreta dao.

- Tontortxon bat Lope ta Irutontorreta bittartian?

- Bittarte hori Munurtu.

- Baiña tontorra bakarrik da edo tontor ingurua?

- Hori ez dakit. Hori ya... Nik izena dakit bakarrik.

- Kortatxoko basuan gain haura gutxi gorabehera?

- Ez, ez, ez. Kortatxo dao Ziarrero alderao asko be nik esaten dotena baiño.

Hori egon bihar da Lope alderutzaio.

- Bale. Hauxe.

- Kortatxoko basua Lopeko errekatxuan hurrengo dao?

- E! errekatxua...

- Harutzao ondio?

- ... bastante urrin dao! Bai.

- Gero beste errekatxo bat dao ondio. Lopeko errekatxua beherutz...

- Bai. Eta beste bat?

- Beste errekatxo bat dao ondio.

- Eske Lopeko errekatxua [juango da bat] Lopeko itturritik, ez?

- Bai.

- Ondiokan harutzao beste bat?

- Bai, beste bat agertzen da. Dao Zigarrokua baiño beheratik beste bat.

- Ziarrrokua baiño Lope alderao?

- Bai, hor errekatxo bat agertzen da.

- Bai, baiña ez dakit zelan daukan izena ta [...] badakit nun esaten dozun gutxi gorabehera.

- Ta errekatxo hortatik Lope aldera dao hori, Kortatxoko basua?

- Bai, bai, bai, bai.

- Bueno, orduan, gain horren izena berriz esango zenduke? Hori Lope aldian, Lope ta Irutontorreta bittartian dauen gain hori.

- Munurtu.

- Baiña oindio Kortatxoko basuan gaiñera allegau baiño lehenao, ez, hau?

- Hori? Eske Kortatxo pare-paria ez dakit zelan esango jakon...

- Han gorutz juanda...

- Han gorutz juanda han Kortatxo parian gorao txabolia be bazan, txabola bat. Eta, ba, Munurtuoi... [nik...] esango nuke ezkerrekalderao, Lope alderao geratuko dala.

- Ba, hau izango da...

- Hau izango da...

- Laua.

- Ta laua ze da Lopegaiña?

- Klaro, Lopegaiña, badakizu, gure Solobarrenari gertatzen jakona gertatzen jakon: hari danai Lopegaiña esaten da ta gero, ba, Munurtu hor egon leiken, porke esan dotsut lehen be gerra-denporan... tireteau zezen tokixa dala.

- Hori izango da...

- Eta beste izen bat emon bihar dotsau?

- Eske Lopegaiña da oso zabala, ez, inguru guztia?

- Dana, dana.

- Ta hor barruan egongo litzake, igual, Munurtu?

- Bai, ni baietzian nao.

- Bueno, berriz lehengora bueltauta, hor Lope inguruan badao beste baso bat.

- Lope inguruan?

- Lope aldian, bai.

- Koostei?

- Sakon...?

- Sakonaundi?

- Eta hori nun dao?

- Sakonaundi izengo da... e... hori zelan da... zelan esan dot hori basuoi?

Gure baso txiki hori baiño beste arro haundixaua, harutzaokua. Ziarrero parera edo Ziarrera goiezela... A! Oin eskonbreria eitten dabizten edo ein daben edo... hori gutxi gorabehera izango da Sakonaundi.

- Kortatxoko basua baiño harutzao?

- Harutzao.

- Errekatxuan inguru hori izango da?
- Baleike, baleike. Sakonaundixa.
- Hori, hola, goitik beherakua izango da gutxi gorabehera, ez?
- Bai, nik uste.
- Gero, beste... [...].
- A! Hori gure Solobarrenekua da hori! Esan dou hori lehen, Luanburua. Ez?
- Bai, bai.
- Bai!
- Bai, bai.
- Hori Solobarrenian da.

10.51. Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/012
- **Iraupena**: 0:09:22. **Hasi**: 00:56:18. **Bukatu**: 01:05:40
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia. Kanpazar eta Udalaiz inguruko toponimia.

Transkripzioa

- Gero hor Irutontorreta inguruan esan dozu, ba, baso baten izena? Elixiana dala edo...
- A! Errosaixobasua?
- Ta hori nun egongo litzake?
- Hori? Angiozarkua da, baiña [...].
- Irutontorretatik Angiozar aldera?
- Bai... Horra bajatu zeben...
- Askasibar aldera?
- ... egurrak-eta bajatu zittuen [...] zerera... [errotian ondora...] . Ta Errosaixobasua hor dao.
- Irutontorreta parian egongo litzake edo honutzao igual pixka bat?
- Edo osterao. Igual Irutontorreta baiño [gorutzao], gure alderao, Angiozar alderao egon leike.
- Loidi alderutz edo hola?
- Loidi edo Etxebarri...
- Hori lehen be uste jonat apuntau daola.
- Ze numerokin?
- Ez, beste mapan uste jonat egongo dala.
- A, beste mapan?
- Bai.
- [...]
- Bueno, Kanpazar gaiñeko mendixai zela deitzen dotsazue?
- Kanpazar gaiñian?
- Mendi haundi hori.
- A! Udalaiz!
- Danai deitzen dotsazue Udalaiz? Punta bakoitzari izen bat emon barik,

ez?

- Bueno... Punta bati, hari barrenenguai emoten jakon izen bat. [No me acuerdo]. Lehelengo bajutxuena daukanai esaten gontsan izen bat eta oin ez naiz akordatzen.

- A! Kanpazar eta gaiña bittartian dauena, hola...

- Txikitxuena.

- Bai.

- Gero han beherao dauena, ermittia-ta dauena, Santa Luzia, baiña ha ya Bizkeixa da. A! Zera, zera, zera, Udalaitxen hori, bajuena, Egomendi da. Ezkerrekaldetik Kanpazarretik "ra!" parian beitu barik ezkerrekaldera bajutxuena daukana Egomendi.

- Salaberrin gaiñian edo holan?

- Bai, hori, Egomendi. Ta gero ya [...] punta guztia igotzen zan hortik, igotzen genduan, gorutz.

- Ermitta gain horri izenik ez?

- Ez dakit...

- San Migel ermittian han gaiñian?

- San Migel gaiñian izenik ez dakit...

- Ze esan dozu?

- San Migel gain? San Migel gain? [...].

- San Migel gaiña zeri esaten dotsazue?

- San Migeldik gora, [...] San Migel gaiña.

- Bai, bastante altua da, ez?

- Altua, altu samarra da. Gero handik behera dao hori Gontzarriko pagadixoi ta. Ta gero handik...

- Ta gero ya Lasarte aldera, San Migel gaiñetik bajatu, hola, ta Lasarte aldera dao hola lautada bat...

- Bai, lautada eder bat. Harek izena eukiko dau, baiña nik ez dakit.

- Bai.

- Harek izena eukiko dau.

- Bai, Lasartegaiña esaten dotse, baña bueno, igual da.

- Gero, hortik gaiñetik eta Gontzarriko pagadittik honutzaio Pagomendi.

- Itxoin, hori beste mapetan dao.

- A!

- Ta honek zeintzuk ete dia?

- Gero beste batzuk hemen dare Txaria ta...

- A! Bestekaldien, baiña! Altuneko Solobarenetik, errekatik, Epela errekatik, Mondrau alderakua Mondratxaria. [...] mendi haundixa! [...].

- Hori haundixa da?

- Bai, Mondratxaria bai.

- Honek gain guztiak izango dittuk.

- Bai.

- Honi danai deitzen dotsazue?

- Mondratxaria ta handikaldeko ezkerrekaldeko puntiai Anporretako puntia esaten jakon. [Oin] esango dotsut...

- E...

- Mondratxaria, osea, Altunen pare-pareko ha haundixa.

- Altunetik horra begira jarritta...

- [...]

- ... karabixoi, ta kontaizu aber. Altunen behetik gora pistara igotzen dou ba deposittua-ta baiño pittin bat goratxuau, bidien gaiñekaldien bertan dau Karabixe.

- Hantxe kruzien ezta?

- Kruze-kruzian.

- Igotzen dozu bidia eta dao...

- Kruze kruzien dao...

- ... bi pista.

- Bai, bi pista.

- Han kruzien dao Karabixa?

- Bai.

- Bidia, baiña Lope aldera doiana?

- Bai, normala. Hartzen dogune, Lope alderako sartzen gaz ba, zerien, esango bagiñuke moduen karretera jeneralien sartzen gaz behetik gora ixo aldapan-ta, hantxe kruze-kruzien dao holako arbola txikitxo bat egongo da gaiñien, berez urtendako bat, eta dao karabi bat, karabixe. Bai, eta harek inguruak, ba, Karabiondua edo gutxi gora behera halako izenen bat eukiko dau. Hori arro danoi Gaztaiñisakona bezela doia.

- Lopeko han txaletan parian esaten dozu, ez?

- Ez!

- Edo? Beste aldian?

- Ez, ez ez. Altunetik Angiozarrera fateko igotzen dou, ba, aldatza, behetik gora zuzen aldatza amaitzen dan lekuan doia bidia aurrera eta Koosteirako bidia, hortxe kruze-kruzien [goikaldetxotik]. dao. [Bertara bertara].

- [Argi ikusten dot].

- Zuk bai, dakitzulako nun daon.

- Altunan txabolía...

- Txabolía baiño askoz beherau.

- Beherau.

- Altuneko...

- Tartian edo hola?

- Ez, ez. Altuneko etxaburuan bertan dao hori kasik. Ta horrek esan dosta hori apuntau ein bihar dabela.

- Txabolía, Altuna...

- Eske hemen pistekin-ta ni aklarau be ez naiz eitten.

- Eske horrekin najabin neu be liauta.

- Hementxe. Aber, hementxe. Kosteí nun ipini dozu?

- Lezarruan gaiñian edo hola?

- Ez, Lezarrua da hortikaldeko erreka-zulo bat. Ez, ez ,ez. Hau lehenau, lehenau, lehenau. Hau Altune pare-parien edo pittin-pittin bat bakarrik Lope alderutzau dao.

- Hau izango don.

- Hementxe.

- Itturrixan...

- Itturrixa baiño be lehenau. Itturrixa baiño Altuna alderau, bast... asko, gaiñera. Itturri txikixa baiño. Eske hori ez da figurauko baiña, karabixa oinndiokan esistitzen dau, hantxe dau ta.

- Altunatik txabolara begira jarritta zuzen jarriko bagiña, parian hartuko luke hori, edo?

- Zuzen hartuko bagiñuke, geratuko litzake piskat eskumatara.

- Eskumaratxuau?

- Eskumaratxuau.

-Baiña oso gutxi, e? Oso gutxi. Hori arruoi baiño espaldaratxuau.

-Hementxe.

10.52. Angiozar auzoko toponimia

- **Hizlaria(k):** Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-233/013

- **Iraupena:** 0:05:20. **Hasi:** 01:05:40. **Bukatu:** 01:11:00
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Asalgeta.
- Ze mapa da?
- Oin ein bihar douna hemezortzi. Hemezortzi ta hemezazpi. Hemezortzi hemezazpi hartu. Orduan, lehen esan dozu hor Asalgeta...
- Asalgeta ostian...
- Angiozar aldera....
- ... Illarradi. Illarradi basotxon bat da.
- Txikixa?
- Bueno, txikixa edo [...]...
- Pistan batzuk eta badare?
- Bai, batenbat badao pistia be.
- Haura bizkartxuau edo hola izango da? Angiozar aldera, hola, Asalgeta azpitan...
- Espaldan dao. Oin e... Sakona baiño lehenau e? Beheko arboladixa baiño lehenau.
- [...].
- [Hau da Juanena].
- Gero...
- Alastra ezautzen dozuz?
- Alastra? Bai. Alastra dago...
- Handik Alastrara bittartian edo? Alastra Asalgeta bittartian eongo litzake hori, ez?
- Ez, hori... hori... bai, ba, bittartian bai, baiña...
- Baiña goixan? Asalgetan parian?
- Eske Alastra, Alastra da Karabittako gaiñetik goittik beherutz eta bestioi da Karabitta gaiña baiño be harutzau, pare inguruen edo...
- Norutz? Norutz harutzau?
- Gontzarri alderutzau. Eske Karabittako gaiña hau baldin bada, hori dago bastante harutzau, bastante harutzau. Alastra, Karabittako gaiñien, pittin bat aurrera fan eta goittik behera da gero.
- Jausue ezautzen dozu?
- Jausua ez, ez dot ezautzen. [Horrek] Juanek jakingo [zittuen igual].
- [...] esandakuak dia ta.
- Alastra bai, Alastra goittik behera bidien behera faten giñen gu.
- Orduan, hau Asalgetako tontorra izanda, eta hau Gontzarri behekoa, hori zela [don] Illa....
- Illarradi.
- ...Illarradi? Hementxe edo hola? Bixen tartian beherutz, Angiozar aldera?
- Gontzarrin parian? Gontzarrin parian ez, e? Hau Asalgetako tontorra bada, alde hontan [unen] baten, edo horrutzau, [hola egon biharko da], e. Gontzarri aldera ez, e!
- Bale. Hor inguruan besteik edo?
- Guk hor inguruan basoik ez. Hor...
- Errotaberrira doian errekatxo horri-ta, izenik bai?
- Ez... hortik ez doia Errotaberrira, e?
- Bueno, han beste... beste [aldera hortik]?
- Ez, ez, ez. Horko izenik ez dakit.
- Metala edo ez dotsazue deitzen?
- Metaliturrirxa bai. Metaliturrirxa badao hor zulu. Angiozarrera bastante

behian dao Metitturixia. Alastra ta bestekaldien.

- Bai, hori eta kanposantu gaiñien edo. Alastra.

- Bai, bai. Alastra... eske mendisail haundixai esaten jako-ta Alastra.

- Bale. Han... Gontzarri behekuan han gaiñian daon tontor hari? Hari izena ez dakitzula edo esan dozu, ez? Hemezortzi?

- Pagomendi daukozu haren... zuk esaten dozun gaiñan haruzkaldetik eongo da Pagomendi, ez?

- Aber...

- Gure Illarradi hortatik Gontzarri alderao Pagamendi, ez?

- Gontzarri bertara allegau baiño lehenau?

- Baai! Asalgetan, Illarradi Angiozar alderao, Pagamendi harutzau, bestekalderao egon bihar.

- Gontzarri aldera?

- Bai.

- Gontzarri behekuan gaiñian edo hola gutxi gora behera?

- Gaiñian eta bastante beherau. Gain-gaiña barik Pagomendi da, beherau.

- Zela esaten dozu zuk? Mendi horri, zelan?

- Pagomendi.

- Hori haundixa izango da, ez? Hori gaiña, eta beherakua....

- Bai bai, holako lautada bat eta pago... paguak-eta dare ta...

- Handik Angiozar aldera... bai, ez? Bueno Bolu alderako hori...

- Ez, Bolu be ez, e? [...] baiño gorau.

- Ez hainbeste be ez. Bai, bai, bai baiña alde hortara ez?

- Bai, bai, alde hortara. Bai, bai, alde hortara dao Pagomendi.

- Ta hor ze zauan lehen, pagua edo hola edo?

- Paguak. Ez dakit oin daren, baiña izugarrizko pagadixa. Edarra, gaiñera.

- Han, hola, bizkartxo bat-eta dana, ez?

- Bai lautada moduko bat eta.

- Hortik Bolura bittartian izenik bai? Ez? Bale.

10.53. Angiozar auzoko toponimia

- **Hizlaria(k):** Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-233/014
- **Iraupena:** 0:06:00. **Hasi:** 01:11:00. **Bukatu:** 01:17:00
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Alestra, Alestra baiño beheratxuau guk beste esaten gontsan beste arru horri, kanposantua baiño lehenau, beste arro bati Txakurzuri be. Hor zerak-eta Andiketxek badauka, ba, zelaitxo bat-eta?

- Bai, bai.

- Txakurzuriko zulue esaten gontsan guk.

- Ha, kamiñuan parian, ez? Bertan kamiñuan?

- Ba, kamiñuen [dao] halako erreka zingira bat-eta dare han, Txakurzuriko Zulua. Otxoan mendixak eta sagasti bat eta han zulo baten.

- Kanposantutik gertu?

- Kanposantutik bastante gertu. Txakurzuriko Zulua izen da ha arrua, ta pittin bat goratxuau han sakon bat bertan Otsuak zeukan holako

sagastegiko agrau bat, nik sagarrak harrapatzen ibiltzen nintzana. Txakurzuriko zulu esaten gotsan guk. Goittik behera, menditik goittik behera kalerako faten giñen bide ingurua.

- Hortik bidia pasatzen da, ez? Kalera doiana ...

- Bai. Bidia pasatzen zan lehenau ta oin be pasauko da.

- Kanposantutik zenbat gutxi gora behera, zenbat bide? Bostehun metro edo?

- Asko ez. Jakobaneko piñudixa ta badakizu nun daren?

- Hemen bai.

- Ha baiño lehenau da hori esaten gotsana Txakurzuriko Zuluori. Ha zan... Jakoban piñudixe ta baiño lehenau.

- Jaboneko piñudixa...?

- Jakobaneko piñudixa ze dao, hola, bizkartxon baten edo?

- Bueno Atseginlekua ta badakizue nun dan, Atseginlekua, jarritta egoteko lekua? Atseginlekua, hori inpgortantia zan, ba. Mendi gaiñetik hortik Karabitta gaiñetik goittik behera jua...

- Mendi gaiña...

- Mendi gaiñetik, Karabittako gaiñetik...

- Mendi gaiña...

- Bai badakit. Klaro, hortik goittik behera fan eta hor Alastra alde batera geratzen dan moduen...

- Alastra gelditzen da kamiñuan ezkerretara...

- Alastra geratzen da ezkerretara.

- ... beherutz zoiazela.

- Ta beste hori be eskumetaratik faten giñen gu bidien goittik behera eta eoten giñan deskantsuen Atseginlekua, harririk-eta ifiñitta, eta oindio be hantxe eongo dia.

- Hola errebueta ... pixka bat ezkerretara hartzen dau bidia?

- [Garrazteikuak] badauka, ba, mendixa?

- Bai, bai.

- Hatxe, [Garrazteiko] mendixan barruen dau, oin piñudixa botata ta txikixa sartuta ta... Hori. Baiña, Alastra ezkerretara ta hori eskumakaldeko arro aldera eitten dau. Ta hori da Atseginlekua, guk beti deskantsua eitten giñuan lekua.

- Ta hori izetetz zer da? Basua edo...

- Basua da, baiña guk Atseginlekua moduen, ba...

- Hori ze dao Jakobaneko piñudixe baiño gorau?

- Gorau, gorau, gorau. Bastante gorau. Bastante gorau. Jakobaneko piñudixa dao [kanposantutik]-eta bastante gertu, e? [...] gora ya aldapia gora ixo, kasi-kasik gertuau Karabittako gaiñetik, behetik baiño, gertuau dao Atseginleku hori. Ta horren pare inguruen zerbait beherau eongo da hori Metaliturruxoi ta erreka-arruoi Errotaberrirakuoi. Beherao. Atseginlekua, onbre! Gustauko [jaten...] ikustia oindioan baiña, no está tan lejos mendi gaiñetik! Hor, entre Jakobaneko piñudixa eta hori Atseginlekua bittartian Asulenekua dao beste piñudi haundi bat, lautada bat eta gottik eta behetik piñua. Bidelaua esaten gotsana lautada hari, eta gero aldapan gora igo ta ixa goixen Atseginlekua.

- Jakobaneko piñudixa Bidelaua baiño beherau?

- Beherao dao, bai. Ta Bidelauan dao Asulenen piñudixe.

- Bidelauan?

- Hola esaten gotsanan.

- Bidia, ez?

- Bidia, bidia. Baiña, ba, lautadan korritzen dau, korritzen dau lau-lauan bidian eta.

- Ta Atseginlekua dao gorau oindio, bastante gorau?

- Gorau, gorau, bai, asko gorau. Hori dana pasau ta goixen, kasi goixen.

- Besteik hor?

- Ta gero han Alastrako kurutzien kruzie eitten daben lekuen izugarrizko kurutzie ta badare, ba, harrizko kurutzie ta?

- Kruzia zeñiek eitten dau hor?

- Ba, ezkakit, ba,[hemendik] mendin batera edo zelan. Behintzat lehenau difuntuekin-ta faten zanian be por esos caminos hor kurutzie zauen lekuen-ta deskantsue eitteko lekue izaten zan. Kurutze bat han eongo da oindiokan be, si no ha tirau alguien. Alastran behe samarrien, holan, kamin-kurutze bat eitten zeban.

- Bidelaua baiño beherau?

- Ez, Bidelaua ez da Alastratik, e?

- Bai baiña... hor pare hor...

- Pare hori? Baleike egotia. Itxoin, aber...

- Alastra dao Bidelautik ezkerretara?

- Bai, Bidelaura Alastrak badauka bidia be nahi izan ezkerro, burdibide bat, joten dotsa. Bidelau horren eskiñara sartzen da Alastratik gura bozu. Gure kamiñora. Baiña hori aldapa barrenien edo holaxe zeukan, ba, kurutzia. Lehenau behintzat han zeon kurutze haundi bat harrizkoa.

- Orduan, kanpusantu gaintxuan edo hola izango da.

- Ez, kanpusantu gaiñian be ez, oindiokan gorau.

- Gorau oindio?

- Gorau oindio, bai.

-Ta zela... ze izen dauka horrek?

- Izenik eztakit. Alastrako kurutzia esaten gontsan.

10.54. Angiozar auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/015
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 01:17:00. **Bukatu**: 01:19:15
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Angiozar auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Bueno, ba, beste aldera joko dou hortan oin. Bueno, orduan Pagomendittik hasiko gaa, han bestekalderutz, Bixkai alderutz. Pagomendi, gero han, Gontzarriko pagadixa esan douna...

- Bai [oin handik] handik aurrera.

- Hortik beherutz gero errekatxo batzuk-eta doiaz. Horrek izenik eta ez dozu jakingo?

- [Keba], alde hortan ezebez.

- Hor Etzabal eta ez dakit zertzuk daren...

- Bai, horrek Zabaletakuak jakingo [dotsuez] horrek.

- Angiozarko errekia jaiotzen dan inguru hori?

- Hori nundik etorriko da? Olaitturri? Olaitturriko itturrixa.

- Ipinitta dao hori.

- Hori inportantia da. Hori danak jakingo dabe.

- Olaitturri... Zela esan dozu?

- Olaitturri. Hori inportantia da hori tturixori. Sekula [ikusitta] dakazu, Arantzazu? E?

- Igual bai.
- A! [...] ikusi bihar zenduan, ba, hori honezkero.
- Ze mapatan?
- Hogeta bost.
- Sanmielgaiña.
- Bai, Sanmielgaiña. Bueno, orduan, Pagomendi, Sanmielgaiña, gero esan dou Sanmiel gaiñetik han, pixkat bajatu eta lautada moduko bat dauala Lasarte gaiñian.
- Bai.
- Handik segi, Sustraitza alderutz, han beste tontor haundi bat dao.
- Hor die Frakazar ta, auskalo, hor mendixak badie, baiña nik bakarrik izenen batzuk [baiña]... baiña ez.
- Horko tontorren izenik ez?
- Ez, ez. Eztakit zein izango dan Frakazar [...].
- Hor behian zuluari deitzen otsen Frakazar. Paulok eta horrei deitzen otsen, Olaitturriko sakon-une hari.
- A, beheko zulo hari? A, entzutia neukan bakarrik.
- Horrek tontorrok orduan ez, ez, Sustraitza inguruko horrek?
- Ez, ez, nik ez. Horrek jakingo dittu uste dot Pedro [...].

10.55. Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia

- **Hizlaria(k)**: Lazpiur Olañeta, Mertxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-233/016
- **Iraupena**: 0:05:45. **Hasi**: 01:19:15. **Bukatu**: 01:25:00
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Angiozar auzoko (Goimendi auzuneko) toponimia.

Transkripzioa

- Hor Zabaleta han gaiñian dauen tontorra?
- Añabarreta. Eta gero, gorauen, handixaua, zea, hori, Gaztelumendixa, gero Gaztelumendixen barrenien zera, Burdiñuako laua, eta gero Intxorta.
- Eta Intxortatik Angiozarrerutz han beste tontortxo bat dau.
- Arrota ta Zabaletan erdixan? Arkotxa esate jakon [harutz] mendi txikitxo bati, bai... hori kamiño kontran geratzen da. Kontra-kontran. Holako subida txiki bat, Arrotako baserrixa pasau ta segiduan.
- A, bai?
- Arkotxa esaten jakon hari, txiki hari.
- Han kamiñuan bertan?
- Kamiñuan bertan.
- Han gero beste pista bat hartzen da Burdiñuara.
- Ez dakit hori. Baiña...
- Bai, bide bat dao Burdiñuara.
- Arrotako, holan, laua akabau ta holaxen igotzen da "txist", eta gero segi kamiñua eta ha...
- Gero berriro beheruntz hartzen da piñudixan.
- Bai, ha tontortxua Arkotxa. Hori esaten dabe, Zabaletako... horrek danak esango dotsuez. Ta oin...
- Burdiñuatik Arrotarutz pixka bat?
- Arrota pare-parien tontor hari ez dakit zela esaten dotsen, porke Burdiñua

laua da, aurrera [dao] laua, Burdiñua lautada haundi bat da.

- Bale. Bueno, gero zuen auzo guzti honi zelan deitzen dotsazue?

- Guk Goimendixa.

- Hori nun apuntauiko dou?

- Ba, hogeta bostian ipiñi.

- Ta nundik nora hartzen dau honek, Goimendixak?

- Ba, Goimendixa ekin Lasarten ta [Lopealdaoste] arte; Gongeta... horrek danak inkluiduta.

- Zulueta [hor...]?

- Zulueta, Gontzarris, Altuna... horrek.

- Bai, Kanpazartik Lopera bittarte guzti hori...

- Bittarte hori dana.

- ... eta Lasarte?

- Bai, Lasarte, bai.

- Sutraitza ya ez litzake izango Goimendixa? Hori ze...?

- Ez, Sustraitza Zabaletamendikua da. Oin, batzuk...

- Hori ya hogeta hamazazpixa da.

- ... batzuk gure mendixai, esan dotena, Altunamendixa esaten [gontsan].

- Hemezazpixa? Sustraitza hori Zabaleta auzua da?

- Zabaletamendixa, Zabaletamendixa guk esaten dou.

- Sustraitza...

- Ez, ez, auzua da. Hori ipinita jan.

- Sustraitza ta Sagasta ta horrek danak.

- Ta Zabaletamendixak ze baserri hartzen dittu?

- Ba, horrek: Sustraitza, Sagasta, Etxebarri, Larrañaga, Aguletas...

- Txarakua eta, zerekua, Askatzukua. Bixen artian jaok hor. Lehenao zelai egon zittuan horrek.

- Zelai haundixa, gaiñera.

- Hor pago bat zuan, ta gerra-denporan hor hilddakua egon zuan makiña bat denporan. [... zela] akordatzen naizen. Ta gero honei, honek behe-aldioi esaten jakuek Abarixo.

- Abarixo.

- Hau dana gutxi gorabehera?

- Bai, hemen sail haundixak.
- Hori ya horrekin zertzen dok, alde horrekin konektatzen dok San Juan aldera.
- Gabadixo edo...?
- Abadixo.
- Abarixo.
- Bai, esatia nahi dau "Abadiak ixo". Noizbaitten konjurua eitten zuan hor, hemen San Marzialdik gora igota konjurua eitten zan.
- Aba-dixo.
- Baiña datorrela "Abadiak ixo"-tik datorrela entzun neban oin dala urte asko ez dala hori izenoi.
- Ta beste bat Txikaso be badao gero hor.
- Bai, Txikaso be, ba, hementxe, hemen inguruan izengo da.
- Oin garbi daona? Oin antenia edo ipini dotse punta-puntan edo holako zeoze? Antenia edo torria edo...
- Ez, ez, ez, ez.
- Hori Idurixon gaiña.

10.129. Aldaiegia auzoko baserri-izenak

- **Hizlaria(k):** Aristegi Agiriano, Felix; Arriaran Iñarra, Moises
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Elisabet - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-241/019
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 01:06:46. **Bukatu:** 01:11:46
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Aldaiegia auzoko baserrien izenak.

Transkripzioa

- Zelaixan... Handik hasi... Handik hasi ta hor goraiñok.
- Abadixo goraiño Txikaso.
- Zera joterañok, Bostaitzetañok. Bostaitzetañok izengo dok.
- Klaro.
- Bai, hementxe gutxigorabehera.
- Bai. Ez... Hori zeretik honutz egongo da, ezta? Iberdueron honutz? Ala sartu hona be bai?
- Guk fubolian eitten giñuana...
- Hori da, horixe dok! Hauraxe dok! Handik honutz.
- Honutz?
- Horixe dok Txikaso, zuek fubolian eitten ziñuen zera.
- Hari gain hari Abadixo esaten jako. Baiña handik beherao jak hori Txikaso hori hemen alde hontan egongo dok nunbaitten. Honek Iruzoko zelaixak izengo dittuk. Honek Iruzoko zelaixak izengo dia.
- Horren kontinuaziñua da, zera, Txikaso.
- Bai, Txikaso aldia [...].
- Horrei... Ves? Horrei kaso ein ezin da ein, horraittio. Hori... sinbolua... sinbolikua izen biherko dau gehixau realidadia baiño, zeaittik eze guk hemen... Ta zeñek emon leike hori detalladamente?
- Oso gaiztua.
- Zuek esandakuakin eta beste... Amatiñokuak edo Narbaizakuak

esandakuekin...

- Konpleto? Bastante itxuratu?
- Kuadratzen badabe...
- Kuadratzen dabena, behintzat, ba...
- Harek hobeto esango dotsue horrek.

[...]

- Zeak ahaztu jakuz hemen etxeak eta danak, inguru hori.
- Etxeko saillen izenik eta ez jakixat nik, e?
- Ez, bueno, basarrixenak.
- A! Etxeak zela dibiditzen... ze izenekin dien?
- Bai.
- A! Lehenengua dok Iribien.
- Itxoin. Itxoin, itxoin...
- Bueno, ba, itxoingo juat. Irabien...
- Irabien dok hau.
- Bueno. Gero daok [Gaittao] barrenengua.
- Irabieni segi bidia aurrera...
- Bai, lehenengua daona...
- Lehelengua bidian ezkerretara dao, ez?
- Bai. Bueno, bestia be baietz uste juat.
- Hau zela da?
- [Gaittao] barrenengua. Bestia gero.
- Gero bestia?
- Martisuskua.
- Hor tartian etxe txiki bat be badao hor...
- Txabolan bat egongo dok. Bestia Gaittao [Aremaixo(b)arrenekua]. Guk, behintzat, e, neuk.
- Bai, bai.
- Arema...?
- [Aremaixo(b)arrenekua]. Nahi badozue motzaua ipini zuek...
- Ez, ez.
- Motza? Bai... ezin leike ipini...
- Ta aurrerao besten bat dao?
- Bestia Gaitt... Dirunekua.
- Dirunekua?
- Bai.
- Baiña Gaittao Dirunekua edo...?
- Gaittao Dirunekua hor.
- Noizbaitten egon eingo zan.
- Hori gure denporan ezautu giñuan.
- Izena bai, baiña dirua be egon eingo zain noizbaitten!
- A! A! Egon be eingo zan!
- Danian dao ta. Oin, dirua egotetik egotera...
- Gero, hortik, ba, gero hor, ba, biditxiorrak eta gero agertuko dittuk hor aurrera.
- Ta behian dauen zera?
- Amuskibar? Erreka kontran daona?
- Bai.
- Amuskibar.
- Han beste etxe bat dao parian txabolia izandakua edo beste etxia izandakua edo...?
- [...] errota edo...?
- Ez!
- Errotia...

- Ez, haura Amuskibar [...zuan].

- Amuskibar bolu ta ez zittuan hor?

- Hori, ba...

- Bereizten dia bixak?

- Bai.

- Bata ze da Amuskibar?

- Ta bestia Bolu. Hori da Amuskibar bolu.

- Amuskibar bolu?

- Bai.

- Bai, hamen bertan be ipintzen jok.

- Ta beste bat be bai han desapareziduta, hik esaten duana, Eudira bidian daona. Hor desapareziduta.

- "Unas ruinas" ipintzen dau.

- Izenik bazeukan horrek?

- [...], haxe. Horren izena jakingo juat nik, esango dostat. Ez jatzue inporta geruau esanda?

- Ez, ez.

- Horrena esango dotsuet.

- Honek aztertuko dittue papelok geruau be.

- Ta bestia goixan daon basarrixa?

- Eudi.

- Eugi?

- Segidu ya ke hor zabizten. Gero Biritxibarrak gero errekoa pasauta. Gero parian errekoa pasauta Biritxibar ta gero bestia Biitxibar lehenengo ta gero bestia Biritxibar erdikua. Kamiñua joten daona Biitxibar erdikua, e!

10.130. Goiauzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Aristegi Agiriano, Felix; Arriaran Iñarra, Moises
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-241/021
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 01:16:46. **Bukatu**: 01:21:46
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Goiauzoko toponimia. Kindao ingurua.

Transkripzioa

- Ta hori ez jakixat zela ez daukaan. Oindiok han muestrak jarek, gaiñera, paretak eta danak...

- Loidi etxebarritik Angiozar aldera ondiokan?

- Ez, alrebes, San Kristobal... Ixa joten Loidi etxebarri. Ez dok agertzen, e?

- Etxia joten jak, bertan.

- Bai, piñu bat eta jaukak onduan. Bueno, oin ze ein bihar dozue gehixao?

- Hor igual, hemenguakin jarraitu...

- Hamen granja... granjia nun jak?

- Honek dia granjak.

- Hamendik gora be... Eske hemen... Hemendik gora izenak bajakixat nik batzuk, baiña...

- Aber, ba.

- [Kindao] ta...

- Nun dare horrek?

- Hauxe espalda hau.

- San Marzial...

- San Marzial da hauxe. San Marzial ipinita jak, ez?

- Ez dok ezebe ikusten hemen!

- Ez, ba! Hori dana... Hamenditxik ikusten doun moduan ikusten da hor, Felix, dana beltz-beltz. Lehenau gaztaiñak-eta zaren, paguak-eta, baiña oin ez; ta argiuna batzuk. Oin ez dao holakoik.

- Ez, ez, baiña beste plano bat zan, ikusten zian gure terrenuak-eta ondo.

- Hemen edo? Hau izengo zan... Hau San Marzial, baiña ez dakit... Hau Lapatza...

- Hori ze ingurutan dao, ba, Kinddao lehen esan dozuna?

- Hor, hauxe. Han [paguak eta...] Kinddao. Hemen. Hoixe paguak eta daren hori. Ta hamendik gora dao bide bat bueltan honaxe. Hau... bai, [...] hemen, [...] Honi inguruoni Kinddao esaten jako.

- Osea, hor... Lapatzatik hor ezkerretara daona?

- Bai, hamentxe, hamentxe. Hauxe da.

- Hori, hori, hori. Hor bistan daon hori, hoixe, paguak-eta daren hori.

- Ta gero hor errekatxo bat ez dok agertzen?

- Kinddarrekia.

- Kinddarrekia?

- Hori da Lap... Hemendik behera dao, ez?

- Agorrosin aldera urtetzen dabena?

- San Marzialera etortzen da errekatxo bat hor goittik behera. Baiña hamen ez da ezebe [...]! Nik ez dot...

- A! Hau, hau, hau, hau...

- Hauxe.

- Errekatxua?

- Kinddao errekia.

- Kinddarrekia. Guk esan eitten jao Kinddarrekia, Kinddao errekia izengo da. Baiña nahi dozun moduan ipini.

- Ta San Marzialdik behera be izen berdiña dauka edo...?

- Ez. Gero San Marzialen [pagaerian] Pagerzulua esaten jakok hor. Kuebak-eta esan nontan nik zarela.

- Pagerzulo?

- Pagerzulo, bai. Hor hau eitten dabena [...], hola. Kinddaotik honutz, ezkerrera.

- Hau granj... hau [...] izengo da, ba. Hau da granjia ta hau izengo da Pagerzuluoi.

10.131. Goiauzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Aristegi Agiriano, Felix; Arriaran Iñarra, Moises
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-241/022
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 01:21:46. **Bukatu**: 01:26:46
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Goiauzoko toponimia. Lapatza eta Askatsu baserrien inguruko toponimia.

Transkripzioa

- Honek hor goixan esaten dabe honek bi tokittik "y" bat itten dal..., "y" griega bat eitten dabela. Hori errekaori hola da? Ondartza erreka da hori?
- Idurixo erreka?
- Edo Irudixo erreka?
- Ondartza...
- Hor Idurixo...
- Horrek ura hartuta dauke Irudixora ta hori... hori...
- Ba, hor "y griega" eingo dok, bat zeraldera, bat handikaldera ta bestia hemendikaldera. Irudixoko han kurba-kurban eingo jok, Irdixora kurba zerraua jak...
- Baiña horrek beste izen bat ez dauka horrek?
- Ta berak ze izen dauka?
- Irudixo erreka?
- Irudixo [aurria] esaten jakuek horrei... Lapatzatik hasi ta Idurixoko ha errekaraiñoko zerori Idurixo aurria esaten jako.
- Ta berai errekaia? Idurixo erreka? Ta zuk Ondartza erreka ez dozu esan lehen?
- Ez... Hori... zer gehixau jakak, itxura gehixao Irudixo erreka izateko.
- Han! Honetan ikusten dia detallauau zerak... terrenuak. Honek be... orientau artian kosta eitten da honekin be.
- [...].
- Bai, hau trenbidian kurbia...
- San Marzial aber billatzen dozuen... Askatzu.
- Hemen San Marzial.
- San Marzial...
- Horren kontinuaziñua.
- Horren hurrengua.
- Lapatza hauxe izango da, ez?
- Hau [ete da, porsiakaso...].
- Ez, hemen etxiak eta...
- Ez, hau honutzau izengo da.
- Ez hau hamengua dok Egiño-ta hamen nun daren ta...
- A, bai...
- Hau... Lapatza.
- A, Lapatza.
- Hamentxe daok Kinddaoko bidia. Hemen ondo ikusten da zera. Lapatza hemen, hau gure Lapatza aldia esaten jao, hau gure albokua, ta hau [...] honek [...dauzkaun honek] Pagerzulo ingurua hau da. Ta hau da Kinddao, hori gaintxuori. Ta gero honek esaten jako Kortazar.
- Kortazar?
- Hau... hau da Kinddaoko, ba, bertan gaiñian daona ta hau da gure bestekua ta honei esaten jakue Kinddaoko hegia, honei sailloi. Kinddaoko hegia. Eta hemendik aurrera juanda honek Basaguen. Honek alde honei Basaguen.
- Hori ez nitzan akordatzen, e, Basaguen...
- Lapatza ta Kinddaoko hegixa bittartian Basaguen?
- Bueno, bittartian be... puskat harutzao.
- San Juan alderutz?
- San Juan aldera pixkat, bai. Gero, ba...
- Kortazar nun esan dozu?
- Hemen.
- San Marzial nun dao?
- San Marzial hemen.
- Hau izango da?

- Bai. Hemendik bidia hemen doia... Hemen hobeto ikusten dia bidiak eta gauzak. Ta...
 - Kortazar...
 - Eta hau praktikantiana da. Praktikante difuntua, Pedro praktikante...
 - [...].
 - Aranburu. Eta hau gure anaiana.
 - Izenik badauka horrek? Horrek dana bat da hori?
 - Ez, [...].
 - Baiña izenik badauka horrek?
 - Izena, ba Basaguen... Basaguengo zelaixa esaten jakuen honi. Hemen hainbeste jak eze zuek konpletatzeko...

10.132. Azkarruntz eta Elorriaga auzoetako toponimia

- **Hizlaria(k)**: Aristegi Agiriano, Felix; Arriaran Iñarra, Moises
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-241/024
- **Iraupena**: 0:07:22. **Hasi**: 01:29:38. **Bukatu**: 01:37:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Azkarruntz eta Elorriaga auzoetako toponimia: Azkarruntz auzoko baserrien izenak; Elorriagako toponimia.

Transkripzioa

- Bueno, Aldetak eta Santa ta hori inguruori...
 - Pleitxos ta hartu bihar dittuk hor Santan onduan.
 - [...].
 - Pleitxos ta hor zera...
 - Etxiak bai, Martokoetxebarri ta...
 - A! Santa Santana zan... Santalde edo... ze da hori?
 - Santakatalina.
 - Santakatalina? Elizia ta ermittia?
 - Bai.
 - Bixak. Oi... ermittia ta etxia.
 - Ta etxiai zela esaten jako?
 - Santakatalina. Santa, dana esateke, baiña Santa.
 - Santa esaten jau.
 - Hori ermittia izango da...
 - Bai.
 - Hori barrutik dotoria da ala...?
 - Buu! Honezkero auskalo zela daon. Ez jakixat [...].
 - [...].
 - Nik sekula be ez.
 - Beste auzo bat, ez dozue siñistu be eingo, San Migel, hor bertan daukau aurrian ta... sekula egoteke nao.
 - Behin nao egonda neu be. Behin bakarrik neu be.
 - Ta gerra-denporan han reketiak "¡Viva España!" diarra ta entzun hemendik.
 - Hau ze dok Oxanguren?
 - Bai.

- Etxaube ta danak ez dittuk egongo... goixan.
- Hemen honutzaio.
- Etxaubiak honek izengo dia...
- Ez...
- Alde hontara dao?
- Bai.
- Hau Etxaube mendixa, orduan.
- Etxaube mendixa?
- Zein? Hau, hau.
- Hortxe bai ez daukazuela segitzerik...
- Aldeta gaiñekuan bestia zela da?
- Aldeta?
- Behian dauena.
- Aldeta azpikua. Gero parian goixan Pleitos.
- Zeuek zela esaten dotsazue?
- Pleitxos, Plei-txos guk esaten dotsau.
- Hori beti izan da Pleitxos ala...?
- Beti. Gero Martokoetxeberri.
- Hori be etorriko da hortaiko juizion batetik etorritako izena izengo da. Batenbatek [...] ta.
- Klaro, hoixe. Hauraxe izena ipini ta kitto, Pleitos gero.
- Martokoetxeberri agertzen dok hor?
- Bai. Gero han zerrajerako pabelloiak akabatzen dian parian zubixa dao, ba, kamiñuan?
- Bai.
- Han etxe bat dao eskumetara?
- Haura dok Benta de Egiño.
- Zeuek zela esaten dotsazue?
- Egiño benta.
- Egiño benta esaten dotsazue?
- Bai. Gero beste bat [...] bizi dana, haura Olako sardoteixa, kamiño kontra-kontran daona. Hor agertuko dok hori...
- [...] goiazela ezkerretara?
- Esaktamente.
- Bai, bide kontran.
- Ta gero aurrerao eskumara Olazarra.
- Aber, hemen hori... Olako sardotegixa zein da hemen?
- Kurbia eitten dabena, kurba txiki bat. Egiño bentatik hurrengo daona.
- Hurrengo daon etxia?
- Bai.
- Erreka onduan?
- Esaktamente, colgado allí. Ta gero eskumakaldera Olazarra, haura illara haura, [Tiopitxin??] baiño lehenao daona, hutsa metruiek. Ez dok agertzen?
- Hau dok [Tiopitxin].
- Ba, eskumakaldera hor jarek etxe illara bat, Zarra.
- Hori zela da?
- Ola zarra.
- Han [Biltoki] parian garajia ta txaleta ta badao, ba, han...
- Haura zuan bedarra eukitzeko tejabana bat. Haura ezebez. Haura erak arreglau juen gero ta...
- Gaiñekaldian ez dao beste bentan bat edo?
- Olazarran parian bai beste basarri bat bajak.
- A, bai, bai... Auntzerreka edo... Auntzerreka...
- Auntzerreka.
- Auntzerreka hori da? Auntzerreka hau da? Milla bider entzunda, baiña...
- Gero hor gora... baiña... gero hor gora juandako hor mendi hori Suspitxu

haura dok, berriz. Hori hor egongo dok, ba.

- Eta Alkorta ez dao beste bat, Alkorta?

- Nik ez dot entzun... Gero hari Suspitxuri segiduta...

- Segiduta bai Alkorta uste juat. Ez, harutz, Kotzaola alderutz. Guk zeukaun han basua. Iribingo basua uste dot esaten jakuela.

- Gaiñien segidu ezker horri zerai, Suspitxu mendixai, Pagomendi edo esaten jakok, jaok hor Kanpazar aldera. Hor basarrixa...

- [...] tontor bat pasau ta Kanpazar [...] bittartian.

- Gero, ba, Amateiko garo-saillak eta horrek Irutontorreta azpixa hori, berriz ta Kanposak eta Kanposenekuak be bazeukan hor. Garua eruaten zeban hor Kanposkuak.

- Kanposkuak? Ze Kanpos? [...]?

- Bai.

- Garotan hemen eitten zuan, mutil, sasoi batian...!

- Ze uste dok, ba?

- Joe, urrin dao...

- Asentzio tiruakin hil zana nere kintua zuan. Hire aittak bajakik ondo, kudrillakua zuan ta. Tion jenixo bat bajeukan harek... buuu!

- Hamen jentia edozein auzotakua juaten zittuan [...] mendira] ta edozein tokittara [...] garotan sasoi batian hemen egoten zan martxiakin. Ointxe. Ointxe zuan garotako denporia.

- Kostolatik San Kristobalera be bai. Pentseik, Kostola, han Mekolalden. Geu [Ziarrerokoraiño] juaten giñustan ixa Egiñotik.

- Baitta hamen Muiñondokuak eta be [...] mendira ta...

- Ni trankil bizi ziñazielakuan...

- Trankil? Orduan haretxek problemak ta oin beste batzuk. Ta hemendik berrogei urtera beste batzuk.

- Eguna zabaltzeko garua kargatzeko, hor Kotzaola onduan-ta geu be. Neu be bai makiña bat bidar aitta zanakin.

- Eguna zabaltzeko... Eguna zabaltzeke bai ibili eitten giñuztan, etxeko lanak ein bihar ta. Gero hartu traste mordo bat bizkarrian [...].

10.133. Elosu auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Muruamendiaraz Oruesagasti, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-242/001
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:40
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Elosu auzoko toponimia; baserri-izenak.

Transkripzioa

- Egizabal. Itxoin, itxoin, bueno, basarrixekin hasiko gara?

- Bai, lehelengo...

- Lehelengo basarrixak eingo [...] aber ondo daren kolokauta.

- Hau Agarre, orduan? Agarre esaten jako ala...?

- Agarre, Agarre. Hamen dao bestia Agarrezabal.

- Gero hau azpitan beste bat...?

- Egizabal.

- Hori ondo dao?

- Hau hor zera jak... hor berak ipintzen jok...
 - Bai, bai, bai.
 - Hori Egixa ez jakok esaten? Hori Egixa, ez?
 - Ez irakurri, e? Jendiak esaten jaon bezela... Zeuk esaten dozun moduan. Osea, ez...
 - Hau ez jak ondo. Hau Egixa da ta [Egizabal haundi Egizabalko muiñoa... Egizabalko muiñoa ondo jak bai]. Baiña hau bi Egi... A! Bata dok basarrixa ta bestia dok Eizaalgo gaiña. Han gaintxo bat, ba, Eizaalgo gaiña. Hauxe dok hori, bai. Bai horrek ondo jarek. Egiaga goikua, bai. Hori bai, ondo jarek.

10.134. Elosu eta Osintxu auzoen muga inguruko baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Muruamendiaraz Oruesagasti, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-242/002
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:01:40. **Bukatu**: 00:03:10
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Elosu eta Osintxu auzoen muga inguruko baserrien izenak.

Transkripzioa

- Honek zela dia Egiaga goikua?
 - Bai, bai.
 - Egiaga, baiña honek Egixaa esaten dia, ez? Egixaa [...] beti. Komeni jaku jakitzia, osea, jentia esaten daben moduan, ez... dian moduan ez, Egixa.
 - Egixaa esan [...].
 - Egixa.
 - Ta gaiñekua edo...?
 - Bai, Egixaa goikua, gaiñekua.
 - Egixa gaiñekua?
 - Egixa gaiñekua. Bestia Azpikua.
 - Bestia azpikua?
 - Bai. Gomezkorta.
 - Holaxe esaten jako?
 - Horri bai.
 - [...] zulan agertzen da bat. Zulo baten, bat baiño gehixao dare hemen zulo baten. Ontzola edo...?
 - Ontzola.
 - Zela esaten jako horri?
 - Ontzola.
 - Gero hor zulan beste... pilla bat agertzen dia hemen.
 - Bai, Olabarrixak dare hor oindio.
 - Bai, hemen...
 - Olabarri bai, baiña Olabarrixak? Diferentia dittuk, e!
 - [...] Olabarrixa Olabarriaga edo holakon bat azalduko dok.
 - Ez... Hau ze dok?
 - Hau ezebez.
 - [...] Ontzola sakon-zulo bat bittartian ta bestekaldera, Pagolapian.
 - Laspiur edo hor azaltzen dok... Hauxe izengo dok seguruasko Ontzola. Edo... Olabarrixa.

- Ez, hau Laspur bolua izengo da hori.
- Bai?
- A! Itxoin, itxoin, hau ein giñuan!
- Hau eindda dao...

10.135. Elosu auzoko toponimia; mendi-tontorrek

- **Hizlaria(k)**: Muruamendiaraz Oruesagasti, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-242/003
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:03:10. **Bukatu**: 00:06:42
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Elosu auzoko toponimia; tontor eta sailen izenak.

Transkripzioa

- Oin mendi tontorrekin hasiko gara? Hasi han handikaldetik hasitta. Hor... Hemen haundiña...
- Hori Leixupago [...] esaten jako horri?
- Leiopago ipintzen dau hemen.
- Leiopago bai, baiña...
- Hemen haundiña ipintzen dau Elusumendi ipintzen dau.
- Bai, haundiña hori dok.
- Hori da?
- Bai, hori da.
- Ta handik harutz zer dao hor? Hurrengo tontorrek ze izen dauka?
- Frantsesbasua.
- Baiña hori ze da tontorra ala saila ala...?
- Saila ta tontorra be bajaukak horrek.
- Harutzao lautada txiki bat ta gero tontor bat. Hori tontorrori?
- A! [Leixupago] dok hori, baiña hamen honutzao Pol-pol aldia ta nada. [...] beste bat Keixetako hegixa. Hor bi [...] jarek, Keixetako hegixa dok hori.
- Eta Leixopago badakik nun dauan?
- Leixopago hori dok zuen aldien dauena.
- [Hau da]?
- Baiña hala esaten jakok horri.
- Gero handik honutz...
- Handik honutz Elusumendi onduan...
- Elusumendi.
- ... beste tontortxo bat dao. Edo? Bai, beste tontortxo bat.
- Agarreburu.
- Itxoin, itxoin, Agarreburu?
- Bai.
- Gertu-gertuan?
- Gertu-gertuan ez.
- Agarreburu hemen agertzen jaku bat behintzat. Agarre hemen bada...
- Agarreburu hau dok, bai.
- Hau da Agarreburu?
- Hamen be Agarreburu agertzen dok.
- Repetidoranak ze izen dauka?
- Agarreburu hori be.
- Baiña hola da?

- Bai, bai, bai, Agarreburu.
 - Hau...
 - Hemen repetidora dao, e?
 - Hau, honi... Agarreburu horritxi esaten jakok ta honi ez jakixat, ba, nik hau zela dauen ha. Bi Agarreburu ezin leizkek, ba, egon.
 - Ez, ez, ez, laga, laga [...ipiniko dot...]. [...] horraño badaezpada? [...] muga-mugan doia hau.
 - Atsobaso.
 - Atsobaso ondo dao?
 - Atsobaso hori Azkoittiko partien jak.
 - A, Azkoitti da?
 - Bai.
 - Ta [...] justuan harrapatzen jittuk.
 - Bai, bai.
 - [...] bajak, hemen be Agarreburun be bajak.
 - Agarreburu hau dana ez da izango?
 - Dana... Bai, itxuria hala jaukek, itxuria hala jaukek... Hau Elosua...
 - Hau Agarre...
 - Bai. Dana [dauke], bai.
 - Agarreburutik edo Atsobasotik Elusumendi bittartian badauka zeozek bason batek edo badauka izenik hor?
 - Ez, Elusumendi... Ez, ez, hor ez jaok beste izenik. Eta gero bai. Horrek zerak izango dittuk Frantsesbasua ta bai, [...].

10.136. Elosu auzoko baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Muruamendiaraz Oruesagasti, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-242/004
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:06:42. **Bukatu**: 00:11:44
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Elosu auzoko baserri eta erakinen izenak.

Transkripzioa

- Oin bestaldera pasauko gara? Jarraitzen dau justo azpitan. Hemen agertzen da Bega. Bueno, Elosutik hasiko gara? Baserrixekin hasiko gara?
 - Hori Azkoitti partian jak.
 - Azkoitti partian?
 - Bai. Zementerio, Iriaun...
 - Itxoin, itxoin, Iriaun ze da?
 - Elusuko elizian onduan daona.
 - Iriaun, baiña hau Ixaun.
 - Bai, Ixaun, hamen Ixaun esaten jakok, bai. Eta hor be Iriaun ipintzen jok, ba.
 - Bai, baiña hau da izen ofiziala. Guri komeni jaku jakitzia jentiak esaten daben moduan.
 - Ixaun, Ixaun. Ixaun.
 - Baiña hau da mendi-tontorra...?
 - Ez! Hau dok Gazteluko... Gaztelu... Bai, Gazteluko kurutzia. Gaztelu.
 - Bai, han kanposantu atzian daona.

- Kanposantua... [...]. Bueno, kanposantua. Gero, eliza ostian daona?
- Ixaun.
- Bai?
- A! Kanposantu ostian ez, eliza ostian.
- Eliza ta kanposantua bittartian. Eliza pegante ez dao?
- Ez, elizan pegante jaok abadian etxia, Abadetxia. Ta Sakristaukua. Bixak.
- Bai, hor bi dare Abadetxia ta Sakristaukua.
- Diferentiak dia?
- Bai.
- Sakristaukua hemen da, orduan?
- Elizian hemendikaldetik sakristaua ta handikaldetik Abadetxia.
- Sozidadia daona hau da?
- Hauxe izengo dok, bai.
- Edo restaurantia dauena?
- Hau sozidadia ta... Hau frontoia ta sozidadia hau izango dok.
- Sozidadia hau haundixau ta Ixaun bestia izango dok, Ixaun txikixaua da.
- Bai, Ixaun... bueno, bera izen haundixaua dok ta tabernia izengo dok hau.
- Kamiñua nundik joiak hemen?
- Hemendik. Elizia ez dok ikusten hemen kurutziakin?
- Bai, horixe dok Ixaun, bai.
- Zein da Ixaun?
- Ba, hau.
- Hoixe, hoixe.
- Haundixa?
- Bai.
- Ta ondoko txikixa?
- Frontoia...
- Frontoia hau izango da...
- Hauxe frontoia. Ta sozidadia hemendikaldekua.
- Ez, hau frontoia.
- Frontoia hau.
- Hori beste txikixori txabola bat dok.
- Ba, frontoia hau baldin badok, sozidadia hau izan bihar dok, derrior, pegante daok eta.
- Ze izen dauka sozidadiak?
- Elormendi.
- Baiña etxiak be bai?
- Etxiak ez dauka...
- [...frontoian] eskolia zan haura.
- Eskolia zuan lehen, bai, Elormendi.
- Bueno, hor ez dao besterik?
- Ez. Gero...
- Oin hemen gora beste...
- Honek, Amentzelaga.
- Amentzelaga dauke izena?
- Amentzela.
- Gaiñekaldian bi dare, ez?
- Elormendi gaiñekua ta Elormendi azpikua. Horrek ondo jarek. Gero Lutxurdio ta egon bihar juek hor.
- [...].
- Benta, Bentoste...
- Bentak zenbat dare, zenbat basarri?
- Bi.
- Bi dare?
- Benta tabernia lehen egoten zana... Benta ta Bentoste dittuk [...].
- Benta ta Bentoste?

- Benta ta...?
- Bentaoste.
- Gero hor jarek Narbaiza azpikua ta gaiñekua.
- Narbaiza bi dare?
- Bai. Bata gaiñekua ta bestia azpikua. Egileor´e hor egongo dok, ba...
- Bai, hamen dao.
- Egillor. Eillor, e! Eillor.
- Gero...
- Narbaiza...?
- Narbaiza azpikotik...
- Narbaiza gaiñekuan onduan ez dao beste...?
- Narbaiza gaiñekuan bi bizitza jarek.
- Ez, baiña beste basarri bat...
- A! Bai, txaleta.
- Txaleta dao gaiñekaldian.
- Hori, zera, Iturbe...
- Iturben aittana da hori. Izena zela dauka?
- Izena [ez jakuek]...
- [...] beste bat Labeaga edo?
- Labeaga bai, gaiñekaldian.
- Labia.
- Labia, Labia.
- Basarri gehixao badare hemen inguruan?
- Bai, Kantera ta Egileor falta dittuk.
- Ez, Egileor apuntau dou.
- Egileor bai. Kantera... Narbaiza azpikuandi...
- Narbaiza azpikua... hamen dao bat.
- Horixe izengo dok.

10.137. Elosu auzoko baserrien izenak

- **Hizlaria(k)**: Muruamendiaraz Oruesagasti, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-242/005
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:11:44. **Bukatu**: 00:13:05
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Elosu auzoko baserrien izenak; Errekalde auzuneko baserriak

Transkripzioa

- Gero hemen Errekaldera pasau bihar dou guk, e! Kortaberri, Lutxurdio...
- Hemen agertzen da Gorostegi edo holako zerbait...
- Kosteí. Kosteí dok hori.
- Kosteí?
- Kosteí ta Pagola dittuk hor.
- Baiña hemen ondiokan falta jittuau, e, Lutxurdio ta honek...
- Bai, hamen... hamen...
- Amesti.
- Amesti. Beste zeren baten egongo dittuk, orduan.
- Bai, beste mapa baten egongo dia. A! Lutxurdio. Bai, hemen.

- A, bai. Horixe. Ta hau Kortaberri.
- Bai. Ondo dare?
- Lutxurdio bi bizitza dittuk eta ondo jak.
- Itxoin, itxoin...
- [...] zela esan dozu?
- Lutxurdio. Hau Kortaberri. Kortaberri bi dittuk, goikuak eta azpikua beste bat. Zuan. Oin ez dau esistitzen haura.
- Oin zein ez dau esistitzen?
- Kortaberri azpikua ez dabela hemen ipintzen ta, gaiñera, zera, ez da esistitzen oin.

10.138. Elosu auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Muruamendiaraz Oruesagasti, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-242/006
- **Iraupena**: 0:03:41. **Hasi**: 00:13:05. **Bukatu**: 00:16:46
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Elosu auzoko toponimia; Loidi eta Itxumendi tontorren ingurua.

Transkripzioa

- Tontor honek ze izen dauka?
- Hori Itxumendi.
- Itxumendi?
- Gero Altzasu. Sozidadia izengo da hori.
- Bai. Onduan beste soziedade bat edo dau?
- Bai, Askagain.
- Askagain? Artasoro gaiñian tontortxo bat dago, mendi-punta bat. Izenik badauka horrek?
- Hau... izena eukiko jok horrek, baiña neuk ez jaukat horren...
- Hori Josek jakingo dau.
- Ez, ez jakixat, ba... [...].
- Jarraitu eingo dou. Hau kantinia izengo da. Bidia jarraituta... Honek hau... ze izen dauka kantinia ala...?
- Bai, bai. Ta gero hor beste hiru soziedade egon bihar juek illeran.
- Txiki-txiki bat...
- Bai.
- Ze izen dauka horrek?
- Horrek zerak-eta jaukek Joseba [... Azkarate lehen] haren sozidadia dok hori. Ta gero bestia Larrañagana.
- Ez dauke izenik?
- Ez, nik dakidala ez, behintzat. Eukiko juek horrek be izena, baiña...
- Hemen tontortxo bat, beste tontortxo bat...
- Itxum... edo... Aizpurtxomendi, Aizputxomendi, Aizputxo. Ta gero hor lautada bat egongo dok.
- Bai.
- Lautada hori Aldaola.
- Bale. Gero...
- Hemen, zerian, Altzasu inguruan-ta hor beste soziedade batzuk be jarek. Hor [goiko basuori ta danak...] harutz.

- [...] Antzuolan jarek.
 - A! hori Antzuola?
 - Antzuolan jarek. Ya... Alzasuti haruzko errekatik haura dana Antzuola dok.
 - Itxumendittik harutz jarraituta tontorrik tontor, hor behian bidia kurutzau ta beste segiduan beste tontortxo bat dago.
 - Zer aldera? Bergara aldera?
 - Bergara aldera.
 - Hori dok Loidi.
 - Lehenengo tontorra?
 - Bai.
 - A! Hori da, e?
 - Hurrengua, pixkat beheratxua daona?
 - Loiditxiki.
 - Hori... tontor hauxe, horretxen izenik...
 - Gero beste bat dao... haundiña, ingurukoik haundiña.
 - Bai, bai.
 - [...].
 - [...] Eider.
 - Eider ez, Eider hemendikaldian dao.
 - Eidergaiña izengo da, e...
 - Amestiko bueltatik haruzko haura.
 - [...].
 - Ta hori Sakonaundi.
 - Sakonaundi.
 - A, bai.
 - Sakonaundi.
 - Baiña mendixak Sakonaundi [...]?
 - [...].
 - [Garisaille] behien dao, e!
 - Zabaleta burue Sakonaundi.
 - Beste izenen bat ete dan hor errezelua badaukat, ba, nik...
 - Harek mendi-puntak beste izenen bat eukiko dabe...
 - Neberetara, Neberak.
 - Bai, bai, Neberetara Beheko laua eta haren gaiña ez dakit... Ipini leike Neberak. Neberetagaiña edo... Neberetagaiña.

10.139. Elosuko toponimia; Iturriberi ingurua

- **Hizlaria(k)**: Muruamendiaraz Oruesagasti, Gregorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-242/008
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:18:40. **Bukatu**: 00:20:15
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Elosu auzoko toponimia: Kantina eta Iturriberi ingurua.

Transkripzioa

- Hor Kantina inguruan Iturrebarriko askia edo ez dao?
 - A, bai...
 - Hor Kantina inguruau berau... Iturriberriko askia ta...
 - Iturribarriko askia. Iturriberi. Itturriberriko zelaixa jaok hor.

- Kaninatik eta Bergara aldeko hau...
 - Ba. Aber, honek... Kantinatik... Hamendik... hauxe lauau dok Itturiberriko zelaixa, ointxe garena. Gero handikaldeko hori kurbia eitten dabeneri Itturiberriko askia.
 - Bale. Hor inguruan badao gehixao?
 - Ez.
 - Hor Itturiberritik behera doian errekiak badauka izenik?
 - Hori... Euki eingo jok... ez jakixat, ba, hori dan Eider-errekia. Behian Eider harrapatzen jok horrek.
 - Eider errekiak?
 - [...].
 - Hori, gaiñera, lehelengua Itturiberriko errekiak izengo dok, Itturiberriko askia honen azpizan nola daon, ta behekoa, behekoa ya...

10.140. Elorregi auzoko erreka eta iturriak; "Partilekua" toponimoa

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-250/002
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Elorregi auzoko toponimia; erreka eta iturriak. "Partilekua" toponimoaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Hau errekiak be rio Debara sartzen da.
 - Bai, Auntzerreka edo...
 - A! Ba, bestia hementxe egon bihar dok. Hauxe edo igual izen leike.
 - Hau dator... zuen zerera badao, ba, bide...
 - E? nun, nun?
 - Vamos a ver. Honako etxera hartzeko kruzian.
 - Horixe, bai! Ba, horixe!
 - ... eskumetara erreka onduan dao sail haundi bat [...].
 - A! Rio Deba honetan?
 - Bai.
 - A! Ba, hortxe, honaxe... hau da [...]. Lizardi erreka guk honitxi esaten jau.
 - Bai.
 - Erdi-erdittik [...]?
 - Bai.
 - Uritta... hau txaboliau esan bihar dostazue zein dan.
 - Horixe ez dakiu.
 - A! Ba, hau da lehen sasoe baten geure txabolia izendakua eta oin jausitta dao.
 - Eta ze izen zeukan?
 - Egon, egon. Uritta nun dao oin? Uritta, Uritta, Uritta terreno horretan [hemen] dao. Gero hemen Kamiñeruen txabolia dao [...]. Eta hau gure terrenua d... Hori da, hori da. Bertara [...] hau. Ta gero hau beste errekiak, hau da Isasiko iturririxak [daukana]. Hor beste txiki bat dao ta Jose Iturbena da hemen iturririxak dauen [...] Isasikua. Ta hemendik Isasira segittuan allegatzen gara.
 - Bai, hemen dao...

- Hori da! Isasi. Horrek die bi errekatxo. Oso txikixak die; hau haunditxuaua ikusten dau, hau txikitxuaua. Hau da Lizardi erreka guk esaten dotsauna. Eta gero honi bestioni... ze izen eukiko daben? Hementxe... Isasiko itturrixa hementxe dao, hau rio Debara sartzen danian hementxe. Kotzabalera... Hau Kotzabalera doian bidia da?

- Ez, pista bat da.

- Pistia bai, baiña Kotzabalera doian bidia da?

- A! Balitteke.

- Ez, hemenditti...

- A, bai...

- Hemenditti...

- Kotzabalera.

- Kotzabalera. Hemenditti...

- Barreneko hau, e?

- Bai, barreneko hori, bai, barreneko hori. Lehelengo Itsasiko etxia, Itsasiko etxia [...], Itsasiko etxetik hemen itturrixa, gero hamen hau guk esan doun Lizardi erreka, hemen [Gaberixan] zatitxo bat dao hemendik zihar [doia] Zabaldara ta Kotzabalera, Zabaldara lehelengo ta gero Kotzabalera. Guk [hor esan geinkena] Lizardi erreka, desdeluego hor alde horretakua.

- Bai, bai.

- Ta Lizardi erreka...

- Lizardi...

- Lizardi erreka, ba, gure [terrenua...].

- [...] Lizardi, Lizar... Lizarerreka da hori.

- Isasiko itturrixa egongo litzake hemen?

- Bai, Isasiko itturrixa hortxe, hortxe, hortxe.

- Honek bidepeko sail honek bidia ta erreka bittartian [...] kurba-kurban, horrek izenik badauka?

- Bai. Hori da Kanterazarra, guk esaten jau, Kanterazarra eta Kaminpea da hori.

- Bixak?

- Bixak. Gero honekin, honek beste terreno bat dauka iguala hemen erreka... erreka ez, kamiñu honek hemendikaldera lagatzen dabena, beste lau hektarea ta pikukua [oin] piñu landau [dabena]. Zuek gurera zatoztenian, [...] hartzen dozuenian hontara lagatzen dozuena.

- Ezkerretara?

- Eskumara lagatzen dozuena.

- Eskumara? Bai, [...].

- [Porejenpo]... A, bai. Hementxe, hementxe. Hori dok, hori dok. Honek dia bixok bat dia, bixok bat, eskitturetan [bat baleo bezela]. Porejenplo, ba, oin badao kamiñua ta oin dao trenbidia —bueno, trenbidia egon zan, igual da —, horrek repartidu zaben. Baiña hori oin, porejenplo, oin dala ehun urte, porejenplo, dana bat zan. Entenditzen? Gero repartuak gero egon dia, bai por el... kamiñuaaittik, bai trenbidiaaittik...

- Kanala...

- ... kanalak, zerrajerako kanalak... danak. Harek repartidu dabe.

- Gero hor hainbeste bideke tope eitten daben, trenbididiak eta honako bidia eta...?

- Horixe, horixe, horixe. Hemen, hemen, hemen.

- Horrek badauka beste aparteko izenik edo?

- Bai. Oso inportantia dauka horrek izena. Hori da Partileku. Eta guk betik esaten giñuan: "Hau ez dok Partileku, hau dok Juntaleku". Jeneralian, [...] bat etortzen zan Mondrauetik, [mezia... domeka...] eta hor egoten giñan apartau ezinda. Ta horrek Partileku dauka izena, baiña [...] "Juntaleku" [esaten gontsan...]. Jeneralian...

- Juntaleku ta Partileku be bixak...

- [...]
 - ... gero be kale askotara partidu [...].
 - [...] trenbide horrekin hori asko recuperau da. Ya trenbidia [...] egonda be... [...]. Hori da Partileku. Hori oso... hori San Prudentzio auzuan oso inportantia hori [puesto] hori.
 - Gero, zuen etxetik eta Otsaitzerreka bittarteko, hola... hola, aldapa gutxiko sail batzuk, horrek badauke izenik?
 - Horrek dia danak Lasao.

10.141. Elorregi auzoko toponimia; "Galopoto" toponimoa

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-250/003
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Elorregi auzoko toponimia. "Galopoto" toponimoaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- ... Horrek, hementxe, hauxe da Lasao. Puskatxo bat etorri trenbidian, trenbideko [horretan] behera ta, bueno, trenbidetik etorri, ez etorri, [...]. Hau be Lasao asko dao repartiduta kanalaaittik, eta trenbidiak, en aquellos tiempos. Oin be [...] egon arren. [Itten dabena], hau [Otseitzerreka] ta honek al rio Deba ekartzen dau, ta hau da Lasao.
 - Eta erreka bestekaldekuak badauka izenik? Ze beste batzuk uste dot Lasao...
 - Hori desguazia daon lekua.
 - E?
 - Hori kotxiak eta daren...
 - Bai.
 - Ez, ez, ez. Hori, porejenplo, Martin Larrañagak esan dotsue?
 - Ez, ez.
 - Balentin Gorosabelek.
 - A!
 - A! Balentin Gorosabel? Ez, harek ez dauka hor [...].
 - E! Berak eukitziakin ez dabiz honek, izena [jakin] nahi dabe jakitzia!
 - A! Izena nahi dabe...
 - Lasao da hau, porejenplo, e! Hori esango dotsue, baiña...
 - [...]
 - Horri Bentako horri zela esaten zotsen, oin txatarrerixia ta daona? Hori lehen zan birena, Bentakua. Kontxita Iturbe? Ba, haren aitziana ta [...].
 - A! [...]?
 - Baietz, baiña...
 - Barrenabitta hori.
 - Hori be...
 - Bentakuak...
 - ... guriak be bai, guriak be bazeukan hori Barrenabitta ipini jau izena. Guriak be bazeukan Barrenabitta, e! Bazeukan Barrenabitta, baiña Barrenabitta gehixau da hau. Guk beti Kanterazarra esaten jau horri. Edo Kaminpea. Bixetatik bat. Bueno, bixetatik bat hori izenori.

- Eta Bentakuak [... ebizenian] be Barnabitta [esaten zotsen].

- Bai, horri Barnabitta esaten zotsen. Zuk lehen [...] ipini dozun terreno hori ta Lasao daukan horrek Barrenabitta [zan].

- Ta gero Galopoto edo holako zeoze?

- A! Bai... [...]

- [...]

- Hori xelebria da, hori jakitzeko modukua da. Sail txikixa da?

- [...]. E?

- Sail txikixa da?

- Bai, sail haundixa ez da. Hari be... harek be Galopoto esaten jau, porejenplo, ba, baso bat puskat repartiduta. Galopoto uste dot nahi dabela esatia "garo poto", garo ona eittia, [...] edo...

- Bueno, bertan... geuk ipinittako izena izengo da hori, baiña junto egongo da [bestien aldian...]...

- Guk zela ipiniko gendun, ba, izena? Gu jaiotzerako ipinitta zeuan hori! Eskitturetan...

- Bueno, ni [...]!

- A! [...] ez dakiu, ba, [zein dan], baiña, ba, zeoze nahi dabela signifikaziñua badaukala. Garua ona itten zalako be bai, terreno ona. Ta gero hori, guk zati bati Galopoto esaten jau ta gero bestiai Errekalde esaten jau, baiña haura dana izen leike Galopoto. Entenditzen?

- Bai, bai.

- [...], porejenplo, puskat Galopoto hori izetiori aittajunak gure aittai ez zotsalako laga hango egurrak botatzen bihar edo etzi be egurretarako biherko dala ta bestia ta bestia [piñua sartzeko]... Gure aittak, porejenplo, piñua sartzia nahi. Ta beran aittak ba: "Hi, gero be biharko dok egurra ta bestia" ta halako zati bat...

- Laga.

- ... laga ein zotsan. Haura, ba, porejenplo, dana Galopoto izen leike. Haura dao en el río Deba, vamos hacia [...] ta hementxe. Hau...

- [...].

- ... hemen [...] ta Galopoto hementxe dao, hau [...] da, Elkoarteko bidian azpitan, Elkoartera ta Abeletxera doian bidian azpitan.

- Elkoarte...

- Hau.

- Hau, hau, hau,

- Hau, pista hau.

- Bai, horixe. Hementxe dao uneori Galopoto esaten jakonori.

- Gaiñeko hau da Olondo edo esaten jako, ez? Elkoro... Elkoro baiño azpikua?

- Bai, bai, bai. Olo-ondo esaten jaue bai. Hau oso ondo ein [zeikitzukiena] da Jose Mari Mujika Abeletxekua. Elkoarten bizi dia oin. Hau Olondo hau harek asko ezautzen dau. Oin berak hau territorixo danau be berak erosi dau hor. Ermittia bertan dao. Egon zate Elkoarten? Egon zate?

- Bai.

- A!

- Ez, [...] entrebistia eitten ez gara egon, e?

- [...]

- A! Elkoron egon zate?

- A! Elkoron egon zate?

- Baiña Elkoroarten... Bueno, zuen modukorik ez noia esatera. Ostian, extranjeruak eta be etorri dia hori eliziori ta basarrixa ta ikustera. Harek. Hau asko haretzek, hori Olondo hori haretzek asko esplikau bihar dotsue, oso asko harek esplikau bihar dotsue. Berak oin erosi dittu [...] hor ta hor dauka esplikaziño asko berak dauka. Ta lehen bertan bestekaldian beste

hainbeste terrenokin bera dao bizitta, beranak dia bestiak be. Harek asko esplikau bihar dotsue. Neri pentsau eitten jate.

10.142. Elorregi auzoko toponimia; auzoaren mugak

- **Hizlaria(k)**: Larrañaga Agirre, Jose Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-250/004
- **Iraupena**: 0:00:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:00:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Elorregi auzoko toponimia; auzoaren mugak.

Transkripzioa

- Ta gero hor Isasi gaiñian [edo bai] zerbait, hola, aparteko izenakin?
- Isasittik gora segittuan beti Sospitxu ta Sospitxu.
- Bai, [...].
- Baiña hori da samurrena entenditzen.
- Bai, horixe...
- Sospitxu [be bat dao] hemen, baiña gero hor be badare terreno [...]. Ta batek eukiko dau, ba, Sospitxubarren igual izena eukiko dau, [...].
- [...].
- A! Hola, hola, hola. Bai. [...].
- [...].
- Bueno. Orduan, honen izenik ez zekiun, ez? Hau Isasi iturririx ta...
- Bai, bai, Isasiko iturririx hementxe. Hau [hurrengo doian] errekatxuo...
- Honek ez zeukan izenik?
- Ez, ez.
- Agortu eitten bada...
- Bai, bai, agortu eitten dia, horrek bixok ixa agortzen dia, e? Bixak bajatzen diaz.
- Oin, ur haundixa edo euri haundixak dianian, mobimentu haundixa honek eitten dau, e!
- A, bai, bai, bai.
- [...].
- Horrek oso baso asko harrapatzen dau.
- Bai.
- Baiña gero udan, ba, asko sikatzen da hori, asko [...] da.
- Dana sikatu. Baiña baitta ur haundixa edo euri haundixak eta baldin badia, oso ur asko juntatzen da horra. Asko, baiña!
- Bueno, aber, ze [...]?
- San Prudentzio hasten da Bentabarrin, ezta?
- Bai, [...].
- Eta Ola nun sartzen da? San Prudentzio barruan ez, baiña... Isasi Ola barruan sartzen da?
- Isasi ez!
- Bai. Isasi zera da, e?
- Olan euki bihar dozu Bentabarri eta Isasin barruan euki bihar dozu, e!
- Baietz, ba, hori badakixe. Baiña...
- Baiña Isasi [...] da, ezta? [...] sartzen da.
- Ez!
- Bai!

- Ez!
- Bai!
- E, zera...
- Isasi [gaiñeko etortzen] da [...]. Isasi [gaiñeko] da [...], e?
- Bai?
- Bai.
- [...] da Olaraiño bakarrik.
- Olaraiño bakarrik nik uste neban. Nik uste neban, e?
- Baiña [...].
- Ez, baiña Ola [...].
- Plano hontan...
- [...].
- Dana dala, Ola, Ola izango zan [Tiopitxo] aldera, ez?
- Hori, horixe da. Hori, hori, hori. Hantxe geratzen da hori zera.
- Bestela, izen, San Prudentzio da Bentabarri eta gero Artzubi.
- Gero Artzubi.
- Bai, [...].
- Bai, bai, [...].
- Etxaube-ta ez dia San Prudentzio?
- Ez dia, ez.
- Ez dia San Prudentzio. Horrek sartuko dia Mendizabal alde horretara, ez?
- Bai, [...].
- Baiña Elkoro-ta danak?
- Bai, Elkoro-ta bai.
- Baiña...
- Elkoro San Prudentzio da? Ez da!
- Bai!
- Gero, Elgetatik eta [...] errekatik eta hona Abeletxe aldera, San Prudentzio auzo barruan badao auzo-unak edo bi parte horren izenak?
- Zela? [...] entendidu, e?
- Horrek esan nahi dabena Elkobarti alde bata doia errekatxua eta bestia da Aierdi hau alde hau.
- Ez, ez, ez. Nabil San Prudentzio auzuan barruan auzo-unaik badaon.
- Ez, ez, ez.
- Ez, ez. Auzo-unia... ez dakit zela esplikatzen dan... honen... santuarixua edo...
- Bai, San Esteban edo hori?
- San Esteban.
- Bai, ba, hori, hori...
- Baiña ez dauka aparteko...
- Horrek ez dauka [...]. Hori... lehenau sasoe baten Gatzagatik eta dana mezetara hona etortzen ei zien.
- A, bai?
- Bai, hoixe!
- Orduan igual ez zan egongo ez San Prudentzio eta iñobez. Entenditzen?
- Bai, bai, bai.
- Ta Gatzagatik beherakuak danak horra etortzen [...].
- Bueno! Hori zenbat izengo die hori zala?
- Urtiak...

10.143. Murinondo, Aranerreka eta Elosu bitarteko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Narbaiza Azkarate, Leandro

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Azkarate, Miren Pantxeske
- **Erref**: BER-251/001
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Murinondo, Aranerreaka eta Elosu auzoen bitarteko toponimia.

Transkripzioa

- Honen izena badakizu?

- [...] de la casa pa´allí [...], del otro barrio?

- Bai.

- Beistegi gaiñian...

- Gaiñarre.

- Gaiñarre... Eta gero Miaka badakizu nun daon, ez? Hamendik be ikusten da. Ta Miakatik aurrerao beste tontor bat dao hor, ez?

- Laudatz buruan daona?

- Bai.

- [Laudatz...] gora. Harek izena ez dakit izena ze esaten jakon. Horixe ezin neike... Handik gorakuai bai, [geuk ipinittakua]... Sakonaundittik gora hori, Loidi, [sua egon zanori], Beisteikoegieta.

- Hori da... bueno, hemen, mapa hontan, ez da ikusten, baiña hor dauana.

- Mapa honen eskumakuak?

- Bai.

- Zela esan dozu izen hori?

- Beisteikoegieta, Beisteikoegieta, Beisteiko hegixa esaten jao guk, Beisteikoegieta horixe da: Beisteiko hegixa.

- Eta zela da... Loidi edo Loidi gaiña edo hamen gertu dao? Eske lehengunian amakin pasiatzen jun giñanian pasau giñun hori Gaiñarre esaten dozuna zuk...

- Gaiñarre da Miakatik beherako tontorra. Bueno. Hortik gora, Miakatik gora gaiñera gora ixotakuan Loidi dao Akelarretik aurreraoko laua. Akelarre hori, badauke honek sozidadia Torretxeak eta, Torretxeko igeltseruak eta. Hor Amestira goietzela zuek badakizue tunelbokia nun daon, tunelbokia, lehenguana, urana, ez dozue jakingo... Neberak be ez dozue jakingo nun daren... Neberetan dao horren... lehen Araneko txabolia erosi zebe horrek. Handik gorako laua da —kooperatibiak oin dabillena— haura da Loidiko laua. Ta han dao zulo bat ta esaten gontsan, ba, oiñaztarrixak sartzen zien, ta Sorginzulua esaten jakona. Haura da, Loidi haura da. Gero handik honutz behera honutzao berriz dao beste tontortxo bat Pagolatik honuzko hori, hori Itxumendi. Itxumendi horri be. Gero beste Itxumendi bat dao emisoría daon aldian. Hari be berdiña esaten jaue.

- Bi daz orduen...

- E?

- Bai.

- Itxumendi. Ta hori tontorra da, ba, biribilla dalako hemendikua be, ta handikua be halaxe. Emisoría daona bestia. Horrek bixok [...] horixe izena. Gero Loiditxiki dao beste bat horrek bixen erdixan. Lastorrittako sailla —oin linea pasatzen da— ta [Itsasmendira kalera bajauta ... Narbaizak]. Horretxek dia hor daren izenak. Ta gero handik behera Gartzain, Gartzain da, ba, itturrixa [dao Gartzaiñen], Gartzain dauka harek izena aldapa zaharra galanta. Ta lehengo Elusuko bidia, printzipala, Irutxaboletan etortzen zan. Zuek Irutxaboleta be ez dozue jakingo nun zaon?

- Bertan egonda ez, baiña...

- A! Ba... Bertan pasauta bai...

- Bai.

- Zabaleta burua da Irutxaboleta, oin ez dao txabolarik baiña.

- Bai, hau...

- Ta handik behera gero, ba, [...] aldera [... Abraiñera].

- Bai, eta gero hamen, irten, ez? Ataixa [...] kanpora, ta hor goixan ikusten dan... ez dakit mendixa dan edo tontorra dan edo...

- Hau berau, gaiñau?

- Bai.

- Hau beronen puntia goiko gaiña ala honena?

- Ba... Azpilletatik gora.

- Baiña haren puntia?

- Bai.

- Angelburua haura, e?

- Bai, hori. Haura.

- Angelburu. Haura da, baiña mendi honen tontorra, ya prinzipala.

- Bai, bai, bai.

- Gero guk txabolia daukauna, [...] beherao daona, hori Goiko-laua. Beste izen bat.

- Goiko laua izango da...

- Anguako etxaburua.

- ... hara gora juteko [...]?

- Anguako etxaburua.

- Hemendik jun bihar da.

- Anguako etxian pare-parian dao gaiñekaldeko [...] Goiko laua.

- Hauxe izan leike...

- Ze dao, gutxi gorabehera gaiñetik etxera bittartian?

- Azpilletatik gora junda, oin... goratxua, oin ganauak hor dabitzen lekutik Miaka aldiaren kanpo-fubolan tamaiñoko lau-unia dao. [Zergatikan], e... soldauen txabolia eukittako... [...], baiña izena dauka, izetex, Goiko laua. Mendi honek ez dauka beste holako lau-unaik. Kanpo-fubola eitteko tamaiñokua dao. Oin [...] hanka eingo leukiela oin zerak, baloiak, baiña bertan erdixan geu be ibili izen gara ta [...] lekua edarra. Goiko laua esaten jako. Ta beste bat, terreno bat, hau guria, harek izena, ba, aparte. Baiña harek ez dauka... haura... Itxikua.

- Itxikua?

- Bai, Itxikua.

10.144. Aranerreka auzoko toponimia

- **Hizlaria(k):** Narbaiza Azkarate, Leandro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirre, Elisabet - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Azkarate, Miren Pantxeske
- **Erref:** BER-251/002
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:10:00
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Aranerreka auzoko toponimia; Larrarte eta Azpilleta baserrien inguruko sailen izenak.

Transkripzioa

- Itxittakua. [...] guk esandakua, baiña Itxikua. Itxi, itxitta zeuan holan, besterik ez zeuan.
- Eta hori nun esan dozu daola?
- Sozidadian, ba geure [...].
- Ta lehengunian hamen baserrixan inguruan hor esan ziñuan izen batzuk...

- A! Etxetik beherakuak?
- Bai, beherakuak edo gora edo...
- Etxeko terrenotan daren izenak? Hemen honek die [Karakolak], hau lehengo [...] honek. Hori Bidebittartia esaten jau.
- Bidebittartia...
- Hori esaten jau Sagastipia, hori etxeosteko sorua da. Gero hori esaten jau, honi... dana [...], bertan etorritako arbola txastar batzuk eta... horrek goittik behera Sagastipetik behera, ba, [zumia] egon zan hor epoka baten. Hori Beheko zelaixa. Guk ez dou ezautu zelai, baiña izena...
- Izenak esaiozu! [...] izenak esanda.
- Gero hemen dao... lehen be esan dot eta [...], hauxe pusketia da, oin piñua [...]...
- Baiña hori nun dao hor behian edo...
- Zapatarikua dauka honek izena. Hemen etxia neuk emon dot erre kara hemendik, Zapatariko bidia izen zan.
- Hor behian...
- Errekian onduan! Errekatik [...]. Hau erre kia... Hemen zela igarriko jatzu, ba? Horrek dauka izena... Horrek gure terrenuan barruan daren izenak dia horrek. Ta beste aldetik, ba, Ziarretakua ta Maaspikua ta horrek danak dare illaran. Larrañagatxikikua ta... berak konfinatzen dittuen terrenuak konfinatzen dittuanak. Ta behian, ba, limitia, topia, ba, hau goittik behera etortzen dan [...], ba, pixkat. Oin, tope hori, ba, hori da erre kia, behera estutu eitten da ta.
- Bai, bai.
- Honek be badauke izena. Honek be, hau Gaztaiñazarreta, gaztaiñaixa izandakua dalako, [...]. Gero horri Txarakua esaten jau, ta gero horri Aldaizarra. Ta horren goitti Anpolaialdia.
- Anpolaialdia hortik zihar dao, ez?
- Bidian aurrera junda.
- Zabaletako bidian?
- Zabaleta aldian, bai.
- Anpolegi.
- Hau da gaiña. Honek, gutxi gorabehera, bai, honek, berdez darenak die tontorrak. Hau da Irutontorreta.
- Irutontorreta. Errosaixo basua hementxe doia.
- Hauxe da, ba. Halakon bat ez?
- [...] barranko haundi bat jaukak.
- [...].
- [...] Errosaixo basua. Beitu, e? Errosaixo basua ikusten dok han?
- Bai.
- Goixen, hola. Hau handikalderako partian bajadatxua [...]. Handik hurrengo basua kriston barrankua dok, hemen baiño barranko haundixaua jak. Barranko haundixa. Hori zera zuan lehen angiozartar batzun piñudixa, Sozidadeko basua esaten otsen horri. Ta hori basuoi oin dala lau-bost urte edo saldu ein eben, ta Zubillagako Kortak erosi eban. Atzera zertuta dao, piñu sartuta dauka. Oin, nun...? Ez juat entenditzen hori.
- Bai, bai ipinitta daukat, e? Gutxi gorabehera, bai.
- Bai?
- Bai.
- Bueno, bueno.
- Bai. Tontor hori da...
- Hau...
- Bai, bai, hauxe pareko... erreketxura allegau barik.
- Bai, errekatxura ez dok allegatzen. Bata be ez dittuk... Bi sail dittuk, bi sail. Dok formia [...], sail baten formia hoixe dok. Honena. Kantoia, e? Behera. Hau [esaten dot], kanto(i) bat honaiño; gero bueltan hona, zeharkatzen dok eta hona behera, hona behera. Ta bestia hona tiratzen jok, beste hanka bat. Hemen erdixen daukou beste baten adarra.
- Errekatxuak ze izen esan dozu?
- Errekatxuak... harek [ez jaukak errekatxorik].
- Hor behera datorren hau?
- Ez, behera datorrena Otsaleierrekia. Nik esan dostat hori, Otsaleierrekia, hona beheraiño. Gero han goixan harek eitten dittuk, hiru errekatxo juntatzen dittuk batera.
- Horrek apuntatzen [hemen]... Bat etorri bihar da hemendik ta bestia handik. Bai?
- Hiru errekatxo juntatzen dittuk. Guk esaten dotsau Aldaiko... gure [posturetakua], e?
- Bai, bai, bai.
- Aldaiko txabolazarpeko errekatxua.
- Hori zein, ezkerrerao dauena?
- Ezkerrerao. Hemendik ez dok ikusten.
- Zein izango litzake?
- Erdiko beroi, [...] Aldaiko txabolazarpeko errekatxua. Errekatxo txikixak dittuk, e, [zatitxo batzuk] dittuk. Eta bestia honutz hemendik, handik gure aldera etorri ta hor, piñua, [atzenengo piñua] ikusten danetik hara kriston barrankadia dao beste alde honetara be. Askasibarboluko txabolapeko errekatxua guk; guk, e? Harek eukiko dau beste batendako beste izen bat.
- Ta hemen dauen tontor honek?
- Hori gero esango dostat hori. Ta hirugarren errekatxua Trangotako errekia. Lehen esan douna.

- Zela?
 - Trangota.
 - Eskumako hori?
 - Bai, hirurak juntatzen dien une haura Trangota arrua, guk. Akotau basotik behera datorrena.
 - Itxoin, Akotau basua zein zan?
 - Horrek lehen, ba, Angiozarko soziedadia zuan, hor. Bederatzi propietarixo zittuan, [???nekua] ta, Elgetako be bai [Ubarixakua, Ubarixa txikixa], ta bederatzi sozio. Ta harek saldu in juen hori basuoi. Eta saldu juen basua egur ta guzti ta Zubillaako Korta horrek erosi. Ta oin atzera plantauta dauka piñua.
 - Ta hori zeroi nun esan dozu gelditzen dala?
 - Errosaixo basua esan juau, ba?
 - Bai.
 - Errosaixo basotik hurrengo haruzko piñudixa ikusten dan [bittarte horrek], zer haundixa, barranko haundixa.
 - Hau zonan hogeta hamabi? Ta Trangua?
 - Trangota arrua hau.
 - Baiña ze numero?
 - Hori, hori, Trangota arrua.
 - Hogeta hamasei.
 - Hori guk, e? Oin, beste batek eukiko dau beste [postura] bat.
 - Baiña hori bihar dou, zuek zela esaten dozuen.
 - Zeuek esaten dozuena, e? Hor ez dao.
 - Ta gero honi, tontor honi, guk esaten gontsan Belako tontorra. Guk, e?
 - Hogeta hamazazpi.
 - Bai.
 - Belako tontorra ta Basaldei, horrek izen bixok ibiltzen zittuen horrek.

10.184. Aldaiegia auzoko toponimia.

- **Hizlaria(k)**: Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-257/003
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:05:46
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Hori, e, hori [altun] dao.
 -Altuana?
 - Bai. Ta horren ostera jak zer haundixa atzera, bajada hundixa. Basaldeiko laua handik hurrengo, Basaldeiko laua.
 - Hogeta hemezortzi?
 - Bai
 - Oin, beste zelebrekerixa bat daok hor, handik [jun] lautada hortatik, harutz, sail haundi bat [dao], Beitzibarreko sailla dao, hari esaten gontsan Katenbideta .Gure izenak, e? Oin gu horrekin entenditzen gara.
 - Ze da basua?
 - Basua, piñua jak.

- Lautik, hola, pixka bat eskumetara, ez?
- Hola, laua, e? Ta laua gero Irutontorretara joiak. Ta sail haundi bati Katenbideta. Guk, e?

10.185. Aldaiegia auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-257/004
- **Iraupena**: 0:04:14. **Hasi**: 00:05:46. **Bukatu**: 00:10:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Belakotik behera hor ikusten dok, holan, sakontxo bat?
- Bai.
- Notatzen dozue, nik ikusten juat, baiña...
- Tontor haundiñetik honutz, ez?
- Eskumarantz.
- Eskumara, bai.
- Laiñua ikusten dok gaiñian. Koskoltxiki arrua. Horrek bihar dittuzue, horrek izenok?
- Bai, bai bai, horrek jo ta fuego, danak. Bestela horrek galdu ingo die, Jesus Marik erdixak jakingo dittu, ta hurrengiak gutxiao ta...
- Gero Koskoltxiki horretatik honutzatxuau juntatzen dittuk, ba, bat, bi... lau bide be bai. Hiru bide. Kurutzia. Nun dauen hor nik ez [dostat] esango, e? [...]. Kurutzia. Ta handik hona, Otsalai aldera, Otsalaiko pista aldera jo, eta beste barrankada bat jak, [Beitzibar...] bestekua [Baldezarreta]. Piñu jak. Horrek komeni jatzue ala ze ala... horrek dittuk?
- Bai, bai, bai. Hor, piñudixa?
- Piñudixa, piñudixa, dana dao piñua. Ta Baldezarreta horren azpitan jak beste baso-sail haundi bat, Ipintze sailla.
- Errekatxo ingurua ya?
- Angiozarko errekoa zein dok? Edo... Otsalerrekoa zein dok?
- Hau.
- Ba, honetxan kontra pegante jak, mugarrixa jaukak azpittik, errekoa azpittik. Ipintza sailla. Hori, Ipintza basarrixa dao hor Bergaran kanpofubolan onduan? Ba, hangotxia.
- Beste... hemen, aurreko tontortxo hau ?
- Hau tontorra? Bueno, harutzaokua nahi badozue nik esango dotsuet. Beste [...] tontor bat daok... Hemendik ez dok ikusten, e? Irabasisaillako tontorra. Baso muturtxo batzuk, e? Ba... muturra ez, sail haundixa da.
- Ta hori nun egongo litzake?
- Hori Otsalaierrekoa zein dok hamen?
- Hau.
- Bueno, ba, honetxan pegante barrena [itten jun]... Hori ez juat nik entenditzen.
- Ipintzako sailla baiño beherau?
- Ipintzako saillan kontran. Ipintzako sailla nun markau dok hamen?
- Gora begira jarritta, ezkerretara?

- Bixak ezkerretara, pegante, bixak pegante jazek, piñudixakin elkar jotzen juk. Eta gero, hori esan dot, Irabasia tontoretik gorako hori basoori, Beitzibar erdikua edo, Beitzibarreko esparrua. Hori...

- Gorau?

- Bai, horreandik gora.

- Zela esan dozu hori?

- Beitziberreko esparrua. Esparrua, ta Esparrupia ta horretzek. Guk ganauak ibiltzen giñuzenian, ardixak ibiltzen giñuzenian, ba, "Nun [jebizten]?" Ta "holako lekutan", Esparrupian, Esparruan edo esaten gontsen. [...]. Hau tontor hau, hau aurreko tontor hau, [honek piñudi honek], [...] harutzatxuau jak beste sail bat guria, Baldezarretatik hona, gure aldera. Piñudiaundixa esaten gontsen guk, geure basua da. Honek tontortxo honek izena politta dauke: Sorginzelai. Ta [...]. Hor Mozolotei be bazuan behian, [...] basarrixa.

- [...] zein da? Baserrixa zeuan hor?

- Basarrixa. Oinddio zimientuen harrixak jazek, baiña ezkutauta jak. Otseleiko errekiak kontra-kontra-kontran. Horixe izengo dok...

- Hauxe izengo da.

- Ba, kontra-kontran jak. Mozolotei. Haura desaparexiduta dao.

- Mozolotegi izena zeukan harek?

- Mozolotei izena.

- Inguru horretan...

- [...].

- Baserrixak. Eta gero bason bat edo badao hola deitzen dotsazuena, edo inguru edo?

- Baserrixa zuan Aldai azpikua, baiña etxian izena zuan Mozolotei. Mozolotei hori. Eta gero harutzatxuau horrek tontor horrek [... dauen] aldera, Antzolako bizkarra, guk esaten dotsau Antzolako... hori tontor [... aldetik hona] ezkerre, Antzola, [Aldaiazpiko] basua, Antzola, bizkarra ta Antzola sailla.

10.186. Aldaiegia auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-257/005
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:10:00. **Bukatu**: 00:15:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Ta hau beste hortik Eudi alderako barranko hori, hori sakontxo hori Iskueta arrua. Hau, e? Horrek errekatxua dauka goittik behera errekaraiño.

- Ta errekatxo horrek izenik bai?

- Iskueta arrua.

- [...]

- Errekatxo horrek izenik bai?

- Iskuetako errekiak guk. Guk hola esan izen dou. Oin, zela izengo da? Ez dakit.

- Eta inguruai, Iskueta arrua?

- Guk hori. [Horixe da barrankotxua]. Iskueta arrua ta gero, ba, hortik Iskuetako errekoa beheraiñok. Saillak batanak eta bestienak dare, baiña, Iskueta arrua. Hamen gure barrenian, oin urte askoko kontua izen bihar jok, [Jose], hemen jazek gure basuek, behien, bi baso pusketak. Izena jaukek Bolalekua.

- Hortxe justo barrenian?

- Hamentxe, hamentxe.

- Errekian beste alde edo nun?

- Zelaixen kontraraiño. Ez, handikaldetik, bidia, joteraño. Bi baso jazek, Beitzibarrerdikua erdixan, ta geuria. Alde banatan. Ta jaukek izena Bolalekua. Ta hor oin urte asko zala ei zan Bolalekua, jokuan eitteko. Hori nik entzundakua, nik ez dakit.

- Bai, bai, hola izengo zan. Izen hori eukitzeko, ezta? Horri basarrixai zela esaten dotsazu zuk?

- Eudi.

- Bizkar horrek izenik badauka, Eudi azpitan dagan horrek?

- Dios! Entzun, erok esaten jauena Aitzako za... tontorra. Aitzako zabala edo tontorra. Behintzet zeoze hola nahasten dittuk. Oin, nik esango dotsuet, hor Eudittik harutz bajak, ba, tontorra? Tontor hortatik honuzkuak, e? Haruzkuak [...]. Tontor horrek goittik hasi, han Belakuan esan doun... Basaldeiko tontorra ta Belako zabaletik beherako [arrankadatxo] hori Altzeta arrua. Horrek errekoa jaukak txikixa baiña beheko errekaraiño.

- Beheko baserrioi, erreka...?

- Beste bat jak, beste baserri bat jak bittartian, apurtutakua. Ta hori bizkar hori, Arantxobizkarra. Eudittik haruzko tontortxo hori, Arantxo, bizkar hori. Hortik aurrerakuak Gaittaokuak esango dotsue. Terrenuakin... Eudiko etxetikan behera ikusten dittuzue harek bi zuri-una harek? Ba, haren azpikaldian jak beste etxe bat zaharra, apurtutakua. Haura Amuskibar Etxebarrialde.

- Hemen beste izen batekin dao.

- Hor hartu dittuzue nunbaitetik.

- Juanek esan oskun horrek. Amuskibar Zaharra esaten otsan harek.

- Amuskibar zaharra [...]. Hemengo nere aman... amandrian etxia haxe. Gure aittan ama han jaiotakua zuan. Izena ez naiz akordatzen. Manu... ez. Izena ez naiz akordatzen. Gero beheko basarrixa Amuskibar.

10.187. Bergarako auzo eta auzuneak; mugak

- **Hizlaria(k)**: Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-257/006
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:20:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Bergarako auzo eta auzune desberdinak; mugak. Toponimia.

Transkripzioa

- Ta han parian badauka beste etxen bat edo Amuskibarrek?
- Amuskibarbolua. Noizbaitten errota izendakua.
- Auzuai zela deitzen dotsazue, zeuen auzo honi edo?

- Ba, lehen esaten zuan Sankristol auzua ta oin, ba, Aldaiegia auzua.
- Gero, gu bizi garan herrixai zela deitzen dotsazue?
- Angiozarri? Guk Angiozar.
- Auzuak, Angiozarkuak?
- Ba, Partaitti, Aixkoneta, Mainddao, ta Zabaleta auzua guk, Zabaletamendi [...] bezela...
- Ta Gontzarri hau, honek?
- Goimendi.
- Ta hau beheko hau? Loidi ta honek?
- Bertako hemengo auzua, Sankristobal, bertako auzotzat guk, ermittakuak dittuk eta.
- Ta Errekaldia edo ez daukazu hor?
- Bai, Errekaldia ta hau oin esan doten izena dana bat, Aldaiegia auzua eta Errekaldia bat. Bat.
- Bat eitten dozue?
- Bat. Sankristobal auzua bat.
- Osea, Errekaldia eta Sankristobal auzua berdiñak die?
- Berdiñak. Errekaldia hau danau da ta Sankristobal auzua be bai. Ta oin etorri da aiuntamentutik hor daona, Aldaiegia auzoa, hori tokatzen dala ta hori, ba...
- Eske Angiozarkuontzat Errekaldia da honarte, errekako mugara arte.
- Danai esaten dotsazue, ez?
- Bai Errekaldia ta...
- Loidi aldia be esaten dotsau, baiña Errekalde.
- Ta Errekalde hemen edo... hau, Sankristobal auzua, goittik noraiño izango litzake Errekaldia? Aixkunetakin tope nun itten dau ?
- Aixkuneta partia? Angiozar partia?
- Bai, Aixkuneta nun hasiko litzake?
- Elizaz Askaxibarbolan, Angiozar partia elizaz, nik uste juat. Ez jakixat, ba, nik...
- Gero hor kamiño honek, errebueltak eta darenak, hari zela...?
- Uspe.
- Uspe Aixkoneta izango litzake ya?
- Bai, Uspe bai, Uspe Aixkoneta da. Terrenuak dittuk Uspen Aixkonetakuak.
- Errotia be, zera da ez, Axxkuneta?
- Errotia? Basarrixa Aixkoneta. Aldaitxarrena, ba, Aixkoneta izango zuan. Bolintxo Angiozarkua izango dok. Edo?
- Aldaitxar... zein esan dozu hor?
- Aldaitxarreneko errotia.
- Zein da hori?
- Hori apurtuta jak. Oin ipiñi juek aiuntamientuko zera, hori garbitzeko hori.
- Bai, depuradoria.
- Depuradoria. Hantxe onduan jak txabolatxo bat.
- Uspetan behera datorren errekatxuai izenik emoten dotsazue?
- Usperekia guk, guk besteik ez.
- Honutz dauen beste errekatxua, Arreittik behera? Arreittik behera datorren errekia?
- Urrango errekia.
- Ta gero hemendik datorrena?
- Aldaiko errekia? Ez jakixat, ba, ze izen eukiko daben, zela nonbrau neikien hori, Aldaierrekia esaten juau eta. Aldaiko etxeondotik pasatzen dok eta.
- Han txabolan bat edo badao errekatxo horren han goixan. Izenik bai harek?
- Bai, Kirimaingo txabolia.
- [...].

- Motrallu apuntau dozue?
- Motrallua, zein da hori?
- Txabola horretatik Angiozar alderatxuak jak holako mendi tontortxu bat Motrallu izena daukana.

10.188. Angiozar eta Aldaiegia auzoetako toponimia

- **Hizlaria(k):** Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref:** BER-257/007
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:25:00
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar eta Aldaiegia auzoetako toponimia.

Transkripzioa

- Txabolia nun jak?
- Hau, eta hau Arrei.
- Hemen bittartian jak. Hortxe dok. Arrikotxo nun jaok hamen?
- Arrikotxo hau.
- Ba, hemen, hementxe.
- Halakon bat?
- Bai, Motrallo.
- Honi gaiñoni izenik emoten dotsazue? Arrikotxo han pare-parian behetik gora begira jarritta, hola, Arrikotxo, pixka bat ezkerretatxuau, hola, tontortxo bat edo gaintxo bat edo. Izenik bai?
- Elgeta aldera?
- Bai. Arrikotxo pare-parian, e? Hola, lautada bat edo...
- Arrikotxotik Elgeta aldera. Nik ez, nik ez jakixat horren izenik.
- Han, Arrikotxotik hemendikaldera?
- Bergara aldera?
- Bai. Haundiñai, tontor haundiñai, izenik bai?
- Guk esaten gontsan hari Txarako zelaixa.
- Gaiñai?
- Gain-gaiñai. Oin aiuntamentuak ein dau kasetatxo bat be bai ta [...] lineak be hantxe jazik, eta guk Txarako zelaixa. Guk horrekin. Ta gero handik honutz, honek Aldaiko esparruak jazik, Aldaiko esparru guena guk. Baiña...
- Handik honutz?
- Handik hona, gure aldera. Beltxorren aldera. Eta gero hori Txarako zelaixa akabatzen danetik hamentxe pare-parian dao bestia, zerana, Herriko basua ta, Meltxorreko esparru gaiña.
- Oinddio gaiña baiño...
- Bergara alderao. Ta gero honen kontra-kontra jak beste izen bat jaukak, Bostaitzeta, Meltxorreneneko sailla dok. Honen kontra, honen pegante jak.
- Ya gaiñian?
- Hementxe, hementxe jazik, hortxe, [...] par... gain-gaiñian, gain-gaiñian. Horren pegante. Ta horren segidan, igual ipinitta eukiko dozue, haura gaiña Kurutzia mendixa, Kurutzia gaiña. Hori ipinitta igual eukiko dozue.
- Bai, Aizpek esan oskun, bai. Lauaitzetatik beherutz...?
- Bost. Bostaitzeta, e?

- O... Bostaitzetatik?
- Bostaitzetatik honutz, ba, Arrekotxon sailla, goixen hor raso ikusten dan hori. Beltxorsailla. Hor baserrixak jarek apurtuta, ezkutauta.
- A, bai?
- Beltxorrena nun jak hamen?
- Hemen.
- Ba...
- Hau Bostaitzeta.
- Hori Bostaitzeta...
- Hemen errekatxo bat doia Beitzibarrera.
- Beitzibarrera?
- Bueno, igual udan bakarrik eruango dau ura, e! O... neguan.
- Bai, euri haundixa eitten dabenian. Hau Beltxorrena... ba, hamentxe nunbaitten jarek basarrixak.
- [Iritzira esan jok horrek]!
- Beltxor hau dok... Beltxorra, hau dok Unamuno barri ta hori dok Unamuno zahar.
- Errekatxo horrek izenik bai?
- Beitzibarko errekia, ba, Lesaango errekia. Lesan hortxe jak itturixa, Gaittaoko itturri oso inportantia izango zuan sasoen baten hori, ta Lesanerrekia. Hori Beitzibarrera doiena, e?
- Hor beste saillik edo? Beltxorrenetik hona bittartian edo?
- [...], Mobillasen saillak jazek hamen. Hori interesatzen jatzue?
- Bai, bai, izena emoten badotsazue zeuek...
- Ba, nik hamen, Arrikotxonan barrenien guk geuk izena esaten jauna Olazabal, Mobillasen sailla. Hori ta geure basua gaiñekaldera dao.
- Hori ze dao errekatxotik honutz?
- Bai, hamen, hamen, hortxe, errekatxotik honutz, gure aldera. Errekatxotik hona, gure aldera.
- Hau errekatxuau... Gaztelu? Holaxe edo? Hau zuen etxia...
- Hau Beitzibarrerakua dok?
- Bai, Beitzibar errekia.
- Itxoin, hemen beste erreka bat falta dok.
- Hau izengo da igual.
- Gure etxia zein dok?
- Hau.
- Hemen falta dok beste bat.
- [...].
- [...] Sankristobalera doiena. Hori goittik dator, e! Beltxorreneraíño markau.
- Hamendik...
- [Beltxorreneraíño] baiño goratxuaotik edo.
- Eta ze izen dauka erreka horrek?
- Batzuk esaten dabe Gaztelu errekia.

10.189. Angiozar eta Aldaiegia auzoetako toponimia

- **Hizlaria(k)**: Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-257/008
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:25:00. **Bukatu**: 00:30:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Angiozar eta Aldaiegia auzoetako toponimia.

Transkripzioa

- Horri... lehen esan dou Mobillasen zer hori...
- Olazabala hori esan juat. Mobillasena ta bestia Beltxorreneko [...] harizitixa hari guk esaten dotsau, baiña... nik gure basuan esango dotsuet Otarre beste pusketa bat.
- Zein da Otarre?
- Otarre nun?
- Hemen, hor bertan.
- Hauxe parekuau?
- Bai. [...] hemen; hori [...], hori da Otarre. Ba, hemen honutzatxuau dao beste bat Otazar.
- Otarren ezkerretara Otazar?
- Bai, Otazar.
- Basua be bai, ezta?
- Bai. Ta hor bistan dauena... ni... baso-pusketa txikixak dittuk, e? Hor albuan Otatxiki.
- Otarren azpitan?
- Pegante azpira, bai, albora, alboratxuau.
- Gutxi gorabehera...
- Han, han, han bistan, keian parian, bistan.
- Bale.
- Honek txorrada danok hartu bihar dittuk?
- Bueno, hamen, hau, zeuena. Hori goiko piñudixoi Askasibarboluko piñudixa guk esaten jau. Otazar dao horretxen azpitan, guria. [...]. Eta horren Boluko esparrua esan dotena azpikaldia, guria, Sooguena.
- Itxoin Boluko esparrua, ez dakit nun apuntau doun hori. Ze izango litzake Boluko esparrua?
- Guria edo?
- Bai.
- Hau Beltxorrena, hementxe egongo dok [...]. Hemen jak alde hontan Sooguena guk esaten jauna, zelai honen guena. Hortxe hortxe, hor. Gero hona Aldai alderatxuao jak Aldaiko zelai haundi bat jak Sooluzia, zelai haundi bat, Sooluzia.
- Aldaiko errekatxuan harutz, zatirik-eta bai hor edo? Izenik? Soron bat edo...
- Bai, Asasti. Aldai Etxeberri nun esan juau?
- Aldai Etxeberri hau, hau errekatxua.
- [...] Asasti, ez hemendik.
- Aldai Etxeberrin gaiñian?
- Hemen, alde hontara jak Asasti, hemen, alde honetara; gorao edo beherao, alde hontara.
- Aldai Etxeberri baiño goratxuau?
- Bai, honutzao, [...].
- Ta zer da hori, Asasti hori, basua?
- Asasti. Hori da Aldaiko zelai ondua.
- A, zelaixa.
- Zelai haundi bat, zelaixa ta basua ta dana.
- Zer da, bizkar bat edo hola da?
- Ez lau-laua da. [...]. Laua ez, e! Aldapia [...].
- Bai, bai, bai. Hor besteik beherau edo?

- Aldai Etxeberri hori?
 - Bai.
 - Horrek alde hartara... [ezin neike horri heldu]... goratxuauan beste sail bat Aldai Etxebarrikua, Egisoua.
 - Aldai Etxebarri gaiñian?
 - Bai, Angiozar alderatxuau.
 - Errekatxuatik harutz? Angiozar alderutz?
 - [...] Egisoua. Ta hau, esan dozu, Urranerrekia?
 - Hori Askasibar bolura doiena, bai.
 - Askasibar bolu hau dok.
 - Hau da zerera doiena.
 - Askasibar bolua hau da. Hau da Urranerrekia.
 - [...], eske hemen gaizki ipinitta dao.
 - Askasibar bolua hau?
 - Bai, hau izan bihar. Hau [Aldaiazpikua...]...
 - Hau da Urranerrekia, [...] doiena.
 - Ta hau [ze]?
 - [...].
 - Han kamiñuan parian dauana, kanteria edo hari, izenik emoten dotsazue?
 - Kantera haundi hori?
 - Kantera zaharrau?
 - Bai.
 - Urrango kanteria, Loidi... Urrango kanteria, Loidiko kanteria. Ta Urrango kanteria esan ezkeru, horrekin entenditzen gaittuk.
 - Kantera zaharra be bai.
 - Bai, Kantera zaharra... Loidiko Kanteria... Urrango kanteriaz engeneral.

10.190. Aldaiegia auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-257/009
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:30:00. **Bukatu**: 00:35:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**: Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Izen mordo bat esan dozu! Guk gehixena batuta daukaulakuan, baiña ...
 - Aistilaua ta?
 - A, bai... Aistilaua geure basua dok.
 - Aistilaua... hamen... hemen inguruan izango da, hamen inguruan.
 - Aldaietxeberry ta Beltxorrena bittartian?
 - Bai.
 - Aldaietxeberry zein dok?
 - Hau.
 - Itxoin, e? Aldaietxeberry, Beltxor... Aistilaua hementxe jak.
 - Beltxorren azpixon edo holan?
 - Bai, [...] azpixon dao.
 - Bai, hor badao lau bat. Pista bat pasatzen da hor?
 - Bai.

- Hau kurutzia igual izango dok pistia, e?
 - Hau da pistia.
 - Bai.
 - Bat hor beheraka edo beste bat gorutz. [Gora hor ez dare] ya...
 - Beltxorrena baiño honutzatxuau jak beste bat, gure basua, Lezia, Lezangua.
 - Beltxorrena parian?
 - Parian pixkat-pixkat beheratxuau, Angiozar aldera, e?
 - Angiozar aldera...
 - Hortxe. Hau pistia da? Gora doian pistia da?
 - Beltxorrenetik gora, hemen, e? Hemen behera, hemen, hemen. Hor.
 - Ze izen da hori?
 - Lezangua. Haura jak [...], zulo haundi bat, Lezia.
-
- Aber, zelan esan dozu hori?
 - Hamen, Goiko esparrua, [hori kuadrotxo...].
 - Beltxorrenan gaiñian?
 - Bai, Goikoesparrua. Zelaixa dauena. Meltxorrenan gein-geiñian dao haura.
 - Meltxorren pare-parian.
 - [...].
 - Otarre ta [...] dittuzu ?
 - Otarre...
 - Bai, bai.
 - Otatziki ta? Iturrondua-ta?
 - Iturrondua... Danak ezin [...] esan, ba! Iturrondua ez. Zein da hori?
 - Etxian atzekaldian, iturri zaharran onduan. Etxiaz handikaldetik hortxe egongo dok.
 - Hor inguruan?
 - Bai.
 - Etxian hor errekatxo parian, etxe onduan?
 - Bai, dao errekatxo aldera. Bai, hortxe.
 - Bai, hori errekatxo arruoi [...]. Ta hamen behian etxetik hor beheko horri sakonorri, Errekabarrena guk esaten dotsau. Guk, e?
 - Ba... geuria.
 - Eta hamen beste bat jaok...
 - Honi bizkarroni...
 - Beherau?
 - [...] pistiaz ezkerretik.
 - Erdiko maillia.
 - ... sooko mailla bat.
 - Hori txikixa da, e?
 - Hori txikixa dok, e?
 - A, halaxe.
 - Ta beste bi soro dare, dana sail batekua da, baiña bi izen dauzke; bata da Anton sailla.
 - Hamen inguruan, kurba hori, aurreko maillia.
 - Ta bestia da Kurrielsailla.
 - Hau Antonsailla?
 - Antonsailla behekoa da, ez?
 - Bai.
 - Behekua Antonsailla ta hori Kurrielsailla. Beherao.
 - Beherao?
 - Beheratxuau. Hola, hola.
 - Papela zikindu dostat.

- Kruzia, Elordei.
 - Partilekua.
 - Elordei.
 - Elordei, bai.
 - Elordei ta Partilekua, [hori], bidekurutzia.
 - Bidekurutzia?
 - Kruzia, pistiana-edo, kruzia...
 - Bai, bai, bai.
 - Hau kruze hau.
 - Bai, bai.
 - Elordei eta Partilekua.
 - Bi izen toki berdiña [...]...?
 - Partilekua da pistien kruzia.
 - Bai. Ta Elordei da azpiko sailla.
 - Beheko sailla Elordei.
 - Ta horrek izenok batzen dittuzue? Horko izenak?
 - Sorotxikixa be ez dozu esan, Aldaiko aldia be ez...
 - Ez, ba, Aldaialdia be ez...
 - Aldaialdia be ez. Txaraurria be ez, Txaraostia [be... bai].
 - [...].
 - Han sagarrak daren sailla Sorotxikixa.
 - [...]. Itxoin, e...
 - Sagarrak darena.
 - Ta han handikaldia, kruzera ta pistara bittartekua, Aldaialdeko soua.
 - Hori behera.
 - Handikaldia. Ta, pentsaizu, honi aldrebes esango dotsau, baiña Soolaua, oin gu garenai.
 - Gu garenai?
 - Soolaua?
 - Aldaialdia jo arte. Ta pentsau zelako lautadia dauen.
 - Bai, ba, lau iñun be ez dao ta batenbati, ez [ahaztiaaittik]...
 - Txaraurria be ez dozu esan, Txaraostia be ez.
 - Zeintzuk dia horrek? Txaraurria...?
 - Hori da Txaria...
 - Txaria jak hor erdixan.
 - ... eta ostian daona Txaraostia.
 - Handikaldetik dauena. Otazar jo arte, lehen esan doun Otazar ikutu arte, Txaraostia

10.191. Aldaiegia auzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Inza Duñabeitia, Pedro; Inza Gabilondo, Mari Jose
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Erref**: BER-257/010
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:35:00. **Bukatu**: 00:36:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Ta hor goiko... Zu, Sorotxikixan gaiñekaldian Sooguena. Horrek danak

hartu bihar badittuzue, Soogueneko soua.
 - Sooguena apuntau dok.
 - Bai.
 - Bai. Goiko laua be bajak hor. Igual da.
 - Ta Txaraurria bestekaldera.
 - Txaraurria honutz?
 - Bai. [...]. Ta Otazar da goiko...
 - Ez, ez, Otazar... Txaraostian pegante dao Otazar.
 - Txaraostian honutz, ta gero Oterre...
 - Ta gero harutzatxuau dao Txaraostian barrena ta Oterren barrena, Karabiondua, karobixa eitten zan antxiña.
 - [...], zelaixa.
 - Antxiña karabixa eitten eben han, edo karia.
 - Hau da errekatxua, errekatxuan onduan dao hor inguruan.

10.192. Elorregi auzoaren izenaren inguruko kontuak; albiztarrak eta pikutarrak.

- **Hizlaria(k)**: Galdos Aiausti, Matilde; Gorosabel Galdos, Francisco Javier; Gorosabel Romaratezabala, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkarate, Miren Pantxeske - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-258/022
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 01:20:38. **Bukatu**: 01:22:08
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia
- **Laburpena**: Elorregi auzoaren izenaren inguruko azalpenak. Auzoa bitan banatzen da: "albiztarrak" eta "pikutarrak".

Transkripzioa

- Gero, auzua zela deitzen da hamen?
 - Elorregi.
 - Guk San Prudentzio betik esan izen dou, baiña oin Elorregi esaten da.
 - Elorregi.
 - Elorregi...
 - Elorregi berez bazan lehen zeozer?
 - A, ez dakit nik...
 - Segurutik auzua, Elorregi auzua.
 - Zeatik hamen dare Elorraundi, Elorregoiti... Elorregi dexente. Bai, eta ez dakit nik hortik etorriko dan, edo...
 - Seguru.
 - Hor Arane bezela: Arane goikua ta Arane erdikua ta Arane...
 - [Elorrigoitia], Elorrigoiti, Elorraundi...
 - Gero, errekatik Irutontorreta aldera badauka izen bat eta hemen hemendikalde honek beste izen bat?
 - Ba, hau, hau... Pikua edo, pikutarrak. Alde honi pikutarrak. Haura albiztarrak.
 - Aber, aber, zelan? Alde hau?
 - Alde hau pikutarrak, pikutarrak.
 - Ta haura albiztarrak.
 - Albiztarrak. Hamen gaitzizenez edo... Bedarrik txarrena albitza ta frutaik txarrena [zala] pikua ta honei pikutarrak, honei pikutarrak eta hari

albiztarrak. Gaitzizen moduan edo.

- Albiztarrak, albitzetik?
- Albiztarrak.
- Bedarretik?
- Albitza bedar txarra. Bueno, txarra edo...

10.193. Goiauzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Arregi Iburguren, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-259/001
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Goiauzoko toponimia; kaletik hasi eta San Juan alderako toponimoak.

Transkripzioa

- Okurritzen jatzu hor Agorrosin aldia edo...? Lapatza ta Askatzu bittartian ur-zirrindara bat badoia beherutz...

- A, bai!
- ... horrek badauka izenik?
- Agorrosingo... Agorrosiñera urtetzen dau horrek.
- Bai.
- Errekatxua.
- Bai, baiña ez dauka... sekula horren izenik...
- Txikixa da?
- Bai, txikixa.
- Ta, zera, Askatzutik... zela esaten jau horri? Illar...
- Illarraaldia.
- Illarra aldia horri, Askatzu azpizai, Askatzutik kanpofubolera bittartian Illarra aldia esaten [jako].
- Illarra aldia?
- Bai.
- Besteik? Lapatzatik beherutz hor akazia pilla hori ta daona?
- Ba, horritxi esaten jotsek, e, alkazia pilla horri...
- A, a, a.
- ... Askatzu ta kanpofubola, bittarte horri Illarra aldia esaten jotsek, e? Askatzu ta kanpofubola, alkazia pilla hori daon zona horri Illarra aldia.
- A, bai, hau da. Bai, bai, bai.
- Horixe da, ba.
- Ta Lapatzatik Ondartzako zubira bittartian ez dao ezebe...
- Ez, Ondartza [hori...]
- Oin ipinitta [...].
- ... izenik neuk...
- Bale. Hor Ondartzako erreka baztarrari eta? Ez dauka horrek...?
- Ondartzako portua.
- Portu...
- Portua?

- Bai, Portua esaten jakon horri.
- Lehen Portua esaten jakon.
- [...] Portua horri.
- Zeri Portua?
- Ondartzako zubittik Barrutira daon bittarte lau horri Portua esaten jakon. Hor txalupak-eta egoten zittuan.
- A, bai, bai, bai.
- Portua dauka horrek izena.
- Oin...
- Oin ya galdu ein dittuk izen horrek, zeatik ya ez jaukak horrek, e... Baiña lehenao Portua.
- Eta gero hor Barrutittik Bolubarri aldera eta hor...
- Ez juat hori ya... zona hori ez jakixat, horko izenak-eta ez jakixat nik. Etxienak-eta bai, baiña...
- Barruti da zubi onduan daona, ez?
- Bai.
- Bai, handikaldian.
- Kanpos aldera goiazela eskubittara.
- Hori da. Hori da.
- Ezkerrera daona Errotaerdi.
- Zubikua be ez juau aittatu, baiña hortxe [...] Zubikua be.
- Zubikua, bai, harutzao...
- Errekiaatik...
- Zubixan parian haura. Zubikua... Bueno. Besteik? Tontorrek esan dittuu, auzuak be bai, errekatxuak be bai... etxiak-eta be baitta... Ez jaku geratzen ezer, edo? Uste dot bukatu doula. Gero hor...
- Kantera aldia, osea, Kalbarixua.
- Kalbarixua.
- Kalbarixua. Gero Intxortxua hurrengo.
- [...].
- Zelai puntiai, gure zelai puntia [...]?
- Bai.
- Zelai puntiai Idurixogoittixa.
- Bale.
- Gero atzeratxuauan jaukak harek beste zona bat esaten jakona Txabolapia.
- Bai.
- Gero hurrengo zein da?
- Kalbarixotik beherako kanterian izena?
- Errotaitz.
- Gero ermittia ta... [ze esango dou]? A!
- Bueno, ermittia hor behian [zauala].
- Ez, ez, ermittia zerian, Kalbarixuan puntan, e? A! Ermittia bat, zera, hamen ta gero elizia [zauala] behian. Hor zuan kalbarixuak eitten ziana ermitta bat, ta gero elizia behian.
- E, zerian...?
- Ondartzan.
- Ondartzan...?
- Bai.
- Bale. Gero, errekatxuan izena?
- Bai, Idurixo errekia beti.
- Gero esan dou zati bat hor... bi eitten dian zerian, izena emon jau [...] daon sail bati...
- A! Kantera aldia.
- A, bai, Kantera aldia.
- Gero, erreka bixen bittartiai be...

- Gaztaiñazabaldua horri.
- Hori da.
- Gero gorao zeuan gaiñera allegau baiño lehenao beste sail...
- Abadixua.
- Abadixua.
- Eta gero Bostaitzeta. Goixan, e? Kunbria.
- Bale. Bueno, gero basarrixa [nere] aittittana ta?
- Amatiño. Bai.
- Ta horren inguruan ez zeukaun besteik...
- Hor goratxuauan txabolía edo...
- A!
- ... izena edo?
- Bai, hori, zera...
- Txabolapia?

10.194. Goiauzoko toponimia

- **Hizlaria(k)**: Arregi Iburguren, Migel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro" - Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-259/002
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:07:00
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Goiauzoko toponimia.

Transkripzioa

- Ez, Txika...
- A! Txikaso! Bai, hori bai. Txikaso, hori famosua.
- Baiña Txikaso gaiñeko gaiña ez da, ez?
- Ez, ez, ez, beherao. [Kriston] txabolía zuan ta hori zuan [trafikatzeko] lekua; oseake, ijittuak leku batetik bestera pasatzen zienian-ta betik hortxe geratzen zittuan. Osea, dok oso... Zuen aittittak terrenua jaukak hantxe, albuán, ikutzen. Ta oso leku edarra dok, e! Lautada bat dok puntia baiño beheratxuao.
- Hauxe edo izango da...
- Gero?
- Gero ez dakit ezer laga doun. Basarri-izenak markau douz, Portua ta horrek hartuta dare...
- Gero Illarraa, haura, Askatzutik behera datorrena... Ez jakixat, ba, nik hemen besteik hola...
- Bestiak uste dot danak hartuko giñuzela, e?
- E... gero, zera, hori ez dostat esan... honetxen ostian daok Kantera aldetik San Martzialera bittartian... San Martzial nun daok, aber?
- San Martzial hementxe, Kantera aldia hemen, Lapatza hemen.
- Bai. Eta hor daok eleiza bat, hola, kueba bat eta dana Paorzulo esaten jakona. Kinddaua eta San Martzialen bittartia, e? Paorzulo esaten jakok.

10.195. Uberako baserrien izenak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis; Olañeta Olañeta, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-261/001
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:05:00
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Ubera auzoko baserrien izenak.

Transkripzioa

- Bueno, hau Ubera auzua da...
- Bai. Hori Ubera auzua da. Hau da gure hegixa hauxe da, e? Hauxe. Agarre hegixa hauxe da.
- Hau da Uberako parte bat?
- Bai, Uberako partia hori.
- [...].
- Nik hamen ezautu eitten dittut soluk ezautzen dittut. Ta ezautu dot hau, hau [Agirre-hegia] solua. Hau, hau da gure solua, gero gure etxaburua da hori hortik gorakua, hau da Andurira doian pista. E? Hor laga dozue pista zera... kruzia. Gu ez gare hor... joe, ba, mapia...
- Bueno, orduan daukau Agarre hegixa? Honei danai Agarre hegixa esaten jako?
- Bai, hau Agarre hegixa. Gero, Elizalde ta horrek hartuta eukiko dittuzue, ezta, lehenau? Izaletxebarrin egon ziñan zu...
- Bai.
- Ta Gaztaiñazabal?
- E? Gaztaiñazabal? Gero ikusiko dittuu horrek, gero, preguntauaz.
- Itxoin, alde hau Agarre hegixa ta bestekaldiak badauka izenik?
- Bai, bestekaldia da Izotz... Izuziarra esaten dou. Zela esango dou hori? Izotz ziarra.
- Bai, baiña zela esaten dozue normalian?
- Izuziarra. Izuziarra. Baiña da Izotz ziarra.
- Bale. Bueno, oin baserriekin-edo hasiko gara?
- Nahi dozun moduan.
- Hasiko gara hor Artiz aldetik eta...
- Markiei aldetik?
- Artiz, Artiz aldetik.
- Artiz? Bai.
- Ba, Artiz egongo da... hau San Juan errekoa bada, hementxe Artiz. Hau izango da bata ta hau bestia. Bai. Ankabarren hor beheratxua egongo da.
- Ankabarren zein da, hau ala hau? Esperantza aldera daona ala bestia?
- Ez, bestia, bestia. Bai. Ankabarren hori.
- Ta bestia?
- Bestiana ez dakit, ba, horrek ze izen ipini dotsen horrek. Hori Naparran etxia esaten dotse.
- Bai, ez da iñor bizi ta...
- Igeltseruana. Izena eukiko dau harek, baiña... Ta gero Esperantza egongo da hor nunbaiten.
- Hamentxe baztarrian.
- Bueno, gero, Ubera aldera?
- Barrenetxe.
- Barrenetxe hauxe bidian pasau douna. Gorutz jarraituta?

- Olañeta. Bi etxe dare hor.

- Etxia... o... izena bat Olañeta bixena?

- Bai. Gero Idarragaiñekua.

- Hau... Azpixon? Hor erre dana edo?

- Bai, Idarratxiki... azpikua hori.

- Gero, gorutz?

- Gero hurrengo Agerrebeña.

- Gero?

- Agarre goikua.

- Gorao badao?

- Anduri dao. Anduri ta Posaa dare. Harrapatzen dittuk horrek?

- Bai. Hamen dao bat, ez dakit zein dan.

- Hori Posaa. [...] erdi-erdixa, Posadakua da hori.

- Bestia...

- Hau ete da, ba?

- Ez, itxoin, e... Hau Agarre goikua da...

- Posaa ala Anduri? Anduri hemen.

- Hau da bat ta bestia hau. Bat hau ta bestia hau. Bata dao goixan eta bestia barrenian.

- Bai, bai, horixe, bai.

- Bueno, orduan, hau Anduri.

- E? Behekua, behekua.

- Behekua Anduri?

- Bai.

- Ta hau zera...

- [...] labrauta etxaburua ta...

- Bueno, hau ez dakiu noizkua dan, e?

- Oin dala sei urtekua da, e, mapia!

- Fotografixia.

- Bueno, bai, ondo.

- Oin sei urte ez zeuan labauta hor.

- E, baiña zatitxo bat bajeukan, e? Harek handikaldera han goittik behera.

- Bueno, bide hau ein dou. Hurrengo jarraituta hemen errotia edo zer dao hor?

- Errekalde, Errekaldeko errotia dok hori.

- E! E! Baiña Ubera ondio ez juau pasau, hi!

- Ubera ez, e? Hemen Barrenetxe parian.

- Bolu.

- Bolu.

- Bolu, besterik gabe?

- Besterik bae, Bolu. Izena Bolu esaten dotsau.

- Hemen Agarretik? Hemendikaldetik?

- Barrenetxe parian, zulu.

- Bai, bai, bai.

- [...] kamiñuan bestekaldetik [...], e?

- Bai, bai, bai, kamiñuan hamendik [dao kamiñua]. Kamiñua jarraituaz, ezkerretarako bidia daukau. Hemen bi-hiru etxe ta ermita bat eta dare.

- Zela dia horrek?

- Horrek be handikaldetik dare danok, e? Izuziarrian. Bai. Horrek dia Etxebarri haundixa ta Etxeberri.

- Santikua. Etxeberri ta Santikua.

- Ez, harek plakan Etxeberri haundixa jaukak izena.

- Baiña zeuek zela esaten jatzue?

- Guk Santikua. Baiña izena Etxebarri haundixa dauka plakan ipinitta.

10.196. Uberako baserrien izenak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis; Olañeta Olañeta, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-261/002
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:10:00
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Ubera auzoko baserrien izenak.

Transkripzioa

- Izuziarrian. Horrek dia Etxebarri haundixa ta Etxeberri.
- Santikua. Etxeberri ta Santikua.
- Ez, harek plakan Etxeberri haundixa jaukak izena.
- Baiña zeuek zela esaten jatzue?
- Guk Santikua. Baiña izena Etxebarri haundixa dauka plakan ipinitta.
- Baiña hobeto zuek zela esaten dozuen.
- Guk geuretako Santikua.
- Ta hor dao beste ermittatxo bat.
- Bai, San Mateo.
- Baiña zela esaten jatzue zuek ermittiai?
- San Matei.
- Eta beste etxe bat dao onduan.
- Bai. Etxebarri.
- Gero daukau, beste etxe bat be badaukau hor... hemen...
- Etxebarti? A! Urrupain-eta ondio ez juau...
- Ez, ba.
- Ez. Bueno, hori geroko laga dittuu. Hemen...
- Kamiño onduan?
- Ez.
- Ez...
- Gora jarraituta, hemen daukau beste etxe bat.
- Etxebarti... Etxebarti ete da?
- Ez, hamen be ez dau ipintzen. Hor Egurbide ta hemen badare...
- Bai, baiña atzerao.
- Bai, bestekaldian.
- Ta hor bixen bittartekua Egurbide, Egurbide...
- Ergubide txiki. Baiña lehelengo Etxebarti, baiña.
- Bixen bittartian Etxebarti, bai. Ta hor bai, hor derrior egon bihar dau Ergutxiki ta bixen bittartian. Aber, nun dao Santikua?
- Santikua hau da.
- Hemen Egurbide.
- Bai.
- Ta Egurbidetxiki nun ete dao?
- Hemen...
- Hau Egurbidetxiki, Egurbide.
- Hauxe Etxebarti hau...
- Barrio Ubera, bai, hori Etxebarti.
- Etxebarti?
- Etxebar(ru)ti, guk Etxebarti esaten dou, Etxebarri Urrutia dauka izena, baiña...
- Bueno. Gero Egurbide ta horrek, barren-barrenekua zela da?

- Errotagain.

- [...].

- Ez, Egurbide, Egurbide. Errotagain da hau?

- Errotain, bai, hori kamiño-onduan dao.

- Kruze-kruzian daona behian?

- Behe-behian.

- Pistia hartzen dau gora ta...

- Bai, bai, bai, bai, hauxe.

- Hemen markatzen dau, bai.

- Hementxe.

- Hori lehenau errotia egondakua da.

- Bueno, gora goiaz, hor lehenau kamioiak-eta lurra botatzen daben leku aldera.

- Bai, Ergutxiki hurrengo.

- Ergutxiki. Gero pixkat beheratxua beste bat daukau.

- Ergubide izango dia horrek, bixak, bi etxe dare.

- A! Bi etxe dare?

- Bai, batekin bi etxe dare.

- Bale. Hortik gorao ondio beste bi edo dare.

- Hortik gora, bai, bat dao zuzen-zuzen gorao. Golonetxe. Ta bestia Erguzar.

- Golonetxe. Ta harek... horrek pista...

- Golonetxe zein da? Barrenekua o...? Barrenekua... pare-parian...

- Pare-parian dare. Bai...

- Urrupain aldera daona?

- Bai, bai, Urrupain aldera dauena Golonetxe.

- Golonetxe?

- Bai. Hori da, Erguitxikittik hurrao dauana; bestia urrin samar dao atzekaldian.

- Bai, bestia, orduan...

- Ergubide zahar, Egurbide zahar bestia.

- Baiña zuek zela esaten dozue?

- Erguizahar, Ergui zahar.

- Zeuek esaten dozuen moduan esan, e?

- A, bai?

- Bai, bai, bai, hori da...

- Bai, bai, guk... [...], Erguizar...

- Bueno. Angiozar kalekuak eingo dittuu?

- Uberakuak?

- Ui! Ubera, Ubera.

- [...], hor Urrupain ein bae laga dozue...

- A! Bueno, guazen Urrupain gaiñera.

- Urrupain ta Urrupain gaiñekua ta Narbaize, Narbaize goikua...

- Aber... Hementxe dao Narbaizbolu, hemen jartzen dau ta hemen [Peio Floresen] zerak...

- Narbaiza.

- Hau San Juan da, ez?

- Bai, San Juan auzua da hori.

- Bueno. Gorutz jarraituta, han Barbara bizi dana?

- Narbaiza goikua.

- Ta gero ya, gero ya Urrupain aldera. Zenbat Urrupain dare?

- Hiru. Bueno, bi.

- Bi.

- Bat bi bizitzakua da ta.

- Behekua bizitza bikua.

- Urrupain hauxe da, edarto ikusten da soluak [...] fotografixia. Laste [...] ikusiko.

- Orduan, barrenekuak ze izen dauka?
- Urrupain.
- Eta goikuak?
- Urrupain gaiñekua.
- Besteik badao alde honetan?
- Ubera aldetik ez. Ya Narbaiza be ez da Uberakua, baiña ipini dou.
- Bueno, hori... Ubera kalekuak eingo dittuu?
- Bale.
- Errotain ipini dozue, ezta?
- Errotain? Bai, bai, hemen dao. Hurrengua? Hor oin...
- Errementarikua.

10.197. Uberako baserri eta eraikinen izenak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis; Olañeta Olañeta, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-261/003
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:15:00
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Ubera auzoko baserri eta eraikinen izenak.

Transkripzioa

- Alde hortatik badao gehixao?
- Alde hortatik dao Okandi beste bat, ta Okandi... Intxaurren dauka oin izena. Hauxe izengo da. Ta beste bat be bai, bueno, [...].
- Bai, ta Abadetxia be bai.
- Baitta, Abadetxia be bai. Hiru jazik hor bestekaldetik.
- Aber, aber, situatzen dittuun... Okandi da hamen ya pixkat urrin daona? Haundi bat?
- Bueno...
- Zuk igual bestekaldetik hobeto ikusiko dozu.
- Ba! Hamendik be ya [...]. Lehenengo dao... [...] dao... Abadetxia izengo da hauxe. Eztok? Hori txikixoi?
- Itxoin, e... Hau da... Hau da Zeziaga bizi dana. Hau. Ta hau da Eguren-ta bizi diana.
- Bale.
- Bai, Martokua ta Emeterionekua.
- Eske apuntau ein dittut... Zeziagana zela da?
- Hori? Emeterionekua guk esaten dou; Bentakua da izatez.
- Egurenena?
- Martokua.
- Zezeagana ta tabernara bittartian daon barrixak badauka izenik? Han Gutierrez ta...
- Bai. Gure Ametsa edo ze esaten dotse?
- Gure Ametsa.
- Ta tabernia daonak?
- Ba, horrek izena... Tabernia [...] beti ta oin Ilargi ta... Beran izena da Bronzekua, hori sekula ez dou esan guk. Bronzekua dauka izena harek.
- Guk beti Tabernia.
- Bai.

- Bueno. Gero daukau, esandakuak...

- Maisuana ipini dozu? Bueno, oin behetik gora Errementarikuan onduan goixan Eskola-etxia.

- Bai, Errementarikua, Eskola-etxia, hurrengua?

- Abadetxia hurrengo bat. Han bestekaldetik, e? Errekian handikaldetik.

- Bai, bai, frontoittik norutz dao hori? Fontoian bertan?

- Bai, frontoian ondo-onduan. Ondo-onduan bertan.

- Bale.

- Ta gero beste bat...

- Okandi.

- Bai, Intxaurrondo.

- Okandi guk beti [...], Okandi.

- Bueno, bai, Okandi, orduan. Ta gero dau...

- Gero han bi bide... eskumatik Elgetako bidera ta ezkerretik...

- Bueno, baiña beste bat, ondio Okandin onduan beste bat dao, e?

- A, bai?

- Barrixa.

- Bai, harek jaukak izena... Lizarrondo edo. Holakotxe izen barri bat. Etxia be barrixa da ta izena be barrixa ipini dotse. Lizarrondo uste dot dala.

- Gero saltzen edo zeuana?

- Bidebittarte. Bai, bi etxe dare hor. Bidebittarte. Bai, hamentxe erdixan dao.

- Bai, erdi-erdikua.

- Ta bestia Ubera guenengua.

- Gaiñekaldekua?

- Bai. Hori agertu da hor? Ubera guenengua. Ergubide zahar horixe ipintteke geratu da, ezta?

- Ez, ez, ipinita dao Erguizar.

- Ipini dou?

- Bai, bai.

- Oin geratzen dia Elixia ta [Ibargiñak], Markiei ta...

- A, bai, hemen Elgeta aldera badao besteik?

- Jaolatza.

- Hauxe?

- Hauxe.

- Hau Ubera da?

- Ez, Elgeta da hori.

- Bai?

- Bai, Elgeta da.

- Bai, bai, bai, bai, Jalotza bai.

- Hementxe dao mugarrixa.

- Beittu hemen mapan zela datorren.

- Agarre Zezeaga...

- Hemen Jalotza ipintzen dau... baiña mugia harutz dao.

- Klaro, hori Elgetako partian dao.

- Ez, ez, baiña hau da Bergara.

- Hau da Bergara aldia, hemendik hori Elgeta da.

- Hori gaizki ipinita dao. Aber, Agirre Zezeaga...

- Justu-justu salbatzen da, e? Elgetakua da.

- Agirre Zezeaga. Ba, honek... hauxe da Agarre Zeziaga, bai?

- Bai.

- Ta horren etxia joten euan mugarrixa. [...] paretan kontran euan Agirre Zezian. Hau mapiau...

- Ta bestia dau Elgetara goiezela azpikaldian beste mugarrixa kamiño eskiñan.

- Bai, bai. Hemen?

- Kamiño eskiñan.
- [...].
- [...] Ubera guenengua, ondo dao hori.
- Orduan...
- Jalotza, bueno, hemen Agerre Zezia ondo-ondoti...
- Bueno, Jalotza Elgeta, orduan?
- Bai, Elgeta partian dao huskerixa bateaittik harrapatzen dau Elgetak, bai.
- Hori ipini eingo dou, ez, ba? Ez? Ipini eingo dou...
- Jalotza bai, [...].
- Bai, bai, hogeta hemezorzi.
- Bueno. Gero, geratzen jaku, Uberatik hartu han Martokua ta...
- Elixia...
- Hortik gora bidia.
- Ibargain...
- Eliziak ze izen dauka?
- Elixia.
- Elixia?
- Bai.
- [San ...].
- Bueno, San Paulo, igual da.
- Gaiñekaldian dao bat...
- Ibargin, Ibargain.
- "Gaiña", Ibargin?
- Ibargain, bai.
- Gero be...
- Hiru [...]. Bai, Markii.
- Markinausi ta Markitxiki.
- Markii txiki ta Markii. E? Markii...
- Bueno, Markinausi ta Markitxiki esaten dotseu.
- Bai.

10.198. Uberako baserri eta eraikinen izenak

- **Hizlaria(k)**: Aranzabal Gabilondo, Luis; Olañeta Olañeta, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Larrañaga, Andoni
- **Erref**: BER-261/004
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:15:00. **Bukatu**: 00:16:25
- **Transkribatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k)**:
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Ubera auzoko baserri eta eraikinen izenak.

Transkripzioa

- Bidian eskumetara daona zein da?
- Eskumetara Markii txiki.
- Markii txiki?
- Bai.
- Markii txiki bat eta bestia Markii. Ta gero Markinausi. Hiru.
- Bai, hiru etxe [...].
- Bai.
- Ta Markiei nun dao?
- Hantxe behera.

- Ta Markinausi ipini dozu? Markii, Markitxiki...
 - [...] Markii?
 - Bai.
 - Baiña etxiak nun dare etxiak? Hamen eskumetara Markitxiki...
 - Markitxiki, Markinausi. Ta hau dok bi bizitzakua dok eta jak... hau [...] hor etxe bat [...]?
 - Bai, bai.
 - Hau bestia.
 - A! Juntu dare?
 - Bai, junto dare, bai.
 - Junto dare.
 - Oin Agarre Zezeaga, Agarre Zezia.
 - Agarre Zezia.
 - [Inglesak bizi diana].
 - A! Itxoin, e? Aber situatzen naizen. Hauxe izango...
 - Guenengo puntan.
 - Hau? Ez, hau Zezia... A! Hauxe.
 - Agarre Zezia [...]...
 - Bueno. Basarririk geratu jaku? Beste baserririk laga dou?
 - Uberan ez, ez dot uste.
 - Ez, Bolu, Errotain, horrek danok agertu dia... Ez dao.

10.199. Uberako erreken izenak

- **Hizlaria(k):** Aranzabal Gabilondo, Luis; Olañeta Olañeta, Lorenzo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Larrañaga, Andoni
- **Erref:** BER-261/005
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:19:35
- **Transkribatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Gaia(k):**
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Ubera auzoko erreken izenak.

Transkripzioa

- Bueno, lehenengua hor Jalotza ta Markiei bittartetik datorrena. Errekatxo horrek ze izen dauka?
 - Zezierreka.
 - Zeziaerreka. Bestekaldetik han Okandi ondolik pasatzen dana?
 - Haura [Urrupain erreka...]?
 - Ez, goittik datorrena, hor Urrujolei aldetik-eta datorrena.
 - Bai, ba, Urrujalei erreka guk esaten dou geuk; Uberan ez dakit ze esango daben.
 - Zeuek zelan?
 - Urrajalei erreka. Urrujalegi, Urrujalai, basarri bat dao [...], Urrujalei erreka. Horrekin...
 - Bale. Gero...
 - Hor Markierreka.
 - Markii eta Idarra bittartekua Markierreka?
 - Bai, Markierreka, bai.
 - Gero hemen markauta dao, hor Errotagain edo horra datorrena, erdi-tapauta edo daukena, hor Egurbide txikittik behera datorrena.
 - A! Eskonbreria...?
 - Horrek badauka izenik, [...] errekatxuak?

- [...] errekatxuan izenik...

- Txikixa izengo da hori ta guk handikaldekua, ba... erreka txikixa zela dan. Ergutxiki... [etxe bateko] errekatxua edo...

- Bueno, ba, ez dauka...

- Ergutxikin sartzen dok, Ergutxikiraiño...

- [...]. Ba! Haura ez dok... Txikixa dok hori ta.

- Txikixa da izan.

- Ta gero Esperantzara datorrena bai?

- Bai, hori Urkitzaerreka.

- Urkitzaerreka, bai.

- Urkitzaerreka.

- Bueno. Horrek Urkitza horrek gero bi arrama dauzka. Horren izenik...?

- Bai.

- Horren izenik bai?

- Iruerreka bestia.

- Zein eskumakua?

- Handikaldekua.

- San Juan aldekoa?

- Bai, bai.

- Ta bestiak?

- Urkitza erreka esan dou bestia. A! Bi... bueno, handikaldekuak?

- Bueno, hemendikaldekuak.

- Iruerreka ta bestia, ba, hoixe, Urkitzaerreka.

- Urkitzaerreka. Horrek bat eitten dabe ta kitto. Ta Esperantzaz [sortzen] da.

- Bueno. Errekatxuena... Hor [Dormiko] Agarre Zezia ondotik doia ramal bat eta bestia doia Elgeta zuluana gora.

- Bai.

- Horren... horrek bereizten dia?

- Horrek zerok [...] partiziñua goixan. [...] ez dakiu. Errekalde.

- Errekalde [da goren...].

Auzolanean egiten ziren lanak: lurreta, gari-simaurketa, arto-simaurketa, gari-jotzea, gari-ebakitzea; "igitia". Idiak. Nagusienek lanean erakutsitako zenbait gauza.

204. Auzolanarekin zerikusia duten ipuinak (BER-061/032)

Lanean izaten zituzten kontuak. Abarketa zaharrak lurrean ipintzen ziren bata bestearen jarraian.

205. Ezti-batzea nolakoa izaten zen (BER-061/033)

Arropak: kapela beltza. Erle-batzea nolakoa izaten zen. Ziriarekin ateratzen zuten ezti. Zapata-josten.

206. Aisialdia (BER-061/041)

Erromeriatara joaten ziren. Boletan egiten zuten.

207. Feria kontuak (BER-061/042)

Feria kontuak. Azpeitiko feria famatua zen. Aitajaunaren anekdota bat kontatzen du.

208. Sasoi batean erabiltzen ziren neurriak (BER-061/050)

Neurriak: anega; imina (3 kg); "imillauna".

209. Janztekoen inguruko kontuak (BER-061/053)

Arropa kontuak, gaur egunekoak eta ordukoak. Narruzko abarkak.

210. Irakurzaletasuna Osintxun; egunkariak (BER-061/055)

Zenbat egunkari saltzen ziren Osintxun. Madrilgo kontuez asko zekien baten anekdota.

211. Antzinako bizimodua baserrietan oso lasaia zen, ordutegi gabekoa (BER-061/056)

Denbora neurtu gabe bizi ziren. Eguzkia irten bezain laster esnatzen ziren. Lekaioa. Aitaren kontuak: ardiak jetzi; esnea marmitetan eramane, etab.

212. Elosuko baserritarren bizimodua (BER-061/058)

Elosuko baserritarren bizimodua. "Burtirrintzia". Auzolana eta erromeriak.

213. Auzoko neska-mutilen arteko harremanak (BER-061/060)

Auzoko neska-mutilen arteko harremanak.

214. Inguruko auzokoekin harreman handia (BER-061/063)

Inguruko auzokoekin harreman handia. Baserri izenak. Auzo desberdinak.

215. Ardien inguruko kontuak (BER-061/067)

Ardiak mendian libre lagatzen ziren. Bildotsak jaiotzeko sasoiak zein izaten zen. Ardi antzuak. "Ardiola" (ardiak jeztekoea).

216. Gaixotasun batzuen sendabideak (BER-062/004)

Gaixotasun batzuk sendatzeko "usenak", izainak erabiltzen ziren (erdarazko sangüjuela).

217. Gerra garaian ume asko etxean eta zailtasun ugari (BER-062/006)

Ume asko etxean. Gerra sasoiaren, zailtasunak. Milizianoen portaera.

218. Berorika abade eta gurasoei (BER-062/007)

Berorika gurasoei, aitona-amonei. Hika senar-emazteen artean. Abadeei egiten zitzaizkien berorika. Pazkoko txartela zela-eta abadearekin izandako gorabeherak.

219. Herri-antolaketa (BER-062/008)

Benitaren baserria Bergaran dagoen arren, Angiozartik oso gertu dago. Errekatxoak banatzen ditu lurrak. Angiozar sasoi batean Elgeta zen; gerora Bergara izatera pasatu zen.

220. Erromerietako ibilerak (BER-062/009)

Erromeria. Filarmonika eta panderoa jotzen zuten. Erromerietan dantza egitearren ordaindu egin behar izaten zen.

221. Erromerietako ibilerak (BER-062/010)

Erromerietako ibilerak.

222. Borrokak erromerietan (BER-062/011)

Asentziorik ere erromeria egiten zen. Borrokak izaten ziren erromerietan herri desberdinetako mutilen artean. San Martzial, Santa Marina egunetan erromeriak. Neska-laguntzeak.

223. Azkenengo urkamendia Bergaran (BER-062/012)

Urkamendia. Etxean kontatzen zen Bergaran gizon bat urkatu zutela.

224. Hiletan inguruko azalpenak; ohitura zaharrak (BER-062/013)

Hil-deia. Hileta klaseak. Elizara, zumitzezko otzara batean ogiak eraman eta hilobian uzten ziren. Negar egiten zuten emakumeak jartzen zituzten elizan.

225. Hiletan inguruko azalpenak; ohitura zaharrak (BER-062/014)

Hileta ondoren, bazkari bat egiten zen. "Entierru-bazkarixa" esaten zioten. Bederatziurrena. Urte-meza; amaitutakoan, tabernan jan-edana izaten zen. "Txiliparia" esaten zitzaion bazkari horri. Anekdotak barregarria kontatzen dute.

226. Hiletan inguruko azalpenak; ohitura zaharrak (BER-062/015)

Hiletaren inguruko kontuak. Auzokoek bisita egiten zuten; meza ateratzen zen. "Gregorianak", hilabete osoan egiten ziren mezak.

227. Estraperloa; erregistroak baserrietan (BER-062/016)

Gerra sasoiari, astean birritan egiten zuen ogia Benitak. 7 hilabetean 20 laguni jaten eman beharra. Gari-zorroak ezkutuan eraman behar errotara. Inguruko errotak. Estraperloa. Guardia Zibila baserrietara joaten zen erregistroak egitera eta jatekoa hartzera.

228. Abereak baserrian (BER-062/017)

Abereak baserrian. Gabonetarako kapoiak.

229. Kapatutako abereak (BER-062/018)

Gabonetarako kapoiak. Zaperoa, arto-irinarekin egindako bolatxoak. Idiak, txerriak, astoak... kapatzearen inguruko kontuak. Horretara dedikatzen zen pertsona joaten zen baserriz baserri ("kapadoria").

230. Baserrian izan zuten astoaren inguruko kontuak (BER-062/019)

Baserriko astoaren inguruko gorabeherak.

231. Umetan itulan egin behar (BER-062/020)

Baserrietan idiekin egiten zen lan. Umetan itulan egin behar.

232. Gerra sasoiari baserrian goserik ez (BER-062/024)

Baserrian goserik ez zuten pasatu. Gerra sasoiari konpainia oso bat izan zuten baserrian.

233. Soldaduak baserrian (BER-062/025)

Gerra sasoiari konpainia oso bat izan zuten baserrian. Gerrako pasadizoak.

234. Baserritar asko karretero lanetan gerra sasoiari (BER-062/026)

Baserritar askok gurdizain lana egin zuen gerra sasoiari. Idiekin munizioa eramaten zuten alde batetik bestera... Benitaren anaia ohatilari ibili zen. Frontea Elgetan.

235. Baserrian goserik ez gerra sasoiari (BER-062/027)

Baserrian goserik ez zuten pasatu gerra garaian.

236. Ezkontzak baserrietan (BER-062/028)

Ezkontzak zelakoak izaten ziren. 3 eguneko ezkontzak. Etxe onekoa bazen, batzuetan arrio bi egiten ziren. Ehunezko arropak; laiak; goruak. Idiak dotore. Burdi-irrintziak.

237. Ezkontzak baserrietan (BER-062/029)

Ezkontza-bazkaria.

238. Ezkontzak baserrietan (BER-062/031)

Ezkontza-bazkaria.

239. Baserriko emakumeak inude (BER-062/032)

Erdaraz jakin ez. Benitaren ama, inude joan zen Madrilera erdaraz jakin gabe.

240. Arabara erdaraz ikastera (BER-062/033)

Baten batzuk Arabara joaten ziren erdaraz ikastera.

241. Sorginen ipuinak (BER-062/035)

Sorginen ipuinak.

242. Sorginen ipuinak (BER-062/036)

Sorginen ipuinak.

243. Sorginen ipuinak (BER-062/037)

Sorginen ipuinak.

244. Nesken orrazkera (BER-062/038)

Nesken, emakumeen orrazkera. Kopetak.

245. Gaztetan erdara ikastera Arabara joaten ziren (BER-063/013)

Arabara zertara joaten zen. Mutilak soldadutzara joan aurretik erdara pixka bat ikastera joaten ziren.

246. Lan-baldintzak (BER-063/018)

Lan ordutegia. Larunbatetan ere lan egiten zen.

247. Baserriko bizimodua negu sasoiari (BER-063/027)

Neguan egiten ziren lanak. Ikazkintza, egur-gertatzea, arto-ereitea, e.a. egin behar izaten ziren.

248. Neguan egin behar izaten ziren lanak (BER-063/028)

Negua baserrian. Abereei lastoa eta belarra ematen zitzaizkien jateko.

249. Garia ereitearen inguruko azalpenak (BER-063/029)

Garia. Arbia.

250. Belar-ondoaren inguruko azalpenak (BER-063/030)

Belar-ondoa.

251. Garo-batzea zelakoa izaten zen (BER-063/034)

Garo-ebatea.

252. Berrikuntzak baserrian: ur-korrontea (BER-063/038)

Bere baserrian urik ez eta ur-batzera joan behar izaten ziren. Linapotzua. Ur-korrontea.

253. Lihogintza (BER-063/040)

Lihoa (linua). Ezagutu zuen ama ardatzean lihoa egiten. Argazki bat dute.

254. Lihogintzaren inguruko azalpenak (BER-063/041)

Lihoa (linua) nolakoa zen. Liho-putzua ("liñapotzua"). Prozesua. Tresnak. Lihok lan asko zuen. Lihoa irutea.

255. Harigintza; ehunezko arropak (BER-063/042)

Haria egitea. Matazak. Egosi egin behar izaten ziren zuritzeko. Prozesua azaltzen du. Ehunezko arropak.

256. Elosuko erromeria (BER-064/001)

Elosuko erromeria. Elizaren aurrean eta santutxoan egiten ziren.

257. Jai eguna baserriko nesKentzat (BER-064/002)

Igandean, lehenengo meza entzun eta ganadu-zain joaten ziren edo bestela amari plazara laguntzen zioten, tratua. Bazkaldu ondoren doktrinara. Arratsaldean musikara.

258. Erromeria Santiago egunean (BER-064/004)

Erromeriak. Santiago egunean; San Anton Abad... Serenoak.

259. Jai giroan (BER-064/009)

Pazkoak, San Marzialak, Sta Marina eta San Antonio ziren jairik herrikioenak.

260. Garizuma osteko lehenengo erromeria (BER-064/015)

Garizuma ostean lehenengo jaia, San Martin. Erromeria handia. Asentzio; Altos Hornos eta San Prudentzion ere egiten ziren erromeriak.

261. Artilea lantzeko prozesua (BER-071/003)

Koltxoi bat egiteko zenbat artile behar izaten zen aipatzen du. Artilea nola garbitzen den azaltzen dute. Artilea garbitzeko erabiltzen den urari buruz hitz egiten dute. Artilea lehortutakoan, jo egiten da.

262. Ardi beltzak eta jertseak (BER-071/005)

Bildots beltzei buruz hitz egiten dute. Lehen baserri guztietan zeuden artilearekin egindako jertseak, baina beraiek ez zeukaten halakorik. Jertseak eta haria nork egiten zituen aipatzen dute.

263. Baserriko lanak (BER-071/015)

Soberan gelditu den kardatutako ilearekin zer egiten duten azaltzen dute. Eguraldi txarra denean ere, baserrian zer lan izaten dituzten azaltzen dute.

264. Amandreak goruetan egiten zuen (BER-073/001)

Amandreak goruetan egiten zuen. Haria zelan egiten zuten. Oherako arropa zuria ehundegian egiten zen. Argazkia ere badute, amandrearena.

265. Lihoa noiz egin zuten azkenengoz; haria egiteko lihoak behar zituen prestaketak (BER-073/003)

Lihoa (linua). Non ereiten zen; zelan prestatzen zen haria egiteko. Azkeneko lihoa berak 19-20 urte zituela irun zuten. Ehulea.

266. Linaziak non ereiten ziren (BER-073/004)

Linuazia soluan ereiten zen.

267. Lihoarekin (linuarekin) egindako arropa (BER-073/005)

Arropak. Oherako arropa zelakoa izaten zen.

268. Lihoa jo behar haria egin ahal izateko. Artilearekin eman behar ziren urratsak (BER-073/014)

Lihoa (linua) jo. Artilearekin haria zelan egiten den. Sokak. Artilearekin egiten zen lana.

269. Garbiketa nola egiten zen (BER-073/031)

Lixiba-harria. Liho-harria (linu-harria). Gariarekin "txanketian" egiten zen.

270. Lihoaren inguruko azalpenak (BER-073/032)

Lihoa (linua) izpitu. Lihoaren inguruko kontuak. Esaera ezaguna: "Ehunak ehun lan". Azkenengo lihoa non erein zen.

271. Bilboko arte eta lanbide-eskolan ikasteko komeriak (BER-082/002)

Elgetako maristetan ikasi zuen txikitan. Eta gerora, Bilboko arte eta lanbide-eskolan ikasi zuen, marrazteko trebetasuna baitzuen. Han kafeak zerbitzatzearen truke apopilo egon zen. Lanean zer ordutegi zuen azaltzen du, eta irabazitako eskupekoei esker, marrazketako klase partikularrak ordaintzen zituen. Hainbeste ahalegin egiteagatik, buruko min handiak izaten zituen. Azkenean, soldata ordaintzea erabaki zuten nagusiek, eta hori loteria izan zen beretzako.

272. Eskolan ezkutuan matrikulatu eta arrakasta izan (BER-082/004)

Ez zioten uzten arte eta lanbide-eskolan ikasten, osasuna zela eta. Baina bera ezkutuan matrikulatu zen. Oso nota onak lortu zituen, eta Espainiako delinetaizale onenaren saria eman zioten Madrilen.

273. Gaitasunari etekina ateratzeko ikasi (BER-082/005)

Maisu batek berekin lan egiteko proposatu zion. Baina berak gehiago ikasteko gogoia zuen, eta maisuak lagundu egin zion berezko gaitasun horri etekina ateratzen. Oso ikasle ona izan zen.

274. Krisi garaian klase partikularrak ordaintzeko dirurik ez (BER-082/008)

1933an, krisia zela eta, langabezia zegoen. Irakasleek eskaini zioten klase partikularrak emango zizkiotela, horrela gaitasuna findu ahal izateko, baina ez zuen hori ordaintzeko adina diru.

275. Bere kontura gaitasuna lantzen (BER-082/009)

Berak zuen diru gutxiarekin maisuek zerbait irakatsi zioten. Hainbat artelan egin zituen orduan, eta argazki-kamera bat erosi zuen. Harekin ateratako argazki batek atentzio handia lortu zuen.

276. Lana bai, baina osasunari kalte eginez (BER-082/010)

Berak ateratako argazkiari esker, lanpostu ugari eskaini zioten. Lana eskaintzen zionetako batek ahalegin handia egin zuen berekin joan zedin, baina legeek trabak jartzen zituzten horretarako. Azkenean, aleman batek esan zion lana uzteko, eta osasuna zaintzeko.

277. Donostian arotz on batekin lanean (BER-082/011)

Ezagun batzuei esker, arotz on batekin hasi zen lanean.

278. Egurra neguan gogortzen da (BER-082/013)

Egurra neguan gogortzen dela azaltzen du.

279. Arbolaren organismoa (BER-082/015)

Arbolaren prozesu eta organismoari buruz hitz egiten du.

280. Arbolaren gaineko ezaguera (BER-082/016)

Lehengo zaharrek gu baino ezaguera handiagoa zuten egurra lantzeko. Izan ere, haien erremintak egurrezkoak zirenez, egur ona izan behar zuten. Arbolaren liberra zer den azaltzen du. Arbolen izerdi-zuloei buruz hitz egiten du.

281. Arbolak aukeratzeko irizpideak (BER-082/017)

Arbolak lan klasearen arabera aukeratzeko dituen irizpideak azaltzen ditu, eta zer ezaugarriak duten garrantzia azaltzen du.

282. Arbola klaseak (BER-082/020)

Pagoari buruz hitz egiten du: erremintak egiteko, mendi goian hazitako arbolak aukeratzeko zituen. Pagoa desagertu zenean, beste arbola klase batzuk erabiltzen hasi ziren. Arbola klaseei buruz hitz egiten du.

283. Egurrari eman beharreko tratamendua (BER-082/021)

Egurra lantzeko, zer ezaugarriak behar zaion, eta zer tratamendu eman behar zaion azaltzen du.

284. Piltzarra lantzeko teknikak (BER-082/022)

Egurrarekin lan egitean, piltzarra lantzeko zer teknika erabiltzen duen azaltzen du.

285. Gubiak (BER-082/023)

Gubiei buruz hitz egiten du.

286. Enborraren bihotza lantzen (BER-082/024)

Enborraren bihotza lantzeari buruz hitz egiten du.

287. Altzariak egiteko egurra (BER-082/025)

Altzariak egiteko egurrak zer ezaugarri izan behar dituen azaltzen du.

288. Altzariak egiteko materiala (BER-082/026)

Altzariak egiteko materialaz hitz egiten du: konglomeratua, txapa, egurra...

289. Egurrarekin egin daitezkeen lan motak (BER-082/028)

Lanaren ezaugarrien arabera egurra aukeratu behar da. "Kuartoiak" egiteko zer egin behar den azaltzen du. "Kostanerei" buruz hitz egiten du.

290. Papera egiteko arbola egokiak (BER-082/030)

Gaztainaren ezaugarriak oso egokiak dira papera egiteko. Baina tindua ezin zaio kendu, eta horregatik ezin da erabili. Papera egiteko beste arbola egoki batzuk aipatzen ditu; eta haiek hainbeste erabiltzeagatik, basoak pobretu egin dira orain.

291. Egurra lantzeko erremintak (BER-082/031)

Egurra lantzeko erremintak aipatzen ditu.

292. Egurra nola lotu (BER-082/033)

Egurra lantzean, nola lotzen duen azaltzen du.

293. Lanaren arabera egurra (BER-082/034)

Lan motak adierazten du zer egur mota erabili behar den.

294. Ikatz-tokiak Elosun (BER-088/008)

Ikatz-tokiak. Elosun txondor asko izaten ziren.

295. Txondor batek dituen zatiak (BER-088/017)

Txondor zuloaren bueltan jartzen ziren egurrak. Lexikoa. Labur-labur txondorren zatiak esaten ditu.

296. Ikazkinek egiten zituzten txabolak zelakoak izaten ziren (BER-088/018)

Txabola zelakoa izaten zen. Gabaz txondorrean lan.

297. Txondorretik ateratzen zen ikatz kopurua; neurtzeko zer erabiltzen zen (BER-088/046)

Ikatza neurtzeko erabiltzen zirenak. Txondorrek zenbat ikatz emango zuen zelan zekiten. Non saltzen zuten.

298. Ikazkintza eta sinesmenak (BER-089/001)

Txondorrek zenbat denbora behar izaten zuen erretzeko. Bitartean, mezara joateko denbora ere izaten zuten. Txondorra ondo irten zedin, gurutze bat ipintzen zitzaion.

299. Txikitan, etxe inguruan ardizain (BER-093/001)

Artzain lana noiz eta non ikasi zuen. Txikitan, etxe inguruan ibiltzen zen artzain. Aita, artzaina eta nekazaria. Bera 8 urterekin hasi zen artaldea zaintzen.

300. Ardi-askak (BER-093/002)

Txabolak izaten zituzten. Orduan oiloak ere egoten ziren bertan. Beraien txabola ondoan ardi-askak daude oraindik ere.

301. Artzainaren bizimodua (BER-093/003)

Basoan pinua sartu zenean, orduan utzi zion berak artzain izateari. Maiatza inguruan ardiak mendira eramaten ziren goizean eta iluntzean txabolara jaisten ziren. Gabonak arte beti mendian. Nondik nora ibiltzen ziren.

302. Artzaintza (BER-093/004)

Ardiak non jezten zituzten. Artzainak oso ondo ezagutzen ditu ardiak, nahiz eta 200-300 ardi izan. Markak. Ardi guztiek izena izaten dute.

303. Gazta inguruko herrietan saltzen zuten (BER-093/012)

Gazta, Bergara eta Eibarren saltzen zuten. Bezeroak izaten zituzten. Gaztak ez du haizerik behar; honek gazta pitzatu egiten du. Etxean, gari-kutxan sartzen zuten, gari artean, eta ondo kontserbatzen zen.

304. Bildotsei buztana noiz eta nola mozten zaie (BER-093/016)

Bildotsei buztana moztu. Hilabete edo urtebetetera mozten zaie, hazteko ardia zein izango den aukeratutakoan.

305. Gerra Zibila; frontea gertu eta milizianoak etxean (BER-093/019)

Gerra Zibila. Frontea ingurura iritsi zenean, oso ardi gutxirekin geratu ziren. Bildots guztiak jan zizkieten. Ardiak goiko txaboletan izaten zituzten. Behiak ere goizean kanpora atera eta iluntzean jaisten zituzten. Beraien baserrian, 50 miliziano egon ziren. Batailoien izenak (Loiola, Otxandiano, Kirikiño, Martiartu). Frontea nondik nora. Berak 14 urte zituen orduan; ondo gogoratzen du dena.

306. Ingurua zelakoa zen; ardiek zer jaten zuten (BER-093/021)

Zelaiak nola egoten ziren banatuta. Zelai gutxi, gehiena goldatuta izaten zen. Pagatxa jaten zuten ardiek.

307. Ardien gaixotasunak (BER-093/030)

Artzainak ardi guztiak ezagutzen ditu. Bikiak. Ardiek nola hazten dituzten bildotsak. "Urruxia" (emea) eta aharia. Errapeko mina; ardiei erroiba etortzen zaie batzuetan (erro bakarrarekin geratzen dira sarri). Buzkantzak.

308. Bildotsak nola hazi (BER-093/033)

Bildots batek ama galtzen zuenean nola hazten zuten. Bildotsa nahi ez duen ardiari, "maite ez duena" esaten zaio.

309. Ikazkintza (BER-095/002)

Ikazkintza. Txondorra zelan prestatzen den. Ikatz asko egiten zuten, urtero-urtero. Behin, 526 zaku ikatz eman zituen txondorra egin zuten. Pago egurra. Sua behetik gora igotzen da eta goitik behera joaten da egosten. Suetxea. Ikazkintzaren inguruko lexikoa.

310. Ikatza egiteko materialea (BER-095/006)

Egurra bringatu egin behar da burdin ziriarekin; ikatza egiteko primerakoa izaten da.

311. Txondorraren inguruko azalpenak (BER-095/007)

"Ikaztoi-zuloa", txondorra egiteko tokia. Batzuetan eginda egoten da; beste batzuetan berria egin behar izaten da. Toki berrietan, iduririk ez da egoten eta zoia eramane behar izaten da. Iduria dagoenean, bueltan-bueltan ipintzen da.

312. Txondorraren inguruko azalpenak (BER-095/008)

Ikaztoi-zuloa, txondor-zuloa, gauza bera. Txondor-zuloaren inguruko zuhaitzak moztu egiten ziren.

313. Txondorraren inguruko azalpenak (BER-095/009)

Txondorra batzuetan etxerako eta bestetan kanpoan saltzeko egiten zuten.

314. Ikazkinen lan-banaketa (BER-095/010)

Ikazkinen lan-banaketa. Txondorra egiterakoan erabiltzen ziren tresnak. Ikatzakua; eskuarea; aizkorak; e.a. Ikatza ahal den hotzen atera behar da.

315. Ikazkinen lan-banaketa (BER-095/011)

Ikazkinen lan-banaketa. Anaia kargatzaile oso ona zen. Txondorra ondo kargatzearen garrantzia.

316. Txondorra egiteko urte-sasoi onena (BER-095/012)

Sasoirik onena txondorrek egiteko, uda izaten zen. Udazkeneko haizea arriskutsua zen.

317. Ikazkinak (BER-095/013)

Beste batzuek txondorra egin zutenean, beraien lanak zeintzuk izan ziren: egurra xehetu; txondorra prestatu, egosi; ikatza atera...

318. Egurraren prestaketa-lanak (BER-095/014)

Etxean egindako txondorra. Zuhaitzaren zati desberdinak; txondorrean maila desberdinetan jartzen ziren. Zuhaitzak inausi egiten ziren antzina ikatza egiteko.

319. Egurraren prestaketa-lanak (BER-095/015)

Zuhaitzak botatzeko erabiltzen diren tresnak. Egurra txondor-zulora zelan eramaten zuten.

320. Egurraren prestaketa-lanak (BER-095/016)

Zuhaitzak botatzerakoan, batzuetan bata bestearen kontra etzanda geratzen zen. Enborra zenbat zatitan ebaten zuten. Neurriak. Enborra bringatu ikatza egiteko.

321. Ikazkintza (BER-095/018)

Mendian txabola izaten zuten. Txondorra egiterakoan kontutan izan beharrekoak.

322. Ikazkintza (BER-095/021)

Argia zerekin egiten zuten: petrolioarekin; farolarekin; e.a. Minerala ateratzen zen inguruan.

323. Neska-laguntzea (BER-095/022)

Lasto-azaoekin ere egiten zuten argia neska-laguntzen joaten zirenean.

324. Ikazkinak (BER-095/023)

Txondorrean lan egiteko erabiltzen zuten arropa. Umetan erabiltzen zuten arropa.

325. Gizonezkoen arropak I (BER-095/025)

Gizonezkoen arropak. Galtzerdiak beharrean, trapu bat erabiltzen zuten. Pedro "abarkeruak" saltzen zituen trapu horiek. Sasimedikuak.

326. Gizonezkoen arropak II (BER-095/026)

Gizonezkoen arropak.

327. Ikazkintza (BER-095/027)

Ikazkintza. Zer jaten zuten mendian.

328. Sukaldean, beheko sua (BER-095/028)

Beheko sua. Sukaldean erabiltzen ziren tresnak.

329. Txondorra egiteko prestaketa-lanak (BER-098/003)

Elosun baserri gehienetan egiten zen ikatza. Txondor-zuloak oraindik ere ikus daitezke. Txondorra egiteko erabilitako iduria eta ikatza bera ere ez dira oraindik desagertu. Txondorra toki lau batean egin behar izaten zen. Egurra lepoan garraiatzen zutenez, basoan bertan egiten zen txondor-zuloa.

330. Txondor-zuloa (BER-098/004)

Txondor-zuloa. Izena nondik etor daitekeen. Txondorra egiteko urratsak.

331. Txondorrek basoan lagatzen zituen aztarnak (BER-098/005)

Basoaren inguruko azalpenak. Txondorra egiten hasi orduko ingurua garbitu egiten zen. Amaitu ostean txondorraren ardatza bertan lagatzen zen.

332. Azkenengo txondorra (BER-098/009)

Aitarekin ikasi zuen ikazkintza lana. Azkenengo txondorra noiz egin zuen.

333. Txondorra egiteko sasoi onena (BER-098/010)

Ikatza egiteko sasoi onena, maiatza eta ekaina bitartean izaten zen. Neguan botatako egurra erabiltzen zuten. Ez zen komeni izaten egur berde-berdea erabiltzea. 8 urtean behin botatzen zituzten zuhaitzak. Basoaren, zuhaitzen inguruko azalpenak

334. Egur-batzea (BER-098/011)

Egur-batzearen inguruko azalpenak. Egurra bizkarrean garraiatzen zuten. Baserriko beste lan batzuetan "lepaketa" egiten zen.

335. Zuhaitza bota, egurra apaindu, batu eta txondorra egin (BER-098/012)

Zuhaitzak botatzearen inguruko azalpenak. Zuhaitza zatitzeari, "triskau" esaten zioten. Txondorrera bizkarrean eraman eta bertan mozten zituzten enborrak. Txondorra nola egiten zen.

336. Egurra txondorrean nola ezarri (BER-098/013)

Egurra txondorrean nola ipintzen zen. Egurra ahal den eta mehen moztu behar zen. Soildu, inausi. Apaintzea, egurrari abarrak kentzea. Elgoibar inguruko baserriarrek ere ikatza egiten zuten.

337. Egurra mozteko tresnak (BER-098/014)

Egurra aizkorarekin mozten zuten. Erabiltzen zituzten erremintak.

338. Ikazkinen txabola (BER-098/015)

Egurra brintzatzeko erabiltzen zituzten tresnak. Ikatza egiteko, txondorraren aldamenean txabola bat egiten zuten. Txabola nola eta zerekin egiten zuten.

339. Ikazkinen txabola (BER-098/016)

Txabola nola eta zerekin egiten zuten. Txabolaren azalpen zehatza.

340. Ikazkinen txabola (BER-098/017)

Txabolaren zati desberdinak. Lo egiteko tokia; sukaldea. Ikatza egiten zuten bitartean zer jaten zuten.

341. Argimutila (BER-098/018)

Txondorrek 3 egun inguru behar izaten zituen egosteko. Argimutila.

342. Ikazkinen sineskerak, ohiturak (BER-098/019)

Txondorrari sua eman aurretik, gurutze bat ipintzen zen. Berak beti ezagutu izan du ohitura hori inguruko txondorretan. Sua eman eta hurrengo urratsak zeintzuk diren.

343. Ikatza egiteko erabiltzen zituzten arropak I (BER-098/020)

Ikatza egiteko erabiltzen ziren arropak. Narruzko abarkak erabiltzen zituen aitak, etxean bertan egindakoak. Mahoizko "brusak". Egurra bizkarrean eramateko, zakuak erabiltzen zituzten bigungarri bezala.

344. Ikatza egiteko erabiltzen zituzten arropak II (BER-098/021)

Ikatza egiteko erabiltzen zituzten arropa, oinetakoak.

345. Txondorrek kanporatzen duen gasa (BER-098/022)

Txondorrek izugarritzko berotasuna botatzen du. Gasak ere kanporatzen ditu.

346. Ikazkinen jatorduak I (BER-098/023)

Jatekoaren inguruko azalpenak. Ikazkintzan beti izan ohi zuten ardoa; goizean, ardo-zopa jaten zuten (ogia, ardoa eta azukrea). Bazkaria gehienetan etxetik bidaltzen zieten. Jateko erabiltzen zituzten ontziak.

347. Ikazkinen jatorduak II (BER-098/024)

Artoa eta esnea. Basomutilek jaten zutena.

348. Talogintza (BER-098/025)

Taloa zelan egiten zen. Erabiltzen ziren tresnak.

349. Ardoaren garrantzia ikazkintzan (BER-098/026)

Ikazkintzan ardoa edateak garrantzi handia zuen. Ardoa baserrira eramaten zenean, zahagian eramaten zen. Ikazkintzan lan egiten zuten basomutilek, sukaldaria ere izaten zuten.

350. Txondorra egiteko tresnak I (BER-098/027)

Txondorra egiteko erabiltzen ziren tresnak: aitzurra, baldarra, e.a.

351. Txondorra egiteko tresnak II (BER-098/028)

Txondorra egiteko erabiltzen ziren tresnak. "Baldarra", ohol bati esaten zioten; txondorra garbitzeko erabiltzen zen.

352. Txondorra egiteko tresnak III (BER-098/029)

Txondorra egiteko erabiltzen ziren tresnak: sarda-okerra; e.a.

353. Txondorraren egitura (BER-098/030)

Txondorraren egitura. 3 altura hartzen zituen. Lehenengo mailan, 80 zm inguruko egurrak. Behe aldean zabala izaten zen, eta gora egin ahala estutu egiten zen. Egurrak, zutikoaren kontra ipintzen ziren. Txondorra nola egiten zen.

354. Txondorraren egitura (BER-099/002)

Txondorraren egitura: Barreneko ilara, erdikoa eta goikoa. Behekaldean egur meheagoa ipintzen zen. Erdiko ilaran jartzen zen egur sendoena.

355. Txondor mota desberdinak (BER-099/003)

Subila, adaburuekin eta egur zakar handiekin egindako ikatzari esaten zaio (subil-txondorra). Bringa-txondorra (edo berdinga-txondorra), egur gaztearekin egindako txondorrari esaten zioten. Beraiek horrelakoak egiten zituzten.

356. Ikatz-txondorra (BER-099/004)

Txondorrari gainetik iduria botatzen zitzaion (erretako lurra), eta tapatu egiten zen.

357. Txondorraren egitura (BER-099/005)

Adakia, egur meheagoa zen. Txondorrean egur sendoen artean gelditzen ziren tartekak estaltzeko erabiltzen zen. Gainera, betegarri bezala ere erabiltzen zuten. Trangabela, zutik ipintzen zen enbor sendo bati esaten zioten, egur meheagoa aizkorarekin errazago mozteko.

358. Gari-ebatea (BER-099/007)

"Muntxurra". Garia igitaiarekin ebagi eta azauak egin ondoren, lurrean zutik jartzen ziren eta multzo horri "muntxurra" esaten zioten.

359. Txondorraren egitura (BER-099/008)

Txondorra ondo egosi zedin eta kea irteteko, zuloak egin behar izaten ziren, "hegaleko-zuloak". Haize handia zegoenean ez ziren beharrezkoak izaten. Txondorraren barren-barrenean, "ondo-zuloak".

360. Txondorra goizez (BER-099/009)

Kea; lurruna. Lurruna, gehienetan goizez ateratzen zen, ihintza egiten zuenean batez ere.

361. Txondorraren egitura (BER-099/010)

Txondorrari zuloak ateratzen zitzaizkionean, tapatu egin behar ziren; ikatza erre egiten zen bestela. Ikazkinak txondorra motel ikusten zuenean, sua indartzeko egiten zituen zulo txikiak ("hegaleko-zuloak"). Txondorraren suak alde batetik bestetik baino gehiago tiratzeko egiten ziren zuloak, "hondo-zuloak".

362. Txondorra egiteko erabiltzen ziren tresnak (BER-099/011)

Berez egiten ziren zuloak lurrarekin tapatzen zituzten. Erabiltzen ziren tresnak: belakia, etab.

363. Txondorrari sua nola ematen zitzaion (BER-099/012)

Txondorrari sua nola ematen zitzaion. Lehenengo ezpalak bota, ondoren sugarra eta egur-koskor batzuk bota eta berehala hartzen zuen sua. Egurrak izaten duen gasa. Txingarra (etxean egiten zen brasa txikiari esaten zioten) eta txinparta.

364. Nola jakin ikatza eginda dagoela (BER-099/013)

Nola jakiten zuten ikatza eginda zegoela: txondorra txikitzen, estutzen joaten da; kea ere amaitzen joaten da. Orduan egosita dagoela esan daiteke. "Esparkia", txondorraren bueltari esaten zaio (ikatza eginda dagoen zatia eta bestearen arteko tarteari).

365. Ikatza txondorretik atera eta hozten laga behar (BER-099/014)

Ikatza ateratzen zenean, zabal-zabal lagatzen zen txondorraren bueltan hozten.

366. Ikatza zakuetan eramaten zuten saltzera (BER-099/015)

Ikatza zakutan sartu eta saldu egiten zuten. Zakuaren goiko aldea, pagoaren hostoekin estali eta soka batekin lotzen zuten. Aitaren sasoiari, "zaku-txapak" egiten zituzten urritzarekin. Ikatza zakura botatzeko, galbahea erabiltzen zuten. Galbahetik behera jausten zena, iduria eta ikatz-sastarra. Jausten zen lurra eta ikatz zati txikiak ere saldu egiten ziren, "ikatz-xehea".

367. Ikatza saltzeko neurriak, prezioak (BER-099/016)

Ikatza saltzeko neurriak. Bera ume gaztea zela, zaku txikia eta handia erabiltzen ziren. Gerra ostean, estimazio handia izan zuenean, kiloka saltzen zen. Ikatzaren prezioa.

368. Ikatza lantegietara (BER-099/017)

Ikatza gurdian garraiatu eta Bergara, Plazentzian saltzen zuen batez ere. Lantegietan asko erabiltzen zen, erremintak egiteko. Gerraostean gainera, gasolinaren falta zela-eta, bai auto eta bai autobusek ikatz asko erabiltzen zuten. Errementariak ere ikatz ugari erabiltzen zuten.

369. Ikatza lantegietara (BER-099/018)

Lantegietan burdinazko ontziak izaten zituzten, ikatzaren kalitatea ikusi ahal izateko.

370. Txondorraren inguruko azalpenak (BER-099/019)

Oinekin neurtzen zuten txondor-zuloaren zabalera, eta horren arabera jakiten zuten beharrezkoa izango zen egurra.

371. Ikazkinen sinesmenak (BER-099/020)

Ikazkintzan egon arren, jai egunetan mezara joaten ziren. Txondorrari sua eman aurretik, gurutze bat ipintzen zuten, bedeinkatuta gera zedin.

372. Azkenengo txondorraren lekuko (BER-099/022)

Ikazkinak familian. Azkenengo txondorra noiz egin zuten. Ikatzaren beherakada.

373. Txondorraren inguruko azalpenak (BER-099/024)

Txondor-zuloa. Zutikoa. Txondorrean egurra nola ipintzen zuten. Txondorraren inguruko azalpenak.

374. Elurzuloa Elosun (BER-099/030)

Elurzuloa Elosun. Keixeta gainetik 100 metrora, "nebera-aldia". Aitajaunak lan egin zuen bertan. Elurra lerarekin batzen zuten. Elurzuloaren inguruko azalpenak.

375. Karobiaren jabetza; karobiaren inguruko hainbat azalpen (BER-101/003)

Baserri ondoan duten karobia, beraiena da. Baina baliteke kasu batzuetan karobiaren jabetza bi baserrirena izatea. Karobia egiteko toki egokiena zein izaten zen. Beraiek harrobia ere bertan zuten, karobitik oso gertu. Labea nolakoa zen. Karea nola erretzen zen.

376. Karearen garrantzia (BER-101/004)

Karobi ingurua nolakoa izaten zen. Karearen garrantzia.

377. Karea egiteko garai egokia (BER-101/005)

Karea egiteko sasoi egokia, maiatzetik ekainera bitartean.

378. Karea egiteko prozesuaren inguruko azalpenak (BER-101/006)

Karea nola egiten zuten. Kareharria erretzen zuten bakarrik; egurra, sua egiteko erabiltzen zen. Harria erretakoan nola geratzen zen. Karea atera aurretik, egun batzuetan bertan uzten zen eta ondoren larrainera ateratzen zuten.

379. Karobiaren egitura (BER-101/008)

Karobiaren zatiak. Hormak egiteko, harri normala erabiltzen zen. Kareharria, erretzeko bakarrik izaten zen. Arku itxura hartzen du goiko aldean karobiak; kareharriarekin eginda egoten zen. Harriak nola kargatzen ziren. Karobitik kanpoaldera, tunel bat ere egoten zen. Egurra sartzeko arku itxurako zuloa.

380. Karea eginda zegoenean ematen ziren urratsak (BER-101/010)

Labe baten itxura izaten zuen karobiak. Harria erre ondoren, behera etortzen zen eta egun batzuetan bertan utzi ondoren, ateratzeko prest geratzen zen. Ondoren larrainera eramaten zuten eta handik nahi zen tokira zabaltzen zuten.

381. Karobiaren egitura; inguruko baserriarren laguntza (BER-101/012)

Aterpea nola egiten zuten. Karea erretzen zen bitartean, gau eta egun egon behar izaten ziren bertan. Inguruko baserrietakoak ere laguntzera etortzen ziren. Tunela, labeak haizea hartzeko balio izaten zuen. Gerora, karea ere bertatik ateratzen zen.

382. Kareharria erretzeko egurra (BER-101/018)

Sua egiteko erabiltzen zuten egurra, pagadarra. Egurra nola prestatzen zuten. Otarik ez zuten erabiltzen.

383. Egurraren prestaketa (BER-101/019)

Pago abarrekin sortak egin eta ondoren meta bat egiten zuten karobi ondoan. Abuztua izaten zen garai egokiena pagoa inausi eta abarrak prestatzeko.

384. Harria kanteratik karobira nola eramaten zuten (BER-101/021)

Kareharria nolakoa izaten zen. Mailuarekin apurtzen zituzten harri handiak. Kanterako lana nolakoa izaten zen. Gurdi normalak erabiltzen zituzten egurra garraiatzeko.

385. Karegintzaren inguruko azalpenak (BER-101/022)

Egurrezko urkilak, abarrei bultza egiteko. Sahatsa izaten zen egur egokiena. Tiroa garbitzeko zer erabiltzen zuten.

386. Karea soroan nola zabaltzen zen (BER-101/023)

Karea sorora bota eta landu egin behar izaten zen, burdinarearekin edo arearekin. Euria eginez gero, lurra lokaztu eta zuen balio izaten.

387. Karearen garrantzia soroan (BER-101/024)

Kareak lurra harrotu eta gozatu egiten zuen, samurtu. Egun ez da erabiltzen, ongarri kimikoak erabiltzen direlako batez ere.

388. Naturarekiko harremana zeharo aldatu da (BER-101/025)

Egungo bizimodua zenbat aldatu den. Naturarekiko harremana asko aldatu da.

389. Karobia gau eta egun zaindu beharra (BER-101/026)

Karobia prestatu ondoren izaten zuen lana. Sua eman ondoren, zaindu egin behar izaten zen gau eta egun, hiru egunez. Egurra etengabe bota behar izaten zitzaion.

390. Karea nola teratzen zuten karobitik (BER-101/029)

Karea nola eta nondik ateratzen zuten. Burdinazko atea zabaldu eta pala handi batekin ateratzen zuten karea. Zuzenean gurdira bota eta handik etxera eramaten zuten. Karea larrainean utzi eta hoztu arte bertan izaten zuten. Ondoren, soroan zabaltzen zuten.

391. karearen erabilera desberdinak (BER-101/032)

Erreka aberatsa zuten inguruan: aingirak, amuarrainak; etab. Batzuk, arrainak harrapatzeko karea botatzen zuten uretara.

392. Karobiaren egitura (BER-101/035)

Karobiaren egitura; noizkoa zen. Karobi zaharrak aprobetxatzen ziren karea erretzeko.

393. Karearen erabilera soroan (BER-101/037)

Karearen erabilera. Lurra gozatu egiten zuen.

394. Zur mota desberdinen ezaugarriak (BER-104/004)

Zuhaitz desberdinen ezaugarriak eta erabilpena. Pagoa, altza, haritza, urkia. Pypiaren kontra uretan edukitzen zuten egurra.

395. Egurra lantzeko zailtasunak (BER-104/007)

Egurrak lanerako izaten dituen zailtasunak. Adarrak eta sustraiak izaten dituen lekuak arazoak ematen ditu, baina egiten duen marrazkiagatik gehien ordaintzen dena da.

396. Gaztainondoa, lizarra eta akaziaren ezaugarriak. (BER-104/008)

Gaztainondoaren, lizarraren eta akaziaren ezaugarriak. Gaztainondoak hezetasunari eta pipiari oso ondo eusten dio, baita lizarrak ere. Akaziak hesituretarako bakarrik balio du ia.

397. gereziandoaren egurra, ardoari kolorea emateko (BER-104/009)

Kubatik ekarritako kaoba izaten zen egurrik onena. Gereziandoa kaobaren lekuan erabiltzen zen. Ardoari kolorea emateko erabiltzen zen. Gainontzekoan, egur bihurria da.

398. Barririk egiteko prozedura (BER-104/010)

Barririk egiteko prozedura. Haritza erabiltzen da normalean. Erdian sua pizten da eta berotasunarekin aroari kolpeka osatzen da barrika.

399. Egurra botatzeko garaia (BER-104/014)

Egurra lehortzen edukitzen zuten pare bat urtez. Egurra botatzeko sasoirik onena negua da eta ilbeheran. Egunero erabilitako egurrik ez du pipiak jaten.

400. Desterari buruzko azalpenak (BER-106/002)

"Destera"ri buruzko azalpenak. Ura behar izaten du ondo mantentzeko.

401. Hesiak egiteko lana (BER-106/005)

Hesiak egiteko lana. Gaztainaren egurra erabiltzen zuten. "Burzestoa" urritzarekin egiten zuten.

402. Egurra lehortzeko prozesua (BER-106/008)

Altzariak egiteko egurrak behar duen prozesua. Egur gogorra eta biguna.

403. Egurraren erabilpena, barreneko zatia erabiliena (BER-106/012)

Egurraren erabilpena. Enborraren barreneko zatia erabiltzen zuten altzaritarako. Soberakinak sutarako izaten ziren.

404. Egur zatiak; txirbila, zerrautsa, ezpala. (BER-106/013)

Egur zatiak izendatzen ditu, txirbila, zerrautsa eta abar.

405. Egurrarentzako kola naturala (BER-106/014)

Egurra lantzeko prozesua. Kola naturala erabiltzen zuten.

406. Ehutegiaren zatien izenak (BER-108/002)

Ehutegiaren zatien izenak eta azalpenak ematen ditu.

407. Ehutegi zaharren zatiak eta funtzionamendua (BER-108/004)

Ehutegiaren funtzionamendua azaltzen du.

408. Urkamendiak Bergaran (BER-108/008)

Bergaran burututako urkatzeen inguruko kontuak. Lehen jende asko joaten zen urkamenduak ikustera, erakusgai moduan hartzen zituzten eta. Osoro izenekoa urkatu zuteneko bertsoa.

409. Ezkon inguruko arropak. Bertsoak (BER-108/009)

Ezkon aurretik eta ondorenean neskek egiten zituzten joste lanak. Xenpelarren bertsoa kantatzen du.

410. Hiru urterekin umezurtz geratu zen (BER-111/002)

Hiru urte zituela, guraso gabe geratu zen. Hasieran, amaren jaiotetxera eraman zuten, Atxotegira. Gero, Arangurentxo baserrira, hango senideengana. Ez du orduko oroitzapenik. Bere lehenengo oroitzapenak gerra garaikoak dira. Zazpi urte zituen. Frontetik aldentzeko, Legazpin egon zen bera, eta osaba-izebak, berriz, Bergaran.

411. Basalgoko eskolan, abadearekin eta Elortza maisuarekin (BER-111/004)

Komunio txikia egin ostean hasi zen eskolan, Basalgo auzoan. Irakaslerik ez zegoen eta abadea izan zuten maisu. Goizean "monagillo" lanak egin eta arratsaldean eskolara. Handik urtebetera Elortza izeneko maisua etorri zen. Harekin hiru urtez ibili zen. Komunio handia egin zuenean, 11 urterekin, eskola utzi eta baserrira lanera. Gerora, gau-eskoletan ibili zen.

412. Abere-hiltzaile lanean; ganadu kooperatiba auzoan (BER-111/006)

Baserrietan abere asko hiltzen zen eta beti izan zuen zaletasuna. Soldadutzatik etorri ostean, abere-hiltzaile ("matarife") lanean ibili zen Bergaran. 13 urte egin zituen lan horretan. Geroago, auzoko 8 baserri elkartu, kooperatiba osatu eta ganaduak ipini zituzten (80 behi). Baina ganaduen gaitza sartu zen eta kooperatibak ez zuen luze iraun. Kooperatiba desegin zenean, Fagor lantegian hasi zen, eta bertan lan egin zuen, harik eta erretiroa hartu arte.

413. Ganaduak oinez hiltegia (BER-111/008)

Ganaduak oinez eramaten ziren hiltegia. Beste herri batzuetatik gutxi batzuk ekartzen zituzten kamioietan. Baina ez zen ohikoena, herri guztietan zeuden hiltegiak eta. Ganadu-hiltzea nola izaten zen. Gaur egungoarekin alderaketak. Gaur egun katean lan egiten dute (4-5 pertsonak), baina lehen pertsona batek egiten zuen prozesu guztia.

414. Hiltegiara eramaten ziren abereak (BER-111/009)

Txahalak eramaten ziren gehien hiltegiara, baina bestelako abereak ere bai: txerriak, bildotsak... Baita zaldiak ere. Izan ere, zaldi haragia saltzen zuen harategi bat zegoen orduan Bergaran. Inguruan ez zegoen zaldi asko eta Gasteizko batek ekartzen zituen. Txerria gantxoa sartuta hiltzen zen, gaur egun bezalaxe.

415. Ardi-zain Arangurentxo baserrian (BER-111/012)

Arangurentxo baserrian 70 bat ardi zituzten. Udaran Kiruetako txabolon edukitzen zituzten eta neguan etxean. Arto-irina ematen zitzaaien jateko. Bildotsak saldu egiten zituzten. Neguan izaten zen lanik handiena. Bildotsak kentzen zitzaizkienean, esnea jetzi behar ardiei. Gero, gaztak egiten zituzten. Berak ez zuen ikasi. Arangurentxoko amandreak egiten zituen gaztak eta saldu egiten zituzten gero.

416. Etxeko gaiak otorduetan (BER-111/014)

Baserriko gaiak jaten zituzten: babak eta urdaia. Arraina gutxi. Domeketan garbantzuak eta aza. Afaltzeko porru-patatak. Gaztainak eta sagar erreak. Horiak ziren ohiko jatorduak. Goizean baratxuri-zopa urdai zati batekin. Neguan artoa eta esnea. Jatekoa lurrezko lapiko zabalean jartzen zen mahai erdian eta denek handik jaten zuten.

417. Arangurentxo baserrian sagardo asko egiten zen (BER-111/015)

Sagar-arbola asko zegoen Arangurentxo baserrian eta sagardo asko egiten zuten etxean. 700 litroko bi barrika handi eta beste txikiago batzuk betetzen zituzten. Saldu ere egiten zuten. Inguruetatik (batez ere Soralezetik) jendea etortzen zitzaaien meriendatzera.

418. Ardoa egun berezietan; gari-lanak auzolanean (BER-111/018)

Egun berezietan bakarrik edaten zen ardoa: gari-jotzeetan, garia ereitea amaitzean zenean eta halakoetan. Garia ebakitzen auzolanean ibiltzen ziren. Arangurentxo baserrian heltzen zen garia beranduen. Garia ereiten zenean "galafarixa" egiten zen.

419. Garia jotzeko hiru era (BER-111/020)

Garia azaroan ereiten zen eta uztailean jaso. Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Jotzeko hiru era ezagutu dituzte. Lehenengoa: eguzkitan sikatzen eduki eta harlauzan kolpatuz. Bigarrena: makinarekin; azaoa sartu eta atera, eta alea kentzen zion. Lastoa osorik gordetzen zen ganbaran, ganaduarentzat. Azkenik, makina aurreratuagoa: lastoa osorik sartu eta berak banatzen zituen lastoa eta alea.

420. Igandean mezara ez joatea bekatu (BER-111/024)

Jaiero meza egoten zen Basalgon. Bera umeak zaintzen geratzen zen, etxeakoak mezara joateko. Haiak etorritakoan, bera kalera joaten zen mezara. Geroago bi meza ipini zituzten Basalgon, jendearentzat erosoagoa izan zedin. Derrigorra zen mezara joatea. Goizeko sei eta erdietan egoten zen lehenengo meza Bergaran. Norabait joatea edo jai hartzea nahi bazuten, lehenengo meza hori entzutera joan behar.

421. Basalgoko abadeak; abade-etxea; abadearekin harremana (BER-111/025)

Hiru abade ezagutu ditu Basalgon. Lehenengoa Hermenegildo Gabilondo. Hura zahartu zenean, Oiartzungo abade bat etorri zen. Gerora don Imanol, hura ere oiartzuarra. Auzoan bertan bizi zen lehenengo abadea, "damaikasia"rekin. Abade-etxea nolakoa zen. Auzokoek urtean gurdikada bat egur eman behar zioten abadeari. Gero, eskolako mutikoek txikitu behar egur hura. Baserrietara konjurua egitera joaten zenean, oilaskoak eta arrautzak ere ematen zitzaizkion abadeari.

422. Errespetu handia abadeari (BER-111/026)

Errespetu handia zioten abadeari; "gaur egungo jainkoa baino handiagoa" zela dio. Abadearen aurrean txapela kendu behar eta baita eskuan muin eman ere. Berorika hitz egiten zioten.

423. Basalgoko Santiago jaiak (BER-111/028)

Gazte asko zegoen Basalgo auzoan eta beraiek antolatzen zituzten jaiak. Santiago jaiak ospatzen dira eta urtean behin egoten zen erromeria. Plazan hautsa harrotzen zela-eta, baldeekin ura jasotzen ibilita dago. Zer egoten zen jaietan: meza, boleta, pilota partiduak... eta arratsaldean erromeria. Bolatokia non zegoen lehen. Inguruko soinujoleak egoten ziren normalean. Santa Ana eguna ere ospatzen zen.

424. Gau batean bi neska-laguntze; orduko bidezidor estuak (BER-111/030)

Gau baten bi neska-laguntze egin omen zituen, neskak beldurtu egiten zirelako. Lehen leku guztietara oinez joaten ziren. Bide estuak izaten ziren; bi pertsona ez ziren elkarren ondoan kabitzen.

425. Soldadutzatik astebururo etxera (BER-111/034)

Soldadutza Donostian egin zuen. Lehenengo hiru hilabeteetan Oiartzunen egon ziren, instrukzioak egiten. Orduan ez zen etxera etorri, baina gerora asteburu guztietan etortzen zen. Etxeko ogia eta gazta eramaten zituen bueltan, astea pasatzeko. Egunean ogi txiki bat ("txuskoa") besterik ez zieten ematen. Ondo pasa zuen soldadutza.

426. Soldadutzako kontuak: logelak, kuartela garbitzea... (BER-111/035)

Urte eta erdi egin zituen soldadutzan. Hiru hilabete etxean egin zituen, baimenarekin. Guardia bakarra egin ei zuen. "Sección de transmisiones" sailean egon zen. Nolako oheak izaten zituzten. Atezainak egoten ziren logeletan eta egunez ezin izaten ziren ohera joan. Kuartela garbitzea txandaka egiten zuten. Frakak ohe azpian sartzten zituzten, lisatzeko.

427. "Sección de transmisiones"en soldadutzan (BER-111/037)

"Sección de transmisiones" sailean egon zen soldadutzan. Pertsiana antzekoekin morse kodea erabiltzen zuten. Beste batzuk irratiekin egoten ziren. Sukaldean lan egiten zutenek lan handia izaten zuten, nahiz eta ondo jan.

428. Gerra garaian Arangurentxotik alde egin behar (BER-111/038)

Zazpi urte zituela, gerra hasi zen eta Arangurentxo baseritik alde egin behar izan zuten, frontea zutelako inguruan. Osaba-izebak Bergaran egon ziren eta bera Legazpin beste osaba batekin. Idiak ere berarekin batera Legazpira. Oinez joan ziren.

429. Legazpitik etxera itzulera gerra sasoian (BER-111/040)

Zazpi hilabete egin zituen Legazpin, frontea Bergaran egon zen denbora. Arangurentxo baserrira itzuli zirenean, arbi asko zegoen hazita, batere zaindu gabe, eta hura ateratzen ibili ziren. Bestela ez zuten kalterik izan etxean.

430. Gerra sasoiko oroitzapenak (BER-111/041)

Gerra garaiko oroitzapenak. Alde egin zuten Arangurentxo baseritik eta ez zuen berak soldadu askorik ikusi. Gogoan du Kirueta mendi aldetik tiro batzuk nola bota zituzten.

431. Santa Marina Eguna (BER-138/005)

Santa Marina Eguna, kaleko jaia. Elizako ospakizunak. Karrera ziklistak.

432. Umetako kontuak (BER-138/007)

Ama inude joan zen Madrilera. Natalio Bonbulun hazitakoa umetan.

433. Bergaran zeuden eskolak (BER-138/008)

Amamak eskola ematen zuen. Lutxi eta Julitta maistrak ezagutu zituen Zubieta kalean. Eskola municipalak epaitegian zeuden; lau eskola. Besteak partikularrak ziren.

434. Irakasleak (BER-138/009)

Maisuen izenak.

435. Erdara ikastearen garrantzia (BER-138/010)

Euskara/erdara eskolan. Erdara ikastea komeni zen.

436. Eskolak Bergaran (BER-138/011)

Neskak mojetara joaten ziren. Ospitalean beste eskola bat zegoen.

437. Futbola (BER-138/012)

Futbola. Torrekua; Agorrosin.

438. Txirrindularitza (BER-138/013)

Bizikleta karrerak.

439. Eskola kontuak (BER-138/014)

Eskola-ordutegia. Larunbatetan eskolara joan behar. Oporrak.

440. Eskolako kontuak (BER-138/015)

Eskolako kontuak. Liburuak. Eskolan piper egin eta mendira joaten ziren gaztainatara.

441. Ingurua zelakoa zen (BER-138/016)

Ingurua zelakoa zen. Perretxikotara joaten ziren; baserrietara sagarretara.

442. Musika eskola (BER-138/017)

Eskolan zenbat urtera arte. Musika eskola, udaletxean. San Pedro kalean ere musika ikasteko eskola akademia zegoen. Non kantatu izan duen. Neskek mojetan ikasten zuten musika.

443. Neskatan-mutiletan (BER-138/018)

Neskak eta mutilak. Eskola partikularrak.

444. Umetako lagunak (BER-138/019)

Umetako lagunak. Auzoak. Borrokak. Inguruko herrikoekin harremanak.

445. Mendira umetan (BER-138/021)

Mendira umetan.

446. Umetako arropak (BER-138/022)

Umetako arropak. Ama jostuna zen.

447. Jaunartzea (BER-138/023)

Jaunartzea. Haurtxo Jesus Pragakoa. Doktrina ikastera.

448. Errekan bainuak (BER-138/024)

Errekan bainuak. Presak.

449. Arto-bizarrak erre (BER-138/025)

Umetako kontuak. Gazte askok arto-bizarrak erretzen zituzten.

450. Neskak josten ikastera (BER-138/026)

Neskak josten ikastera. Jolasak.

451. Debara trenez (BER-138/027)

Debara trenez. Hondartzara.

452. Trenaren inguruko kontuak (BER-138/028)

Trenaren inguruko kontuak.

453. Neskatan-mutiletan (BER-138/029)

Neskatan. Nobio kontuak. Musika. Inguruko gazteak ere Bergarara joaten ziren.

454. San Martzialgo erromeria (BER-138/030)

Erromeriak. San Martzial.

455. Futbolaren inguruko kontuak (BER-139/001)

Jolasak. Futbola. Futbol-taldeak. "Bilbotarrak dirade nagusi futbolian... Peio Bizente... Bizente Peio" kantatzen zuten sasoi batean.

456. Pilota (BER-139/002)

Pilota. Frontoiak. Pilotariak.

457. Jolasak (BER-139/003)

Jolasak: diaboloa... Txirtxil-batzea.

458. Bizikleta (BER-139/004)

Bizikleta. Umetan eta gaztetan. Non erosi. Prezioa. Eibarren GAC eta Orbea. Alkilatzeako aukera.

459. Trena; geltokiak (BER-139/005)

Trena. Nondik nora zebilen. Geltokiak.

460. Trena; geltokiak (BER-139/006)

Diligentziarik ez zuen ezagutu. Beheko geltokia zabaldu zenean kantuan egitera joan zen. Oñati. Trenaren inguruko gorabeherak. Autobusa.

461. Euskara (BER-139/008)

Euskara. Hika / zuka. Berori.

462. Euskara; erdara (BER-139/009)

Euskaraz / erdaraz.

463. Herri-kirolak (BER-139/010)

Herri-kirolak. Bolalekuak. Posturak. Ahari-probak. Zezenak. Boxeoa.

464. Gari bateko egunkariak (BER-139/012)

Garai bateko egunkariak: La Voz de Guipúzcoa, Euzkadi, La Gaceta del Norte...

465. Kirolen berri irratitik (BER-139/013)

Kirolen berri entzuten zuten irratitik. Behin boxeoko lehiaketaren berri entzun omen zuten.

466. Zineak (BER-139/014)

Zineak. Ambrosioren eta 'Acción Católica'-koa.

467. Antzerkiak (BER-139/015)

Antzerkiak.

468. Musika Banda (BER-139/016)

Musika Bandan platilloak jotzen zituen.

469. Argazkilaritza (BER-139/017)

Argazkilaritza. Eustaquio Agirreolea.

470. Mendian ere kantari (BER-139/018)

Mendizaletasuna. Mendigoizaleak. Mendian ere kantatu egiten zuten. `Gure aitak amari´ kanta kantatzen du.

471. Taberna giroa (BER-139/019)

Txikiteoa. Abesteko zaletasuna.

472. Emakumeek erretzea arraroa (BER-139/020)

Erretze kontuak. Emakume alemaniar batek erre egiten omen zuen eta jendea harritu egiten zen.

473. Aste Santua (BER-139/021)

Aste Santua. Prozesioak.

474. Aratusteak (BER-139/022)

Aratusteak. Frontoian dantza. Neskatan.

475. Gabonak (BER-139/023)

Gabonak.

476. Abarketak josten (BER-140/002)

Abarketak josten zituzten.

477. Abarketagintza (BER-140/003)

Abarketak zelan josten ziren. Prozesua. Emakumeek etxean abarketaren tela josten zuten.

478. Zapatagintza Bergaran (BER-140/004)

Zapatagintza Bergaran.

479. Zapatagintza Bergaran (BER-140/005)

Antzuolatik narrua heltzen zen, zapatak egiteko erabiliko zena.

480. Zapatagintza Bergaran (BER-140/007)

Begarako zapatagintza.

481. Zapaten prezioa (BER-140/008)

Zapaten prezioa. Jaunartzea egiteko zapata berriak.

482. Zapataren neurria (BER-140/009)

Zapataren neurriak zelan hartzen zituzten.

483. Zapatagileak (BER-140/010)

Zapatagileak. Mendibil; Lonbide.

484. Abarketagintza (BER-140/011)

Abarketak josteko prozesua. Lan-baldintzak. Langileak. Prozesuaren atalak. Nataliok zer egiten zuen, zelan.

485. Abarketagintza (BER-140/012)

Abarketak egiteko erabiltzen zen materialea.

486. Jende asko abarketak egiten (BER-140/013)

Jende askok egiten zituen abarketak denbora librean.

487. Noiz hasi zen abarketak egiten (BER-140/014)

Noiz hasi zen abarketak egiten.

488. Umeak lan munduan (BER-140/015)

Umeak lan-munduan. Soldata.

489. Oihalgintza Bergaran (BER-140/016)

Eskola amaitu eta Narbaizanean ekin zion lanari. Ehungintza: telak, tindatze lanak... Makinak.

490. Narbaiza lantegia (BER-140/017)

Narbaizaneke lantegia. Noiz sortutakoa, e.a.

491. Oihalgintza Bergaran (BER-140/019)

Natalioren zeregina zein izaten zen.

492. Oihalgintza Bergaran (BER-140/020)

Prozesuaren zati desberdinak.

493. Oihalgintza Bergaran (BER-140/022)

Oihala zelan egiten zen.

494. Oihalgintza Bergaran (BER-140/023)

Haria eginda ekartzen zen. Toki batzuetan, Algodonera San Antonion adibidez, haria ere beraiek egiten zuten.

495. Oihalgintza Bergaran (BER-140/024)

Tela egin ondoren eman beharreko urratsak: tindatzea, aprestoa ematea.

496. Oihalgintza Bergaran (BER-140/025)

741. Errotaren inguruko azalpenak; zati desberdinak (BER-166/008)

Presako "albatia". Trumoia izaten zenean, ondo zaindu behar izaten zuten ura. 1942an urak gainezka egin zuten. Bi alba-ate zituzten, bat presa bakoitzean.

742. Errotaren inguruko azalpenak; zati desberdinak (BER-166/009)

Errotaren inguruko azalpenak; zati desberdinak. "Albatia" nolakoa zen. Nola zabaltzen zen. Trumoiak jotzen zuenean, estutasuna.

743. Presa nagusiko ura, kanaletik sartzen zen errotara (BER-166/011)

Soberan zen ura etxe azpitik pasatzen zen. Presa nagusitik errotara zetorren ura, kanalean zetorren. Komuna.

744. Ubera erreka, oso aberatsa (BER-166/012)

Errekako ura garbi etortzen zen. Erreka aberatsa: amuarrainak, angirak, karramarroak... Gerora lantegiekin asko zikindu da. Errotako presan ez zen komeni izaten guztiz hustea, bestela zikin asko botatzen zuen errekarara. Partaitti-tik datorren errekkako ura, "kostra"duna.

745. Errotarriak; presa (BER-166/013)

Errotako presaren altuera. Bi errotarri. Presatik errotarrira ura tubo batetik joaten zen.

746. Errotapia; zikintzen zenean barrura sartu behar garbitzera (BER-166/014)

Errotapia. Beheko erroberak nolakoak ziren. Barrura sartu behar izaten zen garbitzera. Zikinik ez sartzeko zer erabiltzen zuten.

747. Soberan zegoen ura etxe azpitik igarotzen zen (BER-166/015)

Soberan zegoen ura etxe azpitik joaten zen. Errotaren inguruko azalpenak. Narbaiza bolun bi presak mantentzen dituzte oraindik.

748. Errotapea nolakoa zen (BER-166/016)

Errotapea nolakoa zen.

749. Errotako errobera nolakoa zen; katilutxoak zituen (BER-166/017)

Errotako errobera nolakoa zen. Katilutxoak zituen, urarekin betetzen zirenak. Uraren "kostra".

750. Errotaren inguruko azalpenak; errotarriak (BER-166/018)

Errotaren inguruko azalpena. Goiko harrira lotuta, "palankia". Harria aldatu behar zenean, auzoko baten laguntza behar izaten zuten. "Txoriak".

751. Errotarrien inguruko azalpenak (BER-166/019)

Errotarriak. Errotaren inguruko azalpenak.

752. Errotaren inguruko azalpenak; "askia" (BER-166/020)

"Askia", irina jausten zen tokia. Aleak kajara botatzen ziren.

753. Baserritarrek garia zakueta eramaten zuten errotara (BER-166/021)

Errotako lanari noiz utzi zioten. Errekako ura Bergarara eraman zutenean laga zioten lanari. Aleak "kajara" nola botatzen zituen. Baserritarrek garia zakueta eramaten zuten. Etxeko leihoan papera egoten zen, zaku bakoitzari marka ipintzeko. Zakuak nola pisatzen zituzten hasieran. Estraperloa.

754. Errotariak lanaren ordainean, irin kopuru bat hartzen zuten (BER-166/022)

Behin zakuak pisatu ondoren, irina nolakoa egin erabakitzen zuten. Errotariak gariaren zati bat beraientzat hartzen zuten soldata gisa. Bezeroak. Harriaren garrantzia irina egiteko orduan.

755. Errotarriak gastatu egiten ziren; garbiketa lanak (BER-166/023)

Harriak gastatu egiten ziren; nondik ekartzen zituzten. Harriak garbitu egin behar izaten ziren. Irina, harriak zituen kanaltxoetatik askara irteten zen.

756. Neurriak: anega; imilauna... (BER-166/024)

Neurriak: anega; imilauna...

757. Errotan zer ehotzen zuten (BER-166/025)

Garia, artoa, garagarra, baba beltza... errotara eramaten ziren ehotzeko. Ganaduen pentsurako "saixa".

758. Taloa eta morokila egiteko irina (BER-167/001)

Taloe eta morokila. Arrasatera joan zen lagun batekin irin bila; birrin-birrina eman zieten. Ondoren gaztelu baserrian artoa erosi, Bolintxon eho eta orduan bai jan zituzten morokil onak!

759. Arto klaseak: gorria, beltza... (BER-167/002)

Arto klaseak. Arto gorria, beltza. Irinak ere desberdinak; kolore iluna edo argiagoa.

760. Baserritarrek gari-zorroekin errotara (BER-167/005)

Aixola-errekatik ere etortzen ziren beren errotara. Baserritarrek gari-zorroak astoan eramaten zituzten errotara. Bertan, irina noizko egin egongo zen esaten zitzairen.

761. Gariaren inguruko lanak (BER-167/006)

Gariaren inguruko lanak. Gari-azaoak; garia metatu.

762. Garia noiz ereiten zen; igitaiarekin ebatzen zen (BER-167/007)

Garia noiz ereiten zen. Maiatz inguruan burua irteten zaio. Gari artean zegoen oloa kentzen zen. Garia igitaiarekin ebakitzen zuten.

763. Gari-jotzeko makina; gari-kutxak (BER-167/008)

Garia noiz heltzen zen. Gariaren inguruko lanak. Gari-jotzeko makina. Gari-kutxak.

764. Ogia egiteko labeko sua (BER-167/009)

Garia kutxetan gordeta egoten zen. Behar ahala, errotara eramaten zuten kopuru bat. Ogia egiteko labeko sua egiten zuten. Ogia nola egiten zuten.

765. Neurriak: anega, imilauna... (BER-167/011)

Neurriak: anega, imilauna...

766. Familiaren jatorria (BER-169/002)

Aita, Jose Altuna. Errementaria zen. Umezurtz geratu zen. Bilbon ikasi zuen ofizioa. Ama ere (Katalin Garitano) Bilbon zegoen, sukaldari.

767. Barrenkalea eta Irizar etxea (BER-169/005)

Barrenkalea, kale garrantzitsua Bergaran. Irizar etxea. Bertako jabeak udan etortzen ziren Bergarara. Etxea nolakoa zen. Jolasean ibiltzen ziren etxe hartako atarian. Umetako jolasak.

768. San Pedro elizako prozesioak (BER-169/007)

Mezara San Pedrorra joaten ziren. Prozesioak. Eguen Santu Eguna.

769. Bergarako sasimedikua (BER-169/008)

Sasimedikua, Pedro Agarre "abarkerua". Medikua.

770. Barrenkale ingurua; Sta Marina parrokia (BER-169/010)

Barrenkale ingurua nolakoa zen. Santa Marina parrokia; zubia; pasealekua. Okindegia.

771. Compañía de Marían ikasketak burutu ondoren, lanean hasi zen (BER-169/011)

Eskolara mojetara joan zen. Compañía de María; a. 14 urtera arte egon zen bertan. Ondoren lantegian hasi zen. 3 klasetako ikasleak: externa; media-pensio eta internak. Aberats asko joaten ziren ikastetxe horretara. Mutilak Dominikoetara joaten ziren.

772. Ikasleen artean mojek egiten zituzten bereizketak (BER-169/012)

Ikasleen arteko desberdintasuna. Ezin izaten ziren elkarrekin egon; urtean egun bakar batean biltzen ziren ikasle guztiak. Kanpotik neska asko joaten ziren. Uniformeak ere desberdinak ziren.

773. Cía de Maríako internak, astean behin irteten ziren pasiora. (BER-169/017)

Cía de Marían interna bezala zeuden neskek pasiora irteten ziren astean behin. Nobio kontuak.

774. Santa Marina eguna; Musika banda Espoloian (BER-169/028)

Musika Bandak Espoloian jotzen zuen. Santa Marina eguna nola ospatzen zen.

775. Sozialistak adarrak zuzenak (BER-172/001)

Adarrak zuzenak zituztela, eta sozialistei kasurik ez egiteko ikasi zuten. Batzokiaren pare-parean omen zegoen sozialisten lokala, baina ez zuten inoiz demandarik izan. Alderantziz, nahiko ondo konpontzen ziren.

776. Umetako jolasak; euskal pilota (BER-172/003)

Tortoloska eta sokasaltoka jolasten zuten. Mutilekin jolas egitea debekaturik zuten. Esku-pilotan eskuak handi-handi egin zitzaizkion eta utzi egin zion pilotan jokatzeari. Oso gustukoa zuen igandetan pilotalekura joatea.

777. Dantzak eta kalabazak (BER-172/005)

Mutilek neskei dantza eskatzeko, "mesedez, dantzan egingo dozu?" esaten zieten. Mutilei kalabaza behin ematen bazieten, ez ziren berriz itzultzen. Erromerietan mutilek dantza egiteko ordaindu egin behar izaten zuten. Afiliatuta zeuden lekuko elizara joatea egokitzen zitzaien.

778. Errekara bainatzera (BER-172/007)

Espoloitik behera joanda, errekkara joaten ziren bainatzera. Larunbat ilunabarretan gurasoekin joaten ziren bainua hartzera. Bergaran bi presa zeuden garai hartan: herriko irteeran bat eta "Altos Hornos" inguruan bestea.

779. Bergara zaharraren toki batzuk (BER-172/009)

Barrenkale ez da asko aldatu Pilarren ezagutzan. Lehengo etxeak mantendu dira gaur arte. Santa Marina inguruan ortuak eta soroak zeuden garai hartan, baita pasealeku zabal eta ederrak ere. Ehungintza industria indartsua zegoen orduan.

780. Baba klaseak (BER-173/003)

Baba gorriak, zuriak eta beltzak daude. "Tolosania" babei buruz hitz egiten du. Baba mota bakoitza zertarako erabiltzen zen aipatzen du.

781. Artoa ereiten denetik biltzen den arte (BER-173/004)

Artoa urrian biltzen da eta maiatzean ereiten da. Artoa heldu arte zer lan egin behar izaten diren, eta zer tresna erabiltzen diren horretarako azaltzen du. Artoa ez dela bereziki delikatua dio.

782. Artoa zatiz zati (BER-173/005)

Artoak zer zati dituen deskribatzen du, eta haien izenak aipatzen ditu.

783. Artoa lantzeko prozesua (BER-173/006)

Artazuritzea (artoa zuritzea) nola egiten den azaltzen du. Gero artoaren aleak lehortzen uzten dira; eta lehortutakoan, aletu egiten dira, galbahean pasa, eta errotara eraman.

784. Artoaren erabilerak (BER-173/007)

Artoa zer gauzatarako aprobetxatzen den azaltzen du.

785. Leka eta zeruka (BER-173/008)

Leka eta zeruka zer diren azaltzen du.

786. Artoa aletzen (BER-173/009)

Artoa aletu edo irakurtzeko prozesua nola izaten zen azaltzen du.

787. Artoari lotutako lexikoa (BER-173/010)

Erne-muina zer den azaltzen du. Elkortu hitzari buruz hitz egiten dute. Lurraren egoeraz hitz egiten du, eta aipatzen du zaindu egin behar dela non ereiten den artoa, samurra egon behar baitu lurrak.

788. Barazkien haziei lotutako lexikoa (BER-173/011)

Barazkien haziei lotutako hitzak aipatzen ditu, eta haien esanahia azaltzen du.

789. Ernetzeari buruzko lexikoa (BER-173/012)

Landare bati ernetzea kostatzen zaionean, zer hitz erabiltzen diren aipatzen du.

790. Haziak eta hazitokia (BER-173/013)

Landareen haziak nola lortzen eta lantzen dituzten azaltzen du. Hazitokiari buruz hitz egiten du.

791. Berakatzak eta tipula ziltzea (BER-173/017)

Tipula eta berakatzaren alea zahartzen denean, zildu egiten dela esaten dute. Hori zergatik gertatzen den, eta zer ondorio izaten dituen aipatzen du.

792. Ziltzen ez diren laboreak (BER-173/018)

Ziltzen ez diren laboreak gehiegi handitzen (harrotzen) direnean, lorea izaten dute, eta hortik etortzen da haien hazia.

793. Porruak (BER-173/019)

Porruari buruz hitz egiten du: zildu egin daitezke, noiz erein behar diren azaltzen du, noiz biltzen diren...

794. Letxugak eta zerbak (BER-173/021)

Letxuga nola hazten eta lantzen den azaltzen du. Zerbak noiz ereiten eta biltzen diren, eta nola lantzen diren azaltzen du.

795. Letxugaren zatien izenak (BER-173/022)

Letxugaren zatien izenak aipatzen ditu.

796. Landareei lotutako lexikoa (BER-173/023)

Landarea erein, eta ernamuina ikusten zaionean zer izen erabiltzen den aipatzen du. Landarea indartsu datorrenean, zer esaten den aipatzen du.

797. Patata (BER-173/024)

Patataren ernamuina irteten den lekuari begia esaten zaio. Pataten ernamuinei buruz hitz egiten du, eta esaten du haien arabera aukeratzeko dela hazitarako patata. Patatari ez zaio arreta handirik eman behar ondo irteten dadin.

798. Patataren presentzia denboran zehar (BER-173/025)

Lehen, bere etxean, ez zuten patata ezagutzen. Patata beltza bai, baina hura desberdina zen. Gasteiz inguruan patatak ondo hazten zirela entzuten zuten. Eta gerra aurrean hasi ziren beraiek ere patata ereiten. Gerra denboran, patata landatzea sustatu zen.

799. Gaztainak eta gaztainaren gaixotasuna (BER-173/028)

Gaur egun, patata oso arrunta da gure otorduetan, baina lehen gaztainak ziren arruntenak. Gaztainen gaixotasuna sortu zen, ordea, eta bigarren mailara pasa zen orduan. Gaixotasun horri buruz hitz egiten du: haren ondorioz, gaztaina kendu egin zuten basoetatik.

800. Gaztainak hazteko paraje egokiak (BER-173/029)

Gaztainak paraje batzuetan hobeto hazten dira. Beren baserriko ingurua hartarako parajea zen, bai eta Elosu ingurua ere. Gaztainetarako parajeak zer ezaugarri izan behar dituen azaltzen du. Gaztainak biltzera joaten zireneko garaiak gogoratzen ditu.

801. Gaztainen prozesua zuzaitzetik otorduetara (BER-173/035)

Gaztaina noiz jauzten den eta jatorduetan nola prestatzen zen azaltzen du.

802. Gaztainak erretzen (BER-173/036)

Gaztainak erretzen zituztenean nola ibiltzen ziren kontatzen du.

803. Gorrina (BER-173/039)

Gorrinari buruz hitz egiten du: zeri eragiten dion, zer itxura duen, nondik datorren, zer erabiltzen den hari aurre egiteko...

804. Karearen erabilerak (BER-173/040)

Lehen, etxe barruak zuritzeko, karea erabiltzen zuten. Etxeko norbait hiltzen zenean ere, karea erabiltzen zuten etxea desinfektatzeko. Fruta-arbolei ere karea botatzen zaie. Porlanak karea ordezkatu zuen. Lehen baserri guztietan zegoen karobia.

805. Udazken inguruan baserriko lanak zeintzuk izaten ziren (BER-174/010)

Gari sasoia noiz izaten den. Udazkeneko lanak: baba batu eta artoa zuritu. Artoaren inguruko lanak. Oiloak artaleekin bakarrik hazten zituzten.

806. Baba klase desberdinak (BER-174/014)

Baba klaseak: beltza; pinttana; zuria... Arto hibridoak. Gaur egun artoa, baba sartzearen ereiten da.

807. Gari klaseak; gari-jotzea nola izaten zen (BER-174/015)

Gari klaseak. Lehenago, klase bakarra ereiten zen; ezaugarriak. Garia nola jotzen zuten.

808. Gariaren inguruko lanak; azalpenak. Auzolana (BER-174/016)

Garia ereitearen garrantzia; eginbeharreko lanak. Gariarekin batera oloa hazten zen soroan. Garia noiz heltzen zen. Gari-ebakitzearen inguruko kontuak. Auzolanean egiten zen lana; irabaztera joaten ziren. "Igitia" esaten zitzaion lan horri.

809. Gari-jotzeari buruzko azalpenak: makina egon aurretik, harlosan jotzen zen (BER-174/017)

Gari-jotzea. Makinarekin ibiltzen ziren batzuk baserri batetik bestera. Kasu batzuetan auzolanean egiten zen lan hori ere. Makina izan aurretik, gari-jotzea harlosan egiten zen, "txanketian". Gari-jotzeari buruzko azalpenak. Lan-banaketa nolakoa izaten zen. 10 lagun inguru behar izaten dira makinarekin garia erraz jotzeko.

810. Gari-ebatearen inguruko azalpen zehatzak. Lan-banaketa eta eguraldiaren garrantzia (BER-174/018)

Gari-ebakitzea. Azaoak; nola lotzen ziren. Lan-banaketa. Garia "mutxurtu". Igartzen laga; ondoren metatu. Eguraldiaren garrantzia.

811. Garia nola metatzen zen (BER-174/019)

Gari-meta nola egiten zen; azalpen zehatza.

812. Baserriko bizimodua: ur-korrontea (BER-174/021)

Etxean betidanik ur-korrontea ezagutu du.

813. Baserriaren historia; egitura. Auzokoen laguntasuna baserria jausi zenean (BER-174/022)

Baserriaren historia. Elurte batean jausi egin zen. Baserriaren egitura. Errenteroek peoitza lana egin zuten. Auzoaren laguntasuna. Bi etxebizitzakoa. Anduri.

814. Baserriaren egitura; berreraikuntza (BER-174/024)

Bi etxebizitzako baserriak. Baserrien egitura. Beraien baserria nolakoa zen. Berreraikuntza.

815. Baserri askotan harginak (BER-174/025)

Harginak baserri askotan egoten ziren.

816. Baserri zaharraren egitura (BER-174/026)

Baserriaren egitura nolakoa zen. Ganadu-askak.

817. Errentero eta etxejabeak. Toponimia (BER-174/027)

Errenteroak eta etxejabeak. Inguruko baserri gehienak errenteroak. Bergarako jauntxoak. Eskritura zaharrak. Partaitti. Baserri izenak; toponimia.

818. Lur-jabetza: baserriak; baso eta mendiak (BER-174/029)

Lur-jabetza. Basoak, mendiak. Baserriak saltzen noiz hasi ziren.

819. Baserritarraren eta etxejabearen arteko harremana (BER-175/001)

Baserritarraren eta etxejabearen arteko harremana nolakoa zen. Hizkuntzaren erabilera. Gabonetan nagusiari ematen zitzaizkion opariak: bildotsak, etab. Urtean bitan ordaintzen zitzaion (uda aldean eta gabon inguruan).

820. Kapoiak nola hazten ziren (BER-175/002)

Kapoiak nola hazten zituzten. Poliki-poliki gandorra joaten zitzairen. Barruan erabiltzen ziren; ez ziren kanpora irteten.

821. Uberako auzo-eskola (BER-175/006)

1922an jaiotakoa. Auzoko eskola. Maisu bat eta maistra bat egoten ziren. Neska-mutilak bananduta. Berari egokitu zitzaion maisua gaixoa zen eta ez zuten gehiegi ikasi. Aurreko belaunaldiak (nagusienak) Elgetara joaten ziren eskolara, fraideetara.

822. Uberako ume gehienek erdara ulertzen zuten (BER-175/007)

Eskolan erdaraz ikasten zuten. Gehienek ulertzen zuten erdara. Eskola-orduak amaitzen zirenean, etxe-inguruan jolasten ziren.

823. Baserri inguruan egiten zituzten jolasak (BER-175/008)

Gurdiarekin "txutxurrutxuka" jolasten zuten. Karramarroak harrapatzen zituzten; ziburuetan jolasean; habiak topatzen; etab. Belea asko ugaritu dira.

824. Umetako jolasak baserri inguruan eta errekan (BER-175/009)

Umetako jolasak: poteka; intxaurrekin; pilotan elizpean. Uberako pilotalekua. Karburo-potea. Kartetan; danba-jokoa; etab. Belar ugarirekin (flota...). Zaku-karrerak. Amuarrainak.

825. Umetan errekan bainatzen ziren (BER-175/010)

Umetan errekan bainatzen ziren. Errekatxoa, Larrosinetik dator. Toponimia: Ur-punta.

826. Etxe ondoko erreka, oso aberatsa (BER-175/011)

Etxean beti ezagutu dute ura. Erreka aberatsa. Arropak garbitzearen gaineko azalpena.

827. Emakume eta gizonezkoen arteko lan-banaketa baserrian (BER-175/012)

Lan-banaketa baserrian. Gizonezkoak, emakumeak. Basoko lana; soroa; ortua. Labeko sua. Herrira saltzera larunbatetan.

828. Santa Luzia eguneko feria (BER-175/013)

Santa Luzia eguna. Astoen feria ezaguna; "kaballerixia". Valentziatik erosle asko etortzen ziren.

829. Astoaren eta idien garrantzia (BER-175/014)

Astoaren garrantzia baserrian. Idiak.

830. Umetako lanak baserrian: itulan idiekin (BER-175/015)

Itulan egiten zuen umetan. Idiek erraz ikasten dute.

831. Ubera auzoan errota ugari (BER-175/016)

Artoa errotara eramaten zuten. Urkuldu. Errota ugari zeuden auzoan; auzo-errota bi ere bazeuden.

832. Ume eta emakumeen bizimodua baserrian (BER-175/017)

Umeak, emakumeak baserrian lanean. Itulan.

833. Erromeria ezagunenak inguruan (BER-175/018)

Auzo desberdinetako umeak elkar-ezagutzen ziren. 14 urte ingururekin erromeriara joaten ziren lehenengoz. Gerra ostean Elgetan erromeria jaiero egiten zen. Erromeria ezagunak Asentzión, Goimendin... Angiozarren Elizamendin. Jaiegunak. Soinujole ezagunak: Intxuzabalgo "Elgeta".

834. Erromeriatako kontuak (BER-175/019)

Erromerietako kontuak.

835. Doktrina eta Jaunartzea (BER-175/020)

Doktrina. Jaunartzearen inguruko azalpenak. Bi jaunartze egiten zituzten, txikia eta handia.

836. Garizumako ohitura zaharrak (BER-175/022)

Garizumako ohitura zaharrak. "Idaskia"; "Ixua". Su bedeinkatua. Diru-batzeak. Ur bedeinkatua emakumeek hartzen zuten. Abadeak sua bedeinkatzen zuen.

837. Erramu eguneko ohitura zaharrak (BER-175/023)

Erramu egunean, gurutzeak jartzen zituzten soroetan. Erramua; elauntza.

838. Garizuman txirikilarekin jolasean (BER-175/024)

Garizuman txirikilarekin jolasten zuten. Dantza egitea debekatua.

839. Bedeinkazioak eta sinesmenak (BER-175/025)

Abadea baserrira joaten zen soroak, etxea bedeinkatzera. "Konfuroa". Hodia zetorreanean ere "konfuroa" egiten zen. San Migelgo ermita; hodia zetorreanean kanpaiak jotzen zituzten.

840. Kanpai hotsak; izenak (BER-175/026)

Hodia zetorreanean kanpaiak jotzen ziren. Su-kanpaiak. Egunean zehar entzuten ziren kanpaiak; izenak.

841. Hileta-elizkizunen inguruko ohitura zaharrak (BER-175/027)

Hileta-elizkizunak. Lehenago Elgetara joan behar izaten ziren. Gerora, abadeak kanposantu berri bat bultzatu zuen Uberan. Hileta-ohiturak.

842. Elgetako elizako sepulturak (BER-175/028)

Elgetako elizan sepulturak. Ohitura zaharrak.

843. Errementari eta perratzaileak baserrietan (BER-175/029)

Errementariak baserrietan. Emakume bat ezagutu zuen perratzaile lanak egiten. Idiak, behiak, astoak ere perratzen zituzten. Uberako errementaria.

844. Baserriko ekonomia (BER-175/030)

Baserriko ekonomia. Arotzak, harginak. Baserrian geratzen zen seme edo alabak, baserriatik ateratzen zuen bizimodua. Morroia.

845. Gerra garaian, auzoa bi fronteen artean gelditu zen (BER-175/031)

Soldadutza Donostian, Zarautzen, Bera de Bidasoan... Gerra garaiko kontuak: auzoa bi fronteren erdian geratu zen; Luis ardi-zain ibiltzen zen egun guztian.

846. Tropak baserrian (BER-175/032)

Milizianoak ondoko baserrian. Familia baserri desberdinetan sakabanatuta. Beraien baserrian "ingenieros zapadores". Gerra garaia baserrian.

847. Tropak baserrian (BER-175/033)

Zapadoreak egon ziren beraien baserrian. Hartu-emana.

848. Frontea baserrian bertan (BER-175/034)

Frontea baserrian.

849. Elgeta frontearen puntu garantzitsua (BER-175/035)

Frontea Elgetan. Hegazkinak; bonbardaketak.

850. Gerra ondorengo urteak, gogorak baserritarrentzat ere (BER-175/036)

Gerra ostea. Harria; haizea; siketeak. "Urjola". 3 bat urtetan ez zen ganorazko laborerik hartu. Gosea kalean batez ere. Urte gogorrak izan ziren.

851. Jatorria; biografia (BER-176/001)

1926ko urrian jaiotakoa. Ama plazentziako San Marzialgoa eta aita bertakoa. Baserrian bizi izan diren aurreko belaunaldiak. Maiorazgoaren garrantzia. Besoetakoak.

852. Lixiba nola egiten zuten (BER-176/006)

Lixiba nola egiten zuten.

853. Garbitasuna (BER-176/007)

Garbitasuna. Benda-belarrarekin egindako erratzarekin etxea garbitzen zuten; arkakusoak uxatzeko ona ei zen. Igandetan, etxe-garbitzea izaten zen. Emakumeak egun horretan ez ziren ganajatekoa egitera joaten. Emakumeen lana zein izaten zen.

854. Emakumearen bizimodua baserrian (BER-176/008)

Gizonezkoen eta emakumeen arteko lan-banaketa. Ontzola baserrian emakume asko egon ziren eta lan asko egin zuten. Emakumearen bizimodua baserrian oso gogorra.

855. Labrantzarako lur gaiztoak (BER-176/009)

Idiak lan gogorrak egiteko erabiltzen ziren. Ontzola (Orontzola) baserria ez zen labrantzarako egokia; gerora makinak ere ezin sartu eta pinu sartzea etorri zen.

856. Baserriko ekonomia (BER-176/010)

Baserriko bizimodua. Baserrien berriztea noiz eta nola izan den posible. Lehenago anai-arreben, auzokoen arteko laguntasuna egoten zen. Baserritik kanpo lan egiten ez bazen, egoera beti larriagoa. Bizitzarekiko ikuspegia. Baserriko ekonomia.

857. Baserriko ekonomia (BER-176/011)

Baserriko ekonomia. Bizimoduaren gorabeherak. Belaunaldien arteko harremana.

858. Baserriko ekonomia (BER-176/012)

Baserriko ekonomia. Bizimoduaren gorabeherak. Eibarrera saltzera.

859. Bizimoduaren aldaketa (BER-176/013)

Gaztagintza. Baserriko ekonomia. Bizimoduaren aldaketa. Eibarrera saltzera.

860. Bildotsak saltzera inguruko herrietara (BER-176/015)

Bildotsak Eibarrera, Plazentziara eramaten zituzten.

861. Berrikuntzak baserrian (BER-176/016)

Berrikuntzak baserrian: butanoa sartu zenekoa. Ekonomika. Emakumearen lana. Lehengo emakumearen eta gaurkoaren lana, izaera. Argi elektrikoa.

862. Berrikuntzak baserrian (BER-176/018)

Argindarra eta ura betidanik ezagutu dute etxean. Komuna.

863. Baserrian ur-korronterik ez (BER-177/002)

Ur-korronterik ez baserrian. Kanpoan zegoen aska batean iturri bat zegoen eta bertatik hartzen zuten sukalderako ura. Abereentzako ura nondik hartzen zuten. Zailtasunak.

864. Hilabete oso batean, elurra kendu gabe egon zenekoa (BER-177/003)

Izozteetan, hodiak ez apurtzeko zer egiten zuten. Izozte handia egin zuenekoa. Hilabete osoan elurra kendu gabe. Pinu-sartzeko garaia.

865. Izozte handia gertatu zeneko ipuinak (BER-177/004)

Izozte handia izan zeneko kontua. Haur jaio berria etxean; egoera gogorra. Ohea berotzeko zer erabiltzen zuten. Orduko pasadizoak.

866. Elur-klaseak; bide-zuloak (BER-177/005)

Elur-klaseak. Sarritan bideak haizearekin berdinduta gelditzen ziren; lehenagoko gertakari bat. Isumendi. Bide-zuloak. "Edur-batuak".

867. Elurte handiek eragindako eragozpenak (BER-177/006)

Izotz urtean, Agarre baserrikoeri gertatutakoa. Elur asko etxe inguruan; arazoak. "Lurmen". Elizarako bidean, gorputza erdi izoztuta.

868. Eguraldi txarrarekin baserriko bizimodua gogorragoa egiten da (BER-177/007)

Eguraldi txarrarekin ibilera txar asko izaten ziren baserrietan. Ingurua; toponimia. Sarritan idiekin joan behar izaten ziren esnetan. Astoak ez dira egokiak elur artean ibiltzeko.

869. Elur handia egiten zuenean, idiekin esne-saltzen (BER-177/009)

Anaia idiekin joan behar izan zen esnetara; dena zurituta zegoen eta astoarekin joan ezin.

870. Urte osoan zehar esnea bezeroei eraman behar (BER-177/010)

Negu gogorra gertatu arren, derrigorrezkoa esnea bezeroei eramatea. Umeentzat esnea. Behin gertatutakoa bezero batekin. Umeentzat esnerik ez; garai aldaketak.

871. Gerraostean gizartean gertatutako aldaketak (BER-177/011)

Aldaketa izugarria gizarteak. Bizimoduaren ikuspegia. Garia ereiteari noiz eta nola utzi zitzaion. Errazionamentua. Garia, abereak entregatu behar.

872. Baserriaren etorkizuna; egungo egoera (BER-177/014)

Baserriaren etorkizuna; egoera.

873. Baserrietako egitura ekonomikoaren aldaketa (BER-177/015)

Pinua noiz hasi zen landatzen inguruan. Egoera ekonomikoa. Baserrietako egitura ekonomikoaren aldaketa. Morroi eta neskameak. Gerraostea; gose garaia. Ondorengo boom industrialia.

874. Gose garaian herritik baserrietara jende asko joaten zen (BER-177/016)

Neskameak baserrietakoak izaten ziren. Baserrira gose garaian ere jende asko joan zitzaien denboraldi baterako.

875. Baserritik lantegira (BER-177/017)

Morroien lana; lan-baldintzak. Jendea lantegietara joaten hasi zenekoa. Baserriko lanak. Baserriaren egoera; etorkizuna.

876. Industriaren gorakadarekin batera, baserrien hustuketa areagotu zen (BER-177/018)

Industriaren gorakadarekin batera, baserriak husten hasi ziren. Baserrietara neskak ezkontzerik nahi ez; bizimodu oso gogorra. Emakumearen bizimodua, egoera. Senarrarekin ezkondu beharrean, familia osoarekin ezkontzen zen.

877. Baserriko bizimodua eta kalekoa (BER-177/020)

Baserriko bizimodua; kaleko bizimodua.

878. Testamendu zaharreko bertso zaharrak (BER-177/023)

Abere-zaintzen. Bertsotan. Testamendu zaharreko bertso zaharrak.

879. Aurreko belaunaldikoek eskola gutxi; erdara soldadutzan ikasitakoa (BER-177/024)

Baserrietako nagusienek eskola gutxi zuten. Erdara soldadutzan ikasitakoa. Beraiek ere eskola gutxi.

880. Amandreak eliza-liburua irakurtzen zuen (BER-177/025)

Amandreak elizako liburua irakurtzen zuen.

881. Arrosarioa errezatu arto-zuritzen zeuden bitartean (BER-177/026)

Amandrearekin arrosarioa errezatzen zuen arto-zuritzen zeuden bitartean.

882. Amandrea nolakoa zen (BER-177/027)

Amandrearen inguruko kontuak. Esaera zaharra.

883. Jaiotza ospatzeko gonbidautza handia (BER-180/001)

Jaiotzak ospatzeko jende asko gonbidatzen zen. "Martopilak".

884. Belar-ondoa, garo-batzea eta gari-lanak (BER-180/003)

Baserriko lanak. Belarra ebakitzea; garo-batzea; garia. Gariaren inguruko lanak. Azaok. Azaokekin meta egiten zen. Gari-jotzea. Gari-garbitzea.

885. Gari-zorroak errotara ; irina galbahetik pasatu behar (BER-180/004)

Errotara gari zorroak eramaten zituzten. Irina galbahetik pasatu behar zen: "zahixa". Zahia abereentzat izaten zen.

886. Gariaren inguruko lanak; laguntzera joaten zirenei afaria ematen zitzaien (BER-180/005)

Gariak lan ugari izaten zuen. Auzolana. Afaria ematen zitzaien laguntzera joandako guztiei. Arratsalde erdian merienda ere jaten zuten. Ilundu artean lana.

887. Gari-jotzeari buruzko azalpenak: lan-banaketa; gaueko giroa (BER-180/006)

Gari-jotzean hauts handia ateratzen zen. Ura berotu eta nola garbitzen ziren. Gauean bertsotan ere egiten zuten. Lan-banaketa nolakoa izaten zen; guztientzat egoten zen lana.

888. Garia noiz ereiten zen; hurrengo hilabeteotako lanak (BER-180/007)

Garia noiz ereiten zen, nola. Lurra goldatu lehenengo eta ondoren garia erein. Artoa jaso eta soro hartan ereiten zen garia. Harri berdearekin erretzen ziren gari-aleak. Garia azaroan erein eta martxo inguruan gari jorra izaten zen. Esku-etena.

889. Garia bedeinkatzera abadea eta hiru meza-mutil joaten ziren (BER-180/008)

Maiatzean apaiza joaten zen garia bedeinkatzera. Hilabete horretan ateratzen zitzaion burua gariari. Horri buruzko esaera zaharra. Apaizarekin batera hiru meza-mutil joaten ziren arrautza eta gazta batzera. Gariaren beherakadarekin batera amaitu zen bedeinkazioaren kontua.

890. Garia ereiteari noiz utzi zitzaion (BER-180/009)

Gariaren beherakada. Bizimodu aldaketa baserrietan. Kalera, lantegietara lanera. Beraiek abere gehiago hartu zituzten; pinu-sartzea ere egon zen.

891. Garoa batzera nora joaten ziren (BER-180/010)

Garotara ia Pol-Poleraino joaten ziren. Garoa ere metatu egiten zen.

892. Gari-ebatea nola egiten zen; lanaren inguruko azalpenak (BER-180/011)

Garia ebagi ondoren eta jo aurretik, metatu egiten zen. Gariaren lanak. Garia igitaiarekin ebaten zen. Azaoak egin eta emakumeak lotu egiten zituzten. Ondoren azaoak metatu egiten ziren.

893. Antzina garia "txanketian" jotzen zen (BER-180/012)

Garia "txanketian" nola jotzen zen.

894. Gari-jotzea eta gari-garbitzearen inguruko lanak (BER-180/013)

Gari-jotzea nolakoa zen. Katean egin beharreko lana. Gazteentzat ere lana egoten zen. Gariaren zati desberdinak; guztia aprobetxatzen zen. Gari-garbitzeko makina. Ondoren, gari aleak kutxetan gordetzen zituzten.

895. Garia errotara zorroetan; labeko sua (BER-180/014)

Labeko sua astero egiten zen. Ogia egiteko, garia zorroetan eramaten zuten errotara. Negu garaian, artoa ere eramaten zen artairina egiteko. Morokila; taloa eta esnea.

896. Osintxun garai batean egon ziren errotak (BER-180/015)

Auzoan izan zituzten errotak. Garai batean hiru errota egon ziren inguruan. Gerra ostean itxi egin zituzten eta Aizpurutxo ondoan zegoen errota batera eraman behar izaten zituzten zorroak. Etxeberriko errota.

897. Gari-zorroak errotara; errotariaren jorjala (BER-180/016)

Auzoko errotak: Atxuriondo; Bilotegi bolua eta okindegia. Zorroak eraman eta errotariak bere jorjala bertatik kentzen zuen, "Iakia". Estraperlo garaian "Iakia" zenbatekoa izaten zen.

898. Errotarien inguruko kontuak (BER-180/017)

Errotarien inguruko kontuak. Tranpak.

899. Errotari batzuk irina baserrietara eramaten zuten bueltan (BER-180/018)

Garai batean errotariak eramaten zuten irina baserrietara.

900. Errotariaren lana (BER-180/019)

Gari-zorroak errotariak pisatzen zituen.

901. Errotak itxi egin zituzten gerra ondorengo urteetan; Bergarako irin fabrika (BER-180/020)

Gerra ostean inguruko errotak itxi zituztenean, garia Bergarako irin fabrikara eraman behar izaten zuten. Gurdiarekin joaten ziren, idiekin. Handik urte batzuetara, irin fabrika ere itxi zen.

902. Auzoko errotak prezintatuta eta gauez Aizpurutxora joan behar (BER-180/021)

Gerra garaian errotak prezintatu egin zituzten. Aizpurutxoko errota joan behar izaten ziren gauean; goizaldean etxera itzuli eta baserriko lanekin jarraitu behar.

903. Gabonetan errondak egiten ziren (BER-180/022)

Errondak Gabonetan izaten ziren. Elosuko bentara joaten ziren. Neskak ez ziren gauez ibiltzen kalean. Nesken errondak, arto-zuritzen baserriren batean.

904. Erromeria eta neska-laguntzea: debekuak; bekatuak... (BER-180/023)

Erromeria amaitu ondoren neska-laguntzea nolakoa izaten zen. Laztanik ere ez. Guztia bekatua zen; konfesatzean dena kontatu behar izaten zen. Dantza lotua eginez gero, neskak kongregaziotik botatzen zituzten.

905. Konfesatzera baraurik joan behar zen (BER-180/024)

Konfesatzera baraurik joan behar zen. Mariaren auzoko kontuak: Jaunartzea; Doktrina. Baserriko, kaleko umeak.

906. Doktrina ondo jakiten ez bazen, abadeak umeari "kalabaza" ematen zion (BER-180/025)

Osintxuko baserri bateko semeari doktrina ez jakitearren apaizak "kalabaza" eman eta lagunaren aurrean barregarri gera arazi zuen. Gerora amak Arantzazura eramane zituen seme-alabak Jaunartzea egitea.

907. Doktrinaren inguruko kontuak (BER-180/026)

Umea "kalabazero" izatea, gurasoentzat gauza lotsagarria zen. Erromerian ere ematen ziren "kalabazak". Doktrina desberdinak. Doktrina euskaraz, erdaraz.

908. Amonak klaseak ematen zituen baserrian bertan (BER-180/027)

Mariaren amonak klaseak ematen zituen baserrian. Inguruko baserrietatik umeak joaten ziren beraienera eskolara. Amona, Frantziara neskame joandakoa. Garaiko orrazkera; moda. Gerora titulodun irakasleak etorri ziren.

909. Auzoko umeak amonaren eskolara joaten ziren (BER-180/028)

Auzoan bidea egin zutenean Mariaren anaiak txofer lana egiten zuen; Inguruko umeak eskolara eramaten zituen.

910. Gerra ostean beste maistra bat auzoan (BER-180/029)

Gerra ostean aldameneko baserrian ere maistra bat egon zen.

911. Doktrina ongi ikastearen garrantzia; gauetan arrosarioa errezatzeko ohitura (BER-180/031)

Doktrina ikastea oso garrantzitsua zen. Garai batean arrosarioa errezatzen zen iluntzean.

912. Baserriko lanak: gaztaina-batzea (BER-180/032)

Baserriko lanak. Gaztaina batzea.

913. Gaztaina klaseak; gaztainondoak txertatutakoak izaten ziren (BER-181/001)

Gaztainak. Egosteko, azala kentzen zitzairen. Txertatutako gaztainak izaten ziren. Gaztaina klaseak. Guztiz ihartu ziren. Adarrak jo; zertarako, nola.

914. Ingurua -basoak, zelaiak- asko aldatu da; baserriaren etorkizuna (BER-181/002)

Ingurua asko aldatu da; basoak, zelaiak. Baserriaren etorkizuna. Lurrak ez du erantzuten.

915. Baserritik bizimodua aurrera ateratzea oso zaila (BER-181/003)

30 urtean prezio berean dago baserriko txahala. Baserritik bizimodua ateratzea ezinezkoa.

916. Intxaurrak, gaztainak... ganbarangordetzen zituzten (BER-181/004)

Ganbaran gordetzen zituzten intxaurrak, gaztainak... Toki freskoa behar izaten dute.

917. Udazkenean baserrian egoten ziren lanak (BER-181/005)

Udazkenean intxaurrea, gaztaina, sagarra, artoa, babak, batzen zituzten. Babak dituen lanak. Artoarekin kopeta egiten du. Jeneroa ganbaretan gordetzen zen, negurako prest egoteko. Eguraldiaren eragina.

918. Abereen inguruko azalpenak (BER-181/006)

Ganadutegia. Abereek duten lana; txahalak. Astoekin egiten ziren lanak: esneta; teila jasotzea... Esnea herrira eramateak zituen lanak.

919. Baserriaren izatea; lana erruki gabe (BER-181/007)

Baserriaren izatea; lana erruki gabe. Egun emakumeek ez dute nahi baserrira bizi izatera joatea. Familia handiak nagusi ziren baserrietan. Morroi, neskame joaten ziren umetan.

920. Baserriko bizimoduan aldaketa handia gazteak lantegietan sartu zirenean (BER-181/008)

Lantegietan lana ugaritu zenean, baserrietako gazteak bertara hasi ziren joaten. Goi mailako heziketa orokortu egin zen gizartean. Aldaketa handia gizartean.

921. Emakumearen egoera baserrian (BER-181/009)

Emakumearen egoera. Gazte ezkondu eta umeak edukitzen hasi. 30 urterako ezkontzen ez zena, neskazar. Neskazarren bizimodua; gizartean tokirik ez. Ezkondutako emakumearen bizimodua eta egoera baserrian; bertako familia onartu beharra.

922. Baserriko bizimodua; umeak morroi edo kriada (BER-181/010)

Ume txikiak morroi edo neskame joaten zirenean, gurasoen sentimenduak zeintzuk izaten ziren.

923. Gerra osteko egoera kalean (BER-181/011)

Gerra ostean, kaleko jendea baserrietara joaten zen zerbait jango bazuen.

924. Erromeria kontuak; soinujoleak, jazzbana... (BER-181/012)

Ume-umetatik lanean hasi bai, baina erromerietara joateko astia ere izaten zuten. Asentzio, Irukurutzeta, Elosun... erromeria ezagunak. Bergarako Pazkoak. Elosuko erromerian, soinujoleak eta jazzbana. Aizpurutxo.

925. Erromeria kontuak: soinujole ezagunak; inguruko jai ospetsuak (BER-181/013)

Soinujole bakoitzak bere plaza izaten zuen. Korroak. Gelatxo; soinujole ezagunak. Bergarako Pazkoak, jai ezagunak. Espoloian musika egoten zen. Beraien gazte denbora motza izan zen.

926. Erromeriara joateko zer janzten zuten (BER-181/014)

Erromeriara nola joaten ziren jantzita. Fraka "mil-rayas"a. Plantxak nolakoak izaten ziren. Behin ezkonduz gero, kalera irteteko aukerarik ez.

927. Baserriko bizimoduaren inguruko aipamenak (BER-181/015)

Plantxak nolakoak izaten ziren. Txokolatea egiteko molinilloa. Kanpokoren bat baserrira joaten zenean bisitara, jateko zer ematen zitzaion.

928. Baserriko lanak: lurreta (BER-181/016)

Lurreta udaberrian egiten zuten. Mugarte txikiak, etxeok egiten zituzten. Sail handiak, auzolanean egiten ziren; txandaka auzoko baserrietan.

929. Baserriko lanak: simaurretan egitea (BER-181/017)

Simaurretan ere auzolanean egiten zen. Otar handia bete eta simaurra zabaltzen zuten soroan. Simaurra eragitea, ilbeheran egin beharreko lana.

930. Txerri edo txahal hiltzea; ilargiaren eragina (BER-181/018)

Txerria eta txahala hiltzeko garaian ere ilargiari begiratzen diote. Sutarako egurra, ilbeheran botatako egurra. Materialerako egurra, ilbarrian bota behar izaten zen. Pagoa, urritza, lizarra.

931. Txerri hiltzea nola izaten zen (BER-181/019)

Txerri-hiltzearen inguruko kontuak.

932. Txerri hiltzea: lan-banaketa; txorizo, odolosteak nola egiten zituzten... (BER-181/020)

Txerriarekin egiten zituztenak: odolosteak; txerri-manteka; txorizoak... Erremedioak egiteko txerri-manteka, oilo-gantza... erabiltzen ziren. Odolosteak nola egiten zituzten. Lan-banaketa. Txorizoak oliotan kontserbatzen zituzten. Gatza nola ematen zitzaion.

933. Bildots-garaia (BER-181/022)

Bildots-garaia. Intseminazio artifizia. Lehenago auzoan puestako ar bat egoten zen. Ermandadea.

934. Ikazkintza: egur egokia; ikatza nora saltzen zen (BER-181/023)

Ikazkinak sarritan ikusi ditu lanean. Etxean behin egin zuten ikatza; nora saltzen zuten. Elosun baserri guztietan egiten zen ikatza. Pago egurrarekin egindako ikatza; gaztaina-egurrarekin egindakoa. "Ikaztoixa".

935. Inguruan karobirik ez dute ezagutu (BER-181/024)

Ez dute karobirik ezagutu inguruan.

936. Baserritarren eta ijitoen arteko harremana (BER-184/004)

Baserritarren eta ijitoen artean zer-nolako harremana zegoen azaltzen du. Bera jaio baino lehenago, harreman hobea omen zegoen ijitoekin.

937. Bergarako ijitoak (BER-184/005)

Bergaran ez zeuden Hungrianoak, bertako ijitoak bakarrik baizik. Euskaraz bazekiten gehienek, eta zestoak egiten zituzten.

938. Dirua eta txanponak denboran zehar (BER-184/007)

Gerra aurretik, gerran, eta gerra ostean zer txanpon eta zer diru klase zegoen azaltzen du.

939. Haizea (BER-184/009)

Anboto haizeari buruz hitz egiten du, eta nolakoa den azaltzen du. Haizea nondik zetorren ikusteko tresna bat zeukaten. Lehen haizeak inguruko herrietako fabriketako sirenen hotsa eta trenaren zarata ekartzen zuen. Haizeari esker eguraldia asmatzen zuten.

940. Eguraldiari buruzko kontuak (BER-184/011)

Hodeiaren eta lainoaren arteko desberdintasunak aipatzen ditu. Behin, Bergaran zerua ilundu eta Elgetan euri-jasa izugarria bota zueneko kontakten du. Eguraldiari buruzko kontuak aipatzen ditu.

941. Hodeia zetorreneko ohiturak (BER-184/012)

Lehen, harririk egin ez zezan, hodeiaren kontrako konjuruak egiten ziren, gurutzeak jartzen ziren, bedeinkatutako erramua erretzen zen... Hodeiaren arriskua zegoenean, kanpaia jotzen zuten. Eta halakoetan, jendeak arreta jartzen zion eguraldiari.

942. Sineskerak (BER-184/013)

San Migelen bizi zirenek jotzen zuten kanpaia. Pertsona horiek ermita zaintzeko eta horrelako zereginetarako zeuden han, eta eguraldia aztertzeko zaletasuna zuten. Esaten denez, tenplarioak ere aspaldi bertan egoten ziren. Urtean behin ospakizun bat egiten dute San Migelen.

943. Lapurrak eta diligentziak (BER-184/015)

Lapur batek lapurreta egiteko erabili zuen trikimailua kontakten du. Diligentziak eta Mikeleteak aipatzen ditu, eta behin diligentziei gertatutakoa kontakten du.

944. Gerra sartu zenekoa eta batailoiak (BER-184/018)

Gerra nondik sartu zen azaltzen du. Gerra sartu zenean, ardiak segituan ekarri zituzten menditik; baina hori oso arriskutsua zen. Bergaran egondako batailoiei buruz hitz egiten du.

945. Trintxerak eta batailoiak (BER-184/019)

Trintxerak non egin zituzten azaltzen du. Bera basoan egon ohi zen bakarrik, ardiekin erdi ezkutuan. Batailoia antolamenduaz hitz egiten du: baserrietan eta mendiko txaboletan egoten ziren.

946. Batailoiak baserrietan (BER-184/021)

Batailoioek tratu ona izaten zuten baserrikoekin. Inguruko herrietako jendeak osatzen zituen batailoiak. Luisen familiaren baserrian izandako batailoiak nor ziren, eta non eta nola egon ziren azaltzen du.

947. Batailoiak eta ganadua (BER-184/022)

Batailoiak baserrian zeuden bitartean, ganadua egunean zehar kanpora ateratzen zuten, arriskutik aldentzeko. Bukaeran, ganadua kendu egin zieten. Soldaduek ordaindu egiten zuten jaten zutena, nahiz eta diru horrek geroago baliorik izan ez.

948. Batailoia baserrian zegoen bitarteko soro-lanak (BER-184/024)

Soldaduak etxean eduki zituzten bitartean, gauez ereiten zuten garia; eta artoa eta babak ere bildu zituzten. Arriskutsua zen soroan lanean ibiltzea. Lanean zebiltzala hil zituzten bi pertsona aipatzen ditu.

949. Janaria batailoia baserrian zegoen bitartean (BER-184/026)

Gerrako 7 hilabete zail haietan, lurra lantzen segitu behar izan zuten nola edo hala. Bergarara, hala ere, ez ziren jaisten saltzera, hartuta baitzegoen. Baserrian zerbait falta zenean, soldaduei eskatzen zieten, eta astean behin hornidura ekartzen zieten gurdizainek. Gurdizainak baserritarrak izaten ziren, eta karga eramateko edozein baserritako astoak hartzen zituzten. Soldaduei ez zitzaion janaririk falta izan.

950. Erasoetako armak (BER-184/031)

Baserriei eraso egiten zieten. Asko bala bidez. Kanoikada ugari botatzen zituzten baserri ingurura ere. Hainbat jaurtigai lehertu gabe geratu ziren soroetan: batzuk beraiek leherrarazi zituzten basoan, eta besteak lurperatu egin zituzten.

951. Kanpora erdara ikastera (BER-184/033)

Klaseak erdaraz izan arren, euskaraz egiten zuten beren artean. Lehen jendea Arabara eta Bilbora joaten zen erdara ikastera. Bera Bilboko jesuitetan izan zen 1937an. Gerra garaia zenez, baina, irakaslea egunero aldatzen zieten. Osaba jesuita zenez, hark lagundu zien Bilbora joaten. Gurasoen garaian ere bazegoen kanpora erdara ikastera joateko ohitura.

952. Soldadutzan ere euskaraz (BER-184/034)

Aita oso gutxi ibili zen soldadu. Luisek soldadutza Donostian egin zuen. Gehienak euskaldunak zirenez, ez zuten erdararik egiten, nahiz eta erdara praktikatzeko gogoia izan.

953. Indautxuko jesuitak (BER-184/035)

Indautxuko jesuitetan izan zenean, zer ikasketa ematen ziren han azaltzen du. Luis talde baten barruan zegoen, eta haien lana eskola garbitzea izaten zen.

954. Aita arotza; amak janari-denda Osintxun (BER-186/004)

Aita arotza zen eta etxeak egiten zituen. Gero zerrategia ipini zuen Osintxun. Luciok ere bertan lan egin zuen soldadutzatik etorri ostean. Lehen jendea Gasteizera joaten zen gaztelaniaz ikastera. Amak ez zekien tutik ere gaztelaniaz, baina hala ere ondo moldatzen zen Osintxun zuen janari-dendan.

955. Osintxuko errementaria; elkarrekin lanean (BER-186/007)

Osintxuko errementaria: Damaso. Kanean zeukan errementeria. Beraiek zerrategia zuten eta askotan elkarrekin egiten zuten lan. Gainera, lagunak ziren.

956. Osintxuko Damaso ferratzailea (BER-186/010)

Osintxuko Damaso errementaria ferratzailea ere bazen. Aita Damaso zen eta semea Lucio. Inguruetakoa ferratzaile bakarra zen. Mutil gazteak edukitzen zituen ofizioa ikasten. Soroluzen ere ferratokia zuen. Baserrietatik kalera jaisten ziren abereak ferratzera.

957. On Benigno abadearekin meza-laguntzaile (BER-186/017)

Doktrina euskaraz eta gaztelaniaz ikasi zuen. On Benigno abadearekin meza-laguntzaile moduan urte asko egin zituen.

958. Gerra sasoian errekarra salto eginda ihes (BER-186/021)

Gerra sasoian nazionalak Osintxuko sei gizon hil nahi izan zituzteneko kontuak. Batek ihes egitea lortu zuen errekarra salto eginda.

959. Osintxuko errekan arrantzan eta igerian (BER-186/029)

Errekan ibiltzen ziren asko mutikotan, arrantzan edo igerian. Igerian nola ikasi zuen. Soroluzen makal (txopo) handi batetik uretara salto egiten zuten. Pilotan ere asko ibiltzen ziren, elizpean.

960. Osintxuko errekan arrantzan (BER-186/031)

Arrantzan ibiltzen ziren errekan. Loinak, barboak eta aingirak harrapatzen zituzten. Loinak butroiarekin arrantzatzen zituzten. Aingirak eskuarekin ere harrapatzen zituzten.

961. Butroiarekin arrantzan (BER-186/033)

Butroia nolakoa izaten zen azaltzen du marrazki batekin. Loinak, barboak edo bertara sartzen zen guztia arrantzatzen zuten butroiarekin.

962. Osintxun arrantzarako zaletasuna; karramarroak (BER-186/036)

Luciok arrantzarako zaletasun handia zuen. Osintxun arrantzarako zaletasun handia zegoen, erreka bertan zuten eta. Karramarroak ere harrapatzen zituzten. Karramarroen buztaneko mamia ona izaten zen amu moduan erabiltzeko, aingirak arrantzatzeko, adibidez.

963. Errepublikaren aldarrikapena Osintxuko "Centro Republicano"an (BER-186/043)

"Centro Republicano"-a egon zen Osintxun, "Baskeneko" tabernan. Errepublika aldarrikatu zenean, leihotik bandera atera eta errerepublikaren aldeko oihuak bota zituzten.

964. Luzio 15 urterekin Soraluzera lanera (BER-187/002)

Luzio 13 urte ingurura arte ibili zen eskolan, eta gero, Soraluzeko "Tokorraneko" lantegian hasi zen lanean, amandreak bidalita. Osintxuarrak Soraluze eta Mekolaldera joaten ziren lanera.

965. Txirrindularitzarako zaletasun handia (BER-187/003)

Bizikletaz joaten ziren lanera. Osintxun txirrindulari profesionalak egon ziren; Luzio Gantxegik Eibar-Madril karreran parte hartu zuen. Gaur egun baino lasterketa gehiago izaten ziren orduan. Loroñok zale gehiago zituen Bahamontesek baino. Herrietako jai gehienetan egoten ziren txirrindularitza lasterketak.

966. "Sábado inglés" (BER-187/004)

Luzio lanean hasi zenerako "sábado inglés" ezarrita zegoen. Zapatuetan goizetik bakarrik egiten zuten lan. Hamabostean behin kobratzen zuten. Osintxu hiru auzotan banatuta dago.

967. Bola-joko zalea zen Luzio (BER-187/005)

Erromerietarako zaletasun handirik ez du izan Luziok. Bola-jokorako ordea bai; Eibar eta Angiozarko bola-tokietara askotan joaten ziren. Diru asko jokatzen omen zen bola-jokoan.

968. Bola-jokoa (BER-187/006)

Bola-jokoa azaltzen du Luziok. Elgetan, Antzuolan eta Azpeitian jokatutakoa da. Osintxuko bola-tokira kanpotik ere etortzen ziren jokatzerara.

969. Herri-kirolak (BER-187/007)

Soraluzen ahari-jokoak ezagutu zituen Luziok. Soka-tira eta idi-probak ere izaten ziren orduan.

970. Mutikotan bonbardaketei begira (BER-187/010)

Deia edo El Día eta La Voz de Guipúzcoa egunkariak irakurtzen zituzten etxean gerra aurretik. Bonbardaketak ikusten egoten ziren gerra denboran. "Abuelo" abioi handia gogoan du Luzio.

971. Eskolarik ez gerra denboran (BER-187/011)

Luzio Elementalean ikasten zuen orduan; baina, gerragatik, eskolara joateari laga behar izan zioten. Etxeko dendatik banatzen zituzten errazionamenduko gauzak. Osintxura ezkondu zen Luzio.

972. Emakumeak lanean (BER-187/012)

Gerraostean kale-giroa ez omen zen asko aldatu. Artesen kotoi lantegia zegoen Osintxun, batez ere emakumezkoak egiten zuten lan bertan, bi errelebotan.

973. Zerrategia etxean (BER-187/014)

Zerrategi bat jarri zuen Luzioren aitak Osintxun. Torlojugintza tailerra ere jarri zuten. Baso eta zerrategiko lanak azaltzen dizkigu.

974. Ilbeheran botatzen dira zuhaitzak (BER-187/015)

Pagoak ilbeheran botatzen dira, bestela egurra usteldu egin daiteke. Baso eta zerrategiko lanak azaltzen jarraitzen du.

975. Oholak eta uztaiak (BER-187/017)

Zerrategiko lan nagusia ohol ekoizpena zuten. Alfa lantegirako zurezko uztaiak ere egiten zituzten. Pago, haritz, gaztaina eta intxaurrendak ohol bihurtzen zituzten, altzarigintzarako. Intxaurrena zen estimatuena.

976. Torlojugintzan aritua (BER-187/018)

Torlojugintzan ere jardun zen, bere tailerrean. Bergarako Ezenarro lantegirako lan asko egiten zuen. Azkoinak egiten zituzten. Pegaso lantegiarentzako ere egiten zuen lan. Ugazaba eta langileen arteko harremana ona izaten zen orduan, greba gutxiagorekin.

977. Torlojugintzan lan asko (BER-187/020)

Torlojugintza gorantz hasi zenean, lan asko zegoen. Lagun artean berba egin eta halaxe erabakita, askok tailer propioa jarri zuten.

978. Aita trenbidean lanean (BER-188/003)

Aita gerra aurrean Zumarragarako trenbidea egiten jardun zen lanean. Hura bukatu eta "Altos Hornos"en hasi zen. Zazpi anai-arreba ziren. Orduan gurasoen esanak bete egiten ziren.

979. Neskame eta morroi (BER-188/004)

Arreba eta anaia zaharragoak umezain eta morroi zeuden lanean eta etxeko lan asko egitea berari tokatu zitzaion. Mutikotan eskolako oporretan baso-garbitzera joaten zen aitajaunarekin; batzuetan baserriren baten eskatzen zioten laguntzera joateko. Aitona Salamancatik etorritakoa zen eta pozik bizi zen hemen. Etorkin gazteak ere etorri ziren, miseriatik ihesi.

980. Doktrinarik ez eskolan (BER-188/006)

Etxean ia etxeoandre bezala zegoen Mariano. Epaitegi azpian zegoen eskolara joaten zen. Etxeko untxi eta oiloak ere zaintzen zituen. Eskolan doktrina irakastea debekatu egin zuten eta elizara joaten ziren hori ikastera.

981. Eskola eta kartzela ondoan (BER-188/007)

Eskola, epaitegia eta kartzela eraikin berberean zeuden. Lapurrak eta ijitoak espetxeratzen zituzten. Hala ere, ikasleek ez zituzten ikusten kartzelako sartu-irtenak. Don Elias maisuarekin arazoak izan zituen. 13 urterekin lanean hasi zen. Seminarioan hiru urtez ikasi zuen; han larunbat goizak eliza egunak izaten ziren.

982. Lanbide-eskola Seminarioan (BER-188/008)

Seminarioan Elementala ere bazegoen, lanbide-eskola. Jende asko joaten zen ikasketa horiek egitera. Eskola ez zen ordaintzen, "partikularrak" ez baziren behintzat. Baina batzokiko ikastola ordaindu egiten zen. Neska-mutiko asko joaten zen hara.

983. Elizara joaten ziren (BER-188/009)

Baserritarrak plazara, San Martinera bai eta San Antoniora ere joaten ziren astoarekin euren gauzak saltzera. Nahiz eta eskolan doktrina debekatu, jaunartze txikia egin zuen, eurak elizara joaten ziren eta. Jaunartze txikiaren egunean ez zen orduan oraingo ospakizunik izaten.

984. Aitajauna ia abade joan zen (BER-188/010)

Bere aitajaunak abadetarako karrera egin zuen, baina Madrilen moja eta abadeen artean suertatzen zirenak ikusita, abiturik ez hartzea erabaki zuen eta ezkondu egin zen.

985. Gerran ihesi (BER-188/011)

Gerra hasi zenean Bilbora ihes egin zuen familiak. Bergarar askok egin zuen ihes, beldurrez. Urtebete kanpoan pasatu ondoren itzuli ziren eta ez zegoen lanik eurentzako. Ihesean zortzi hilabete egon ziren Lemoan, gero Laredora eta handik Santanderrera joan ziren. Santandertik egotzi eta itsasontziz eraman zituzten Donostiara. Han astebete igaro ondoren, Bergarara itzuli ziren kamioian. Itzultzean, etxea hutsik topatu zuten.

986. Elgetan frontea (BER-188/012)

Ihesean zebiltzan bitartean, ez jan eta ez lo ez zuten ondo egiten. Bere aita UGTko batailoian egon zen Elorrion. Anaia eta osaba, berriz, Elgetako frontean. Anaiak begia galdu zuen han, baina osabak bizia Santanderren.

987. Frontean bisitan (BER-188/013)

Elgetako frontera joan izan zen Mariano senideak ikustera. Lubaki, kanoi eta metrailadoreak ikusten zituen, baita soldaduak euren kartutxo-uhalek eta fusilekin ere. Baserrietan gelditu ziren lubakiak estaltzen egin zuen lan Marianok gerraostean.

988. Gernikakoan bergararrak hilik (BER-188/014)

Santandertik bidali zituztenean era txarrean ekarri zituzten Donostiara. Gernikako bonbardaketan, feria egunean, Bergarako emakume asko hil zituzten. Gernikakoa gorriek ez zutela egin defendatzen zutenek izugarrizko zigorrak jasan zituzten.

989. Umetako jolasak: futbola eta "Tres navíos" (BER-188/015)

Gerra aurretik laguneren artean baloia erosi eta kalean egiten zuten futboleant, baloia apurtu arte. "Tres navíos" jolasean jolasten zuten gauez neska-mutilek San Antonioko plaza txikian.

990. Jolasak; zinera eta antzerkiera (BER-188/016)

Kaniketan jolasten zuten Seminarioko plazan. "Txikerotan" ere jolasten zuten. San Martinetan eta Pazkoetan Komeriak egoten ziren plazan gauez eta aulkiak hartuta etortzen ziren amarekin komeriok ikustera. Komeria bukatuta zozketak egoten ziren. Zinera joaten ziren domeketan eta antzerki emanaldietara ere bai. Hiru zentimo kostatzen zen sarrera. Pelikula "berde" samarra zenean ez zieten sartzen uzten.

991. San Antonio jaiak (BER-188/017)

Udan Espoloian egoten zen dantza. San Antonioak aste osoko jaiak izaten ziren. Musika bandak kontzertua eskaintzen zuen. Oso auzo alaia zen eta jaiak jendetsuak. San Antonio bezperan suak pizten zituzten zubian. Denda asko eta lau taberna zeuden auzoan. Espoloiko dantzarako kantina bat jartzen zuten.

992. Gerraren eragina auzoaren giroan (BER-188/018)

Lehen txikiteoan gehiago egiten zen. Gerra bukatu eta gero San Antonio auzoko giroa aldatu egin zen. Alderdikeriek konfiantza zapuztu egin zuten.

993. Gerra ostean baserrietara lanera (BER-188/019)

Gerra osteko gosea ez zuen nabaritu Marianok. Aitajaunarekin baserririk baserri ibiltzen zen lanaren truke jatordua eta diru apur bat jasoaz. Babarrunak eta ogia ekartzen zuen baserritik etxera kalean ogirik ez zegoenean.

994. Baserritarren lagun (BER-188/020)

Baserri inguruetatik urrun oiloren bat txitatzen aurkitzen bazuen, baserritarrari esaten zion. Honek gero arrautza batzuk ematen zizkion etxerako. Ondo konpontzen zen baserritarrekin. Horri esker bere etxean ez zuten goserik jasan. Baina errazionamendu garaian bergarar askok estutasunak bizi izan zituzten.

995. Soraluzera lanera bizikletaz (BER-188/021)

Errazionamenduko txartela ezagutu zuen Marianok. Oso kopuru txikiak ematen zituzten eta ogia esate baterako oso txarra zen. Bere aita eta anaiak kartzelatik irten eta lanean hasi zirenean eta Mariano berak ere Soraluzen lan ona aurkitu zuenean hasi ziren gauzak aldatzen. Mariano bizikletaz joaten zen beti Soraluzera, baita euriarekin edo elurrarekin ere.

996. Bergararrak jaiotzez; Eibarren bizi dira aspaldi (BER-189/001)

Jatorria. Bergarakoak dira (Goimendi auzokoak) baina Eibarren bizi dira. Dena dela beraien berbeta Bergarakoaren desberdina da. Aita Bergarakoa eta ama Elgoibartarra.

997. Hiru ahizpa, ondoko baserriko hiru anairekin ezkontuta daude (BER-189/002)

Hiru ahizpa aldameneko baserriko hiru anaiarekin ezkontuta daude; horrela suertatu zen. Hala ere, lehenagoko ezkontza asko gurasoek prestatutakoak izaten ziren.

998. Ezkontzen inguruko kontuak (BER-189/007)

Ezkontzen inguruko kontuak; beraien kasua. Auzo berdineko hiru ahizpa, hiru anaiarekin ezkontzea suertatu.

999. Emakumearen lana baserrian (BER-189/010)

Emakumearen lana baserrian. Kalera tratura; irabazitako diruarekin asteko erosketak ordaintzen ziren.

1.000. Santixau egunean, gonbidautza (BER-189/011)

Santixau egunean Goimendi auzoko jaia. Euren ume sasoiaren gonbidautza izaten zen. Senide ugari joaten zitzaizkien bazkaltzera eta urte guztirako zorra egiten zuten etxeok.

1.001. Santixau egunean meza eta ondoren musika (BER-189/012)

Santixau egunean gonbidautza izaten zen euren baserrian. 60 lagun inguru batzen ziren bazkaltzeko. Oilaskoak hazten zituzten egun horretarako. Ermitan meza eta ondoren musika izaten zen. Soinujoleak. Familia giroa.

1.002. Baserrian ur-korrontea noiz ipini zuten (BER-189/013)

Baserrian ur korrontea noiz ipini zen. Garbitasuna.

1.003. Ur-korrontea eta argi elektrikoa (BER-189/014)

Ur korrontea baserrian. Iturria baserria baino beherago dago. Bi depositu egin zituzten eta motorrarekin ura jasotzen zuten. Auzoan errota bat zegoen, eta argindarra bertatik lortzen zuten. Argi elektrikoa baserrian. Gari-jotzea auzolanean egiten zen.

1.004. Baserrian dutxarik ez zegoenean nola garbitzen ziren (BER-189/015)

Garbitasuna. Umetan iturrira joaten ziren garbitzera. Neska koskorak zirenean ipini zuten dutxa baserrian. Xaboa etxean egiten zuten.

1.005. Lixiba nola egiten zen (BER-189/016)

Lixiba nola egiten zen. Arropak nola garbitzen zituzten.

1.006. Berrikuntzak baserrian; irratia (BER-189/017)

Berrikuntzak baserrian. Garbigailua; irratia. Abesteko zaletasuna.

1.007. Berrikuntzak baserrian: telebista... (BER-189/018)

Berrikuntzak baserrian. Irratia, telebista. Abesteko zaletasuna.

1.008. Esnea saltzera astoarekin jaisten ziren (BER-189/019)

Esnetia. Herrira jaisten ziren bezeroengana; behorrekarekin lehenengo, astoarekin geroago. Astoari "albardia"; "balazarak".... ipintzen zitzaizkion

1.009. Inguruko herrietako baserritarrak Eibarrera tratura (BER-189/020)

Baserritar asko etortzen ziren kanpotik Eibarrera. Baserritarrak nola janzen ziren. San Andres elizara arte inguru guztia mendia zen.

1.010. Inguruko herrietako baserritarrak Eibarrera tratura (BER-189/021)

Inguruko herrietako baserritarrak ere etortzen ziren: Mallabia, Zaldibar... Izotz-barrak egiten zituen lantegia. Garraiolariak Eibarren.

1.011. Garraiolariak Eibarren (BER-189/023)

Garraiolariak. "Isocarro"-a.

1.012. Mallabiko baserritarrak Eibarrera trenez (BER-189/024)

Mallabiko baserritarrak trenez etortzen ziren.

1.013. Izotz lantegia (BER-189/025)

Izotza Arragueta inguruan egiten zuten. Garraiolariak Eibarren.

1.014. Urki ingurua nolakoa zen (BER-189/026)

Urki ingurua nolakoa zen. Zelaiak; soroak; ortuak. Latsarriak. Urki, Ubitxa inguruko baserri izenak.

1.015. Urki ingurua nolakoa zen; San Lorenzo ermita (BER-189/028)

San Lorenzo ermita. San Lorenzo egunean, jai handia egiten zen.

1.016. Aitajaunak gizartean emango ziren aldaketak aurreikusten zituen (BER-190/001)

Bizimodua asko aldatu da. Aitajaunak esaten zituenak etorkizunari buruz. Eskola gutxi zuten baina beraien ideiak bazituzten.

1.017. Janari dendak Eibarren (BER-190/002)

Janari dendak Eibarren. Tanborreneko denda; Maria Ospittal. Merkatu plaza; arraindunak kaletik saltzen. Gizonak lantegitik irten eta sarritan arraindunei antxoak erosten zizkieten.

1.018. Eibar industrialia (BER-190/003)

Eibar garai batean oso aberatsa; lantegi asko. Egun lantegi gabe geratu da; gehienak kanpora irten dira. Orbea. Eibar industrialia.

1.019. Boom industrialia eta ondorengo beherakada Eibarren (BER-190/004)

Eibarren boom industrialia. Aberastasun handia; aberatsak Elgetara joaten ziren oporretara. Egungo egoera, oso desberdina. Bertako lantegi asko beste herri batzuetara eraman dituzte.

1.020. Baserriko mutilak lantegietara lanera (BER-190/005)

Boom industrialia Eibarren. Baserrietatik mutilak lantegietara lanera. Baserriko neskek tailerretara lanera joatea gaizki ikusita zegoen. Gerora, poliki-poliki hasi zen emakumea lantegi munduan sartzen. Ordura arte, neskame... "Aiñak".

1.021. Ekonomia: garaiko txanponak (BER-190/006)

Txanponak: ".txikitia" (5 zentimo); "txakur haundixa" (10 zentimo); e.a. Bizkaian, errealetan egiten zuten.

1.022. Ezkontzetan arrak banatzeko ohitura (BER-190/007)

Aurrerago, zilarrezko dirua erabiltzen zen. Beraiek ezagutu zuten baina ordurako ez zen erabiltzen. Pezetak. Ezkontzetan arrak banatzen ziren; 13 pezeta.

1.023. Goimendi auzoko Ibarrola errota (BER-190/013)

Goimendin, Ibarrola errota. Arto-irina eta ogi-irina. Auzokoena zen; txandaka erabiltzen zuten. Ehotzen zuenaren irabazia, irinetan kobratzen zuen. Gari-zorroak astoarekin eramaten zituzten.

1.024. Goimendi auzoko gari-jotzeak eta Ibarrola errota (BER-190/014)

Errotaren inguruko azalpenak. Kooperatiba bezala funtzionatzen zuen. Baserri izenak; gari-jotzeak auzolanean. Edaria, pontxea. Eibar eta Plazentziako baserrietakoak ere bertara joaten ziren garia ehotzera.

1.025. Santixau jaiak eta gari-ebakitzea (BER-190/015)

Santixau egunaren bezperan, garia ebakitzen zeudela, atzapparrean ebagia egin zuen.

1.026. Belar ondua eta gari-ebakitzea (BER-190/016)

Ailorbea, pagatxa, sekula-belarra... igitaiarekin ebakitzen ziren. Garia ebakitzeko igitai eta belarra ebakitzekoa desberdinak ziren; garia ebakitzekoa haginduna zen.

1.027. Aillorba belarra eta esnea (BER-190/017)

Aillorba belarrak, esnari zapora desberdina egiten zion. Horitza.

1.028. Jatekoa baserrian (BER-190/018)

Jatekoa baserrian: babak udaiarekin egunero; igandetan garbantzuak eta asa. Etxean egindako tomatea.

1.029. Gari-jotzea auzolanean; amaitu ondoren afaria eta erromeria (BER-190/019)

Gari-jotzea. Ondorengo afari eta erromeria, onena. Gari-jotzea auzolanean egiten zen. Lan-banaketa.

1.030. Gari-jotzea eta nesken lana (BER-190/020)

Neskak eta gari-jotzea.

1.031. Gari-jotzea auzolanean egiten zen; nola abisatzen zitzaien beste baserrietakoei (BER-190/021)

Gari-jotzea zegoenean, izara zuri bat jartzen zen soroan, beste baserrikoei abisatzeko; seinalea hori izaten zen. Deiadarka.

1.032. Gari-jotzea Salvador egun bezperan (BER-190/022)

Gari-jotzea Salvador egunaren bezperan. Garia jo, afaldu eta erromeriara.

1.033. Txapela erabiltzeko ohiturarik ez (BER-191/001)

Ez du sekula txapela erabiltzeko ohiturarik izan. Aitak eta aitaitak berriz, bai.

1.034. Elgetako medikuak (BER-191/008)

Elgetan egon ziren medikuak; beraiek ezagutu zituztenak: Bareño; Urria; Ormaza; Bengoa; Peña; D. Carmelo.

1.035. Abade eta medikuei ematen zitzaien garia (BER-191/009)

Abadeei eta medikuei berori egiten zitzaien. Medikuak baserrietara oinez joan behar izaten ziren. Medikuari dirutan ordaintzen zitzaion; opariak ere jasotzen zituen. Abadeek hamarrenak edo primiziak jasotzen zituzten. Burdiarekin etxerik etxe garia jasotzen. Errementariari ere bere lana ordaintzeko garia ematen zitzaion (Kuarta bat gari). Sakristauak zerbait gehiago jasotzen zuen. Neurriak: anega; anega-erdikoa; kuarta; kuarta-erdia; imilauna...

1.036. Sakristauari urte guztirako garia ematen zitzaion (BER-191/010)

Ohitura zaharrak. Sakristauari garia ematen zitzaion; urte guztirako ogia izaten zuen. Usadio zaharra galtzen hasi zenean, sakristauak protesta egin zuen.

1.037. Angiozarko abadeak; mezak (BER-191/011)

Angiozarko abadeak: Don Ildefonso Artetxe; don Ignacio Aranburu; don Pablo Berraondo; don Rafael Uzkanga. Azken hau kapilaua zen; elizako kapila txikian ematen zuen berak meza. Beraien denboran zenbat abade egoten ziren. Angiozarko elizan 3 meza ematen ziren egunean.

1.038. Ermitetan ematen ziren mezak (BER-191/012)

Ermitetan mezak. Ermandadeko meza; denboraleko meza. Elizamendin beti egoten ziren meza gehiago. Andre Mari Martiko; umeen bedeinkazioa. Eliza "ikara eginda". Kalbarioak.

1.039. Mezara joatearen inguruko kontuak (BER-191/013)

Jai egunetan hiru meza ematen zituzten. Lehenengoa, goizeko 06:30ean. Neguan, lasto-argitan joaten ziren. Gurasoak, familiako kide desberdinak zein ordutako mezara joaten ziren. Mezara ez joatea gaizki ikusita zegoen.

1.040. Abadeen indarra gizartean (BER-191/014)

Abadeen indarra gizartean. Bekatua; sermoiak. Jai egunetan debekatuta egoten zen lan egitea.

1.041. Jai egunean lan egitea, bekatua (BER-191/016)

Jai egunean lanean aritu zen ezagun baten inguruko kontua. Etxeko-andreak haserre egin zion eta morrontza utzi zuen mutilak.

1.042. Doktrina ongi ikastearen garrantzia (BER-191/017)

Doktrina ongi ikastearen garrantzia. Hasiera batean (gerra aurretik) doktrina euskaraz ikasi zuen. Gerra ondorean, erdaraz ikasten hasi ziren. 3 abadek 3 lekutan ematen zuten doktrina egunero.

1.043. Jaunartzea; Garizumako usadio zaharrak (BER-191/018)

Jaunartze txikia eta handia. Pazkoakoa, urtean behin derrigorrez egin behar izaten zen (konfesatzera joan eta jauna hartu). Garizuman egiten zen eta txartel bat behar izaten zen. Kanpotik ekartzen zituzten fraideak herritarrak konfesatzeko.

1.044. Upa, garia gordetzeko tokia (BER-191/019)

Upategia, upak egoten ziren tokia. Upa, "trojia"... garia gordetzeko izaten zen. Gari berria sartzeko garbitu behar izaten ziren; umeen lana izaten zen hori. Garbitu ondoren intxaur-orriak botatzen ziren, kokoentzat.

1.045. Jaunartzearen inguruko kontuak; kongregazioak (BER-191/020)

Doktrina ongi ikastearen garrantzia. Neska-mutilak abade desberdinekin ikasten zuten doktrina. Jaunartzearen inguruko azalpenak. Kongregazioak: luistarrak eta Mariaren alabak.

1.046. Kongregazioan parte hartzea, derrigorrezkoa (BER-191/022)

Kongregazioak. Hileko lehenengo ostiralean mezara joan behar izaten zen. Ama, oso elizkoia.

1.047. Etxekoak oso eliztarrak (BER-191/023)

Ama eta etxeakoak oso eliztarrak. Eibar gorria.

1.048. Kongregazioen garrantzia (BER-191/024)

Kongregazioak. Jende gehienak hartzen zuen parte bertan. San Luis eguna, kongregazioaren eguna; Kontsezio eguna, Mariaren alaben kongregazioko eguna.

1.049. Ermandadearen inguruko azalpenak (BER-191/025)

Ermandadea. Auzoko abereak urtean zenbat aldiz batzen ziren. San Anton egunean, ermita ingurura eramaten ziren. Abadeak bedeinkazioa egiten zuen. Ur bedeinkatua. Abereen tasazioa. "Komisioñauak".

1.050. Ermandadearen zeregina (BER-191/027)

Abere bat hiltzen zenean, ermandadeko kideen artean zatitzen zen. Auzo bakoitzak bere ermandadea zuen. Ermandadeko arduraduna, "maiordomoa", urtero aldatzen zen. Urtero lau pertsona aukeratzen ziren.

1.051. Soroen bedeinkazioa udaberrian (BER-191/030)

"Denporaleko mezia". Udaberrian egiten zen; San Bizente ermitan egiten zen. Abadeen bedeinkazioa; urtero akolitoarekin pasatzen zen baserriz baserri. Su bedeinkatua.

1.052. Elizamendira doan gurutz-bidea (BER-191/031)

Gurutz-bidea. 14 gurutze. Elizamendiko elizaren aldamenean, 3 gurutze batera. Ostiral Santuan, meza amaitu ondoren prozesioan Elizamendira joaten ziren, kalbarioak eginaz.

1.053. Andre Mari martiko, egun garrantzitsua (BER-191/032)

Andre Mari martiko (martxoaren 25a), egun handia izaten zen. Garizuma garaian, ohitura izaten zen Santuak estaltzea. Andre Mari martiko egunean tapatu gabe bazeuden, erromeria handia egiten zen. Inguruko herrietatik ere jendea gerturatzen zen.

1.054. Elizamendi ermitako "biatia" (BER-191/033)

Elizamendiko ermita nork zaintzen zuen. Garai batean "biatia" egon zen. Hura izaten zen bertako arduraduna. Ermitarako diru-batzeak egiten zituen.

1.055. Goizeko lehenengo mezara, lasto-argitan (BER-191/034)

Lehenengo mezara joateko lasto-argitan ibiltzen ziren.

1.056. Soroen bedeinkazioa; su bedeinkatua eta gurutzeak (BER-191/035)

"Illua". Su bedeinkatua illuarekin ibiltzen ziren konjurua edo soro bedeinkazioak egiten zirenean. Erramu egunean bedeinkatutako gurutzeak soroetan.

1.057. Baserritarrak lantegietara lanera (BER-191/036)

Baserrietako jende asko Altos Hornosera, Zerrajerara lanera. Kamioi bat jarri zen jendea atzera eta aurrera eramateko.

1.058. Baserriko neska eta mutil asko neskame edo morroi joan behar (BER-192/001)

Familia handiak izaten ziren baserrietan, eta sarritan umeek morroi edo neskame joan behar izaten zuten beste baserri batera. Gerraostean ere kaleko mutilak baserrietara joaten ziren morroi janariaren truke. Morroiaren lana zein izaten zen; familiarekin hartu-eman. Morroiari Gabonetan bakailaoa oparitzen zitzaion.

1.059. "Gonbidautzak" (BER-192/002)

Gabonetako ohiturak. Gonbidautzak. Txandaka izaten ziren gonbidautzak toki desberdinetan.

1.060. Baserri txikietan bizimodua aurrera ateratzea, gauza zaila (BER-192/003)

Baserri txikietan zailtasun gehiago zegoen familia sostengatzeko.

1.061. Angiozarren kokapena (BER-192/004)

Angiozarko inguru gehienak eguzki-begiak dira. Garia ere gehiago hartzen zen.

1.062. Angiozar eta Ubera auzoetan errota ugari (BER-192/005)

Errotak: "Salterrotia" (sozietate antzera funtzionatzen zuen); Bolintxo; Errotabarri, etab. Ubera auzoan errota ugari zegoen. Beraiek garia Uberako errota batera eramaten zuten eta errotariak ekartzen zien irina etxera.

1.063. Errotari batzuk etxez etxe ibiltzen ziren garia batzen (BER-192/006)

Errota batzuetako errotariak etxez etxe ibiltzen ziren garia batzen. Irina ere bueltan beraiek eramaten zuten baserrira. "Moturia", errotariak beraien lanaren ordainean hartzen zuten zatia.

1.064. Errotarren arabera, irina finagoa edo sendoagoa (BER-192/007)

Aldea egoten zen errota batetik bestera. Errotarren arabera, irina finagoa izaten zen. Errotariak nondik ekarritakoak ziren.

1.065. Irina nolakoa, ogia halakoa (BER-192/008)

Irina ere, klase ugariakoa irteten zen. Irin bastoagoarekin, tremesa egiten zen (ogi integralaren antzekoa). Ogia astean behin egiten zen.

1.066. Gizon eta emakumeen arteko lan banaketa baserrian (BER-192/009)

Lan-banaketa baserrian. Ganadu-gobernatzea gizonezkoen lana izaten zen. Ortu, gehienetan, emakumeen eginbeharra. Feriara joatea ere gizonezkoen lana zen.

1.067. Inguruan egiten ziren feria ezagunenak (BER-192/010)

Feria ezagunenak Arrasatekoa eta Elgoibarkoa ziren. Bergarakoa Erramu zapatua ere izendatzen zuten. Santo Tomas; Santa Luzia. Ganadua nola erosten zen ferian. Elgetan ere feria garrantzitsua egiten zen San Pedrotan.

1.068. Ganadu-tratulariak; bederatziruena (BER-192/011)

Ganadua erositakoan bederatziruena egoten zen. Tratulariak. Idiak sarritan gogortutakoan Arabara saltzen zituzten; "obarixa". Valentziatik asto erosleak etortzen ziren.

1.069. Feriara taldean joaten ziren sarritan (BER-192/012)

Feria eguna. Baserritarrak askotan taldean joaten ziren. Haziak ferialekuan bertan erosten ziren: sekula-belarra; pagatxa; etab. Haziak saltzen gehienetan emakumeak aritzen ziren.

1.070. Angiozarko perratzailea (BER-192/013)

Perratzaileak. Angiozarkoa oso ona; Elgetan beste perratzaile bat ere egon zen. Perratokia. Astoak eta behi batzuk ere perratzen ziren. Angiozarko perratzaileak, errementari lanak ere egiten zituen.

1.071. Angiozarko eskola; San Cristobalگو eskola (BER-192/014)

Eskolara, Angiozarrera joaten ziren. Umetan, errekaldean eskola bat egon zen baina Juane berehala herrira joaten hasi zen. Gerra ondorean, irakaslerik ez eta San Cristobalera joaten ziren. Angiozarko eskolan, neska-mutilak gela desberdinetan; San Cristobalen, denak batera.

1.072. Eskola kontuak: Irakasleak; zigorrak (BER-192/015)

Irakasle desberdinak; gehienak kanpotarrak ziren. Zigorrak. Auzo desberdinetako umeak elkarrekin eskolan.

1.073. Neska-mutilak elkarrekin jolasean (BER-192/016)

Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren batzuetan jolasean. "Hankagerran"; bale-baleka; alebika; pilotara; e.a. Kaniketan, neskak gehiago. Tortolosean.

1.074. Txirikila-leku izendatua Angiozarren (BER-192/017)

Garizuman neskak eta mutilek txirikilan jolasten zuten. Nola jolasten zuten; taldeka. Toponimia: "burdiñua", txirikila-leku famatua.

1.075. Gaztetako ibilerak: Elgeta eta Angiozarko erromeriak (BER-192/018)

Gaztetako ibilerak. Erromeriara Elgetara joaten ziren sarritan. Angiozarko erromeria.

1.076. Asentzioko putzura arrantzara (BER-192/019)

Asentzioko putzura joaten ziren arrantzara. Garai batean arrainak bota zituzten eta gero bertan geratu. Aingirak ere egon ziren sasoi batean. Txorihabia bila ere ibiltzen ziren.

1.077. Ehiza kontuak; perretxikoak (BER-192/020)

Ehiza kontuak; perretxikotara ere joaten ziren.

1.078. Angiozarren erromeria San Juan txiki egunean (BER-192/021)

Erromeriak. Angiozarren nork jotzen zuen soinua. Aranzabal; Isaac Gallastegi. San Juan txiki egunean, erromeria handia egiten zen; kanpotik jende asko joaten zen. Beraiek ere inguruko mendi-erromerietara joaten ziren. Auzoko neska-mutilak elkarrekin joaten ziren.

1.079. Mendi-erromeriak eta neska-laguntzea (BER-192/022)

Erromeria asko bide ertzetan egiten ziren. Neska-laguntzea. Neskei dantza egiteko nola eskatzen zitzairen. Auzo desberdinetako neska-mutilak elkarrekin egiten zuten etxerako bidea. Ordaindu egin behar izaten zen dantzan egin ahal izateko. Altos Hornos-en maiatzaren 1ean erromeria handia egiten zen.

1.080. Erromeriatan, dantza-lotua izaten zen gehiena (BER-192/023)

Neska-laguntzea erromeriak amaitu ostean. Dantzarako zaletasuna. Dantza lotua izaten zen gehiena.

1.081. Baserriaren egitura (BER-193/016)

Baserriaren egitura. Sukaldean sasoi batean beheko sua erdian egon zela entzun izan du. "Labako sua".

1.082. Baserrian zer jaten zuten (BER-193/017)

Soraa: garia, artoa, arbia, etab. Jatekoa: tomatea, letxuga, etab.

1.083. Idien garrantzia baserrian (BER-193/018)

Elgetako perratzailea. Baserri gehienetan idiak. Idiak zertarako erabiltzen ziren. Beraien baserrian astoa ez zen normalean perratzen.

1.084. Feria ezagunak (BER-193/019)

Feria ezagunak inguruan: Santo Tomas; Gabon zahar; Erramu zapatua... Tratulariak. Idia nola erosi; bederatzurrera.

1.085. Buztarginak (BER-193/020)

Uztargileak. Uztarriak egiteko pago-egurra.

1.086. Baserriko tresnak (BER-193/021)

Baserriko tresnak: golda txikia eta handia; burdinarea.

1.087. Lurraren garrantzia (BER-193/022)

Lurraren garrantzia. Lur beltza. Inguru eguzkitsuak.

1.088. Idien inguruko azalpenak (BER-193/023)

Idiek oso ondo ulertzen dute zer egin behar duten. Erabiltzen diren soinua. Astoak ere ondo ulertzen du.

1.089. Baserriko abereak (BER-193/024)

Astoarekin joaten ziren herrira saltzera. "Asto-zarak", "albardia". Behia jeztearen inguruko azalpenak. Abereei izenak ematen zitzaizkien. Idi klaseak.

1.090. Ingurua asko aldatu da (BER-193/025)

Ingurua asko aldatu da. Zelaiak, basoak... Basoak: haritza, pagoa, gaztaina eta urkia. Intxaurra etxe ondoan.

1.091. Gaztainondoak (BER-193/026)

Gaztainondoei gaitza etorri zitzaien. Gaztaina-klaseak.

1.092. Garo-batzea (BER-193/027)

Garo-batzearen inguruko azalpenak. Belar-batzea, uda sasoian izaten zen.

1.093. Abereen zainketa lanak (BER-193/028)

Abereei azpiak egiteko garoa, belarra, pago-orbela. Abereei jaten zer ematen zitzaien.

1.094. Belar klaseak (BER-193/029)

Belarra erein egiten zen; belar-ondoa. Pagatxa... "Aillorbia" abereei emateak arazoak ematen zituen: esnea saltzeko orduan; txahala hiltzeko orduan... Batan-belarra; sekula-belarra.

1.095. Abereen zainketa lanak (BER-193/030)

Abereei azpiak zenbatero egin, aldatu... Simaurra ateratzeko, korta-aitzurra erabiltzen zuten.

1.096. Ilargiaren eragina (BER-194/001)

Ilargiaren eragina simaurketa egiterakoan, egurra mozteko orduan.

1.097. Simaurra ongarri bikaina (BER-194/002)

Simaurra ongarri bezala erabiltzen zen soroan. Plazentziatik komun-simaurra ekartzen omen zuten sasoi batean.

1.098. Basogintza (BER-194/003)

Basogintza. Egur-moztea; ikazkintza. Txondorrek non egin izan dituen. Ikatza lantegietarako; errementariei ere saltzen zitzaien. Gerra ostean autobusek ere ikatza erabili zuten erregai moduan.

1.099. Ikazkintza (BER-194/004)

Txondorra nola egiten zuten. Pago-buruekin, abarrekin egindakoak.

1.100. Txondorra egiteko prestaketa lanak (BER-194/005)

Txondorra egiteko prestaketak. Egurra dagoen lekutik gertu egiten zen. Egur-moztea. Ikatza nola eta zerekin ateratzen zen. Ikatza atera eta zakuetara botatzen da.

1.101. Ikazkintza (BER-194/006)

Txondorra egiteko sasoi onena. Ikazkinak. Ikazkintzaren inguruko azalpenak.

1.102. Ikatza etxeetara saldu (BER-194/007)

Ikazkintzan zenbat denbora ematen zuten. Txabola bat izaten zuten; nolakoa izaten zen. Ikatza etxeetara ere saltzen zen. Plantxak berotzeko ikatza, pago-egurrez egindakoa izaten zen.

1.103. Argindarra baserrian (BER-194/008)

Argindarra baserrian. Ibarrola errota eta zentrala. Sasoi baten arratoi asko egon ei zen. Ibarrolako gizonak esaten zuen errekatik etortzen zirela.

1.104. Sugeak baserri inguruan (BER-194/009)

Suge handiak egon ziren sasoi batean. Bertako sugeak.

1.105. Ura baserrian (BER-194/010)

Ura baserrian. Castor Mugika.

1.106. Lixiba kontuak (BER-194/011)

Lixiba nola egiten zen. Chimbo eta Lagarto xaboiak erabiltzen ziren. Behin Arraotz baserriko emakumea etorri zen eurenera, xaboa egitera, baina ez omen zen ona atera (euren amari ez zitzaion gustatu, behintzat).

1.107. Txerri-beltza (BER-194/012)

Txerrien inguruko azalpenak. Bertako txerria; txerri-beltza.

1.108. Lihoaren inguruko azalpenak (BER-194/013)

Lihoa (linua) Lihoaren inguruko azalpenak. Haria egiteko makina. Artilea Lezetan egiten zuten.

1.109. Abarkagintza (BER-194/014)

Abarkak. Narruzkoak, gomazkoak. Aitak abarkak egiten zituen. Abarka-sokak.

1.110. Umetako arropak (BER-194/015)

Umetan erabiltzen zuten arropa.

1.111. Elurte handiak (BER-194/016)

Elurte handiak. Negu gogorrak. Izotz-kandelak. 1956a izotz urtea.

1.112. Eguraldi kontuak (BER-194/017)

Eguraldia. Tenporak. Eguraldi txarra nondik sartzen den bertara. Haize-izenak. "Hode-kanpairik" ez zen egoten lehen.

1.113. Deiadarra (BER-194/019)

Hildakoren bat zegoenean baserriren batean, deiadarra egiten zen.

1.114. Izara zuria seinaleztat, errotatik argia "botatzeko" (BER-194/020)

Seinaleak baserrietan. Garia jo behar zenean, izara zuria jartzen zen seinaleztat, Ibarrolako errotakoek argia "bota" zezaten. Auzoko norbait hiltzen zenean, baserri batetik bestera deiadarra egiten zen.

1.115. Auzolanean egiten ziren lanak (BER-194/021)

Auzolana baserrian: garo-batzea, gari-jotzea... Txerri-hiltzea baserri bakoitzak egiten zuen, baina laguntzarik behar izanez gero auzokoari eskatzen zitzaion.

1.116. Ermandadea (BER-194/022)

Ermandadearen inguruko azalpenak.

1.117. Milizianoekin hartu-emana (BER-194/023)

Milizianoekin hartu-emana zelakoa. Diru-zuria; zilarra.

1.118. Kalea nolakoa zen: abarkagilea; iturria lanean (BER-197/002)

Kalea nolakoa zen; berezitasunak. Zubieta kalean abarketak egiten zituen Pío "Legazpi" k. Iturrira joaten ziren ur bila pitxerrarekin. "Hor konpon" futbol taldea. Benigno izeneko gizon batek taldearen arropak garbitu eta iturri ondoan zabaltzen zituen lehortzeko. Berak egiten zituen taldearen inguruko lan guztiak: zelaia zaindu, botikina eraman...

1.119. Abarkagilea lanean ikusten zuten (BER-197/003)

Abarkagileak kalean bertan nola lan egiten zuen ikusten zuten. "Alpargatak kapillau".

1.120. Zubieta kaleko Arando taberna (BER-197/004)

Zubietako iturria. Kalearen alde batean oso etxe gutxi zeuden. Arando taberna. Santa Marina egunean egiten ziren ospakizunak. Arando taberna Bergarako bigarren batzokia zela esaten zen. Jantzetxea ere bazen; inguruko auzoetan hildako bat zegoenean, bertara eramaten zen eta abadea bertara joaten zen gorpua jasotzera.

1.121. San Lorentzo auzoko jaietan, erromeria (BER-197/005)

Santa Marina eta San Pedroko jaiak nolakoak izaten ziren. Musika-bandak kalejira egiten zuen. Beste auzoetan ez zuten horrelakorik egiten. Sokamuturra; salbea... San Lorentzoko jaietan letania egiten zen; salbea; dantza. Erromeriak nolakoak.

1.122. Santa Marina eta San Pedro parrokiak (BER-197/006)

Kaleak Santa Marina eta San Pedro parrokien inguruan biltzen ziren.

1.123. Domu Santu Eguneko ohitura zaharrak (BER-197/007)

Hilarriak. Domu Santu Egunean mantak; argizaiolak ipintzen ziren. Ohitura zaharrak.

1.124. Zubieta kaleko dendak (BER-197/008)

Zubieta kalean, bizargina ere bazegoen. Sebastián Aizpeurrutianeko denda; bolauak eta txokolatea ere egiten zituen. Cánovas del Castillo Santa Agedan hil zutenean, Sebastián sukaldari zegoen bertan.

1.125. Zubieta eta San Lorentzoko barberoak (BER-197/009)

Ile-apaindegiak. Zubieta eta San Lorentzon barberoak.

1.126. San Lorentzo auzoko kale baserri batean gari-jotzea (BER-197/010)

San Lorentzo auzoan kale baserri bat zegoen, "Soldaukua". Garia eskuz jotzen zuten eta kaleko neska koskorak laguntzera joaten ziren. Gero merienda ematen zieten. Artoa aletzera ere joaten ziren. Inguruko beste baserri batzuk: Moru, Moru torre eta Moru aldekoa. Gariaren inguruko lanak auzolanean egiten ziren.

1.127. Gari-jotzea auzolanean egiten zen (BER-197/011)

Gari-jotzea nolakoa izaten zen etxe inguruko kale-baserrian. Auzolanean nola egiten zuten. Orduko giroa. Arandonekoek ere abereak izaten zituzten. "Soldaukua" kale-baserria.

1.128. Umetan erre kara bainatzera (BER-197/012)

Eskolan oporrak ematen zizkietenean, erre kara joaten ziren jolasean egitera. Argindar etxeak turbina bat zuen gertu eta han egiten zuten igerian. San Lorentzoko elizaren atzeko aldean, txinga bat zegoen. Mutilek bertatik egiten zuten salto. Agorrosin inguruan presa bat zegoen. Neskak bainatzeko erabiltzen zuten arropak nolakoak izaten ziren. Lehenengo bainujantzia noiz eta nork eraman zuen.

1.129. Eskolatik Debako hondartzara egindako irteera (BER-197/013)

Eskolatik Debara joaten zirenean, bainujantziak alokatu egiten zituzten. Debako hondartzan soka bat zegoen. Lideren amak igeri egiten zekien (San Lorentzoko baserri batekoa zen eta Zerrajerara zihoan kanalean ikasia zuen). Oso neska gutxi bainatzen ziren errekan. Bertan egiten zituzten jolasak.

1.130. San Lorenzo auzoan eman diren aldaketak (BER-197/014)

Zubieta kalea, San Lorenzo ingurua nola ikusten ditu gaur egun. San Lorenzo auzoko eliza, baserria.

1.131. Baserri girotik industria girora: (BER-197/015)

Eskolara herriaren erdigunera joaten ziren. Jolasean egiteko, beraien auzoan geratzen ziren. Santa Marina ingurua nolakoa zen. Trenbidea. Santalaiz baserria. Orain industriagunea dena, garai batean soroak ziren. Taberna giroa; gizonak tertulian. San Lorenzo ingurua noiz hasi zen aldatzen.

1.132. Teilerian lan egiteko langileak Arabatik ekartzen zituzten (BER-197/017)

Amaren baserrian teileria zuten. Aitak langileak Arabatik ekartzen zituen etxeko umeak erdaraz ikastearren.

1.133. San Lorenzo auzoko baserriak (BER-197/018)

Amak josteko esku ona. Baserrian teileria zuten. Zerrajeraren atzealdean zegoen. Auzoko beste baserri batzuk; toponimia. Baserriko seme-alaben eginkizunak.

1.134. Ama eskolara neguan joaten zen, baserrian lanik ez zegoenean (BER-197/019)

Ama eskolara neguan joaten zen batez ere. Urtebete Gasteizen egon zen interna. Bergaran ikasi zuen Maria Zubeldiarekin.

1.135. Gerra osteko arropak, oinetakoak (BER-197/020)

Umetako arropak; oinetakoak. Arropak egiteko telak erostea oso zaila zen gerra ostean.

1.136. Aitajauna eta aita errementariak (BER-197/021)

Aitajauna eta aita errementariak ziren. Gerora aitak torloju lantegi bat jarri zuen. Errementari lana. Abarketak josteko orratzak egiten zituzten, besteak beste. Gurdien gurgilendako uhelak ere egiten zituzten. Gurgilak arotzak egiten zituen. Lanaren beherakada; debekatu egin zituzten gurdiak kalera jaistera...

1.137. Zapatarikuan errementaria eta perratzailea (BER-197/022)

Sutegia nolakoa zen. Zapatarikuan beste errementari bat zegoen; perratzaile lanak ere egiten zituen.

1.138. Baserriko bizimodua umetan (BER-200/003)

Umetan baserrian lagundu behar. Baserriko emakumeak oso gogorrak izaten ziren.

1.139. Urte-sasoirik gogorrena baserrian (BER-200/006)

Baserrian urte-sasoirik gogorrena, udazkena izaten zen. Garo-batzea, baba, arto-zuriketa. Basoa.

1.140. Elosu; auzoaren banaketa (BER-200/007)

Elosu auzoaren banaketa. Bidea egin zenean, auzoaren beherakada hasi zen. Jendea lanera kanpora irteten hasi zen.

1.141. Elosu; bidea noiz egindakoa den (BER-200/008)

Elosu auzoa. Bidea egin zenean, auzoaren beherakada hasi zen.

1.142. Baserriaren egitura (BER-200/009)

Sukaldea zelakoa zen. Koltxoia, arta-malutazkoa. Ganbara, zapaia.

1.143. Garai bateko laboreak; baba klaseak (BER-200/010)

Garai batean ze labore hartzen zituzten baserrian: garia, artoa, baba, patata, arbia... Baba klaseak. Zuria gutxi hartzen zen eta hura jateko zain egoten ziren. Orduko jateko ohikoenak.

1.144. Eskola kontuak (BER-200/011)

Eskola kontuak. Sakristau zaharrarekin eskola euskaraz. Doktrina.

1.145. Gariaren inguruko azalpenak (BER-200/012)

Garia; goldearekin labratzen zuten soroa.

1.146. Umetako jolasak (BER-200/013)

Umetako jolasak. Garizuman "galderonka", txirikiletan. Jolas arriskutsua zen.

1.147. Doktrina eta jaunartzea (BER-200/014)

Abadearen inguruko kontuak. Doktrina. Pazkoako txartela. Jaunartzea.

1.148. Oinetakoak; galtzagintza (BER-200/015)

Oinetakoak: abarkak; abarketak. Artilearekin egindako jertseak. Eskularruak. Galtzagintza. Artilea dornuan egiten zuten.

1.149. Argindar-etxea auzoan (BER-201/001)

Zink-ezko ontziak erabiltzen zituzten lixiba egiteko. Auzoko argindarra depositu handi batetik ateratzen zen ("Maalitturri"). Bertan harri-losak ere bazeuden eta garai batean alberga hartan garbitzen zituzten arropak.

1.150. Argi elektrikoa baserrian (BER-201/002)

Baserrian argi elektrikoa beti ezagutu dute. Argia joandakoan egin gabe geratzen ziren lanak, hurrengo egunean egin behar izaten zituzten.

1.151. Mezara ez joatea gaizki ikusita (BER-201/003)

Mezara joatea derrigorrezkoa. 15 egunetako elurteak ezagutu izan dituzte. Bezperan, idiekin elurra garbitzen zuten. Mezara ez joatea gaizki ikusita zegoen. "Egileor"en ama oso fededuna.

1.152. Abadeen sermoiak eta Arantzazuko frailia (BER-201/004)

Abadeen sermoiak gogorrak izaten ziren. Arantzazutik fraideak etortzen ziren eta 8 egunetan sermoiak ematen zituzten. Emakumeak negarrez mezatan. Lehenago abadeei berorika egiten zitzairen. Abadeak elizakoak eramaten zituenean, belauniko jarri behar izaten ziren. Abadeari oilaskoak, egur-burdikara eramaten zitzaion.

1.153. Konjurua eta suberria (BER-201/005)

Konjurua zer izaten zen. "Suberria". Egun horretan abadeari zer ematen zitzaion; Gabonetan; arimen egunean...

1.154. Aixolako urtegiarekin batera desagertutako baserriak (BER-202/001)

Aixola errekan baserri asko hustu egin dira. Baserri izenak. Presak hartutako baserriak.

1.155. Baserritarrak lantegietara noiz hasi ziren jaisten (BER-202/002)

Baserritarrak noiz hasi ziren lantegietara joaten. Alfan baserriko mutil asko hartzen zituzten, fundizioko lana egiteko.

1.156. Baserriaren etorkizuna (BER-202/003)

Tomasek bizimodua baserritik atera du beti. Baserriaren etorkizuna nola ikusten duen. Bildotsen prezioa.

1.157. Ordiziako feria; arkumearen prezioaren inguruan hainbat kontu (BER-202/004)

Feria ezagunena, Ordiziakoa. Arkumeeen inguruko azalpenak; lehenago harakinak hiltzen zituen.

1.158. Eibarko merkatu plaza (BER-202/005)

Eibarko merkatu plaza. Garai batean jende asko joaten zen plazara, diru asko mugitzen zen.

1.159. Eibarko merkatu plaza; esne-saltzera astoan (BER-202/006)

Esne-saltzera astoan jaisten ziren. Zer eramaten zuten: arrautzak; patata... Lehenago oilaskoak bizirik eramaten ziren plazara. Astoak non lagatzen zituzten. Merkatu plazaren azpialdean asto-korta zegoen. Txingak. Mallabia aldetik baserritar asko etortzen ziren Eibarrera.

1.160. Esnea saldu ahal izateko, zerga bat ordaindu behar (BER-202/007)

Esnea saldu ahal izateko, txapa bat ipini behar izaten zitzaien marmitari. Udaletxean zerga antzeko bat ordaindu behar izaten zen. Esnea analizatu egiten zuten.

1.161. Gurdiarekin herrira jaisteko, zerga ordaindu behar (BER-202/008)

Gurdiarekin egurra kalera eramateko, "patentea" behar izaten zen. Bizikletek ere txapa bat eramaten zuten.

1.162. Garraioak; bizikletagintza Eibarren (BER-202/009)

Bizikletagintza Eibarren. Auto gutxi eta idiekin lasai ibiltzen ziren herritik ere.

1.163. Perratzaileak inguruan (BER-202/010)

Perratzaileak Olarriaga, Azitain eta Abontza inguruan. Gerora Barakaldo kalean ere bai. Arrate bailaran Berretxiña baserrian. Perratzaile batetik bestera, alde handia egoten zen. Leon Olabarria; autobusa.

1.164. Eibarko herriaren hazkuntza; aldaketa urbanistikoak (BER-202/011)

Trafiko gutxi. Bideak nolakoak ziren: estuak; gehienak kaltzadak. Eibarko hazkuntza. Elizatik gorako etxe guztiak gerra garaian erre ziren.

1.165. Eibarko Elgetakalea gerra garaian (BER-202/012)

Elgetakalean astoak lotzeko txingak zeuden. Gaur egun eraikin bakarra dagoela Elgetakalean dio (pegora bakarra). Gerra garaian bi aldeetako etxe guztiak erre omen ziren, Txirixo kaleraino.

1.166. Eibarko Badet taberna ezaguna (BER-202/013)

Badet tabernaren inguruko kontuak. Ezkondu aurretik egiten ziren despedidak.

1.167. Eibarko Kontzeju Zaharra; Barrenkalea (BER-202/014)

Kontzeju Zaharra, San Andres elizaren parean. Goimendikoak Eibarrera joaten ziren mezara eta gero Kontzejupean egoten ziren zerbait hartzen. Barrenkalea nolakoa zen.

1.168. Idiekin hirigunean; Estaziño kalea (BER-202/016)

Idiekin Barrenkalean behera joaten ziren egurra zerrara eramaten zutenean. Estazio kale ingurua nolakoa zen.

1.169. Gerra garaian Eibarko erdigunea erre egin zen (BER-202/017)

Gerra garaian, Eibarko erdiguneko etxe gehienak erre egin ziren.

1.170. Gaztetan errekan arrantza egiteko zaletasuna (BER-202/020)

Gaztetan errekan peskan egiten zuten. Debekatuta egoten zen eta lizentzia behar izaten zen.

1.171. Ermuko erdigunea; baserri izenak (BER-202/021)

Ermua nolakoa zen. Erdigunean baserri asko zeuden; baserri izenak. Baserritar gehienak errenteroak.

1.172. Baserriaren errentaren ordainketa (BER-202/023)

Baserriaren errenta noiz ordaintzen zen. Kapoiak.

1.173. Abadea soroak bedeinkatzera joaten zeneko kontuak (BER-202/024)

Abadea Basalgotik joaten zen Goimendira soroak bedeinkatzera. Abadeari ordaintzen zitzaiona. Garia, artoa... Ohitura zaharra noiz hasi zen galtzen. Konjurua; gurutzeta.

1.174. Abadeen indarra eta eragina gizartean (BER-202/025)

Elizakoak baserrira ekartzen ziren. Abadeei errespetu handia izaten zitzaien. Berorika abadeei. Pazkoakoa egiteko txartela.

1.175. Abadearen inguruko aipamen batzuk (BER-202/026)

Abadea ehiztaria zen. Erbia zuen etxean eta haren inguruko ipuinak. Bergarako baserri batekoa zen.

1.176. Basalgoko auzo-eskola (BER-202/027)

Doktrina abadeak eman zien denbora batean. Eskola kontuak. Basalgoko auzo-eskola. Gerora Eibarrera etorri ziren eskolara, frontoi zaharrera.

1.177. Pazkoakoa egin ahal izateko, txartela beharrezkoa zen (BER-202/028)

Pazkoakoa egiteko abadeak txartela ematen zuen. Helduek ere Garizuman gure Jauna hartu ahal izateko, txartela behar izaten zuten.

1.178. Jaunartzea egiteko, doktrina ondo jakin behar (BER-202/029)

Doktrina ondo ez zekienak ezin izaten zuen Jaunartzea egin. Bi Jaunartze egiten zituzten, txikia eta handia. Urtebetetzeak.

1.179. Mutikotan, tranpekin (BER-204/003)

Ehizan denetik egiten zuen lehen. Birigarroak. Mutikotan tranpekin harrapatzen zituzten txoriak. Zaletasun izugarria izan du beti, arrantzarako ere bai. Inguruko erreken izenak esaten ditu. Amorraina ez zegoen denetan, kangrejoa bai. Ez zen jaten kangrejorik normalean.

1.180. Amorraina eta sareak (BER-204/004)

Amorraina izan zen ondoko errekan, tailerra martxan jarri arte. Gerra aurretik sareekin-eta harrapatzen zen amuarraina. Dena libre zen. Gero, mugak jartzen hasi ziren, eta kanaberak erabiltzen hasi ziren. Sareak nolakoak ziren. Amorrainak nola harrapatu sarearekin.

1.181. Kanaberarekin arrantzan (BER-204/006)

Sareak debekatu zituztenean, amorrainak kanaberarekin hartzen hasi zen. Amorraina ez da erraz erortzen. Arraina non dagoen jakin behar da gutxi gorabehera. Bost orduz ere egon da kanaberarekin arrantzan.

1.182. San Juan auzoaren bitxikeriak (BER-204/010)

San Juan esaten zaio auzoari, baina ez da ez Ubera ez San Juan. Santikruz da eliza, eta bederatzi etxek osatzen dute. Inoiz ez da Elgeta izan; mugarria non zegoen azaltzen du. Gerra aurretik pasatu ziren Bergarara Angiozar eta Ubera. 1915ekoa da bera.

1.183. Paitak (BER-204/014)

Paitta harra eta emea. Etxezantzarra.

1.184. Gruilak eta ahateak (BER-204/016)

Gruillia. Ezin harrapatu nola ibili zen behin. Pasatzen dira, baina ibili, gutxi. Paittari ahatea ere esaten ziola dio.

1.185. Miruak (BER-204/018)

Arraifarduak. Miruak. Miru txikiak, gabillerak. Paseko mirua. Miru zuria, udaberrian. Buitria edo saia.

1.186. Eperrak eta galeperrak (BER-204/020)

Eperrak, denak eper. Galeperra edo pospolina.

1.187. Abutardia (BER-204/022)

Abutardia edo indieperra. Kilo bat inguru pisatzen du.

1.188. Gari denboran, galeperra (BER-204/025)

Gari denboran galeperra asko egoten zen, eta orain ikusi ere ez da egiten.

1.189. Azpizuria (BER-204/027)

Azpizuria, itsas hegazia edo hegaderia.

1.190. Oilagorak eta mingorak (BER-204/030)

Mingorra oilagorra baino txikiagoa eta zuriagoa da.

1.191. Frankolinak (BER-204/033)

Frankolina. Bi klase daude.

1.192. Zerzetak eta gabiotak (BER-204/035)

Errekarik erreka ibiltzen direnak, zerzetak. Gabiotak.

1.193. Pago usoak (BER-204/038)

Pago-usoa tortolari esaten dio. Tortola izena gehiago erabiltzen da. Usoak.

1.194. Mozoloa (BER-204/039)

Ontzak edo mozoloak.

1.195. Gautxoria (BER-204/041)

Gautxoria. Miruaren estilokoa da.

1.196. Txiruak (BER-204/043)

Txiruak hiru klasea daude. Noiz etortzen diren, lehenengo papar zuridunak. Beltza, zuria eta txikia.

1.197. Bertsolaritza Bergara inguruan (BER-205/002)

Bergaran bertsolari bat egon da, eta bera Osintxukoa, Gorrotxategi. Gazte bat ere bada orain: Ainhoa Agirreazaldegia, bertso-eskolatik irteakoa.

1.198. Egileor bertsolaria: gaztetako ibilerak; lehenengo bertso emanaldia (BER-205/003)

Egileorrek berezkoa izan du bertsotarako zaletasuna. Hasierako urteak. Elosuko erromeriara joan ezin eta lagun artean jarduten zuten bertsotan Elosuko benta inguruan. Lehenengo bertso emanaldia non. Lizaso. Elosuko erromeriara artean sartu ezinda.

1.199. Elosuko erromeria Oktaba egunean (BER-205/004)

Erromerietara joateko 18 urte inguru behar izaten ziren. Oktaba egunean (jai eguna Elosun) umeak ere egoten ziren, baina beste erremediorik ez zegoelako. Erromeria "ataipe" batean egiten zen eta umeak ezin ziren gerturatu ere egin. Soinujolea, Markos Elorza.

1.200. Elosu inguruan soinujole on asko (BER-205/005)

Soinujole ezagunak inguruan. Azkoitia aldean soinujole on asko. Egileor soinujole askorekin bertsotan ibilitakoa. Matxinbentako erromeria; Santa Ageda eskean.

1.201. Mendi-erromeria ezagunak (BER-205/006)

Mendi erromeria ezagunenak: Elosu, Aizpurutxo, Urrategi, e.a. Sasoi batean jai egun bakar batean bi erromeriatara joaten zen Egileor.

1.202. Erromeria kontuak: dantza lotua eta dantza soltea; isunak... (BER-205/007)

Dantza soltea; lotua. Aizpurutxon beti ezagutu izan dute dantza lotua; baina Azkoitian ez. Zumarragarekin mugan, mugarran egiten zuten dantza; mugarriaren alde batean dantza soltea eta beste aldean dantza lotua. Isunak ere egoten ziren. Kontu horiek bertso ezagun batzuetan ere jasota daude.

1.203. Erljioaren indarra gizartean: sermoiak, debekuak... (BER-205/008)

Gizartean egon diren aldaketak, izugarriak dira. Justu-justuan ez direla sasoirik onenean jaio (umore handiz kontatutako pasadizoa). Abadeei errespetu handia; beldurra. Kongregazioak. Aste Santuan fraideak etortzen ziren Arantzazutik misiotara Elosura. Zortzi egunez egoten ziren bertan. Sermoi gogorak, goiz eta iluntze. Emakumezkoak negarrez. "Dana sua eta erretzia! Dana inpernua!". Orduko bizimoduaz gaur pentsatzen duten. "Ez zonan giro izaten!".

1.204. Abadeei berorika egiten zitzaien (BER-205/009)

Abadeei berorika egiten zitzaien. "Danak euren mendien!".

1.205. Erljioaren inguruko ohitura zaharrak: baraurik joan behar elizara... (BER-205/010)

Goiz-meza eta meza nagusia. Baraurik joaten ziren elizara eta jendea sarritan ondo ezik. Konfesatzera ere baraurik; ezer hartzeke. Ohiturak noiz hasi ziren aldatzen.

1.206. Kongregazio desberdinak (BER-205/012)

Kongregazioak. Luistarrak; Marian alabak. Nagusiak, frantziskotarren kongregazioan. Eskapularioak ("esklupaixuak"). Hirugarren ordena. Jaunartze handia egin ondoren sartzen ziren kongregazioan. Hilabetean behin konfesatzera joan behar.

1.207. Erljio kontuak; ohitura zaharrak (BER-205/014)

Nagusiak ere kongregazioetako kide izaten ziren. Gurasoek eliza barruan jantzen zuten eskapularioa. Mantila jaiero jantzen zuten. Senideren bat hiltzen

zenean, bederatzuurrena. Bi mantila eramaten ziren orduan (handia eta txikia). Argizaiola. Mantila-lekua.

1.208. Hilarriak elizan; senideren bat hiltzen zeneko ohitura zaharrak (BER-205/016)

Hilarria elizan. Familia bakoitzak argizaiola izaten zuen. Hildakoa zegoenean, manta beltza jartzen zen. Urte-mezan kentzen zen manta-beltza. Gaur egungo belaunaldiek ez dituzte ohitura horiek ezagutzen.

1.209. Kanpai motak eta hiletan inguruko ohitura zaharrak (BER-205/017)

Kanpaiak aspaldian geldirik. Oktaba egunean eta Asentzio egunean, kanpai guztiak batera jotzen zituzten. Meza aurretik bi kanpai jotzen zituzten (ordu laurden lehenago eta orduan). Goizeko kanpaia, albakoa. Iluntzean, aramaitakoa. Eguerdian, angelusa. Aingeru kanpaia. "Auzorik hurrena"; laguntasuna behar zenean baserri hartara deia pasatzen zen. Hildakoa mezara eramaten zenean, aurretik auzorik-hurrena joaten zen opilekin. Ohitura zaharrak.

1.210. San Anton Abat egunean ermandadeko bazkaria (BER-205/019)

Ermandadea. S. Anton Abat egunean pasatzen ziren baserri abereen zerrenda egitera. Bazkaria bentan. "Ganau-partitzia", zozketaren bitartez.

1.211. Umetan barraskiloak eramaten zizkioten abadeari (BER-205/020)

Abadeari barraskiloak eramaten zizkioten umetan, eta zerbait ordaintzen zien. Meza-kantatzen koruan.

1.212. Santua edo Ama Birjina etxez etxe (BER-205/021)

Ohitura zaharrak. Santua edo Ama Birjina kaxatxo batean etxez-etxe pasatzen zen. Elosun ez zuten ohitura hori ezagutu.

1.213. Pazkoa egunean, su bedeinkatua eta ur bedeinkatua (BER-205/022)

Pazkoa egunean, su bedeinkatua eta ur bedeinkatua. Ur bedeinkatua, bakoitzak berea hartzen zuen. Su-berria, sakristauak partitzen zuen eta arrautzak batzen zituen ordainean. Ilazkia. Erramu egunean, gurutzeak bedeinkatzen zituzten.

1.214. San Juan bezperan, San Juan sua egiten zuten (BER-205/023)

San Juan bezperan, San Juan sua. Pizti txarrak galtzeko erabiltzen zen garai batean. Umetan ilusio handia.

1.215. Errege eguna nola ospatzen zuten (BER-205/024)

Errege eguneko kabalgata. Xabier Zubizarreta abadeak ekin zion ohitura horri.

1.216. Gabonak baserrian (BER-205/025)

Gabonetako jaiak. Baserrietan ez zuten jaiotzarik ipintzen. Elizan haurtxo Jesus egoten zen.

1.217. Sorgin kontuak. Ezkioko Ama Birjina (BER-205/026)

Sorgin-kontuak. Sorgin-zulo; toponimia. Ezkioko Ama Birjinaren inguruko kontua. Guraso eta nagusi gehienak joanda zeuden bertaraino oinez.

1.218. Bergarako medikua; Azpeitiko sasimedikua (BER-205/027)

Medikua Bergaratik igotzen zen Elosura; Don Carlos. "Trukumun" sasimedikua Azpeitian. Medizinarik onena, porru-patatak. Don Carlosen inguruko pasadizoa ahari batekin. Porrua, urrezko aitzurrarekin atera beharreko jeneroa zela zioen medikuak.

1.219. Azpeitiko sasimedikoaren inguruko kontuak (BER-205/028)

Azpeitiko "Trukumun". Oilo-gantzarekin igurtzi; ganadu-odola egin; e.a.

1.220. Miruak (BER-206/008)

Arranbeltza ala arraifardua. Gabillera ala kaballia. Mirutan klase asko daude.

1.221. Gautxoria (BER-206/011)

Gautxoriaren mokoa. Arrautza lurrean egiten du. Udan egoten dira, iluntzean.

1.222. Galeperra (BER-206/016)

Pospolina ala galeperra. Gruilak.

1.223. Alkarabanak (BER-206/023)

Alkarabanak mokoa luzea du. Aguja, erdaraz. Usain txarra izaten dute. Frankolinari kulixka esaten diote.

1.224. Mendi oiloa (BER-206/026)

Mendi oiloa, basoiloa.

1.225. Alkarabanak (BER-206/029)

Alkarabana. Mingain luzekoa da. Abutarga.

1.226. Usoak (BER-206/031)

Usoak. Tortola, zurita. Pago usoa eta uso tortola.

1.227. Kalandria eta bedartxoria (BER-206/049)

Kalandria. Birigarroak. Bedartxoria.

1.228. Buztanikarak (BER-206/051)

Buztanikarak. Horia.

1.229. Beleak (BER-206/054)

Beleak eta belatxingak.

1.230. Sarrastarrua (BER-206/072)

Sarrastarrua. Birigarro zuria eta gorria.

1.231. Amilotsen kantua (BER-206/076)

Amilotsen kantua.

1.232. Jilgeroak harrapatzen (BER-206/082)

Txirristillia. Berderoia. Taliña. Jilgeroak nola harrapatzen zituzten.

1.233. Bekoetxe baserria; ingurua nolakoa (BER-207/005)

1735ean, aitaren aurreko belaunaldiak Bekoetxe baserrian bizi ziren. Ingurua nolakoa zen; aldapa handiak.

1.234. Elorregi auzoa nolakoa zen; baserrien izenak (BER-207/006)

Auzoa nolakoa zen. Galdu diren baserriak: Artzubij; Zeleta (Arrasatekoa). Elorregizelai baserria, Conde del Valle bertan bizi izan zen. Oso etxe ederra zen; 4 arkuduna. Tavex lantegia egiteko bota zen. Geltokia ere orduan bota zen.

1.235. Conde del Valle eta bere jabetzako baserriak (BER-207/007)

Conde del Vallek inguruan zituen baserriak. Aramaioko jatorria zuen kondeak, Murua abizenekoa zen. Emazteak, Elorregi abizena zuen; baserria bere jaiotetxea zen.

1.236. Auzoaren egitura; baserrien egoera (BER-207/008)

Auzoa asko aldatu da. Baserri asko hustu egin dira. Aierdi baserria, labrantzatik bizi den baserri bakarra inguruan. Baserriko bizimodua, gogorra.

1.237. Gerra ondorengo egoera: baserrietik lantegietara lanera; familia ugariak auzoan (BER-207/009)

Gerra ondorengo urteetan, poliki-poliki, baserritarrak lantegietara jaisten hasi ziren. 1918ko datuak: 38 baserri; biztanleak... Familia handiak; seme-alaba ugari. Francoren garaian, familia ugarientzat diru-sariak egoten ziren. Auzoan hirukiak izan zituen familia batek; aita-puntakoak nortzuk izan ziren gogoan du: Jose Maria Agirre (Zerrajera eta Altos Hornoseko zuzendaria), Aranburu praktikantea.

1.238. Auzolanean egiten ziren lanak (BER-207/011)

Auzolanean egiten ziren lanak: gari-jotzea; lurreta. Orain dela gutxira arte auzolanean egin izan da. Lana amaitu ostean, afaria egiten zen.

1.239. Gari-jotzearen inguruko lanak (BER-207/012)

Gari-lanak oso gogorrak ziren. Gari-jotzea eskuz egiten zen gerra ingurura arte; gerora etorri ziren makinak. Gari-jotzearen inguruan lan-banaketa. Haizezko makinak garia garbitzeko. Umeen lana zein izaten zen.

1.240. Baserriaren egitura; noiz berriztutakoa (BER-207/013)

1917an berriztu zen baserria. Baserriaren egitura; sukaldea, logelak, ganbara. 1940 inguruan kendu zen beheko sua. Sukaldea nolakoa zen; tresnak.

1.241. Bekoetxe baserria, errota izandakoa (BER-207/014)

Baserria errota izandakoa zen gerra garaira arte. Etxe ondoan labea. Baserriko ogia. Oremahaia. Amak ogia nola egiten zuen.

1.242. Ogiaren eta labeko suaren inguruko azalpenak (BER-207/015)

Laberako haritz-egurra erabiltzen zen. Goizeko 06:00ak aldera pizten zuten. Berotutakoan, zuritu egiten zen. Labea nola garbitzen zen. Arto mehea, arto sendoa.

1.243. Baserriaren egitura (BER-207/016)

Baserriaren egitura. Ganbara desberdinak.

1.244. Baso kontuak: perretxikoak; toponimia... (BER-207/017)

Gaztainatara joaten ziren umetan. Perretxikotara inguruko mendietan. Toponimia. Albitza; Pikua. Perretxiko izenak.

1.245. Basoen aldaketa (BER-207/018)

Perretxikotan egiteko zaletasuna. Basoak desberdinak ziren garai batean. Hariztiak; pagadiak; pinudiak...

1.246. Erreka oso aberatsa; gainbehera noiz etorri zen. Arrantzan aitarekin ikasitakoa (BER-207/019)

Arrantzan aitarekin ikasitakoa. Sareak; esparbela... 1962ra arte bertako erreka oso aberatsa zen. Inguruko herrietatik ere joaten ziren arrantzan egitera. Ezkailuak; aingirak; amuarrainak; karramarroak... Errekaren gainbehera; lantegietako zikinak erreka osoa galdu zuen.

1.247. Arrantzan egiteko teknikak (BER-207/020)

Erreka aberatsa. Zer hartzen zuten azaltzen du. Arrantzan egiteko teknikak: sarea eta esparbela.

1.248. Arrantzan egiteko teknikak; errekaren gainbehera (BER-207/021)

Esparbela erosi egiten zen; etxean egitea zaila zen. Arrantzale amorratua; gehien gustatzen zitzaiona, eskuz arrantzan egitea zen. Errekaren gainbehera.

1.249. Errekaren inguruko azalpenak; hidronimia, toponimia (BER-207/022)

Errotako presa; atea zabaltzen zirenean errezagoa izaten zen arrantza egitea. Errekako putzu eta toki desberdinen izenak. Toponimia. Lapurzulo izeneko tokiak.

1.250. Gerra garaiko kontuak: frontea bertan izan zuten 6 hilabetez I (BER-207/023)

Ume garaia gogorra izan zen. Gerra Zibila hasi zenean, 3 anai-arreba (bera tartean zela) beste baserri batera eraman zituzten, hobe-beharrez. Orduko kontuak. Frontea bertan gelditu zen 6 hilabetean.

1.251. Gerra garaiko kontuak: frontea bertan izan zuten 6 hilabetez II (BER-207/024)

Gerra hasi zenean, Zigarrerokua baserrira eraman zituzten etxeako umeak. 3 egunetan egon ziren bertan. Leihotetan koltxoak; tiroak gau batean, deskarga handia egon zen. Deskarga aldetik bonbak bota zituzten.

1.252. Eskola kontuak: erdara; doktrinaren garrantzia... (BER-207/025)

Eskola kontuak. 6-14 urte bitartekoak elkarrekin ikasten zuten. Aita-amak erdara gutxi; umeek batere ez. Doktrina, abadearen arrebak erakusten zien. Eskolan euskara egitearren zigorra. Gerora Oñatiko maristetara joan zen ikastera.

1.253. Doktrinaren garrantzia; Pazkoako sermoiak eta eskola (BER-208/001)

Maristetan ikasitakoa. Azkoitiko irakaslea izan zuen bertan. Juan Arretxe abadearen arrebarekin ikasi zuen umetan doktrina San Prudentzian. Pazkoatan Arantzazutik edo Loiolatik ekartzen zituzten fraideak sermoiak ematera. Doktrinaren garrantzia Feliperen aitaren garaian; eskolaren garrantzia.

1.254. Pazkoako sermoiak eta txartela (BER-208/002)

Pazkoetan Arantzazutik edo Loiolatik ekartzen zituzten fraideak sermoiak ematera. Sermoi oso gogorrak; jendea beldurtu egiten zen: infernua... "Pazkoakoa" egiteko txartela behar izaten zuten; jauna hartzera joateko txartela derrigorrezkoa zen. Gutxi batzuk oso elizakoiak ziren.

1.255. San Prudentzioko ermita Parrokia bilakatu zen; gertakizuna (BER-208/003)

Auzoko eliza. 1882an Parrokia izendatu zuten; ordura arte ermita izan zen. Lapurreta egitera ermitara sartu eta auzoko baserritar batzuek lapurra harrapatu zuteneko kontua.

1.256. San Prudentzioko elizaren inguruko azalpenak (BER-208/004)

1800. urtetik aurrera, auzoko hildakoak bertako kanposantuan lurperatzen zituzten. Elizako liburuak bertako parrokiari gordetzen ziren; abadea kendu zenetik, liburuak Santa Marinako elizan daude. Sakristaua.

1.257. Auzoko beste ermita, San Esteban; San Prudentzioren irudia (BER-208/005)

San Prudentzio auzoko beste ermita non dagoen. San Prudentzioren irudia bertan zegoen. Irudiaren inguruko azalpenak.

1.258. Auzoko ermita, kanposantua (BER-208/006)

Auzoko kanposantua parrokiaren ondoan dago. Oñati aldera dagoen San Esteban ermitaren kanpokaldean, kanposantua egon zen garai batean.

1.259. Hileta-elizkizunen inguruko ohitura zaharrak (BER-208/007)

San Prudentzioko parrokiara joaten ziren mezara. Ohitura zaharrak. Etxean hildakoren bat zegoenean, argizaiola eta jarlekua jartzen ziren.

1.260. Argizaiola nola egiten den (BER-208/008)

Argizaiola nola egiten zen. Argizaria; ohola.

1.261. Santa Kruz apaizaren inguruko aipamenak (BER-208/009)

Familia kontuak; aitajaunak esandako kontuak. 1872an, beraien etxetik (Bekoetxetik) 50 metrora Santa Kruz apaizak egindako "enboskada".

1.262. Politika kontuak: liberalak, karlistak (BER-208/011)

Politika kontuak. Liberalak, karlistak. Baserritarrak ez ziren politika kontuetan gehiegi sartzen. Gerra garaian errepublikazale asko zegoen.

1.263. Santa Kruz apaizaren ibilerak (BER-208/012)

Santa Kruz apaiza oso ongi ikusita zegoen. Haren inguruko kontuak. Tropa liberalak; Santa Kruz apaiza eta haren jarraitzaileak Kanpazar inguruan harrapatu zituzten. Aramaionan preso zegoela, ihes egin zuen Anbotora. Handik, Frantziara joan zen.

1.264. Karlistak eta errepublikazaleak San Prudentzio auzoan (BER-208/013)

Gerra aurretik, errepublikanoek indarra hartu zuten. San Prudentzio inguruan bi taberna zeuden, bata karlistena eta bestea errepublikanoena. Beraien arteko borrokak. Francoren tropak sartu zirenean, errepublikanoen kantina hura erre egin zuten.

1.265. Merkantzia garraioa eta posta banaketa (BER-208/015)

Familia kontuak. Bi anaia garraiolari eta korreo bezala ibiltzen ziren.

1.266. Kontrabandistei buruzko istorioa (BER-208/016)

"Lapurzulo" izeneko kobazuloa. Toponimia. Kontrabandisten inguruko istorioa. Mikeleteek asaltadoreak harrapatu eta zuhaitzetatik esegi zituzten beste batzuen eskarmenturako.

1.267. Lapurren inguruko kontakizuna (BER-208/017)

Lapurren inguruko kontakizuna.

1.268. Antzinako garraioak (BER-208/018)

Anztinako garraioak: zaldidun gurdia; dilijentziak. Lehenagoko kontuak.

1.269. Lapurren inguruko kontakizuna (BER-208/019)

Lapurreten inguruko kontuak.

1.270. Garraiolarien nondik-norakoa (BER-208/020)

Antzinako txanponak. Garaiko garraiolariak nondik nora ibiltzen ziren.

1.271. Inguruarekin zerikusia duen ipuina (BER-208/021)

Toponimia: "Mokorra" eta "Mokorroste". Antzinako ipuin zaharra. Inguru hartan gordetako altxorra. Soldaduendako dirua bertan ezkutatuta omen zegoen.

1.272. Rafael Arizaga eta beste pertsonaia famatu batzuk (BER-208/022)

Rafael Arizaga, auzoko etxe batean jaiotakoa (Sagastietxea). Nietzsche filosofoaren laguna. Gregorio Marañón eta Pío Baroja bertara etortzen ziren. Familiaren inguruko kontuak. Etxea duela 25 urte inguru erre zen. Etxea nolakoa zen.

1.273. Auzoko neska-mutilen ibilerak gerra garaian (BER-208/023)

Sagastietxea. Gerra garaian, auzoko neska-mutilak bertan elkartzen ziren eta gramofonoa entzuten zuten. Familia nolakoa zen. Lursail handien jabeak.

1.274. Rafael Arizaga eta auzoko bizilagunak (BER-208/024)

Rafael Arizaga nolakoa zen; gizon jatorra. Auzokoekin hartu-emanak nolakoa zen. Berorika egiten zioten.

1.275. Rafael Arizagaren inguruko anekdota (BER-208/025)

Rafael Arizagaren inguruko kontua. Trenbidearen tunela egiten ari zireneko pasadizoa. Euskaldun jatorra.

1.276. Unión Cerrajerako langileak eta Rafael Arizaga (BER-208/026)

Antzinako kontua. Zerrajerako langileak lanik ez zutenean erreko harea ateratzen zuten, Rafael Arizagaren baimenarekin. Guardia zibilak atxilotu egin zituen behin eta orduko kontuak.

1.277. Basoen eta zuhaitzen inguruko azalpenak (BER-209/001)

Basoak nolakoak ziren bera gaztea zenean; batez ere haritza eta gaztaina. Itxiturak nolakoak izaten ziren. Zumitza; asto-banastak. Saskiak. Gaztaina, egur egokiena. Egurrari ematen zitzaion tratamendua. Gaztaina zaharrak bota eta "puja-barritu" egiten zen. Saskigileak.

1.278. Zuhaitzak botatzeko urte-sasoi egokia (BER-209/002)

Gaztainak, neguan botatzen ziren. Haritza eta pagoaren kasuan, ilbeheran gainera. Pago-egurra, oso egur ona lantzeko.

1.279. Ikazkintza; zuhaitzen ezaugarriak (BER-209/003)

Txondorrek. Haritz-motza eta txara ugari. Ikazkin ugari. Bera gaztea zenerako, pinu asko. 1945 urte inguruan, sute handi bat egon zen. Lehenagoko pinu klaseak. Zuhaitzen ezaugarriak.

1.280. Haritz motza; pago, haritz tantaiak (BER-209/006)

Haritz motza; ezaugarriak. Lehenago baserritar gehienak errenteroak ziren eta haritz motzaren kasuan, zuhaitzaren burutik gora hasitako adarrak errenteroarenak izaten ziren; hortik behera, ugazabarena. Pago, haritz tantaiak. Txara.

1.281. Pinudiak nola zaindu behar diren (BER-209/007)

Pinudiak nola zaintzen diren. Udaberrian garbitu behar da. Pinua noiz bakandu behar den. Pinuaren mozorroa.

1.282. Zuhaitzen gaitzak (BER-209/008)

Zuhaitzek izaten zituzten gaitzak. Lehenago gaztainadi ugari; urte gutxitan denak galdu ziren. Zumarrak izaten zuen gaixotasuna.

1.283. Egur klaseak; zuhaitza noiz bota behar den (BER-209/009)

Egur klase desberdinak; bakoitzaren ezaugarriak. Zuhaitza botatzeko sasoirik onena, negua. Ilbeheran botatzearen garrantzia.

1.284. Pinuaren inguruko argibideak (BER-209/010)

Pinua noiz garbitu behar den.

1.285. Zuhaitzen inguruko azalpenak (BER-209/011)

Zuhaitzen inguruko kontuak. Egurrik onena, ukitu gabeko zuhaitzarena omen da. Baina egun, pinua asko zaindu behar dela esaten da. Egur korapilatsuak. Intxaur beltza.

1.286. Zuhaitzen inguruko azalpenak (BER-209/012)

Negu aldean zuhaitzek ez dute urik jasotzen. Urtarrilean hasten dira arrotzen. Erretxina.

1.287. Pinu klaseak (BER-209/014)

Pinu klase desberdinak; inguruko lehenengo pinuak Oñatitik etorriak omen dira. Orduko ipuin zaharra. Adán de Yartzak Lekeitiora ekarritako pinua.

1.288. Pinu klaseak; ezaugarriak (BER-209/015)

Pinu "maritimoa"; beste klase batzuk. Bakoitzaren ezaugarriak; azalpen sakona.

1.289. Ikazkintza (BER-209/016)

Antzina, baserritar asko negu aldean elkartu egiten ziren, eta basomutil ibiltzen ziren. Ikatza egiteko, pagoa eta haritza erabiltzen ziren batez ere. Artea.

1.290. Basoko animaliak; txoriak (BER-209/018)

Basoko animaliak. Aitak, eperrak ezagutu zituen. Feliperen garaian, ez eper eta ez galeper. Soroetan lehenago gari ugari ereiten zen. Garia landatzen uztearekin batera, animalia asko jateko gabe gelditu eta inguru honetan galduz joan dira. Pinudiak ere ugarituz joan dira eta txori-klase asko desagertu egin dira paraje hauetan. Azeriak; basurdeak; erbiak.

1.291. Ehiztarien inguruko zenbait kontu (BER-209/020)

Basurdetan; erbitan. Ehiztarien inguruko hainbat kontu.

1.292. Ehiza: pasa eta kontrapasa (BER-209/022)

Usotan. Bera mutikoa zenean udazkenean paseko usoak sarri ikusten zituzten. Pasa eta kontrapasa.

1.293. Fruta-arbolak nola mentatu (BER-209/024)

Fruta-arbolak nola mentatzen diren. Beti txertatu izan dira.

1.294. Fruta-arbolak txertatzeko garai egokia (BER-209/025)

Fruta-arbolak zergatik txertatzen diren. Mentatzeko sasoi egokia noiz den. Gaur egun nola txertatzen diren; teknika asko aldatu da.

1.295. Elizaren indarra gizartean (BER-210/001)

Abadeei errespetua baino, beldurra gehiago. Elizak indar handia zuen gizartean. Berak gertutik ezagututako adibide batzuk aipatzen ditu: Altos Hornos-etik goizeko 6retan irteten zirenak, 06:30erako mezara joan behar izaten ziren. Gaur eguneko egoera zein den (elizara gero eta jende gutxiago joaten da, zer egiten du elizak horren inguruan...).

1.296. Inguruak izan dituen aldaketak (BER-210/005)

Ingurua nolakoa zen. Soro handiak, ortuak. Baserri izenak. Sagastiak... Gerra ondoren pinu asko sartu zen eta erabat zatartu da baso ingurua. Gaztelu baserrian sagardoa egiten zen garai batean. Balentokua, Belengua, Sakurtei...

1.297. Laguntasun handia auzokoen artean (BER-210/008)

Auzoko bizilagunen arteko hartu-emana, estua. Inguruko baserriren batean laguntasuna behar zenean ere, beti prest bertara joateko. Gari-ebatea; sagar edo baba batzea... Lanaren ordainean, patatak, baba, edo dena delakoa ematen zuten baserrikoek.

1.298. San Antonio ingurua nolakoa zen; trenbidea (BER-210/009)

Sagardoa egiten ikusi zuen, inguruko baserri batzuetan. Egun ez dago dolarerik. Ingurua nolakoa zen. Trenbidea.

1.299. Altos Hornos lantegia: lanaren nondik norakoak (BER-210/014)

Ingurua asko aldatu da. Altos Hornos lantegia nolakoa zen: altzairu-labea; galdategia, etab. Gertatu izan diren istripuak. Prozesuaren inguruko azalpenak.

1.300. Unión Cerrajerak zituen atal desberdinak (BER-210/017)

Unión Cerrajera; Altos Hornos. Altzairu-labea; fundizioa; laminazioa; etab. Arantzazutik ekartzen zen ura zuzenean bertara. Orain lan asko automatizatuta dago, baina garai batean idiak izaten zituzten lantegian merkantziak garraiatzeko. Lantegiko laborategi kimikoa ere bertan zegoen.

1.301. Aurkezpena eta txikitako jostailuak (BER-212/001)

1913an jaio zen Bergaran. Oso desberdina zen orduan Bergara, txikiagoa. Non eta zerekin jolasten zuten azaltzen du.

1.302. Txikitako jolasak (I): neskak diaboluan eta mutilak pote-poteka (BER-212/002)

Beste jolas batzuk: sokasaltoka, diabolua... Diaboluan nola jolasten den azaltzen du. Mutilak pote-poteka ibiltzen ziren.

1.303. Txikitako jolasak (II): denak batera bale-baleka (BER-212/003)

Denak batera bale-baleka ibiltzen ziren. Nola jolasten zuten azaltzen du.

1.304. Txikitako jolasak (IV): tortolosak (BER-212/005)

Tortoloska. Non eta nola jolasten zuten azaltzen du.

1.305. Errekako jolasak (BER-212/007)

Errekan ere jolasten zuten. Fabrikak erreka tinea botatzean, arrainak azaltzen ziren, eta tripetan zeukaten puxikekin jolasten zuten. Mutilak bakarrik ibiltzen ziren igerian. Batzuk "Puente Colgante"tik erori eta busti egiten ziren.

1.306. Debako hondartza (II): olatuak eta jendea (BER-212/009)

Mutiek bazekiten igerian, baina neska gutxi. Debako hondartzan soka bat zegoen, eta olatuak zeudenean, hari heltzen zioten. Hondartzan jende dezente egoten zen.

1.307. Errotaerdi erreka (BER-212/010)

Errotaerdin karramarroak hartzen zituzten, eta baserrira eramatean nola prestatzen zituzten jateko azaltzen du. Errekako errota nola jolasten zuten aipatzen du.

1.308. Amaren gaztetako bizitza (BER-212/011)

Gurasoak nongoak ziren azaltzen du. Ama ez zen maiorazgoa, eta Bilbora joan zen umezaintzaile. Egunero joaten zen tren ikustera.

1.309. Gurasoak ezagutu zirenetik ezkondu arteko garaia (BER-212/014)

Amak Bilbon urte bat, urte t'erdi eman zuen. Aita Bilbora igeltsero ikastera joan zen. Elkarrekin hasitakoan, ama konfesatzera joandakoan, abadeak esandakoa kontatzen du. Gurasoak ezkondu egin ziren, eta Zubietan jarri ziren bizitzen. Ama jostun-lanetan, eta aita igeltsero.

1.310. Bilboko etxe dotoreko pasadizoak (BER-212/015)

Amak Bilbon lan egin zuen etxe dotore batean, eta han izandako pasadizoak kontatzen ditu. Asko ikasi omen zuen amak han.

1.311. Gurasoen lanbidea (BER-212/016)

Aitak Bilbon ikasi zuen ofizioa, apopilo ibili zen anaiarekin batera. Gero kontratista izan ziren biak. Ama jostuna izan zen, oso langilea.

1.312. Haurren jaiotzak (BER-212/017)

Amak haurrak edukitzeko, sahatsarekin lan egiten zuen emakume batek laguntzen zion. Etxean jaiotzen ziren, eta jaioberritan amarekin egoten ziren. Erditu ondoren, ama horren gaizki zegoen, izan zuen 2. haurra nahi gabe ito egin zuen.

1.313. Ama jostun-lanetan (BER-212/018)

Amari josten nork irakatsi zion azaltzen du. Bazuen josteko makina. Telak nondik erosten zituen azaltzen du. Baserri batzuetan baziren jostunak.

1.314. Mojen eskola eta bertako zigorrak (BER-212/020)

Mojetara joan zen eskolara. "Externa" zen eskolan, eta ez zuen ordaindu beharrik. Aulkia buruan jartzea zen zigorra. Zergatik zigortzen zituen aipatzen du.

1.315. Monjen eskolako neska "internak" (BER-212/021)

Juanaren eskolak izen handia zuen, eta kanpotik neskak etortzen ziren "interna". Neska horien bizimodua nolakoa izango zen kontatzen du, eta nongoak ziren aipatzen du.

1.316. "Externa" izatetik, "a media pensión" izatera (BER-212/022)

"Externa" egon zen komuniora arte. Eta horren ondoren, "a media pensión" sartu zen. Alde handia zegoen bat edo beste izan: tratu hobea ematen zuten.

1.317. Komunioko kontuak (BER-212/025)

Doktrina ikastea oso garrantzitsua zen. Bi komunio egiten zituzten, eta nolakoak ziren azaltzen du. Komunioko soinekoak deskribatzen ditu.

1.318. "Escuela del Hogar" (BER-212/027)

"Escuela del Hogar" ireki zuten gero. Hara nor joaten ziren azaltzen du. Bere lagun baten bizitza kontatzen du (Eustakio Agirreolearen alaba).

1.319. Konbidautzak etxean zirenean jaten zutena (BER-212/028)

Eskolan ikasitakoa amari kontatzen zion. Amak plater haiek ikasi, eta familia osoa Santa Maiña egunean elkartzean prestatzen zituen. Jaten zutena kontatzen du.

1.320. Konbidautzak Muiñondo baserrian (BER-212/029)

San Blas egunean Muiñondo baserrira joaten ziren. Eta etxerako buelta nola egiten zuten azaltzen du. Familia osoa elkartzen zen. San Lorenzo egunean ere beste leku batean elkartzen ziren.

1.321. Sukaldean eta josten non ikasi zuen (BER-212/030)

"Escuela del Hogarren" sukaldean ibiltzen ikasi zuen. Eta Piarenean, sukaldean eta josten ikasi zuen. Arratsalde eta gaueko txandak zeuden. Neska asko ibiltzen ziren "Escuela del Hogarren".

1.322. "Escuela del Hogarren" helburua (BER-212/032)

"Escuela del Hogarrera" zein joaten zen aipatzen du. Ikasturte bat egin zuen han. Eskola haren helburua zen emakumeak etxekoandre onak izateko prestatzea. Mutilik ez zen joaten hara ikastera.

1.323. "Escuela del Hogarreko" ikaskideak eta giroa (BER-212/033)

"Escuela del Hogarreko" anekdotak kontatzen ditu, eta norekin batera ikasi zuen aipatzen du. Gustura ibiltzen ziren berriketan, josten aritzen ziren bitartean.

1.324. Aisialdia (BER-212/034)

Paseatu egiten zuten, igandetan bandaren musika entzuten eta dantzatzen zuten. Desiatzen egoten ziren dantzatzeko.

1.325. Dantzatik etxera joateko ordua (BER-212/035)

Etxera joateko ordua zeukaten. Ordua errespetatu ez zuen lagun bati gertatutakoa kontatzen du.

1.326. Nola egiten zuten dantza (BER-212/036)

Mutilekin dantzatzen zuten. Mutilek eskatzen zien neskei dantzatzeko. Nesken artean ere dantzatzen zuten

1.327. Musika egunetako ohiturak (BER-212/037)

Zer dantza mota dantzatzen zuten aipatzen du. Danbolina ere jotzen zuten. Plazan neguan dantzatzen zuten. Dotore janzten ziren egun horietarako. Pieza artean, paseatu egiten zuten.

1.328. Orduko moda (BER-212/038)

Modaren arabera aldatu egiten zen arropa-estiloa. Orduko orrazkerak ere deskribatzen ditu.

1.329. Eustakio Agirreolearekin izandako harremana (BER-212/039)

Argazkiak ateratzera Eustakio Agirreolearen dendara joaten ziren. Eustakio ezagutu zuen, eta hark egindako "Kristo" bat aipatzen du. Eustakiok lan hori egin bitartean, haren alaba eta Juana josten egoten ziren tailerrean harekin batera.

1.330. Eustakio Agirreolea atxilotu zutenekoa (BER-212/041)

Eustakio gerratean atxilotu zuten. Eta harekin batera beste gizon batzuk ere. Heriotza-zigorra jarri zieten. Pixkanaka, hala ere, aske utzi zituzten.

1.331. Herriko festa batzuk (BER-212/044)

Gaztetako festak eta egun horietako giroa: Pazkoak, Santa Marina eta San Pedro.

1.332. San Martzialak (BER-212/045)

San Martzialak: "Txantxiku" gizona aipatzen du, meza, txokolatea, bazkalostean aureskua eta dantza.

1.333. San Martzial eguneko festa (BER-212/046)

Dantzari buruz hitz egiten du. Oraingoa baino giro sanoagoa zegoela dio, eta goizago bukatzen zela festa. San Martzial egunean ematen zien izozkiaz hitz egiten du.

1.334. Zubieta eta Mazterreka kaleak (BER-214/012)

Zubieta eta Mazterreka kaleko etxeek ortua zuten atzekaldean.

1.335. Emakumeak lan-munduan (BER-214/016)

Gaztetan Otazua ehundegian lan egin zuen. Emakumeak lan-munduan Bergaran. Mojetan gau eskola ipini zuten, lanean zebiltzan emakume askorentzat. Lan-baldintzak; egutegia.

1.336. Eskola garaiko zenbait azalpen (BER-214/023)

Ikastetxea nolakoa zen; gelak, materiala... Liburu bakarra erabiltzen zuten, baina ez beraiek erositakoa, mojek uzten zizkieten liburuak. Zer ikasten zuten: matematika; Historia de España; etab.

1.337. Hizkuntzaren erabilera eskolan (BER-214/024)

Mojatan erdaraz ikasi zuten, baina beraien artean euskaraz egiten zuten.

1.338. Euskara Bergaran (BER-214/025)

Begarako auzoetan euskararen erabilera desberdina izan da. Inguru batzuetan gehiago gorde izan da etxeke hizkuntza. Etxean euskaraz hitz egitearen garrantzia.

1.339. Ikastolaren hastapenak Bergaran (BER-214/027)

Bergaran egon ziren beste eskola batzuk; irakasleak. Ikastolaren hastapenak Bergaran.

1.340. Hezkuntza Bergaran (BER-214/028)

Mutilak nora joaten ziren eskolara; ikastetxe desberdinak Bergaran. Fraideak, mojak.

1.341. Dominikoak Bergaran (BER-216/020)

Dominikoek ere barnetegia (internatua) zuten. Bertan ematen ziren ikasketak.

1.342. Ehun lantegiak Bergaran (BER-216/024)

Oregireneko lantegia. Bertan egiten zen lanaren azalpena. Haria eta ehuna erosi, tindatu eta gerora saldu egiten zen. Ehun lantegiak Bergaran. Algodonera.

1.343. Oregireneko ehun lantegia (BER-216/025)

Oregireneko lantegia. Sail desberdinak. Lantegiaren hastapenak eta ibilbidea. Hasieran sozio gehiagok parte hartzen zuten lantegian, gerora Oregi anaiak geratu ziren lantegiaren jabetzarekin.

1.344. Oregireneko ehun lantegiaren hastapenak (BER-216/026)

Oregi ehun lantegiaren hastapenak. Sozio desberdinen inguruko zenbait datu. Espainia mailan oso ezagunak ziren sozioetako batzuk (komertzial bezala ibiltzen ziren).

1.345. Konpetentzia handia ehun lantegi desberdinen artean (BER-216/027)

Konpetentzia handia bertan herrian eta baita kanpoan ere.

1.346. Oregitarak (BER-216/028)

Oregi nolakoa zen. Bi anaiak fenomeno batzuk.

1.347. Ehundegiaren inguruko azalpenak (BER-216/029)

Ehundegiaren inguruko kontuak. Hasieran tela sendoak egiten ziren; gerora fintzen joan zen arren. Koloreak. "Azul de Bergara".

1.348. Ehun lantegiak Bergaran (BER-216/031)

Ehun lantegietako buruak garai batean "jauntxoak" izan ziren herrian. Gerora, lanaren eta negozioen beherakada etorri zen. Itxi diren ehun lantegiak; Tavex-ak jarraitzen du. Konpetentzia nondik datorren.

1.349. Lan-baldintzak (BER-216/033)

Lan-baldintzak noiz hasi ziren hobetzen. Hasieran, larunbatetan ere lanera joan behar izaten ziren. Gaztetako pentsamoldea.

1.350. Emakumeak lan-munduan (BER-216/034)

Emakumeak betidanik lan egin izan du ehun lantegietan. Orduko kontuak. Zein sailetan egoten ziren emakume gehiago.

1.351. Ehuna egiteko prozesua (BER-216/039)

Ehun lantegia. Prozesuaren atal desberdinen azalpena. Produktzioan egindako hobekuntzak.

1.352. Eskola eta seminarioko garaiak (BER-219/003)

Eskola kontuak Bergaran. Herriko eskolan, seminarioan... ikasitakoa. Seminarioan ikasten ibili zeneko gogoetak; irakasle baten inguruko anekdotak.

1.353. Seminarioan ikasketak (BER-219/004)

Seminarioan egin zituen lehenengo ikasketak. Fraideen diziplina; etab.

1.354. Seminarioko kontuak; erlijioaren garrantzia (BER-219/008)

Seminarioan zer ikasten zuten. Erlijioak garrantzi handia zuen gizartean. Mezara joatea derrigorrezkoa zen. Institutuan ere fraideek ematen zituzten klaseak, eta ordaindutako ikasketak ziren gainera. Institutua zergatik itxi zuten.

1.355. Herriko eskolak; irakasleak (BER-219/009)

Herriko eskolak. Baserritik egunero eskolara hainbat joan-etorri egin behar izaten zituzten. Irakasleak nolakoak ziren.

1.356. Labe Garaietako eskola; Seminarioa (BER-219/010)

Umetan, "Altos Hornos"eko eskolan ibili zen; ondoren, Seminarioan. Gerra garaian Seminarioan Ospital militarra ipini zuten eta harrezkero epaitegiko lokaletan eman zituen klaseak. Irakasleen inguruko gogoetak. Don Elias Azpiazu.

1.357. Baserriko bizimodua (BER-219/012)

Sagastizabal (Saizabal) baserrian jaiotakoa, 1924an. Baserriko bizimodua, gogorra.

1.358. Sagastizabal baserrian jaiotakoa (BER-219/013)

Baserriaren historia. Sasoi batean, Gipuzkoako bigarren baserririk handiena izan zen. Gurasoen jatorria.

1.359. Emakumeak eta umeak baserrian (BER-219/014)

Amak igandero Zeruko Argia erosi eta irakurtzen zuen. Langile amorratua. Egunero jaisten zen herrira baserriko produktuak saltzera; plazara, larunbatetan. Beraiek ere, ume-umetatik baserrian lanean. Gurasoen inguruko gogoetak. Amandrea, inude joandakoa.

1.360. Bizitzarekiko ikuspegia (BER-219/015)

Bizitzarekiko ikuspegia.

1.361. Baserriko bizimodua (BER-219/016)

Baserriko bizimodua. Aitak baserritik ateratzen zuen bizimodua. 10 anai-arreba izandakoak dira; Antonio gazteena.

1.362. Konfesatzera joan eta orduan gertatutakoa (BER-219/018)

Konfesatzera joan eta egun batean gertatutakoa.

1.363. Arantzazuko fraideak sermoiak ematen (BER-219/019)

Erljioaren indarra gizartean. Misiok. Arantzazutik fraideak etortzen ziren sermoiak ematera. Infernua...

1.364. Erlijioaren indarra (BER-219/021)

Erlijioaren indarra, lan giroan baita ere.

1.365. Aldaketa handia erlijio kontuetan (BER-219/022)

Aldaketa handia eman da gizartean azken urteotan erlijio kontuetan. Bere ikuspegi pertsonala ematen du.

1.366. Dominikoak eta udala (BER-219/024)

Dominikoen eta udalaren arteko harremanaz hitz egiten du.

1.367. Frankismo garaiko lan-giroa (BER-219/026)

Otsein-en lan egiten zuen eta greba batean etxera bidali zuten. Ordurako kooperatiba bateko bazkide zen. Frankismo garaiko lan-munduko giroa.

1.368. Lehenengo lana, tronkotan basoan (BER-219/027)

Antonoren lehenengo lana, aitarekin tronkotan. Ibilbide profesionala.

1.369. Fagor-en sorrera; Unión Cerrajera (BER-219/030)

Kooperatiba eta enpresa pribatuaren arteko desberdintasuna. Fagor-en sorreraren inguruko kontuak. Unión Cerrajera.

1.370. Fagor-en sorrera; Jose Maria Arizmendiarieta (BER-219/031)

Fagor-en sorreraren inguruko kontuak. Unión Cerrajera. Don Jose Maria Arizmendiarieta; biografia eta ibilbidea.

1.371. Bergarako industria (BER-220/001)

Begarako industriaren bilakaera. Lantegi ugari itxi egin dira; beste askok langile kopurua izugarri murriztu dute. Gerra aurreko industria garrantzitsuenak Bergaran, ehungintza eta "Unión Cerrajera" izan ziren; gerraostean Otsein sortu zen.

1.372. Ehungintzaren bilakaera Bergaran (BER-220/002)

Ehungintzaren bilakaera Bergaran. Gerra garaian, Francoren tropentzako arropa guztia Bergaran egiten zen. Bergarako uraren garrantzia... Ehungintzaren beherakada noiz hasi zen.

1.373. Bergarako autobusak (BER-220/003)

Idarretaren autobusak, "La Bergaresa" enpresaren beherakada.

1.374. Bergarako industria; kooperatibismoa (BER-220/004)

Bergaran eman den bilakera industrialak aztertzen du; etorkizunari begira gauzak nola ikusten dituen aipatzen du. D. Jose Maria Arizmendiarietaren garrantzia kooperatiben sorreran; zenbait datu biografiko.

1.375. Langile mugimendua diktadura garaian (BER-220/005)

Gaztetan langile mugimenduan sartuta egon zen Antonio eta garai hartako zenbait kontu azaltzen ditu. Langile mugimenduan sartuta egon ziren hainbat

abade izendatzen ditu; D. Jose Maria Arizmendiarrietak beste bide bat hartu zuen.

1.376. Don Jose Maria Arizmendiarrieta (BER-220/006)

Don Jose Maria Arizmendiarrietaren zenbait datu biografiko; haren ibilbide pertsonalaren inguruko gogoeta batzuk egiten ditu Antoniok. Gerra garaian Eusko Jaurlaritzako prentsa arduraduna izan zen; atxilotu egin zuten eta heriotza-zigorra jarri zioten.

1.377. Kooperatibismoaren oinarriak (BER-220/007)

Kooperatiba bat sortzeko beharrezkoak diren elementuak. Arrasateko kooperatiben lehenengo urratsak zeintzuk izan ziren azaltzen du. Ulgor; Copreci.

1.378. Kooperatiben lehenengo urratsak (BER-220/008)

Arrasateko kooperatiben lehenengo urratsak zeintzuk izan ziren azaltzen du. D. Jose Maria Arizmendiarrietaren eragina kooperatiben sorreran; kooperatibak martxan jarri zituzten mutilen ekarpena; herriaren bultzada. Kooperatibak martxan jarri zirenean, Arrasateko kultura eta ekonomiaren gorakada nabarmena izan zen.

1.379. Francoren garaiko politika Bergaran (BER-220/012)

1966 inguruan sartu zen Antonio politikan. Hauteskundeak egin ziren Bergaran eta orduko gorabeherak azaltzen ditu. Lehenengo 6 urteetan bizi izandako egoera politikoa.

1.380. Diktadura garaiko giro politikoa Bergaran (BER-220/016)

Frankismo garaiko giro politikoa Bergaran. Udalean zeuden ordezkariak, frankismoaren aldekoak edo kontrakoak ziren; ez zegoen partidu politikorik. "Terzioak" (kulturala, familiarra eta sindikala).

1.381. 1925ean jaioa, zortzi seme-alabadun familian (BER-225/001)

1925. urtean jaio zen Arrasaten. Zortzi anai-arreba bizi ziren baserrian, kaleko baserri batean. Taberna eta estankoa ere bazen beraien etxea. Ahizparik zaharrena aitaren lehen emaztearen alaba zen, Pastora baino 25 urte zaharragoa.

1.382. Osaba-izebekin Bergarara (BER-225/002)

Arrasaten Musakola auzoan bizi zirenez bertako eskolara joan zen. Baina bost urte zituela aita hil eta osaba-izebekin Bergara joan zen bizitzera. Osaba oso umoretsua zela dio.

1.383. Osaba (BER-225/003)

Osaba Aranerreko Aranerdiko baserrian jaiotakoa zen, oso baserri handia da. Anai-arreba asko izan zirenez bederatzi urterekin Lasturretxe baserrira morroi joan zen. Bertan gauzez beti gaztaina egosita, onak zein ustelak, afaltzen zituzten.

1.384. Arabara gaztelania ikastera (BER-225/004)

Osaba 11 urterekin Arabara joan zen gaztelania ikastera, orduan ohikoa zen hori. Urtean, hiru ogerleko eta bota pareta jasotzen zuen ordainetan. Bertan gaztelania ikasten zebilela izandako anekdota bat kontatzen du. Ama gaixotu eta Bergarara bueltatu zen, Gasteiztik Leintz Gatzagarako tren hartuz.

1.385. Baserritarrei burla (BER-225/006)

Osaba Valladoliden egon zen soldadu. Zazpi kinta ezberdin egon ziren, Kubako gerra orduan amaitu ei zen. Baserritarrei burla egiten zieten. Bertan izandako anekdotak eta istorioak kontatzen ditu.

1.386. Gasteizera zein Bilbora oinez edo astoz (BER-225/007)

Arrasateko bere izeko batek errota zuen Arrasaten eta zapatu goizetan Gasteizera joaten zen jeneroa saltzera. Apitto abarketaria ere Bilbora joaten zen mandatari, oinez goizeko hiruretan-edo irtenda.

1.387. Bergara gerran (BER-225/008)

Berak 11 urte zituela hasi zen gerra. Lehenengo frontoian jasotzen zituzten eskolak eta urte hartan "enseñanza"n zegoen. Han "externa", "media pensio" eta "interna" esaten zitzaizkien egoten ziren. Gerra hasi zenean, Bergarara sartu zenean, soldaduak ikusi zituzten kaleetan "viva España"ka. Jendeak ihes egin zuen, beraiek etxean geratu ziren. Orduko alkateak, Ignacio Zubizarretak izan zuen ardura inork ez hiltzeko, baina hark alde egin eta gero, CNTko batzuk etorri eta Bergarako frontoiko garbitokian Antzuolako sakrista hil zuten. Hura ikustera joan ziren. Goienkalean ere bonba bat bota zuten eta gaixo zegoen mutiko bat hil zuten. Bonbak ez zirela hain handiak dio. Babesgunera joaten ziren, zuzendariaren etxeak zuen sotora, jende mordera batzen zen han azpian. Anekdota eta istorio asko kontatzen ditu.

1.388. Nazionalak vs gorriak (BER-225/009)

Nazionalak sartu zirenean, bere osabari 250 pezetako isuna kendu zioten. Bergaran ez zuten inork hil, baina Bekolalden-edo bai hil zituzten gizon batzuk. Arrasaten ere bi abade-edo hil zituzten. Beraien lehengusu bat gorrien kapitaina zen; eta, semea kapitaina izatearren, aita kartzelara sartu zuten, udaletxeko kartzelara. Bonbardatzera etortzen zirenean gorriak, plazara ateratzen zituzten presoak.

1.389. Euskaraz ezin (BER-225/010)

Ezin zen euskaraz egin; sermoiak eta dena erdaraz ziren. Baserrietako umeak eskolara joan eta konplexuz betetzen ziren, besteak baino gutxiago zirelakoan.

1.390. Bergarako kondeak (BER-225/011)

Bergaran bi konde zeuden: Goiko kondekoa "Conde de Villafranca" eta Beheko kondekoa (Euskadiko Filmoteka dagoen lekuan). Bertakoa familiaz eta pribilegioez hitz egiten du. Beste kondeak, Santa Anakoak "Conde del Valle" Arrudiagan bizi ziren, orain Kultur Etxea dagoen lekuan bizi ziren. Hauek nolakoak ziren kontatzen du. Hainbat kontu gehitzen ditu: herritarrekin zuten harremana, etxean zituzten langileak, etxea nolakoak zen, dendatik errekadutan bertara joaten zenekoa...

1.391. "Duque de Sotomayor", "Duquesa de Alba"ren senarra (BER-225/012)

Oñatin etxea zuen Sotomayorreko dukea etortzen zen Bergarako Del Valle kondearengana. Sotomayorreko dukea Albako dukesaren senarra zen.

1.392. Don Luis Ruiz de la Prada y Martinez de Torres alkatea (BER-225/013)

Bergaran Madrilgo alkate bat zegoen, Don Luis Ruiz de la Prada y Martinez de Torres. Bergarako emaztea zuen eta seme-alabak ere bai.

1.393. Frontea Elgetan (BER-225/014)

Frontea Elgetan egon zen, Asensio mendian. Bederatzi hilabetez egon ziren, gero Bilbora joan ziren. Tropa asko egon ziren: alemaniarrak, italiarrak eta moroak. Hainbat istorio kontatzen ditu. Esate baterako, behin moro batek beste bat hil zuela eztabaida bat izan ostean.

1.394. Esteban Kapaña (BER-225/016)

Esteban Kapaña beti mozkortuta ibiltzen zen. Marianonera joan eta inoiz ez zuen ordaintzen. Danbolintzerokora joan eta behin bertako Eustakiorekin izandako berriketaldia kontatzen du. Beste behin soldaduek mozkortuta eraman zuten etxera. Antzuolakoa zen berez Esteban.

1.395. Antzuolar bikote baten haserrea (BER-225/017)

Antzuolar bati emaztea behin haserretu zitzaion eta senarra abadearengana joan zen esatera emaztea berba barik zela. Abadea orduan arduratuta etxera joan eta ikusi zuen andreak egiten zuela berba.

1.396. Redondo, egunkari-saltzailea (BER-225/019)

Redondo izeneko bat ere bazegoen, egunkariak saltzen zituen. Beraiek umeak zirela Redondoren etxeko teilatua konpontzen ari zirela teilatua erori zen eta hori ikustearren eskolara joan gabe geratu ziren.

1.397. Elur-zulotik ezin irtenda (BER-226/002)

Huescan soldadutzan zegoela, behin elurretan zulo batean sartu eta ezin irtenda ibili zen. Orduan gertatutako istorioa kontatzen du.

1.398. Soldadutzako pasadizoak (BER-226/006)

Soldadutzan Teruelera joan zenekoa kontatzen du, bertan gertatutako pasadizoa. Beste behin basora joan ziren gerrako alanbradak batzen. Orduan beste soldadu ondarroar batekin gertatutakoa kontatzen du.

1.399. Soldadua oilo eske (BER-226/007)

Beraien baserrian Arizmendin egon zen hilabetez konpainia oso bat. Soldadu batek beraien baserriko oiloak eraman behar zitueneko istorioa kontatzen du. Soldaduari aurre egin zioten, eta azkenean oilo bi baino ez zituen eraman soldaduak.

1.400. Gorriak Elgetara. kamillero lanetan (BER-226/008)

Zazpi hilabetez egon ziren gorriak Arizmendin. Elgetara sartu ziren Angiozar aldetik. Hilabete inguru kamillero ibili behar izan zuen, gaixoak eta hildakoak eroaten. Orduko gertakizun batzuk kontatzen ditu.

1.401. Gernikako bonbardaketan (BER-226/009)

Gernikan ere egon zen, bertan bizitakoa kontatzen du. Izugarria izan omen zen Gernikakoa, inoiz ez omen du horrenbeste izerdi bota, dena txikituta zegoen. Gernikako arbola ondoko komentuan (Santa Klara) egon ziren.

1.402. Falangistak (BER-226/011)

Zubibarriko bidean falangistak egon ziren; "cuerpo a tierra" esan, eta putzu batean etzan ziren.

1.403. Fusilatutako bi (BER-226/012)

Kostolako bi anaia fusilatu zituzten. Eta zelan gertatu zen kontatzen du.

1.404. Beraientzako jateko eskasena. Guardia zibilekin istiluak (BER-226/014)

Beraien jatekoa, jateko txarrena zen eta horri buruz hitz egiten du; baita barre ere. Jacan Guardia zibilekin izandako istilu bat kontatzen du.

1.405. Hotzak hiltzen (BER-226/016)

Soldaduek izua sortzen zioten, oso gaiztoak zirelako. Tiro barik hil zen jendea, hotzaren hotzaz. Han ez zuten militarrek agintzen, eguraldiak agintzen zuen, 24 gradu zero azpitik ere egon izan da. Kasurik egin ezean, hil egiten zen jendea. Berotan sartzeko, alkoholdun edariak edatea zen onena.

1.406. Adarjotzea herriko gizajoari auzolanetan (BER-228/004)

Auzolanak zer ziren azaltzen du. Mutil gizajo bati (Nikolas) adarra jo zioteneko pasadizoa kontatzen du.

1.407. Biografia laburra (BER-228/007)

Eskolan mojetan ibilia. Eta gerra ostean eskolarik ez zuen izan. Fabrikara joan zen lanera, 12 urte egin zuen han lan. Gero etxeko tailerrean ibili zen lanean, eta azkenik, dendari jubilatuta arte.

1.408. Erdaraz noiz ikasi zuten (BER-228/008)

Dena euskaraz egiten zuten. Eta euskaraz kalean ikasiko zuen nahi gabe.

1.409. Irratia eta telebista (BER-228/009)

Irratia izan zuten etxean, baina berandu samar iritsi zen. Udako egunetan, okindegira joaten ziren irratia entzutera: Radio Andorra. Telebista oso berandu ekarri zuten etxera.

1.410. Aisialdia: zinea eta dantza (BER-228/011)

Zinera ere dezente joaten ziren, baina nahiago herriko plazan dantzatu. Gero paseatu egiten zuten. Hori jaietan. Asteaz zehar lan.

1.411. Denbora librea umetan (BER-228/012)

Elizara askotan joaten ziren. Denbora librean zer egiten zuten, eta zer jolasetan ibiltzen ziren azaltzen du.

1.412. Aisialdia gaztetan: musika eta txangoak (BER-228/013)

Pixka bat hazi zirenean, musikara joaten hasi ziren, eta txangoak egiten zituzten. Txango horietako ibilbide bat, eta biderako eramandako janaria deskribatzen du.

1.413. Maiatzeko loreak (BER-228/014)

Maiatzeko loreak zer ziren azaltzen du. Elizan nola esertzen ziren, eta zer bihurrikeria egiten zituzten kontatzen du.

1.414. Pazkoak: otordua (BER-228/016)

Pazkoak nolakoak izaten ziren azaltzen du: familia nola elkartzen zen, janaria nola prestatzen zen, amari nola laguntzen zioten sukaldean...

1.415. Pazkoak: aisialdia (BER-228/018)

Pazkoan, amari lagundu, afaldu, eta gauean musikara joaten ziren. Pazkoak zirelako, denbora gehiago gelditzen uzten zien. Barraketan ibiltzen ziren. Zer barraka egoten ziren, eta nola ordaintzen zuten azaltzen du.

1.416. San Martzialak (BER-228/020)

San Martzialean nola eramaten zuten janaria azaltzen du. Edaria erosi, eta dantzan egiten zuten: trikitia eta lotutako dantza.

1.417. Dantza lotua=bekatua (BER-228/021)

Lotutako dantza bekatua zen, eta gero konfesatu egin behar izaten zen. Baina, hala ere, beraiek egiten zuten lotutako dantza.

1.418. Bergarako banda dantzetan (BER-228/022)

Begarako bandaren bilakaerari buruz hitz egiten du, eta dantzak nola bukatzen ziren azaltzen du.

1.419. Oporrak Donostian (II): irlara barkuan (BER-228/026)

Donostian, irlara joateko barkua hartu zuteneko eguna kontatzen du.

1.420. Herria vs hiria (BER-228/027)

Herrian ohitura handia zegoen gauez irteteko, baina Donostian ez. Donostian, hala ere, herriko bizimodua egiten zuten. Dantzaleku batera joan ziren, eta dantzan nola egiten zuten eta nola ikasi zuten azaltzen du.

1.421. Teileria (BER-228/028)

Teileria asko joaten ziren. Hara noiz joaten ziren, eta zenbat denbora egoten ziren han azaltzen du.

1.422. Komunioko soinekoak (BER-228/031)

Amak josteko afizio handia zuen. Komunioko soinekoak ere josi zituen. Soinekoak deskribatzen du. Mutilentzako ere egiten zuen amak arropa. Ama jostun artetsua zen.

1.423. Amak arropa egiteko zuen trebetasuna (BER-228/032)

Askotan amak bi soineko berdin josten zituen. Mutilentzako ere egiten zituen arropa. Puntua ere egiten zuen. Puntua egiteko ideiak nondik ateratzen zituen azaltzen du. Ama jostun artetsua eta sukaldari ona zen.

1.424. Oporretan garia jotzera (BER-228/034)

Oporretan nora joaten ziren, eta zer lan egiten zituzten han. Trukean ogitartekoa eta ardoa ematen zizkieten. Anaia mareatu zeneko pasadizoa kontatzen du. Oporretara joaten ziren beste leku batzuk ere aipatzen ditu.

1.425. Komuniorako prestatzen (BER-230/013)

Ondo ikasten zuten eskolan. Doktrinara joateko egin behar zuten ibilbidea azaltzen du. Pozik joaten ziren.

1.426. Beste ikaskide bihurri baten abenturak (BER-230/014)

Beste ikaskide bati (Felix) buruzko abenturak. Poltsa etxean ahaztu zuen aitzakiarekin, goizean piper egiten zuen.

1.427. Errekadista lanetan ibiltzen zenekoa (BER-230/017)

Errekaduak egiten ibili zeneko kontuak azaltzen ditu. Joaten zen lekuetan olibak ematen zizkioten.

1.428. Garizuma San Kristobalen (BER-230/019)

Garizuma jai alaia izaten zen. Jende asko joaten zen. Gazteak "txikiletan" ibiltzen ziren, gaseosa edaten zuten bitartean. Neskek eta mutilek elkarrekin jolasten zuten.

1.429. San Juango baserriak (BER-246/002)

San Juan auzoko baserrien izenak esaten ditu.

1.430. San Juango baserriak (BER-246/003)

Basabe auzoko baserrien izenak esaten ditu.

1.431. Basalgoko baserriak (BER-246/004)

Basalgo auzoko baserrien izenak esaten ditu.

1.432. Angiozarko elizpean dagoen gurutzearen historia (BER-262/012)

Angiozarko elizpean dagoen gurutzearen historia.

1.433. Goimendiko baserriak (BER-265/002)

Gontzarrigoikoan jaio zen, Angiozarren, Goimendi auzoan. 12 baserri zeuden lehen. Desagertutakoak: Paigorri, Zuloeta Gainekoa, eta Gongeta baserrietako bat.

1.434. Eskolara Angiozarren (BER-265/003)

Eskolara Angiozarren joan zen. Zazpi-zortzi urterekin hasi zen. Katalina zen maistra. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Erdaraz ikasten zuten, baina hitz egin euskaraz. 14 urterekin lanean hasten ziren.

1.435. Umetako jolasak (BER-265/005)

Umetako jolasak: tortoloxak, sokasaltoan, harrapaketan.

1.436. Bueltan, etxea hutsik (BER-265/010)

Etxea hutsik topatu zuten bueltan. Koltxoirik ere ez zegoen. Kristalak apurtuta eta zuloak paretan. Senarra izango zuena Teruelen ibili zen soldadu, luzarotan; sukaldari ibili zen.

1.437. San Migel ermitako dantzak (BER-265/013)

Ezpaineko soinua jotzen zuten San Migel ermitan. Dantza modukoak egiten zituzten, auzokoentzat. Luisek jotzen zuen soinua, Asentziara bidekoa zen. Igandero. Zulueta Azpikoan jokoan egiten zuten, 31n, eta mutilek boloetan. Garizuman, berriz, txirikilan.

1.438. Mendiz mendi (BER-265/015)

Mendiak garbi zeuden, eta oinez joaten ziren beste auzoetara. Pagarik ez zegoen. Elorrioko feriara oinez joaten ziren. San Bartolomera eta Asentziara. Elgetara, San Roketan. Madariak erosten zituzten. Gerra ostean aldatu egin ziren gauzak.

1.439. Kapritxorik ez (BER-265/016)

Gose garaian ezkondu zen, 1943an. Kapritxorik ez zuten. Esnea, artoa eta morokila, babarrunak eta porru-patatak. Zeukatenarekin gustura. Ezkondu zirenean, hautsa sartzen zen sabaitik, eta estali egin zuten.

1.440. Gerra ostean ere neskame (BER-265/018)

Bergaran neskame egon zen hiru urtean, gerra ostean, ezkondu aurretik. Novilla oihal lantegikoa zen ugazaba, Artetxe emaztea. Mutikoari, Gonzalori, eskolara laguntzen zion. Bihurria zen mutikoa.

1.441. Eskolarako bidea (BER-265/020)

Auzolanean garbitzen ziren bideak. Eskilarak, astobidea eta gurbibidea. Atsedenekua zegoen bidean. Ijitoen beldur egoten ziren, eskolara bidean. Zapian batuta eramaten zuten gazta eta txokolatea, sagarrak. Elizpean bazkaltzen zuten, jolastu ere bai. 50 bat neska-mutiko ziren.

1.442. Angiozar nola aldatu den (BER-265/022)

Angiozar lehen nolakoa zen azaltzen du. Otxoana hutsik dago. Plazan ere baserria zegoen. Orain askoz etxe gehiago dago.

1.443. Garia eraman, errazionamendua ekarri (BER-265/026)

Gariaren zati bat entregatu behar izaten zuten, gerra ostean. Bergarara eramaten zuten; astoarekin joaten ziren, eta errazionamendua ekartzen zuten: olioia, azukrea, garbantzua.

1.444. Senarraren umetako kontuak (BER-265/028)

Senarrari buruzko bi pasadizo kontatzen ditu, mutikoa zenekoak. Arrasatera joaten ziren esnearekin, egunero, Kanpazartik bueltan. Esnari ura botatzen zioten, diru gehiago ateratzeko. Behin, asto gainean lokartu zen, eta agure bat airean bota zuen.

1.445. Senarra, labeak konpontzen (BER-265/029)

Kalera ezkondu zirenean, ganadurik ez zuten. Senarrak Altos Hornosen egiten zuen lana. Etxean egiten zituen lanak berak, eta senarra labeak konpontzen ibiltzen zen; baserrietan ere ibiltzen zen lanean.

1.446. Muga-mugan (BER-265/032)

Esnea nola eramaten zuten, Arrasatera. Errazionamendu bila Bergarara joaten ziren. Mugak.

1.447. Ur bila (BER-265/034)

Argirik ez zuten izan etxean 14 urte arte, eta urik ere ez. Edarria eta sorkia, ura buru gainean ekartzeko. Barrika gurdian jartzen zuten, ura etxera eramateko.

1.448. Arropa garbitzen (BER-265/035)

Arropak etxean jabontzen ziren, eta gero astoarekin iturrira joaten ziren, eta hango askan akklaritzen zuten. Barrika batean egosten zen arropa. Sutarako hautsa eta ur beroa.

1.449. Pospoloak probatu behar (BER-265/038)

Tabernan txokolatea, pospoloak saltzen zituzten. Pospolo bila bidali zuten, eta sasiari su eman zioten, probatzeko. Bideak, ira sailak. Gaztaina zaharrear konfesatzen ziren, mutikoak abade moduan jarrita.

1.450. Txabilan haria egiten (BER-265/042)

Artilea eta galtzerdiak egiteko modua. Aitajaunak-eta garbitzen zuten artilea, eta txabilan egiten zuten haria. Pilota nola egiten zen, altura batera igota, haria zuzentzeko. Galtzak lau orratzekin egiten zituzten, gizonezkoentzat.

1.451. Oinetakoak (BER-265/043)

Oinetakoak. Narruzko abarkak erabiltzen zituzten etxean; gero etorri ziren gomazkoak. Kanean oinetakoak aldatzen zituzten, izeba baten etxean. Zapata berak zituzten, uda eta negu.

1.452. Txerria hiltzen zutenean (BER-265/049)

Txerria urtero hiltzen zuten, eta odolosteak eramaten zituzten inguruko baserrietara. Solomoa, urdaia, hirugiharra... aza orrian jarrita. Azukrea edo gozokiak ematen zizkieten.

1.453. Bergarara asto-banastan (BER-265/052)

Umetako kontuak. Bergarara Pazkoetan joaten ziren, aitajaunarekin, behorrea banastak jarrita. Txilinak eta intxarriak erosten zizkion traperoari aitajaunak.

1.454. Aretxabaletako Kakotegi baserrira neskame (BER-266/002)

Agerre baserrian jaio zen eta bertan bizi izan zen 11-12 urtera arte. Eskolan gutxi ibili zen, baserrian lana egin beharra egoten zen eta. Gero, amaren jaiotetxea zen Aretxabaletako Larrino auzoko Kakotegi baserrira joan zen eta han neskame moduan ibili ei zen lanean. Bertako umeak eskolara joaten ziren bitartean, berak 60 litro esne banatu behar.

1.455. Araozko eskola; maisu-maistrak eta zigorrak (BER-266/003)

Gutxi joan zen eskolara, baserrian lana egin beharra egoten zelako. Hala ere, tarteka joaten zen Araozko eskolara. Aurora izeneko maistra du gogoan. Euskalduna izan arren, dena gaztelaniaz egiten zien. Euskaraz hitz eginez gero, "hablen en cristiano" esaten zien. Berak zer erantzuten zion. Mutilen maisuak hatz puntetan jotzen zituen makilarekin, zigor moduan. Neskei liburuak ipintzen zizkieten buru gainean eta eskuetan, zigor moduan.

1.456. Aita Kataberako meatzeetan egindako lanaren ondorioz hil zen (BER-266/006)

Aitak Kataberako meatzeetan lan egin zuen eta gaixotu egin zen horren ondorioz. 67 urterekin hil zen, ia ordura arte meatzeetan lanean jardun ostean. Aita nolakoa zen fisikoki. Garai hartan Dominga Bergaran zebilen lanean, neskame, Oregirenean.

1.457. Aretxabaletako Kakotegi baserrian neskame (BER-266/008)

Neska koskorretan Aretxabaletako Kakotegi baserrira joan zen neskame. Etxeko lanak egiteaz gain, esnea partitzen zuen Aretxabaletan. Astoan eramaten zituen marmitak eta han etxerik etxe esnea banatu. Bueltan, "Kukuena" dendan etxerako behar ziren gauzak erosten zituen.

1.458. Gerraostean gosea; etxeko garia eta artoa entregatu beharra (BER-266/009)

Gerraostean gose handia pasa ei zuten Araotzen. Baserrian beti egoten zen jatekoa, baina garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren. Behin aitak harriak sartu ei zituen zakuan, baina konturatu egin ziren eta Dominga joan behar izan zen gero, falta zen garia eramatera. Araotzen biltzen zituzten elikagaiak.

1.459. Jende asko Araozko errotara gaeuz, estraperloan (BER-266/012)

Araozko errotara jende asko joaten zen estraperloan, gaeuz. Domingak gogoan du asto ilarak egoten zirela. Errotaren arduraduna Antonio Uriarte zen eta langile bat ere bazuen.

1.460. Ahuntzak zaintzen Barrikan (BER-266/017)

Aretxabaletan egon ostean, Barrikara (Bizkaia) joan zen izeba batengana, ahuntzak zaintzera. Hango pasadizoak kontatzen ditu. Ahuntz esnea edaten higuindu egin omen zen. Urte eta erdi egin zituen han.

1.461. Barrikan abade-etxean, ahuntzak zaintzera joanda (BER-266/019)

Ahuntzak zaintzen egon zen Barrikan, izeba ezkongabe batengana joanda. Izeba abadearen "amakasia" zen eta abade-etxean bizi ziren. Bederatzi ahuntz eta akerra zeuzkan bere kargu. Antxumeak asko gustatzen zitzaizkion.

1.462. Bergararik Araotzera joateko bideak (BER-266/022)

Bergaran neskame egon zenean, Araotzera itzultzen zen tarteka. Batzuetan trenez Oñatiraino eta handik ahal zen moduan. Bestela, aste barruan Garai lantegiko langileen autobusean. Taxian ere bai inoiz.

1.463. Errazionamenduko olioak saldu eta ogia erosi (BER-266/023)

Errazionamenduan hamar litro olio hartzen zituzten. Olio hura saldu egiten zuten eta diru harekin ogi zuria erosten zuten. Errazionamenduan zer elikagai hartzen zituzten.

1.464. Bera jaio aurretik etxean gertatutako pasadizo tristea (BER-266/027)

Araotzen etxeko egoera oso gogorra zen. Aitak edan egiten zuen eta jenio txarreko jartzen zen. Bera jaio aurretik etxean gertatutako pasadizo bat kontatzen du. Aitak aulki batekin jo omen zuen ama burutik behera eta ospitalean pasa zituen egun batzuk. Domingaren anaia zaharragoa, artean bularreko umea, Kakotegi baserrira eramane zuten amandarengana, ama sendatu bitartean.

1.465. Baserrian aitarekin bizitako egoera gogorak (BER-266/028)

Aitak edan egiten zuen eta oso edan txarra zuen, gainera. Egoera gogorak bizi izan zituen umetan. Behin belarretan zebiltzala, amarengana omen zihoan aita sardearekin. Dominga erdian jarri zen eta ama jotzen bazuen, berak segarekin emango ziola esan zion aitari. Euren etxearen nagusiak aldamenean zebiltzan belarretan eta hango gizonak babestu zituen.

1.466. Araotzen erreka ondoko garbitokira, arropak garbitzera (BER-266/032)

Araozko Agerre baserrian ez zuten urik Dominga umea zenean. Arropak garbitzeko, etxean xaboia eman eta erreka ondoan zegoen garbitokira joaten ziren arropak astintzera. Izarak nola garbitzen zituzten. Etxetik gertu zeukaten. Oñatin "puxetia" esaten da eta Bergaran "lixibia". Edateko ura beheko erreka iturritik ekartzen zuten.

1.467. Ahizpa zaharrenak umeak nola garbitzen zituen (BER-266/033)

Ahizpa zaharrenak, Margarik, ume guztiak garbitzen zituen bi ontzi handitan ura ipinita. Amak beste lan batzuk izaten zituen eta ahizpa zaharrenak egin behar amak egin ezin zituen lanak.

1.468. Gasteizko eskolan izandako bizimodua (BER-269/006)

Gasteizen egon zenean, barneko ikaslea izan zen. Gerran hildako militarren umeak eta Espainia osoko ikasleak zeuden han. Beren artean ondo konpontzen ziren, nahiz eta liskarren bat egon. Eskolak zer egitura zuen azaltzen du. Gasteizen egon zen bitartean, noizean behin joaten zen etxera bisitan autobusez, edo gurasoak etortzen zitzaizkion bisitan berari.

1.469. Etxean buruhaustek janariarekin (BER-269/007)

Etxera itzuli zenean, gosea zegoen oro har. Baina beraiek baserrian ez zuten goserik nabaritu, baserrian landutako janariarekin nahikoa baitzuten: ganadua eta baratzea zituzten. Ama plazara joaten zen baratzekeko produktuekin. Esnetan ama eta izeba ibiltzen ziren.

1.470. Etxeko idiak (BER-269/008)

Zer abere zituzten aipatzen du. Idiak etxeko lanetarako erabiltzen zituzten, eta nolakoak izaten ziren aipatzen du.

1.471. Egurra nola lantzen zuten (BER-269/009)

Egurra nola lantzen zuten azaltzen du, gero saltzeko.

1.472. Ikazkintza (BER-269/010)

Bere aita eta aitajauna ibili ziren ikazkintzan, baina bera ez. Ikaztegiei buruz hitz egiten du.

1.473. Ardiak (BER-269/011)

Ardiak ere bazituzten. Eta haiekin lortutako produktuak amak plazan saltzen zituen. Ardiak zer zelaitan izaten zituzten azaltzen du.

1.474. Basoak (BER-269/012)

Basoak eta zelaiak nola lantzen zituzten azaltzen du.

1.475. Ura baserrian (BER-269/013)

Txikia zenean, baserrian bazegoen ura, komunean izan ezik.

1.476. Argindarra baserrian (BER-269/014)

Argindarra ere bazeukaten, eta nondik zetorren azaltzen du. Argindarraren zentrala zegoen, eta gaeuz bakarrik ematen zen argindarra. Zentraleko ardurak inguruko baserrien artean nola banatzen zituzten azaltzen du.

1.477. Auzolanak (BER-269/015)

Uraren eta argindarraren instalazioak auzolanean egin zituzten. Zer auzolan egiten zituzten aipatzen du: adibidez, gari-jotzea. Oso ondo pasatzen zuten egun horietan.

1.478. Garia soroetatik kanpo (BER-269/016)

Garia soroetatik zergatik kendu zen azaltzen du. Beraiek erabiltzen zuten errotak nola funtzionatzen zuten kontatzen du.

1.479. Baserriko menua (BER-269/017)

Bere etxeko ohiko jatordua babak eta txerrikoa izaten ziren. Ardia ere jaten zuten. Eta afaltzeko, porrusalda edo porru-patatak jaten zituzten askotan. Gaztainak eta taloak ere jaten zituzten.

1.480. Aisialdia lagunekin (BER-269/020)

Gaztetan zer lagun zituen, non ibiltzen ziren kontatzen du. Futbolean jokatzeko zuten, Bergarara erromeriara joaten ziren...

1.481. Gidabaimena Eibarren (BER-269/024)

Motorrerako gidabaimena Eibarren atera zuen.

1.482. Gizon-probak (BER-269/028)

Gizon-probak zer ziren eta nola egiten ziren azaltzen du. Proba horietan ibiltzen zen gizon bat aipatzen du.

1.483. Gerra osteko gose garaiko kontuak (BER-269/029)

Gose garaia izan zenean, beraiek ez zuten goserik pasa. Errazionamenduko ogia nolakoa izaten zen, eta harekin zer egiten zuten aipatzen du. Garai hartan, errotak itxita egoten ziren denboraldi batzuetan. Baina beti aurkitzen zuten tranpa egiteko modua. Gerora, irin-fabrikara joaten ziren, gariaren truke irina lortzera.

1.484. San Antonio auzokoen elkartasuna (BER-270/006)

San Antonion elkarri laguntzen zioten familiek. Auzokoen elkartasuna.

1.485. Gerra garaian, sotoan (BER-270/010)

Parrako berri bazuen amak, ezagutzen zituen sotoak. Han ezkutatzen ziren gerra garaian. Bost mutil eta bi neska ziren. Batzuk soldadu egon ziren. Ignacio anaia Afrikan ere egon zen.

1.486. Baratzea eta oiloak (BER-270/014)

Gerra denboran, inor ez zen baratzean ibiltzen. Porruak, azak, lekak... Landareak, koadroak. Oiloak ere bazituzten, txabola batean.

1.487. Babarruna, zaku erdi (BER-270/018)

Dendak zabalik zeuden gerra garaian. Urdaia, ogia... dendatik ekartzen ziren. Babarrunak zaku erdi izaten zuten, eta azukrea beste erdi. Amak beti sobran ekartzen zuen. Danbolinean erretzen zuten kafea.

1.488. Bergarako plazako dantzak (BER-270/032)

Begarako plazan begira egoten ziren, jendeak nola egiten zuen dantza. Beraiek ez zuten mutilekin dantza egiten.

1.489. Oihalak egiteko makinaren funtzionamendua (BER-270/034)

Makinak lantegian oihalak nola egiten zituen aipatzen du. Kanilak jartzen zizkieten, hariarekin, eta makinak egiten zituen oihalak. Zaindu egiten zuten. Buelta emateko geratu, eta zuzendu. Metro asko egiten ziren. Pieza osoa eramaten zuten batzuek.

1.490. Itsasoa lehen aldiz (BER-270/036)

Itsasoa oso berandu ikusi zuen lehen aldiz. Gertuen Deba zuten. Trenean joaten ziren, lagun kuadrillan. Lau lagun ziren, eta beste hirurak moja joan ziren.

1.491. Gerraren etenaren ostean, ume asko eskoletan (BER-271/002)

Gerra zibila hasi zenean eskola guztiak itxi ziren. Gero, berriz eskolak martxan hasi zirenean, ume asko elkartu ziren eskoletan. 30 ume inguru egoten ziren irakasle bakoitzarekin. Herriko eskolan ibili zen bera. Lau gela zeuden, adinaren arabera sailkatuta. Neska gehienak mojekin ibiltzen ziren. Gerora, dominikoen eskola ipini zuten eta han ibili zen Jose Mari.

1.492. Elurra egiten zuenean, ezin eskolara joan (BER-271/004)

Aritzeta auzo txikia da eta ez zegoen eskolarik auzoan. Oinez joaten ziren herriko eskolara. Eguerdian etxera itzultzen ziren bazkaltzeko, eta arratsaldean ordu bietarako berriz eskolara. Elurra egiten zuenean, ezin izaten ziren eskolara joan.

1.493. Soldadu frankistak Aritzetako San Migelgo ermitan (BER-271/008)

Gerra garaiko oroitzapenak. San Migelgo ermitan dozena bat soldadu frankista egoten ei ziren. Elizpean lo egiten zuten. Euren baserriko astoa hartuta, jatekoa banatzen zuten Bergarako intendentziatik. Hegazkinen bat zetorrenean, morse bidez seinaleak bidaltzen zituzten herrira. Batzuk euskaldunak ziren. Haiekin izan zuten harremana. Jose Mariren aita erretzaile amorratua omen zen eta haiek tabako nahikoa izaten zuten, aita gustura.

1.494. Ira nola garraiatzen zuten basotik (BER-271/009)

Baserrian bost behi inguru izaten zituzten eta baita idi-parea ere. Idiak kendu egin zituzten, lana gutxitu zenean. Basotik egurra ekartzeko edo iratarako erabiltzen zituzten idiak. Segarekin ebakitzen zuten ira. Basotik gurdiaekin eta lerarekin nola garraiatzen zuten. Hogeitaka bidaia egiten zituzten. Gero, metatu egiten zen eta, ahal zena, barrura sartu, "iraleku"ra.

1.495. Antzuolako Errotabarrira bidean Goardia Zibilekin topo (BER-271/014)

Gerraostean errotak prezintatu egin zituzten. Jose Mari astoarekin Antzuolaraino joan izan zen estraperloan garia ehotzera, Errotabarrira. Behin

Guardia Zibilekin topo egin zuenean pasa zituen estutasunak. Berak alde egin nahi zuen, baina astoak errotarako bidea ikasita zeukan! Gero errotariak esan zion Guardia Zibilek errotan nahikoa ogi jaten zutela eta ez zeukala kezkatu beharrik harrapatuta ere.

1.496. Aretxabaletako marianistetara lanera, sukaldari laguntzaile moduan (BER-271/015)

14 urterekin Aretxabaletara joan zen marianistetara, sukaldari laguntzaile moduan. Trukean egunean bi orduko eskola ematen zioten. Sei mutil egon ziren bertan lanean; horietatik lau ganaduarekin, marianistek ganadu asko zuten eta. 140 ikasle inguru zeuden garai hartan. 15 hilabete egin zituen han.

1.497. Sukaldari laguntzailearen lana Aretxabaletako marianistetan (BER-271/016)

Aretxabaletako marianistetan egon zen lanean sukaldari laguntzaile moduan. Sua ikatzarekin berotzen zuten. Lapiko handi batzuetan jartzen zuten jatekoa, izan ere 140 ikasle inguru zeuden sasoi hartan. Goizean sukaldaria mezara joaten zen eta Jose Marik berotzen zuen gosaritarako esnea ikasleentzat. Ontzi handietan eramaten zuten gero jangelara. Bazkaltzeko lekaleak eta arraina. Berak garbitzen zituen arrainak.

1.498. Ontzien garbiketa Aretxabaletako marianistetan (BER-271/018)

Aretxabaletako marianistetan sukaldari laguntzaile lanean jardun zuen. Sukaldeko ontzi handiak berak garbitzen zituen, baina ontzi txikiak ikasleek garbitzen zituzten. Gosaria ontzi handietan eramaten zieten ikasleei, baina gero bakoitzak bere katilua izaten zuen. Bertan lanean zegoen beste mutil batek ogia banatzen zien. Ontziak garbitzeko aparteko leku bat zuten. Ur beroa ere bazuten.

1.499. Ikatzairen indarra suarentzat eta berogailuarentzat (BER-271/019)

Aretxabaletako marianistetan bazuten berogailua, ikatzarekin berotzen zena. Aldiko ikatza ekartzen zuten eta "ikatz-tokian" gordeta edukitzen zuten. Motorrarekin zebilen haize-emaile bat ere bazuten, sua bizitzeko. Izan ere, goizean txapa hotza egoten zen. 15 hilabete egin zituen Aretxabaletako marianistekin.

1.500. Juanito Irizarren lantegian, puntapaxak egiten (BER-271/021)

Fabrikari egin zuen lehenengo lana puntapaxak egiten izan zen, Juanito Irizarren lantegian. Lantegi txiki bat zen. Soldadutza egin arte lan egin zuen bertan. Bergaran ia ate guztietan egiten ei ziren puntapaxak.

1.501. Puntapax lantegiak Bergarako atari guztietan (BER-271/023)

Bergaran iltzei "puntapaitz" deitzen zioten Jose Mariren aurrekoek. Sasoi batean atari guztietan egiten ei ziren puntapaxak eta ondo irabazten omen zen, gainera. Puntapaxak paketatu eta nora bideratzen zituzten.

1.502. Puntapaxak nola egiten zituzten (BER-271/025)

Puntapaxak nola egiten zituzten. Alanbre biribilkiak ekartzen zituzten eta alanbre hura tiratuta egiten ziren puntapaxak. Eskeraren arabera, puntapax luzeagoak, laburragoak, lodiagoak edo meheagoak... Bukaeran, puntapaxak leuntzeko, danbor batean sartzen zituzten larru zatiekin. Prozesuaren inguruko azalpen zehatzak ematen ditu. Obretarako erabiltzen diren puntapax gogorrek beste material batekin eginak izaten ziren. Beraiek puntapax normalak egiten zituzten.

1.503. Lehortegatik argindar murrizketa lantegian (BER-271/026)

Juanito Irizarren lantegian lau langile inguru ibiltzen ziren puntapaxak egiten. Sasoi batean argindarrarekin txarto ibili ziren, lehortea egon zelako. Murrizketak zeudenez, erreleboetan lan egiten zuten, gauez ere indarra aprobeatzeko. Lantegia non zegoen.

1.504. Ricardo Murilloren garaje lanetan (BER-271/027)

Soldadutza egin ostean, Ricardo Murillo aragoiarraren garaje lanetan hasi zen lanean, autoak eta kamioiak konpontzen. Orduko kotxe eta kamioi markak: Pegaso, GMC... Hasieran ez zuten autoak konpontzeko zulorik ere eta azpian sartuta ibiltzen ziren, ahal zen moduan. Cruz Orbe Madrilera bueltara ibiltzen zen kamioiarekin eta sarri joaten zen euren tailerrera.

1.505. Murillo garajearen aurreko oihal-lantegietan Citroen kotxeak (BER-271/028)

Murillo garajea non zegoen. Aurrealdean bi oihalgintza-lantegi zeuden eta Citroen markako kotxeak zituzten, txofer eta guzti. Nolako kotxeak ziren. Arantzabal lantegiko nagusia pilota zalea zen eta txoferrarekin Donostiara ere joaten zen kotxez, partidak ikustera. "Cerrajera"n ere Citroen markako kotxeak izaten zituzten injineruek.

1.506. Teilerian lanean; mantentze-lanetan, kamioiarekin eta hondeatzailearekin (BER-271/029)

Garajeko lana utzi eta gero teilerian ibili zen lanean. Mantentze-lanak egiten zituen, esaterako, sopletearekin apalategiak prestatu. Kamioiarekin ere ibiltzen zen teila garraioan. Garai hartan etxegintzan lan asko zegoen eta hondeatzaile txiki bat ekarri ei zuten teileriakoek Frantziatik. Baina ez zuten asmatzen ongi erabiltzen eta Jose Mariri etorri zitzaion hura maneiatzeko eskaera.

1.507. Teileriako hondeatzailearekin lanean (BER-271/032)

Teileriako hondeatzailearekin etxegintzan ibili zen lanean. Obretan buztin-lur ona ateratzen bazen, teila-lantegirako jasotzen zuten.

1.508. Altzairu-fabrikako eraikin berria egiteko lanetan (BER-271/033)

Altzairu-fabrikako eraikin berria egiteko lanetan jardun zuen. Ura eta argindarra sartzeko nolako zuloa egin zuen. Hondar-lurra omen zegoen eta dena erori egiten zela dio. Lurrari eusteko nola lan egin behar izan zuten. Teileriako makinarekin jardun zuen berak lanean.

1.509. "Cerrajera"ko eraikina egiteko lanak (BER-271/034)

"Cerrajera"ko lantegiaren eraikuntzan ibili zen. Agroman enpresak izan zuen obraren ardura. Makina handi bat ekarri zuten, baina hondar-lurra zegoenez, makina lurperatu egin zitzairen eta garabi bat ekarri behar izan zuten, hura ateratzeko. Orduan, "Cerrajera"ko injinerua teileria joan zitzairen, laguntza eske. Jose Marik tarteka teilerian jarduten zuen, mantentze-lanetan, eta tarteka makinarekin obretan.

1.510. Zabalotegi kaleko etxe altuaren eraikuntzan (BER-271/035)

Zabalotegi kaleko eraikin altua egiteko lanetan jardun zuen Jose Marik, hondeamakinarekin. Orduko lanen inguruko kontuak. Denbora asko egin zuen han lanean.

1.511. Hondeamakina desberdinen inguruko azalpenak (BER-271/036)

Hondeamakina desberdinen arteko aldea: "enpujekuak" eta "zanjadorak". Makina bakoitzaren ezaugarriak; bakoitzak nola egiten duen lan. "Zanjadorek" askoz ere kontsumo txikiagoa. Nolako motorra zeukaten.

1.512. 16 orduan lanean (BER-271/038)

Hondeamakinarekin lanean ibili zenean, batzuetan 16 ordu egiten zituzten lan. Lan handia zegoen eraikuntzan eta presa izaten zen lanak bukatzeko. Arreta eduki behar izaten zen makinarekin eta begiak beti adi, inguruan inor ez harrapatzeko.

1.513. San Kristobal auzoan kamioiarekin istripua (BER-271/039)

Teilerian lanean ibili ostean, kamioi bat erosi zuen, bere kontura lan egiteko. Behin egun osoan lanean jardun ostean, San Kristobal auzoko baserri batera joan zen gauez, bertakoak eskatu ziolako. Kamioiarekin atzeraka jotzen ari zela, bideak huts egin zion eta bueltaka joan zen kamioi eta guzti. Hiru hilabete egin zituen ospitalean. Horren ondorioz, kamioia utzi beharra izan zuen.

1.514. Zabala anaien eskopeta-lantegian, distira ateratzeko makinarekin (BER-271/040)

Kamioiarekin istripua izan eta gero, Zabala anaien eskopeta-lantegian hasi zen lanean. Eskopetei distira ateratzeko makina bat ekarri zuten eta makina harekin moldatu zitekeen norbait behar zuten. Distira ateratzeko makinaren inguruko azalpenak.

1.515. Zabala anaien eskopeta-lantegian, hiru makinaren kargu (BER-271/041)

1971n Zabala anaien eskopeta-lantegian hasi zen lanean. Pertsonako eskopeta bat egin behar zutela esaten zieten. Berak distira ateratzeko makinarekin lan egiten zuen eta, martxa hartu zuenean, bi makina jarri zizkieten. Gerora, eskopeta kanoiaren puntari distira ateratzeko beste makina bat ere ekarri zuten eta hura ere bere kargu utzi zioten. Makinaren eta lan horren inguruko azalpenak ematen ditu.

1.516. Elgetako neska(ar)ekin harremana nola hasi zen (BER-271/044)

Osintxu esaten ziotena "errekadista" lanean ibiltzen zen kamioiarekin eta furgonetarekin. Elgetako neska harekin jaisten ziren Bergarara eta horrela ezagutu zuen Juanita, bere emaztea. Musika-bandak amaitzen zuenean, furgoneta berehala irteten ei zen Elgetarantz eta neskek ez zuten izaten ezertarako astirik. Berak zirikatu egin zituen neska, kotxea zuela eta berak igoko zituela esanez eta haiek gustura. Hortik hasi zen beraien harremana.

1.517. Kamioiarekin istripua izan zueneko kontuak (BER-271/048)

Teileriko lana utzi zuenean, kamioiarekin bere kontura hasi zen lanean. Lan nahikoa izaten zuen beti, eraikuntza lanetan. Zorte txarra izan zuen istripuarekin. Nola gertatu zen. Kamioiarekin bueltaka erori zen eta mugitu ezinda geratu. "Zerrajeratik" etxera zihoazen gizon batzuek aurkitu zuten. Orduko kontuak.

1.518. Teileriko langileak eta lanak (BER-271/050)

Teilerian lanean jardun zuenean, kamioiarekin teilak garraiatzen ere ibiltzen zen. Markina aldera joaten omen zen asko. Teilerian zeuden langileak eta bakoitzak egiten zuen lana.

1.519. Umetan Mugertza kaleko etxera bizitzera (BER-277/002)

Aitaren gurasoak Mugertza kaleko etxe batean bizi ziren eta beraien ere hara joan ziren, bera umea zela. Hiru anai-arreba ziren ordurako eta laugarrena hantxe jaio zen. Etxe atzealdean ortua zuten. Lur-sail batzuk alokatu egiten zituzten. Oiloak ere bazituzten.

1.520. Del Barrio maisua; 1934an ikastolara (BER-277/003)

Umetan Del Barrio irakaslearekin ibili zen, Goiko Plazako eskolan. Hura kendu zutenetik irakasle asko izan omen zituen. Seminarioan ere ibili zen eta baita Ikastolan ere. 1934an sartu zen ikastolan eta gerra hasi arte ibili zen.

1.521. 40 ume inguru Bergarako gerra aurreko ikastolan (BER-277/006)

40 ume inguru ibili ziren gerra aurrean ikastolan Maria Oianguren irakaslearekin. Neska eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eta baita adin desberdinetako umeak ere. Berak 11 urte inguru zituen orduan. Gerraren etorrerarekin amaitu zen ikastola.

1.522. Bergara gehienez euskaraz egiten zen (BER-277/012)

Eskolan euskaraz egitearren ez zieten zigorrik jartzen. Ikastolan gaztelaniaz hitz egiteagatik ere ez. Lagunartean dena euskaraz egiten zuten. Euren auzo ingurua euskalduna zen; San Antonio aldean gaztelaniaz gehiago hitz egiten zen. Bergara gehienez euskaraz egiten zen.

1.523. Kanoikadak Elgetatik Bergarara (BER-277/015)

Gerra sasoiaren bonbak izan ziren Bergaran, frontea Elgeta eta Bergara artean egon zen eta. Gorriak Elgetan zeuden eta frankistak Bergaran, San Juanen.

Artilleria izugarria egon omen zen Bergaran. Elgetatik kanoikadak botatzen zituzten. Nolako obusak erabiltzen ziren. Zazpi hilabete inguru egin zituen fronteak Bergara inguruan. Orduan ez zuten goserik pasa, gosea gerraostean etorri zen.

1.524. 13 urterekin Oregi lantegian, oihalak paketatzen (BER-277/020)

13 urterekin Oregi oihal-lantegian hasi zen lanean. Biltegian lan egiten zuen, oihalak neurtu eta paketatzen. Garai hartan militarrentzako oihalak egiten zituzten, denak kaki kolorekoak. Gerora, "oihal urdinak" egiten zituzten; bi tela klase: mahoia (alkandorentzat) eta sarga (prakentzat).

1.525. Oregi oihal-lantegia: telak egin eta urdinez tindatu (BER-277/022)

Oihal-lantegian bi eratako oihalak egiten zituzten: mahoia (lisoa) eta sarga (marrak edo zerbait zuena). Tela zuriak egiten ziren eta gero urdinez tindatu. Oregi lantegian prozesu guztia egiten zuten. Blasek biltegian lan egiten zuen. Batzuetan, denbora sobera izaten zuenez, lantegikoei laguntzera joaten zen.

1.526. Oihala egiteko makina; laneko ordutegia (BER-277/023)

Oihala nola egiten zen. Haria makinan alde batetik bestera nola pasatzen zen. Gerora beste sistema batzuk etorri ziren. Zortzi ordu lan egiten zituzten normalean, lau goizetik eta lau arratsaldetik.

1.527. Oihalak paketatu eta trennez bidaltzen ziren (BER-277/024)

Oregi lantegiko biltegian oihalak paketatzen egiten zuen lan. 60 metro inguruko lau pieza edukitzen zituen oihal biribilki bakoitzak. Gero garraiolariak Goiko Estaziora eramaten zituen, trennez bidaltzeko.

1.528. Kamioiekin edo gurdiekin garraioan ibiltzen zirenak (BER-277/026)

Garraiolariak erabiltzen zituzten kamioiak. Gerra aurretik Berraondo eta Idarreta garraiolariak zeuden. Gurdiekin garraioan ibiltzen zirenak ere bazeuden: Zangitu `Soldaukua´ eta Oteiza `Moukua´. Ikatza edo irundegietarako artile edo kotoi fardoak ere garraiatzen zituzten.

1.529. Bergarako Aranes lantegian lanean (BER-277/030)

Trefilatzeko makinak egiten zituzten lantegian eta gauza gehiago ere bai. Aranes eta Mil lantegiak banatu egin ziren eta berak Aranes-en jarraitu zuen lanean. Lantegi berria egin zen. Patente italiarra zuten makinekin lan egiten zuten.

1.530. Mugertza inguruko kale-baserriak (BER-277/035)

Mugertza ingurua. Eurak bizi diren etxea eta inguruko beste batzuk kale-baserriak ziren. Inguruan zeuden beste baserri batzuk ("Mou" gainekoa, aldekoa eta azpikoa). "Soldaukua" eta "Arando". Inguruan zegoen lantegia. Nola aldatu den ingurua. Mutikotan garia jotzen laguntzen ibiltzen ziren "Soldaukua" kale-baserrian .

1.531. Ama egunkariak saltzen (BER-277/042)

1940 inguruan Artekalera joan ziren bizitzera. Amak egunkariak saltzeko ardura hartu zuen eta beraiek lagundu egiten zioten.

1.532. Bergara osoan egunkariak saltzen; plazako kioskoa (BER-277/044)

Amak egunkariak saltzeko ardura zuen eta hari laguntzen ibiltzen ziren. Trenean etortzen ziren egunkariak. Pakete batzuk hartu eta plazara joaten zen Blas. Han geratzen zen, arkupean, egunkariak saltzen. Gerora, kioskoa jarri zuten. Herri osoan zehar egunkariak saltzeko lan-banaketa nola egiten zuten. Urte askoan egin zuten lan hori. Bukaeran kotxearekin egiten zuen banaketa.

1.533. Trenean etortzen ziren egunkari paketeak (BER-277/046)

Egunkariak trenean etortzen ziren. Amak "Altos Hornos"era eramaten zuen pakete bat eta beraiek kalean saltzen zituzten. Blasek geltokitik plazara bizkarrean ekartzen zituen egunkarien bi pakete. Ama, bi arrebak eta bera ibiltzen ziren lan horretan. Hasieran ez ziren hainbeste egunkari izaten. Gerora, plazan saltzen zituztenean, bai.

1.534. Saltzen zituzten egunkarien izenak (BER-277/047)

Ze egunkari saltzen zituzten. Hasieran "La voz de España", "Gaceta", "Correo"... eta astelehenetan "Hoja oficial". Gehien saltzen zena "La voz de España" izan zen hasieretan, gerora "El Diario vasco". "Pensamiento navarro" izenekoa ere ekartzen zuten.

1.535. Mikeleteak eta ijitoak; zergak (BER-277/053)

Blasen osaba bat mikeletea zen. 5-6 mikelete egongo zirela orduan Bergaran dio. Mikeleteek probintzien mugetan ijitoak hartu eta beste probintzia batera pasatzen zituztela kontatzen du. Oinez joaten ziren. Orduan "arbitrioak" (ariela) egoten zirela dio. Orduko zergen inguruko kontuak. Udalak kobratzen zituen. Udaleko bi langile ibiltzen ei ziren zaldia eta karroarekin.

1.536. Ama tifusarekin gaixotuta (BER-277/056)

Ama tifusarekin kutsatu eta txarto egon zen. Elizakoak ere eman omen zizkieten. Ahizpak etortzen ziren hura zaintzera eta umeak etxetik kanpora ateratzen zituzten, ez kutsatzeko. Eskolan jakin omen zuen Blasek amari elizakoak eraman zizkiotela.

1.537. Umetan Kontxita Maiztegiren eskolan (BER-278/003)

Mariasun umetan bizi izan zen etxeak (pilotaleku aurrean zegoen) hiru solairu zituen eta behean nesken eskola zegoen. Adin desberdinetako neskak elkartzen ziren bertan. Kontxita Maiztegi bergararra zen irakaslea, oso irakasle ona eta zuzena. Eskolan gaztelaniaz ikasi izan zuen beti.

1.538. Jaunartze txikiaren eta handiaren arteko aldea (BER-278/005)

Santa Marina elizan egin zuen jaunartze txikia zazpi urterekin; jaunartze handia, berriz, 11 urterekin. Jaunartze txikian lehenengo aldiz hartzen zen Jauna eta errezoak ikasi egin behar izaten ziren ordurako. Bigarren jaunartzea konfirmazio antzekoa izaten zen.

1.539. Kontxita Maiztegik frantsesa irakatsi nahi (BER-278/009)

Eskolako lehenengo urteak Kontxita Maiztegi irakaslearekin egin zituen. Frantsesa irakatsi nahi izan zien, eskolako orduetatik kanpora, baina beraiek utzi egin zuten, nekeza zela eta.

1.540. Eskola eta doktrina gaztelaniaz; auzoetakoek euskaraz (BER-278/013)

Euskara ez duela eskola mailan ikasi dio, dena gaztelaniaz ikasten zutelako. Doktrina ematera abade bat etortzen zitzairen, baina hura ere gaztelaniaz ikasten zuten. Hala ere, gogoan du auzoetatik etortzen ziren ikasle batzuei doktrina euskaraz irakasten ziela irakasleak. Etxean errezoak euskaraz egiten zituzten.

1.541. Don Eliasengana, kontabilitatea ikastera (BER-278/016)

15 urterekin don Elias maisuarengana joan zen kontabilitatea ikastera, lanerako garrantzitsua zen eta. Hiru urte inguru egingo zituela dio. 19 urterekin lanean hasi zen.

1.542. Bergararik Zumarragara trenean (BER-278/018)

Sarri joaten zen Zumarragara, gurasoak ikustera, batez ere izebarekin. Autobusak ere bazeuden, baina normalean "Goiko trenea" hartzen zuten. Mendialdetik joaten zela azaltzen du. Antzuolan geltokia zuen.

1.543. Santa Marinatik Agorrosinera ortuak eta soroak (BER-278/023)

Santa Marinatik beherako lur-sailak ortuak ziren garai batean. Lur-sail batzuk baserritarrenak izango ziren, baina kaleko jendeak ere ortu txikiak izaten zituen bertan. Seminario inguruan ere ortuak zeuden. Etxe bakanak zeuden han eta hemen, baina gerora egin ziren kaleko eraikuntza asko.

1.544. Idarreta oihal-biltegia lanean (BER-278/026)

Idarreta oihal-biltegia hasi zen lanean 18 urterekin. Hasieran biltegia bakarrik zen. Gerora, euren lantegia Aramaioko "Textil Ibarra" oihal-lantegiarekin elkartu zen. Orduan, bertan egiten zuten ehuna eta baita tindatu ere. Oihalak inguruetan banatzen ziren, asko oihal-dendetara.

1.545. Inguruetako garraiolariak (BER-278/028)

`Azkar´ garraiolariak; oso ondo lan egiten ei zuten. Goierrri aldekoak zirela dio. Bertan ere bazeuden garraiolariak, "Transportes Garitano", esaterako. Ze ingurutara egiten zituen bidaiak. Beraiek material gehiena kamioietan bidaltzen zuten; trenez oso gutxi.

1.546. Garai bateko bi trenen ibilbideak (BER-278/029)

Garai bateko bi trenen ibilbideak; Gasteiztik zetorren trenea eta Zumarragatik zetorrena Mekolalden elkartzen ziren. Handik Maltzagara. Maltzagatik bueltan berriz Mekolalden banatzen ziren. "Tren vasco-navarro" a Gasteizera joaten zen, Leintz Gatzagatik zehar. Han beste tren bat egoten zen, Lizarraraino joaten zena.

1.547. Bergaran oihalgintza lantegi ugari (BER-278/032)

Idarreta oihal-biltegitik inguruko herrietara saltzen zuten gehienbat oihala: Arrasate, Oñati, Donostia, Eibar... Bergaran oihalgintza lantegi ugari zeuden: Algodonera, Mobilla (Antzuolarako errepidean), Lasagabaster, Aranzabal, Oregi, Narbaiza... Euren biltegian, hasiera batean, oihala erosi eta inguruko lantegiren batean tindatzen zuten, gero saltzeko. Gerora, Aramaioko "Textil Ibarra"rekin bat egin zuten eta bertan egiten zen dena.

1.548. Mendirako joerarik ez; hondartzara gehiago (BER-278/036)

Erromeriaren bat baldin bazegoen joaten ziren mendira, San Martzialera edo Elosura, adibidez. Baina bestela ez zuten mendirako joerarik. Udaran hondartzara joaten ziren; normalean Debara, baina baita Zarautzera ere. Debatik Ondarroara ere joaten ziren.

1.549. Musika Bergarako plazan; mutilak dantza eske (BER-278/038)

Ez ziren asko joaten inguruko herrietara jaietan. Bergaran plazan musika egoten zen. Neskak erdian ibiltzen ziren dantzan eta mutilak ertzetik etortzen ziren dantza eskatzera. Kalabazak ere ematen zituzten, dantza-eske zetorrena gustukoa ez bazen. Plazan mutilek ez zuten ordaindu behar izaten dantza egiteagatik, baina erromerietan bai. Mutilek etxera lagundu izan zioten, baina gero bakoitza bere bidetik joaten ziren. Ezkongabea da.

1.550. Bizimoduaren aldaketa; gaur egun erraztasun handiagoak (BER-278/041)

Bizimoduaren aldaketa. Gaur egun erraztasun handiagoak daude. Garai batean dena zen bekatu edo debekatuta zegoen, bestela. Ikasketetarako ere askoz erraztasun handiagoak daude gaur egun.

1.551. Eliza barruan familia bakoitzak bere hilarria (BER-278/043)

Garai batean eliza barruan hilarriak egoten ziren. Zenbakia izaten zuten eta familia bakoitzak berea zuen. Norbait hiltzen zenean, manta beltza jartzen zen. Domu Santuetan ere manta, kandelak eta argizaiola ipintzen ziren. Aldea egoten zen batzuetatik besteetara. Aberatsenek, aristokraziakoek adibidez, gurutze gorria edukitzen zuten manta gainean.

1.552. Erliijoak ez zituen hain estu hartu (BER-278/046)

Beraiek ez zuten izaten arazorik abadearekin mutilekin dantza egiteagatik. Estuegi hartu izan balituzte, ez lirakekeela elizara joango dio. Hala ere, leku batzuetan, itxuraz, estuago hartzen zuten jendea. Entzunda dauka Aizpurutxon Azkoitiko partean debekatuta zegoela dantza egitea Garizuma sasoiaren eta Bergarako partean, berriz, libre.

1.553. Bi zinema Bergaran; pelikulak koloreen arabera sailkatuta (BER-278/048)

Bi zinema zeuden Bergaran: "Novedades" eta "Accion" a, azken hau elizarena. Antzeko pelikulak botatzen zituzten bietan. Koloreen arabeko sailkapena izaten zuten. Gorria izaten zen okerrera.

1.554. Zinemara joateko, pelikularen koloreari begiratzen zioten (BER-278/050)

Zinemara joaten zirenean, pelikulak zuen koloreari begiratzen zioten. Zuria edo horia bazen, joaten ziren; berdea edo gorria izanez gero, ez.

1.555. Umetan Antzuolara; gerra sasoiari Heredian (BER-279/002)

Aita bergararra zuen eta ama Antzuolakoa. Bera Bergaran jaio zen, baina 3 urte zituela, Antzuolara joan ziren, amandarearen etxera, aita lan-kontuengatik denbora asko kanpoan pasatzen zuelako. Gerraren hasierak Heredian (Araba) harrapatu zuen.

1.556. Maristekin, marianistekin eta dominikoekin eskolan (BER-279/004)

Eskolan Antzuolan ibili zen, maristetan. Gero, Bergaran, lehenengo marianistekin ibili zen eta batxilerra seminarioan amaitu zuen dominikoekin. Ordena bakoitzeko irakasleen inguruko kontuak.

1.557. Eskola guztiak gaztelaniaz jaso zituen (BER-279/005)

Hiru urterekin hasi zen eskolan Antzuolan maistra batekin. Gero, lau urterekin, maristekin. Gerra sasoiari erre egin zuten komentua eta, horregatik, gerra ostean Bergaran jarraitu zituen ikasketak. Eskola guztiak gaztelaniaz jaso izan dituela dio, bai Antzuolan eta bai Bergaran. Hala ere, doktrina euskaraz. Garai hartan ba omen zen ikastola bat ere San Pedro kalean, Bergaran.

1.558. Antzuolako Batzokia; kalean euskaraz, eskolan gaztelaniaz (BER-279/007)

Bere aitona Antzuolako lehenengo alkate nazionalista izan zen. Antzuolako Batzokia. Txikia izan arren, jende asko biltzen zen, antzerkia ikusteko. Kalean denek euskaraz egin arren, eskolak gaztelaniaz izaten ziren. Maistrak doktrina bakarrik ematen zien euskaraz. Maistraren senarra, Ramirez, postari moduan etorri zen Arabatik.

1.559. Meza-laguntzaile Antzuolan eta Bergaran (BER-279/011)

Meza-laguntzaile moduan ibili zen mutikotan Antzuolan. Hiru pezeta ordaintzen zizkieten hilean. Gero, Bergaran, bost urtez lagundu zion osabari, goizeko seietaiko mezan. Garai hartan, auzoetako abadeak ere kontatuz gero, 25 abade inguru egongo zirela Bergaran dio. Antzuolan bost zeuden. Uzarragako parrokia, Antzuolako zaharrena, ezaguna izan da.

1.560. Elizako "langileak": abadeak, meza-laguntzaileak, sakristaua... (BER-279/014)

Meza-laguntzaile lanak Antzuolan: meza nagusia, bezperak, bederatziurrenak... Ordu asko sartzen zituzten. Parrokian hiru abade, hiru meza-laguntzaile eta sakristaua egoten ziren. Bergaran bi meza-laguntzaile, sakristaua, beata eta zazpi abade zeuden parrokian.

1.561. Aitak Argentinatik ekarritako urrezko kazola (BER-279/016)

Aita Argentinan egona zen, Buenos Aires ondoan. 1914 inguruan urrezko kazola bat erosi ei zuen 25.000 pezeta inguru ordainduta, anaiari oparitzeko. Kazola hura, osaba abadea hil zenean, elizaren esku geratu zen.

1.562. Hegazkin italiar bat jausi zen Antzuolan (BER-279/020)

Gerra sasoian hegazkin italiar bat erori zen Antzuolan. Anjel ordurako Antzuolan zegoen, Herediatik bueltatuta. 1937a izango zela dio. Hegazkinaren pieza bat gordeta eduki zuen. Italiar asko ibili zen Antzuolan, konpainia bat bertan egon zelako.

1.563. Bergaran herri eskolan, marianistetan eta dominikoetan (BER-279/023)

Hamar urte betetzeko zegoela itzuli zen Bergarara. Lehenengo, herriko eskolan ibili zen urtebetez. Gero marianistekin eta dominikoekin ibili zen. Batxilerra egitera dominikoengana joan zen bera, baina beste batzuk San Viatorrera joan ziren. Bi urtez-edo egon ziren San Viatorrekoak Bergaran.

1.564. 16 urterekin "Banco de Vizcaya"ra lanera (BER-279/027)

16 urterekin "Banco de Vizcaya"n hasi zen lanean. Bergaran sei hilabete egin zituen eta gero Soraluzen egon zen 24 urte ingurura arte. 300 pezeta irabazten zituen hasieran. 16 urterako mutil eginak zirela dio.

1.565. 16 urterekin Bergarako futbol taldean (BER-279/028)

16 urterekin Bergarako futbol taldean jokatzen zuen. Lehenengo aldiz jokatu zuenean, botei guata ipini behar izan omen zien puntan, handiegi zituelako. Ondik;atiko Aloñamendi taldean jokatzen zuen jokalaria bat aipatzen du.

1.566. Soraluzen 4.000 langile eta hiru banketxe 1944an (BER-279/029)

Anjel bankuan lanean hasi zenean, 1944an, dirua eskuan gutxi erabiltzen zen, baina soldatak ordaintzeko bai. Garai hartan Soraluzeko lantegietan 4.000 pertsona inguruk lan egiten zuten. Antzuolatik tren beteta joaten zen eta Bergaratik ere jende asko. Osintxun orduan ez zegoen lantegirik ia eta Bergaran ehungintzakoak bakarrik. Hiru banketxe zeuden Soraluzen: "Banco de Vizcaya", "Banco Guipuzcoano" eta "Banco San Sebasti´n". Aurrezki kutxa modukoa Aldundiak eramaten zuen.

1.567. Miloiak maletan hartuta, trenean lasai (BER-279/030)

Soraluzen 1944an 4.000 langile inguru zeudenez, diru asko mugitzen zuten bankuan. Donostiara joan-etorria egin izan zuen diru bila trenez eta batzuetan bi miloi edo gehiago ekartzen zituen maletan, lasai asko. Urtean 30 bat aldiz joaten zen. Banketxean hiru langile eta zuzendaria egoten ziren.

1.568. Langile arruntarentzat oso zaila dirua aurreztea (BER-279/031)

Berak bankuan lan egin zuen sasoiaren, bazegoen dirua aurrezten zuen jendea, baina ez asko. Komertzioren bat edo zerbait zuen jendea izaten zen. Langile arruntarentzat oso zaila zen aurreztea. Gainera, normalean seme-alaba asko izaten zituzten etxean mantentzeko.

1.569. Etxeen errenta soldataren araberakoa (BER-279/032)

Garai batean etxeen errenta bost ogerleko ordaintzen zela dio. Beraiek, 1938an etorri zirenean, 300 pezeta ordaintzen zuten. Irabazi ere halaxe egiten zen. Berak 300 pezeta irabazten zituen 16 urterekin, bankuan hasi zenean, eta 1953an, hango lana utzi zuenean, 1.200. Handik urte batzuetara Comesa lantegian sartu zenean zenbat irabazten zuen.

1.570. Soraluzeko Gallastegi lantegiak bizikleta ematen zien langileei (BER-279/033)

Garai batean jende asko joaten zen bizikletaz lanera. Soraluzeko Gallastegi lantegian bizikletak egiten zituzten eta langile berriren bat hasten zenean, bizikleta ematen zioten. Gero, haren balioa soldatatik kendu. Bizikleta ez zuten denek edukitzen.

1.571. Zapatagintza lantegiak Bergaran (BER-279/035)

Bergaran ehungintza lantegiak ziren nagusi, baina zapatagintzako 5 lantegi ere bazeuden gutxienez. Horietako bi lantegi komentuetarako oinetakoak egitera dedikatzen ei ziren. Zapatila zuriak egiten ziren asko.

1.572. Bergarako zapatagintza lantegiak (BER-279/037)

Begarako zapatagintza lantegiak: Lazpiur, Amenabar, Jauregi, Kintana, Larrañaga, Igartua... Ez ziren lantegi txikiak; Lazpiurrenean, esaterako, 30 langile inguru ibiliko zirela dio. Gehiena kanporako egiten zuten. Larrua Antzuolatik ekartzen zuten edo, bestela, Agurainen ere bazegoen beste fabrika bat.

1.573. Hainbat herritako zinema aretoetako arduradun (BER-279/040)

Begarako Irala eta Novedades zinemak berak zabaldu zituen. Oñatiko Santa Ana ere bai, 1985ean, eta baita Ordiziako antzokia ere. Zinema kontuetan lan egin zuen eta sasoi batean hainbat herritako aretoen ardura berak izan zuen.

1.574. Gaztelaniarekin txarto; ikasketekin jarraitzeko dirurik ez (BER-279/044)

Mutikotan Bergarara joan zenean, gaztelaniarekin ibiltzen zen txarto ahozko azterketetan. Errezoak ere euskaraz egiten zituen, gaztelaniaz ez zelako moldatzen. Izan ere, doktrina izan zen euskaraz ikasi zuen gauza bakarra. Marianistekin lehenengo maila eta gerokoak dominikoekin egin zituen. Ikasketa amaierako azterketa egitera Madrilera edo Zaragozara joan behar izaten zen eta, euren etxean dirurik ez zegoenez, lanean hasi behar. Unibertsitate mailako ikasketak egiten zituzten bakarrak dirua zuten familietakoak izaten ziren.

1.575. Irala zinema-aretoa; zerk egin die kalte zinemei? (BER-279/045)

1970ean ireki zuen Irala zinema Bergaran. 1975ean aurretik 10 urtez itxita egon zen Novedades aretoa ireki zuen. Irala irekitzean, aurretik Bergaran zegoen zinema-aretoa itxi egin zen, jende guztia Iralara joaten zelako. 1800 metroko pantaila zuen. Pena handia hartu zuen itxi zenean. Bere ustez kotxeek egin zioten kalte handia zinemari, jendea kanpora joaten hasi zelako. Beste faktore batzuk: bideoak, telebista...

1.576. Anai-arrebak Argentinara; Begoña baserrian (BER-281/002)

Begoña umea zela, amama, gurasoak eta lau-anai-arreba bizi ziren Oruesagasti baserrian. Ahizpa zaharrena Argentinara joan zen Mundu Gerra sasoiari. Handik pare bat urtera anaia joan zen. Anaia gazteena Begoña baino hamar urte gazteagoa zenez, berak lagundu behar izaten zion aitari baserriko lanetan.

1.577. Nazionalistak nagusi hauteskundeetan; Errepublika (BER-281/009)

Garai batean hiru alderdi egoten ziren hauteskundeetan: karlistak, errepublikanoak eta nazionalistak. Bergaran beti nazionalistek irabazten zutela dio Begoñak. Errepublika aldarrikatu zenean ez ei zuen ezer berezirik sumatu herrian. Inguruko beste herri batzuetan mugimendu gehiago egon zen.

1.578. Eskolan adin desberdinetako umeak batera (BER-281/010)

Eskolan denetarik ikasten zuten. Adin desberdinetako umeak elkarrekin egoten ziren, baina neskak eta mutilak aparte. Goiko plazako eskola nazionaletan mutilak bakarrik egoten ziren. Bere anaia Antzuolara joan zen maristetara. Gero, gerra sasoiari erre egin zuten maristen eskola.

1.579. Anaia eta osaba frontera derrigortuta (BER-281/013)

Gerra zibila hasi zenean, Begoñaren anaia militarizatuta zegoen Soralezeko kainoi fabrika hasi zen lanean, pentsaturik ez zutela frontera eramango. Baina hala ere eraman egin zuten. Osaba bat ere "kamillero" moduan eraman zuten frontera, bost ume txiki etxean lagata. Asko sufritu zutela dio.

1.580. Gerra sasoiari isuna; aita mehatxupean frontera (BER-281/014)

Gerran ez zuen seniderik galdu, baina asko sufritu zutela dio. Herritarren artean ikusiezinak sortu ziren. Aitari isuna jarri zioten eta diru guztiak kendu zizkieten. Eman zieten ordainagirian jartzen omen zuen borondatez eman zutela diru hura espainiar armadarentzat. Gainera, aita idiekin eta gurdiaekin mendira eramaten zuten, munizioa jasotzera, mehatxupean. Begoñak 13 urte zituen eta une gogorak bizi izan zituztela dio.

1.581. "Hablen en cristiano" esaten zieten kalean (BER-281/015)

Gerra sasoiaren, kalean euskaraz hitz eginez gero "hablen en cristiano" esaten zieten. Begoñak bazekien gaztelaniaz, eskolan ikasi zuelako, baina etxean dena euskaraz egiten zuten eta lagun askorekin ere ohitura hori zuen.

1.582. Baserriko lanen banaketa (BER-281/019)

Begoñaren gazte denboran etxean egun arrunt bat nolakoa izaten zen eta zer lan egiten zituzten. Sasoiaren arabera, lan desberdinak. Ganadua zuten etxean. Behia jezten hasi zen batean zer gertatu zitzaion. Esnea partitzen ibiltzen zen.

1.583. Kapoiak, etxearen errenta ordaintzeko beharrezkoak (BER-281/020)

Beti izan dira errenteroak. Gabon inguruan ordaintzen zen errenta garai batean: garia eta kapoi pareak. Gerora, gariaren balioa dirutan eman behar izaten zuten. Amak zikiratzen zituen oilaskoak. Ez zen erraza izaten, bizirik eraman behar izaten ziren eta. Behin kapoiak lapurtu zituzten txabolatik eta kapoi bakarra geratu zitzaion. Aita etxejabeengana kapoi harekin joan zeneko kontuak.

1.584. Etxejabeekin harremana (BER-281/021)

Etxejabeek ez zuten konponketarik egiten baserrian. Dena euren poltsikotik ordaindu behar. Irizartarrak ziren etxejabeak. 300 baserri inguru izango zituztela esaten zuten. Orain haietako baten semea da euren baserriaren jabea. Gerra sasoiaren, gariaren eta kapoiezen gain, baba ere eskatzen ei zuten eta baita kapoiei emateko artoa ere (kapoiak bizirik eramaten ziren eta).

1.585. Gerratean senar-emazte batzuk eta haien laguntzailea etxean (BER-281/024)

Gerra sasoiaren kanoiak ipini zituzten euren etxetik gertu. Senar-emazte batzuk eta haien laguntzailea etxean hartzera behartu zituzten. Gizona, Emilio izenekoa, kapitaina edo sarjentua zela uste du. Haien inguruko kontuak. Laguntzailea oso desatsegina omen zen. Denbora dezente pasa zuten euren etxean. Azkenean, gizona ondo portatu zen eurekin eta, arazorik baldin bazuten, berarengana jotzeko esan zien.

1.586. Gerraostean, garrastutako artoak (BER-281/026)

Gerraostean miseria hasi zen. Arto ustelak eta txerrikeriak janarazi zituztela dio. Ematen zieten artoa normalean garrastuta egoten ei zen eta txakurrak ere ez zuen nahi. Hala ere, beraiek ez zuten goserik pasa.

1.587. Garai batean txanketean jotzen zuten garia (BER-281/033)

Garia-jotzea auzolanean egiten zen eta baita ebakitzea ere. Gogoan du gaztetxoa zenean txanketean jotzen zutela garia. Nola egiten zen. Orduan, "zenbat meta hainbat egun" behar izaten omen ziren eta bakoitzak bere garia jotzen zuen. Gero, garia jotzeko makinarekin hasi zirenean, auzokoak elkartzen ziren eta arratsalde batean jotzen zen gari guztia.

1.588. San Juango eskola; elurra zenean, lapikoa etxetik (BER-283/008)

Eskolara joaten zirenean, etxera etortzen ziren bazkaltzera normalean. San Juango eskolan zebiltzanean, elurra egiten bazuen, etxetik eramaten zuten lapikoa eta bertan jaten zuten. Inguruetako umeak batzen ziren, adin desberdinetakoak; 30 inguru ibiliko ziren elkarrekin.

1.589. Olatzagutiko artzaina negua pasatzen Ziarretan (BER-283/013)

Ardientzat orbela ekartzen zuten. Neguan Olatzagutiko artzain bat etortzen zen bere bi semeekin eta eurenengan geratzen ziren lotan bi hilabete inguruan. Ehun arditik gorako artaldea zuten. Oinez etortzen ziren Olatzagutitik, Brinkolan geldialdia eginda. Haiek etortzeari utzi ziotenean, euren Ziordiako iloba bat etorri zen urte askoan.

1.590. Olatzagutiko artzaina urtarriletik martxora Bergaran (BER-283/018)

Olatzagutitik artzain bat etortzen zen euren etxera, negu partean. Urtarrilean etortzen ziren; Ondartza baserrian egoten ziren lehenengo eta San Blasetarako Ziarretara joaten ziren. Etxean ez zuten asko laguntzen, euren lana izaten zutelako ardiak zaintzen. Gaztak ere bertan egiten zituzten. Martxora arte egoten ziren. Ardiak egunez kanpoan ibiltzen ziren eta gauean pentsua ematen zitzaizkien, barrura sartutakoan. Ardi askak.

1.591. Nafarroatik etortzen ziren artzainekin harremana (BER-283/019)

Bere gurasoen sasoiaren ere etortzen omen ziren kanpoko artzainak negua pasatzera. Ez daki zer eratako tratua egiten zen artzainekin. Eguneko gastua ordaindu egiten zuten. Adibidez, gogoan du babarruna edo ogia erosi egiten zizkietela eta baita esnea ere, harik eta ardi-esnea hasi arte. Beraiek gatzatua eta gazta izaten zituzten trukean.

1.592. Gaztak eta ardi-esnea kalean saltzen zituzten (BER-283/020)

Nafarroatik etortzen ziren artzainak behorarekin kalerik kale ibiltzen ziren gaztak saltzen. Ardi-esnea beraiek saltzen zieten behi-esnearekin batera, baina jendeak ez omen zuen gatzatua jateko ohiturarik. Natik gogoan du bezero bati ardi-esnea eramaten ziola plazara eta ordainetan arroparen bat egiteko oihala ematen ziola. Bildotsak etxean hiltzen zirenez, gatzagia etxean lehortzen zen.

1.593. Txerria hildakoan, odolosteak egiten zituzten (BER-283/022)

Etxean txerria hiltzen zeneko kontuak. Auzoko gizon edadetu bat ibiltzen zen txerriak hiltzen baserrietan. Aurreko egunean tipula mordoa erretzen zuten, odolosteak egiteko. Zer osagai sartzen zieten.

1.594. Txerria hildakoan, auzokoentzat pusketa onenak (BER-283/024)

Txerria hiltzen zenean, auzokoei "erregaloa" emateko ohitura zegoen sasoi batean: odolosteak eta solomo, saihets eta urdai pusketa bana. Gero,

auzokoek ordaina ekartzen zuten, beraiek txerria hildakoan. Pusketa onenak hantxe joaten omen ziren. Ohitura hori galduz joan zen.

1.595. Urdaiazpikoa ontzeko lanak (BER-283/025)

Txerria hildakoan, urdaiazpikoa etxean egiten zuten. Gatzun-askan sartzen zen. Zortzi-hamar egunera buelta eman eta ea gatza ondo hartu zuen begiratu. Bi-hiru hilabetera handik atera, uretan beratu eta zintzilik jartzen zen, sikatu arte. Gero piper-hautsa ematen zitzaion, harrak ez egiteko. Harrak eginez gero, ebaki, denak ondo kendu, berriz piper-hautsa eman eta ondo zaindu behar. Batzuek gari artean sartzen zuten. Gaztak ere sartzen ziren gari-kutxan.

1.596. Txorizoak nola egin eta kontserbatu (BER-283/027)

Urdaiazpikoari harrak eginez gero, zatitu eta oliotan jartzen zen, ondo kontserbatzeko. Txorizoak ere oliotan ipintzen ziren, sikatu ostean. Txerriaren okela pusketekin egiten ziren txorizoak. Txahal-okela ere ekartzen zen kaletik, txorizo gehiago egitearren eta txorizoak hain koipetsuak ez izateko. Zer gehiago botatzen zieten.

1.597. Mendebalak txorizoak hondatu zituenekoa (BER-283/029)

Txorizoak egindakoan eskegi egiten zituzten, sikatzeko. Behin, Frantziako osaba-izebak bisitatzera joan ziren "txerri-erregaloeekin", odolosteak eta txorizoak zintzilik utzita. Mendebalak jo zuen eta txorizoak apurtzen hasi ziren. Beraiek etxeratzeko, etxeokoen ganbarara jasota zeuzkaten txorizoak.

1.598. Garia kendutakoan, "galtzua"rekin zer egin (BER-283/038)

Garia kendutakoan, arbia ereiten zen. Lehenengo, lurra ondo goldatu behar arearekin, gariaren zutarrak kentzeko. Gariaren zutar eta hondarrak batzuetan erre egiten zituzten eta beste batzuetan azpigarritarako etxera jaso. "Galtzua" esaten zioten.

1.599. Garia "dornuarekin" garbitzen zuten (BER-283/039)

Garia jotakoan, hasieran "alkotzarekin" lagatzen zen. Ganbaran gordetzen zen eta geroago beste makina batekin ("dornuarekin") garbitu. Bi-hiru eguneko lana izaten zen eta gari-jotzea bezain txarra, hauts handia ateratzen zen eta.

1.600. Galburuak igitaiarekin apartatzen (BER-283/041)

Gari-azaoak makinan sartzen zirenean, batzuetan galbururen bat geldi zitekeen askatu gabe, eta emakumeren bat egon ohi zen igitaiarekin haiek apartatzen. Lastoa ganaduarentzat izaten zen. Belarra nahiago izaten zuten, baina besterik ezean huraxe jaten zuten. Bestela, azpigarritarako ere erabiltzen zen.

1.601. Arbia ereiteko lanak; lurra lantzean erpilak nola apurtu (BER-283/042)

Arbia ereiteko, lurra prestatu behar. Lehenengo burdinarea pasatzen zuten. Erpilak irteten zirenez, haiek apurtu egin behar hesiarekin edo harri-bolarekin. Hesia nolakoa izaten zen. Itulan aurretik zihoanak mazoarekin jotzen zituen erpil handienak. Gero, sahats xehe-xehea prestatzen zuten; lurtean zuloa egin, arbi haziak bota eta gainean sahatsa. Landarea ernetzen zenean, zaindu

egin behar izaten zen, zomorroek ez jateko. Mehaztu eta gero, berriz aitzurrarekin jorratu.

1.602. Gari tartean irteten ziren belar txarrak (BER-283/043)

Garia nola ereiten zuten. Gero "jorraixa"rekin, aitzur txikiarekin, jorratu, belar txarrak kentzeko. Burua egiten zitzaionean, beste belar txar batzuk ateratzen zitzaizkion gariari: oloa, zalkea, hirukoitza... Ilaretan joan eta batu egiten ziren. Oloaren inguruko azalpenak.

1.603. Elurretan ere arbia atera behar ganaduarentzat (BER-283/044)

Arbia negu guztirako ganaduarentzako jana izaten zen. Izotzarekin txarra izaten zen, baina elurra zenean ere atera egin behar. Eskuak epeltzeko galdara batean ur beroa eraman behar edo, bestela, aurretik elur bolak botatzen ibiltzea zela ona dio Natik.

1.604. Artoa eta baba nola erein; artalorea eta artapunta ganaduarentzat (BER-283/047)

Arbia kentzen zenean, udaberrian, artoa ereiten zen. Neguan belar gutxi ateratzen zenez, lan gutxiago izaten zuen artoak. Lurra prestatu eta erein egiten zen. Pixka bat ernetzen zenean, baba sartu. Biak batera ereinez gero, babak mendean hartzen ei zuen artoa. Nolako lana izaten zuten: mehaztu, jorratu... Handitzen zenean, lehenengo artalorea batzen zen ganaduarentzat eta geroago "artapunta".

1.605. Arto-zuritzearen inguruko kontuak (BER-283/049)

Arto-zuritzea eta garo-lana batera samar izaten ziren. Artoa zuritzeko astirik ez zenez egoten, ganbarara jasotzen zen lasto, buru eta guzti. Udazkenean, denbora txarra zenean, edo iluntzeetan, basotik etorri ostean, egiten zen arto-zuritzea. Amandrea gaztainak erretzen egoten zen. Berakatz-salda eta gaztainak jan eta ohera. Bazkaltzeko zer jaten zuten.

1.606. Artoa urkultzeko "teknika" (BER-283/051)

Neguan, beste lanik ez zegoenean, artoa urkultzen zuten, sukaldera banastan ekarrita. Banastari burdina bat jartzen zioten zulo batetik bestera eta haren kontra igurtzita urkultzen zuten. Oskolaren laguntzaz ere egiten zuten batzuek.

1.607. Ganaduarentzat pagatxa, sekula-belarra eta alpapa (BER-283/057)

Erremolatxa ere izaten zuten. Lehen udan ganaduari etxean ematen zitzaion jaten. Belar ondua gastatzen zenean, sorotik mantendu behar: pagatxa, sekula-belarra, alpapa... Gurdiarekin etxera jaso behar izaten ziren.

1.608. Garotara urrun joan beharra (BER-283/059)

Urrun joan behar izaten ziren garotara, Loidi baso ingurura. Egunean bi bidaia egiteko, goiz jaiki behar eta, gainera, garoa ebaki, lehortu eta ondo batuta eduki behar. Gurdia eta lera erabiltzen zituzten. Goizean bi lagun joaten ziren garoa batzera. Eguerdian beste bat bazkaria gurdian hartuta. Iluntzean, etxeratutakoan, sardearekin sakape batera husten zuten. Eta gero hurrengo egunerako berriz gurdia prestatu. Sugatzak ere egiten zituzten.

1.609. Ama emagina; anaia gazteenaren erditzean lagundu zuen (BER-285/007)

Ama emagin lanean ibiltzen zen. Bere amari ere lagundu omen zion, anaia gazteenaren erditzean. Amandrea ere emagin lanean ibiltzen zen eta hark eman zizkion azalpen guztiak. Bergaran erditze askotan lagundu zuen amak eta, gainera, emakumeak indartu arte euren etxean geratzen zen, haiek zaintzen edo etxeko lanak egiten.

1.610. Ramon Laborda osaba; dirua batzeko kantaldia (BER-285/009)

Edurneren osaba, Ramon Laborda, oso famatua zen. Luis Marianorekin ere abestu omen zuen. Poltsikoak hutsik izan arren, beti jendeari laguntzeko prest. Behin San Migel baserrikoei oinaztu bat sartu zitzaizen leihotik eta anaia bat hil egin zen. Edurneren osabak Anbrosioneko zineman kantaldi bat antolatu zuen, tximistorratz bat ipintzeko dirua batzeko.

1.611. Ramon Laborda osaba; San Migelera margolana ekarri zueneko (BER-285/010)

Ramon Laborda osaba Donostiako Arrazola mediku ezagunaren laguna zen. Sarri joaten zen haren etxera. Han zeukaten margolan bat San Migelgo ermitara ekarri ei zuen. Aitorlekua ere berak batutako diruarekin egina omen da. San Migelgoek "Aingeru" deitzen zioten. Oso euskaltzalea eta eskuzabala zen, nahiz eta berak ezer askorik izan ez.

1.612. Ramon Laborda osaba, oso eskuzabala (BER-285/011)

Edurneren lehengusu bat Frantzian bizi zen ezkondua. Ramon Laborda osaba haren etxera joaten zen tarteka bazkaltzera. Osabaren eskuzabaltasuna erakusten duen pasadizoa kontatzen du Edurnek.

1.613. Ramon Laborda osaba; Parisen Luis Marianoren ondoan abesten (BER-285/012)

Ramon Laborda osaba oso abeslari ona zen. Behin Parisen Luis Marianorekin eta haren irakaslearekin topo egin ei zuen. Kafetegi batean irakasleak pianoa jo eta Luis Marianoren aldamenean abestu zuen.

1.614. Joseba Laborda, anaia, txistularia (BER-285/014)

Edurneren anaia, Joseba Laborda, txistularia zen. Musika Bandaren deskantsuetan jotzen zuen txistua, adibidez. Baita bestelako ekitaldi eta jaietan ere. Udal langilea zen. Gazterik hil zen, bihotzeko baten ondorioz.

1.615. Gerraren hasieraren berri Orion (BER-285/017)

Gerraren hasieraren berri nola izan zuten. San Juan batzuetan txarto egon zen sudurreko hemorragia baten ondorioz. Don Roman medikuak lekuz aldatzea komeni zitzaiola esan zion eta Oriora joan ziren trenez, amandarengana. Hara iristean osabak esan zien gerra hasia zela Donostian. Ama berarekin geratu behar izan zen Orion egun batzuetan.

1.616. Gerra sasoiaren ilea zerora moztu zuenekoak (BER-285/018)

Gerra sasoiaren gripe tifoidea izan zuen Edurnek eta ilea erortzen zitzaion. Aspertuta zegoenez, ile-apaindegira joan zen eta ilea zerora mozteko eskatu zuen. Orduan euskaltzaleei edo euskarazko izena zutenei ilea halaxe moztzen zieten. "El Abuelo" deitzen zioten erreketekak uste izan zuen beraiek moztu ziotela ilea. Zer mehatxu egin zion. Etxean kontatu zuen gertatutakoa eta aitak erreketeari kontuak eskatu zizkion.

1.617. Bonba batek Artekalean Luis nola hil zuen (BER-285/019)

Gerra sasoiaren lehenengo bonba Artekalean jausi zen. Kalearen ertzean eserita egoten zen Luis jo zuen bete-betean eta bertan hil zen.

1.618. Monzonen etxeko baliozko gauzak ganbaran gorde zituzten (BER-285/020)

Aita arotz-lanetan ibili izan zen Monzonen etxean eta ama bertako neskamea izan zen urte askoan. Gerra sasoiaren baliozko gauzak euren etxean gordetzeko eskatu zieten. Ganbaran eduki zituzten gordeta. Monzonen etxeko giltzariak salatu egin zituen eta dena kendu zieten. Erreketeak zetozelela pentsatzen zutenean, aita Ubera aldera joaten zen ezkutatzera. Anaia hain euskaltzalea zenez, beldur zen zuen abizenagatik atxilotuko ote zuten. Azkenean, trintxerak egitera behartu zuten, zigor moduan.

1.619. Euren etxe ondoan erori zen bonba (BER-285/021)

Bonbardaketa Bergaran. Euren etxe ondoan jausi zen bonba bat, baina ez zen kristalik ere apurtu. Hala ere, ganbaran ezkutatuta zuten ikurrina bistaratu eiz zen! Bonbak botatzen zituztenen artean bergararrak ere bazirela eta senideren bat jotzeko beldur zirela dio.

1.620. Izebak gerran bizitako egoera garratzak (BER-285/023)

Gerra sasoiaren kontu gordinak. Osaba-izebak Elgetara bidean bizi ziren. Osaba moroek hil eiz zuten, emaztea haurdun zegoela. Izebak Gernikan izan zuen umea, baina hilda jaio zen. Beste alaba Frantziara eraman zuten eta sakabanatuta ibili ziren ama-alabak gerratean. Izebak burua galdu zuen azkenean.

1.621. Lantegientzako arropak josten (BER-285/024)

Gerra amaitu zenean, josten lan egin zuen jostundegi batean. Lagun gehienak lantegian zebiltzan lanean, baina bere amak ez zuen nahi bera lantegira joaterik. Orduan, lantegientzako arropak josten hasi zen, baina etxetik. Lan gogorra eta gutxi ordaindutakoa. Jostea beti gustatu izan zaio. 16 urte ingururekin ikasi zuen josten.

1.622. Amandreak tabako orriekin egosten zituen angulak (BER-285/028)

Gerra hasi zen garaian Orion egon zen hiru osaba ezkongabe eta amandrearekin. Osabak angulatara joaten ziren gauez, farola hartuta. Angulak bizirik ekartzen ziren eta amandreak lapiko handi batean egosten zituen tabako orriekin. Esku ona eiz zuen. Osaba baten neska-lagunak Donostiako

ostatu batean lan egiten zuen eta hara eramaten zituzten harrapatutako angulak. Orio inguruan tabako asko hartzen zen.

1.623. Kanpaiak entzutean, denak babeslekuetara, bonbetatik babesteko (BER-285/034)

Gerra sasoiaren gazte jende guztia herritik joan zen. Hegazkinak bonbak botatzera zetozenean, kanpandorrean zaintzan zeudenek kanpaiak jotzen zituzten. Orduan, jendea babeslekuetara joaten zen. Aldameneko etxean biltzen ziren bizilagun guztiak, sotoaren gaineko gelan. Koltxoiak ipintzen zituzten, bonbentzako babes moduan, eta lasai egoten ziren.

1.624. Abadeen aipamenari esker, inoiz baino jende gehiago zinemara (BER-285/037)

Gogoan du behin abadeek pulpitutik esan zutela zineman botatzen ari ziren pelikula oso gogorra zela eta hara joaten zena eskumikatu egingo zutela. Inoiz baino jende gehiago joan omen zen! Ilara luzea egon ei zen "Novedades" zinema kanpoan; sarrerak hartzeko borrokak ere bai azkenean.

1.625. Dantza eske etorrita hasi zen senargaiarekin harremana (BER-285/044)

Senarra ezagutu zueneko kontuak. Dantza eske etorri zirenean, kalabaza eman zieten mutilei. Bigarrenean, San Martzialgo erromerian, dantzari egin zuten eta handik hasi zen harremana. Edurneren laguna haserretu egin zen, mutil bera gustatzen zitzaion eta.

1.626. Senarra Araiakoa; haren gurasoen bizimodua (BER-285/046)

Senarra Araiakoa zen. Amak ez ei zekien euskaraz eta aitak ez ei zekien gaztelaniaz, baina 12 seme-alaba izan zituzten. Senarraren aita ikazkin lanean ibiltzen zen. Amaren anaia batek "Altos Hornos" en lan egiten zuen eta haren bitartez sartu zen hura ere lantegian. Amak neskame lanean jarduten zuen eta alaba zaharrena uzten zuen ume txikiagoak zaintzen.

1.627. Senarra oharkabean Gernikako bonbardaketan (BER-285/049)

Senarra Gernikako bonbardaketan egon zen, hodiren batean ezkutatuta. Zubiaurren jolasean zebiltzala, soldadu batzuek ea Intxortarako bidea zekiten galdetu zieten. Bi anaia joan ziren haiei bidea erakustera. Bitartean, erreketek sartu ziren eta ezin etxera itzuli. Amak anaia zaharragoa bidali zuen haien bila. Ihesean Bilboraino joan ziren hiru mutikoak. Gernikan zeudela, bonbardaketaren ondorioz, sakabanatu egin ziren eta ez zuten izan elkarren berririk.

1.628. Emeterio aitajaunak eman zien hasiera baratze-lanei (BER-286/002)

Aitajauna, hura ere Emeterio, izan zen Zubikoa baserrian baratze-lanetan jardun zuen lehenengoa. Fruta-arbolekin ere lan egiten zuen. Oso ona ei zen txertaketan; sari bat ere irabazi zuen sagar mentu batekin. Seme zaharrenak jarraitu zuen baratze lanekin, baina gazterik hil zen tifusaren ondorioz. Emeterioren aita Donostiako Urbana hoteleko sukaldari nagusia zen. Anaia hil zenean, hotela utzi eta baserrira itzuli zen. Emeteriok familiako jarduerarekin segitu zuen.

1.629. Zubikoa baserriaren historia (BER-286/004)

Zubikoa baserrian jaio zen Emeterio. Zubiaren ertzean zegoen baserri txiki bat zen. Esaten zuten etxe hura abadearena zela garai batean, izan ere zubiaren beste aldean Santo Tomas ermita omen zegoen. Ermita uraldi batek eraman zuela esaten zuten. Abadeak alde egin zuenean, aitajaunaren aita eta familia (Elkoroberezibar familia) joan ziren Zubikoara bizitzera.

1.630. Elkoroberezibar abizenari herentzia (BER-286/005)

Aitajauna eta lau arrebak gazterik geratu ziren aita gabe. Aitajaunak kontatzen zuen gertaera bitxia: Abadiñora azokara joan zen batean, Elgetan geldialdia egin zuen eta lagun batek esan zion Elkoroberezibar abizena zutenentzat deialdi berezi bat zegoela udaletxean. Antza denez, norbaitek herentzia utzi zuen lehen abizena Elkoroberezibar zutenentzat. Aitajaunak 18.000 erreal jaso zituen orduan.

1.631. Aitajaunak egin zuen Zubikoa baserri berria (BER-286/007)

Aitajaunak herentzian jasotako diruarekin lur-sailak erosi zituen eta baserria egin zuen lehengo etxearen aldamenean. Gerra sasoi ingurua izango zen. Emeterio mutikoa zen artean, baina zerbait gogoratzen du.

1.632. Bergaran ermita ugari (BER-286/009)

Bergaran ermita asko egon direla dio: San Blas, San Fausto, San Anton Abad, Santa Engrazia, San Lorentzo, Santa Luzia... Batzuk ez zituen berak ezagutu; beste batzuk moldatu egin ziren (ermitaren ordezkari santutxoak ipini, adibidez). Auzo bakoitzak bere ermita.

1.633. Elizak ermitak auzotarrei saldu zituzkien (BER-286/010)

San Kristobalgo ermitaren eskriturak dauzkala aipatzen du. Antza denez, San Pedro elizak auzotarrei saldu zien ermita, diru truke. Auzo gehiagotan ere auzotarrak ageri dira jabe moduan eskrituretan. Artxiboetan arakatzeko ibili izan da eta uste du elizak Mendizabalen desamortizazioaren aurretik salduko zituela ermitok.

1.634. Barazkiak eta ortuko landareak nora saltzen zituzten (BER-286/012)

Zubikoan barazki mota guztiak izaten zituzten ortuan. Bergarako azokaz gain, inguruko herrietara ere eramaten zituzten saltzera: Eibar, Oñati, Elgoibar... Arrasatera ez, bertan ortuzain oso onak zeudelako. Alearekin batera landareak ere saltzen zituzten. Kopuru handia behar zutenak etxera etortzen zitzaizkien erostera. Gerora "rebendedoreak" azaldu zirela dio. Gasteizera landare asko bidaltzen zuten trenean, han saltzeko.

1.635. Etxekoez gain, bi neskame eta bi morroi lanerako (BER-286/013)

Zubikoa baserrian gurasoek lan egiten zuten baratzean eta baita beraiek ere, eskolatik irteerakoan edo asteburuetan. Horrez gain, bi neskame eta bi morroi zituzten. Ingurukoak izaten ziren normalean eta euren etxean egoten ziren bizitzen.

1.636. Zaldi-karroarekin barazkiak eta landareak saltzera (BER-286/015)

Zaldi-karroan eramaten zituzten barazkiak eta landareak saltzera. Soraluzen igande goizean izaten zen azoka. Jendea seietako mezara joaten zen eta gero azokara. Beraiek ordurako han egon behar! Larunbatetan Bergaran eta Oñatin. Oñatira bidean landareak saltzen zituzten. Eibarrera astean hiru bider joaten ziren. Eguenetan (ostegunetan) Elgoibarrera. Astelehena jai hartzen zuten, prestaketetarako. Lehenengo furgoneta ekarri zutenean, aurrerapen handia izan zen.

1.637. Zubikoako landareen barietateak estimuan; haziak kanpotik (BER-286/017)

Jendea kalitate bila joaten zen beraiengana landarea erostera. Hazia kanpotik ekartzen zuten, Frantziatik, Italiatik, Holandatik... Gerraostean zaila zen aduanan ezer pasatzea eta kontrabandoan ibiltzen ziren, ezkutuan. Iparraldean senideak zituzten eta haien bitartez lortzen zituzten kontaktuak.

1.638. Hazien garrantzia (BER-286/018)

Kanpotik ekartzen zituzten landare haziak. Han ere denetarik zegoen, baina hazi batzuk hemengo lur eta klimarako aproposak ziren. Etxeko haziarekin landareak ateratzea ez zen hain erraza, jakin egin behar. Gerora asko ikasi egin du. Orduko hazi-etxe inportanteenak: Vilmorin eta Clause. Gaur egun Espainian delegazioa daukatela dio, baina garai batean ez zegoen halakorik.

1.639. Eibar, mugimendua zuen herria; azoka garrantzitsua (BER-286/019)

Garai batean Eibarkoa zen inguruetako azokarik garrantzitsuena. Ondarroatik egunero arrain freskoa eramaten zuten kamioian eta 6-7 emakumek saltzen zuten plazan. Industriak indarra zuen Eibarren eta inguruetako jendea hara joaten zen lanera. Eibarren baserri txikiak eta lur aldapatsuak zeudenez, bertakoek ez zeukaten baratzetik bizitzerik. Kanpoko jende ugari joaten zen plazara saltzera. Kortezubi inguruko baserritarrak Eibarren ostatu hartuta egoten ziren tomate sasoiari, denboraldia bukatu arte.

1.640. Negutegiaren abantailak eta alde txarrak (BER-286/020)

Negutegiak aurrerapen handia izan ziren. Jendeak uste du epelak direla, baina ez da hala. Han barruan ere izotza egiten du neguan. Euri eta haize hotzetik babesteko dira onak. Horrez gain, barruan euririk ez duenez egiten, lurra beti dago prest lanerako. Alde txarrak ere baditu, ordea: zomorroak eta bakteriak gehiago ugaltzen dira barruan.

1.641. Lurra azidotzea; zergatia eta konponbideak (BER-286/021)

Esaten dute negutegiko lurra azidotu egiten dela. Kanpoan ere gauza bera gertatzen da, lur berean barazki bera ereiten baduzu urtero. Kanpoan sasoiaren arabera ereiten duzu barazkia; negutegian, berriz, urte osoan erein dezakezu. Beti lur berean ereinez gero, azkenean barazkia ez da egiten. Ongarria botata, lurra aberastu daitekeela dio, baina bere ustez azkenerako gaixoak sortzen dira. Hori konpontzeko, lurra desinfektatu behar da. Ur baporea lur azpira sartuta egin zuen desinfektatzea bere lagun batek. Beste aukera: negutegia lekuz aldatu eta lur hari arnasa hartzen utzi.

1.642. Lurra lantzeko idiak eta zaldia (BER-286/022)

Idi onak izaten zituzten etxean, lurra goldatzeko. Zaldia azkarragoa izaten zen eta area edo tresna txikientzako zaldia erabiltzen zuten. Idiak motelago ibiltzen ziren eta, gainera, lurra zapaltzen zuten.

1.643. Barazkiak eta zerealak txandakatuta (BER-286/024)

Ortuan barazkiak txandaka landatzen zituzten, ez beti landare bera leku berean. Lau urteko zikloak. Hori egiteko, lur-sail handiak behar dira. Lur-sailen banaketa egokia zein izango litzatekeen. Zerealek lurra elikatzen dute; artoak, esaterako, nitrogenoa ematen dio lurrari.

1.644. San Kristobal auzoko eskola (BER-287/003)

Etxean lanik ez zegoenean joaten ziren eskolara. Baserrikoak eskolan beti atzeratuta joaten ziren, eta nahiago izaten zuen etxean lanean geratu. San Kristobal auzoko eskolan adin desberdinetako umeak elkarrekin ibiltzen ziren. Maistra bertan bizi zen alabarekin.

1.645. Angiozar auzoko gau-eskola (BER-287/004)

Pixka bat koskortu zenean urtebete inguru egin zuen Goiko plazako maistra batekin. Gero, Angiozar auzoko gau-eskolara. Maisua erdalduna zen. Neguan zurrakapotea hartzera joaten ziren beheko tabernara, eskolatik irtendakoan. Benita zen hango nagusia.

1.646. Fusilen bala eta kartutxoekin nola jolasten zuten umeek (BER-287/005)

San Kristobalgo eskolan euskaraz ikasten zuten. Adin desberdinetako neska-mutil ugari elkartzen ziren. Gerraostea zen. Inguruko baserri batean soldadu asko egon ziren. Umeek han aurkitutako bala eta kartutxoak eskolako atarian zegoen pinu baten ipurdian jarri eta su nola ematen zioten kontatzen du.

1.647. Gerra sasoian aitajaunarekin bizi izandakoa (BER-287/007)

Gerra sasoian, mutikoa zela, aitajaunari soroan gora atzetik segituta bizi izan zuen gertaera. Nazionalak hegazkinetatik bonbak bota zituzten, nahiz eta behean zeudenek (haiek ere nazionalak) zapi zuriak atera. Beldurtuta, etxera itzuli ziren eta Pedroren aitak errieta egin zien biei.

1.648. Mutikotan artzain lanean (BER-287/010)

Ardiak zaintzen ibiltzen zen mutikotan. 60-70 ardi izaten zituzten. Aurreko mendira bi buelta egiten zituen egunean. Bertan jezten zituen ardiak eta gero esnea etxera ekarri behar. Bera ezkondu zenean, anaia izan zen artzain ofiziala. Txakurrei irakasteko denbora behar izaten da.

1.649. Neguan ardientzat lekua prestatu behar baserrian (BER-287/013)

Neguan ardiak etxera ekartzen zituzten eta haientzat lekua prestatu behar izaten zen: sahasa kendu, garoa bota, artxara ipini... Siku baldin bazegoen, basoan egoten ziren, baina, bestela, etxean. Bildotsak. Batzuk txarto etortzen ziren, eta jaiotzen lagundu behar.

1.650. Ardiak bildots bikietako bat maite ez duenean (BER-287/014)

Batzuetan, ardiek bildots bikiak izaten dituztenean, ez dute bata maite izaten. Egoera hori aldatzeko zer egiten zuten. Biki gehiago edo gutxiago jaiotzea urtearen arabera dela uste du.

1.651. Bildotsak plazara saltzera; harakinekin tratua (BER-287/017)

Bildotsak Bergarako plazara eramaten zituzten saltzera. Harakinak bertara joaten ziren bildotsak aukeratzera. Tratua nola egiten zuten. Merkatu plaza non zegoen.

1.652. Aitajaunak zezina labean nola prestatzen zuen (BER-287/020)

Pedroren aitajaunak ardi haragiarekin zezina nola egiten zuen labean sartuta. Buzkantzak ere egiten zituzten.

1.653. Aitajauna eta osaba Oñatitik Angiozarrera (BER-287/023)

Jose osaba arotza zen eta haize-errotak egiten zituen. Arrasateko azokara joaten zen saltzera. Mutiko bati esan ziona. Aitajauna eta osaba biak Oñatiko Bixain baseritik Angiozarrera ezkondu ziren eta elkarren ondoan bizi izan ziren. Osaba-izebek taberna izan zuten.

1.654. Bildotsak koskortzen (BER-287/025)

Maiatz hasiera inguruan bildotsak basora eramaten zituzten. San Juanak inguruan, bildotsak etxeratu eta ardiak bidaltzen zituzten basora. Bildotsei moztutako buztanak babekin jaten zituzten. Aldamenean bizi zen gizon batek esan ziena.

1.655. Inguruetan ardi ugari; bakoitzak bere aharia (BER-287/027)

San Juanak ingurutik atzera ardiak basoan ibiltzen ziren. Egunean bi buelta egin behar, haiek jeztera. San Kristobalak ingurutik atzera hasten zen gutxitzen. Irailean aharia berriz. Inguruko mendietan ardi asko batzen zen. Bakoitzak bere aharia izaten zuen, baina nahasten zirenean, nabaritzen zuten bildotsetan. Behin ardiak etxeratu eta txakurra konturatu zen kanpoko ahari bat zegoela ardien tartean.

1.656. Gerra sasoian soldaduek behorra lapurtu (BER-287/033)

Lau-bost behi eta idiak izaten zituzten baserrian. Ama gerra sasoian behorrek esnea saltzera joaten zen. Behorra nolakoa zen. Soldaduek lapurtu egin zuten eta goragoko auzo batera eraman. Aitak ibiltzeko baimena atera zuen udaletxean eta behorren bila joan zen. Hango tenientearekin izandako elkarrizketa.

1.657. Amak soldaduekin topo, esnea saltzera zihoala (BER-287/035)

Ama behorrek Bergarara joaten zen esnea saltzera. Gerra sasoian kalera zihoala soldadu talde batekin topo egin zueneko kontuak.

1.658. Aitajauna ezkutuan soldaduei begira (BER-287/037)

Aitajaunak San Kristobal ermitaren inguruan soldaduen mugimendua sumatu zuen eta soro barrenera joan zen, ezkutuka begiratzera. Soldaduren bat konturatu egin zen eta ozta-ozta libratu zen tiro bat jasotzetik.

1.659. Auzoko ermandadearen funtzionamendua (BER-287/041)

Auzokoen artean konpontzen ziren behia idiskoren batengana eraman behar zenean. Ermandadea ere bazuten, ganaduren bat gaixotu eta hiltzen zenerako. Komisioko kideak etortzen ziren. Gaixo txarra zenean, lurperatu edo erre egiten zen ganadua. Aprobetxatzeko modukoa zenean, etxe bakoitzari zati bat ematen zitzaion, zeukan ganadu kopuruaren arabera. Ordaindu ere proportzioan egiten zen.

1.660. Ganaduari emateko belarrik ez (BER-287/045)

Neguan arbia ematen zitzaion ganaduari. Lasto pixka bat eta belarra ere bai, baina gutxi. Inguru guztiak soroak izaten ziren eta belar gutxi egoten zen. Ahal zuenak zahia eta baba ere ematen zieten. Beraiek arbia eta erremolatxa. Elgetan ganadutegi batean erremolatxa egosteko galdara handi bat ikusita duela kontatzen du. Alpapa ere izaten zuten, eguraldiaren arabera. Ailorbea esne-behie edo haragitarakoei ezin izaten zitzaion eman, zapore txarra ematen zielako.

1.661. Arbi-orriak eta haritz edo lizar-orriak ganaduarentzat (BER-287/047)

Arbi-orriak batzen zituzten udazkenean. Arbiarentzat ona izaten zen eta ganaduak oso gustura jaten zuen. Udan haritz-orriak ematen zizkieten. Soldadutzan Orreagan egon zen. Han lizar ugari ikasi zituen eta etxe inguruetan pila handiak izaten zituzten lehortuta. Ardientzat zirela negurako esan zieten.

1.662. Ganaduarentzat haritz-orriak nola lortu (BER-287/048)

Ganaduari haritz-orriak emateko haritzaren adar handiak botatzen zituzten. Hartara, egurra ere izaten zuten. Hortzik gabeko igitaiarekin hostoak nola kentzen zituzten. Jende gehienak eskuz kentzen zituen lizar edo haritz orriak.

1.663. Tximiniak su hartu zueneko konponbidea (BER-287/049)

Behin aitak eta osabak, goizaldean lanetik etorrira, tximinian sua piztu zuten, abar-sorta batekin. Tximiniak su hartu zuen. Bi tiro botata konpondu ei zuten arazoa! Ordutik, Pedrok berak ere teknika bera erabili izan omen du inoiz, tximinia garbitzeko.

1.664. Pezeta bat ikustea zaila zen (BER-289/001)

Pezeta bat esku artean izatea zaila zen sasoi batean, ez zegoen dirurik eta. Janari urritasunari buruz hitz egiten dute: fruta, txokolatea... Errazionamendua. Ogirik ez zen falta etxean, garia bazuten eta.

1.665. "Mieleroa" (BER-289/002)

"Mieleroren" kontuak. Alcarriako ezta saltzen zuen, bizikletan joanda. Izebak ezta jateko aukera eman zionekoa kontatzen du Natik, ito beharrean jan zuela, antsiatz, ogia busti eta busti.

1.666. Diogenesen kontuak (BER-289/003)

Diogenes izeneko baten kontuak: Elgetatik oinez joaten zen Bergarara, tailerrera lanera, eta inor baino lehen iristen zen. Tabakoa erretzen zuen, modu nahiko berezian.

1.667. Gaixotuz gero, sendabide gutxi (BER-289/005)

Gaixotuz gero, sendabide gutxi zegoen: hil eta kito. Don Karmelo medikua oinez joaten zen Angiozarrera. Penizilinarik ez zegoen umeak zirenean. Familiako batzuen heriotzaz dihardute. Tia Pantxikak eskularruak egin zizkion Natiri.

1.668. Etxeko erremedioak (BER-289/006)

Kuranderorik ez dute ezagutu. Uratza hartzen zuen aitak, osasunarentzat ona zelako; Elorrioko iturri batera joaten zen bila. Azala garbitzeko aitak zer egiten zuen. Praktikantzeak zer esaten zuen dio Abelinak. 'Bixixo' belarra, mihura, kanela ura eta azeri buztana.

1.669. Baserritarren jantzetxea zen beraien etxea (BER-289/008)

Jantzetxeak: mezetara joateko, arropaz aldatzeko tokia. Lopekoak, Altunakoak, Gongetakoak eta Lamaraingoak joaten ziren beraienera. Lopeko Juanak salda hartzen zuen etxean, eta gazta eramaten zien.

1.670. Lopeko Juliri intxaurrak kentzen (BER-289/009)

Izebaren etxean urruti bizi ziren eskola umeak ere izaten ziren, bazkaria etxetik eramanda. Lopeko Julik intxaurrak izaten zituen, eta denak kentzen zizkioten. Intxaurrik ez zuten izaten etxean, baina fruta bai.

1.671. Gabonetako jatekoak (BER-289/010)

Gabonetan intxaur-saltsa egiten zuen amak. Konpota ere bai. "Olixa". Bakailaoa edo bisigua. Neskame zeuden tokietan zerbait ematen zieten beti: arraina, turroia... Erbia ehizatzen zuen aitak; salmueran izaten zuen. Basurdearekin gauza bera egiten zuten.

1.672. "Gora Euzkadi" kantatzeko beldurrez; aita, kartzelan egona (BER-289/012)

Turroia, konpota... jaten zuten Gabonetan. "Gora Euzkadi" kantatzen zuten izeba zetorrenean, baina lehenengo leihotik begiratzen zuten, ea guardia zibilik ote zebilen inguruan. Aitak beldur handia zuen, kartzelan gaizki pasatu zuelako; txakurra ere ez zuen lotuta izaten. Fusilamenduak nola izaten ziren.

1.673. "Culebra" nola hil zuten, gerra sasoian (BER-289/013)

"Culebra"ren kontuak. Nola hil zuten, eta gero bere emaztea, Franziska, ere hil zuten. Eusebio osabaren laguna zen "Culebra", baina hark bestaldera alde egin zuen.

1.674. Dantza lotua debekatuta Angiozarren (BER-289/015)

Abelina 13 urterekin joan zen neskame, eta erromeria gutxi. Erromerian helduta dantza egitea bedebatuta zegoen Angiozarren; dantza eginez gero, Mariaren alabek apaizari esaten zioten. Konfesatu egin behar izaten ziren, absoluzioa lortzeko. Birjina ezkontzen ziren.

1.675. Konfesatzeko beldurrez; zeinekin dantza egin (BER-289/018)

Antzuolako batzuk Bergarara joaten ziren konfesatzera. Don Juanekin errazago konfesatzen ziren Don Jose Antoniorekin baino. Mutilek "mesedez" eskatzen zuten dantza, eta polita izaten zen. Kalabazak ere ematen zituzten. Mutilek ordaindu egiten zuten dantza egiteko. Julian izeneko bat asko arrimatzen zen dantzan, eta ez zuten harekin nahi izaten.

1.676. Apaizen beroaldiak (BER-289/019)

Don Jose Antonio apaiza berotu egiten zen konfesalekuan, emakumeen aitortzak entzuten. Don Juanek seme bat zuela ere esaten zuten herrian. Konfesatzea tortura izaten zela dio Natik.

1.677. Nobioarekin baino familiarekin ezkondu (BER-289/020)

Abelinaren lehenengo nobioa sakristauren semea zen, eta haren etxean nongoa zen jakin nahi zuten, etxe onekoa ote zen. Dantza egiten zutenean gehien-gehienek ez zuten bestelako intentziorik.

1.678. Erlijioarekin lotutako bidegabekeriak eta diferentziak (BER-289/022)

Apaizen esana bete behar zen. Etxean hiru arrautza izan, eta apaizarentzat. Konjuroak eta bulda, barautik libratzeko (aberatsek haragia jaten zuten, bulda ordainduta). Entierroak primerakoak eta segundakoak zeuden: kanpaiak ere diferenteak izaten ziren. Ondra bazkariakin zorpetu egiten ziren. "Pater noster" a bidegabea iruditzen zitzaion Natiri: mantako dirua agortzean, apaizak ez zuen gehiago errezatzen. Manta eta kandelak, urtebetez. Lutoa.

1.679. Lutoa nola izaten zen (BER-289/023)

Lutoa. Abelinak neskame zegoen etxeko, Martintxoneko, ugazabaren lutoa ere eraman zuen. Urtebetean beltzez jantzen ziren, eta gero "medio-luto". Gizonek banda beltza jartzen zuten besoan.

1.680. Ondra-bazkarira nor joaten zen (BER-289/025)

Ondra-bazkarira familiakoak joaten ziren; primerako entierroa zenean, aita ere gonbidatzen zuten (errementaria zelako). Sakristaua, apaiza... ere joaten ziren. Maiorazgoari (baserri jabeari) primera egitea tokatzen zitzaion, nahiz eta dirurik ez izan. Abelinak taberna zuen, eta eman zuten azken ondra-bazkariakin akordatzen da.

1.681. Ondra-bazkaria tabernan; jaten zutena (BER-289/026)

Ondra-bazkariak tabernan egiten ziren: Martintxonean, zeletan... Zer jaten zuten azaltzen dute. Erdi mozkortuta joaten ziren etxera.

1.682. Gaubelako jan-edana, hildakoa zaintzen (BER-289/027)

Gaubela ere egiten zen, hildakoaren ondoan. Auzotarrak eta senideak izaten ziren han, eta nahikoa edaten zen orduan ere. Abelinak gogoan du arrautzak eman zizkietela, piperrekin, gaubelara joanda. Natic zurrutero baten anekdota kontatzen du: edateagatik joaten zela.

1.683. Kongregazioak eta kofradiak (BER-289/028)

Goizeko zazpietako mezetatik bueltan, gizonak pattarra edaten zuten: "pintao". Kongregazioetako dominak eta kofradietako abituak. Lehen, gorpua erretzea pentsatu ere ez.

1.684. Apaizen bekatuak (BER-289/030)

Apaizek neska ederrenak hartzen zituzten "ama de casa", etxeko lan guztiak egiteko; gero moja joaten ziren. Haurdun geratzen ziren ezkongabeak kanpora bidaltzen zituzten. Familia izaten zuten apaizak ere baziren.

1.685. Payros abizenaren ibilbidea (BER-291/002)

Payros abizena Frantziatik ei datorkio. Birraitona Nogaro herrikoa zen. Zaragozara joan zen eta hango batekin ezkondu. Izan zuten semeetako bat, Luisen aitajauna, Iruñe;eara joan zen eta Goñe; abizeneko nafar batekin ezkondu zen. Euren semea, Luisen aita, Bergarara joan zen.

1.686. Batxilerra dominikoekin; errebalida (BER-291/006)

Ospitaleko eskolan ibili zen lehenengo, mojekin. Gero, herriko eskoletan. Batxilerra dominikoekin egin zuen, 17 urtera arte. Errebalida ez zuen gainditu eta urtebete izeba batekin Bilbon pasa eta gero, berriz egin zuen. Urtebetez kontabilitatea ikasi eta "Banco San Sebastián"en hasi zen lanean. Bertan lan egin zuen erretiroa hartu arte (bukaeran "Banco Hispanoamericano" izenarekin).

1.687. "Banco San Sebastián"en hasi eta "Banco Hispanoamericano"n bukatu (BER-291/007)

19 urterekin "Banco San Sebastián"en hasi zen lanean eta 25 urte egin zituen. Gero, "Banco Hispanoamericano"ak xurgatu zuen eta izen horrekin jarraitu zuen, eraikin berean. Hasieran bulegari lanak egiten zituen; gero ahaldu izan zen. "Banco Hispanoamericano" izatera pasa zirenean, ez zebilen gustura eta dimititu egin zuen. Bulegoko lanera itzuli zen. Geroago, ordenagailuak eta aldaketak etorri ziren eta erretiroa hartu zuen.

1.688. Banketxeko lan egiteko modua; dena paperean (BER-291/009)

Gehiago gustatzen zitzaion banketxeko garai bateko lan egiteko modua, bera era horretan ohituta zegoelako. Dena eskuz egiten zuten. Gehiketa izugarriak egiten zituzten. 10-15 urtetako artxibo guztiak gordeta izaten zituzten eta urtean behin artxibo zaharrenak botatzen zituzten.

1.689. Garai batean banketxeetan zerbitzu hobea eta gertuagokoa (BER-291/011)

Banketxean kutxazain lanean jardun zuen urte askoan. Bere ustez garai batean bezeroari ematen zitzaion zerbitzua hobea eta gertuagokoa zen. Dirua ingresatzera joan zen batean gertatu zitzaiona. Euren sasotik gaur egunera egon diren aldaketak.

1.690. Banketxeko ordutegia eta lan-baldintzak (BER-291/013)

Banketxean goizeko 9retatik ordu bata arte eta hiruretatik sei eta erdiak arte lan egiten zuten. Ekainaren 15ean eta abenduaren 15ean kontu korronteak ixten ziren eta likidazioa egin behar izaten zen. Halakoetan 9ak arte egoten ziren eta afaldu eta gero ere segi egiten zuten. Ogitartekoren bat eramaten bazieten edo afariren bat ordaintzen bazieten, izugarri eskertzen zuten. Aparteko orduak ez zituzten kobratzen, baina, horrela zelakoan, gustura eta pozik.

1.691. Emakumeak banketxeetan lanean (BER-291/014)

Bera banketxean lanean hasi zenean, denak gizonezkoak ziren. Lehenengo bi emakumeak gazterik sartu ziren, 17 urte ingururekin. Gazteak zirela eta, zuzendariak haiei lehentxoago irteten uzten zien, likidazioa egiten zutenean. Inguruetan emakume bakarra ezagutu zuen bere sasoiari banketxean lanean: Maritxu Igartua. "Banco Vizcaya"n lan egiten zuen.

1.692. "Letras de cambio" delakoaren funtzionamendua (BER-291/016)

"Letras de cambio" zer izaten zen. Zerbait saltzen zenean, letra bat egiten zuen saltzaileak eta banketxera bidaltzen zen. Banketxeak saltzaileari dirua aurreratzen zion eta letra hura bezeroari kobratzen zion epe baten barruan. Epe horren arabera, interesak kobratzen zitzaizkion saltzaileari. Horrez gain, herriaren arabera (banketxerik bazuten ala ez) tarifa desberdinak egoten ziren.

1.693. San Pedro kaletik trena ikusten zuen (BER-291/021)

San Pedro kaleko 19. zenbakian jaio zen. Ingurua nola aldatu den. Zabalotegi inguruan ortuak zeuden. Mendia bistan zegoen, Soledadeko baserria, gainetik trenbidea... Mekolalden "Beheko trena" (Lizarra-Gasteiz-Mekolalde) eta "Goiko trena" (Maltzaga-Zumarraga) elkartzen ziren.

1.694. "Beheko trena" hartuta Oñatira; autobusean Arantzazura (BER-291/022)

"Beheko trena" esaten ziotenak Lizarra-Gasteiz-Mekolalde ibilbidea zuen. San Prudentzian banatu egiten zen: bata Gasteizera eta bestea Oñatira. Aizkorri aldera mendira joateko, goizeko lehenengo trena hartzen zuten Oñatira eta handik "La oñatiarra" autobusean Arantzazura. Bere emazteak Beasaindik Arantzazura txangoan joan zenean beldur handia pasa omen zuen, orduko autobus irekian.

1.695. Zabalotegi ingurua (BER-291/023)

Zabalotegi inguruan ortuak zeuden garai batean. Iturria eta garbi-tokia mojen komentu ondoan. Ingurua nolakoa zen.

1.696. Bergarako berdura plaza (BER-291/025)

Begarako berdura plazaren eraikina lehengo da. Nolakoa zen. Behean alondegia. Alboan Jenaro Mansoren ardo biltegia, Correos... Eraikina berritu egin zuten; gerra sasoiko arrastoak omen zeuzkan.

1.697. Aita jabetza-erregistroko langilea (BER-291/028)

Aita jabetza-erregistroko ordezko moduan etorri zen Bergarara lanera. Gustavo Macho izeneko bergararra hasi zen berarekin, 15 urte inguru zituela, eta hark segitu zuen erregistroan gerora. Erregistroa "Martina Trapuna" esaten zioten etxean zegoen orduan; gerora, nora aldatu den.

1.698. Dominikoetan meza-laguntzaile (BER-291/030)

Dominikoetan ibili zenean, aita Leonardok kantatu egin behar zuela esaten zion, baina berari ez zitzaion gustatzen. Berak meza-laguntzaile izan nahi zuen eta lortu zuen. Fraidea jatorra bazen, ardo trago bat egiten uzten zien.

1.699. Bilboko orkestra Bergaran (BER-291/032)

Bilboko orkestra etortzen zen Bergarara kontzertua eskaintzera. Amaren lehengusu batek biolontxelo josten zuen bertan. Jesus Aranbarri zen zuzendaria. Hasieran frontoian izaten zen ekitaldia. Gerora, musika sakroarekin hasi zirenean, San Pedro elizan. Berari zein gustatzen zitzaion gehiago. Bergarako orfeoak abesten zuen orkestrarekin.

1.700. Gerratean Antzuolako Urrutia baserrian (BER-291/035)

Gerra garaiko oroitzapen gutxi du. Nazionalak San Migeletik behera etorri zirenean izebaren etxean zeuden. Frontea Bergaran egon zen denboran Antzuolako Urrutia baserrian egon zen familia osoa, Balentin Berriotxoaren amaren jaiotetxean. Gogoan du hegazkin batzuk beste hegazkin bat metrailatzen ikusi zituela.

1.701. Soldadu italiarrak perfume bila amaren dendara (BER-291/037)

Amak denda zeukan San Pedro kalean. Gerra sasoiaren soldadu kanpotarrekin harremana. Italiarrak perfume bila joaten omen ziren.

1.702. Ama 87 urtera arte dendan lanean (BER-291/038)

Amak denda izan zuen San Pedro kalean. Gerora, hura utzi eta Eibarko Margola tindategiaren ordezkaritza hartu zuen. 87 urtera arte jardun zuen lanean amak.

1.703. Gerra sasoiaren dendako euskarazko esaldia kentzeko agindua (BER-291/041)

Gerra sasoiaren dendako erakusleihoan "Txinda gutxikin gauza asko" ipintzen zuen. Aurretik Mendiolarrena izan zen denda. Oso abertzaleak ziren eta Frantziara ihes egin zuten. Alde egin aurretik, 1935 inguruan, Luisen amari utzi zioten denda. Falangista batzuek erakusleihoko esaldia ikusi zutenean, arratsalderako ezabatzeko edo bestela apurtu egingo zutela esan zioten amari. Felix izeneko pintoreari laguntza eskatu eta amoniakoarekin kendu zuten.

1.704. Inazio Zabala maisu euskaldunarekin gaztelaniaz (BER-293/003)

Sei urte ingururekin hasi zen eskolan. Dena gaztelaniaz ikasten zuten eta, euskaraz eginez gero, egurra jasotzen zuten. Maisua euskalduna zen, Ibarakoa: Inazio Zabala.

1.705. Mikeleteak Aurrezki Kutxan eta Telefonoan (BER-293/005)

Garai batean Aurrezki Kutxa Aldundiarena zen eta mikeleteak ziren bertako langileak. Aldameneko lokalean Telefonoa. Konferentziak nola izaten ziren. Etxean ez zuten telefonorik, eta abisuren bat eman behar zenean, hangoa erabiltzen zuten.

1.706. Bergarako pilotalekua; mutikoek pilotarako zaletasuna (BER-293/008)

Herriko frontoiak ehun urtetik gora ditu. Gaur egungoa baino hiru aldiz handiagoa zen garai batean, estali aurretik. Bera mutikoa zela egin zioten teilatua. Mutikoak bazkaldu eta korrika joaten ziren pilotalekuetara, lekua hartzera. Bera elizpera joaten zen. Han, zorua eta hormak koskaz beteta. Abadeek ere pilotan jokatzen zuten.

1.707. Pilotalekuan launaka-launaka, bakoitzak tanto bat (BER-293/010)

Igande goizetan kuadrillak egoten ziren pilotalekuan, jokatzeke zain, eta launaka-launaka jokatzen zuten, bakoitzak tanto bat. Partidak, gainera, luzatu egiten zituzten batzuetan, partida estutzen zenean.

1.708. Frontoiko "barateroa": Patxi "Ezkerra" (BER-293/011)

Pilotalekuan "barateroa" egoten zen: Patxi "Ezkerra". Poltsa baten pilotak edukitzen zituen, seboa emanda, eta mutikoei ematen zizkien biguntzeko. Sakea bakarrik egiten zuten, mutikoentzat gogorrek ziren eta. Arratsaldeko partida ofizialerako izaten ziren pilotak. Larunbat eta igandetan pilota partida onak egoten ziren.

1.709. Oihalgintza lantegiek bultzatuta ipini zuten Elementala (BER-293/014)

Elementala lanbide-eskola zen. Primo de Rivera egon zen inaugurazioan. Oihalgintzako lantegiek lagunduta ipini zuten martxan. Oihalgintzako lantegi asko zeuden: "Algodonera San Antonio", "Mobillas, Fernandez y cía", "Lasagabaster"...

1.710. Elementaleko maisuari laguntzeko, Star lantegian delineatzaile (BER-293/018)

1937an ez zegoenez lanik, 42 lagun Eskola Elementalean ikasten hasi ziren. Zazpik bakarrik amaitu zuten. Denak lanean hasi ziren, bera izan ezik. Orduan, Elementalak Eibarko Star lantegira bidali zuen egun erdiz delineatzaile gisa eta beste egun erdiz Elementaleko maisuari laguntzen zion. Pistolak diseinatzen zituen.

1.711. Gerra hasieran oihalgintzako lantegi guztiak martxan (BER-293/023)

Gerra sasoian ahal ziren oihal-lantegi guztiak martxan ipini zituzten, armadarako oihalak behar zituzten eta. Hasieran gudarientzako oihalak egin zituzten eta gero nazionalentzat.

1.712. Militarizatu ahal izateko, lanean bazekiela erakutsi behar (BER-293/025)

Oihalgintza lantegietako nagusiek langileak militarizatzea eskatu zuten. Bera 38ko kintoa zen eta beranduago deitu zioten. Hiru hilabete egin zituen soldadu. Hiru azterketa egin behar izan zituen, lanean bazekiela erakusteko, eta azkenean militarizatu egin zuten. Zazpi urtez egon zen. Urtean behin Guardia zibilengana joan behar, ziurtagiriari zigilua jartzera. Militarizatuta ere lehengo soldata bera jasotzen zuen.

1.713. Tomas Etxeberriarekin ikasi zuen taillatzen (BER-293/029)

Tomas Etxeberriarekin ikasi zuen taillatzen. Eskola publikoa zen; erremintak Udalarenak ziren. Iluntzean joaten zen, zortziak aldean.

1.714. Ehuna nola egiten zen; anezka (BER-293/037)

Ehuna egiteko, hariak Kataluniatik ekartzen ziren, merkeagoa zelako. Eskuz jartzen ziren hariak makinan; hariak nola joaten ziren gurutzatzen azaltzen du. Gurutzatze horren arabera, kalitate ezberdinetako oihalak sortzen ziren. Makinaren inguruko azalpen zehatzak. Anezka. Uztarri batetik pasatu ostean, anezka batetik bestera botatzen da, barruan haria duela. Han hariak gurutzatzen dira eta lotuta geratu.

1.715. Ehungintzan ezagutu duen makina zaharrenetakoa (BER-293/040)

Ehungintzan ezagutu duen makinarik zaharrenetakoa Zeanurin ikusi zuen, hura martxan jartzera joan zenean. Berarekin lan egiten zuen neska bati esan zion makina harekin lan egiteko. Orduan ehun zati txikiak egiten ziren; gerora, karrete handiekin, askoz handiagoak. Bergaran arkupeetan eduki zuten makina erakusgai garai bateko Euskal Jai batzuetan.

1.716. Ehuna egindakoa, tindategira (BER-293/043)

Ehuna egin ahala biribilkatu egiten zen. Gero makina baten pasatzen zen zer pisu eta zenbat metro zeuzkan neurtzeko eta tela mehea ala lodia zihoan jakiteko. Gero tindategira eramaten zen. Tindategiko prozesua.

1.717. Militarrentzat kaki koloreko oihalak (BER-293/047)

Militarrentzat kaki koloreko arropak egiten zituzten. Tindategian 7-8 ontzitan pasatzen ziren oihalak. Handik lehortegira eramaten ziren. Txukundu ostean, dendetara.

1.718. Aita-amak lehengusuak ziren (BER-298/002)

Aita Eskoriatzakoa zuen, Mazmelakoa, eta ama Otxandion bataiatua. Lehengusuak ziren, eta Ubideako apaizak ez zituen ezkondu nahi izan. Amandreak gotzainaren baimena lortu behar izan zuen, ezkondu ahal izateko (amama inude egon zen Gasteizen, eta hango familiaren bitartekaritza baliatu zuen, Guineatarrena).

1.719. Lonbide baserrian errentan zeuden (BER-298/005)

Aitaren familia Mazmelatik Bergarara joan zen bizitzera, Lonbidera. Baserrirako lehengusua ekarri zuten gero. Zortzi senide ziren aita-eta.

1.720. Auza eskolan ibili zen (BER-298/006)

Santiago ibili zen eskolan. Maisua bertakoa zen, eta sakristau lanak ere egiten zituen: Dionisio Aldazabal. Goimenditik eta San Juandik ere joaten ziren umeak. Edade denetakoak, neska eta mutil, denak batera egoten ziren. Euskaraz hitz egiten zuten eskolan (1928an), baina erdaraz ere ikasten zuten. Jaunartze handia egin arte ibili zen eskolan.

1.721. Mutikoa zela, aitona-amona aldaketa baserrian (BER-298/007)

Bera mutikoa zela aldaketa egon zen Lonbiden: osaba bat Labe Garaietan hasi zen lanean, eta Bergarara kalera joan zen bizitzera; aitaren gurasoak eta arreba solterak berarekin joan ziren bizitzera. Orduan, amaren aldeko gurasoak joan ziren Lonbidera bizitzera, Ubidetik. Izan ere, laguntza beharra zuten: aita erreumak jota zegoen, eta ama hiru ume txikirekin.

1.722. Gerra hasi zenean, kalera joan ziren ihesi (BER-298/009)

Bost behi zituzten, idiak, ardiak... Mendian zeuden ardiak, eta gerra sasoiaren denak desagertu ziren. Oiloak ere bai. Etxetik joan beharra izan zuten, erdian geratzen zelako. Milizianoak joan zitzaizkien etxera. Kalera joan ziren, animalia gehienak bertan utzita.

1.723. Aitajauna preso hartu, eta kartzelako asaltoan hila (BER-298/010)

Aitajauna bakarrik geratu zen baserrian, gerra hasi zenean, eta milizianoek preso hartu zuten. Bilbora eraman zuten, eta han kartzela asaltatu zutenean, zauritu egin zuten, eta egun gutxira hil egin zen. "Caidos por la Patria"koen zerrendan jarri zuten.

1.724. Bonbardaketak Bergaran (BER-298/011)

Bergaran, bonbardaketak. Algodoneran langile batzuk hil ziren. Kamineroak eta aguazilak guardiak egiten egoten ziren, plazan, eta Leteren aita horrela hil zen, kainoikadak jota. Metraila markak duela gutxi arte egon dira Correosen.

1.725. Batera eta bestera, baserri baserri (BER-298/012)

Osabaren etxera joan ziren lehenengo, baina ganaduentzat tokirik ez zuten, eta etxea ere leporaino zegoen. Antzuolara joan ziren gero, Etxenagusiararen hilabete eta erdirako. Soldadukora joan ziren ondoren, gari lanak egitera. Karlistak bi aldiz joan ziren aitaren bila, preso hartzeko, baina ez zuten aurkitu. Soldadukoa preso eraman zuten.

1.726. Baserrira buelta, zazpi hilabeteren ondoren (BER-298/013)

Zazpi hilabete egin zituzten etxetik kanpo. Irailetik apirilera. Ganauarentzat jan ugari zegoen han: belarra, arbia, artoa... Lan ugari izan zuten dena ondo jartzen: patata erein, artoa batu... Etxe barruan balio zuten gauzak falta ziren, aitajaunak Kubako gerran erabilitako sablea eta.

1.727. Baserria uztea erabaki zuten (BER-298/015)

Garirik ez zuten erein baserrira bueltatu ziren urte hartan, eta errenta ordaindu behar. Azaroan errenta osoa eskatu zieten. Hura ordaindu, eta baserria uztea erabaki zuten. Kalera joan ziren bizitzera. Baserria erosten saiatu ziren, baina ezetz esan zieten.

1.728. Kalean etxea erosi zuten, Zubietan (BER-298/016)

Behi batekin eta astoarekin joan ziren kalera bizitzera. Etxejabea bizi zen lehen pisuan. Gero etxea erosi egin zuten; 35.000 pezeta etxe osoa, baratzearekin. Kamilako urik ez zegoen lehen solairuan. Beheko sua non zegoen. Kalebaserri gehiago ere baziren Zubieta kalean.

1.729. Algodoneran saiatu zen, baina gazteegia zen (BER-298/020)

1938an joan zen kalera bizitzera. Berak urtebete gehiago egin zuen baserrian, maizter berriek artean ez zutelako hara joateko asmorik. Ganaduzain egon zen, eta esnea kalera eramaten zuen, amak eta izebak saltzeko. Algodoneran hasi zen lanean, baina 13 urte zituenez, ez zioten jarraitzen utzi; bere ordeztan aita hasi zen han lanean. Gero Plazentzian ibili zen hamar urtean, Gallasteginean, laban fabrikari.

1.730. Soroluzeko Gallastegi lantegian egindako lanak (BER-298/021)

Gallastegi lantegian labanak egiten zituzten. Gero bizikletak egin zituzten hiru bat urtean. Limarekin ibiltzen zen bera. Gallastegi bizikleta markarekin korritu zuten txirrindulariak ere egon ziren: Loroño, Langarika eta Bidaurreta. Oñatin "kilometro lanzado" munduko txapelketa egoten zen.

1.731. Mugarza ehun lantegira lanera (BER-298/025)

Gallastegik kiebra jo aurretik, Osumara joan zen lanera, Soroluzen bertan. Urtebete eta erdi eginda, Madinanera joaten saiatu zen, Bergarara (enpresa beraren parte ziren). Mugarza ehun lantegian hasi zen orduan, Bergaran. 24 urte egin zituen han lanean. Horrek ere kiebra egin zuen gero. Tela tindatzen ibili zen Mugarzanean; astorgan erosten zuten tela.

1.732. Tindatze lanak I: garbitu, tindatu eta lehortu (BER-298/027)

Mugarza ehun lantegian tindatzailearen laguntzaile moduan egon zen. 100 metroko piezak erosten zituzten; tindatzeko, ehun kiloko rolloak prestatzen zituzten. Aska bat zuten, eta tela makinatik pasatzen zen handik. Tinta irakiten egoten zen, azula zenean. Kolore bakoitzak bere tenperatura zuen. Garbitu egiten zuten tela, eta sekaderoan zintzilik jarri.

1.733. Tindatze lanak II: "aprestoa" (BER-298/028)

Behin tela lehortuta, "aprestoa" jartzen zioten: kola ematen zioten. Nola egiten zuten azaltzen du, kola askan jarri eta makinarekin tela handik pasarazita. Toki beroan lehortu behar izaten zen tela gero. Baporetan pasatu, enroilatu eta listo zegoen tela. Kanpora saltzen zuten batez ere.

1.734. Mugarza itxi ondoren, Asa torloju tailerrera (BER-298/029)

Mugarza itxi zutenean, langabezian egon zen. Mendian ibili zen, egur lanetan, eta gero Asa tailerrera, katalanena. Torlojuei bainua ematen aritu zen.

1.735. Osintxura erromeriara (BER-298/031)

Osintxura joaten ziren erromeriara, hilean bitan edo. Mekolaldeko erromeria. Oñatiarra zuen emaztea, Patrue kalekoa.

1.736. Oñatiko txokolate lantegiak (BER-298/033)

Oñatin txokolateria eta aterkin lantegi asko zegoen sasoi batean. Egaña eta Orbea, Kale Berrian.

1.737. Oñatira trenez eta bizikletan, jaietara (BER-298/035)

Oñatira ere joaten ziren erromeriara, jaietan. Egunez joaten ziren, eta bederatzietan zen bueltako azken tren. Olabarrietako jaietara joan zen behin bizikletan, lanetik irtenda. Apaizak esan zuena kontatzen du.

1.738. Idi demak Bergaran (BER-298/037)

Idi probatan ez dira sekula ibili. Auzoko batzuk bai. Frontoi aurrean egiten ziren idi probak Bergaran. Astotegiaren ondoan, probalekua. Urrutia ibiltzen zen idiekin.

1.739. Auzoko karreteroak, haritz okerrak garraiatzen txalupak egiteko (BER-298/038)

Auzoko karreteroek, hiru baserritakoak, haritz okerrak ekartzen zituzten idiekin, gero txalupak egiteko.

1.740. Bergararrak Bilbon, bi anekdota (BER-298/042)

Txanpon anaiak eta Arandonekoak Cantabriara joaten ziren. Bilbon Txanpon-eta ezkutatu egin ziren, eta besteak bila, aguazilari galdezka. Olako amerikano oinez joan zen Bilbora, eta Gran Vian ogitartekoa jaten zegoela, aguazila joan zitzaion, ijito planta hartuta.

1.741. Aitaren ibilerak, gerra garaian (BER-299/003)

Aitonak zapata lantegia zeukan, baina aitak beste bi bide bat hartu zuen: tailer mekanikoa jarri zuen, baina gerra etortzean galdu egin zuen. 250 pezetako isuna jarri zioten, gainera. Bilbon atxilotu zuten, eta Mirandara eraman preso. Gizon batek txistua bota zion. Zerrajeran egon zen lanean gero, eta gizon hori ikusi zuenean zer gertatu zen kontatzen du. Aitari Mutrikuko soldadu batek lagundu egin zion.

1.742. Aita kartzelan eta langile batailoietan (BER-299/004)

Ez da akordatzen aita kartzelan zegoeneko kontuez, oso umea zelako. Amak aitari bere argazkia bidali zion Langile Batailoira. Hiru urte inguru egin zituen preso aitak.

1.743. Gerraostean beraiek goserik ez, baina ingurukoek bai (BER-299/005)

Gerrosteko gosea. Osaba bat okina zuten eta beste bat harakina; goserik ez zuten pasatu. Eskolan baziren bera baino okerrago zeudenak. Militarrak egon ziren Bergaran, eta kapitain batek odola batzen zuen (hiltegian), egosi eta soldaduei emateko; tuberkulosirik ez zuten izaten hala.

1.744. Eskolan, bandera espainola jarri behar (BER-299/006)

Eskolan ogia lapurtzen zioten poltsikotik. Eskola publikoetan ibili zen. Eskolan ezin zuten euskaraz hitz egin, zigortu egiten zituzten (botoi bat pasatzen zioten elkarri), eta kalean burla egiten zieten. Bandera espainola jartzeko nazionalisten umeak aukeratzen zituzten; besoa jaso behar zuten. Francoren irudia zuten horman. Umiliatuta sentitzen ziren, baina etxean errespetuaren balioa erakutsi diete beti.

1.745. Eskolatik piper, osabarengana joateko, hiltegia (BER-299/007)

Sei urterekin hasi zen eskolan. Hiltegia joaten zen osabarengana, piper eginda, zazpi urterekin. Lagundu egiten zion. Harakinek hiltzen zituzten animaliak; matariferik ez zegoen lehen. Guillermo karreroak garraitzen zuen haragia. Albaitaria joaten zen, Don Benito, animaliek gaixotasunik ez zutela ("lanparoiak" ohikoak ziren, tuberkulosia) eta hiltegia garbi geratu zela ziurtatzeko. Camachotarrak hasi ziren lan horretan gero. Gaixo zeuden animaliak erre egiten zituzten; ermandadeak ordaintzen zion baserritarrari.

1.746. Gibela, tuberkulosia zutenentzat; errazionamendua (BER-299/008)

Gibel bila joaten ziren tuberkulosia zutenak, harategira. Errezeta egiten zien medikuak. Gaixoek lehentasuna zuten. Residentzian tuberkulosoentzat tokia jarri zuten, ospitalean. Errazionamenduan ere ematen zuten garai batean: ez zen libre nahi zenuenari saltzea. Ogia ere saltzen zuten beraiek harategian, Bonbuluko osaba okinak egina.

1.747. Bonbuluko errota; gerraosteko ogi beltza (BER-299/009)

Bonbulu non dagoen azaltzen du. Hantxe ikasi zuten igerian, kanalean, osaba okinak erakutsita. Bonbuluko errota. Gerraostean erroten egoera zein zen. Estraperloa. Errazionamenduko ogi beltza.

1.748. Ehun mutiko gelan, maisuarekin (BER-299/011)

14 urtera arte ibili zen eskolan. Mutilak bakarrik zeuden gelan. Neskak mojetara joaten ziren edo frontoiko eskolara, Kontxitarengana; oso maistra ona zen. Kaligrafia eskasa du. Aspertu egiten zen eskolan. Ehun mutiko zeuden gelan, maisu harekin. Beste maisu batzuk ere bazeuden. Makila erabiltzen zuten, ume baserritarrek eramandakoak. Errurik gabe zigortu zutenean, aitzak esan ziona.

1.749. Umetako jolasak: kalekoak auzoetakoen kontra borrokan (BER-299/012)

Eskolako kontuekin baino gehiago gogoratzen da eskolaz kanpokoekin. Umetako jolasak: txikileroika, "Tres navios", gerrak beste auzo batzuetako mutikoen kontra... Tiragoma erraldoiak egiten zituzten, harriak jaurtitzeko. Karburoarekin bonbak egiten zituzten. Buztinarekin ere jolasten zuten, eta kaniketara ere bai.

1.750. Errekako jolasak (BER-299/013)

Errekan ere jolasten zuten. Egur zatiekin lasterketak egiten zituzten. Kanalean eta presa azpian ibiltzen ziren. Neskak soinekoarekin sartzten ziren uretan.

1.751. Mutikotan zigarro erretzen eta ardoa edaten (BER-299/014)

Zigarroak erretzea, umetako gaiztakeria. Bisonte tabakoa erosi zuen lehengusuak. Zorabiatu egin zen. Amak igarri egin zuen. Osabari ardoa lapurtzen zioten.

1.752. Buruan zauria, marroka jolasten (BER-299/015)

Eskolara joan aurretik eta ondoren ibiltzen ziren jolasean, eskolan bertan toki gutxi zutelako. Marroka ibiltzen ziren; buruan zauria egin zuen pretiletik behera erorita.

1.753. Eskiatzera, Arantzazura (BER-299/016)

Eskiatzera joaten ziren Arantzazutik gora, Duru aldera. Motoan joaten ziren, inori esan gabe. Anaiaren eskiak erabiltzen zituen, hark soldaduskan erosiak. Goikobentan lehortu, meriendatu, eta etxera. Arrebak sendatzen zizkion zauriak.

1.754. 14 urterekin harategian lanean (BER-299/017)

14 urterekin hasi zen harategian lanean. Pasaiara joan zen txorizoak egiten ikastera. Odolosteak, berriz, etxeko formularekin egiten zituzten. Umeei lanean erakustea ona dela uste du: zenbat eta lehenago, hobe. Zazpi urterekin hasi zen bera bildotsak hiltzen. Aberea zailagoa zen.

1.755. Bildots larrua oso ondo ordaintzen zuten (BER-299/018)

Tripakiak garbitu, animaliak narrutu... horiek ziren hasiberrien lanak. Bildots larruak asko balio zuen; Burgos aldekoek erosten zituzten. 600 pezeta ordaintzera iritsi ziren. Bildotsen tripotxak ere estimatuak ziren.

1.756. Estraperloko bildotsak eta hiltegiko kontuak (BER-299/019)

Bildotsak etxean hiltzen zituzten, estraperlo garaian. Ordurako matarifea jarrita zegoen, hiltegian, eta hark kobratu egiten zuen. Larrutu ere beraiek egiten zuten orduan. Zenbakia jartzen zieten bildotsei. Erremolkearekin joaten ziren animalien bila.

1.757. Ganadu tratua I: baserritarrekin zuzenean (BER-299/020)

Ganadu tratua nola egiten zuten baserritarrekin. Ganadua ikusi, eta baserritarrekin zuzenean negoziatzen zuten. Konfidantza hartzen zuten, bera ere ez zelako gezurretan ibiltzen.

1.758. Gerran hil zuten bergararra (BER-299/021)

Berari ganadua saltzen zion mutilaren (izenik ez du esaten) aitona gerra garaian hil zuten, gorrien ematen zuten tabakoa hartu zuelako. Kanalera salto eginda ihes egin zuen bergarar baten pasadizoa ere kontatzen du (Osintxukoa ote?).

1.759. Ganadu tratua II: kanalean ala begira (BER-299/022)

Ganadu tratua kilotan egiten zen, hiltegian, kanalean. Begira (begiz soilik ikusita, pisua kalkulatu), arraldeka, gutxi egiten zuten. Begirako tratuan normalean baserritarra galtzen ateratzen zen. Denbora gutxian pisua hartzeko moduak. Burgosera joaten ziren erostera, sasoi batean, baina lan handia zen. Iruzurra egin zieten behin.

1.760. Ganadu tratua III: Errioxako ganadua (BER-299/023)

Errioxara joaten ziren erostera, baina berak utzi egin zuen, txahalak gizentzeko produktuak ematen hasi zirelako.

1.761. Bildots tratua I (BER-299/025)

Bildotsak Bergarako plazara eramaten zituzten, eta gero Villafrancara joaten hasi ziren. Oñatira eta Aramaiora ere joaten ziren erostera. Bergaran artzain gutxi zegoen, eta bildotsak ez ziren urte guztian izaten (umealdi bakarra eta ez bi, orain bezala). Batzuetan artzainarekin zuzeneko tratua ere egiten zuten, plazatik aparte.

1.762. Bildots tratua II (BER-299/026)

Harakin bakoitzak bere bildotsak zituen, baina batzuetan elkarrekin egiten zuten erosketa. Prezioa Villafrancak jartzen zuen normalean. Montero tratanteak ere jartzen zituen prezioak; irundarra zen, eta hiltegia zeukan han. Baita haztegiak ere. Carrero Blanco zuen sozio moduan negozioan. Egunero 5.000 bildots exportatzen zituzten Europara. Salvoconductoa lortu zien Monterok behin, Frantziarako.

1.763. Harakinen txukuntasuna: eskola frantsesekoak (BER-299/027)

Bergarako harakinen kanpora begiratzen zuten beti. FEskola frantsesekoa zen osaba, eta Gipuzkoan Bizkaian baino hobeto lan egiten zutela dio, txukunagoak zirela lanean. Amantala erabiltzen zuten beti (tela gutxi zegoen sasoiari, Arantzazuko fraideek sotana egiteko erabiltzen zutena zerabilten; Milikuakoaren bitartez lortzen zuten tela hura).

1.764. Lehenengo hozkailuak (BER-299/029)

Harategiko lana nolakoa zen. Haragia gertatzen zuen lehenengo, piezak. Hozkailua jarri aurretik, igandetan ere lana egiten zuten. Beraiek jarri zuten Bergarako lehenengo edo bigarren hozkailua. Banco Canadian ordaindu zuten. Ramon Vizcaino. Hozkailuen arrakasta.

1.765. Lapurretak harategian (BER-300/001)

Hozkailua, kamara eta antekamara zituzten harategian. Lapurreta egiten zien emakume batek, eskatutakoaren bila kamarara joaten zirenean, eta nola harrapatu zuten kontatzen du. Txorizoak lapurtzen zituen beste emakume batek.

1.766. Harategian lanean, egunean bost ordu lo eginda (BER-300/002)

Harategiko lanak. Jangela batzuetara haragia eramaten zuten, eta goizeko lauretan jaikitzen zen dena prestatzeko. Erretiroa hartu zuenean ikasi zuen goizeko seiak baino geroago jaikitzen. Larunbat arratsaldea izaten zuen libre; bestela, beti lanean. Askotan, egunean bost ordu lo eginda.

1.767. Ganadu tratura, larunbatetan (BER-300/003)

Ganadu traturako nola moldatzen zen, larunbatetan. Ganadua batzen zuen mutil batek, eta horrek lana errazten zion. Iruñe era ere joaten ziren, hiltegira (Bergarako Udalarekin arazoak izan zituzten); kuadrillak egiten zituzten, txandaka joateko. Denera iristen ziren, eta ez daki nola.

1.768. Txorizoak, saltxitxak eta odolosteak egiten (BER-300/004)

Txorizoak arratsalde-gauean egiten zituzten. Gauerdian ere bai inoiz. Saltxitxak eta hanburgesak gutxi egiten zituzten aldiko, baina txorizoak asko. Bergarako odoloste onenak Mugarza gainekoak eta beraienak ei ziren. Astean 200 kilo tipula, makinaz xehetuta. Gipuzkoako lehenengotako pisu elektronikoa berak erosi zuen. Makinazalea da.

1.769. Jateko ohiturak I: gisatua egiteko astirik ez orain (BER-300/005)

Jateko ohiturak nola aldatu diren. Gisatua gehiago jaten zen lehen; orain, xerra. Gisatuak egiteko astirik ez dago gaur egun. Haragia eskuz askoz hobeto ebakitzen da makinan baino.

1.770. Lehenengo izozkailuak (BER-300/006)

Lehenengo izozkailuak, duela 40 urte. Zortzi erosi zituzten, zortzi harakinentzat. Diruarekin Ameriketara alde egin zuen saltzaileak.

1.771. Jateko ohiturak II: odolosteak, oilaskoa (BER-300/007)

Odolostea gehiago saltzen zen lehen. Babarrunarekin. Oilaskoa, berriz, asko zabaldu da. Oikina izan zen hasi zena. Oilasko haztegiak. Oikinakoen gainbehera. Baserrietan oilasko gutxi egoten zen. Lehen osorik saltzen ziren oilaskoak, orain zatika.

1.772. Oraingo harategietan denetik saltzen dute (BER-300/008)

Bere ustez, orain okela gutxiago jaten da lehen baino. Pizzek eta horrelakoek lekua kendu diote. Oraingo harategietan denek saltzen zuten. Espezializazioaren aldekoa da bera, baina beraien harategian ere beste gauza batzuk saltzen hasi ziren. Frantzian orain espezializaziorako joera ikusten da.

1.773. Errekan arrantzan (BER-300/010)

Hiltegia erreka ondoan zegoen, eta arrantza egiten zuten han, kordelekin. Arrain mordoa zegoen: aingirak, barboak... Merienda asko egiten zituzten horrela. Okindegi ondoan, berriz, eskailuak harrapatzen zituzten. Sarboak sardexkarekin harrapatzen zituzten.

1.774. Erreka urbanizatu egingo luke (BER-300/012)

Errekan ordu asko pasatzen zituzten, arrantzan eta jolasean. Erreka saneatzea inportantea iruditzen zaio, eta urbanizatea; hori egingo luke berak Bergaran. Alemanian ikusitako sistema azaltzen du.

1.775. Erromeriazalea zen; neska laguntzea (BER-300/016)

Ozaetako erromeriarra joaten ziren. Oñatira ere joaten zen, jaietara, motoan. Aitak erabiltzen zuen egunez, eta berak gaez. Sanmartzialak, Elosuko jaiak, Gorlakoak, Labe Garaietakoak... Neska laguntzea; behin harrika hartu zituzten bertako mutilek. Osintxura eta Arrasatera oinez. Berandu etxeratu arren, goiz jaikitzekeo gaitasuna zuen.

1.776. Harategia itxitakoan ere lanean segi behar (BER-300/017)

Zortziretan ixten zuten harategia, baina barruan lanean segi behar. Ezkondu ostean, lan gehiago izan zuen.

1.777. Aitonaren zapata lantegia eta narrutegia (BER-300/020)

Aitonak zapata lantegia zuen, eta gera garaian enpresa militarizatu egin zen: kartutxerak egiten zituzten, bota militarrek... Balak aurkitu zituzten han, jolasean mutikotan, eta sutara bota zituzten. Aitonamonen argazkia erakusten du. Amona Zeziliak taberna zeukan, Largonekoa. Larru lantegia ez zuen martxan ezagutu Jabierrek. Antzuolako larrua. Bizi guztirako zapatak egiten zizkien aitona. Argazkiak ere ateratzen zituen aitona. Gizon ilustrata zen.

1.778. Aita, hainbat lanetan ibilia: ikatza eta ardoa saltzen (BER-301/003)

Ama Oñatikoa. Aita Bergarakoa, Ariztizabal baserrikoa zen, Basalگو auzokoa. Kalera joan zen bizitzera, eta hainbat lanetan ibili zen: ikatza saltzen, ardo denda txiki bat jarri zuen Zubietan, Correos-eko garraiolari... Lau anai-arreba ziren. Anaia jesuita joan zen.

1.779. Beheko eta goiko estazioak (BER-301/004)

Bergaran bi tren geltoki zeuden: goikoa eta behekoa. Trenak buelta handia ematen zuen goiko estaziora iristeko; anekdota kontatzen du. Antzuolatik Mekolaldera zihoan tren.

1.780. Herri eskolan gerra hasi zen arte (BER-301/009)

Herri eskolan ibili zen, goiko plazan (gaur egungo epaitegian). 40 bat ziren gelan. Del Barrio, Basterra, Azpiazu... maisuak. Errepublikara garaian Del Barrio egurtu egin zuten, eta ordezkoa jarri zuten. Gerra hasi arte ibili zen eskolan. Errepublikara garaiko eskola.

1.781. Eskola garaiko jolasak (BER-301/010)

Eskola garaiko jolasak. Futbolean eta pilotan ibiltzen ziren. Mutikoak bakarrik zebiltzan eskolan; neskak frontoiko eskolara joaten ziren, eta auzoetan ere bazeuden.

1.782. Lehoiak atzaparkada eman zion (BER-301/012)

Sei urte zituenean, zirkoa joan zen Bergarara. Kamioietan joan ziren. Lehoiak besotik heldu zion. Aitari zaldiak ihes egin zion, lehoien usainarengatik edo. Zabalanera eraman zuten, eta han artatu zuten. Mujikak egiten zizkion kurak. Egunkarian agertu zen albistea, baina beraiek ez zuten erosten, eta ez zuen ikusi.

1.783. Gerra garaian Bergaran geratu ziren (BER-301/015)

Eskola bukatu ostean gerra hasi zen. Solfeora joaten zen; saxofoiarekin ibiltzen zen bera. Gerrarekin utzi egin behar izan zuen. Etxean egon ziren. Osabaren etxera joaten ziren. Basalgoko Izarralde baserria.

1.784. Bergara erasotua, gerra garaian (BER-301/016)

Gerra garaian bonbak bota zituzten plazan, eta Algodoneran ere bai. Nazionalak zeuden Bergaran. Anaia ikusmen txarra zeukalako libratu zen gerrara joatetik.

1.785. Soldadutza Ferrolen (BER-301/018)

Bera soldadu egon zen, gerraostean. Marinan eman zuen izena, boluntario, Arizmendi lagunarekin batera. Ferrolera joan ziren, trenez. Bi urte egin zituzten han, aurreko kintakoek baino gutxiago. Madrilen ere egon zen.

1.786. Paje moduan, kondearenean (BER-301/020)

Larrañaga zapata tailerrean hasi zen lanean, gerra aurrean. Gero Conde del Valleren etxera joan zen, paje moduan. Iñigo deitzen zioten, kondeak berak Ignacio zeukalako izena. Bere ohea egiten ikasi zuen han. Alemana zen "ama de llaves". Alemanek batzarrak egiten zituzten han. Bere lanak zeintzuk ziren.

1.787. Kondearen etxeko langileak (BER-301/021)

Kondearen etxeko langileak: bi paje, bi sukaldari... Ermita ondoko etxean Etxaniz bizi zen, lorazaina. Ermitan, San Martin de Berriotxoak egindako konfesalekua zegoen.

1.788. Kondearen kapoiak (BER-301/023)

Conde del Valleren kontuak. Sotomayor dukearekin harreman ona zuen. Baserriak zeuzkan, eta maizterrek kapoiak eramaten zizkioten, eta berak batera eta bestera bidaltzen zituen. Soldatak emateko orduan jenio txarreko jartzen zen kondea.

1.789. Bi urte kondearenean (BER-301/026)

Bi urte egin zituen Santa Ana jauregian, beheko kondearen etxean, lanean. Gauetz irten, eta dantzara joaten ziren. Gerra denbora zen, eta jeneralak ere joaten ziren bisitan.

1.790. Alhondigan lanean (BER-301/027)

Kondearen etxetik udaletxera joan zen lanera. Soldadutzatik bueltan ere jarraitu zuen Udalarentzat lanean, alhondigan. Pisatu egiten ziren produktuak. Hiltegira ere joaten zen, ganadua pisatzera, zerga kobratzeko. 20 urte egin zituen udal langile moduan, eta gero Mekolalden hasi zen lanean, Narbaizanean.

1.791. Narbaiza ehun lantegian lanean (BER-301/028)

Arturo Narbaiza ehun lantegian hasi zen, Mekolalden. Tindategia ere bazuten. Tavesa sortu zen gero. Narbaizan ofizinan egon zen bera.

1.792. Lapurreta baten lekuko, 1971. urtean (BER-301/029)

ETAK lapurreta egin zen 1971. urtean banku batean, eta bera hantxe zegoen, Narbaizako dirua eramatera joanda. Deklaratzera joan behar izan zuen gero, Donostiara.

1.793. Guardia Zibilaren miaketa (BER-301/030)

Lapur usteko batzuk sartu ziren Narbaizanean, armatuta, eta sekaderoan ezkutatu ziren, baina harrapatu egin zituzten eta kanpora atera. Guardia zibilak ziren, eta miaketa bat zen.

1.794. Txikiteoa San Antonion, kantari (BER-301/034)

Kanturako zaletasuna zuten. Igandetan mezan kantatu, eta gero txikiteoa egiten zuten San Antonio aldean. Denetik kantatzen zuten. Euskaraz ere bai, arazorik gabe, gerraostea izan arren. "El día del esclavo" egiten zuten, baina zarat handirik gabe; zigorrik ez zuten sekula izan (beste batzuek bai).

1.795. Aguazilak eta serenoak (BER-301/035)

Aita aguazila izan zen, ardoa eta ikatza saltzen ibili ostean. Serenoak ibiltzen ziren, gauetz. Elkarte gastronomikoetara joaten zen jendea, 22:00etatik aurrera ezin zelako kantuan egin tabernetan. Isunak. Pregoilari bat zegoen, danborrarekin ibiltzen zena.

1.796. Pregoilaria (BER-301/036)

Bergaran pregoilari bat zegoen.

1.797. Fajeroak (BER-301/037)

Fajeroak zeuden udaletxean: ardoa zahagiak eramaten zituzten tabernetara, alhondigan pisatu ostean. Anekdotak: fajero berri batek pentsatu zuen fajak egiten egin behar zuela lan.

1.798. Udal langileak (BER-301/039)

Udal langileak. Bulegoan laupabost izango ziren, musikako zuzendaria, txistulariak... Igandero jotzen zuten txistua. Sasoi batean ez zegoen alderdi politikorik Udalean, beti berdinak izaten ziren.

1.799. Franco Bergarara joan zenekoa (BER-301/042)

Franco Bergarara joan zenekoa. San Pedroko parrokiako kristoa ikusten egon zen. 50eko hamarkadan izango zen. Soldadu zegoenean, Francoren aurrean desfilatu zuen birritan.

1.800. Bergarako besarkada (BER-301/044)

Barrenkale ez da asko aldatu. Dendak aldatu dira. Irizar jauregian gerra karlistetan Bergarako besarkada sinatu ote zuten. Maroto eta Espartero.

1.801. Txanponenean, ganadua (BER-302/004)

Zubietan jaioa, bertan bizi izan da beti. Etxeak nola aldatu diren. Txanponenean ganadua gordetzen zuten. Frontoi aurrean egiten zen ganadua feria, eta probalekua ere hor zegoen. Zubieta osteko baratzeak.

1.802. "Altzeta" harategia (BER-302/005)

Mutikotan aitonaarekin ibiltzen zen baratzean. Argazki batean, ganadua eramaten agertzen da, bost bat urterekin. Aitona hargina zen, eta aita harekin batera ibiltzen zen, baina gero harategia hartu zuen Komenio kalean (ondoren osaba geratu zen harekin). "Altzeta" esaten diete.

1.803. Etxeko galgoa eta inguruko oiloak (BER-302/009)

Mutikotan hiltegi joaten zen, ganadua hiltzen ikustera. Lehengo argazkietan galgo bat agertzen da; baratzean izaten zuten eta hil egin zuten, ihes egin eta inguruko oiloei eraso egin zielako. Baratzean osabak 40 bat oilo izaten zituen, eta txabola dotorea zuen.

1.804. Eskolan gerraostean, dena erdaraz (BER-302/010)

Eskolan seminarioan eta marianistekin ibili zen, eta gero elementalean. Gerra bukatu zenean hasi zen eskolan. Erdaraz ikasi zuen dena. Ez dago euskaraz alfabetatuta eta pena ematen dio. Marianistetan zigorra zuten euskaraz eginez gero.

1.805. Pilotan umetatik (BER-302/011)

Pilotan ibiltzen zen mutikotan, eskuz. Etxe aurrean ibiltzen zen, kotxe gutxi ibiltzen zen eta. Frontoira ere joaten ziren. Futbolearen ere ibiltzen zen, baina pilota nahiago. Pilota partida onak izaten ziren.

1.806. Bergarako pilota giroa; pilota distrituak (BER-302/012)

Afizionatutan eta profesional moduan ibili zen jokatzeko. Gallastegi pilotaria. Simon Arrieta eta aita bera pilotazaleak ziren. Pilota distrituak sortu ziren gerraostean, eta jokatzera Eibarrera joan behar zuten bailarako denek. Jose Lopetegi zen Gipuzkoako pilota federazioko zuzendaria. Enpresek erabakitzen zuten partiden kontua.

1.807. Pilotarien baldintzak (BER-302/013)

Pilotari moduan gertatu zitzaion kasua kontatzen du: kontratuan jartzen zuen frontoian min hartuz gero, bere kontura zela. Sindikatu bertikala zen ordukoa.

1.808. Pilota mundua lehen eta orain (BER-302/017)

'Empresas unidas' desagertzeak ekarri zuen Bergarako pilota giroaren gainbehera, neurri batean. Lehen askoz pilotari gehiago kontratatzen zituzten. Kontratazio erak nola aldatu diren. Telebistari esker kobratzen dituzte horrelako soldatak orain.

1.809. Pilota gero eta azkarragoak (BER-302/019)

Lehenengo pilotak eta oraingoak diferenteak dira. Orain pilotariak hobeto prestatuta daude, baina pilotak ere aldatu dira. Frontoia ere okerrago zeuden lehen. Jokalariak (dirua jokatzeko zutenek) indarra zuten lehen eta gehiago ziren; orain telebista da indar handiena duena.

1.810. Lehengo tongoak (BER-302/025)

Tongoak izaten ziren lehen. 19 urterekin Bergaran gertatu zitzaiona, Pazkoatan, Alberdi pilotariaren kontra jokatu: berak irabazi zuen. Handik bi urtera jakin zuen tongoa izan zela, irabazten utzi ziola.

1.811. Lehengo tongoak II (BER-302/027)

Arrasateko pilotari batekin gertatu zitzaiona. Nahita galdu zuen bere bikoteak. Tongoa izan zen hura ere.

1.812. Etxe azpian, Oilagorra taberna (BER-306/003)

Etxe azpian erloju denda egon zen, eta gero Oilagorra taberna jarri zuten, 1934an. Ehiztariak jaten zuten bertan.

1.813. Ospitaleko mojekin eta herri eskolan (BER-306/004)

Eskolan ospitaleko mojetan ibili zen eta gero herri eskolan. Basterra eta Zabal maisuak izan zituen. Primo de Riveraren diktadura amaitu, eta Errepublika etorri zen: isiltasunetik zalapartara. Gurutzeak kendu zituzten eskoletan.

1.814. Euskarazko liburuak erre egin zituzten (BER-306/006)

Euskarazko liburuak erre zituzten, Francoren tropak sartu zirenean, irailaren 22an. Errepublika garaian "Xabiartxo" liburua erabili zuten eskolan. Apaizak ere dena euskaraz egiten zuen elizan.

1.815. Zentro karlista eta batzokia Bergaran (BER-306/007)

Bergaran zentro karlista eta batzokia elkarren ondoan zeuden. Antzezlanak egiten zituzten. Gasteizera joan zen batzokitik txangoan, eta baita Sabino Aranaren hilobia bisitatzera ere. Batzokia non zegoen. Falangea non egon zen. Ikastola gerra aurrean San Pedro plazan zegoen.

1.816. Euskaraz ikasi zuten, Errepublika sasoian (BER-306/008)

Eskolan euskaraz ikasi zuten Errepublika garaian. Geografia "lutelestia" zen eta matematikak ere euskaraz: batuketa, kenketa...

1.817. Antzuolako sakristaua hil zuten Bergaran (BER-306/010)

Gerrako oroitzapenak. Tropak sartu zirenean, kasinoa sakeatu zuten, eta gauzak plazan erre zituzten. Milizianoek Antzuolako sakristaua kartzelatik atera eta hil egin zuten; asturiarrak izan ote ziren. Labaderoan bota zuten gorpua, eta mutikoak ikustera joan ziren.

1.818. Baserrira ezkutatzera, gerra sasoian (BER-306/011)

Gerra sasoian mutikoa zen, eta errekan ibiltzen zen, arrantzan. Bergaran egon zen, baina bi hilabete egin zituen baserriren batean: gerra hasi zenean, Agerremuinora joan zen amarekin eta arrebarekin eta bukaerako hilabetea Elosuko bentan eman zuen.

1.819. Elgetan zegoen frontea (BER-306/012)

Agerremuino baserria San Blas azpian dago. Elgetan zegoen frontea, eta tiro hotsa izugarria zen. Francoren aldekoak asko ziren eta ondo armatuta zeuden; besteak, berriz, ez.

1.820. Elgeta zeharo apurtuta (BER-306/013)

Frontea apurtu zutenean, Elgetara joan ziren, ikustera. Elgeta zeharo apurtuta zegoen. Gerra tristea dela dio.

1.821. Gerrako lehenengo egunetan, bonbak (BER-306/015)

Teilatuak ametrailatu ei zituzten Bergaran... Migelek ez du gogoratzen. Hegazkinek bonbak bota zituzten, lehenengo egunetan, baina gero italianoak eta alemanak egin ziren zeruaren jabe.

1.822. Nazionalak Bergaran sartu zirenekoa (BER-306/017)

Nazionalak Bergarara sartu zirenean, Uzkudun boxeolaria ikusi zuen, falangista jantzita. Apaizak pistolekin zihoazen. Gerora, Agorrosoen mutiko falanjisten kanpalekua egon zen, eta orduan ere apaizak pistola zerabilen. 1954an Barrenkalen defilatzen ikusi zituen. Karlistak zeuden Bergaran falanjistak baino gehiago. Ohikoa zen familietan seme bat karlista eta bestea nazionalista izatea.

1.823. Monzonen etxea eta batzokia errekiatuta (BER-306/018)

Monzonen etxea eta batzokia errekiatu egin zituzten. "Falange de las Jons" letreroa pintarazi zioten berari. Herriak hartzen zituztenean, desfileak egiten

zituzten, baina bera ez zen joaten. Frontea apurtu artean eskolarik ez zen izan; gero bai.

1.824. Pintatzen nolatan hasi zen; soldadutzan, koronelareztat pintatzen (BER-306/020)

Egur tailarekin hasi zen, eta Simon Arrietak esan zion ondo marrazten zuela. Berarekin hasi zen. Donostiako lehiaketa batean 3. saria irabazi zuen, eta diruaren zati batekin joan zen soldadutzara. Han koronelarentzat koadro bat margotu zuen, "la batalla de Bailen". Bergarako kondeak bere berri eman zion koronelari, eta primeran egon zen han.

1.825. Simon Arrietarekin ikasi zuen; Bartzelonan, ijito kanpalekuan (BER-306/021)

Simon Arrietak erakutsi zion gehien. Bartzelonan, Madrilen... ere ibili zen. Bartzelonara joan zenean, modelo ijitoa nahi zuten. Ijito kanpaleku batera joan ziren, bila. Bergarako gizon bat bizi zen han, alabarekin.

1.826. Bartzelonako, Madrilgo eta Pariseko pintura eskoletan (BER-306/023)

Bartzelonan pintura eskola batean egon zen; Madrilen eta Parisen ere bai. Harrituta geratu zen Madrilen, modeloak biluzik ikusi zituenean. Escuela de San Fernando. Ez zen asko ordaintzen.

1.827. Parisen, familia batekin bizitzen (BER-306/025)

Parisen etxe batean egon zen, hiru hilabetez; ez zioten asko kobratzen. Patronak biluzien marrazki batzuk eskatu zizkion, logelan jartzeko. Margolari ospetsuekin harremanik ez zuen izan Parisen (Picasso eta). Abstrakturako joera handirik ez du izan berak.

1.828. Parisen, cabaret batean gertatutakoa (BER-306/027)

Migel Egiaren osaba bat postari zegoen Parisen, eta harekin ibiltzen zen bera. Cabaret estiloko taberna batean egon ziren, eta zozketa bat zegoen; tokatuz gero, txiste bat kontatu eta dantza egin behar zen. Berari egokitu zitzaion, eta postaria igo zen oholtzara. Bi txanpain botila eman zizkieten.

1.829. Jendarme euskaldunekin debalde bazkaltzen (BER-306/028)

Lagun postariaren anaia jendarme moduan zegoen lanean. Jendarmeekin bazkaldu zuten, debalde; jendarme asko euskaldunak ziren, Iparraldekoak.

1.830. Bartzelonan, poliziarena egiten (BER-306/029)

Metroan ibiltzen zen. Polizia ibili zen Bartzelonan; bi polizia zeuden pentsioan, bata treneko interbentorea. Erretratua egin zion bati, eta txapa utzi zion, lekuetara debalde sartzeko.

1.831. Bergarara buelta beti; Madrileko giroa (BER-306/030)

Leku askotan ibili arren, Bergarara gustura bueltatzen zen. Simon Arrieta margolariari ere gauza bera gertatzen zitzaion. Madrilen ere bazegoen txikiteoa, baina urte batzuen buruan bueltatu zenean, dena aldatuta zegoen: giroa auzoz aldatuta zegoen.

1.832. Irabazitako lehenengo sariak (BER-306/031)

Ateratako sariak. 1944an aurkeztu zen lehen aldiz, eta, soldadu zegoela, Logroñoeko lehiaketa batean parte hartu zuen; kapitainak bultzatuta aurkeztu zuen koadroa. Madrilera eraman zuten gero lan hori, eta han zazpigarren geratu zen; brontzezko domina eman zioten.

1.833. Erakusketak (BER-306/033)

Bilbon eta Gasteizen jarri izan ditu erakusketak; Donostian ez, erakusketa kolektiboak bakarrik. Baionara ijitoen kanpalekuan margotutakoa eraman zuen.

1.834. Mendizalea umetatik (BER-306/035)

Mendian gaztetik ibili da asko. Zazpi urterekin Elosun egon zen, gerar aurretik. Garbera joaten ziren, handik Intxortara eta Asensiotik buelta. Pirineotara 60 urterekin joan zen, eta baita 3.000koa igo ere; aurretik Ordesan zegoen egonda, gaztetan, pintatzen.

1.835. Pintura eta mendia uztartzen (BER-306/036)

Udalara joaten zen pintatzera, oinez. Miravalles baserrira joaten zen bazkaltzera, Asensioko ermita margotzen egon zenean (Elgeta). Josu ilobak konpondu zuen ermitako sabaiko margolana, handik urte batzuetara.

1.836. 600 erretratu inguru egin ditu (BER-306/040)

Pintatzetik bizi izan da, eta ez zen erraza. Gaur egunean zailagoa izango litzateke. Enkargu asko egin ditu, paisaiak... eta 600 bat erretratu. Gutxi ditu gordeta, banaka batzuk. Arrasateko Galarta margolariarekin pintatzen zuen sarri.

1.837. Okinaren koadro batzuk (BER-306/043)

Horman zintzilikatutako koadroak erakusten dituzte. Etxetik ikusten zuen paisaia, 90eko hamarkadan; asko aldatu da urte gutxian. Azkoaga.

1.838. Pariseko argazkia (BER-306/045)

Pariseko argazkian, Migel bera, bera bizi zen etxeko alaba eta Marcel.

1.839. Ikasketak ospitaleko mojekin eta seminarioan (BER-307/002)

Aranarrekan ez zegoen eskolarik, eta ospitaleko mojekin ibili zen eskolan. Seminarioan ibili zen gero. Batxilergoa egin aurretik utzi zuen, 15 urterekin. Bi-hiru urtean Infernukua taberna gainean Tomas Barrenak partikularrak ematen zituen.

1.840. Neguko eskola, Basterrarekin (BER-307/005)

Neguko eskolan ibili zen gero, iluntzean, Basterrarekin. Tomas Barrenarekin eta Don Eliasekin ere ibili zen partikularrean. Elementalean ofizioak ikasten ziren, baina bera ez zen joan. Pinua sartzen ibili zenean, berandutu egiten zitzaion, eta utzi egin zituen eskolok.

1.841. Esnetarako behiak zituzten (BER-307/007)

Etxean zortzi behi zituzten, esnetarako. 80-90 litro. Esnea saltzera ama joaten zen, astoarekin, eta gero arrebak hasi ziren. Hamar anai-arreba ziren, bera zaharrena. Larrañaga gozotegira eramaten zuten esne asko.

1.842. Neguan artzaina izaten zuten etxean (BER-307/009)

Ardirik ez zuten. Artzaina neguan joaten zen, urtarriletik apirilera. Bildotsak han jaiotzen ziren, eta Bergaran bertan saltzen zituen gehienak. Lehenengo gaztak bertan egiten zituen. Donato Arrizabalaga zen artzaina, Santo Spiritu ermitakoa bera.

1.843. Donato artzaina nondik joaten zen Bergarara (BER-307/010)

Donato artzaina Brinkolatik etortzen zen Bergarara, ardiekin. Urte batzuetan berak lagundu zion bueltan. Gazta egiten zuen gero, udan. Batzuetan Estebanekin joaten zen Bergarara; alabekin ere joan izan zen. Donatok baserria zuen Zegaraman.

1.844. Bergaran egoten ziren artzainak (BER-307/011)

Begarara joaten ziren artzainak aipatzen ditu: Donato, Segundo (Guardia Zibilak Araian hil zuen, deskuido), Emilio... Santa Marinako zubiaren ezkerraldera ere joaten ziren ardiekin. Sanjoxepera ere bai. Dirutan ordaintzen zuten apopilo egotea, eta San Jose egunean pare bat bildots ere bai; egun horretan gonbidatuak izaten zituzten.

1.845. 70eko hamarkadara arte joan zen artzaina (BER-307/012)

Donato artzaina urte askoan joan zen. Duela 43 urte arte. Oinez eraman zituen beti ardiak. Etxean gaztandegia zuten jarrita. Etxea nolatan erosi zuen aitak, ezkonberritan.

1.846. Ardi lanak ere ikasi zituen berak (BER-307/014)

Artzain lanak ere ikasi zituen berak. Berak Donatorekin egiten zuen lo, ohe berean. Gaez ere laguntzen zion batzuetan. Ardiak etxe ondoan egoten ziren. Elurra egiten zuenean, beheko kondearen pajearekin konpontzen zen, haren larreak erabiltzeko.

1.847. Idiak prestatu, eta arabarrei saldu (BER-307/017)

Idiak ere bazituzten. Bi pare, bat gaztea, prestatu beharrekoa. Gero saldu egiten zituzten; Erramu zapatuko feria ona zen horretarako. Arabarrei saltzen zizkieten.

1.848. Esnea eta patata saltzen zuten (BER-307/018)

Esnetara dedikatzen ziren. Esne suitzarrak izan zituzten lehenengo eta gero holandarrak. Baratzeko gauza askorik ez zuten saltzen. Patata asko jartzen zuten, eta baita saldu ere. Lasagabaster ehun lantegira esnea eramaten zuten, eta hango jabeak granja bat erosi zuen Araban; haren bitartez patata hazia ekartzen zuten Arabatik.

1.849. Gaztainak ere bazituzten (BER-307/019)

Gaztainak ere bazituzten, baina eurenak ez ziren lurretan. Beraien baserriaren jabeak, Azkonak, sartutako gaztainadia zen. Itxiturak alkaziarekin egiten zituzten gaztaina egurrarekin baino gehiago. Urtero joaten ziren gaztainak batzera, bi familia, gurdiarekin. Gurdikada bat baserrira eramaten zuten eta bestea kalera, Satorretxera.

1.850. Garia eta gari jotea (BER-307/023)

Artoa, garia eta patata. Gari asko hartzen zuten. Kupoa zegoen, eta entregatu egin behar izaten zuten; huskeria ordaintzen zieten. Makina zuten garia jotzeko, matxaka, Bergarako Garitano tailerrean egindakoa; txanketearekin ez da asko akordatzen. Aita gari jotzen ibiltzen zen etxez etxe, idiekin eta gurdiarekin.

1.851. Gari jotea eta afari-merienda (BER-307/025)

Gari jotzen elkarri laguntzen zioten. Azaok sartu eta atera jende nagusiak egiten zuen; gazteek sabaira altxatzen zituzten. Matxaka eta gero, gari joteko makina etorri zen. Orduan, azaorik egin beharrik ere ez. San Prudentziotik joaten zitzaizkien, idiekin. Gari jotea bukatzean afari-merienda egiten zuten, eta baita mozkortu ere, ardoa edanda.

1.852. Garia ebakitzeko makinak (BER-307/026)

Garai ebakitzea beti makinarekin ezagutu du. Aramaioko kontuak esaten dizkio Kepak. Beraiek zer nolako makina izan zuten. Trilladorak. Makinak nola aldatu ziren.

1.853. San Martin jaiak, auzoan (BER-307/028)

San Martinak ziren beraien auzoko jaiak, San Martin de Agirre santua Zabaleta baserrian jaio baitzen. Beste batzuek Beasaingoa zela diote. Gonbidatuak izaten zituzten, pazkoa egunean eta San Jose egunean, eta San Martinetan jaiak. Zer izaten zen: erronomia, bolatokia, taberna... soinu jotzailea osintxuarra zen. Ermitarik ez dute auzoan; entzunda dauka santa Ana zela beraien ermita, baina kondeak beretako hartu zuela, bere lurretan zegoelako.

1.854. Idi apostuak, aizkora eta sega (BER-307/032)

Ez ziren idi probatan ibiltzen. Bergaran egiten ziren, frontoi aurrean, Erramu zapatuan eta. Auzoko batzuk bai, ibiltzen ziren. Aizkora ez, baina segan ibiltzen zen. Desafioa egin nahi zioten, eta berak onartu ez. Zelaiak ere bazituzten. 20 hektareatik gora zuten denera. Belarra nola batzen zuten, gurdian.

1.855. Abereen otorduak eta beraienak (BER-307/034)

Ganaduari zer ematen zioten jaten: belarra, baba beltza eta artoa. Taloak, morokila eta ogia. Astero egiten zuten labeko sua. Talo esnea. Babarrunak jaten zituzten eguerdietan. Bi txerri hazten zituzten, eta urte guztian zuten urdaia. Postrea. Afaltzeko, porru patatak. Gaztaina egosiak.

1.856. 12 urtetatik txanponen bilduma egiten (BER-309/001)

Errazionamenduko tabakoa hartzen zuen, tranpa eginda, 17 urterekin, lagun batekin txanponengatik trukatzeko. Txanponen bilduma egiten du 12 urte zituenetik; osaba-izebek Argentinatik bidalitako txanponekin hasi zen.

1.857. Errepublikako eta gerra sasoiko dirua (BER-309/003)

Zein txanpon gorde zituen azaltzen du. Gerra denborako dirua: eskualde bakoitzena diferentea; kartoizko dirua. Errepublikako dirua.

1.858. Gerraostea: errazionamendua eta kupoak (BER-309/005)

Errazionamenduko tabakoa gezurretako paperekin hartu, eta Belgikako txanponengatik trukatzeko. Ogi gogor borobila. Goserik ez zuten pasatu. Etxe ondoan hirin lantegia zegoen. Kupoak bertan entregatzen zituzten baserritarrek. Nagusiak kanpokoak ziren. Langileak Bergarakoak; mutikotan, haiei jatekoa eramatera joaten zen.

1.859. Aita, ehun lantegiko arduraduna (BER-309/006)

Lantegiko arduraduna zen aita, eta bertan bizi ziren. Errotak eta okindegiak. Kontrabandoko ogi zuria. Bi anai ziren.

1.860. Filatelia elkarteak (BER-309/008)

Filateliak indar handia izan zuen Bergaran; erakusketa asko antolatzen zituzten. Telebistarik ez zegoenez... Gazterik ez dute taldean. Elkartzen jarraitzen dute. Gaur egungo kontuak: euro berriak.

1.861. Lehen bildumazale gehiago orain baino (BER-309/010)

Egiten diren bildumak: poltsikoko egutegiak, puro bitolak, pospolo kaxak, txanpain tapoiak... lehen bilduma gehiago egiten ziren orain baino. Denbora gehiago zuten, baina ez ziren aspertzen. Askok ibiltzen ziren kalean. Txikiteoa egiten dute orain ere.

1.862. Txikiteoaren ohitura I (BER-309/011)

Txikiteoa nola aldatu den. Lehen jende gehiagok egiten zuen. Orain zuritua edaten da gehiago. Iluntzeko txikiteoa utzita dauka, baina goiz eta arratsalde egiten dute batzuek. Orain goizean egiten du. Garestia ere bada. Txandaka ordaintzeko ohitura.

1.863. Txikiteoaren ohitura II (BER-309/013)

Kaja jartzeko ohiturarik ez zuten lehen, baina sistema ona iruditzen zaio, bestela batzuek gehiago ordaintzen dutelako besteek baino. Egunean zazpi bat txikito, iluntzean; batzuek hogeitun ere bai. Oraingoak baino txikiagoak eta merkeagoak ziren. Oraingoek baino kalte gutxiago egiten ote zuten.

1.864. Ardoaren partiketa eta alhondiga (BER-309/014)

Ardoaren partiketa fajeroak egiten zuen tabernetan, alhondigatik pasatuta. Tranpak ere egiten zituzten. Sagardoak ere komisioa zeukan.

1.865. Txikiteoaren ohitura III: ardoaren prezioa (BER-309/016)

Oñatin, txikitoa pezetara igo zutenean, greba egin zuten. Bergaran ere bai. Bi tabernetan ez zuten igo, eta denak hara joaten ziren. Txikitero beteranoentzat zentimoak inportanteak ziren. Intxorta tabernak bezero asko lortu zituen hala, prezioa igo gabe.

1.866. Txikiteoko ohitura IV: kantuan (BER-309/017)

Kanturako zaletasuna zegoen txikiteoan zebiltzala; Julio Larrañagak-eta oso ondo kantatzen zuten. Asteburuetan kantatzen zuten, eguneroko txikiteoa ez zuten denek egiten. Lan egunak zenbat ordukoak izaten ziren.

1.867. Emaztearen kontuak: "prakamotxena" (BER-309/019)

Emaztea izango zuena nola ezagutu zuen ez du gogoratzen. "Prakamotxena" okindegikoa zen; izena nondik ote datorren, Algodonerako greba batekin lotuta ote zegoen, "barcanos"-etik. Emazteak erloju denda zuen.

1.868. Santa Marina eta San Pedro parrokiak (BER-309/021)

33 urtean izan zen junta parrokiakoa. Santa Marina parrokia eta San Pedrokoa, herritarrak bitan banatuta daude. Oxinondo eta Ariznoa herriak ziren lehen, eta bakoitzak bere eliza zuen. 1870 arte, errejistro datu denak elizan gordetzen ziren. Sasoi batean ez zen derrigorrezkoa errejistratzea. XVI. mendeko kontuak. Antzinako errolda bati buruzko kontuak.

1.869. "Irugixonekoak" (BER-309/022)

Bere familiaren genealogia. Ugabide baserrian bizi ziren Laskuraindarrak. Antzuolatik etorri ziren Bergarara. Irugixora joan zen aitona, gaztetan, bizitzera, baina santa Anan bizitakoa zen. "Irugixonekoak" esaten diete.

1.870. Familiaren jatorria: Santa Ana (BER-309/024)

Beheko kondea Aramaiotik etorria zen: lehenengo Dominena baserrira joan zen, gero Zelai baserrira eta gero Santa Anara. Laugarren kondea, Ignacio Murua Balzola, Santa Ana jauregian hil zen. Conde del Valle etorri aurretik bere familia han bizi zen, errotan.

1.871. Santa Ana jauregiko kontuak (BER-309/027)

Kondea jaio zenean, aitajauna umea zen; elkarrekin jolastuko zuten seguruenez. Ermita baino goraxeago zegoen errota; pilotalekua dago orain han. Errotalde. Goiko kondea (Gaitan de Ayala) eta behekoa senideak ziren.

1.872. Beheko kondea (BER-309/031)

Kondearen anekdota. Seminariora joaten zen mezetara, eta hura ikusita 'Txantxiku' deitzen zioten batek esan zuena.

1.873. Junta parrokiako lanak I (BER-309/034)

Junta parrokiako lanak. Familia parrokiakoa. Bi batzorde zeuden, txikia eta handia. Elizara loreak eramatea debekatu zuten, gastu handia zelako familiarentzat. Entierroa debalde zen kuota ordainduta. Gaztea zela, kandela eta manta jartzen zen hilberrientzat.

1.874. Junta parrokiako lanak II (BER-309/036)

Familia parrokiaren kontuak. Kontrakoak ere izan zituzten. Hilketak Galiziatik ekartzen hasi ziren.

1.875. Hildakoa bizkar gainean, Goimenditik (BER-309/037)

Orduko hiletak. Hildakoa bizkarrez eramaten zuten elizara. Basalgo auzoko Goimenditik bide luzea zegoen. Lokatzez beteta iristen ziren. Hango familiak aipatzen ditu. 90 biztanle zeuden Goimendin XX. mende hasieran. Betaurrekodun emakume bat zaldi gainean joaten zen Goimenditik Bergarara. Intxuzabaleko Tomas ere erostetak egitera joaten zen, oinez.

1.876. Julianen gaztetako ibilerak (BER-310/002)

Julianek gaztetan nora joaten ziren azaltzen du: Araotzera, Marulandara... bizikletan ibiltzen ziren. Marulandako neskalaguna izan zuen Julianek; moja joan omen zen. Hika.

1.877. Erromeriaz erromeria, neskatan (BER-310/004)

Julianen neskalaguna moja zergatik joan ote zen, apaizak engainatuta edo. Asko joaten ziren moja. Erromeriaz erromeria ibiltzen zen Julian, bizikletan (Eder markakoa). Marulandaraino ere bai, sasoiak zuten eta. Ibilaldi handiak egiten zituzten. Azalditako neska laguntze baten anekdota kontatzen du Julianek. Hika.

1.878. Baserritarrak, neskatan traketsago (BER-310/006)

Baserritarrak ez ziren urruti joaten erromerietara: Elgetara, Osintxura... Bizikletarik ez zuen. Neskek ez zuten baserritarrik nahi; maiorazgoa izanez gero, tira, baina bestela... bigarren mailan zeuden. Laztan bat emateko denbora asko pasatu behar zen.

1.879. 18 urte arte auzoan bueltak (BER-310/007)

Markos 13-14 urterarte ez zen kalera joaten, auzoan ibiltzen zen jolasean. 18 urterekin hasi zen erromerietara joaten. 19 urterekin hasi zen neskalagunarekin. Toki batzuetan debekatuta zegoen dantza lotua.

1.880. Baserritarrak Toki-Alaira dantzara (BER-310/008)

Baserritarrak eta kaletarrak ez ziren beti elkarrekin ibiltzen. Toki-Alaira joaten ziren baserritarrak; bost "señorita" zeuden, kalera joaten zirenak dantzara. Haietako bat ezkondu zen.

1.881. Toki-Alaiko erromeriak, gerra aurretik ere bai (BER-310/010)

Toki-Alaiko etxea noiz egin zuten, gerra aurrean. Donatok gogoan du 14-15 urterekin garia ebakitzen ibili eta nola joan zen hara erromeriarra, eta handik bidali nahi zutela, "umea" zelako.

1.882. Kanpoko mutilei harrika, Araotzen (BER-310/013)

Julianek kontatzen du Araotzera joan, erromeriara, eta neskek etxera lagundu ostean, bertako mutilek harrika egin zietela. Nondik joaten ziren, oinez, Arantzazurako bidean gora.

1.883. Julian, 51 urtean fabrikan lanean (BER-310/015)

14 urterekin Altuna lantegian hasi zen lanean Julian. Gero zerrajeran 11 urte, eta ondoren Ulman 22, Enaran. Bere anaia izan zen sortzaileetako bat. Morroi ere egon zen bi urtez Oñatin, Torretxebarrin. Egurra txikitzen ere ibiltzen zen, okindegietan. Denera 51 urte lanean. Hika.

1.884. Esne "bedeinkatua" saltzen, Oñatin (BER-310/017)

Julian 12 urterekin joan zen morroi, Oñatiko Torretxebarri baserrira. Esnea saltzen zuen, bedeinkatuta (ura botata).

1.885. Gerra sasoiari, Julian Oñatin zegoen (BER-310/018)

Gerra sasoiari, nazionalak Oñatira sartu zirenean, Julian han zegoen, esnea saltzera joanda. Tiroketa izan zen, eta non ezkutatu zen, txalet batean. Esnea partitzen jarraitu zuen, hala ere. Oñati hutsik zegoen.

1.886. Intxortako bonbardaketa ikustera (BER-310/020)

Juliani-eta Altuna lantegian jai eman zieten, Intxorta bonbardatu zutenean. Ikustera joan ziren, pinudi batera.

1.887. Julianen ibilerak Araotzen (BER-310/023)

Oñatira prozesiora joan beharrean, Araotzera joaten zen Julian, hamarretakoa Mikeletenean eginda. Dotore joaten zen jendea prozesiora. Garizuman neskekin jolasten zuten. Koruetara ere joaten zen Julian.

1.888. Ukendua etxean izaten zuten (BER-310/026)

Donatok beti ezagutu du etxean, edozein minetarako balio zuen ukendua. Kotzabalgoak egiten zuen, eta katilu batean ekartzen zuten: 'kotzal-ura' deitzen zioten. Erre-trapuak ere bazituzten. Ukendua nola egiten zuten azaltzen du Markosek.

1.889. Zaintiratuentzat eta erretuentzat erremedioak (BER-310/029)

Bittorren amandreak zaintiratuentzat enplastua egiten zuen, zan-belarrekin eta oilo-gantzarekin. Kredoan atzekoz aurrera errezatzen zuen. Erretuentzat zer egiten duten dio Julianek, ukendua. Goiko estazioan hartzen dute belarra.

1.890. Haginetako minarentzat eta flemoientzat erremedioak (BER-310/031)

Markosek sarri izaten zuen hagineko mina 17-18 urterekin. Erremedioak: alkohola, tabakoa... baina ez zuten funtzionatzen. Markosi flemoia zela kendu zioten, goraizekin zuloa eginda.

1.891. Perratzailearen lanak (BER-312/006)

Aita Angiozarko perratzailea zen. Garai hartan ganadu asko zegoen inguruetan. Oinez edo bizikletan joaten zen baserrietara. Etxean bertan zuen

perratokia. Ganadua nola jasotzen zuten perratzeko. Apatxak zaindu, zauriren bat bazuten sendatu eta perra jartzen zen. Perra nola jartzen zen. Perrak Mutrikutik ekartzen zizkioten eta "untzak" (iltzeak) Tolosatik. Aramaion ikasi zuen aitak perratzaile lanbidea.

1.892. Aita dultzaina jotzen herrietako jaietan (BER-312/007)

Aita perratzailea izateaz gain, dultzaineroa ere bazen. Arrasatera joaten ziren jotzera San Juanetan beste arrasatear batekin eta Oñatiko danbor-jotzailearekin. Bergaran eta Angiozarren ere jotzen zuten jaietan. Egurrezko dultzaina zuen aitak.

1.893. Dultzaineroen entseguak Errementarikoan (BER-312/008)

Aitak eta beste bi lagunek euren etxean entseatzen zuten jaietara dultzaina jotzera joateko. Normalean buruhandiekin jotzen zituzten kalejirak.

1.894. Aita oso musikazalea (BER-312/009)

Aita oso musikazalea zen. Angiozarko koroan ere abesten zuen. Berak beti ezagutu izan du aita dultzaina jotzen eta ez daki nola ikasi zuen.

1.895. Txerria hiltzen zuten etxerako (BER-312/010)

Amak etxeko lanak eta baratzeak egin behar izaten zituen. Txerria hiltzen zuten etxerako eta txorizoak eta urdaiazpikoa gatzetan eduki ostean zintzilik jartzen zituzten. 13 urterekin Arrasatera joan zen neskame eta gero ahizparen tabernara ere joaten zen laguntzera.

1.896. Txorizoak egiteko prozesua (BER-312/011)

Txorizoak egiten ibilia da; prozesu osoa azaltzen du. Lehenbizi txerri okelarekin masa egin eta hesteetan sartu makinarekin. Hesteak erosi egiten ziren. Leku lehor eta freskoan esekita edukitzen ziren azala egin bitartean eta, ondoren, hobeto kontserbatzeko, oliotan gordetzen ziren. Lehen ez zegoen hozkailurik eta "freskeria" deitzen zioten armairu antzekoa zuten.

1.897. Ogia eta esnea inguruko baserri batetik (BER-312/012)

Ogirik ez zuten egiten etxean. Angiozarrera kanpotik ekartzen zuten ogia, baina inguruko baserri askotan egiten zen ogia orduan. Esnea etxez etxe banatzen zen. Eurenera inguruko baserri batetik ekartzen zituzten ogia eta esnea. Hango baserrikoak zapi zuri bat jartzen zuen teilatuan seinaleztat, labeko sua egina zuela eurei adierazteko.

1.898. Arropa ontzikada buru gainean (BER-312/013)

Arropak garbitzera erredera joaten ziren. Harri gainean arropak xaboitu eta belar gainean eguzkitan jartzen zituzten, mantxak kentzeko. Trapu bat bihurritu ("sorkixa") eta buru gainean jartzen zuen amak haren gainean ontzikada arropa eramateko.

1.899. Umetako jolasak: "txantxirrika", harrapatzen, pilotan... (BER-312/014)

Umetan "txantxirrika" jolasten zuten, lurrean marrazkia eginda laukietan saltoka. Bestelako jolasak: pilotan, harrapatzen... Elizpean jolasten zuten asko. Harrapatzen nola egiten zuten. Pilotak beraiek egiten zituzten. Aitak beste jolas bat ere egiten zien, burnizko aro bat ekilibrioa mentenduz eraman behar zena.

1.900. Garia tresnak zorroztearen truk (BER-312/015)

Aitak inguruko baserrietako tresnak zorrozten zituen. Trukean, baserritarrek gariarekin ordaintzen zioten. Gari hori gauza askotarako aprobetxatzen zuten: errotara eraman eta ateratako irina euri egia egiten zienari eramaten zioten; ahia egiten zuten etxean; irina galbahean pasa ostean geratutako zahia txerriari ematen zioten.

1.901. Txerriarentzat pagotxa (BER-312/016)

Etxe ondoan baratzea eta soroa zituzten. Soroan artoa eta patata izaten zituzten, baina baita txerriarentzat erremolatxa eta "pagotxa" (pagotxa) ere. Pagotxa nolakoa izaten den azaltzen du. Txerria askatu eta hara joaten zen jatera. Txerria zaintzen zuten bitartean doktrina ikasten zuten.

1.902. Angiozarko eskola; eskola utzi eta neskame Arrasatera (BER-312/017)

Doktrina ikastera abadearengana joaten ziren. Irakasle bakarra izaten zuten denentzat. Irakasle batek berak ikasketak Bergaran jarraitzea proposatu zion amari, baina orduan ezinezkoa zen hori. 13 urterekin neskame joan zen Arrasatera; hango bizipenak. Etxean euskaraz egiten zuten arren, eskolan gaztelaniaz ikasi zuten dena. Irakasleak.

1.903. Euskaraz abesteko Guardia Zibilen beldur (BER-312/018)

Etxean euskaraz kantatzen zuten, baina beldurrez ibiltzen ziren. Aitaren arreba etortzen zenean, euskaraz abestea nahi izaten zuen, baina etxe inguruko zubira begiratzen zuten lehenbizi, Guardia Zibilen beldur.

1.904. Aita kartzelan gerra denboran (BER-312/019)

Gerra denboran, aita kartzelan egon zen Donostian. Ama Alonso Vega jeneralarengana joan omen zen Bergarara arrazoiak jakitera eta, itxuraz, euskalduna izatearren atxilotu zuten. Presoak fusilatu egiten zituzten eta bere aita ere ozta-ozta libratu zen. Etxea eta terrenoak eurenak ziren, baina bizitzeko lain zuten bakarrik; eta, pixka bat hazitakoan, lanera joan behar izan zuten denek. Aita ez zen politikan sartzen.

1.905. Aita kartzelan zegoela botu eske (BER-312/021)

Aita kartzelan zegoela, amari boto eske joan zitzaizkion, baina berak ez zion inori botorik eman. Aitak baino, amak gehiago kontaktzen zituen aita preso egon zeneko kontuak.

1.906. Senarraren baserrira joan zeneko kontuak (BER-312/024)

Senarraren baserrian ganadua zuten eta esnea saltzen zieten bezeroei. Berak ez zekien baserriko kontu askorik hara joan zenean, baratzeko kontuak bakarrik.

1.907. San Migeletan jazbana eta karameleroa (BER-312/025)

Angiozarren San Migelak ospatzen ziren. Bere aitak dultzaina jotzen zuen, baina beste jazban bat ere egoten zen: herriko soinu-jotzailea, bateria eta saxofoia. Plazako "kargaderoan" jotzen zuten musikariek. Karameleroa ere etortzen zen Bergaratik jaietan. Karburoarekin argi eginda egoten zen karameleroa. Behin erlojuak lapurtu zizkieten karameleroari. Horren inguruko pasadizoa.

1.908. Domeketan lagunekin; mutilekin dantzarik ere ez (BER-312/026)

Arrasaten neskame egon zenean ere irteten zen lagunekin edo bertan zituen lehengusinekin. Plazara joaten ziren, musika egoten zen eta. Mutilekin dantzarik ere ez zuten egiten, gaizki ikusia zegoelako. Hijas de María kongregazioa. Mezara eta bezperetara joan behar izaten ziren. Igande batzuetan Bergarara ere joaten ziren lagunak. Iluntzean autobusean itzultzen ziren; bete-bete eginda etortzen zen autobusa.

1.909. Mezara mantila ondo plantxatuta (BER-312/027)

Igandetan mezara joateko "domeketako arropak" janzten zituzten. Arropa berriren bat izanez gero estreinatzeke Kontzepzio egunean estreinatzen zen. Elizara buruan mantila jarrita joaten. Nolakoak izaten ziren mantilak. Mantila ondo plantxatuta eraman behar izaten zen elizara. Egur-ikatzeko plantxa zuten etxean. Meza sakratua izaten zen.

1.910. Gabon-eskean baserriz baserri (BER-312/029)

Gabon-eskean ibiltzen ziren. Baserririk baserri joan eta abestu egiten zuten, baina baserriren baten lutoa egonez gero, erreztatu egiten zuten. Baserrietan etxeko jeneroa ematen zieten: intxaurrak, gaztainak... Aitaren lagun batek bertsoak atera zizkien, eta euren aitak musika jarri zien, baina ez ditu gogoratzen bertsook.

1.911. Berriztik Bergarara, trenbideko etxera (BER-314/004)

Ume-umea zela, 1931n joan ziren Bergarara bizitzera. Gogoan du negar handiak egin zituela. Ama ere ez zen gustura joan. Aita trenbideko langilea zen eta etxea ere halakoxea zen, tunelaren ondoan. Donostiara joateko aukera izan zuten, baina Bergaran gelditu ziren.

1.912. Gerraren hasiera; miliziano jantzitako emakume taldea (BER-314/007)

Gerraren hasiera oso ondo gogoratzen du. Santa Marina jaiak ospatzen ziren. Emakume talde bat ikusi zuten miliziano jantzita "Viva Rusia" oihukatzen.

1.913. Gauza guztiak lagata, etxetik alde egin behar (BER-314/009)

Irailean iritsi ziren tropak Bergarara. Euren aitak eskutitz bat jaso zuen etxetik alde egiteko esaten eta furgonetan Berrizera joan ziren, ahal zutena hartuta. Gainontzeko gauza guztiak hantxe utzi behar. Garai batean botoa ugazabena izaten zela dio, haiek agindutakoa bete behar.

1.914. Leku guztietatik etorritako jendea batu zen etxean (BER-314/011)

Bergaratik Berrizera alde egin zuten gerra sasoiari. Gogoan du egunetik egunera etxea jendez betetzen joan zela. Elorriko familia bat ganadu mordoarekin joan zen, adibidez. Gipuzkoarrak ere bazeuden. Irailetik aurrera izan zen hori, tropek Gipuzkoa hartu zutenean. Aitak mutil indartsuak baliatu zituen lursail urtsuetan zangak egin eta soro bihurtzeko.

1.915. Gerratean partaide, baina armarik hartu gabe (BER-314/013)

Gerra garaiko kontuak. Euren etxean egon ziren mutilek gerratean nola parte hartu zuten: bata kotxearekin boluntario Kirikiño batailoian, bestea Elgetan "azemilero"... "Azemilero"ek asto edo mandoarekin jatekoa eramaten zuten frontera.

1.916. 1936ko Gabonak; etxea jendez beteta (BER-314/016)

Gerra sasoiari umeez ez zuten eskolarik. Jende asko etortzen zen etxera eta zegoena ematen zitzaien. 1936ko Gabonetan osaba-izebek jatekoa ekarri zuten nonbaitetik, baina hainbeste jende batu zen...! Bere amak hotza zutenei jakaren eskumuturrean artilezko zatiak josi zituzkien.

1.917. Durangoko bonbardaketa; bi ahizpa gazte hilda (BER-314/018)

Durangoko bonbardaketa. Bonbak jausten ikusi zituzten. Amama eta osaba falta zirenez, aitak 14 urteko mutikoa bizikletarekin bidali zuen, baina ez zioten utzi Matienatik aurrera pasatzen. Ezagun batek esan zien bere neska-laguna hilda ikusi zuela. Bi ahizpa hil ziren. Ezkongabeak zirenez, hil-kutxa zurietan eraman zituzten. Bere aita hondakin artetik jendea ateratzera eraman zuten. Arratsaldeko bonbardaketa are bortitzagoa izan zen.

1.918. Durango bonbardatu ostean, Berriztik Oromiñora (BER-314/021)

1937ko martxoan, Durangoko bonbardaketa pasa eta berehala, Oromiñora Trazola baserrira joan ziren ihesean. Aitak gurdiarekin eta ganaduekin joana zen. Lau umeez beste emakume batekin, karroa trastez beteta. Gogoan du Durango oinez zeharkatu zutela erdi-erditik. Oraindik sutan zegoen herria.

1.919. Familia sakabanatuta; milizianoak baserrian (BER-314/024)

Durangoko bonbardaketa ostean, Berriztik Oromiñora Trazola baserrira joan ziren. Aitak goizean joan zen ganaduekin eta umeez beste emakume batekin. Ama eta amama etxean geratu ziren, arratsaldean norbait bila joango zitzaielakoan. Baina milizianoak ihesean hasi zirelako bideak itxi

zituzten eta ezin izan ziren Ereñatik pasa, haien bila joateko. Amari eta amamari milizianoak joan zitzaizkien baserrira.

1.920. Oromiñon bi fronteren erdian; milizianoak (BER-314/030)

Oromiñon bi fronteren erdian egon ziren. Behin nazionalen aldera ihesean zaurituta zihoan gizon batekin batera miliziano batzuk joan zitzaizkien Trazolara, tartean bat "galoiduna". Jarrera oso egokia izan omen zuen. Orduan bizitakoak.

1.921. Aitita bost umerekin Oromiñotik Berrizera bueltan (BER-314/033)

Oromiñon zeudela, ganadu mordoarekin eta gurdia bete-bete eginda zihoan gizon bat nola tirokatu zuten ikusi zuten. Gizonari ez zitzaion ezer gertatu, baina ganaduak hil zituzten. Han ez zeudela ondo pentsatuta, bost umeak hartu eta Gorroñorantz abiatu zen aitita, behia sokatik hartuta. Horrez gain, ahate handi bat ere eraman zuten. Iurreta parean zubia apurtuta zegoen eta gizon batek lagundu zien, nondik joan behar zuten esanda.

1.922. Soldaduen beldurrez, soroan gauetz lanean (BER-314/035)

Oromiñotik Gorroñonera bueltatu eta gero artoak erein zituzten. Oromiñotik eraman zuten behi makala Bergaratik ekarritako beste behi makal batekin uztartu zuten. Aitak zaldia erosi zuen Gasteizen. Soldaduen beldurrez, gauetz lan egiten zuten soroan. Bera gau osoa ibilita ei dago itaurrean, ilargiaren argitan. Sekula baino arto eta piper hobek jaso omen zituzten.

1.923. Artetxe anaien Etxeberri eraikineko bigarren pisuan jaioa (BER-316/002)

Gurasoak osintxuarrak ziren, aita Arando baserrikoa eta ama Etxeberrikoa. Artetxe anaien lantegian lan egin zuen Florak, amarekin eta ahizparekin batera. Lantegi jabeek Osintxun zuten Etxeberri eraikinean bizi izan ziren. Ezkondu ostean, bost urtez jarraitu zuen lantegian, baina gero gaixotu egin zen eta lana lagatzearekin bat, etxea ere laga egin behar. Orduan, Kantera etxera joan ziren bizitzera.

1.924. Gerratean bost gizon gazte hil zituzten Osintxun (BER-316/006)

Elizaren gainean zegoen eskola, baina bera ez zen asko ibili, gerra zibilak harrapatu zuen eta. Aita Elgeta aldera joan zen ihesi beste bi gizona batekin batera. Laredon kontzentrazio esparru batean eduki omen zuten. Frankistak sartu zirenean, bost mutil gazte hil zituzten Osintxun eta beste batek ihes egitea lortu zuen. Nortzuk ziren azaltzen du.

1.925. Gerrateko bizipen gogorak; aita ihesi (BER-316/007)

Gerra hasi zenean, ama lau seme-alabak hartuta bere jaiotetxera abiatu zen eta milizianoekin topo egin zuten bidean. Ordurako aita ihes eginda zegoen. Itzuli zenean, etxean kartzelan bezala egon zen denbora batez eta lanik ere ezin zuen egin. Sasoi gogorak bizi izan zituzten. Militarrek ahizpa zaharragoa dantzaldietara joatea nahi izaten zuten, baina amak gogor egin zien.

1.926. Alfonso Zangiturekin erromeria Osintxun (BER-316/008)

Alfonso Zangitu osintxuarrak soinu txikia jotzen zuen eta erromeria handiak egiten ziren Osintxun gerra aurretik. Inguru guztietatik biltzen zen jendea.

1.927. Osintxuko jaietan txahalaren odolkiak eta haragia (BER-316/010)

Osintxuko jaiak abuztuko azkeneko igandean izaten dira eta larunbatetik asteartera ospatzen zen. Txahala hiltzen zen plazan. Izendatutako pertsona batzuek txahalaren odolarekin odolkiak egin eta egosi egiten zituzten galdara handietan. Haragi zatiak ere saldu egiten ziren jateko.

1.928. Igandetako menua; letxuga azukrearekin jaten zen (BER-316/011)

Aitak Eibartik ekartzen zuen haragi pusketa bat, Osintxun ez zegoen harategirik eta. Igandetako menua: zopa, garbantzuak eta haragia tomatearekin. Garai hartan letxuga azukrearekin jaten zuten. Gerra ostean kanpotik etorri zen jendeari esker ikasi zuten olioarekin jaten.

1.929. Erreketeen kuartela Osintxun; errepresioa (BER-316/014)

Osintxu garai batean oso euskalduna zen. Gerraostean frankistek euskaldunei jatekoren bat edo zerbait ikusiz gero, kendu egiten zieten dio. Erreketeek kuartela eduki zuten beraiek bizi ziren Etxeberri eraikinaren beheko solairuan, Bergara aldera zegoen azken etxea zen eta. Auzoko bi neskari ilea moztu zieten.

1.930. Elgetako frontean zauritu edo gaixotutakoak Osintxura (BER-316/016)

Erreketeak Osintxuko kuartelean egon ziren Elgeta hartu eta aurrera joan ziren arte. Osintxun "Circulo"a ere bazegoen, taberna eta guzti. Elgetako frontean zauritu edo gaixotzen zirenak ere hara eramaten zituzten. Beraiei jatekoa kentzen zieten, haientzat zela esanda.

1.931. Jaietan txahala hiltzeko ohitura (BER-316/019)

Jaietan plazan txahala hil eta haren haragiarekin salda egiten da. Salda banatu egiten dute. Meza ostean "karidadia": haragi pusketak ogi zatien gainean ipini, bedeinkatu eta banatu egiten dituzte. Aspalditik datorren ohitura ei da, baina orain kendu egin omen dute.

1.932. Osintxun kale bakarra; jateko denda (BER-316/021)

Garai batean kale bakarra zegoen Osintxun. Etxe azpi guztiak "zaltaiak" (kortak) ziren. Errementaria ere bazegoen. Bera gaztea zenean, jateko denda bat ere bazegoen. Mari zen dendaria; senarrak arotzeria zeukan.

1.933. Osintxuko ferratzailea (BER-316/022)

Osintxuko errementariak ganaduak ferratzeko lekua ere bazuen; nolakoa zen. Ganaduak nola lotzen zituzten ferratzeko. Larruzko amantala erabiltzen zuen. Laguntzailea ere bazeukan.

1.934. Ahizpa mojari txitak eraman zizkion amak (BER-316/023)

Kantera etxera bizitzera joan zirenean, oiloak ipini zituzten. Moja joan zen ahizpak Zumarragan egin zuen nobiziotza eta gero Abadiñora destinatu zuten. Han ezer ez zegoen etxe bat tokatu zitzaion eta amak etxean ateratako txitak eraman zizkion, han hazteko. Trenez joan zen.

1.935. Mekolalde eta Maltzaga trenentzat puntu garrantzitsuak (BER-316/024)

Bi tren iristen ziren Osintxura garai batean: "Vasco-Navarro" trenea Gasteiztik Maltzagara; eta bestea Zumarragatik Mekolaldera. Zumarragatik zetorrena Gasteiztik zetorrenari lotzen zitzaion Mekolalden Maltzagaraino joateko. Maltzagan bi geltoki zeuden. Bilbotik Donostiara zihoan trenea ere pasatzen zen handik.

1.936. Eskolara gutxi joan arren, irakurtzen ikasi zuen (BER-316/029)

Eskolara oso gutxi joan zen. Garai hartan zazpi urte ingururekin hasten ziren eskolan. Jaunartze txikia ere halaxe egiten zuten. Gerra zibila etorri zenean, eskola eta eliza itxi egin zituzten eta euskaraz egitea debekatu. Hala ere, irakurtzen ikasi zuen. Asko gustatzen zaio irakurtzea. Eskola euskaraz izaten zen. Adin desberdinetako neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren eta ezin asko ikasi. Gerora, bi eskola egin zituzten, bata mutilentzat eta bestea nesKentzat. Senar-emazte batzuk izan ziren irakasleak.

1.937. Bergaran neskame; jatekorik ez (BER-316/033)

Garai batean 14 urte izan arte ezin zen lantegian lanean hasi. Horregatik, Bergarako etxe batean neskame egon zen lehenengo. Ez zuten jatekorik izaten. Errazionamenduko batatak jaten zituzten. Esnea egiteko, hauts bat ematen zieten. Baziren garia estraperloan ehotzen zuten errotrak.

1.938. Baserritarrei dena errekiSatzen zieten (BER-316/035)

Estraperloan zer ekartzen zen. Garai batean Osintxu inguruko baserritar guztiei baba, artoa, garia... dena errekiSatu zieten. Familia bati txabolan zeuzkaten oilo guztiak kendu zizkioten. Txahalak edo bildotsak ere kentzen zituzten.

1.939. Lantegian haria nola fintzen zuten (BER-316/038)

14 urterekin Artetxe anaien lantegian hasi zen lanean. Andaluzia aldetik kotoi fardoak ekartzen zituzten eta haiek askatu behar izaten zituzten lehenbizi. Makinen laguntzaz haria fintzen joaten ziren. Gero, haril handiak egin eta haiek beste makina batera eraman. Matazak Bergarara eramaten zituzten.

1.940. Bergaran neskame; igandean bizikletan etxera meriendatzera (BER-316/042)

Ezkondu aurretik neskame joan zen Bergarara, baina ez zuen denbora asko egin. Etxeko nagusiek diru asko bai, baina ez zuten asko gastatzen. Iloba bat ere bizi zen etxean ezkondata. Baba errazioarekin ilobak egiten zuena. Ogi zuri askorik ez ei zuen ikusi. Meriendatzeko batata. Igande arratsaldean libre izaten zuen eta mutil-lagunak prestatu zion bizikletarekin etxera joaten zen meriendatzera.

1.941. Mutilak okaranak eramaten zizkion, ligatzeko (BER-316/044)

Senarra ere Osintxukoa zen. Florak lan egiten zuen lantegiko enkargatua zen. Florarekin ligatzeko, lantegi ondoan zegoen arbolatik hartutako okaranak eramaten zizkion.

1.942. Arantzazun ezkondu eta hiru egunerako Donostiara (BER-316/046)

Arantzazun ezkondu ziren, senarraren arrebarekin batera. Ezkontzak goizean izaten ziren, baina Arantzazun ez zegoen lekurik eguerdira arte. Osintxun jauna hartu, Arantzazun meza entzun, bertan bazkaldu eta arratsaldean Donostiara. Ostegunean ezkondu eta igandean atzera etxera. Lasa hostalean egon ziren.

1.943. Beraiek Arantzazura ezkontzera eta gurasoak basora egurretara (BER-316/047)

Pena handia izan du beti gurasoak ez zirelako bere ezkontzara joan. Senarraren eta haren koinatuaren gurasoak ez zihoazela eta bere gurasoak ere ez ziren joan. Beraiek Arantzazura ezkontzera eta gurasoak basora egurretara. Ahizparen senargaia izan zen ezkontzako aitabitxia.

1.944. Beltzez ezkondu; gerorako loredun soinekoa (BER-316/048)

Beltzez jantzita ezkondu zen. Donostian ateratako argazkietan lore batekin azaltzen ei da. Urriaren 11a zen. Gero jantzeko loredun soineko bat eta abrigo grisa eraman zituen. Lantegian lan eginda pixkanaka aurreztutako diruarekin ordaindu zituen arropak.

1.945. Lepoko koskorra sendatzeko estraperloko "estratomizina" (BER-316/050)

Ezkondu eta gero lantegian lanean jarraitu zuen. Lepoan koskor bat irten zitzaion. Claudio Rodriguez mediku partikularrarengana joan ziren Eibarrera, senarraren aseguruari esker. Baina ez zekiten zer izan zitekeen. Eibarko erlojudenda bateko dendariak Bilbora joateko esan zion. Han "estratomizina" (estreptomizina) behar zuela esan zioten. Estraperloan egoten zen, baina oso garesti. Baserritar batzuek prestatu zieten dirua hura erosteko. Hari esker sendatu zen.

1.946. Haurdunaldi bukaeran erori eta zortzi hilabeterekin jaio zen semea (BER-316/053)

Zazpi seme-alabetatik azkenengo biak bakarrik eduki zituen ospitalean, besteak etxean. Bigarren semearen haurdunaldi bukaeran erori egin zen eta

zortzi hilabeterekin jaio zen mutikoa. Orduan zortzi hilabeterekin jaiotakorik ez zela bizi izaten esaten zuten eta negar egin zuen berak ospitalean. Mikaela emaginak esan ziona.

1.947. Etxeberri eraikineko ganbarak su hartu zuen (BER-316/058)

Etxean sutea izan zuten bera umea zela. Suarekin baino gehiago urarekin izzoratu ziren etxebizitzak. Kanpaiak jotzen ziren sua zegoenean. Amak, anaiak eta ahizpa zaharrenak errementariaren etxean pasa zuten gaua eta bera bakar-bakarrik beste etxe batean egon zen. Txarto pasatu zuen. Bizilagun bat dezente erre zen.

1.948. Umetako jolasak; mutikoekin pilotan (BER-316/060)

Umetan "zelaminetan" jolasten zuten. Flora mutiko guztiekin pilotan aritzen zen. Txirikilarekin nola jolasten zuten. Soka-saltoa. Etxe aurreko plazan jolasten zuten.

1.949. Lagun bati izebak Madrildik ekartzen zizkion jostailuak (BER-316/062)

Tela zaharrekin egindako panpinak besterik ez zituen izaten. Gorago bizi zen lagun batek izeba bat Madrilan zeukan neskame eta hark jostailuak ekartzen zizkion.

1.950. Aita hil kartzelatik irten eta urtebetera (BER-317/001)

Katalana lehen abizena, aitona katalana zelako. San Antonion jaio eta bizi. Aita Gasteizkoa eta ama Bergarakoa. Ama Algodonerako langilea, ezkondu arte. Aita bulegaria. 43 urterekin hil zen bat-batean, kartzelatik irten eta urtebetera.

1.951. Kontabilitatea eramaten torloju-fabrian (BER-317/002)

Aita hil zenean Idazkaritza ikasketak egiten ari zen Lucia Gasteizen. Ikasketak utzi eta bulegari lanetan hasi zen osabaren torloju-fabrian. Mekanografia ikasi zuen Bergaran. 38 urte egin zituen fabrian. Itxi zenean, bederatzi urte falta zitzaion erretiro adinera heltzeko.

1.952. Idazkari ikasketak utzi eta osabaren lantegiko bulegora (BER-317/005)

Aita kultura handikoa zen. Atzerrian egonda zegoen hizkuntzak ikasten. Frantziatik 1939an itzuli zirenean, Gasteizera joan ziren hiru ahizpak izebaren etxera, eta hango ikastetxe batean sartu ziren. Hil zen ahizpa Magisteritza ikasten ari zen. Aita hil zitzaionean lanean hasi behar izan zuen, eta denetik egiten ikasi zuen osabaren lantegiko administraritzan.

1.953. Aitajaunak eta amandreak sortu zuten Gasteizko lehen batzokia (BER-317/006)

Aita ezagutzeko astirik ez zuten izan ia gerraren eta kartzelaldiaren erruz. Amandrea Eskoriatzakoa zen, eta Las Dos Hermanas jatetxea sortu zuen Gasteizen. Aitona katalana zen, Lleidakoa. Gasteizera etorri zen soldadu eta han ezagutu zuen amona. Gasteizko lehenengo batzokia eurek sortu zuten. Jose Antoni Agiriano politikoa Luciaren lehengusua da.

1.954. "Erderaz egin bihar da" esaten zien amandreak (BER-317/007)

Nortasun handiko emakumea zen amandrea. Euskaraz ondo zekien baina ez zitzaion gustatzen egitea. "Erderaz egin bihar da" esaten zien eurei. Baserritik erdaraz ikastera joandakoa zen bera. (Gogoan izan Gasteizko lehen batzokiaren sortzailea izan zela, Olagibel Kalean).

1.955. Ihesi Bergaratik Asturiasera, Frantziara eta Kataluniara (BER-317/010)

Mojetan ikasi zuen bederatzi urte arte. Gerra irailaren 23an heldu zen Bergarara eta 21ean alde egin zuten. Bergaratik Castrora joan ziren, handik Cabezón de la Sal-era. Han amak oihal-fabrika batean egin zuen. Handik Ribadesellara; eta handik barkuz Frantziara. Frantziatik trenez Kataluniara. Bergarar askok egin zuten ibilera bera.

1.956. Ama hiru umerekin mendiz muga zeharkatzen elurretan (BER-317/011)

Gironako herri batean hartu zuten ostatu, Osor-en, apaizaren etxean, hau ihes eginda zegoen eta. Bartzelonan Francoren tropak sartzen hasi zirenean, Mollóra, Frantziako mugara, joan ziren kamioietan. Azken zatia oinez mendian gora eta behera, elurretan. Ama hiru umerekin, maleta guztiak galduta. Bergarako jendearekin elkartu ziren. Muga zeharkatu zutenean jendarmeez arakatu egin zituzten.

1.957. Fréjus-eko kontzentrazio-esparruan ia urtebetez (BER-317/012)

Fréjus-eko kontzentrazio esparrura eraman zituzten. Gaztelu eta guztiko etxalde handi bat zen. Soldadu senegaldarrak zituzten zaintzen. Txarrak ei ziren. Ia urtebete egin zuten han.

1.958. Aita Argeles-etik Gursera eta Gurs-etik Biarritzera (BER-317/013)

Aita Argelès eta Gurs-eko kontzentrazio-esparruetan egon zen. Gero Euzko Jaurilaritzak Biarritz ondoan atondutako etxe batera eraman zuten, izeba moja bati esker. Hainbat bergarar elkartu zen han: Unzurrunzaga, Amenabar, "Baxarte", Luis Perez...

1.959. Capvern-en familia elkartuta (BER-317/014)

Biarritzetik Tarbes ondoko Capvern herrira eraman zuten. Han familia elkartuta egon zen. Aitak egunez kanpoan lan egiten zuen eta gauean etxeratzen zen. Bi bergarar ekartzen zituen domeketan bazkaltzera. Amak garbitzen zizkien arropak. Askako izotza apurtu behar izaten zuen arropak aklaratzeko. Etxetik astebeterako irteten zirelakoan eta ia lau urte egin zituzten hortik zehar. 1936an irten ziren eta 1940an itzuli.

1.960. Ama-alabak Bergarara, aita Bartzelonako kartzelara (BER-317/015)

Canfranc-etik zeharkatu zuten muga amak eta hiru alabek. Autobusean ekarri zituzten Donostiara. Komisarian mila paper egin eta gero heldu ziren etxera. Aita Frantzian geratu zen, baina handik gutxira, bere kontrako kargurik ez zegoelakoan, itzultzea erabaki zuen. Bila joan zitzaizkion Canfranc-era

Bergararik, baina muga zeharkatu bezain laster atxilotu eta Huescako kartzelara eraman zuten. Handik Bartzelonako Modelora.

1.961. Kartzelatik irten eta urtebetera hil zen aita (BER-317/016)

"Niño de Oro" bergararrarekin egin zuten zenbait gestio eta lortu zuten aita Bartzelonatik Bilboko Larrinaga kartzelara ekartzea. Kartzelatik irten eta urtebetera hil zen, bat-batean, 43 urterekin. Alabak ez ziren joaten aita bisitatzerara. Aitak esaten zuen kartzela-zainak baino txarragoak zirela mojak. Aitaren anaia apaiza zen, baina ez zion ezertan lagundu.

1.962. Bandera errepublikanoari kolore horia josi arazi amandreari (BER-317/017)

Etxera itzuli zirenean, etxea hutsik aurkitu zuten. Idazteko makina ere harrapatu zieten. Ihes egiterakoan errepublikako bandera utzi zuten jarrita balkoian. Frankistek morearen gainetik horia josi arazi zioten amandreari, eta ez zioten kentzen utzi haizeak eta euriak hondatu zuen arte.

1.963. Liburuak latorrizko kaxetan ortuan ezkutatuta salbatu (BER-317/018)

Amandreak aitaren paperak desagerrarazi behar izan zituen, baina Perez Galdósen "Episodios Nacionales" bilduma osoa salbatu zuen, latorrizko kaxetan ortuan lurperatuta. Oso estimu handitan zituen aitak liburuok.

1.964. Aita Izquierda Republicana-ko burua (BER-317/019)

Aita errepublikanoa zen, Izquierda Republicana-koa. Komisario politikoa izan zen gerra sortu zenean (1936ko udan). Errepublikaren bandera ipinita dute etxean. Herriko karlista batek eta osaba apaizak kentzeko eskatu izan diete, baina ez dute kenduko.

1.965. Bergarako errepublikano nabarmenak (BER-317/020)

Centro Republicanoa lehenengo Mujika Ferreteriaren gainean egon zen (Bidakruzeta Kalea), eta, gero, Ollagorra Tabernan (Barrenkale). Mujika, Mazorriaga, Berroia, Bilbao, Luis Perez gogoratzen ditu gizonezkoen artean eta Maritxu Lopez "La Rubia Peligrosa", Marina Ilarduia, Pia García, emakumeen artean. Neska ederrak ei ziren.

1.966. Alcalá Zamorari berak eman zion lore-sorta (BER-317/021)

Alcalá Zamora (Errepublikako Presidentea) Bergarara etorri zenean Luciak eman zion lore-sorta. Bergarako emakume errepublikanoen izenak berriz: Maritxu Lopez "La Rubia Peligrosa", Marina Ilarduia, Bakaikoa... Dantzaldiak egoten ziren egoitzan. Francisco Aranak jotzen zuen pianoa.

1.967. Antzerkia errepublikanoen egoitzan (BER-317/022)

Antzerkiak ere egiten ziren Centro Republicanoan. Aitak erosten zituen libretoak. Oraindik etxean dute "Manitas de plata" izenekoak. Neskek ere egiten zuten; Bakaikoanekoa, Ilarduianekoa, Florentina... ditu gogoan

1.968. Batzokian antzerkia egiten zuten emakumeak (1) (BER-317/024)

Batzokiaren ere egiten ziren antzerkiak. Regil ahizpak (Lucia, Francisca eta Eugenia) asko mugitzen ziren. Amenabar ahizpak ere bai, baina geroago.

1.969. Batzokian antzerkia egiten zuten emakumeak (2) (BER-317/026)

Batzokian antzerkia egiten zuten emakume batzuen izenak: Baxili Mendizabal, Regil ahizpak, Xixili Bikuñanekoa, Felisa Gabilondo "Patxikortanekua".

1.970. Pasaporte ateratzeko eragozpenak (BER-317/028)

"Kanastillia" eta "Servicio Sociala" egitera behartu zuten Lucia gerra ostean. Pasaporte atera nahi izan zuenean, Eibarrera joan zen eta "certificado de penales" ez zuela eta ez zioten eman nahi. Osabarekin joan zen Bergarako kuartelera. Aitaren fitxa erakutsi eta aurpegi txarra jarri zioten. Kostata baina lortu zuen azkenean pasaporte.

1.971. 'Sección Femenina'n lan egitera behartuta (BER-317/029)

Sección Femeninan egin behar zen "Servicio sociala". Han ere behartutako jendea ibiltzen zen lanean. Arretxe abadearen arrebak nazionalistak ziren, baina behartu egin zituzten josten erakustera. Sindikatuan Maria Dolores Madinabeitia ibiltzen zen. Monzonen etxean zegoen egoitza.

1.972. Agirrezabal ahizpei ilea moztu nazionalistak zirelako (BER-317/030)

Herriko neskek derrigortuta zeuden "Servicio Social" a egitera. Elisabet Agirrezabalen bi ahizpak ere, Aurea eta Rosario, behartuta ibili ziren lanean egoitzan. Bi horiei ilea moztu ei zieten nazionalistak zirelako (Elisabeth Agirrezabalek, ordea, ezeztatu egin zuen bere ahizpei halakorik egin zietenik).

1.973. Ramona Arruabarrena Bergarako kartzelan (BER-317/032)

Ez du uste emakumerik kartzelaratu zutenik Bergaran gerra denboran. Baina gerra ostean Ramona Arruabarrena sartu zuten Bergarako espetxean. Orduan ezagutu zuen herriko kartzela Luciak, bisitara joanda.

1.974. Ollagorreneko lehenengo pisuan sozialisten egoitza (BER-317/033)

Sozialisten egoitza Ollagorreneko lehenengo pisuan zegoen. Estevez zen arduraduna. (Kontraesanean egon liteke gorago esandakoarekin)

1.975. Karlisten Zirkulua eta batzokia elkarren ondoan (BER-317/035)

Carlista Banco San Sebastian egon den lekuan zegoen, Bidekurutzean, batzokiaren ondoan. Karlista asko zegoen Bergaran. Regina, "Gabilondoesia", Gabilondoren emaztea, zen karlista nabarmena.

1.976. Maria Oianguren, Bergarako lehen andrereñoa (BER-317/037)

Maria Oianguren andrereñoa izan zen umeezin atzerrira joan zenetariko bat. Bera izan zen ikastolako andrereñoa gerra aurrean. Luciak dena erdaraz ikasi du, eta orain hiru bider irakurri behar izaten ditu euskarazko testuak ulertu ahal izateko.

1.977. Enseñanzen diferentzia handiak ikasleen artean (BER-317/039)

Enseñanzen diferentzia handia zegoen ordaintzen zutenen eta ez zutenen artean. Jolaslekuan ere askoz toki handiagoa zuten lehenek.

1.978. Aitak protesta idatzia udaletxeari moja eta fraide titulugabeek eskolak ematen zituztelako (BER-317/041)

Aitak esaten zuen ea zergatik fraide eta moja titulu gabeek eskolak eman behar zituzten, hainbeste maisu-maistra tituludun langabezia egonda. Protesta idatzia ere zuzendu zion udaletxeari. Kopia gordetzen du

1.979. Neska gutxik zuten ikasketekin jarraitzeko aukera (BER-317/042)

Hamabi bat urterekin eskola bukatu eta oihal-fabriketan sartzen ziren neskak. Gutxik izaten zuten estudiantzeko aukera. Gasteizen ikastetxean ibilitako batzuen izenak.

1.980. Maria Victoria Oyarzabal, Bergarako lehen emakume karreraduna (BER-317/045)

Maria Victoria Oyarzabal, Don Roman medikuaren alaba, izan zen Bergaran unibertsitate ikasketak egin zituen lehen emakumea. Farmazia ikasi zuen. Orain batzokia dagoen lekuan jarri zuen botika. Gero, ezkondu eta Malagara joan zen bizitzera.

1.981. Ikasketak utzi eta hemezortzi urterekin hasi zen lanean (BER-317/046)

Luciak hiru urte egin zituen Gasteizko ikastetxean. Mojena zen. Idazkaritza ikasi zuen; amaitu gabe itzuli zen, osabaren lantegira. Gero, bere kasa jarraitu zuen ikasten. Bergaran mekanografia ikasi zuen Manolita Saizarrekin. Hemezortzi urterekin hasi zen lanean.

1.982. 53 urte zituela itxi zen bere lantegia (BER-317/047)

1979an itxi zen Luciaren fabrika. 53 urte zituen, adin txarra beste lan bat bilatzeko. Behin aurrezki kutxako azterketetara aurkeztu zen. Hautagai pila ikaragarria, eta zenbait froga gaingitu arren, ez zuten hartu.

1.983. Eibar-Txikiren tailerra (BER-317/048)

Osabena zen lantegia, "Florentino Laskurain" izena baina "Eibar-Txikin tailerra" esaten zioten. Antzuola bidean zegoen eta torlojuak eta iltzeak egiten zituzten. Hogei langile izatera heldu ziren. Bera zen neska bakarra.

1.984. Estraperloan erositako materiala ezkutatzen (BER-317/049)

Berak eramaten zuen lantegiaren administrazioa. Ikuskariei aurre egin beharra ere izaten zuen, lan-ikuskariei zein "Fiscalía de tasas" delakoei. Hauek zetozela jakitean materiala ezkutatzen ibiltzen ziren, estraperloan erositakoa izaten baitzen. Eskerrak beti norbaitek abisua pasatzen zien.

1.985. Marcelino "Deskarga", langile fina (BER-317/050)

Astean sei egunez egiten zuten lan. Marcelino "Deskarga", frontoiko piloten arduraduna, lan barik geratu zen tailerra itxi zelako. Edadean aurrera zihoan arren, lantegian hartu zuten. Denetik egiten zuen. Erretiroa hartzeko sasoia heldu, eta ez zuen hartu nahi. Orduko pasadizo barregarria. Erramu Zapatu arratsaldez jai hartzen zuten frontoira joan ahal izateko.

1.986. Hainbeste emakume eder lantegira bidean ikustea, ikuskizun bikaina (BER-317/052)

Hainbeste emakume eder lantegira bidean ikustea begien gozagarria ei zen. San Antonion jendea begira egoten zen. Aitajaunak esaten zuen horrelako neska ederrak ikusteko merezi zuela atarian egotea.

1.987. Ezkondutakoan lana uzten zuten emakume gehienek (BER-317/053)

Hamalau urterekin sartzen zen neska asko lanera. Ohitura zen ezkondutakoan lana uztea. Bera ere presionatu izan zuten baina jarraitu egin zuen, eta gustura gainera. Dena dela, ezkonduta gero lanean jarraitzen zutenak ere ugari ziren.

1.988. Huelga gogorak Algodoneran aspaldiko denboretan (BER-317/055)

Berak Bergaran ezagutu duen lehen huelga, "Xabale" (Agustin Unzurrunzaga) hil zenean/ zutenean (1947) izan zen. Orduan Bergara guztia geratu zen. Etxean entzuna du lehen-lehen ugari izaten zirela. Polizia zaldiekin egoten zela Algodonerako zubia zaintzen.

1.989. "Xabale"ren heriotza eta greba orokorra (BER-317/056)

Agustin Unzurrunzaga "Xabale", Bergaran atxilotu zuten 1947ko greban. Polizian eskuetan hil zen. Batzuek diote bere burua bota zuela trenera, beste batzuek bultza egin ziotela (edo torturengatik hil zela). Bergara guztia gelditu zen. Gorpuaren zain zegoen herria; San Antonioraino ekarri zuten, baina Bergaran egin behar zitzaion harrera ikusita, berriro eraman zuten Donostiara. 1947ko maiatzean izan zen. SOS Arrazakeria-ko Agustin Unzurrunzagaren aita zen. Aita hil eta gero jaio zen Agustin.

1.990. Bergarako emakumeak oihal-fabriketan zuten lana (BER-317/057)

Luciaren amandrea Algodoneran ibili zen ezkonduta gero ere, hirugarren umea izan arte. Bergarako gutxi joaten zen neskame, fabriketan lana zegoelako.

1.991. Amari entregatzen zion soldata (BER-317/059)

Algodoneran ibili ziren bere lagun gehienak. Irabazten zuena amari ematen zion, baita ezkontuta gero ere. Uste du ez zuela kobratzen bere lanpostuari zegokion soldata. Gainera nagusiak senide izateak ez zuen horretan asko laguntzen.

1.992. Anbrosioren zinera joatea debekatuta (BER-318/002)

Anbrosioren zinera joatea debekatuta zuten mojetan zebiltzanean. Galdetu egiten zieten gero eskolan. Bazekiten eurak, San Antonioko endredatzaileak, joaten zirela. Bestera, "Beheko Zinera" joan zitezkeen. San Antoniokoak gorri fama zuten.

1.993. Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen (BER-318/003)

Emakumeak ez ziren tabernetan sartzen. Asko jota jaietan (Paskuak, San Martzial, San Pedro...) norbaitek gonbidatuz gero.

1.994. Pol-pol mendi-taldeko kidea (BER-318/004)

Mendian asko ibili da Lucia Pol-pol mendi-taldearekin. Gizona oso mendizalea zen. Herriko mendizaleen izenak. Emakumeak ere mordoxka ibiltzen ziren.

1.995. Raketistak Eibarren baina ez Bergaran (BER-318/005)

Emakumeek ez zuten kirolik egiten. Amaren lehengusina eibartar bat, Pilar Agirre, raketista zen eta gaizki ikusia zegoen. Eibarkoak Bergarakoak baino espabilatuagoak ei ziren.

1.996. Emakumeek josten ikasi behar zuten (BER-318/007)

Catalina Zarauz zen josten erakusten ziena. Orduan emakume ia guztiek ikasten zuten josten. Berak ez zuen ikasi, eta jana gertatzen ere ez.

1.997. Emakume ile-apaindegiak (BER-318/008)

Gaztetan ilea moztera bakarrik joaten ziren ile-apaindegira. Geroago hasi ziren permanentea eta abar egiten. San Antonion gizonena eta emakumeena zegoen. Kanean, Camachoneko gainean zegoena gogoratzen du bakarrik.

1.998. Aita ez zen elizara joaten (BER-318/010)

Luciaren aita atea zen eta ez zen elizara joaten. Eskomikatuta ei zegoen. Eurak joaten ziren, eta bataioa, jaunartzea eta dena egin zuten. Konfesatzeko ilarak egoten ziren. Orain ez dago bekaturik.

1.999. Besoak eta hankak ondo estalita ibili behar (BER-318/011)

Gorputza ondo estalita ibili behar zen. Gona eta mauka luzeak. Luciaren lagun bat mauka barik joaten zen mojetara, kontra egitearren; maukatxoak jartzen zizkioten mojek.

2.000. Sexu-harremanik ez ezkondu arte (BER-318/013)

Mutilak ez zion neskari atariraino lagundu ohi, begiluze asko egoten zelako. Ezkondu arte sexu-harremanik ez. Orain hobeto ei dago gauza, lehenengo

"gatzean probatu" eta gero gustatu bazaizu, aurrera. Amak esaten zuen libertatea ez, libertinajea etorri dela.

2.001. Amak abadeei eta medikuei berorika (BER-318/014)

Medikuei eta abadeei berorika egien zien amak. Don Serafin apaizak berorika ez egiteko esaten zion.

2.002. Haurra izan eta astebetera, lanera (BER-318/015)

Haurra izan eta zortzigarren egunera itzuli zen lanera. "Nork egin behar ditu nominak?", zioten kezkatuta. Behin bakarrik hartu zuen baja 38 urtean. Lantegia itxi aurretxoan, erori eta hanka hautsi zuen bi lekutan. Hamabost egun opor bakarrik zuten, abuztuaren 15etik 30era.

2.003. Amari entregatzen zioten irabazitakoa (BER-318/016)

Amak administratzen zuen etxeko dirua, Luciak ezein senarrak irabazten zuena. Behar zutenean hari eskatu eta kito. Senarrak beti eskuan kobratu izan zuen, ez zuen txekerik onartzen.

2.004. 'Acción Católica'n ez zen ibili (BER-318/019)

Acción Católicako arduradun bat: Maritxu Alberdi, Kondekua, Satorretxetarra. Emakume asko ibiltzen ziren erakunde horretan. Lucia ez zen joaten. Josten erakusten zietela uste du, eta Monzonen etxean egon zirela. Caritas geroagokoa da; apaizek eramaten zuten.

2.005. 'Caritas', erregimenaren adiskideentzako karitatea (BER-318/021)

Apaizak eta falange ingurukoak ziren; herria eta Acción Católica gobernatzeko zutenak; Caritas ere bai. Jendeari laguntzeko orduan, euren sokakoekin akordatzen ziren bakarrik. San Antonion baziren familia behartsu askoak, baina haientzat ez zen ezer egoten. "Solomilloa besapean hartuta komulgatzera jotzen zirenenendako" ei zen dena.

2.006. Ospitaleko mojak gaixoak eta haur babesgabeak zaintzen eta eskola ematen (BER-318/022)

Ospitalean, Casa de Beneficencian, lan asko egin zuen elkarrizketatzailearen aitajaunak, Modesto Etxeberriak, administrazioa eroaten. Guraso barik geratutako umeak ere batzen zituzten mojek gerra aurretik.

2.007. Sierbak, gauez gaixoak zaintzen zituzten mojak (BER-318/023)

Sierbak (Siervas de María mojak) gaixoak gauez zaintzen zituzten. Artekalen bizi ziren. Autoeskola egiteko etxea bota zutenean, Poligonoan egin zitzaizen etxe berria. Unzeta familiak eman zituen lurrak, doan, eta zaharren egoitzarenak ere bai. Eta hori "txarrak" zirela, nazionalistak ("bizkaitarrak"). Kanpotarrak ziren mojak. Lan handia egiten zuten.

2.008. Sor Eufemia, Ospitaleko moja famatua (BER-318/024)

Ospitalean Marina Orbe moja bergararra egon zen, baina denbora gutxi. Erizaina zen. Hijas de la Caridad ziren Ospitalekoak. Sor Eufemiak urte asko egin zituen umeei eskola ematen. Omenaldia egin zioten.

2.009. Bera "Ondarru" emaginarekin jaio zen (BER-318/025)

Emaginetatik Jesus Ibañezen ama du gogoan. Harekin jaio zen. Izena ez du gogoan. "Ondarru" esaten zioten. Geroagokoa da Mikaela. Orduan jendea etxean jaiotzen zen.

2.010. Karmentxu Mujika praktikantea (BER-318/026)

Praktikante moduan Karmentxu Mujika, Don Victorioren alaba, ibiltzen zen.

2.011. Mikaela Mujika emagina (BER-318/027)

Mikaela Mujika emaginak zer ikasketa zuen ez daki. Gerra denboran erizain ibilitakoa zen eta gero dentista baten laguntzaile.

2.012. Mertxe Orueta erizaina (BER-318/028)

Mertxe Orueta praktikantea zen. Erizaintza ikasi zuen. Luciarekin batera ibili zen Gasteizko ikastetxean.

2.013. Maritxu Erdabide eta Maritxu Gisasola udaletxeko bulegari (BER-318/030)

Udaletxeko administrazioa eramaten Maritxu Erdabide eta Maritxu Gisasola ibili ziren. Karlistak ziren.

2.014. Fabriketarako arropa etxean josten (BER-318/031)

Emakume askok josten zuen arropa herriko fabriketarako makinaz etxean. Gaizki ordaindutako lana zen. Gizarte-segurantza barik, jakina.

2.015. Pentsiorik ez berrogei urterekin alargun geratutako amarentzat (BER-318/032)

Ama alargun geratu zen berrogei urterekin, eta ez zuen inolako pentsiorik jasotzen. Donostiara erreklamatzera joan zenean esan zioten beranduago hil izan balitz baietz. Geroxeago jarri zen gizarte-segurantza. Amak esaten ei zuen Francok dena ez zuela gaizki egin.

2.016. Emili Egiluz errekadista (BER-318/034)

Emili Egiluz errekadista trenean ibiltzen zen. Ezagutu dituen beste errekadistak gizonezkoak ziren.

2.017. "Angiozarko karteria" (BER-318/036)

Angiozarko emakume bat etortzen zen zalgurdiarekin Bergarara. "Angiozarko karteria" esaten zioten, besteak beste, gutunak ekarri eta eramaten zituelako.

2.018. San Antonioko koltxonerak (BER-318/038)

Bi koltxonera ezagutu ditu San Antonion; bata kartzelan egondako Etxanizen ama, eta bestea Errasti.

2.019. Arrain-saltzaileak (BER-318/039)

Esku-gurdiarekin joaten ziren Antzuolara eta Angiozarrera arrain-saltzaileak. Ezagutu dituenak: Marina Arrese "Kapaiña", San Antoniokoa; Karmen "La Bermeana", Martokokoa; Morenotarrak; Txabeaneokak, hauek furgonetarekin ibiltzen ziren, ama eta semea.

2.020. Matilde Traperia, emakume famosa (BER-318/040)

Trapu-biltzaileak: "Matilde Traperia, San Antoniokoa; Fernandeztarrak; Marianillo traperoa Ozaetan. Matilde (Matilde Gomez) famatua zen; auto-stopa asmatu zuen lehena. Gizonak nobelak irakurtzen pasatzen zuen egun guztia, ez zuen golpe zorririk jotzen.

2.021. Emakumeak Orfeoian bai, baina musika-bandan ez (BER-318/043)

Orfeoian emakume askok kantatzen zuten. Baina musika-bandan ez da egon emakumerik duela gutxi arte. Solfeo klaseak emango zituen herrian batek edo bestek, Migel Gonzalez Bastidak, esaterako.

2.022. Santa Marina egunez hasi zen gerra (BER-318/046)

Gerraren hasiera kontatzen du. Santa marina eguna zen, festan zeuden. Berria jakin zutenean etxera etorri ziren arin. Aita, errepublikanoen buruzagia, berehala hasi zen mugitzen. San Antonion "kontrol" berezia jarri zuten.

2.023. Bergaratik Castrora ihesi (BER-318/047)

Heldu zen ihes egiteko eguna. Hiru autotan sartu ziren familiakoak. Hurrengo astean itzuliko zirela esanez abiatu ziren hemezortzi lagun. Mioñon (Castro) senide batzuen etxean hartu zuten ostatu. Gizonak frontera joan ziren.

2.024. Castrotik Cabezónera, oihal-fabrikari lan egitera (BER-318/048)

Cabezónen de la Sal-en oihal-fabrika zegoen, eta ama lan horretan ibilia zenez, hara aldatu zen familia osoa. Zinean jakiten zituzten gerrako berriak. Behin aitak jende guztiaren aurrean iragarri zuen Molaren heriotza; jendea poz-pezik.

2.025. Ribadesellatik Frantziara eta handik Kataluniara (BER-318/049)

Ribadesellan barkua hartu eta La Rochele-ra joan ziren. Arakatu egin zituzten portuan. Handik Kataluniara zuzenean. Aitak hango Euzko Jaurlearitzako delegazioan egin zuen lan. Eurak Gironako Osor herrian egon ziren. Euskaldunek fama ona zuten herrian, andaluziarrek txarra.

2.026. Familia Frantziako Capvern-en errefuxiatuta (BER-318/050)

Frankistak sartu zirenean, ihesi Frantziara. Frejus-en egon ziren kontzentrazio-esparruan. Handik Biarritzera, eta Biarritzetik Capvern-era. 1939ko azarora arte egon ziren han. Aitak fabrika batean egiten zuen lan.

2.027. Frejus-eko kontzentrazio-esparruko bizimodua (BER-318/052)

Kontzentrazio-esparruan kartila zuten janaria lortzeko. Ama ernegatu egiten zen abizena gaizki esaten zutelako. Bazkaria senegaldarrek gertatzen zuten. Gosea pasatu zuten orduan, baina beste lekuetan ez.

2.028. Euskaldun gutxi Frejuseko kontzentrazio-esparruan (BER-318/053)

Gaztelu handi bat, eta inguruan etxaldeak eta lurrak, hori zen Frejuseko kontzentrazio-esparrua. Penintsulako leku guztietakoak zeuden. Euskaldunak oso gutxi.

2.029. Amak izandako komeriak frantsesez arrautzak eskatzeko (BER-318/054)

Biarritzen oso pozik egon ziren. Ama zorutzen, euskarazkoa zelako meza eta apaiza. Askok sufritzen zuen hizkuntza ez ulertzearekin. Aitak idatziz jartzen zieten erosi beharrekoak. Capvern-en amak izandako komeriak dendan arrautzak eskatzeko.

2.030. Pedro Garcia adiskidearen gorabeherak (BER-318/055)

Luciaren osaba eta Pedro Garcia adiskidea Santoñan hartu zituzten preso. Gero, general baten txofer egon zen osaba eta Pedro ere haren bidez ondo kokatu zen soldadutzan. 1947an Pedrok ihes egin behar izan zuen, eta orain Grenoblen bizi da. Euren etxera etortzen zen Pedro jatera, eta sobera zuten janaria eramaten zuen etxera.

2.031. Miseria handia, gerra ostean batez ere (BER-318/056)

Miseria handia egon zen gerra ostean. Gasteizen, ikastetxean zegoela, goizeko lehenengo orduan jaten zuen ematen zieten ogia. Gerra denboran, Cabezón de la Salen Euzko Jaurlaritzaren errazionamendua hartzen zuten eta ez zuten goserik pasatu. Esnea eta arropa ere izaten zuten.

2.032. Arropak eta gauzak galdu zitzaizkien ihesi zebiltzan denboran (BER-318/058)

Etiket eramandako arropak eta gauzak galdu egin ziren batetik bestera ihesi ibiltzean. Amak esaten zuen handik aurrera behar-beharrezko gauzak bakarrik erosiko zituela. Gerora, esandakoa ahaztu eta gauza gehiago erosten hasi zenean, adarra jotzen zion osabak. Askok pasatutakoa zen ama.

2.033. Amari "omenaldia" laurogei urte betetzean (BER-318/059)

Amari oparia egin zioten laurogei urte betetzean. Familia osoa elkartu eta oturuntza egin zuten. Egongelan dagoen erretratua ere ordukoa da, Pedro Luis Ormazabalek egina.

2.034. Bilbo eta Bartzelonako bonbardaketetan beldur handiena (BER-318/061)

Castroko baserri batean egon ziren ihesi joanda (Mioñon). Behi-zain egoten ziren mendi punta batean eta handik Bilbo bonbardatzen ikusten zuten.

Bartzelonan zeudela ere bonbardatu izan zituzten, eta babeslekuetara arin joan behar izaten zuten. Handik mugara arteko ihesa ere beldurgarria izan zen.

2.035. Amamaren ustez, hobeto ibili ziren ihes egin zutenak geratu zirenak baino (BER-318/062)

Amamak esaten zuen okerrago ibili zirela Bergaran geratu zirenak ihesi joan zirenak baino. Gorri fama zutenak gogor hartu zituzten frankistek lehen momentuan. Ihesalditik etorri zirenean, berriz, San Antonion ez zuten arazorik izan. Luciari lagun karlista batek esaten zion aitak sartu zuela bera kartzelan (gerra sortu zutenean herriko karlista nabarmenenak atxilotu zituzten). Isidro "Pote"ren salaketa xelebregatik sartu ei zuten Luciaren aita kartzelara.

2.036. Mutil errepublikanoa frankistek garbitu Angiozarren (BER-318/064)

Mutil errepublikano bat harrapatu zuten ezustean frankistak Bergarara sartu zirenean, eta Angiozarren garbitu zuten. Luciaren amamak oso gogoan zuen gertakizun hura.

2.037. Aitak, antiklerikala izan arren, elizaren ondasunak errespetatzeko agindu zuen (BER-318/066)

Aitaren anaia fraidea zen. Gerra irten zenean, etxean babestu nahi izan zuten, baina ordurako Eskoriatzako baserri batean zegoen ezkutatuta. Ihesalditik etorri zirenean, Bergarako mojek esan zioten Luciari beren aitak, komisario politikoa gerra denboran, komentuak eta elizak ez ukitzeko agindua eman zuela. Aita kleroaren aurkakoa zen, baina ez zen haien ondasunak hondatzearen aldekoa.

2.038. Hainbat fusilatu Bergaran (BER-318/067)

Osintxun hainbat lagun fusilatu zituzten frankistak sartu zirenean. Bergaran bakarra, Jaxinto "Bonbulu".

2.039. Don Serafinen katekesiak arrakasta itzela (BER-318/069)

Don Serafin San Antoniora etorri zenean katekesia jarri zuen martxan, eta arrakasta itzela izan zuen. Ikastaro bukaeran sei autobus joaten ziren Donostiara egun pasa. Luciak sakristiako ardura zuen eta oraindik ere badu. Utzi nahi luke, baina inork ez ei du soldatarik gabeko enplegurik nahi. Eliza berria auzotarren diruarekin egin da, eta hori San Antoniok duen famarekin.

2.040. Don Serafinek hasieran sermoirik ez, beldurragatik (BER-318/071)

Doan Serafinek asko egin zuen auzoagatik. Hasieran ez zuen sermoirik egiten, gaizki interpretatuko zuten beldur zelako. Desterratuta etorri zen Trintxerpetik, eta auzoko jaun eta jabe egin zen. Behartsuendako edo presoendako izaten ziren askotan meza-diruak.

2.041. Bergararik Donostiara ibilaldia Don Serafinekin (BER-318/072)

Ikastaro amaierako ibilaldia egiten zuten Donostiara. Igeldora igo, barkuan ibili..., primeran pasatzen zuten. Zine-kameraz ibilaldia grabatu eta gero San Antonioko tabernetan ikusten zituzten pelikulak. Trintxerpen ere oso estimatua

zen. Bergarara etorri ziren handik hainbat autobus bisitan. Emakume galiziar bat kezu zen, apaiza harrapatu zietela eta.

2.042. Luciaren aitak udalari zuzendutako agiria elizari laguntzak ukatzeko eskatuz (BER-318/073)

Luciaren aitak udalari agiria zuzendu zion, elizari laguntzak ukatzeko eskatuz. Dokumentu haren grabazioa.

2.043. Familiaren jatorria: Barrenkale eta Zapatarikoa (BER-319/002)

Barrenkalen jaioa da. Ama Barrenkalekoa zuen eta aita Zapatarikoa. Taberna zegoen tokian bizi ziren lehen. Amamaren jatorria. Osaba Bentura. Aitajauna merkataria zen, eta biltegia jarri zuen gero. Aitak han egiten zuen lana eta amak Barrenkalen, dendan. Aitajauna abarkagilea zen, Pedro Agerre, Elosukoa; dendan baserriko gauzak saltzen zituzten.

2.044. Sei anai-arreba ziren (BER-319/003)

Sei anai-arreba ziren, bera hirugarrena. Lau neska eta bi mutil. Umetan denek heziketa bera izan zuten etxean. Osaba apaiza beraiekin bizi zen. Etxeko lanak egiteko neskamea zuten. Sesmaneko janari denda zuten ondoan, eta handik ekartzen zuten jatekoa.

2.045. Auto istripua izan eta aitajaunak osatu (BER-319/004)

Auto istripua izan zuen Zapatarikoan, sei urterekin. Barrenkaleko aitajaunak hezurak konpontzen zituen, eta berak osatu zuen. Etxean egon zen denboraldi batez, baina gero Zapatarikora joan zen bizitzera. Amak zaintiratuak osatzen zituen; aitajaunak apurtutako hezurak ere bai. Opariak egiten zizkieten horregatik, pastelak eta. Bera oso ondo geratu zen. Kanaberak jarri zizkion, igeltsuarekin. 40 egunez-edo.

2.046. Zapatarikoan zegoen giroa (BER-319/005)

Zapatarikoan zegoen giroa. Telefonoa zuten, eta jende asko joaten zen. Biltegi baserritarrak. Tabernatik hara joaten ziren. Dendan aitaren arrebak egoten ziren.

2.047. Enseñanza mediapensionista (BER-319/006)

Enseñanza ikasi zuten lau ahizpek. Mediapensionistak ziren beraiek. Ezin zuten internekin hitz egin. Ezta externekin ere; haiek debaldekoak gutxiagotzat zituzten. Batxilerra ikasi zuen, baina ez zieten titulurik eman. Musika ikasi nahi zuen, baina horretarako interna izan beharra zeukan. Aparte ikasi zuen berak, Jesusa Enekotegirekin; maistra zen Bilboko kontserbatorioan eta kontzertuak ematen zituen. Bidegurutzean bizi zen. Haren ahizpa modista zen. Beste ahizpa bat Mujika ferreteriakoarekin ezkondu zegoen.

2.048. Jesusa Enekotegi musika irakaslearekin ikasten (BER-319/008)

Enekotegi maistra. Solfeo eta piano erakusten zituen. Bilbon bizi izan ziren eta gero Bergaran. Eskoriatzan familia zuten. Bere ahizpa, Maria Jesus Inza, Arrasateko beste neska bat, Ana Mari Azkarate... ere joaten ziren ikastera. Baita Perico Basterretxea ere.

2.049. Nolatan hasi zen piano eskolak ematen (BER-319/009)

Musika zaletasuna etxetik zetorkion. Enekotegi Zapatarikoen urrutiko senidea zen. Mutilak seminariora eta neskak mojetara, baina ez batzuek ez besteek ez zuten kanpora joaterik izan. Gurasoek ez zieten kasu handirik egiten; bera ona zen pianoan, baina ez zuten baloratzen. Enekotegik eskatuta eskolak ematen hasi zen, Camachotarrei. Gero etxean hasi zen. Lehen ikasleak: Pili Manso, Maria Carmen Gallastegi eta bere ahizpa, Bolibarkoa... lagun kuadrilla bat.

2.050. Bergarako musika irakasleak (BER-319/010)

Bergaran solfeo ikasteko aukerak, Enekotegiz aparte: Enseñanza eta bandako zuzendaria, Migel Gonzalez Bastida. Neskei ere ematen zien hark. Bere amak ere pianoa jotzen zuen; haren pianoarekin hasi zen bera, Barrenkalen. Baina Zapatarikoan bizi izan zen, izebarekin bizitzera joan zen arte. Aldi berean 30 lagun prestatzera iritsi zen. Ofizinan ere egiten zuen lana. Berak Bilbon egin zituen karrerako azterketak, baina bere ikasleek Donostian.

2.051. Bilbora azterketak egitera; pianoa alokatu (BER-319/011)

Bilbora joaten zen azterketak egitera. Ganbera musika ere egin zuen; azterketa kontzertu modukoa da. Piano karrera zazpi urtekoa da. Solfeoa laukoa. 17 urterekin amaitu zuen berak. Enseñanza pianoa alokatzen zuen, bi ahizpek ezin zutelako etxeko pianoan ikasi. Dena bikain atera zuen, ikasgai bat izan ezik. Erraztasuna zuen. Etxean ez zioten garrantzirik eman bere dohainari, baina mutila izan balitz ere berdin izango zela uste du.

2.052. Zerrajeran hasi zen lanean (BER-319/012)

18 urte arte mojetan ikasi zuen, eta Zerrajeran hasi zen lanean. Oposaketak atera zituen. Kultura orokorra ikasi zuen. Mekanografia bazekien, takigrafia ez; etxean ikasi zuen, Zapatarikoako bulegoko idazmakinan.

2.053. Bulegoko neskak (BER-319/014)

Bulegoan denak batera zeuden. Bera kontabilitatearekin hasi zen, laguntzaile moduan. Neska dezente zeuden, bospasei. Bulego handia zen, behealde guztia. Don Jose Maria Agirre zen arduraduna. Amelia Iza zen denbora gehien zeramatenetako bat.

2.054. Lan ordutegia eta baldintzak (BER-319/017)

09:30ean sartzen ziren, Bergaran, baina Arrasaten 08:00etan. 13:00etan Bergarara bazkaltzera joan, eta 14:30erako buelta. 1968an hasi zen Arrasaten. Grebak ere ezagutu zituen han. 70eko hamarkadan hasi ziren grebak. Lehen soldata zerrajeran: 662 ala 762 pezeta hilean. Ondo irabazten zen han. Urte onak ziren. Ez ziren arduratzen ondokoak kobratzen zuenaz, konforme bizi ziren.

2.055. Oporretan eta denbora librean (BER-319/019)

Hamar egun opor izaten zituzten. Ez ziren inora joaten. Manso ahizpak, Luz Telleriarte... horiek oso aurreratuak ziren; Kataluniara joan ziren oporretan, Sitgesera. Oporretan Ondarroara joaten zen, Saturraranera. Igandetan dantzara. San Juanera egitaratekoarekin. Debara joaten ziren hondartzara; batzuetan auto-stop eginda, bestetan trenez.

2.056. Debara familia osoa (BER-319/020)

Umetatik zuen bainujantzia. Lau zaharrenak bainujantzian agertzen dira erretratu batean. Berdin jantzita joaten ziren askotan. Puntuzkoak ziren. Aitak automobila zeukan, eta Debara joaten ziren umetan. Aita lapa bila ibiltzen zen.

2.057. Erromeriak eta zinema (BER-319/021)

Erromeriara Zubiaurrera, San Antoniora... Zinemara asko joaten ziren. Eskolatik irten igandetan eta Anbrosionera joaten ziren. 3R eta 4R ezin ziren ikusi. San Martzial egunean beti joaten ziren. Umetan dantza egiten zuten anaiak eta biak.

2.058. Emakumeak galtzekin oso berandu arte ez (BER-319/024)

Ez da mendizalea izan. Zapatarikotik kobazulo batera joaten ziren sarri. Gona erabiltzen zuten mendirako ere. Maite eta Nere Mujika izan ziren galtzak jantzen lehenengotakoak Bergaran; Maite Frantzian egon zen eta Nere Salamancan ikasten.

2.059. Emakume erretzaileak (BER-319/025)

14-15 urterekin erre egiten zuten. Izebak esaten zien itxurakeria zela hori, dotorea zela uste zutela. Amonak defendatu egiten zituen; esanaz baserri bateko emakumeak pipan erretzen zuela, bronkiotarako ona zela eta. Anaiak komunera sartzen ziren erretzera. Zapatarikoan denen aurrean erretzen zuten.

2.060. Josten ikasten (BER-319/035)

Josten ibili zen ikasten, Mugerzan. Laskurain alkatearen amarekin. Ugalde zen, baserritarra. Barrenkalen bi ahizpa zeuden, bata maistra, frontoian zeukan eskola eta besteak korte erakusten zuen; tailer bat zeukan. Kontxita eta Juanita Maiztegi.

2.061. Lehenengo kafetegia, Lorelei (BER-320/001)

Emakumeak ez ziren tabernetara joaten. Bolintxo okindegia zegoen tokian jarri zuten lehen kafetegia, Lorelei. Sanmartzial egunean deportibora joaten ziren, baina bestela ez. Pasteleriara joaten ziren pastelak jatera.

2.062. Estraperlo garaia eta telefonoa (BER-320/007)

Telefonistak emakumeak izaten ziren. Barrutin telefonorik ez zuten. Estraperlo garaian nola ibiltzen ziren, inspekzioa zetorreanean. Bere amonak ogia egiten zuen; atzeko biltegia irinez beteta zutela, Bonbulukoena. Kontrol zorrotzak izaten ziren.

2.063. Koltxonerak eta traperak (BER-320/011)

Koltxonerak. Bata frontoian bizi zen eta bestea Zubietan. Berienera Zubietakoa joaten zen. Zapatarikoara ere joaten ziren. Askatu, artilea atera eta harrotu egiten zuten. Solana traperaren biltegia. Matilde traperara famatua zen, San Antoniokoa.

2.064. Familiako kontuak (BER-321/002)

Aitak seminarioan egin zuen lana, inprentan. Enkoadernatu egiten zuten. Ama etxeakoandrea zen. Bi anai-arreba ziren. Bi izeba ezkongaberekin bizi izan ziren, aitaren arrebak. Bordatzaileak ziren biak. Gizonek ez zuten etxean ezer egiten. Umetan nahiko libre egoten zen, baina geldo egoten ere ez zioten uzten.

2.065. Eskolan, Sor Eufemiarekin eta Enseñazan (BER-321/003)

Eskolan Sor Eufemiarekin ibili zen eskolan, ospitalean. Baina ez zen gustura ibili. Gero Enseñazara. Dena neskek ziren. Externa moduan egon zen, eta partikular moduan marrazketa ematen zuen, hantxe bertan. Aritmetika ere aparte ikasi zuen, Don Leonardorekin. Uberako maisua zen. Hor neskek eta mutilak. Idazmakinarekin ere ibili zen. Baina 15 urterekin bordatzen hasi zen.

2.066. Maria Txantxote eta erbestea Belgikara (BER-321/004)

Maria Oianguren Txantxotek goiko plazan izan zuen ikastola. Hura Belgikan egon zen, eta bere senarra ere bai. Senarraren bi anaia hantxe bizi dira.

2.067. Neskek ikasteko aukera gutxi zuten (BER-321/006)

15 urtera arte Enseñazan ibili zen. Mutilek aukera gehiago zuten ikasteko. Bere sasoiaren pare batek maistrarako ikasi zuten: Maritxu Saizar eta Pilar Lonarbide. Gehienek kultura orokorra ikasten zuten. Interna zeudenek soilik ikasten zuten batxilergoa.

2.068. Etxetik lanean, bordadora moduan (BER-321/007)

Berari biak egitea tokatu zaio: etxeakoandrea eta etxetik lana. Etxean ikasi zuen bordatzen, eta Arrasaten ere bai, Anparo Trencadorekin. Mojetan eskuz josten ikasten zuten. Bainikak, inkrustazioak, marrazkiak...

2.069. Josteko makinak eta telak (BER-321/008)

Singer makina zuten. Makinaz bordatzen zuten. Izebak makina elektrikoa jarri zuen, baina bordatzeko zaila ei da. Izeba Garcia Zabaleta ahizpekin ikasia zen. Arreoak egiten zituzten. Antzuolako bati 24 sorta egin zituzten. Izarak, mantelak... Tela bezeroek jartzen zuten. Amonak tela denda jarri nahi zuen, baina dirurik ez zuen.

2.070. Bordatzeko marrazkiak, haria eta tela (BER-321/010)

Haria kanpotik ekartzen zuten. Alfonso Gallastegik ekartzen zien Bartzelonatik. Marrazkiak ere bai. Lan handia ematen zuten. Prezioaren arabera zen marrazkia. Tela denda nagusiak: Ugalde, Txaranekoa, Aranzabal eta Maer.

2.071. Tela erabilienak (BER-321/011)

Tela erabilienak: perkala, semi-hilo, Lasartekoa... Kotoizkoak ziren. Tolra. Linozko piezak jada ez zeuden salgai.

2.072. Josteko makinak (BER-321/012)

Josteko eta bordatzeko makinaren arteko ezberdintasunak: haginak. Automatikoa erosi zuen duela urte gutxi, baina ez zuen ia erabili. Josteko makinak: Singer, Alfa...

2.073. Bordatze lanak (BER-321/013)

Inkustrazioak egiten ikasi zuen lehenengo. Realzeak. Matizatuak. Bodokiak. Bainika kalatuak. Elizarako mantelak egin zituzten duela gutxi.

2.074. Arreoak batez ere (BER-321/014)

Arreoak egiten zituzten. Estoreak egoten ziren lehen etxeetan, eta haiek ere egiten zituzten. Tapeteak, xukaderak, izarak, mantelak... Amantalik ez. Eguna iritsi eta bukatu ezinik ere ibiltzen ziren. Neska bat etorri zitzaien behin lan eske, baina ezetz esan zioten.

2.075. Lan ordutegia (BER-321/015)

Lan ordutegia. Ez zuten gauetz lanik egiten. Lanpara txiki batekin ere aritu dira, presazkoa zenean. Gauetz marrazkiak ateratzen zituzten, hurrengo egunerako aurreratzeko. Etxeko lanak egitea ere tokatzen zen. Amona ere nagusia zen.

2.076. Gizarte Segurantzza gabe (BER-321/016)

Gizarte Segurantzza gabe ibiltzen ziren. Izeba autonomoetan sartu zen, baina bera ez. Ez sartzeko gomendatu zioten, eta ezer gabe dago orain. Ez zen aholku ona izan.

2.077. Lan asko, eta diru gutxi (BER-321/017)

Ezkontzeko lana uzten zuten emakume askok lantegietan. Etxean lan egiten zutenek normalean ez. Bestela diru gutxi zen. Arratsaldetik josten zuen; goizean errekaduak. Gutxi kobratzen zutela dio. Maria Victoria Oiarzabali, medikuaren alabari, arrea egin zioten. 10 pezeta inguru zela du gogoan. Barregarrikeria. Prezioa beraiek jartzen zuten. Bergaran bordatzaile bakarrak izan ziren. Gerora, makina automatikoekin, hasi ziren gehiago. Sorluzetik ere joaten zitzaizkien, arrea egiteko eskatzera.

2.078. Lana eta aisialdia nola uztartu (BER-321/018)

Etxera ezkondu zen. "Bestela, laguntasunik ez zeuan. Ni joan banitza...". Familia eta lana uztartzen ikasi zuen. Ama ere sasoikoa zegoen, eta ondo. Igandetan dantzara ere joaten zen, ezkondu aurretik. Espoloiko kontzertura ere bai inoiz. Arrasatera ere joaten ziren sanjoanetan, baina bederatzietarako etxera. Eibarrera ez zieten uzten joaten. Eibartarrak aurreratuak ziren, bergararrak dotoreak. Pazkoatan arropa estreinatzen zuten.

2.079. Hondartzara eta zinemara (BER-321/019)

Hondartzara oso gutxi joaten zen, urtean bitan. Ez da zalea. Bazuten bainujantzia. Aitonaren senide bat bañeroa zen Deban. Zinemara bai, joaten ziren arratsaldetan. Anbrosiona eta Akziona. Elizan gizonak behelaldean egoten ziren eta emakumeak goian. Zinemako zentsura: 3R zirenak debekatuta zeuden, eta ez ziren joaten.

2.080. Ile apaintzaileak (BER-321/020)

Hilean behin ile-apaindegira joaten ziren. Bidegurutzean, Artekalen... bazeuden batzuk. Etxeetan egoten ziren. Lonbideneko zapata dendaren gainera joaten zen bera, Julirengana; Elgoibarkoa zen izatez. Camachoneko denda gainean bi ezkongabe zeuden, Bidegurutzean.

2.081. Bergarako Orfeoian ibili zen I (BER-321/022)

Orfeoian ibili zen. Entsegutara pozik joaten zen, nahiz eta iluntzean izan. Kontzertu inportanteak izaten zituzten irailean, San Pedron. Musika zuzendari famatuak joaten ziren. Don Roman zen zuzendaria. Izeba biak orfeoian ibilitakoak ziren eta osaba musikaria eta kantaria.

2.082. Bergarako Orfeoian ibili zen II (BER-321/024)

Orfeoian 17-18 urterekin hasi zen. Neskak eta mutilak zeuden. Gizonak nagusiagoak ziren. iraileko kontzertuak hunkigarriak ziren. Bilboko orkestra joaten zen Bergarara. Urte batzuetan ez zen egon Orfeoirik. Lehengoak ere Gasteizera-eta joaten ziren kontzertuak ematera. Madrilen, Salamancan... beraiek toki askotan egon ziren. Ezkondu eta gero utzi egin zuen. Urte batzuetan ezin izan zuen joan, umeak jaio zirenean.

2.083. Haurren jaiotza eta emaginak (BER-321/025)

Lehen bi umeak etxean izan zituen, Don Romanekin eta Mikaela emaginarekin. Medikua oso laguna zuten; astean bitan joaten zen kafea hartzera. Beste biak ospitalean izan zituen, Mikaelarekin. Aurretik parterak zeuden: Zezari Zubixarkua. Bi ibiltzen ziren.

2.084. Gerrako kontuak; bonba bat erori zen etxe parean (BER-321/027)

Gerrako kontuak. Sotanotara joaten ziren. Bonba bat erori zen etxe parean, bera ogia eta mantekila jaten zegoela. Kanpaiak jotakoan, ezkutatzera.

2.085. Errepublika garaiko kontuak (BER-321/028)

Batzokira joango zen, baina ez da gogoratzen. Inauterietan irteten zirela du gogoan. Ez zen pospolinetan ibili. Antzerkia Enseñanza egiten zuten batzuetan, baina bera oso lotsatia zen. Batzokian ibiltzen zirenak: Amanabar ahizpak, Maria Txantxote, Lazpiur ahizpak...

2.086. Angiozarren zegoen gerra hasi zenean (BER-321/029)

Gerra garaian ez ziren kanpora joan. Angiozarren zegoen, amaren baserrian, gerra hasi zenean. Tiro hotsak entzuten zituzten. Gogoan du soldaduak ate joka joan zirela.

2.087. Pianoa jotzen ikasteko gogoz (BER-321/030)

Marrazketa ikasi zuen Enseñanza, gero bordatu egin behar zuelako. Pianoa jotzen ikasteko gogoz geratu zen. "Nik beste piano bat ikasi biha neban eta!". Gerora senarrak animatu izan zuen, baina lotsa ematen zion. Lana ere egin behar zuen. "Eta kitto. Hortara dedikatu eta hauraxe".

2.088. Soldata eta diru kontuak (BER-321/031)

Etxeko diruak. Izebak eta berak erdibana kobratzen zuten. Ezkondu eta gero; aurretik izebak, eta berari paga ematen zion, bankuan sartzeko. Bere bi lagun Algodoneran ibili ziren. Neskame ere joaten ziren neskak. Algodoneran ere ez du uste asko irabazten zutenik; gerraostean behintzat bi pezeta astean. Baina orain euren erretiroa dute.

2.089. Gerra ostean tela gutxi (BER-321/032)

Gerra garaian tela falta zen. Txaranerako egiten zuten lana, Ugalde. Inspektoreak joaten zirenean, dendatik beraienara eramaten zituzten jositako arropak.

2.090. Esneduna, Angiozargo "korreoa" (BER-321/034)

Esneduna Angiozartik joaten zitzairen etxera. "Korreoa" esaten zioten, eskutitzak eramaten zituelako. Zaldiarekin eta karroarekin joaten zen. Laga zutenean, beste esnedun bat eduki zuten.

2.091. Emakumerik ez tabernetan eta zigarro erretzen (BER-321/035)

Erromeriara dantzara bai, baina tabernetara ez ziren sartzen. Gurasoekin, umetan, jaietan. Bestela ez. Gerora etorri zen terrazetan egoteko ohitura. Irungo lehengusu batek erre egiten zuen, eta amandrea haserretu egiten zen. Neskek erretzea ez zen normala.

2.092. 'Acción Católica' eta Mariaren alabak (BER-321/037)

Acción Católican ibilia da. Hitzaldiak ematen zizkieten. Ez zegoen oso ondo ikusia ere; dantzan kalabazak emanez gero, esaten zieten: "Zer, Acción Católicakoa?". Mariaren alabak kongregazioa. Azkoitian bota egiten zituzten, mutilekin dantza egiten bazuten. Bergaran ez. Azkoitiko apaiz batek esan zuena.

2.093. Zerbitzu soziala eta 'Sección Femenina' (BER-321/040)

Berak ez zuen zerbitzu soziala egin, baina gauza batzuetarako derrigor egin behar zen. Berak ez zuen beharrik eduki. Sección Femeninakoek desfileak egiten zituzten gerra garaian; dezente ziren. Txapel gorriarekin. Acción Católicako bandera eraman izan du berak, prozesiotan, Manola jantzita, peinetarekin.

2.094. Bergarako erizainak eta botikariak (BER-321/043)

Don Victorio medikuaren alaba, Karmentxu Mujika erizaina zen. Rosario (Agirrezendoia) okindegikoa ere bai, injekzioak jartzen ibiltzen zen. Eta Kontxita Saizar ere erizaina zen Zerrajeran; gero moja joan zen. Mertxe Orueta. Maria Victoria Oiarzabal botikaria izan zen; botika jarri zuen.

2.095. Bergarako telefonistak (BER-321/045)

Lehengo emaginak titulu gabeak ziren. Mikaela izan zen ikasketadun lehenengoa. Telefonistak ere bazeuden: Margarita Landa, Pepita Beain... Agustina eta Eladia Ibarzabal ziren buruak. Laubapost ziren. Handik hartu zuten erretiroa. Mizpildiko hasieran zuten lokala. Konferentziak izaten ziren, eta lokutorioak zeuden. Ez du uste telefonistek ikasketa berezirik zutenik.

Kontabilitatea ikasteko aukera bazen bere garaian (Enseñanza bertan ala maisuren batekin, partikular); mekanografia eta takigrafia ere bai.

2.096. Konfekzio tailerrak Bergaran (BER-321/047)

Konfekzio tailerrak. Elorza, Aiañtui, Berraondo, Agirre, Alfonso Gallastegi, Idarreta... arropa zuria egiten zuten batzuek, beste batzuek azula. Emakume asko zebilen bertan lanean. Gizonezkoek ebaki egiten zuten batzuetan, eta emakumeek josi.

2.097. Bergarako jostun ezagunenak (BER-321/048)

Josten erakusten zutenak. Katalina Zarauz oso famatua zen, Barrenkalean. Angelita (Elgoibar?) jostuna ere bai, Casino gainean bizi zena. Eta Enekotegi. Horiek ei ziren ezagunenak.

2.098. Negozioen arduran zeuden emakumeak (BER-321/052)

Negozioen arduran zeuden emakumeak. Txaranekoak emakumeak ziren, Aranzabaleneakoak ere bai. Nieves "la traperera", eta haren koinata, San Antonion. Alargunak ziren batzuek.

2.099. Bergarako errekadistak (BER-321/054)

Emili Egiluz errekadista. Beraien aldamenean bizi zen. Trenean joaten zen. Aita ibiltzen zen lan horretan; gero, anai-arrebak hasi ziren, Antonio, eta ondoren Emili bakarrik. Geltokira karroarekin joaten ziren, eta ondoren trenez. Maltzagan trenez aldatu behar zuten. Atarian edukitzen zituzten paketeak; batzuk pakete bila joaten ziren, beste batzuek beraiek eramaten zituzten.

2.100. Etxez etxe zebiltzan jostunak (BER-321/055)

Baserriz baserri zebiltzan jostunak. Maria izeneko bat. Josteko makina besapean eramaten zuten. Mizpildin bizi zen beste bat ere etxez etxe joaten zen. Arguen kalean bizi zen Maria ere bai; Oruetanera, Idarretanera... etxeak hartuta zeuzkan. Tela bezeroek jartzen zuten.

2.101. Koltxonerak eta traperak (BER-321/057)

Koltxonerak. Zabalotegin bizi zen bat, beste bat Artekalean... Artilezko koltxoiak ziren. Kanpoan jo behar ziren; Goenkalean eta. Bizkarrean hartuta eramaten zituzten. Traperak ere baziren, etxez etxe zebiltzanak.

2.102. Bere aurreko emakumeek oraindik lan gehiago (BER-321/061)

Bere aurreko emakumeek berak baino lan gehiago egin zutela dio. Akordatzen da emakumeak lantegietara nola joaten ziren. Porterian ematen zieten titia, etxekoren batek umea hara eramanda. Amatasun baxerik ez zen orduan.

2.103. Matematiketarako erraztasun handia (BER-324/005)

Etxe barruko lanak egitea ez zen bere eginkizuna umetan. Baina eskolara ez zuten sekula faltatzen. Amak oso garbi zuen: bakoitzari bere bidea zabaldu behar zitzaion. Berak Matematiketarako erraztasun handia zuen.

2.104. Enseñanzako ikasleen mailaketa klasistak herriaren izakera markatu du (BER-324/006)

Bergaran ez zegoen eskola publikorik neskontzat. Mojen eskolak betetzen zuen zuloa. Han hiru kategoriatako ikasleak zeuden: "Internak", "Mediapensionistak" eta "Externak". Barnetegian kanpotar asko egoten zen. Hiru mailak oso nabarmenak ziren, eta uste du horrek herriaren nortasuna markatu duela. Eibarren beste giro bat, beste elkartasun bat ezagutu du.

2.105. Neska asko kolokatzen zen fabriketan Enseñanzako ikasketekin (BER-324/007)

Bera "externa" zegoen, baina klase partikularrak hartu zituen bertan amak bultzatuta: Kontabilitadea, Mekanografia eta Takigrafia. Irakasle onak zeuden. Ikasketa horiekin neska asko kolokatzen fabriketan.

2.106. Magisteritza bukatu eta akademia sortu (BER-324/009)

Internak bakarrik egin zezaketen batxillerra. Magisteritza amaitu zuenean ez zuen oposiziorik egin nahi izan, Arabako edo beste nonbaiteko herri txiki batera joateko gogorik ez zuelako. Horrela, Lide Mujikarekin elkartu eta akademia sortu zuten.

2.107. Batxillera eta Magisteritza bere kontura ikasi zuen (BER-324/011)

Ikasle ona zenez, Enseñanzan beka bat eman zioten batxillerra ikasteko; hasi zen baina ez zebilen gustura. Gero, bere kasa, "por libre", Donostian eta Valladoliden egin zituen batxiller ikasketak, eta Donostian magisteritzakoak. Amaitutakoan ez zen presentatu oposizioetara, herri txiki batera bidaliko zuten beldurrez.

2.108. Magisteritza egindako emakumeak oso gutxi bere garaian (BER-324/012)

Ez du gogoratzen beste neska bergararrik magisteritza ikasten garai hartan. Eta oso bakanak dira bere adineko tituludunak. Mari Pilar Lonarbide horietako bat.

2.109. Akademia abian, Lide Mujikarekin batera (BER-324/013)

Lide Mujikarekin batera jarri zuen akademia. Lehenengo Mizpildi kalean, Lasa jatetxearen aurrean gero. Erdaraz ziren gaiak, euskarazko materialik ez zegoelako, baina euskara asko erabiltzen zuten berbaz.

2.110. Ballet klaseak akademian (BER-324/014)

Errusian egondako emakume eibartar bat ekarri zuten akademiara ballet klaseak emateko. Herriko ospakizunetan ere parte hartzen zuten

2.111. Jaialdia antolatu zuten Novedadesen gor-mutuen alde (BER-324/015)

Apaizgaien eguneko ospakizunetan ere parte hartzen zuten akademiatik. Gor-mutuei laguntzeko zozketa bat eta jaialdi bat ere antolatu zituzten. Novedades-en egin zen jaialdia. Orduan ezagutu ziten Gorrotxategi eta Egileor bertsolariak. Lurdes Iriondok eta Urretxindorrek Taldeak ere abestu zuten. 70.000 pezeta batu zituzten.

2.112. "San Martin de Agirre" eta "Santa Infancia", akademiaren izenak (BER-324/017)

"San Martin de Agirre" zen bere eskolaren izena. Inspektorearen beldur izaten ziren beti; gainera Lasanean egoten zen, euren eskolaren aurre-aurrean. Legeztatzeko orduan, "Santa Infancia" izena jarri zion apaizak akademiari.

2.113. Ikastola bateratua sortu aurretiko korapiloak (BER-324/019)

Bazen herrian ikastola sortzeko mugimendua. Talde batek, Don Serafin eta Linazisorotarrak buru, futbol partidua antolatu zuten. Baina Maria Victoriaren akademiarekin kontatu gabe. Gaizki ulertuak eta tentsioa.

2.114. Hasierako bi ikastolatxoen arteko konponezinak (BER-324/020)

Konbenio kalean sortu zen ikastola berria. Akademiaren tarifa berdinak zituzten, nahiz eta gastuak txikiagoak izan. Andereak titulu gabeak ziren. Akademiakoek ez zuten arazorik jarri haiekin elkartzeko hasiera hasieratik.

2.115. Ikastolatxo biak bat eginda Seminarioko lokaletara (BER-324/023)

Gurasoak konturatu ziren tontokeria zela bi ikastola batera egotea. Seminarioa ere hutsik geratu zen institutua sortu zenean, baina fraideek baldintza bakarra zuten lekua uzteko: bi ikastolak batuta joan behar zutela. Eta horrela abiatu zen Bergarako Ikastola (1971).

2.116. Ehun bat haurrekin abiatu zen Bergarako Aranzadi Ikastola (BER-324/024)

Laurogei bat ume eraman zituen Maria Victoriaren akademiak ikastola berrira; besteak, askoz ere gutxiago, aurre eskolako pare bat gela edo. Biak bat egin zutenean amaitu ziren istiluak.

2.117. Gabonetan eta Santa Ageda bezperan kantura (BER-324/027)

Julen Lekuonaren etxera ere joan ziren. Gero kantura ekarri zuten Bergarara. Santa Agedatan ere irten ziren eskera. Batutako dirua Moja Zaharrei eman zieten. Gabon batzuetan sekulako hotzarekin irten ziren kantura.

2.118. Hondarribian Matematikako euskal terminologia ikasten (BER-324/030)

Hasieran Xabiartxo liburua erabiltzen zuten, eta berbazko harremanak euskaraz ziren gero eta gehiago. Maria Victoria hamabost egunez egon zen Hondarribian matematikako euskal terminologia ikasten.

2.119. Eskola liburu guztiak erdaraz, Xabierto izan ezik (BER-324/032)

Erdaraz zeuden akademian erabiltzen zituzten batxillerreko liburuak. Euskaraz Xabierto, eta ia beste ezer ez. Elvira Zipitriaren metodologia ez zen Bergarara heldu.

2.120. Maria Txantxotek ez zuen eskolarik eman gerra ostean (BER-324/034)

Maria Oianguren ("Maria Txantxote") ez zuen eskolarik eman gerra ostean. Aurretik bai, Errepublikaren denboran sortu zen ikastolan.

2.121. Pospolina izan zen gerra aurretik (BER-325/002)

"Pospolina" izan zen gerra aurretik Maria Victoria. Batzokian ikasten zituzten dantzak. Karmelo zen erakuslea. Gerra ostean han sartu zirenean, Jose Antonio Primo de Riveraren argazki handi bat aurkitu zuten.

2.122. Batzokia eta Emakume Abertzale Batza (BER-325/004)

Amenabar ahizpak, Azkarateneoak, Maria Ojanguren, Idarretaneok, Zabalanekoak... ziren batzokiko martxa eramaten zuten emakumeak. Emakume Abertzale Batzaren burua, berriz, Rafaela Ezpeleta, Guenetxe okindegikoa. Gero moja joan zen. Idazkaria, Bitxori Oregi.

2.123. Beren autobusari harrika Tolosan (BER-325/006)

Pospolina zela, behin Donostiara joan ziren jaialdi batera. Itzuleran Tolosatik pasatzean, harrika egin zioten bere autobusari. Mutil batzuk, Ardatxanekoak tartean, makilekin jaitsi eta uxatu zituzten harrikariak.

2.124. Juste Amenabar, gerra aurreko eta ondorengo ekintzailea dantzan eta antzerkian (BER-325/008)

Juste Amenabar eta haren ahizpa oso aktiboak izan ziren gerra aurretik batzokian, dantza eta antzerki arloan batez ere. Gerra ostean ere bai, Txomin Amasorrainekin batera, antzerki taldean zein Urretxindorrek kantari taldeari laguntzen.

2.125. Bi Santa Ageda kantu, bata karlistena eta bestea nazionalistena (BER-325/010)

Karlisten artean, Etxaniztarrak eta Basterra maisua nabarmentzen ziren. Santa Agedatan eskera irteten zirenean, bi kanta-doinu ezberdin erabiltzen ziren, bata karlistena eta bestea nazionalistena.

2.126. Mutikoak falangista jantzita eta neskak kantinean (BER-325/011)

Gerra denboran, gurasoak ihes eginda zeuden, eta haien seme txikiak, berriz, falangista jantzita eta neskatilak kantinean ibili behar izan zuten herrian. Mezatara joan behar zuten igandetan eta gero desfilea kalez kale.

2.127. Vicente Telleriarteren hiru alaben izen argitsuak (BER-325/013)

Bergarako errepublikano famatuena Vicente Telleriarte izan zen. Hiru alaba izan zituen, Sol, Aurora eta Luz, denak izen "argitsuak".

2.128. Irratiaren historia (BER-325/015)

Bergaran geratu zen familia osoa, hamaika kide. Aitaren lagun karlista batek irrati handi bat saldu zion. Amak errezelo handiz ikusi zuen hura, negozio zikinen batean sartuta ote zegoen. Hurrengo egunean kendu zioten, militarren bati emateko.

2.129. Senarra izango zena ihesi gerra denboran (BER-325/016)

Gogoan du zela plazan emakumeak ikusi zituen eskuan zartaginak zituztela, ihesi irtetear zeudela. Senarra izango zena ihesi ibili zen gerra denbora guztia. Eibarren, Gernikan, Frantzian...

2.130. Elgetako frontearen aurrez aurre etxea (BER-325/017)

Eskolak jarraitu egin zuen gerra denboran. Bonbardaketak zirenean etxepera jaisten ziren. Bi soldadu etxean hartzera behartu zituzten. Ofizial alemanak ere egon ziren, baina denbora gutxi, beldurtu egin zirelako, frontea aurrez aurre zegoela ikusita. Elgetatik beren etxeko leihoan arropak eskegita ikusten ei zituzten gudari bergarrek.

2.131. Emakumeak zartaginak hartuta, ihesi (BER-325/018)

Hainbat lekutan babesten ziren bonbardaketak hasten zirenean. Arrosarioa errezatzen zuten. Batzuk beldurtiak ziren eta beste batzuk ez, beren amama, esaterako. Katua beldurtiena. Emakumeak zartaginak hartuta, ihesi abiatzeko orduan, buruan iltzatuta geratu zaion irudia.

2.132. Ondasunen lapurreta gerra denboran (BER-325/020)

Gizonaren familia gerra ostean etxera itzuli zenean, etxeko gauza gehienak falta ziren, jende ezagunak harrapatuta. Autoa ere kendu eta Bergarako familia bati saldu zioten.

2.133. Aita Ondarretako kartzelan bederatzi egunez (BER-325/022)

Aita Ondarretako kartzelara eraman zuten. Mugitzen hasi ziren eta bederatzi egun eginda askatu zuten. Geletan ez zuten etzateko lekurik ere. Txarrena gauak ziren, fusilatzeke presoan bila etortzen baitziren.

2.134. Aitak ez zuen nahi izan kartzelatik gaez irteterik (BER-325/023)

Ondarretako kartzelan zegoela, iluntzean etorri zitzaizkion aitari aske utzi behar zutela esanez. Hurrengo goizean nahiago zuela, berak. Izan ere, beldur zen iluna aprobetxatuz edozer gauza gertatuko ote zitzaion. Askatu eta gero, Arantzazura joan zen bederatzi egunez Ama Birjinari eskerrak ematera.

2.135. "Oración por España" txikitu zuenekoak (BER-325/027)

Elizan, arrosarioaren ondoren, "Oración por España" egiten zen. Buruz errezitatzen du. Behin, Maria Victoriak elizan sartu eta otoitzaren papera txikitu zuen. Handik urte batzuetara apaizen buruari, Don Ceferinori, Francozale amorratua, gutuna egin zion ekintza aitortuz, baina sinatu gabe. Abadeak bildu eta otoitza alde batera uztea erabaki zuten. Azkenik, apaiz bati aitortu zion, baina konfesioko sekretupean.

2.136. Akademiaren hasierak (BER-325/029)

Peña dentista eta Don Pepe abadea ere tartean zien akademia sortu zutenean. Don Pepek latina ematen zuen. Asko erregutu behar izan zitzaion lana onar zezan. Peña ak zientziak ematen zituen.

2.137. Peña dentistaren emaztea eta seme-alabak Madrilera ikasketak egitera (BER-325/033)

Peña dentistaren seme-alabak izan ziren karrera hartu zuten bergarar bakarrenetarikoak. Madrilera aldatu zen familia amarekin, aita Bergaran utzita.

2.138. Don Roman medikuaren alaba, Bergarako lehen emakume karreraduna (BER-325/036)

Don Roman Oiarzabal medikuaren alaba izan ei zen Bergarako lehen emakume karreraduna. Familia oneko alabek ez zuten goi mailako ikasketarik egiten; pianoa, pintura eta horrelakoak ikasten zituzten.

2.139. Herriko ile-apaindegiak (BER-325/038)

Ile-apaindegiak. Maria Victoriaren gizonaren arrebak Barrenkalen egiten zuen. Camacho farmaziaren gainean beste bat zegoen. Familia bati buruzkoak. Sakristauaren emazteak, Agirre dendaren gainean zuen. Arruriaga kalean eta Altos Hornosen ere baziren.

2.140. Don Roman medikua haurgintza lanetan bikaina (BER-325/040)

Maria Victoria Don Roman Oiarzabal medikuarekin jaio zen. Oso ona ei zen. Bergara zen gerra aurretik haur jaio berrien hilkortasun txikiena zuen herria.

2.141. Hiru urte zituela, ama hil zitzaian (BER-326/003)

Ez zuen ama ezagutu; hiru urte zituenean hil zen. Ezkontzako erretratua badauka. Aita epaitegiko idazkaria zen. Zazpi anai-arrebatatik bi gaztetan hil ziren. Lau neska ziren. Ahizpek egiten zuten amaren lana. Amaren azken borondatea senarra ez berriz ezkontzea izan zen; amaorderik ez emateko eskatu ei zion. Ahizpa zaharrenak 30 bat urte zituen ordurako.

2.142. Umetan Sor Eufemiarekin eskolan (BER-326/004)

Umetan ez zuen etxeko lanik egiten; denek zaindu egiten zuten. Felisa ahizpa Bilbora ezkondu zen. Mimatatu egiten zuten, baina errieta ere egiten zioten. Umetan Sor Eufemiarekin ibili zen eskolan. Gero Enseñanza.

2.143. Ikastolan, Mari 'Txantxote'rekin (BER-326/017)

Mari Txantxote bere andereñoa izan zen, ikastolan. Kasinoa zegoen lekuan. Aparteko eskolak ziren, mojetatik kanpokoak. Uste du tituluduna zela. Dena euskaraz ematen zuen bakarra zen. Han neska-mutikoak zeuden. Batzokikoak eta bestelakoak, 30etik gora ziren. Irakurtzen eta idazten ikasten zuten. Xabiertxo liburua zuten. Debaldekoa zen, euskara ondo ikasteko. Txantxote jatorra zela dio, baina gogorra izan beste erremediorik ez zuela, hainbeste umerekin. Gela asko zeuden, eta handiena hartu zuten. Lau-bost urte egin zituen hara joaten, gerra hasi zen arte.

2.144. Gerra garaian, enseaanza itxita (BER-326/019)

Enseaanza ikastetxea itxi egin zuten gerra hasi zenean. Kapoko ikasleak etxera bueltatu ziren: Donostiara, Bartzelonara, Madrilerara... Lonarbide bakarrik geratu zen; Bergaran bizi zen, parean, eta ez zen etxera joan. Moja euskaldunak bazeuden; Oñatikoa eta Beasaingoa. Baina ez zuten euskaraz erakusten. Frantsesa eta alemana aparte ikasten ziren, hantxe bertan. Euskarazko izenak zeuzkatenei aldatu egiten zizkieten. Berari Isabel deitzen deitzen zioten. Garai bateko nortasun agiria aipatzen du.

2.145. Gerra sasoian ez zuten ihes egin (BER-326/021)

Gerra etortzean ez ziren inora joan. Anaia joan zen, emaztea eta bi umeak utzita. Algodoneran emakume bat hil zen, bonbak jota. Beraien etxea ere zulatuta geratu zen. Aitak Uzarragara (Antzuola) eramaten zituen egunez. Rosario eta Aurea, bi ahizpak zigortu zituzten, baina Rosario gehiago. Egun osoa edukitzen zuten arropa garbitzen. Trini Agirrebeña ere zigortu zuten. Zortzi edo bederatzia emakume eraman zituzten.

2.146. Gerra garaiko giroa, nazionalak sartu ostean (BER-326/023)

Ez da desfileekin eta kanpai jotzeekin akordatzen, baina bai besoa altxarazten zietela. Bazeuden "margaritak", baina gutxi ziren. Denak etxe barruan egoten ziren, San Antonion. Oñatin egin zituzten desfile asko. Bandera espainola jarri behar zen balkoian, baina beraiek ez zuten jarri.

2.147. Aretxabaletako lan baldintzak (BER-326/025)

Aretxabaletan Edurne Peña aretxabaletarrarekin zebilen lanean. Lau bat urte egin zituen han. Bulegoko denak joan ziren Donostiara gero. Orduetgia: 09:00-12:30 eta 14:30-19:00. Etxera joaten zen bazkaltzera, motoan. Hamabost eguneko oporrak zituzten, eta gainerako langileek zortzi.

2.148. Bergara textila itxi zutenekoa (BER-326/027)

Gutxi kobratzen zuten. Textila itxi zutenean ere ez zuen ia ezer jaso; "prestacion graciable" kobratzen egin zituen zazpi hilabete, diru gutxirekin. Zuzendaritzako hirurak indemnizazio gabe geratu ziren; langileek bai, kobratu zuten. Langile gehienak beste toki batzuetan kolokatu zituen: Algodoneran, Movillasenean...

2.149. Lan baldintzak: emakumeek gutxiago kobratu (BER-326/028)

Ez du gogoan bere lehen soldata, baina txikia zen. Berdin kobratzen zuten mutilak eta neskek. Bi mutil eta lau neska zeuden. Legeak gaizki ipinita

zeudela dio; langileek ez zuten irabazten zutena kotizatzen. Berak aurre egin zion zuzendaritzari, hori jartzeko. Tailerlean emakumeek eta gizonezkoek ez zuten berdina kobratzen; emakumeek gutxiago, baina bulegoan ez. Bera kudeatzaile lanetan hasi zenerako, 1945 ingururako, berdin irabazten zuten. Grebak, langileek Labe Garaietan bezala kobratu nahi zutelako.

2.150. Takigrafia eta telefonistak (BER-326/029)

Takimekanografa moduan hasi zen Aretxabaletan. Takigrafia asko erabiltzen zen apunteak hartzeko. Aurikularrak erabiltzen zituen. Konferentziak, telefono bidez. Bergarako telefonistak, frontoirako bidean zegoen bulegoa; hiru emakume egoten ziren. Kontuak ere eramaten zituen.

2.151. Bulegokoak Zaragozara oporretara (BER-326/030)

Aretxabaletan zegoela, Zaragozara joan zen oporretan. Hango giroa oso bestelakoa zen, sala de fiestas zeuden. Bergaran artean ez; azkenengo pieza baino lehenago etxera joan behar, aita zain zuelako. Bulegoko hiru lagun joan ziren, Cristina Peña eta Manolita Fernandez bergararra. Oso espabilatuak zirela dio. Trenez joan ziren, eta hotelean egon. Bakarrak izango ziren Bergaran. Geroago, Benidormera eta Galiziara ere joan ziren.

2.152. Mutilaguna utzi zuen, aita zaintzeko (BER-326/032)

Madrilgo kimikari batekin ibili zen urte askoan. Etxean bera zen irabazten zegoen bakarra, eta aita edadetua zen. Utzi egin zuen, pena handiz. Eskutitzak idazten zizkion. Ramon Pez Ibarzabal zen. Hark Madrilen zeukan lana.

2.153. Debekatutako filmak eta eskote 'eskandalosoak' (BER-326/033)

Zinemara joaten ziren. Anaiak paga ematen zion, aitak emandakoarekin ez zitzaion-eta iristen. Debekatutako pelikulak. Aitaren baimen gabe joan zen batera. Sanmartzial egun batean aitak esan zion 'eskandalosa' zihoala, soinekoan eskote pixka bat zeukalako. Orain, berriz, dena bistan eramaten dutela dio. Emakumeek ez zuten erretzen; ezkontzaren batean igual, baina gutxi. "Abellanak" erosten zituzten. Gizon bat egoten zen kalean, gozokiak saltzen; limoi ura saltzen zuen sanmartzialetan. Barkileroak eta izozki saltzaileak.

2.154. Arrain saltzaileak eta koltxonerak (BER-326/034)

Arrain saltzaileak San Antoniora ere joaten ziren; Bergaran bertan bizi ziren. Koltxonerak; frontoian zegoen bat. Bi ezagutu zituen, baina ez du izenik gogoratzen. Labaderoan bakoitzak berea garbitzen zuen, ez beste inorentzat. San Antonion labaderoa non zegoen, orain kapila dagoen tokian; Aurea ahizpa joaten zen. Beste batzuk errekarra joaten ziren.

2.155. Umetako eta gaztetako bainuak eta jolasak (BER-326/035)

Umetako bainuak errekan. Presan salto ere egiten zuten, Martokuako bidean. Ikasi zuen igerian. Mutilak asko ziren, baina neskak gutxi. Bainujantzirik ez zuten, eta soinekoekin. Debara joaten hasi zirenean erosi zuten bainujantzia. Frontoira joaten ziren kaletarren kontra gerra egitera. San Antonion ez daki askatasun gehiago zuten, baina ausartagoak zirela uste du. Kaleko neska askori utzi ere ez zieten egingo gurasoek. San Antonion gorri fama zuten. Don Serafin apaizaren kontuak.

2.156. Donostian Bergaran baino libreago (BER-327/002)

Aretxabaletatik Donostiara eraman zuten lanera. Carrocerias Villar. Haur kotxetxoak egiten zituzten, aberatsentzat. Inude asko zegoen Donostian. Maisu baten etxean egon zen apopilo, beste bi neskarekin batera. Hantxe pasatzen zuen astea. Asteburuan, Bergarara trenez. Bulegoko lagunekin irteten zen. Bergarar bakarra zen bulegoan (beste Gasteizera ezkondu zen). Bulegokoekin irteten zen, kafetegira. Bergaran baino askeagoa zen. Hala ere, ez ziren tabernetan sartzen. Donostiako soinekoek eskote handiagoa zuten.

2.157. Kafetegira eta hondartzara, Donostian (BER-327/004)

Begarako neskek dotore fama zuten. Donostian antzeko orrazkerak ikusten ziren eta antzeko estiloa. Diferentzia handiena irteerak zirela dio. Bergaran ez zen artean emakumerik ikusten kafetegietan. Hondartzara ere joaten zen, Kontxara. Gustura egon zen, baina beti etxera bueltatzeko gogoz. Etxeko andreak kontrolatu egiten zituen, alaba (adin berekoa) beraiekin ateratzen zelako.

2.158. Kudeatzaile lanetan, urte gogorrak ere bai (BER-327/005)

Donostian bulegoan egon zen lanean, kontabilitatea eramaten. Aitari galdetu zioten ea Bergarara joango zen lanera, eta hark esan zien berari galdetzeko. Enpresa kudeatzaile lanak: langileak hartu, bidali... Azkoitira joaten zen sarri, Epelde y Larrañagara. Urte txarrak ere izan zituzten, kredituak ordaindu ezinda. Bankuekin zituzten zor denak kitatu zituen, makina batzuk salduta. Lantegi askotan bankuei zorrak ordaindu gabe geratu zirela dio, dirua eduki arren. Zazpi hilabete kosta zitzaion zegokion pentsioa kobratzea, adina baino urtebete lehenago itxi zelako lantegia. Nagusiak ez ziren familiakoak; haien izen-abizenak esaten ditu, eta zituzten lantegi batzuen izenak.

2.159. Bergara Textileko langileak; prozesuak (BER-327/006)

Bera kudeatzaile lanetan hasi zenean, Bergara Textilen 30 langile zeuden. Gehienak gizonak ziren. Tejedurian emakumeak ere bazeuden; hasieran makina bat eramaten zuen bakoitzak, baina gero lau. Prozesua osorik egiten zen. Tintea uraren kalitatearengatik zen ona. Armadarako saltzen zuten asko. Madrilen, Bartzelonan eta Valladoliden ordezkariak zituzten. Tindategian dena gizonezkoak ziren, lan gogorragoa zelako. Emakumeak ez zituzten horretarako gai ikusten. Aurrerapenak. Lantegia non zegoen.

2.160. Emakume ezkonduak eta amak lantegietan (BER-327/007)

Ezkongabeak gehiago, baina emakume ezkonduak ere bazebiltzan Bergara Textilen lanean, bizitza dena han eman zutenak. Berak dioenez, gehienek lanean jarraitzen zuten ezkondu eta gero ere. Beste leku batzuetan bai, beraienean ez. Umeei titia emateko gela bat zuten. Umea izatean ba omen zuten eskubidea baja hartzeko, baina kobratu gabe, eta gehienek nahiago izaten zuten lanean jarraitzea. Ama batzuek ordu gutxiago egiten zuten lana (eta kobratu ere gutxiago). Emakumeek etxeko lanak ere egin behar, lanetik bueltan, laguntzeko norbait ez bazuten. Ama edo. Oraingo amonek ere zaintzen dituzte umeak. Algodoneran ama eta amona, sarri biak zebiltzan lanean. Etxeko norbaitek eramaten zuen umea lantegira, eta berriz buelta etxera. Orain hobeto bizi garela dio. Beraiek oporretan aprobetxatu behar izaten zutela urte guztikoa.

2.161. Gizonak hobeto bizi ziren emakumeak baino (BER-327/008)

Gizonak hobeto bizi ziren emakumeak baino (eta orain ere bai). Nahi zutena egiten zuten. Txikiteoa egiten zuten lanetik etxerako bidean. Emakumea, berriz, beti etxean; gizona zetorrenarako dena gertu izan behar zuen. Orain emakumeak askatasun gehiegi hartu duela uste du.

2.162. Lantegiko emakumeak finak lanean (BER-327/011)

Aitzindaria izan zen: enpresa kudeatzaile moduan, baita motorrean ibiltzen ere. Dirua lortu zuenean autoa erosi zuen. Sinca 1000 urdina eduki zuen. Enpresa kudeatzaile lana ez zen erraza. Denak ez ziren langile finak. Kontxi Ilarduia adibidez bai, oso ona zen lanean, beti zegoen gertu laguntzeko. Berak bi emakume hartu zituen bulegoan eta bere iloba ere bai, Jose Antonio. Bi gizon zeuden bulegoan. Emakumeek gizakumeek baino errendimendu hobea zutela dio, bai bulegoan bai tailerrean.

2.163. Lan berdinatik gutxiago kobratu (BER-327/013)

Enpresa kudeatzaile moduan zituen eskubideak aipatzen ditu: langileak hartu, bota, gauzak erosi, saldu... Emakumea izateagatik gutxiago kobratzen zuela uste du. Orain ere gertatzen dela dio, lan berdina eginda gutxiago kobratzea.

2.164. Langileek egin zuten greba (BER-327/014)

Greba egin zuten langileek. Labe Garaietan bezala kobratu nahi zuten. Bera lanean hasi eta gutxira izan zen greba. Bulegora joaten ziren eskabideekin, baina ezin zieten eman. Zorrak zituzten bankuekin. Sindikatuek artean ez zuten indarririk. Greba egun osokoa izan zen.

2.165. Bere ama, emagin lanetan ibilia (BER-327/016)

Bera etxean jaioa da. Bere ama, Juana Arrese, emagin lanetan ibiltzen zen. Koinata zaintzera joan, kutsatu eta halaxe hil zen. Inprentako Garbiñe bere amarekin jaio zen, bera jaio baino geun bat lehenago. Ez du beste emaginik ezagutu San Antonion. Mikaela gero, baina tituluarekin. Normalean medikuarekin joaten ziren emaginak.

2.166. Hildakoen ardura emakumeek (BER-327/017)

Umea jaio eta bisitan joatea: martopilak. San Antonion ere egiten zuten. Inguruko emakumeak oparitxo batekin joaten ziren, meriendatzera. Hildakoak prestatzen eta arrosarioa erreztatzen ere beti emakumeak. Baita kapilan ere. Gizakumeak bitartean tabernan. Hildakoaren etxean gaua pasatzera gizakumeak ere joaten ziren. Bera askotan joaten zen elizan arrosarioa erreztatza auzoko norbait hiltzen zenean; senide eta lagunak izaten ziren.

2.167. Umetan, goiko estazioan eta kondearen basoan (BER-328/005)

Bere aitak Alcorta y Compañía ehun lantegian egiten zuen lana, Mekolalden. Hiru sozioak zein ziren aipatzen du. Bi ahizpa dira. Amak umezaina hartu zuen goizetarako; arratsaldetan goiko estazio aldera joaten ziren lorategietan jolastera. Bitartean ama karta jokoan aritzen zen lagunekin.

2.168. Kondearen basoa eta kondesa (BER-328/006)

Umetako jolasak trenbide inguruan eta kondearen basoan. Bide ederrak zituen, Ama Birjinaren gruta eta bi urmael. Kondearen eta kondesaren kontuak. Pilarica egunean bakarrik ibiltzen ziren herrian. Kondesaren janzkera. "Kotxe landoa".

2.169. Herriko jauntxoak; guardia zibilak (BER-328/007)

"Kotxe landoan" Etxeaundiko alabak ikusi zituen behin, kondea eta kondesa ez. Kondea hil zenean, haren bi autoekin zer gertatu zen. Bat txoferrari utzi zion, eta taxi bihurtu zuen. Guardia zibilen tartekoa zen; gerra aurretik harreman ona zuten guardia zibilekin. Haien alabak euren lagunak ziren.

2.170. Santa Ana ermita; kondearen kontuak (BER-328/008)

Kondearen lurretan zegoen ermitari buruzko kontuak. Santa Ana egunean irekitzen zuten. Tratua eginda zuten Udalarekin. Umetan pozik joaten ziren, eta ortensiak osten zituzten. Konde-kondesak bertan daude hilobiratuta. Kondea euskalduna zen. Negutegia zuen, landareekin, eta zientzialaria ere bazen. Kondesaren izaera.

2.171. Debara hondartzara eta errekan bainatzen (BER-328/009)

Umetako bainuak. Debara joaten ziren urtean behin hondartzara, taxian. Bestela, errekan bainatzen ziren, putzu batean. Bainujantzirik ez zuen hasieran. Soineko zahar bat. Ez zuen igerian ikasi. Neskak bakarrik ibiltzen ziren; Agapitoren presan neska-mutilak. Ez du gogoan neskei joaten uzten ez zietenik; mutil baten kasua bai, arrebeekin bainika egiten edukitzen zutena.

2.172. 14 urterekin, kontabilitatea eta joskintza (BER-328/010)

Umetan, neskak eta mutikoak, denak ibiltzen ziren nahiko libre. 14 urterekin aita hil zitzaion, eta jolasak kolpera amaitu ziren. 4 urtetik 14 bitartean mojetan ibili zen. Kontabilitatea eta mekanografia ikasi zituen, lehenengo mojetan eta gero Don Eliasekin. Neskak mutilak baino gehiago ziren han, kontabilitatea ikasten. Josten ikastera ere joan zen; Mugartzako Gregorirekin ibili zen lehenengo eta gero Katalina Zarauz zarauztarrarekin. Hark hiru ume zituen, eta senarrak asko laguntzen zion etxeko lanekin; salbuespena zen hura, ez zegoen ondo ikusia. Giro polita zuten taldean.

2.173. Ia konturatu gabe hasi, eta 45 urtean josten (BER-328/011)

Inportantea zen neskek josten ikastea. Hasi zenean ez zuen pentsatzen horretara dedikatuko zenik. Enkarguak egiten hasi zen. Bulego batean (Fundiciones Recalden) hasteko aukera izan zuen, baina lan hura ahizpak hartu zuen. 45 urte eman ditu josten.

2.174. Neskek ikasteko aukera gutxi (BER-328/013)

Enseñanza ibili zen. Ospitalean bere anaia ibili zen, Sor Eufemiarekin. 'Externa' zen bera, eta ez zuten ikasketak egiteko aukera handirik. 13 urte zituenean kontabilitatea ikasteko aukera jarri zuten. "Heziketa orokorra" zen. 14 urterekin utzi zuen eskola, eta Don Eliasekin jarraitu zuen kontabilitatea ikasten. Talde hartatik hiru-edo kolokatu zirela du gogoan. Neskek ez zuten karrera ikasten. Berak seme-alabei ikasketak eman nahi zizkielako egin zuen lana.

2.175. Ikasteko aukerak; Magisteritza, internen esku bakarrik (BER-328/015)

Lau senide ziren, bi neska eta bi mutil. Mutilek elementalean ikasi zuten, eta Labe Garaietan ibili ziren lanean. Maila onera iritsi ziren. Bere lagunaren artean ez dago neskarik ikasten jarraitu zuenik. Interna zeudenek bazuten Magisteritza ikasteko bidea. Batzuk aipatzen ditu.

2.176. Gerra aurretik batzokira, gimnasia egitera (BER-328/017)

Batzokira joaten ziren gerra aurrean, patioan gimnasia egitera. Lasaneko aurreko etxea zen batzokia, handia. Ez da antzezlanekin akordatzen, ezta pospolinekin ere.

2.177. Maria 'Txantxote' andereñoa (BER-328/018)

Maria 'Txantxote' andereñoaren ikastola. Eta Kontxita Maiztegiren eskola. 'Txantxote' Frantziara joan zen gerra garaian, eta handik Belgikara. Mozosen botika izandako lokalean ematen zituen eskolak. Uste du bueltan ere eman zituela eskolak. Alkortanekoei punta tailerra jartzen lagundu zien gero; bere anaia han hasi zen lanean. Aparteko emakumea zela dio. Gero beraien tailerra ipini zuten Ostetan, eta Mariak eramaten zituen kontuak (bere bi ahizpak ere han lanean).

2.178. Aita eta osaba preso, gerra sasoian (BER-328/020)

Ez da akordatzen batzokian ibiltzen zirenekin. Bere gurasoak bai, ibiltzen ziren. Osaba alkatea zen, eta aitarekin batera Donostian Ondarretan egon zen preso. Zabalaneke Don Luis eta anaia ere beraiekin zeuden. Prakamotz okindegikoa ere bai. Ez ziren inora joan.

2.179. Lanean nola hasi zen, egun batetik bestera; tela denda (BER-328/021)

14 urte zituen aita hil zitzaionean. Aurretik lan gutxi egin zuen berak etxean. Gero bai. Dena aldatu zen. Amari ez zitzaion pentsiorik geratu. Bera zaharrena zen, eta lanean hasi behar izan zuen. Denda jarri zuen amak, eta berak laguntzen zion. Gero josten hasi zen, eta ahizpa ofizinan. Anaiek ez zuten etxeko lanik egiten, eta berari ez zitzaion ondo iruditzen. Tela erosi eta saldu egiten zuten. Amak josi ere egiten zuen. Singer josteko makina.

2.180. Tela gutxi, gerra ostean; tela motak (BER-328/022)

Tela denda Barrenkalen jarri zuten. Oso txikia zen. Ez zuen izenik. Tela erosi eta saldu egiten zuten. Gerra ostean zaila zen tela lortzea. Durango aldetik joaten zitzaizkien eroatera, gero baserrietan saltzeko. Tela motak aipatzen ditu.

2.181. Algodonera eta emakumeak (BER-328/023)

Algodoneran prozesua hasieratik bukaeraraino egiten zuten. Algodoi fardoak nola eramaten zituzten geltokitik. Uraren garrantzia tindatzeko orduan. Bergarako azula. Emakume asko zebilen han, baina ezkontzean gehienek utzi egiten zuten. Alargunak ere bazeuden.

2.182. Bergaran emakumeak lan aukera handiagoa (BER-328/025)

Beste herri batzuetan ez zegoen halako lan aukerarik emakumeentzat. 14 urterekin hasten ziren lanean. Amari ematen zioten dirua. Bere lagunak ez ziren ehun lantegian ibili, baina ohikoa zen. Konfekzio tailerrak ere bazeuden. Otazua lantegian gehienak emakumeak ziren; gizonak mekanikoak.

2.183. Tindatzea, gizonen lana (BER-328/026)

Tindatze lanak gizakumeek egiten zituzten. Bonbulun ere bazen lantegi bat horretarako. Ez du Bergaran umeei titia emateko lekurik ezagutu fabriketan; Andoaingo lantegi batean bai, haurtzaindegia zuten. Emakumeek ezkontzean lana uzten zuten.

2.184. Jostunak eta pelukerak etxean lanean (BER-328/027)

Etxean josi izan du beti. Bere denborako jostunek eta pelukerek etxean egiten zuten lana. Ez zuten lokal bat ipintzeko beste irabazten. Enkarguak ezkontzetarako edo jaietarako jantzik izaten ziren. Data jarri, eta askotan lanak ezin bukatu ibiltzen ziren, goizaldera arte lanean. Ordu askoko lana zen. Ezkondu ostean hartu zion neurria gehixeago. Dena eskuz egiten zuten, eta astuna zen.

2.185. Ezkontzetan, emaztegaia beltzez (BER-328/028)

Ezkontzetarako egiten zituen jantzi asko. Orduan emaztegaia beltzez jantzen ziren. Zuriz joateko, nobioa eta gonbidatuak frakez joan behar ziren.

Horregatik, neska aberatsak ere beltzez joaten ziren. Florita Sañudok hautsi zuen hori, Lasagabaster ehun lantegiko alabak. Zuriz joan zen. Ingeniari batekin ezkondu zen, alfonbra gorria jarrita.

2.186. Lutoa eta tindategiak (BER-328/030)

Emaztegiak beltzez joaten ziren, dotore. Lutoa ere asko erabiltzen zen. Aita hil zitzaionean, arropa batzuk beltzez tindatu zituen. Onena eta Renteri tindategiak zeuden. Onenan, aita eta semeak tailerlean (Mugerzan zeukaten tintoreria) tindatzen zituzten arropak, eta gero arropa fardoa buruan jarrita etxepera eramaten zuen. Plantxan egiteko gela bat zuten han; amak eta bi ahizpak egiten zuten plantxan, baita enkarguak hartu eta arropa partitu ere.

2.187. Jantziak ondo bukatzearen garrantzia (BER-328/031)

Barruko arroparik ez zuen josten. Soinekoak, berokiak, trajeak... Jantziak ondo bukatzea gustatzen zitzaion, eta bi proba egiten zituen. Konfekzioa etorri zen gero, eginda saltzen duten arropa. Muestrarioak eta telak, Bilbokoak, Bartzelonakoak, Pariskoak...

2.188. Josten irakasten zutenak (BER-328/033)

Bere aurretik zeuden jostunak. Enekoteginakoak, Angelita eta Angeles Inza ziren ezagunenak. Lehenengo biak ezkongabeak ziren eta hirugarrena alarguna. Josten erakusten zuten; berak ere erakutsi zuen. Zazpi-zortzi ibili ziren josten ikasten, oso giro onean. Bere ikasleetatik bi dedikatu ziren jostera. Bere garaikoen artean, berriz, uste du bakarra izan zela.

2.189. Botoien garrantzia (BER-328/034)

Haria Bergarako dendetan erosten zuen, baina botoiak Bartzelonatik ekartzen zizkioten. Zubikua denda. Botoiak asko jantzen duela dio. Beraiek tela denda nolatan utzi zuten.

2.190. Telak; baserriz baserri ibiltzen ziren jostunak (BER-328/035)

Lehenengotan bezeroak eramaten zuen tela, eta berak josi; gero, muestrario bidez egiten zuen lana. Tela aukeratu, eta ekarri. Bilbotik, Bartzelonatik... Bergarako tela laneko arropa egiteko erabiltzen zen batez ere. Baserriz baserri ibiltzen ziren jostunak; bere ama ere horrela ibili zen ezkondu aurretik. Konponketak egiten zituzten, eta jatekoa ematen zieten.

2.191. Liñua, bere garairako gutxi (BER-328/036)

Linozko piezak ezagutu ditu, baina ez ditu josteko erabili. Ordurako ez zen asko erabiltzen. Orain bueltatu egin da. Manteleria.

2.192. "Goruntza" umetatik (BER-328/037)

Korsea txikitatik erabiltzen zuten, "goruntza". Eta 14 urtetik aurrera faja. Goruntzak etxean egindakoak izango zirela uste du. Nolakoak ziren. Ez daki zertarako ipintzen zuten, zutik ibiltzeko edo.

2.193. Pelukeren eta jostunen lan baldintzak (BER-328/039)

Pelukerek igande goizetan ere lana egiten zuten. Margarita Azkarate, Bidegurutzean; Castañares ahizpak. Anguanekuak, Bidegurutzean. Etxean egiten zuten lana. Ez ziren autonomo moduan jartzen. Gehienak ez ziren ausartzen. Arrazoiak aipatzen ditu.

2.194. Ezkondu ostean etxean lanean jarraitzea (BER-328/040)

Lantegietan, ezkontzean emakumeek lana uzten zuten. Etxean lana egiten zutenek batzuetan ez. Baina hala ere gutxi zirela dio. Lantegietakoek kuota bat ordaintzen zuten, eta Adolfo Suarezren garaian pentsio bat izatea lortu zuten.

2.195. Bergarako sastreak (BER-329/002)

Sastreak. Anbrosio Mujika eta haren sozioa. Javier Mujika semeak jarraitu zuen sastreiarekin. Emakumeak ere egoten ziren han laguntzen. Zubietako sastreia.

2.196. Familia eta lana uztartzea; konfekzio tailerrak (BER-329/003)

Familia eta lana uztartzen zituen. Arratsaldetan emakume batek zaintzen zizkion umeak. Goizetan umeekin egoten zen. Ezkondu aurretik, ordu asko egiten zituen lanean. Neska batzuk joaten zitzaizkion josten ikastera, 19:00etatik 22:00etara. Horietako batek Amenabarren egiten zuen lana, zapatagintzan. Emakume askok konfekzio tailer txikiak josi zuten etxean, urte batzuetan, nahiz eta ezkondu egon. Hijos de Felix Elorza zen horietako bat; tela moztuta ematen zieten, josteko. Langileen arropa zen.

2.197. Amenabarren zapata tailerra (BER-329/004)

Zapatagintza. Amenabarrenekoak ibiltzen ziren horretan, aita eta semea. Gerra garaian haiek hil egin ziren; gerratik bueltan, tailerra berriz ireki eta etxeko alabek jarraitu zuten lanarekin. Justa eta Maria ahizpak ziren arduradunak, ezkongabeak. Maria 'Txantxote'ren lagunak ziren, seguruenez batzokian bilduko ziren; gerra garaian denak joan ziren ihesi. Laneko zapatak eta botak egiten zituzten, gizonentzat.

2.198. Konfekzio tailerrak (BER-329/005)

Konfekzio tailerrak. Loidik zeukan bat, Claudio Aiastui sastreak ere bai... Loidi Ameriketara ibilia zen. Loidiren tailerrean neskak egoten ziren josten; Masterrekatik Barrenkalera eramane zuten. Ez daki zenbat iraun zuen.

2.199. Bulegariak eta telefonistak (BER-329/007)

Emakumeak bulegoetan lanean. Lehenengo-lehenengo hiru edo lau bakarrik joaten zirela du gogoan, baina gero gehiago. Labe Garaietan asko ibili ziren. Telefonistak ere emakumeak ziren: Pepita Biain zen bat.

2.200. Rufina Larrañagaren estankoa eta gasolindegia (BER-329/008)

Etxe azpian estankoa zuten. Rufina Larrañaga zen, Mari Berastegiren alarguna, arduraduna. Gasolinera ere bazegoen, zinema aurrean, eta Rufinak eramaten zuen; kendu egin zioten, gerra irabazi zutenen tartekoei emateko. Eraikin osoa zen Rufinarena.

2.201. Emakumeak dendan arduran (BER-329/010)

Mugerza gainean zegoen emakume bat, negozioaren arduran: Melitonenekoa. Mertzeria zeukan. Bera hara joaten zen hari bila. Bere senarrak ikatza saltzen zuen kalez kale, eta emaztea egoten zen dendan. Galtzaidunekoak: bere izeba egoten zen dendan, Jesusa. Rosita lehengusua tabakaleran egoten zen, kontuak eramaten; Enseñanza ikasitakoa zen. Ameriketara ibilitakoa zen jabea. Hura hiltzean, Rositak hartu zuen kargu hori (tabakoak partitzeko 'subalterna', Madrildik emandakoa).

2.202. Plazentziako kanoi lantegia eta "Zerutxo" taberna (BER-329/012)

Rosita Azkarateren amak, Jesusa Azkaratek, denda eduki zuen Masterrekan (senarra representantea zen). 'Galtzaidunekuak' esaten zieten. Izenaren jatorria: altzairu lanak egiten zituzten baserrian bere birraitonaren sasoiaren, Plazentzian. Kanoi lantegia egin zuteneko kontuak, nola geratu zen lanik gabe. Bergarara joan zen bizitzera. "Zerutxo" taberna jarri zuen "Infernukua"ren ondoan. Taberna eta gero janari denda. Hantxe egoten zen Jesusa. Ardoa ere saltzen zuten. Denda beti zegoen zabalik.

2.203. Emakumeak dendan arduran III (BER-329/015)

Orduko tabernak. Itsasminekua eta Etxaguenekoa: andre-gizonak egoten ziren. Ez du gogoan emakumea buru zuenik. Mujikaneko denda sasoi baten bi denda ziren: sastreria eta tela denda; denda Mujikaneko alargunak eramaten zuen. Konbenio kalean, inprenta zegoen lekuan, zegoen beste bat: Unzurrunzaga tela denda. Txaranekoa ere emakumea zen, Lolita Ugalde, alarguna.

2.204. Emakumeak dendan arduran IV (BER-329/017)

Luisa Pairok alarguna ere denda eduki zuen, drogeria San Pedro kalean. Raizabalenean ere Joanita eta ama; aita obradorean egongo zen, eta dendan emakumeak. Dendetan eta tabernetan emakume asko ibili zen lanean. Infernukuan ere andre-gizonak egoten ziren. Zurrutean, berriz, dena gizonak.

2.205. Labaderoak eta birramonaren kontuak (BER-329/018)

Beraiek ez ziren labaderora joaten. Labadero batzuk non zeuden azaltzen du. Baina ez du gogoan erabiltzen zirenik. Bere birramonak Zuhurtin bai, garbitzen zituen arropak kanporako; birraitonak errekan garbitzen zituen, eta amonak plantxatu eta entregatu, astoarekin. Gerra garaian ezkondu ziren, elkar ezagutu gabe. Bera altua zen, eta senar txiki-txikia jarri zioten.

2.206. Plantxadorak; arropa konpontzea (BER-329/019)

Plantxadorak. Kondearen etxean dontzeila moduan lana egindako neska batek, Etxaniz loraizanaren alabak, plantxatu egiten zuen: Cristina Etxaniz. Beste bat jostuna izan zen. Goenkalean, Gregori ere plantxadora zen, ezkongabea. 'Moja zaharrek' ere egiten zuten lan hori, jaunartzeko soinekoekin. Arropak konpondu egiten ziren. Ez zen hain erraz berria egiten.

2.207. Eskote handiak bekatu ziren (BER-329/020)

Erlijioaren eragina igartzen zen arropetan: eskote gutxi. Andre bat bazuen bezero moduan gainerakoak baino liberalagoa zena; gerra garaian hortik

zehir ibilitakoa. "Muy liberada". Hark eskote handia eskatzen zion, esanaz lasai egoteko, ez zuela bekaturik egiten. Mireni erreparoa ematen zion. Moda aldatuz joan ahala bera ere liberatu zela dio.

2.208. Emakume aurreratuak eta atzeratuak (BER-329/021)

Bera gaztea zeneko emakume aurreratuak aipatzen ditu. Gerran kanpoan ibilitako bi lehengusu eta San Antonioko bi ahizpa (errepublikarrak). Beraiek ziren atzeratuak, gehiengoa, baina ez ziren konturatzen.

2.209. Emakumeek zigarroak erretzea (BER-329/022)

Emakumeek ez zuten erretzen bera gaztea zenean. Gerora bai, ezkontzetan. Ijito hungariarrak Bergarara etortzen zirenean, gizonak limak pikatzen ibiltzen ziren eta emakumeetako batek erre egiten zuen. Aman osaba bat Kuban egon zen, eta han normala ei zen emakumeek zigarroak erretzea. Eibarko emakumeak diferenteak ziren, sozialistak. Beste pentsaera batekoak. Baina beraiek mojetako kumeak ziren. Eibarko emakumeak bakarrik geratzen ziren, gizonak ehizara joaten zirelako, eta kafetegira joateko geratzen ziren. Bergaran artean ez zuten halakorik egiten. Ezkondu ostean bai. Amerikanora bermuta hartzera.

2.210. Denbora librean, kalabazak ematen (BER-329/023)

Denbora liberrik ez zuen ezkondu ostean. Lagunak sakabanatu egiten ziren. Senarraren kuadrillakoen emazteen lagun egiten ziren. Ezkondu aurretik, topatzen zuen dantzarako astia. Kalabazak ematen zituzten, dantzan bekaturik ez egiteko. Dena zen bekatu. Baina batzu-batzuekin egiten zuten dantza.

2.211. Bergarako emakume dotoreak; eguzkia hartzea (BER-329/024)

Begarako emakumeek dotore fama zuten. Pazkoetan inguruko herrietako neskak begira izaten zituzten, orduan arropa estreinatzen zuten eta. Batzuek eguzkia hartzen egoten ziren, Artekalekoak eta Goenkalekoak, beltzaran egoteko. Bere amaren sasoiaren, berriz, zuria zen estimatua; arroz hautsak ematen ei zituzten.

2.212. Lehengo moda nolakoa zen (BER-329/026)

Arropan izan diren moda aldaketak. Konfekzioak arropa nasaiagoa ekarri zuen, aurretik estuagoak ziren. Amaren garaian txaketarik ez zegoen, eta amantal eta guzti joaten ziren erromeriara. Ilandetako amantala, zuria. Takoi altuko zapatak. 18 urtetik aurrera makilatu egiten ziren. Orain gehiago makilatzen dira, eta lehenago hasita. Belarritakoak jaio orduko jartzen zizkieten.

2.213. Emaginak eta erizainak (BER-329/027)

Don Roman medikuarekin jaio zen bera. Ezagutu zituen emaginak: Ibañezen ama. Okina bizi den etxean bizi zen. Eta komadrone ofiziala, ikasketaduna, Mikaela Mujika zen. Uste du emagin lanak borondatez egingo zituztela sasoi batean; borondatea emango zietela. Praktikanteak: Mikaela eta Mertxe Orueta. Don Victorio medikuaren alaba ere baietz uste du: Carmen Mujika. Maiken egon zen erizain bezala, erretiroa hartu arte. Erizain ikasketak zituen.

2.214. Mojak, gaixoak zaintzen (BER-329/028)

Mojak ibiltzen ziren gaixoak zaintzen gauetan, Mariaren Siervak. Kuota ordaintzen zen urtero. Afaria ematen zieten, eta 21:00etatik 07:00etara egoten ziren, etxekoek atsedean hartzeko. Hogei bat ziren. Lehenengo Artekalean bizi ziren, eta gero abatetxera. Bergararrik ez zen haien artean.

2.215. Errege kabalgataren hasiera (BER-329/030)

'Acción Católica'koek antolatu zuten errege kabalgata lehen aldiz, Azpiazuk eta. Ez du gogoan zer gehiago egiten zuten. Bera etxean egoten baitzen beti, josi eta josi.

2.216. Etxeko diru kontuen kudeaketa (BER-329/033)

Etxeko diruak emakumeak kudeatzen zituen gehiago. Kontua zuen gizonak baino gehiago ez irabazteko, hura ez zedin gutxiago sentitu. Bankuko kontuak berak zeramatzan normalean, senarrak lan orduetan ezin izaten zuelako joan. Berak ez du entzun emazteak gizonaren baimena behar zuenik bankutik dirua ateratzeko, baina bai lanerako.

2.217. Kontu korronte gabeko garaia (BER-329/035)

Bere aurreko emakumeek entzunda du gizonaren baimena behar zutela lanerako; dirua erabiltzeko ez. Lehen kontu korronterik ez zen izaten, eskura kobratzen zuten, dirutan. Berak ez zuen zerbitzu soziala egin behar izan.

2.218. Amona ezkondu zenekoa (BER-329/037)

Bere amandarearen kontuak. Zortzi ahizpa ziren. Zuhurtira ezkondu zenean, arreorik ez, dirua eramateko esan zioten, etxea ordaintzen ari zirelako. Etxea ez zen sekula bere izenean egon. Ordurako bera konturatuta ei zegoen hori gaizki zegoela.

2.219. Kapanagaren Bergarako hitzaldia: entzuleak aho zabalik (BER-332/001)

1995ean ezagutu zuen Bittor. Bergarako UNEDera ekarri zuten hitzaldi bat ematera. Entzuleak liluraturik egon ziren. "Euskaldunen erlijio zaharra" zen titulua. Grabazioa entzungai dago Interneten, eta liburua ere argitaratu zen. Hitzaldi hasierako esaldi bat: "Eta gure askatasuna zer? Nun dago gauzak berriz ikusteko eta egizat dauden gezur sakratuak gezurtzat salatzeke, edo gezurtzat dauden egi gordinak egiztatzeko?"

2.220. Bittor eztabaidan akademiko latinezaleekin (BER-332/002)

Bittor ez zetorren bat euskarazko -tu adizgilea latinetik datorrela dioten akademikoekin. Haserre ibiltzen zen leku guztietan latina ikusten zuten euskaltzainekin. Ironia handia zuen: "Ni aspaldian tentatuta nago pentsatzeko meteoro baten ondorioa garela. Meteoro bat jausi zala eta arkakusuak eta perretxikuak eta ganera oinbika zebiltzan batzuk zertu zirela hizkuntza raro baten eta." Horrelako esaldi asko zeukan.

2.221. Etimologiazale xebreak uxatu ezinik (BER-332/003)

Etimologiazale xebreak ere asko hurbiltzen zitzaizkion Bittorri. Haiekin ere ez zen ongi konpontzen. Zenbait pasarte barregarri. Madrileko "Calle del Mancebo": "La calle de las mujeres alegres". Madrid, Toledo, Guadalajara... dena euskeratik.

2.222. Etimologia interesgarriak: 'ugazaba', 'aran', 'gar' (BER-332/004)

Bittorren etimologiak oso originalak eta interesgarriak dira; esaterako: "Ugazaba" k "ugazama" esan nahi du Bittorren iritziz. Hori ei zen jatorrizko zentzua. "Madre de leche". Beste batzuk: 'ara-aran', 'gar'...

2.223. Bittorren sinismenak, oso lurrari lotuak (BER-332/006)

Bittorren sinismenez gogoetan Gontzal Mendibilekin. Lurrari oso lotua zen haren erlijinoa. Ara edo leku sakratuetan txahal bat edo zikiro bat sakrifikatzen zen; gero erre eta jan, eta erromeria. Arangio mendia, mendi sakratua. Aramaioren etimologiaz.

2.224. Eibarko plazara oinez, astoa hartuta (BER-333/008)

Ama Eibarrera joaten zen plazara, oinez, baserriko gaiak astoan hartuta. Batzuetan, pisu handia zuenean, Elgetako Leon autobusean bidaltzen zituen elikagaiak. Uberatik, Elgetara eta handik Eibarrera joaten zen autobusa. Bitori ere joan izan zen amari laguntzera. Plazan lekua hartu behar izaten zen hasieran; gerora, leku finkoak ipini zituzten. Bueltan, asto gainean etortzen zen. Ordu eta erdi inguru behar izaten zuten.

2.225. Neskame lanean, Bergaran eta Madrilen (BER-333/009)

14-15 urte zituela, aita hil zitzaien. Ahizpa Algodonerako gerentearen etxean zegoen neskame, baina moja sartzea erabaki zuen. Bitorik ere harremana bazuen familia harekin eta bera joan zen ahizparen orde. Bi langile zeuden: bata sukaldari lana egiten zuen eta bestea etxearen garbiketaz eta zerbitzatzeaz arduratzen zen. Nagusiak Madrilen ere beste lan bat hartu zuen eta hara joan ziren denak. Bost urte inguru egin zituzten.

2.226. Gaztelaniaz derrigor ikasi behar (BER-333/010)

Derrigorrean ikasi zuen gaztelaniaz. Uberako eskolan maistra erdalduna izan zuten eta zigortu egiten zituen euskaraz eginez gero. Larunbatetan ebanjelioa azaltzen zien eta beraiek idatzi egin behar. Hasieran ez zuen tutik ulertzen, baina pixkanaka joan zen ikasten.

2.227. Madrilen neskame; hiria ezagutzen (BER-333/011)

Madrilen neskame egon zeneko kontuak. Julian txoferrarekin irten ziren lehenengo aldietan. Hark erakutsi zizkien hainbat leku eta baita metroa nola hartu ere. Gerora, bakarrik moldatzen ziren eta nahi zuten lekura joaten ziren.

2.228. Madrilen punta batetik bestera; neskame uniformea (BER-333/012)

Madrilen neskame egon zeneko kontuak. Behin Madrilgo punta batetik bestera joan zen, etxeko andreari enkargu bat egitearren. Gerora, Uberako beste

lagun bat ere joan zen Madrilera eta elkarrekin irteten ziren ostegun eta igandeetan. Uniformea erabiltzen zuen mahaia zerbitzatzeko; beltza zen, puntillarekin.

2.229. Aste osorako ogia; hazgarria; taloak (BER-333/015)

Aste guztirako ogia egiten zuten etxean. Kaleko hazgarria erabiltzen zuten batzuetan, baina aurreko asteko orearen zati bat gordetzen zen, hazgarri modura. Orea nola prestatzen zuen. Ore-mahaia. "Ogizko taloak" ere egiten zituzten; artozkoak baino sendoagoak izaten ziren.

2.230. Errotaria ezkutuan lanean eta guardia zibilak sukaldean afaltzen (BER-333/016)

Gerraostean errotak itxita egon ziren, baina gauetz ezkutuan Bolura joaten ziren, irina egitera. Guardia zibilek errotak zaintzeko agindua zuten, baina sarritan sukaldean egoten ziren zerbait jaten, errotaria garia ehotzen zebilen bitartean.

2.231. Artoa eta esnea; taloak; morokila (BER-333/017)

Artoa ere hartzen zuten. Artoa eta esnea; taloak. Morokila nola egiten den. Esne hotza botata, asko gustatzen zitzaion berari. Taloak esnearekin, txokolatearekin, gaztarekin... jaten zituzten.

2.232. Behi-esnearekin gaztak egiten zituzten (BER-333/018)

Behi-esne asko zutenean, gaztak egiten zituzten etxean. Ardiarenak baino suabeagoak izaten dira. Gaztak nola egiten diren. Batzuetan ardiaren legarra erabiltzen zuten, oihal batean bilduta; bestela, erositako gatzagia. Gaztak botatzeko ontziak nolakoak izaten ziren. Ahal den gehien zapaldu, oihal batekin estali eta lehortzen utzi.

2.233. Txerria hil eta gibela afaltzeko (BER-333/019)

Txerria hiltzen zuten etxean. Goizean hil eta arratsaldean zatitu egiten zuen txerria hiltzera etortzen zen gizonak. Zeintzuk ibiltzen ziren lan horretan. Gibel zati bat eta haragi zati bat albaitariari eramaten zizkioten, analizatzeko. Baina gibela txerria hiltzen zen egunean bertan jaten zen, afaltzeko. Aurretik baratxuri-zopa.

2.234. San Juanetan bedeinkatutako lore-sorta sutara (BER-333/022)

San Juan egunean lore-sorta egiten zen eta bedeinkatzera eramaten zen elizara. Gero, hurrengo urteko San Juan bezperan sutara botatzen zen. Suaren bueltan abesten zen kanta: "San Juan, San Juan, sugiak eta zapuak erre..".

2.235. San Juanetan ira eta loreak etxe aurrean; lore-sortak (BER-333/025)

Baserri bakoitzak su bat egiten zuen San Juan bezperan. Besteenak zaintzen ibiltzen ziren. San Juan egunean etxe aurrean ira eta loreak botatzen zituzten. Gero, lore-sortak egin, erdian artoa ipinita, eta mezara eramaten zituzten bedeinkatzeko. Erramu egunean gurutzeak ipintzen ziren.

2.236. Gorputz-egunean, aingeru jantzita, aldarera loreak botatzen (BER-333/028)

Gorputz-egunean aldare desberdinak ipintzen ziren. Beraiek aingeru jantzen ziren (zuriz) eta loreak eramaten zituzten otarretxo batean. Elizkizunetan loreak aldarera botatzen zituzten. Lau neskak zeuzkaten soineko zuriak, ahizpa nagusiagoak josita. Jaunartzea ere soineko berarekin egin zuen. Aldaretik aldarera joaten ziren eta bidean zehar landare bat egoten zen lurrean botata.

2.237. `Atxia-motxia´, korroan egiteko kanta (BER-333/033)

`Atxia-motxia´, korroan ibiltzeko kanta. Amari ikasi zion.

2.238. `Andra Joxepa tronpetan´, korroan egiteko kanta (BER-333/035)

"Andra Joxepa tronpetan, kristoren zoragarri... ", korroan egiteko kanta. "Jira beste aldera" esaten zutenean, korroan atzera begira jartzen ziren.

2.239. `Aldapeko sagarraren´ kanta (BER-333/037)

"Aldapeko sagarraren adarraren..." kanta.

2.240. `Maritxu nora zoaz´ kanta (BER-333/039)

`Maritxu nora zoaz´ kanta.

2.241. `Arre, arre, mandako´ ume-kanta (BER-333/041)

`Arre, arre, mandako´ ume-kanta. Umea altzoan hartuta kantatzen da.

2.242. "Nere txikitxo politen honek... " ume-kanta (BER-333/043)

"Nere txikitxo politen honek... " ume-kanta.

2.243. `Txalo pin txalo´ ume-kanta (BER-333/045)

`Txalo pin txalo´ ume-kanta. Txaloka egiten da eta umeak ere txaloka hasten dira.

2.244. "Din don Beleron..." zotz egiteko kanta (BER-333/048)

"Din don Beleron, Belerongo herrixan..." zotz egiteko kanta.

2.245. `Salamankara´ kanta (BER-333/050)

"Gazte gaztetan aitak eta amak fraile ninduen nonbratu..." kanta.

2.246. "Neskazaharrak joaten dira Madalenara... " koplak (BER-333/052)

"Neskazaharrak joaten dira Madalenara... " koplak.

2.247. "Lau ta lau, sardina bakalao..." hasiera duen kanta (BER-333/054)

"Lau ta lau sardina bakalao; bost ta bost..." kanta. Korroan egiten zuten. Orduan ez zegoen beste jolasik.

2.248. "Txikilin, txikilin maña..." kanta (BER-333/056)

"Txikilin, txikilin maña, bixar Santamaña..." kanta.

2.249. "Kukurruku, ze bihozu?..." ume-kanta (BER-333/058)

"Kukurruku, zer bihozu?" kanta.

2.250. "Errege don Felipe" jolas-kanta (BER-333/061)

"Errege don Felipe" jolas-kanta. Bi lagunek zubia egiten zuten eskuekin eta besteak azpitik pasatzen ziren. Azkena pasatzen zena harrapatu egiten zuten. Hura jartzen zen zubia egiten, eta zubian zegoenetako bat ilarara pasatzen zen.

2.251. "Arrateko pikuak hiru orri ditu..." koplak (BER-333/067)

"Arrateko pikuak hiru orri ditu..." koplak.

2.252. Atzamarrekin umeei egiten zitzaaien ipuin-jolasa (BER-333/070)

Atzamarrekin ume txikiei kontatzen zitzaaien ipuina: "Honek egurrak batu, honek sua egin..."

2.253. "Haurtxo txiki-txiki bat sehaskan dago..." lo-kanta (BER-333/074)

"Haurtxo txiki-txiki bat sehaskan dago..." lo-kanta.

2.254. Umeari jausitako hortza sutara (BER-333/080)

Umetan hortzen bat kili-kolo zutenean, ateratzeko beldurrez bazeuden, hariarekin lotu, tira egin eta kendu egiten zieten. Gero sutara botatzen zen eta zerbait esaten zen "zaharra hor daukazu eta berria eman" edo halakoren bat.

2.255. "Matxin gona gorri, joan basora..." (BER-333/084)

"Matxin gona gorri joan basora, esan pastoriai euzkixa ein daixela" esaten zuten.

2.256. Mutikotatik txondorren bueltan (BER-335/002)

Mutikotatik ikusi izan ditu txondorrak, urtero 5-6 egiten zituzten eta. Artoa erein eta gero, bi hilabete inguru izaten zituzten, eta sasoi horretan txondorra egiten zuten, neguan botatako egurrarekin. Dirua irabazteko egiten zen ikatza. Soralezera eramaten zuten saltzera, hango lantegi txiketara, gurdian hartuta. 16 urterekin hasi zen ikazkintzan, anaiari laguntzen.

2.257. Ikazkintzarako egurra batzea auzolanean (BER-335/004)

Auzoan baserri gehienek egiten zuten ikatza. Auzotarrek elkarri laguntzen zioten, egurra batzen adibidez. Bizkarrean ekarri behar izaten zen egurra, txara artera gurdia sartzeko ezinezkoa zen eta.

2.258. Txondorrek noiz gutxitu ziren Elosu auzoan (BER-335/006)

Mutikotatik ezagutu izan ditu txondorrek. 12 urtera arte eskolan ibili zen, baina handik atzera baserriko lanetan lagundu behar. Berak 20 urterekin utzi zuen ikazkintza. Sasoi horretatik aurrera txondor gutxi egin zen auzoan.

2.259. Pagoa eta artea ikazkintzarako egurrik onenak (BER-335/008)

Pagoa edo artea dira egurrik onenak ikazkintzarako. Gaztaina ere erabiltzen zuten batzuek. Beraiek gehien pagoa erabiltzen zuten, inguruetan arte gutxi dago eta. Goiko egurra egur trinkoa, zenez, ikatz ona egiten zuten.

2.260. Pago-txara; "lantaixa jo" (BER-335/009)

Pago-txara. Tantaia. "Lantaixa jo" egiten zen hainbat urtez behin; handienak bota eta txikiei hazten utzi. Egurra bota, "triskau".

2.261. Egurra txondor-zuloaren bueltan ipini eta sikatzen laga (BER-335/010)

Egurra bota, triskatu eta batu. Pilak egiten zituzten. Gero, bizkarrean hartu eta txondor-zulora eramane. Denak neurri berean ebaki eta txondor-zuloaren bueltan ipintzen ziren. Hilabete inguruan han uzten zen, sikatzen, gero errazago egosteko.

2.262. Txondorra egosi ostean, pare bat egun ikatza ateratzen (BER-335/011)

Txondor txikiak egiten zituzten. Mila kilo inguru ikatz ateratzen zuten. Su ematen zitzaionetik 8-10 egun behar izaten zituen egosten txondorrek eta beste pare bat ikatza ateratzeko. Zatika ateratzen zuten, ikatza hozteko. Ikatzak su hartzen bazuen, ura behar, eta ez zen hain erraza izaten ura inguratzea. Inoiz gertatzen zen zaku barruan su hartu eta dena erretzea ere.

2.263. Txondorrari betegarria sartu eta zaindu egin behar (BER-335/012)

Txondorra egin eta gero, hiru ordutik behin betegarria sartu behar izaten zaio goitik behera, sua bizitzen joan dadin. Bi-hiru egun pasatuta, sua ondo hartu duela ikusitakoan, goiko zuloa estali egiten da eta behean zulotxo batzuk egiten zaizkio, haizea hartzeko. Zaindu egin behar izaten zen, baina ez zuen arrisku handirik. Pago-buruekin egiten zituzten txondorrek zailagoak eta arriskutsuagoak izaten ziren.

2.264. Txondorra nola piztu; betegarria (BER-335/014)

Txondorrari betegarria nola sartzen zaion. Txondorrari su emateko, brasa egiten zen kanpoan eta hura botatzen zitzaion barrura. Gero, egur txikiak, sua indartu arte. Lehenengo bi-hiru egunean sartzen zitzaion betegarria.

2.265. Gauez ere txondorra zaintzen (BER-335/015)

Gauez ere zaindu egin behar izaten zen txondorra eta betegarria sartu. Anaiak eta biek txabolan egiten zuten lo. Anaia izaten zen eskaileran gora igo eta betegarria sartzen ibiltzen zena. Haga luze bat erabiltzen zen, egurra ondo sartzeko eta brasa mugitzeko. Txondorra ondo betetzea komeni izaten zen.

2.266. Txondorra egiteko leku laua behar (BER-335/016)

Txondorra egiteko leku laua behar da. Erdian sakona baldin badu, ura sartzen da eta "illinttia" geratzen da, egurra ondo erretzeke. Hura ezin izaten zen ikatzarekin batera saldu. Beraiek txondorra egiteko leku ona dute.

2.267. Txondorra lehen egindako lekuan berriz; iduria (BER-335/018)

Txondorra lehen egindako lekuan egiten zen berriz, lehen erretako lurra (iduria) behar izaten zen eta. Lurra azkar erretzen zen, baina iduria lehendik erreta zegoenez, nekezago. Txondor-zuloaren erdigunea bilatzen zen. Batzuek metro inguruko hesola bat sartzen zuten eta handik gora hasten ziren su-etxea egiten. Beraiek behetik hasita egiten zuten.

2.268. "Pitzeki"ekin eta alturan egindako su-etxea (BER-335/019)

Batzuek txondor-zuloan hesola lodi bat sartzen zuten eta haren gainean gurutzea egiten zuten, su-etxea jartzeko. "Pitzekixak" erabiltzen ziren horretarako, beheko sutarako ebakitako egurrak. Behetik gorainoko pareta egiten zen haiekin.

2.269. Txondorraren egitura (BER-335/020)

Txondorra egiteko, lehenengo su-etxea egin behar. Ze neurritako egurrak ipintzen ziren. Beraien txondor-zuloak txikiak izaten ziren eta ez zuten txondor handia egiten. Txondorraren forma. Lehenengo orbelarekin estaltzen da eta gero iduriarekin.

2.270. Txondor barrura ura sartuz gero, "illinttia" (BER-335/021)

Euria ez zen hain kaltegarria izaten txondorrarentzat, normalean ez zen barrura sartzen eta. Alboetatik ura sartu eta erdian putzua eginez gero, "illinttia" geratzen zen, ondo egosi gabeko egurra. Ikatza ateratzerakoan zati handiak sartzen ziren zakuetan.

2.271. Ikatza egiteko zenbat egun behar diren (BER-335/022)

1000 kilo inguruko txondorrek hamar egun inguru behar izaten zituen sua sartzen zenetik ikatza ateratzera. Egurra batu eta txikitzen beste 2-3 egun eta txondorra eraikitzen beste bat.

2.272. Zohiak su-etxearen gainean (BER-335/023)

Txondorraren su-etxea nola egiten zen. Txondorra bera egiten egun bat beharko zen eta estaltzen gero beste egun erdi bat. Orbela eta iduria. Su-etxeari gainean zohiak jartzen zitzaizkion. Belar eta guzti ateratzen den lur zatia izaten da zohia.

2.273. Txondor inguruan egiten ziren txabolak (BER-335/024)

Txondorren inguruan txabolak egiten ziren. Egurrekin nola egiten zituzten. Bertan lo egiten zuten eta baita jatekoa prestatu ere. Zer ontzi izaten zituzten eta zer jaten zuten. Ardi-ilearekin egindako koltxoiak izaten zituzten.

2.274. Lapiko eta ontzi konpontzailea baserririk baserri (BER-335/025)

Gaztea zenean, lapikoak eta ontziak konpontzen zituena ("konponerra") baserririk baserri ibiltzen zen. Oñati aldetik etortzen zen, baina izatez galiziarra zen. Ez zuen diru asko kobratzen, baina jaten ematen zioten etxeetan.

2.275. Besteen basoetan ere egiten zuten ikatza (BER-335/026)

Inguruko baserri gehienetan egiten zen ikatza. Batzuek baso asko izaten zuten. Beraiek ez zuten hainbeste baso eta beste batzuen basoetan ere egiten zituzten txondorrak, baimena eskatuta, eta zerbait ordainduta. Ikatz gehiena saltzeko izaten zen.

2.276. Ikatza nora eramaten zuten saltzera (BER-335/027)

Ikatza hasieran Soraluzeira eramaten zuten saltzeko. Gerora Bergarara ere bai, Otsein lantegira, adibidez. Soraluzen lantegi txiki mordo zegoen. Ez zen erraza izaten banaketa. Ikatz zakuek 20-25 kilo izaten zuten. Beltz-beltz eginda bukatzen zuten.

2.277. Ikatza ateratzerakoan, hautsa irentsi behar (BER-335/028)

Ikatza ateratzerakoan, hauts asko irentsi behar izaten zen. Eguraldi txarraren zain egoten ziren, hautsa hainbeste harrotu ez zedin.

2.278. Ikazkintzatik bizi zen jende gutxi (BER-335/030)

Bazeuden ikazkintzara dedikatzen ziren batzuk, baina gutxi. Normalean gurasoengandik ikasten zuten eta baserrietakoek egiten zuten ikatza, etxekoen edo ingurukoek laguntzaz.

2.279. Negu amaieran egurra bota eta udaberri amaieran txondorra (BER-335/031)

Otsail edo martxo inguruan hasten ziren txondorra egiteko egurra botatzen. Hostoa atera baino lehen bota behar izaten zen. Negua luzatu eta elurra egin arren, berdin-berdin botatzen zuten. Egur asko behar izaten zen 1000 kilo ikatz ateratzeko. Txondorra maiatz bukaeran edo ekain inguruan egiten zen, eguna luzatzen zenean.

2.280. Ikazkinaren txabola, egurrekin eta lasto-azaoekin egin (BER-335/033)

Txondorren inguruan egiten zituzten txabolak nola eraikitzen zituzten. Egurra, lasto-azaoak eta zohiak erabiltzen zituzten. Ondo eginez gero, ez zen urik sartzen barrura. Aldapan egiten zuten. Su-lekua egiteko, zuloa egiten zen. Txabola kendu egiten zen ikazkintza lanak amaitutakoan.

2.281. Ikazkintzan zebiltzanean zer jaten zuten (BER-335/034)

Entzunda dauka ikazkin batzuek ardo-zopa hartzen zutela, baina berak ez du halakorik ezagutu. Beraiek zer jaten zuten. Goizean txokolatea. Edateko, ardoa eta pattarra. Kafea beti edukitzen zuten eginda.

2.282. Bost txondor batera; eskailera, betegarria sartzeko (BER-335/035)

Bost txondor inguru egiten zituzten urtean eta denak batera pizten ziren. Gauean batetik bestera ibili behar, betegarria sartzeko. Eskailera ere egiten zuten, txondorraren neurria. Puntak zorrotzuta izaten zituen, lurra katigatzeko. Normalean beti txondorraren alde beretik igotzen ziren betegarria sartzeko.

2.283. Etxeak zurituzeko, "kare-bizixa" ekarri eta nola prestatzen zuten (BER-335/037)

Euren etxean ez du ezagutu karobirik, nahiz eta inguruko baserri gehienetan bazen. Harria erretzen zen. Sororako ona izaten zen karea. Bera igeltsero lanean hasi zenean, etxeak zurituzeko, "kare-bizixa" ekartzen zuten kanpotik eta putzu batzuetan egosi egiten zen. Nola prestatzen zuten.

2.284. Ikatza nola ateratzen zen; galbahean pasatu eta zakura (BER-335/039)

Ikatza bueltan-bueltan ateratzen da, aitzur baten laguntzaz. Behekoa atera ahala, goikoa behera jausten da. Hoztutakoan, galbahe handi baten pasatzen zen. Behera jausten zen xeheak ez zuen balio izaten. Gainean geratzen zena zakura. Lan zikina izaten zen.

2.285. Ikazkinaren txabola; sua egiteko lekua (BER-335/041)

Ikazkinaren txabola. Sua egiteko lekuaren inguruko azalpenak.

2.286. Ikazkinaren txabola barrutik (BER-335/044)

Ikazkinaren txabola nolakoa izaten den erakusten dute barrutik. Oheak. Farola suaren pare inguruan jartzen zen. "Gelata". Irekia izaten da, kea ateratzeko. Lehengo txabolak txikiagoak izaten ziren. Garai bateko farolak nolakoak ziren.

2.287. Erreka eta "pizina olinpikoa" (BER-336/002)

Eider Garmendia Urretabizkaia. Lehenengo aldiz errekan sartzea gogorra egiten zen, ura izoztuta egoten zelako. Hiru urte egon zen begirale, eta ez zuen 'Pizina Olinpikoaren' berririk izan. Sekretua zen, ezin zitzaizen umeei esan (arriskuak ekiditeko). Begiraletza utzita gero, obratara joandako batean ezagutu zuen Eiderrek.

2.288. "Alderantzizko eguna" sukaldean (BER-336/004)

Luzma Rojas. "Alderantzizko eguna" astean behin egiten zen. Sukaldean, afaria lehenengo, gero bazkaria eta gero gosaria. Lan handia zen, goizetik patatak zuritzen. Lagunak parrandara, eta goizean arazoak. Hil zen Bergarako lagun batez gogoratzen da, Susana. Haurrak ez zuten gustora hartzen egun hori.

2.289. Uraren eskasia eta txinbo xaboia (BER-336/006)

Dabid Urrutia eta Amaia Madinabeitia. Urdirotzeko arazo bat ur eskasia zen. Fibratzko hiru deposito betetzen ziren. Hirugarren txandarako oso gutxirekin geratzen ziren. Txinborekin garbitzen ziren errekan. Arazoa zen nesken ilea, oso latza geratzen zen. Sukaldariak gaueko hamabiak aldera joaten ziren errekarra garbitzera. Gero oso usain onarekin itzultzen ziren udalekura. Gehienen ustez, ez zuten Chimbo erabiltzen.

2.290. Erdaraz egiteagatik zigorrak (BER-336/008)

Dabid Urrutia. Haur asko inguru erdaldunetatik zetorren. Euren dako aukera ona zen Urdirotz, baina joera zuten erdarara jotzeko, eta arazoa zen. Zigor txiki batzuk ipintzen ziren erdaraz egiteagatik, haurrak motibatuz. Baina Diputazioko udalekuek arazoak izan ziren horrelako gauza batengatik. Eztabaida sortu zen begiraleen aldetik. Hortik aurrera argi ibili behar izan zuten. Eta ez euskararen arloan bakarrik, udalekuaren barruan inportantziarik ez zuenak har zezakeelako handik kanpora.

2.291. Afari bereziak sukaldari eta begiraleen artean (BER-336/010)

Unai Bergaretxe. Afari bereziak larunbatetan egiten ziren, harremanak hobetzeko. Oso berandu hasten zen, begiraleek beren eginkizunak amaitu ondoren izaten zelako. Oso giro polita egoten zen. Sorpresak ere bai. Patata-tortillak arrautza oskolarekin, kafea gatzarekin eta horrelakoak.

2.292. Orreagara ibilaldia (BER-336/012)

Garikoitz Lopez de Munain Urrizalki. Urtero egiten zen irteera Orreagara. Urte batean pentsatu zuten zerbait gehiago egitea. Mozorrotu egin ziren eta Orreagatik Ibaiñetarako bide zaharrean euskaldunek frankoiei egin zieten enboscada antzeztu zuten. Jendeak harrituta begiratzen zien.

2.293. Musikarekin lotutako oroitzapenak (BER-336/014)

Uxue Zabaleta. Goizero Sorotan Belerekin esnatzen ziren. Otorduetan "gosaldu nahi dugu..." abestia kantatzen zuten. Gaur egun ere kantatzen die alabei eta Urdirotz gogoratzen du.

2.294. Urdirotzen xarma eta magia berezia (BER-336/015)

Uxue Zabaleta. Urdirotz leku magikoa da. Gaur egun ez dago horrelako udalekurik eta pena bat da. Xarma hori galtzen da. Bera prest egongo litzateke bere alabak Urdirotz bezalako udaleku batera eramateko, asko ikasten da.

2.295. Begiraleak zirikatzen (BER-336/017)

Gorantzi Irastortza Aldanondo. Begiraleek zirikatu egiten zuten eta behin Gorantzik zigarro paketea ezkutatu zien. Azken egunera arte ez zien bueltatu.

2.296. Bi ahaterekin etxera (BER-336/020)

Gorantzi Irastortza Aldanondo. Bigarren txandan joaten zen Antzinera eta herriko festak izaten ziren orduan. Ekitaldietako bat ahateak errekan askatzea izaten zen. Udalekuko 100 ume baino gehiago sartu ziren errekarra ahateak harrapatuz. Urte batean bi ahate eraman zituen berak etxera.

2.297. Kantak eta irratia (BER-336/023)

Unai Bergaretxe. Etxeak ez zeukan argindarrik eta irratia erabiltzeko motorra ipini behar zen martxan. Bazkalorduko kanta. Irratia gauez erabiltzen zen gehienbat. Ramon Arratibel "Rayo" sarritan joaten zen bisitan eta ipuinak kontatzen zizkien afalostean. Mezuak esan eta umeei zirikatzeke ere erabiltzen zuten irratia.

2.298. Anai-arreba amerikarrak (BER-336/025)

Eli Payros. Urte batean, gurasoak euskaldunak zituzten hiru anai-arreba amerikar joan ziren udalekura. Begiraleek agindua zeukaten haiei euskaraz egiteko. Txikienak nahiko gaizki pasatu zuen, ez zuelako ezer ulertzen.

2.299. Herrialdeen egunak (BER-336/027)

Jone Ariznabarreta. Txanda osoa gai baten inguruan antolatzea pentsatu zuten: "Urdirutz 91, munduan zehar". Egun bakoitzean herrialde batera iristen ziren eta pasaporte moduko batean zigilua ipini behar zuten. Ekintza guztiak herrialdearekin lotutakoak izaten ziren. Oso ondo atera zen ideia hori.

2.300. Euskalkiekin elkar ulertzeko arazoak (BER-336/029)

Kontxi Laskurain. Lehenengo aldiz begirale gisa Antzinera joan zen Bergarako beste neska batekin. Goierriko begiraleei ulertzeko arazoak izaten zituzten, hitz batzuk desberdin esaten zituztelako. Adibidez, Bergaran "izarak" esaten zuten, goierrikoek aldiz "maindireak". "Prakak" vs "Galtzak"...

2.301. Bikote baten "ezkontza", etxeko ganbaran (BER-336/031)

Mikel Uribarren. "Maitasunaren eguna" egin zuten behin. Bikote baten "ezkontza" antolatu zuten ganbaran. Etxerakoan, autobusetik jaitsi eta mutilak esan zion amari: "begira ama, hau nire neska-laguna da". Eta hark: "ezta ezkondu izan bazinate ere!"

2.302. Sukaldari, txofer eta mantenimentu lanak (BER-336/033)

Eneko Bergaretxe. Sukaldean aritu izan zen. Kotxearekin txofer lanak ere egiten zituen; erosketak egin, bazkariak eraman. Argindarraren motorra zaintzea ere bere lana zen.

2.303. Jolasean aritzea baino arrantzara joatea nahiago (BER-336/035)

Eneko Bergaretxe. Nahiz eta begiralea ez izan, harreman onak egin zituen umeekin. Gogoan du iparraldeko mutiko bat, beste umeekin jolastu beharrean arrantzarekin pentsatzen egoten zen hura.

2.304. Begiraleak ezin etxeratu (BER-336/037)

Agurne Arizmendi. Azkeneko umeak etxera banatzen zituztenean, begiraleak ez ziren zuzenean etxera joaten. Herriz-herri ibiltzen ziren egun batzuetan, beste begiraleengandik ezin banatuta.

2.305. Urdirotzen magia berezia (BER-336/039)

Ana Carpintero. Diputazioako udalekuetan ibili izan zen Urdirotz deskubritu aurretik. Bi txanda bakarrik egin zituen arren, familia horretako partaide sentitzen da. Urdirotzek magia berezia dauka eta begirale bezala azken urteak han pasatzea oparitxo bat izan da beretzat.

2.306. "Este pan" anekdota (BER-336/041)

Gorantzi Irastortza Aldanondo. Txango batean, agure bati ogi zati bat eskaini zion. Hark gaztelera ogi hura nongoa zen galdetu zion ("¿Este pan de dónde es?"). Eta Gorantziren erantzuna: "De Mondragón". Estepan begiraleari buruz ari zela uste zuen.

2.307. Oinarrizko ikasketak eta doktrina (BER-337/003)

Gurasoek ez zuten etxetik kanpora lanik egiten; baserritik bizi zirela kontatzen du. Gutxi joan zen eskolara, 8-9 urterekin hasi eta 12 urtera bitartean baino ez. Eskolak gaztelera izaten zirenez, zailtasunak izaten zituela gogoratzen du. Osintxuko elizan doktrina ikasten zuten; euskaraz.

2.308. Ikasketak amaituta morroi joan zen (BER-337/004)

Eskolak amaitu eta 14 urtera bitartean morroi egon zen etxetik gertu zegoen baserri batean. Ortuko lanak egin eta bestelako enkarguekin laguntzen zuela kontatzen du. Anai zaharrena, gaztelera ikas zezan batik bat, Gasteizera morroi bidali zuten. Arrebek Bergarako kotoi-fabrikari jardun zuten.

2.309. 14 urterekin hasi zen torlojugintzan (BER-337/005)

14 urterekin hasi zen Soraluzeke "Eugenio Argarate" lantegian. Aitaren ezagun baten bitartez lana nola lortu zuen kontatzen du. Aparteko prestakuntzarik ez omen zen behar torlojugintzako fabrika hartan lan egiteko. Antzera ordaintzen zieten langile guztiei; gutxi, Rafaelen iritziz.

2.310. Fabrikara bizikletaz (BER-337/006)

Baserritik Osintxura oinez joaten zen eta handik Soraluzeke zegoen lantegiraino, bizikletaz. Bizikletan ibiltzen nola ikasi zuen kontatzen du. Lehenengo bizikleta tailerreko ugazabak erosi zion "Bicicletas Gallastegi" Soraluzeke bizikleta-fabrikari. Hilabeteko soldatatik hamar duro kendu zizkieten bizikleta hark balio zituen 800 pezetak ordaindu zituenera arte.

2.311. Hiru hilabeteko soldata "Gallastegi" bizikleta bat erosteko (BER-337/007)

Soraluzeke torlojugintzako fabrikako lan-baldintzei buruz dihardu. Lantegian bertan berotu eta jaten zuen etxetik eramandako bazkaria. Astelehenetik larunbatera, 9 orduz egiten zuten lan. 300 pezeta inguru irabazten zituen hilabetean. Lanera joateko erosi zuen lehenengo bizikletarengatik 800 pezeta ordaindu behar izan zituela dauka gogoan. 16 hilabetez, soldatatik 50 pezeta kenduz ordaindu zuen bizikleta hura.

2.312. Gurasoei ematen zien irabazitako soldata (BER-337/008)

Ezkonduraren bitartean, irabazten zuen soldata etxean osorik entregatu zuela kontatzen du. Anai-arreba guztiek egiten zuten gauza bera. Ezkondu artean eskupekoa ematen zioten gurasoek.

2.313. Ayra Durex lantegian lana nola lortu zuen (BER-337/009)

Soldadutza egiteko utzi zuen Soraluzeko tailerreko lana. Soldadutza amaituta etxera itzuli zenean, baserrian lan askorik ez eta lan bila hasi zen. Eibarrera bizikletaz joan zela dio eta "Bar Donosti" tabernan bazkaldu ostean pare-parean zegoen Ayra Durex lantegira ere lan eske joatea erabaki zuela kontatzen du. Froga bat pasa ostean, bertan hartu zuten.

2.314. Ayra Durex lantegiko ugazabak (BER-337/011)

Antonio Gaztañaga, Isidoro eta Periko Trokaola eta Jose Ibarzabal ziren Ayra-Durex lantegiko ugazabak. Isidoro Trokaola Lambretta lantegira joan zela kontatzen du. Periko Trokaolak, nahiz eta ugazaba izan, tailer mekanikoan jarduten zuela kontatzen du. Inork ezin zezakeen ukitu "el torno de Periko" bezala ezagutzen zuten makina hura.

2.315. 1955. urteko "Orbea" bizikletak 1500 pezeta balio zuen (BER-337/013)

Orbea markakoa izan zen bere bigarren bizikleta. 1.500 pezeta ordaindu zituen Elbarko Ibarkurutze kalean zegoen "Salaberria" bizikleta dendan. Ayra-Durex lantegian astean kobratzeko ohitura zegoela dio; larunbatero 200 pezeta kobratzen zituen eta hilabete amaieran likidazioa jasotzen zuten. Hilero 1200 pezeta inguru jasotzen zituela dauka gogoan. Bizikleta, irrati, ordulari eta antzerakoak oso garestiak izaten ziren sasoi hartan.

2.316. Palierrak eta karabinak ekoizten ziren hasieran (BER-337/016)

Automobilentzako piezak ekoizten zituzten, palierrak batik bat. Hala ere, hasierako urteetan karabinak ere egiten zituztela aipatzen du. Irudiei begira, hainbat pieza desberdin izendatu eta produkzioa eta materialei buruzko azalpenak ematen ditu.

2.317. Sei palier orduko (BER-337/018)

Orduko sei palierren burua egiten zuen; 50 inguru egunean. Berak bakarrik jarduten zuen prozedura hura egiten. Makina desberdin asko maneiatzea tokatu zaiola kontatzen du.

2.318. Kalitate-kontrolerako sailean eman zituen azken urteak (BER-337/019)

Lantegia Zumaiara aldatu zutenean, bertara joateari uko egiten zion Rafaelek behin eta berriz. Makina guztiak lekualdatu zituztenean, kalitate-kontrola zaintzen jardun behar izan zuen Eibarko lantegian. Hari buruzko azalpenak ematen ditu.

2.319. Emakumezkoa zen kalitate-kontrollean gehiengoa (BER-337/020)

Kalitate-kontrollean emakumezkoek jarduten zutela kontatzen du. Sasoi batean emakume ugari zegoen fabrika baina, apurka desagertzen joan zirela dio. Gutxiago kobratzen zutela dauka gogoan.

2.320. Produktibitate-sariak (BER-337/022)

Kopuru jakin batera iristeagatik 1500 pezeta inguruko saria jasotzen zuten eguneko. Alderantziz, iristen ez baziren 500 pezeta gutxiago ordaintzen zizkieten. Denborarik galdu gabe lan egitea komeni zitzaiera argudiatzen du.

2.321. Gaizki irtetzen ziren piezak errekarara botatzen omen ziren (BER-337/025)

Gaizki irteten ziren piezak errekarara botatzen ote zituzten galdetzen dio elkarrizketatzaileak. Nahiz eta berak ezin dezakeen ziurtatu, gaizki egindako akatsak ezkutatu aldera egingo zutela iruditzen zaio.

2.322. Tailerrean bertan zegoen egoitza kanpotarrentzat (BER-337/026)

Kanpotik etorritako (Burgos, Santander, etab.) langileek tailerrean bertan egiten zituzten jatorduak. Lotarako aukera ere ematen zitzairen eta baita lanerako arropak garbitu eta konpontzekoa ere. Etxe batean apopilo egotea baino askoz merkeago irteten zitzaiera kontatzen du; gutxi gora behera, erdia ordaindu behar izaten zuten lantegiko egoitzan.

2.323. Jende pila etorri zen Eibarrera lanera (BER-337/027)

60. hamarkada inguruan jende ugari etorri zen Eibarrera lan bila. Txaboletan bizi zenik ere bazegoela dio Rafaelak. Etxe askotan bi familia bizi ziren; apopiloak hartzen zituzten bestela. Orokorrean herriak ondo hartzen zituen kanpotarrak.

2.324. Ayra Durex-en "Master" motorrak (BER-337/028)

Automobilgintzarako piezak eta karabinak egiteaz gainera, motorrak ekoizteko saiakera ugari egin zituztela dio Rafaelak. "Master" zen motor haien izen komertziala baina ez zuten aurrera egitea lortu. Motorrak ekoizteari utzi ziotenean hasi ziren automobilentzako transmisioak egiten.

2.325. Lanerako arropak norberak erosten zituen (BER-337/035)

Nahiz eta gaur egun lanerako arropak lantegian bertan eman, hasiera batean norberak erosi behar izaten zituela kontatzen du. Mahoizko buzoak erabili ohi zituzten.

2.326. Non gehiago irabazi, hara joaten ziren gazteak lanera (BER-337/037)

Gazteak ziren behargin gehienak. 60. hamarkada inguruan, langileen artean mugimendu handia egoten zela kontatzen du; lan aukera zabala zegoen eta, nork gehiago ordaindu, hara aldatzea oso ohikoa zela dio. Lan eskaintzak egunkarian argitaratzen ziren.

2.327. "Destroyer" karabinak ekoizten ziren Ayra Durex-en (BER-337/041)

Denboraldi batez "Destroyer" karabinak ekoitzi ziren Ayra Durex-en. Jose Ibarzabalek berak, lantegiko ugazabetako batek, konprobatzen zituen ekoiztiko eskopeta guztiak. Frogak egiten zebilela, behargin bati tiro egin ziola kontatzen du.

2.328. Eraikinari buruzko azalpenak (BER-337/044)

Eraikinaren planoaren aurrean azalpenak ematen dihardu. Hasiera batean gaur egun ezagutzen dugun eraikinaren erdia baino ez zegoen. Hiltegiko animalia-larruak sikatzen egoten ziren han aldameneko txabola batean. Erreka ere bistan zegoen orduan. Parean, "Bar Donosti" zegoela dauka gogoan.

2.329. Lantegiko sail desberdinak (BER-337/046)

Ayra Durex-ek zituen sail desberdinak eraikinaren planoan kokatzen ditu: materialaren sarrera, biltegia, tornuak, fresatzeko makinak, artezteko makinak, etab. 50. hamarkadan, 60-70 langile eta 20 tornu inguru zeudela dio. Langileen sarrera-irteera orduak markatzen Gonzalo zeritzon gizon txiki bat egoten zen atezaindegian

2.330. Langile egoitzari buruzko argibideak (BER-337/048)

Langileentzako egoitza planoan kokatzen du. Bi etxebizitza ere ba omen zeuden; Juanito Sola, lantegiko arduraduna, bizi zen bertan. Tailerrean "llave inglesa" deitzen ziotela kontatzen du.

2.331. Zumaiara lekualdaketa (BER-337/050)

Makina mota bakoitzaren kokapena tailerrean. 70. hamarkada amaieran lantegia Zumaiara lekualdatu zen. Sasoi hartan itxi zen egoitza ere, bertan geratzen ziren 4-5 langileak etxe partikularretara joan ziren bizitzera. Zumaiara joatearen ordainetan langile bakoitzari onuraren bat eman zitzaion. Autobusez joaten ziren Zumaiara eta bertan bazkaltzen zutela kontatzen du.

2.332. Langile mugimenduak (BER-337/051)

Greba batzuk ezagutu izan ditu. Arrazoa ekonomikoa izaten zen normalean. Sindikatu desberdinak eta ordezkari ugari zegoela dauka gogoan; Jose Mari Palacios izan zen urteetan langileen ordezkaria. 50. hamarkadan, hasiberria zela, norbera joan behar izaten zen soldata goera eskatzera. Orduko anekdota dakar gogora.

2.333. 1963. urteko uholdea (BER-337/052)

1963. urteko abuztuko uholdeak sortutako kalteei buruz dihardu. Abuztuaren 15ean oporrak hartzerik ez zuten izan urte hartan.

2.334. San Juan sortaren inguruko azalpenak (BER-341/002)

San Juan sorta nola egiten den. Bertan jartzen den elementu bakoitzaren inguruko azalpenak. Puntak dauzkaten landareei punta mozten zaie, energiak alde egin ez dezan. Hostoak kendu egiten zaizkie, sortaren kirtena esku barruan kabitu behar delako. Kono forma izan behar du.

2.335. San Juan sortaren eginkizunak (BER-341/004)

San Juan sorta bedeinkatu egiten da San Juan egunean. Gero, etxean nonbait zintzilik jarri eta hurrengo urtera arte gordetzen da. Garai batean, ekaitza zenean, zintzilik zegoen sortatik lore zati bat hartu eta sutara botatzen zen, ekaitzak kalterik egin ez zezan. Urtea igarotakoan, sorta horrekin pizten da San Juan sua. San Juan eguneko beste ohitura bat.

2.336. Gerra aurreko literatura (BER-342/003)

Gerra aurreko literatura azaltzen du. Poesian bereziki, bazegoen abangoardia bat. Bazegoen literatura kostunbristagoa ere. Hizkuntzarekiko garbizalekeriak arazoak sortu zituen.

2.337. Literatura kostunbrista eta tradizionalista (BER-342/004)

Literatura kostunbrista eta tradizionalista zer diren azaltzen du, Txomin Agirre eredutzat jarriz. Garoa eta Kresala nobelak, esaterako. Nobela mota horien ezaugarriak.

2.338. Literaturaren erabateko etena gerrarengatik (BER-342/005)

Gerrak etena ekarri zuen literaturan. Argitaratu zen apurra, atzerrian argitaratu zen gehienik.

2.339. Gerra aurrean antzerkia indartsu (BER-342/006)

Gerra aurrean, Errepublika garaian bereziki, antzerkiak indar handia hartu zuen eta testu asko idatzi ziren. Iparraldean, Larzabal eta Monzon erreferenteak izan ziren. Anekdotak bat kontatzen du, "Hazparneko anderea" antzezlanaren entsegua ikustera joan zirenekoa.

2.340. Erabateko zentsuraren ostean, antzerki-taldeak han-hemenka (BER-342/008)

Gerra ostean, zentsura erabatekoa izan zen 1940tik 1950era, antzerkia debekatuta zegoen. Handik urte batzuetara, herri askotan sortu ziren antzerki taldeak. Lan asko apurtzaileak izan ziren. Seminarioan zegoela, antzerki batean parte hartu zuen, gazteleraz.

2.341. 60. hamarkadan eztanda kultural eta politikoa (BER-342/009)

Hamabost-hamasei urte zituenean jakin zuen euskal literatura bazela, baita Euskadi bazela ere. Seminarioan ikusi zituen euskarazko liburuak. Urte gutxian eztanda modukoa gertatu zen: ETaren lehen mugimenduak, Iparraldetik ekarritako liburuak, seminarioetatik jendea irteten hasi zen...

2.342. "Elsa Scheelen" nobelak inpaktu handia (BER-342/010)

Inpaktua eragin zion liburuetako bat "Elsa Scheelen" izeneko (Txilardegiren) nobela izan zen, hogeitun urte inguru zituela irakurritakoa.

2.343. Durangoko Azokaren garrantzia (BER-342/012)

Euskaltzaleek argitaratzen zen guztia erosten zuten, gerra osteko urteetan. Liburu dendetan ez zen euskarazko libururik egoten; Durangoko Azoka izan zen aukera eskaini zuena.

2.344. Txilardegi, gerra osteko erreferente nagusia (BER-342/013)

Txilardegiren nobelak. Euskal Herrian, beretzat, gerra osteko pertsona nagusia izan dela dio. "Leturiaren egunkari ezkutua" ez zen asko zabaldu hasieran.

"Elsa Scheelen" lehenengoa izan zela dio. Euskara batuaren bultzatzaile eta militante nagusia Txilardegi izan zela dio.

2.345. Lur argitaletxea eta Ramon Saizarbitoria (BER-342/014)

"Lur" argitaletxeak obra berriak argitaratu zituen eta itzulpen batzuk ere bai. Ramon Saizarbitoriaren "Egunero hasten delako" obrak garai bat markatu zuen.

2.346. Arestiren poesia soziala (BER-342/015)

Gabriel Arestiren poesia, langileriarena, inguru industrialarena eta erdaldundutako eremuarena zen. Arestiren euskara arraroa egiten zitzaien. Euskarazko lan klasikoak asko irakurtzen zituzten orduko idazle gazteek, eta idazkera menpeko esaldiz beteta bazegoen ere, asko aberastu zuten literatura. Arestik poesia soziala landu zuela dio.

2.347. Joxean Artzeren artelana (BER-342/016)

Joxean Artze "Isturizetik Tolosan barru", zeharo berritzailea izan zen. Liburu-objektu zoragarria zela dio, artelana.

2.348. Txilardegiren nobelak erakusten (BER-342/018)

Txilardegiren nobela bi erakusten ditu: "Leturiaren egunkari ezkutua" eta "Elsa Scheelen".

2.349. Artzeren liburuak erakusten (BER-342/019)

Artzeren bi liburu erakusten ditu: letra tipoa eta Zumetaren irudiak bereziak dira.

2.350. Gerra aurreko idazleak eta gerra ostekoak, desberdinak (BER-342/021)

Gerra ostean urte batzuek erabateko debekua zegoen euskarazko liburuak argitaratzeko. Belaunaldi berrien ikuskera eta gaiak oso desberdinak izan ziren, gerra aurrekoen aldean. Adibideak ematen ditu.

2.351. Arantxa Urretabizkaia aitzindaria (BER-342/023)

Arantxa Urretabizkaiaaren obra, oso zabala ez izan arren, oso esanguratsua izan zela dio. Oso emakume idazle gutxi egon ziren ordura artean. Beste arlo batzuetan ere ekarpen handia egin duela dio. "Zergatik Panpox?" lana aitzindaria izan zen.

2.352. Ramon Saizarbitoriaren lanak, berritzaileak (BER-342/024)

Ramon Saizarbitoriaren "Ehun metro" eta "Ene Jesus" gai aldetik eta idazkera aldetik berritzaileak ziren.

2.353. Juan Mari Irigoien, lehen nobelista profesionala (BER-342/025)

Juan Mari Irigoien lehenengo nobelista profesionala izan dela dio. Produkzio ikaragarria eta oso landua egin duela esaten du. "Babilonia" oso irakurria eta arrakastatsua izan zela dio. Garai hartan errealismo majikoak euskal literaturan eragin handia izan zuen.

2.354. "Pott tropikala" aldizkaria (BER-342/026)

Bernardo Atxagak, beste hainbatekin batera, literatur taldea zeukan Bilbo aldean eta azken tendentzien berri bazuten. Etiopia eta "Pott Tropikala" aldizkaria (erakusten du) aipatzen ditu.

2.355. Bernardo Atxaga, "Obabakoak" lanarekin famatu (BER-342/027)

Bernardo Atxagak prosan egindako poesia landu zuen. Oso gauza berria zen. "Obabakoak" lanak baserri giroa erakusten du, kontraesanak azaleratuz. Saritua eta arrakastatsua izan zen. Fama eman zion lana izan zen.

2.356. Andu Lertxundi, nobelagile handia (BER-342/028)

Andu Lertxundirekin batera ikastolako irakasle izan zen Juan Martin. Hego Ameriketako literaturaren eragina izan zuela dio, hasieran idatzi zituen ipuinetan. Euskal nobelagile handietako bat izan da. "Otto pette" obra liluragarria iruditzen zaio.

2.357. Joseba Sarrionandia atxilotu zutenekoa (BER-342/029)

Joseba Sarrionandiak UNEDen lan egiten zuen. Zapatu batean ez zen etorri. Juan Martin koordinatzailea zen orduan. Pare bat egunera jakin zuten atxilotu egin zutela, bahiketa batean parte hartzearen. Kartzelara joaten ziren bisitan. Obraren bat argitaratu zuten, kartzelatik.

2.358. Joseba Sarrionandia, idazle mugagabea (BER-342/030)

Joseba Sarrionandia gazterik hasi zen poesia eta ipuinak idazten. Kartzelan gehien bat poesia argitaratu zuen eta narratibako hainbat lan ere egin zituen. Kartzelatik ihes egin ondoren, argitaratzen jarraitu zuen. Bere bibliografia mugagabea da. Poesia, narratiba eta saiakera izan ditu.

2.359. Itxaro Borda, aitzindaria eta berritzailea (BER-342/031)

Itxaro Borda Iparraldean emakume idazle aitzindaria izan da. Poesia eta narratiba landu ditu eta berritzailea izan da, gai aldetik eta genero ikuspegia txertatzearen. Hizkuntza hegoaldekoentzat zaila da.

2.360. Joxean Ormazabal, haur eta gazte literaturako erreferente nagusia (BER-342/032)

Haur eta gazte literaturaren hasiera ikastolen mugimendurekin oso lotuta dago. 70. hamarkadaren hasieran oso liburu gutxi zeuden. Ikastolako irakasle zen Juan Martin eta ipuinak asmatzen aritzen ziren. Joxean Ormazabal aitzindaria eta erreferente nagusia dela dio. Hainbat aipatzen ditu.

2.361. Ahalenkariak (BER-342/033)

Aldizkaria baino ahalenkari deitzen omen zitzaien "Papina ustela", "Oh! Euzkadi" eta antzekoei, ahal zenean ateratzen zituztelako. Unibertsitateko ikasleen artean, gau eskoletan eta giro euskaltzaleetan banatzen zituzten.

2.362. Zeruko Argia, euskaraz irakurtzeko leku bakarra (BER-342/034)

Zeruko Argiaren aleak gordeta ditu 1969tik. Fraide kaputxinoen esku bazegoen ere, berehala gazteak hasi ziren. Espainiako politikaz ezin zen berba egin, baina kanpokoaz bai. Euskara irakurtzeko leku ia bakarra zen. Sarritan polemiken iritziak ere argitaratzen ziren. Bergarako kronista izan zen pare bat urtean Juan Martin. Bizkaian Anaitasuna aldizkaria zegoen.

2.363. Rikardo Arregi, izen handiko kazetaria (BER-342/035)

Rikardo Arregi karisma handiko pertsona izan zen, pentsaera ezberdineko jende asko biltzen zuena. Munduko politikagintzaren berri ematen zuen, izen handiko kazetaria zen. Pertsonalki ez zuen ezagutu. Bere heriotza galera handia izan zela dio.

2.364. Jakin, gai sakonetan murgiltzeko (BER-342/037)

Fraideek bazeukaten besteek ez zuten eskubidea euskaraz argitaratzeko. Jakinen lehenengo aleetan nortzuk ziren idazle aipatzen du. Gaietan sakontzen zuen aldizkaria zen. Askok argitaratu zuten. Oraindik jarraitzen du.

2.365. Goizargi aldizkaria, baserritarrentzat (BER-342/038)

Goizargi aldizkaria gehiago zen baserritarrei zuzendutakoa, tradizionala.

2.366. Deia eta Egin egunkarietan, euskaraz atal batzuk (BER-342/039)

1977an Deia eta Egin egunkariak sortu ziren eta Zeruko Argiako hainbat kazetari haietara pasatu ziren. Euskarazko atal batzuk bakarrik argitaratzen zituzten, gaur eguneko antzera. Euskarazko kazetaritzari ez du uste halako ekarpenik egin dionik.

2.367. Euskaldunon Egunkariaren sorrera (BER-342/040)

Argiatik sortutakoa izan zen Euskaldunon Egunkaria. Indartsu hasi ziren, sortu ziren erresistentzia gogorrei aurre egin nahian. Deiak "Hemen" eta Eginek "Eguna" aldizkariak kaleratu zituzten. Aurrera egin zuen.

2.368. Errepublika garaiko "Eguna" egunkaria (BER-342/041)

Errepublika garaian "Eguna" egunkaria Bilbon atera zuten, euskaraz. Gutxi iraun zuen.

2.369. ETBren sorrera: euskarazko katea bakarrik ala erdarazkoa ere bai? (BER-342/042)

ETBren sorreran, polemika gogorrena izan zen euskarazko katea bakarrik ala erdarazkoa ere egon behar zuen. Juan Martin Euskal Herrian Euskaraz taldeko kide zen orduan. Protesta egin zuten. Bilakaera orduan ere jakinekoa zela azaltzen du.

2.370. Euskarazko hainbat irratia (BER-342/043)

Euskadi Irratia pausu garrantzitsua izan da. Ordurako Loiola Irratiak eragin handia zeukan. Segura Irratiak bi hizkuntzak erabiltzen zituen. Arrate Irratia

ere bazen, eta jarraitzen du. Jose Mari Iriondo, Lazaro Azkune eta beste hainbat oso euskaltzaleak eta kultura arloan ekintzaileak izan ziren Loiola Irratian.

2.371. Arrasate Press, lehenengo herri aldizkariaren sorrera (BER-343/001)

Lehenengo AED elkarteak sortu zen eta ondoren Arrasate Press. Joxe Arantxabalek zeresan handia eduki zuen. Estatu Batuetatik ekarri omen zuen ideia. Astekaria zen, herriko albisteekin osatutakoa. Dohainik banatzen zen etxeetara. Udalaren eta kooperatiben inplikazioa zeukan. Bergaran Jardun elkarteak eta Berrigara aldizkaria sortu ziren. Aretxabaletan eta Oñatirekin antzera gertatu zen. Pixkaka zabalduz joan zen ideia.

2.372. Gazte garaian, erdaraz sarri (BER-343/002)

Umetan gazteleraz egiten zuten sarri, baserrikoak izan arren. Euskarak ez zeukan prestigiorik. Gazteek erdaraz egiten zuten, gurasoek euskaraz egiten zuten kasuetan ere. Familiakoen adibidea jartzen du. Mugimendu politiko eta euskaltzaleak gako izan ziren euskararen berreskurapenean.

2.373. Euskaraz, dena zegoen egiteko (BER-343/003)

Bere gazte garaian, dena zegoen egiteko. Aditz baturik ez zegoen artean, zoramena izaten zen hura ikastea. Hizkuntzaren arauak finkatu beharra zegoen. Libururik ez zegoenez, ipuinak eta ikas-materiala sortu egin behar ziren, gehiegi jakin gabe ere.

2.374. Eklosio politikoa eta eklosio euskaltzalea (BER-343/005)

1977tik 1982ra bitartean, gauza asko sortu zen euskaraz. 1967tik aurrera, alderdi politiko guztiak sortu ziren, ETAren heriotzak, atxiloketak... Franco hil eta ondorenean, bigarren leherketa sortu zen.

2.375. Alfabetatzearen garrantzia (BER-343/006)

Euskal kazetaritzak ez zeukan oinarri profesionalik, 1977ra arte. Gau-eskolak eta ondorengo AEK eta HABE oinarri-oinarrizkoak izan dira. Jende heldu asko alfabetatu zen garai hartan.

2.376. Eskerrak euskara batua sortu zen (BER-343/007)

Euskara batuaren sorrera beharrezkoa izan zen alfabetatze prozesuan ere. Estandarra beharrezkoa da, hizkuntzak aurrera egin dezan. Sardiniaren adibidea jartzen du. Txilardegi eta Mitxelena gako izan ziren euskara batuaren sorreran. Villasante eta beste hainbat eliztar batuaren aldeko izateak ere asko lagundu zuen.

2.377. Hatxe hizkiarekin zalantzak (BER-343/008)

Batuaren aldeko joera Euskaltzaindian gerra aurrean ere bazegoen. "H"aren kontua nahastu egin zen. Ondo egin zela uste du baina zalantzak ere sortzen zaizkio.

2.378. Irakurtzea, aisialdirako aukera bakarrenetako (BER-343/009)

Egunkaria izaten zuten etxean; libururik apenas. Seminariora joan arte, ez zuen libururik irakurri. Beste askorik ez, eta irakurtzea aisialdirako aukera bakarrenetako zen. Liburuak irakurri nahi izanez gero, erosi egin behar izaten zituen.

2.379. Seminarioak kultura zentro (BER-343/010)

Seminarioko giroan, jende intelektualaren arrimura, formakuntza jasotzen zen, liburuenganako gerturapena. Seminarioak kultura zentroak ziren. Unibertsitaterik apenas zegoen.

2.380. Berriak, artikulua, ipuinak, liburuak, idatzi ditu (BER-343/011)

Zeruko Argiarako Bergarako berriak eta Anaitasunarako artikulua idatzi zituen lehenengoz. Ikastolan irakasle zebilela, ipuinak idatzi zituen. "Fernando Plaentxiarra" idaztea, Abereen etxaldearen itzulpena, ipuin sariketa irabaztea... Ahal duen neurrian idatzi izan duela dio.

2.381. Gustuko idazleak (BER-343/012)

Gustuko idazleak: Guy de Maupassant-en ipuin liburuak, Atxaga, Saizarbitoriaren gauza batzuk, Joxean Agirre, Irigoien, Lertxundiren lan batzuk... Literatura unibertsaletik danetik irakurri du.

2.382. Idazle gazteen hizkuntzaz (BER-343/013)

Aspaldiko urteetan ez du literatura gehiegi irakurri. Idazle gazteen lanak irakurri izan ditu baina ez dute harrapatu izan. Hizkuntzari asko begiratzen dio irakurtzerakoan. Esaldietan erdararen itzulpena egoten dela sarri uste du; ez direla klasikoak irakurtzen, ezta ahozko erreferentzia zaharrak kontuan hartu ere.

2.383. "Ez dok hamairu" eta gehiago (BER-343/015)

"Ez dok hamairu" ezagun egiten hasi zenean, kontzertuetara joaten ziren. Gauza asko ez zituzten ulertzen. Taldeko kideek bakarka edo binaka ere ematen zituzten kontzertuak. Beste hainbat euskal kantari aipatzen ditu.

2.384. Bertsoak ibilbidearen hasiera eta amaiera (BER-344/005)

Lagun batek ikasitako bertsoak kantatzen zituen eta berak asmatutakoak erantzun. Lagunek animatuta Osintxun bizi zen `Egileor´ bertsolariarengana joan zen. Harritu egin zen hura, bera oso lotsatia baitzen. `Basarri´ren eta Pedro Mari Otañoren liburu bana eman zizkion eta hamabost egunean buruz ikasi zituen. Jai baten Osintxun egin zuen lehenengo bertso saioa eta handik laster debuta Bergarako pilotalekuan. Ia 56 urte bertsoan pasa ostean, Urepelen eman zion amaiera bere ibilbideari. Bertso-saioak uzteko arrazoiak.

2.385. Gurasoen jaiotetxeak (BER-344/007)

Aita Elgetakoa zen, Aixolako urtegiaren azpian geratu zen baserrikoa. Ama Osintxuko Izarrekoa. Aitonak Urdangarin familiakoei erosi omen zien Izarre baserria. Beherago egin zuten Izarreberri baserrian jaio zen Jose Luis.

2.386. Bertso zaletasunaren jatorria; `Basarri´ren "Nere bordatxotik" (BER-344/008)

Bertsotarako zaletasuna nondik datorkion. Bederatzi urte inguru zituela, Osintxuko Kofradia jaietan `Basarri´eta `Uztapide´ entzun zituen bertsoan. `Basarri´ren "Nere bordatxotik" irratsaioa eta "La voz de España" egunkariko atala. Han etortzen ziren bertsoak buruz ikasten zituen.

2.387. Emeterioren bertso-jakinduria jaso gabe geratu zen (BER-344/009)

Umetan ezagutu zuen Osintxuko `Egileor´ bertsolaria. Haren osaba Emeteriok bertso asko zekizkien. Auspoa argitaletxeko aita Zabalak horren berri izan zuen eta bertsoak grabatu nahi izan zizkion, baina grabaketa egin aurretik hil zen.

2.388. Bergarako bertso-saioak eta zaletasuna (BER-344/010)

Osintxun eta Bergaran bertsotarako zaletasun gutxi zegoen bere gazte denboran. Auzo guztietan jartzen ziren bertsolariak jaietan. Herrian, "Erramu zapatu" arratsaldean `Basarri´eta `Uztapide´ egon izan ziren urte askoan. Ez zen beste saiorik izaten. Gerora, Bergarako pilotalekuan egiten zen jaialdia.

2.389. Debuta Bergarako Pilotalekuko jaialdian (BER-344/011)

Basalgoko Lonbide baserriko Benito Irasuegi eta Martin `Egileor´ekin egin zituen lehen bertso-saioak. Soldadu joan behar zuten mutilek antolatutako jaialdian debutatu zuen, Jose Ramon Madinabeitiak animatuta. Pilotalekua goraino bete zen. Nolako ikuskizuna izan zen. Gero bazkaria Hotel Lasan. 50na pezeta ordaindu zieten.

2.390. Loiola irratiko saioen laguntzaz hasi zen ezagun egiten (BER-344/015)

1963an egin zuen lehenengo saioa. Gerora, batera eta bestera hasi zen. Joxe Mari Iriondok Loiola irratian urtero antolatzen zuen bertsolari gazteentzako txapelketarako deitu zion. Urte zaharretan zenbait bertsolari gaia eman eta bertsoak grabatzen zizkien Iriondok, irratian botatzeko. Hortik hasi zen pixkanaka jendea bera ezagutzen.

2.391. Bera ere finalean zegoen Xalbadorri txistu jo ziotenean (BER-344/016)

Soldadutzara joateko zegoela, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera sailkatu zen. Han ezagutu zituen Xalbador eta Mattin. Ez zuen Xalbadorren euskara ulertzen. Txapelketa haren inguruko kontuak. Buruz burukora pasa zenean Xalbadorri jo zizkioten txistuak eta gero abestu zuen bertsoa. Nola bizi izan zuen guztia.

2.392. 1980ko Txapelketa Nagusia; berritasuna ekarri duten bertsolariak (BER-344/017)

1980an bigarren aldiz iritsi zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera. Garai horretan denek beste maila bat zutela dio. Amuriza lan handia eginda joan zen eta berak irabazi zuen txapela. Bertsoan hiru bertsolari ekarri dute berritasuna bere ustez: Pedro Mari Otañok, ´Basarri´k eta Amurizak.

2.393. `Basarri´k ekarritako aldaketak; `Txirrita´rekin txapelketan (BER-344/018)

`Basarri´k zer aldaketa ekarri zituen orduko bertsolaritzan. 20 urterekin txapelketa batean parte hartu zuen eta inork ez zuen ezagutzen. Txapela irabazi zuen, `Txirrita´ren aurretik sailkatuta. Hurrengo urtean `Txirrita´k irabaz zezan, aurkezle lanean ipini zuten `Basarri´.

2.394. Hainbat txapelketatan hartu du parte (BER-344/020)

Bertsolari Txapelketa Nagusiaz aparte, zer beste txapelketatan parte hartu izan duen. Bertso onenaren saria ere irabazi izan du. Bizkaian eta Gipuzkoan asko ibili da. Asko ziren plaza onak. Bertsolari gazteak ezagutzearren joaten zen jendea.

2.395. Bergarako eta inguruko bertsolariak (BER-344/021)

1963an debuta egin zuenean `Egileor´ eta Lonbide baserriko Benito Irasuegi izan zituen lagun. Bergaran ez zegoen bertsolari gehiago. Antzuolan Gabilondo eta Barrena. Elgoibarren `Armaitta´ anaiak. Eibarren Uranga, izatez oriotarra.

2.396. Bertso jaialdietako gai-zerrenda Gobernu Zibilean onartu behar (BER-344/022)

Frankismo garaian Gobernu Zibilaren oniritzia behar zen bertso jaialdi bat egiteko eta bertan kantatzeko. Gai-zerrenda ere bidali behar izaten zen. Gai guztiak Urtain boxeolariaren ingurukoak jartzen zituzten. Behin Donostian Iriondo Gobernu Zibiletik pasa gabeko gaiak jartzen ari zela gertatutakoa. Jose Luisi berari ere debekatu zion behin Gobernu Zibilak Lasturren kantatzea.

2.397. Frankismo garaian Gobernu Zibilak debekatutako bertsolariak (BER-344/023)

Frankismoan Gobernu Zibilak debekatuta izan zituen bertsolariak: Azpillaga, Lopategi eta Xalbador. Ihes eginda Iparraldera pasatzen ziren ETAKideak etxean hartzeko prest agertu zelako debekatu zuten Xalbador. Azpillaga eta Lopategi, berriz, politika kontuetan sartzen zirelako. Askotan saioa antolatu zutenek ordaintzen zuten haiei jarritako isuna. `Lazkao Txiki´k 1500 pezetako isuna ordaindu behar izan zuen txikieria bategatik. Lizaso eta Agirre atxilotu zituztenekoa.

2.398. Bertsotarako gaiak aldatzen eta kaletartzen (BER-344/025)

Garai batean bertso-saioetara joaten zen entzuleen gehiengoa baserritarra zen eta gaiak haietzako modukoak. Gaiak nola hasi ziren aldatzen eta kaletartzen.

2.399. Txapelketek errespetua bai, baina beldurrik ez (BER-344/029)

Gipuzkoako txapeldunorde geratu zen 1967an eta zuzenean sailkatu Txapelketa Nagusiko finalera. Soldadu joateko zegoenez, Patxi Etxeberria (3.sailkatua) zegoen bere ordezkotzat badaezpada. Plazan ez da sekula urduri jarri izan, zenbat eta jende gehiago egon, nahiago. Txapelketak errespetua bai, baina beldurrik ez dio eman izan. Garai batean maila handiko bertsolari gutxiago zegoen.

2.400. Jesus `Egileor´, koplari ona eta ahots gozokoa (BER-344/032)

Gaztetan, bertsotan hasi zenean, Jesus `Egileor´ auzotarrarengana jo zuen. Geroztik plaza gehien harekin egin izan zituen, konfiantza handia zuten eta. Bertsolari ona zen, baina jendeak haren ahotsa estimatzen zuen asko. Anaia Martinek, berriz, ahots txarra eta kirrimarra zuen. Koplari ona zen Jesus.

2.401. Soldadu joan behar zuten mutilak Santa Ageda koplak kantatzen (BER-344/033)

Garai batean Bergara inguruan soldadu joan behar ziren mutil gazteak irteten ziren Santa Ageda koplak kantatzen. Ez zen bat-bateko bertsorik kantatzen, ikasitakoak bakarrik. Hilberriren bat zegoen etxeetan errezatu egiten zen.

2.402. San Martzial auzoko jaietako lehenengo bertsolariak (BER-344/036)

Bertsotarako Bergarako auzo onena Elosu. San Martzial auzoan jende asko biltzen zen, baina oso gutxi egoten ziren bertsoak entzuten. 19 urterekin kantatu zuen lehenengoz San Martzialen. Bera eta `Egileor´ hasi aurretik ez zen egoten bertsolaririk. Herritarrak pixkanaka zaletzen joan dira eta azken urteetan herriko gazteak ere animatu izan zaizkie bertsotara.

2.403. Bertso serioak gustuko; euskalkia ala euskara batua? (BER-344/039)

Berak ez duela "txispadun" bertsokera dio; nahiago izan du seriotasuna. `Basarri´ eta Otaño bertsolariak izan zituen eredu. Amurizak aldaketa handia ekarri zion bertsolaritzari: doinuak, errimak, esateko modua... eta euskara batuan kantatzea. Berak orain ezingo lukeela bertsoa Osintxuko euskaran kantatu dio.

2.404. Bertso jaialdien antolatzaileak eta zaletasuna zutenak (BER-344/041)

Bergarako herriko jaialdiak Udalak antolatzen zituen. Auzoetakoak, berriz, auzoko gazteek normalean. Bazeuden zaletasun handia zuten herritarrak. Gogoan du Udalean lan egiten zuen gizon bertsozale bat. Bittor Satorretxe bertsozalea.

2.405. Josu Oregi, euskaltzaina eta bertsozalea (BER-344/044)

Josu Oregi, euskaltzaina eta oso bertsozalea. Epaille lanean ere jarduten zuen. Etxean liburuz betetako gela handi bat zuen, tartean Auspoa argitaletxearen bilduma osoa.

2.406. Zizurkilen Otañoren jaiotetxean futbolearen ari zen mutikoa (BER-344/045)

Bere bertsolari ibilbidean 1967ko eta 1980ko Txapelketa Nagusiko finalak izan dira puntu garrantzitsuenak. Badu Zizurkilen gertatutako anekdota berezi bat ere. Lopategi eta Azpillagarekin joan zen. Otañoren senide bat etorri zitzairen eta haren jaiotetxera eraman zituen, Errekalde baserrira. Sukaldean mutiko bat zebilen baloiarekin jolasean. Gerora jakin zuen Jose Inazio Garmendia zela, urte luzez Eibar futbol taldeko atezaina izan zena.

2.407. Muga zeharkatzerakoan `Basarri´k guardia zibilei esandakoa (BER-344/048)

Matxin Irabola Senpereko bertsolaria bigarren geratu zen 1935eko Txapelketa Nagusian, `Basarri´ren atzetik, eta handik gutxira hil zegin zen. Handik urte askora omenaldia egin zioten Senperen. Hara zihoazela, `Basarri´k muga guardia zibilei esandakoa.

2.408. `Uztapide´k kantatutako azkenengo bertsoak (BER-344/049)

Donostiako pilotalekuan hainbat bertsolarik saioa egin zuten, tartean `Uztapide´ zela. Bertsoa kantatzera zihoala, kantatu ezinik geratu zen `Uztapide´. Gero jakin zuten bihotzeko txiki bat izan zuela. Geroztik ez zuen gehiago kantatu, idazten jarraitu zuen arren. Entzuleen artean zegoen Hernandorena dentistarekin saio amaieran izan zuen elkarrizketa.

2.409. `Lazkao Txiki´k ateraldi ugari (BER-344/050)

`Lazkao Txiki´ mutil ona, baina jenio bizikoa. Egun ona zuenean, bertsotan izugarria. Ateraldi asko izaten zituen. Behin Dorletara bertsotara joan zirenekoa kontatzen du.

2.410. Emaztea eta biak Xalbador bisitatzera Urepelera (BER-344/051)

Xalbador bertsolaria serioa zen, baina lagunarterako jatorra. Emaztea eta biak Gotaine-Irabarnera joan ziren behin pastorala ikustera. Iruriko Etxahun zen artista nagusia. Bueltan, Xalbador bisitatzera joan ziren Urepelera eta bertan geratu ziren lo egiten. Bertso mordoa kantatu zuten. Xalbadorrek Afrikatik muga zeharkatzeko ekarri eta Urepeleko mendietan abandonatu zituzten mutilei ateratako bertsoak kantatu zizkien. Gaztelaniaz ondo zekien, guardia zibilekin ikasita.

2.411. `Egileor´ek Andrakas toponimoarekin egindako hitz-jokua (BER-344/053)

Hasi berritan `Egileor´ekin ibiltzen zen gehien bertsotan. Gerora, azpeitiarrekin (Agirre, Lazkano eta Lizaso) eta Bizkaia aldera Azpillagarekin ere asko. `Egileor´, Mugartegi eta Ibarzabal Zornotzara bertsotara joan ziren batean hango gizon batekin izandako elkarrizketa eta `Egileor´ek Andrakas toponimoarekin egindako hitz-jokoa.

2.412. Emakumeen bidea bertsolaritzan (BER-344/054)

Bertso mundua garai batean oso maskulinoa zen: bai bertsolariak eta bai entzuleak gizonezkoak. Emakumezko bertsolariak baziren: Otañoren arreba, Pello `Errota´ren alaba, Iñaxi (Etxabe)... Geroago Arantzazu Loidi eta Kristina Mardaras. Gaur egun entzuleak, epaileak... dira emakumezkoak. Garai batean hori sinesgaitza zen.

2.413. Jendeak enkarguz eskatutako bertsoak (BER-344/057)

"Gogoan dauzkadanak" liburua kaleratu zuen, galdu aurretik bertsoak jasota geratzeko. Jendeari enkarguz egindako bertso asko ez zituen gordetzen eta horren pena izan du gerora. Bergarako gizon batek alabaren jaunartzerako bertsoak eskatu zizkion. Harekin gertatutako anekdota.

2.414. Bertso onenaren saria irabazitako "Nor da euskaldun" bertsoa (BER-344/059)

Donostiako Santo Tomas Lizeoak urtero bertso jaialdi bat antolatzen zuen. Aranaldek eskolak ematen zituen bertan eta gai-jartzaile lanak egiten zituen. Bertso onenaren saria irabazi zuen "Nor da euskaldun" bertsoarekin. Kantatu egiten du.

2.415. Euskararekiko sentimendua; eskolan gaztelaniaz (BER-344/060)

Euskara zer den berarentzat. Eskolan gaztelaniaz egin behar izaten zuten, baina irakasleek ez zituzten zigortzen euskaraz egiteagatik. Osintxuko eskolan ibili zen 13 urtera arte. Irakasleak.

2.416. Osintxuko Kurutza etxean jaioa (BER-345/002)

Gurasoak biak Elosu auzokoak zituen, aita Egileor baserrikoa eta ama Narbaizagainekoa baserrikoa. Aita Jesus `Egileor´ bertsolari ezaguna. Jesus Soraluzen lanean hasi zenean, osabarenean bizi izan zen Osintxun. Gero auzoko Kurutza etxera ezkondu ziren eta bertan jaio zen Koldo. Bost urte zituela, Bergarara joan ziren bizitzera. Osintxuko oroitzapenak gogoan ditu: etxe ondoko erreka, kotxerik ez...

2.417. `Egileor´en hasiera bertsoan Elosuko Bentan, lagunartean (BER-345/003)

Aita Elosu auzoan hasiko zen bertsoan, lagunartean. Benta baserrian taberna zegoen eta han elkartzen ziren auzoko gazteak. Auzoan baziren bertsoan egiten zuten beste batzuk ere eta tabernan jardungo zuten bertsoan ziurrenik. Aitaren anaia Martin ere bertsolaria zen.

2.418. Garai batean etxean eta lagunartean bertsoarako joera (BER-345/004)

Aitari etxetik ere bazetorkion bertsoarako zaletasuna, Osintxun bizi zen osabarengandik. Etxe giroan eta lagunartean bertsoarako joera handiagoa zegoen lehen. Ez zen hain erraza izaten bertso zaharrak eskuratzea eta gaur egun baino interes handiagoa izaten zuen lagunartean bertso zaharrak kantatzeak.

2.419. `Egileor´ek etxean zituen bertso-liburuak (BER-345/005)

Aitak etxean zeuzkan bertso-liburuak: Pedro Mari Otañorena, Uztapiderenak... Uztapideren "Lehengo egunak gogoan" gastatuta zeukan, eskuartean asko erabili zuelako. Herriz herri gertatutako pasadizoak irakurtzea gustatzen zitzaion.

2.420. 1975ean `Basarri´ eta `Uztapide´ren omenez Bergaran egindako jaialdia (BER-345/007)

Gaztetan aitaren bertso saioak ikusten zituen eta baita herriko bestelako saioak ere: Elosun, Osintxun, Bergarako Erramu zapatukoa... Gogoan du 1975ean `Basarri´ eta `Uztapide´ren omenez egin zen jaialdia, pilotalekua bete-beteta zegoen eta. Bera gaztea zen eta harrituta geratu zen. Jaialdian Mattinek eta Xalbadorrek parte hartu zuten eta Bergaran geratu ziren lotan (bietako bat euren etxean), biharamunean beste bertso-saioren bat zutelako inguruan.

2.421. `Egileor´ Osintxun Gorrotxategirekin; Elosun auzotarrekin (BER-345/008)

Osintxun Jose Luis Gorrotxategirekin kantatzen zuen normalean `Egileor´ek. Elosun `Lazkao Txiki´rekin, adibidez. Kanpotik ez bazen bertsolaririk ekartzen, auzokoen artean konpontzen ziren.

2.422. 1980 ingurura arte bertsozaletasun handirik ez Bergaran (BER-345/009)

1980ra arte Bergaran ez zegoela bertsozaletasunik dio. Udalak Erramu zapatu egunean antolatzen zuen jaialdia bakarrik zegoen. Auzoetan (San Kristobal, Ubera, Basalgo, Osintxu, Elosu, Angiozar...) egiten ziren bertso-saioak jaietan, auzokoek antolatuta. 1980tik aurrera hasi zen indartzen bertsozaletasuna: Jardun elkartearen sorrera, bertso-eskola...

2.423. Auzoetan meza osteko bertso-saioak (BER-345/010)

Auzoetako jaietan zer eratako bertso-saioak egoten ziren: igandeetakoak, afarietakoak... Baina meza osteko saioak izaten ziren ohikoenak. Entzuleak mezatik irtendakoak edo eguerdian jai-girora gerturatutakoak. Kanpoan egiten ziren normalean saio horiek. Altos Hornos-eko adibidea jartzen du.

2.424. Eskola nazionalean gaztelaniaz (BER-345/012)

Eskola nazionalean ikasi zuen 15 urte ingurura arte eta gero Elementalean. Eskola nazionalean gaztelaniaz ikasten zuten, irakasleak kanpotik bidaltzen baitzituzten, hain zuzen ere, horretarakoxe. Gogoan du euskaldunak begitan hartzen zituen maisu bat. Elementalean egoera hobetu zen, maisuak bertakoak ziren eta.

2.425. UNEDen euskaraz alfabetatzen (BER-345/013)

Gaztelaniaz ikasi arren, gerora euskaraz alfabetatu zen UNEDen. 1979 inguruan EGA atera zuen eta gerora Sakontze Mailan ere hasi zen. Juan Martin Elexpuru eta Jerardo Elortza ziren irakasleak, besteak beste.

2.426. Lagunartean bertso-girorik ez eta zuzenean txapelketara (BER-345/015)

Bertsotan etxean jarduten zuen pixka bat, baina lagunartean ez, ez zegoen bertsoarako girorik eta. 18 urterekin Zaldibiko "Artxanberri eta Patxi Errota" sariketan parte hartu zuen, asko prestatu gabe. Andoni Egaña eta beste bertsolari ezagun batzuk handik pasatakoak dira. Hurrengo urtean Gabiriko Osinalde txapelketan parte hartu zuen. Hango parte-hartzaileak. Garai hartan hasi zen ALMENgo bertso-eskola eta joaten zen tarteka. Urruñako Errexil saria.

2.427. Euskal Udalekuetan ALMENgo bertso-eskolakoekin bertsotan (BER-345/016)

Berarekin batera plazetan ibiltzen ziren bertsolariak, ALMENgo eskolakoak eta ingurukoak izaten ziren: Sarasua anaiak, Felix Iñurrategi, Arantzazu Loidi, Antzuolako `Kaxeta´... Euskal Udalekuetan (hasieran Beiren eta gero Goñin) ALMENgo bertso-eskolakoekin topo egin zuen eta bertsotan jarduten zuten.

2.428. San Kristobal auzoko bertso-saioetan giro ona (BER-345/017)

San Kristobal auzoko jaietan abesten zuten urtero ALMENgo bertso-eskolako kideek, Arantzazu Loidik, Aitor Sarasuak eta berak, normalean. Oso giro ona egoten zen.

2.429. 1983-1985 bitartean bertso-eskola Aranzadi ikastolan (BER-345/019)

1983an, Aranzadi ikastolak eskatuta, bertso-eskola jarri zuten martxan Pello Txintxurretak, Aitor Aginagaldek eta berak. Hasieran ikastolari zuzenduta egon arren, herri mailara zabaldu zen. Helduen talde bat ere izan zuten. 1985 arte jardun zuten. Pello Txintxurreta ez zen bat-bateko bertsolaria, baina bertso idatzietan oso ondo moldatzen zen. Aitor Aginagalde ALMENgo bertso-eskolan ibiltzen zen eta bertsozale amorratua izan da beti.

2.430. Bertso-paperak zabaltzen zituzten herrian (BER-345/020)

Lanean errelebotan hasi zenean, zaildu egin zitzaion bertso-eskolarekiko lotura eta utzi egin zuen. Handik gutxira Pellok eta Aitorrek ere utzi egin zuten. Bost urtean ondo funtzionatu zuen eskolak. Helduen taldea izan zutenean, astero bertso-paperak jarri eta herrian zabaltzen zituzten.

2.431. Bertso-eskolako gaztetxoekin txapelketetara (BER-345/022)

Beraiek bertso-eskolan ibili ziren sasoian Mikel Mendizabal zen bertso-eskolen koordinatzailea Gipuzkoan eta haren bitartez bertso-eskolako ume eta gazteekin txapelketetara joaten ziren. Giro polita sortzen zen, inguruko jendea ezagutzen zutelako.

2.432. Beraiek laga eta urte batzuetara bertso-eskola berria (BER-345/023)

Beraiek bertso-eskola laga eta 2-3 urtera eskola berria jarri zuten martxan, Jardun Elkartearen laguntzarekin. Orduetik berak ez zuen harreman handirik izan bertso-eskolarekin, lan kontuengatik astirik ez zuelako izaten. Bertso-eskolak ondo funtzionatzen duela iruditzen zaio.

2.433. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa antolatzen (BER-345/025)

Eskualdeko zenbait kide Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bileretara joaten ziren. Arrakasta handia izan zuen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa (1991koa?) antolatzen jardun zuten. Handik atzera bertsolaritza alde batera utzi zuen, bere bizitzan zentratzeko.

2.434. Elosuko auzotarren arteko txapelketa irabazi zuen (BER-345/027)

1980an auzotarren arteko bertso txapelketa antolatu zen Elosun. Zortzi partaide izan ziren, lau jada plazaratutakoak (Jesus eta Martin `Egileor´, Gregorio `Kanter´ eta Andres Gabilondo) eta beste lau plazaratu gabeak (tartean, Manu `Bega´ eta bera). Epaileak Gorrotxategi eta Laxaro Azkune izan ziren eta berari jantzi zioten txapela.

2.435. Bertsolaritzan mugarri: 1980ko Bertsolari Txapelketa (BER-345/030)

1970 inguruan hasi zen aldaketa bertsolaritzan. Amurizak ekarri zuen aldaketa: bertso landuagoak, bai egitura aldetik eta baita hiztegi aldetik ere. Doinuak eta errimak ere aberatsagoak. Mugarri bat jartzekotan, 1980ko txapelketa jarriko luke. Franco-ren heriotzaren eta ikastolen sorreraren eragina.

2.436. Garai bateko bertsozaleak auzo-girokoak (BER-345/031)

Bera umea zenean bertsolaritza auzo-girokoa zen, herri kaskokoa baino gehiago, eta esan liteke bertsozaleak baserrikoak zirela. Baserria izan zen euskarari gehien eutsi ziona ere.

2.437. Bergarako bertsozaleak: Bittor `Satorretxe´ eta Felix Beitia (BER-345/032)

Begarako bertsozaleak: urte askoan jai-batzordeko kide izan ziren Bittor `Satorretxe´ eta Felix Beitia. Garai batean telefonorik ez eta bertsolariei abisatzeko, euren gana joan behar.

2.438. Abeslarien eta bertsolaritzaren arteko harremana (BER-345/033)

Bertsolariek eta abeslariak orokorrean beti izan dutela harremana uste du. Gogoan du Leintz eskualdean egiten ziren txapelketetara Xabier Lete joaten zela entzule gisa. Beraiek ez zuten izan harreman zuzenik herriko musikariekin bertso-eskolan ibili ziren sasoiaren.

2.439. `Uztapide´ zen `Egileor´en eredu; azken urteetako plazak (BER-345/035)

Aita, Jesus `Egileor´, lehengo eredu bertsolaria zen, berezkoa zuena. `Uztapide´ zen haren eredu. Sasoirik onenetan leku askotara joango zen `Egileor´, baina Bergara inguruetan ibiliko zen gehien. Azken urteetan Eibarko Arrate inguruan eta Matximentan, Santa Ageda eskean, ibili zen gehien.

2.440. Asteburuetan aita falta, bertsotara joaten zelako (BER-345/036)

Bera mutikoa zenean, aita gutxi egoten zen etxean, astebururo bertsotara joaten zelako. Gainera, garai hartan bertsolariak egun osorako joaten ziren bertsotara. Santa Ageda eskean joaten zirenean, berriz, goizean hasi eta hurrengo goizera arte.

2.441. Bertsolarien fama txarra, aspaldikoa (BER-345/037)

Garai batean bertsolariek alfer eta mozkor fama zuten. Koldok uste dut horiek bere aitaren sasoi baina lehenagoko kontuak direla. Batzuek ez zuten nahiko etxean bertsolaririk egotea, bertsolariak kanpoan ibiltzen zirelako eta garai hartan etxean lanerako jendea behar zelako.

2.442. Eredu izan dituen bertsolariak (BER-345/038)

Aitaren idoloa 'Uztapide' zen. Berari Lazkano, Amuriza, Lizaso, Agirre... gustatzen zitzaizkion. Eragin gehien Amurizak, bertsolaritzari egin zion ekarpenagatik. Bat-batekoan Joxe Agirre sekulakoa zen.

2.443. Garai bateko bertsokera eta oraingoa (BER-345/040)

Bertsozale Elkartea sortu zenetik bertsolaritza egituratu egin zen: bertso-saioen antolaketa, bertsoak aztertu, etab. Lehengo bertsokera eta gaur egungoa, oso ezberdinak. Garai batean 3-4 doinu erabiltzen ziren eta gaur egun ehunka. Errima eta eduki aldetik gaur egun askoz bertso landuagoak. Kantaerari dagokionez, lehen garrantzi handiagoa ematen zitzaion.

2.444. Euskara eta bertsolaritza gizartera egokitzen joan dira (BER-345/043)

Euskara zer den berarentzat: komunikazio-bide naturala. Euskara mantendu beharreko dela dio, bere antzinatasun eta berezitasunagatik. Gaur egungo gizartera egokitzen jakin du euskarak; horren adibide da bertsolaritza. Euskara baturako jauzia ez zen erraza izan, baina bai beharrezkoa.

2.445. "Infernukua" etxean jaioa (BER-346/002)

"Infernukua" etxean jaio zen. Bere birramonak zabaldu zuen "Infernukua" taberna. Umetan, amandarearen etxean biltzen ziren asko.

2.446. Ikasketak eta lana: Gometza eta Mankomunitatea (BER-346/003)

Frontoiko eskola pribatuan ikasi zuen Kontxita Maiztegiarekin, eta gero "batxilergoa laborala" Maria Lagundian. Ikasketak bukatu eta Cometsa enpresan egin zuen lan, itxi zen arte. Urte berean, Debagoienako Mankomunitatea zabaldu zen eta bertako administraria izan da jubilatuta arte.

2.447. Dantza-taldeko neska bakarrak (BER-346/004)

Dantzan nola hasi zen azaltzen du. Pazkoa jai batzuetan beste hiru neskarekin egin zuen dantza herriko plazan eta handik Gazte-Alai mutilen dantza-taldera sartu ziren. Ez zegoen nesken dantza-talderik.

2.448. Dantza-txapelketetan nola hasi ziren (BER-346/005)

Gazte-Alai dantza-taldean ezagutu zuten elkar Maitek eta Jabierrek, dantza-bikote zirelako. Antzuolan dantza-txapelketa baten parte hartu zuten eta horrela hasi ziren herriz herri dantzan. Koreografiak beraiek sortzen zituzten, txapelaldunen urratsak oinarri hartuta. 1966an Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten.

2.449. Baserriko-lanetan umetatik (BER-346/007)

Surraga baserrian jaio zen Jabier eta baserriko lanetan ibiltzen ziren. Eskolara joan aurretik, esnea banatzen zuen astoarekin. Herriko eskolan ikasi zuen, dena gaztelaniaz. Gaztetatik auzolanean ibiltzen zen beste baserriekin. Ezkondu eta gero ere, baserriko-lanetan laguntzen aritu izan da.

2.450. Gurasoak ere dantza-txapelketetan fin (BER-346/008)

Jabierren gurasoak ere dantzariak ziren eta dantza-txapelketetan aritzen ziren, baina ez zieten seme-alabei erakutsi dantzan egiten. Erromerietan hasi ziren dantzan.

2.451. Hogeita bost urtez Gazte-Alai dantza-taldean (BER-346/009)

Gazte-Alai dantza-taldean nola hasi zen dantzan kontatzen du Jabierrek. Hogeita bost urtez aritu zen taldean. Aitak ilusio handia zeukan.

2.452. "Bergarako besarkadan" egindako brokel-dantza (BER-346/012)

"Bergarako Besarkada" izan zen urtean ez zen jairik egon, baina hurrengo urtean bai. Bergarako dantza-taldeak brokel-dantza egin zuten, egun berezi horretarako prestatuta. Ospakizuna nolakoa izan zen kontatzen dute. Gerra aurretik dantza-txapelketak antolatzen ziren Bergaran.

2.453. Gazte-Alai dantza-taldearen hasiera (BER-346/014)

Gazte-Alai dantza-taldea 1957 urte inguruan sortu zen. Dantzari eta irakasle batzuk aipatzen dituzte. 20 bat laguneko taldea zen; Ramon txistularia eta Joakin irakaslea.

2.454. Haurren dantza-taldea sortu zuten; irakasleak (BER-346/015)

Maite eta Jabier hasi ziren haurrei dantza-eskolak ematen 1965ean. Herriko jendeak ilusioz hartu zuen eta laguntzeko prest agertu ziren: lokalak utziz, argia partekatuz... Haur asko apuntatzen zenez, irakasle gazte batzuk sartu ziren klaseak emateko eta Bergaran bost lokal ezberdinetan aritzen ziren. Irakasle batzuk aipatzen dituzte.

2.455. Balentin Berriotxoaren omenezko dantza (BER-346/016)

Mutilen dantza-taldea bakarrik zegoenean, Gipuzkoako eta Bizkaiko dantza batzuk egiten zituzten: ezpata-dantza, arku-dantza, zinta-dantza... Etxaniz anaiek Balentin Berriotxoaren omenez sortutako dantzari buruz hitz egiten dute. Elorrion dantzatu zuten lehenengo aldiz eta gaur egun ere, dantzatzen da.

2.456. Boluntario bezala euskal dantzak irakasten (BER-346/017)

Maite hamasei urterekin hasi zen dantza klaseak ematen, herriko batek utzitako lokal batean eta etxean zeukan disko-jogailu batekin. Eskola guztiak boluntario bezala eman dituzte, bai beraiek eta baita beraien ondorengoek ere. Ilusio handia zeukaten.

2.457. Dantza pausu berriak besteei ikusiz ikasia (BER-346/018)

Maitek beste dantzarien pausuak ikusita ikasteko erraztasun handia izan du beti. Gero Jabierri irakasten zizkion pausu berriak. Inoiz ez dute dantza irakasteagatik kobratzerik nahi izan. Dantza-txapelketetan lagun asko egin izan dituzte.

2.458. Ikastolako dantza-taldetik irtendako bikote txapeldunak (BER-346/020)

Ikastolako dantza-taldea sortu zenean, Osintxuko Moises Azpiazu dantzaria zen irakaslea. Berak banakako dantza egiten zuenez, Jabierri laguntza eskatu zion taldeko dantzak ere irakasteko. Urte batzuk pasatuta, Moisesek taldea utzi zuen eta Jabierrek jarraitu zuen dantza-taldearekin eta sortutako bikoteekin lanean. Dantzari asko aipatzen dituzte: Edu Muruamendiaraz, Xabier Mujika, Aintzane eta Jaione Arana ahizpak, Mirentxu Berasategi, Joseba Aseginolaza...

2.459. Dantza-txapelketak haur eta gazteekin; Haurren eguna (BER-346/021)

Ikastolako dantza-taldetik sortutako dantza-bikoteak txapelketa ugaritan egondakoak dira. Txapelketak non eta noiz izaten ziren kontatzen dute. Ume asko dantza-taldean; nagusienak jartzen zituzten txikiagoei irakasten. Haurren eguna antolatzen hasi ziren, bakoitzean eskualdeko herri desberdin batean. Euskal Herri mailako txapelketa ere antolatu zuten lehen aldiz.

2.460. Bergaran lehenengo Haurren eguna antolatu zutenekoa (BER-346/022)

Bergaran lehenengo aldiz Haurren dantzari eguna antolatu zutenekoa kontatzen dute. Inguruetako 1200 haur apuntatu ziren eta herriko etxeetara joan ziren bazkaltzera. Dantza klaseetarako, ikastolak gelak, gimnasioa, korridoreak... uzten zituen.

2.461. Gazte-Alai dantza-taldearen entsegu lekuak (BER-346/024)

Gazte-Alai dantza-taldeak non entseatzen zuen: frontoian, batzoki zaharrear, Zabolategiko dorrean...

2.462. Xamatx dantza-taldearen sorrera I (BER-346/025)

Ikastolan, 6-14 urte bitarteko hurrekin ibiltzen ziren. 14tik gorakoek Xamatx dantza-taldea sortu zuten. Jabierri laguntza eskatu zioten, taldea antolatu eta koordinatzeko. Hamar urtez aritu zen beraiekin. Euskal Herritik kanpo ere joaten ziren.

2.463. Dantza-irakasle ikastaroa (BER-346/028)

Donostiako Goizaldi dantza-taldeko irakasle batzuk Bergarara eramaten zituzten asteburuetan, dantza zehatz batzuk irakastera. Dantza-irakasle ziurtagiria nola lortu zuen kontatzen du Jabierrek.

2.464. Amaia ezpata-dantza eta xake jokoaren dantza (BER-346/029)

Amaia ezpata-dantza nola sortu zen. Behin, xake jokoan oinarritutako dantza bat egin zuten. Dantzariak piezak ziren. Debako dantza-taldeari utzi zioten materiala.

2.465. Moises Azpiauren omenezko eskola eta txapelketak (BER-346/030)

Moises Azpiazu hil zenean, haren iloba bat dantzak irakasten hasi zen ikastolan. Osabaren izena jarri zion taldeari. Dantza-txapelketak ere badaude haren omenez.

2.466. Xamatx dantza-taldearen sorrera II (BER-346/031)

Xamatx dantza-taldea 1992. urte inguruan sortu zen. Gaur egun, jaietako erraldoiak eramaten dituztenak dira. Kanpora asko joaten dira.

2.467. Gaztetan, nesken artean gazteleraz (BER-346/032)

Euskal dantzen klaseak beti eman dituzte euskaraz. Giroa beti euskalduna izan da. Maitek eta Jabierrek euskararekin duten lotura kontatzen dute. Gaztetan, nesken beraien artean gaztelaniaz.

2.468. Gurasoei izan ezik, beti hika (BER-346/033)

Jabierrek beti hika egin izan du, gurasoekin izan ezik.

2.469. Euskal kulturaren errepresioa frankismoan (BER-346/035)

Frankismo sasoian, Segurako txapelketara joan ziren batean, polizia agertu zen eta abade batek esan zien nondik ihes egin. Legazpin, hurrekin zeudela, polizia agertu eta etxeetan ezkutatu ziren.

2.470. Marian Arregiren eta Urbeltzen lagun handiak (BER-346/036)

Maria Angeles Arregirekin eta Juan Antonio Urbeltzekin harreman estua izan dute. Maria Angeles oso dantzari fina zen, nahiz eta gero musikagintzarekin harreman handiagoa izan. Musikariekin ere harremana izan dute, beste herri batzuetan ikusiak eta Bergaran ospatutako jaietara edo jaialdietara.

2.471. San Martzialako sokadantza (BER-346/037)

Garai batean, San Martzial egunean egiten zen sokadantzan, normalean adindunek hartzen zuten parte. Izen batzuk aipatzen dituzte.

2.472. Txapelketetako dantzarien artean oso giro ona (BER-346/038)

Behin, Ondarroatik 40 hurrekin nola bueltatu ziren kontatzen du Jabierrek. Garai batean herriko pertsonaia garrantzitsuenak alkatea, abadea, medikua, albaitaria... izaten ziren. Bergarako txapelketa batean eta Arrateko beste batean izandako istorioak kontatzen dituzte. Oso giro ona zegoen dantzarien artean.

2.473. Dantza irlandarrak ikasten (BER-346/039)

Urtero, inauterietan, Bergarako Musika Bandak musika gertakari batekin lotzen du. Behin Titanic-aren hondoratzea antzestu zuten eta Xamatx taldeko dantzariekin dantza irlandar bat prestatu zuten.

2.474. Bergarako musika eta dantza eskola (BER-346/040)

Gaur egun ez dago euskal dantzen talderik, baina klaseak bai. Urteetan lan egin zuten musika eskolarekin batera dantza eskola egoteko. Dantzetan oso mutil gutxi apuntatzen dira. Musika eskolan ere, mutil gutxi. Udal dantza eskolak ez du arrakasta handiegirik izan.

2.475. "Promocion Cultural Vergaresa" eta UNED-a Bergaran (BER-346/045)

"Promocion Cultural Vergaresa" elkarte oso garrantzitsua izan zen Bergaran. Sortzaileak: Joakin Etxaniz, Fernando Lasa, Binixio Berasategi, Fernando Etxeberria... Bergarako UNED-a ere sortu zen.

2.476. Sukaldari fina (BER-346/049)

Jabierrek sukaldaritza oso gustuko du. Hainbat bataio, jaunartze eta jaietan sukaldari bezala aritu da. Inoiz ez du ezer kobratu, baina opariak egin izan dizkiote.

2.477. Bergarako "Alkartu Nai" elkarte (BER-346/051)

"Promoción Cultural Vergaresa" eta "Alkartu Nai" elkarteei buruz hitz egiten dute. Jendeak ilusioa zuen eta gauzak egiteko gogoia zegoen.

2.478. Emakumeak eta batxilergoa (BER-347/002)

Bergarako Mariaren Lagundian ikasi zuen Rosak eta ondoren, Donostian magisteritza eta piano ikasketak egin zituen. Emakume askok egiten zuten batxilergoa eta lan-batxilergoa. Hamaika urterekin hasten ziren.

2.479. Mojen eskolen euskaraz hitz egitea debekatuta (BER-347/003)

Bergarako Mariaren Lagundian debekatuta zegoen euskaraz hitz egitea. Behin moja euskaldun batekin gertatutakoa kontatzen du. Moja euskaldunek diskrezio handiarekin eramaten zuten euskaldunak zirela. Nahiz eta etxean euskaraz egin, lagunekin kalean gaztelaniaz aritzen ziren.

2.480. Unibertsitatean euskaraz hitz egitea debekatuta (BER-347/004)

Magisteritza ikasi zuen Donostian, bere ahizparen pausoak jarraituz. Ikasle-egoitza batean bizi zen. Fakultateko zuzendaria euskararen kontra zegoen eta gorrotoa zion. Donostiako giroa oso erdalduna zen.

2.481. Euskal alfabetatzea ikastolan irakasle izan aurretik (BER-347/005)

Bergarako ikastolan lanean hasi aurretik, euskaraz alfabetatu behar izan zuen, ikasketak guztiak gaztelaniaz egin zituelako. Don Serafinek lagundu zien berari eta beste bi irakasleri.

2.482. Manolo Urbietarekin kantuan (BER-347/006)

Zarauzko ikastolan Manolo Urbietak bidaiak antolatzen zituen hurrekin kantaldiak egiteko. Rosa begirale bezala aritu zen eta euskaraz alfabetatzeko aukera gehiago izan zuen. Bidaietan zer egiten zuten kontaktzen du. Rosak uste du euskal musikako bere hastapenak hor hasi zirela. Euskal kanta klasikoak abesten zituzten.

2.483. Angel Cabanas; Migel Gonzalez Bastida; Telesforo Monzon (BER-347/007)

Mojetan hasi zen pianoa jotzen eta gero Donostian, Angel Cabanas piano jolearekin jarraitu zuen ikasten. Migel Gonzalez Bastida musikari bergararrari buruz hitz egiten du. Telesforo Monzoni buruz hitz egiten du. Euskaltzale amorratua zen eta euskal kantagintzan parte hartu zuen.

2.484. Musika ikasketak (BER-347/008)

Musikako ikasketak nolakoak ziren kontaktzen du Rosak.

2.485. Bergarako ikastolako lehenengo musika irakaslea (BER-347/010)

1974an hasi zen Rosa Bergarako ikastolan lanean. Orduan ez zen musika ematen eta metodorik ez zegoenez, berak berea sortu zuen euskal kantutegia ardatz hartuta. Lupe Olabarriak ere euskal kantak irakasten zituen astean behin ikastolan.

2.486. Bergarako ikastolaren sorrera (BER-347/012)

Begarako Ikastolaren aurrekariak eta sorrera kontaktzen du Rosak. Dominikoeak asko lagundu zuten. Pozik joaten ziren ikastaroak egitera Arrasatera, Iruñe;era...

2.487. Irakasleen artean materialak sortzen (BER-347/014)

Irakasleen artean oso giro ona zegoen. Ez zeukaten euskarazko testurik ez materialik eta askotan geratzen ziren hauek prestatzeko. Iturri ezberdinetatik materiala lortzen saiatzen ziren eta Fernando Etxeberriak asko lagundu zien. Txomin Amasorrainek testuak euskaratzen laguntzen zuen ere.

2.488. Musika irakaslea Bergarako ikastolan (BER-347/015)

Rosa 1974. urtean hasi zen lanean Bergarako ikastolan lanean. Irakaskuntza orokorrarekin hasi zen eta gero musika irakasten hasi zen, nahiz eta biak uztartu dituen. Musikako irakasgaiak zer ematen zuen azaltzen du.

2.489. Euskal kantutegia curriculum pedagogikoaren ardatz (BER-347/016)

Musika irakasteko curriculum sortzeko, euskal kantutegia erabiltzen zuen Rosak ardatz moduan. Erabiltzen zituen iturriak aipatzen ditu: Azkue, Aita Donostia, Riezu, Manolo Urbietara...

2.490. Manolo Urbietari musikaria (BER-347/017)

Manolo Urbietari buruz hitz egiten du Rosak: nor zen, zergatik izan den garrantzitsua... Musika hurrengana hurbiltzeko erabiltzen zuen. Rosak Urbietaren kanta famatuetakoz batzuk abesten ditu.

2.491. Bergarako ikastolako hasierak: andereñoak (BER-347/018)

Begarako ikastolaren hasieran, irakasle eta ikasleak familia bat bezala ziren. Gurasoekin ere harreman eta errespetu handia zegoen. Hasierako andereñoak eta dominikoez hitz egiten du Rosak.

2.492. Bergarako Ikastolarentzat diru-bilketak (BER-347/019)

Ikastolarentzat dirua jasotzeko denetik egiten zuten: zozketak, taberna, jaialdiak, kontzertuak...

2.493. Bergarako Ikastola eta Santa Ageda (BER-347/020)

Santa Agedetan eskean joaten ziren ikastolatik hurrekin. Bergaran ez zen inon gehiago egiten. Santa eskerako kantak abesten ditu Rosak.

2.494. Bergarako ikastola eta Gabonetako kantak (BER-347/022)

Gabonetako kantak erakusten zituzten ikastolan. Kantu gutxirekin hasi ziren, baina errepertorioa handitzen joan ziren. Abesti batzuk kantatzen ditu.

2.495. Bergarako ikastola eta inauteriak (BER-347/023)

Urte askoan ez ziren inauteriak ospatu eta ikastolatik janzten eta irteten hasi ziren. Horrela, herritarrak animatu ziren eta herri guztira zabaldu zen. Urte batzuen ondoren, euskal inauteriak ospatzen hasi ziren.

2.496. Haurren eguna Bergarako ikastolan (BER-347/024)

Herri askotan haurren eguna ospatzen hasi ziren euskal dantzak sustatzeko. Igandero ospatzen ziren udaberrian eta haur, irakasle eta gazte boluntario talde bat ibiltzen ziren herriz-herri.

2.497. Ikastola, frankismoaren jopuntuan (BER-347/025)

Franco hil aurretik, ikastolarekin zerikusia zutenak jopuntuan zeuden. Guardia Zibila ikastolara joan zenekoa kontatzen du.

2.498. Francoren heriotza ospatzen (BER-347/027)

Rosaren etxean Francoren heriotzaren berri nola jakin zuten kontatzen du. Ikastolan jai giro handia egon zen.

2.499. Ikurrinaren ilegalizazioaren bukaera (BER-347/028)

1977. urtean ikurrina legalizatu zen eta Bergaran ospakizun handiko eguna izan zen. Donostia ikurrinaz beteta zegoela kontatzen du Rosak. Lehenengo euskalduna Everestera heldu zenean, ikastolan ospatu zuten.

2.500. Abesbatzetan parte hartzen: orfeoia, Bergarako Aritzeta... (BER-347/032)

Herriko ekimen ezberdinetan ibilia da Rosa: euskal dantzetan, musika eskolan, Aritzeta Abesbatzan... Gaur egun, Bergarako parrokiako abesbatzaren zuzendaria da. Orfeoian ere ibili da.

2.501. Migel Gonzalez Bastida musikari bergarra (BER-347/034)

Migel Gonzalez Bastida musikari bergarri buruz hitz egiten du Rosak. Migelek beti sartzen zuen bere erreperitorioan euskal kantaren bat. Garai haietan ez zen gauza erraza, baina bai berak eta bai bere aitak, egiten zuten.

2.502. Frankismoko hezkuntza-ikuskatzailea Bergarako Ikastolan (BER-347/036)

Manolo Urbietari buruz hitz egiten du. Behin Bergarako ikastolara hezkuntza-ikuskatzailea joan eta gaztelaniaz egin zien ikasleei. Hauen erantzuna zein izan zen kontatzen du.

2.503. Bergarako Graciano Agirre drogeria I (BER-348/002)

Bidegurutzeta kalean jaio zen Gotzon eta etxe azpiko Graciano Agirre drogeria familiarena zen. Dendak ia 100 urte iraun zituen zabalik eta haren joan-etorriak eta anai-arrebek dendan zertan laguntzen zuten kontatzen du.

2.504. Bergarako Graciano Agirre drogeria II (BER-348/003)

Graciano Agirre drogeria, garai batean mertzeria ere izan zen eta botoiak enkarguz forratzen zituzten. Prozesua azaltzen du Gotzonek. Aterkiak ere konpontzen ziren.

2.505. Aita, zizelkatzaile eta arotz bikaina (BER-348/004)

Gotzonen aita arotza zen eta zizelkatzaile oso ona. Upelak, kojineteak, produktu azidoentzat egurrezko deposituak... egiten zituen. Sagardoentzako upelak nola egiten zituen kontatzen du

2.506. Sagardorako upelak egiten (BER-348/005)

Gotzonek, aita laguntzen zuen sagardoetarako upelak egiten. Prozesua nolakoa zen kontatzen du. Garai batean, sagardoa baserri gehienetan egiten zen.

2.507. Familiako negoziatan laguntzen (BER-348/006)

Gotzonen aitak altzariak egiten zituen, baina familiartean banatzeko, ez saltzeko. Gotzon aitari arotz lanetan eta amari drogerian laguntzen ibiltzen zen umetan eta gaztetan.

2.508. Bergarako eskola nazionaleko oroitzapenak (BER-348/008)

Begarako eskola nazionalean ikasi zuen eta erregimenaren eskola izanda ere, oroitzapen onak ditu Gotzonek. Ondoren, institutuan ikasi zuen pare bat urtez eta azkenik "Maestría" egin zuen. Ikasketak bukatu eta berehala Bergarako General Mecánica lantegian hasi zen lanean.

2.509. Umetan, igandero aitarekin mendira (BER-348/010)

Gotzonen aita zen Luis Bikuñak, Bergarako Pol-Pol, Gorla Alpino eta Enara mendi-taldeak sortu zituen. Familia guztia oso mendizalea da. Umetan, igandero joaten zen aitarekin inguruko mendiren batera: Gorka, Irukurutzeta, Landarraitz...

2.510. Bergarako Pol-Pol mendi-taldea (BER-348/012)

Begarako Pol-Pol mendi-taldean irteerak antolatzen ibili da Gotzon azken 30 urteetan. Taldeko sortzaileetako batzuk aipatzen ditu. Orduan, txangoetara ez ziren haurrak joaten.

2.511. Bergarako Pol-Pol mendi-taldeko ereserkia (BER-348/014)

Etxean musikarako zaletasun handia zegoen eta mendian beti kantatzen zuten: Pol-Pol mendi-taldeko ereserkia abesten du Gotzonek.

2.512. Bergarako Urretxindorrek taldearen sorrera (BER-348/016)

Begarako Urretxindorrek taldeko kideetako bat izan zen Gotzon. Taldea nola sortu zen, zeintzuk ziren, non entseatzen zuten, izena nondik datorren... kontatzen du.

2.513. Bergarako Urretxindorrek taldearen lehenengo kontzertua (BER-348/017)

Begarako Urretxindorrek taldeak lehen aldiz publikoaren aurrean kantatu zueneko kontatzen du Gotzonek. 1966ko maiatzean izan zen, Bergarako "Salon Novedades"en. Orduko musikari ospetsuak bertan egon ziren: Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lurdes Iriondo...

2.514. Txomin Amasorrain, Elementalean irakasle (BER-348/019)

Txomin Amasorraini buruz hitz egiten du Gotzonek. "Zeruko Argia"n idazten zuen eta bere matematikako irakaslea izan zen Elementalean. Gelan euskal giroa nagusi bazen ere, klaseak gaztelaniaz ziren. Urretxindorrek taldean abesten zituzten kantuak Txominek euskaratzen zituela kontatze du.

2.515. Aurrekuaren kantaren hitzak (BER-348/020)

Aurrekuari euskaraz hitzak jarri zizkion Txomin Amasorrainek. Kritika asko jaso zituzten. Euskal Herri mailan, aurrekuari hitzak ipini zizkieten lehenak izan ziren, 1969. urte inguruan. Kantua abesten du. Gotzonek uste du erregimenak inoiz ez zuela ondo ulertu kantuaren esanahia, ez zuelako zentsuratu.

2.516. Txomin Amasorrain (BER-348/021)

Txomin Amasorrain nolakoa zen deskribatzen du Gotzonek. Pazientzia handikoa, euskaltzalea, mendizalea, umoretsua... Txominek eta Juste Amenabarrek Ernai antzerki-taldea sortu zuten.

2.517. Bergarako Ernai antzerki-taldea (BER-348/022)

Ernai antzerki-taldean parte hartu zueneko kontatzen du. Taldeak Elementalean entseatzen zuen eta kideetako batzuk aipatzen ditu: Xabier Zezeaga, Iñaki Arriaran, Migel Laspiur, Marixabel Arregi, Itziar Amenabar...

2.518. Bergarako Urrentxindorrek: kontzertuak (BER-348/026)

Urrentxindorrek taldearen lehenengo kontzertua eta gero, inguruko herrietan emanaldiak ematen hasi ziren: Oñati, Azpeitia, Eibar... Bizkaian ikastolek jaialdi asko antolatzen zituzten eta hara joaten ziren ia astebururo. Orduko musikariekin harreman handia zuten.

2.519. Maite Idirin, Estitxu, Lurdes Iriondo, Ez Dok Amairu.. (BER-348/027)

Maite Idirin eta Estitxu abeslariak eta Ez Dok Amairu taldeari buruz hitz egiten du.

2.520. Oskarbi eta Ameslariak taldeak (BER-348/029)

Donostiako Oskarbi eta Bergarako Ameslariak taldeei buruz hitz egiten du.

2.521. Bergarako Urretxindorrek taldearen lehenengo diskoa (BER-348/031)

1968an Santurtziko ABRA jaialdian parte hartu zuen Urretxindorrek taldeak gonbidatu bezala. Besteak beste, Zorion Egileorrek eta Natxo de Felipek abestu zuten urte hartako finalean. Urretxindorrek taldeari zilarrezko domina eman zioten, errekonozimendu gisa. 1969an grabatu zuten lehenengo diskoa Madrilen, Xabier Gereñe idazlearen bitartez.

2.522. "Aitorren hizkuntza zaharra" kantua erdi zentsuratuta (BER-348/033)

Urretxindorrek taldearen kantu ezagunenetariko bat, "Aitorren hizkuntza zaharra" izan zen. Ziriako Andonegi mutrikuarraren hitzak ziren eta erdi zentsuratuta zegoen: grabatu zitekeen baina ez irratian igorri. Lehenengo diskotik 10.000 ale saldu zituzten.

2.523. Bizkaiko "hit parade" sariak; bigarren diskoa (BER-348/035)

Bizkaiko egunkari eta irratiko irratsaioek antolatutako kantu arrakastatsuen txapelketak ("hit parade") antolatzen zituzten eta sariak lortu zituzten Urretxindorrek taldekoek. Juan Manuel Ares kazetari bilbotarra zen beraien agentea. 1969an bigarren diskoa grabatu zuten. Kanta bateko azkenengo zatiak ez zuen zentsura pasatu eta denak txistuka egiten dute.

2.524. Bergarako Urrentxindorrek: diskoak (BER-348/037)

Urretxindorrek taldeko diskoek ez zeukaten izenbururik. Diskoak nolakoak ziren kontatzen du Gotzonek. Hirugarren diskoa 1970. urtean grabatu zuten, beste lau abestirekin. "Ai amatxo" eta "Neskazaharra" kantuak abesten ditu. 1971n beste bi disko txiki grabatu zituzten. Soldaduskan zeudela, hamalau kanta grabatu zituzten Madrilen, gero poliki-poliki diskoak ateratzeko.

2.525. Bergarako Urretxindorrek Lekeition eta Bermeon (BER-348/039)

Soldadutzatik bueltan, hiruzpalau urte gehiago iraun zuten talde bezala eta banatu egin ziren. Lekeitioko jaialdi batean eman zuten kontzertua ekartzen du gogora Gotzonek.

2.526. Kontzertu klandestinoak (BER-348/040)

Jaialdi batzuetara heltzen zirenean, ezin zutela kantatu esaten zieten bertan egoten ziren poliziek. Jaialdia amaitutzat ematen zen, polizia joaten zen eta orduan igotzen ziren oholtzara. Gehienetan kobratu gabe jotzen zuten eta jaialdikoek gasolina eta afaria edo bazkaria ordaintzen zieten.

2.527. Garai bateko musika taldeak (BER-348/042)

Behin Madrilera disko bat grabatzera joan zirenean, Formula Quinta-ko abeslariarekin topo egin zuten diskoetxean. Los Buenos taldeari buruz hitz egiten du. Bergarako Ariznoa dantzalekuan igandetan emanaldiak ematen zituzten.

2.528. Bergarako Urretxindorrek: taldekideak, hitzak... (BER-348/044)

Begarako Urretxindorrek taldeak abestien euskarazko bertsioak egiten zituen, baina kanta batzuen letrak originalak ere badira. Batzuk aipatzen ditu. Lau kide ziren Bergarako Urretxindorrek taldean. Raul eta Julio gitarran, Gotzonek panderoa eta Juan Marik aho-soinua. Laurek abesten zuten

2.529. Bergarako Urretxindorrek: kantu-bilduma (BER-348/046)

Azkenengo diskoa argitaratu zutenean, Urretxindorrek taldea desegin egin zen. Handik urte batzuetara Elkar argitaletxetik kantu-bilduma bat ateratzeko eskaintza jaso zuten. 2003an bilduma bat atera zuten abesti berri batzuekin batera.

2.530. Bergarako Urretxindorrek: kanta kuttunenak (BER-348/048)

1991. urtean, Bergaran ospatu zen Kilometroak jaialdirako elkartu ziren berriz Urretxindorrek taldekoak. Tebistarako saio batzuk ere grabatu zituzten. Gotzonek Urretxindorrek taldeko kanta kuttunenak zeintzuk diren kontatzen du.

2.531. Bergarako Aritzeta abesbatzaren sorrera (BER-348/053)

Aritzeta abesbatzaren sortzaileetako bat izan zen Gotzon. Beste sortzaile batzuen izenak ematen ditu: Joxe Agirre, Jose Antonio Aperribay, Justo Idigoras, Rosa Narbaiza, Uxue Marko... Abesbatza orfeoiaren aurrekaria izan zen.

2.532. Bergarako Alai taldea (BER-348/055)

Begarako Alai taldeko kidea de Gotzon. 1971n sortu zen 15 gizonen osatutako abesbatza da. Ezkontzetan, Santa Agedan, Gabonetan... abesten dute. Gaur egun, Xabier Olabarria da zuzendaria. Kide guztiak izendatzen ditu.

2.533. Etxean beti euskaraz (BER-349/002)

Enekoren gurasoak Bergarako euskalgintzako eta kulturgintzako parte-hartzaile aktiboak izan ziren. Aitak euskarazko klaseak ematen zituen Elementalean.

2.534. Bergarako lehenengo ikastola: sorrera eta kokalekua (BER-349/003)

Beste familia batzuekin batera sortu zuten lehenengo ikastola Bergaran 1959-1960. urteetan, Mirakruzeta kaleko Batzoki zaharrean. Egoitza antzerkia, batzokia eta falangeko egoitza izan zen. Don Jose Leon Lasa Apalategi kanonigoaren bitartez sortu zela ikastola kontatzen du Enekok.

2.535. Bergarako lehenengo ikastola: ikasleak eta andereñoa (BER-349/004)

Begarako ikastolako lehenengo ikasleak 12 inguru besterik ez ziren. Irakaslea Dominika Madinabeitia izan zen. Ikastolan dena euskaraz ikasten zuten. Erabiltzen zituzten liburu batzuk, aritmetikako ariketak egiteko tresneria...

2.536. Batxilergo sartzeko akademia Bergaran (BER-349/005)

Ikastolan bi urtez ikasi ondoren, Mizpildi kaleko akademian batxilergoako sarrera prestatzen zuten ikasleek, gaztelaniaz. Irakasleak aipatzen ditu. Azterketa Donostian egiten zen eta, ondoren, batxilergoko ikasketak hasteko aukera zuten.

2.537. Jaunartzea egiteko doktrina euskaraz (BER-349/006)

Ikastolan zeuden bitartean, jaunartzea prestatzeko doktrina euskaraz jaso zuten. Garaiko euskarazko doktrinak nolakoak ziren kontatzen du Enekok. Don Pedro Garitanok ematen zuen doktrina. Gabonetan, Santa Agedetan... kantuan eta eskean ateratzen ziren.

2.538. Bergarako lehenengo ikastola: gelakideak (BER-349/007)

Ikastolatik antolatuta, ballet-a irakatsi zieten. "Salon Novedades"en dantzatu zuten behin. Ikastolan hamabi ikasle inguru ziren eta bi urteko ezberdintasuna zeukaten. Gelakideak aipatzen ditu. Andereñoa oso gozoa zela gogoratzen du.

2.539. Bergarako Ikastolaren sorrera (BER-349/008)

Zenbait gurasoren ekimen baten bidez sortu zen Bergaran Ikastola. Enekoren gurasoek ere parte-hartu zuten. Ikastola sortzeko, Bergarako elizak ekimenari legezko babesa eman zion. "Konbenixo" kaleko elizaren jabetzako lokal batean hasi ziren.

2.540. Gerra aurreko euskal ikasketak eta mugimendua (BER-349/010)

Enekok aitona-amonei eta gurasoei buruz hitz egiten du. Aitona Bizente 1931ko eta 1936ko hauteskundeetan zinegotzi izendatua izan zen. Amona Bittori Bergarako Emakume Abertzale Batzako kidea zen. Ikastolaren eta antzerki-taldearen sorreran parte hartu zuen. Enekoren aitak ez, baina amak Tolosako ikastolan ikasi zuen gerra aurretik.

2.541. Gerra aurretik ihesi; bueltan, Urretxura (BER-349/012)

Gerra aurretik Enekoren aitona zinegotzi jeltzalea izan zen eta, gerra hastean, ihes egin zuen Ipar Euskal Herrira. Aitonak oiha-fabrika bat zeukan bere anaiarekin eta militarrek hartu zuten gerrako produkzioarako. 1942an bueltatu

ziren, baina Urretxun bizitzen egon ziren nahiz eta egunero Bergarara lanera joan. Urte batzuk pasatuta, Bergarara bueltatu ziren.

2.542. Isuna ordaindu eta gerra ostean Bergarara buelta (BER-349/014)

Enekoren aitonari erantzukizun politikoen espedientea ("Expediente de Responsabilidades Políticas") zabaldu zioten. Isuna ordaindu eta gero, familia Bergarara bueltatu zen, herriko plazan zeukaten etxebizitzara.

2.543. Bergarako Uriburu Batzarra gerraostean; Eusko Langileak (BER-349/015)

1945ean, Bergarako abertzaleak berriz antolatzen hasi ziren eta Bergarako Uriburu Batzarra martxan jarri zen, "Kaxparrenian". Lehenengo bilera argi gabe egin zen, klandestinitatean mantentzeko. Eusko Langileak ere berriz martxan jarri ziren eta Eskola Elementalean biltzen ziren. Antolatu zituzten grebei buruz hitz egiten du Enekok. Aitak gerraostean ELAko sindikatuan hitzaldi bat eman zuen, euskara eta abertzaletasunari buruzkoa.

2.544. Bergarako gerraosteko mugimendu politikoak (BER-349/016)

Gerraostean Bergaran bi mugimendu politiko nagusi zeuden: abertzaleak eta karlistak-frankistak. Errepublikanoak ere bazeuden, baina oso gutxi. Herriko pertsona garrantzitsuenak (medikua, abokatuak, epailea...) erregimenekoak izaten ziren. Lantegiak zituztenen artean, etxean euskaraz egitea ez zen ohikoa, baina Enekoren aitaren etxean horrela hitz egiten zen.

2.545. Klandestinitatea; Euzko Naia eta Noel-Bakerren bisita (BER-349/017)

Klandestinitateari buruz hitz egiten du Enekok. Herri bakoitzak biltzeko modu ezberdinak zituen. Jeltzaleen Euzko Naia erakundeari buruz hitz egiten du. Francis Noel-Baker diputatu ingeles laboristaren bisita antolatu zuten. Bergarara iritsi zirenean, ingelesa nola agurtu zuten kontatzen du. Bisita horren helburua ingelesei abertzaleak ondo antolatuta zeudela erakustea izan zen.

2.546. Gerraostea: kultura, euskara, eliza... (BER-349/018)

Gerraostean kulturgintza eta euskara baztertuta geratu ziren. Abadeak bi bandotan zeuden: errepresaliatuak eta erregimenekoak. Bergaran sozialistak eta komunistak ez, baina abertzale jeltzaleak asko ziren.

2.547. Euskaltzaindia gerraostean (BER-349/019)

Euskaltzaindiak, 50. hamarkadan, berriz martxan jartzeko baimena lortu zuen, euskaltzaleak ziren erregimeneko pertsonekin: Antonio Arrue, Resurrecion Maria de Azkue... Poliki mugitzen ziren, hitzaldiak egiten.

2.548. Euskarazko aldizkariak gerraostean (BER-349/020)

Gerraostean erbestean argitaratzen ziren euskarazko aldizkariei buruz hitz egiten du Enekok: Euzko-Gogoa (Guatemala), Euzkalduna (Ipar Euskal Herria)... Euskalerrriaren Adiskideen Elkarateak Egan aldizkaria atera zuen. Euskarazko ekitaldiak edo artikulua oso gutxitan azaltzen zirenez eta jendeak ez zuenez haien berri, erregimenak baimendu egiten zituen.

2.549. Bertsolaritza 50eko hamarkadan (BER-349/021)

Gerraostean bazeuden bertsolariak, baina karlistak ziren. Basarri eta Uztapide, Langileen Batailoietako batean zeuden, bat preso eta bestea guardia eta beraien artean bertsotan ibiltzen ziren. Euskaltzaindia hasi zen bertso saioak antolatzen eta pixkanaka herrietara zabaltzen joan zen. Alfonso Irigoien gai-jartzailea eta epailea.

2.550. Euskal kulturgintza 50eko eta 60ko hamarkadetan (BER-349/022)

Euskal kulturgintza asko aldatu zen 50eko hamarkadatik 60kora: bertsolariak, abeslariak... 50eko hamarkada askoz ilunagoa izan zen. Ipar Euskal Herrira joaten ziren diskoak erostera. Han ikurrinak kalean ikusteaz harritzen ziren.

2.551. `Xabale´ren heriotza (BER-349/024)

Agustin Unzurrunzaga `Xabale´ bergararraren atxiloketa eta heriotza kontatzen du Enekok. Bergarako herriarentzat kolpe handia izan zen.

2.552. Haurrak ikastolara eramatearen inguruan zalantza (BER-349/025)

60ko hamarkadan, frankismoa nazioartera zabaltzen hasi zen (turismoan, ekonomian, prentsan...). Kulturgintza aldetik, Bergaran gauzak antolatzen hasi ziren, ikastola, besteak beste. Lorpen oso handia izan zen, nahiz eta familia askotan haurrak bertara ikastera eramatearen inguruan zalantzak izan.

2.553. Miguel Altuna, Eskola Elementaleko zuzendaria (BER-349/026)

Bergaran 50eko hamarkadan zeuden hezkuntza zentroak: eskola nazionalak, Elementala, dominikoak... Miguel Altuna, Eskola Elementaleko zuzendaria izan ze gerraostean. Eskola Elementala oso garrantzitsua izan zen euskararen bultzadan Bergaran. Enekok Batxilergoa herritik kanpo egin zuen, baina Bergaran ere bazegoen egiteko aukera.

2.554. Euskararen alfabetizaziorako gau-eskolak Bergaran (BER-349/027)

1964an Josu Oregi eta Txomin Amasorrain euskarazko gau-eskolak ematen hasi ziren Bergaran. Josuk literatura eta euskal kultura irakasten zituen eta Txominek gramatika. Orduan ez zegoen irakasteko euskarazko materialik. Enekoren aitak euskaraz topatzen zituen liburu guztiak erosten zituen. 50eko hamarkadan Euskaltzaindiarentzat egoitza egoki bat bilatzen ibili zela kontatzen du.

2.555. Aditz-taulen sorrera (BER-349/028)

Euskara irakasteko materialak sortzen hasi zen Enekoren aita. Aditz guztien formekin osatutako hiru koaderno bete zituen eta, ondoren, aditz-taulak sortu zituen. Horiekin ematen zituen klaseak.

2.556. Euskaljerriaren Adiskideen Elkartea (BER-349/029)

Begarako Eskola Elementalean ematen zituen euskarazko alfabetatze klaseak Enekoren aitak. Euskaljerriaren Adiskideen Elkarteko eta Irigoien Patronatuko kidea zen. Elkarteei buruz hitz egiten du Enekok. Egan aldizkariaren garrantzia.

2.557. Euskarazko argitalpenak 60ko hamarkadatik aurrera (BER-349/030)

60ko hamarkadan, argialetxe txiki batzuk euskarazko materialak argitaratzen hasi ziren. 50eko hamarkadan, `Orixe´ren `Euskaldunak´ eleberriaren sorta bat erosi eta banaketa-lanetan ibili zen. Erregimenak euskarazko liburu bakar batzuk argitaratzen uzten zuen.

2.558. "La Academia Errante" elkartea (BER-349/031)

Donostian, sozialistek "Academia Errante" elkartea sortu zuten eta urtean pare bat aldiz gai bati buruz hitz egiten zen: Kixote eta euskaldunak, Lope de Agirre, Azkoitiko zalduntxoak... 30-40 lagun inguru biltzen ziren eta, nahiz eta sozialistek antolatu, pentsaera politiko ezberdinetako jendea biltzen zen. Hitzaldiak gaztelaniaz izan arren, euskal kulturgintzaren parte ere bazen, euskal gaiak jorratzen zirelako. Elkarteko kide batzuk aipatzen ditu: Urkola doktorea, Busca Isusi, Jaka, Iñaki Zumalde, Imanol Laborde...

2.559. Bergarako Irigoien Patronatua (BER-349/032)

Begarako Irigoien Patronatua nola sortu zen kontatzen du Enekok. Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko babesak izan zuen. Patronatuak gauza asko antolatzen zituen Bergaran: euskal-dantzak, euskarazko narrazio lehiaketak... Bergaran euskal-kulturaren aldeko ekimenak egiteko patronatu bat zen.

2.560. Ikastolen sorreran laguntzaile (BER-349/034)

Begarako Ikastolaren sorreraren ondoren, Eibarko hainbat pertsonarekin bilerak egin zituzten, han ere Ikastola sortu nahi zutelako. Enekoren aitak Santo Tomas Lizeoaren sorreran ere lagundu zuen.

2.561. Ikastolen eta euskalgintzaren loraldia (BER-349/035)

Ikastolen inguruan, helburua bideak eraikitzea zela kontatzen du Enekok. 60ko hamarkadan, oraindik ere Franco luzerako egongo zela ohartuta, euskal kulturaren eta euskararen alde zerbait egin behar zela pentsatzen zutenen ekimena izan zen Ikastolen sorrera. 1968tik aurrera, ikastolen loraldia hasi zen eta euskarazko hitzaldiak antolatzen ziren.

2.562. Kultura aldaketa: 1968tik 1974ra (BER-349/036)

1968-1974 urteen artean kultura aldaketa handia eman zen: kantagintza berria, jaialdiak... Antzerkigintzan, kulturgintzan, kantagintzan... euskarak presentzia handiagoa izan zuen: Bergarako Urretxindorak, Kili-Kili komikia, Ernai antzerki-taldea...

2.563. Euskarazko Kili-Kili komikia (BER-349/037)

Kili-kili komikia eskola nazionaletan banatzen zen aldizkari bat zen. 60ko hamarkadan, eskola nazionaletan gerora ikastolara joango ziren haurrek ikasten zuten. Jose Antonio Retolazak argitaratzen zuen Bilbon komikia eta eskolan egiteko euskarazko ariketak. Ariketak jaso, zuzendu eta sariak ematen ziren.

2.564. "Txorizo eta Txistor" euskarazko komikia (BER-349/038)

"Txorizo eta Txistor" euskarazko komikiaz hitz egiten du Enekok. Beste komiki batzuk ere euskaratu zituzten, Tintin adibidez.

2.565. Elosuko ikerketa etnografikoa amak egin zuen (BER-349/039)

Enekoren amak Elosu auzoko lan etnografiko handi bat egin zuen Jose Migel Barandiaranek sorturiko galdetegian oinarrituta. Barandiaranek Etniker elkarte sortu zuen eta, metodo zientifikoa aplikatuz, galdetegi sakon bat sortu zuen. Herri askotan burutu ziren lan etnografikoak. Enekoren ama euskalgintzako eta kulturgintzako militante sutsua izan zen.

2.566. Euskara batuaren aditzaren batzordea (BER-349/041)

Enekoren aitak euskal literatura zaharreko liburuak aztertzen zituen eta artikuluak idazten zituen. Euskaltzain urgazle bezala, euskararen batasuneko lanetan parte hartu zuen, bereziki euskara batuaren aditzaren batzordean.

2.567. Euskaltzaindia eta euskararen batasuna (BER-349/043)

Enekoren aitak beti egin zuen euskararen batasunaren alde. Bere lagun batzuk ideiarenekin oso kontra zeuden. Tirabira eta eztabaida ezberdinak egon ziren: Hego eta Ipar Euskal Herriko urgazleen artean, gipuzkoar eta bizkaitarren artean...

2.568. Ikastola barruko eztabaidak: euskara batua eta konfesionaltasuna (BER-349/044)

Ikastoletan bi eztabaida nagusi egon dira: euskara batuaren edo euskalkiaren erabilera eta konfesionaltasuna.

2.569. Berrikuntza pedagogikoa, alfabetizazioa eta Rosa Sensat i Vila (BER-349/047)

Jose Leon Lasa Apalategik euskaraz irakasten laguntzeko ikastaro bat antolatu zuen Loiolan. Kataluniatik pedagogia berrikuntzan ari zen jende garrantzitsuak hartu zuen parte. Ikastaro horretan sortzen ari ziren edo sortuko ziren ikastoletako andereño askok parte hartu zuten. Enekoren amak ere parte hartu zuen. Rosa Sensat i Vila hezitzailea egon zen bertan irakasten; hari buruz hitz egiten du Enekok.

2.570. Bergarako hezkuntza-zentro ezberdinak gerra ostean (BER-349/051)

Gerraostean Bergaran zeuden hezkuntza zentro ezberdinez hitz egiten du Enekok: "Santa Infancia" ikastola, akademia... Proiektu pedagogiko berdina zuten, baina titulartasuna ezberdina.

2.571. Gurasoek bizimodua baserritik (BER-350/002)

Aitak "Altos Hornos" lantegiko sereno lana utzi zuen bera jaio zenean, eta handik aurrera baserritik bizi izan ziren. Ganadu apur bat eta soroak zituzten. Garia hartzen zuten bera umea zenean. Esnea saltzen zuten kalera; gerora kooperatiba sortu zen. Pixkanaka baratze lanetan murgildu ziren eta Arrasateko plazan saltzen zituzten elikagaiak.

2.572. Uberako eskolan gaztelaniaz (BER-350/003)

Uberako eskolan ibili zen 5-6 urterekin hasi eta 10 urtera arte. Nesken eta mutilen eskola zeuden. Hasieran maisu donostiar batekin ibili zen. Gero,

bolada batez neska-mutilak elkarrekin ibili ziren maistrarekin. Maisuak ez zekien euskaraz eta beraiek gaztelaniaz ere ez. Berak belarria pixka bat ohituta zuen behintzat, etxean irratia entzuten zutelako.

2.573. On Balbino abadea; Garizumako sermoiak (BER-350/004)

Doktrina euskaraz ematen zuten on Balbino abadearekin. Lege zaharrekoa zen, oso zorrotza, eta beldur handia sartzen zien infernuarekin eta bestelakoekin. Hilero konfesatu egin behar izaten ziren. Garizuman misioak egoten ziren eta kanpotik etortzen ziren sermolariak. Sermoiak herri handietan gaztelaniaz izan arren, auzo txikietan euskaraz izaten ziren.

2.574. Gaztelaniaren eragina umetan (BER-350/005)

Amandreak ez zekien gaztelaniaz, baina aitajauna moldatzen zen. Gurasoek ondo zekiten. Beraiek hasieran euskaraz egiten zuten, baina 8-9 urterekin gaztelaniaz ere asko egiten zuten, eskolan hala egiten zutelako eta irratia eraginez. Orduan baserrietan ere ohikoa zen anai-arreben artean gaztelaniarako joera. Euskarak ez zuen prestigiorik.

2.575. Bertsolariak eta lehenengo euskarazko irratsaioak (BER-350/006)

Gogoan du 5-6 urte zituela, Uberako San Paulo jaietan, bertsolariak ikusi zituela lehen aldiz: Jesus eta Martin, `Egileor´ anaiak. Geroago, `Basarri´k irratian egiten zuen "Nere bordatxotik" saioa entzuten zuten etxean eta kirol-apustuen edo Urtainen kontuen berri izaten zuten. Berak 9-10 urte zituela hasi ziren euskarazko gauzatxoak irratietan. Arrate Irratian lehenengo kantak euskaraz. Segura irratian gehiena gaztelaniaz izaten zen. Zuzendaria bergararra zen: on Cesareo Elgarresta. Loiola irratia. 1960tik aurrera hasi ziren euskal giroa pixkanaka.

2.576. Bere belaunaldiko askok euskaraz ez zuten ikasi, gurasoak euskaldunak izan arren (BER-350/007)

Pazkoetan eta San Martinetan gurasoekin joaten ziren oinez Bergarara. Gainontzean, gutxi. Gerora, 14-15 urterekin eskola partikularretara joaten zen eta orduan ezagutu zuen hango giroa. Adineko jendeak euskaraz egiten zuen, baina gazteek ez. Auzoetakoek bakarrik egiten zuten euskaraz eta "kaxeros" deitzen zieten. Bere belaunaldiko askok euskaraz ez zuten ikasi, nahiz eta gurasoak euskaldunak izan.

2.577. Saturrarango seminarioan, astean ordubeteko euskarazko eskolak (BER-350/008)

10-11 urterekin Saturrarango seminariora joan zen. Eskola guztiak gaztelaniaz ziren, baina astean ordubeteko euskarazko eskolak izaten zituzten. Bi talde egiten zituzten: euskaraz zekitenak eta ez zekitenak. On Anton Garro abade euskaltzalea. Gerra aurreko euskarazko liburuak zituen. Juan Mari Lekuona poeta ere irakasle izan zuten. Zortea izan zuela dio, gaztetatik izan zuelako kontaktua euskararekin eta horrek bidea eman zuelako liburu eta bestelakoen berri izateko.

2.578. 1965eko Bergarako Aberri Eguna eta ordura arteko ezjakintasuna (BER-350/009)

15 urtera arte ikurrina bat zer zen ere ez zekien. Aita karlista zen eta gai horiek tabua ziren etxean. 1965ean Bergaran egin zen Aberri egunarekin hasi zitzaion kontzientzia politikoa pizten. Garai horretan Xabier Azurmendi poeta zegoen abade Uberan eta gogoan du nola mezatan esan zuen Aberri eguna zela. Elizatik irtendakoan basotik behera jendea ikusi zuten, kaikuekin jantzita, Aberri Egunera joateko asmoan. Guardia zibilek kontrolak jarri zituzten bideetan. Orduko bizipenak.

2.579. Seminarioa, euskaltzaletzeko lekua (BER-350/010)

Seminarioan euskarazko liburuak irakurtzeko aukera izan zuen: Txillardegiren `Elsa Sheelen´, Txomin Agirrerren `Garoa´ eta `Kresala´... Seminarista batzuk euskaltzaleak ziren eta itzulpenak egiten zituzten. Euskaltzaletzeko lekua izan zela seminarioa uste du, bai beraiena, Donostiakoa eta baita Bilbokoa eta Arantzazukoa ere.

2.580. Euskara ikastaroetako langaiak: ortografia, deklinabidea, aditza eta autore klasikoak (BER-350/011)

Euskarazko autore klasikoak irakurri behar zituztela esaten zieten: Etxepare, Axular, Mogel, Añibarro, Larramendi, Agirre Asteasukoa... Euskarazko ikastaro guztietan lantzen zituzten arloak: ortografia, deklinabidea eta aditza. Ortografiarekin zegoen nahastea; ordura arteko hizkera aranista eta sortzen ari zen euskara batua. Aditzarekin ere nahaste handia zegoen, artean aditz baturik sortu gabe zegoen eta. Denbora gehien aditzarekin pasatzen zuten.

2.581. 1968an Durangoko Azokara (BER-350/012)

Gogoan du 1968 inguruan Durangoko azokara joan zirela. Orduan elizpean egiten zen. Lur eta Kriselu argitaletxeen mahaiak. Arantxa Urretabizkaia, Ibon Sarasola, Saizarbitoria, Xabier Gereño... zeuden liburuak saltzen. Diskoak ere bazeuden. Bilbo aldeko liburu-dendetakoak (Verdes eta beste). 6-7 mahai zeuden guztira.

2.582. 60. hamarkadako kultura-mugimendu garrantzitsua (BER-350/013)

60. hamarkada inportantea izan zen, kultura-mugimendu handia egon zelako: lehenengo argitaletxeen sorrera (Itxaropena, Lur...), lehenengo ikastolak... Musikan ere mugimendu handia egon zen (Ez dok Amairu eta beste) eta antzerkian ere bai.

2.583. Ernai antzerki taldea, Txomin Amasorrain eta Juste Amenabar (BER-350/014)

Bergarako Ernai antzerki taldearen antzezlanak ez zituen ikusi, bera garai horretan Donostiako seminarioan zegoelako. Taldeko zuzendari ziren Txomin Amasorrain eta Juste Amenabarren inguruan dituen oroitzapenak.

2.584. Seminariotik irten zeneko giroa (BER-350/016)

Bederatzi ikasturte egin zituen Seminarioan. 1965 ingurutik 1969ra sekulako beherakada izan zuten seminarioek eta abade egindako asko sekularizatu ere egin ziren. Bera 19 urterekin Seminariotik irten zeneko testuingurua: marxismoaren indarra, orduko giro politikoa (alderdi ugari)... Abade langileen

idea zegoenez, bi hilabetez igeltsero laguntzaile lanean jardun zuen eta, ondoren, Fagor lantegian egin zituen sei hilabete.

2.585. 20 urterekin idatzitako lehen artikulua: "Bizkaieradunen konplejoa" (BER-350/017)

20 urte ingururekin bere lehen artikulua idatzi zuen Anaitasuna aldizkarian: "Bizkaieradunen konplejoa".

2.586. Zeruko Argiako kroniken ardura nolatan hartu zuen (BER-350/018)

Garai batean Txomin Amasorrain izan zen Zeruko Argia aldizkariko Bergarako berri-emailea, baina gaixotu zenean utzi egin zuen. Eibarko berri-emailea `Amatiño´ zen eta "puntada" bota zien bergararrei esanez gutxienez gaztelaniazko egunkarietako 6 berri-emaile zeudela eta euskarazkorik ez. Orduan, Juan Martinek hartu zuen horren ardura eta kronikak idazten hasi zen.

2.587. Irigoien abokatuak euskara bultzatzeko utzitako dirua (BER-350/019)

1971ko martxotik abuztura bitartean Zeruko Argian idatzitako kroniken inguruko kontuak. Lehenengo kronikan aipatzen zuen Irigoien izeneko abokatu batek dirua utzi zuela euskara bultzatzeko. Harekin egindako bileretan euskarazko klaseak ematea erabaki zen eta eskola nazionaletan ere euskara irakastea jarri zen helburu moduan. Orduan egindako inkesta baten arabera, eskola nazionaleko 10 ikasletik seik ez zekiten euskaraz.

2.588. Eskola nazionalean euskarazko eskolak larunbat goizetan (BER-350/020)

1971n Zeruko Argian idatzi zituen kroniketan kontatzen zituen kontuak. Larunbat goizetan ohiko eskolak eman beharrean, eskolaz kanpokoak ematen hasi ziren, tartean euskarazko eskolak. Josu Oregi eta Miren Goñi ibili ziren hori antolatzen. Berak 1971n idatzitako kroniketako batean jartzen du 20 irakasle ari zirela eskola horiek ematen, ahal zuten moduan, eta emakumezkoak zirela.

2.589. 1971n Pantxoa eta Peio eta Kanta-berri lehiaketaren finala Bergaran (BER-350/023)

Zeruko Argiako kroniketan jasotako beste kontu bat: kantaldiak. Garai batean Euskal Herriko aretorik handienetakoa zegoen Bergaran: Irala. Kronikan jaso zuen 1500 eserlekuak bete egin zirela 1971ko jaialdian. Bergarako kantariez gain, Pantxoa eta Peio egon ziren, eta hegoaldean abesten zuten lehen aldia izan omen zen. Urte berean Kanta-berri lehiaketa antolatu zen Euskal Herri mailan eta finala Bergaran jokatu zen. Xabier Madinak irabazi zuen. Kantak gai aldetik arinak zirela eta aurrez iragaziren bat pasatuko zutela uste du.

2.590. Irakaskuntzako lehen lana Zarauzko ikastolan (BER-350/025)

Zarauzko ikastolan hasi zuen irakaskuntza-lana. Manolo Urbietaren bitartez hasi zela bertan uste du. Zarautz oso herri euskalduna zen Bergararekin alderatuta. Horrez gain, herrian prestigio handia zuen euskaltzale asko zegoen: Imanol Murua, Baxilio Bergara... Zarauzko ikastola indartsu zegoen ordurako. Irakasle asko zeuden, baina asko titulurik gabeak eta denek ere euskara maila baxua zuten. Hango irakasleei eskolak eman zizkien eta apunte batzuk ere prestatu zituzten.

2.591. Francoren heriotzaren berri, soldadu zegoela (BER-350/028)

1975-1976an soldadutza. Politikoki urte nahasiak izan ziren. Loiolako garita batean guardia egiten zegoela jakin zuen Franco hil zela. Pozik hartu zuen albistea.

2.592. 1976an Bergarako ikastolan eta UNEDen hasi zen (BER-350/029)

1976an soldadutzatik itzuli zenean, Bergarako ikastolan hasi zen lanean. Urte berean UNED sortu zen eta han ere hasi zen, lanaldi erdiz. Lehenengo urtean Filosofiako sailean egon zen. Jerardo Elortza arautu gabeko ekintzen arduraduna zen eta denetarik sartzan zen bertan. Bigarren urtean sortu zen Euskara Departamendua.

2.593. 1976-1977an alfabetatzeko gau-eskolak ematen Bergarako ikastolan (BER-350/030)

Belaunaldien arteko aldaketa (aurretik zeuden Josu Oregi, Txomin Amasorrain...) nolakoa izan zen. Beraiek aurrekoengandik baino gehiago edaten zuten Zeruko Argia, Anaitasuna, Jakin, ETArengatik inguruko panfletoak eta halakoetatik. Ordurako alfabetatzeko giroa hasia zegoen Rikardo Arregirekin eta hortik gau-eskolak hasi ziren (gerora AEK izango zena). Fermin Korkostegi zen arduraduna. Askotan alfabetatze ikastaroetan zebiltzanak irakasle ere izaten ziren aldi berean. Bergarako ikastolan ematen ziren gau-eskolak.

2.594. D eta B mailako euskara ikastaroen hasiera UNEDen (BER-350/031)

1977an UNEDen Euskara Departamendua sortu zenean, gau-eskolak utzi eta han hasi zen, D eta B mailako euskara klaseak ematen. Euskaltzaindiak 1970-1971 ingurutik zeuzkan zehaztuta bi maila horiek: D oinarrikoa eta B altutxoagoa. Azterketak egiten ziren, baina libreak, ez zegoen inolako ikastarorik prestatu ahal izateko. Orduan, Jerardo Elortzak bultzatuta, Euskaltzaindiarekin adostu zen ikastaroak ematea eta azterketak Bergaran egitea.

2.595. D eta B mailako klaseen eraginez Euskal Herri osoko jendea Bergaran (BER-350/032)

Donostian EUTGn eta Bilbon Labayrun ere hasi ziren D eta B mailako euskara klaseak ematen, baina Bergarakoa zen indartsuena. Pixkanaka Euskal Herri osoko jendea hasi zen etortzen eta mugimendu handia sortu zen herrian. Larunbatetan 600-700 lagun inguru batzen ziren. Urte batean sarrera-azterketak egin behar izan zituzten, jende gehiegi zegoelako.

2.596. Soziolinguistikako zikloak UNEDen (BER-350/034)

Begarako UNEDeko Euskara Departamendua erreferentzia izan zen. Gainera, zikloak ere antolatzen zituzten. Soziolinguistikakoak izan ziren garrantzitsuenak, gai hori pil-pilean zegoelako. Aracil eta Strubell katalanak eta bertako `Txepetx´, `Txillardegí´, Iñaki Larrañaga eta beste egon izan ziren.

2.597. Trantsizio garaian euskarazko itzulpenak egiteko eskaerak (BER-350/035)

1976-1980 inguruan artean ez zegoen euskaraz ziurtasun handiz idazten zekien jende asko eta, zerbait euskarara itzuli behar zenean, askotan UNEDeko Euskara Departamendura joaten zitzaien jendea eskean: Udaletik, alderdi politikoetatik... Bertsoak idazteko ere eskatzen zieten batzuetan.

2.598. Sarrionaindiak UNEDen eskolak ematen zituen atxilotu zuten sasoian (BER-350/038)

Bera UNEDeko Euskara Departamenduaren zuzendari zela, Sarrionaindiak klaseak ematen zituen UNEDen. Larunbat goizean ez zela agertu eta harrituta geratu ziren. Gero jakin zuten atxilotu egin zutela. Astebeteko gose-greba egin zuten, protesta moduan. Kartzelara bisitan joan izan zitzaizkion maiz eta haren poesia-liburu bat argitaratu zuten, ezkutuan kartzelatik aterata.

2.599. Euskal Herrian Euskaraz-en sorrera eta hasierako ekintzak Bergaran (BER-350/040)

Euskal Herrian Euskaraz taldearen sorrera 1979an. Donostialdean Txillardegik izan zuen pisu handia. Debagoiena garrantzitsua izan zen. Bergaran talde handia batu zen: Anaje Narbaiza, Iñaki Etxaniz, Jose Angel Mikeo, Josu Okina... Taldearen irudia Arrasateko taldeko Xabier Zubizarreta Txiron´ek sortu zuen. Ekintza bezala, Seminarioko horman panel bat jarri zuten eta bertan adierazten zuten herriko zer denda edo eragilek egiten zuen zerbait euskaraz, gaztelaniaz edo bietara. Gogoan du Nafarroako taldeko Sagrario Aleman atxilotu zutenean, EHEn irudiarekin "pintada"k egin zituztela.

2.600. Gramatika eta lexikoa lantzeko, EGA hegan´ liburuak (BER-350/042)

Bergarako UNEDen apunte asko prestatzen ziren eta fotokopia pila bat ibiltzen ziren hara eta hona. EGA sortu zenean, apunte horiek liburu batean biltzea erabaki zuten eta EGA hegan´ liburuak kaleratu zuten 1986an, gramatika eta ariketekin. Handik gutxira bigarren liburuki bat atera zuten lexikoa eta ariketekin. Askoren artean prestatutako liburuak ziren eta Juan Martin izan zen koordinatzailea. Elkar argitaletxeak atera zituen eta arrakasta handia izan zuten.

2.601. Bergarako euskera´ liburuak, herri-euskara jaso zuten lehena (BER-350/043)

UNEDek kaleratu zuen Bergarako euskera´ liburuaren inguruko azalpenak; B eta Sakontze mailan herriko euskararen inguruan egindako lanekin osatu zuten. Liburuaren atalak eta egileak. Herri-euskara jaso zuten lehen liburuak izan zen eta atzetik beste batzuk etorri ziren gero.

2.602. Etxean kantuan eta antzerkian (BER-351/002)

Etxean beti abestu eta antzeztu da. Amaren ahizpekin antzeztzen eta aitaren arrebeekin euskal kanta zaharrak abesten.

2.603. Magisteritzako ikasketa zaharkituak (BER-351/005)

Arantzazuri, magisteritza gustatzen zitzaion. Magisteritzako eskolari eta irakasleei buruz hitz egiten du. Dena gaztelaniaz zen eta euskara eta berarekin lotutako guztia gaizki ikusia zegoen irakasleriaren artean.

2.604. Ikasketa guztiak gazteleraz (BER-351/006)

Magisteritza bukatuta eta lanean hasi aurretik, Bergarako Don Serafinen-ekin euskaraz alfabetatu zen. Maria Lagundian, euskaraz hitz egiteagatik zigor gogorrak jartzen zizkien moja bat gogoratzen du.

2.605. Batxilergoan, "Sección Femenina"-ko ikasgaia (BER-351/007)

Donostian batxilergoa ikasten, Politika izeneko irakasgai bat zeukaten eta "Sección Femenina"-ko emakume batek ematen zituen klaseak. Ikurrina bat margotzeagatik egun batzuez kaleratuak izan ziren baina gurasoek ez zioten inoiz errietary egin.

2.606. Intxaurrendoko Gure Nahia ikastola (BER-351/009)

Ikasketak bukatuta, Arantzazuk zalantzak izan zituen oposaketak egin eta hezkuntza publikoan sartu edo ikastolan lan egin. Intxaurrendoko Gure Nahia ikastolan lanean hasi zen. Etxeazpi batean zegoen ikastola eta Arantzazu bertan emandako denboran, handitzen joan zen. Lan asko egin zuten gurasoek. Klandestinitatean nola lan egiten zuten azaltzen du.

2.607. Bere kabuz euskaraz alfabetatzen (BER-351/010)

Bergaran Don Serafinekin euskaraz nola alfabetatu ziren kontatzen du Arantzazuk. Zer ikasten zuten: aditzak, deklinabideak, idazkera...

2.608. Bergarako ikastolako lehenengo irakasleetako bat I (BER-351/011)

Garai hartan, euskaraz irakasteko gaitasuna zutenek erraztazun handia zuten ikastoletan lan egiteko. Arantzazu, 1973an hasi zen Bergarako ikastolan lanean. Ikastola nolakoa zen kontatzen du

2.609. Aranzadi Ikastolaren sorrera (BER-351/012)

Bergarako Aranzadi Ikastola nola sortu zen kontatzen du Arantzazuk. Euskaraz irakasten zuten bi eskola ezberdin elkartu eta Aranzadi Ikastola sortu zuten 1971an, "Colegio Santa Infancia" izen ofizialarekin. Dominikuen eskolan hasi zen ikastola martxan. Gaur egun, UNED-aren egoitza ere han dago.

2.610. Aranzadi Ikastola: irakasleak 1973an (BER-351/013)

Bergarako Ikastolan lanean hasi zenean berarekin batera zeuden beste irakasleak ekartzen ditu gogora: Izaskun, Pili, Karmentxu, Kontxita, Maria Victoria, Lide, Don Jose, Jazinto... Dominikoen errektore Fernando Etxeberria, ikastolako zuzendari izendatua izan zen. Mari Karmen Amasorrain eta Florita aipatzen ditu irakasleen artean baina, elkarrizketaren ostean argitu digunez, bi horiek hurrengo urtean hasi ziren ikastolan lanean.

2.611. Aranzadi Ikastolako hasierak: material pedagogikoa (BER-351/014)

Arantzazu ikastolan sartu zenean, 2.mailan irakasten hasi zen. Euskarazko materialik ez zegoen eta Fernando, ikastolako zuzendaria, Urretxura joaten zen hilabetean behin, euskarazko fitxekin. Hasieran ez zeukaten euskarazko libururik baina gero Saioka hasi zen argitaratzen. Xabiartxo liburua ez zegoen egokituta behar zutenerako.

2.612. Euskarazko alfabetatze ikastaroak irakasleentzat (BER-351/015)

Irakasleak formatzeko ikastaro guztietara joaten ziren Arantzazu eta gainerako ikastolako irakasleak. Aste Santu batzuetan, Loiolara joan ziren euskarazko ikastaro batera. Iruñean ere egin dituzte ikastaroak, beti oporretan. Kantu eta dantzen bidez ikasten zuten.

2.613. "Han urrun etxe poxpola" kantua (BER-351/020)

"Han urrun etxe poxpola" abestiaren zati bat kantatzen dute bien arten. Etxean ikasi zuten eta gero beraiek ikastolan ere irakatsi diete haur txikiei.

2.614. Bergarako ikastolako lehenengo irakasleetako bat II (BER-351/021)

Blanclak, Bergara Aranzadi ikastolan nola hasi zen kontatzen du. Batxilergoa bukatu gabe, 17 urte zituela, Ikastolatik deitu zioten bertan lan egin nahi zuen galdezka. Hiru urteko gelan hasi zen lanean. 41 ume zituen gelan. Magisteritzako ikasketarik ez zuenez, euskarazko alfabetatze ikastaroak egin zituen eta haurtzaindegiko-laguntzaile ikastaroa egin zuen Azpeitian eta azkenik magisteritza Eskoriatzan. 46 urte egon da Bergarako ikastolan lanean

2.615. Euskara ziurtagiriak 1975 inguruan I (BER-351/022)

Poliki-poliki, irakasle guztiak euskarako ziurtagiriak ateratzen joan ziren. Ziurtagiri eta ikastaro ezberdinei buruz hitz egiten dute: D maila, B maila... Euskara irakasleak: Xabier Kintana, Xabier Mendiguren, Patxi Altuna, Jose Ramon Etxebarria...

2.616. Ikastola denon proiektua zen (BER-351/023)

Ikastola, denon artean atera beharreko ekimena zela argi zeukaten. Denak oso inplikatuak zeuden: irakasleak, gurasoak, ikastolako zuzendaria...

2.617. Euskara ziurtagiriak eta ikastaroak (BER-351/024)

B mailako euskara ziurtagiria ateratzeko, urtebetez ikastaroetara joan ziren. Irakasleak: Ibon Sarasola, Alfonso Irigoien, Jerardo Elortza, Txilardegi... Formakuntza oso garrantzitsua zen Ikastolan. Bartzelonara joan ziren Rosa Sensat i Vilaren ikastaroetara.

2.618. Ikastolako haurtzaindegian sartzeko zerrendak (BER-351/025)

Ikastolak 1975an ofizialki legezkoak bihurtu ziren, Ikastolan lanean hasi zirenean zeuden gorabeherak kontatzen dituzte.

2.619. Hezkuntzako ikuskatzailea ikastolan (BER-351/026)

Behin Bergarako ikastolara hezkuntza-ikuskatzailea joan zenekoa kontatzen du Arantzazuk. Ikuskatzailea joaten zenean, aldaketa batzuk egiten ziren ikastolan.

2.620. Bergarako Santa Infancia eta ikastolako irakasleak (BER-351/027)

Ikasturte bukaeran aktak betetzen zituzten "Santa Infancia"-ren izenean. Horrela deitzen zen ofizialki Bergarako ikastola. Don Jose Amelibia prokuradorea zen eta ikasgai batzuk ematen zituen azkenengo mailetan.

2.621. Kopiagailu baten desagerpena eta irakasleak kuartelean (BER-351/028)

Behin ikastolako kopiagailua desagertu zen eta egun batzuetara Elosun agertu zen. Zuzendaria eta irakasle batzuk kuartelera eraman zituzten, zerbait prestatzen ari ote ziren argitzeko. Garai zailak ziren.

2.622. Bergarako ikastola Triple A-aren mehatxupean (BER-351/029)

Begarako ikastolako irakasleak Triple A (Alianza Apostolica Anticomunista) eskuindar taldearen mehatxupean egon ziren. Beldurrez egon ziren eta guraso batzuek etxera laguntzen zieten.

2.623. Garai gogorak ikastolarentzat (BER-351/030)

Francoren heriotzaren ondorengo urteak gatazka handikoak izan ziren eta beldurrez egon ziren. Behin guardia zibila agertu zen ikastolan eta guraso batek Arantzazuren gelan zegoen ikurrinaren marrazki bat erauzi zuen haiek ez ikusteko eta arazorik ez sortzeko.

2.624. Francoren heriotza ospatzen (BER-351/031)

Francoren heriotzaz nola jakin zuten gogoratzen zuten. Dotore jantzi eta nahiz eta dolu-eguna izan, ikastolara joan ziren eta han, xanpainarekin ospatu zuten. Beldurrez, baina pozez.

2.625. Ikurrinaren legalizazioa; Francoren heriotzaren ostean beldurrik ez (BER-351/032)

1977an, ikurrina legeztatu zen eta ikastolako haurrek, klasean egindako pankartak erakutsi zituzten herriko plazan. Francoren heriotzarekin gauza asko leuntzen joan ziren eta jende askok beldurragatik zuen maskara kendu zuela kontatzen du Blancak.

2.626. "Tximist" Everesteko euskal espedizioa (BER-351/033)

"Tximist" Everestera joan zen lehenengo euskal espedizioaz hitz egiten dute. Beraien lagun bat espedizioan joan zen. Ikastolan ere ospatu zuten.

2.627. Bergarako ikastolako irakasleak familia bat ziren (BER-351/034)

Oso giro polita zegoen Bergarako ikastolan irakasleen artean. Hilabetero, soldata kobratu eta gero, afaria egiten zuten denek. Familia bat bezala ziren. Xabier Azurmendiri buruz hitz egiten du Arantzazuk,

2.628. Bergarako ikastolako tabernak (BER-351/035)

Begarako ikastolak, taberna ezberdinak izan zituen herrian zehar. 1976an, ikastolarentzat dirua biltzeko ekimen garrantzitsuenetarikoa izan zen.

Tabernak martxan nola ipini ziren kontatzen du Blancak. Jendea oso prest agertu zen eta talde bat sortu zuten. Tabernen kokapena. Tabernan txandak egiten ziren. Plntxoak saltzen ziren.

2.629. Bergarako ikastolako jaialdiak (BER-351/036)

Ikastolarako diru-bilketak: zozketak, txosnak, jaialdiak, tabernak... Kontzertu handiak egiten zituzten. Slepy Labeef-ek kontzertua eman zuen eta bizkartzainak eskatu zituen. Arantzazu eta Blancaren senarrek egin zuten lan hori. Jaialdien aurretik, herriz-herrri ibiltzen ziren kartelak ipintzen.

2.630. Bergarako ikastola: Haurren eguna (BER-351/037)

Begarako ikastolako Haurren Eguna, dantza eskola eta ikastolaren arteko elkarlanetik sortu zen. Nola sortu zen kontatzen dute. Fernando Lasa zen guztiaren arduraduna. Beste herrietatik Bergara dantzara joaten ziren haurrek, herriko etxeetan bazkaltzen zuten.

2.631. Moises Azpiazu dantza irakaslea (BER-351/038)

Moises Azpiazu haur eta helduen euskal dantzen irakaslea izan zen. Beste irakasle batzuk ere aipatzen dituzte.

2.632. Santa Eskea Bergarako ikastolatik (BER-351/039)

Ikastolakoak hasi ziren Santa Eskean eta inauterietan ateratzen. Ondoren, herriko beste elkarteetara zabaldu zen.

2.633. Telesforo Monzon bisitatzera (BER-351/040)

Begara "Promocion Cultural"-arekin harremanak izan zituen Bergarako ikastolak. Eskolaz kanpoko tailerrak antolatzen hasi zirela kontatzen du Blancak. Telesforo Monzonengana joan ziren behin.

2.634. Txomin Amasorrain Bergarako Ikastolan laguntzen (BER-351/041)

Txomin Amasorrain-i buruz hitz egiten dute. Ikastolan asko lagundu zuen, itzulpenak egiten, kantik...

2.635. 1974an Hamabostaldi kulturala Bergaran (BER-351/044)

Xabier Azurmendirekin, Bergaran kultura bultzatzeko ekintzak egiten hasi ziren. 1974an, Hamabostaldi Kulturala izeneko ekimena antolatu zen. Dirua behar zutenez, enpresa guztietara idatzi zuten. Oteiza eta Basterretxearen ideia batzuk ere erabili zituzten. Jaialdiak, hitzaldiak, erakusketak... antolatu zituzten.

2.636. Jaialdiek zentsura pasatu behar zuten (BER-351/045)

Pi de la Serra, Mikel Laboa eta Artze Anaizen kontzertuak bertan behera utzi zituen guardia zibilak, jaialdiaren hasi baino piska bat lehenago. Jaialdiak antolatzen zirenean, zer abestuko zen bidali behar zitzaizkien zentsurakoei.

2.637. Euskarazko klaseak gurasoentzat Bergaran (BER-351/047)

1975ean, Arrasateko CIME-ren ("Centro de Idiomas Modernos") bitartez, Bergarako Elementalean euskarazko klaseak eman zituzten Arantzazuk eta

ikastolako beste irakasle batek. Ondoren, gau-eskolekin hasi ziren Bergarako ikastolan, baina ez ute gogoratzen nola sortu ziren, nahiz eta liskarrekin ibili ziren.

2.638. Bergarrako euskarazko gau-eskolak (BER-351/049)

Euskarazko gau-eskoletan gurasoei euskaraz irakasten zitzairen. Batzuei zerotik irakasten zitzairen baina beste batzuk alfabetatzera joaten ziren. Bai Blanca eta bai Arantzazu, irakasle lanetan ibili ziren. Arantzazu udaletxera joan zen behin gau-eskolentzat diru eske.

2.639. Bergarako gau-eskoletako irakasleak (BER-351/050)

Gau-eskoletan 15 bat irakaslek lan egiten zuten. Bakoitzak bere lana zeukan eta gauetan joaten ziren hara. AEK eta HABE sortu zirenean, gau-eskolak bukatu egin zirela diote baina, elkarriketaren ostean esan digutenez, AEK sortuta zegoen ordurako: dirudienez AEK-k bultzatu zituen gau-eskolak, nahiz eta beraiek modu autonomoan kudeatu.

2.640. Lehenengo testuliburuak euskaraz (BER-351/052)

Saioka liburuak izan ziren ikastoletan euskaraz erabili ziren lehenengo testuliburuak. Proiektuen bitartez lantzen ziren gaiak. Gaztelaniaz zeuden liburuak era moldatu eta itzultzen zituzten.

2.641. Haurreskolak Antzuolan, Elgetan, Osintxun... (BER-351/053)

Antzuolan hasieran haur-eskola bakarrik zegoen eta gero 1.maila egitera Bergarara joaten ziren. Elgetako haur-eskolari buruz ere hitz egiten dute. Pakita izeneko laguntzaile bat zegoen bertan. Osintxuko ikastolak hasieran Elgoibarkoarekin zeukan harreman gehiago baina gero Bergarara hurbildu ziren. Osintxuko ikastolako irakasleak: Karmele Gisasola, Jaione Isazelaia...

2.642. Aitonak eta aitak tailerrak zituzten (BER-352/002)

Mikelen aitonak zapata-tailer bat zuen. 1914. urtean 125 langile zituen eta urtean 70.000 zapata pare egiten zituzten. Gerraostean, tailerra itxi behar izan zuen aitonak. Mikelen aitak Lekarozen merkataritza-ikasketak egin zituen arren, mekanikako gaiak asko gustatzen zitzaizkion eta berak ere lantegi txiki bat zabaldu zuen 2-3 lagunekin eta iltzeak egiten zituzten.

2.643. Lazpiur lantegiaren historia (BER-352/003)

Mikelek, Eskola Profesionalean ikasi zuen. Ikasketak bukatu eta Eibarko eta Arrasateko lantegi batzuetan lan egin ondoren, bere tailerra zabaldu zuen. Bizikletarekin lantegiz-lantegi joaten zen eta haiek behar zituzten piezak egiten zituen gero Mikelek bere tailer txikian. Gaur egun, Lazpiur lantegiak 500 langile ditu ia.

2.644. Bergarako Goiz Argi dantza taldearen sorrera (BER-352/005)

Mikel, Goiz Argi dantza taldeko sortzaileetako bat izan zen 16-17 urterekin. Joaquin Etxanizekin harreman handia zeukan eta berarekin batera dantzak ikasten hasi ziren, Bergarako Berdura Plazako etxe batean. Gero, frontoian entseatzen hasi ziren, taldeari izena ipini zioten eta armarrria asmatu zuten.

2.645. Espainiako banderarekin dantza egitera behartuak (BER-352/006)

Goiz Argi dantza taldeak lehenengo aldiz dantza egin zuenean, Espainiako bandera erakutsi behar izan zuen, frankistek behartuta.

2.646. Bergarako Goiz Argi dantza taldearen lehenengo urteak (BER-352/007)

1958an sortu zuten Goiz Argi dantza taldea. Lehenengo urteetan zer dantzatzen zuten kontatzen du Mikelek. Moises Azpiazu taldera batu zenean dantza-txapelketekin hasi ziren.

2.647. Balentin de Berriotxoaren omenezko dantza (BER-352/008)

Elorriko herriak Balentin de Berriotxoaren jaiotzaren omenaldi bat egin nahi zuen eta Bergarako Goiz Argi taldekoak joan ziren dantzara. Dantza berezi bat sortu zuten omenaldirako. Joaquin eta Ramon Etxanizek musika sortu zuten eta gainontzekoek dantzak. "Circulo Carlistan"-n bazkaldu zuten

2.648. Bergarako Goiz Argin giro ederra; taldekideak (BER-352/009)

Goiz Argi taldean, pentsaera ideologiko ezberdineko jendea zegoen arren, denak zeuden Francoren diktadurarekin gogaituta eta ez zen liskarrik egoten beraien artean. Hasieran mutil talde bat zen, baina Moises Azpiazu trikitiarekin hasi zenean, neskak taldera biltzen hasi ziren. Taldekideak aipatzen ditu: Fernando Coranti, Jose Alberdi "Satorretxe", Patxi Leturia, Patxi Azkarate, Jose Luis Mendizabal, Jose Luis Gallastegi, Jose Ramon Lazkano, Jose Garitano, Ramon eta Joaquin Etxaniz... Gauetan entseatzen zuten. Lanagatik utzi behar izan zuen taldea Mikelek, 1964 urte inguruan.

2.649. 1933ko Bergarako batzokiko dantza-taldea (BER-352/010)

Mikelek, 1933an Batzokiko dantza-taldeko argazki bat azaltzen du.

2.650. Margotzeko afizio handia txikitatik (BER-352/011)

Margolaria ere bada Mikel. Nola hasi zen eta zer egin duen kontatzen du. Txikitatik izan du zaletasuna eta hasieran aitak ez bazuen nahi ere, klaseak hartzen hasi zen Simon Arrietarekin. Gero, Miguel Okinarekin ikasten jarraitu zuen 30 urtez eta gaur egun, baserrian estudio bat dauka Mikelek. u.

2.651. Simon Arrieta artista (BER-352/012)

Simon Arrieta izan zen Mikelen marrazkiko irakaslea. Nolakoa zen kontatzen du, Ava Gardner ezagutu zueneko, ilobak jaio zireneko istorioak... Oso pertsona ona zen.

2.652. Bergarako margolarien taldea (BER-352/013)

BeART Bergarako margolarien elkarte da. Garai batean ez zegoen elkarterik baina talde nahiko finko bat zuten eta erakusketak egiten zituzten kolektiboki. Artistetako batzuk aipatzen ditu Mikelek: Jose Javier Agirre, Agustin Amasorrain, Josu Ugalde, Mari Paz Alustiza...

2.653. Miguel Okina marrazkilaria (BER-352/014)

Mikel izena nondik datorkion kontatzen du eta horrela desberdintzen zituzten bera eta Miguel Okina. Azken honekin larunbatero joaten zen marraztera, ardo batzuk edaten zituzten eta kantuan bueltatzen ziren Bergarara.

2.654. Bergarako "Hor Konpon" taldea (BER-352/015)

Begarako "Hor Konpon" taldeari buruz hitz egiten du. Futbol taldea ere zuten eta kanta bat zeukaten. Olgetarako elkarte bat zen eta gauza askotan hartzen zuten parte. Kide zaharrenetariakoak aipatzen ditu: "Errentxeri", "Prakamotz", "Otxakila", "Karamelerua"....

2.655. Bergarako Ernai antzerki taldearen sorrera (BER-352/016)

Ernai antzerki taldean aritu zen Mikel. 1965ean hasierako taldea sortzen egon zirenak: Juste Amenabar, Don Imanol Sorondo Txomin Amasorrain, Joxe Alvarez, Don Serafin Esnaola...Lehenengo antzezlanana "Malentxo alargun!" izan zen. Santamaña elizako lokal batean hasi ziren entseatzen eta gero San Pedro elizako etxe batera pasatu ziren.

2.656. Gerra aurreko Bergarako batzokiko antzerki taldearekin argazkia (BER-352/017)

1934ko Bergarako batzokiko antzerki taldearen argazki bat erakusten du Mikelek eta bertan zeuden partaideetako batzuk aipatzen ditu, nahiz eta asko ez den gogoratzen. Mikelen aitak, gerra aurretik bakarriketak egiten zituen batzokian.

2.657. Ernai antzerki taldea: Juste Amenabar eta Txomin Amasorrain I (BER-352/018)

Ernai antzerki taldean, Juste Amenabarrek eta Txomin Amasorrainek zeukaten paperez hitz egiten du Mikelek. Txomin zuzendari artistikoa zen eta testuak euskaratzen zituen. Justek ordea, manager eta antolamendu lanak egiten zituen.

2.658. Ernai antzerki taldearen lehen antzezlanana (BER-352/019)

"Malentxo alargun!" izan zen lehenengo egin zuten antzezlanana. Antzezlanaren eskuorria erakusten da eta aktoreak izendatzen ditu: Mari Kontxi Aranguren, Itziartxo Amenabar, Mikel Lazpiur, Iñaki Arraiaran, Xabier Zezeaga, Arantxa Ibarzabal, Angelita Agirrebeña, Joaquin Bikuña, Ixabel Arregi eta Gotzon Bikuña. Bergarako "Salon Novedades"-en egin zen antzezlanana 1966an. Arrakasta handia izan zuten.

2.659. "Ordu eroslea" antzezlanana euskaraz 1968an (BER-352/020)

Espainiako "El comprador de horas" antzezlanana euskaratu eta antzeztu zuen Ernai antzerki taldeak. Antzezlanaren eskuorritik aktoreak irakurtzen ditu: Xabier Zezeaga, Iñaki eta Arantxa Ibarzabal, Pedro Epelde, Iñaki Arriaran, Marixabel Arregi, Agustín Unzununzaga, Alberto Bolibar, Xabier Muruamendiaraz, Rosa Mari Fernandez, Itziar Amenabar, Angelita Agirrebeña, Mari Kontxi Aranguren, Mertxe Elkoro-Berezibar, Marcos Gabilondo eta Arantxa Amasorrain.

2.660. Ernai antzerki taldea: Juste Amenabar eta Txomin Amasorrain II (BER-352/021)

Antzezlantarako arropak ahal zuten lekutik lortzen zituzten. Juste Amenabar nolakoa zen kontaktzen du Mikelek: oso jatorra, abertzale peto-pettoa, polita eta taldea bideratzeko zoragarria zela kontaktzen du. Txomin Amasorrain euskaltzale amorratua izan zen. Antzezlan ezberdinak euskaratu zituen: "Ordu eroslea", "Argi ixpia bat"... Bergarako Urrentxindorrek taldekoei ere kanten hitzak euskaratzen zizkien.

2.661. Txomin Amasorrainen kontakizun bat I (BER-352/022)

Txomin Amasorraini buruz hitz egiten du Mikelek. Ernai antzerki taldeko entseguetan, "Gainjantzi beltz" izena zuen Andaluziako pattar bat edaten zuten. "Zeruko Argia"-n kronika idazten zuen eta txisteak kontaktzen zituen. Txominen kontakizun bat kontaktzen du Mikelek.

2.662. Txomin Amasorrain, irakasle (BER-352/024)

Txomin Amasorrain Mikelek irakaslea ere izan zen. Matematika irakasten zion Elementaleko azkenengo ikasturtean. Denak aprobaten zituen, ikasleak etxean laguntzeko lanean hasi behar zirelako lehenbailehen.

2.663. "Malentxo Alargun!" antzezlana (BER-352/025)

"Malentxo Alargun!" antzezlaneko pertsonaiei buruz hitz egiten du Mikelek. Iñaki Arriaran soldaduskara joan zenean, Ormaiztegiko mutil batek ordezkatu zuen. Keinu asko egiten zituela eta oso barregarria zela kontaktzen du Mikelek. "La Unidad" falangisten Donostiako egunkariko sari bat irabazi zuten antzezlanarekin.

2.664. "Konbenixo" kaleko ikastola txikian entseatzen (BER-352/026)

"Konbenixo" kaleko elizako lokal batzuetan hasi zen Ernai antzerki-taldea entseatzen. Han, ikastola txiki bat zegoen eta haiei laguntzeko, antzerki taldekoek kuota bat ordaintzen zuten hilabetero.

2.665. "Itto edo ezkondu" antzezlana 1967an (BER-352/028)

Ernai antzerki taldearen bigarren antzezlana, Nemesio Etxanizek euskaratutako "Itto edo ezkondu" izan zen. Mikelek, Etxanizen olerki bat buruz esaten du. Obraren pertsonaiez eta istorioaz hitz egiten du.

2.666. "Ordu eroslea" eta "Argi ixpi bat" antzezlanak (BER-352/029)

"Ordu eroslea" obran, Mikelek sarjentuaren papera egin zuen. Prostituzioaz hitz egiten da antzezlanean. 1969an, Aldo Beneretti-ren "Argi ixpi bat" obra egin zuten Ernai antzerki taldekoek. Antzezlanaren eskuorria erakusten du Mikelek.

2.667. Ernai antzerki-taldearen desegitea (BER-352/030)

Ernai antzerki taldekoek, Moliere-ren "El avaro" obra prestatzen hasi ziren baina Txomin gaixotu egin zen eta taldea desegin egin zen. Giro politikoa ere nahasia zen eta liskar batzuk izan zituzten.

2.668. Ernai antzerki taldean, giro ederra (BER-352/031)

Mikelek, Ernai antzerki taldeko oroitzapen onak ditu. Antolatzaileak oso finak ziren lanean eta taldeko giroa oso ona zen. Zer ikasi zuen kontaktzen du: jendaurrean hitz egiten, lotsa kentzen...

2.669. Antzezlanak zentsura pasatzen (BER-352/034)

Obrak antzeztu aurretik, zentsura pasatu behar zuten. Antzezten zutenean, guardia zibilak beti inguruan egoten ziren. Zentsura nola pasatzen zen azaltzen du. "Malentxo Alargun!"-en testua liburuarekin ikasi zuten, baina gainerakoak makinaz idazten zituen Txominek eta aktoreeo banatu.

2.670. Bergarako Ernai antzerki taldeko argazkiak (BER-352/035)

Begarako Ernai antzerki taldeko argazkiak erakusten ditu Mikelek eta bakoitza nor den azaltzen du. "Malentxo Alargun!" antzezlanean ateratako argazkia erakusten du Mikelek.

2.671. Txomin Amasorrainen kontakizun bat II (BER-352/037)

Mikelek, Txomin Amasorrainen txisteetako bat kontaktzen du.

2.672. Bergarako Ernai antzerki taldeko intsignia (BER-352/038)

Ernai antzerki taldeak entseatzen zuen lekuetan intsignia bat zintzilikatuta izaten zuten. Simon Arrietak margotutakoa zen.

2.673. Haurren antzerki taldea Bergarako batzokian (BER-352/039)

Juste Amenabarrek 80. hamarkadan haurrentzako antzerki-talde bat sortu zuen. Bergarako batzokian biltzen ziren. Argazkiak erakusten ditu Mikelek. Bere alaba taldean ibili zen.

2.674. Lantegietatik eskolara langile bila (BER-353/004)

Hamahiru urterekin eskolatik lanarekin irten zen. "Confeciones Vascas" lantegian biltegian aritzen zen lanean. Kontabilitatea ikasi zuen pixka bat.

2.675. Hamalau urterekin, antzerki taldeko gazteenak (BER-353/006)

Antzerki taldeko gazteena izan zen; hasieratik egon zen. "Malentxo alargun" egin zutenean, hamabost urte zituen.

2.676. Antzerkiko entseguak, non eta nola (BER-353/007)

Entseguak Zubittan egiten zituzten eta gero Komenio kaleko 3. pisuan. Zuzendariak Juste eta Txomin ziren; bakoitzaren zeregina azaltzen du. Lehenengo mahai inguruan elkarrekin irakurtzen zuten gidoia, gero interpretazioa lantzen zuten eta azkenik eszenaratzea.

2.677. Antzerkiko entseguen ostean, tabernara (BER-353/008)

Astean hiru egunetan egiten zituzten entseguak, iluntzean. Irtendakoan, Lorelei tabernan zerbait hartzen zuten.

2.678. Imanol eta Serafin apaizak, antzerkian laguntzaile (BER-353/009)

Imanol Sorondo eta Serafin apaizak aipatzen ditu. Serafinek ateratzen zituen antzerki saioetako argazkiak; obra batekoak falta zaizkie.

2.679. Joxe Alvarez antzerkiko muntaketa eta atontze lanetan (BER-353/010)

Joxe Alvarezek oholtzako panelak eta beste egiten zituen, eta muntaia ere berak egiten zuen.

2.680. Kanta barregarria (BER-353/011)

Joxe Alvarezek erakutsitako kanta barregarri bat errezitatzen du.

2.681. Antzerki taldeko kide batzuk (BER-353/012)

Antzerki taldean hogeit hamar inguru izaten ziren. Pedro Epelde diruzaina zen eta Alberto Bolibar idazkaria zen. Gobernu zibilera Justek eskatzen zituela baimenak uste du.

2.682. Txomin Amasorrain zelakoa zen (BER-353/013)

Txomin Amasorrainen akordu oso ona dauka. Azkarra, zorrotza eta integrala zela dio, jende gaztearekin moldatzen zekiena.

2.683. Antzerki taldeko Justeri buruz (BER-353/015)

Juste oso emakume alaia eta ona zela dio. Oso modernoa zen eta arropa denda zeukan, Amenabar izenekoa. Jantzien arduraduna bera zen antzerki taldean.

2.684. "Malentxo alargun" antzezlanaz (BER-353/016)

Lehenengo antzezlanaz 1965 inguruan egin zuten, "Malentxo Alargun" izenekoa. Antzezlanaren istorioa kontatzen du. Argazkia erakusten du.

2.685. Antzerki taldearekin herririk herri (BER-353/017)

Oñatira asko joaten ziren; han ere bazegoen antzerki taldea. Soraluzera, Tolosara, Elgoibarrera, Goizuetara, Donostiara... joan ziren.

2.686. Goizuetako antzerki emanaldiko argazkiak (BER-353/019)

Autobusa agertzen den argazkia, Juste agertzen dena eta Txomin agertzen dena erakusten ditu. Goizuetan ateratakoak direla dio.

2.687. "Ito edo ezkondu" antzezlanaz (BER-353/020)

1967an "Argi izpi bat" antzezlanaz egin zutela uste du. "Ito edo ezkondu" obraren istorioa kontatzen du.

2.688. "Ordu eroslea" antzezlanari buruz (BER-353/021)

1968an "Ordu eroslea" izeneko antzezlanana egin zuten. Zeri buruzkoa zen azaltzen du.

2.689. Antzerkirako apainketak: jantziak, makillajea, ile-apainketa (BER-353/022)

Antzerkian erabiltzen zituen jantziak deskribatzen ditu. Gona motzak ere erabiltzen zituztela dio. Angelitaren etxera joan eta kolorea ematen zuten gorputzeko hainbat ataletan. Bernetan ura txikoriarekin ematen zuten; gainontzean, beltzarantzeko krema ematen zuten. Ile-apaindegira joaten zen obra batzuetarako.

2.690. "Argi izpi bat" antzezlanari buruz (BER-353/024)

1969an "Argi izpi bat" obra antzeztu zuten. Zeri buruzkoa zen azaltzen du. Argazkiak erakusten ditu.

2.691. "Asentxitxo" gaitzizena (BER-353/025)

"Asentxitxo" izenarekin aritu zen "Ito ala ezkondu" antzezlanean. Argazkiak erakusten ditu. Gaitzizen hori geratu zitzaion Mikel taldekidearentzat.

2.692. Antzerki taldearen bukaera (BER-353/026)

Lau obra eman zituzten eta bosgarrena prestatzen ari zirela, antzerki taldearen jarduna eten egin zen.

2.693. Antzerki emanaldietako anekdota pare (BER-353/030)

Soraluzen "Ito ala ezkondu" obra eman zuteneko anekdota kontatzen du. "Ordu eroslea" antzezlanana ikusteko hemezortzi urte behar ziren eta berak ez zituen.

2.694. Antzerkiari lotuta jasotako sariak (BER-353/031)

"La Unidad" egunkariak saria eman zien antzerki taldeari. Juan Luis Bikuñari amateur mailako aktore onenaren saria eman zioten.

2.695. Lehenengo ikastola (BER-353/032)

Bere ustez ikastola moduan, lehenengo Lasa Hotelekoa izan zela dio, Komenio kalera gero pasatu zela. Mari Karmen Ziardegi izan zen hasierako irakasleetako bat.

2.696. San Pedroko arkupeetako jaiotza (BER-353/036)

San Pedroko arkupeetan jaiotza egin zuten eta han parte hartu zuen. Juste eta Don Serafin tartean zeudela dio. Parte hartzaileak izendatzen ditu. Xabier Azurmendiren bertsoak kantatu zituzten eta ofrendak egin.

2.697. Kuadrilla lehiaketan irabazle (BER-353/037)

1968 inguruko argazkiak erakusten ditu, Pazko Hirugarrenean egiten zen kuadrillen lehiaketakoak. Dantzak eta kantak aurkeztu zituzten eta lehenengo saria lortu zuten.

2.698. Dantzan egiten etxean ikasi zuen (BER-353/038)

Akordua dauka bazkalostean mahaitik jaiki eta dantzan aritzen zirela etxean.

2.699. Antzezlanaren aurretik, makillajea eta ardo zuria (BER-353/039)

Antzerki taldean makillajeaz arduratzen zirenak Juste, Rosa Mari eta Mertxe Elkoroberezibar eta Maria Jesus Beitia izaten ziren. "Blanco Diamante" izeneko ardo zuria edaten zuten oholtzara igo aurretik.

2.700. Antzerkiaz gain, kantuan eta desfilatzen (BER-353/044)

Ospitaleko abesbatzan aritu zen, antzerkian jardun zuen sasoian. Ariznoa dantzalekuan moda desfilea antolatu zuten diru-bilketa baterako eta bertan parte hartu zuen.

2.701. Euskaraz idazten trebatzen (BER-353/048)

Euskara etxean ikasitakoa du. Idazten orain trebatu da, mezuak bidaltzen. Bere gazte garaian euskara asko galdu zen.

2.702. Bergaran egiten ziren euskarazko kontzertuak ikustera (BER-353/050)

Antzerki taldeko kideetako bat, Gotzon Bikuña, Urretxindorrek taldekoa zen. Bergaran antolatzen ziren euskarazko kontzertuak ikusi zituen. Lurdes Iriondoren indarra nabarmendu du.

2.703. Aitaren poza ikurrina ikusita (BER-353/052)

Pol-pol mendi taldeko bazkide betidanik izan da. San Migeldik Zurrara lehenengotariko ikurrina eseki zuten. Aita leihora irteten zen hura ikustera. Aita kartzelan egondakoa zen. Bilbon idiekin ibili zen lanean aita. San Antonioko harrobian garraiolari jarduten zuen idiekin eta gurdiaekin.

2.704. Familia abertzalea, ihesi eta kartzelan (BER-353/053)

Familia abertzalea zen. Aitaren izena eman zutelako eraman zuten kartzelara. Aitaren arrebak Bilbora joan ziren gerra garaian eta han inguruan geratu ziren bizitzen.

2.705. Aitaren familia abertzalea, erbestera (BER-354/004)

Aitona Bizente bergararra zen eta amama Urretxukoa. Plazan bizi ziren; erbestean zazpi urte egin zituzten, gerraren eraginez. Aitona EAJko zinegotzi izan zen eta amama Emakume Batzakoa.

2.706. Gerra aurreko Ariznoa ikastola eta Maria Txantxote irakaslea (BER-354/005)

Ariznoa eusko ikastola orain batzokia dagoen lekuan jarri zuten (gerra aurrean). Argazki batzuk aipatzen ditu. Maria Txantxote zen irakaslea; gerrarengatik, Belgikan egon zen umeekin. Bi urtez desterratuta egon zen eta lanik egin ezinda.

2.707. Gerratik ihesi, Donibaneraino (BER-354/006)

Gerra hasi eta hurrengo egunean, aitona-amamak eta haien seme-alabak herritik joan ziren. Elgetan, Mundakan, Zallan... ibili ziren. Amama, izeba eta lehengusina bat Habana barkuan joan ziren. Aitona eta aita hegazkinez joan ziren. Donibanen bizi izan ziren urte luzez.

2.708. Ama Iparraldera, osabari bisita egitera (BER-354/007)

Donibanen zeudela, ez zeukaten lanerako baimenik. Gazteak dantzan aritzen ziren gehien bat. Amak osaba bat zeukan, Eusko Abertzale batzako zuzendaria, eta erbestean zegoen. Ama hiru aldiz joan zitzaion bisitan. Familia ezagun asko zeuden.

2.709. Bartzelonatik buelta, etxera (BER-354/008)

Aitona-amamak seme-alabak hartuta Bartzelonara joan ziren, bigarren mundu gerra hasi zenean; handik Urretxura.

2.710. Aita-amek elkar ezagutu zutenekoa (BER-354/009)

Aita-amek elkar ezagutu zutenekoa kontatzen du. Berehala ezkondu ziren.

2.711. Radio Paris eta aldizkariak ezkutuan (BER-354/010)

Etxean Paris irratia entzuten zuten, isil-isilik. Aldizkariak jasotzen zituzten. Dena ezkutuan izaten zen. Ama iparraldera sarri joaten zen. Aitak euskaraz argitaratzen zen guztia erosten zuen.

2.712. Ikastolan egin zituen lehen urteak (BER-354/011)

Anaia eta biak Bidekurutzetako ikastolan ibili ziren. Haur hezkuntzatik lehenengo mailara pasatzeko, ate berde bat igaro behar zen. Han Lide eta Maria Biktoría andereñoak egoten ziren. Bigarren maila akademian egin zuen eta hirugarrenetik aurrera Seminarixoan.

2.713. Ikastolan, hasieran, gaztelerazko klaseak (BER-354/012)

60. hamarkadan sortutako ikastola Santa Infancia zela kontatzen du. Lehenengo mailatik aurrerako paperak Jose Amilibiak sinatzen zituen; ez zekien euskaraz. Lehenengo mailatik aurrera dena gazteleraz ikasten zutela kontatzen du. Euskaraz ikasgai bat izaten zuten. Ikastolako lehenengo ikasleak bera baino bi urte zaharragoak ziren. Gazteagoekin hasi ziren euskaraz.

2.714. Ikastola Seminarixora (BER-354/013)

Koldo Eleizalde haurreskolan ibili zirenak bera baino gazteagoak zirela dio. Seminarixora joan zirenean, haurreskola biak batu ziren. Andereño Kontxitari buruzkoak kontatzen ditu.

2.715. Ikastola Seminarixora, dominikoen mesedetan (BER-354/014)

"San Jose obrero" ikastetxea itxi zutenean, dominikoen han geratzeko ezinbesteko zuten eskola bat martxan egotea. Ikastolakoak horregatik hasi ziren han, bi aldeei komeni zitzaielako.

2.716. Eibartik ikastolara aholku eske (BER-354/016)

Ikastolako Aranzadiko txostenak agertu zaizkio etxean. Eibartik aholku eske etorri zirenekoa kontaktzen du.

2.717. Ikastolan, hasieran, familia gutxi (BER-354/017)

Bere ondorengo belaunaldiak ikasle asko izan ziren ikastolan, baina beraiek eta aurrekoak oso gutxi ziren. Oso guraso gutxi ziren, beraz.

2.718. Beste ikastetxe batzuetako umeei euskaraz erakusten (BER-354/018)

Bere amak eta martxan jarri zuten beste ikastetxeetako umeak euskaldundu eta alfabetatzea. 1972 inguruan hasiko zirela uste du. Amak zerrendak egin zituen eta gorde egin ditu.

2.719. "Kili-kili" ariketa liburuxka euskaraz trebatzeko (BER-354/019)

"Kili-kili" ariketa liburuxkak banatu egiten zituzten; bizkaieraz ziren. Sariketa bat ere egoten zen, eta irteera izaten zen saria.

2.720. Doktrina eta jaunartzea euskaraz (BER-354/020)

Doktrina Santamañan euskaraz ematen zuten. Euskarazko eta gaztelarazko jaunartzeak banatuta egiten zirela uste du. Bere ama Miren Goñi eta Pilare Mujika katekista izan ziren. Pragako haurtxoaren kongregaziokoak izan ziren bere anai-arrebak. Kantaren zati bat abesten du.

2.721. Alfabetatze klaseak (BER-354/021)

Bere aita Josu Oregik eta Txomin Amasorrainek alfabetatze klaseak ematen zituzten. Roman Juaristi ere irakaslea zen. Astean bitan eta iluntzean ematen zituzten klaseak. Amenabar dendan eta Lonbiderenean ematen zen izena.

2.722. Irigoien patronatuaz (BER-354/023)

Vascongada 1945ean sortu zuten eta haren babesera, beste elkarte batzuk sortu ziren, tartean Irigoien patronatua. Juntakideak izendatzen ditu. Euskaraz alfabetatzeko klaseak, hitzaldiak, aste kulturalak eta abar bultzatzen zituzten patronatutik.

2.723. Don Miguel Altunaz (BER-354/024)

Don Miguel Altuna Andoaingoa zen. Bere amak Andoaindik ezagutzen zuen eta aitak, klaseak ematen zituenez maisutza eskolan, handik ezagutzen zuen. Gerra sortu zenean, apaiztegian zegoen eta ondoren desterruan egon zen Don Miguel. Elementala eta maisutza eskola izan ziren bere proiektu nagusiak. Elementalean batzarrak egiten zituzten, Manolo atezainak atea irekita.

2.724. Aita-amak, euskaltzaleak eta abertzaleak (BER-354/025)

Elementalean eskolak eman zituen bere aitak, Miguel Altunak eskatuta. Aitak klaseak euskaraz ematen zituela kontaktzen du. Aita eta ama oso militanteak zirela dio. Abertzaleak eta euskal kultura eta hizkuntza bultzatzearen aldekoak zirela kontaktzen du.

2.725. "Bergarako Kultur Ekintza" (BER-354/026)

Hezkuntza eta osasuna gai garrantzitsuak ziren 70eko hamarkadan. "Bergarako Kultur Ekintza" sortu zuten kideak izendatzen ditu. Lan asko egin zutela kontatzen du: anbulantzia lortu, San Miguel patronatua jarri zuten Down sindromedunentzat, institutua lortu, jangelak, eskolarako autobusak... Kultur arloan ere gauza asko jarri zituzten martxan: eskulanak, antzerki saioak, aisialdia, San Martinetako azoka...

2.726. Oihal eta jantzi erakusketa (BER-354/033)

Oihal eta jantzi erakusketa antolatu zuen Miren Goñik, bere amak. Elosuko etnografiako lana egin zuen eta konturatu zen aspaldiko oihalak gordeta zituztela baserrietan. Balioa eman nahi izan zien.

2.727. Miren Goñi, ama, etnografian murgilduta (BER-354/034)

Amak, Miren Goñik, urteak egin zituen azterketa etnografikoak egiten. Aita lotsati samarra zen, baina ama oso irekia. Joxe Miel Barandiaranekin bazeukan amak harremana, baita haren iloba Pilarrekin ere. Etniker taldeko kide izan zen Miren eta Eusko Ikaskuntzako etnografia saileko lehendakari. Izeba Karmele Goñik Zeraingo azterketa etnografikoa egin zuen.

2.728. Kasetean grabatu, transkribatu eta argazkiak egin (BER-354/035)

Amak kasetean grabatzen zituen elkarrizketak eta ondoren transkribatu. Argazki asko ateratzen zituen.

2.729. "Euskaldunen herria" dokumentalaz (BER-354/038)

Suediako telebistarako dokumentalak egiten ari zirenean, Bergarara etorri ziren eta bere aitak, Josu Oregik, egin zien harrera. Bergaran zer grabatu zuten kontatzen du. "Euskaldunen herria" zeukan izena dokumentalak.

2.730. Aita ipuin-lehiaketetan epaimahaian (BER-354/042)

Aita ipuin-lehiaketa bateko epaimahaian egon zen. Coca-colak ere antolatzen zuen sariketa bat, eta euskarazko edizioetan aitak epai-mahaian parte hartzen zuen.

2.731. Aita eta Simon Arrieta (BER-354/043)

Aitak Simon Arrietarekin harreman handia zeukan. Simon Arrietaren lehenengo erakusketa Elementalean egin zuen eta orduko argazki batean aita agertzen dela kontatzen du.

2.732. Labegaraietako etxean jaio zen (BER-355/002)

Labegaraietako lehenengo etxeetan jaio zen, etxean bertan. Aitak labegaraietan lan egiten zuen. Mikaela ibiltzen zen erditzeetan laguntzen.

2.733. Eusebio aitajauna "Cerrajera"ko arduradun (BER-355/003)

Aitaren aldeko aitajauna Eusebio arrasatearra zen eta "Cerrajera"n lan egiten zuen, arduradun. Bergarako lantegia zabaldu zutenean, 1912an bertara etorri zen lanera, eta familia Bergarara etorri zen bizitzera. Familiakoek "Cerrajera"n lan egin zuten.

2.734. Aitonak eta amonak antzerkia eginez ezagutu zuten elkar (BER-355/004)

Amaren aldekoak Linazisorotarrak dira. Aitona zumaiarra zen eta Argentinara joan zen mutikotan lanera. Dirutza egin arren, bueltatzea erabaki zuen. Gaixorik etorri zen. Kanta asko ezagutzen zituen eta antzerkia egiten zuen. Amona Nikolasa Lazpiur bergararra zen eta antzerkia egiten zuen, Batzokiko emakumeen taldean. Antzerkia eginez ezagutu zuten elkar aitona-amonek.

2.735. Jose Lazpiur oinetako enpresa (BER-355/005)

Aitonak larruarekin tratatzen ikasi zuen Argentinan. Lortu zuen gerra aurretik Jose Lazpiur oinetako enpresa muntatzea aitagarrebarekin.

2.736. Gerrarengatik aitona Agustin ihesi, ezkutuan eta epaitua (BER-355/006)

Aitona Agustin Linazisoro gerrako komiteko kide izan zen; ordurako Batzokiko lehendakaria ere bazen. Sei seme-alaba zituen tropak Bergarara iritsi zirenean, eta Bilbora alde egin zuen. Baina handik etxera etorri eta ezkutuan bizi izan zen bolada batez. Bizitza normala egiten hasi zenean, atxilotu, epaitu eta libre geratzea lortu zuen. Murua y Balzola kondeak salatu zuen. Lantegia suntsituta, iltzeak egiteari ekin zioten.

2.737. Aitona Agustin Bergarako batzokian (BER-355/008)

1899an jaio zen aitona eta 1921 inguruan heldu zen Bergarara. Telesfororen idazkari lanak egin zituen. Hotel Lasaren parean zegoen batzokia. Hango lehendakari izan zen. Antzerki asko egiten ziren orduan batzokian; izendatu egiten ditu.

2.738. 1933an Bergarako lehen ikastola sortu zenekoa (BER-355/009)

1933an Bergarako lehenengo ikastola ireki zuten, batzokiaren ondoan. Aitona Agustin Linazisoro eta Telesforo Monzon izan ziren sorreran dirua jarri zutenak. Tropak sartu zirenean, erabat apurtuta geratu zen.

2.739. Batxilergorako akademia eta haurtzaindegia batu zirenekoa (BER-355/010)

Batzilergoa ikasten ari zirenentzako akademia zegoen lehen ikastola egondako lekuan. Maria Victoria Arizmendi eta Lide Mujika (Oregi diote, baina Mujika da) zeuden akademian irakasle. Haurtzaindegiko buru Jose Amilibia zen, epailea zen. Akademia eta haurtzaindegia batu egin ziren. Dominikoek ikastolak lokala lortzeko bitartekaritza egin zuten.

2.740. Amaren aldeko familia oso kulturzalea (BER-355/013)

Amona Nikolasaren amak taberna zeukan eta hamar seme-alaba. Nikolasak bizi osoan idatzi izan zuen eta oso ondo abesten zuela dio. Aitona Agustinek pianoa jotzen zuen. Bere izeba-osabek oso ondo abestu izan dutela dio. Kultura arloan mugitu izan dira amaren familiakoak. Ama, Miren, dantzari ona eta aurkezle lanetan aritzen zela kontatzen du.

2.741. Gerra hasi zenean, sakristaua hil zuten (BER-355/015)

Tropa nazionalak sartu zirenean, ikastolako liburuak-eta erre egin zituzten. Sakristaua zena hil egin zuten errepublikanoek. Ondarretako kartzelan egon zen Julian "Beltza", hilketa harengatik errudun jo zutena; azkenera arte ukatu zuen bera izan zenik.

2.742. 1932an sozialistek Aranburu hil zutenekoa (BER-355/017)

1932an ere Eibarko sozialista batzuek hitzaldia eman zuten Bergaran eta Pedro Aranbururen aita hil egin zuten. Bere aitajaun Eusebiok beldur handia pasatzen zuen. Ezkutatzen zenik ere bazen.

2.743. Txomin Amasorrain gerra garaian etxean (BER-355/018)

Aitajauna Bergarako "Cerrajera"ko buru nagusia zen, tropak iritsi zirenean, eta haren seme Txomin Amasorrain etxean geratu zen. Mendigoizaleekin asko irteten zen. "Cerrajera" militarizatu egin zuten eta bonba asko egin zituzten gerrarako. 1941ean ezkondu zen eta lanean hasi zen berriz, txapan.

2.744. Txomin Amasorrain eta Joxu Oregi (BER-355/019)

Txomin Amasorrainek batxilergoa egin zuen eta azken hiru urteak Frantzian ikasi zituen. Literatura zalea zen. Joxu Oregik ere antzeko bidea egin zuen. Gerratea sortu zenean, familiak Iparraldera alde egin zuen; handik Joxu Belgikako Liex herrira bidali zuten, eta han ingenieritza ikasketak egin zituen. Handik etorrita, fisika eta kimikako klaseak eman zituen. Txomin eta Joxu, biak, oso euskaltzaleak ziren.

2.745. Txomin eta haren anaiak elementaleko irakasle (BER-355/020)

1944an elementala eskola martxan jarri zen. "Cerrajera"k garrantzia handia izan zuen hortan. Don Jose Maria Agirre izan zen zuzendaria hasieran, "Cerrajera"ko gerentea zena. Txominek matematika irakasten zuen, bere anaia Gilbertok kimika eta aitak, Emiliok, teknologia. Hiruen ikasketak aipatzen ditu.

2.746. Zeruko Argia eta Anaitasuna aldizkariak (BER-355/022)

Zeruko Argiako harpidedun egin zen gaztetan. Bilboko Anaitasuna aldizkariarekin batera, oso osagai garrantzitsua izan zen, euskara lantzeko eta gai interesgarrien berri izateko.

2.747. Euskaltzaindiakoekin alfabetatzen (BER-355/023)

1967an ingenieritza ikasketak egitera joan zen Donostiara. 1971n Zizur Nagusira joan zen Euskaltzaindiakoekin alfabetatze klaseak jasotzera. Irakasleak aipatzen ditu. Bergarrez egiten zuenean, Donostian ez zioten ulertzen.

2.748. Ez dok amairuren kontzertua lehenengoz (BER-355/024)

Iruñean zela, Ez dok Amairukoen kontzertua entzun zuen lehen aldiz. Beste kultura ikuspegi bat zekarrela kontatzen du.

2.749. Bilboko bertso saioa debekatu zutenekoa (BER-355/025)

Ordurako, Ondarroako antzerki talde batzuk ikusita zegoen. Benito Lertsundi 1965ean ikusia zuen. Txomin eta Eustakio Calvorekin Bilboko jaietara joaten zen; lehenengoz antolatu zuten bertso saioa ikustera joan ziren baina alkateak debekatu egin zuen.

2.750. Ganbarako Txominen argazki laborategia (BER-355/026)

Etxearen antolaketa azaltzen du. Txominek ganbaran bi gela zituen eta laborategia egin zuen, argazkiak errebelatzeko. Hainbat argazkilari eta argazki zale han ibilitakoak dira. Elkarte baten moduan funtzionatzen zuen.

2.751. Txomin laguntzaile (BER-355/027)

Gimnasio bat ere bazeukan Txominek etxeko ganbaran. Behar zuenari oxigenoa emateko instalazioa zeukan. Urretxindorra taldea eratu zutenak Agustinen kuadrillakoak ziren eta Txominek asko lagundu zien, letrak aukeratzen edo abestiak lortzen.

2.752. Etxeko ganbara denentzat zabalik (BER-355/028)

Bere lehengusu eta lagunek zirko bat egin zuten eta bi saio eskaini zituzten etxeko ganbaran. Beraien etxeko ganbara jende guztiarentzat zabalik zegoen.

2.753. "Juventudes parroquiales" eta margoketa klaseak (BER-355/029)

Kultura mailan, "Juventudes parroquiales" izeneko mugimendua sortu zen. Plazan "Artes y oficios" zegoen lekuan, dantzan egiten zuten eta bildutako diruarekin kultur ekimenak egiten zituzten. Zabalotegiko kultur etxean margoketa klaseak ematen zituzten.

2.754. Simon Arrieta margolaria (BER-355/030)

Simon Arrieta bergararra zen. Umetatik pinturarako dohaina zuen. Madrilen bolada bat eginda, Bergarara itzuli zen eta bizi guztian margotzen aritu zen. Herriko beste hainbat margolari aipatzen ditu.

2.755. Margolaritza garrantzitsua Bergaran (BER-355/031)

Bergaran margolaritzak garrantzia handia izan duela azaltzen du. San Martin Agirrekoaren urteurrenean egindakoaren berri ematen du. Anekdotak bat kontatzen du. Simon Arrieta ez zuen irakasle ezagutu.

2.756. Beart elkartearen sorrera (BER-355/032)

Beart elkarte bere taldekoek osatutakoa dela uste du. Hainbat kide aipatzen ditu. Oso jarrera irekia zeukaten. Lehiaketetara joaten ziren.

2.757. Beart elkartearen erakusketak (BER-355/033)

Beartekoak Italiara joan ziren erakusketa bat egitera eta ordurako izen hori zeukan elkarteak. 1970erako bazuen forma bat. Bergarako Udaletxean gabonetako pintura erakusketa antolatzen zuten urtero.

2.758. Bergarako UNEDen sorrera (BER-355/034)

Begarako elkarte gastronomikoen aldaketa egin zuten. UNEDeko bultzada aipatzen du eta hainbat lagun aipatzen ditu. Bergarako zentroa nola zabaldu zuten kontatzen du.

2.759. Ernai antzerki taldea (BER-355/038)

Ernai antzerki taldea eta Urretxindorrek taldea 1965 inguruan sortu ziren. Hasieratik Txomin Amasorrainekin harremanetan jarri ziren, eta euskara lantzen lagundu zien, besteak beste. Txomin oroitarazle lanetan aritzen zen. Juste eta Itziar Amenabar ere Ernai taldeko zuzendaritzan zeuden.

2.760. Urretxindorrek taldeaz (BER-355/039)

Urretxindorrek taldea sortu aurretik, pinudian kantuz aritzen ziren. Haien kontzertuetara joaten ziren. Euskara eta euskal kultur gosea zegoen eta oso talde maitatua izan zela dio.

2.761. Urretxindorrek taldeko kideak (BER-355/040)

Labegaraietako eskola bukatuta, elementalera joaten ziren ikastera. Hango lehen urteetan sortuko zela Urretxindorrek taldea uste du. Urretxindorrek taldeko kideak aipatzen ditu. Serafin Esnaola aipatzen du.

2.762. Ameslariak taldea eta Iñaki Arriaran (BER-355/043)

Ameslariak izeneko taldeko kideak aipatzen ditu. Iñaki Arriaran oso abeslari ona zela dio; Bergarako "sala de fiestas"-en abestu zuen urte askoan, taldeek jotzen baitzuten. Plazentziako mutil batzuk ere ibiltzen ziren.

2.763. Orfeoia, banda eta orkestra Bergaran (BER-355/044)

Don Roman Oiarzabal zuzendari ezagutu zuen orfeoian. Jabier Gantxegik eta, eskola baten premia ikusi zuten eta musika eskola sortu zuten. Bandarako eta orkestrarako jendea sortu izan da.

2.764. Dantzariak eta Moises Azpiazu dantza maisua (BER-355/045)

Dantzan Moises Azpiazu ezagutu izan du; aurretik, Migel Lazpiur eta beste hainbaten taldea ibili zen dantzan. Dantzariak aipatzen ditu.

2.765. Londresen ikusitako kultur emankizunek txundituta (BER-355/046)

Londresera joan ziren unibertsitateko karrera bukaerako bidaiara. "Hair" ikuskizuna ikusi zuten eta txundituta irten ziren. Zineman Jesukristo Super Star eta beste ikusi zituen.

2.766. Soldadutzan ezkutuan irakurtzen (BER-355/049)

Soldadutzan liburu iraultzaileak ezkutatuta izaten zituzten euskaldunek; galiziarrek, etxeok bidalitako gazta eta gutunak. Bere urtebetetzean aitona-amonon telegrama jaso zuen eta itzuli egin behar izan zien gaztelerara. "Triunfo" aldizkaria beti patrikan erabiltzen zuen.

2.767. Bergarako Aberri Eguna 1965ean (BER-355/050)

Bergaran Aberri Eguna egin zen 1965ean (1964 ingurua aipatzen du). Geratzen bazituzten, mezetara zihoazela esatea pentsatuta zeukaten. Klandestinitatean jende asko zebilen orduan.

2.768. Telebista lehenengoz euskaraz entzun zueneko (BER-355/052)

Gogoan dauzka lehenengoz euskaraz entzun zituen futbol partidaren emankizuna eta bakeroen pelikulak.

2.769. Euskara arima da (BER-355/053)

Gure herriko hizkuntza izateaz gain, euskara beretzat arima dela dio. Bere alfabetatzeko apunteak erakusten ditu, arimaren irudia marraztuta zeukala erakusteko.

2.770. Oronaren eta Fagorren sorrera prozesuak (BER-355/056)

Oronaren eta Fagorren sorrera prozesuak kontatzen ditu.

2.771. Kooperatiben sorrera eta "Cerrajera" (BER-355/057)

Arrasaten errepublikano asko zegoen eta gerra garaian herri erdik alde egin behar izan zuen. Jende asko lanik gabe zegoen gerra ostean. "Cerrajera" oso enpresa aurreratua eta antolatua izan zen. Kooperatiba "Cerrajera"ren eredua jarraituz egin zela kontatzen du.

2.772. Txomin Amasorrain argazkilaritzan zela hasi zen (BER-355/059)

Txomin Amasorrain oso mendizalea zen; egunero joaten zen eta gero igeri egiten zuen. Ehizara joan zen batean, asko luzatu eta etxeok arduratan geratu ziren. Orduan, aitak argazki kamera eskaini zion eskopetaren truke.

2.773. Txomin Amasorrainen eta Joxu Oregiren materiala alfabetatzerako (BER-355/061)

Euskaraz alfabetatzen aritu zenean, Txomin Amasorrainek oso material berezia zeukan prestatuta aditzak erakusteko. Joxu Oregik ere "paradigma del verbo vasco" gaiari denbora asko eskaini zion.

2.774. Venezuelako Euskadi Irratiarentzat finantziarioa (BER-355/062)

EAJk Venezuelatik Euskadi Irratia igortzen zuenean, Iza izeneko bergarar bat etortzen zen finantziario bila eta Joxu Oregik diruz laguntzen zuen. EAJkoek orduan espero zuten aliatuek Franco botatzen lagunduko zietela.

2.775. Ikastolan baino lehen, udalekuetan begirale (BER-357/003)

Lehenengo bulegari hasi zen. Don Serafin etxez etxe ibiltzen zen eta behin udalekuetara begirale joatea proposatu zion. Ikastolan hasi aurretik joan zen bi urtez udalekuetara.

2.776. Ikastola sortu zenean (BER-357/004)

Eskolaurrea zegoen euskaraz, baina gero akademian gazteleraz ikasi behar izaten zuten. Ikastola sortu zutenen izenak aipatzen ditu. Konbenio kaletik eta San Pedro kaletik sartzen ziren. 3-6 urteko umeak hartu zituzten.

2.777. Don Serafin Esnaolaz (BER-357/005)

Serafin Esnaola 1967 inguruan etorri zen Bergarara, Trintxerpetik. Desterratu egin zutela dio. Konbenio kaleko bulegoan egoten zen. Argazkiak ateratzen zituen eta fotokopiak egiten zituen. "Acción católica"ren lokala zegoen azpiko aldean eta bailarako ikastoletako bilerak han egiten zituzten.

2.778. Ikastolaren hasierako urteak (BER-357/006)

Militantziaz lan egiten zuten. Soldata bi mila eta bostehun pezetakoa zen; gutxi. Gurasoei dirua eta laguntza eskatzen zizkieten. Irteera Gorlara egiten zuten.

2.779. 1968an hasi zen ikastola martxan (BER-357/007)

Hasieran hiru irakasle ziren: Pilare Mujika, Edurne Arzelus eta Izaskun bera. Lehenengo mailako umeen matrikulak Urretxuko ikastolako kartilletan zeuden. 1968-1969 ikasturtean hasi zen ikastola.

2.780. Ikastolakoak eta beste bi eskola elkartu eta seminarixora (BER-357/008)

Ikastola hasi zenean, akademia "Colegio Santa Infancia" eta Kontxita Maiztegiren eskola ere bazeuden. Fraideak ume gabe geratzen ari ziren; seminarioa haziendaren esku ez geratzearren, elkartu egin ziren akademia, Kontxita Maiztegi eta ikastola.

2.781. Ikastolaren izena hasieran Koldo Eleizalde zen (BER-357/009)

Ikastolaren izena "Koldo Eleizalde" zen, baina ofizialki ez zieten onartu eta Telesforo Aranzadi ipini zuten.

2.782. 1971an ikastola seminarixora (BER-357/012)

1971n seminarixora joan ziren. Lehenengo urteetako irakasleak aipatzen ditu. Berrogeita bi ume zituen gelan. Mariaren Lagundiak eskolaurrerik ez zeukanez, ume denak ikastolara joaten ziren.

2.783. Haurtzaindegi laboral moduan, diru-laguntzak lortzeko (BER-357/013)

Haurtzaindegian euskaraz egiten zuten. Handik ikastolara pasatzen ziren umeak. Dirua lortzeko, haurtzaindegi laboral moduan ipini zuten ofizialki, eta orduan lar arlotik lortzen zuten diru-laguntza.

2.784. Dominikoak ikastolan (BER-357/014)

Ehun umerekin hasi ziren. Dominikoek eramaten zutenez seminarixoa, haietako bat jarri behar izan zuten buru, Fernando Etxeberria. Bi dominiko lanean aritu ziren.

2.785. Ikastolako juntakideak gurasoak bakarrik (BER-357/015)

Bi mila eta bostehun pezetako soldata zeukaten. Markos Gabilondok ematen zien eskura. Politika kontuak sartu zirenean, erabaki zuten juntakideak gurasoak izatea.

2.786. Nesken eskola publikorik ez zegoen (BER-357/017)

Nesken eskola publikorik ez zegoen; Mariaren Lagundian lehenengo mailatik gora ematen zuten. Batzuk ikastolan hasi eta gero hara joaten ziren, baina gutxi.

2.787. Ikastolako hainbat irakasle eta zuzendari (BER-357/018)

Aita Zamora eta frai Jazinto izan ziren ikastolako zuzendari baita. Psikologoa ere izan zuten. Lehenengo irakasleak izendatzen ditu.

2.788. Udako ikastaroak irakasleentzat (BER-357/019)

Uztailean ikastaroak egiten zituzten Loiolan eta Iruñean, eta Euskal Herri osoko jendea batzen zen. Debako andereño batzuekin harreman handia egin eta han egon zen urtebetez.

2.789. Txantxotesia, gerra aurreko andereñoa (BER-357/020)

Txantxotesia deitzen zioten gerra aurreko ikastolako irakasleari. Eskola publikoan erretiratu zen.

2.790. "Rosa Sensat" ikastetxe katalanekoekin ikastaroak (BER-357/021)

Ikastaroetara "Rosa Sensat"eko irakasleak etortzen ziren erakustera, Bartzelonatik. Oñatibiak asmatutako dantza-jolasak ere ikasten zituzten. Pare bat urtez Bartzelonara joan ziren.

2.791. Euskaraz irakastea hasieran kostatu (BER-357/022)

Magisteritza erdaraz ikasita, euskaraz erakustea asko kostatu zitzaion. Durangoko irakasle batekin asko ikasi zuen. Matematika irakatsi izan du. Deban metodologia bat zeukaten eta matematika euskaraz ematen zuten.

2.792. Liburu eta kanta zaharrak hasieran ikastolan (BER-357/023)

Konbenio kalean zeudenean, liburu zaharrak zeuzkaten. Kantatu asko egiten zituzten; Pilarek erakusten zizkien.

2.793. Ikastolaren lehen urteetan, diru-batzerik ez (BER-357/025)

Konbenio kalean gurasoek kuota ordaintzen zuten. Dendariek lagundu egiten zieten, baina ez diruz. Aranzadi sortu zenean, diru batzeekin hasi ziren.

2.794. Ikastola diruz hornitzeko ekintzak (BER-357/026)

Hasieran Gabonetan eta Santa Ageda bezperan kantuz irteten ziren; gero dirua batzen ere bai. Zozketak egiten zituzten. Tabernak Bergarako jaietan zabaltzen zituzten, dirua lortzeko. Gurasoek eta irakasleek hartzen zuten ardura.

2.795. Haurren egunaren antolaketa (BER-357/027)

Haurren eguna antolatzen zuten. Lehenengo gurasoei galdetzen zieten umeak (dantzariak) hartzerik nahi zuten (etxean bazkaldu zezaten), eta beste eskola batzuetan ere galdetzen zen. Begiraleek elkarte gastronomikoetan bazkaltzen zuten. Azkenerako laga egin zioten antolatzeari.

2.796. Dantzako irakasleak ikastolan (BER-357/028)

Ikastolan Moises Azpiazu hasi zen dantzan erakusten, soltean. Gero Jabier Zurra eta Maite Barrena ere aritu ziren, taldeko dantzak ere erakutsiz. Ikastolan entseatzeko zuten dantzari nagusiek ere.

2.797. Multikopista lapurtu zutenekoa (BER-357/030)

Norbaitek multikopista lapurtu zuen eta non zegoen jakin zutenean, ikastolako batzuk bila joan ziren. Koartelera joan ziren jakinaraztera, baina egurra hartuta itzuli ziren.

2.798. Gertaera politikoei lotutako ospakizunak ikastolan (BER-357/031)

Franco hil zenean, txanpanarekin ospatzen ibili ziren eta astebetzez jai izan zuten. Handik bi urtera, ikurrina legeztatu zuten, eta udaletxean ipini zuten, Irazola zinegotziak eta beste norbaitek. Donostiara joan ziren ospatzera.

2.799. Estatu kolpe saiakera gertatu zenekoa (BER-357/032)

Estatu kolpe saiakera egin zutenean, Euskal Herrian Euskaraz taldean zebilen Izaskun. Ordukoa kontatzen du.

2.800. Lagun giroa ikastolan (BER-357/033)

Dena ospatzen zuten orduan ikastolan. Hasierako urteetan lagun giroa zeukatela dio. Anekdotak bat kontatzen du.

2.801. Lehenengo Kilometroak Bergaran (BER-357/034)

1991n Bergaran antolatutako lehenengo Kilometroak jaialdia egin zen. Kultura batzordean zegoen Izaskun. Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastolaren artean antolatu zituzten.

2.802. Osintxuko ikastola (BER-357/035)

1970ean Osintxuko ikastola zabaldu zuten. Irakasleak gero lehen hezkuntza egitera Bergarara joaten ziren. Irakasleak aipatzen ditu. Hasieran beraien kontura ibiltzen ziren.

2.803. Udalekuak euskara ondo ikasteko (BER-357/036)

Euskararekin zailtasunak zituzten umeekin Oñatiko baserri batera joaten ziren uztailean, egun batzuk pasatzera.

2.804. Bergarako ikastetxeetako ereduak (BER-357/038)

Hiru eredu sortu ziren eta ikastolan D ereduak izan dute beti. Mariaren Lagundian, A eta B ereduak zeuzkaten eta ondoren B eta D. Eskola publikoan, lehenengo eskolaurrean hasi ziren euskaraz; hasieran D ereduak ematera derrigortu zituzten. Arazoak sortu ziren.

2.805. Eskoletan euskaraz erakusten (BER-357/039)

70. hamarkadan Mariaren Lagundira eta eskola publikora hainbat lagun joaten ziren euskaraz erakustera. Miren Goñi zen haietako bat; ikastolak antolatutako ikastaroetara askotan joaten zen. Arrasaten "Murgiltzen" ereduak sortu zuten.

2.806. Gau-eskolen hasiera (BER-357/040)

1974an kultur hamabostaldia egin zuten eta gero gau-eskolak hasi ziren. Arrasaten AEK zegoen eta Fermin Korkostegik bultzatuta, alfabetatze talde bat hasi zen ikastolan. Josu Oregik elementalean ematen zuen.

2.807. UNEDeko euskara departamendua (BER-357/041)

D ereduan irakasle izan ahal izateko, titulua behar izaten zuten. Arrasateko unibertsitatean egiten zituzten ikastaroak. B ereduko ikastaroetara ere joan zen. UNEDeko euskara departamenduan lan handia egin zuten; irakaslego ona zegoen. Orduan ez zegoen euskaraz unibertsitaterik. Juan Mari Elorza hasi zen institutuan euskarazko klaseak ematen.

2.808. Katekesia eta doktrina euskaraz (BER-357/042)

Doktrina erakusten Don Serafin ibiltzen zen eta diapositibekin irakasten zien. Elijioa Maria Biktoriak ematen zuen gero. Don Pedro Santa Marinan hasi zen katekesia euskaraz ematen, Miren Goñi eta Pilare Mujikaren laguntzaz.

2.809. Euskarazko kontzertuak "juventudes parroquiales"en (BER-357/043)

Joxu Oregi eta Txomin Amasorrainek euskarazko eskolak ematen zituzten elementalean. "Juventudes parroquiales" Don Serafinek antolatu zuen. Berak parte hartu zuen. Benito Lertsundi eta Gorka Knorr hango lokalean ikusi zituen.

2.810. Bergarako musika taldeak (BER-357/046)

Urretxindorrek, Ameslariak eta Alai taldea ere bazeuden. San Pedro elizan abesbatza bat zegoen, euskaraz abesten zuena. Iñaki Arriaranek berak bakarrik abesten zuen. Kultura aldetik mugimendua egon izan dela dio.

2.811. Mugimendu politiko handia Bergaran (BER-357/048)

Mugimendu politiko handia zegoen Bergaran 70. hamarkadan. Manifestazioak eta protestak asko izaten ziren. Aberri Egunean poliziak agertzen ziren eta ezkutuan egoten ziren asko.

2.812. Euskal Herrian Euskaraz taldea Bergaran (BER-357/050)

Euskal Herrian Euskaraz taldean ibilitakoak izendatzen ditu. 1979an sortu zuten. Ez zegoen euskara elkarterik orduan. Euskarari garrantzia ematea zen helburua. Herri askotan sortu zen.

2.813. Ikastolak sortutako kultur ekimenak (BER-357/051)

Kulturari loturiko gehiena ikastolak sortzen zuen. Martitzen karnabala ospatzen hasi zirenekoa kontatzen du. San Sebastian bezperan eta San Martinetan danborrada jotzen hasi ziren. Santa Ageda eskea eta Gabon eskea ere egiten hasi ziren.

2.814. Bertsolaritza ikastolan (BER-357/053)

Ikastolan bertsolaritza erakusten hasi ziren. Ikastolen elkarteak liburuxka bat atera zuen eta harekin hasi ziren. Bertso eskola ere martxan ipini zuten baina kirolera joatearren, pixkanaka galdu egin zen. Ainhoa Agirreazaldegi aipatzen du.

2.815. Serfin Esnaola eragile (BER-357/054)

Kulturgintzan ezagunak ziren herrikideak aipatzen ditu. Serafin Esnaolak marrazki lehiaketa antolatzen zuen Gabonetarako, eskola guztietarako. Jende askorekin zeukan harreman handia Serafinek eta gauza asko bultzatu zituen.

2.816. Ikastolako lan-baldintzak negoziatzen (BER-357/055)

Ikastoletan ez zegoen lan-hitzarmenik eta gurasoekin adosten zituzten gauzak. Irakaskuntzako sindikatuak sortu zirenetik, 1977 ingurutik, komite guztietan egon zela dio. Lan-orduetatik kanpo egiten zituzten bilerak. Hasieran gurasoekin zuzenean negoziatzen zuten; gero, lan-hitzarmenak egin ziren ezkerre, errazagoa zen.

2.817. Lehenengo lan-hitzarmena ikastoletarako (BER-357/056)

Lehenengo lan-hitzarmena jarri zutenean, 1.393 ordu sartzen zituzten eta hitzarmenak asko jaistea eskatzen zuen. Militantzia eragina izan zuen. Ikastola sortu egin behar izan zuten, ez zen lan bat bakarrik.

2.818. Ikastolako hasieretako irakasleen kotizazioa (BER-357/057)

Ikastola hasi zenean, jende bila ibiltzen ziren. Titulu gabeko irakasle asko zegoen hasieran. Urte haietako kotizazioa kontatzea lortu zuten duela urte batzuk. Hasieran ez zeukaten gizarte segurantzarik ere.

2.819. Ikastola sortu berrian ikasle (BER-358/003)

Koldo Elizalde ikastolan ibili zen txikitatik. Maite Agirrebeña eta Pilare Mujika gogoratzen ditu. Lurrean eserita egoten ziren eta jolasean. Urretxun

matrikulatuta zeuden. Guardia Zibila etortzen zenean, katekesian zeudela esaten zien Don Serafinek. 1971n Telesforo Aranzadi sortu zen.

2.820. Ikastolaren sorrera (BER-358/004)

Gurasoen artean batzarrak egin zituzten, baimenak eskuratzen aritu ziren eta Don Serafinekin eta beste apaizekin hitz eginda hasi ziren ikastolako lehenengo taldeak.

2.821. Serafin Esnaolak Trintxerpen arrastoa laga zuen (BER-358/005)

Serafin Esnaola apaiza Trintxerpetik zigortuta desterratu zuten Bergarako San Antonio ermitara. Abertzale sutsua zen, giza eskubideen alde borroka egiten zuena. Trintxerpen mugimendu sozial handia sortzen lagundu zuenez, elizako goi-karguei gustatu ez eta ez zuten parroko izendatu. Trintxerpetarrek boikota egin zioten parroko berriari eta zalaparta handia sortu zen. Herritarrei zigorra ezarri zieten. 1964a zen.

2.822. Don Serafin, EAJkoen aholkulari ezkutua (BER-358/006)

Don Serafin Trintxerpen egindako lan bera egiten hasi zen Bergaran. 1964an etorri zen Bergarara eta erretiroa hartu arte geratu zen. EAJko kapilaua zen eta alderdiko aholkularia. Itzalean egon arren, politikan eragin handia izan zuen. Francoren kontrako idazkia egin zuten berak bultzatuta.

2.823. Abadetxea kultugune eta gazte lokal (BER-358/007)

Abadetxean kultur mugimenduko sektore asko zeuden: Ernai antzerki taldea, Urretxindorrak (izena bera ere Don Serafinek proposatutakoa izan zen), Pol-poleko kideak eta laborategiak, ikastola, Hamar abeslariak taldea... Euskaraz egiteko lekua zen. Lokaleko giltza utzi zien gazteei.

2.824. Serafin Esnaolarengan eragina izan zuten pertsonak (BER-358/008)

Don Serafin izatez errezildarra zen, umetan Ormaiztegiara bizi izatera joandakoa. Frantzisko Etxeberria apaizak sortutako antzerki taldean ibili zen. Euskal kulturarekiko ikusmira sortu zien, kultur arloan jantzia zelako. Gasteizko seminarioan, Joxe Miel Barandiaran irakasle izan zuen Serafinek. Seminario berrira pasatu zenean, euskara irakasle Manuel Lekuona izan zuen. "Aurrera beti" aldizkaria sortu zuten; Arizmendiari eta beste hainbat aipatzen ditu.

2.825. Serafin Esnaolak euskarari buruz idatzitakoa (BER-358/010)

Gaztetan Gasteizko seminarioan Serafin Esnaolak euskarari buruz "Aurrera beti" aldizkarian idatzitakoa irakurtzen du, 1932 ingurukoa.

2.826. Serafin Esnaola, argazkilaritzan eta zinemagintzan zaletua (BER-358/011)

50. eta 60. hamarkadan ere hainbat aldizkaritan parte hartu zuen Don Serafinek. Trintxerpen egin zuen moduan, Bergaran ere irudiak garrantzi handia hartu zuen, argazkilaritza eta zinemagintzarekin. Aparaturik modernoak eta onenak ekartzen zituen.

2.827. Serafin Esnaolaren pelikulak (BER-358/012)

Don Serafinek grabatutako pelikulak ikustera jende asko batzen zen. Euskal musika ipintzen zien eta ikusten zena azaltzen zuten. Kirolzale amorratua zen eta kirol partidak eta probak filmatzen zituen. Herritarren bizimoduaren testigantza jaso nahi izaten zuten.

2.828. Serafin Esnaola itzaletan (BER-358/013)

Euskal Herriko historiako momentu oso garrantzitsuak filmatu zituen Don Serafinek. Bigarren mailan geratzen zen beti, eta horrek bere ekintzailtzaren dimentsioa ezezaguna izatea eragin du.

2.829. Serafin Esnaolari trintxerpearrek azaldutako esker ona (BER-358/014)

1964an Don Serafin Bergarara etorri zenean, hamaika autobus eta berrogeita hamabi auto etorri ziren Trintxerpetik bere lehen meza entzutera, gogoan zeukatela adierazteko. Trintxerpekoek "Dos caballos" kotxea oparitu zioten, herrira bueltatu ahal izan zedin.

2.830. Serafin Esnaolak antolatutako umeentzako udalekuak eta mendi taldea (BER-358/015)

1968 inguruan Kultur Ekintzakoekin, umeentzako udaleku antzekoak antolatu zituen Don Serafinek. Filmatu egin zuen dena Serafinek. Pol-poleko estatutuak aztertu zituen eta umeentzat atal bat sortu zuen. Arrakasta handia izan zuen.

2.831. Don Serafinentzat, umeak izaki autonomo eta arduratsuak dira (BER-358/016)

Don Serafinek umeak autonomo eta arduratsu izan zitezkeela uste zuen. Hamabost urterekin edozein irteera antolatzeko ardura guztia hartzen zuten; filmak eskatzeko enbaxadetara idazten zuten. Mendizaletasuna bultzatzearekin batera, kulturak eta euskarak leku handia zeukaten. Argazkigintzarenak ere hortxe du jatorria.

2.832. Serafin Esnaolaren eragina herritarrengan (BER-358/017)

Kultura eta herria ulertzeko moduan, jende askorengan eragina izan zuen Serafinek. Euskarari ere beti lekua ematen zion.

2.833. Serafin Esnaolak arteari bultzada (BER-358/018)

Artea ere bultzatzen zuen Serafinek: pintura eta marrazketa lehiaketak, jaiotzak egitea... Gazteak esna egon eta sortzaile izan zitezen bultzatu zuen.

2.834. Bergaran zaletasun handia marrazketa eta pinturarekiko (BER-358/021)

Mugimendu handia zegoen marrazketa eta pinturarekin. Aspaldiko tradizioa dela azaltzen du. Artearen ikaskuntza eta irakaskuntza prozesua azaltzen ditu. Mari Paz Alustizarekin jende askok ikasi zuen.

2.835. Bergaran artearekiko sentikortasunaren transmisioa (BER-358/022)

Bergaran artearekiko sentikortasuna eta pinturarekiko gustua belaunaldien artean transmititu dela azaltzen du, batak besteengandik ikasiz. Aire libreko lehiaketetara joaten ziren, batera eta bestera. Margolari asko sortu izan da Bergaran eta kultura baten parte da besteekin hainbeste partekatzearena.

2.836. Beart elkartearen lana (BER-358/023)

Garai batean inguruko margolariak Bergarara etortzen ziren, beste margolari batzuek ikasteko. Beart lan handia egiten ari dela dio, tradizioa mantenduz eta ildo berriei leku eginez.

2.837. Pintura obrak erakusgai (BER-358/024)

70. hamarkadan arte galeria zabaldu zen, erakusketak antolatzen hasi ziren eta tabernetan ere obrak jartzen hasi ziren paretetan. Hutsik dauden dendetan eta lokaletan koadroak daude jarrita.

2.838. Lorenzo Askasibar eskultoreaz (BER-358/025)

Bergarako margolariengan kolore eta estilo batzuk badaudela dio, baita orain muralistak eta grafitigileak ere. Lorenzo Askasibar eskultoreari buruzko liburua argitaratuko duela dio. Lorenzoren ibilbidea kontatzen du.

2.839. Simon Arrieta margolariari buruz (BER-358/026)

Simon Arrietak Zuloagaren obraren eragin handia izan zuen. Madrilen punta-puntan jarri zuten, baina ito egin zen. Herrimin handia sortu zitzaion eta Bergarara bueltatu zen.

2.840. Aranzadi ikastolan egindako urteez (BER-358/029)

Aranzadi ikastolako lehenengo urteetatik gogoratzen duena da lurrean bueltaka ibiltzetik gela bat izatera pasatu zirela. Maria Biktoria eta Lide Oregi (Lide Mujika zen, ez Oregi) ditu gogoan. Juan Martin Elexpuruk euskara eta literatura erakusten zizkien. Pasilloetan laborategiko tresnak eta animalia diseatuak egoten ziren.

2.841. Ikurriña legeztatu zuten eguna (BER-358/030)

Ikurriña legeztatu zen eguna herriarentzat garrantzitsua izan zen. Zela bizi izan zuen kontatzen du. Serafin Esnaolak grabatu egin zuen.

2.842. Umeentzat kultura eskura (BER-358/031)

Dantza eskoletatik ume asko pasatu ziren. Haurren egunetan parte hartu izan zuen. Gutxi iraun zuen dantzan. Umeentzat kultur ikasketetarako aukera handia zegoen; protagonista izateko zein kontsumitzeko aukera zegoen.

2.843. UNEDeko euskara departamendua (BER-358/032)

UNEDeko euskara departamenduko hainbat Aranzadin edo institutuan irakasle izan zituzten. D maila egitera joan ziren, gaztetxoak izan arren. Larunbatetan giro handia sortzen zen. Dispersatuta zegoen kultura ordenatzeko lekua zela dio. Larunbatez gain, astebarruan ere mugimendu handia sortzen zen UNEDen.

2.844. Gizarte eta kultur mugimenduak epeltzen (BER-358/033)

Arkupeetan kanikekin aritzen ziren eta Seminarixoko futbol zelaian ere bai jolasean. Belaunaldi eta zaletasun askotarako lekuak eta aukerak zeudela gogoratzen du. Erakundeak sortu eta zerbitzuak sortu zirenean, kultura formalago bat sortzeak giroa epeltzea eragin zuen.

2.845. Irekidura kulturalan (BER-358/036)

Artea eta errebindikazioa batera egiten ziren frankismoaren azken urteetan. Kanpoan zer zegoen ikusten hasi ziren eta kanpoko eragina nabarmentzen hasi zen. Irekiduraren ondorioz, herrikoari lekua ematen hasi ziren pixkanaka.

2.846. Berrigara eta Jardunen sorrera (BER-358/037)

Tokiko komunikabideen eta euskara elkarten sorreraz hitz egiten du. Arrasateko eskola politeknikoan lan egiten zuen garaian, Arrasate Pressekoekin harremanetan jarri zen eta halaxe sortu zen Berrigara.

2.847. Euskara elkarten eta tokiko komunikabideen profesionalizazioa (BER-358/038)

Norbere erroak eta herria galtzen joaten dira, kanpokoaren eragina handia denean. Euskara elkarteetan eta tokiko komunikabideetan profesionalizazioa ematen hasi zen, egindakoa kalitatezkoa izan zedin.

2.848. Txapa irratian eta "Enseiucarrean" aldizkariaren sorreran (BER-358/039)

Institutu garaian, fanzineak eta irрати libreak abiatu zituzten. Orduan sortu zuten Txapa irratia, 1985 inguruan. Bilbon unibertsitatean literatura aldizkaria sortu zuten, "Enseiucarrean" izenekoa. Aldizkariak bilgune eta adierazpen gune moduan ulertzen ditu. Euskarazko literatur aldizkarien bilduma egina du.

2.849. Literatur aldizkarien inguruko mugimenduak (BER-358/040)

Literatur aldizkarietako lan-taldeetatik beste adar batzuk sortzen dira. Hor sortzen diren mugimenduak aztertzeak gizartea ulertzen laguntzen du.

2.850. Literatura eta kazetaritza, idazleen zeregin (BER-358/041)

Idazteko gaitasuna zutenak kazetaritzak hartzen zituen sarri. Aldizkarietan literaturaren eta kazetaritzaren arteko nahasketak sortzen ziren. Euskal literatur aldizkariak literaturari ekarpen handia egin diotela dio.

2.851. Literatur aldizkarien historia jasota (BER-358/042)

80. hamarkadan, Joan Mari Torrealdai eskatuta, Jakinerako lan bat prestatu zuen, "Literaturgintzarako plataforma" izenekoa; literatura aldizkarien fenomenoaz aztertu zuen. "Xubi.eus" webgunean hogeita bost aldizkariri buruzko historia laburrak jaso ditu.

2.852. Domingo de Iralaren garaiko Bergara aztergai (BER-358/044)

XVI. mendeko lehen herenean murgiltzea izan zuen erronka, Domingo de Iralaren bizimodua aztertzeko. Orduko Bergara irudikatu behar izan zuen: arkitektura, ibaiak, dolareak eta laborantza, arropak... aztertuta. Liburu bat prestatu zuen eta Paraguan aurkeztu.

2.853. Domingo de Iralaren bizimodua (BER-358/045)

Domingo de Iralaren bizimoduari buruzkoak kontatzen ditu.

2.854. Domingo de Iralaren konkista modua (BER-358/046)

Domingo de Iralak ezagutu zuen Amerikaren ingurukoak kontatzen ditu. Bere soldaduak emakume guaraniekin ezkondu zituen, guaraniera hizkuntzaren transmisioak gaur arte iraun duela azaltzen du.

2.855. Domingo de Iralaren bizimodua II (BER-358/047)

Domingo de Iralak testamentuan bere seme-alaba asko zein ziren aitortu zuen. Haren bidaia eta konkistari buruzkoak kontatzen ditu.

2.856. Ama Gorla baserrian bizi izandakoa (BER-362/002)

Ama bergararra, baserrian jaioa, baina hainbat bizitokitan bizi izandakoa. Aita ere bergararra, kalekoa. Ama gaur egun galduta dagoen Gorla baserrian bizi izan zen. Handik Antzuolako Uzarraga auzora joaten ziren eskolara.

2.857. Euskararen erabilera familian eta kalean (BER-362/003)

Amarekin eta osaba-izebekin harremana euskaraz. Bergarako hiru kale nagusiei begiratuta, Goenkalen eta Artekalen denek euskaraz egiten zuten; Barrenkalen, berriz, gaztelaniaz. Bera bizi zen Bidegurutzeta kalean eta San Pedron ere denek gaztelaniaz, nahiz eta euskaraz ulertu. Amak eta izebak beti euskaraz eta hika. Aitak elizan denbora asko pasatzen zuen eta, haren eraginez edo, gaztelaniarako joera zuen. Artekalen bizi zen lehengusuak euskaraz egiten zion Joxe Mariri eta berak gaztelaniaz erantzun.

2.858. Euskaraz ez zekielako, isilik (BER-362/005)

Bergaran alde handia zegoen euskararen erabileran kale batetik bestera. Pixka bat koskortutakoan, Zubiaurreko lagun bat izan zuen. Han dena euskaraz egiten zen. Baita Altos Hornos inguruan ere. Pilotan jokatzera joaten zen hara. Euskaraz ez zekien eta isilik egoten zen. Inork ez zion esan inoiz euskaraz egiteko, ezta gaztelaniaz egiteko ere. Eskolan baserriarrak ziren batez ere euskaraz egiten zutenak. Gogoan du burla egiten zietela batzuetan.

2.859. Elementalean ikasleak euskaraz; euskara-eskolak (BER-362/006)

Begarako Elementalean asko hitz egiten zen euskaraz mutikoen artean. Inguruetako mutikoak egoten ziren, bai Bergarako auzoetakoak eta baita Antzuolakoak edo Elgetakoak ere. 1963tik aurrera Txomin Amasorrainek eta Josu Oregik euskara-eskolak eman zituzten bertan. Joxe Mari ere joan izan zen eskola horietara. Iluntzeetan izaten ziren. Eskolan gertatutako anekdota. Orduan ikusi zuen lehenbiziko aldiz euskaraz h-a idatzita.

2.860. Oregiren eta Amasorrainen euskara eskolak Elementalean (BER-362/008)

Elementalean Josu Oregik eta Txomin Amasorrainek eman zituzten euskara-eskoletara joaten hasi ziren arreba eta biak. Larzabalen `Senperen gertatua´ liburua erabiltzen zutela du gogoan; lapurteraz zegoen, baina aldamenean gipuzkeraz.

2.861. Lagun euskaldun batekin euskara praktikatzen (BER-362/009)

Umetan ez zuen euskaraz egiten. Euskaraz egiten zuen lagun batengana joaten zen euskaraz ikastarren. Etxean pentsatuta eramaten zituen zenbait esaldi. Aitarekin eta anai-arrebekin ez zuen euskaraz egiten eta amarekin ere oso gutxi.

2.862. Valladoliden unibertsitatean euskara irakasten (BER-362/010)

Herriko eskoletan ibili ostean, La Sallen ibili zen Eibarren eta gero Valladolidera joan zen unibertsitateara, Kimika ikastera. Medikuntza ikasten ari zen Donostiako Kepa Urruzunok bultzatuta, ez zekitenei euskara irakasten hasi zen. Altunaren `Euskera hire laguna´ erabili zuen hasieran eta gero `Euskalduntzen´. Izan zituen zailtasunak.

2.863. 1968 inguruan Lur argitaletxeko liburuak irakurtzen (BER-362/012)

1968 inguruan, euskara eskolak ematen zebilenean, ez zekien nora jo. Lagun donostiar batek Lur argitaletxeko harpidetza zuen eta gogoan du hainbat liburu irakurri zituela: `Itxuraldaketa´, Amurizak itzulitako `Bai mundu berria´... Urretabizkaiak edo Sarasolak itzulitako liburuak irakurri zituen, baina ez zekien nortzuk ziren.

2.864. Gerra aurreko eta osteko euskara idatzia; `Garoa´ eta `Pisia´ (BER-362/014)

H-a dela eta, istilu handia egon zen: bai/ez eta nola erabili. Berak kanpotik bizi izan zuen auzia. Arestiren zenbait lantxo ere eskuartean erabili zituen. Arestik proposatutakoak eta gero euskara baturako onartu zirenak. Gerra aurrekoen eta ostekoaren arteko txokea. Euskalkia vs batua. Aitak euskarazko bi liburu zituen etxean: `Garoa´ eta Gabriel Jauregi aramaioarraren `Pisia´. Fisikako liburua zen eta Aramaioko euskararen eta hika idatzita zegoen. `Garoa´koa euskara ezberdina; hiztegia behar ulertzeko.

2.865. Kimika ikasi eta Bergarako ikastolan irakasle (BER-362/015)

Zientzia gustatzen zitzaion eta Kimika aukeratu zuen, gero fabrika lan egiteko aukerak ikusten zituelako. Baina irakaskuntzarako bidea hartu zuen, Bergarako ikastolan lehenengo eta geroago unibertsitatean. Aitak lan egiten zuen Lasagabaster oihal-lantegiko nagusiak han lan egitea eskaini zion, baina ezetza eman zion. Aitari ez zion graziaz egin, baina ez zion zuzenean ezer esan. Ikastoletan lizentziatu gutxi zegoen orduan.

2.866. Bergarako 60ko kultura-giroa; Simon Arrieta (BER-362/017)

Begarako 60ko hamarkadako giro kulturala ez zuen asko ezagutu. Urretxindorrek taldeko kideetako batzuk ezagutzen zituen: Narbaez, Raul Calvo... Simon Arrieta margolariaren semea, Aurelio, bere klasean zegoen. Haren etxera joan zen batean ikusi zuen zein azkar margotzen zituen koadroak. Agustin Amasorrain.

2.867. Serafin Esnaola, ikastolako irakasleei euskara irakastera (BER-362/019)

Serafin Esnaolarekin ez zuen harreman handirik izan. Bergarako ikastolan lanean zebilela, behin euskara-eskolak ematera joan zitzaien.

2.868. Frankismoaren kontzientzia gutxi (BER-362/022)

Frankismo garaian 25 urtez bizi izan arren, ez zuen izan horren kontzientziarik. Ez zuen errepresiorik jaso eta debekurik ez zitzaiola iristen dio. Valladoliden entzun zituen lehen aldiz kontu horiek, ikaskide batek Burgosko prozesuaren inguruan hitz egin zuenean. Manifestazioetara joan izan zen arren, sekula ez zuen arazorik izan. Valladolideko protestek beste konnotazio bat zuten. 1975ean, ezkon-bidaia itzuli zirenean, hasi zen jabetzen Euskal Herrian zegoen gatazka politikoaz.

2.869. Franco hil zenean frai Jazinto antxilotu zuten (BER-362/024)

1975ean Franco hil zenean Bergarako ikastolan zebilen lanean. Gogoan du frai Jazinto atxilotu egin zutela. Hura zen ikastolako kopiagailuaren arduraduna eta itxuraz norbaitek kopiagailua erabili zuen panfletoren batzuk ateratzeko.

2.870. 1965eko Aberri Eguneko oroitzapenak (BER-362/028)

1965eko Aberri Egunaz dituen oroitzapenak (1964a aipatzen du, baina 1965ean izan zen). Ikurrina. Beraien etxe ostetik jendea korrika, Poliziarengandik ihesi.

2.871. Irakaskuntzarako materiala; matematikako kontzeptuak euskaraz (BER-362/031)

Begarako ikastolan irakaskuntzan hasi zenean, liburu asko makinaz euskarara itzulitakoak izaten ziren. Beste kasu batzuetan gaztelaniazko liburuak erabiltzen zituzten. Ez zekien matematiketako kontzeptuak euskaraz nola esan. Geroago, Kimika fakultatean zebilenean, Udako Unibertsitatean hasi ziren horretaz eztabaidatzen, Iruñean. Ibon Sarasola zegoen tartean. Jesus Mari Goñik matematikaren inguruko liburu asko idatzi zituen. Berak ikusi zuen lehenengo matematika liburua Txilardegirena zen.

2.872. Elhuyar; kimika hiztegia; UEUrako liburuak (BER-362/033)

Bergarako ikastola utzi eta Donostiara joan zen, Kimika fakultatera, unibertsitatean, irakasteaz gain, hainbat gauza ikasiko zituelakoan. Giro ezberdina aurkitu zuen Donostian. Elhuyarrekoak jada hasita zeuden fisika edo matematika gaiak euskaraz lantzen eta haiekin batu zen. Kimika hiztegia sortzen jardun zuen Mikel Zalbide eta beste zenbait kiderekin batera. UEUrako liburu sinpleak ere egiten zituen, ikasleekin batera.

2.873. Kimika fakultatean irakasle; euskaraz irakasten aitzindari (BER-362/034)

Kimika euskaraz irakasten lehenengotakoa izan zen; aurretik baziren beste batzuk: Jose Ramon Etxeberria, Jaxinto Iturbe, Luis Bandres, Antxon Santamaria... Egunkarian irakurri zuen Kimika fakultatean irakasle beharra zegoela. Doktoradutza eskatzen zuten eta, horretarako, unibertsitate-ikasketak eduki behar. Hemen unibertsitatea sortu berria zenez, irakasle gehienak kanpokoak ziren.

2.874. Unibertsitatean irakaskuntzarako euskarazko materiala sortzen (BER-362/035)

Unibertsitatean kimika irakasten hasi zen garaian, dena egiteko zegoen. Kontzepturik sinpleena ere euskaraz nola esan erabaki behar zen. Materiala sortzen hasi ziren. Leioako irakasleekin ere elkartzen ziren, erabakiak hartzeko. Gerora, bakoitza bere materiala sortzen hasi zen, kontsultatu gabe.

2.875. Mikel Zalbide, kimika hiztegiaren koordinatzaile (BER-362/036)

Elhuyar taldearen bilera batzuetara joan izan zen. Oso lotuta zegoen Udako Euskal Unibertsitatearekin. Kimika hiztegia sortu zuten. Mikel Zalbide ibili zen antolatzen. Lexikoaz gain, testu osoak nola idatzi zehaztu nahi izan zuten.

2.876. Kimika ikasketetarako euskarazko materiala sortu zuen (BER-362/037)

Unibertsitatean klaseak emateko zenbait liburu prestatu zituen: ' Termodinamika klasikoa', gaztelaniazko apunte batzuk oinarri hartuta prestatu zuen 'Kimika Fisiko makromolekularra' eta 'Kimika fisikoa'. Apunteak prestatu eta ikasleei banatzen zizkien, bere eskolak jarraitu ahal izateko. Berak sortutako materiala erabiltzea zen helburua. Laborategiko praktikak ere euskarara itzultzen zituzten.

2.877. Irakasleen borondatez irakasten zen euskaraz unibertsitatean; bilakaera (BER-362/038)

Kimika fakultatean irakasle lanean hasi zenean, gaztelaniaz ematen zituen eskolak. Gainera, mugak jartzen zizkioten euskaraz irakasteko. Hala ere, euskaraz irakasten hasi zen. Borondate kontua zen, ez zegoen programarik horretarako. Beste irakasle batzuek ere euskaraz irakasten zuten, beraiek hala nahi zutelako. Urte asko eta gero hasi ziren irakasle elebidunak eskatzen eta euskarazko ikasketak normalizatzen. Orduko gorabeherak. Gaur egun ez dago arazorik edozein ikasketa euskaraz egiteko, euskarazko materiala badagoelako.

2.878. Eskolan dena gaztelaniaz; neskak eta mutilak aparte (BER-362/041)

Herriko eskola nazionalean ikasi zuen lehenbizi eta gero Eibarko La Sallen. Umetan Marisol Peña izan zuen irakasle. Berdura plazako azken solairuan zeukaten ikasgela eta 70 mutiko inguru elkartzen ziren. Neskak frontoiko eskolara edo "Compañía de María"ra joaten ziren. Auzo-eskolak beharbada mistoak izango zirela dio, baina herrigunekoetan neskak eta mutilak aparte. Dena gaztelaniaz. Amari entzundako Uzarragako eskolako kontuak. Eskolan `Cara al sol´ eta `Por Dios, por la Patria y el Rey´ abesten zituzten.

2.879. Mutil gazteak "Juventudes parroquiales"era (BER-362/046)

"Juventudes parroquiales" sortu zenean, gazte asko apuntatu ziren bertan. Lagunartean hitz egitera eta xakean edo kartetan jokatzera joaten ziren. Taberna ere bazegoen. Aurretik poltsak egiten zituen lantegi bat zegoen han. Nork lan egiten zuten bertan. Gerora egon zen Pol-pol taberna berak ez zuen ezagutu.

2.880. Bergaran euskararen alde jardundako hainbat pertsona (BER-362/048)

Bergaran euskalgintzan lanean ibili diren pertsonak: Txomin Amasorrain, Josu Oregi, Martin Arana... Elementalean irakasle gehienak oso euskaltzaleak ziren. Aranzadi ikastolak elizaren babesa izan zuen eta elizgizonak ere ibili ziren tartean. Fernando Etxeberria. Ikastolako lehen zuzendaria Jose Amilibia. Bera hasi zenerako ikastolaren legeztatzea erdi-bideratuta zegoen.

2.881. Etxeko hizkuntza-ohitura zergatik aldatu ote zen (BER-362/050)

Amak beti esaten zuen euren etxean Madrildik etorritako neskatila batek sartu zuela gaztelania. Joxe Marik ez du uste hala izango zenik, baina ezin du ziur esan. Neskatala hori aldameneko etxean bizi zen eta euskaraz ikasi zuen.

2.882. Elebitasunaren eragina (BER-362/052)

Euskaraz eta gaztelaniaz antzera zekitenez eta bietan ondo ulertzen zutenez, batzuetan ez zen konturatzen bestea euskaraz ala gaztelaniaz ari zen. Orain pentsatzen jarrita, ez daki ziur umetan edo gaztetan izandako elkarriketak zein hizkuntzatan ziren edo inguruko pertsonak euskaraz ala gaztelaniaz egiten zuten.

2.883. Euskaldunen konplexua; baserritarrekin euskaraz (BER-362/055)

Bertako jendea euskaraz hitz egiteko lotsaz ikusten zuen. Kanpotik etorritakoek gaztelaniaz eta altu hitz egiten zuten eta, gaztelaniaz erraz egiten zutenez, bertako jendeak konplexua zuen haien aurrean. Baserrietan euskaraz hitz egiten zen eta baserritarrekin ere hala egiten zuten.

2.884. Bere euskaltzaletasunaren jatorria (BER-362/058)

Bere euskaltzaletasuna beharbada euskaldunek zuten konplexua ikustetik etorriko zen, ama hitz egiteko lotsaz ikustetik. Berdura plazara joaten zenean gustura ibiltzen zen ama, hango baserritarrekin euskaraz eta lasai hitz egiten zuelako. 15-16 urterekin hasi zen euskara ikasi nahi zuela pentsatzen. Gogoan

du umetan behin ikaskide batek bitxikeria moduan kontatu zuela bere aitak euskaraz idazten zuela. Hori buruan geratu zitzaion.

2.885. Gaztetan deigarri egin zitzaizkion euskarazko kontuak (BER-362/059)

Eskolan dena gaztelaniaz izaten zen. Behin Bergarako txistularia zen Bonifazio Laskurain joan zitzaien San Martinen ereserkia jotzera. Deigarria egin zitzaion hitzak euskaraz egotea. Eskolan euskaraz ikusi zuen lehenengo gauza izan zen. Urte batzuk geroago modan egon zen kotxeetan "Sonría por favor" lema jartzea. Euskarazkoa "Irripar egizu, arren" zen, baina kostatu egin zitzaion konturatzea, hitzak ez zituelako ezagutzen. Franco hil zenean atera zuten "25 pake-urte" lemarekin egin zituzten txisteak.

2.886. Jaiotzean Ignacio izena jarri zioten arren, beti Iñaki (BER-363/002)

Bera jaio zenean ez zuten uzten euskarazko izenik jartzen eta Ignacio jarri zioten. Baina etxean beti Iñaki izan da eta soldadutzan bakarrik deitzen zioten Ignacio. Behin epaitegira joan zen batean izena euskaratzera joan zen lagun batekin topo egin zuen eta berak ere aldatu egin zuen.

2.887. Gurasoen jatorria; aita sastrea (BER-363/003)

Gurasoen jatorria. Aita sastrea zen eta etxean bertan zeukan jostundegia, Zubietan. Hainbat bizileku izan ditu. Sastrearen lana. Bezeroak joaten ziren aitaren jostundegira. Erakusgaiak izaten zituen eta gero behar zuena eskatzen zuen, hasieran Gasteizko etxe batera eta gero Bilbora.

2.888. Umetan errekan jolasean (BER-363/004)

Etxekoekin baino denbora gehiago pasatzen zuen lagunekin. Uda osoa errekan. Fabrikek botatako azidoarekin tripaz gora geratzen ziren arrainak batzen zituzten. Aurkitzen zituzten oholekin txabolak eta txalupak egiten zituzten.

2.889. Seminarioan eta eskola nazionalean ibili zen (BER-363/005)

Seminarioan hasi zen eskolan. Han 2-3 urte egin ostean eskola nazionalean hasi zen. Maisuak. 13 urte bete berritan "Banco San Sebastian"en hasi zen lanean.

2.890. Etxean beti euskaraz; eskolan gaztelaniaz (BER-363/007)

Umetan ez zekien gaztelaniaz, baina laster ikasi zuen fraideetara joan zenean. Fraideetako batek mania ziola eta gaizki pasatu zuela kontatzen du. Etxean beti euskaraz. Logroñon soldadu zegoela, behin aita joan zitzaion eta lagunekin batera bazkaltzera joan ziren. Lagunekin gaztelaniaz egiten zien arren, aitari ezin zion gaztelaniaz egin.

2.891. Zubieta auzoko lagunaren artean euskaraz beti (BER-363/009)

Zubieta auzoan lagunartean euskaraz hitz egiten zuten. Lagun bat Errioxatik etorri zen eta hari gaztelaniaz egiten zioten hasieran, baina gerora euskara ulertzen hasi zen. Herriguneko umeek gaztelaniaz egiten zuten. Eskoletan gaztelaniaz. Eskola nazionalan denbora gutxi egin zuen, 13 urterekin lanean hasi zen eta.

2.892. 13 urterekin hasi zen lanean (BER-363/010)

13 urterekin "Banco San Sebastián"en hasi zen lanean. Legez ezin zen lanik egin 14 urtera arte. Horregatik kaxatik zuzenean ordaintzen zioten. 14 urte bete eta ofizialki kontratatu zutenean, disgustua hartu zuen nominarekin diru gutxiago jasotzen zuelako.

2.893. Musikarako zaletasuna; Seminarioko tuna (BER-363/012)

Beti gustatu izan zaio musika. Amak oso ondo abesten zuen. Irratian entzuten zituen abestiak ikasi egiten zituen. 16 urte zituela, Seminarioan zegoen tuna batean sartu zen, gitarra jotzen ikastearren. Hango irakaslearen bitartez gitarra bat ekarri zuten Bilbotik eta etxean jarduten zuen jotzen eta kantuan.

2.894. 18 urterekin Lagun Artearen abesbatzara sartu zen (BER-363/013)

18 urterekin San Pedro parrokiako on Nikomedes apaizak eramaten zuen Lagun Artearen abesbatzara sartu zen. Parrokian egiten zituzten entseguak. Garai hartan asko abesten zen tabernetan; kuadrillen arteko lehia.

2.895. Ernai antzerki taldearekin lehen aldiz eszenatokira (BER-363/014)

18-19 urte zituela, Ernai antzerki taldea sortu zen eta parte hartzera animatu zuten. Bera oso lotsatia zen, baina entseguetan hasi zen, sekula ez zutela proiektua aurrera eramango pentsatuz. 1965ean taularatu zuten lehen obra. Eszenatokira irten zenean lotsa joan zitzaion eta gerora urte askoan ibili da eszenatokietan.

2.896. Ernai antzerki taldea; sortzaileak, obrak... (BER-363/015)

Txomin Amasorrainek eta Juste Amenabarrek sortu zuten Ernai antzerki taldea eta beraiek egiten zuten zuzendari eta "apuntadore" lana. Obrak euskaratu ere egiten zituen Txominek. Gerra aurretik antzerkigintzan ibiliak ziren. Labaienek euskaratutako "Malentxo alargun" izan zen lehen obra. Obra taularatu eta handik gutxira soldadutzara joan zen bera. Jakin zuten Ormaiztegin bazela antzerki hori egiten ari zen talde bat eta hango mutil bat ekarri zuten bere papera betetzeko. Soldadutzatik itzulitakoan "Ordu eroslea" antzezlanean paper txiki bat egin zuen.

2.897. Ameslariak taldearen sorrera (BER-363/017)

Soldadutzatik itzuli zenean, herriko batzuk zain zituen musika talde bat sortzeko. Gitarra jotzen zuelako proposatu omen zioten taldean sartzea. Justo eta Jabier Idigoras lehengusuek, Jose Inzak eta berak osatzen zuten taldea hasieran. Gero Inzak utzi egin zuen taldea eta bi urretxuar sartu ziren: Ramon

Arbizu eta Jose Luis Mendia. `Ameslariak´ izena Justo Idigorasek jarritakoa zela uste du.

2.898. Ameslariak taldea "Radio juventud"ek antolatutako lehiaketan (BER-363/018)

1965-1966 inguruan jada hasita zegoen Ez dok Amairu taldearen mugimendua eta sarritan kointziditzen zuten haiekin han edo hemen. Ameslariak taldean euskaraz abesten zuten, ordurako jada euskararen eta kulturaren mugimendua hasita zegoen eta. Eibarko "Radio juventud"ek antolatutako lehiaketara aurkeztu ziren 1968an eta bigarren geratu ziren. Pasaiaiko Oskarbi taldeak irabazi zuen eta hirugarren Bergarako Urretxindorrek taldea geratu zen. Hurrengo urtean berriz aurkeztu ziren eta berriz bigarren egin zuten. Unai bikoteak irabazi zuen.

2.899. Modako kantak abesten zituzten; Letamendiaren hitzak (BER-363/019)

Ez du gogoan Ameslariak taldeak non eman zuen lehenengo kontzertua. Modako abestiak euskaratzen zituzten. Lehenengo diskorako Angiozarko apaiza zen Letamendiak euskaratu zizkien kantak. Bigarren diskoan beraiek sortutako bi kanta sartu zituzten eta orduan ere Letamendiak egin zituen hitzak. Taldea desegin egin zen gero.

2.900. 60-70eko musika taldeen loraldia (BER-363/020)

60-70eko hamarkadan musika talde asko sortu zen eta asko animatu ziren abestera: Urretxindorrek, Itxaropena, Estitxu, Maite Idirin...

2.901. Ameslariak, ahots taldea (BER-363/021)

Ameslariak taldean ahotsek zuten garrantzia eta bere gitarra besterik ez zuten laguntzeko. Ilobari `O gu hemen´ kanta gustatzen zaiola aipatzen du. Bi urte iraun zituen taldeak, baina kontzertu asko eman zituzten. Jaialdi asko egiten ziren. Diru gutxi irabazten zuten, baina giroa eta afizioa ziren garrantzitsuenak.

2.902. Ameslariak; bi disko grabatu zituzten Madrilen (BER-363/022)

Xabier Gereño bilbotarraren CINSA diskoetxearekin argitaratu zituzten diskoak. Euskal idazlea zen Gereño, oso euskaltzalea. Euskal afariak ere antolatzen zituen. Diskoak Madrilen grabatu zituzten Fonogram-en. Bigarren diskoa grabatzera joan zirenean, Nino Bravorekin topo egin zuten. Lehenengo diskorako Zarauzko Naia orkestraren laguntza izan zuten. Imanol Urbieta zegoen bertan. Bigarren diskoan Ariznoa dantzalekuan bateria jotzen zuen Felipe Vitoria arrasatearrak eta Julian del Rio gitarra-jotzaile zumarragarrak lagundu zieten.

2.903. Kantuen aukeraketa; Loiola irratirako grabaketak (BER-363/023)

Kantuen aukeraketa denon artean egiten zuten. Justo Idigoras zen Ameslariak taldeko arima. Irratitik hartzen zituzten ideiak. `Oh sinner man´ (`O gu hemen´) kanta atera nahi zuten eta Loiola irratikoei eskatu zieten kanta hori jartzeko, beraiek magnetofoiarekin grabatu ahal izateko. Loiola irratiko Joxe Mari Iriondorekin harremana zuten, beraien kantak grabatzera etortzen zelako magnetofoi hartuta, gero irratian botatzeko. Non grabatzen zuten.

2.904. Entseguak Konbenio kalean, elizaren lokaletan (BER-363/024)

Ameslariak taldekoek Konbenio kalean egiten zituzten entseguak. Pol-pol taberna zegoen behean, goian Kasinoa eta gainean elizarenak ziren hainbat gela ("Juventudes Parroquiales"). Kultura arloko ekintzak egiten ziren han: bilerak, Ernai antzerki taldearen entseguak...

2.905. Euskarazko hitzak grabatzeko, baimena behar (BER-363/026)

Abestien hitzak, grabatzeko baldin baziren, "Información y Turismo"ra bidali behar izaten ziren, baimena lortzeko. Bakarka atera zuen diskorako zazpi letra bidali zituen; bost onartu zizkioten eta bi kanpoan utzi.

2.906. Arrasateko lehiaketa eta bakarkako diskoaren grabaketa (BER-363/027)

1970ean Arrasateko "Noche de promesas" lehiaketan apuntatu zuten lagunek. "Canción testimonio" sailean Benito Lertxudiren kanta bat eta berak sortutako beste bat abestu zituen eta sari bat irabazi zuen. Miguel Rios ekarri zuten sariak ematera. Orduan, Donostian estudioa zeukan Iñaki Beobidek disko bat grabatzea proposatu zion. 1972an kaleratu zuen bakarkako diskoa, bere lau abestirekin. Grabaketaren inguruko kontuak.

2.907. Bakarkako diskoan grabatutako kanten inguruko azalpenak (BER-363/028)

Bakarkako diskoan grabatu zituen kanten inguruko azalpenak. `Poxpoliña begietan´; Uberako apaiz izan zen Azurmendirenak ziren hitzak. `Jai jai´ (`Behin batian Loiolan´). Hitzak jada musikatuta zeuden lehendik, baina berak ez zekien. Handik zazpi urtera Egan taldeak beste bertsio bat atera zuen eta izugarritzko arrakasta izan zuten. `Mutikotxo´ kantaren hitzak lehengusinarekin semeak egin zituen. Laugarren kanta `Basatxoritxu´.

2.908. Los Mansos taldearekin batu zenekoa (BER-363/029)

1972an atera zuen diskoan orkestraren musika zegoen atzean. Zuzeneko kantaldietarako ere orkestra bat behar zuela pentsatu zuen eta jada utzita zeuden Los Mansos taldekoekin elkartu zen. Lau urtez jardun zuten elkarrekin.

2.909. Akelarre taldearen sorrera (BER-363/030)

Los Mansos taldearekin bat egin eta Akelarre taldea sortu zuten. Musikari eta abeslari asko pasatu da bertatik. Xabier Madina izan zen bere ondorengo abeslaria eta gero Anje Duhalde. Xabier Madinaren inguruko kontuak. Erromerietako taldea zen eta, ordu asko jo behar zituztenez, euskaraz eta gaztelaniaz abesten zuten. Hasierako partaideak: Juan Luis Ibarzabal, Ramon Aranzasti, Ramon Pia, Jose Campronero, Jose Antonio Ruiz eta bera. Beretzat martxa handiegia zenez, hiru urte egin ostean utzi egin zuen eta Ariznoa dantzalekuko taldera pasa zen.

2.910. `Kikio´rekin Parisera eta beste hainbat lekutara (BER-363/032)

Garai batean Euskal Telebistan Egan taldearen inguruko saio batzuk egin zituzten eta saio bakoitzean gonbidatuak egoten ziren. Behin bera eta Luis Larrañaga `Kikio´ joan ziren. Hark txirula jotzen zuen eta asko ibili ziren

elkarrekin. 1976an, Akelarre utzi eta gutxira, Akelarre taldeak kontzertu luze bat zuen Parisen eta haiekin joan ziren. Melillan eta Bartzelonan ere jo zuten.

2.911. Ariznoa dantzalekuko orkestran (BER-363/033)

Zazpi urte egin zituen Ariznoa dantzalekuko orkestran. Bertako kideak: Felipe Vitoria bateria-jotzailea, Eusebio Gomez, Urtubai eta Geoncio tronpetistak, Sagastume soinu-jotzailea. Jose Antonio Villar zen abeslaria bera sartu zenean, baina berehala utzi zuen. Arzinoako giroa; inguru guztietako jendea joaten zen. Dantzan egiteko musika jotzen zuten eta erreperitorio gehiena gaztelaniaz zen. 37 urterako ibilbide luzea egin zuen musikan eta utzi egin zuen.

2.912. Ernai antzerki taldearen lehen emanaldia Bergaran (BER-363/035)

Jose Alvarezek egiten zituen arotz lanak Ernai antzerki taldean. Lehenengo antzezlan Bergarako "Salón Novedades"en egin zuten eta hurrengo Eibarren izan zela uste du. Gero soldadutzara joan behar izan zen.

2.913. Entsegu ofizialaren ostean tabernetako entsegura (BER-363/036)

Txomin Amasorrain nolakoa zen. Urretxindorrek taldekoekin harremana zuen, Altos Hornosekoak zirelako. Beraiek ezagutzen zituzten Urretxindorrek taldekoak, baina ez zuten harreman berezirik. Behin Elorrión batera abestu zuten. Gotzon Bikuñarekin Ernai antzerki taldean kointziditu zuen. "Juventudes Parroquiales"en lokalean egiten zituzten entseguak, Konbenio kalean. Amaitutakoan, txikiteora. Tabernetan entseatzen zutela dio. Txominek edaten zuen pattarra: Gainjantzi beltz.

2.914. Ernai antzerki taldearen arrakasta (BER-363/038)

Ernai antzerki taldea. `Malentxo alargun´ obran don Victor-en papera egin zuen. Arrakasta izan zuten; "Salón Novedades"en egin zen estreinaldian sarrerak agortu ziren eta bigarren saio bat egin behar izan zuten. Lau obra egin zituzten guztira. Beste bi antzezlan ere prestatu zituzten, baina, politika kontuak tarteko, taldea desegin egin zen. Bera ordurako Ameslariak taldean zebilen.

2.915. 10-12 urterekin Migel Okinaren marrazketa klaseetara (BER-363/042)

Migel Okinaren marrazketa klaseetara joan zen bi urtez 10-12 urterekin. Iluntzeetan izaten ziren, plazan. Mutilak bakarrik. Udalak diruz lagundutako eskolak ziren. Euskaraz hitz egiten zuten bertan. Harreman handia izan zuen Okinarekin eta oporretara ere joan ziren behin elkarrekin. Simon Arrieta ezagutu zuen, baina ez zuen harremanik izan harekin.

2.916. Ernai antzerki taldeko kideak (BER-363/045)

2015ean Diario Vasco egunkarian Ernai antzerki taldearen inguruan egin zuten erreportajea. Taldeko hainbat kideren izenak. `Malentxo alargun´ obran parte hartu zutenen argazkia.

2.917. Lagun Artea abesbatzaren eta Ameslariak taldearen argazkiak (BER-363/047)

Hainbat argazki erakusten ditu. Bergarako San Martin elizako on Nikomedes apaizak zuzentzen zuen Lagun Artea abesbatza. Ameslariak taldearen argazkiak. Lehenbizikoa Letamendia apaizak egindako marrazkiekin.

2.918. Urretxindorrek eta Ameslariak taldeetako kideak elkarrekin (BER-363/051)

Urretxindorrek eta Ameslariak taldeetako kideek Elorrion elkarrekin abestu zuten jaialdi batean. Orduko argazkia.

2.919. Argazkia: Iñaki Arriaran eta `Kikio´ (BER-363/052)

Bolada batez Luis Larrañaga `Kikio´rekin batera ibili zen. Sudurrarekin jotzen zuen txirula. Argazkia erakusten du.

2.920. Etxean eta auzoan giro euskalduna (BER-364/002)

Aita bilbotarra zen eta ez zuen euskaraz egiten, baina ulertu bai. Aitajaunarekin eta amandrearekin bizi ziren eta etxean dena euskaraz egiten zuten. Auzoan euskaraz egiten zuten, baina lau urterekin Mariaren Lagundian hasi zen eskolan eta han dena gaztelaniaz zen

2.921. Mariaren Lagundian neskak; mutilak haur-hezkuntzan bakarrik (BER-364/004)

Begoña ibili zen sasoiari, Mariaren Lagundia ikastetxeak bi zati zituen: ordaindutako eskola eta publikoa. Irakasleak desberdinak ziren batean eta bestean. Neskentzako bakarrik zen, baina haur-hezkuntzan mutilak ere egoten ziren. Mutilak gero eskola publikora edo Bidegurutzetako ikastolara joaten ziren. Gero handik Akademiara.

2.922. Lau urterekin hasi zen Mariaren Lagundian; dena gaztelaniaz (BER-364/006)

Lau urterekin Mariaren Lagundia ikastetxean hasi zen. Ordaindutako eskolak eta ordaindu gabekoak zeuden eta bera ordaindutakoetara joan zen. Gerora jakin zuen ezberdintasun hori zegoela. Uniformea. Maiatzean prozesioak. Eskolan hasi zenean hasieran ez zuela gaztelaniaz tutik ere jakingo dio. Baina gerora eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten.

2.923. Urtebete institutuan eta berriz Mariaren Lagundira (BER-364/008)

Eskolan dena gaztelaniaz egiten zuten eta lagunekin ere hala egiten zuen. Mariaren Lagundia ikastetxean moja batek egiten zuen euskaraz, baina gainontzeko guztiek gaztelaniaz. Hirugarren mailara arte ibili zen bertan eta gero orduantxe ireki berria zen institutura pasa zen laugarren maila egitera. Hurrengo urtean Mariaren Lagundira itzuli zen, Lanbide-Heziketan Administrazio-ikasketak egitera. Institutuko irakasleak. Han ere dena gaztelaniaz.

2.924. Mariaren Lagundian euskaraz irakatsi zuen lehen irakaslea izan zen (BER-364/009)

Administrazio-ikasketak egin zituen, baina lan falta hasi zen garai hartan. Mariaren Lagundia ikastetxetik moja bati eskolak ematen laguntzera joateko

proposamena egin zioten eta halaxe hasi zen 1975ean, 16 urterekin. Hurrengo ikasturtean bera bakarrik hasi zen talde batekin eta bertan lan egin du, erretiroa hartu arte. Franco hil ostean hasi ziren aldaketak Mariaren Lagundian. Mariasun Calvo zuzendariak euskara sartzten hasi behar zirela esan zion eta bera izan zen euskaraz irakatsi zuen lehen irakaslea.

2.925. Magisteritza eta euskarazko alfabetatzea, irakasle lanean hasi eta gerora (BER-364/011)

Ikasketa guztiak gaztelaniaz egin zituenez, euskaraz alfabetatu gabea zen. Euskara etxeko hizkuntza zuelako hasi ahal izan zen euskaraz irakasten. Gerora hainbat ikastaro egin zituen euskaraz alfabetatzeko. Gerora, Magisteritza ikasketak ere egin zituen Eskoriatzan, euskaraz, eta han lortu zuen irakasle titulua.

2.926. Auzoko lagunekin euskaraz; eskolakoekin gaztelaniaz (BER-364/013)

Franco hil aurretik euskararekiko zer jarrera zuten Mariaren Lagundia ikastetxean. Ez zuen zigorrik jaso izan euskaraz egiteagatik, baina hara sartutakoan dena gaztelaniaz egiten zuten. Auzoko lagunekin txiki-txikitatik euskaraz izan zen harremana eta gerora ere hala jarraitu zuen, nahiz eta eskolan gaztelaniaz egin. Eskolako lagunekin, berriz, beti gaztelaniaz.

2.927. Pol-pol mendizale elkartean giro euskalduna; Serafin Esnaola (BER-364/014)

Doktrina eta jaunartzea gaztelaniaz egin zituen. Bere aita Pol-pol mendizale elkartearen lehendakaria izan zen eta igandeetan mendira joaten zen haiekin. Han bai egoten zen giro euskalduna. Serafin Esnaola abadearekin izan zuen harremana. Harekin ere beti euskaraz. Lan handia egin zuen euskararen alde. Pol-pol mendizale elkartean ere oso sartuta zegoen eta irudiak grabatzen ibiltzen zen.

2.928. Mariaren Lagundia ikastetxean eskolak euskaraz ematen hasi zeneko kontuak (BER-364/018)

Mariaren Lagundia ikastetxean eskolak euskaraz ematen hasi zeneko kontuak. 3 urteko 41 ume izan zituen lehen urtean. Umeek liburutxo bat zeukaten eta fitxak ere egiten zituzten. Asko jolasten zuten. Beste irakasleak. Mojen artean bazeuden euskaraz zekitenak. Batzuek gerora ikasi zuten.

2.929. Euskalduntze prozesua Mariaren Lagundia ikastetxean; B eredia (BER-364/021)

Begoña izan zen Mariaren Lagundia ikastetxean euskaraz eskolak ematen hasi zen lehenengoa, 3 urteko umeekin. Ondoren, Pilare hasi zen 4 urtekoekin. Lekuz aldatu zirenean, beste bi irakasle sartu ziren eta euskarazko eskola gehiago ematen hasi ziren. Hasieran D eredia zen, baina B eredia ere sartu behar izan zuten, ama hizkuntza gaztelania zuten ume asko zeudelako. Euskalduntzea haur-hezkuntzatik hasi zuten eta eskola osora zabaltzen joan zen. Irakasleak ere euskaldundu egin behar. Irakasle asko errioxarrak ziren.

2.930. Mariaren Lagundiko mojak eta "hermanita"k (BER-364/022)

Mariaren Lagundiko mojen artean mailak zeuden: mojak eta "hermanitak". Mojak dotea zutenak izaten ziren, eskolak ematen zituztenak eta gaztelaniaz

hitz egiten zutenak. "Hermaniten" artean, berriz, inguruetakoak ziren asko, euskaldunak; haiekin harremana euskaraz izaten zen. Mojen artean, asko espainiarrak ziren, baina bazeuden bertako nazionalistak ere.

2.931. Baserritarrei edo euskaraz egiten zutenei barre egiteko joera (BER-364/023)

Beraiek ez dute ezagutu eskolan zigorrik euskaraz hitz egitearren. Begoña Iturbek gogoratzen du Angiozarko ikaskideek elkarrekin euskaraz egiten zutenean, gelakide batzuek barre egiten zietela. Garai batean bazegoen baserritarrei edo euskara gehien egiten zutenei barre egiteko joera.

2.932. Ama euskaraz egiten saiatzen zen, ondo jakin ez arren (BER-364/026)

Iturbe kale-baserrian jaio zen. Aitak euskaraz egiten zuen, baina amak ez zekien oso ondo. Aitajauna nafarra zen. Umetan bazekien euskaraz, baina gurasoak hil zirenean Madrilera eraman zuten eta ahaztu egin zuen euskara. Begoñaren ama beraiei euskaraz egiten saiatzen zen, umeak zirenean. Aita gazterik hil zen, baina auzoan bizi ziren amamak eta izebak euskaraz egiten zuten. Lau urterekin hasi zen eskolan eta han dena gaztelaniaz. Anai-arreben artean gaztelaniaz egiten zuten eta auzoko lagunekin bietara egingo zuela uste du.

2.933. Anaia nagusia ikastolara; neskak Mariaren Lagundira (BER-364/027)

Anaia nagusiagoa ikastolara joan zen lehenbizi eta gero handik Akademiara. Ahizpa eta biak Mariaren Lagundian ibili ziren. Ama eta izeba ere bertan ibili ziren eta hura zen ordua neskentzat eskola ohikoena. Anaia gazteena Labe Garaietako eskolan ibili zen lehenbizi eta gero eskola publikoan.

2.934. Ordaindutako eskolak eta doakoak Mariaren Lagundian (BER-364/028)

Mariaren Lagundia ikastetxean ordaindutako eskolak eta doakoak egoten ziren. Bera ordaindu gabekoetara joaten zen, baina ez du oroitzapen txarrik. Bazeuden ezberdintasun txiki batzuk: ordaintzen zutenek uniformeaz zeramaten, adibidez. Leku ezberdinetan egoten ziren eta ez ziren nahasten. 11 urterekin doako eskoletakoek ere aukera izan zuten Batxilergoa egiteko eta han denak bateratu ziren. Hiru urte egin zituen Mariaren Lagundian eta gero institutuan jarraitu zuen.

2.935. Nola hasi zen irakasle lanean haur-hezkuntzan (BER-364/029)

Administrazio-ikasketak egin zituenean, ea euskaraz zekien galdetu zioten, haur-hezkuntzan eskolak ematen hasteko. Horrela hasi zen irakaskuntzan lanean eta gerora atera zuen Magisteritza titulua. Orduan jendeak ez zuen nahi izaten haur-hezkuntzan lan egiterik eta, gainera, ez zegoen euskaraz egiten zuen jende asko.

2.936. Gaztetatik euskal giroan: Elementaleko euskara eskolak, kultura, "Juventudes parroquiales" (BER-364/030)

15 urte inguru zituela, Elementalean ibili zen euskara ikasten lagun batekin batera. Uriarte eta Juaristi irakasleak ditu gogoan. On Serafinek eramaten zituen gero etxera. Bazuen euskal giroko lagun taldea eta euskaraz hitz

egiteaz gain, euskal kultura kontsumitzen zuten, esaterako, Ez dok Amairu taldekoen kontzertuetara joaten ziren. "Juventudes parroquiales"en oso sartuta egon zen eta denera apuntatzen ziren.

2.937. "Juventudes parroquiales", gazteen bilgunea; era askotako ekintzak antolatzen zituzten (BER-364/031)

"Juventudes parroquiales", gazteen bilgunea. 18 urte behar ziren sartzeko, baina beraiek aurretik hasi ziren, tranpak eginda. Musika, kontzertuak, kabalgatak... Dantzari eguna ere bertatik antolatzen zen. Gauza asko antolatzen ziren. Konbenio kalean zegoen eta apaizena zen lokala. Zuzendaritzan batek gidatzen zuen; beraiek ere egon ziren zuzendaritzan. Hilero bazkidetza ordaintzen zen. Taberna ere bazegoen eta handik ere lortzen zen dirua. Aste bakoitzean kuadrilla batek zuen tabernaren ardura.

2.938. Ariznoako musika; kontzertuak eta bertsolariak frontoian (BER-364/032)

Bera gaztea zenean, Urretxindorrek taldea zegoen Bergaran. Ameslariak eta Urretxindorrek taldekoak beraiek baino zaharragoak ziren. Ariznoa dantzalekuan musika egoten zen; "El pozo" deitzen zioten. Iñaki Arriaranek jotzen zuen han. Euskal abeslariak edo kontzertuak frontoian egoten ziren. Bertsolariak ere egoten ziren. Beraiek beti joaten ziren, nahiz eta hasieran behintzat piperrik ulertu ez.

2.939. Euskal dantza klaseak (BER-364/036)

Begoña Iturbek dio 18 urte ingururekin Aranzadi ikastolan hasi zirela hiru lagun Moisesekin euskal dantzak ikasten. Begoña Kapanagak, berriz, dio bera Ramon Etxaniz txistulariarekin ibili zela Zabalotegin euskal dantzak ikasten 12-13 urte zituela.

2.940. Jende asko UNEDeko euskara eskoletara (BER-364/039)

Mariaren Lagundian irakasle lanean zebiltzanean, eskolan bertan jasotzen zituzten euskara hobetzeko zenbait ikastaro. Gerora, UNEDen hasi zen D eredu ateratzeko. Jende asko etortzen zen kanpotik, euskal giroa egoten zen. Bergarako tabernetan jendeak egiten zizkien komentarioak. Sasoi batean sarrera-azterketa egiten zen eskaera handia zegoelako.

2.941. Zenbait kuadrillak gaztelaniaz egiteko ohitura (BER-364/040)

Beraiek lagun-taldean euskaraz egiten zuten arren, adineko jendeak gaztelaniaz egiten zuen Bergaran. UNEDera zetorren jendearekin euskara gehiago entzungo zen. Garai batean gaztelaniaz egiten zuten batzuek gaur egun euskaraz egiten dute. Garai batean gaztelania dotoreagoa zela eta euskara baserritarrena zela uste zen. Ohitura-kontua ere bada: behin pertsona batekin gaztelaniaz egiten ohitutakoan, zaila izaten da euskarara aldatzea.

2.942. Mariaren Lagundia euskalduntzen; gurasoen mugimendua (BER-364/043)

Begoña Iturbe Mariaren Lagundia ikastetxean lanean hasi zenean, hasieran ez zen erraza umeei euskaraz eginaraztea. Hiru urteko umeen artean askok ez zekiten euskaraz. Pixkanaka kaleko giroa ere aldatzen joan zen, guraso euskaldunei esker, eta euskararen aldeko mugimendu bat egon zen. Hasieran

D eta B ereduak egon ziren, baina pixkanaka eskola euskalduntzen joan zen dena D eredura pasa arte.

2.943. Mariaren Lagundia euskalduntzen; irakasleak, urteetako lana (BER-364/044)

Mariaren Lagundia ikastetxearen euskalduntze prozesua. Pixkanaka egin zen, haur-hezkuntzatik hasita. Irakasleak ere euskaldundu egin behar izan ziren. Beraiek sartu zirenean hasi zen aldaketa. Hasieran zuzendariak ere gaztelaniaz egiten zuen eta klaustroak ere gaztelaniaz ziren.

2.944. Eskolatik kanpora ere euskal giroa bultzatu nahian (BER-364/045)

1975ean hasi zen Bego Kapanaga lehenengo euskarazko eskolak ematen Mariaren Lagundia ikastetxean eta handik aurrera hasi ziren aldaketak. Euskal giroa txertatzen joan ziren pixkanaka. Santa Ageda bezperan guraso eta umeein kalera irteten ziren. Aranzadi ikastolarekin batera tonbola ere antolatu zuten plazan, dirua biltzeko. Kalera irten beharra ikusi zuten, kaleko giroa euskalduntzeko beharra zegoelako.

2.945. Mariaren Lagundia: mojen ikastetxe izatetik ikastola izatera (BER-364/046)

Mariaren Lagundia mojen ikastetxe izatetik ikastola bihurtzera bitarteko prozesua. Mojen erabakia zergatik izan ote zen: ikastetxeak ez zuela etorkizunik eta beharrezkoa zela aldaketa ikusiko zuten. Espainian zehar Mariaren Lagundiaren eskola gehiago daude. Kristau eskola izateaz gain, ikastola ere bada; eskolaren izaeraz.

2.946. Mariaren Lagundiaren aldaketa izugarria; metodologia aldatu beharra (BER-364/047)

Beraiek Mariaren Lagundia ikastetxean ikasi zuten, eskolaren aldaketa-prozesu guztia ikusi dute. Aldaketa handiena garai batean dena gaztelaniaz zela eta guztiz euskaldundu zela. Metodologia nola aldatu den urteetan zehar. Beraiek ez dute Xabierto liburua erabili izan. Chiquitin liburuak, gaztelaniaz. Pilar Lonarbideren metodologia. Haren ipuinak oraindik erabiltzen dituztela diote. Beharrezkoa da metodologiak berritzea, aurrera egiteko.

2.947. Verdury hall, Ariznoa eta Egan taldea (BER-364/049)

Verdury Hall plazan; dantzara joaten ziren. Ariznoa dantzalekuari "El pozo" deitzen zioten. Igandeetan musika egoten zen: "Espuela fin de semana". Iñaki Arriaranek jotzen zuen zuenean. Errege bezperan Egan taldea egoten zen.

2.948. Ez dok Amairu taldekoen kontzertuak frontoian (BER-364/051)

Ez dok Amairuko kideek frontoian kontzertua ematen zutenean, jendez beteta egoten zen. Gaztetxoak ziren, baina Begoña Iturbek dio kontzertu guztietara joaten zirela.

2.949. Garai bateko giro politiko gogorra eta manifestazioak (BER-364/052)

Garai bateko giro politikoa. Ikurrina debekatuta zegoen. Begoña Kapanagak gogoan du noiznahi guardia zibilak joaten zirela etxera eta atzean ikurrina zuen koadroa ganbaran ezkutatzen zutela, beldurrez. Ikurrinaren legeztatzea.

Manifestazio asko egoten ziren eta denetara joaten ziren, gazteak oso inplikaturak zeuden. Guardia zibilak agertzen zirenean, korrika. Garai gogorra izan zen. Aldaketa handiak bizi izan zituzten, bai politikoki, bai sozialki eta baita beste hainbat arlotan ere. Zenbait gertaera esanguratsu.

2.950. Bonba-abisu faltsuak ikastetxean (BER-364/057)

Garai batean ikastetxean telefono-deiak izaten ziren bonba bat zegoela esanez. Lehenengo abisuarekin oso gaizki pasatu zutela gogoratzen du Begoña Kapanagak. Ume guztiak kanpora atera behar izan zituzten eta gurasoak etorri ziren haien bila.

2.951. Aurrekoek euskaraz egitearren jasotzen zituzten zigorrak (BER-364/059)

Euren gurasoek garai gogorrak bizi izan zituzten euskararen erabilerari dagokionez. Begoña Iturberen amari ez zioten uzten euskaraz hitz egiten Mariaren Lagundian. Izeba, berriz, Labe Garaietako eskolara joaten zen eta jo egiten omen zuten; askotan bidean geratzen zen eskolara joan gabe, beldurrez. Begoña Kapanagaren amandeari potoak lotzen omen zizkioten zigor moduan, euskaraz egiteagatik.

2.952. Bergaran auzoetakoek bakarrik egiten zuten euskaraz (BER-367/004)

Osintxuko eskolan ibili zen 10 urte ingurura arte. Lagunen artean dena euskaraz, gaztelaniaz ia jakin ere ez. Maisu batek zigortu egiten zituen euskaraz egitearren. Gero, Bergarara joan zen Eskola Profesionalera. Irakasle gehienekin gaztelaniaz, baina zigorrik ez zuten jasotzen euskaraz egiteagatik. Kanean gaztelania zen nagusi. Auzoetakoek bakarrik egiten zuten euskaraz.

2.953. Euskara-eskolak Bergarako Enseñanzen Ramon Saizarbitoriarekin (BER-367/005)

Amasorrain eta Oregi euskara klaseak ematen hasi ziren Bergarako Elementalean gau-eskola modura. Bera Enseñanzen ibili zen gau-eskolan euskarazko klaseetan Ramon Saizarbitoriarekin. Klase horietara joateko, autobus berezia zegoen Elgoibartik; Osintxutik 2-3 lagun joaten ziren.

2.954. Euskarazko hitzak onartzeko, itzulpena aurkeztu behar Gobernuaren delegazioan (BER-367/008)

Kanta baten euskarazko hitzak onartzeko, gaztelaniara itzulita aurkeztu behar izaten ziren Espainiako Gobernuaren delegazioan. Gogoan du behin Elkorekin joan zela. "El burro y el águila real". Orduko kontuak.

2.955. Euskararen edo euskal kulturaren inguruko ekitaldi guztietara (BER-367/010)

"Juventudes Parroquiales" taldean ibili zen, baina denbora gutxian. Orduko giro politiko-sozialari aurre egitea zen beraien helburua. Euskararen edo euskal kulturaren inguruko ekitaldi guztietara joaten ziren, beste herri batzuetara ere bai. Gogoan du 1970 inguruan Ataunen Barandiarani egin zitzaion omenaldia

2.956. Osintxun euskaraz; ama eta osabak Arabara gaztelaniaz ikastera (BER-367/016)

Osintxun jaio zen, baserri txiki batean. Aitak eta aitona lantegian lan egiten zuten, baina pare bat behi eta ortua izaten zituzten. Ama ortuko gauzak saltzera joaten zen. Bi anaietatik gazteena da. Etxean dena euskaraz. Bere ama eta haren anaiak Araba aldean gaztelania ikasten ibiliak ziren. Osintxun ez zegoen etorkinik eta ez zen erabiltzen gaztelaniarik, administrazioan salbu.

2.957. Tutik ere ez zekien gaztelaniaz, eskolan hasi zenean (BER-367/017)

Berak ez zekien tutik ere gaztelaniaz eskolan hasi zenean. Maisua erdalduna zen, baina jatorra. Ez zuen zigor askorik jasotzen, isil samarrak egoten zelako, baina debekatuta zegoen euskaraz egitea.

2.958. Beraiek hasi ziren euskal giroko ekitaldiak antolatzen Osintxun (BER-367/018)

Osintxu baserri-giroko auzoa zen, nahiz eta ordurako industria asko sartuta egon. Apustuak egiten ziren, baina kultura-arloko kontu gutxi. Ez zen erraza, dena debekatuta zegoelako eta gauza guztietarako onespena behar zelako. `Basarri´ eta `Uztapide´ bertsolariak egoten ziren jaietan. Beraiek hasi ziren euskal kulturarekin lotutako kontuak jartzen.

2.959. Euskal kulturaren loraldia; Ez dok Amairu Bergaran (BER-367/019)

Beraiek Eskola Profesionalean zebiltzala, izugarritzko kultur-mugimendua edo loraldia egon zen Euskadi osoan: kantaldiak, bertso-saioak, errezitaldiak... Politikoki ere mugimendu handia zegoen: alderdi desberdin ugari. Inguruetan zeuden ekitaldi guztietara joaten ziren. Ez dok Amairu taldearen lehen kantaldia Novedades aretoan. Letek egin zituen aurkezle lanak; bere burua nola aurkeztu zuen. Arrate eta Loiola irratiek euskal musika zabaltzeko izan zuten garrantzia.

2.960. Elementalean euskaraz egiten zutenei "caseros" (BER-367/020)

Elementalean (Eskola Profesionalean) zebiltzanean, "caseros" esaten zieten. Antzuolakoek eta auzoetakoek bakarrik egiten zuten euskaraz. Guraso eta aiton-amona euskaldunak zituzten bergararrek ere gaztelaniaz egiten zuten.

2.961. Euskararen eta euskal kulturaren aldeko konpromisoa (BER-367/021)

Bergara auzo txikia zen eta Bergarara joaten ziren, lagunak ere asko hangoak ziren eta. Euskal kulturaren inguruko kontuak antolatzen hasi zirenak gai horren inguruko ezinegonak batu zituen. Orduan konprometitua eta arriskutsua zen, edozer gauzogatik atxilotzen zituzten eta. Beste askok nahiago zuten erosotasunean bizi. 1974an Urrats berriak hamabostaldia antolatu zuten jende askoren inplikazioarekin.

2.962. "24 ordu euskaraz" ekimena I (BER-367/022)

Loiolako herri-irratia antolatutako "24 ordu euskaraz" ekimena Anoetan. Herri askotako jendea ibili zen bilerak egiten, jendea animatzen...

2.963. Egin egunkariaren sorreran laguntzen (BER-367/023)

Egin egunkariaren sorreran laguntzen ibili ziren. Dirua batzeko zer egin zuten; 2000 pezetako txartelak. Bergaran ia hiru miloi pezeta batu ziren. Orduan ia ez zegoen euskarazko prentsarik. Egin ere ez zen dena euskaraz. Herritik sortu zen.

2.964. "24 ordu euskaraz" ekimena II (BER-367/025)

"24 ordu euskaraz" ekimena Loiola herri-irratia antolatutakoa izan zen. Jose Ramon Beloki izan zen arduradun nagusia. Bergara inguruko arduraduna Joseba Azkarraga izan zen. Joxe Mari Iriondo ere tartean ibili zen.

2.965. Euskararen eta euskal kulturaren alde, alderdi politikoetatik at (BER-367/027)

Jendea bere kabuz ibiltzen zen herri-ekimenetan edo kultur-ekintzetan laguntzen. Egin egunkariaren sorreran ere hala izan zen, adibidez. Bergaran denek ezagutzen zuten elkar eta bazekiten nor egon zitekeen laguntzeko prest. Beraiek ez zuten izan loturarik alderdi politikoekin.

2.966. Ez dok Amairu taldearen arrasto garrantzitsua (BER-367/028)

Ez dok Amairu taldea. Desadostasun politikoengatik desegin ote zen. Arrasto handia utzi zuten, idoloak ziren. Bertako partaideetako batzuk aipatzen dituzte: Lertxundi, Lete, Lurdes Iriondo, Antton Valverde... Katalanekin harreman handia zuten eta elkarrekin egiten zituzten jaiadiak; Lluís Llach-ek, esaterako, jende asko mugitzen zuen.

2.967. Ernai antzerki taldearen arrakasta (BER-367/029)

Ernai antzerki taldeak arrakasta handia izan zuen. Ezin izaten ziren gai politikoetan sartu. Zenbait antzezlan aipatzen dituzte: "Txalupa jaberik ez", "Ordu eroslea"... Inguruko herri guztietara joaten ziren. Antzezle onak izateak baino euskaraz izateak zuen arrakasta. Txomin Amasorrain eta Juste Amenabar ziren arduradun nagusiak. Antzezle gehienak beraiek baino zaharxeagoak.

2.968. Moises Azpiazu dantzaria (BER-367/031)

Dantza edo trikiti txapelketak antolatzeak ez zuen hainbesteko arazorik sortzen, folklorea zirenez, Erregimenak oztoporik jarri gabe onartzen zituelako. Moises Azpiazu dantzari osintxuarra. Bergaran dantza-eskola jarri zuen.

2.969. Mendizaletasuna abertzaletasunarekin lotuta (BER-367/032)

Mendizaletasunak lotura handia izan zuen euskal kulturaren loraldian; mendizaletasuna abertzaletasunarekin lotzen zen. Mendian ez zen guardia zibilik egoten eta askatasun gehiago zuten han, hitz egiteko edo edozertarako. Pol-pol mendizale elkarteak. Serafin Esnaola, oso euskaltzalea, herriarekin lotura.

2.970. UNEDen sorrera; lehenengo Magisteritza eta euskara tituluak (BER-367/034)

Bergaran UNED martxan hasi zenean, mugimendu handia sortu zen Bergaran. Ordura arte inork ez zuen euskarazko titulurik. Lehenengo Magisteritza eta

euskara tituluak. Hasierako ikastoletan lanean jardun zuten titulurik gabeko andereñoek, Magisteritza titulua lortzeko aukera izan zuten. Bittorrek UNEDen atera zuen EGA titulua. Juan Martin Elexpuru, Jon Lopategi eta Jerardo Elortza izan zituen irakasle.

2.971. Zumeta margolariaren proposamena Bergarako kultur-hamabostaldian (BER-367/035)

Zenbait herritan kultur-asteak antolatzen hasiak zirela eta Bergaran zerbait handiagoa antolatzea pentsatu zuten: "Urrats berriak" hamabostaldia. Joxean Artze eta beste zenbait lagunekin batu ziren, aholkuak jasotzeko. Zumeta margolariaren ideia: umeez mozorroen marrazkiak egin eta gero benetako irudiak sortu. Sekulako lana izan zen. Margola tindategikoek arropak tindatu zizkieten. Izugarritzko ikuskizuna izan zen. Plazan erre ziren gero mozorro guztiak.

2.972. Bergarako "Urrats berriak" kultur-hamabostaldia (BER-367/036)

"Urrats berriak" kultur-hamabostaldia. Egunero zegoen zerbait. Garaiko artista onenen lanekin erakusketa egin zen udaletxean. Liburu eta disko azoka egon zen egunetan. Bertso-jaialdia. Umeentzat pailazoak eta txotxongiloak, abesbatzak... Plazaren erdian txondorra egin zen eta egunetan egon zen erretzen. Artisauak ere egon ziren: kaiku egileak, uztarri egileak, otarra egileak... Frontoian egin zen bertso-saioan sekula egon den jende gehien egongo zela dio Bittorrek. Halako ekitaldiak "Eusko gudariak" abestuz amaitzen ziren. Hitzaldiak; zeri buruz eta nork eman zituen. Fernando Larruquet-en Amalur euskarazko lehen filma Iralan. Kontzertua: Pi de la Serra, Arze anaiak eta Laboa. Pi de la Serrak ezin izan zuelako abestu sortu zen iskanbila. Gero ikastola azpian zegoen alargunen elkartean abestu zuen.

2.973. Bergarako kultur hamabostaldia: jende askoren inplikazioa eta parte-hartzea (BER-367/037)

"Urrats berriak" kultur-hamabostaldia. Dena antolatzeko dirua behar zen eta hainbat talderen partaidetza bultzatu zuten. Jendearen parte-hartzea oso handia izan zen. Luis Lascurain zen alkatea garai hartan.

2.974. 1965eko Bergarako Aberri Eguna (BER-367/044)

1965eko Bergarako Aberri Egunean egon zen Jose Ramon. Trenez joan zen Osintxutik. Goiko estazioan jaitsi eta ea zertara zihoan galdetu zioten. Inguruko mendi guztietan jendea ikusten zen, asko oinez joan ziren eta. Trenez joaten zirenei, jaitsi orduko nortasun-agiriak kentzen zizkieten. Monzon hegazkinean pasa zenean, jendea txaloka. Gasteizko Aberri egunean ere egon zen 18 urterekin.

2.975. Frankismoko azken urteetako giro nahasia (BER-367/045)

1977an ikurrina legeztatzea. "Urrats berriak" kultur-hamabostaldia artean Franco bizi zela antolatu zuten. Bittorrek kontatzen du poster batzuen bila Usurbilera joan behar zirela eta manifestazioagatik auto barruan harrapatuta geratu zirela. Guardia zibilak tiroka. Orduko bizipenak eta pasatako beldurra. Monzon hil zeneko kontuak. "Txibato"en beldur izaten ziren, edozeinek denuntzia jar zezakeen eta.

2.976. Xabier Leteren eskutitza, kultur-hamabostaldiagatik zorientzen (BER-367/048)

Xabier Letek 1975 hasieran bidali zion eskutitza irakurtzen du Jose Ramonek. Bergaran antolatu zuten kultur-hamabostaldiagatik zorientzeko idatzi zion.

2.977. Etxean beti euskaraz (BER-368/003)

Etxean dena euskaraz eta osaba-izeba edo lehengusuekin ere bai. Amaren osabek taberna zuten, Arandonekoa (Bergarako bigarren batzokia). Kanean gaztelaniaz egiten zuten, auzoko lagunek hala egiten zutelako.

2.978. Mojen eskolan dena gaztelaniaz (BER-368/005)

Etxean dena euskaraz, baina kanean eta eskolan dena gaztelaniaz. Mojetara joan zen. Gaizki pasatu zuen umetan gaztelaniaz ez zekielako, baina zigorrik ez zuen jaso sekula horregatik. Bidegurutzetan bazkaltzen zuen aitajauna-amandreen etxean eta amamak "Así es España" liburuko orri bat irakurrarazten zien egunero. Moja batekin gertatutako pasadizoa

2.979. Mojen eskolan kategoria ezberdinak (BER-368/006)

Mojen eskolan kategoria ezberdinak zeuden: barneko ikasle gisa zeudenak, eskolengatik ordaintzen zutenak eta ordaintzen ez zutenak. Bera ordaindutako eskoletan ibili zen. Bi uniformeak zeuzkaten: egunerorako bat eta egun berezietarako beste bat. Zapatilak izaten zituzten eskolan, bertan aldatzeko eta baita amantala ere. Elizara joateko beloa ere bai.

2.980. Magisteritza ikastera Donostiara (BER-368/009)

Batxiler laborala egin zuen, zazpi urtekoa, Mariaren Lagundia eskolan. Gero Donostiara joan zen Magisteritza ikastera. Ikasketak bukatutakoan, Bergarako ikastolan ibili zen lanean bi urtez eta gero kabinete psikopedagogiko batean beste hiru urtez. 1979an Iralan, ikastetxe publikoan, hasi zen lanean, oposizioak aterata. Magisteritza ikasten ibili zenean, Donostian egon zen Andereñoen erresidentzian eta eskolaz kanpo euskara-klaseak jaso zituen.

2.981. 1974an Bergarako ikastolara lanera (BER-368/011)

1973an Antzuolako ikastolan egon zen hilabete batzuetan, ordezkapen bat egiten. Gero, 1974an Bergarako ikastolan hasi zen lanean. 6-7 urteko umeekin lan egin du beti. Ikastolatik egiten ziren diru batzeak. Taberna jartzen zen. Gogoan du behin kantuan eskean batutako dirua Segurako umezurztegi batera eraman zutela.

2.982. Cainzosekin heziketa berezia eta psikomotrizitatea lantzerantz (BER-368/014)

Bergarako ikastolatik Cainzosek zuzentzen zuen psikopedagogia kabinetera joan zen, beste leku batzuetan lantzen ez ziren arloak lantzeko: heziketa berezia, psikomotrizitatea... Han zegoela, Iralako plantillan sartu zuten, soldata delegaritzatik jaso ahal izateko. Oposizioak atera eta zuzenean Iralan hasi zen gero.

2.983. Irakasle lana prestigio gutxikoa (BER-368/015)

Magisteritza ikasteko erabakia hartu zuenean, askok ez zuten ulertzen, Fagorren katean lanean gehiago irabazten zelako. Irakasle lana prestigio gutxikoa zen, batez ere gizonezkoa izanez gero. 25 urte zituenean, bera zen

lagun-taldean goi-mailako ikasketak zituen bakarra eta gutxien irabazten zuena.

2.984. Irala ikastetxe publikoaren euskalduntze prozesua (BER-368/016)

1973an Irala ikastetxe publikoa egin zenean, irakasle guztiak erdaldunak ziren eta gaztelaniaz zen dena. Neskak eta mutilak aparte zeuden. 1976an hasi ziren euskara sartzten: Arantzazu eta beste hiru neska bergarar joaten ziren euskara klaseak ematera egunero ordu bietatik hiruretara. 1977an jada horretarako irakasle aproposak bidali zituen delegaritzak eta astean hiru ordu ematen zituzten gelaz gela. Maria Pilar Lonarbidek Ikusi-makusi metodoa atera zuen eta haur hezkuntzan erabiltzen hasi zen. 1978an elkartu ziren neskak eta mutilak. 1980an klase elebidunak: goizez gaztelaniaz eta arratsalde euskaraz. Ikusi-makusi metodoa nola garatu zuten gero. Lan handia egin zuten urte horietan, baina jendea oso motibatuta eta edozertarako prest zegoen. Barnetegira ere joaten ziren Alkizara 15 egunerako.

2.985. D eredua lortzea kostatzen zena Irala ikastetxean (BER-368/018)

Irala ikastetxe publikoan, euskara sartzten hasi zirenean, B eredua eman zieten. D eredua lortu ezinik ibili ziren, administrazioari iruditzen zitzaizkion beraiei zegokiena B eredua zela. Irakasleek sekulako lana egin zuten euskara ikasten. Prozesua ez zen erraza izan; askotan laguntasun gutxi izan zuten.

2.986. Ikastetxeko betiko ohiturak: aratusteetako hartza, Olentzero (BER-368/021)

Irala ikastetxean hartza atera izan dute beti aratusteetan. Gabonetan Olentzerorekin ere ateratzen ziren. Ahalegin handia egin ostean, herri-mailako ekintza bateratua izatea lortu zuten.

2.987. Euskara eskolatik kanpo ere bultzatzea beharrezkoa (BER-368/022)

Gaztea zenean, Bergaran kalean dena gaztelaniaz entzuten zen. Egungo egoera. Gaur egun euskara gehiago entzuten dela eta euskalduntzen ari dela uste du. Euskalduntzean, pisu guztia ezin dela hezkuntzan jarri entzun zion Ignasi Vilari. Garai batean Bartzelonara, Madrilera... joan behar izaten ziren ikastaroetara. Beharrezkoa da euskara hezkuntzaz kanpoko beste eremu batzuetara ere zabaltzea, eta, ikasteaz gain, gustukoa izatea.

2.988. "Juventudes parroquiales"ek antolatutako musika jaialdiak (BER-368/024)

"Juventudes parroquiales" elkartetik jaialdiak antolatzen ziren frontoian eta musika taldeak ekartzen ziren: Formula V, Mocedades, Pantxoa eta Peio... Bera elkarteko bazkide zen. Jaialdi guztietara joaten ziren gaztetan. Bergarako Urretxindorrek eta Ameslariak taldeak.

2.989. Bergarako jaietako "estampak" eta Maria Txantxote (BER-368/027)

70eko hamarkadan Bergarako jaietan "estampak" ateratzen ziren. Udalak antolatzen zuen eta sariak ere egoten ziren. Talde bakoitzak gai baten inguruan antzezpen antzekoa edo desfilea egiten zuen kalean. Maria

Txantxotek egiten zuen lan handiena estanpak prestatzen. Gerra aurreko irakaslea zen, gerra sasoian umeeekin Belgikan egona. Handik itzultzean, Irala ikastetxean sartu zen.

2.990. "Promoción cultural" en bitartez antolatu zen kabinete psikologikoa (BER-368/030)

"Promoción Cultural" elkarteak gauza asko antolatzen zituen. Haren bitartez antolatu zen berak lan egin zuen kabinete psikologikoa. Garai batean bertako langile bakoitzaren ordubeteko lanari zegokion soldata elkartera bideratzea zen filosofia.

2.991. Arando taberna eta gerra sasoiko kontuak (BER-368/032)

Arando tabernako giroa. Aitajauna bertsolaria zen. Amaren osaba gizon berezia zen. Hura izan zen tomateak gordinik jaten hasi zen lehena Bergaran, gerra sasoian etorritako soldadu nafarrak hala egiten ikusita. Gerra sasoiko kontu gutxi kontatzen zen.

2.992. Bataiatzeko, trintxerek su-etena egin zuten (BER-369/002)

Gerra hasi eta gutxira jaio zen, Uberako auzoan, bi fronteen artean. Intxortan gorriak zeuden eta beste aldean, nazionalak. Bataiatzeko, gudariek abisua bota zuten, trintxerek su-etena bat egiteko. Julio jaio zenean, aita kartzelan zegoen Donostian.

2.993. Fraide izateko ikasketak (BER-369/003)

Eskola Uberan hasi zuen eta gero San Joan Errekara joan zen. Handik, Zornotzako karmeldarren barnetegira hamaika urterekin eta beste bi urtez Nafarroako Villafrancara.

2.994. Erroman ikastaro espiritualak egiten (BER-369/005)

1962an Filosofia eta Teologia ikasketak bukatu eta Erromara joan zen ikasturte batez, ikasketa espiritualak egiteko. Erromako bizitza.

2.995. Karmeldarren lehenengo etxea, Txonta kalean (BER-369/007)

Karmeldarrak Eibarren 1935ean ezarri ziren, Txonta auzoko hasierako etxe batean. Ez zen komentua, baina kapera txiki bat egin zioten. Julio Eibarrera bidali zutenean, Karmeldarrak Karmen kaleko parrokiari zeuden jadanik, duela bost bat urtetatik.

2.996. Eibarko karmeldarren gabonetako diru eta opari bilketak presoentzat (BER-369/008)

Karmen kaleko parrokiako zerbitzu guztiak: sakramentuak eta gizarte-laguntzak. Cáritas. Preso zeudenentzat diru-bilketak eta Gabonetako opariak. Garbiketa pertsonalerako gauzak ziren garrantzitsuenak.

2.997. Drogak Eibarren 80-90. hamarkadetan (BER-369/010)

Manifestazioez ez bezala, drogen arazoak konturatzen ziren komentu barruan. Ezagutzen zituzten hainbat familiek, drogekin arazoak zituzten. Garai iluna,

dramatikoa. Familientzat ez zegoen laguntza espezifikorik. eta haiek gehienbat espirituala ematen saiatzen ziren.

2.998. Roberto Perez Jauregiren omenezko plaka (BER-369/011)

Roberto Perez Jauregiren omenezko plaka, Karmeldarren parkean dago. Garai hartan Julio Altzon zegoen eta ez zuen momentua bertan bizi izan.

2.999. Herria zatituta politikarengatik (BER-369/012)

Politika mailan, herria zatituta zegoen. Bertako eta kanpokoen artean ere. Hilketak frankismo garaian.

3.000. Abadeen ideologia politikoak sermoietan (BER-369/013)

Sermoietan, batzuetan jendea altxatu egiten zen eta azalpenak eskatzen zizkieten abadeei. Normalean, ideologia politikoekin lotuta egoten ziren. Abade bakoitzaren ideologia jakitea ez zen zaila izaten, sermoian esaten zuen arabera izaten bait zen.

3.001. Jendearen kexuak sermoietan (BER-369/014)

Jende bat, sermoiarenean erdian kexu egiten zion abadeari. Beste batzuek, meza ostean jarraitzen zuten elkarrizketarekin. Herriko patrioiak modu batean edo bestean adierazteagatik kexak ere bazeuden.

3.002. Mezak euskaraz eta gaztelaniaz (BER-369/016)

Mezak euskaraz eta gaztelaniaz egiten zituzten. Egunean bost meza egiten ziren garai batean. Mezak euskaraz ematearren ez dute inoiz arazo handiegirik izan.

3.003. Industrializazioan, etorkin mordoa Eibarrera lanera (BER-369/018)

Eibarrera heldu zenean, etorkin asko zeuden herrian. Beste fraide batek, etorkinak trenean nola etortzen ziren kontatzen zuen: trenak jendez lepo eta bakoitza egurrezko maletarekin.

3.004. Txontatik gora eta behera langile mordoa (BER-369/019)

Txontatik sartu eta irteten ziren langileak, mahoi urdinez jantzita. Sirenak. Urkizun Orbea edo BH egon arren, Txontak sarrera bakarra duenez, langile asko igotzen ziren handik.

3.005. Eibarren, txabolismoa ez baina hazinamendua bai (BER-369/020)

Beste leku batzuetan, etorkinak txaboletan bizi baziren arren, Eibarren ez zen gertatzen. Etxe berdinean hainbat familia bizitzen ziren. Apopiloak.

3.006. Karmeldarren egoitzako helduentzako eskolak I (BER-369/021)

Karmeldarrek, helduentzako eskolak sortu zituzten. Etorkin asko alfabetatu gabeak ziren. Aita Karmelok batzorde bat sortu zuen eta bertatik, maisuak, sukaldariak, jostunak... kontratatzen ziren. Handik, ikasketa basikoa lortzeko

ziurtagiria lortzen zuen jendeak. Sukaldaritza eta joskintzako ikastaroak ere ematen zituzten.

3.007. Karmeldarren egoitzako helduentzako eskolak III (BER-369/023)

Karmeldarrek zuten helduentzako eskola dohainik zen ikasleentzat. Gastu guztiak batzordearen bidez ordaintzen ziren. Batzordekide batzuek dirua ematen zuten, beste batzuek inbertsoreak bilatu... Eskolak 20 urtez iraun zuen eta karmeldarrek Eibarren eman zuten zerbitzu onena dela irizten dio Juliok.

3.008. "Aita Julio" bezala ezaguna; apaizak tailerretan lanean (BER-369/025)

"Aita Julio" bezala ezagutzen zuten. Batzuk esaten zuten, apaizek ere erlijiotik kanpo ere lan egin behar zutela. Karmeldarretako bat, bi urtez Elgoibarko lantegi batean egon zen lanean.

3.009. Karmengo parrokiaren zinema I (BER-369/026)

Eibarko karmeldarren bigarren ekimen garrantzitsuena zinema sortzea izan zen. Aita Karmeloren ideia izan zen. Zinema beraiek eraiki zuten eta 300 ikuslerentzat eserlekuak zeuden. Zinea nolakoa zen.

3.010. Karmengo parrokiaren zinema I (BER-369/027)

Karmeldarren parrokiako zineman, igandero hiru zinema-emanaldi edo pase ematen eskaintzen ziren. Beraiek antolatu eta zaintzen zuten dena.

3.011. Karmengo parrokiaren zinema III (BER-369/028)

Karmeldarren parrokiako zinemaren prezioa, sinbolikoa zen. Filmak Bilbotik ekartzen zituzten. Film motak.

3.012. Karmengo parrokiaren zinema IV (BER-369/029)

Karmeldarren parrokiako zinemaren ikusle gehienak eibartarrak ziren, baina Ermutik ere joaten zen jendea. Zinearen kabina atzealdean zegoen eta fraideetako batek izaten zuen bobinaren ardura.

3.013. Gerrako fronte biren artean jaio izanaren ondorioak (BER-369/031)

Gerrako fronte biren artean jaio izanak, eragina izan du bere nortasunean. Bakoitzak dituen arazoak gainditzeko modurik onena, nondik datozen jakitea da.

3.014. Garizumako ariketa espiritualak (BER-369/035)

Garizuman, "ariketa espiritual" izenekoak egiten ziren. Karmengo parrokiari, hizlariak eramaten zituzten eta arrakasta handia izaten zuten. Publiko ezberdinei biderauak izaten ziren.

3.015. Eibarko karmeldarren egoitzaren itxiera (BER-369/036)

2020ko irailean, Eibarko karmeldarrak egoitzatik joan ziren. Apezpikutzaren aginduz, egoitza utzi zuten. Orain, Markinako karmeldarren egoitzan bizi da.

3.016. "Tio Pitt" izena (BER-370/004)

Aita oso alaia zen. "Tio Pitt" izena nondik datorkion kontatzen du. Uholdeek Arrasateko taberna eta etxeko materiala izorratu zieten.

3.017. Tabernaren hasiera (BER-370/005)

Armairu bat ipini atarian eta horrela hasi ziren tabernarekin. Denetarik saltzen zuten. Umezain egin behar izaten zuen umetan. Eskolarik ez zuen jaso.

3.018. Errekako harriekin egindako etxea (BER-370/007)

Errekako harriekin eta trenbidetik ekarritako burniekin egin zuen aitak etxea.

3.019. Garai batean ukuilua zen taberna (BER-370/008)

Ukuilua zen lehen taberna. Behiak eta txahala, astoa, zerriak, oiloak eta ahateak izaten zituzten.

3.020. Trenbidera, bandera ateratzera (BER-370/009)

Trenbideko pasoa zegoenez, bandera ateratzera joaten ziren.

3.021. Taberna txikia lehenengo (BER-370/010)

Lehenengotan, taberna oso txikia zeukaten. Abereak kendu zituztenean egin zuten taberna handia. Ardoa zahagian izaten zuten. Denetarik izaten zuten salgai.

3.022. Taberna handitzeko ideia (BER-370/012)

Gaztea zenean, taberna handitzea bururatu zitzaion. Eskolara ez zen askorik joan. Taberna egin zutenean nolakoa zen kontatzen du.

3.023. Ezkondu aurretik soldatarik ez (BER-370/016)

Ezkondu aurretik, ez zuen soldatarik jasotzen lanaren truke. Taberna berritu egin zuten. Senarrak lanari laga zion; aurretik Ameriketara egona zen zortzi urtean.

3.024. Senarra nola ezagutu zuen (BER-370/017)

Senarra Ameriketatik pare bat hilabeterako etxeratu zenean ezagutu zuten elkar. Elkarrekin nola hasi ziren kontatzen du.

3.025. Gidabaimena eta kotxea zituen (BER-370/018)

Gidabaimena zeukan eta kotxe dotorearekin ibiltzen zen. Aberatsa zela uste izaten zuen jendeak.

3.026. Lizarmendi eta "Tio Pitt" izenen jatorria (BER-370/022)

Lokalari "Tio Pitt" zergatik esaten zioten Lizarmendi izena nondik zetorkion azaltzen du.

3.027. Oilaskoa eta txanpaina (BER-371/002)

Oilaskoa eta txanpaina modan egon zirenekoa kontatzen du. Anaiak eta denek lan egiten zutela dio.

3.028. "Tio Pitt", aitaren ezizena (BER-371/005)

"Tio Pitt" izena nondik datorren kontatzen du. Beraien aita oso umorekoa zela dio, baita arduratsua ere.

3.029. Tabernan lan asko eta lo gutxi (BER-371/006)

Gazte garaia tabernan pasatu zuen; lan asko eta lo gutxi egiten zuten. Astebarruan Abeletxera buelta egiten zuen gorputza zaintzeko. Pozik lan egiten zuela dio.

3.030. Trenbideko langile (BER-371/014)

Trena San Prudentzian eta Labegaraietan geratzen zen. Berak trenean lan egiten zuen; gutxi ordaintzen zioten baina dohainik ibiltzen zen gero trenez. Aita joaten zen trenari bandera ateratzera. Hilean behin ordaintzen zioten. Hamalau urterekin lantegian aritu zen baina ez zitzaion gustatu. Taberna giroa gustatu izan zaio.

3.031. San Prudentzio egunean tabernatxoa (BER-371/019)

San Prudentzian izan zen beste taberna bat ere. San Prudentzio egunean astoa eta gurdia hartuta tabernatxoa jarri zuen gurasoekin behin. Orduan San Prudentzio egunean jende asko ibiltzen zela dio. Elizaren ondoan ipini zuten postua.

3.032. Tabernan zer edaten zen (BER-371/021)

Tabernan zer edaten zen azaltzen du.

3.033. Azkar bataiatzera linbora ez joateko (BER-372/004)

Zubieta kaleko familiako etxean jaio zen. Zilbor-hestea lepoan zuela jaio zen eta gurasoek, beldurrez, nahiz eta elurtea zegoen, bataiatzera eraman zuten, Puri hil ezkeren linboak geratu ez zedin.

3.034. Gerra zela eta, gurasoak berandu ezkondu ziren (BER-372/005)

Gurasoak bergararrak eta euskaldunak. Gerra galdutakoak. Berandu ezkondu ziren, soldaduska, gerra, gerraostea... pasa behar izan zutelako.

3.035. Etxean beti euskaraz (BER-372/006)

Etxean ez zuten gerrari buruz hitz egiten baina bazekiten bi bando zeudela. Etxean euskaraz egiten zuten baina kalean gaztelaniaz. Hiru senide dira, urte askoko aldearekin.

3.036. Kontxita Maiztegi, eskola laikoko maistra (BER-372/008)

Eskola laiko batean ikasi zuen, amaren lehengusina bat maistra zela. Adin ezberdinetako haurrek elkarrekin ikasten zuten. Kultura orokorra, mekanografia, kontabilitatea, frantsesa... ikasi zituzten. Kontxita Maiztegi zen maistra. Hasieran eskolak frontoian ematen zituen eta gero plazan. Nahiz eta eskolak gaztelaniaz izan behar ziren, maistrak ez zuen inor zigortzen euskaraz egiteagatik.

3.037. Euskara etxerako bakarrik gordetzen zen (BER-372/009)

Etzetik kanpo gaztelaniaz hitz egiten zuten; modan zegoen. Zubietan, auzoan, haurren artean gaztelaniaz jolasten zuten, baina gazteek (Puriren anaiaren kuadrilak, adibidez) euskaraz egiten zuten haien artean, nahiz eta eskolak gaztelaniaz jaso. Haien euskaraz hazteko aukera izan zuten kalean, baina Puriren belaunaldikoek ez. Hala ere, auzoetan euskara gehiago erabiltzen zen. Kalean, gaztelania ondo ikusia zegoen.

3.038. Neska eta mutilek goi-mailako ikasketak egiteko aukera (BER-372/010)

Hamabost urtera arte ikasi zuen Kontxita Maiztegiarekin eta ikasketak bukatuta, Frantziara joan zen urtebetez au-pair bezala lan egitera. Hamazazpi urterekin, Bergarako Textil Vicente Aranzabal lantegian lanean hasi zen. Lanean gazterik hastea zen ohikoena, familiaren behararen arabera. Familia aberatsen alabek goi-mailako ikasketak egiten zituzten. Mutilek normalean Elementalean ikasten zuten, nahiz eta bazegoen goi-mailako ikasketak egiten zituenik ere.

3.039. Gerra aurreko eta gerrako kontuez ez zen hitz egiten (BER-372/011)

Gerra aurretik, batzokian antzerkira joaten ziren. Gerra aurreko eta gerrako kontuez ez zen etxean hitz egiten. Aita hil eta gero jakin ditu hainbat kontu.

3.040. Tindategiko sukaldean milizianoen kantak abesten (BER-372/013)

Tindategiko alabarekin jolasean ibiltzen zenean, haren amak eta amonak euskarazko milizianoen kantak abesten zituzten arropak lixatzen zituzten bitartean. Hamabi urterekin Arrasateko Euskal Jaira joan zen.

3.041. Bergarako bigarren kuadrila mistoa (BER-372/015)

Gazteak zirenean, ohikoa ez izan arren, kuadrilla mistoa zuten. Aste Santuko ofizioetan ezagutu zuten elkar eta gero Juventudes Parroquiales taldera joaten hasi ziren. Hauek beti mistoak ziren Bergaran.

3.042. Bergarako Juventudes Parroquiales I (BER-372/016)

Bergarako Juventudes-eko egoitza Konbenio kaleko etxebizitza bateko 4. solairuan zegoen. Eraikina indiano batek utzi zion herriari. Behean aurrezki-kutxa zegoen, 1. go pisuan kasinoa, 2. pisuan abade bat bizi zen eta 4. pisuan talde ezberdinak elkartzen ziren: Acción Católica, Juventudes, Pol-Pol... Juventudes, elizaren inguruan sortutako taldea zen.

3.043. Bergarako Juventudes Parroquiales II (BER-372/017)

Udalak beti Juventudeseko gazteekin elkarlanean ibiltzen zen. Arratsaldea pasatzeko leku bat zen. Haien aurrekoek ordainpeko dantza antolatzen zuten baina Puriren belaunaldikoek kendu egin zuten. Arlo ezberdinak sortu zituzten, elkarteak denen artean koordinatzeko. Don Pablo abadea haiekin ibiltzen zen eta Don Serafin Pol-Pol elkartekoekin.

3.044. Juventudes Parroquiales, Acción Católica eta Pol-Pol (BER-372/018)

Acción Católican sartu zen Tomasita Zabaletaren bitartez, irteerak egiten zituztelako. Juventudes Parroquiales, Acción Católica eta Pol-Polek egoitza elkarbanatu arren, ez zituzten elkarrekin gauzak antolatzen baina hiruretan parte hartzen zuten.

3.045. Kasinoa aberatsentzat zen (BER-372/020)

Bergarako kasinora aberatsak joaten ziren. Emakume aberatsak ez ziren tabernetara joaten baina kasinora bai.

3.046. Dandatzalekuak (BER-372/021)

Juventudes-en (Juventudes Parroquiales) partez urtero Don Pablo abadeari opari bat egiten zioten eta inoiz ez zuten arazorik izan berarekin. Batzuk dantzalekura joaten ziren eta beste batzuk mendira. Ariznoa dantzalekua.

3.047. Lehenengo Olentzeroren irteera; Maria Txantxote (BER-372/022)

1969an Juventudes-eko batzordean sartu ziren. Lehenengo Olentzeroa antolatu zuten. Maria Txantxote maistra zen eta berak eta beste batzuek laguntzen zieten euskalgintzarekin lotutako ekintzak sortzen. Ekintza ugari antolatzen zituzten, ilusio handiarekin

3.048. Errege bezperako desfilea eta dantza (BER-372/024)

Urtero estanpak egiten zituzten Pazko eta Errege egunetarako. Angel Lazkano zinegotziak laguntzen zien baimen guztiak eskatzen eta bideratzen. Errege bezperako desfilea Juventudes-ek antolatzen zuen. Dantza egoten zen frontoian.

3.049. Erramu larunbateko jaialdia Bergaran (BER-372/025)

Erramu eguneko larunbatean, jaialdiak antolatzen zituzten. Pantxoa eta Peiok lehen aldiz jaialdi honetan jo zuen. Musikari eta artisten artean ezikusiak izaten ziren.

3.050. Disko eta liburu azoka Bergaran (BER-372/026)

Bergaran disko eta liburu azoka bat antolatu zuten Juventudes-ekoak eta horretarako, Juan San Martinekin bildu ziren Eibarren. Seminarioan antolatu zuten eta Joxe Azurmendiri sari bat eman zioten.

3.051. Tabernetan asko kantatzen zen (BER-372/028)

Garai batean, tabernetan abestu egiten zen, ez zen musikarik egoten.

3.052. Gau-eskolak Elementalean (BER-372/030)

Joxu Oregik euskarazko gau-eskolak ematen zituen Elementalean. Zazpiak aldera izaten ziren klaseak eta hamar bat ikasle zinen taldeko.

3.053. Grisen atxiloketak (BER-372/031)

Txabi Etxebarrietaren heriotzaren inguruan egondako istiluak. Grisek Juventudes-eko lau lagun nola atxilotu zituzten kontatzen du. Orduko kuadrilla hori bertan sakabanatu zen.

3.054. Bergarako Pol-pol elkarte (BER-372/032)

Pol-Pol elkarteko giroa euskalduna zen. Urtero Larrun-era egiten zuten irteeran, Ipar euskal Herrira ihes egindakoekin elkartzen ziren.

3.055. Ariznoa hotelean lanean (BER-373/002)

Etxean beti euskaraz egin dute baina kalean dena gaztelaniaz. Maria Lagundian ikasi zuen lau urte zituenetik eta goi-mailako Batxilergo Laborala bukatu arte. Ikasketak bukatu eta Ariznoa hotelean lanean hasi zen.

3.056. Joxu Oregirekin gau-eskoletan (BER-373/003)

Purita Arrondoren eta Karmentxu lagun minak izan dira umetatik. Joxu Oregiren euskarazko gau-eskoletara joaten zen eta gehienbat euskal kulturari buruz ikasi zuela gogoratzen du. Txomin Amasorrain ere irakaslea zen.

3.057. Juventudes-en ekimenak Bergaran (BER-373/006)

Purirekin batera Juventudes Parroquiales-en (Juven-en) ibilia da Karmentxu. Elkartean euskal munduarekin ekintzak egiten hasteko, Juan San Martin-engana nola jo zuten. Egindako ekimenak, hitzaldiak, irteerak... Pantxoa eta Peioren kontzertua. Udaletik ez zieten inoiz oztoporik jarri. Bergaran orokorrean giro abertzalea zegoen eta kulturalki euskalduna zen.

3.058. Zentsura pasa behar zuten musikariek (BER-373/007)

Musikariek herri edo jaialdi batean jo aurretik, haien programa aurkeztu behar zuten eta zentsura pasa behar zuten lehenengo. Txatxi Etxeberria zen baimenak eskatzeaz arduratzen zena.

3.059. Errege eguneko kabalgatak Bergaran (BER-373/010)

Juventudes-ekoek Errege eguneko kabalgatak antolatzen zituzten. Herritarren laguntz jasotzen zuten eta behin zaldi zuri bat utzi zieten. Kabalgataz gain, ekimen erlijiosoetan ez zuten parte hartzen. Gabonetako jaiotzak.

3.060. Pantxoa eta Peioren lehenengo emanaldia Hegoaldean (BER-373/012)

Juventudes-eko batzordean zeudela, 1972an, Pantxoa eta Peio Bergarara eramane zituzten. Haien lehenengo kontzertua izan zen Hegoaldean. Urte batzuetara beste batzuk sartu ziren batzordean.

3.061. 1972ko bertso-jaialdia Bergaran (BER-373/014)

Bergaran 1972an antolatu zen bertso-jaialdi handiaren gogoetak. Iparraldetik asko etorri ziren.

3.062. Miarritzen galduta (BER-373/015)

Behin Miarritzera egin zuten irteera bat eta batzordekoak galduta ibili ziren, autobusa ezin aurkitu.

3.063. 70eko musikariak Bergaran (BER-373/016)

Errege eguneko bezperan, Juventudes-ek dantzaldiak antolatzen zituen. Puri eta Karmentxu batzordean egon aurretik, Los Bravos edo Los Mitos bezalako taldeak egon ziren. Batzordean zeudela, Egan taldea eraman zuten. Oskarbi taldea, Gorka Knörr, Benito Lertxundi...

3.064. Ez Dok Amairu (BER-373/017)

Ez Dok Amairu taldeari buruz hitz egiten dute.

3.065. 75.000 pezetako isuna 1975ean (BER-373/020)

Txiki eta Otaegiren epaiketaren kontra idatzi batzuk banatzen ibili ziren Bergararik eta atxilotuta egon ziren guardia zibilaren koartelean. Bakoitzari 75.000 pesetako isuna ezarri zion poliziak eta etxean zuten idazteko makina konfiskatu zieten. Zati bat ordaindu zuten.

3.066. Dantza egiteko moduak eta musika aldatu egin ziren (BER-373/028)

Juventudes-ekoak astebururo mendira joaten ziren eta Urrexolan zegoen baserri batean egoten ziren. Bueltan, Oñatira, Soralezera edo inguruko herriren batera joaten ziren dantzara. Ariznoara ez ziren joaten. Dantza egiteko moduak eta musika aldatu egin ziren.

3.067. Guatekeak (BER-373/029)

Guatekeak oso gaztetatik egiten zituzten Juventudes-eko lokalean. Nolakoak ziren.

3.068. Plazako dantzaldietan ligatzeko teknikak (BER-373/030)

Gaztetxoak zirenean, 3 piezako dantza egoten zen plazan eta 3.en piezarako pentsatu behar zuten norekin dantza egin nahi zuten. Ligatzeko moduak. Zertaz hitz egiten zuten mutilekin.

3.069. Antisorgailuak nola lortu 70. hamarkadan (BER-373/031)

Sexuaz hitz egitea tabua zen. Fama txarra hartzea oso erraza zen. Antisorgailuak nola lortzen zituzten. Bergaran edo Donostian saltzen zituen farmazia bana zegoen. Hilekoarentzat produktuak.

3.070. Praxak modan jarri zirenean (BER-373/032)

Praxak jazten lehenetarikoak izan ziren arren, lanera gona jantzita joan behar zuten.

3.071. Emakumeak tabernetan (BER-373/033)

Emakumeak tabernetara joaten hasi zirenean. Kuadrilan botea jartzen zuten, ez zuten dena mutilek ordaintzen.

3.072. Elizaren indarra: dena bekatua zen (BER-373/034)

Garai batean, mutilaguna soldaduskara joaten zenean, neska ez zen etxetik ateratzen, herrian esango zutenaren beldurrez. Elizaren indarra nolakoa zen. Astero konfesatzen ziren baina astero berdina esaten zuten.

3.073. Soldaduskatik bueltatu, ezkondu eta haurrak izan (BER-373/035)

Bikoteak harremantzeko moduan aldatzen hasi ziren Puri eta Karmentxu gazteak zirenean, baina aldaketa oso poliki eman zen. Normalena zen, mutila soldaduskatik bueltatzea, neskalagunarekin ezkontzea eta berehala haurrak izatea. Puri eta Karmentxuren adinekoak hasi ziren ohitura hori apurtzen, denek lan egiteko aukera izan dutelako.

3.074. Emakumeak gidatzeko baimena 21 urterekin eta mutilak 18rekin (BER-373/036)

Garai batean, emakumeek lana utzi behar zuten ezkontzen zirenean. Aita edo senarraren baimena behar zuten gauza ezberdinak egiteko. Gidatzeko baimena 21 urterekin atera zuten, mutilek 18rekin ateratzen zutenean.

3.075. Sección Femeninara joan beharra (BER-373/037)

Sección Femenina-ra joan behar zireneko kontuak. Dirua izan ezkerro, edozer lortzeko aukera zegoen.

3.076. Ernai antzerki taldea; Urretxindorra eta Ameslaria taldeak (BER-373/038)

Bergarako Ernai antzerki-taldearen euskarazko emanaldiak. Urretxindorra eta Ameslariak taldeak.

3.077. Bergara, euskararen erreferente (BER-373/042)

Begarako UNED-en euskarazko tituluak lortzeko ikastaroak antolatzen ziren eta kanpotik jende asko heltzen zen autobusetan. Euskara leku guztietan entzuten zen.

3.078. Euskararen erabileraren aldaketak (BER-373/045)

Euskararen erabileraren iritziak gazteak zirenean, seme-alabak izan zituztenean eta gaur egun. Mugikorrek gaztelaniaz kontsumitzen dute haur eta gazteek.

3.079. Franco hil zenean, politizazioak jendea sakabanatu zuen (BER-373/047)

Juventudes-en parte-hartu izanaren balorazioa. Oso eskola ona izan zen bizitzerako. Franco hil ostean, gauzak aldatzeko ilusio handia zuten denek baina politizazioak jende asko sakabanatu zuen.

3.080. Klandestiniatean bilerak egiten (BER-373/049)

Juventudes utzi zutenean, politika munduan sartu zen Karmentxu. Comisiones Obreras. Klandestiniatean biltzen ziren, mendian.

3.081. Euskararen erabilera etxean, auzoan eta kalean (BER-374/003)

Etxean beti euskaraz egin dute baina kalean gaztelaniaz egiten zenez, anai-arrebak ere horrela hasi ziren etxean. Gerora euskarara bueltatu ziren. Institutuan denek gaztelaniaz egiten zuten eta urteetara jakin dute nortzuk ziren euskaldunak. Umetan, auzokoekin euskaraz egiten zuten baina etxean gertatutakoa errepikatu zen.

3.082. Elementalean oso gustora ikasi zuen (BER-374/004)

Kontxita Maiztegi maistrarekin egin zituen lehenengo ikasketak. Aranzadi ikastola sortu zenean hara eraman zuten baina ikasketak erdaraz ziren. Bergarako institutura joan zen gero, eta handik Elementalera. Hemen euskaraz libre egin zezaketen, giroa hobeagoa zen eta orduan hasi zen benetan ikasten. Irakasle gehienekin euskaraz hitz egiten zuten nahiz eta azterketak gaztelaniaz izan.

3.083. Euskaltzaletasuna herriko giroagatik piztu zitzaion (BER-374/005)

Euskaltzaletasuna, herrian zegoen giro euskaldunagatik piztu zitzaion. Bergaran euskararekin lotutako elkarte asko zeuden. 14-15 urterekin jabetu zen euskalduna izatea zer zen.

3.084. Euskaltzaletasuna sendotzen (BER-374/006)

Euskaltzaletasuna sendotu zitzaion Elementalean ikasi zuen denboran. UNED-a sortu zenean, hango irakasle baten alabak zaintzen zituen eta beste ikuspegi bat ezagutu zuen. UNED-ek antolatzen zituen euskarazko ekitaldietara joaten zen. Bergaran jaialdi ugari antolatzen ziren, denak euskararekin lotutakoak. Ikusten zuena gustatzen zitzaionez, bera ere inplikatzeko hasi zen. Elementalean egiten ziren ikasle-bilerak euskaraz ziren.

3.085. Euskal Herrian Euskaraz elkarteak (BER-374/007)

1979an Euskal Herrian Euskaraz (EHE) elkarteak sartu zen eta Bergaran talde polita sortu zen. Eva Alberdi, Okina, Fermin Korkostegi, Juan Martin Elexpuru... Hizkuntzarekiko erabateko kontzientzia hartu zuen, EHEn, UNED-en eta gau-eskoletan ibili zenean. Txillardegiren diskurtsoen indarra.

3.086. Euskal Herrian Euskaraz-en ekimenak (BER-374/008)

EHE-ko ekintzetako bat, herri dendak euskararen erabileragatik sailkatzea izan zen. Panel handi bat ipini zuten Seminarioko atzeko paretan. Telebista euskaraz izateko kanpainak eta manifestazioak.

3.087. Telebistan euskara batua arrotza zen askorentzat (BER-374/009)

Egunkariak, telebistak... nahiz eta euskaraz hasi askotan praktikotasunagatik gaztelaniara nola jotzen duten. ETB hasi zenean, jendeak arrotz moduan ikusten zuen bertan hitz egiten zen euskara.

3.088. Euskaraz entzuteko gosea zuen jendeak (BER-374/011)

Iparraldetik etorritako Mattin eta Xanpun bertsolarien saioa gogoratzen du. Urtetik urtera jende gehiago biltzen zen bertsoak entzuteko. Euskaraz entzuteko gosea zuen jendeak. Kontzertuekin berdina gertatzen zen.

3.089. Kulturaren bidez euskaraz ospea berreskuratu zuen (BER-374/012)

Aurretik euskarak galdu zuen prestigioa edo ospea nola berreskuratu zuen kulturaren bitartez.

3.090. Kalean euskaraz hitz egiteko erabaki pertsonala (BER-374/013)

Elementalera ikastera joan zenean, euskaraz kalean berriz hitz egiteko "txip"-a aldatu zitzaion baina kuadrillan ez zuten denek euskaraz hitz egin Euskal Herrian Euskaraz eta gainerako elkarte eskaldunak sortu ziren arte.

3.091. Baserritarra izateagatik gutxietsia (BER-374/014)

Baserritarra izateagatik irainak jasan zituen institutuan. Elementalean gauzak guztiz aldatu ziren, bai irainengatik eta baita hizkuntzagatik ere.

3.092. HB-ko zinegotzia (BER-374/015)

Ezker abertzalean militatzen hasi zen 1981ean, eta 1983an HB-ko zinegotzia izan zen Bergaran, Juan Ramon Aranguren, Txatxi Elortza eta Minguez-ekin.

3.093. 1983an Bergarako Udalean ia dena gaztelaniaz (BER-374/017)

Zinegotzia izan zenean Udalean zegoen hizkuntzarekiko egoera zein zen azaltzen du. Aktak, idatziak, txostenak... gaztelaniaz egiten ziren. Kultura eta Euskara Sailetan bakarrik egiten zen dena euskaraz. Ikastolak sortuak zeuden eta jendea alfabetatzen zegoen, baina Udalaren barruan oraindik ez zen pauso hori eman.

3.094. Udalean oposizioan lanean (BER-374/018)

Zinegotzi zela, aktoreak biluzik agertuko ziren antzezlan bat Bergarako frontoian egiteko baimena eman edo ez eztabaidatzen ibili ziren. Beraien alderdiak ez zuen proiektu zehatzik inoiz gauzatu. Oposizioaren lana egiten zuten gehienbat, herritarren edo herriko eguneroko kontuetan.

3.095. Bergarako kartzela zaharraren eraikina berreskuratzen (BER-374/019)

1987an HB-ek Bergarako alkatetza lortu zuenean aurrera eraman ziren proiektuak. Anajerentzat garrantzitsuena kartzela zaharraren eraikina berreskuratzea izan zen, eskola tailerraren bidez. Gaur egun gaztetxea da.

3.096. Artxibozaina Bergaran (BER-374/020)

Udal-gobernuan egon zirenean, museoko eta euskarazko teknikaria eta artxibozainaren plazak atera zituzten. Beraiek bidea zabaldu zuten.

3.097. Bergaran musika taldeei laguntzen (BER-374/021)

Musika talde ugari zeuden Bergaran garai batean eta udal-gobernutik hauei laguntzeko erabakia hartu zen. Udal-gobernuetan hartzen diren erabakiak epe luzera planifikatu behar dira, lau urteko legealdiak oso motzak baitira emaitzak ikusteko.

3.098. LAB-eko kidea (BER-374/023)

LAB sindikatuko kidea da, euskara-planen arloan. Arlo sindikalean ez du aparteko lanik egin.

3.099. "Bergarako euskara" liburua (BER-374/024)

"Bergarako euskara" liburua modu kolektiboan nola prestatu zuten, Juan Martin Elexpuru eta Gerardo Elortzaren gidaritzapean. Liburua 1988an argitaratu zen eta geroztik herri hizkerak batu dituen hainbat liburu argitaratu badira ere, Bergarakoa lehena edo lehenetarikoa izan zen.

3.100. "Zura. Arotzak eta etxegileak" liburua (BER-374/025)

"Zura. Arotzak eta etxegileak" liburua nola prestatu zuen Juan Martin Elexpurrekin batera.

3.101. "Erremeixuak. Osasuna munduko ondasuna" ikus-entzunezkoa (BER-374/026)

"Erremeixuak. Osasuna munduko ondasuna" ikus-entzunezkoa zergatik eta nola prestatu zuen azaltzen du.

3.102. Bergarako Usondo baserrikoa (BER-376/002)

Ama Usondo baserrikoa zen eta aita Elosukoa. Zortzi anai-arrebetatik Markos 7.ena da. Eskola Nazionaletan ibili zen.

3.103. Elizen arabera herria banatuta; Santa Marina eliza (BER-376/004)

San Tarsicio Bergaran. San Pedron eta Santa Marinako bederatziurrenak. Bergara bi zatitan banatzen zen elizen arabera. San Marinako abadea Pedro Garitanaoa.

3.104. Eskolan izan ezik, dena euskaraz (BER-376/005)

Doktrina eta jaunartzea Santa Marinan egin zituen. Euskaraz izaten ziren. Etxean ere euskaraz egiten zuten baina eskolan dena gaztelaniaz. Euskaraz hitz egiteagatik zigortuak izaten ziren eta behin gurasoak kexatzera joan ziren.

3.105. Eskolatik falangeko lokaletara eramaten zituzten (BER-376/006)

Eskolatik Falangera joaten ziren, antolatzen zituzten ekintzengatik. Hitzaldi politikoak ere ematen zituzten baina ez zuten kasu handiegirik egiten. Batzokian antzerki-emanaldiak egoten ziren.

3.106. Eskolan "Cara al Sol" (BER-376/007)

Eskolara sartu aurretik egunero bandera igo eta "Cara al Sol" abesten zuten. Maisuekin gaztelaniaz egin behar zuten baina ikasleen artean batzuetan euskaraz ere. Eskolatik kanpo ia beti euskaraz.

3.107. Auzo ezberdinen arteko pikeak, jolasak... (BER-376/008)

Modan jarri zen gaztelaniaz hitz egitea, baita baserritarren artean kalera jeisten zirenean. Baserritarrei burlak egiten zizkieten haur batzuek baina berari ez, kale-baserrikoa zelako. Beste auzoetako umeeekin "gerran" jolasten ibiltzen ziren, harriak botatzen.

3.108. Usondo nolakoa zen (BER-376/009)

Usondo baserriaren inguruak nolakoak ziren.

3.109. Elementalera edo lanera (BER-376/010)

Eskola bukatzean, Torunza lantegian lanean hasi zen baina klase partikularretara ere joaten zen. Elementalera joaten ez zirenak lanean hasten ziren.

3.110. Asanblada klandestinoak mendian (BER-376/011)

Soldaduskan zegoela hasi zen klandestinitatean orriak idazten. Gero herrian kopiak egiten zituzten eta kaletik botatzen zituzten. Lan eta gizarte-baldintzak salatzen zituzten gehienbat baina bazeuden beste talde batzuk ere. Asanbladak mendian egiten zituzten.

3.111. Lantegietan papeletak banatzen; grebak (BER-376/012)

Sindikatu bertikala zen sindikatu ofizial bakarra. Comisiones Obreras-en ibiltzen zen Markos. Grebak.

3.112. Furrier baten funtzioa (BER-376/013)

Lagun gehienek soldaduska Afrikan egin zuten baina Markosek Donostian. Furrier bat zer den eta zer egiten zuen kontatzen du.

3.113. Bergarako Juventudes Parroquiales (BER-376/016)

Juventudes Parroquiales-en talde ezberdinak zeuden. Euskal kulturaren alde lan egiten zuten, euskaraz irakurri, euskal musikariak Bergarara eraman...

3.114. Gau eskolak Bergaran; Ernai antzerki-taldea (BER-376/018)

Elementalean hasi ziren lehenengo gau-eskolak antolatzen Bergaran. Josu Oregi, Juste Amenabar, Maria Txantxote, Txomin Amasorrain... Txomin Ernai antzerki-taldeko zuzendaria ere bazen. Elementaletik Maria Lagundiara aldatu ziren gau-eskolak. Ernai antzerki-taldea.

3.115. Bergarako Juventudes-en sorrera eta ekintzak (BER-376/020)

Begarako Juventudes Parroquialesen sorrera elizaren inguruan egin zen, gazteek elkartzeko leku bat izateko. Markosek sorreran parte hartu zuen baina gero soldaduskara joan zen. Juven-en zer egiten zuten. Euskarazko ekimenak.

3.116. Juventudes-en beherakadaren arrazoiak (BER-376/021)

Juventudes-en giro euskalduna zen nagusi. Urteetara politikarekin nahasten hasi zen, alderdi ezberdineko jendea zegoenez liskar-politikoak sortzen ziren, drogaren arazoa pil-pilean zegoen kide batzuen artean, berankortasuna tabernan...

3.117. Juventudes-ek Olentzeroa, jaiotza-biziduna eta kabalgata (BER-376/022)

Juventudes-ekoek Olentzeroa ateratzen zuten kaletik, oraindik ere frankismo garaian. Jaiotza-bizidun bat antolatzen zuten, Errege eguneko kabalgata... Jaiotza-biziduna nolakoa zen. Jantzi gehienak mojak egiten zituzten, Accion Catolicak, herriko jendeak... Olentzero ateratzen zutenean eta Pazkoa garaiko estampak egiten zituztenean, Juste Amenabar eta Maria Txantxoterren laguntza izaten zuten beti.

3.118. Bergarako liburu eta disko azoka Seminarixoko arkupeetan (BER-376/024)

Bost bat urtetan Seminarixoko arkupeetan liburu eta disko azoka antolatzen zuten Juventudes-ekoek. Durangon azoka hasita zegoen eta bertatik ekartzen zituzten mahaiaik eta liburuak lortzeko laguntza.

3.119. Juventud-en kontzertuak: Pantxoa eta Peioa, Ez Dok Amaitu, Oskarbi... (BER-376/025)

Juventudes-ek Pantxoa eta Peio Bergarara eramatea lortu zuen. Kanten letrek zentsura pasa behar zuten eta Txatxi Etxeberria arduratzen zen hortaz. Udaletxeko baimena Angel Azkaratek lortzen zien. Juventudes-ek Bergaran antolatuta beste hainbat kontzertu: Ez Dok Amairu, Oskarbi, Benito Lertxundi, Gorka Knörr...

3.120. Iparraldetik ezkutuan liburuak, diskoak, ikurriña... ekartzen (BER-376/027)

Juventudes-etik Iparraldera irteerak egiten zituzten eta handik diskoak, liburuak eta behar zutena ekartzen zuten, autobusean ezkutatuta. Guardia Zibila autobusera igotzen zenean, gauzak aurkituz gero erreklisatu egiten zituen.

3.121. Juventudes-eko egoitza (BER-376/029)

Juventudes-eko egoitza Konbenio kalean zegoen. Eraikin berdinean kasinoa zegoen, ikastolako lehenengo egoitza 3. pisuan egon zen, Pol-Pol-aren taberna eta egoitza...

3.122. Ikastolaren sorrera Bergaran (BER-376/030)

Ikastolaren sorrera Bergaran. Konbenio kalean zegoen, 3. pisuan. Bi andereño zeuden eta bat Izaskun Jimeno zen.

3.123. Bergarako ikastola eta Don Pablo abadea (BER-376/032)

Hasiera batean, Konbenio kaleko ikastolan bi andereño bakarrik zeuden. Ikastolaren antolakuntzaz Juste Amenabar, Txomin Amasorrain, Don Pablo... arduratzen ziren. Don Pablo San Pedroko abadea zen. Ikastolaren inguruan guraso talde bat sortu zen.

3.124. Ikastolen Federazioko bilerak (BER-376/035)

Ikastolen Federazioko bi bileretan parte hartu zuen Markosek. Juventudes-eko egoitzan egiten zituzten.

3.125. Ikastolako diruzaina (BER-376/036)

Bergarako ikastolako diruzaina izan zen bi urtez. Orduan ikastola Seminarixuan zegoen eta bost andereño zeuden lanean.

3.126. Mugimendu komunistakoak 'espainolizatatzat' hartuak (BER-376/037)

Langile-mugimenduan sartuta zegoen Markos, komunista zen eta Mugimendu Komunistako (EMK)-ko militante. EMK-koak 'espainolizatatzat' jotzen zituzten.

3.127. Bergarako ikastolaren sorrera: erregistroa (BER-376/038)

Ikastola sortu aurretik euskarazko akademia bat zegoen Bergaran. Ikastola handitzen joan zenean, akademiakoekin elkartu ziren. Koldo Eleizalde izenarekin joan behar ziren ikastola erregistratzera, baina fitxatuta zegoenez, Aranzadi ipini zioten izena.

3.128. Ikastolatik Eskola Publikora (BER-376/040)

Bergaran lehenengo kilometroak ospatu zirenean Markos ez zegoen Ikastolako kudeaketan sartuta. Taldetik atera zuten ez zelako guraso eta MK-ko kidea zelako. Kilometroak ospatu zirenean, Eskola Publikoaren sorrera eta garapenean parte hartzen zuen.

3.129. Eskola Publikoa euskalduntzen (BER-376/041)

Euskal Eskola Publikoaren alde lan egin du. Eskola Publikoa euskalduntzearen alde borrokatu du.

3.130. Ernai antzerki-taldea: Txomin Amasorrain eta Juste Amenabar (BER-376/043)

Antzerki-talde batzuk euskarazko antzezlanak egiten zituzten. Bergarako Ernai antzerki-taldean antzezten zuen Markosek eta zuzendaria Txomin Amasorrain zen. Berak itzultzen zituen gaztelaniazko obrak euskarara. Konbenio kaleko eraikineko 3. pisuan egiten zituzten entseguak. Juste Amenabarrek antzerki-taldearen dekorazioak, arropak... kudeatzen zituen. Jose Alvarezek Justeri laguntzen zion eszenatokia atontzen, muntatzen...

3.131. Ernai antzerki-taldeak ia egunero entseatzeko (BER-376/044)

Ernai antzerki-taldean talde nahiko handia sortu zuten eta ia egunero entseatzeko zuten, iluntzean. Lau obra antzeztu zituzten: Maritxu Alargun, Argi izpi bat, Itto ala ezkondu eta Ordua lapurra...

3.132. Ernai antzerki-taldea: emanaldiak (BER-376/047)

Zaldibarko jardunaldietan parte hartu zuen Ernai antzerki-taldeak. Bergaratik kanpo ere emanaldi asko eman zituzten: Donostian, Sorluzen, Goizuetan...

3.133. Bergarako Juventudes-eko artxiboa (BER-376/049)

Juventudes-eko antzerki-taldean ez zen ibili Markos. Gipuzkoako gainerako elkarteak itxi egin ziren baina Bergarakoak gehiago irautea lortu zuen. Markosen Juventudes-eko artxiboa gordeta dauka.

3.134. Txapa Irratia (BER-376/050)

Juventudes-etik Txapa Irratia sortu zuten eta Artekaletik igortzen zuten irratsaioa. Manifestazioak zeudenean, irratitik polizia nondik zebilen esaten zuten.

3.135. Mugimendu Komunistako kidea (BER-376/051)

MK (Mugimendu Komunista)-ko kidea zen Markos . Bilerak tabernetan, mendian, kotxe barruetan... egiten zituzten. Propaganda sortu eta kaletik botatzen zuten. Jende asko zegoen lekuetan banatzen zuten.

3.136. 70. hamarkadako giro politikoa (BER-376/052)

70. hamarkadako giro politiko nahasiari buruz hitz egiten du. Mugimendu politikoen artean konpetentzia handia zegoen. Grisen aurrean korrika ibili dira hainbat manifestazioetan. Barrikadak.

3.137. 1965eko Aberri Eguna Bergaran; Alkateen Mugimendua (BER-376/053)

1965ean Bergaran Aberri Eguna antolatu zen. Markos soldaduskan zegoen baina egun hartan Bergarara bueltatu bazen ere, ezkutuan ibili behar izan zuen. Alkateen Mugimendua gertutik ezagutu zuen, Jose Luis Elkorro alkate egin nahi zutenekoa.

3.138. Ikurrina udaletxean jarri zuten eguna (BER-376/054)

1977an udaletxean ikurrina ipini zutenean, Markos plazan zegoen ere.

3.139. Bergarako Alkartu Nahi elkarte (BER-376/057)

1967-1968an Juventudes-ek euskararen alfabetatzerako hiru eguneko ikastaro bat antolatu zuen. Alkartu Nahi elkartearen sorrera, Promoción Cultural, UNED... Alkartu Nahi elkartearen ekimenak.

3.140. Urretxindorrek eta Ameslariak taldeak (BER-376/059)

Txomin Amasorrain-ek Urretxindorrek eta Ameslariak taldeekin harreman zuzena zuen, letrak sortzen, euskalduntzen... Musikazalea da Markos.

3.141. Pol-pol mendi elkarte (BER-376/060)

Pol-Pol mendi elkartearen batzordean ere ibili zen soldaduskatik bueltatu zenean. Euskal giroa egoten zen, irteeretara beraiek egindako kaikuekin jantzita joaten ziren, abestu egiten zuten...

3.142. Tabernetan beti abestu egiten zen (BER-376/061)

Garai batean tabernetan ez zen musikarik egoten eta jendeak asko abesten zuen.

3.143. Komite Internazionalistak (BER-376/062)

Komite Internazionalistetan jardun du denbora luzez. Nola hasi zen eta zer egiten zuten. Askotan egon da Nikaraguan, Kuban, Bolivian, Saharan... SOS Racismo taldean ere ibili da kanpaina ezberdinetan. Komite Internazionalistan 70. hamarkadan hasi zen lankidetzan.

3.144. Lagunekin beti hika (BER-376/067)

Euskaraz hitz egiteko ohitura jendearen arabera da. Lagunekin hika egiten du.

3.145. Narbaiza Bolu baserri-errotia (BER-377/002)

Bergarako San Juan auzoko Narbaiza Bolu baserri-errotan jaio zen. Aitona izan zen azken errotaria. Hau hiltzean, Sebas-en aita udaletxean lanean hasi zen. 1970a arte errotia martxan egon zen.

3.146. San Juan auzoko eskola eta maistra (BER-377/003)

Ama, Angiozar-eko Aldai-Egia auzokoa zen. Lau senidetatik bigarrena da Sebas. San Juango auzoko eskolan ikasi zuen 3 urtetatik 8 urtera arte, adin ezberdineko neska eta mutilekin. Maistra euskalduna. Klaseak gaztelaniaz ziren arren, harreman guztiak euskaraz ziren. Ikasturte batez Uberako haurrak beraiekin ikasi zuten.

3.147. Auzo-eskolatik eskola nazionaletara, aldaketa izugarria (BER-377/004)

Maistra euskalduna izan zuten auzo-eskolan eta ez zuten inoiz zigorrik jaso euskaraz hitz egiteagatik. Maria Astigarraga zuen izena. Zortzi urterekin, herrira ikastera joan zen, eskola nazionaletara. Aldaketa oso handia izan zen eta giro guztiz erdaldun batean murgildu behar izan zuten. Jolas-orduetan baserritarren artean elkartzeko ziren ez zekitelako gaztelaniaz kaletarrak bezala komunikatzen.

3.148. Baserriko umeak vs. kaleko umeak (BER-377/005)

Baserritarrak izateagatik burlak jasotzen zituzten eskolan, baina gaztelaniaz txarrago moldatu arren eskolan ondo ibili ziren. Maisua ez zen euskalduna baina hizkuntzagatik ez zituen zigortzen. Astean behin Espainiako ereserkia abesten zuten. Orduan abestiak letra zuen.

3.149. Xabier Azurmendi Uberako abadea (BER-377/007)

Xabier Azurmendi Uberako apaiza euskaltzalea zen eta oso pertsona irekia. Auzokide guztiarekin hurbileko harremana zuen. Hark piztu zuen Sebas-en euskalzaletasuna. Euskal kulturaren alde lanean zeuden Simon Arrieta, Fernando Azkargorta, Miguel Okina... nola ezagutu zituen.

3.150. Pragako Jesus Haurtxoaren Kongregazioa (BER-377/008)

Santa Marinan ("Santamaña") egin zuen katekesia euskaraz Pilare Mujikarekin. Pragako Jesus Haurtxoaren kongregazioan ere ibili zen Don Pedro Garitano abadearekin.

3.151. Bere kabuz euskaraz alfabetatzen (BER-377/009)

Arrasateko Eskola Politeknikoan zegoela, lan baten euskarazko esaldi batzuk sartu zituen eta irakasleak animatu eta zoriondu egin zuen. Bere kabuz eta Uberako abadearen laguntzaz alfabetatu zen euskaraz. Zeruko Argia.

3.152. Urrats Berriak kultura hamabostaldiko disko eta liburu azoka (BER-377/011)

1974an Bergaran Urrats Berriak kulturako hamabostaldia antolatu zuen. Euskalgintzako ekimen batean parte-hartzen zuen lehen aldia izan zen. Liburu eta disko azoka antolatu zen Seminarixoko arkupeetan.

3.153. Urrats Berriak kultura hamabostaldiko ekimenak (BER-377/012)

Urrats Berriak kultura hamabostaldiaren barruan antolatu ziren ekintzak: erakusketak, bertsolariak (Manuel Lasarte, Lazkao Txiki, Uztapide...) eta abeslariak (Mikel Laboa, Artze, Pi de la Serra...), hitzaldiak... Hamabostaldiak, aldaketarako pausua suposatu zuen.

3.154. Barandiaranekin berriketan (BER-377/013)

Elementalean euskaraz alfabetatzeko gau-eskolak egoten ziren eta behin, ikasturte bukaera bat ospatzeko Joxe Migel Barandiaran gonbidatu zuten. Harekin izandako elkarriketa kontaktzen du.

3.155. Umetan koman egon zen auto batek jota (BER-377/015)

Garai batean, egunean auto gutxi batzuk pasatzen ziren kaletik eta hurrek bideetan jolasten zuten. Behin, kotxe batek Sebas jo zuen eta koman egon zen egun batzuk. Arruti abizena zuen Bilboko familia bat zihoan kotxean eta handik aurrera harremana mantendu zuten. 1965ean Bergaran Aberri egunean ere beraiekin bazkaldu zuten.

3.156. 1965eko Bergarako Aberri Eguna (BER-377/017)

1965ean Aberri Eguna ospatu zen Bergaran eta nahiz eta bazekiten zer ospatuko zen, ez ziren egoeraz oso kontziente.

3.157. Bergarako San Joan auzoko jaiak (BER-377/018)

Begarako San Joan auzoko jaietako egitaraua. Bertsolariak Bergarakoak edo ingurukoak izaten ziren. Esteban Igartua gai-jartzaile moduan ibili zen.

3.158. Erramun zapatuko txorimaloak Bergaran (BER-377/020)

Urrats Berriak kultura hamabostaldiaren barruan, zumitzezko ehundaka txorimalo egin zituzten eta herritik paseatzen zituzten. Ordutik, Erramun larunbatetan txorimaloak egiteko ohitura mantendu da.

3.159. Urrats Berriak kulturaldian herri guztia inplikatu zen (BER-377/021)

Urrats Berriak kultura hamabostaldian herriaren inplikazioa oso handia izan zen: gazteak, helduak, elkarte gastronomikoak, elkarte kulturalak, enpresak... euskararen aldeko mugimendu handia izan zen.

3.160. Bergarako Alkartu Nahi elkarteak; UNED-aren egoitza (BER-377/022)

Alkartu Nahi elkarteak Bergaran suposatu zuena oso garrantzitsua izan zen. UNED-en sorrera. Osasun-arazoei aurre egiteko elkarteak.

3.161. Bergarako UNED-ean euskarazko alfabetizazio ikastaroak (BER-377/023)

Begarako UNEDen euskarazko departamentua sortu 1976an eta euskarazko tituluak lortzeko ikastaroak antolatzen ziren. . Alfabetatze-barnetegiak Lekarozen eta Lekunberrin. Jende asko joaten zen Bergarara ziurtagiriak lortzeko.

3.162. Gau-eskolen arrakasta Bergaran (BER-377/024)

1976an ikastolako lokaletan gau-eskolak antolatu ziren. Jende askok izena eman zuen, ordura arte euskararekiko arrotzak izan zirenak ere. Arrakasta ikusita, irakasle gehio lortu behar zituzten eta Sebas ere aritu zen klaseak ematen.

3.163. Gau-eskoletako metodologia eta materiala (BER-377/025)

Gau-eskoletan erabiltzen zuten metodologia: Euskalduntzen I eta II eta Alfabetatzen I. Osintxun ikasturte batez alfabetatze klaseak eman zituzten eta baita Bergarako merkatari-emakume talde bati ere.

3.164. Herri-eskolak euskalduntzen (BER-377/027)

Herri-eskoletan borondatezko euskara klaseak eta ekintzak egin zituzten. Regino Valle kultura eta hezkuntza inguruan asko mugitu zen arren, herri-eskolako harremanak Pablo Etxezarrarekin egiten zituzten, hango irakasleak ez zeudelako euskararekiko kontzientziatuta.

3.165. Institutua euskalduntzen (BER-377/029)

Begarako Institutuan, herri-eskolan bezala, euskarazko borondatezko klaseak eman zituzten.

3.166. Polpol-eko tabernan oso giro euskalduna (BER-377/031)

Pol-Pol mendi elkarteak taberna bat zabaldu zuen Juventudes-eko eraikin berdinean. Tabernan, giro euskaldun eta euskaltzalea zegoen.

3.167. Bergarako Juventudes Parroquiales (BER-377/032)

Juventudes Parroquiales-ek gazteekin egin zuen lana goraiatzeko du. Hitzaldiak ematen zituzten, liburutegia zegoen, aldizkari txiki bat argitaratzen zen, jendea ezagutzeko inguru egokia zen... Izena erdalduna eta elizarekin lotuta izan arren, euskaltzaleak ziren denak. Sebasen gazte garaietan Juventudesen beherakaldia ematen hasi zen.

3.168. Ikastolaren taberna (BER-377/034)

Begarako ikastolaren tabernan euskararekiko sentimendu handia zegoen.

3.169. Bergaran euskarekiko kontzientziazio pizten (BER-377/035)

1965 inguruan, Bergara andaluziar asko heldu ziren lanera. Autobusetan nola heltzen ziren gogoratzen du. Eskolek gainezka egin zuten. Haiek ez zuten Bergara erdaldundu, aurretik ere kalean gaztelaniaz hitz egiten zelako. Baina herrian zeuden elkarteek eta batez ere UNED-ak eta honek asteburuero

Bergarara hurbiltzen zituen euskaldun talde mordoek, bergararren kontzientzian zerbait piztu zuen eta herria euskalduntzen hasi zen.

3.170. HABEn lanean 1982tik (BER-377/037)

1982an HABEn hasi zen lanean. Orduan udal euskaltegiak, barnetegiak... antolatzen hasi ziren. Bergarako AEK lehendik sortua zen.

3.171. 1978ko Euskaltzaindiaren biltzar orokorra Bergaran (BER-377/038)

1978an Euskaltzaindiaren biltzarra egin zen Bergaran. Sebas antolaketa batzordean parte hartu zuen. Hamar urte lehenago Arantzazun hartutako erabakien balorazio bat egin zen,

3.172. Euskaltzandian egondako liskarrak euskara batua sortu zenean (BER-377/039)

Euskaltzaindiaren biltzar horretan, euskara batuaren ortografia-arauei buruz asko eztabaidatu zen eta liskar handiak ere egon ziren urgazle ezberdinen artean. Mikel Zarate, Labayruko ordezkaria euskalkien eta eta euskara batuaren nahasketa baten aldeko urgazlea zen.

3.173. Ikurrina udaletxean eskegi zenean (BER-377/041)

1977an ikurrina udaletxeko balkoian eskegi zen eta egun hartako alkatearen hitzaldia itzultzen ibili zen Sebas. Alkateari zaila egin zitzaion testu hura irakurtzea, euskara batuan zegoelako.

3.174. Hainbat aldiz atxilotuta (BER-377/044)

Hamalau urte zituela Burgosko prozesuaren kontrako greban atxilotu zuten eta kuartelean egon zen. 1974ean ere manifestazio batean atxilotu eta isuna ordaindu behar izan zuen. 1976an Donostian atxilotuta egon zen hiru egunez. Guardia Zibila etxean izaten zuten aldiro.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2024-05-03

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com